EUSKERA

2009
54, 1
BILBO
ISSN 0210-1564

EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo
Telefonoa: 94 415 81 55 • Faxa: 94 415 81 44
e.posta: info@euskaltzaindia.net • weg gunea: www.euskaltzaindia.net

Aldizkari hau beste agerkariekin trukatzen da
Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones
Cette revue s'échange avec d'autres publications
This journal can be exchanged for others by agreement

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.
Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN 0210-1564
Lege Gordailua: BI-1244-58

Diseinua: www.ikeder.es

Preinpresioa: Composiciones Rali, S.A.
Particular de Costa, 8-10. 48010 Bilbo

Inprimategia: Baster, Talleres Gráficos, S.L.L.
Pol. Atxukarrro, 2, 48480 Arrigorriaga (Bizkaia)

Euskera Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da, 1920. urtetik argitaratzen dena. Urtean hiru zenbaki argitaratzen ditu, lehena eta hirugarrena, Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa biltzen dituztenak (sarrera-hitzaldiak, hizkuntza-arauak, jardunaldiak...), eta bigarrena, Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen dituena.

*Euskera*ko artikuluak banan-banan katalogatzen eta indexatzen dira *Azkue Bibliotekar*en katalogoan (http://www.euskaltzaindia.net/azkue) eta erakundearen web guneko bilatzaile berezi batean (http://www.euskaltzaindia.net/euskera), aldi berean formatu digitalean eskainiz. Orobat, *Inguma* (http://www.inguma.org) eta *Dialnet* (http://dialnet.unirioja.es/) datu baseetan jasotzen dira.

La revista ***Euskera*** es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y se publica desde 1920. Publica tres números al año, de los cuales el primero y el tercero recogen los trabajos y actos académicos de Euskaltzaindia (discursos de ingreso, normas lingüísticas, coloquios...), mientras que el segundo se dedica a publicar artículos de investigación originales en los varios ámbitos de trabajo de la Academia, reseñas de libros y similares.

Los artículos de *Euskera* son catalogados e indexados en el catálogo de *Azkue Biblioteka*, la biblioteca de la Real Academia de la Academia de la Lengua Vasca (http://www.euskaltzaindia.net/azkue) así como en un buscador específico disponible en su página web : (http://www.euskaltzaindia.net/euskera) donde además se ofrecen en formato digital. Asimismo se recogen en las bases de datos *Inguma* (http://www.inguma.org) y *Dialnet* (http://dialnet.unirioja.es/).

La revue ***Euskera*** est la publication officielle de l'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia, Elle paraît depuis 1920. Trois numéros sont publiés par an, dont le premier et le troisième rassemblent les travaux et activités académiques d'Euskaltzaindia (discours d'intronisation, normes linguistiques, colloques, etc.), tandis que dans le deuxième sont publiés des articles originaux de recherche portant sur l'un des différents domaines de travail de l'Académie, comptes rendus de livres et autres publications.

Chaque article d'*Euskera* est répertorié et indexé dans le catalogue de la *Bibliothèque Azkue*, la bibliothèque de l'Académie de la langue basque (http://www.euskaltzaindia.net/azkue) ainsi que dans un moteur de recherche spécifique disponible sur son site Web : (http://www.euskaltzaindia.net/euskera), où ils sont également proposés au format numérique. Par ailleurs, ils sont enregistrés dans les bases de données *Inguma* (http://www.inguma.org) et *Dialnet* (http://dialnet.unirioja.es/).

Euskera is the official journal of the Royal Academy of the Basque Language/Euskaltzaindia and has been published since 1920. Issues are published three times a year: the first and third contain the work and academic activity of Euskaltzaindia (induction speeches, language rules, symposia...), while the second is dedicated to publishing original research articles in the various areas of the Academy's work, book reviews and the like.

Euskera articles are catalogued and indexed in the Royal Academy of the Basque Language's *Azkue Library*, (http://www.euskaltzaindia.net/azkue) as well as on a specific search engine available on its website (http://www.euskaltzaindia.net/euskera), where they are also provided in digital format. They are also held on the *Inguma* (http://www.inguma.org) and *Dialnet* (http://dialnet.unirioja.es) databases.

Euskera. 2009, 54, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564

EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA



IDAZKETA KONTSEILUA

Zuzendaria: ANDRES URRUTIA BADIOLA. Euskaltzaindia. Bilbo
Idazkari akademikoa: ANA TOLEDO. Euskaltzaindia. Donostia
Idazkari teknikoa: RICARDO BADIOLA. Euskaltzaindia. Bilbo

ADOLFO AREJITA.
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JEAN-BAPTISTE COYOS.
Iker (C.N.R.S., Bordele 3, UPPA). Baiona

JOSEBA ANDONI LAKARRA.
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANDONI SAGARNA.
Euskaltzaindia. Donostia

PATXI SALABERRI.
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

MIKEL ZALBIDE.
Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila. Gasteiz

AHOLKU BATZORDEA

MIREN AZKARATE
Euskaltzaindia. Donostia

JOXE AZURMENDI
Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia

XARLES BIDEGAIN
Paueko eta Aturri herrialdeetako Unibertsitatea. Baiona

JOSU K. BIJUESCA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

GIDOR BILBAO
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

IÑAKI CAMINO
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANA ETXAIDE
Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea

JOSE RAMON ETXEBARRIA
Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo

MAITE ETXENIKE
Universitat de València. Valentzia

PATXI GOENAGA
Euskaltzaindia. Gasteiz

RICARDO GOMEZ
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

MANUEL GONZALEZ
Real Academia Galega. Coruña

JEAN HARITXELHAR
Bordeleko Michel de Montaigne Unibertsitatea. Baiona

ITZIAR IDIAZABAL
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

JOSEBA INTXAUSTI
Euskaltzaindia. Donostia

IÑAKI IRAZABALBEITIA
Elhuyar Fundazioa. Usurbil

JAZINTO ITURBE
Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa

JABIER KALTZAKORTA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

ALBERTO LOIZATE
Basurtuko Ospitalea. Bilbo

JUAN MADARIAGA
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

JOAN MARTÍ
Institut d'Estudis Catalans, Secció Filològica. Bartzelona

ENEKO OREGI
Eusko Jaurlaritza. IZOko burua. Gasteiz

JON ORTIZ DE URBINA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

ROSA MIREN PAGOLA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JOSE ANTONIO PASCUAL
Real Academia Española. Madril

TXOMIN PEILLEN
Euskaltzaindia. Baiona

IBON SARASOLA
Euskaltzaindia. Donostia

JOAN MARI TORREALDAI
Euskaltzaindia. Donostia

MIRIAM URKIA
UZEI. Donostia

JUAN JOSE ZUBIRI
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

Batzorde teknikoa: JON ARTZA *eta* PRUDEN GARTZIA *(Euskaltzaindia. Bilbo).*

EUSKERA

AURKIBIDEA

EKITALDIAK:

• **Joseba Lakarra Euskaltzaindian sartzea**

[13] *Ongietorria*
OLANO, Josu Sabin

[15-16] *Agurra*
URRUTIA BADIOLA, Andres

[17-98] *Aitzineuskara eraikiz: zergatik ezkerra?*
LAKARRA, Joseba Andoni

[99-111] *Gabon kantak eta arkaismoen bestelako mintegiak. Joseba Andoni Lakarraren sarrera hitzaldiari erantzuna*
ARANA MARTIXA, Jose Antonio

[113-115] *Arratzu*
ALBERDI ARETXERRETA, Dorleta

• **Euskaltzaindiaren 90. urteurrena: Araba**

[119-121] *Ongietorria*
ZARATE, Juan Antonio

[123-124] *Agurra*
URRUTIA BADIOLA, Andres

[125-126] *Celebración del 90 aniversario de Euskaltzaindia*
AGIRRE, Xabier

[127-140] *Arabako idazleak*
URIBARREN, Patxi

Euskera. 2009, 54, 1. 5-8. Bilbo
ISSN 0210-1564

[141-148] *Arabaren arabera*
RUIZ URRESTARATZU, Manu

[149-153] *Gasteizko Toponimia egitasmoaren lehen liburuki biak*
LIZUNDIA, Jose Luis

[155-161] *Toponimia de Vitoria*
MARTINEZ DE MADINA, Elena

• **Euskaltzaindiaren 90. urteurrena: Iparraldea**

[165-166] *Ongietorria*
AROTZARENA, Patxi

[167] *Agurra*
URRUTIA BADIOLA, Andres

[169-174] *Euskaltzaindiaren 90. urteburukari*
CHARRITTON, Piarres

[175-181] *Jean Hiriart-Urruty (1927-1990)*
LARRE, Emile

[183-192] *Hazparneko euskara XVIII. mendeko testu argitaragabe baten arabera*
PADILLA, Manuel

[193-210] *Hazparneko euskararen berezitasunez bi hitz*
DUGUINE, Maia

JARDUNALDIAK:

• **Uztapide bertsolariari omenaldia 100. urteurrenean**

[215] *Uztapideren omenez*
ZUBIMENDI, Jose Ramon

[217-220] *Uztapide bat-batean*
ALDAI, Nikolas

[221-240] *Uztapide bertsolaritzaren historian: ardatz, gailur eta maisu*
ESNAL, Pello

[241-243 *Uztapide: eskua bertsotan*
ARANBURU, Antton

[245-253] *Gai-jartzaile baten larriak*
IRIONDO, Josemari

[255-256] *Uztapidek 100 urte (bertsoak)*
EUZKITZE, Xabier

• **Toponimia ikastaroa**

[259-263] *Toponimia gizarteratzeko lanen garrantzia*
MUGURUTZA, Felix

[265-277] *Kale-izendegiak: izenak hautatzeko erabiltzeko arauak*
GORROTXATEGI, Mikel

[279] *Getxo*
ARANGUENA, Javi

[281-282] *Zumaiaren izana izenen bidez gizarteratzea*
AZKUE IBARBIA, Imanol eta AZKUE IBARBIA, Xabier

[283-286] *Erandio*
HERNANDEZ, Ane eta ARRIAGA, Amaia

[287-291] *Bermeo*
ALVAREZ DE ZARATE, Maite

[293-296] *Errenteria*
JAUREGI, Jose Mari

IKERKETAK:

[299-306] *Le basque langue eurasienne (suite)*
MORVAN, Michel

[307-342] *Marquina 1923: Student Rollo and his wife among the Basques; South-Africa 1926: Professor Rollo and his wife among the South-Africans*
EGGERMONT-MOLENAAR, Mary (Calgary),
with contributions of Martin and William ROLLO Jr. (Cape Town), GARTZIA, Pruden and KALZAKORTA, Jabier (Bilbao)

AGIRIAK:

[347-403] Euskaltzaindia. Batzar-Agiriak

HITZARMENAK:

[407-414] *Euskaltzaindia eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa: Hitzarmena (2009-01-21)*

[415-422] *EiTB eta Euskaltzaindia: Hitzarmena (2009-04-21)*

[423-427] *UNESCO Etxea eta Euskaltzaindia: Hitzarmena (2009-06-23)*

* * *

[431-434] *Euskera* agerkariaren idazketa arauak

[435-438] Normas de redacción de la revista *Euskera*

[439-442] Normes de rédaction de la revue *Euskera*

[443-446] Writing guidelines for the journal *Euskera*

Ekitaldiak

Euskera. 2009, 54, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564

Joseba Lakarra Andrinua
Euskaltzaindian sartzea

Arratzu, 2009-V-30

Euskera. 2009, 54, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564

Ongietorria

OLANO IRAZABAL, Josu Sabin
Arratzuko alkatea

Egun on denori.

Bihotza sutan eztarria siku.

Eskerrik asko Joseba Andoni aukeratu dozulako Arratzu ekitaldi hau ospatzeko benetan. Gure herriarentzat ohore haundia da Arratzu zabaltzie kanporantz.

Sarrera amaituta lehenengo da behin ongi etorriak etor zarien guztiei. Ongi etorri Lehendakari jauna.

Uste dogu aukeratu dogun lekua ekitaldi hau ospatzeko zuen gustukoa izango dela, behintzat ahalegin guztiak egin doguz. Egun haundi baterako leku potente bat.

Joseba Andoni Lakarra zu zara gaurko protagonista zuri eta zure familiari bihotz-bihotzez zorionak benetan. Zeure eguna da. Sentitu eta ospatu. Merezi du gaurko egunak.

Euskaltzaindiari eskaera bat segi lantzen eta zaintzen gure hizkuntza beharrizena daukagu zuen beharra isilean baina aberatsa da. Hori da balio duena.

Apaltasunean segi aurrera Euskaltzaindiari herri honetako ateak beti eukiko dozuez zabalik.

Beste barik.
Eskerrik asko etor zarien guztioi.
Agur.

Euskera. 2009, 54, 1. 13. Bilbo
ISSN 0210-1564

Agurra

URRUTIA BADIOLA, Andres
Euskaltzainburua

Eusko Jaurlaritzaren kultura sailburua,
Nafarroako Gobernuaren ordezkaria,
Agintariak,
Arratzuko alkatea eta zinegotziak,
Urbaibaiko mankomunitatearen alkateak eta zinegotziak,
Joseba Lakarraren etxekoak eta senitartekoak,
euskaltzainak,
bestelako elkarte, erakunde eta abarrekoak,
arratzuarrak,
jaun-andreak,

Egun on guztioi, Arratzuko herri honetatik. Gaur hemen dago Euskaltzaindia, Joseba Lakarra herriko semearen sarrerahitzaldia entzuteko, eta, bera euskaltzain oso izendatze aldera, ekitaldi honetan partaide izateko.

Nor Joseba Lakarra, zein Euskaltzaindia? Bata eta bestea aski ezagunak direlakoan, azpimarra ditzadan oraingoan Josebaren dohainak, jakituria, prestutasuna, eta ikerketarako sena eta grina.

Baditu horretarako kideak, egun gurekin daudenak. Kideak kide, alabaina, berak jakin du euskararen historian antzinako euskarak dituen zokondorik ilunenak ere argitzen hastea.

Omen egiten dio gaur Euskaltzaindiak, euskararen akademiak, kide berriari. Horrekin batera ere, ezin garbiago adierazten dio berarenganako us-

Euskera. 2009, 54, 1. 15-16. Bilbo
ISSN 0210-1564

tea, esparru askotan euskararekiko erakutsi duen zaletasuna akademiaren lanetara ere ekar dezan.

Fruituetatik ageri da arbola; obretatik, gizona. Jakin badaki Euskaltzaindiak obretan sendo eta ugari dela Joseba Lakarra, eta, egile ez ezik, eragile ere badela. Halakoak nahi ditu, halakoak behar ditu gure akademiak.

Arratzuko eliza honetan fielharria dago atarian. Hor batu eta erabaki dituzte arratzuarrek euren aferak mendeen mendeetan. Horixe da, izan ere, joanaren eta gaurkoaren lekuko, geroa ere ikusiko duela.

Fielharri horrek ikusiko zuen, lehenago ere, arratzuarrek herriko gobernurako egiten zuten zina. Gauza bera egingo da gaur hemen, Joseba Lakarra arratzuarraren zina eta konpromisoa jasoko ditugulako, euskararen akademian kide eta lankide izateko.

Zorionak, Josebaren etxekoei. Zorionak, Arratzuko herriari. Etxekoak izaten dira, gure gorabehera guztien gainetik, ondoen eta sakonen ezagutzen gaituztenak. Eurek jakingo dute, inork baino ziurrago, behinola Arratzun jaio eta egun euskaltzain oso egiten dugunaren berri eta albiste. Hitz gutxitan esateko, haren biografia osoa. Biografia horretan erakutsitakoa izan da, hain zuzen ere, Joseba Lakarra euskararen akademiara ekarri duena.

Zorionak, beraz, eta, bide batez, eskerrik asko elizari, gaur etxe eder hau erabiltzeko baimena emateagatik, eta, orobat, hau antolatzen ibili diren guztiei.

Aitzineuskara berreraikiaz: zergatik ezkerra?*

LAKARRA ANDRINUA, Joseba Andoni
Euskaltzain osoa
(UPV/EHU eta JUMI)

> Je ne conçois mon travail de comparatiste que comme un va-et-vient perpétuel entre la théorie et la pratique, entre la linguistique générale et la philologie. C'est ce qui en fait tout le prix (de Lamberterie 1998: 37).

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburu Anderea,
Euskaltzainburu Jauna,
Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako agintariok,
Euskaltzain Oso, Ohorezko eta Urgazleok,
Senide, adiskide eta lagunok,
Arratzuar maite guztiok,

Egunon

1. On da, egunero ezin bada ere, noizean behin gure jardunaren oinarriak begiratzea. Izan ere, usuenik, bizitzan nahiz lanean, zurrunbilo etengabeak jan egin ohi gaitu epe motzean, zer, zertarako eta zergatik ari garen jakin edo gogoratu gabe. Larriago dena, zurrunbilo horrek eginkizunak eta egitekoak zein diren ohar-

* Lan hau Madrilgo Ministerioak lagundutako «Monumenta Linguae Vasconum III» (FFI2008-04516) Ikerketa-Egitasmoaren eta Eusko Jaurlaritzako GIC07/89-IT-473-07 Ikerketa Talde Iraunkorraren emaitzen artean kokatzen da. Eskerrik zintzoenak Gidor Bilbaori, Ana Iriarteri eta Juanjo Zearretari (gehi honen kideei) Arratzuko 2009-V-29ko hitzaldia prestatzerakoan emandako laguntza oparoagatik. Ricardo Gómezi zor diot, azkenik, testua asko hobetu duen azken orduko orrazketa.

tzeke, behin baino sarriago nekatu, berotu, ito zein desbideratu ohi gaitu –ni behintzat bai– bigarren edo hirugarren mailako eztabaida antzu eta llillura agorretan.

Nire ohiko egitekoa –zorionez ez bakarrik nirea, jakina, eta itxaroten dut hori ahal bezain garbi gera dadin– hizkuntzaren historia da; azken urteotan, zehatzago esateko, historiaurrea gehiago historia bera baino, beharbada. Hots, haren egitura eta ezaugarrien etengabeko, oraingoz eta –itxaron dezagun!– mende luzez, hasiera ez amaierarik ez duen bilakabidearen ikerketa. Arratzun inon baino gehiago eman zidaten eta ematen didaten –eta zinez eskertzen diedan– euskalduntasunagatik ez baizik eta nik (edo neure zirkunstantziek) hala erabakirik, afizio eta ofizio horri lotu nintzaion aspaldi, hor aurkitu nituen maisuen (Mitxelenaren eta, haren bitartez, Meillet eta beste askoren) lanbide eta jokamoldeek erakarririk. Niri, lotsarik nekez eman ahal didaten arrazoiengatik euskararena hautatu zitzaidan hizkuntz historien artean, besteri maiarena, eslabierarena, txinerarena edo ainuerarena egin ohi zaien legez.

Ezagun da gure hizkuntzaren jatorriak eta ahaideak etengabe bilatu direla, gutxienez azken 500 urteotan edo.[1] Hainbat denborak, lanek eta izerdik emaitza eta etekin on eta oparorik iragartzen bide zukeen; badakizue, harako «ezina ekinez egina» edo. Haatik, hizkuntzalaritzan zein beste edozertan, gehiagotan aurkitu ohi dugu «ezina, ezin egina». Zalantzarik gabe, «zenbat buru, hainbat aburu» betetzen da euskararen iraganarekiko istoriogintzan; hobe esan: «zenbat buru, GUTXIENEZ hainbat aburu». Izan ere, ez da bakana iritzi eta ustekizun bakarra baino gehiago izan duenik, Schuchardt, Uhlenbeck edo Tovar, esaterako, aspaldiko ikertzaile errespetagarriak baino ez aipatzearren, oraintsuagoko friki samaldak bazter utzirik.[2]

---

[1] Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia*-ren arabera ez da hau euskararen historiakoen artean arrakasta gutxieneko gaia, alajaina; besterik dira, hurbilketen kalitate eta emaitzak, noski. Ikus Tovar (1980), Gómez (1989) eta Madariaga (2006) historiografiarako eta Mitxelena (1964) eta Trask (1997)-ren azken atalak eztabaida kritiko argi batzuetarako. Erabilitako metodoen eta estandarren aldetik, interesgarria da, orobat, bata-bestearen ondotik irakurtzea De Alonsok (2007) egindako iruzkinak Jean Braunen euskara eta kartveliera eta tibeto-burmera eta sumerieraren artean (!) egin erkaketez; ez da ahazteko, bidenabar, Boudak euskara eta Kaukasoko hizkuntzak ez eze sumeriera, etruskoa, paleosiberiarrak, nahuatla, kitxua eta beste zenbait hizkuntza ere erkatu zituela, noiz multo batzutan bildurik, noiz bestetan.

[2] Norbaitek, –autopropaganda egiteko beste biderik aurkitzen ez zuelako edo– hala ulertu ez duenez, esan dezadan, agindu bezala, hitzaldian ez nintzela frikiez aritu, ofiziokoez baino, inoiz



2. Koldo Mitxelenak badu bere lehen lanetarik izan zen 1950. urteko «De etimología vasca» paregabean, Karl Boudaren erkaketa eta etimologia lanen oinarriekiko kritika erabatekorik eta ez dut, bada, nik hark hain ongi egindako lana hemen berregiten aritu beharrik. Mitxelenak zehatz eta gupida gabe markatu ondoren Boudaren iruzur fonetikoak –eta Bouda ez zen luzaroan hizkuntz erkaketan desegoki bezain hedatua dugun jokabide baten ordezkari baizik– aski izan bekit horien osagarri diren iruzur morfologikoez oharñoren bat gehitzea ondoko orrialdeetan ukituko diren zenbait gauza aurreratuaz. Ez dut horretarako, adibide gisa, Boudak 1950.ean bertan bere beste lan batean aurkeztu nahi zizkigun harribitxirik ederrenak gogoratzea baizik:

> *ih-i, eh-i (209), lab-ur (211), garb-i (214), e-rh-i (ibid), oke-l, oke-la (216), ag-eri (ibid), eg-ur (217), nag-i (ibid), i-gord-i (ibid), ud-a (218), (h)ord-i (219), e-rd-i (ibid), e-tse (221), a-tso (222), i-tsa-so (ibid), sabe-l (ibid), e-tsa-i (ibid), i-tses (223), sat-arri (ibid), a-tz-o (ibid), e-zk-ur*

---

hauek irizkide izan ez arren; idatzizko bertsio honetan ere ez dut enparatuentzako astirik hartu, neure jardunerako egiteko eta eginbehar hoberik bazelakoan.

> *(224), e-zte-n (ibid), zab-ar (ibid), uzk-i (ibid), e-z-ti (225), ze-ze-n (ibid), uzt-a (226), zita-l (ibid), z-ar (227), a-tze (ibid), e-zpe-l (229), i-zpi (ibid), o-zpi-n (ibid), i-zpor-tu (ibid), e-zpa-ra (ibid), e-zku-tu (ibid), a-zku (ibid) (Bouda 1950).*

Hitz-mozketak Boudarenak dira, noski, eta ez nireak: horrenbestez, euskal erro zaharrak *V-, l-, g-, n-, ts-, zk-, zt-, zp-* eta gisa horretako hotsez hasi eta *-h, -b, -rb, -V, -g, -rd, -d, -zt* eta antzekoez amaitzen zirela suposatzen zuela dakusagu eta, gauzak osatzeko edo, bokalik gabeko silabak ere bazirela beraietan. Horrelako ezer sinestea neke egiten zaio euskara zahar zein berriaren fonotaktikaz ezer dakienari eta maltzurren batek, bestalde, pentsatu duke horrelako zatiketak –edo oinarri gabeko analisiak– eginaz edozer gauza beste edonongo zernahirekin erka litekeela izerdi handirik gabe.[3]

Kontua da, gainera, hizkuntzaren azken-azkeneko jatorriaren bila aritu direlarik askotxok hizkuntza bera, benetakoa alegia, atzendu eta ahaztu ere egin duela. Demagun *handi* oinarritzat hartuaz latineko *grandis* azaldu nahi duela urliak (Vennemannek, esaterako) eta horrenbestez, **grandi* bat suposatzen duela, hasierako kontsonante multzoa eta guzti, glaziazio ondoko euskararen jatorri omen litzatekeen hizkuntza zahar hartarako; badakizue, duela 10 edo 12 mila urteko *Vasconic* edo euskararen arbasoarentzat.[4] Ze poza, ezta? Latina eta latinetiko beste hainbat hizkuntza gure asaba zaharren hizkuntzaren zordun! Gurea, ez Kantabriko eta Pirineoen ertz bateko hizkuntza txiki askoa, baizik eta Europa osoa eta areago estaltzen zuen erraldoiaren oinordeko!

---

[3] Goragokoez landa, ikus lau urte beranduago Mitxelenak Holmerri egindako gutun batean (*apud* Satrustegi 1998: 325-326) Boudari buruz esandakoaren muina, orduan eta gero ere bati baino gehiagori egokitzeko modukoa, bidenabar.

[4] Vennemannen teoriaren hizkuntz oinarriez (oinarri faltaz) ikus Lakarra (1996a) euskal alderditik baina ezin ahantz –alderdi hori lehenago baitago metodologikoki– Kitson (1996), Polomé (1999), Baldi & Page (2006) eta beste hainbat indoeuropearretik ere. Azken urteotan hain gustuko duen Europa mendebaleko sustrato semitiko are ahulagoaz ere bada bibliografia, baina ez Vennemannen usteen aldekoa, hain zuzen ere. Polomé enparatuak baino laburrago da baina ez ilunago: «A new theory, advanced by Theo Vennemann (1993, 1994a, 1994b, 1995), assumes that Basque is the substrate of Old Europe. This seems to be elucidating the unknown by the even more obscure!» (1999: 52). Eta ezin atzendu, halaber, haren beraren lanaren bukaera –«Vennemann is undoubtedly a brilliant linguist whom I deeply admire, but in this case, he unfortunately seems to have completely missed the boat!» (Polomé 1999: 55)– zeinarekin beste asko eta ni bat gatozen hitzez-hitz eta letraz-letra.

Badakit zenbaitentzat ilusioa bizigarri eraginkor eta ezinutzizko dela; eta gehiago ere bai: bizipoza inori kentzen diona ez bide liteke hiritar on ez abertzale zintzo izan, XIX. mendean Arakistainek zioenez historiak ez baitu naziogintzan ipuinek adina laguntzen. Nago, ordea, naziogintzaren aldekook ere –batez ere aldekook, agian– hobe dugula geure llillurak xeheki eta zuhurki hauta. Izan ere *grandi* batetik ezin atera liteke *handi*, dakigun guztiaren arabera /Cr/ taldeak euskara zahar eta berrian, atzora arte, ez baitira maileguetan baino izan eta horietan ere berehalakoan hautsi ohi ziren, modu batera edo bestera.[5] Ezin, beraz, historiaurre loriatsu hori sasi-antzekotasun eta sasi-istorio hauen gainean eraiki.

Are okerrago; euskarazko hitzaren bitartez latinekoaren jatorria argituko bagenu ere –eta, kasu, indoeuroparlariek Vennemanni argi eta sarri esan diotenez,[6] ez dute horretarako euskararen laguntzaren inongo beharrik–,[7] euskalari bezala, harako Canaangoan norbaitek bere amari esandakoa erre-

---

[5] Azalpen klasikoak (Mitxelena 1957, *FHV*, 1974), CrV > CV1rV1 dio (*granu* > **garanu* > *garau(n)*, *libru* > *liburu*, etab.), baina nago CrV > CVr zenbait ere izan dela: cf. *istar* < *ristra, bazter* < **praesepre*, *ater(i)* [< **arte*] < *uerte(re)*, etab. (ikus Lakarra prest.-1). Ikertu egin beharko, noski, bataren eta bestearen baldintza edota kronologiak.

[6] Cf. «The Indo-Europeanness of *alteuroäisch* names was obvious to Krahe and his colleagues from the beginning. Occasional attempts to prove otherwise depend on ignoring a lot of the evidence presented above and falsifying some of it. A recent such exercice, that of Vennemann (1994), parades a technical linguistics (specifically morphological) virtuosity that may mislead the unwary but lacks proper control in several directions. The collapse of diachrony already mentioned in the argument about suffix-combinations resurfaces in the gise of addition without documentation of many new items to Krahe's lists of *alteuroäisch* names, ignoring early forms that are documented, and unsignalled use of examples that are not river-names» (Kitson 1996: 95). Vennemannen akats eta ahulezia filologikoez bada gehiago Kitsonen beste hainbat pasartetan eta 4. oharrean aipatu gainerako lanetan.

[7] Cf. «In conclusion, the contact between Basque and the neighboring peoples seems to have had scanty linguistic influence, which even makes it more improbable that Basque functioned as a grandiose pre-IE substrate which left abundant traces in the onomastics of Ancient Europe» (Polomé 1999: 52).

Bidenabar, bada Donald Ringeren lan interesgarri bat (*Filoblogia*-n aurki liteke zehaztasun gehiago) historiaurreko Europaren ustezko mapa linguistikoaz, zeinetan dozenaka hizkuntza eta hainbat familia aurreikusten diren, ez bakarra (dela Vennemannen *Vasconic* ditxosozkoa zein besteren bat), gaur bertan Amazonian eta Ginea Berrian dugun bezala edo historikoki europarrak edota beste inperio batzuk iritsi baino lehenagoko gainerako kontinenteetako lurralde gehienetan legez.

pikatuko genuke: «emakumea, eta zuri eta niri zer?» Hots, euskalari bati –inori behar ez dituen mesedeak egiten ibili beharrean–, axola diona zera da, ea *handi* hori nola azaldu ahal den eta zein izan den horren balio eta bilakabidea gure hizkuntzaren barnean, azken mila urtean edo, demagun. Horrela, goikoak oro eta Vennemannek erants litzakeen guztiak baino interesgarriago litzaiguke *haundi,* horren aldaera, –eta orain *Orotariko Euskal Hiztegia*-k berrets lezake edozeinek *FHV* edo *Sobre el pasado*-ri eskerrak zekiena– ia atzo goizekoa dela (XVIII. mendekoa) eta Gipuzkoan lehendabizikoz lekukotua, Bizkaian eta Zuberoan, Erdiaroko Nafarroan bezala, diptongo gabeko formek zirauten bitartean, askotan edo gehienetan gertatzen denaren aurka, hain juxtu (cf. G mod. *alki, arkitu*, etab.). Ez da harritzekoa hor izatea aukera –erregela bihurketaz– *handi* > *haundi* gertatzeko inon baino lehen, *labe* > *laba, lore* > *lora*, etab. soilik *-a* + *-a* > *-ea* ematen zen tokietan (ez *-e* + *-a* > *-ea* orokorraren eremuetan) gertatzeko diren arrazoi berdinengatik. Pena da, beharbada, Vennemannek *haundi* horri kideak aurkitu uste dizkiolako germanikoz, baina –gustoko izan nahiz ez izan– filologia eta dialektologia ere ameskeriak baino lehen dira hizkuntzalari historikoaren jardunaren hierarkian, baita euskalaritzan bertan ere.

Bestalde, hitz zahar asko, erro sinple zaharrak, hobe, silaba bakarrekoak izaki (ik. Lakarra 1995hh), *handi*-k zergatik bi silaba dituen galdetzea ere ez litzateke alferrikako, ezta Vennemannenak baino merezimendu gutxiagoko, baita halabehar hutsa ote den *-di* amaiera bera errepikatzea *idi, zaldi, ardi* eta enparatuetan ere, eta are *han-* hasiera bera *anhitz,* orain ekialdeko, baina noizbait orokorra zen kuantifikatzailean, *ahuntz, akher, ahari,* edo *andots* animalia izenez landa (ik. Gorrotxategi & Lakarra 2001).

«Local phylologist» direlakoen xehetasun hauetarik bista apur bat jasoaz, hizkuntzalaritza historikoak eta diakronikoak aspaldi utzi zion anekdotazaleen bigira eta bilguma izateari, inoiz horrelakotan ibili bada, bederen: hots, «zelan esaten zen «ardao» duela bi mila urte?» demagun, edo «*adar* hitza zeltatik ote dator?» eta holakoak ez dira, dakidalarik, bere ardura nagusia azken mende parean edo, zenbait zaletu hemen inguruetan eta urrutixeago ohartu ez den arren. Larry Trask zenak legez, nik ere uste dut hizkuntzaren historiaren grina omen duen askok egindako galderak (?!) eta beren buruei ezarritako egitekoak ez direla hizkuntzalarientzakoak, psikologoei eta beste-

lako psiko- batzuei dagozkienak edo –leku frangotan– legozkiekeenak baizik: «zergatik izan behar du euskarak arbasorik ez duen hizkuntza bakarra? Ze tristea ezta?», bota zuen behin John Bengtson delako Oklahoma aldeko jaun txito xelebre batek.[8] Trasken pazientzia eta umorerik ez dugunok, nola erantzun ahal honelako presuposizio okerrez betetako itaun eta galderei?

Hau da, oraingoz ez da egingarri metodo orokor estandarrekin euskara sailkatzea (genetikoki, ez tipologikoki) eta dagoeneko lortu ez bada zail egiten zaie ofiziokoei sinestea gutariko batek, halabeharrez edo loterian jokatuaz, horrelakorik lor lezakeenik. Ez da gutaz –ez euskaldunez, ez euskalariez–[9] iritzi txarra dutelako edo ez direlako fido, edo ez bakarrik horregatik, behintzat; ofiziokoek ezagutzen dituzte ongi, zeinek bere esparruan sofritu dituelako, gure mugak eta gabeziak, are gurea baino alde guztietarik (lanabesez eta giza baliabidez, ikerketa tradizio luzeagoez gainera) ehun bider hobeto diren hizkuntza eta familietan.[10]

---

[8] Euskal Herritik kanpora ere noizean behin oker eta akatsik badela ikusiaz lasai gaitezen, jakingarri deritzot *Journal of Chinese Linguistics* bezalako toki batean 1991ko alean delako Bengtson horri «Notes about Basque and Chinese» argitaratzen utzi ziotela, baita Parisko *Bulletin de Linguistique*-n –bai, Meillet, Benveniste, Kurylowicz, Martinet, Lafon eta Mitxelenaren aldizkari berean– Michel Morvanek baduela 1992ko artikulu bat euskararekiko makrokonparaketa lanen propagandarekin; cf. horrelakoez Campbell (1988) eta Matisoff (1990) beste askoren artean. Euskara ukitzen dutenez ezinbestekoak dira Trasken lanak, batez ere haren 1997ko liburuko azken atala. Campbellen 2007ko lana oso interesgarri suertatzen da euskararen kasua (hizkuntza isolatua) munduko gainerako kideen artean kokatu eta sailkapen horien zergatiak argiro azaltzean.

[9] Lehen eta orain ere bereizkuntza ez da guztiz hedatua gure artean; Mitxelena (1954b)-n bada egileak bere jardueraren hasikinetan kontu horretaz egindako zenbait ohar egoki oraindik beren balio osoa gordetzen dutenak, eta baita bestelako gogoeta historiografiko batzuk ere, garaiak aldatzen diren arren –ia 60 urte igaro dira geroztik– jakingarri eta gogoangarri begitantzen zaizkidanak.

[10] Lakarra (1997b)-n ustezko ahaidetasun bereber eta kaukasikoen ahulezia erakusteko ez ginen mugatu euskarazko sasi-kognadoen azterketara: gure ahaidetzako hizkuntzetako benetako berezilarietara jo nuen (cf. Chaker 1984, 1995 eta Klimov 1991) euskararekikoak haien esparruetan zeinen urruti eta monta gutxiko ikusten diren ohartzeko; halaber, Morvan eta uraloaltaikoaz ikus 37. oharra. Zalantzarik gabe, hobe genuke –hizkuntzazko ondorioak dituzten hipotesiez ari bagara bederen–, familia linguistiko horietako berezilariei kasu egitea eta ez noizean behin gure artean agertzen diren eta inork ofiziokoen artean ezagutzen ez dituen sasi-jakintsuei nahiz genetika, arkeologia edo bestelakoetan aditu omen direnei (edo ezertan aditu ez diren «diziplinartekotasunaren» zaleei); cf. Lakarra (1999).

3. Ez nuke nahi nire hitzok edota, hobe, nik gaur alokairuan hartutako berbok inorentzat izan daitezen inolako alferkeriaren desenkusa eta justifikazio-bide. Jatorriak epe motzean ez ertainean lortu ezina, zati baterako ahaideak ere ezin antzemana... batek baino gehiagok atera lezake –norbaitek dagoeneko horrelakorik esan ere egin du hor zehar– (Saussurrek eta Meilletek, kasurako: ik. Mitxelena 1963) ezer ezin egin litekeela hizkuntzaren iragan eta bilakabidearen ikerketan eta baita hobe dugula progotxu gehiagoko jardunetan aritzea ere. Azken ondorioan bat nator (jardunak ere, llillurak legez, hobe ongi hauta), inolaz ere ez lehendabizikoan. Aurrera baino lehen, esan dezadan hizkuntzaren azterketan gehienek sinkroniari, hots, momentu jakin bateko egoerari eman ohi dioten lehentasuna –bide batez, ez nahi eta nahi ez gaurko sinkroniari, eh!– ez dela abstrakzio metodologiko erosoa baizik. Zail edo ezinezko da gauza bat momentu berean abian –*andarrean* eta *abiadan* esaten genuen lehen Arratzun– eta geldirik ikustea, eta ulertzekoa da etengabeko aldaketaz fotografia horretan ez ohartzea edo horretaz ez axolatzea. Alabaina, hizkuntzek –edozein hizkuntzak eta edozein garaitan– aldaketa berezko dute, guk hori ikusi nahi edo ez, ohartu ahal edo ez eta, beraz, baita euskarak ere, nahiz eta norbaitek –baina norbait hau ez ofizioko– ez hain aspaldi trilobites fosil batekin parekatu.[11]

Gure zorionerako (diakronista eta hizkuntzalari historikoenerako, bai behintzat) hizkuntzaren aldakortasun hori, horren ondorioak eta emaitzak,

---

[11] Ikus Gorrotxategi (2007)-ko gogoetak Juan Uriagerekak Euskal Herriko egunkari ezagun batean Iruña-Veleiako ustezko euskararen modernotasunaz 2006aren akaburantz idatzitakoaz. Inongo hizkuntzalari historikorentzat onargarri (edo interes praktiko handiko) ez izateaz landa, Uriagerekaren argudiaketan oinarriko akats bat da: kontua ez genuke zergatik gaur egun Veleiako III. mendeko euskaran bezalatsu mintzatzen garen, baizik eta zergatik atzo goizean gertatu diren aldaketak dagoeneko Veleian «lekukotuak» agertzen diren. Alderantziz jokatzeko xehetasun txikitxo bat du beharrezko Uriagerekak: delako idazkiok benetakoak eta benetan hirugarren mendekoak direla frogatutzat ematea, eta ez dirudi hori ez berak ez bestek lortu duenik.

Bide batez, gauzak –ez hizkuntzalaritza historikoan ez beste inon– ez direnez zenbait jendek nahiko lukeen bezain sinple, gogoratu nahi dut euskalaritzan nahiz beste alor batzutan inoiz izan den iruzurrik larriena jazartzeaz landa (goian aipatutako lanean edo 2008ko beste batean), Gorrotxategi bera izan dela (ik. haren 2007-08, 2009, etab.), Euskal Herri historikoaren hegoalde eta mendebaldearen euskalduntze berantiarraren aurka argudio interesgarrienak (hots, linguistikoak) bildu dituena.

horren epe eta bideak ikertu eta eskura litezke XIX. mendeaz geroztik ikusi eta ikasi denez; honetan dihardute diakronistek mundu osoan, aldaketa linguistikoaren azterketa eta azalpena[12] dutelarik egiteko nagusi hemen eta nonahi. Egungo egunean euskarak beste edozein hizkuntzaren oinarrizko legeak betetzen dituela –are bere diakronian ere– eta gainerakoen hatsarri eta metodo bertsuekin azter litekeela eta aztertu behar dela soilik ofizioko ez direnen artean izan liteke ezezagun; ikus, esaterako, *FHV*-ko lehen edizioko hasieran bertan (15. or., 5. oh.) Sapirrek hizkuntza amerindiarrez lehenago esanak euskarari egokituak.

Dagoeneko Lakarra (1986)-ren akabuan aurkeztu nuen argudiora joaz –ez dut, bada, esperantza guztiz galdu– azken jatorrien llillurak bazterturik, beharbada gauza hurbilago eta eskura-errazagoekin asetu ohi dira usuenik diakronista horiek, eta ez bide litzaiguke guri ere guztiz desegoki eroapen bertsua agertzea. Gogora zaitezte musulman artistek ezin zituztela –orain ez dakit gauzak nola diren–[13] giza-irudiak irudikatu eta, ordainetan edo, landareak eta bestelako figura geometriko zoragarriak egitera iritsi zirela, hainbat non horrelakoei «arabeskoak» deitzen zaien mundu guztian. Ez genuke guk ere, geure indarrak eta kemenak hobexeago neurtuaz eta bideratuaz, horrelako arte berezirik lortuko filologia eta hizkuntzaren historiaren ikerketen esparruan? Mitxelenak behin baino gehiagotan aldarrikatu zuen –lehenago Meillet maisuak legez– berreraikitzaileak edo diakronistak duen filologiaren beharra, are itxuraz bestelako den *Lenguas y Protolenguas* bikainean ere. Nolanahi ere den, llillura harrapaezinen ordainetan beste hainbat gaitan erdiets liteke aitzinamendurik:[14] dialektoen arteko erlazio eta krono-

---

[12] Bidenabar, –ulertzekoa Greenberg (1987)-ren Ameriketako inguruko eztabaidaren barnean– Campbellek eta Goddard-ek (1990) horrelakoak gogoratu beharra izan zuten aipatu hizkuntza horien azterketari dagokionez; alabaina, bizpahiru urte beranduago Greenbergekikoak ahaztuak ziren berezilarien artean *IJAL, Language, Diachronica* edo *TPS*-n ikus litekeenez (cf. Lakarra 1997b). Gertakari hau ez da aldatzen zenbait arkeologo edo genetista gehi han-hemengo (batez ere hemengo) hainbat afizionatu horretaz ez ohartu edota ezjakinarena egiteagatik.

[13] Beno, jakin edo susmatu, bederen, egingo nukeela deritzot, baina hobe, beharbada, hemen horretaz ez luzatzea.

[14] Ikus, esaterako, Schmidt (1992) indoeuropar alorrerako. Aldian-aldiko egokitzapenekin, Mitxelenaren duela mende erdiko galdera (eta ondoko gogoetak) errepika genitzake. Salbuespenak

logian, aldaketa fonetiko eta morfologikoetan, euskara historikoaren hainbat irregularitateren azalpenean, historiaurreko edota lekukotasunik gabeko garai historikoen ezagutzan, etab. Esate baterako, bistakoa da Mitxelenak (ezta lehenago Martinetek ere, kasurako) ez zuela gehiegi lagundu jatorri eta ahaideen bilaketan, itxuraz –edo agian bai, inork baino gehiago, edozeinek jakin behar lukeenez berri onak ez baitira berri bakarrak, ezta zorigaitzez ugarienak ere–; are gehiago, lehen argi ez zuenari Mitxelenak behin eta berriro argitu zion zeharbide horien antzutasuna.[15] Alabaina, artean eta ondoren ere egindako aurrerapen guztiak baino larriagoa egin zuen benetako hizkuntzaren eta hizkuntza horren benetako bilakabidearen ezagutzan. [16]

---

salbuespen, aspaldian (azken 30 urteotan edo) ediziogintzan aitzinatutakoa ez da gehiegi ez kantitatean ez kalitatean eta inoiz –nahi eta komeni baino gehiagotan– gibelamendu larriak ere badira; ikus Lakarra (1997a) eta (2010d). Ezinbestean, *Textos Arcaicos Vascos*-i 1989an jarri nion eranskinean hainbat gauza emenda zekizkiokeen 1964an eta are 1984an (Sarasola) genuen corpusari eta orain beste hainbeste esan liteke neure hari buruz; zalantzarik gabe, Lazarragaren testua da azken 100 urteotan eskuratutako altxor preziatuena (baina ez bakarra!) eta izango ahal du aurki haren duin den ediziorik. [Ikus orain Bilbao *et al.* (2010)].

[15] Berrogeita hamar urte beranduago, esatekoak ezin dira egokiago esan *Sobre el pasado de la lengua vasca*-ren akabuko laburpenean baino:

> En resumen, la filiación de la lengua vasca sigue siendo un misterio, como es también un misterio en el caso de muchas otras lenguas, vivas o muertas. Es posible que nos falten para siempre algunos eslabones perdidos que serían indispensables para desvelarlo. Es posible también, pero no muy probable, que tales eslabones existan aunque no hayamos acertado a reconocerlos o bien que algún hallazgo afortunado alcance a sacar a la luz datos hasta ahora ocultos. También cabe que una mejora en los métodos actuales o el descubrimiento de nuevas técnicas ponga en nuestras manos instrumentos más potentes.
>
> Sea de esto lo que fuere, pues no poseemos poderes de profecía, puede darse por seguro que la búsqueda continuará incansable en el futuro sin dejarse desanimar por lo escaso de las cosechas anteriores. Ojalá que la fortuna, amiga siempre de los audaces y de los perseverantes, se incline alguna vez a sonreirnos (*SHLV*, 73).

Itxuraz, –baina, agian, soilik itxuraz– sarkastikoagoak dira (baina ez merezigabekoak) Trasken 1997ko liburuko «bongo-bongo metodoa» eta gainerakoak.

[16] Vovinek (1994) «japoniera da bere historia eta jatorriei buruz astakeria gehien pairatu izan duen hizkuntza» edo horrelako zerbait dio, adibide bitxiekin, egia esan; ez jakin hitzok mantenduko lituzkeen euskararekiko historiografia paraleloa ezagut baleza. Bestalde, benetako datuei eta metodo estandarrei muzin egitea ez da soilik Euskal Herriko akatsa: ikus, esaterako, 84. oharra Chaker-ek Mukarovsky-ren lanaz esandakoentzat.

Hizkuntzaren historia lantzeko zer behar dugun ez da zail jakiten, berdintsu baita funtsean Grezian, Tibeten, Mexikon edo Euskal Herrian: eskura litezkeen filologia zehatzena eta hizkuntz aldaketarekiko teoria hoberena (cf. Meillet 1925). Euskalaritzan norengan bildu ziren zabal eta aberats dohain horiek ere edozeinek daki: Koldo Mitxelenaren diakronia-lan oparo erraldoian. Dela Landucci XVI. mendeko italiarrak Gasteizen atondu-arazotako hiztegiari[17] jarri zion sarrerak, dela *Fuentes del Diccionario de Azkue*-k, *Textos Arcaicos Vascos*-ek edo *Apellidos Vascos*-ek alde batetik, *Fonética histórica vasca*-k, *Sobre el pasado de la lengua vasca*-k nahiz *Lenguas y protolenguas*-ek, bestetik, ederki erakusten dute zeinen hornitua eta prestatua zen beren egilea hizkuntzaren historia eta historiaurrearen azterketa oinarri berri eta sendoen gainean ezarririk eraikitzen hasteko, eta are hainbat solairu osorik gauzatu eta atontzeko ere. Aipatutakoak maisu-lan paregabeak dira euskal ikerketetan, zein bere aldetik; guztien bildumak –eta Mitxelenak baditu agertu zirenetik 30 edo 40 urte pasa direnean ere gainditu gabeko beste zenbait dozena– erakusten diguna zera da, aurreko eta ondoko edozein euskalarirengandik hainbat argi-urtetara zela egilea.

Lekukotasunak agortzen diren unetik aurrera birreraiketa gelditzen zaigu eta Mitxelenak eskuratu ahal izan zituen lekukotasun guztiak gogoan harturik eta mailegaketaren azterketaren bidez hainbat ikertzailek gure inguruko hizkuntzen historiaz erdietsia eskuratuaz eta geureari ezarriaz, euskararen historiaurrea aitzinatzea eta aitzineuskararen (aurrerantzean AE) berreraiketa sendoa lortu zuen.[18] Hain sendoa non funtsean mende-erdi igaro ondoren ere estandarra hori bera dugun. Ez da, noski, kritika edo kontrako proposamenen bat honetan edo hartan izan ez delako (hori harri-

---

[17] Ikus orain Urgell (2008) bikaina Landucciren lekukotasunaz; egile bera prestatzen ari da hiztegiko esku bakoitzaren ekoizpenaz eta aurreko argitalpenean egindako hutsei buruzko hainbat ohar interesgarri.

[18] Hara Mitxelena (1957)-ko laburpen-taula:

bortitzak	(P)	T	C	Ć	K	N	L	R	
ahulak	p	t	s	ś	k	n	l	r	(gehi *h*) 5 V

Ustez hain ezaguna izan arren merezi du aipatzea, bat baino gehiago baita /h/-az, esaterako, ahaztu eta hor espresuki sartuko ez balu bezala aipatu izan duena (cf. Trask 1997 eta, honen bitartez, Rodríguez Ramos 2004).

tzekoa litzateke) baizik eta ez delako horren alternatibarik garatu eta –frogarik argiena dena– egungo egunean ere emankor gertatzen zaigulako, gutxienez azken 2.500 bat urtetako euskararen hotsak eta horien bilakabideak azaltzeko orduan. Garen tokian garelarik, ez bide da desegoki ebanjelioetako harako «bere fruituetarik ezagutuko duzu» hura; eta esapidea zuhaitzei ez eze hizkuntz historia eta istorioei ere badagokie.[19]

4. Aurrekoak bota eta gero norbaitek edo norbaitzuek kontraesan larritzat har lezakete ondoren proposatuko dudana: Mitxelenaren paradigma zabaldu eta gainditu beharra, alegia. Honetarako ditudan arrazoi edo ustekizun zehatzak azaltzen hasi baino lehen, esan dezadan euskal filologiaren egoeran aldaketa eta aurrerapen handiak izan direla azken 50 urteotan, eta ez txikienak Mitxelenak eta mitxelenatarrek eginak: ez luzatzearren *Orotariko Euskal Hiztegia* baino ez dut aipatuko. Lexikografia praktikorako izan ditzakeen onurak ahaztu gabe –euskara batuaren hiztegigintzak hor du altxor eta oinarri nagusi-erraldoia–, ukaezina iruditzen zait aro berrian jarri gaituela lexikoaren historian, literatur hizkeren historiarenean, eta baita fonetika eta morfologia diakronikoan ere, etekinik ateratzen jakinez edo horretarako gogorik izanez gero, noski. Orobat, lan horrek euskal testuen ezagutza, azterketa eta ediziorako ekar lezakeena (dagoeneko ekarri duenaz landa, jakina) agortzetik urrun gara eta balioko ahal du hainbat txepelkeria eta ahuldade ohiko bezain toxiko uxatzeko.

Mende erdi honetan hizkuntzalaritza diakronikoan aldatu den guztiaren berri ematea nire ahalmenetik eta gaurko eginkizunetarik urruti denez, labur dezadan esanaz eskuratu dugula –edo, hobe esan, isuri eta jaidura hori dugunon eskura jarri direla– hainbat hizkuntza eta hizkuntz familiatako istorio eta historiak, hurbileko eta urrutiagokoenak, gurearen antzekoenak edo oso ezberdinenak, bai hizkuntzaren sistemaren alderdi labur edo zabalez, bai sistemaz kanpoko historia edo soziolinguistikan. Honezaz gainera, batez ere hizkuntzalaritza sinkronikoan garatutako hainbat irizpide eta azterketarako lanabes, diakronian ere usuko egin dira, aipatuki hizkuntz tipologiatik datozkigunak.

---

[19] Lakarra (2008b)-n beren birreraiketak laguntzeko aurkeztu (hots, aurkezten ez zituzten) etimologia berrien aldetik miatu nituen bereziki Trask (1985) eta Hualde (1997a).

Mary Haas hizkuntzalari handiak (1969), ofiziokoen eskarmentua azaldurik, lautan banatzen zituen aitzindarien birreraiketa-lana berrikusteko arrazoiak: lehen biak aztertzen dugun hizkuntzaren ahaideren bat edo aitzinhizkuntzaren bat aurkitzearen ondorio zirelarik, hirugarrena, artean ezezagun izandako mailegu zaharren azterketa genuen;[20] azkena, aurreko horiek suposatzen duten lanabes gehiketarik gabe, lehengo datu berberak izaki horien ulerpen berri bat eskuratzea. Gure kasuan lehendabiziko hirurak ez dira Mitxelenaren emaitzak berrikusteko akuilu, jakina, nahiz eta, agian, mailegu zahar berriren bat hona ekarri beharrik edo ekartzeko aukerarik izango dugun.

Mitxelenaren birreraiketa berrikusteko edo, hobe, haren aintzieuskararekiko ikuspegia aldatzeko edo zabaltzeko, laugarren bidea izan da edo izan daiteke zio bakarra. Lehen esan dudan legez, gutxi da hotsei dagokienez aldatu beharrik Mitxelenaren ikerketetan: oharren bat han-hemen.[21] Hotsetarik hitzetara edo morfemetara abiatzen bagara, nabarmena da maisuak horri ez ziola hainbesteko arreta eta jardunik eskaini, ulerterraz ere delarik hori edozein diakronistarentzat. Har ditzagun, adibidez, *ardau, ardan-, arno* edo *enara, elai* nahiz *hezur, ezur, azur*: Mitxelenak lehenengoan */a/ + /r/ + /d/ + /a/ + /n/ + /o/, bigarrenean */e/ + /L/ + /a/ + /n/ + /a/ ~ */e/ + /N/ + /a/ + /l/ + /a/ eta hirugarrenean */e/ + /n/ + /a/ + /s/ + /u/ + /r/ birreraikitzen ditu, ondoko alomorfoetako hotsak gurutzatuaz aitzinmorfemak horien batuketa huts bailiran. Hots, *a* : *a* = **a*, *-n-* : *-ø-* : *h-* = **-n-*, *-n-* : *-l-* = **-N-*/**-L-*, etab.

Ez da, ordea, ohar edo gogoetarik aitzin-morfemen tamainaz –hiru silaba, erro historiko soiletariko gutxik bezala– edo barne egituraz (batek ere ez ote

---

[20] Gurean hirugarren bide honek izan duen garrantziak ez gintuzke itsutu behar: izan ere hori da bide nagusia munduko hainbat eta hainbat hizkuntzatan –batez ere isolatuetan, baina ez horietan bakarrik: adibide labur baterako, ikus Sagart & Xu (2001) txinera eta bere inguruko hizkuntzez, Greenberg hausaz (1947, 1960) edo Casagrande (1954-55) komantxeaz, hiru kontinente ezberdinetakoak aipatzearren.

[21] Besterik da fonologia alor trabatua eta tupitua izanik, pare bat lege fonetiko berrik ondorio larriak izatea berreraiketan eta etimologian, bai berez, baita bereziki lehendik (Mitxelenari eskerrak) genekienarekin konbinatuaz ere; usuenik berreraiketa-berrikuntzak, halere, ez dira lege ezagun-zaharren aplikazio sistematiko edota akaburainokoa baizik.

du horrelakorik?) edo beren hasierako V- edo /h/ horiez... Hor eta hortik aurrera da, beraz, Mitxelenaren lana osatu beharra eta –sakontasun diakroniko handiagoa bilatzen badugu– hortik bide datoz gainditzeko zioak ere. Goizegi inor izu ez dadin (edo beharrik gabe uxa ez dezadan) argitu nahi dut enparatuko familia eta aitzinhizkuntza batzuen berreraiketan ere gauzak antzeratsu ibili direla, hoberenean ere (cf. semitikoarentzat Moscati 1964);[22] horregatik bat nator funtsean Sagartek aitzintxineraren berreraiketa berrirako aurkeztu hurbilketaren muinarekin eta itxadoten dut aitzineuskararenean ere fruiturik ematen duela erakustea:

> The reconstruction of Old Chinese is sometimes treated as a pure matter of phonology. That this should be so is not entirely surprising: its vocabulary and word order are directly observable in the Chinese classics and in the bronze inscriptions: moreover, the idea that the Chinese language must ab origine have had invariable words, without any morphological alternations, is enjoying a lasty popularity, even among professional linguists. The central thesis of the present book is that in order to reconstruct Old Chinese phonology, a proper understanding of Old Chinese morphology and word-families is indispensable (Sagart 1999: 1).

5. Har ditzagun lau soinu: bi bokal eta bi herskari, *kopeta* eta *badigu*-ko kontsonante eta bokalak, alegia. Horien binakako konbinaketatik euskara

---

[22] Partidaren erregelak hor zehar ere bertsuak direla eta gure txapeldunak kanpoan ere nor direla ikustea noizean behin gustagarri izan ohi denez, hara Touratier-en ondoko aipua:

> Nous avons vu que la méthode comparative utilisée par le linguiste diachronicien a des règles et des limites très precises, que Meillet a du reste été le premier à formuler de façon systématique. On pourrait maintenant pour conclure se demander s'il existe d'autres moyens que cette méthode comparative pour faire de la linguistique historique. Meillet a pour sa part prétendu que non, en écrivant notamment: «La comparaison est le seul instrument efficace dont dispose le linguiste pour faire l'histoire des langues» [...] «tant qu'une langue est isolée, elle est dénué d'histoire» [...] Et il donnait notamment l'éxemple du basque, qui n'est apparenté à aucune autre langue. Mais depuis, sans qu'on ait réussi à faire sortir le basque de son isolement, certains linguistes comme André Martinet et Luiz Michéléna (sic) sont parvenus à reconstituer des stades anciens de cette langue. Ils ont obtenu ce résultat en recourant à ce qu'ils appellent la reconstruction structurale [...], et que, par opposition à la reconstruction comparative, on appelle communément la reconstruction interne (Touratier 1990: 29).

historikoan 900 erro ezberdin sor zitezkeen TVTV[23] egiturarekin, hots, 6 leherkari modernoak eta «betiko» bost bokalak batzetik datozen *bake, bide, begi, bada, dago, dugu, gabe, gati, gogo, gudu* eta holakoak. Kontua zera da; asko edo mordoa izanik ere, 900 horietarik urruti gelditzen direla benetan aurkitzen ditugunak, batetik, eta askozaz larriagoa dena, goiko gutxi horiek eta beste enparatuak oro, bi multzotan sar ditzakegula: (a) maileguak eta (b) eratorri-konposatuak. Bestela esan, euskara modernoan egitura horren barnean izan zitezkeen 900 erro soiletarik, Sodoma eta Gomorrako hartan bezala, ez erdiak, ez laurdena, ez 100, ez 50, ez 25 eta ez 10 ez dugula aurkitzen eta, horrenbestez, orduko su berberak erretzen, suntsitzen eta ezabatzen digula erro-eredu hau euskal erro-eredu zaharren zerrendatik.

Badakit honekin ez dudala inor beldurtuko –eta, agian, ezta asko arduratuko ere–, beste erro-eredu asko gelditzen baitzaizkigu Uhlenbeckek duela hirurogeitik gora urte erakutsi zuenez,[24] eta sandiak eta berendiak pentsa lezake erro-eredu hori gabe ere euskara eta antzinako euskaldunak lasai asko pasa zitezkeela. Baliteke, noski, baina kontutxo hori dirudien baino arduratzkoagoa da; hots, erro-eredu hori oso oinarrizkoa da bisilaboen artean eta horrelakorik ez bada oraintsu arte euskaran izan –beno, badakizue, gutariko batzuentzat inoiz edo sarri, «oraintsu» 1000-1500 urte izan litezke, hor akitaniera eta Euskara Batu Zaharraren (aurrerantzean EBZ) artean, edota hau eta Erdi Aroko lehen lekukotasunen bitartean–,[25] orduan pentsa genezake mo-

---

[23] T = leherkari, V = bokal, C = edozein kontsonante; gero agertuko bide zaizkigu R = ozen eta S = txistukari ere.

[24] Monosilaboak, bisilaboak (gehienak), polisilaboak (gutxi batzuk), bokalez hasiak, leherkariz, txistukariz... kontsonante taldeak dituztenak, ez dituztenak, bokalez edo era ezberdinetako kontsonantez amaituak... Uhlenbecken euskal erroen sailkapena haren 1942ko lanean eta, laburrago, 1947koan ikus liteke; aritu naiz horietaz dagoeneko Lakarra (1998a) eta ondokoetan, eta lan horietara jo lezake zehaztasun gehiago nahi duenak.

[25] Urgell & Lakarra (2008)-n badira zenbait gogoeta beste hainbat hizkuntz familia garatutan bezala (cf. indoeuroparra edo austronesioa, demagun) zatiketa bitarrak euskalki sailkapenari eta beren kronologia bakarrari –gehi euskara batu zaharren zatiketari– lekarzkiekeen zenbait arazoz.

Poztekoa da oraintsu Zuazo (2010) bera ere Mitxelenaren 1981eko artikuluaz geroz hizkuntzalari historiko gehienen usteaz ohartzea (dialektoak ezin direla EBZ baino lehenagokoak izan, alegia); oraindik, halere, bada zer aurreratu dirudienez, euskalkien izaera unitarioan demagun: zerk egiten du ezinezko, adibidez, ekialdeko hizkera zenbait arkaista izatea aditz-izenari dagokionez –baina ez

nosilabikoak izan direla nagusi eta beharbada bakar, txineran (Sagart 1999) edo vietnameran edota Gineako kwa (Hyman 2004) hizkuntzetan bezala.

1995ean erro zaharren egitura CVC zela aldarrikatu nuen eta, honenbestez, goiko **TVTV hutsune hori errazki azaldu genuen. Monosilabismoaren alde dira dagoeneko hor aipatu ondoko datuok ere: euskarazko geruza lexiko zaharrenean (eta oraintsukoagoetan, orobat) ezinezko dira erro soil gisa **_baba_ (bai mailegua lat. _faba_-tik), **_babe, **babi, **babo, **babu_..., **_bada_ (bai _ba-da_ aditz jokoa), **_bade, **badi, **bado, **badu_ (bai _ba-du_), ezta **_baga, **bage_ (bai eratorria, _bat-ge_-tik), **_bagi, **bago_ (bai _bago, pago, fago_... mailegua, noski), **_bagu_, **_bide_ (_bide_ bada, baina mailegu edo eratorria dugu), **_begi_ (konposatua edo eratorria), _biga_ (eratorria, *_bi_ + _-ga_), etab. Halaber, CVC egituraren alde mintzo dira **CV eta **VC monosilabo historiko autonomoen ezintasuna –_sal, hor, gatz,_ etab. bai baina ez **_sa, **ho, **al, **atz_, etab.–[26] edo CVCC monosilaboak (_hortz, bortz, beltz_) CVR + -S edo (_bart_) CVR + -T direla, hots, atzizki edo bigarren erro higatu baten zati, ez erro soil baten berezko koda bikoitzarekin. Badira, noski, CV eta CVT zenbait (_ni, gu, dut, duk, hark_), baina morfema lexikoak ez izateaz landa –eta, hainbestez, beraiei ez dagokie CVC hertsapen hori– ez dira morfema soilak ere.

Badakizue, orduan guztiok ginen hamabost urte gazteago eta baliteke hortik etortzea nire ausardia, garbi baita nire proposamen horrek arazo larri bat kentzen zigula –egia esan, inori buruko min handirik eman gabea zen delako arazo larri hori– baina beste hainbat eta hainbat, beharbada hori baino la-

---

beste puntu batzuetan– eta, alderantziz, Bilbo aldea (*Refranes* y *Sentencias*) berritzailea izatea puntu horretan –baina arkaismo ugari gordeaz hainbat alderditan–, Urgellek (2006) proposatu bezala? Lehendik ere (cf. Mitxelena 1964) ez al genekien dialektoetan, hots, dialekto eta hizkera bakoitzean, batetik eta bestetik dela?

[26] Testuan beherago aipatu morfema gramatikalez landa, salbuespenak _ke, lo_ edo _su_ lirateke; alabaina, azkenak badu _sur_ aldaera (cf. _surtan_) eta _lo_, seguruenik, ez da *_don_ (cf. _idoki_, etab.) erroaren bilakabide arrunta baizik –cf. §12.aren akabuan eta §13.ean esana *_d-_ > _l-_ aldaketaz–... _-on_ amaitzen diren zenbait aditzek duten _-n_ > _-ø_ erorketarekin (cf. _eramo, ediro_, etab).

Bestalde, altxor zaharreko (ez-mailegatutako) VCV, VCVC, VCCV edo VCCVC egituretako hitzetan C- > ø- gertatu da, CVC-ren ezkerretara den atala aurrizkia ez den neurrian, bederen. Ikus beherago §9 eta ondokoak.

rriagoak, lehengo bake-bertan-goxo hartan ez genituenak sortzen. Hots, CVC zelarik erro soila euskara zaharrean, ezinezko ziren erro soil bezala bai goiko **TVTV baina baita edozein **CVCV kodagabe eta halaber, **CVCVC eta **CVCCV kodabakarrak zein **CVCCVC kodabikoitza, nahiz **VCV, **VCVC, **VCCV eta **VCCVC, hasierako kontsonanterik gabeak eta, oro har, edozein eredu bisilabiko, hiru eta lau silabatako eredu zabalagoak ez aipatzearren. Hau da, nik nioena benetan harturik, *alu, oker, usain, ater, aho, bazter, nigar, bildur, ezain, hagin* eta beste hainbat eta hainbat bisilabo –Gernikako urriko astelehenetan piperrak otzarara legetxez edo–, dozenaka eta zientoka jaurti behar genituen hiztegiko geruzarik zaharrenetik kanpora. Horiek (eta arrazoi gehiagorekin **ardano, *organa, *enazur, herio* edo *egia* hiru silabatakoak eta *arerio* laukoa) soilik mailegu edo eratorri-konposatu izan zitezkeen –beharbada baita fonosinbolismo ere–, baina ez erro soil. Joakin Gorrotxategik orduan edo geroxeago esan zidan bezala, «ederto, orain bakarrik gelditzen zaizu horiek guztiak azaltzea».

Ulertuko duzuenez, Joakinen erronka ez zen inor lasai uzteko modukoa; lan mordoa eta arriskutsua, inork aurretik ez erdietsi eta ez beregan hartu gabea baitzekarren.[27] Egia esan, hertsi-hertsian, aski bide da norberaren teoria aurrekoarena baino hobe, sakonago edo indartsuago dela erakusteko –hainbatetik hainbatean edo *ceteris paribus*– hark ezin aurreikus edo azal lezakeen kasu bakar bat aurkeztea eta gainditzea milaren zain egon beharrean. Bestalde, fenomenoak azaltzeko botereaz landa, teoriek badute beste botere estimatu eta estimagarriagorik, zeina baita galdera berriak aurkeztekoa, hain zuzen. Alde honetatik nik neritzonez eta oraindik ere deritzodanez, irabazia nuen partida jokatzen hasi baino lehen ere, galderak dozenaka eta zientoka baitziren, bisilabo eta polisilabo bakoitzeko bat

[27] Ez dut uste arestian sareratu duen euskara-frantses-gaztelania «hiztegi etimologikoan» Michel Morvanek hutsune hori betetzen duen; egia esan, zilegi balitz Morvanek bezala edozein euskal hitz munduko beste edozeinekin erkatu (ze asmorekin?) eta gainerakoetan «obscur» bat ezarriaz azterketa filologiko eta linguistikoaren bideak urratu ere ez egitea, orduan edozeinek egin ahalko luke asteburu batean euskal hiztegi etimologiko bat, baita munduan den (edo inoiz izan ez den) beste zeinahi hizkuntza eta aitzinhizkuntzarena ere. Nago debaldeko jolastxo hauetan inon baino emankor eta zaleago ez ote garen oraindik; ikus 10. oharrean esanak hor zehar diren oso bestelako ohiturez.

gutxienez; alabaina, deseroso eta beldur nintzen «zergatik ez zen TVTV erro-eredu soilik euskara zaharrean?» galdera neuk bota eta arrazoi formal hutsekin, gehi etimologia bakan batzuekin, jendaurrean neure burua aurkezteko, ez bainuen itxadoten inor askorik asetzea.

6. Azken hamabost urte hauetan, batez ere hondar hamarrotan, ordu batzuk sartu ditut –ez urrutitik ere nahi eta behar liratekeen guztiak, halere– silabak kontatzen, aldaerak miatzen eta hotsak irabiatzen, erro-ereduetako emaitza potentzialetarik benetakoetara diren aldeak erkatzen eta horien zergatiaz neure buruari eta besteri galdetzen. Orobat, lekukotuak bost sail nagusitan ezarri ditut –maileguak, aldaera modernoak, eratorri-konposatuak, onomatopeia-sinbolismoak eta gainerakoak–, behin eta berriro sailkatuaz, bereziki azken saileko etimologia gabekoen hondarrak; hauek, astiro-astiro, urrituaz –gehienetan ia erabat agortuaz– joan dira eta bosgarren horretarik lehendabizikora [maileguen taldera] usuenik eta noiz edo behin gainerakoetara iraganaz eta hauek hasieran baino lodiago bilakatuaz.[28]

Hasieratik bertatik gure jardunaren emaitzak onak izan ziren –uste baino hobeak– lehen ezagutzen ez ziren erro berriak aurkituaz, ezagutzen genituenei familiak eta sare zabalagoak antzemanaz, gramatika zaharreko fenomeno berriak (dela erreduplikazioak, dela aurrizkiak) bilatuaz eta beren funtzionamendua zirriborratuaz:

1. Esate baterako, *andos(ko)* < **han + dots(ko)*, *ordots* < *urde + -dots* eta *ibar* < **(h)ur-bar, bular* < **bur-bar, barren/barru* < **bar-en/*-u* analizatzean **-dots* eta **bar* ez eze **han* ezkerreko osagaia ere isolatzen da, baina hau ezin da horrenbestez segurutzat eman ahal kide seguru gehiago ez duen bitartean.[29] *Ahari, ahuntz, akher* < **han-ari, *han-huntz, *han-ger* azaltzean desagertzen da zailtasun hori.

---

[28] Hiru silabatakoekin edo handiagoekin ez naiz aritu sistematikoki, inoiz edo behin (cf. *herio, jario, jaio, jaun, jaube...* Lakarra 2006b, 2006c) bidera atera zaizkidanean baino; Uhlenbeckek markatu zuen dagoeneko polisilaboen urritasuna eta, esan gabe doa, berankortasuna.

[29] **-dots* horrek ere behar du gutxienez *bildots* gogoratzea Zorc-ek (1990) eta bestek eskatu morfema isolatu berrien «triangulazioa» lortzeko.



2. *hortz* < **hor-tz* (ikus beherago), *sabel* < **sa-bel*, *gibel* < **gi-bel* (eta *gizen* < **gi-zen*) analisatuaz lehendik ere ezagutzen genituen *hor* 'zakur' eta *-bel* 'kolorea' morfemen familiak zabaldu eta horiekin eratutako eratorri-konposatu gehiago biltzen dugu.

3. Aurreko *gizen* horren -CVCrentzat kideren bat bilatzeko *zezen*-era jo eta CVCVC hau *gogor* nahiz **(d)adar*, **(d)eder*, **(d)odol*-en egitura berekoa dela ohartzean CVC > CV-CVC (zatikazko) erreduplikazio bitartezko hitz-eraketa prozesu zahar bat eskuratzen da.[30]

4. (2)-ko *sabel* eta *gizen-gibel*-eko CV- isolatu baina kide aski gabe utzi horietara bihurtuaz, *samur* (< **sa-bur*), *samin* (< **sa-bin*), *sakon* (< **sa-kon*), alde batetik eta *gihar* (< **gi-har*), *gizon* (< **gi-zon*), eta are *labur* (< **la-bur*), gehitzen badizkiegu **sa-* eta **gi-* horiek aurrizki zahar, historikoki fosildutzat hartzeko arrazoiak genituzke.[31]

---

[30] Parentesi artean diren hortzetakoak gero disimilazioz eroritakotzat eman beharko genituzke; «gero» hori, ordea, aski garaiz genuke, *d- > l-* Mitxelenaren AE-rako betea baitzen. Erreduplikazioaren inguruko bibliografia ugaria da; ikus, esaterako, Hurch (arg., 2005) eta Inkelas & Zoll (2005).

[31] Aurreko lan zenbaitetan, aurrizkiek birreraiketa teoria estandarrean tokirik ez izaki (ikus §9-ko Mitxelenaren aipua) erro «higatutzat» (**saC- > sa-*, **giC- > gi-* balira legez) azaldu nituen; alabai-

7. Gorago esan dudanez, lehen sailkapen batean bost azpisailetan bana ditzakegu euskal hiztegi eta testuetan jasotzen diren hitzak; alabaina, ondorio etimologikoei dagokienez bitan: etimologia ezaguna duten lehen lau sailetakoak eta bostgarreneko hondarrak, alegia. Markagarria da lehen lau azpitaldeetakoak goraka joan direla hamabost urteotan (ikus Lakarra 2002a, 2004, etab.), goraka doazela orain eta –edozer gertatzen dela ere nire ikerbidearekin– zalantzarik gabe goraka joango direla etorkizunean ere. Bigarren taldea (etimologiagabekoena) gutxituaz joan da, gutxituaz doa eta urrituaz joango bide da etorkizunean ere, azkar edo astiro, hau besterik da, baina gainbehera seguru.

TVTV eta CVCV –hots, TVTV, TVRV, TVSV, RVTV, RVRV, RVSV, SVTV, SVRV eta SVSV zein horien C- gabeko kideak oro (VTV, VRV, VSV)– ez eze, gainerako erro-eredu bisilabiko nagusiak (kodadunak: dela ezkerrekoan, dela eskubikoan, dela bietan) aztertzean, ehuneko oso urriak dituzte etimologiagabeko morfemen kopuruei dagokienez. Areago dena, iragazki fonotaktikoak, hau da, hots konbinaketa berriak ezabatzen dituenak, eta geografikoak (euskal dialektoetan hedadura gutxiegikoak baztertzen dituztenak) ezarriaz, bat bakarra (aCVC) iristen da %3,5era, bi (aCV, uCV) %2,3ra eta gainerakoetan 5 dira %1-%2 bitartean, 16 (4tik bi) %1etik behera eta 8 (4tik 1) %0,00 absolutuan, Lakarra (2008b) eta (2009b)-ko tauletan ikus litekeenez. Are estatistika asko ez dakienak ikus lezake %1etik behera diren 24 horiek (32tik: erro eredu bisilabikoen %75a) eta behera baino ezin egin lezaketen ereduek etorkizun gutxi dutela euskararen iraganeko eredu gisa. Hobe esan eta zehatzago, izatez, ez horiek eta ezta %1 eta %3,5 bitartean diren 8ak ere (gainerako %25a) ez dira benetako erro ereduak, gure azterketaren azken hondarrak baino. Ez dakit gehienetan legez noiz iritsiko diren %0,0ra, edo noiz izango garen gai horiek horra eramateko;[32]

---

na, bai beren sintaxiak –soilik CVC-ren ezker, ez eskubi eta ez bakarrik–, morfologiak –CV huts, ez erroen CVC– eta kronologia fonologikoak –*-C > -ø askozaz berankorragoa dugu– ez erro baizik eta aurrizkiak zirela salatzen du. *La-*, horien kideaz ikus beherago; (1)-eko *-tz* horrentzat cf. *hartz, beltz, zurtz, ahantz, hertz, ihintz*, etab. Esan gabe doa aurrrizkidun hizkuntzek ere badituztela atzizkiak baina ez, nahita nahi ez, alderantziz (cf. Bybee, Pagliuca & Perkins 1990 edo Hyman 2002).

[32] Nolanahi ere, 2004-2005eko analisiaren egoera islatzen duten taulak orain berregin beharra dago, partez bederen (cf. Lakarra prest.-6): beherakada esanguratsuak dira bisilabo guztietako (5).

alabaina, dagoeneko ez dira esanguratsu aitzineuskararako erro soilen zerrendarako hautagaitzan.[33]

Aldiz, guk 1995ean eredu zahartzat proposatutako CVC monosilaboa %15ean edo dabil kenketa eta garbiketa guztiak egin ondoren eta hori, kasu, soilik benetan modu autonomoan lekukotutako *har, hotz, gor, zur, lan, hots*, eta gainerakoak hartuaz. Hots, gure goiko **dots, *zen, *bur, *han* (nahiz **ger, *dul* eta beste hainbat), Mitxelenak berak berreraikiak (**bel*) edo ondoko eta aurrekoenak gehituaz gero (**din, *dun, *thor*... esaterako), %25-%30era ere iritsiko bide ginateke. Monosilaboetan oso gutxi dira mailegu, berrikuntza, eratorpen edo onomatopeia eta, eredu bisilaboko eta hitz gehienekin jazotakoaren aurka, oso zabalduak edo orokorrak dira dialektoetan, beren antzinatasun handiagoaren seinale, jakina (ikus Lakarra 2004 eta prest.-2).[34]

Aurreko lanak «etimologia formala» dei genezakeena garatzera eraman gaitu, hots, errealia eta kasuan-kasuko edozein eratako laguntzak mespretxatu gabe –guztiak edo ahal diren guztiak kontuan izanik, hobe– harago eramaten gaituen forma kanonikoan abiaturiko berreraiketa eta etimologia. Gogoan duguna hobeki ulertzeko, hara Uhlenbeckek duela ia 70 urte idatzi eta oraindik arreta apur bat merezi duten hitzok:

---

sailetan eta beste horrenbesteko gorakadak (1) edo –gutxiagotan– (3) edo (4)-n. VCV, VCCV, VCVC eta VCCVC-n, esaterako, *alu, esku, eske, ater, esker* eta beste hainbat igaro behar dira, (5)-etik (1)-era, CVCV, CVCCV, CVCVC eta CVCCVC-n *bigun, hagin, neska, bazter, bildur*...; kasu gehienetan testuan aipatzen den erro-hautagai hondarren %0,00 horrek ezin hurbilago edo eskuragarriago dirudi.

[33] Aurrekoak Tovarren (1961) erkaketa glotokronologikoen emaitzak dakarzkit gogora: 1997an erakutsi nuenez, ez dute benetako pisurik eta halabehar hutsak dira, arreta apur bat jarriaz miatzen diren orduko %9-10a %1,5-2ra jaisten baitira eta proportzio berean igotzen euskara eta bereberraren arteko ustezko etenaren datak milurtekotan. Hori hoberenak direlarik, zer esan inongo galbaheketarik gabe dagoeneko %4-5etik behera direnekin. Morfema bisilabikoen azterketan ere bahe-zuloak estutu-ahala emaitzak behera eta behera doaz eta nabarmena denez (ikus Lakarra 2008b) hainbat arrazoi dira iragazkiak estutzeko.

[34] Aurreko oharrean bisilaboez esandakoaren aurka, monosilaboen (5) sailak gorantz baino ezin lezake; Lakarra (2004)-tik hona badira zenbait berri eta, batez ere, erroon berreraiketa sendotzen duten haien gainean eratutako hitz-familietako kide gehiago; cf. Lakarra (prest.-1).

> (…) je crois déjà rendre service aux études basque[s] en tâchant de ramener les nombreux radicaux nominaux et les racines verbales de la langue basque restés sans analyse à quelques types déterminés, qui doivent, selon toute probabilité, être considérées comme pyrénéens occidentaux anciens. Je laisse à de plus compétents le soin de confronter les types pyrénéens occidentaux anciens établis par moi avec des types caucasiens ou autres. Pour le moment, il m'est indifférent de savoir si tel élément lexical –mot ou racine– possède ou non une parenté caucasienne plausible. Si pareil élément lexical correspond à un type ancien, il devra passer pour pyrénéen occidental ancien, sauf la possibilité qu'un élément non originellement pyrénéen occidental ancien d'importation ultérieure –mot ou racine– se soit rallié secondairement à un type pyrénéen occidental ancien. *Mais cette question est sans importance pour mes investigations, puisque je recherche non pas des étymologies, mais des types*. Des éléments d'origine étrangère secondairement assimilés à d'anciens types indigènes contribuent, eux aussi à affirmer l'existence de types anciens (Uhlenbeck 1942: 567).[35]

Demagun VCCV bezalako erro eredu bat maileguz eta berrikuntzaz josia dugula eta, aldiz, aitzineuskarako hautagai bakar diren etimologiagabez oso urri. Har ditzagun horren barruan dagoeneko aipatu ditugun *eske* edo *urde* bezalako bi hitz; oker ez banaiz, ez da orain arte bi hauentzako kontsentsu osoko ez gutxiko etimologiarik (cf. Arbelaiz 1978 edo Agud & Tovar 1987-1995). Erro-ereduaz dakigunak bidera gaitzake arestian pentsa zitekeen baino urrutiago: iturri edo jatorri zehatza lortu ez arren ere, hitzon egitura hutsak biek mailegu izateko aukera handia dutela esango liguke, Mitxelenak aspaldi (1964), *dollor* eta *abagadaune*-rekin egin bezalatsu. Gainera, Ernout-Meillet eskuan, *eske*-tik *uescor* 'eskatzen naiz' eta *urde* 'zikin'-etik *turpe*-ra

---

[35] Azterketa formal baterako zenbait irizpide (cf. Lakarra 2008b):

a. Izan zitezkeen erroen eta lekukotuen arteko erlazioaren irizpidea,
b. Etimologia ezezaguneko erroen eta izan zitezkeen erroen arteko erlazioaren irizpidea,
c. Iragazki fonologikoen irizpidea,
d. Iragazki geografikoaren irizpidea,
e. Erro mailegatuen eta izan zitezkeen guztien arteko erlazioaren irizpidea,
f. Erro fonosinbolikoen eta izan zitezkeen guztien arteko erlazioaren irizpidea.

den bidea errazki edo iruzur handirik gabe egin ahal badugu, are hobe guretzat, noski (ik. §9). Jakina, hauetan eta bestetan bada gainerako aldaketa zenbait bere aldetik –bestelako paralelismoen bitartez– azaldu behar denik. *Bazter* eta *bildur*-ek ere oso dute «jator» itxura, AE-ko CVC + CVC batetik atereak bailiran; itxura ez da aski, ordea: zer dira hor **baz, *ter, *bil* eta **dur*? Ezer ez; ez dira hitz horiek besarkatzen dituzten sare zabal ez meharretako kideen intersekzioak [= erroak] eta, beraz, nekez esan genezake ez orain ez lehenago ere, morfemak izan direnik. Horrenbestez, berba hauetan ere maileguak ikustea edo susmatzea, bederen, ez bide da ezinezko, aukera horretaz orain arte ohartu ez bagara ere; besterik da, jakina, erabateko frogak ematea (cf. *dollor* 65. oh. eta testuan).

8. Hizkuntza monosilabikoak ez dira eransleak izan ohi, lehen aipatu vietnamera, txinera edo Gineako kwa[36] hizkuntzetan argiro ikus genezakeenez. Aldiz, erro bisilabikoak dituzte ia %100ean eransle garbiak diren hizkuntza finougrioek, japonierak, turkierak, dravidikoak, mongolierak edo Australiako gehienek.[37] Ez ditut hemen gertakari honen ondorio guztiak miatuko baina edozein ohar liteke hain sartua eta zabaldua dugun euskararen irudi kanonikoa –eransle, aditz komunztadura aberatsa, izen sintagma deklinabide atzizkiz eta bestelakoz josia, aurrizkirik ez, SOV ordena, etab.– ezin izan litekeela ez Adam eta Ebaganikoa, ez duela 7000, 5000 edo 3000 urtekoa ere euskararen ikuspegi tipologiko klasikoa:

> Basque is the only surviving pre-Indo-European language in western Europe, and it is typologically very different from its Indo-Euro-

[36] Hauetaz ikus lehen aipatu Hyman (2004); Jungraithmayr-ek badu (1990) lan interesgarri bat Afrikako hizkuntzetan oinarrituaz beti ez dela isolatzaile > eransle ematen, inoiz eransletik isolatzaile eta flexiboak ere atera direla argudiatuz; ikus orain Iván Igartuaren *Die Sprache*-ko lana zentzu berean.

[37] Eurasia iparraldeko hizkuntza eransleez ikus Austerlitz (1976). Aitzinuralikoaren eta aitzinfinougrioaren forma kanonikoaz ikus Bakro-Nagy (1992); dravidikoaz Andronov (2003) eta Krishnamurti (2001); Australiako hizkuntzez Dixon (2002) eta Bowern & Koch (2004). Bidenabar, Morvanek (1992a-b, 1997, etab.) zernahi ere dioen, berezilariek aspalditik ez dute sinisten familia uraloaltaikoan (ikus Campbell 1998), ezta makro-altaikoan (koreera eta japoniera barne) nahiz mikro-altaikoan ere (mongoliera, turkiera, mantxuriera eta horietariko bakoitzaren kideak «soilik»), dirudienez; ikus Vovin (2005) eta Vovin & Georg (2003, 2005).

> pean neighbors. Consequently, both genetic and typological maps of European languages invariably show the Basque-speaking region is a distinctively colored blob at the western end of the Pyrenees. (…) Typologically, Basque is a rather well-behaved SOV language with almost all of the textbook characteristics of such languages: verb-final order, preposed modifiers, an abundance of non-finite verb forms, a rich case system, a highly regular agglutinating morphology with few alternations, an absence of prefixes, and so on (Trask 1998: 313).

Munda eta mon-khmerra erkatuaz Donegan eta Stampek egin dituzten saioetarik (ikus 1983 eta 2004koa, adibidez) eta mundak aitzin-austroasiatikotik izan duen deribaz euskara historikoaren historiaurreaz gauza jakingarririk atera litekeela azaldu uste dut zenbait tokitan (ikus Lakarra 2005 eta 2006a, esaterako): mundaren hasierako azentua –Martinetek AE-rako suposatzen zuena– hitz ordena librearekin (baina, gehienbat SOV eta Adjektibo-Izen, postposizioekin), IS-ko kasu eta AS-ko komunztadura aberatsarekin, hitz-kanon trokaiko edo daktilikoarekin, morfologia eransle, atzizkibera eta polisintetikoarekin, bokalismo iraunkorrarekin, etab. doa; mon-khmerraren akabuko azentua –Mitxelenaren 2.a bisilaboetan edota nirea Aurrizki + CVC-Erro egituretan– ordena zurrunarekin (VO eta Izen-Adjektibo, preposizioekin), sintaxi analitikoarekin, morfologia aurrizkidun edo isolatzailearekin, bokalismo aldakor eta diptongatzailearekin ...[38]

Txinera edo mon-khmerraren itxurako egitura batetik azken bostehun urteotan ezagutzen dugunera egindako bide luzea eta eskuratzen zaila bide

---

[38] Bilakabideari dagokionez, euskara modernoarekin doan munda da aitzin-austroasiatikoaren eredua goitik behera aldatzen duena:

> Munda languages not only reversed the accentuation and syntax of Austroasiatic: they also moved from analytic structure with only derivational morphology, to synthetic or even polysynthetic structure with rich inflectional morphologies which include subject and verb incorporation (or at least agreement), case marking, and a far greater freedom of word order. A predominantly morphological grammar like this seems to be typical of dependent-head order (…) If morphologization and head-last order were not clearly associated in the world's languages, the rich flowering of morphology in each of the Munda languages, once they had adopted head-last order, would certainly make the association clear (…). (Donegan 1993: 4-5)

da; badute hor, beharbada, lanik gaurko eta biharko hizkuntzalariek, batez ere euskara munduko edo inguruko hizkuntza fosil bakartzat hartzera mugatzen ez direnek. Gainetik, ongi litzateke gogoantzea orain arte gehiegi ikusi ez diren edo ikusi nahi izan ez diren zenbait gertakari «bazterreko», eskubi aldeko erlatibo zaharrak edo aurrizki zahar urriak edota Izen-Adjektibo ordena (cf. Lakarra 2006a).

Baliteke sinkronista amorratuentzat –batez ere XXI. mendeko euskara dutenentzat corpus bakar edo ideal gisa– irregularitate gutxi batzuk ez izatea deskribapen egoki edo azalpen sakon-erabatekoak emandako poza hondatzeko lain. Diakronian, ordea, ikuspegi honek ez du ez hanka eta ez buru; irregularitateak dira, hain zuzen, erakartzen gaituztenak,[39] eta are gure egitekoaren ia oinarri guztia. Meillet eta Sapirrengandik datorren doctrina da –gure artean Mitxelenak usu azaldu eta frogatua– edozein hizkuntzatan eta hizkuntzaren edozein alderditan irregularitateek dutela zahartasun aukera gehien. Gogoeta honek ez du zerikusirik hizkuntzen diseinatzailearen asmoekin edota hauen primitibismoarekin (cf. Jungraithmayr 1990) edota hizkuntzek –horretarako Akademiak dituztenek, jakina (?!)– azken garaietan izan bide duten «garapenarekin». Ez, irregularitateari eman ohi zaion lehentasuna ez da diakronisten berezko edo beharrezko apaltasunaren ondorio baizik; hots, irregularitateak ez daude objektuan, hizkuntzan edo hizkuntzaren garai bateko egituran, geure begietan baizik.

---

[39] Batez ere beste irregularitate edo susmo-iturri batzuk ditugunean, adjektiboarekin euskaraz ditugun legez; hots, hartzen baldin baditugu Dixonek (1982) eman adjektibo gabeko edo urriko hizkuntzek gainerakoek kategoria horren bitartez sortzen dituztenak ordezkatzeko lau bideak (erlatiboak, eratorriak, partizipioak eta maileguak) eta, halaber, adjektibo hierarkian oso gora den koloreen atala miatzen euskaraz, hara zer ateratzen zaigun: *beltz* → eratorri, *zuri* → partizipio, *gorri* → id., *hori* → id, *azul* → mailegu, *berde* → mailegu, *gris* → mailegu, *marroi* → mailegu, *urdin* → erlatibo/eratorri... Jakina, adjektibotasunaren hierarkian hain gora den alor batean hori gertatzen bada nekez pentsa genezake adjektiboa kategoria askea izan denik aitzineuskaran. Ondorio hau ez doa batere gaizki eransletasuna euskaraz modernoa dela argudiatzeko: Post-ek (2006) erakutsi du tani hizkuntzetan adjektiboa lehenago aditzaren zati zela (gainerako hizkuntza tibeto-burma isolatzaileetan oraindik den bezala) eta eransle bilakatuaz doazen heinean adjektiboa aditzetik urrundu eta izenerantz hurbilduaz doala. Ikus alde honetatik Bhat-ek (2000) hizkuntza dravidikoen eta tibeto-burmen artean egindako erkaketa eta Lakarra (2006a)-n bildu gure hizkuntzaren bilakabideko zenbait paralelismo.

Alegia, ezagutzen ez duguna da irregular eta azalpen-gabe egiten diguna ezaugarri edo erregela; eta gertakari hau usuago gertatu ohi da duela 500 urteko lekukotasun baten aurrean ezen ez duela 50ekoarenean edo gutariko edozeinen ohiko jardunean.[40]

Horrenbestez «ongi-etorri»-en pean ezkutatzen jarraitu beharrean, zergatik ez hauetariko batzuk mahai gainean jarri eta gure ikerketaren ardatz bihurtu? Baliteke fonologian, morfologian zein lexikoan zenbait ustekizun aldatzeko gairik nahiz aurreko berreraiketa-paradigma osatzeko edo gainditzeko bide edo bidexkaren baten bat ere antzematea.

9. Gogoetan nintzelarik duela zenbait hilabete zein perpaus hautatuko nuen egungo egunean zuen aurrean ukitzeko, deliberatu nuen –filosofo zaharren eta Sarako Joanesen esanei jarraituaz– euskal entzuleek beti oso gogoko ohi duten gaia hartzea eta, beraz, ezkerra hautatzea nire gaurko jardunerako. Alabaina, ezker hau ez da izango gizartea aldatzeko, modu baketsuan edo bestela, antolatzen diren eta –baten baino gehiagoren ustetan, naski– Euskal Herrietan ere beharko genukeen horietarik. Ez, izan ere, segur nintzen entzuleen artean gehienak ziratekeela bere baitarik horretara aski emanak eta ez zutela nire beharrik ezker horren balentria eta kantaalosia goxoetara makurtzeko.

Nik gaur aipatu nahi dudan ezkerraren berreraiketa bestelakoa da, aspaldiko aitzineuskararen ezkerrarena, alegia. Orain arte hitzen erdi-aldea, bokalarteko kontsonanteak zein kontsonante arteko bokalak gehi eskubiko amaierak (batez ere kontsonantikoak) izan dira gehien ikertuak. Koldo Mitxelenak erakutsi zuen, ordea, hitz hasiera zela kokagunerik zailena leherkarien berreraiketari dagokionez: bertan kontsonante fortisen galerak eta ahulen transfonologizazioak ditugu, hainbat kontsonanteren erorketak eta gehiketak (*FHV* §12.20), beren arteko asimilazio eta disimilazioak (*FHV* §12.21), metatesiak (*FHV* §12.22)... Erants bekizkie horiei hortzetakoek hor duten ahularen hutsunea eta **d- > l-* bilakabide zenbait (ikus behera-

[40] Berebizikoak dira Mitxelenaren argudioak **edun*-en iraganeko paradigma irregularraren zahartasunaren alde eta Lafonen eta Orixeren paradigma erregular (ezberdinen) aurka; ikus Mitxelena (1963).

go), leherkarien txistukaritze zenbait, ahoskabe/ø eta ahostun/ahoskabe/ø alternantziak (*FHV* §§12.11-12.14), «ezpainkarien auzia» –hasierako kokagunean inon baino biziago dena–, dardarkari biak ere hor falta dira, AE ondoko fortis/lenis neutralizazio orokorra, hots palatalen ugaritasun nagusia (eta hor beste hots batzuekin txandakatzeko duten aukera)... Ez dirudi Mitxelenak gehiegikeriarik zioenik ondokoa ondorioztatzean:

> En todo caso, se piensa que la prótesis no se explica más que suponiendo que no fueron raras las caídas de consonantes en posición inicial, caídas que no se consumaron en todas partes ni en todas las palabras con el mismo ritmo y la misma regularidad. Por ello, a pesar de que el vasco –al menos reciente– no es una lengua prefijante,[41] la inicial de cada forma nominal llegó casi a ser considerada como algo modificable, si era consonántica, y como un hueco susceptible de ser llenado por distintos pseudo-prefijos, si era vocálica. *El resultado es que la inicial es la posición de máxima inseguridad para la reconstrucción comparativa* (FHV, 252-253; etzana neurea).[42]

Hau ez da soilik leherkariekin gertatu, noski eta, bestalde, oraindik ez da ongi ezagutzen gertatutako guztia eta horren garrantzia hitzen itxuran edo horien egitura fonologikoan nahiz morfologikoan. Aurrera baino lehen, esan dezadan *FHV* bikainean hitz hasieraz zer ikasi izan arren ez dela aurki-

---

[41] Gertakari hau Azkuek «metafisikoki» azaldua zuen dagoeneko:

> *§36. Prefijos*. Son escasos los de nuestra lengua, y es posible que antiguamente no tuviese ninguno, como se dice que tampoco los tuvo el indoeuropeo; eso que hay lenguas de esta familia, como el griego, latín y alemán, que los tienen en abundancia. Por lo que hace a nuestra lengua, aunque no tengamos documentos de su estructura antigua, parece que su genio permite hacernos vislumbrar la razón de su escasez en estos elementos pretemáticos. Lo más importante, lo más noble se coloca a la cabeza de lo que modernos lingüistas llaman un sintagma (…) Entre el sustantivo y sus calificativos (…) Entre un verbo y su auxiliar (…) De esta tendencia a colocar a la cabeza el elemento más importante parece venir nuestra aversión a los prefijos. ¿Pues qué prefijo, no siendo los que se refieren al ser o no ser (confirmación o negación), puede haber más importante que la cosa o la acción de que se trata? (Azkue 1923-25:42-43).

Honetan Azkuek Astarloarekiko duen zorraz ikus Gómez (2007).

[42] Gogora harako Bertoldi-ren (1931: 128) «Un des traits les plus singuliers de l'euskara moderne est sans doute la grande instabilité, la caducité même, des consonnes initiales (surtout *g-, k-*)» (*apud FHV*, 531).

tzen hitzaren gainerako kokaguneez (amaieraz eta barren ezberdinez) adinako informaziorik. Zehatzago, ez da hor berariazko atalik enparauei eskaini bezala, dela bokalak aztertzerakoan, dela ozen, txistukari edo gainerakoak banan-banan miatzean. Alabaina, hitzen ezkerreko partearen azterketa sistematikoak euskal fonologiaren bilakabidearentzako berririk ekar lezakeela deritzot eta bertsolari eta poetek –edota azken 500-1000 urteotako euskarara mugatzen diren euskalariek– beren harrobi eta bihotza eskubian izan arren, nago guk hor zer irabazi gutxi dugula eta zailtasunak zailtasun, hobe dugula ezkerrera begi eta buru bihurtzea.[43]

Lakarra (2005) eta (2006a)-n proposatu genuen legez, guk (1) AE zaharrak IS-n ere aurrizkiak zituela[44] eta (2) hitzaren kokagune bortitza ez hasierakoa baizik eta errokoa dela eta azentua ez hasieran baizik eta amaieran (erroko monosilaboan) bilatu behar dela defendatuko dugu (ikus §16). Begibistakoa da, demagun, hasierako kontsonanteen erorketan datzala hein batean euskara modernoak omen duen bokalez hasitako hitz kopuru larri horren zioetarik bat (cf. §17). Erorketa horietarik batzuk (adib. *kamaña* > *amaña*) ezagutzen dira, baina ez guztiak, ordea. Hara, esaterako, ondoko hitzok:[45]

alu < *ualuu,*	*izar* < *Siriu-za*
ater < *uertere*	*olde* < *uoluntate*
eskatu < *uescor*	*orein* < *ceruu-oin*
esker < *uoster*	*oratu* < *coger*
ezain < *uexanu*	

Hauek guztiak, jakina, mailegututako ondarean gertatu dira; ez da, bada, zer pentsatu erorketak soilik altxor zaharrenekoaren barnean eman direnik eta soilik *p-, t-, k-* edo *m-* hotsez hasiak direla maileguak, itxuraz

---

[43] Ikus atal honekin lotua den §17.a (hasierako bokalismoaren ugaritasunaz); ezinbestekoa iruditzen zait bietako bilakabideen irakurketa tipologiko bat, han aipatzen den dravidierak hizkuntza eransle izateko egin bidearen paralelismotik edo besteren batetik.

[44] Ikus Trask (1977) eta hemen ondoko §11 aditz-aurrizkiez.

[45] Ez dut hemen guztien zehaztasunak emateko betarik eta ikus Lakarra (prest.-1). Alabaina, hasierako kontsonante ezberdinen erorketaz landa diren beste zenbait fenomenoren (metatesiak, /r/ eskubiratzea) adibide gehiago aurkitu ahal dira lan honetan bertan; gainerako aldaketak (e > a/__R, -i/-u > -ø lehen osagaien amaieran, -iV hiatoen soiltzea, asimilazioak...) ezagunak dira.

Traskek (1997) egin legez. Ez da zer pentsatu soinu horiekin ageri diren hitz guztiak mailegu direnik ere: aspalditik ezagutzen ditugun *kalte* edo *koipe* edo *talde*, *tarte* zein *toki*-z landa, badira hainbat eta hainbat fonosinbolismo ere. Hara, azken hauen zenbait adibidetarako TVRV eredukoak: *burra, fara-fara, firra, firri-farra, furra, gale, gili, guru, kara, kili, kirri, kuru, kurri, mana, mara, mini, mino, mura, murra, murri, murru, pirra, pirri, tala-tala, tana, tirri-tirri, tarra* (Lakarra 2004). Gertakari honek –alegia, fonosinbolismoaren ugaritasunak– adierazten du denbora luze batez hitz arruntak (direla jatorrizko, direla mailegatu) leherkari ahostunez hasten zirela eta hortik ahoskabeek (eta /m/-k) izatea hainbesteko balio fonosinbolikoa; nekez bestela.

Gainetik, badira C- > ø- asko altxor zaharrenean ere: esaterako, *akher, ahuntz, esparru, eztul, erro, ibai, idoi, ur, eure*... eta beste askotan *h-* galdu dela ia segurutzat jo genezake.[46] Izan ere, zenbaitek badute euskalki modernoren batean edo testu zaharren batean *h*-dun aldaerarik; beste kasu batzuetan *h- batez* hasten zen CVC erro batekoak dira, *h-* barneko beste baten eraginez desagertu delarik, *ilherri*, edo *ilhotz*-en kasu ezagunetan legez. Badira, azkenik, azentutik urrutiegi zirelako -edo eroriak baina familiako kide oinarrizkoagoetan hots hori ageri dutenak (cf. *FHV*, 525).[47]

---

[46] Altxor zaharreneko izateak ez dakar pairatzen dituzten aldaketak ere ezagutzen ditugun zaharrenak edota hizkuntzaren garairik zaharrenekoak izatea. Esaterako, Mitxelenak /h...h/ > /ø...h/ bilakabideaz dioenaren arabera **hi-haur-e*-ren lehen /h/ Erdiaroan galdu zen, ez lehenago, eta horretarako ezinbesteko denez bigarren, barneko /h/-a, nekez eman liteke *eure* III. mendean, esaterako. Tartean, bidebatez, bada *-iau-* triptongoaren soiltzea ere (eta lehen zatiaren *-e-*rako aldaketa), baina hau ia txikikeria bat da aurrekoaren ondoan. Manterolak (2006) erakutsi bezala *-ha* > *-a* 3. graduko artikuluan erabat bete gabe bazen XI. mendean ez da arrazoirik pentsatzeko lehen gradukoan eta bigarrenekoan *-haur* eta *-hor* soilduak izan zitezkeenik; gogoeta hauek, jakina, ez soilik Mitxelenak (*FHV* 210) «kontraesantzat» jo zuen *eure*-ren *h-* faltarentzat, baizik eta posesibo indartuen paradigma osoan falta den **-h*-rentzat ere balio dute eta, horrenbestez, baita beren kronologiarentzat ere (ikus Lakarra 2009a eta 2009c).

[47] «añado, sin ánimo de ser exhaustivo, algunos otros razonablemente seguros en que son siempre las formas complejas, más largas, las que carecen de *h*». Ohar bekio lehen edizioko ondokoari ere: «Hay que añadir que, dado lo confuso de la situación moderna, es difícil precisar qué consonantes desaparecidas en posición inicial dejaron como resto una aspiración ni en qué condiciones pudo después perderse ésta. Cabría admitir, para citar una sola posibilidad, que en palabras complejas, al encontrarse la inicial a mayor distancia del acento que en la simple de que procedía su primer

10. Ezaguna denez, Martinetek eta Mitxelenak sistema karratua (bi fonema hitz hasieran, beste bi barruan) proposatu zuten leherkarientzat AE-rako. Beranduagoko garai baterako, EBZ-erako demagun, ez karratua baizik eta triangelua edo erronboa zen hobestekoa itxura guztien arabera:



Batetik bestera nola igarotzen den ere aipatu zuten: leherkari bortitz (herskari hasperendun) ziren hasierakoak «galdu» –hots, hasperen huts bilakatu eta, beraz, leherkarien sistematik atera– eta ahulak (herskari hasperengabeak) ahostun bilakatu ziren. Aldaketa honen berme dira euskalki orotako lekukotasun zahar guztietan: *baradizu,*[48] *bake, bago, butzu, galte, gorotz*, etab. ditugu lehenago eta ugariago *paraiso, pake, fago, putzu, kalte, korotz* eta gainerakoak baino.

Aldaketon zergatia eztabaidatua da: Martinetek (1955), esaterako, arrazoi soziolinguistikoengatik leherkari bortitz hasperendunak kolpez ezabatu eta horien ordez inguruko hizkuntzetan (eta munduan zehar!) hain arrunt diren ahoskabe soilak zabaldu zirela diosku. Badirudi, ordea, prozesu konplexuagoa, luzeagoa eta hein batean interesgarriagoa dugula, hizkuntzaren beraren barneko arrazoiei zor zaielarik: hots, hiperkarakterizazioak leherkari bortitzak hasperen eta ahul –goxoak– ahostun egin litzake erraxki. Gero, hasieran soilik ahostunak dituen sistema ez da naturalegi eta, beraz, egonkorregi ere eta ahoskabeak sor litezke eta, beharbada, ahoskabe horiek sortzea –bestelako hizkuntzen eraginik gabe ere– beharrezko ere izan liteke. Nolanahi ere den, prozesu hau ez zen egun batetik bestera gertatu, eta ezta hizkuntzaren kanpoko arrazoiengatik ere: artean latinez ahoskabez hasten zen mailegu asko hizkuntzan sartu eta –itxuraz arazo larririk gabe– ahostun (= ahul) gisa bertakotua zen; gainetik, ahoskabe berrien artean ez soilik maileguak baizik eta fonosinbolismoak eta

---

elemento, haya desaparecido la aspiración que en éste se conservó: sul. *ardai* 'yesca', sin duda oxítono, cf. guip. *ardagai*, lab. *hardo* (vid. infra, 12.16)» (219-220).

[48] Ohar bedi nola *b-* zaharrarekin doan *-z-* ordain zaharra; *p-* berriagoarekin, aldiz, *-s-* kausitzen dugu.

ondare zaharreko zenbait ere baditugu: begira goian (§7) eta hementxe bertan, hurrenez hurren, TVTV eta TVSV ereduetako datuak.

Hitz akabuan, aldiz, ezaguna da bortitzaren alde egin dela neutralizazioa. Hau garbiago ikusten da ozen eta txistukarietan kokagune horretan arrunt urri diren leherkarietan baino. Halere, hemen kontuak –zati on bat, bederen– beranduago gertatu dira: txistukari eta ozenetan ohiko erronboa hartzen badugu ez dirudi horrelakorik izan genezakeenik ez hiru baizik eta bi kokagune soil –hasierakoa eta amaierakoa– baizik ez zenean, erro monosilabikoaren garaian. Asko da hemen aztertzeko eta finkatzeko baina, bestetan legez, badirudi hitz hasierako kokaguneak gordetzen duela informaziorik zaharrena edota garairik zaharrenaren isla.[49]

11. 1977ko lan bikain batean Larry Traskek erakutsi zuen euskal aditz jokatuan osagai arkaikoenak erroaren ezkerretara direla, ez eskubitara. Honenbestez, aditz zaharrek aurrizkiak izaki eta ez atzizkiak garai modernoetan bezala, esaldiko ordena ez aditza amaian (SOV) baizik eta aditza hasieran (VSO / VOS) edo aditza tartean (SVO)[50] bide zen; Traskek bigarrenaren (SVO) alde egin zuen zalantzarik gabe.[51]

> This paper argues that the contemporary grammatical system of Basque is descend from an earlier, quite different, system, and that many features of present-day morphology and syntax which are not well integrated into system, in which they occupied a natural and coherent place. The older system was one with SVO syntactic order and typical SVO grammatical features, as established by modern typological studies (…) Among the grammatical features which appear to reflex the earlier system are the following: a) The correlation of the third person prefixes with verbal categories; (…) d) The

[49] Ikus, partez, Martínez Areta (2006) AEZ-tik AEM-ra den sistema aldaketaz; nolanahi ere, zer zehaztu asko da, nahiz eta etimologiak ugalduaz doazen.

[50] Jakina, «aditza tartean» bada OVS ere, baina hau eta bere kide OSV badiren ere ukatu egin izan da eta, gehienez, hizkuntza karibeek eta beste gutxi batzuk omen dute hurrenkera hori tipologoek diotenez.

[51] Ez naiz hemen sartuko (lehenago Gómez 1994 eta Gómez & Sainz 1995 legez) SOV baino gogokoago zergatik dudan VSO erakusten; ikus Lakarra (2006a).

> presence and position of the dative marker in the verb; (…) f) The verbal prefix *n-*; g) The causative prefix *ra-*; h) The SVO order of pronominal elements in intransitive verbs; i) The OVS order of pronominal elements in most transitive verbs; j) The SVO word order in negative sentences (Trask 1977: 212-213).[52]

Artean hirugarren pertsonaren markatzat jo ohi ziren *d-*, *b-*, *l-*, *z-*, *ø-* Traskek aspaldiko modalitate markatzat azaldu zituen:

> First, *e-* may have been a marker of perfective aspect, contrasting with *da-*. This would mean a verbal system contrasting perfective and imperfective aspect with condicional and optative/subjunctive mood –a rather plausible system somewhat reminiscente of those found in Slavic and Semitic languages, or in Proto-Indo-European. The development of imperfective and perfective aspects into present and past tenses would then be an unremarkable development. Second, *e-* might simply have been the characteristic of verb forms which were unmarked for any modality. Such a system is not quite so plausible as the previous one, but it has the advantage of accounting for the presence of *e-* in the infinitive and participial forms and in the verbal noun. And continuous and unmarked forms could perhaps develop into present and past tenses almost as easily as imperfective and perfective forms (Trask 1977: 212).

Izan ere, bestelako argudioez landa,[53] nekez sinets liteke hizkuntza batean hirugarren pertsonak hainbat komunztadura marka izatea, lehendabizikoak eta bigarrenak bana izaki; hartan ohikoena marka bakarra edo markarik gabekoa izaten denez, gure kasuan *ø* (perts.) + *d-*[54] (denb./aspekt.) / *ø* (perts.) + *b-* (denb./aspekt.) / *ø* (perts.) + *l-* (denb./aspekt.), etab. sortu

---

[52] Horiez gainera, aditzen pluraleko *-it-* aurrizkia eta zenbait izenetako *ma-* aurrizki adierazkorra ere aipatzen ditu lan amaierako laburpen honetan, aldaketak gerta zitezkeen kronologia erlatibo bat proposatu aurretik.

[53] Goiko bere zerrendan, labur beharrez, eman ez dudan hirugarren ezaugarria «the presence of third person prefixes in verb forms having no third person argument» dugu.

[54] Izatez, ez *d-* baizik eta *da-* dugu aspektu marka; gonbara *da-* preposizioa *labur* eta bestetan edo *-t, -la, -ra* atzizki alatiboetan. Ikus beherago testuan aspektu burutugabe gisa eta alatibo gramatikalizatzen diren multzo-aditz berdinez.

bide ziren hasierako *d-, b-, z-, l-* horiek, gero berranalisiaren bidez hirugarren pertsonak laupabost marka hartzen zituelarik. Esan dezadan, bidenabar, antzekoak gertatzen direla beste hizkuntza eransle batzutan ere: «Stem + tense + ø agreement > Stem + ø tense + agreement» (Kuznetsova 2004: 155) dioskute berezilariek Siberiako hizkuntza baterako, adibidez.[55]

Traskek *dator* eta *dakar* bezalakoetan ez zuen sakondu nahi izan *da-* «aurrizki» ala «laguntzaile» izan ote zen;[56] izan ere, berarentzat aski zen hizkuntzak tipologi aldaketa larria izan duela erakusteko, batera zein bestera izan eransle, atzizkidun, SOV hurrenkera eta enparatuko ezaugarri modernoetarik urruti gelditzen baita. Orain aurreraxeago jotzerik (eta jo beharrik ere) badugu: gramatikalizazio teoriak *Lag > Aurr* bilakabidea bai baina *Aurr > Lag* ezinezkotzat jotzen duelarik, Trasken 1977ko hautaketa erraxa da erabakitzen. Bestalde, *da-* horrek aditz-erro batetik sortua behar du; izan ere, zenbait multzo-aditz (*serial verb*) alatibo gisa IS-n eta aspektu burutugabeko marka gisa (AS-n) bihurtzen dira, euskaraz bezalaxe:

> Asymmetrical S[erial]V[erb]C[onstruction]s are arranged below, in order from the most frequent and cross-linguistically widespread to the more restricted ones, whith an indication (in the order of priority) of the semantic group of verbs likely to occur in such constructions. The order also reflects the historical development of SVCs» (Aikhenvald 2006: 48). [57]

---

[55] Garai modernoagoetan euskaraz eskubitara, atzizki gisa gehitzen dira horrelako markak, jakina.

[56] «What I propose is that *da-* is a single prefix, and that this was the original full form of the present/continuous verbal affix. It is just conceivable that this *da-* is to be identified with the verb *da* 'he is', and that the present tense therefore has its origin in a periphrastic construction, but this possibility will not be explored here» (Trask 1977: 204-205).

De Rijkek (1992) *da-* hori 'orain' adberbiotzat jo zuen, jatorriz (Trasken hipotesia aztertu gabe, bidenabar); halere, Traskek 1997ko liburuan De Rijken azalpena ontzat eman zuen. De Rijken teoriak nire ustez dituen hutsune (batez ere) fonologiko eta morfologikoetarako ikus Lakarra (2006b) eta (2006c).

[57] Lakarra (2008a)-n markatu dira **den* eta **nin* erroek multzo-aditz bezala dituzten beste zenbait gramatikalizazio: hurrenez hurren, iraganeko eta 3. pertsona pluraleko marka, hainbat datibo mota IS eta AS-n; bigarrenaz ikus Lichtenberk (1985) Ozeano Bareko mendebaleko hizkuntza austronesioetan emandako gramatikalizazio prozesu erraldoia eta Aikhenvald (2006)-ko zenbait lan lehenaz. Bada oraindik multzo-aditz gehiagoren arrastorik, hirugarren graduko erakuslea

Hurrenez hurren, «1a. Direction and orientation: verbs of motion», «1b. Aspect, extent and change of state», «2. Modal», «3. Valency-increasing and argument-adding», «4. Comparative and Superlative», etab. datoz Aikhenvalden sailkapenean.[58] Aditz horiek 'sit'-en baliokide izan ohi dira:

Ndi- no- gara	ndi- chi-dya	ne- nguva	dzino
1:SG-PRES-sit	1:SG-PM-eat	COM-time	this

'I usually eat at this time' (Shona: apud Heine & Kuteva 2002: 279)

Jeg	sitter	og	snakker
I		sit.1SG.PRES and	talk.1SG.PRES

'I am talking' (Norvegiera: apud Kuteva 2001: 45)

Euskaraz ere horrelatsu izan bide da (cf. Lakarra 2008a).[59] Nolanahi ere, aski izan bedi oraingoz aditzaren morfosintaxi zaharra aztertzeko ere ezker partea dugula emankorrena aldarrikatzea.[60]

(**har*) sortu zuenarena, demagun; cf. Lord (1993)-ko datuak Gineako Golkoko hizkuntzetan eta txineraz emandako antzeko bilakabideaz.

[58] Cf. «Patterns in present-day Benue-Kwa languages suggest two general paths for grammaticalization of locative verbs. One direction is from verb to marker of incompleted aspect. Another is from verb to preposition, proceeding in some cases to prefix and to zero» (Lord 1993: 29-30).

[59] Gogora **dar* (> *jarri*) = 'sit'; cf. Lichtenberk:

> Cross-linguistic studies suggest that of the three main posture meanings it is 'sit' that is most often implicated in the development of the progressive aspect. This is not at all surprising when one considers the following. First, the progressive aspect develops first with dynamic, activity verbs, whose subjects are agents (Bybee et al. 1994; also Dahl 1985). Second, humans are the quintessential agents. Third, of the three main postures, it is sitting that is characteristically human. And fourth, verbs with the meaning 'sit' acquire semantically unmarked locative (and existential) uses in which they are prototipically used with human subjects. It is the association of such verbs with humanness of their subjects that makes them better candidates for development into progressive markers than either of the other two basic posture verbs are (Lichtenberk 2002: 311).

Ikus Newman (2002)-ko lanak hainbat hizkuntzatan gertatzen diren antzeko bilakabideez.

[60] Aditz jokatuetako ezker aldeko arazo eta interesgune bakarra ez da, noski, *da-* (bidebatez, zergatik ez zen ***la-* bilakatu?); gainerako modalitate marka zaharrek ere badute berena: esaterako, dagoeneko IS-n ikusi dugunaren arabera *letor, lekar* eta bestetako *l-* hori **d-* batetik datorrelarik, zerbait esan beharko da horien jatorrizko funtzioaz, neurriren batean Trasken 1977ko proposamenetarik [«*le* conditional» (212)] urrunduaz. Bestalde, Lafon eta lehenagotik egin diren

12. Har bitez euskaraz arrunt ezagun diren ondoko hitzak:

a. *gazi*, *atze*, *jale*,
b. *harbel*, *gordin*, *zaldun*,
c. *gogor*, *zezen*, *adar*,
d. *lagun*, *gibel*, *samur*,

Hiztun soilei nahiz hizkuntzalariei galdetu, esango nuke askoz errazago zaiela (a) eta (b) sailetakoak zatitzea eta azaltzea ezen ez (c) eta (d)-etakoak. Lehendabizikoan edozeinek ezagutuko ditu *jan* aditza eta *-le* «ofizioetako atzizkia» eta baita *gatz* erroa ere; batek edo bestek baita *hatz* ere baina, beharbada, gutxi dirateke *aurre*-n *ahur* isola dezaketenak, Mitxelenak (1971) egin legez. Hori bai, *gazi* = *gatz* + *-i* eta *atze* = *hatz* + *-e* direla jabetzean *nahi* ere X + *-i* eta *aurre* Y + *-e* izan litezkeela onartzea ez bide zaie zailegi egingo.[61]

(b)-n ere *har* + *bel* (cf. *horbel, ubel*, etab.), *gor* + *din*, *zal* + *dun* zatitzea ez zait begitantzen ezinezko askorentzat. Egin kontu, gainera, bizi-bizirik direla *harri* eta *beltz, gorri* eta *zaldi* eta baita, zehazki zer diren jakin ez arren, ezagun xamarrak *-din* eta *-dun* ere (cf. *berdin, urdin*, *bizardun, jatun*, etab.) eta, beraz, zatikatzea zalu joan liteke.

(c) eta (d) sailetan kontuak bestelakoak izan litezke, nire iritzian, eta «aprobaren» bat egin izan dut inoiz neure inguruan: euskaltzaleek eta euskaldun hutsek ere etimologiekiko zaletasun markagarria izan arren, ez bide dute berehalakoan aterako hor **gor, *zen, *dar* eta (batez ere), **la, *gun, *gi, *sa* zatikiak direnik eta, beharbada, ez lukete horko *-mur labur*-eko akabuarekin lotuko.

Ez da euskaldun eta euskaltzaleei zer aitzakiatu euskalariek ere ez baitituzte oraintsu arte hitzok analisatu; izan ere (a) eta (b)-koak edo horien tankerako gehienak konposatu edo eratorritzat jo ohi dira hiztegi eta gramatika hoberenetan, baina (c) eta (d)-koak hitz bakun, erro soiltzat azaltzen dira guztietan. Honen zergatia begibistakoa da: lehen bi sailotan badira oraindik erro eta atzizki eraginkorrak, horrelakorik premia izanik

---

saioak *ahal*-etik deribatzeko aski ahul eta funtsik gabe bilakatzen dira; ikus Lakarra (2006c)-ko zenbait ohar.

[61] X = **nan* eta bokalartean /n/-ak /h/ ematen duela, etab., beharbada beste urrats batekoak bide dira.

hitz berriak sortzeko gai direnak edota behintzat bai ez hain aspaldi sortuen berri emateko; azken bi sailetan ez da halakorik: horko osagai eta prozesuak ez dira emankor eta ez dirudi aspaldian ere izan direnik, ez jakin noizdanik.

Hemen akaburengo azterketak egiten saiatu beharrik ez da ohartzeko batez ere (c) eta (d)-ko *la-, gi-, sa-, a-, ze-* eta *go-* zatikiekin (edo hondarkiekin, oraingoz) zailtasunak ditugula, euren eskoira diren CVC zenbaitentzat (gogora *horbel, gordin* eta *labur*) kideak baditugu ere, gainerakoentzat (**dar, *zen*) zailtasunak franko larriago direlarik; bukaerako *-i, -din, -le*, etab., askozaz errazago antzematen dira (a) eta (b)-n. Beste hitzez esanik, unibertsalki hizkiak erroak baino txikiago izan ohi direla ohartuaz, eskubitara direnak errazago isolatzen dira, gure egungo gramatikaren parte dira oraindik, baina ezkerretara direnak edo izan litezkeenak –(d)-ko aurrizkiak demagun– horiek ez dira gaur egungo eta are azken 500 edo 1000 urteetako euskararen gramatikaren partaide; ihartu ziren antzina, duela hainbat mende eta milurteko ere eta ez da euskaldunen hizkuntza gaitasunean ezer horien forma, esanahi edo funtzioaz.[62]

Erreduplikazioa ere ez da azken ehundaka urtean indarrean den prozesua. Are gehiago: hor goiko *gogor, zezen* eta *adar gor, *zen* eta **dar* erro batzuetarik ateratzen ditugularik, *eder, adats* eta *odol* ere prentsatzekoa da **der, *dats, *dol*-etik datozela. Bada, kontua da erreduplikazio prozesu horrek gutxienez K. a. azken mendeak baino lehenagokoa –hots, Mitxelenaren aitzineuskara baino lehenagokoa– behar duela izan, bestela ez *adar, adats, eder, odol* baizik eta ***lalar, **lalats, **leler* eta ***lolol* izango baikenituzkeen, erreduplikatu gabeko formetan *larri, lats* eta *ler* (eta *latz* < **datz,*

---

[62] Garbi dago aurrizkidun morfologia ez dela batere bateragarri euskara historikoaren tipologiaz izan ohi den ikuspegi zabalduenarekin, baina ikus Trask (1977), Gómez (1994), Gómez & Sainz (1995) eta Lakarra (2006a). Nabarmenki, Traskek atzera egin zuen 1998ko artikuluan eta baita 1997ko liburuaren testu nagusian ere; alabaina, erka bitez horiek aipatu liburuko «Gramatika» ataleko eranskin labur bezain interesgarriarekin.

Mitxelenak (cf. §9-ko aipua) *ma-* eta, beharbada, beste aurrizki «adierazkorren» bat –aski berria, bidenabar– onartzen zuen hitzaren hasierako kokaguneko bilakabideen ondotik sortutako «hutsuneak» betetzeko (*FHV*, 271-273).

luze < **dutz*, etab.) ditugunez gero; bestela esan, **d-* > *l-* egin zenerako atzendua eta agortua zen erreduplikazio prozesua.[63]

13. Har bagenitza *d-* eredu bisilabikoetako bosgarren sailetan diren etimologia gabeak –hots, AE-ko izateko gutxieneko aukeraren bat duten bakarrak– ondoko erroak eridengo genituzke: *dako, dangel, darga, datil, dekor, dendel, dendo, dendun, dollor.* Orain horiei ohiko iragazki geografikoa ezar bageniezaie (cf. Lakarra 2010c) zera aterako litzaiguke:

dako «BN, Sal»,
dangel «B-o-ond» (gehi «*dangil* (B-l-mu), *dangillo* (B-tx) e, incluso, *tankil* (B-eib-m…) 'gandul, de poca actividad'),
darga «R»,
datil «G»,
dekor 1° «B-a-b-g-o», 2° «B-a-m-o-otx», 3° «B-zam»,
dendel 1° «B-a-arb-o-tx», 2° «B-tx», 3° «B-a-m-mon-o-otx», 4° eta 5° «B-m»,
dendo «BN»,
dendun «B-i» (gehi *tentun* «B-l-m, G»),
dollor 1° «Bc, Gc, L», 2° «Urte [L]».[64]

Nabarmena da horien artean soilik *dollor* dela gutxieneko geografia hedadura duen bakarra, eta gainerakoak era bateko edo besteko berrikuntzak, guztiak ere aski berri eta aski labur. Kontua da, dVCVC-k izan zitzakeen erroak 2125 zirela, 425 dVCV-renak, 1075 dVCCV-renak eta 5375 dVCCVC-renak; bada, izan zitezkeen 9000 horietarik *bat bakarra* litzateke geografia hedaduraren aldetik AE-ko kidetzat hartzeko aukeraren bat lukeena, eta horrenbestez, ez soilik gainerako berbak baizik erro-ereduak eurak behar ditugu modernotzat jo; nolanahi ere ez AE-ko, ez EBZ-ko eta ez beranduagoko ere seguruenik.[65]

---

[63] Ezaguna da Mitxelenak (1957) euskara historikoko *d-* mailegu eta adizki jokatuentzat uzten duela, batetik, eta lehenago hots hori zuten zenbait erro *l-* bilakatu direla iradokitzen, bestetik (cf. *FHV*); ikus Lakarra (2006c) eta (2010c) eta hemen §14hh.

[64] Datuak Azkueren hiztegitik jasoak dira bistan denez nire (2002a) eta (2004)-n horrela egin behar izan bainuen; nago, halere, *OEH*-ra jotzeak ez lituzkeela ondorioak asko aldatuko.

[65] Are gehiago, Mitxelenak bere formagatik mailegutzat zuen *dollor,* baina ez zuen jatorri zehatzik eman; orain hori ere lor genezakeela uste dut (cf. Corominas s.u. *tollo-II)*; ikus Lakarra (2010a) non biltzen diren *RS*-eko erabilera eta adiera zaharreko adibideak.

t-. Aurrekoaren ahoskabera jo eta tVCV, tVCVC, tVCCV gehi tVCCVC erro ereduak aztertuaz zera genuke: *taxa, teka, teli, tika, tipo, tuku, turru, takel, tamal, tatan, tinel, tipor, tipotx, tokor, topos, totos, tarta, tirlu, toldo, thuzto, tankar, tentel, tenter, tontor, tortotx.* Itxura batean *t-* erro ereduak *d-* ereduak baino ugariago lirateke etimologia ezezagunekoetan eta, beraz, AE-rako hautagaitzan; horrenbestez, zaharrago lirateke eredu hauek aurrekoak baino.

Alabaina, ez da zer aitzinatu hainbeste; goiko datuoi iragazki geografikoa ezarriaz, ez da horrelakorik: hemen ere soilik batek (*tontor*-ek) gainditzen ditu gainditu beharreko gutxienekoak alderdi horretatik.[66] Ez da asko, bada, bakarra izan zitezkeen 5375etik tVCCVC-ri dagokionez eta 1/9000-tik *t-*z hasitako erro eredu guztiak gogoan izanik. Areago dena, bakar hori ez da CVCVC erro-eredu zaharrenekoa CVCCVC berriagokoa baino. Ez litzateke harritzeko, bada, horietarik asko mailegu edo fonosinbolismo izatea, abondo baitira *t-* hitzetan; nolanahi ere analisi-hondar hutsa dugu eta eredu hauek, *d-z* hasiak bezala, oso modernoak ditugu euskaraz.

n-. Mitxelenak bi sudurkari, bortitza (N) eta ahula (n) aurreikusten bazituen ere bere AE-rako, hitz bisilabo eta polisilaboetan hitz hasierako sudurkari gutxi aurkitzen dela diosku ondare zaharreko hitzetan:

> En posición inicial *n* no es frecuente en palabras antiguas: *ni* 'yo' (vid. supra, 13.8, nota 19), *no-* tema interrogativo, *na(h)as* 'revuelto', *nabar* 'abigarrago, etc.' (cf. quizá ib. *nabarsosin*), *nagi* 'perezoso', *nagusi* (*nabusi*), 'principal, amo', *na(h)i* 'voluntad', vizc. *neba* 'hermano de hermana', *neska, neskato* 'muchacha' (aquit. *Nescato*). En préstamos (*neke* 'fatiga', etc.), *n-* parece haberse conservado sin excepción conocida.
>
> Hay alguna muestra de la alternancia *n* / cero en inicial, y por lo general la nasal da la impresión de ser secundaria: occid. *ekaitz* 'tempestad' / b.-nav. *nekaitz*, ronc. *nekatx* < **egu-gaitz* 'mal día, mal tiempo', cruzado con *negu* 'invierno' (?), *i(n)gel*, etc. 'rana' (infra 3.1.) / a.-nav. *negal, negel*. En a.-nav. *nospel* 'sabañón' '(lugar) sombrío' (13.8) y en los indefinidos *ne(h)or* 'alguien', etc. de varios dialectos (arriba, 15.4

[66] Bere izaera fonosinbolikoa barkatuko badiogu ere (cf. *konkor*), iragazki fonotaktikoak ezarriaz bakar bat ere ezin izan liteke –ahoskabe horiekin hasieran, bederen– ez AE-ko ez EBZ-eko.

a), *n-* es una innovación. Para la alternancia bien ejemplificada *n-* / *l-*, véase abajo, 16.12. (Mitxelena *FHV*: 1961/1977: § 15.9.).

Gure datuen arabera, ondokoak dira AE-ko erro bisilabiko izateko aukeraren bat dutenak: *naka, negu, nazka, nafar, nabar, nakan, nakar, negal, negar, nekots, noxal.* Zein erro-eredutakoak diren begiratuaz, bi CVCV eta CVCCV bat ditugu –eredu hauek biak ere ez dira zahartasun aukera gehien dutenak– zortzi CVCVC (eredu hau zaharragoa da, zalantzarik gabe) eta CVC bikoitzetik letorkeen CVCCVC-ko bat ere ez. Horietarik guztietarik *negu* CVCV-n, bat ere ez CVCCV-n eta *nafar, nabar, negal, negar* CVCVC-n dira iragazki geografikoa gainditzen dutenak. Gogoratuaz *n*VCV-n izan litezkeen erroak 425 direla, *n*VCCV-n 1075, *n*VCVC-n 2125 eta *n*VCCVC-n 5375, euskara zaharrean *n-* erro eredurik izateko aukerak oso urriak dira: %0,00-0,23 *n*VCV-n, %0,00 *n*VCCV-n, %0,70 *n*VCVC-n[67] eta %0,00 *n*VCCVC-n.

l-. Lakarra (2004a)-n ondoko hitzak biltzen dira *l-z* hasitako erro-ereduetan, mailegu garbiak, aldaera bigarrenkariak, eratorri-konposatuak eta fonosinbolismoak kendu ondoren: *leta, liba, liku, lope, loro, luba, lupa, lutho, lanbo, lanka, lenka, lisko, lisna, longa, longo, losko, lunka, lahar, labar, labur, lagin, lagun, lakar, lakatz, lapar, laputx, latsun, latzin, legatz, lehen, leher, legar, lehor, likar, likits, lipar, lipitx, litsar, lizar, lizun, lokan, lokots, lorrin, lotin, lurrin, lutxar, lander, laster, laztan, lerden, listor.*

Oraingoan iragazki geografikoak ezartzean arrunt gehiago dira aurrekoetan baino horiek gainditzen dituztenak: *lahar, labur, lagin, lakar, lapar, laster, laztan, legatz, lehen, leher, legar, lehor, likits, lipar, listor, litxar, lizar, lizun, lokots*;[68] hots, ia hogei aldiz gehiago. Bidenabar, markagarri iruditzen zait kasu guztietan CVCCVC eta, batez ere, CVCVC eredukoak direla, ez lVCV edo lVCCV-koak. Ez bide da halabeharra, erreduplikazioa, aurrizkiak (CV-) eta

[67] Baina lehen beste erro-eredu batzuekin bezala, ia hauek guztiak konposatu edo mailegutzat azal genitzake orain (cf. Lakarra 2010c) lehenago (ik. Lakarra 2008b) *nagusi* eta *neska*-rekin egin bezala.

[68] Ustez baita *lander* ere, baina, ene aburuz, Corominasek aipatu arabierazko formatik letorke, baldin eta bere familia erromanikoa balitz hain zabala non egiantzekoa litzatekeen euskarak hartu eta bertan irautea.

elkarketa (CVC-CVC) baitziren euskara zaharrean hitz berriak sortzeko bide nagusiak §12.ean ikusi legez.

d-, t- eta *n-z* hasitako ereduetako erator-elkartuak *l-z* hasitakoekin erka bagenitza hara zer genukeen:

d- : *dena, dina, duka, dagun, donge, dontsu, daldaz.*

t- : *toka, tuka, tapol, talka, torkor.*

n- : *neba, nagi, nago, nana, noka, nola, nora, nuku, naste, nazki, noski, nahas, narras, negel, nekatx, nehon, notzan, naspil, nastor, norbel, nospel.*

l-[69] : *lape, larre, larri, larru, latsa, lepo, leze, loba, lodi, loki, loti, lotu, lotze, lupe, luze, laiotz, lapatx, laratz, larratz, lerren, lokun, lorratz, losun, lotsor, luban, lugin, lurrun, luxar, lantsu, lasto, lazga, lazki, lazta, lerde, lirta, loxka, lotgi, lozko, lurka, lurpe, landur, langin, lankar, lankor, lanputs, lankotx, lazkor, lurbel, lurlan, lurmen, lurtar.*

*l-*ereduen emaitzak gainerakoak halako zazpi-hamar bider handiagoak dira, eta gertakari hori argiro mintzatzen zaigu haren antzinatasun konparatiboaren alde eta, beraz, *l-* fonemaren antzinatasunaz enparatuen gainetik ere kokagune horretan, erro soiletik gorako hitzetan. Erro eredu batzuen eta besteen maileguen arteko *ratioa*, aldiz, 2-3/1 edo da. Datuon azalpena, gure ustez, honakoa litzateke: euskaraz *l-*ak *d-* eta *t-*ak baino frango lehenago bertakotu ziren, eta, gainera, fenomeno hori ez zen soilik mailegu eta fonosinbolismo berankorrez eman (EBZ baino berankorragoez, alegia), *d-* eta *t-*ko kasu gehienetan legez: *l-* asko AE-ko morfemetako hotsen jarraipen dira, azken batean «jatorriz» *l-* ez bazuten ere; ohartu dugunez, Mitxelenak *l-* bat suposatzen zuen AE modernoaren inbentariorako, baina *ez t-* edo *d-*, demagun. AEZ-ean, aldiz, ez bide genuen **l-* baina bai **d-*; ikus Lakarra (2006b-c) eta (2010c).

14. Hitz hasierak aztertzea ez da beharrezko soilik izenean, noski. Har ditzagun, esaterako, euskal aditz zaharrak, badakizue *e-, i-* edo *j-* dutenak

---

[69] Gogora ez dela *l-* erreduplikaziorik, ezta *d-* eta *t-*rik ere; beharbada, azken hau Martinetek (1950) eta Mitxelenak (1951b, 1957, *FHV*) proposatu fortis > *h-* (> *ø-*) aldaketaren orain arte erabili gabeko argudioa dugu: **tal* > **ta-tal* > **tatal* > *atal*, **kots* > **ko-kots* > *(k)okots;* cf. **da-dar, *deder, *dodol... > adar, eder, odol....* Ikusi egin behar VTVC egiturakoetan baden -/th/- eta -/kh/-ren aldeko daturik (/*ph/-rik ez zen AE-ren sistema estandarrean; cf. Mitxelena 1957).

ezker aldean: *eroan, ibili* edo *jakin* bezalakoak, ez *saldu* edo *hartu* gisakoak, alegia. René Lafonek duela 65 urte markatu zigun, eta lehen eta gero errepikatu ohi da, aditz zahar horien erroen artean denetarikoak ditugula: CVC (*e-thor*), VC (*utz-i*), VCVC (*j-akin*), V hutsa (*da*), etab.:

> Pour avoir du verbe basque une connaissance satisfaisante, il faudra joindre à la connaissance de son système celle des rapports de forme, de sens ou d'emploi que certaines racines ont pu avoir entre elles, c'est-à-dire la connaissance de l'histoire et de la préhistoire des racines (Lafon 1943: I, 433).[70]
>
> B. *Racines simples*. Les racines simples du basque se composent d'une ou de deux syllabes. Les types suivants se rencontrent :
>
> 1° RACINES MONOSYLLABIQUES :
>
> a) une voyelle : *a-* « être »;
> b) consonne et voyelle : *go-* « rester », *gi-* « être fait »;
> c) voyelle et consonne : *bil-* « marcher », *kus-* « être vu ».
>
> 2° RACINES DISSYLLABIQUES : *oa-* « aller »; *augi-* « venir », *aki-* « être su », *zagu-* « être connu » (Lafon 1943: I, 421).

Erroek eta gainerako morfemek forma kanoniko bat izan ohi dutela hizkuntzetan eta horrelako zerbait bazela aitzineuskaraz izenetan ikusi ondoren, honako aniztasun edo anabasa beharbada mugatu egin genezakeela iruditu zitzaidan eta, bide batez, irregularitate horien atzean gramatika zaharragoaren aztarnak berreskura.

Ezer baino lehen, *utzi* edo *ilki* bezalakoak **e-* aurrizkia eta CVC erro arruntekoak izan zirela jatorriz ez da zail erakusten: *utzi*-ren kasuan bizkaierazko *itxi*-k eta zuberera zaharreko *eitzi*-k hasieran diptongo bat bazela dioskute. Bestalde, gipuzkera zaharreko *eutzi*-k hipotesi hori berresten digu eta **e-* aurrizkiaren eta *-u-* erroko bokalaren artean zerbait bide zen erroak ez

---

[70] Berak hor eta 1950eko lanean dioenez, Kaukasoko hizkuntzen laguntza ezinbestekotzat jotzen zuen euskarazko erroen egitura ulertzeko; alabaina, lagungarri baino gehiago nahasgarri izan delakoan nago (cf. lehen oharrean aipatu Braun 1998, esaterako). Aldiz, oinarrigabeko erkaketa genetikoetara jo baino lehen Lafonen garaian zein gero barne-berreraiketaren bitartez bazen anabasaren aldarrikapena baino emaitza aberats eta sakonagorik lortzerik.

VC (*-i* partizipio markatzat hartuaz) baizik eta CVC izanik izenetan aurkitu dugun legez.[71] Bokalarteko kokagune horretan markarik utzi gabe eror zitezkeen /b/, /d/ edo /g/ (ez /t/, /l/ edo /r/);[72] hiru aukeren artean hemen (eta beste askotan, cf. Lakarra 2006b) erabakitzea ez da ezinezko: **d- > l-* aldaketa gogoan izanik, batetik, eta *luze* : *largo, alargar* kidetasuna, bestetik, –gehi zenbait hizkeratako *utzi* : *la(r)ga*–, aski garbi da **duz* genuela lehenaren erro zaharra eta **dul* bigarrenarena: cf. *lur* baina *han-dur*, eta *latz* baina *ardatz* (ik. §22).[73]

Nahiz eta lehen testuetarako *-ra-* fosila izan, hor aurrizki bat noizbait izan genuela aspalditik ezaguna denez, *erabili*-k eta *eroan*-ek *ibili* eta *joan*-en erro bera zutela bagenekien. Adizki jokatugabeetan ez zen ezagun, aldiz, bestelako aurrizkirik eta beren arteko erlazio formal berezirik ez da markatu, dakidanez, *ezarri* eta *jazarri*, *eutsi* eta *jautsi*, **edin* eta *jaio*, **edon/idoki* (ez *egon*) eta *jagon*, **edun* eta *jaun*, *ilki* (< **edul-ki*) eta *jalgi* (< **e-da-dul-gi*) eta beste hainbat aditz bikoteren artean, *joan* (< **e-da-non*) eta *eho* (< **e-non*), tarteko. Bizpahiru dozena direlarik sistematikoki ezker aldean horrelako ezberdintasunak (**e- / ja-*) dituzten bikoteak, ezin-saihestuzkoa iruditzen zait aitortzea bazela hor noizbait **da-* aurrizki bat aspektuzkoa, *da-tor* edo *da-kar*-en Traskek 1977an aurkitu zuen bera, hain zuzen (ikus §12).

Honetan ez nator bat Mitxelenak (1977b) egiten duen **e- = ja-* (hots, **e- > ja-*) berdinketarekin; beste lan batean astiroago erakutsi bezala (Laka-

---

[71] Traskek uste zuenaren aurka –«and Lakarra (1995) has chosen to attach still more weight to the verbal facts: he suggests that, at some exceedingly remote stage of the language, *all* lexical morphemes were monosyllabic, and that the dominant polysyllabic form of nouns and adjectives results from extensive compounding aided by a certain amount of reduplication» (1997: 178-179)– erro monosilabikoaren teoriarentzat abiapuntua izenarena izan zen eta ez aditzarena, hemen ere CVC ugari izan arren, jokatu asko tartean. Alabaina, begibistakoak dira hor CVC-z landako ereduak, eta ez aditz berri eta jokatugabekoetan soilik, noski. Nire ikerketaren barnean askozaz beranduagokoak dira (2006tik aurreragokoak) Lafonen aditzetako erro-eredu zerrenda mugatzera zuzenduak.

[72] Erori baita /n/ ere, baina ez markarik utzi gabe; horrelakoetan sortu /h/-ez eta horietako zenbaiten bilakabideaz ikus §20.

[73] **dul*-era iristeko kontuan izan behar dira *ilki, jalgi, irauli* nahiz *arraultza* (cf. §15) baina baita *(h)eztul* eta *untze/ultze/iltze* zein *Eulate* onomastikoa, gutxienez (ikus Lakarra 2008d).

rra 2008c), horren aurka baitoaz arrazoi semantikoak nahiz geografikoak: inoiz baliokide izan arren (*eseri / jasarri, ilki / jalgi*), badira *ezarri / jazarri, *edon / jagon* (< **e-da-don*), *enzun / ezagun* (< **e-da-zun*) eta beste zenbait bikote bereizkuntza gorde dutenak; gainetik, oso eremu geografiko ezberdinak betetzen dituzte *jagon, jazarri* eta *jaun*-ek. Zergatik **e-* zaharren aldaera fonetiko huts balira guztiak?[74]

Azkenik, zenbaitetan (*jaio, jaun, jalgi*) ez da soilik aurrizkiaren **d-* erori, barneragoko (erroaren) beste **d-* bat ere baizik; itxura guztien arabera, ezkerrekoa da lehendabizi eroria eta bilakabide hori aditz sail honetako guztietara hedatzen da,[75] ez, ordea, askozaz beranduagokoa bide den errokoarena.

15. Mitxelenak aditz konposatuei buruzko 1977ko artikulu bikain batean baditu pare bat orrialde ez nautenak erabat asetzen. Bertan (§16) *jardun* edo *jarduki, jardetsi* eta *jarein* bezalako aditzetan *edun, eduki, etsi* eta *egin* aditz arinei aurretik **jar-* izenki ezezagun bat gehitu zaiela diosku. Beharbada, mokofinegia naizelako edo Mitxelena baino mitxelenatarragoa, ez *etsi* eta ez *egin* ez dira hor niretzat inola ere seguruak, baina nakion orain lehendabiziko zatiari. *FHV*-n (168) esaten zaigunez, *j-* batekin hasten diren hitz zaharrak –mailegu ez direnak– lehenagoko aditzak dira, *jaun* edo *jabe* bezalako salbuespen urriren batekin; orain *jaun* eta *jabe* ere lehenagoko aditzerro bat eta beretik datozela ikusi delarik (Lakarra 2006b), are arrazoi gutxiago dugu **jar-* izenki hori onartzeko. Alderantziz, badirudi hor *j-* ororen jatorrian den **e-* aurrizkiaz landa, *jausi* edo *joan*-eko **da-* dugula, orobat; ez hori soilik, noski, baita *-ra-* kausatiboa ere. Hots, bantuan –eta dituzten ERROA + KAUSATIBOA + APLIKATIBOA + AMAIERAKO BOKALA egitura genuke (ikus Good 2005); hori bai, euskaraz juxtu kontrako ordenan, –HA-

---

[74] Nago Mitxelenarengan eta ondokoongan (ikus Gorrotxategi & Lakarra 2001, esaterako) pisu gehiegi izan zuela aurrizkien aurkako aurreiritziak, hots, historikoki horrelakorik ia ez delarik, lehenago ere ez zela antzekorik izango; hurrengo atalean ere bada aurreiritzi honen beraren adibide gehiago.

[75] Horrek azaltzen du, *FHV*-n markatu bezala, hainbatetan *j-* horren ondotik *a* bokala joatea beste ezer baino gehiago; bidenabar, *jaio* izan liteke jatorrizko lexikoaren barnean AE-ko nahiz beranduagoko erro-ereduetarik urrutien den berba: lau silabaren aztarnak, lau bokal eta kontsonante bakar bat ere ez (honi erroaren eskubiko *-n* ere erori baitzaio... Honetaz eta honen familiako diren *herio* eta *jario-z* ikus Lakarra (2006b).

SIERAKO BOKALA + APLIKATIBOA + KAUSATIBOA + ERROA– aurrizki multzo politarekin: **e-da-ra-*CVC (ikus Lakarra 2008c).

Hori bera bide zen **ardano* (< **e-da-ra-dan-o*), *arraultza* (< **e-da-ra-dultza*), *arbin* (< **e-da-ra-bin-i*), *urgatzi* (< **e-da-ra-gotz-i*), *jarauntsi* (< **e-da-ra-dun-tz-i*), *eroan* (< **e-da-ra-non*), *jarrugi* (< **e-da-ra-don-gi*), eta beste zenbaiten egitura zaharra.

Ondoko paradigmak ateratzen zaizkigu: (a) erro soila [**e-*CVC], (b) *da-* aurrizkia + erroa [**e-da-*CVC], (c) *ra-* aurrizkia + erroa [**e-ra-*CVC] eta (d) *da-* aurrizkia + *ra-* aurrizkia + erroa [**e-da-ra-*CVC] konbinaketetarik:[76]

e-CVC		*e-da-CVC*		*e-ra-CVC*		*e-da-ra-CVC*
edan	:	*ja(a)n*	:	*eradan*	:	**ardan*
**edin* (>*jin*)	:	**jadin*	:	*eriden*	:	*jarrain*
**edon* (>*jo*)[77]	:	*edadon*	:	*eradon* (*erro*)	:	*arran-* (*arrano, arrain*)
**edun*	:	*jaun*	:	**eradun*	:	*jardun/ihardun/inardun*
**edul-ki* (*elki*)	:	*jaulki* (*jalgi*)	:	*irauli*	:	*arraul(tza/e)*
egotzi	:	———	:	*eragotzi*	:	*urgatzi*
**enon*	:	*joan*	:	*erhan/erho*		*eroan/eraman*
inotsi	:	———	:	*erauntsi*	:	*inarrotsi*
ekin	:	*jakin*	:	*irakin*	:	*jarrekin*
ifini (*ebini*)	:	*jafini*	:	*irabio*	:	*arbin*

[76] Hauekin batera gogoan izan behar genuke *i-* aurrizkia ere, *inotsi, izeki, irakin, irabazi, izan* (< **e-i-zan*) eta bestetan –baina ez bigarren silaban bokal altu edo diptongo bat duten *iraun* bezalakoetan– lehenagoko **nin-*en gramatikalizaziotik datorkiguna; cf. Lakarra (2008a), Lichtenberk (1985)-k Kaledonia Berriko hizkuntzez burututako azterketa jarraituaz. Aurrizki honek merezi du berariazko saio bat. Nolanahi ere, nabarmena da aitzineuskararen uneren batean aditz-erroaren ezker aldea garai historikoetan baino hornituago zela... DeLancey-k (1991) aztertzen dituen Ipar Ameriketako hizkuntza polisintetikoen dozenaka kokaguneetara iristen ez bazen ere.

[77] Borja Ariztimuñori zor diot etimologia hau; nik lehenago (2006b) zenbait gogoeta egina nuen baina ezer garbira iritsi gabe. Hark eman dit, halaber, honen eratorri den *josi*-k (< **e-don-tz-i*) koreeraz duen euskarazko *jo* 'futuere' esanahi zaharraren berri ere. Itxura guztien arabera, *erosi* ere familia berekoa dugu, **e-ra-don-tz-i*-tik aterea, hain zuzen.

Guztiz desbideraturik ez bagara, aditz erroek ezker aldera dituzten irregulartasunak ikertzeak balio liezaguke erro-familiak eta aurrizki berriak berreskuratzeko, funtzio eta esanahi zaharren arteko loturak ezagutzeko eta are haien forma etimologikoetarik urrundutako askoren abiapuntua zehazteko ere (ikus §21).[78]

16. Ezkerraren berreraiketak fonologian eta morfologian asko eman bide diezaguke. Mitxelenak horren birreraiketaren zailtasunaz esandakoa urruntasun pixka batekin hartu eta horren zergatiaz galdetzen badugu, berehalakoan burura datorkiguna zera da: hori ez zela inolaz ere hitzen kokagunerik argi eta indartsuena eta, horrenbestez, hor ezin koka zitekeela hitzetako azentu nagusia. Arrazoiketa fonologiko hutsak eraman gintzakeen, beraz, Mitxelenaren hipotesia (azentu zaharra 2. silaban) Martineten aurka (1.an) hobestera AE-rako; are gehiago, Mitxelenak, Martinetek ez bezala, hautu horren bitartez hasperenaren distribuzioa ere azaltzen zuelarik: dakikezuenez, hasperena ez da gordetzen azentuaren eskubitara ez galesez ez euskara historikoan; beraz, azentua ezker muturrean balitz ezingo genuke hasperenik izan 1. silabatik eskoirago; alabaina, ugari dira horrelakoak bigarrenean ere eta, horrenbestez, ezin hori baino ezkerrerago kokatu azentua.

Ezagun denez, Martinetek eta Mitxelenak aitzineuskarako azentuari buruzko aurkako hipotesiak izan zituzten: lehenak –hitzaren autonomia argia[79] eta horri lotu fenomenoak (maileguetako leherkarietan kausitu

---

[78] Bantuan bezala, euskaraz ere APLIK /x/ + KAUSAT /y/ ≠ /xy/ baizik eta /z/, hots, asko urruntzen dira batean eta bestean etimologikoki tokatzen den forma fonologikotik –«(...) the form of a verb marked for causitivization and applicativization is not straightforwardly predictable from the form of the suffixes marking causativization and applicativization in isolation»–(ik. Good 2005); euskaraz urruntze hori are justifikatuagoa dugu fenomeno morfosintaktikoa desfuntzionalizatu eta morfema segidak aspaldi lexikalizatu zirelarik, bantuan bizi-bizirik dirauten bitartean (Lakarra 2008c, 2008d). Alabaina, interesgarria begitantzen zait markatzea ez euskaraz eta ez bantuan ez dela ohiko ordenaren aurkako adibiderik aurkitzen forma lexikalizatuetan.

[79] Cf. «Un système tel que celui qu'on vient d'esquisser suppose une langue ou l'individualité du mot ressort nettement du fait des caractéristiques prosodiques et où la position forte se confond avec l'initiale de mot, ce qui indique un accent automatique sur cette initiale. On ignore naturellement ce que pouvait être l'accent du plus ancien basque. Mais comme les consonnes ont eu, de toute évidence, un comportement diachronique particulier à l'initiale, il ne saurait faire de doute qu'une époque a existé où l'unité phonetique du mot était nettement marquée. Or, *cette unité se*

kanpoko eta barneko silabatakoen portaera ezberdina, bereziki) errazago azaltzeko– hasierako silaban aldarrikatu zuen; bigarrenak –euskaraz historikoki bai lehen silaban baina baita bigarrenean ere hasperena agertzen delarik– nahiago du bigarrenean kokatu azentua, galesaren eredua jarraiki, azentuaren kokagunea eta hasperenaren hedadura lotuak izanik (ez da hasperenik azentuaren eskubira).[80]

Martinetek bi leherkari ahoskabe (hau da, hasperen litezkeenak) direnean hitz batean beti lehena bilakatzen dela hasperendun *–phike, phiper, khantü,* ez ***pikhe, **pipher, **kanthü,* etab.– bere alde argudiatzean, Mitxelenak proposatu zuen hasieran lehen silaba horretan azentua kokatzen bazen ere, gero (baina aski goizetik) bigarrenera igarotzen zela, bestela *oihan*, *zahar*, etab., –hasperena bigarrenean dutelarik– ezinezko gertatuko baitziratekeen.

Igartuak (2002: §4) argi ikusi zuen bi azentu moten arteko erlazioa artean onartutakoaren kontrakoa zela, hain juxtu: izan ere, Martineten «legearen» –ThV(C)TV(C) eta ez **TV(C)ThV(C)– adibide guztiak maileguak dira

---

réalise au mieux au moyen d'un accent fixe sur l'une des syllabes extremes du mot. Rien ne s'oppose à ce que nous postulions pour le basque préhistorique un accent fixe initial (…)» (Martinet 1955: 377; etzana neurea da). Ez da azentu tinko hori hitzaren beste muturreko silaban kokatzen zen aztertzeko saiorik.

[80] Aurreko bibliografia garrantzitsua bildu eta aztertu zuen Igartuak (2002). Traskek (1998: 313-314) «Michelena's reconstruction [AE-ren fonologiarena] is massively documented, and, *save only for the Pre-Basque word-accent, which remains controversial*, it is accepted as correct by all specialists». Etzanak neureak dira eta gogoratu nahi dut Traski «ahaztu» egin zitzaiola /h/ Mitxelenaren birreraiketa horretan. Trask (1997)-n, bi teorion ondoren, Hualderena laburtzen da eta ondoko ondorioetara iristen:

> Examining a range of data, including some that have only recently been made available by published descriptions, Hualde finally concludes that Pre-Basque must have had a regular word-final accent. On this basis, he is able to interpret the western systems as resulting from the retraction of the accent towards the beginning of the word.
>
> That is the state of play today. Each proposal has certain advantages and certain drawbacks, and there is no consensus. The word-accent remains the one aspect of Pre-Basque phonology on which we are still in the dark (1997: 166).

Bibliografia ugaltzen ari da azentuaren inguruan; lehenagoko Hualderen lanez landa badira arestiagoko Martínez Areta (2009) eta Elordieta (2008)koak, esaterako.

(Mitxelenak dagoeneko susmatu bezala) eta are maileguen formarik modernoenak ere: hots, *bikhe, bipher*, etab., –barneko ahoskabea hasperen egin nahiz ez– zaharragoak dira *p(h)ike, p(h)iper* eta gainerakoak baino, eta badira, gainera, *berthute* gisakoak aldamenean ez ***phertute* eta ez ***pertute* ez dutelarik. Hau da, hasierako ahostuna (beraz, hasperen ezin litekeena) duen edozein aldaera zaharrago da ahoskabea duena baino, dena dela ondoko leherkaria. Hortaz, Martineten gogoetak ez dagozkio inolaz ere aitzineuskarari eta ezta, seguruenik, EBZ-ri ere: guztiz aurka doaz Martinetek berak proposatu, Mitxelenak onartu eta ondoko bibliografia gehienak jarraitu duen ahulen ahostuntzearekin eta bortitzen espirantizazioarekin!

Orain, erro monosilabikoaren teoriaren barruan (Lakarra 1995hh, ikus 2006a) bisilaboetan azentua bigarrenean joatea da arau gisa itxaron genezakeena, baita bestelako arrazoiengatik ere. Unibertsalki azentu lexikoa erroari lotua da, ez afijoei (cf. 82. oh.); beraz, –bestelako gertakaririk ezean– bisilaboa konposatua izan (*ber-dín*) nahiz aurrizkiz sortutako eratorria (*gibél*), bigarren silaban beharko zuen. Kontrara ikusiaz, azentudun bigarren silaba hori azkena delarik, aurrizkiak bai baina atzizki gutxi bide zuen ordukoz hizkuntzak, Donegan eta Stampek (1983, 2004) hizkuntza austroasiatikoekin erakutsi legez. Bada, hori da euskara historikoaren garairik zaharrenetan oraindik aurkitzen dugun egoera eta baita arestian ere eratorpenari dagokionez; cf. Lakarra (1997a) eta ikus §22 aurrizki > atzizki bihurketaz.

Lakarra (1996a)-n Martinet eta Mitxelenaren hipotesiak bateragarri egiteko –edota, hobe, batak eta besteak horien bitartez erdietsi nahi zituzten helburuak lortzeko– bide bat proposatu genuen. Gorde nahi ziren emaitzok Martineten teorian azentuak zuen balio demarkatiboa eta Mitxelenarenean hasperenaren distribuzio eta bilakabide historikoa genituen, noski. Egia esan, batak eta besteak oinarrizko huts komun bat zutela eta akats hori orain berreraiketa paradigma berriaren oinarri-oinarrian zen erroaren forma kanonikotik abiatzearekin zuzen genezakeela aldarrikatu ahal genuen.

Hots, bai Martinet eta baita Mitxelena ere, AE-ko hitzen ezkerreko ertzari lotzen zaizkio eta ez halabeharrez: ez batak ez besteak ez dute ideia

zehatzik edo proposamen argirik hitzen tamaina eta egitura fonotaktikoaz eta, horrenbestez, ezin zuten eskubiko ertzaren gainean eratutako orokortasunik egin, horrekikoak ezezagunak edo erabilezinak baitziren bientzat.[81] Aldiz, suposatzen badugu erro monosilabikoetarik bisilabikoetarako bidean hitz fonologikoek bi silaba zituztela, nabarmena da [– ´–] azentuera batek gure bi helburuak betetzen dituela, bai Martinetena –azentua beti bigarrenean (erro monosilabikoan) doalarik demarkatiboa baita–,[82] bai Mitxelenarena –azentua bigarrenean doalarik hasperena nahiz 1.an nahiz 2.ean gerta baitaiteke euskara historikoan gertatu legez–.

Donegan eta Stampek mon-khmer eta munda hizkuntzen erkaketaz egindako lanei jarraiki, ikusi dugularik (Lakarra 2006a eta hh) hasierako (hitz hasierako nahiz esaldi hasierako) azentuaren eta atzizki eta postposizioen garapenaren, amaierako aditzaren, bokalismo urriaren, (usuko) harmonia bokalikoaren... arteko lotura eta amaierako (hitz amaierako nahiz esaldi amaierako) azentuaren eta preposizioen, erdiko edo hasierako adi-

---

[81] Beste modu batez esanik, Arbelaiz (1978)-ra jo eta Mitxelenaren etimologiak begiratzen baditugu, bertan monosilaboak, bisilaboak, polisilaboak, V-, C-, -V, -C, etab. aurkitu ahalko dugu (cf. Lakarra 2008b): hots, ez zen inongo teoriarik euskal hitz eta erroen egituraz. Gauza bera esan liteke Martineti buruz; honek, gainera, ez du etimologia propio bakar bat ere ematen.

[82] Doneganek dioenez (1993: 5), azentua elementu lexikoei (enborrei) dagokie usuenik, ez gramatikalei (aurrizki edo atzizkiei). Honen ondorioak oso jakingarriak dira hizkuntzen egitura orokorraren azterketarako:

> These opposite preferences for affixation do not depend directly on opposite orderings of words, but rather on opposite accentuations of words. The distinction between rising and falling accent in phrase is usually copied in the accentuation of words. That is because a phrase can consist of a single word. Proto-Austroasiatic, like Mon-Khmer (and other mainland Southeast Asian languages) had rising accent not only in phrases but also in words. This indirect association of head-first order with rising word accent and head-last order with falling word accent is the default in most of the world's languages and it is in turn responsible for the association of head-first order with prefixing and head-last order with suffixing, as first pointed out by Greenberg (1963). *Accent is normally reserved for lexical formatives (nouns, verbs, adjectives) rather than grammatical formatives (adpositions, clitics, affixes).* To keep affixes away from the accent, it is natural for rising-accented languages to prefix them and for falling-accented languages to suffix them. It has been frequently noted that case markers are normally suffixed. We can now see why that is so: since it is head-last languages that require case marking, and since head-last languages are falling-accented, their case marking are suffixed (Donegan 1993: 5; etzana neurea da [J.A.L.]).

tzaren, bokalismo ugariaren, harmonia bokalikoaren gabeziaren... artekoa, badirudi orain aurreko ahapaldietan aipatu lanetan baino are argiago behar lukeela Martinet eta Mitxelenaren azentuerak inoiz izan badira ondoko ordenan baino ezin koka ditzakegula:

(1) [– ´–] (Mitxelena) → (2) [´– –] (Martinet)

Azentueraren aldaketaren «tempoaz» esan liteke latinarekiko kontaktuaz geroztikoa dela, bestela atzizki eta postposizio zaharrak askoz ugariago baitziratekeen. Martinet erako azentua oso zaharra balitz –Era baino lehenagoko, demagun– zail litzateke maileguetan aurkitzen duguna azaltzea eta, bestetik, ez zukeen bigarren silabako (edo eskubiragoko) hainbat /h/ gordetzen utziko.[83] Mitxelenaren azentuerak, aldiz, ez soilik AE-n baizik eta beste hainbat mendetan iraun bide zuen: izan ere, azken silabako azentuari lotuak diren aurrizkiak ez dira atzizkiak bezain ugari inongo hizkuntzatan, eta ez da harritzeko hain gutxi berreraiki ahal izatea. Azkenik, hizkuntzan erritmoak duen garrantzia kontuan izanik, pentsa genezake (cf. Donegan & Stampe 1983, 2004) VO > OV hitz hurrenkera bezalako beste zenbait bilakabide horren epifenomenoak eta horren ondokoak direla.

17. Traskek zalantza gutxi zuen:

> It is obvious that vowel-initial lexical items are extraordinarily frequent in Basque. While I have seen no reliable figures, I would hazard a guess that close to 50 per cent of native nouns and adjectives begin with vowels (this includes those items which begin with h in the aspirating dialects (…) The five vowels represent althogether 404 pages out of a total of 1,029 pages, or about 40 per cent (…) (1997: 172-173).

Euskararen hitz hasierako ustezko bokal ugaritasuna markatu zuen dagoeneko Schuchardtek eta errepikatu dute ondoren beste batzuek, Vennemannek barne. Bai batak eta baita besteak ere azaldu ez neurtu ere ez zuten egin ustezko ugaritasun hori, seguruenik helburu jaso eta erakargarriagoak edo zituztelako: bataren kasuan euskara hizkuntza kamitikoekin ahaidetzea

---

[83] Aldaketarik izan bada, jakina; Elordietak (2008) zalantzan jartzen du Martineten azentu mota beharrezkoa denik euskara historikora iristeko. Igartuaren eta ene aurreko lanetan ere ez da inoiz hori izan denik baieztatzen, baizik eta, izatekotan, Mitxelenarena baino berankorragoa litzatekeela.

–euskarazko V- horiek artikulu kamito-semitikoak omen– (baina cf. Chaker 1984 eta 1995),[84] bestearenean Europa osoko hizkuntza zaharraren oinordeko bakar bilakatzea euskara (ikus gorago §2). Beste lan batean luzeago azaldu nuenez (1996a), hemen eta orain nahikoa den adina izango da esatea hitz hasierako bokal ugaritasuna ez dela hainbestekoa –edo, behintzat ez zela aitzineuskaraz– hori bai, kontuak ongi eginaz, amarru eta iruzurrik gabe, ahaleginean. Hots, hasierako bokal gisa ezin konta liteke *herri* edo *harri* bezalakorik Vennemannek egin legez,[85] hitz horiek kontsonantez hasten direla baitioskute lehengo eta oraingo lekukoek; orobat, *ilherri* edo *ilhotz* bezalakoak, 2. silabako hasieran den horrek ihartu baitu 1.koa; izatez, /h/ bi ziren, bada, hor eta ez bakarra edo hutsa.[86]

Kontuak egiteko orduan gogoan izan behar genuke AE-n ez zirela euskara historikoan eta hasierako kokagunean diren kontsonante guztiak: «Apart from the very frequent word-initial vowels, recall that lexical items in Pre-

---

[84] Gauzarik begibistakoenaz ere ezikusiarena egiten duenik hor zehar badenez, hara Chaker-ek teoria honetaz dioena:

> À la fin du XIXe siècle allait apparaître une troisième direction de recherche, l'apparentement avec le basque. (…) Cette hypothèse a été récemment reprise par H. G. Mukarovsky dans le cadre plus vaste d'une parenté entre le basque et tout un ensemble de langues africaines et chamito-sémitiques. Cette idée rencontre un accueil très réservé. Mais, toutes ces tentatives de rapprochements n'étaient en réalité que des hypothèses à peu près gratuites et sans grands fondements en raison de la connaissance encore très insuffisante que l'on avait de la langue berbère (1975: 232-233).

Mukarovsky-rekin oraindik zeresanik izanik, «euskaraz, bereberraz eta toponimia magrebiko osagai euskaroideez» deitu azken ohar batean zera dio:

> Quand aux données sur lesquelles s'appuient le rapprochement, elles sont très fragiles et fortement contestées par les spécialistes (Mukarovsky utilise des données linguistiques souvent approximatives, voire même tout à fait erronées). L'hypothèse est donc loin de soulever l'enthousiasme des linguistes, notamment chamito-sémitisans (Chaker 1975: 240). Chakerrek Mitxelenak euskara-kaukasikoaz idatzia (1969) ezagutzen du eta hipotesi hori *ia* euskara-bereberrarena bezain ausart iruditzen zaio.

[85] Eta bere lanerako erreferentzia-corpus gisa Gorostiagak duela ia 60 urte egindako *Refranes* y *Sentencias*-en hiztegitxo bitxia oinarri harturik, bidenabar; bada lan horren inguruan Mitxelenaren iruzkina.

[86] *(h)ibai, (h)idoi* ~ *ibar, idor* bikoteak azaltzeko lehendabiziko bien *h-* $*h_3$ zela proposatu nuen Lakarra (2009a) eta (2009c)-n; horrenbestez, ezker parteko erroa guztientzat berbera delarik (*hur*), horien *h-* ez da «arbitrarioa», «erantsia» edo «halabeharrekoa», gainerakoek ezin izan zezaketen bigarren (edo hirugarren: **-r* > *-h*) eskubiragoko hasperena baizik, *pace* Igartua.

Basque could begin with one of only six consonants: *b, g, z, s, l, n* (…)» (1997: 172-173). Izatez, Trask ez da, beharbada, guztiz zehatza: /l/-rekikoak lehen ikusi ditugu (ez dituzte kontuak aldatzen, halere) baina ez dio ezer bisilabo eta polisilaboetako hasierako /n/-aren urritasunaz; orobat, ez du bere zerrendan /h/ sartzen. Alabaina, bokalen ugaritasun erlatiboa ez da bera bost bokal dozena eta erdi kontsonanteren aurrean ala dozena erdirenean.

Bestalde, *a-, e-, i-, o-* eta *u-z* hasitako hitzen artean ere bada mailegurik frango *–alkate, errime, iman, otu…–* eta ezin horiek kontatu (AE-rako bederen) jatorrizko bokalez hasitakoekin Traskek egin bezala; azkenik, *e-* eta *i-*letretan ziren asko aditz zahar aurrizkidunak izaki *–e-bil-i, e-gin, e-kharri, e-thorri…* ehunetik gora bai, bederen–, horiek ere ezin jo bokalez hasitako errotzat, are gutxiago orain *he-, ha-* eta *ar-* sarrera zenbait ere aditzetarik atereak direla ikusirik (cf. §15).

Orobat, AE-n bokalez hasitako erroetarik kanpo ditugu erreduplikazioz sortutako hitzak, CVC-ko lehen kontsonantea hortzetakoa zutenak, bederen: *adar* < **dadar* < **dar, adats* < **dadats* < **dats, ahal* < **nanal* < **nal, ahol* < **nonol* < **nol*, etab.

Honenbestez, bokalez hasitako erro asko –gehienak– Schuchardtek eta Vennemannek egin behar zituzten baina egin gabe utzitako zerrendetarik kanpo gelditu dira dagoeneko, eta –ene ustez– guztiak lirateke AEZ-eko lexikoitik kanpo. Bestalde, kontsonantez hasi eta kontsonantez amaitzen ziren monosilaboak zirelarik erro zaharrak (cf. §2), diagnostikotzat (C- erorketa, V- aurrizkia, mailegua…) ditugu V-z hasitako hitzak: hain gureak ditugun *esker, alu, eske, orein, urde, ezain –askatu, ote* eta *otu*, noski–, *aterri, izu…* nekez azal litezke jatorrizko altxorreko erro eta morfema hutsekin eta C- galdu duten mailegu gisa ezagut ditzakegu orain (ikus §9).

Beste hainbat eginkizun interesgarriren artean dugu euskalariok hizkuntza dravidikoetan zenbait hizkuntzalarik (cf. Prabhakar Rao 1992) hitz hasierako fenomenoen eta hizkuntzaren (hizkuntz-familiaren kasu honetan) eransletasunerako bilakabidearen arteko lotura gurean ere izan den bilatzea: hots, haiek ikusi dute beren hizkuntzek aro modernoan aitzindravidikoz halako bi kontsonante dutela, kontsonante horiek «berezitu» egin direla hitzaren barnean, leherkari ahoskabeak ugaldu direla hitz hasieran eta, oro-

bat, erro hasieran lehen ezinezko ziren bokalak agertu eta arrunt bilakatu direla.[87] Gurean ere, beste hainbatetan bezala (ikus Lakarra 2006a), fenomeno bertsuek ez ote dute adierazten bide bera ibili duela hizkuntzak ehundaka urte edo milurtekoren bat beranduago?[88]

18. CVC egituretarik ezkerretarantz abiatuaz V-, CV-, VC- eta CVC-zatiak aurki ditzakegu era ezberdinetako bisilaboetan: *ugatz, labur, ardatz* edo *zordun*, demagun:

V- (*e-gin* / ***u-gatz*),
CV- (*go-gor* / *la-bur* / ***ni-gar*),
VC- (*ar-datz* / ***es-ker*),
CVC- (*ber-din* / ***baz-ter, ***bil-dur*)

Egia esan, ezkerreko eranskin horien jatorriak aztertzen hasi orduko CVC guztiak benetako erro monosilaboak ote diren beharko genuke ikusi, gorago *bazter* edo *bildur*-en CVC-ekin gertatutakoa berriro ez dakigun jazo. *Labur* eta *ardatz*-ekin *samur* eta *latz* ditugularik, analisiak aurrera egin lezake; *laburr*ek, gainera, bere aldamenean ditu *lagun* eta *labar*, demagun eta *e-gin* bezalakoak asko dira aditz sintetikoetan. *Orbel*, *ubel* eta *harbel*-en kide dira, *sabel* eta *gibel,* eta hauenak *sakon, samur, gizen* eta *gihar*. Hots, CVCVC egituretako ezkerreko CV- zenbait aurrizkiak ditugu, ez soilik fonema multzo baliogabeak eta ezta erro zabal bisilaboen zatiak ere: erroak balira modu autonomoan agertuko lirateke, edo beste zerbaiten oinarri genituzke; hauek, aldiz, soilik CVC-ren ezkerretara agertzen dira eta erroen gutxieneko tamainara ere ez dira iristen. Nekez, bada, izan litezke erro eta bai errazki aurrizki.

Bestalde, CV- da erreduplikazioaren egitura (**gor* > *go-gor*, **zen* > *ze-zen*) –ohikoena, bederen– eta honek lagundu egiten du hori bera izan dadin

---

[87] Aitzindravidikotik hizkuntza dravidiko modernoetara bokal inbentarioa murriztu egin da (cf. Andronov 2003, Krishnamurti 2001); orobat aitzin-mundatik hizkuntza mundetara bitartean [14tik laupabostera]. AE-z, ordea, ez dugu frogarik ohiko bost bokalak baino gehiago birreraikitzeko eta diptongoak Mitxelenari gehienak modernoak iruditzen bazitzaizkion, esan genezake orain AEZ-ean ez zela horrelakorik edota euskara historikoan azaltzen direnak ez datozela hain urrutitik bederen.

[88] Nolabait esan, nire ikuspegia Traskenaren juxtu aurkakoa da puntu honetan: bokal ugaritasuna ezin da «null hypothesis» gisa hartu eta are gutiago «there is nothing to be explained» (Trask 1997: 179) baieztatu.

aurrizkiaren egitura ere beste hainbat hizkuntzatan gertatzen den bezala (cf. Ussishkin 2005), nahiz eta hortik ez den jarraitzen (gogora *nigar*) CV egitura horretako hots konbinaketa guztiak aurrizkiak direnik. VC- egiturak, aldiz, ez aurrizki eta eratorpen arrasto, baizik eta lehenagoko erro higatuen (*CVC- > VC-) eta konposaketa zaharren aztarna dirudi: hara *ar-* (< **hari*) *ardatz-*en; ordea, egitura honetan maileguak ugari dira: adibidez, *orbain* edo *eske(r)* zatitzerik ez dago (***or-bain, ***es-ke(r)*). Horrexegatik beragatik, hain zuzen, ***or, ***bain, ***es, ***ke* eta ***ker* morfologikoki eta lexikoki ez dira ezer hemen; bi mailegurekin egin dugu topo, bada. CVC- zatiek konposizioaren lehen zatia izan behar lukete; alabaina, ikusi dugu ez zela horrela *bazter-*ekin eta ezta *bildur-*ekin ere, lehenago *garden-*ekin ere ez zen bezala; bai, noski, *gordin, berdin, zordun*[89] edo *harbel-*ekin.

Ezinbestean, VC- (< *CVC), CV- (< *CVC) eta CVC- izatea ezkerreko zatietan konposatu zaharren arrastoak, froga erantsia dugu –historikoki modu autonomoan aurkitzen ditugun monosilaboetarik lehen (cf. §5 eta Lakarra prest.-4) atereaz landa– AE-ko[90] erroek monosilabiko eta CVC izan behar zutela esateko.

19. Har ditzagun *erre, erran, eroan, erosi* eta honelako beste hainbat aditz; orobat *jarraiki*, *jarein* edo *jarauntsi* bezalakoak. Bistan da (§§14-15) *e-* eta *ja-* aurrizkiak kentzen baditugu euskaraz, euskara zahar eta jatorrean, bederen, hitz hasieran ezinezko diren eta ziren /R/ edo /r/ ugari dugula erro hasieran: *erre, erran, eroan, erosi…* Orain gauzak okertu baino ez dira egin, hainbat *ar(r)-* eta *her(r)* ere lehenago aurrizki bera zuten egituretarik datozela ohartzean: *arbin, arraul-, arran, (h)erro, herio…*[91]

---

[89] Nahiago dut De Rijkekin (ahoz esana) *-dun* hori ez erlatiboaren kontrakzioa baizik eta aditz erroa bera dela pentsatu; ohar bedi erlatiboaren kontrakzioa, zaharra izateaz landa, ezberdina dela (*duen, daben, dian…*) euskalki guztietan, baina izen-adjektiboetako atzizkiaren forma berbera da orotan. Erroarekin bi arazoak desagertzen dira; hori bera genuke *-din-*ekin ere, jakina.

[90] AE-ko eta, beharbada, baita askozaz beranduagoko ere (cf. Lakarra 2009b) erro monosilaboen eta bisilaboen hedadura geografikoari eta konposatuetako oinarriei (noiz monosilabo, noiz bisilabo) begiratzen badiegu, behintzat.

[91] Bidenabar, ez dugu *har-* aditz-familia hauetan: ez da ***harbin, ***harraul-* edo ***hardao-*rik, bai *herio* eta *herro* baina horietan ere ez ***har(r)io* (cf. *jario*) edo ***harro*. *Harro* bat bada, noski, baina Mitxelenak erakutsi zuen **har* + *jo-*tik zetorrela.

Badakit hitzek eta erroek baldintza fonotaktiko ezberdinak izan ditzaketela baina historikoki ez da erraz onartzea –itxuraz kasu honetan legez– erroek hitzek baino aukera gehiago izatea hots-konbinaketari dagokionez. Aipatutako zenbait errotan, beharbada, lehen ez *-r-* baizik eta *l-* genuela aldarrikatuaz norbaitek uste lezake ataka honetatik atera gintezkeela. Gal bedi itxaropen oro, Mitxelenak erakutsi eta gorago (§19) ikusi dugun legez, *l-*ak ere ez baitira zaharregiak hitz hasierako kokagune horretan eta –erants genezake– ezta erro hasieran ere. Nolanahi ere, /l/ hutsa ez da aski /R/-dunak azaltzeko eta, beraz, fortisetara edo kontsonante taldeetara jo beharra dago.[92]

Aukera bat da Tubalek eta Aitorrek edo horrelakoren batek euskara horrelaxe sortu zuela pentsatzea;[93] beste bat –nekosoagoa baina interesgarriagoa– irregularitate horien atzean gaur egun funtzionalitate guztia galdua duen euskal gramatika zaharraren aztarnaren bat izan dela proposatzea. Horko goiko berba horietarik *erran* duela urte batzu azaldu zen; [94] hitz hori ez da bakarrik *esan*-en sinonimo eta hots-kide. Gainera, *erran esan* bera da edo, hobe, *esan* + kausatiboko aurrizki bat zen edo hortik, hots *erasan*-etik, atera zen *erran*: *e-ra-san* > **esaran* > **esran* > *erran.*

Bada, kasu honetan legez aditz erroen lehen kontsonante gisa /R/ dugun guztietan edo askotan bederen, soinu hori ez da berezko edo sortzezko: historikoki hots soil horiek ditugun arren, aurretiaz hots multzoak ziren (*-n + r-* multzoak, gehienbat) eta are garrantzitsuago dena, soil hori lehenagoko mor-

---

[92] Mitxelenak berak (cf. *FHV* 359, adibidez) atea irekia utzi zuen bokalarteko fortisak lehenagoko kontsonante taldeetarik zetozela esateko; kontua da berak ez zuela uste horren aldeko lekukotasunik aurkitu ahalko zen. Alabaina, astiro-astiro horrelako bilakabideak agertuaz joan dira ozen eta txistukarientzat: L = l + l (*bele* < **bel + -le*), n + l (*Araluze* deitura, < **haran + luze*), N = n + n (*baino* < **badin-no*), Ś = tz + s (*otso* < **hortz-so*), etab.

[93] Hori bera gertatzen da /d-/-rekin; ezaguna denez, soilik aditz jokatuetan azaltzen da hitz zaharretan. Alabaina, hau –izatekotan ere– deskribapen hutsa da, ez azalpena; bestalde, ez ote ezer esan beharrik –etorkiaz zein kronologiaz– aditz jokatuetako *l-* ezagunez?

[94] Beste lan batzutan egin dudan bezala, «Larry Traskek azaldu zuen» idatzia nuen, baina Ricardo Gómezek erakusten didanez, Trask ez zen nik uste bezain urruti joan, *-sr-* talde bat eta *sr* > *R* proposatzeraino baizik (1997: 164); horrenbestez, talde horretatik atzera jo duena neu izan bide naiz. Egia esan, ez dakit nondik atera litekeen horrelako kontsonante talde bat aditzaren morfologia zaharretik abiatuaz ez bada.

fologia konplexuagoaren azken arrastoa dugu: beti ere kausatiboak ziren eta, usu, baita aplikatiboren bat ere ezkerrerago:

**e-da-ra-don > *enaradon > *eanradon > *arraon > arran- (*arrani, arraNo...)*
**e-da-ra-dul > *enaradul > *eanradul > arraul- (arraultza)*
**e-da-ra-dun > *enaradun > *êâradun > inardun / jardun*
**e-da-ra-don-tz-i > *enaradonsi > *êâra.osi > inarrosi*
.....

Harako hark (Givon-ek edo) «aurtengo morfologia iazko sintaxia» bota bazuen, badirudi zehatzago edo hori bezain zehatz gutxienez, aldarrika genezakeela «aurtengo (edo iragan milurteetako) fonologia, are lehenagoko morfologia».[95]

20. Ezkerraren altxorrak agortzetik urruti gara. Iván Igartua adiskide eta ikertzaile bikainak hasperenari buruzko hainbat lan garrantzirik handieneko egin du (2002, 2008, etab.), Mitxelenak duela 50 urte esanak sakonduaz eta osatuaz, batez ere ikuspegi tipologiko zabala eta euskarazko datu zailak lotuaz.[96] Neuk ere zerbait gehi nezakeela pentsaturik, beharbada oker, une batean bururatu zitzaidan hitz hasierako zenbait /h/ aztertzea, zehazki *harea*-rena bezala, hor berez izan behar ez luketenak. Badakizue hitz hori nondik datorren eta jatorri horretan /h/-rik ez zenez, bada, euskaldunek gehitua izan beharko. Nik ez dut ukatuko euskaldunek arrazoi etimologikorik gabe *h*-ren bat gehitu ez dutenik *harma* edo *harroka*-renak, esaterako, bistakoak dira, eta ez dut horiek Mitxelenaren /h/ erregularren zerrendetan kokatzeko modurik ikusten.

Alabaina, hori baino galdera hobe edo finagorik egin litekeela iruditzen zait; esaterako, ondoko galderak erantzun ahal izateko: zergatik gehitu di-

---

[95] Cf. Sagart (1999)-ren txinerako CC- multzoen analisia; orobat, beherago euskarazko hainbat -/R/-rena.

[96] Horrela, demagun, 2002an erroaren eta hasperenaren bilakabideak lotuaz hauen (erorketen) historia ezagutuaz, lehenengoaren hedaduren zirriborroa izan genezake: /h/ → erroetan soilik; erroa → /h/ bakarra; beraz, *ilherri* < *hil* + *herri*-tik eta *akher* < **han-ger*-etik, *hilebethe* ez delarik oraindik (cf. lehen zatiko *-e*) benetako hitz konposatua. 2008ko artikuluetan historikoki garbi izan arren tipologikoki arazoak sortzen zituen *-n-* > *-h-* bilakabideari hainbat kide aurkitu dizkio beste hizkuntza batzuetan, euskarazkoaren azalpena sendotuaz eta argituaz.

tuzte *h-* horiek edo nondik eraman dituzte horra *h-* horiek? Azken hau batez ere kontuan hartzekoa iruditzen zait zeren, dakigunez, *h* zahar asko –definizioz, azal ditzakegun guztiak– beste soinu are zaharrago batzuetatik baitatoz, dela herskari fortisetatik hitz hasieran, dela *-n-*etarik hitz barruan (eta /f/-etarik, batean nahiz bestean).[97] Eta, izan ere, *harea arena-*tik badator eta *lehoi leone-*tik, hor dituzue eskubi aldeko silabetan gero ezkerretara mugitu den soinuaren jatorriko kokagunea eta baita jatorriko hotsa ere. Ez da, beraz, horietan –ezta *caninu* > **ahihû* > **a.ihun* > **ha.iun* > **ha.in* > *hagin-*en ere– inongo «h erantsirik» edo «h sasikorik» eta *ahate* edo *ohore-*renak bezain etimologikoak dira, aitzinmorfemako segmentuak aski baitira hizkuntzan historikoki lekukotzen direnak osorik (*h-* barne, jakina) azaltzeko.

Hau maileguekin ikusten errazago da, jakina –euskarazko etimologiaren garapenean haiek jatorrizko lexikoarenaren aurretik izaki–, baina ez genuke ahaztu behar Alfontso Irigoienek (1977) gure hizkuntzaren izenari eman zion etimologia *ia* asebetekoa: **enauskara*, alegia.[98] **enuskara-*tik **ehuskara* eta hortik Etxeparek eta Leizarragak, besteek beste, dakarten *heuskara* hitz hasierako hasperenera den bide bera edo bertsua da, nire ustez, Mitxeleneren **enazur* > (**ehazur*) > *hezur*, **ane/itz* > **ahe/itz* > *haitz* eta goiko *arena* > *harea-*koa eta beste zenbaitena ere, $*h_2 > h_1$ aldaketarekin.

Baina ez da hau soilik: *herio, hogei, hedoi/hodei, hibai, hidoi, herro* eta beste dozenaren bateko *h-* horiek ere eskubirago sortu ziren, aspalditxo, noski, *-n-* batetik bokalarteko gainerako *hh-*ak bezala, eta gero egin zuten ezkerrerako bidea.[99]

---

[97] Lakarra (2009c)-n erakutsi uste dut (cf. *aihotz*) /f/ > /h/ ez dela soilik hitz hasieran gertatu Mitxelenak *FHV-*n aurkeztu legez; besterik da aldaketa hori euskaran ala jatorrizko gaskoian bertan gertatu ote den.

[98] *Ia* asebetekoa diot, berak **enautsi* aditz batetik (> **enaus-kara*) proposatu baitzuen eta gorago (§§15-16) emandako arrazoiengatik, ez dut uste inoiz **-nauts-* errorik izan denik: diptongoaren lehen bokala aurrizkiaren *-a-* batetik dator, erroarena **o* zelarik (cf. *ino(n), inotsi* < **i-non, *i-non-tz-i*) : **e-da-non-tz-i* > **enanontzi* > **enaontsi* > *enausi*. Zabalago honetaz eta *-si* bukaeraz (**<-n-tz-i*) ikus Lakarra (2006b) eta (2006c).

[99] Aurreko datuen eta arrazoien indargarri, *h-* «etimologikoa» dela erakusteko berri bat gehitzen da Lakarra (2009a: § VII)-ean: ezker partean erro berbera duten lau hitzetarik (*ibar, hibai, idor, hidoi* : **hur-*) bik *h-* du eta *ø-* beste biek, ezinbestean ezker muturreko hasperena hitzon bigarren

Bide hori kasu bakoitzean astiro azter bageneza –lasai, ez diot gaur eta hemen horrelako egitekori helduko– nolabaiteko x-izpi edo eskaner gisa erabili ahalko bide genuke ezkerreko parte horren erraiak eta historiaurrea eskuratzeko: noiz morfema muga baten gainetik (*hedoi*), noiz silabarenetik edo silaba parearenetik (*haitz* / *hogei*) igarotzen da; inoiz ezkerreratze hori halako edo holako soinu erorketa –*hogei*-n **b-* > *ø-* dugu **h_3* > *h_1*-en aurretik– edo aldaketa baino lehen gertatu da, –cf. *herio* < **elino* ~ *jario* < **edalino* [ez ***hedario*] **h_3* > *h_1* **e-* > *j-*ren ondotik zihoanez–, bestela ezin lor baitzezakeen hasperenak berarentzako tokirik kokagune horretan.[100] Esan gabe doa, ezkerreko zein eskubiko hots-aldaketen kronologia egiteke delarik edota alde horretako morfologiaren fonologizazioa ia ukitu gabe dugularik badela hemen zereginik.[101]

Ezagun denez, eztabaidak izan dira euskarazko /h/-aren balio etimologikoaz, batez ere hitz hasierakoarenaz. Aurreko lan batean (Lakarra 2009a) saiatu gara erakusten hainbat *h-* (bai maileguetan baina baita jatorriko lexikoan ere) ez hitz hasieran baizik eta bokalartean /n/ batetik –noiz 2. silabaren hasieran, noiz 3.ekoan– sortuak direla, eta horrenbestez etimologikoak eta ez «erantsiak». Hitzen forma kanonikoaren azterketan oinarrituaz gure azterketa eta ahalik eta gehiena urrunduaz ikuspegi atomista eta

---

zatitik abiatuaz baino ezin azal litekeelarik. Hasperen hori eskubitatik mugitu den lehenagoko **-n-* baten hondarra dugu bi kasuetan, gertakari honek goikoetan ere ber gauza jazo dela iradokiaz.

Hire : *eure* bikoteaz, 2.aren *h-* faltaz, zehatzago, ikus 46. oharra.

[100] /h/-aren ezkerreratzearen –eta *-n-*, *-r-* (> *-R-*) eskubiratzearen– bitartez erro zahar monosilabikoen forma kanonikoa erabat aldatzen da, bisilabo eta trisilaboak sortuaz, barneko morfema etenak hautsiz eta bestelako tamaina eta itxura hartuaz: lehenagoko gramatikako morfema horiek desfuntzionalizatu, higatu eta fosildu egiten dira, erro berri (usuenik zabalagoek) bere barnean hartuaz. Ondorioz, esanahiaren lexikalizazioa eta kategoria aldaketak datoz hortik eta lehenagoko hitz-familiak hausten eta desagertzen dira (ikus Lakarra 2009b).

[101] Esanguratsua da gertatu diren eta ez diren erorketa eta aldaketei buruz **h_3* > *h_2* maileguetan baino ez izana ere. Lakarra (2009a: §X.)ean noizbait garatu nahi genukeeen hots-aldaketen kronologiarako lanabes gisa biltzen ditugu aurreko ataletan proposatu ditugun guztiak. Badirudi lehen aldaketa larriak erroaren ezker aldean eta aurrizkietan (*b-*, *k-* > *ø-*; *-d_1-* > *ø-*, esaterako) eman direla eta soilik gero eskubiko partean (C_2 > *-ø*, *-n-* > *-n*, etab.): **edadino* > **jadiho* (> *jaio*) ez **hedadio*, eta, nolanahi ere, oso berandu aditz-erroetako *-d_2-* eta gainerako ahostunena.

maileguetara mugatutik, *h-* horiek barneko kokagune horretatik ezker muturrerako bidean izan duten mugidaren azterketak, gehi kokagune ezberdinetan beste hots batzuekin izan konbinaketa eta eraginarenak, etorkizunean euskal hitzen egitura zaharra (bereziki haien ezkerreko partearena), erro-ereduen hedadura (monosilabotik bisilabora) eta bilakabidea argitzen lagun lezakeela aldarrikatzen ahal dugu. [102]

21. Henderson-ek (1976) khasi hizkuntzarentzat «covert or vestigial prefixes» –«overt prefixes» eta «prenominal and preverbal particles» delakoekin batera (481. or.)–, ikusi zituen, «interesgarrienak ikuspuntu historiko eta konparatutik» (ibid.) bere hitzetan.[103] Bere lanaren ondoriotzat Hendersonek eman ahal izan zuen 23 hitz-sare, hots, 23 hitz familia «with some semantic content in common, which it seems not unreasonable to suppose were also formerly linked through morphological processes of which now only fossilized traces remain» (516). Honelako kasuak ditugu:

(c)	*'tl* (short form of *ktl*)	*ktl* 'hand'	*rtin* 'clinging'	*btin* 'to lead by the hand'	*kynti* 'to pound with fist'
(d)	*shong* 'to sit dwell'	*shnong* 'village, town'	*jingshong* 'seat'	*pynshong* 'to seat (someone)'	
(e)	*lait* 'to be free, to scape'	*plait* 'to open, out, to clear a way'		*pyllait* 'to set free'	
(f)	*loit* 'to undo'	*bloit* (phonaestetic w. suggesting something becoming detached)		*pynloit* 'to undo' (for someone)	*khloit* 'to come out of the socket; to be dislocated'

[102] Ez hitz hasierako baizik eta Mitxelenak «*h* ez etimologiko, hedatu»tzat dituen diptongo ondoko zenbait aztertu dugu gero (Lakarra 2009a: §VIII): *aiher, oiher, eihar*; alabaina, horietan erantsia ezer izatekotan *-i-* edo *e-* dugu, baina ez *-h-*, hau orain ere sudurkari zahar batetik aterea delarik. Bidenabar, analisi honek Lakarra (2002b)-ko *sahets* < **sa-her-tz* azalpena indartzen du, *saihets* aldaeraren modernotasuna (morfologiak orobat, cf. *sa-bel, sa-kon, sa-mur, sa-min*) segurutzat emanaz. *-*Vih- eredu osoarentzat (*oihan, aihen, auhen, oihal, oihu*...) balio duen edo ez hemengo azalpenak ondoko ikerketetan ikusi beharko; nolanahi ere, horietako zenbaiti egokitzen zaiela erakutsi uste dut Lakarra (2009c)-n.

[103] Ohar bedi Schmidt-ek 1904an –txineraren edo euskal tradizioetan baino askozaz lehenago–, CV(C) forma kanonikoa proposatu zuela eta areago dena, edozein CC- taldetan lehen C aurrizkitzat ere jo zuela.

Hots, Hendersonek (gero Sagartek txinerarekin bezala) erakutsi zuen hizkuntza isolatzaile baten ezker aldean bazirela lehenagoko morfologia zaharragoaren aztarnak. Honen ondorio bezala, hizkuntza hauetarako ez hitz soilak –txikiak gainera– berreraiki ordez ohi bezala, hitz-familia usu aski zabalak erdietsi ahal dira eta, ezagun denez, «word-families are of particular importance because, more than isolated words, word-families, especially well-diversified ones, may be suspected of being ancient in the language» (Sagart 1999: 14); bereberraren erro-sistemaz antzekorik ikusi nahi duenak jo lezake Galand-en 1984ko lanera.

§11.ean ikusi dugunez, hizkuntzaren garai historikoetan eta, beharbada, lehenagotik, euskaraz hitzak soilik eskubitarantz hedatzen dira: *jan → jale, jan → jate, jate → jatun*, etab. Beraz, historikoki bizi eta emankor ditugun hitz-familiak alde horretan dute lotura: *jan - jale – jate – jatordu – janari*... Alabaina, lehenago gauzak ez bide ziren horrela eta euskara historikoan gorde ez diren bestelako bideak ziren hitz berriak sortzeko, aurrizkien edo erreduplikazioaren bitartez, ohiko konposizioaz landa:

*gor → gogor, *nal → *nanal (> ahal), *der → *deder (> eder), *zen → zezen.*
sa- : sabel, samur; gi- : gizen, gibel; la- : lagun, labar
-bel : harbel, ubel, orbel...

Dakigunez (§§14-15), aditz-jokatuek ez ezik, aditz-erroek ere ezkerretarantz dute morfologiarik zaharrena, eta alde horretarantz hedatzen dira eratorpen zaharrenak:

*dul → *e-dul-gi (> ilki),
**dul → *e-da-dul-gi (> jaulki, jalgi),*
**dul → *e-ra-dul-i (> irauli),*
**dul → *e-da-ra-dul-tza (> arraultza)*
etab.

Beraz, txinera zaharrean bezala, euskararik zaharrenean ere –hots, berreraiketaz berreskura genezakeen sistemarik zaharrenean– garrantzirik handienekoak dira hitz familiak ezkerretara hedatzen zirela erakusten diguten datuok. Har ditzagun ondoko formak (E = erroa; 2.OS = bigarren osagaia; ER = erreduplikazioa):

E	ø-E	e-E	2.OS	ER
*dan	lan(?)	edan	——	——
*dar	lar	jar(ri)	in-dar	adar
*dats	lats	jats(i)	al-dats	adats
*datz	latz	——	ar-datz	——
*den	lehen	edeki	ez-ten	——
*der	ler	——	——	eder
*din	*lin[104]	jin	gor-din	——
*dol	——	——	——	odol
*don	loh-i	jo /idoki	-do.i	——
*dul	——	ilki	(h)ez-tul	——
*dur	lur	iurri	(h)an-dur	——
*duz	luz(e)	(e)utz(i)	——	——

Bigarren zutabetik aurrera erro biluzia (ezker), erroa aditzetako *e-* aurrizkiarekin, erroa konposatu baten bigarren osagai gisa eta erro erreduplikatua bildu ditugu, hurrenez hurren; ezkerreko zutabekoak hortik berreraikitako erroak dira; aditzen kasuan, familia osoak are zabalagoak dira §§14-15.etan ikusi dugun legez: **din*-enari, esaterako, *jaio*, *eriden* eta *jarrain*-ekin erantsi beharko genioke, **dul*-enari, *iraul* eta *arraultza*, etab. Kasu hauetan hitz-familiak berreraiketarako duen interesa areagotu egiten da hizkuntzak AE estandarra baino lehenagotik falta baitu hortzetako lenisa edo ahostuna hitz hasieran. Hitz-familiaren bitartez burututako berreraiketaren etekinak esanguratsuak iruditzen zaizkit, *dVC egitura batean 25 baitira litezkeen erroak eta horietarik dozena baten arrastoak bildu ahal izan baititugu, horrela AE-ko hutsune hori betidanikoa ez zela erakutsiaz, batetik, eta morfologia eta lexikoaren kronologiarako ere oinarri zenbait ezarriaz, bestetik: **han* + **dur* > *andur* (ez ***hanlur* > ***halur*); aldiz, *haran* + **duz* > *haraluze* (ez ***haranduz*); orobat, *sagardoi* baina ez ***sagarloi, ardatz* (ez ***arlatz*), etab.[105]

---

[104] Alegia, **e-lin-o* > **eriho* > *herio*; ikus Lakarra (2006b).

[105] Txinera arkaikoan (Sagart 2001), Asia Hego-Ekialdeko zenbait hizkuntzatan (Henderson 1976) edo Afrikan (dinka, mayak: Andersen 1992-94, 1999) –lehenagoko aurrizki erorketa baten ondorio izan litekeen– erro monosilaboaren ezkerreko kontsonante txandakatzeaz funtzio sin-

22. Ezkerraren azterketaren abantaila mordoxkaren zerrenda gaurkoz itxiaz joateko, bitxi samar bat utzi dut akaburako. Izenik ematen hasi gabe ere ezagutuko bide duzue politika kontuetan ezker muturrean hasi eta hortik urruti, eskubi muturrean edo eskubi garbian, bederen, kokatu den bakanen bat edota are bat baino gehiago ere, zeinek bere esperientzia edo adinaren arabera. Zenbaitek horrelako gertakari eta eraldaketak naturaltasun osoz azaldu eta are aldarrikatu ere egiten ditu baina askotxok iragan gogoraezinaren arrastoak estaltzen ere ibiltzen ote diren nago.

Horiek besterentzat utziaz, noan hizkuntzako eskubi muturraren azterketara, une batez. Azterketa diot eta ez salaketa honako honetan nabarmenagoa baita juzku estetikoez landa bestelakorik ezin egin dezakegula ezkerrean edo eskubian den morfema jakin batez.[106] Hori bai, zenbait pertsonak legez, badirudi eskubirantz joan diren euskal morfema ezkertiar gehienak ere beren jatorriekikoak ezabatu eta guztiok ahaztea lortu dutela.

Esan dezadan ez naizela markatzen ari, bakarrik, lehenago morfologia –bai izenean eta baita aditzean– ezker partean egiten zela (aurrizki eta preposizioekin edo bestela) eta gero horien ordainetan eskubi aldera garatu zirela deklinabide markak izenean eta eratorpenekoak eta beste hainbeste aditzean. Ez, horrezaz guztiaz landa, badirudi elemendu jakin batzuek eurak mugitu zirela eskubi muturrera.[107]

Har ezazue *-z(a)* pluraleko marka, toponimian, aditzean eta izen ugaritan aurkitzen duguna; baldin bagoaz *z-* batez hasten diren CVCVC egituretara –hots, CV aurrizkia eta CVC erroa izateko itxura edo aukera dutenetara– *zabal, zakar, zabar* eta beste zenbait aurkitzen ditugu. Badakit guztien jatorria ez dela erabat segurua, baina egiantzekoa iruditzen zait hor nonbait *za-* aurrizkia ikustea, aniztasuna, ugaritasuna, intentsitatea edo adierazten zuelarik.

---

taktikoak ere gauzatzen dira, aditz iragankor eta iragangaitzen arteko diferentziak edo diatesia, esaterako.

[106] Hizkuntza bere hartan aztertu beharrean aldatu nahi dutenak albo batera utziaz, jakina: Arriandiaga, Azkue, Iker Laka... Bidenabar, badirudi hauen artean eragin duela Bizkaiko kostako ipar-haizeak.

[107] Antzeko adibide batzuetarako ikus Biber (1984) [somalieran] eta *Diachronica* 2006/2ko australiar kasua; Donegan (1993)-n bada munda hizkuntzen historiako antzeko kasu zenbaiten aipua.

Gi- aurrizkia ere (cf. *gizen, gibel, gihar*, etab.) ez ote lotua Azkuek eta de Rijkek materia edo «X-en zati» ulertu zuten *-ki* atzizkiarekin? Hara *txerriki, ahariki, odolki* eta beste, *ogi, haragi* edo *argi*, demagun (ik. Lakarra 2006c), partizipio zaharretako *-gi-*rekin (cf. *jalgi*, *euki*, etab.).

Har, azkenik, *le-* aurrizkia, *letorke* edo *lekarke* bezalako adizkietan agertzen zaiguna. Lehen ikusi dugu hasierako *l-*ak **d-* batetik atera zirela, aspalditxo (duela 2200 urte baino lehen, behintzat) eta, beraz, **de-* behar zuten nozbait; goazen orain *lizate* edo *date* eta antzekoetan ageri den *-te* (< **-de*) atzizkietara. Batzuek eta besteek gertakari irrealak, ebentualak, adierazten dituzte eta hori gauzatzeko CV egituran bokal bera eta jatorri bat eta bera duten edo izan dezaketen bi kontsonante ditugu; halabehar hutsa? Ez dut uste.

Are garbiago iruditzen zait IS-ren akabuan diren *-ra, -t, -la, -da* (*mendira, etxerat, bezala, mendialat, duda-n/la*, etab.) atzizki horiek badutela lotura historiko zuzenik ezker aldean diren **da-* eta *la-*rekin (*labur, dator, *e-da-dun* > *jaun*, etab.). Gramatikalizazio teoriak hauek multzo-aditz batetik ateratako aspektu eta alatibo markak direla diosku; horiek beranduago leku kasu-marka gisa (eta are 1./2. pertsonako datibo-ergatibotzat) gordetzea, ez da inolaz ere harrigarri (cf. Aikhenvald 2006).

23. Noan amaituaz

Ezagun denez, euskararen ahaideen eta jatorrien inguruan iritzi eta proposamen metaketa izan da –eta ez dirudi guztiz atertu duenik– azken 500 urteetan. Hizkuntzalaritza historikoa aspaldi garatu den tradizioetan gertatuaren aurka, jardun honek ez du erkaketa sendorik txikiena erdietsi eta (gainetik) ez du batere lagundu hizkuntzaren garai ezberdinetako egituraren eta bilakabidearen ezagutzan, hots, edozein hizkuntzaren historiaren eta baita euskararen historiaren azterketak duen helburu eta egiteko nagusian. Egoera Koldo Mitxelenaren lan filologiko eta diakroniko bikainarekin aldatu zen 1950-1965 bitartean; hizkuntzaren historian eta historiaurrean lortutako maila hain handia izan zen non, funtsean, hori baita alorraren estandarra gaur egun ere, mende erdi beranduago, bai aitzineuskararen birreraiketan, eta baita hortik lekukotasun historikoetara eta egungo eguneko euskarara izandako bilakabideari dagokionean ere.

1995ean aldarrikatu nuen lehendabizikoz aitzineuskara zaharrean CVC monosilaboa zela erro-eredua eta gertakari horrek garrantzi eta ondorio larriak zituela garai hartako eta beranduagoko fonologia, morfologia eta lexikoa aztertzeko. Geroztik, Mitxelenaren berreraiketa osatuaz joan da eta erroaren azterketan oinarritutako hainbat ikerketa-bide garatuaz, batez ere etimologia formalaren esparruan. Izan ere, filologiak lehendik ematen zizkigun bestelako laguntza tradizionalak beti gogoan izanik, erroen forma kanonikoaren azterketak hitzen egitura, jatorri eta bilakabideaz lehen ez genuen laguntza eskaini digu, bide batez berreraiketaren beste alderdi batzuetarako oinarriak jartzen lagunduaz. Bestalde, azterketa honen osagarri den hurbilketa tipologiko holistikoak (cf. Lakarra 2006a) errazki erakusten digu aitzineuskara eta garairik zaharrenetako hizkuntza oso urruti zela hurbilen egiten zaigunetik edo historikoki azken mendeotan lekukotzen (subjektua-objektua-aditza ordena, komunztadura aberatsa, atzizki ugari eta aurrizkirik eza...), nahiz eta lekukotasun zaharrenetan oraindik lehenagoko egitura ezberdin baten arrastoak gelditu: Izen-Adj ordena, atzizki urritasuna, aurrizki ugari aditzean eta baita zenbait izenean...

Aitzineuskararen berreraiketaren helburuak eta beharra aipatu ondoren eta aurreko (Mitxelenaren) paradigmaren zenbait hutsunetatik abiatuaz, aitzineuskara zaharrago eta sakonagoa aztertzeko proposamen bat aurkeztu dut, erroen eta hitzen ezker aldea bereziki miatuaz, alegia. Hemen aurkeztu nahi nizuena ez zen teoria itxi eta amaitua, gure hizkuntzaren historiaurrearen azterketan zenbait aurrerapen lor litzakeen hurbilketa bat edo, are gutxiago, hurbilketa baten alderdi edo zirriborro batzuk baizik. Esango nuke dagoeneko antzeman litekeenaren arabera, aitzineuskararen ezkerraren berreraiketa hurbiletik eta zuzenki lotua dela azken urteotan ahotan ibili dudan euskararen deriba zabalarekin; orobat honen oinarri eta pizgarri izan zen aspaldian neure azterketa nagusitzat izan dudan morfemen forma kanonikoa eta erro monosilabikoaren teoriarekin.

Mitxelenak (1961/1977) zuhurki markatu zuen ezker-muturra zela hainbat kontsonanteri dagokionez berreraiketarako kokagunerik zailena; zailtasun horiek bertan diren bilakabide eta irregulartasun ugarietarik datozelarik, guztiz erakargarri bihurtzen zaizkio aztertzaileari, irregularitateen azterketa baita, hain zuzen ere, aitzinamendu-bide nagusia hizkuntzen

diakronian. Irregularitate eta zailtasun horiek, gainera, orain gehitu egin dira, *w-* > *ø-*, *k-* > *ø-* eta *h-* > *ø-* erregelen lekukotasunak areagotuaz (§9).

Hurbilketa hau bateragarri eta osagarria da aurreko urteotako berreraiketa lanek erakusten dituzten emaitza eta biderik emankorrenekin, bai fonologian (kontsonante erorketa [§9], sistema karratutik erronborako bidea eta berriro sistema karratu modernoa [§10], hasierako kontsonante berriak eta hortzetako zaharrak [§13], azentu zaharra [§16], hitz hasierako bokalismoa [§17], CVC-ren ezkerreko zatiak [§18], erro hasierako /r/ eta /R/ [§19], hasperenaren ezkerreratzea [§20]) bai morfologian (dela izenetako [§12], dela aditz--jokatugabeko nahiz aditz jokatuko aurrizkiak [§11], aditz erroen hedadurak [§§14-15]...). Orobat, ezker aldeko irregularitate fonologiko zaharrek beste inon gorde baino informazio gehiago dute; horrek laguntzen gaitu lehenagoko gramatika-egitura zaharragoaren garai ezberdinetako aztarna fosilduak eta antzinako hitz-familia zantzuak [§21] eskuratzen eta baita ezkerretik eskuinera izan diren hainbat aldaketaren abiapuntuak antzematen ere [§22]. Azkenik, aurretiaz ikertu gabeko fenomeno eta aldaketa hauek ezinbestean lagunduko digute eginkizun ezinbesteko den historiaurreko kronologia aberatsagoak eraikitzen.

Zalantzarik gabe, zer zehaztu, zer azaldu, zer erantsi eta zer aldatu gelditzen da, noski; alabaina, nago aurreko berreraiketa ereduan, tipologia holistiko diakronikorik ez forma kanonikorik gabe bere hatsarrietan, horko galderak ez zirela aztergai eta ezta galdekizun ere. Bestalde –zuhaitzak fruituetarik ezagutzen baitira–, berreraiketa alor berriotako emaitzek (batez ere sortu eta sortzeko diren galdera berriek) hurbilketa orokorraren, berreraiketa sakonagoaren eta handik honako deribaren zilegitasuna eta nolabaiteko bidezkotasuna erakusten dutela deritzot.

Bada orriotan hainbat datu, argudio, hutsune, gogoeta… ezkerraren ikerketa zabal eta sakon baten alde; emaitzak, behin betikoak baino, oraingoz, hurbilketa emankorraren esku-erakutsitzat ditut. Gure lanetik ezer garbi(egi)rik aterako ez balitz ere, nago hitz zaharren ezkerreko partearen azterketa artean baino korapilotsuago eta, neurri berean, interesgarriago bilakatu zaigula, dela fonologia zaharraren, dela morfologia zaharraren, dela lexiko zaharrenaren aldetik. Itxaroten dut lan honek laguntzea arazo eta ikerketa aukerak argitzen eta erakartzea etorkizun (eta beharrezko) diren saio be-

rriak; hurrengo urteetan badateke zer miatu horietan eta ezker aldeko gainerako zertzeladetan. Lan (elkarlan) proposamen hau da agun eta hemen aldarrikatu eta eskaini nahi izan dudana; geroak esango llillurak ala bidariak diratekeen bertatik gure hizkuntzaren iraganaren ikerketan datozkigunak.

24. *Nik neurez ez dot, balinde banikezu* dio –hots, «nik neurez ez dot, emango balidate emango nizueke»– Bizkaiko errefrau zahar batek eta nik ere gaur eta hemen ezin dut besterik esan. Saio honetan, gogoan nuen legez, zuoi ezer onik eskeini baldin badizuet gutxiena da nirea eta gehiena inorena: asko Benveniste eta Meillet, Sapir eta Sagart, Austerlitz eta Garrett, Matisoff eta Bakrò-Nagy, Hyman eta Post, Donegan eta Stampe, Blust eta Watkinsena; gehiago, gehiena, Koldo Mitxelena nire maisuarena, zeinekin, damuz, ezin izan dudan gogo nukeen bezala huntaz eta hartaz (hots, etimologiaz eta berreraiketaz) *inardun* eta *inardetsi*; Arratzun eta Derion harenganako bidean jarri ninduten eta ahaztu ez ditudan Juan Sagarna eta Mikel Zarateren a ere bai, jakina. Gasteizen, Euskal Herriko Unibertsitatean Patxi Goenagaren sintaxiazko eskola bikainak gogoan ditut, nahiz itxuraz ni kontu horietarik urruti ibili; baita Ibon Sarasola eta Joakin Gorrotxategirekin urteotan egindako zorrak ere, eta orobat Iñaki Camino eta Iván Igartua hizkuntzalariekin etengabe hartzen ditudanak.

Egunero behar beste eskertzen ez diedan arren, badakit Iñigo Ruiz Arzalluz, Gidor Bilbao, Ricardo Gómez, Iñaki Segurola eta Blanca Urgell filologoak azken hogeitabost urteotan behintzat, *lagun* –eta halere *adiskide*–[108] izatea ez dela nire merezimenduz, haien opariz baizik. Gazteagoei, Céline Mounole eta Julen Manterolari, beren lan ongi eginaz landa, berariaz aitortu nahi nieke, noizean behin ni sasoiko mantentzeko egiten dituzten ahaleginak galdera erraxak, zailxeagoak eta erantzun ezin ditudanak konbinatuaz.

Zorrik handienak, jakina, etxean ditut: Gasteizkoan Anarekin eta Arratzukoan gurasoekin eta, haien bitartez, familia osoarekin. Azkenik, baina ez gutxienik, neure burua arratzuar legez, lehen eta orain, harro agertzera eraman nauten herkide guztiokin. Eskerrak bihotzez.

Esan dut.

---

[108] Bi hitz hauezaz, besteren artean, aritu nintzen neure Veleiarekikoen txostenean (2008e) eta Lakarra (2009c)-en; gehienetan bezala, esan beharreko guztiak esanak ziren *OEH*-n, ss.uu.

25. **Bibliografia**

AGUD, M. & TOVAR, A., 1987-1995, *Materiales para un diccionario etimológico vasco (A-orloi)*. *ASJU*-ren Gehigarriak, Donostia, 7 lib.

AIKHENVALD, A. Y., 2006, «Serial verb constructions in typological perspective» in Aikhenvald & Dixon (arg.), 1-68.

——— & R. M. W. DIXON, (arg.), 2006, *Serial verb constructions. A cross-linguistic typology*. Oxford U. P.

DE ALONSO, A., 2007, «Noticias sobre lingüística histórica (I)», *ASJU* 41, 337-395. (350-361 = «Jan Braun (2001), *Sumerian and Tibeto-Burman* [iruzkina]»; 362-373 = «Jan Braun (1998), *Euskaro Caucasica. Historical and comparative studies on Kartvelian and Basque* [iruzkina]»).

ANDERSEN, T., 1992-94, «Morphological stratification in Dinka: on the alternations of vowel length and tone in the morphology of transitive verbal roots in a monosyllabic language», *Studies in African Linguistics* 23, 1-63.

———, 1999, «Consonant alternation and verbal morphology in Mayak (Norther Burun)», *Afrika und Übersee* 82, 65-97.

ANDERSON, G. D. S., 2006, *Auxiliary Verb Constructions*. Oxford U.P.

ANDRONOV, M. S., 2003, *A comparative grammar of the Dravidian languages*. Harrassowitz, Wiesbaden.

ANTTILA, R., 1995, «(Iruzkina) *The roots and non-roots of Indo-European*», *Diachronica* 12, 251-254.

ARBELAIZ, J. J., 1978, *Las etimologías vascas en la obra de Luis Michelena*. Tolosa, Kardaberatz.

ARTIAGOITIA, X., 1990, «Sobre la estructura de la sílaba en (proto)vasco y algunos fenómenos conexos», *ASJU* 24, 327-349.

———, P. GOENAGA & J. A. LAKARRA (arg.), 2002, *Erramu Boneta: Festschrift for R. P. G. de Rijk*, *ASJU*-ren Gehigarriak XLIV, Bilbo.

——— & J. A. LAKARRA (arg.), 2008, *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagari Omenaldia. ASJU*-ren Gehigarriak LI, Bilbo.

AUSTERLITZ, R., [1970] 1976, «L'aglutination dans les langues de l'Eurasie septentrionale», *Études Fenno-Ougriennes* 13, 7-12.

———, 1990, «Typology in the service of internal reconstruction: Saxalin Nivx» in W. P. Lehman (arg.), *Language typology 1987. Systematic balance in language*. John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia: 17-34.

AZKUE, R. Mª, 1905-06, *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbo [1969ko arg., eranskinarekin], LGEV.

———, 1923-25, *Morfología vasca*, I-III, Bilbo. 2. arg. 1969, LGEV.

BAKRÒ-NAGY, M. Sz., 1992, *Proto-Phonotactics. Phonotactic investigation of the PU and PFU consonant system.* Studia Uralica 5, Harrassowitz Verlag.

BALDI, PH., 1990, (arg.), *Patterns of change, change of patterns. Linguistic change and reconstruction methodology*. Mouton de Gruyter, Berlin-NY.

——— & B. R. PAGE, 2006, «(Iruzkina) Th. Vennemann. *Europa Vasconica-Europa Semitica*», *Lingua* 117, 2183-2220.

BHAT, D. N. S., 2000, «Dravidian and Tibeto-Burman: a typological comparison», *International Journal of Dravidian Linguistics* 29, 9-40.

BIBER, D., 1984, «The diachronic development of preverbal case markers in Somali», *Journal of African Language and Linguistics* 6, 47-61.

BILBAO, G., et al., 2010, *Lazarragaren eskuizkribua (A testua)*. In lazarraga.com.

BLUST, R. A., 1988, *Austronesian root theory: an essay on the limits of morphology*, Amsterdam, John Benjamins.

———, 1991, «Summary report: linguistic change and reconstruction methodology in the Austronesian language familiy». In Baldi (arg.), 87-107.

BOUDA, CH., 1950, «L'euskaro caucasique», *Homenaje a don Julio de Urquijo*, Donostia, III, 207-232.

BOWERN, C. & H. KOCH (arg.), 2004, *Australian languages. Classification and the comparative method*. John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia.

BRAUN, J., 1998, *Euscaro-Caucasica*, Dialog, Varsovia.

BUENO, A., 2004, *Nominalizazio atzizki deitutakoen azterketa historikoa eta morfologikoa.* Doktoregoko ikerketa lana. UPV/EHU-Gasteiz.

BYBEE, J. L., W. PAGLIUCA & R. D. PERKINS, 1990, «On the assymmetries in the affixation of grammatical material» in Croft, W., K. Denning & S. Kemmer, (arg.), *Studies in typology and diachrony for J. H. Greenberg*. John Benjamins: Amsterdam-Philadelphia: 1-42.

———, R. PERKINS & W. PAGLIUCA, 1994, *The evolution of grammar. Tense, aspect and modality in the languages of the world.* U. of Chicago P.

CAMPBELL, L., 1988, «(Iruzkina) *Language in the Americas* by J. H. Greenberg», *Language* 64: 591-615.

———, 1997, *American Indian languages*. Oxford U.P., New York-Oxford.

———, 1998, *Historical linguistics. An introduction*. Edinburgh U.P.

———, 2007, «La investigación histórica de las lenguas aisladas, o ¿es raro el vasco?» in Lakarra, Gorrotxategi & Urgell (arg.).

———, & GODDARD, I., 1990, «American Indian languages and principles of language change» in Baldi (arg.), 17-32

——— & POSER, W. J., 2008, *Language classification. History and method*. Cambridge U.P.

CASAGRANDE, J. B., 1954-55, «Comanche linguistic aculturation. I-III», *International Journal of American Linguistics* 20, 140-151, 217-237 eta 21, 8-25.

CHAKER, S., 1984, *Textes en linguistique berbère*. CNRS, Paris.

———, 1995, *Linguistique berbère. Études de syntaxe et de diachronie*. Peeters, Paris-Louvain.

COROMINES, J. & PASCUAL, J. A., 1980-91, *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*. Madril, Gredos.

DELANCEY, S., 1991, «Chronological strata of suffix classes in the Klamath verb», *International Journal of American Linguistics* 57, 426-445.

———, 1989, «Verb agreement in Proto-Tibeto-Burman», *Bulletin of the Society of Oriental and African Studies* 52, 315-333.

DIAKONOFF, I. M., 1970, «Problems of root structure in Proto-Semitic», *Archiv Orientálni* 38, 453-480.

———, 1975, «On root structure in Proto-Semitic» in J. & Th. Bynon (arg.), *Hamito-Semitica*. The Hague, Mouton, 133-153.

DIXON, R. M., 1982, «Where have all adjectives gone?» In *Where have all adjectives gone? And other essays in semantics and syntax.* Berlin: Mouton, 1-62. 1977koa da lehen bertsioa.

———, 1990, «Summary report: linguistic change and reconstruction in the Australian language family». In Baldi (arg.), 393-402.

———, 1997, *The rise and fall of languages*. Cambridge U.P., Cambridge.

———, 2002, *Australian languages*. «Cambridge language surveys», Cambridge.

———, 2004, «Adjective classes in typological perspective». In R. M. Dixon & A. Aikhenvald (arg.), *Adjective classes. A cross-linguistic typology*. Oxford U.P.: 1-49.

DONEGAN, P., 1993, «Rhythm and vocalic drift in Munda and Mon-Khmer», *Linguistics in the Tibeto-Burman Area* 16, 1-43.

——— & D. STAMPE, 1983, «Rhythm and the holistic organization of language structure» in J. Richardson et alii (arg.), *Papers from the Parasession of phonology, morphology and syntax*. Chicago Linguistic Society, 337-353.

——— & ———, 2004, «Rhythm and the synthetic drift of Munda», *The Yearbook of South Asian Languages and Linguistics 2004,* de Gruyter (Berlin-NY), 3-36.

ELORDIETA, G., 2008, Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarreko txostena. Iruñea, urria 6-10. (Inprimategian).

ERNOUT, A. & MEILLET, A., 1979, *Dictionnaire étymologique de la langue latine*. 4ème éd., Paris, Klincksieck.

FENG, SH., 1998, «Prosodic structure and compound words in Classical Chinese», in Packard, (arg.), 197-260.

FERNÁNDEZ, B. & I. LAKA (arg.), 2006, *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*. UPV/EHU.

GALAND, L., 1984, «Le comportement des schèmes et des racines dans l'évolution de la langue: exemples touaregs» in J. Bynon (arg.), *Current Progress in Afro-Asiatic Linguistics: Papers from the Third International Hamito-Semitic Congress* (Amsterdam: J. Benjamins): 305-315.

GAMKRELIDZE, T. V. & V. V. IVANOV, 1984, *Indo-European and the Indo-Europeans*. J. Nicholsen errusieratiko itzulpena. Mouton de Gruter, Berlin & NY 1995.

GARRETT, A., 2004, «The evolution of Algic verbal stem structure: new evidence from Yurok», eskuizk., UCB.

GÓMEZ, R., 1989, «Bonaparteren garaiko hizkuntz eztabaidak», *ASJU* 23: 2, 355-392.

———, 1994, «Euskal aditz morfologia eta hitzordena: VSO-tik SOV-ra» in J.-B. Orpustan (arg.), *La langue basque parmi les autres*. Izpegi, Baigorri: 93-114.

———, 2007, Txostena. Inprimategian in Lakarra, Gorrotxategi & Urgell (arg).

——— & K. SAINZ, 1995, «On the origin of the finite forms of the Basque verb», in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 235-274.

GOOD, J., 2005, «Reconstructing morpheme order in Bantu. The case of causativization and applicativization», *Diachronica* 22, 3-57.

GORROTXATEGI, J., 1984, *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania*, Bilbo, UPV/EHU.

———, 1985a, «Historia de las ideas acerca de los límites geográficos del vasco antiguo», *ASJU* 19, 571-594.

———, 1985b, «Lengua aquitana y lengua gala en la Aquitania etnográfica» in Melena (arg.), 613-628.

———, 1987, «Vasco-céltica», *ASJU* 21, 951-959.

———, 1999, «La romanización en el País vasco: aspectos lingüísticos» in *Antiqua. VI Jornadas sobre la Antigüedad.* Donostia: (= *Bitarte*), 10-23.

———, 2001, «Planteamientos de la lingüística histórica en la datación del euskara», *XV Congreso de Estudios Vascos*, Donostia: 103-114.

———, 2007, «Las armas de la filología». In Lakarra, Gorrotxategi & Urgell (arg.). Inprimategian.

———, 2007-2008, «Lenguas y genes: aplicaciones a la prehistoria de la lengua vasca», *Veleia* 24-25 (= J. Fdez Eraso & J. Santos, arg., *Homenaje a Ignacio Barandiaran Maestu*), 1185-1202.

———, 2008, «Dictamen de Joaquín Gorrochategui a la Comisión Asesora de la Diputación Foral de Alava sobre los hallazgos epigráficos de Iruña-Veleia (Campañas 2005 y 2006)». Arabako Foru Aldundiaren web orrian argitaratua.

———, 2009, «Vasco antiguo: algunas cuestiones de geografía e historia lingüísticas», *Palaeohispanica* 9, 539-555.

——— & J. A. LAKARRA, 1996, «Nuevas aportaciones a la reconstrucción del protovasco», in Villar & D'Encarnaçâo (arg.), 101-145.

——— & ———, 2001, «Comparación lingüística, filología y reconstrucción del protovasco», in Villar & Fdez Alvarez (arg.), 407-438.

GREENBERG, J., 1947, «Arabic loan words in Hausa», *Word* 3, 85-97.

———, 1950, «The patterning of root morphemes in Semitic». Berrarg. in Greenberg 1990, 365-387.

———, 1960, «Linguistic evidence for the influence of the Kanuri on the Hausa». Berrarg. in Greenberg 1990.

———, 1987, *Language in the Americas*. Stanford, California, Stanford U.P.

———, 1990, *On language: selected writtings of J. H. Greenberg*. Stanford, California, U.P.

———, 2000, *Indo-European and its closest relatives. The Eurasiatic language family. I. Grammar*. Stanford U.P.

GUITER, H., 1989, «Elementos de cronología fonética del vascuence», *ASJU* 23, 797-800.

HAAS, M., 1969, *The prehistory of languages*. Mouton.

HEINE, B. & T. KUTEVA, 2002, *World lexicon of grammaticalization*. Cambridge U.P.

HENDERSON, E. J. A., 1976, «Vestiges of morphology in some Tibeto-Burman languages» in *South-East Asian Linguistic Studies* 2 (Nguyen Dang Liem arg.), «Pacific Linguistic Series C», n° 42, 1-17.

HOZ, J. DE, 1981, «El euskera y las lenguas vecinas antes de la romanización», in ZZEE, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 27-56.

———, 2001, «Hacia una tipología del ibérico», in Villar & Fdez Alvarez (arg.), 335-362.

———, 2005, «Epigrafías y lenguas en contacto en la Hispania antigua», *Palaeohispanica* 5, 57-98.

———, 2009, «El problema de los límites de la lengua ibérica como lengua vernácula», *Palaeohispanica* 9, 413-433.

HUALDE, J. I., 1997a, «Aitzineuskararen leherkariak», *ASJU* 31: 2, 411-424.

———, 1997b, *Euskararen azentuerak*. *ASJU*-ren Gehigarriak 42, Bilbo-Donostia.

———, 2006, «Laringalak eta euskal azentuaren bilakaera» in Fernández & Laka (arg.), 497-511.

———, 2009, «Acentuación y cronología relativa en la lengua vasca», *Oihenart* 23, 199-217.

———, J. A. LAKARRA & L. TRASK, (arg.), 1995, *Towards a history of Basque language*. John Benjamins: Amsterdam & Philadelphia.

HURCH, B., 1988, «Is Basque a syllable-timed language?», *ASJU* 22, 813-825.

———, 1991, «Sobre la reconstrucción del protovasco: Observaciones a Trask», in J. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistro Sacrum. ASJU*-ren Gehigarriak, Donostia, II, 607-613.

——— ET AL. (arg.), 2005, *Reduplication*, de Gruyter, Berlin-NY.

HYMAN, L., 1975, «On the change from SOV to SVO: evidence from Niger-Congo» in Li, Ch. N., (arg.), *Word order and word order change*. University of Texas, Austin: 113-148.

———, 2002, «Is there a right-to-left bias in vowel harmony?», *9th Intern.Phonol.Meeting*, Vienna.

———, 2004, «How to become a «Kwa» verb», *Journal of West-African Languages* 30, 69-88.

IGARTUA, I., 2002, «Euskararen hasperena ikuspegi tipologiko eta diakronikotik». In Artiagoitia, Goenaga & Lakarra (arg.), 366-389.

———, 2008, «La aspiración de origen nasal en la evolución fonológica del euskera: un caso de rhinoglottophilia», *ASJU* 42, 2008, 171-189.

INKELAS, SH. & CH. ZOLL, 2005, *Reduplication. Doubling in morphology*. Cambridge U. P.

IRIGOYEN, A., 1977, «Geure hizkuntzari euskaldunok deritzagun izenaz», *Euskera* 22: 2, 513-538.

———, 1985, *En torno a la evolución y desarrollo del sistema verbal vasco*, Bilbo.

———, 1987hh, *De re philologica linguae vasconum*, Bilbo.

JAUREGI, O., 2007, *Silaba euskaraz: egitura eta historia*, UPV/EHU-ko doktorego tesia.

JUNGRAITHMAYR, H., 1990, «Evolution or reduction? On the history of research into the development of African languages», *Aion* 12, 19-33.

KITSON, P. R., 1996, «British and European river-names», *Transactions of the Philological Society* 94: 2, 73-118.

KLIMOV, G. A., 1991, «Some thoughts on Indo-European-Kartvelian relations», *Journal of Indo-European Studies* 19: 3-4, 325-341.

KRISHNAMURTI, BH., 2001, *Comparative Dravidian linguistics. Current perspectives*. Oxford U.P.

KUTEVA, T., 2001, *Auxiliation. An enquiry into the nature of grammaticalization*. Oxford U.P.

KUTZNETSOVA, N. G., 2004, «Morphological reanalysis in the Selkup verb» in E. J. Vajda (arg.), *Languages and prehistory of central Siberia*, John Benjamins, Amsterdam: 151-156.

LAFON, R., 1943, *Le système du verbe basque au XVIème siècle*. 2. arg. Elkar, Donostia, 1980.

———, 1950, «La racine en basque», *BAP* 6, 303-308.

———, 1999, *Vasconiana*, *Iker* 11, Euskaltzaindia. Bilbo.

LAKARRA, J. A., 1986, «Bizkaiera zaharra euskalkien artean», *ASJU* 20, 639-682.

———, 1995, «Reconstructing the root in Pre-Proto-Basque» in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 189-206.

———, 1996a, «Sobre el europeo antiguo y la reconstrucción del protovasco», *ASJU* 30, 1-70.

———, 1996b, *Refranes y Sentencias: ikerketak eta edizioa*. Euskaltzaindia-Bizkaiko Foru Diputazioa.

———, 1997a, «Euskararen historia eta filologia arazo zahar, bide berri», *ASJU* 31, 447-536.

———, 1997b, «Gogoetak aitzineuskararen birreraiketaz: konparaketa eta barnebirreraiketa», *ASJU* 31, 537-616.

———, 1998a, «Hizkuntzalaritza konparatua eta aitzineuskararen erroa», *Uztaro* 25, 47-110.

———, 1998b, «Gure izterlehengusuek eta guk erro bera? Gogoetak erroaz aitzinkartvelikoz eta aitzineuskaraz». In I. Turrez et al. (arg.), *Studia Philologica in honorem Alfonso Irigoien*. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo: 125-150.

———, 1999, «Ná-De-Ná», *Uztaro* 31, 15-84.

———, 2002a, «Ez zirenez: **TVTV eta haren lagunez: I. So bat erro disilabiko kodagabeez». Inprimategian.

———, 2002b, «Etymologiae (proto)uasconicae LXV», in Artiagoitia, Goenaga & Lakarra (arg.), 425-442.

———, 2002c, «*Refranes y Sentencias*: arazoak eta lekukotasunak bizkaiera zaharraren azterketarako» in A. Arejita et al. (arg.), *Bilboren 700. Urteurrena. Hizkuntza gunea*. Deustuko Unibertsitatea: 17-77.

———, 2004, «Bisílabos (¿proto?)vascos». Inprimategian.

———, 2005, «Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto)vasco», *Palaeohispanica* 5, 407-470.

———, 2006a, «Protovasco, munda y otros: reconstrucción interna y tipología holística diacrónica», *Oihenart* 21, 299-322.

———, 2006b, «*Jaun* eta *jabe, jaio* eta *herio, jin* eta *joan*… etimologiaz eta aditz zaharraz». In Fernández & Laka (arg.), 575-611.

———, 2006c, «Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco», in Lakarra & Hualde (arg.), 561-621.

———, 2007, «Erro monosilabikoaren teoria eta aitzineuskararen birreraiketa: zenbait alderdi eta ondorio». Imprimategian in Lakarra, Gorrotxategi & Urgell (arg.).

———, 2008a, «Aitzineuskararen gramatikarantz malkar eta osinetan zehar». In Artiagoitia eta Lakarra (arg.), 451-490.

———, 2008b, «Hacia un nuevo paradigma etimológico vasco: forma canónica, filología y reconstrucción», *ASJU* 37/1 (2003 [baina 2008an argitaratua]) 261-391.

———, 2008c, «Para la reconstrucción del verbo vasco: Nuevas irregularidades radicales y antiguas extensiones a la izquierda». Inprimategian *ASJU*-rako.

———, 2008d, «Más irregularidades y fósiles verbales». Inprimategian *ASJU*-rako.

———, 2008e, «Informe sobre supuestas inscripciones eusquéricas antiguas de Veleia». Arabako Foru Aldundiarentzako txostena, haren web orrian argitaratua.

———, 2009a, «$*h_3 > h_1$, $*h_2 > h_1$ eta horiei datxezkien zenbait fenomenoz». Baionako CNRS-ek (abenduak 12-13) antolatu biltzarreko komunikazioa. Inprimategian J.-B. Coyosek prestatu *Lapurdum*-eko ale berezi batean.

———, 2009b, «Forma canónica y cambios en la forma canónica en la prehistoria de la lengua vasca», *Palaeohispanica* 9, 557-609.

———, 2009c, «Adabakiak /h/-aren balio etimologikoaz», *ASJU* 43/1-2, 565-596.

———, 2009d, «Temas para un prólogo: forma canónica, tipología holística diacrónica y reconstrucción del protovasco», *Oihenart* 23, 277-347.

———, 2010a, «*RS*-eko lexikoaz ohar dozena». Inprimategian omenaldi liburu batean.

———, 2010b, «Haches, diptongos y otros detalles de alguna importancia: notas sobre numerales (proto)vascos y comparación vasco-ibérica (con un apéndice sobre *hiri/huri*)». Inprimategian (*Veleia*).

———, 2010c, «Más sobre dentales iniciales». Inprimategian (*ASJU*).

———, 2010d, «Aro berri baten alde». In J. A. Mujika (arg.), *Birjinia. «Euskararen lekukoak»*, Euskaltzaindia: Bilbo, 7-11.

———, Inprimategian, *Raíz y reconstrucción del protovasco. ASJU*-ren Gehigarriak L, Donostia.

———, prestatzen-1, «600 etimologías y subiendo. Materiales para un diccionario etimológico vasco». UPV/EHU-ko eskuizk.

———, prestatzen-2, «Para un análisis formal del léxico antiguo vasco». UPV/EHU-ko eskuizk.

———, prestatzen-3, «Antiguas y nuevas iniciales en (proto)vasco». UPV/EHU-ko eskuizk.

———, prestatzen-4, «V-, CV-, -VC, -C, -V, -CV: fragmentos y forma canónica en (proto)vasco». UPV/EHU-ko eskuizk.

———, prestatzen-5, «Vocales y diptongos en bisílabos: análisis sincrónico y diacrónico». UPV/EHU-ko eskuizk.

———, prestatzen-6, «Kontuak berreginaz: ohar eta azterketa berriak erroereduez». UPV/EHU-ko eskuizk.

——— & J. I. HUALDE (arg.), 2006, *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask* (= *ASJU* XL, 1-2), UPV/EHU, Bilbo.

———, J. GORROTXATEGI & B. URGELL (arg.), *K. Mitxelena Katedraren II. Biltzarra (Gasteiz, X/2007)*. Inprimategian.

LAMBERTERIE, CH. DE, 1998, «Méthode comparative et approche typologique: regards croises sur les deux disciplines», *La linguistique* 34, 19-37.

LICHTENBERK, F., 1985, «Syntactic-category change in Oceanic languages», *Oceanic Linguistics* 24, 1-84.

———, 2002, «Posture verbs in Oceanic» in Newman (arg.), 269-314.

———, 2006, «Serial verb constructions in Toqabaqita» in Aikhenvald & Dixon (arg.), 254-272.

LORD, C., 1993, *Historical change in serial verb constructions*. Amsterdam: John Benjamins.

MADARIAGA, J., 2006, *Anthology of Apologists and Detractors of the Basque Language*. Reno, University of Nevada.

MALKIEL, Y., 1954, «Etymology and the structure of word families», *Word* 10, 265-274.

———, 1976, «The interlocking of etymology and historical grammar» in W. M. Christie (arg.), *Current progress in historical linguistics*, North-Holland, Amsterdam, etab., 285-312.

MANTEROLA, J., 2006, «*-a* euskal artikulu definituaren gainean zenbait ohar». In Lakarra & Hualde (arg.), 651-676.

———, 2008, «Is Basque an agglutinative language?». Santa Barbarako Unibertsitateko hitzaldia.

MARTINET, A., 1950, «De la sonorisation des occlusives initiales en basque», *Word* 6, 224-233.

———, 1955, «La reconstruction structurale: les occlusives du basque». In *Économie des changements phonétiques. Traité de phonologie diachronique.* Francke, Berne: 370-388. Gaztelaniazko itzulpena, Madril, 1974.

MARTINEZ, M., 2006a, «Adjektiboa aitzineuskaraz». In Lakarra & Hualde (arg.), 687-722.

———, 2006b, *El consonantismo protovasco*. Doktorego tesia, UPV/EHU.

———, 2008, «Hitz-konposakera euskaraz eta aitzineuskaraz», *ASJU* 37, 1-84.

———, 2009, «El acento protovasco», *ASJU* 38, 135-206.

MATISOFF, J., 1990, «On megalocomparison», *Language* 66, 106-120.

———, 2003, *Handbook of Proto-Tibeto-Burman*. U. of California P., Berkeley, etab.

MEILLET, A., 1921-36, *Linguistique historique et linguistique générale*. 2 lib. Klincksieck, Paris.

———, 1925, *La méthode comparative en linguistique historique*, Paris. Berrarg. 1970. (= 2001 *Metodo konparatzailea hizkuntzalaritza historikoan*, (*'Koldo Mitxelena' Katedraren Argitalpenak* 2), UPV/EHU, Bilbo. Mª J. Kerejeta eta B. Urgellen itzulpena, J. Gorrotxategiren sarrerarekin.

MELENA, J. L., (arg.), 1985, *Symbolae Ludovico Mitxelena Septvagenario Oblatae*. Gasteiz, UPV/EHU, 2 lib.

MERLAN, F., 1979, «On the prehistory of some Australian verbs», *Oceanic Linguistics* 18, 33-111.

MITXELENA, K., 1950, «De etimología vasca». Berrarg., *SHLV*, 439-444.

———, 1951a, «De fonética vasca. La distribución de las oclusivas aspiradas y no aspiradas». Berrarg., *SHLV*, 212-219.

———, 1951b, «La sonorización de las oclusivas iniciales. A propósito de un importante artículo de André Martinet». Berrarg., *SHLV*, 203-211.

———, 1954a, «De onomastica aquitana». Berrarg., *LH*, 409-445.

———, 1954b, «Problemas teóricos y prácticos de la lingüística vasca». Berrarg., *SHLV*, 630-644.

———, 1957, «Las antiguas consonantes vascas». Berrarg., *SHLV*, 166-189.

———, 1963, *Lenguas y protolenguas*. Berrarg., *ASJU*-ren Gehigarriak 20, Donostia 1990.

———, 1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Berrarg., *SHLV*, 1-73.

———, 1970a, *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*. Bilbo.

———, 1970b, «Nombre y verbo en la etimología vasca». Berrarg., *PT*, 283-309.

———, 1971, «Toponimia, léxico y gramática». Berrarg., *PT*, 141-167.

———, 1973, *Apellidos vascos*, 3. arg., Donostia. Berrarg. Donostia 1989.

———, 1974, «El elemento latino-románico en la lengua vasca». Berrarg., *PT*, 195-219.

———, 1977a [1961], *Fonética histórica vasca*, 2. arg., zuzendua eta zabaldua, *ASJU*-ren Gehigarriak 4, Donostia.

———, 1977b, «Notas sobre compuestos verbales vascos». Berrarg., *PT*, 311-335.

———, 1979, «La langue ibère». Berrarg., *LH*, 341-356.

———, 1981, «Lengua común y dialectos vascos». Berrarg., *PT*, 35-55.

———, 1985, *Lengua e Historia*, [*LH*], Paraninfo, Madril.

———, 1987a, *Palabras y Textos*, [*PT*], J. Gorrotxategi (arg.), UPV/EHU, Bilbo.

———, 1987b, *Orotariko Euskal Hiztegia-Diccionario general vasco*. Euskaltzaindia, Bilbo.

———, 1988, *Sobre historia de la lengua vasca*, J. A. Lakarra (arg.), *ASJU*-ren Gehigarriak 10, Donostia, 2 lib.

MORVAN, M., 1992a, *Les origines linguistiques du basque: l'ouralo-altaïque*. Tesi argitaragabea, Bordele. [Aldaketa garrantzitsuekin, *Les origines linguistiques du basque*, Presses Universitaires de Bordeaux, Bordele 1996].

———, 1992b, «Remarques au sujet des comparaisons macro-caucasiques de John D. Bengtson», *BSL* 87: 2, 357-65.

———, 1997, «Problèmes de substrat (suite)», *Lapurdum* 2, 23-27.

MOUNOLE, C., 2006, «Quelques remarques à propos de l'histoire des périphrases basques'. In Lakarra & Hualde (arg.), 723-738.

———, 2007, «Perifrasi zaharra mendebalde eta erdialdeko euskara zaharrean: azterketa kuantitatiboa eta proposamen berria», *ASJU* 41, 67-138.

———, 2008, «Sintaxi diakronikoa eta aditz multzoaren garapena: inperfektibozko perifrasiaren sorreraz». In Artiagoitia & Lakarra (arg.), 585-604.

———, 2009, «Aditzaren mailegaketa euskararen diakronian: prozesu morfologiko eta sintaktikoak», *Oihenart* 23, 415-436.

NEWMAN, J., 2002, «A cross-linguistic overview of the posture verbs 'sit', 'stand' and 'lie'» in J. Newman (arg.), *The linguistics of sitting, standing and lying*. John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia: 1-24.

NOTHOFER, R. A., 1990, «(Art.-Iruzkina) Blust, R. A. *Austronesian root theory: an essay on the limits of morphology* «, *Oceanic Linguistics* 29, 2: 132-152.

PACKARD, J., (arg.), *New approaches to Chinese Word formation: morphology, phonology and the lexicon in modern and ancien Chinese*. Berlin: Mouton de Gruyter.

PLANK, F., 1998, «The co-variation of phonology with morphology and syntax: A hopeful history», *Linguistic Typology* 2, 195-230.

POLOMÉ, E. C., 1999, «A few remarkes on Proto-Indo-European substrates» in E. C. Polomé & C. F. Justus (arg.), *Language change and typological variation: in honor of W. P. Lehmann on the occasion of his 83rd birthday*, JIES Mon. 30, 52-59.

POST, M. W., 2006, «Compounding and the structure of the Tani lexicon», *Linguistics in the Tibeto-Burman Area* 29, 41-60.

POTET, J.-P., 1995, «Tagalog monosyllabic roots», *Oceanic Linguistics* 34, 345-374.

PRAKHBAR RAO, J., 1992, «Status of aspirated sounds and direction of evolution in the reconstruction of Telugu sound system», *International Journal of Dravidian Linguistics* 21, 60-67.

DE RIJK, R. P. G., 1969, «Is Basque a SOV language?». Berrarg. in 1998, 13-38.

———, 1981, «Euskal morfologiaren zenbait gorabehera». Berrarg. De Rijk 1998, 211-224.

———, 1992, «"Nunc" Vasconice». Berrarg. in 1998, 347-376.

———, 1998, *De lingua uasconum. Selected writings*. Supplements of *ASJU*, Donostia.

RODRÍGUEZ RAMOS, J., 2002, «La hipótesis del vascoiberismo desde el punto de vista de la epigrafía ibérica», *FLV* 90, 197-217.

———, 2004, *Análisis de epigrafía ibérica*. Veleia, Anejos Serie Minor 22. Vitoria/Gasteiz.

RUHLEN, M., 1994a, (arg.), *On the origin of languages: studies in linguistic taxonomy*. Stanford U. P.

———, 1994b, *The origin of language: stracing the evolution of the mother tongue*. Stanford U. P.

SAGART, L., 1999, *The roots of Old Chinese*. John Benjamins: Amsterdam – Philadelphia.

———, 2001, «Vestiges of Archaic Chinese derivational affixes in Modern Chinese dialects» in H. Chappell (arg.), *Sinitic Grammar – Synchronic and diachronic perspectives*. Oxford U.P.

——— & Xu Shixuan, 2001, «History through loanwords: the loan correspondences between Hani and Chinese», *Cahiers Linguistiques Asie Orientale* 30, 3-54.

SARASOLA, I., 1997, «Euskal hitz altxorraz», *ASJU* 31, 617-642.

SATRUSTEGI, J. M., 1997-99, «Información magisterial en la correspondencia de Holmer y Mitxelena (1951), (1952), (1953-54), (1955-56), (1959-61), (1962-63), (1964-66), (1967-76)», *FLV* 29, 241-64; 29, 77-96; 30, 297-328; 30, 429-68; 31, 109-34, 459-82; 32, 81-109, 441-66; 34, 323-52.

SCHMIDT, K. H., 1992, «Contributions from new data to the reconstruction of the protolanguage» in E. C. Polomé & Winter, W., (arg.), *Reconstruting languages and cultures*. Mouton de Gruyter, Berlin & New York: 35-62.

SCHUCHARDT, H., 1906, «Vascuence y romance», *BAP* 13 (1957), 463-487, 15 (1959), 181-205, 16 (1960), 339-363.

———, 1972, «Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco», *BAP* 28, 217-337.

SZEMERÉNYI, O., 1962, «Principles of etymological research in the IE languages». Berrarg. 1987, 41-77.

———, 1967, «The new look of Indo-European: reconstruction and typology». Berrarg. 1987, 123-157.

———, 1987, *Scripta Minora*. J. P. Considine & J. T. Hooker (arg.), Innsbruck.

TOURATIER, CH., 1990, «Méthode comparative historique» in Ch. Touratier (arg.), *Linguistique comparée (Méthode et résultats)*, Université, Aix-en-Provence: 15-31.

TOVAR, A., 1959, *El euskera y sus parientes*, Minotauro, Madril.

———, 1980, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*. Alianza Editorial, Madril.

———, 1997, *Estudios de tipología lingüística. Sobre el euskera, el español y otras lenguas del Viejo y el Nuevo Mundo*. J. Bustamante (arg.), Istmo, Madril.

———, et al, 1961, «El método léxico-estadístico y su aplicación a las relaciones del vascuence», *BAP* 17, 249-281.

TRASK, L. R., 1977, «Historical Syntax and Basque Verbal Morphology: Two Hypotheses», in W. Douglass et al (arg.), *Anglo-American contributions to Basque studies: Essays in honor of Jon Bilbao*. Reno, 203-217.

———, 1985, «On the reconstruction of Pre-Basque Phonology», in Melena (arg.), II, 885-891.

———, 1995, «On the history of the non-finite verb forms in Basque» in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 207-234.

———, 1996, *Historical linguistics*. Arnold: London, NY, Sidney, Auckland.

———, 1997, *The history of Basque*. Londres, Routledge.

———, 1998, «The typological position of Basque: then and now», *Language Sciences* 20, 313-324.

UHLENBECK, C. C., 1942, «Les couches anciennes du vocabulaire basque», *Eusko-Jakintza* 1 (1947), 543-581.

———, 1947, «La langue basque et la linguistique générale», *Lingua* 1, 59-76.

UNTERMANN, J., 1987, «La gramática de los plomos ibéricos», *Veleia* II-III, 35-56.

——— & F. VILLAR (arg.), 1993, *Lengua y Cultura en la Hispania prerromana. Actas V Coloquio sobre Lenguas y Culturas prerromanas de la Península Ibérica,* Salamanca, Universidad.

URGELL, B., 2006, «Para la historia del sustantivo verbal en vasco» in Lakarra & Hualde (arg.), 921-948.

———, 2008, «Berriemaileen gaitasuna eta eredu lexikografikoaren eragina Landucciren hiztegian» in Artiagoitia & Lakarra (arg.), 805-836.

——— & LAKARRA, J., 2008, «Hausturak nonahi, noiznahi, zenbanahi: llillurak eta gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz». Baionan IKER-CNRS-eko Batzarrean (2008/XII/13) irakurritako txosten argitaragabea.

USSISHKIN, A., 2005, «A fixed prosodic theory of nonconcatenative templatic morphology», *Natural Language and Linguistic Theory* 23: 169-218.

VENNEMANN, TH., 1994, «Linguistic reconstruction in the context of European Prehistory», *Transactions of the Philological Society* 92, 215-284.

———, 2003, *Europa Vasconica – Europa Semitica*. Mouton de Gruyter, N.Y.-Berlin.

VILLAR, F. & J. D'ENCARNAÇAO (arg.), 1996, *La Hispania prerromana. VI Coloquio sobre lenguas y culturas prerromanas de la Península Ibérica.* U. Salamanca & U. Coimbra. Salamanca.

——— & Mª P. FDEZ. ALVAREZ (arg.), 2001, *Religión, lengua y cultura prerromanas de Hispania.* Universidad, Salamanca.

VOVIN, A., 1993, *A reconstruction of Proto-Ainu*. E.J. Brill, Leiden-NY-Köln.

———, 1994, «(Art.-iruzkina) Long-distance relationships, reconstruction methodology, and the origins of Japanese», *Diachronica* 11: 1, 95-114.

———, 1998, «Nostratic and Altaic» in J. C. Salmons & B. D. Joseph, (arg.), *Nostratic. Sifting the evidence*. John Benjamins: Amsterdam, Philadelphia, etab.: 257-270.

———, 2005, «The End of the Altaic controversy», *Central Asiatic Journal* 49, 71-132.

——— & S. GEORG, 2003, «From mass-comparison to mesh comparison: Greenberg's *Indoeuropean and its closest relatives*», *Diachronica* 20, 331-362.

——— & ———, 2005, «Review of *Indoeuropean and its closest relatives*: The Euroasiatic language family. Volume 2: Lexicon», *Diachronica* 22, 184-190.

WATKINS, C., 1984, «L'apport d'E. Benveniste à la grammaire comparée» in G. Serbat (arg.), *E. Benveniste aujourd'hui. Actes du Colloque international du CNRS*, Peeters, Louvain, I, 3-11.

———, 1990, «Etymologies, equations, and comparanda: types and values, and criteria for judgment». In Baldi (arg.), 289-304.

ZORC, R. D., 1990, «The Austronesian monosyllabic root, radical or phonestheme» in Baldi 1990, (arg.), 175-194.

ZUAZO, K., 2010, *El euskera y sus dialectos*. Alberdania, Irun.

Gabon kantak eta arkaismoen bestelako mintegiak
Joseba Andoni Lakarraren sarrera-hitzaldiari erantzuna

ARANA MARTIXA, Jose Antonio
Euskaltzain osoa eta Euskaltzaindiko Azkue Biblioteka batzordeburua

Duela hogei urte nire sarrera-hitzaldiari erantzuna eman zion Gernikan euskaltzainburua zen Aita Luis Villasante gernikarrak. Genikar bati beste gernikar batek. Hogei urte iragan ondoren berdin gertatzen zaigu. Gernikan jaio zen bati, Joseba Andoni Lakarrari, hain zuzen, beste gernikar batek erantzuna ematea, berak hala eskatu baitzidan Bilbon, 2008ko uztailean osoko bilkuraren egunean, eta hemen gaude, euskal estilo gotikoan 1530. urtean berreraikitako San Tomas elizan.

Erregistro Zibileko agirian irakurtzen denez, Jose Antonio Lacarra Andrinua Gernikako Erdiko Kaleko 9. zenbakian (hala deitzen zioten herrian Artekaleri), goizeko bederatzietan jaio zen Dublang medikuaren klinikan. Gurasoak Andrés Lakarra Lejarraga, Arratzukoa, eta Visitación Andrinua Berrojalbiz, Muxikakoa, Zornotzan, Larrako komentuan ezkonduak 1961eko otsailaren 11n. Arratzun bizi ziren gurasoak, Eleixalde auzoan, Teiletxondo baserri ederrean. 1962ko urtarrilaren 1ean, Urteberri egunean beraz, jaio zen Lakarra Gernikan, baina gurasoek Arratzuko parrokiara eraman zuten bataiatzera, Bitoriano Gandiaga bataiatua izan zen ponte berera. Eta urtarrilaren 3an, Bataioetako 8. liburuan agertzen denez, parroko jaunak **Joseba Andoni** izena jarri zion, sinetsi ezinezko euskal izena Francoren urte garaitzaile haietan. Elizan jarritako izen hori ofizialki erabiltzea geroago gertatu zitzaion Lakarrari. Lehen aipatutako Gernikako Erregistro Zibilean agertzen da ofizialki euskal izena, hots, **Joseba Andoni** erabiltzeko baimena 1986ko martxoaren l0ean, nire urtebetetze egunean, hain zuzen.

Euskera. 2009, 54, 1. 99-111. Bilbo
ISSN 0210-1564

Guridiren *Amaia* opera arratzun

Gernikatik Markinara doan bidean mugakide da Arratzu. Lakarra Euskaltzaindian sartzen dela ospatzen badugu ere, euskararen festa eginez, Urdaibairen erdigunean dagoen txikienetariko herri hau euskalduna oso dela aitortu behar da. Baina zentzu zabalean, herritarren hizkuntza ia bakarra izatetik aparte, ekandu eta bizitzako arlo guztietan ondo errotuta dauka euskal arima. Euskaldunontzat arnasa gozoa hartzeko herria dugu Arratzu.

Eguneroko zereginetan euskal kulturaren eredu badugu Arratzu, handikiro eta ospe handian gertatutako egunak ere izan dituela ezin ahaztu. Gaurkoa, jakina, Euskaltzaindiak antolatua eta instituzio honen historian mugarri pozgarria dena. Baina gogora dezagun, Joseba Andoni Lakarra jaio baino berrogei urte lehenago, hots, 1922ko irailean, Eusko Ikaskuntzak Gernikan egin zuela III. Biltzarra.

Eginkizunen artean, hilaren l0ean eta aire zabalean, Belendiz auzoko Uharka oihanean, Jesus Guridiren *Amaia* opera estreinatzea programatuta zegoen. Fagoaga, Agirresarobe eta Olaizola, ahots oneko abeslariak kantatzeko prest zeuden, eta Dahmen soprano alemana, Casazza italiarra eta Elola bilbotar famatuak. Armand Marsik-en zuzendaritzapean, BiIboko Elkarte Korala, eta bertako Orkestra Sinfonikoa ziren II. eta IV. aldiak musika laguntzaz beteko zutenak. Baina amaitzear zegoela, ekaitza ikaragarriak ezabatu egin zuen musika saio eder hori. Arratzuk badu, bada, euskal musikaren historian zerbait esatekoa. Urrun geratzen zaigu Lakarraren biografiatik ekintza hau, baina ez bere herria den Arratzuren historiatik.

Har dezagun berriz Lakarraren biografia. Arratzutik Gernikara etorri zen berriz OHOko ikasketak egitera, hiri honetako Allende Salazar izeneko eskola publikoetara. Gogoan ditu hemengo irakasleak, denak erdaldunak, bat gernikarra eta euskalduna izan ezik. Baina ikasketa maila hori gaindituta, Derioko Labayru Ikastetxeko barnetegira eraman zuten gurasoek 1975ean, eta han amaitu zituen batxilergoko ikasketak 1979. urtean. Han ezagutu nuen nik Joseba Andoni Lakarra 1978 inguruan, nire seme bat ere

han zegoelako, eta euskarazko ikasketak bigarren hezkuntzan bultzatzeko elkarte bat sortu genuelako guraso talde batek.

Unibertsitatean lehen urratsak

Derion, irakasle askoren artean, Mikel Zarate izan zen gehien gogoratzen duena, beste guztiengandik ikasitakoa gai ia bakarrera etorri zitzaion eta. Euskal idazleak ikertzeaz aparte, hizkuntzalaritza indoeuroparra aztertzea bururatu zitzaion. Dena den, Derioko egotaldiak bizi guztirako euskal oinarria utzi zion Labayruko Liburutegian orduak eta orduak emanaz.

Beraz, 1979an Gasteizko Seminario Nagusira (niretzat ezaguna, bi urtez egon bainintzen han) non Euskal Herriko Unibertsitate Publikoaren Geografia eta Historiako Euskal Filologia Saila funtzionarazi zuen Koldo Mitxelenak Salamancatik etorrita. Lau urtean amaitu zuen Lakarrak bost urteko karrera. Gogoan izan zituen irakasleak, lehena eta denen gainetik Koldo Mitxelena, euskal hizkuntzalaritzako irakaslea. Irakasle izan zituen, baita ere, Ibon Sarasola, Patxi Goenaga, Karmele Rotaetxe, Lourdes Oñederra, Jon Juaristi (literatura espainiarra), Ricardo Cierbide, eta besteren bat. Euskal Filologian lizentzia 1983an jaso zuen. Aurrerantzean lan oparoa eman digu hizkuntzalaritzaren arloan.

Ikasle zela argitara eman zituen ikerketako fruituak, Mitxelenaren gomendioz ASJU aldizkarian (*Anuario de Filologia Vasca Julio de Urquijo*). Lakarraren Bibliografia nire erantzun honen azken orrialdean agertzen bada ere, beharrezkoa dut Lizentziatura jaso baino lehen argitara eman zituen lanak: *Betolazaren Hiztegia* (1981), *Barrutiaz gehiago* (1982), *Gabonetako Ikuskizuna. P.I. Barrutia* (1983) (argitalpena prestatzea), *XVIII. Mendeko zenbait bilantziko berri (1982), Gabon Kanta Gernicacoa. 1762*. (1982), *Oharrak zenbait arkaismoz* (1983). ASJU aldizkarian argitaratu zituen lehenengo ikerlan hauek. Baina lizenzia lortutako urtean, hots 1983an, Blanca Urgell eta Koldo Bigurirekin prestatu zuen, bi liburukitan, antologia eta ikerketa oso interesgarria: *Euskal Baladak, Antología eta azterketa,* Hordagok argitaratua. Lakarrak 21 urte zituela argitaraturiko bizpahiru lanak izango dira gero garatuko ditudanak arkaismoak, bilantzikoak eta Gabon Kantak.

Irakasle eta doktore

Lizentzia lortu zuenetik hamar urte igaro eta lortu zuen Doktoregoa, 1993an. Koldo Mitxelenak eta Jokin Gorrotxategik zuzendu zioten Tesia: XVIII Mendeko hiztegigintzaren etorkiez. Lan honekin irabazi zuen Sari Berezia 1996an. Lehendabiziko unibertsitateko lorpenetik azkenarterako bitartean ikerketa asko eta argitalpen oparoak burutzeaz gain (ikus bibliografia), karguak ere izan ditu Lakarrak Euskal Herriko Unibertsitatean, eta hortik kanpo ere bai. *ASJU* aldizkariaren Zuzendaritzakoa izan zen 1994-2000 urteen bitartean, baita argitaratzailea ere azken urtean. Fontes Linguae Vasconum, Jose María Satrustegik zuzentzen zuenaren batzordekidea ere izan zen. 2003-2007 urteetan Fakultateko idazkaria eta dekanoa izan zen. Kargu horiek emandako ardura izan arren, denbora atera zuen Katedra irabazteko 2005ean *Gramatika historikoa eta euskararen historiaz* gaia aurkeztuz. Euskaltzain urgazlea izan zen izendatua 1991n eta euskaltzain oso 2007ko ekainaren 1ean. Eta hori ari gara orain ospatzen Arratzun.

Oharrak zenbait arkaismoz

Izenburu honekin aztertu zuen Lakarrak gai hau 1983an. Nire lanen batek, *Marijesiei* buruzkoak, hain zuzen, beste lan askoren artean, dokumentazioa eman zion arkaismoak testu zaharretan aurkitzeko. Nire laguntza hori orduan baliagarria izan baitzuen, orain ere nahiko nuke zerbait esatea, gai hau dela eta berri asko izan direlako ordutik hona. Hitz, esaldi eta esateko molde zaharrak direla arkaismoak esaten dute.

Hizkuntza baten denbora asko dela erabilitakoak, baina gero, eta orain behar bada, usadioan debekatuak izan arren, eta ez beti, erabiltzen direnak. Euskalki guztietan galdu diren hitz zaharrok, arkaismo absolutuak deitzen dira, eta hizkuntzaren pobretasuna adierazten dute; arkaismo erlatiboak izaten dira euskalki batzuetan bizirik mantentzen direnak. Dena den, erudituek baztertzen dituzte, eta herria da erabiltzen dituena. Ahoz gordetako mito eta kantuetan bizirik jarraitzen dute, eta erran zaharretan, hots, paremiologian.

Hitz zaharren erabileraren aurka zegoen Lafitte esaten zuenean: «Lehen zer izana den jakin baino, ez ote da beharrago bizi dadin eta azkart dadin

emeki-emeki batetaratuz euskara?» Lafittek berak esaten zuen: «Lacombek bi alde ematen zituen gure euskalki guztiak: bizkaitarra eta bertze guztiak; hauk nafarroako euskara zaharrari eratxikitzen ziozkan» Jakina da Schuchardtek uste zuela bizkaiera zela euskalkirik arkaikoena, eta horregatik Van Eys-ek Darmstaden aurkitu zuen *Refranes y Sentencias. 1596*, iruditzen zitzaion iturri ugaria arkaismoak bilatzeko. Egia esan, iturri asko daude arkaismoak aurkitzeko. Latinetik datozen maileguak asko dira eta eufoniaz edo ortografiaz aldaturik arkaismo bihurtzen dira. Baina zeltek ere utzi zizkiguten hainbat hitz zahar, eta iberoek ere bai, Edouard Philipon-en liburu honetan ikusten denez: *Les peuples primitifs de l'Europe meridionale* (1925). Juduak ere heldu ziren gure lurretaraino, eta hainbat hitz, zuzenean edo gaztelaniaren bidez sartu zituzten gure hizkuntzan. Dena den, maileguek eta euskalkiek, Lacomberen esanetan, «elkar argitzen dute, elgar aberasten eta hek gabe ez ginezake xila zer zitakeen lehenagoko Euskara».

Hemen sortzen da Julien Vinsonek deitzen zuen *Genus irritabile gramaticorum.* Axularrek, esaterako, ez zuen arkaismorik ikusten bere garaiko euskaran: «badirudi ecen bertce hizkuntça eta lenguaya comun guztiak bata bestearequin nahasiak direla, baiña euskara lehenbizico hastean eta garbitasunean dagoela». Esaldi hau laburbilduz, Julien Vinsonek euskaldunei buruz esaten zuen «leur langue n'a jamais varié». Kontua da bereiztu behar dela ahozko hizkuntza eta idatzia, lehenean agertzen baitira arkaismo gehiago. Decrepten *Amatxi* operaren testua aztertukeran ohartzen zuen Lacombek «probléme de la langue écrit en retard sur la langue parlé» Arkaismoen kontra erudituek hizkuntzan sartzen dituzten *neologismoen* aurka kantatzen zuen *Gure Herria* aldizkariak 1927an:

> Arbasoak baizuten mintzaira ederra
> euskaldun guztientzat lokarri bakarra
> zahar eta gazteak maitatu beharra
> zaude beti gurekin euskara zaharra

Marijesiak aipatzen ditu Lakarrak arkaismoen iturri gisa. Baina nik emandako azken bertsioa ikusten bada (*Euskera*, 2003), arkaismo gehiago agertzen dira: linborian, biraldu (bidali), nabegadua (OEH, baina ez Baladetatik hartua), oragin (orain), esquepe, deungaro, erloju, chalmatzen.

Gertatzen da OEHko erredaktoreek Baladen liburukietatik hartu zituztela arkaismoak eta ez bost urte lehenago nik argitaratutako Marijesietatik. Badaude beste arkaismo batzuk ere, beste iturrietatik datozkigunak: gahisto (deabrua), bolanjersa (boulangere), americanosa (americaine), ipurtargi (denak Lacombek emanak). Jarabeitia –eta ez Oarabeitiaren– Bilantzikoan agertzen dira: aurraren contzolatzeco, seinaren alabantzea, Amaren onartzea. Schuchardtek ematen digu metatesis hau, berak «lapsus calami» deitzen duena: Alemanian preso zegoen batek idatzi zuen «kuaiten» ukaiten esan beharrean. Eta hona hemen beste esaldi bitxi bat: Joseph, Mariaren senarra, zeineganik jaio zen .... Senarrengandik?

Arnold von Harff-en XV. mendeko hiztegiak

Koloniako zaldun hau erromes atera zen 1494an Erromatik Lur Santuetara joateko, eta handik itzuleran Konpostelan bukatzeko bere erromesaldia. Kronika bat idatzi zuen erromes honek, eta letra gotikoz eman zizkigun bisitatu zituen herrialde guztien azalpen etnografiko eta linguistikoak. Lehen eskuizkribua galdutzat eman zen, baina Eberhard von Grootek lortu zituen Dreiborn gazteluan hiru kopia, zeinekin baliatuz argitaratu zuen Kolonian, 1860an, Von Harff-en eskuizkribu guztiekin, ezezaguna izan dugun liburu bat : *Die Pilgerfahrt des Ritters Arnold von Harff.* Liburu hau itzuli zuen frantsesera Henri Gavelek ale bat aurkitu zuenean, eta *Gure Herria* aldizkarian argitaratu zuen (1922) izenburu honekin: *Un pélerin de Saint Jacques au Pays Basque,* Euskal Herritik igaro baitzen, Nafarroatik gehien bat, Konpostelarako bidean. Testu aleman originala Linschmannek argitaratu zuen Berlingo *Euskaran* (1891), eta pasarte batzuk Justo Garatek *(RlEV* 1931) eta Luis Michelenak *Textos arcaicos vascos* liburuan (1964), zeinek ematen dizkiguten hiztegia eta iruzkinak. Von Harffek erromesaldian atsedena hartzeko aurkitzen zituen ostatuetan, herriko hizkuntza erabiltzeko hiztegiño bat zeraman, eta jakina, euskarazkoa ere bai, aipatu argitalpenetan agertzen dena: hamar hitz, nahi zuena adierazteko eta hamar zenbakiak. Hauek bai direla bizirik dauden arkaismoak, alemanez eta frantsesez idatziak. Dreibornen Von Grootek erabilitako hiru eskuizkribuak izan ziren lehendabizi aurkitutakoak eta luzaro bakarrak. Gero, nire eta zuen adiskide den Klaus Nie-

belek aurkitu ditu, hainbat monasterio eta artxibotan, beste zortzi eskuizkribu, eta orain hamaika dira ezagutzen ditugunak. Denak begiratu ditu Niebel jaunak eta datu zehatzak ematen dituen txostena prestatu du, ene ustez argitaratu beharko genukeena. Von Grooteren liburuan agertzen diren irudiekin atera berria da Kolonian, 2008an inprimatua, argitalpen berri bat, Niebel jaunak bidalita Azkue Bibliotekan daukaguna.

Lehen Gabon kanta. 1705

Esana dugu kantuetan, zaharrak direnean, arkaismo asko agertzen direla. Horretaz gain, kantuetan agertzen diren arkaismoek ematen digute sarritan kantuaren gutxi gorabeherako data.

Hori frogatu nuen nire Musica vasca liburua idatzi nuenean, eta nire eskutik igaro diren hainbat kantu bildumatan. Musika eta guzti ezagutzen dugun zaharrena Segurakoa dela baiezta dezaket: Tono al Nazim. De Nro. Sr. Jesu Xristo. 1705. Honekin batera, baina data gabe agertu zen beste Gabon Kanta edo bilantzikoa, Nork orain esan lezake hitzekin hasten dena. Biak ematen ditut eranskinean Manuel Lekuonak egindako transkripzioan (Gymnasium, 1927) Lehena zaharragoa dela argi dago eta arkaismoz betea, ematen dudan testuan agertzen denez. Bestea geroagokoa dela dirudi, testua eta doinua ikusirik. Bigarren hau, Uruñuelak harmonizatuta aditzera eman zuen aita Donostiak, haur talde batekin, Gasteizen 1928an ospatu zen Eliz Musikaren Biltzarrean. Aiako Laurgainen aurkitu zituela Telleria apaizak diosku Lekuonak. Baina ene ustez ez zen hura kantu hauen sorlekua, Segurako Lardizabalen Jauregia baizik, orain udaletxea dena. Bigarren bilantzikoaren testua (*Egan*, 1956) zeinaren doinua ere modernoagoa den, hauxe da:

Nork orain esan lezake
gure creadorea
Adanen eta Ebaren
dela sucesorea
Jesus maitea, neure maitea
ongi etorria cerala
gure redentorea

Data dakarren Gabon Kantaren originalaren kopia eranskinean dator. Doinua ematen zaigu, eta testua hobeto ulertzeko, orain ematen dizuet:

Segurako Gabon kanta. 1705

Eder dek olaan gabia; larre onean ardia
Nafar baño obe diagu Zaragozako zuria.

1. Brindatzen diat Zeledon, onixek egiten dik on
   Sekulako onezkero izango gaituk gu gizon
2. Belen-eko portalean omen zeagok Jaungoikoa
   Ura ekusten an omen dek Paskoal gure aldekoa
3. Goazen gu ere Petiri, Paskoal ez dek agiri:
   Ardiaz kontu dadukala esan zeagok Gatxi-ri
4. Tenpora egon arren otz, banatxeak ni gogoz
   Alako Jauna ekustekoz zer erur ta zer tzotz.
5. Portalepean omen zeagok aurtxoa narro gorrian
   Dama eder bat dadukala aldean bere aldian.
6. Gizon bat ere omen dek dirudiana santua
   Bere izenez deritzena San Josef justua.
7. Agur gazte onen oea guztiz dek omen pobrea,
   Lastoz debana komea, otez oa betea.
8. Astoak on dik oloa, idiak arto lastoa
   Festa onetan edan dezagun, Petiri, ekar ardoa.

Gernikako Gabon kantak

Nahiz eta Gabonetako kanta izan Marijesiak, aspaldidanik zetozen herri kantak ziren horiek, eta hemen interesatzen zaiguna da, egilea dutenetan, nolako euskara erabiltzen zen idazle jakitunen artean XVIII. mendean. Eta Gernika inguruan gaudenez, hango idazle baten euskara azaldu behar dut

zuen aurrean. Sebastian Antonio de la Gandara apaizari buruz ari naiz, nori zuzendu nion txosten bat 1984ko *Euskaran.* Hiru lekuko ditugu gainera honen idazkiez.

1757 – *Gabon Canta de* 1757. 1976.eko *Euskera* agerkarian eman nuen honen berri, eta olerkiaren testua, jakina.

1762 – *Gabon Canta Guernicacoa. Hurte* 1762. Joseba Andoni Lakarrak aurkitu zuen Real Academia de la Historiako Artxiboan, eta *Idatz & Mintz* aldizkarian eman zigun testua

1764 – *Guernicaco Gabon Canta. Hurte* 1764. Jose Ignacio Telletxea Idigorasek aurkitu zuen, hau ere aipatutako Artxiboan, eta Manuel Lekuonaren eranskinekin Herri Adiskiden Boletinean (BRSBAP) argitaratu zuen 1966an.


Hemen duzue nik aurkitutako Gabon Kantaren originala, eta Euskaltzaindiaren Artxiborako ematen dut. Nireak 15 ahapaldi ditu. Laburtxoagoa da Lakarrak eman ziguna, eta 12 ahapaldi ditu Telletxea/Lekuonarenak.

Baladak. *Peru Gurea Londresen*

Joseba Andoni Lakarrak, Blanca Urgell eta Koldo Bigurirekin, argitara eman zuten 1983an, bi liburukitan banatutako lan oso interesgarria gure ahozko literaturari dagokiona: *Euskal Baladak. Antologia eta azterketa*. Ez dago zertan hemen adierazi beharrik, baina zentzu askotan erabiltzen den hitza da balada. Elezahar edo tradiziozko kontakizuna da gehienetan, musikaz lagundua sarritan, bertsoak lelo berdin batekin amaitzen direnak.

Europa guztian literaturak erabili duen generoa da: Alemanian (Goethe, Schiller), Ingalaterran (Byron), Frantzian (Musset, Victor Hugo), Italian (Leopardi), Espainian (Zorrilla, Gabriel y Galan) eta abar. Ez da beraz gure artean ahozko literaturan mota berria, eta ez urria ere, aipatu liburuan frogatzen denez. Baina gai honi aparteko tratamendua ematen badiot da, Lakarrari lagundu niolako berak Euskal Herri osoan bildutako *Pero gure*ari buruzko baladei pentagraman musika jartzen, doinu eta guzti bilduak bai-

tziren. Balada hauen hamabost aldaera argitaratu zituen *ASJUn* (1985) *Peru gurea Londresen* izenburupean. Aldaera guztiak doinu eta guzti hartuak daude. Hitz lauz ere biltzen dira halako ipuin eta kontakizunak, hemen Bizkaian (Gernikan behintzat) *Peru ta Marixe* deitzen diegunetan. Halakoak argitaratu zituen Azkuek *Euskalerriaren Yakintzaren* bigarren liburukian. Lakarrak ematen digun lehen ahapaldia hau da:



Jose Ignacio Larramendi Frantziskotarraren Gabon kantak

XVIII. mendeko zenbait bilantziko berri lana argitaratu zuen Lakarrak *ASJUn* 1982an. Gabon Kanta horien artean zegoen Martin de Xarabeitia (edo Jarabeitiak) 1755ean argitaratu zuena eta Karmelo Etxegarairen artxiboan Juan Ruiz de Larrinaga gernikar frantziskotarrak aurkitu zuena.

Gabon Kanta batzuk antzerki eran asmatu ziren, Barrutiarena (1759), Peñafloridaren *Gabon Sariak* (1762); beste batzuk bilantziko eran, esate baterako Gamarrarena (1761) eta Pedro Estorquirena (1794), biak Santia-

go basilikarako eginak, Gernikako Gandararen hirurak, eta Arantzazuko artxiboan dauden Miguel Oruñarenak (1769, 1772, 1783) eta Agustin Etxeberriarena (1779).

XIX. mendean sartzen gara *Gernikako Gabon Kanta. 1801* bilantzikoarekin, Adolfo Arejitak 1993an *Litterae Vasconicae* aldizkarian argitaratu zuenarekin. Mende honetan ditugu Pedro Estorquik, Santiagoko Kaper Maisua zenak eman ziguna (1814) hiztegiño batekin, non agertzen diren hainbat arkaismo, eta frantziskotarren komenturako egin zituenak Antonio Zabala fraideak (1803, 1814, 1820). Mende honetakoak dira Xabier Altzibarrek bere tesian argitaratzen dituenak: *Bizenta Mogelen Gabon Kantak eta 1828ko bertsoak (Bidebarrieta 2008)* hauek ere arkaismoz beteak, 1826koak zerrendatuta ematen dizkigularik. Mogelenak dira *vizcaitarrenzat* eginak. Baina Donostian ere bazegoen bilantziko egilea, Jose Bizente Etxegarai (+ 1855), 1814an hasi eta ia urtero 1853 arte *Euskal Erria* aldizkarian Gabon Kantak argitaratu zituena. Nik ere bilantzikoen historia honetan parte hartu nuen 1994an adibide batzuk aipatuz Xabier Kintanaren Sarrera Hitzaldiari erantzuna eman nionean.

Baina orain arte aipatutakoei gehitu behar zaie ezezagutuak diren Gabon Kanta piloa. Arantzazuko artxiboan daude eskuizkribuak eta Jon Baguesek zerrendatzen ditu bere *Catálogo del Antiguo Archivo Musical del Santuario de Aranzazu* (1979), non musikari askoren musikalanen artean aipatzen dituen Jose Ignacio Larramendi frantziskotarraren Gabon Kantak. Azkoitian jaioa zen (1786) eta Tolosan eta Donostian organista izan ondoren, 1825ean Arrasateko komentura bidalia izan zen kargu berean jarduteko. Haren izenarekin *(por Larramendi)* agertzen den Gabon Kanta bakarra urte honetakoa da: *Ceruco aingueruac arzayai.* Baina anonimo moduan agertu arren, kantaren egitura berdinaz daude beste batzuk artxiboan. Juan Ruiz de Larrinaga kronistak idatzita zeukan *(Aranzazu,* 1932) hamabi bilantziko utzi zituela Arrasateko artxiboan Larramendik. Aipatu duguna agertzen da inprimatua *(Aranzazu,* 1932) eta *Egan*-en (1956). Jose Luis Ansorenak argitaratutako lanean, *El euskera en la Polifonia Religiosa y Profana* (Iker, I), beste bi Gabon Kanta ematen dizkigu J.I. Larramendiren musikalanak direlakoan: *Nescac eta mutillac* eta *Nor zerate mutillac.*

Baina nire ustez, kantaren egitura ikusi eta erabilitako euskara kontuan izanik, esango nuke beste 10 edo 12 J.I. Larramendirenak direla. Euskaraz idatziak daude bilantziko guztiak, bat izan ezik. Luis Basabek (hau ere gernikar frantziskotarra) zera diosku:

> Zerbaitek atentzioa eman dit Larramendiren Gabon Kanten artean: bat elebiduna dela.

Basaberen esanak zera frogatzen du Larramendirenak zirela artxiboan zeuden eta dauden bilantzikoak. Elebidun honen lehen lerroak dira:

> oh luz antorcha hermosa, *gaurco gabecoa*
> que al mundo has venido, *ceruetacoa ....*
> de una madre doncella, *mancharic gabea*
> dios en carne humana, *guztien jabea .....*

Aita Larramendi Arrasaten hil zen 1855ean, eta handik eraman zituzten Arantzazura musika paper guztiak. Gaur eta hemen ez daukat astirik ez lekurik Larramendiren Gabon Kanta guztiak emateko, eta espero dut noizbait ikerketa hau egitea. Baina bai aipatu behar dut Antonio Zavala euskaltzainak atera berria duen (2008) *Gabon eskeko bertsoak.*

Jadanik nekatuak izango zarete. Joseba Andoni Lakarrak merezi duen guztia ez badut eman ere, zor dizuet zuei, entzu1eei, atsedena. Beraz, amaitzera noa Lakarrari besarkada bat emanez.

Bibliografia

1981 - ASJU - Betolazaren Hiztegia.

1982 - ASJU - Barrutiaz gehiago. Hiztegia.

1982 - ASJU - XVIII.Mendeko zenbait bilantziko berri.

1982 - IDATZ & MlNTZ - Gabon Kanta Gernikakoa. 1762.

1983 - Gabonetako Ikuskizuna. P.I. Barrutia. (Itzu1pena, oharrak, edizioa).

1983 - ASJU - Oharrak zenbait arkaismoz.

1983 - *Euskal baladak*. Blanca Urgell eta Koldo Bigurirekin *Antologia*. *Azterketa*. 2 liburuki.

1984 - ASJU - Bizkaiera zaharreko ablatiboaz.

1984 - ASJU - Bertso bizkaitarrak. 1688.

1985 - ASJU - Larramendiren Hiztegigintzaren inguruan.

1985 - ASJU - Berriz Larramendiren zegiziozko zenbaitez.

1985 - ASJU - Peru Gurea Londresen.

1986 - ASJU - Bizkaiera zaharra euskalkieb artean.

1987 - EGAN - Mitxelena eta Euskal Filologia.

1987 - ASJU - Leclusen Euskal Gramatika.

1987 - ASJU - Oikiako Dotrina. 1759.

1987 - ASJU - Burgosko 1747 Dotrina. TI. Faksimila eta hiztegia.

1988 - *Koldo Mitxelenaren idazlan guztiak*. Hizkuntzalaritza.

1988 - 2000 - Euskal Klasikoak (Patxi Altuna, Ibon Sarasola eta Blanca Urgell-ekin).

1990 - *Manuel Larramendiren euskal testuak* (Patxi Altunarekin).

1991 - *Euskalaritzaren historiaz*.

1991 - *Memoriae L. Mitxelena*.

1992 - M. Larramendi. III. Mendeurrena.

1992 - Syntactic theory and basque sintax.

1993 - TESIA: XVIII. Mendeko Hiztegigintzaren etorkiaz. (1996 Doktorego sari berezia).

1994 - Euskal Dialektologiaren Kongresoa.

1995 - Martin Harrieten Hiztegiak. 1741.

1995 - Towards a history of basque language (Hualde eta Trask-ekin).

1996 - *Refranes y Sentencias 1596*. (Ikerketak eta edizioa).

2002 - Erramun Boneta (Artiagagoitia eta O. Goenagarekin). De Rijki omenaldia.

2006 - Larry Trasken oroitzapenetan (Hualderekin).

2008 - Patxi Goenagari omenaldia (Artiagagoitarekin).

Arratzu

ALBERDI ARETXEDERRETA, Dorleta
Euskaltzain urgazlea
Bizkaia Irratiko kazetaria

Arratzu. Hariztia eta kiwiak. Burdin Aroko Gastiburuko Santutegia, eta XII. Mendeko San Tomas eliza. Donejakue Bidea eta BTT pistak.

Artzubitik Montolanera. Handik, gaurkolako egun argiz, begibistaz, Mundaka ere ikusten da.

Golako ibaia eta Arrola mendiaren tarteko ibar hau ortuariak hazteko ez ezik, adimena ernetako ere toki emankorra dugu antza.

Nekazariak, artzainak, errementariak, musikariak, petrikiloak, kontalariak, bendajerak, politikariak, amak, aitak, seme-alabak … Arratzun horiek guztiak eta gehiago daude. Euskal Herriko beste edozein herritan ere, pentsatuko duzue. Baina, hemen, Bitoriano Gandiaga, Manu Leginetxe eta Joseba Lakarra dauzkagu. Hara, Adolfo Arejita bera ere bertora etorri zaigu! Eta beste bat, Juan Bautista Bilbao. Ezagutzen al duzue? Batxi legez izenpetzen zituen bere idazlanak. 1887an jaio zen Arratzuko Elexalde auzoan. Hamaika urte ingururekin joan zen itsasora. Hasieran txo modura baina, geroago, hornikari edo maiordomo. Egunero, goizeko seiretan jagiten zen idazteko eta *Euzkadi* eta *Napartarra* egunkari abertzaleetara bidaltzen zituen bere bidaia kronikak. Kirikiñok irakurri eta egokitzen zituen bere testuak eta «Batxi honek hautsak daukoz» zihoen behin baino gehiagotan.

Hogeitazortzi uterekin hil zen. Mendatako, Albizko, alarguna eta hiru alaba utzi zituen. Mina aleman bat jo zuen bera zihoan itsasontziak eta mariñel bakarra salbatu zen orduko kronikek diotenez. Batxiren «Hau mun-

Euskera. 2009, 54, 1. 113-115. Bilbo
ISSN 0210-1564

du arrano hau» Iñigo Aranbarrik eta Koldo Izagirrek egokitu zuten eta Arratzuko Udaletxean aurkeztu zuten. Orduan, Bitoriano Gandiaga bera ere eduki genuen berton, beste batzuren artean.

Joseba, arratzuar honek gazi-gozoak idazten dauz itsasotik. Aukeratu dodan pasarte hau, ez dakit ba, uste dot gatz puntuan dagoela: Savonatik idazten dau 1914ko otsailaren 12an:

> Kirikiñok ostera be esango deust andaluztu nazela, baina ez deust ardura, eta esan behar dot zer jazo jakon antzina, haize-ontziak ibilten ziranean, gure herriko mutil bati.
>
> Heldu zan hona, eta gose zan, eta ikusi ebazan ostatu edo jatetxe baten hainbat gizon zeozer irunsten, zinta batlakoa zan gauza bat. Eta zer zan? Makarroiak neurrira saltzen ebazan etxe bat.
>
> Hara: heltzen zan bat eta eskatuten ebazan honenbeste metro makarroi. Sartzen eutsien arilean legez batuta eukien makarroiaren puntua ahora, eta iruntsiz-iruntsiz joian jaubea neurtzen. Eta berak gura ebazan metroak irunsten ebazanean, zazt! Ugazabak ebagiten eban eskuan eukan makarroi hori, beste mahaikide bati ostera be sartzeko.
>
> Eta hau ikusi ebanean, sartu zan gure herritar hori, eta ugazabak itaundu eutsan zenbat metro gura eban.
>
> – Hogei – erantzun eutsan beronek.
>
> Hasi zan irunsten, eta hogeira heldu zanean ugazabak esan eutsan:
>
> – Oraintxe daukazuz hogei egin-eginak barruan.
> – Ebagizu ba- inotsan beronek, barruan eukanez, gero ordaindu barik ihesi egiteko ustez.
> – Ekatzu ba dirua- inotsan ugazabak
> – Zenbat da ba?
> – Laurleko bi.
> – Nik ez daukat hiru txakur baino – esan eban gureak.
>
> Eta beste batzuk be irunsteko begira egozan eta larri, dirua eskuetan ebela, eta orduan, zer uste dozu, Kirikiño, egin ebala jatetxeko ugazabak?

> Ziri-zara atzera atara euskotar gizajoari urdailetik janda euki ebazan hogei metroak, eta gero berehala sartu atzera beste batzuei ahotik, bati bi, besteari bost… eta halan.

Holako pasarte umoretsuak baina dramatikoago beste batzuk ere badakartza orrietan barrena Batxik. Itsasoko hondotik azaleratu egin nahi izan dut halako egun garrantzitsuan. Zorionak Joseba eta segi euskararen alde lanean!

Euskaltzaindiaren 90. urteurrena: Araba

Gasteiz, Arabako Batzar Nagusien egoitza, 2009-IV-24

Euskera. 2009, 54, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564

Ongietorria

ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA, Juan Antonio
Batzar Nagusietako burua

Diputatu Nagusi jauna,
Euskaltzainburu jauna, Andrés Urrutia laguna,
Diputatu eta Euskaltzain jaun-andreok.

Arabako Biltzar Nagusientzat ohore handia da, berriro ere, lansaio bat egiteko Euskaltazaindia gure bilkura-aretora etorri nahi izatea.

Erakundearen larogeita hamar urteko lan-jardunak, eta jardun horren aitorpen ofizialak, lankidetza hori justifikatezen dute.

* * *

Las Juntas Generales de Álava han recurrido con habitualidad a Euskaltzaindia para tratar los grandes temas relativos a la lengua vasca. Así, por ejemplo, en 1995, una representación de la Academia participó en la «Ponencia para analizar el grado de implantación del euskera en el Territorio Histórico de Álava», compareciendo los académicos Endrike Knörr, querido y llorado amigo, José Luis Lizundia y Manuel Mª Urrestarazu.

También las Juntas Generales han recurrido a Euskaltzaindia para diversas consultas como consecuencia lógica del reconocimiento que el Estatuto de Autonomía del País Vasco, en su artículo 6.4 hace de la Academia como «institución consultiva oficial en lo referente al euskera» (aunque mantengamos un debate sobre «batzar» o «biltzar»).

Euskera. 2009, 54, 1. 119-121. Bilbo
ISSN 0210-1564

Además, nuestra Cámara Foral ha ratificado mediante Normas Forales, los convenios que regulaban las relaciones entre las Administaciones vascas y Euskaltzaindia en 1984, 1995, 1999 y 2005.

En el ámbito de funcionamiento interno de las Juntas Generales, se han establecido en las relaciones de puestos de trabajo los perfiles lingüísticos de cada uno de los puestos de trabajo de la Cámara, así como las correspondientes preceptividades en cumplimiento de la normativa autonómica vigente y de la Norma Foral reguladora en nuestro Territorio Histórico.

En cualquier caso, se han cumplido los requisitos establecidos en materia de normalización lingüística y, previsiblemente, en el periodo comprendido entre 2008 y 2012 (IV periodo de planificación) se superen los niveles actualmente establecidos.

En cuanto a la actividad habitual de la Cámara y al uso del euskera en la comunicación, se puede señalar que, de forma progresiva, se han ido implantando sistemas, de traducción simultánea en todas las sesiones de Plenos, Comisiones, Juntas de Portavoces y Ponencias y cualesquiera actos organizados oficialmente por las Juntas Generales de Álava. Todo ello permite la utilización de las lenguas oficiales por cualquier Procurador o compareciente.

Pero, sobre todo, las Juntas Generales son una Cámara política y, como tal, recoge las opiniones, los criterios y las sensibilidades políticas de la sociedad que está en ellas representada: *la sociedad alavesa*. Y, como debe de ser, también sobre la política lingüística.

No podemos ignorar que, hace sólo cuatro días, este Salón era testigo de un debate sobre la conveniencia, o no, de establecer determinadas cláusulas lingüísticas para optar a contrataciones públicas.

Como Presidente de la Cámara puedo afirmar que todos los grupos manifestaron su apoyo a la lengua vasca y a las políticas que contribuyan a su expansión, pero sin que las medidas que se implanten puedan considerarse impositivas.

En este punto, creo que es válida la filosofía que el lehendakari Ibarretxe establecía recientemente, en el Congreso de Lenguas Minoritarias, abogan-

do por políticas lingüísticas de consenso *«que coincidan con la voluntad de la sociedad, condición imprescindible* ***para que tengan éxito*** *y puedan ser consideradas democráticas»* decía el lehendakari.

Estimo que estos criterios deben ser guía de la actuación de las Administraciones públicas y de todos los órganos institucionales.

El caminante sabe que, pocas veces, el camino más corto entre dos puntos es la línea recta.

* * *

Baina oraingoan, lan-bilkura baterako, etorri zarete gurera. Beraz, hurrengo hizlariari emango diot hitza, lanari ekin ahal izateko.

Besterik gabe.

Ekin lan onari.

Agurra

URRUTIA BADIOLA, Andres
Euskaltzainburua

Arabako foru-diputatu nagusia eta kultura arloko foru-diputatua
Arabako Batzar Nagusien burua eta batzarkideak
Euskaltzainkideak
Jaun-andreak
Egun on guztioi.

Euskaltzaindiak laurogeita hamar urte bete ditu aurten. Hartara, laurogeita hamar urte bete dira Arabako Foru Aldundiak, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako herrialdeetako foru-aldundiekin batera, Euskararen Akademia sortzeko ekimenari bultzada eman zionetik, euskararekiko kezka oso-osorik bereganatuz.

Laurogeita hamar urte geroago, euskararen egoerak Araban, nire ustez, hoberantz egin du. Aldi latzak bezain korapilatsuak igaro dira Euskal Herrian eta Araban, beti-beti errazak izan ez direnak euskararentzat eta euskal kulturarentzat. Hala ere, aurrera egin du euskarak Araban, horretarako bilduz ezin konta ahaleko euskaltzale eta erakundeen eginahalak eta lanak.

Horien artean, eta ez txikiena, Euskaltzaindiarena. Behinola Eusko Ikaskuntza zenaren magaletik sortua, Oñatiko Euskal Kongresu gogoangarritik abiatuta, Euskaltzaindiak iraun du, urtez urte, Arabako euskalgintzari eutsiz eta sostengua emanez.

Iraun esan dut, eta ekin esan nahiko nuke, Euskaltzaindiak ekinean jokatu baitu euskararen alde Arabako lurraldean.

Euskera. 2009, 54, 1. 123-124. Bilbo
ISSN 0210-1564

Ekite horretan, beste askorekin batera, partaide ez ezik, protagonista ere izan da Euskararen Akademia. Odon de Apraiz, Henrike Knörr.... badira gure artean ahantzi ezineko izanak eta gogorazioak, egun euskarak bizi duen egoera ahalbidetu dutenak.

Ekiteaz batera, jarraitu ere egiten du Euskaltzaindiak eguneroko lanean. Jarraitze horretan, alabaina, guztion laguntza behar du izan, agintariengandik hasi eta gizartearen kide guztiengana iritsiz, horixe baita euskara eta euskal kultura, bizigarri ez eze, gozagarri ere egiten dituena.

Horra, bada, gure urtebetetze eguna, Araban ospatzen duguna, erakunde arabarra garelako eta Euskal Herri osoa hartzen duen erakundea ere bagarelako, euskararen inguruan.

Euskara bera izan zuten helburu duela laurogeita hamar urte Euskaltzaindia sortu zutenek. Guk ere xede berbera dugu, egungo errealitateak behar duenari muzinik egin gabe. Euskara beharko dugu izan, pentsamolde desberdinen gainetik, arabarren eta guztion hizkuntza estimatu eta erabilia, nork bere burua, baztertuta baino, gizartean barruratuta eta errotuta ikus dezan.

Laurogeita hamar urte, laurogeita hamar zorion; eta, jakina, etorkizunerako bidea ere izan dezala Euskaltzaindiak. Hala esango eta azalduko digute nire ondorengo hizlariek, euskaltzain arabarrek. Bide beretik ere, Euskaltzaindiak Vitoria-Gasteizko Udalarekin batera ondutako egitasmoaren lehen emaitzak eskura izango ditugu ekitaldi honetan, hain zuzen ere, Arabako hiriburuaren Toponimia Ikerketaren lehen azalpena, bi liburukitan emana.

Eskerrak eman behar lan hori atondu dutenei; eskerrak, orobat, Euskaltzaindiaren ibilbidea urtez luzeetan ahalbidetu duten agintari nahiz gizarte arabarrari; eskerrak zuei, egun honetan Euskaltzaindiari laguntzera etorri zareten guztioi, eta gerorako gonbita: lan egin dezagun guztiok elkarrekin, euskararen eta euskal kulturaren alde, Araban, Euskal Herrian eta mundu osoan.

Hala egin zuten orain dela laurogeita hamar urte arabar haiek; hala egitea dagokigu guri ere XXI. mende hasiera honetan.

Celebración del 90 aniversario de Euskaltzaindia

AGIRRE, Xabier
Arabako Ahaldun Nagusia

Eguerdi on guztioi, eta eskerrik asko gaur «gure» etxean zuen urteurrena ospatzeagatik. Ohore handia da guretzat, Euskaltzaindia arabarron etxean hartzea.

* * *

Estamos celebrando el 90 aniversario del nacimiento de Euskaltzaindia, la Academia de la Lengua Vasca. Vaya, por tanto y en primer lugar, mi felicitación más sentida en este cumpleaños.

Euskaltzaindia es una Institución que se ha demostrado como absolutamente necesaria para la regulación y unificación científica de nuestra lengua.

Nuestros preclaros antecesores en esta Diputación así lo vieron, hace ya casi un siglo, y apostaron decididamente por la creación de esta Entidad Académica.

90 años velando por el euskera, fomentando y desarrollando su investigación, tuteándolo socialmente y estableciendo normas y recomendaciones para su uso. Un cometido fundamental para toda lengua viva y con deseos, además, de evolucionar cada día.

Poco más puedo añadir a las exposiciones que me han precedido, pero sí quiero reconocer vuestro esfuerzo en favor de la normalización del uso del euskera, vuestra defensa de los derechos lingüísticos de esta tierra y vuestro compromiso, a veces cuestionado, con la modernización de nuestra lengua.

Euskera. 2009, 54, 1. 125-126. Bilbo
ISSN 0210-1564

Acabamos de escuchar, entre otras reflexiones, el papel que varios alaveses han tenido en estas labores de impulso a lo largo del tiempo. También mi agradecimiento para todos ellos

Y acabamos de conocer, así mismo, la nueva publicación de un proyecto sobre la toponimia gasteiztarra, ideado, hace casi una década, por quien fuera miembro de número de Euskaltzaindia y una de las personalidades más reconocidas y queridas, en Araba, en la investigación sobre el euskera, que nos dejaba hace un año: Henrike Knorr.

Hoy quiero, una vez más, reconocer su labor y su interés por escudriñar en nuestra historia, y sobre todo en nuestra lengua, desde una doble vertiente, la científica y la cultural.

Comparto y valoro su inquietud, y la vuestra, por mantener viva y por impulsar esa nuestra identidad cultural, de la que el euskera es columna vertebral, porque estoy convencido de que una mayor riqueza cultural, además de generar espíritus críticos, abre camino a una mayor libertad en la elección de un modo de vida colectivo e individual.

Concluyo ya reivindicando el papel que desde las Instituciones realizamos para la revitalización del euskera, a través de políticas activas e integradoras, y desde la discriminación positiva y no desde la implantación, hacia una de las lenguas más antiguas de Europa. Agradezco, también, la creciente implicación que la sociedad alavesa está teniendo en su recuperación.

* * *

Baina, bukatu baino lehen, gizalegez jokatzeko, eskerrona agertu behar diet, hainbat eta hainbat pertsonari:

– urtez urte, euskara ikasi duten arabarrei

– gaur egun euskara ikasten ari direnei

– ikasi ez, baina bai ikasketa prozesu mardul horretan lagundu duten guztiei

– eta, nola ez, euskara, Araban, eguneroko tresna bihurtzen duten hiztunei, horrexek ematen baitio benetako zentzua hizkuntzari.

Hauei guztiei, lagunok, eskerrik asko!

Arabako idazleak

URIBARREN LETURIAGA, Patxi
Euskaltzain osoa

Jaun-andreok: agur t'erdi.

Euskaltzaindiaren sorreraren 90. urteurrena dela eta, Euskaltzaindia Euskal Herri osoan zehar egiten ari den ospakizunen harian, gaur Arabako Aldundi honetan batu gara. Beste hainbeste egin zuen orain dela 15 urte 75. urteurrena ospatzerakoan.

Orduko ekitaldian, Arabako euskal idazle batzuei eskaini zien omenaldia. Urte hartan, apirilaren 22an, Aldundi honetan egindako ekitaldia aipatzerakoan, honako hau irakurtzen dugu *Euskera* agerkarian: Erraimun Olabide, Odon Apraiz, Federiko Belaustegigoitia eta Luis Gonzalez de Etxabarri jaunei omenaldia Euskaltzainaren 75. urtemugan. Patxi Altuna jauna eta Manu Ruiz Urrestarazu jauna mintzatu ziren luze, aipaturiko biren (Erraimun Olabide eta Luis Gonzalez de Etxabarri jaunen) bizitzako hainbat zertzelada eskainiz.

Oraingo honetan, niri egokitu zait Arabako euskaltzain osoa naizen adinean, gogoeta-hitzaldi hau egitea. Hori horrela, euskarak Araban izan duen ageriko bilakaera historikoari buruzko hausnarketa laburra eskaini nahi dizuet

Nik euskara idatziaren eremuan nabarmendu direnak aipatuko ditut, beste zenbait, batez ere toponimia alorrean jardun izan dutenak, Manu Ruiz Urrestarazu jaunak aipatuko dizkizuelarik.

Badira, hala ere, beste hainbat lan isilago, baina ez txikiago, egin dutenak, hots, euskara irakasten nahiz sustatzen jardun izan dutenak. Horiei ere

Euskera. 2009, 54, 1. 127-140. Bilbo
ISSN 0210-1564

esker ona agertu nahi nieke, guztiok osotzen dugulako euskararen iraupen-historiaren kate luzea.

Eta nire lanari «**Izan zirelako gara, eta garelako izango dira**» jarri diot izenburua. Hain zuzen ere, lanaren nondik norakoak bideratu nahian ari nintzela bat-batean burura etorri zitzaidan leloa.

Beste zerbait ere gogora ekarri nahi nuke, arloa aztertzen hasi aurretik, hots, **gizakiok une eta toki zehatz batzuetan bizi izaten garela**, eta, horrek sakonean baldintzatzen duela gure ibilbide historikoa. Tokiak eta uneak izugarrizko eragina izan ohi dute bizitzan eta, zer esanik ez, izan du eta du euskararenean ere. Egin-eginean ere, euskara, une historiko batean lurralde zehatz batean bizi izan den gizakiaren komunikabide tresna garrantzitsuena dugulako.

Guztiok dakigu, euskararen ibilbide historikoa Euskal Herriko Herrialde desberdinetan mamitu izan dela historian zehar, hainbatean lurralde bakoitzak dituen berezitasunek baldintzatuta. Hori horrela, Arabako euskararen historia ere bertako geografiak eta bilakaera historikoak baldintzatuta ageri zaigu.

Toponimiak, gehiago edo gutxiago, euskara Arabako lurralde osoan zehar presente izan zela gogora ekartzen digu, bertako euskaran oinarritutako aztarnak toponimoetan agertzen zaizkigun neurrian.

Arabako herrien egituraketak ere, nire ustetan, eragin handia izan du euskararen bilakaeran. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan eta Nafarroako iparraldean ez bezala, mendialdeetan izan ezik, egitura administratiboa herri batuetan oinarritu izan da. Biztanle-gune zehatzetan, elkarren ondoan pilaturiko etxez osoturiko herrietan eratua izanik, ez zaigu etxe-sakabanaketarik ageri.

Horrek, zer esanik ez, nire ustetan, eragin handia izan du euskararen ibilbide historikoan, frogatuta baitago herri handietan askoz ere azkarrago gertatzen direla aldaketa sozio-ekonomikoak, eta immigrazio handiak gertatzen direnean hizkuntzen ordezkapenak ere bai.

Nire ustetan egituraketa horrek eta Lurralde ia osoa lautada zabala izateak, eta bertatik antzinatik bide nagusiak igarotzeak, hainbatean ekarri izan dute gaztelania hedatzea eta euskara ordezkatzea.

Eragin hori hainbatean areagotu egin zen XVII-XVIII-XIX-XX. mendeetan, immigrazioaren eraginaz gainera, gaztelaniazko irakaskuntza indarrez ezarria izan zen adinean. Irakaskuntza horrek, gaztelania hutsean izaterakoan, lehendik egoera larrian zegoen euskara heriotza bidean jarri zuen. Guzti hori gogora ekartzeak etorkizuna eraikitzeko jarraitu beharreko bideen nondik norakoak egokiago asmatzeko argia ekarriko digula uste dut.

Izan zirelako gara

Esan bezala, aurreko gogoeta labur hori egin ondoren, historian zehar Araban euskararen lekuko edota bidegile izan diren zenbait pertsona aipatu nahi ditut. Guzti horiek Arabako euskararen lekuko iraunkor bilakatu dira.

Hori horrela, nire asmo nagusia «***izan zirelako gara***» esaldiaren oihartzun ozena jasotzea da. Aipatuko ditudan idazle guztiak, jaiotzez, familiaz edo bizitzaz Arabako euskarari loturik agertzen zaizkigu.

Halako batzuk, Araba euskalduna izan zela argi eta garbi aditzera emateaz gainera, gure euskarako testu idatzi zaharrak oso urriak izatean, aukerak eskainiko dizkigute Arabako euskalkiaren berriak ezagutzeko.

Bi multzotan batu ditut. Lehenengo multzoan bildutakoak, batez ere, euskarak Araban antzina izandako presentziaren lekuko ditugu. Bigarren multzokoek (XX. mendekoek) zenbait arabarrek euskararen alor ezberdinetan egindako lan eskergaitza gogoratzen digute

XX. mendera arteko lekukoak

Lehen lekukoa: Joan Perez Lazarraga euskal idazlea (1548/1605) dugu. Larreako Dorreko jauna izan zen; oñatiar jatorriko familiako seme zen honen 2004an agertutako eskuizkribua garrantzi handiko idazki gertatu zaigu. Pizkunde garaiko lekuko aparta dugu. 1567 urte inguruan 105 (102 heldu zaizkigu) koplaz osoturiko paper sorta bat utzi zigun euskaraz idatzita, hain zuzen, Gipuzkoako Aldundiak eskuratu eta Patri Urkizuk *Dianea eta Koplak* izenburuarekin argitaratu zuena. Nabarmentzekoa da Lazarragaren idazki hau dugula *Euskal Herria* (*eusquel erria*) kontzeptua idatzita dakarren lehe-

na. Hiru aldiz agertzen da eskuizkribu osoan. Aurkikuntza oso garrantzitsua izan da, eta euskal hizkuntzalariak aztertzen ari dira. Bertan dugu XVI. mendeko Arabako euskarari buruzko informazioa. Arabako euskalkia eta mendebaleko euskararen historia argitzeko tresna ezin hobea dugula uste dut, inoiz dokumentatu gabeko adizki eta hitzak baitakartza.

Bigarren lekukoa: Juan Perez de Betolaza, itzultzailea (Betolatzan jaioa eta 1600. urtean hila). Kalagorriko eta Galtzadako apezpiku zen Pedro Manso Zuñiga jaunak aginduta *Doctrina cristiana en romance y basquence* itzuli zuen Ripaldaren 1591.eko princeps-etik. Liburu hori 1596an argitaratu zen Bizkaiko Jaurerrian Pedro Kole de Ibarraren inprimategian. Juan Perez de Betolaza hil ostean zenbait argitaraldi izan zituen. Koldo Mitxelenak, garrantzi handikotzat jo zuen liburu hau, bizkaieraz idatzia izateaz gainera, itzultzailea Arabakoa izanik, bertan euskalki horretako hainbat ezaugarri ageri direlako. Garai hartan, Betolatzan euskara mintzatzen zela agertzen digu. Zer esanik ez, liburuxka honek kristau-bidea irakasteko lehen liburua izan zenez, hainbateko eragina izan zuen geroago agertu ziren antzerako liburuetan.

Hirugarren lekukoa: Pedro Ignacio de Barrutia y Basagoitia (1682--1759). Aramaion jaio eta Arrasateko eskribaua izan zena. Ezaguna dugu, 1750. urte inguruan idatzi zuen *Acto para la Nochebuena* (*Gabonetako ikuskizuna*). *Euskalzale* aldizkarian argitaratu zen lehenengoz, J.M. Guerra historialariak aurkitu, eta geroago R.M. Azkueri igorri ostean. XX. mendean, Gabriel Aresti poeta ohartu zen lehen aldiz obraren balioez. Benetan obra bitxia dugu. Antzerki barrokoaren hurbilekotzat jo daitekeen arren, askatasun handiagoz jokatzen du garaiko arau estuei jarraitu gabe. Lekuko hau ere gogoratu nahi izan dut, Arabako Aramaiok gaur egun ere euskaldun jarraitzen duen arren.

Laugarren lekukoa: Juan Bautista Gamiz Ruiz de Oteo Sabandoko seme (1696-1767). Adinean nahiko nagusia zela hasi zen euskaraz idazten. 20 urte zituela anaia jesuita izateko bidea hartu ondoren, bere kontura egin zituen matematika, historia eta olerki alorreko ikasketak. Autodidakta izan zen. 1728an Iruñeko *La Asunción* ikastetxera ekarri zuten. Han ezagutu zituen Mendiburu eta Kardaberaz, honen lanak argitaratzeko ardura (1760) hartuz. Ezagutzen zituen Larramendiren lanak ere. Euskaraz idazten hasi

aurretik gaztelaniaz jardun izan zuen, 10.000 bertsotik gora idatzi zituela. 1748an hasi zen bere egunerokoan euskaraz idazten. Euskaraz bi olerki luze eta lau olerki labur idatzi zituen. Guztira 238 bertso. Jesuitak Espainiatik kanporatu zituztenean, 208 liburu zituen gelan. Aipaturiko liburuen artean Pedro Agramont-ek idatzitako 622 folioko *Historia de Navarra*. Atzerriratuta Italian hil zen 1767an. Idazle honek ere euskara erabiltzen zutela Sabandon garai haietan gogoratzen digu. Idazle honen lana Arabako euskara ezagutzeko bide gertatzen zaigu.

Bosgarren lekukoa: Jose Pablo de Ullibarri Galindez (1775/1847) idazle eta politikoa Okondoko semea dugu. Albaitari izan zen honek bizitzako jardun gehiena Bilbon egin zuen. Okondoko euskararen lekukoa dugu. Euskal literaturan jantzia izanik, ongi ezagutzen zituen, besteak beste, Axular, Lecluse, Larramendi, Kardaberaz, Astarloa, Añibarro, Mogel, Fray Bartolome eta Iztueta. Gogor jokatu zuen euskararen alde, Bizkaiko Batzarretan batzarkideei aktak euskaraz idazteko eta euskal eskolak sortzeko eskatuz. Bere lema nagusia **Euskaldunak euskaraz** izan zen. Irakaskuntza osoa euskaraz jartzeak euskararen etorkizunean izango zuen garrantziaz jabeturik, irakasgai edo asignatura guztiak eta maila guztietan euskaraz jartzea aldarrikatu zuen. Batzarretan aukeratutako 24 kidek osoturiko Euskal Hizkuntza akademia bat sortzea ere proposatu zuen. 1814tik 1835era bitartean *Gabon kantak* argitaratu zituen, 1816tik aurrera, letra erlijiosoez gainera abertzaletasuna bultzatzeko zortzikoak erantsiz. 1815ean *Egunari eusquerascoa erderazcotic itzuliya Vizcai, Guipuzcoa ta Arabaco Provinciarentzat 1815garren urteraco* argitaratu zuen. 1834an Bizkaiko diputatu karlistei euskara sustatzeko plan oso bat proposatu zien. Haren idazlanik garrantzitsuena 1975ean Arabako Foru Aldundiak Faksimilean argitaratutako *Gutunliburua* dugu. Bertan, hainbat testu jakingarriren ondoan, Euskaltzaindiak 2003an argitaratu zuen hiztegi interesgarria dakar.

XX. mendeko lekuko-eragileak

Aurreko lerroetan euskara galdua duten Arabako zenbait herri orain dela 400 edota 200 urte euskaldun zirela ageriko egiten duten lekukoak

gogoratu ditut. Orain, Araban XX. mendean zehar euskararen alde jardun izan dutenak aurkezten dizkizuet. Banan-banan, dagoeneko hilak ditugunak bakarrik aztertuko ditut, bide batez bizi direnak zerrenda bakarrean bilduz.

Raimundo Olabide Carrera, gasteiztarra **(1869-1942).** Txikitan erdalduna izanik, 27 urte zituela hasi zen euskara ikasten. Jesuita hau, hainbat urte irakasle lanetan kanpoan egin ondoren, 50 urte zituela etorri zen Euskal Herrira, haren lanik aipagarrienak honakoak ditugu: *Loyola-tar Eneko Deunaren Gogo-Iñardunak,* 1914an; *Giza-soina* 1916an (7.000 hitzeko hiztegia). 1919ko irailaren 21ean Euskaltzain oso aukeratua izan zen. 1919an *Kristoren imitazionea edo kempisa* (berak *Josu-Kristoren Antzbidea* deitua) argitaratu zuen. 1921ean, eskolak ematetik libre utzi zuten, eta Biblia itzultzen hasi zen. Horretarako ebraiera eta grekoa sakondu eta arameera ikasi zuen. Ingeles, aleman eta frantseseko testuak ere aurrean izan zituen. 1931. ean *Itun Berria* argitaratu zuen. Jesuitak etxetik kanporatuak izan zirenetik (1932) iheska ibili zen. Gernikako bonbardaketa egunean bertan izan zen, eta aparteko ahalegina egin omen zuen hiriak sua hartu zuenean etxean zituen paperak eta agiriak salbatzeko. Gero atzerrira joan eta Toulous-en bizi izan zen, bertan hil zela 1942an, ganorabako istripu baten ondorioz. Ordurako txukun prestatua zuen **Biblia osoaren itzulpena**. Itzulpen horren argitalpena, Formosatik horretarako ekarri zuten aita Patxi Etxebarriak burutu zuen 1958an.

Luis Gonzalez de Etxabarri: (1893-1971). Aita medikua izan eta Ubidean jaio zen arren, oso-osoan arabartzat jo dezakegu. Kazetaria izan genuen eta jarduera politikoaz gainera, hainbat idazlan idatzi zituen euskaraz batez ere HERMES kultur aldizkarian. Aldizkari horretan argitaratu zituen 5 olerki 1815ean, 7 olerki 1919an, bat 1920an eta beste 2 olerki 1921ean. Beste zenbait aldizkaritan (*Eusko Esnaleak, Egan*…) ere idatzi zuen. 1817an argitaratu zuen *ipuin aberkoiak* lehen liburua, eta 1818an *Urretxindorra* bigarrena. 1925ean Argentinara joan zen, bizitzan zehar kazetari lanetan jardun zuela. Bertan argitaratu zuen **Cantos de Euzkadi** (Arana Goiri-ri buruz emandako azken hitzaldia). 1956an idatz izuen *Vida Vasca*-n **Illezinak** azken olerkia. 1919an Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen «arabar bizkaiera hizketaren izenean» Odon-Apraizekin batera.

Federiko edo Perderika Belaustegigoitia (1876-1947), euskaltzale eta euskaltzain laguntzaile kartsua Laudion jaioa dugu**.** Hau ere, euskaldun berria dugu. Filosofia eta Zuzenbide karrerak egin ondoren gazte-gazterik hasi zen txikitan ezagutu zuen Sabin Aranaren *Baserritarra* astekarian lanean**.** Bilbo utzi eta Durangora joan behar izan zuen bizitzera. Hainbat lan idatzi zituen euskaraz nahiz euskararen alde: 1912an *«De unificación euskérica: una opinión y un proyecto»*. Urte berean *Euskerazko ikasbide erraza.* 1918an *Euskal Esnalean*: *umetxoentzat* (ipuin laburrak), 1918an, *Andoni Deunaren bizitza*. Berak idatzi zituen Euskaltzaindiaren xedeak edo Arau nagusiak. Gipuzkera batuaren eta kanpoko zientzia-hitzei lekua egitearen aldekoa zen. Bere kezkarik nagusienetarikoa irakaskuntza zen, hau da, euskarazko eskolak (1921). Gogor kritikatu zituen fraide, moja eta estatuko ikastetxeak «Euskal Erria iltzeko eta zikintzeko baizik ez dira etxe horiek» eta «Utikan gure lepoz bizi dan eskoletako erdalkeria» oihukatuz. *Esakun txorta* bat ere prestatu zuen. Euskara irakaskuntzan sartze horrek kezkaturik euskara irakastea errazteko honako hauek prestatu zituen: *Para aprender el euskara cantando* (1932), *Loteria Vasca* (1936), *Nire laguntxoa* eta *Euskeraz ikasi nai dut*. 1936an bere erdarazko libururik ederrena, hots, *Hacia una lucha de verdad pro-euskara* idatzi zuen.

Gabirel Jauregi Uribarren, aramaioarra (1895-1945) Aramaioko Etxaguen auzoan jaio zen 1895ean. Ikasketa zibilak eta erlijiosoak egin, eta zientzietan Oviedoko unibertsitatean titulatu ondoren irakasle lanetan jardun izan zuen 1924-1936 arteko urteetan zehar Gasteizko filosofia-etxean. Zientzia alorreko idazlan ugari argitaratu zituen 1931etik 1936ra bitartean *Karmengo Argia* aldizkarian. 1935ean argitaratu zuen *Fisia* (urte betean agortu zena) eta 1936an *Kimia*. Gerratea (1936-1937) Aramaion igaro zuen. Gasteizen adiskide zuen emakume baten senar militarrak salbatu zuen heriotzatik. Zornotzako Larrean hil zen 1945ean bihotzeko gaitzak jota. Pertsona eragilea ere izan bere anaia zen Jose Jauregi karmeldarrekin batera. Berak bultzatu zituen euskara-mundura, besteak beste, ikasle izan zituen Aita Santi Onaindia, Aita Lino Akesolo, Aita Emiliano Barandiaran, Aita Luki Agirre, Aita Antonio Goiria Muniosguren eta Aita Arteaga.

Odon Apraiz Buesa, euskal idazle eta hizkuntzalaria Gasteizen jaioa dugu (1896-1984). Historian doktoretza eskuratu zuen (1912-1917) Madri-

leko Unibertsitatean. Gasteizko familia oso ezagun bateko semea izan zen. Horrek ate asko zabalduko zizkion euskararen alde lan egiteko orduan. 11 urte zituela, aitaitaren etxera Bermeora eginiko bidaian euskararen balioaz jabetu ostean bere kontura ikasten hasi zen, 1912an Salamancan ikaskide euskaldunekin praktikatuz. Udan Aramaioko baserri batera joateko baimena lortu zuen etxean. Euskara ikasteaz batera irakasten ere hasi zen. 1917an euskara eskolak jarri zituen Gasteizen. *Eusko Ikaskuntza* sortzea bultzatu zuen, eta sorrera ekitaldian ageri da Arantzazun 1917an. Campionekin batera Euskal Patronimia eta Toponimia batzordean egin zuen lan. 1919an, Euskaltzaindia sortu zenean, lehenengotariko euskaltzain urgazle izendatu zuten. 1920an sortu berri zen toponimia batzordean ageri da. Hainbat aldizkaritan parte hartu zuen: *Bizkaitarra, Arabarra, Euzkadi, Euzko Lurra, Euskal Herriaren Alde, Jesusen Biotzaren Deia, Gure Herria, Revista Internacional de Estudios Vascos, Yakintza* eta abarretan. Izengoiti ugari erabili zituen: *Olarizu, P.de Arizondo, Ziarpa, Argintza, Olari eta Apraiz'tar Oto*. 1920an beka bat eman zion Euskaltzaindiak eta goi mailako linguistika ikasketak egiten jardun izan zuen Parisen eta Zurichen, bide batez datu-bilketa praktikak eginez. Berehala hasi zen euskarako lanetan. 1921-1925 urteen artean *Irizkindi Irukoitza* prestatzen parte hartu zuen Lacombe-kin iparraldeko 17 herritan inkestak eginez. Beste hainbeste egin zuen Deba inguruan 12 herritan. 1932an *Eusko Lurrak* Odon Apraizek itzulitako internazionalaren bertsioa argitaratu zuen. Gerraren ondorioz 1950era arte Euskal Herritik kanpo desterratuta bizi izan zen. Urte horretatik aurrera, Gasteizen irakasle. Ehun idazlan labur baino gehiago ditu aldizkarietan sakabanatuta. Itzulpen lanetan ere aritu zen Rafael Alberti-ren *Un fantasma recorre Europa* euskaratuz. Oso kontuan hartzekoa da batez ere *El vascuence en Vitoria y Alava en la última centuria (1850-1950)* liburua. Euskararen alde egindako lan ugari hori aitortuz, Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen 1968an. Euskal Herriko Adiskideek ohorezko bazkide 1974an eta Eusko Ikaskuntzak *Lekuona Saria* eman zion 1983an. Arabako Aldundiak omenaldi modura 42 ikertzailek eskaini zioten liburua argitaratu zuen 1982an. Henrike Knörr euskaltzainarekin batera XX. mendeko Arabako euskararen lekuko eta eragile nagusiena dugu.

Andoni Karmelo Urrestarazu Landazabal, «Umandi» izengoitiaz ezaguna (1902-1993). Araian jaiotako idazle hau 17 urte zituela hasi zen euskara

ikasten Gasteizen, eta gerra aurretik euskarako eskolak ematen jardun. Oso egoera larriak jasan zituen gerratean. Parisen atzerriratuta bizi izan zenean ere, euskara irakasten jarraitu zuen. *Euzko-Deya, Euzko Gogoa, Goiz Argi* eta beste hainbat aldizkaritan argitaratu zituen bere lanak. Atzerrian 26 urte egin ondoren itzuli zen 1970an arrebaren etxera. Hauek dira bere obra nagusienak: arrakasta handia izan zuen *Gramatika Vasca* 1955ean (hiru argitaraldi izan zituen). *Bizkaierazko aditz-erak,* 1955ean. *Euzkal-eliztiaren betebidea* 1977an, *Euzkal-elizti laburra* 1986an, eta *Euzkal-eliztia* 1989an. Saiakeren artean, *Euskal betekizunak* 1977an eta *Euzkadi'ren ebazkizuna burubidezko oñarriak* 1985ean. *Gentza Bearrean* nobela, ostera, 1985ean. Ez zuen onartu Euskaltzaindiak euskara batua bideratzeko hartutako bidea, Azkueren gipuzkera osotua hartuz eredutzat. 1992an Euskerazaintza herriakademiak Euskera Zain Oso izendatu zuen. Eta uko egin zion Euskaltzaindiak Ohorezko Euskaltzain izendatzeko eginiko eskaintzari. Azken urteak, 1982an hasita, beraren lanik nagusiena *ASMO IZTEGIA* egiten igaro zituen. Lan erraldoi hori, egilea hil da gero argitaratu zuen bi liburukitan UZEIk. Hamar urte luze egin zituen 3.226 orrialdetan biltzen diren 385.000 fitxak prestatzen. 1984an, Koldo Mitxelena jaunarekin batera Gasteiz hiriko Urrezko Domina jaso zuen.

Antonio Berroeta Alzola (1917-1991). 1917an Orbison jaiotako euskaltzain urgazle hau, hemen aipatu nahi izan dut, bide batez. Hain zuzen ere, Andoni Urrestarazurekin euskara ikasi, eta Gasteizen euskara irakasten eta bultzatzen gogotsu jardun izan zuelako. Haren ikasleak izan ziren, besteak beste, Antonio Agirrezabal, Todor Agirre eta Pelli Martin. Urrestarazuren gramatika zabaltzen parte hartu zuen 1955ean.

Pedro Pujana Agirregabiria, aramaioarra (1915-2001). Aramaioko *Oleta* auzoan jaio zen 1915ean. Apaiz egin ondoren jesuita izateko bidea hartu zuenean Oñako teologia-etxean hasi zen euskarako irakasle-lanetan, Patxi Altuna Salamancara linguistika ikastera joaterakoan. Euskal aditzaz maitemindu zela esan dezakegu, alor hori aztertzen jardun izan baitzuen jo eta ke bizitza osoan zehar. Hainbat aldizkaritan idatzi zuen: *Euskadi* egunkarian (1937), *Zeruko Argian* (1958-1967) eta, baita, *Agur, Zer, Karmel, Kardaberaz, Euskarazaintza* eta *Euskara aldizkarietan ere*. Itzulpen alorrean bere lanik nagusiena *Bizkaiko Forua edo Foru Berria* (1981) dugu. Horrez gainera, beste honako

lanok idatzi zituen: *Euskal Aditza bizkaieraz / Flexiones del verbo vizcaíno* (1970); *Oletako euskal aditza, hikako jokabidea* (1977); *Oletako euskal aditza / El verbo vasco de Oleta, flexiones hika del valle de Leintz (Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate); Del Valle de Anguiozar / Bergara, de Zeanuri y de la zona de Vitoria* (1979). Euskaltzaindiak 1979. urtean izendatu zuen euskaltzain urgazle, eta 1995. urtean, euskaltzain ohorezko. Aramaioko Udalak 1999an seme kutun izendatu zuen. Bilboko Liburu Azokan **Urrezko Luma** eman zioten. Oletako seme honen lana ezinbestekoa dugu Arabako antzinako euskara ezagutzeko.

Henrike Knörr Borrás (1947-2008) Tarragonan jaio eta zazpi urtetik aurrera Gasteizen bizi izan zena. Filosofian lizentziatua, Euskal Filologian Doktorea eta Euskal Unibertsitateko katedraduna izan zen. Euskara ikasteaz gainera, Araban XX. mendeko bigarren aldian euskarak izan duen lekukorik eta eragilerik nagusiena dugu. Euskara ongi ezagutzeaz gainera, oso gaitua zen, besteak beste, onomastikan eta toponimian. 1977an Euskaltzain osoa izendatu zutenetik, buru-belarri jardun izan zuen euskararen alde lanean Euskaltzaindian nahiz bertatik kanpo. 1984an Onomastika Batzordea sortu zenetik 2001era arte batzorde horretako buru eta gidari izan zen. 1996an Euskaltzainburuorde izendatua izan zen. Gaur hemen bera izango genuen Arabako euskarari buruzko berri hauek ematen, gaixotasunak jo eta iaz hil ez balitz. Oso zaila da Henrikek burutu duen lanaren laburpena egitea. Hain handia eta anitza izan baitzen! Antzinako jakintsuak izan ohi zuten jakintza entziklopediko zabalaren jabe zela esanaz laburbilduko nuke. Bera izan dugu, esan dudan bezala, azken mende erdi honetan Arabako euskararen lekuko eta eragile nagusia. Sancho el Sabio Fundazioak argitaratutako Henrike Knörr-en bibliografian honako datuak irakur ditzakegu: a) Liburuen Katalogoan 61 liburu aipatzen dira; horietatik 23tan bera da egile bakarra edo nagusia; gainerakoetan lankidea. b) Liburuetako idazlanen katalogoan: 30 idazlan ageri dira. c) Aldizkarietako idazlanen katalogoan: 166 idazlan ditu bilduta Sancho el Sabio Fundazioak. Horietatik 79 Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkarian argitaratuak, horrela izugarrizko begirunea eta fideltasuna erakusten ziola Euskaltzaindiari. Nabarmentzekoa da, baita ere, bera tarteko zela sortutako *Landazuri* aldizkarian argitaratutako kopurua: 24 idazlan, eta horietatik 6 euskaraz. Gasteizeko *Boletín de Información Municipal* deritzanean ere argitaratu zituen 7 lan oso interesga-

rri, hala nola, honako hauek: *Elebitasunaren inguruan, Kale izenak ahotan, Euskara gurea, guztiona* eta *Unibertsitatea Gasteizen. Fontes Linguae Vasconum* bilduman 7 lan argitaratu zituen eta *Anuario del Seminario de Filologia Vasca «Julio de Urquijo»* deritzanean beste 7. Hainbat erakunde eta elkarteko kide izan zen, besteak beste Eusko Ikaskuntzakoa.

Ezagutu zenuten guztiok dakizuenez, jendearekin harremanetan jarduteko aparteko dohainak zituen, pertsona oso irekia zelako. Hori dela eta hartu zuen parte hainbeste jardunaldi, kongresu, nazioarteko bilera eta halakoetan. Hizkuntzen ezagupenak ere ateak irekitzen zizkion guzti horretarako. Benetan hutsune handia utzi du eta kostako da leku hori betetzea.

Gaur egungo zenbait ikertzaile, idazle eta eragile

Aurreko guzti horiez aparte, gaur egun hainbat euskal idazle, ikertzaile eta eragile ditugu Araban. Ezin, baina, guztien merezimenduak banan-banan txosten labur honetan azaldu. Ondorioz, beraien izen deiturak jasoko ditut, aitorpen publikoa merezi dutelakoan.

Egunetik egunera idazle berriak plazaratzen zaizkigunez, behar bada, norbait honako zerrenda honetatik kanpo geratuko zait. Hala balitz, esan iezadazue txosten hau argitaratzen denean aipa dezadan. Hor hemen izen bila ibili ondoren, hurrengo hauek aurkitu ditut. Kronologikoki bi multzotan batuko ditut: **1950. urtea baino lehenago jaiotakoak**: Manu Ruiz Urrestarazu donostiarra (1941), 1960ean arabar bihurtua; Patxi Uribarren Leturiaga aramaioarra (1942), Anuntxi Arana Murillo, Luiaondokoa (1947) eta Josemari Velez de Mendizabal aramaioarra (1949). **1950. urtea baino geroago jaiotakoak:** Patxi Iturregi laudioarra (1952); Xabier Montoia gasteiztarra (1955); Fito Rodriguez gasteiztarra (1955); Patxi Salaberri Muñoa aramaioarra (1956); Mikel Hernandez Abaitua gasteiztarra (1959); Rikardo Arregi Diaz de Heredia gasteiztarra (1960); Xabier Izaga Gonzalez gasteiztarra (1960); Julen Arriolabengoa aramaioarra (1960); Blanca Urgell gasteiztarra (1962); Agurtzane Ortiz de Landaluze Goikolea oletarra (1963); Arantza Ozaeta Elorza, Arrasaten jaiotako aramaioarra (1968); Karmele Jaio gasteiztarra (1970); Edu Zelaieta gasteiztarra (1973); Katixa Agirre

gasteiztarra (1981)eta Jose Luis Ormaetxea Lasaga «Txipi» (1954) Santa Agedan jaio, guraso aramaioarrak izan, eta Gasteizen bizi dena.

Garelako izango dira

Lanari sarrera egiterakoan aipatu dut **gizakiok une eta toki zehatz batzuetan bizi izaten garela**, eta, gure inguru geografiko eta sozio-politikoak hainbatean baldintzatzen duela guk erabili ohi dugun hizkuntzaren bizitza.

Gaur egun, gizarte moderno batean bizi gara, eta zeharo aldatu dira gizakion arteko harremanak. Populazioa ere, industriaren hedapenak, eta komunikabideen baldintzak horretara behartuta, hainbatean hiri handietan pilatuz joan da.

Komunikabide berriak ere (irratiak, telebistak, internet, eskuko telefonoak,…) hor ditugu muga guztien gainetik izugarrizko eragina egiten digutela. Herrien arteko harremanak direla tarteko, munduko hizkuntza indartsuen eragin izugarria jasaten ari gara.

Beraz, horiek guztiek euskararen etorkizunari buruzko gogoeta sakona egitera eta iraupena ziurtatzeko irtenbide egokiak jartzera eraman behar gaituzte. Hori horrela, hausnarketarako proposamen batzuk eskaini nahi dizkizuet jarraian.

Une honetan, nire ustetan, bost gune nagusi kontuan izan behar ditugu Araban euskara alorrean, beraren iraupena ahalbideratzeko:

1. **Gune euskalduna zaindu:** Gehiengo euskalduna duen Aramaion aparteko ahalegina egin beharra dugu, bertakoek euskarari eutsi diezaioten, immigrazioaren ondorioz bertaratzen direnei euskara ikasteko bideak eskainiz. Ezinbestekoa dugu gune euskaldunak mantentzea euskarak hizkuntza bizia izaten iraun dezan. Hortik sortzen da gune euskaldunak arreta handiz jagon beharra. Aramaion, bada, aparteko ahaleginak egin beharko dira, euskarak bertako biztanleen eguneroko euskara izaten jarrai dezan.
2. **Gasteiz hiriburuaren eragina kontuan hartuz jardun.** Berau dugu Arabako gizartearen motorra eta bere esku izango da hainbatean eus-

kararen etorkizuna ere. Une honetan gertatzen ari den azkenaldiko immigrazio masiboaren ondorioz hiria handi egiteaz gainera, hiriko erdaldunen kopurua ere handitu egin dela dakusagu. Hainbatean ugaritu da erdaldunen kopurua. Horrela, orain dela 40/45 urte bertaratutako enpresetako langile euskaldunek, eta geroago, 25/30 urte inguru dela etorritako Eusko Jaurlaritzako langile euskaldunek, eta unibertsitateko ikasle euskaldunek hainbatean ugaritu badute ere euskararen presentzia, une honetan handia dugu atzera egiteko arriskua. Beraz, aparteko plangintzak beharko ditugu, gizarteko maila guztietan.

3. **Era berean, plangintza bereziak egin beharko dira beste herri handietan ere.** Laudio, Amurrio, Agurain eta abarrek ere aparteko ahalegina eskatzen dute, horrelako industria-guneek eragin handia izango baitute Lurraldearen etorkizunean. Gune horietan ari da jokatzen hainbatean Arabako euskararen etorkizuna.

4. **Irakaskintza euskaldunari lagungarriak gehitu.** Zer esanik ez, mendeetan zehar euskara galdu duten zenbait herritan euskara berreskuratzeko biderik bakarrenetarikoa irakaskuntza dugu. Ikastolek eta euskara-mundura hurbiltzen ari diren eskola publikoek zeregin handia dute honetan. Hala ere, ez dira nahiko eskola hutsak. Euskararen irakaskuntza indartzeko egintza osagarriak bultzatu beharra ikusten dut, haurrek eskolatik kanpo ere euskara erabiltzeko guneak izan ditzaten. *Araba euskaraz, Korrika txikia*, *Olentzero*, *Udalekuak*, antzerkiak eta horrelako hainbat egintza bultzatu beharko dira, euskara eskolako horma barrutik kalera ateratzeko.

5. **Adinekoen euskalduntzea areagotu.** Adinekoak euskalduntzeko herrietan egiten ari diren ahaleginak ere txalotzekoak dira. Oso nekez euskaldundu daitezke umeak inguruan euskaldunik ez badute. Kanpotik datozenei ere aukerak eskaini beharko zaizkie euskara ikasiz bertako egin daitezen. Gaur, hemen, jendaurrean txalotu nahi ditut AEK, IKA, Ikastolen Federazioa, Bertsolarien Elkartea eta beste zenbait kultur talde euskara irakasten eta sustatzen egiten ari diren lan eskergaitzagatik, gure begirunerik eta laguntzarik handiena merezi baitu beraien lan horrek.

Arabako Lurraldean euskarak dituen argi-ilunak ikusi ditugu, gainetik izan bada ere. Orain plangintzak egin eta lanari ekitea falta zaigu. Bost gune horiek ardura handiz kontuan hartu beharko genituzke. Jendea hirietan pilatzeak ere aurrerantzean onurak ekar diezazkioke euskarari euskararen aldeko proiektuak egokiro bideratzen jakinez gero. Arabako hiri nagusietako alkateek ardura berezia jarri beharko lukete, nire ustez, euskarari bideak irekitzeko, guztion altxorrik preziatuena den euskarak Araban etorkizunean ere bizirik iraun dezan.

Era berean, Arabako Aldundiko etxean bilduta gaudenez, eskari berezi bat egin nahi nieke Aldundiko arduradunei, Arabako euskara egokiago ezagutzeko bekaren bat edo lantalderen bat sor dezaten, Euskaltzaindiaren gidaritzapean. Historian zehar burututako lanak bildu eta aztertzeaz batera, gaur egungo Otxandio eta Oletako euskara bizia zehazki ikertuz gero, bide egokiak jarriko genituzke, beranduegi izan aurretik Arabako euskara sakonetik ezagutzeko. Gaur egun grabaketak egiteko ditugun baliabide teknikoek ere aukera ezin hobea eskaintzen digute ahozko euskara jasotzeko zein ikertzeko.

Euskara arabar guztion altxorra dugunez, denok ahalegindu beharko genuke etorkizunean gure gizartea elebiduna izan dadin, eta euskara lehenago mintzatzen zen lurraldeetan berriro ere ahoz aho mintza dadin.

Luze doan berriketa honi amaiera emateko, berriro ere gogora ekarri nahi dut ***garelako izango direla***, hau da, euskaldun izaten eta euskarari bizirik iraun dezan beharrezkoak dituen baliabideak eskaintzen jardunez gero, gure atzetik etorriko direnak ere euskaldun izango direla. Hori amesten du, euskarak oraindik bizirik dirauen Arabako Aramaio herriko seme honek.

Arabaren arabera

RUIZ URRESTARAZU, Manu
Euskaltzain urgazlea eta Araban Euskaltzaindiaren ordezkaria

Autoritate ohoragarri eta maitagarriak, arabar herriaren ordezkariak, euskaltzainburua, euskaltzainak, andere eta jaunak, adiskideok,

Nire txostena irakurtzen hasi baino lehenago, haren laburpen bat egingo dut gazteleraz:

* * *

Mis palabras en euskera se contienen en una intervención que titulo «Arabaren arabera»/«A la manera de Álava».

Tratan, en esencia, del idioma o idiomas que moldean la expresión del modo de ser de los habitantes de un territorio, lenguaje del que es huella o testimonio la toponimia.

Luego desgrano brevemente el rosario de personas que trabajaron a favor del euskera en Álava en los últimos 90 años, los de Euskaltzaindia, a una con los euskaltzales referidos ya por Patxi Uribarren en la precedente, cálida y documentada intervención.

Finalmente recorro la toponimia alavesa, principalmente la fitonimia, por serme más conocida gracias a la Diputación Foral de Álava y a los alaveses, que han permitido mi trabajo en esa institución durante años en su Servicio de Montes. En esa toponimia se observa, como indica el académico y amigo José Luis Lizundia, que las formas idiomáticas del euskera se distribuyen fundamentalmente por meridianos. Ahí están los nombres de Dallo y

Euskera. 2009, 54, 1. 141-148. Bilbo
ISSN 0210-1564

Dulantzi con los similares navarros de Allo y Urantzia, Aretxabaleta (Vitoria/Gasteiz y Alto Deba), Birgara (Álava) y Bergara (Gipuzkoa), Hermua (Ermua en Bizkaia), Arratzu(a) (Álava y Bizkaia), Basauri y Busturia (Treviño y Bizkaia), Gernika (despoblado en Zigoitia), Dibina o de Ibiña (Álava), con sus réplicas de Ipiña (Zeanuri) e Ibinaga (Ibarrangelu) en Bizkaia, Lezama y Zoilo o Zollo (Álava y Bizkaia), así como Lujaondo o Luiaondo frente a Luju o Loiu.

Tras esta breve puesta en escena en romance castellano, vamos ya a la exposición en euskera:

* * *

Nire hitzak txosten batean bildu ditut eta txosten horretan Araban euskarazko toponimian aurkitzen ditugun orokortasun eta berezitasunak azaldu nahi dizkizut. Txostenaren titulua hauxe da: Arabaren arabera.

Araba lehenengo aldiz zeharkatzen duzunean, batez ere Arabaren nukleoa den Arabako Lautada bada zeharkatua, lurralde grisa dela pentsa zenezake, monotonoa, ez gatz eta ez berakatz.

Baina gauza askorekin gertatzen den bezala, lehenbiziko inpresio honen ondoren, aurreko begiradan ikusi ez zenuen ondasun franko aurki dezakezu, Arabako izaerari lotuta daudenak, behin eta berriz Arabari zorrotz begiratuz gero.

Lurralde baten izaera zertan datzan galdetzen baduzu, erantzun luzea emateko abagunea zenezake. Baina hitz baten bitartez izaeraren itxura azaldu nahi badugu, erantzuna erraz laburtuko genuke: mintzairan. Mintzairan edo mintzairetan ager daiteke lurralde baten izaera. Edonork daki mintzaira soila ez dela izaera; izaera barruko eta kanpoko alde askok osatzen dutelako. Baina mintzaira izaeraren moldea dela onartzea ez zekigun harrigarriegia izango.

Lurralde guztien historia luzea izan da eta konplexua gainera. Eta Ararena, bere itxura xumean, kolore askotakoa izan dela ez da zail ikustea.

Gaurko azalpen honetan toponimiari begiratuko diot, esan dudan konplexutasun horrek toponimian begi-begitara jotzen baitigu. Araban, beste kultura mugan izandako tokietan maiz gertatu den bezala, toponimiari be-

giratu dion pertsona aztertzaile asko topa dezakegu. Horrela Araban euskaltzale gehienak toponimiazale izan ditugu. Alor honetan, Onomastikan eta toponimian bereziki, gailen genuen gure maisu izandako Henrike Knörr lagun mina eta, lehenengo eta behin, bihoa Harentzat gure gogorapen beroa.

Patxi Uribarrenen azalpenean Araban euskararen alde zuzen eta egoki lan egin duten euskaltzaleen glosa loriotsu eta ederra entzun ondoren, iragango mendean euskal toponimian eta horren ondoko ahaleginetan aritutako beste pertsonen aipamen berezia egitea merezi du, nire ustez. Hona ba hemen euskalgintza lan horretan izandako izen batzuk:

Lehenengo eta behin Gerardo López de Gereñu Galarraga, berak urte luzez bildutako toponimo kopuru itzel eta baliotsuarengatik euskaltzain ohorezkoa izendatua, Arabako toponimia biltzen eta garai hartako ingurua argazkitan hartzen bere bizitzaren zati betegarriena eman zuena. Toponimiarekin jarraituz, hor izan genuen Gorbeipean Julian Olabarria Sautu, Zuiako edertasunak euskararen aztarnaz atontzen jakin zuena. Toponimia ahazteke, euskalgintzan ari izandako beste izen aipagarriak datozkit burura: Peli López Presa, euskararen alde egin zituen ahaleginetan eta euskarazko klaseak giro atseginean ematen puntako gizona izandakoa, Isidor Baztarrika Munduate, euskaltzain urgazlea, gizon abegikor eta erakargarria, beneditarrek zaintzen duten tokian tokiko kulturaren aberastasuna sendo landu zuena eta Araban Estibalizko Priorea izan zen urte haietan euskararen sostengu eta zabalkundean habe nabarmena izan zena, adiskide min eta betikoa, zuretzat gure gomuta beroena, Federico Barrenengoa Arberas, euskaltzain urgazlea, amurrioar zindo eta atsegina, Deustuan bizitakoa, Aiarako historiaz eta euskararen erabileraz neke eta lan ari izandakoa, orain urte gutxi utzi gaituena eta, azkenik, Peli Martin Latorre, zorionez gurekin dirauena, euskaltzain urgazlea, miñoi lerdena izandakoa eta bere itxuran prestutasun hura gorde duena, hemengo instituzioan Kulturaren Diputatua izan zena, Arabako artxiboetan euskararen izaera arakatzen eta kanpoko bizitzara hizkuntza eramaten lagun izan duguna. Zorionak zuri, Peli.

Honekin Henrike Knörren garaikoen artera iristen gara eta Henrikek berak hain sakon goldetutako euskal ildoari jarraituz, hemen dugu nabari eta pozez gurekin gaur Patxi Uribarren Leturiaga aramaioarra, arabar

euskaltzain oso bakarra gaurko egunean eta era berean izen-biltzaile adoretsu eta nekaezina; Arabaren ikurra zurekin daramazu beti Euskaltzaindian, Patxi; Arangiotik Toloñoraino eta Lerondik Legunberaino.

Gurekin dugu gaur hemen ere toponimiaren sena ia beraren barne eginda, urte andana luzez leku izenak xurgatu dituen langile fin eta jakintsua zaigun Jose Antonio González Salazar adiskidea. Haren alboan dauden beste langile sutsu batzuk izan ditugu lagun: Aingeru Ibisate Lozares eta Jose Mari Sedano Laño, besteak beste. Haiekin batera eta Henrikeren ondotik datorkigun saga eder eta sasoikoa ageri agerian dakigu bultza zori onean: Patxi Salaberri Muñoa, Gidor Bilbao, Pruden Gartzia, Roberto González de Viñaspre, Elena Martínez de Madina, Felix Mugurutza eta abar luze bat. Ni ez naiz nor horien gorapena egiteko ni baino gorago ikusten baititut hegan.

Lehen esan dudanez, toponimian hizkuntza baten historia eta aldaerak aurki eta azter ditzakegu, egokiz egoki; egokitasun horrek, hala ere, azterketa luze eta sakona eskatzen du eta behin baino gehiagotan toponimoen esanahia berraztertzea eta izenen transkripzioan liratekeen hutsuneak betetzea ere bai.

Gaurko nire azalpen mugatu honetan, XVIIIgarren mendean libertatearri kantatzen zion Sabandoko J. B. Gamiz poetaren txori hura bezala abarrez abar mugituko naiz, egungo azalpena arin izan dakigun, arintasunak arinkeriara eraman ez nazan nahi izanez.

Orokorrean hartuta, Araban aurkitzen dugun toponimia Euskal Herriko mendebaldekoan sailka genezake (horra hor *Asparrena* izena bera, Arabako ekialdean izan arren), baina badira aldaketa interesgarri asko sortaldetik sartalderaino. Gehienetan Arabako toponimia meridianoz meridiano doa aldatzen, kasu batzuetan aldiz errepikatzen.

Ekialdean, mendialdean batez ere, nafar kutsua gorde da; Lautada ekialdeko soroetan Gipuzkoako Goierrikoa sumatuko dugu, honantzagoko soloetan Deba Garaikoa eta Gasteiz inguruan arabera propioa generitzakeena aurkituko dugu, goi bizkaierarekin antza duena; azkenean eta mendebaldeko lurretan, Aiara Lurraldean eta horren inguruan, mendebaldeko bizkaieraren aztarnak ikusiko ditugu.

Adimenaren alorretan hasiz gero, has gaitezen Eliza izenarekin. *Elizmendiko* Andre Maria dugu Kontrastan (Harana haranean), *Elizazpi* Ibargurenen (Asparrenan), gero *Eleizbular* saroi baten toponimoa ikusten dugu Larreko mendietan, Barria komentuarena izandakoa eta gaur *Leispar* izenpean gordeta dirauena; Aramaion, berriz, *Elexaurre* eta *Elexoste* baserriak dauzkagu eta Amurriora bagoaz, onura publikoko mendien Katalogoan 1 numeroa daraman mendiaren izena *Elexazahar* omen zen, orain ehun urte egindako katalogoan *Lejazar* idazkeraz agertzen bada ere.

Harri eta herriz ari bagara, ekialdetik mendebalderantz hor daukagu Araiako harkaitzen artean *Gartzabal* bat, gero Barrundia parean, Gipuzkoako aldean, Gatzagako mendian Deba ibaia sortzen den arroan *Arkamo* dena, hurrengoan Kuartango eta Lakozmonte edo Lukusmonte banatzen dituen Karkamu edo Karkamo mendizerra eta azkenean Gobia Haranean goititzen den *Karria Haitza* edo Karriaren Harria litekeena, beharbada. Gesaltza-Añana eta Atiega edo Ateagako mendi bat *Peña Amil* deitzen da. Iparralderago joanda eta Nerbioiko ur-jauziaren ekialdean aurkitzen den amilburuari *Peña Ebana* deritzate; ebana, ebagia alegia.

Beste izen esanguratsu bat aurkitzen dugu basoaren oinondo edo arbola gazte eta lerdenak biltzen dituenean: Zara eta Txara binomio ebolutiboan. Zara forma toponimo hauetan ikusten dugu: *Zaraona* (Armentian), *Zarandi* (Buradon Gatzagan), *Zarandona* (Letonan), *Zarasabela* (Erroitegin, hangoek azken urteotan «San Isabela» zeritzaten Zarako sabel horri), *Zarate* (Zuian dagoen herria, Arangion mendate bat). Txara, beste aldetik, izen hauetan: *Txara* (Aspurun eta Baranbion), *Txarabitana* (Apinaizen), *Txaradoi* (Ibargurenen), *Txaraduia* (Hermuan).

Araban, arboladiak edo landarediak ez dira orokorrean *-di* atzizkiaz bukatzen, *-dui* eta *-doiz* baizik, salbuespen batzuk direla medio. Hala nola: *Ameztui* (Baranbio, Laudio eta Ozetan), *Arestuia* (Izartzan), *Artadoia* (Korresen), *Artaduia* (Okinan), *Azkardui* (Olanon), *Azkarduia* (Axpuru-Narbaxa eta Okinan), *Bagaduia* (Ibisaten), *Pagadoi* (Legutiano-Otxandion), *Pagaduia* (Gometxa, Landa eta Madarian), *Gaztañadoia* (Aramaioko Arriolan), *Idui* (Gereñun), *Iduia* (Araian), *Ilarduia* (Asparrenako herria), *Intxaurdi* (Amurrio eta Domaikian), *Intxaurte* (Bilodan), *Intxaurti* (Letonan), *Intxerdui* (As-

parrenako Ametzagan), *Intxurduia* (Apodakan), *Kereztui* edo *Keristi* baserria (Arexolan), *Leixardoia* (Gantzagan), *Lizardui* (Albeizen), *Otadoia* (Bizkaitarren otadoia, Oletako Albinagoian), *Sagardoia* (Arraga-Ibarran), *Sagardui* (Etxabarri-Urtupiñan), *Sagarduia* (Lagran, Mendiola eta Urizaharrean), *Sagastuia* (Araia, Garaio, Olano eta Ozetan), *Urkidoi* edo *Urkidui* (Araia-Zalduondon), *Zumadui* (Albeizen).

Badira landaredi batzuk zein landareri aplikatzen zaion ez dakizkidanak: *Gaztazapadoi* (Araian), *Ikalardoia* (Korresen), *Kapildui* (Arluzean), *Kapilduia* (Berroztegietan) eta beste.

Aniztasun bukaera horiek, *-doi*, *-dui* direnak, aspaldikoak direla ematen dute. Kasu batzuetan *-di* aniztailea ere agertzen da Araban; nabariago gertatzen da amaiera hori fruitudun arboladiak badira edo euskaraz arestira arte mantendu diren herrietan egin diren aldaketa fonetikoak direla medio. Honela ikusi ditugu lehen Intxaurdi eta Intxaurti, eta hor daude *Intxausti* (Barrundian), *Sagasti* (Bitoriano, Gereña, Lukiano eta Marietan), *Sagastieta* (Nafarraten), *Sagastilepo* (Kontrastan), *Sagastitxua* eta *Sagastizabal* (bi baserri Aramaion). Okoiztako Gorostitza auzoaren hurbil bazen baso bat (gaur zelaiak eginda) *Zuzundui* zeritzana; orain *Susundi* deritzate; beste *Susundi* bat Zaraten dago. Legutianon berriz *Lertzundi* dago. Zunzun, susun, lertzun, lertxun horietan, haize finak hostoak nabari dardarkatzen baititu eta orri-ikara duen *Populus tremula* arbola horrek euskaraz onomatopeiazko izenak hartu ditu.

Kontrastako Sagastilepo harek ekialdeko usaina dakarkigu Arabara. Beste lepo bat agertzen zaigu Araian, *Gaztolepo*. Araiako bertako *Urkidoi* toponimoak Zuberoko *Burkidoi* direnak dakarzkit burura eta bada izen bitxi bat Zigoitian urkiari deitzeko, oraintxe arte erabilitakoa: epurki, hain zuzen. *Epurki*, *Burki*.

Urkiaren bueltan gabiltzalarik, *Urkilla* dugu mendizerra bat Arabako ipar-ekialdean. Urkila toponimo bat badago Lapurdiko Zaran, *Urkillaga* Ataunen eta *Urkillu* Antzuolan, azken bi hauek Gipuzkoan. Arabara itzuliz, *Urkillo* bat topatzen dugu Haraneko Done Bikendin eta gero mendebaldean *Urkillo* bera Manurgan, Izarran eta Zuia eta Lezamaren arteko mugan. *Urkillo* hori *Urkijo* bihurtzen da Pobesen, Aiaran, Laudion eta Okondon. *Ur-*

*killo*tik *Urkijo*ra goaz *Gibillo*tik *Gibijo*ra joan ginen erara, ze Kuartangon aurkitzen dugun *Gillarte* herria *Gibilloarrate* izandako baten laburdura gertatzen da eta horren bidez ikusten dugu gaurko *Gibijo* mendizerra hori *Gibillo* izan zenaren oinorde.

Asparrenan eta Agurainen goiko malda garratzei deitzeko barga hitza erabiltzen da. *Bargagaizto* izenak errepikatzen dira Umandia aldean eta Gamelate edo Andoingo harrate ondoko maldetan, batzuren batzuk bargagaizto horiei «bargaristo» deitzen badiete ere.

Saroi izena Elgea-Urkilla mendilerrotik zabaltzen da eta izen hori Urrunagaraino heltzen da *Saroa* forma hartuta.

Sakana ez da Nafarroara mugatzen. Alaitzan Basasakan ikusten dugu eta Ozetan Artasakana. XVIIIgarren mendean *Sakanekosoloa* agertzen zen Berrikanon (Zigoitian).

Ahuntzen kume kaskarinek *Antxumamendi* izena utzi zuten Urabainen, mendebalderago, ordez, *Aumategi* Larrean.

Zumarrari deitzeko zumar ikusten dugu Agurainen (*Zumarburu*) eta Zalduondon (*Zumarrandi*), baina zugar bariantea agertzen zaigu Hermua-Larrean (*Zugartegi*). Zunhar ez dugu aurkitu Araban, baina badago *Zunarro* toponimo bat Errioxako Ezkarain, *Zumarral* beste batekin.

Pagoari so eginez gero, Arabako lur azaleraren ehuneko hamarra pago basoek betetzen dutelarik, pagoaren izena daramaten toponimo nabari batzuk aurkitzen ditugu. Araban, pago eta bago izenak ikusiko ditugu, fago ordea ez, *fayo* agertu arren («Fayoeta» XIIIgarren mendean; euskarazkoa?, erromantzezkoa?).

Arabako ekialdean kokatzen bagara, Entziaren mendizerran eta Nafarroako mugaren ondo-ondoan *Bagaio* basoa topatzen dugu. Gipuzkoako Ataungo mendian eta nafar mugatik gertu hau ere, *Iraio* bat dago; harantzago, Tolosako eremuko hegoaldean *Bedaio* auzoa izango dugu. Entziara berriro itzuliz eta lehengo Bagaio hartatik mendebalderantz joanez, Legaire larreak pasatuz eta Lautada aldera amildegi gainetik goratzen den haitz bat *Baio* izenarekin ezagutzen dugu gaur egun. Nire susmoa da Baio izen hori Bagaio baten laburdura dela, holako bilakaera fonikoaren bidez: *Bagaio*,

Baaio eta azkenean, euskararen esanahia galduta, bi «a» horiek «a» batera pasatuz, *Baio*.

Entzia-Iturrieta mendikatetik jarraituz, Ibisate parean *Bagaduia* dago. Hortik hego-mendebaldera salto eginez, Lagran-Laño arteko Jaundel mendian *Bagatzederra* izeneko basoa aurkitzen dugu. Horrela, Bagatzederra, idazten zen XIXgarren mendeko dokumentuetara arte. Bagatzederra zabal hori gure egunotan fisikoki mantentzen da, baina izena mordoilotu diote eta gaur «Cabezaerra» deritzate.

Pagoeta herritik pasatuz, XIIIgarren mendean «Fayoeta» izenez idatzita agertzen zenetik abiatuz, Lautada aldera, Gasteiz ondoko Gometxa ostean igotzen den Mendizorrotzeko magaleko bularrean *Pagaduia* izeneko basoa ikusten dugu, artadoi eta harestien gainetik pagoen adaburuak altxatuz. Izen bera, Pagadui edo *Pagaduia*, Landan eta Madarian errepikatzen da.

Bagoeta, basoa eta ibaia, Legutiano aldean dago, Espainiako Geografiazko Institutuko mapetan «Baguetas» ez-izen desitxurosoan itsustuta. *Pagoeta*, berriz, Elgeako mendietan, Etxagoien eta Muruan (Zigoitian) eta baita Okondon ere.

Bagatza Izarra, Untzaga eta Arespalditzan aurki dezakegu eta *Pagatza*, aldiz, Apodaka, Bitoriano, Lukiano, Baranbio eta Amurrion.

Haritz, haretx, lizar, lexar, ezki, ezku, azpil, maspil, urritz, urretx, urrutx, landare izenen erdi eta mendebaleko barianteak Araban bertan topatzen ditugu, gehienetan izenen muga nabariena Gasteiztik ekialderanzko meridianoetan kokatzen delarik.

Dena dela, mugak askotan igarokor gertatu dira eta hor gauzka toponimia arabarrak asetzen ez zaigun jakin egarriz hartuta.

Gasteizko Toponimia egitasmoaren lehen liburu biak
(Aurkezpena)

LIZUNDIA ASKONDO, Jose Luis
Euskaltzain osoa eta Gasteizko Toponimia egitasmoaren arduraduna

Pozgarria da, Euskaltzaindia, hemen, Probintziako Plaza honetako arabar hiritargoaren ordezkarien, hots, Batzar Nagusien aretoan izatea. Ez da lehehendabizikoa, 1969an, Urre Ezteien karietara hemen ginen, Henrike Knörr eta Patxi Goenaga euskaltzain osoen sarrera hitzaldietan ere, baita erakunde akademikoaren 75. urteurrenean.

Henrike Knörr, Onomastika lanetan 70 hamarkadatik lagun izandakoari, aholkularitza esku bat botatzea izan zen nire lehen asmoa, alegia, hasiera batean Nevadako Unibertsitatera urte beterako joatekoa plana egin zuenean, Gasteizko udalerriaren toponimia ikerketaren argitalpen fasean.

Zoritxarrez, bere gaixoaldiak eta, ondorioz, heriotzak, nire bizkar utzi zuen zama guztia, Euskaltzainburuaren proposamenez eta Zuzendaritzaren erabakiz. Ordu eta egun asko igaro ditut Elena Martínez de Madina, Onomastika batzordekide eta filologia lanetan ikerle trebearen alboan, Gasteizko euskal udalerri zabalaren, antzinako *Malizaeza* merindadearen iker lana aztertzen, gainbegiratzen eta normalizatzen.

Malizaeza azpieskualde lan honetara sartu eta murgildu naizenean ikaratzeko beste emaitza izugarriarekin aurkitu naiz, hain da altxor oparoa eta handia. Hortaz, gaurko xedea, lehen liburuki biok aurkeztea da.

Edozein lekutako euskaldunok konturatu beharko ginateke zer garrantzitsua den Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuaren toponimiaren ikerketaren uzta aberatsaren argitalpena prestatzea, hiritarren gozamenerako

Euskera. 2009, 54, 1. 149-153. Bilbo
ISSN 0210-1564

eta administrazio desberdinen erabilerako. Gozamenerako, diot, zeren eta ikerketaren emaitzetatik argi eta garbi ikusten baita gure hiriburuaren toponomastikaren gehiengo nabarmena euskarazkoa edo euskal jatorrizkoa dela, horrek duen balio kulturala eransten duelarik.

Malizaeza azpieskualdeak liburuki bi hartzen ditu, hiriburuarena, bata eta gainontzeko hamaika herriena. bestea. Ondorioz ematen den informazioa ez da izaera berdinekoa. Hiri toponimiaz askoz ere dokumentazio ugariagoa aurkitu dugu hiriburuan. Juan San Martin euskaltzain eta Onomastika batzordekide izan genuenari, askotan entzun genion bezala, Euskal Herriko toponimiaren bilketa eta ikerketa askoz ere gehiago egin dira baserri herrietan hirietan baino, eta desoreka hori ez zuen maite. Horregatik da, hain zuzen, oso interesgarria Gasteizko udalerri bilduma honen lehen zenbakia, alegia, hiri toponimia oso aberatsa eta esanguratsua aztertzen eta agertzen duelako.

Bigarren liburukian, ordea, *Malizaeza* eskualdeko baserri herrietako toponimia aztertzen da, ia zeharo euskal jatorrikoa, zeinetan ehundaka oronimo, hidronimo, oikonimo eta antroponimo azaltzen baitira, hau da, mendi, ibai, etxe eta ponte izen, besteak beste. Hiru bat mila gainbegiratu ondoren, ohartu naiz zer altxor aberats izango duen Gasteizko udalerri zabal honek bere hiri eta lau azpieskualde historikoetan, hots, *Malizaeza*, *Ubarrundia*, *Arratzua*, *Langrares* eta 1970 hamarkadan anexionatutako hiru udalerrietan: *Foronda*, *Otoeta* eta *Mendoza*.

Toponimo guzti horiek aztertu ondoren, baieztatu dut, bestalde, nire eskualdea, Durangaldea, alegia, eta Arabako Mendebaldekoa, ez bakarrik euskalki berekoak direla, baita ere barietate berberekoak. Hori sakonago azaltzen dut lehen liburukiaren sarreran.

* * *

En una situación sociolingüística como la nuestra, donde conviven dos lenguas, el euskera y el castellano, es obligado hablar previamente sobre la normativización y la normalización de los topónimos.

Hay que tener en cuenta que la normativización es una función de la institución académica del respectivo idioma. La normalización trasciende,

ONOMASTICON VASCONIAE

27

TOPONIMIA DE VITORIA I
GASTEIZKO TOPONIMIA I

CIUDAD/HIRIA

HENRIKE KNÖRR BORRÀS (†)
ELENA MARTÍNEZ DE MADINA SALAZAR

EUSKALTZAINDIA

Euskera. 2009, 54, 1. 149-153. Bilbo
ISSN 0210-1564

con mucho, a la normativización, pero no se podría llevar a cabo sin la necesaria ayuda de esta última.

La normalización toponímica, en cambio, es una tarea extremadamente compleja allá donde se encuentran los nombres, tanto de toponimia mayor como de toponimia menor, de orígenes lingüísticos diferentes y en situación de desigualdad. Es lo que sucede en el País Vasco, donde por razones históricas y políticas solamente el castellano ha gozado de un status oficial y, sin embargo, ninguno el euskera hasta el Estatuto de Autonomía de Gernika de 1979 (artículo 6°) y su plasmación en la Ley 10/1982 de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera.

Es interesante conocer. al respecto, lo que decía el conocido catedrático de la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea Francisco José Llera en la revista *Lletres asturianes*, órgano de la Academia de la Llingua Asturiana, número 19, año 1986. Llera, miembro correspondiente de la citada institución analizaba en su trabajo titulado «Identidad colectiva y territorialidad», aspectos muy interesantes, que, lamentablemente, en aras de las limitaciones de tiempo no puedo entresacar, pero así recomendar su lectura en el primer tomo que presentamos hoy:

La norma de rango de Ley antes mencionada ha sido posteriormente desarrollada por decretos del Gobierno Vasco, por normas forales de las Juntas Generales de los Territorios Históricos y en muchos ayuntamientos, a través de sus ordenanzas municipales.

Las administraciones locales alavesas, ayuntamientos y juntas administrativas han hecho una gran labor en la normalización toponímica a partir de la nueva realidad democrática y jurídicamente bilingüe, con la superación de la secular marginación del euskera. En dicha tarea, Euskaltzaindia, como institución consultiva oficial, artículo 6, 4° del Estatuto de Autonomía, ha jugado un papel primordial, realizando un trabajo exhaustivo de investigación en el campo de la toponomástica.

Por otra parte, para los libros que presentamos hoy, nos ha sido de gran ayuda el conocimiento de trabajos análogos ya publicados en esta colección, como los seis volúmenes de la Cuenca de Pamplona/Iruñerria, es decir, las

cinco cendeas más la ciudad, así como otros números de la colección dedicados a estudios toponímicos locales. Nos ha merecido la atención los números 13, *Eibarko hiri toponimia;* 15, *Arrasateko toponimia;* 21, *Eibar eta Elgetako toponomastika. Toponomástica de Eibar y Elgeta;* 22, *Ermua-Eitzaga, leku izenak;* 24, *Zaldutik Zaldibarrera, toponimia barrena* y el último número publicado, el 25, *Antzuolako toponimia.* La razón de ello es evidente: la toponimia del extenso término municipal vitoriano es muy similar lingüísticamente a la de estos municipios, todos ellos del ámbito del euskera occidental y, más en concreto, de la Cuenca del Deba y del Duranguesado, comarcas ámbas con una gran relación, no solamente dialectológica, sino también histórica y comercial a lo largo de los siglos con esta capital, superior incluso, a sus dos capitales provinciales actuales.

Ahora acometeremos, con el inestimable patrocinio del Ayuntamiento de Vitoria/Gasteiz, la preparación del tercer tomo que abarcará los seis pueblos del Norte del término municipal, o sea, los incorporados y procedentes de la antigua merindad de *Ubarrundia*: los dos *Gamarras*, los dos *Miñaos*, *Amarita* y *Erretana*.

* * *

Amaitzeko, eskerrak Henrikeri eta Elenari, baita ere Juanjo Galdos, Montse Ocio eta Zuriñe Rescalvo lantalde kideei, ahantzi gabe Jose Antonio Gonzalez Salazar ikerle aspergaitza. Eskerrak, bene-benetan Ricardo Badiola, gure argitalpen eragileari. Eta espero dezagun, datorren urtean, aipatu sei herrien toponimia ikerketaren liburua aurkeztea.

Toponimia de Vitoria

MARTINEZ DE MADINA SALAZAR, Elena
Euskaltzaindiko Onomastika batzordekidea

Autoridades,
Presidente y miembros de la Academia,
Colegas, familiares y amigos,
Buenas días a todos


Siguiendo con la intervención del académico Jose Luis Lizundia, me corresponde a mí explicar brevemente en qué consiste esta obra que hoy presenta la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia. Y además, es una gran alegría hacerlo aquí, en este palacio, en cuyas escaleras jugué de pequeña muchos ratos, pues es precisamente en una casa de esta Plaza de la Provincia donde yo nací. Por el contrario, que Henrike no se encuentre entre nosotros, me produce una gran tristeza.

En el año 1996 iniciamos el Proyecto de Toponimia de Vitoria, gracias al convenio de colaboración que firmaron el Ayuntamiento de Vitoria/Gasteiz y Euskaltzaindia. El objetivo del proyecto era, y es, la recogida sistemática de todos los topónimos del municipio de Vitoria de toda la documentación de los archivos locales, para su posterior clasificación, identificación y normalización lingüística. El fin último del trabajo es recuperar una gran parte de los topónimos que hoy ya están perdidos, la gran mayoría, desfigurados o traducidos.

El municipio de Vitoria, como ustedes pueden ver en la guía que se ha repartido, es muy extenso, y está constituido por la ciudad de Vitoria más 64 aldeas. En el Cartulario del monasterio de San Millán de la Cogolla, en el conocido

Euskera. 2009, 54, 1. 155-161. Bilbo
ISSN 0210-1564

documento del año 1025, se presenta la lista de los pueblos de Álava, las merindades o comarcas en que se agrupaban, y el pago que hacía cada localidad en rejas de hierro a dicho monasterio. Siguiendo esta agrupación medieval, se planificó la publicación de los distintos volúmenes que irán viendo la luz. Hemos comenzado por la antigua merindad de *Malizaeza*, que es precisamente la que contiene a Vitoria aunque, como ustedes saben, no es hasta el año 1181 cuando el rey navarro Sancho el Sabio funda Vitoria, *Nova Victoria,* sobre la aldea llamada *Gasteiz*. Por lo tanto, son dos los volúmenes correspondientes a esta Merindad: uno dedicado exclusivamente a la ciudad, y otro a las aldeas.



El expurgo de los documentos se hizo en varios archivos. La documentación consultada abarca un período de quinientos años, desde el siglo XV hasta finales del siglo XX. Citaré a continuación los archivos más importantes y el número de documentos que se han revisado en cada uno de ellos:

– *Archivo Municipal de Vitoria*, 7.544 documentos (libros de visitas de mojones, del gobierno municipal, de hacienda, de fomento, de estadística de la riqueza,… etc.).

– *Archivo Histórico Diocesano*, 520 documentos (libros de aniversarios, de cofradías, obras pías, capellanías e iglesias,... etc.).

– *Archivo de las Universidades Eclesiásticas*, 483 documentos (libros de fundación de capallenías, apeos, arriendos, donaciones, memoriales y aniversarios).

ONOMASTICON VASCONIAE

28

TOPONIMIA DE VITORIA II
GASTEIZKO TOPONIMIA II

MALIZAEZA

ELENA MARTÍNEZ DE MADINA SALAZAR
HENRIKE KNÖRR BORRÀS (†)

EUSKALTZAINDIA

Euskera. 2009, 54, 1. 155-161. Bilbo
ISSN 0210-1564

– *Archivo Histórico Provincial de Álava*, 5.544 protocolos notariales, los cuales pueden contener hasta mil hojas cada uno, correspondientes a todos los escribanos, notarios, de la ciudad desde el siglo XV. Ha sido este archivo el más fructífero y de donde se ha sacado gran parte de la información.

Cuando se terminó toda la recogida de topónimos, se creó una base de datos donde hay aproximadamente 400.000 fichas toponímicas diferentes.

Para realizar el estudio sobre la merindad de *Malizaeza*, se ha trabajado sobre 90.000 registros toponímicos.

La investigación de toponimia histórica se hace como si fuera un rompecabezas: hay que ir encajando todas las fichas hasta que aparezca el topónimo genuino. Si la cantidad de datos es grande, las posibilidades de éxito, obviamente, son mayores. Pero, a su vez, y en nuestro caso, el haber tenido tantos datos toponímicos, ha complicado el proceso de separar el grano de la paja. Además, trabajamos sobre dos lenguas. Recordemos que en este territorio, la lengua fue el euskera, para después dar paso al castellano, pero la toponimia que tiene *per se* un carácter conservador, tal y como se puede ver en esta obra es mayoritariamente eusquérica. Aún así, lo que sucede es que si el hablante, el usuario de estos nombres, desconoce ya la lengua en la que están los topónimos que ha heredado, la tendencia es a que se desfiguren, o se traduzcan o a que terminen desapareciendo.

Un nombre como *Carasuelo* o *Cabezuela* para denominar a un término, nos inspira diferentes teorías. Pero la investigación tiene poco de inspiración y mucho de trabajo metodológico y de procesos basados en el conocimiento de la materia a tratar. Pues bien, resulta que este nombre se corresponde con un *Karobizulo*[1], nombre en lengua vasca de *karobi*, «calero»,

[1] *KAROBIZULO*: *CarahobiÇulo, Cabezuelo, Cerrabezulo, Caroguizulo, Carobiculo, Caravisuli, Carauisuli, Caresulo, Çarobizuloa, Caraluzolo,…*

DOC: *Garaoviçulo* (1476, AMV, sig. 8-13-0, f. 284), *Cardobiçulo* (1481-86, AMV, sig. 10/007/000, f. 139), *Carahobiçulo* (1574, AHPA, P. 6.210), *Çarabiçulu* (1586, AHPA, P. 6.256), *Caravisuli* (1611, AHPA, P. 2.604, f. 223v), *Zarabizulo* (1627, AHPA, P. 5.501, f. 52v), *Carabizulo* (1654, AHPA, P. 3.688, f. 294), *Carabiculoa* (1668, AHPA, P. 8.854, f. 248v), *Carobizulo* (1721, AHPA, P. 6.039, f.

(o si se quiere de *kare*, «cal» más *hobi* «fosa») más *zulo* «agujero». Conocemos cerca de cien testimonios de este término pero prácticamente todos los nombres a lo largo de los siglos son diferentes: *CarahobiÇulo, Cabezuelo, Cerrabezulo, Caroguizulo, Carobiculo, Caravisuli, Carauisuli, Caresulo,…* No es posible dar todos lo datos de los que disponemos correspondientes a cada uno de los topónimos normativizados. Aproximadamente publicamos un 15% del total. En la guía pueden ver cómo ofrecemos este tipo de información en los libros. El primer dato documental es el más antiguo, seguido de uno o dos testimonio por siglo, hasta llegar al término más moderno, esté vivo o no. La entrada del topónimo es la forma genuina y normativizada *Karobizulo*.

También nos llevamos sorpresas como con *Campo de los Palacios*. Este es el nombre de un término entre Aretxabaleta y Vitoria que fue urbanizado en los años cincuenta, tomando la calle ese mismo nombre. Cuál es nuestra sorpresa cuando aparece un dato del año 1659 y que llama al término *Palazioetataco landea*! Y no sólo eso. Sino que además, en 1594 conocemos *Palacieta,* y en 1649, *Palaçioetta* y en 1624, *Palacioostaldea*[2] ¡No era un nombre de antes de ayer! Es un nombre traducido del euskera al castellano como tantos y tantos que ustedes encontrarán en la obra.

---

709), *Carabezulo* (1779, AHPA, P. 1.418, f. 34), *Carabezulo* (1807, AHPA, P. 10.005-B, f. 631), *Carobiculo* (1840, AHPA, P. 8.603, f. 509v), *Carabezulo* (1884, AHPA, P. 17.542, f. 491), *El Calero* (1899, AMV, sig. 02/014/031, caja: Velasco-Zurbano), *Carabezulo* (1902, AMV, sig. 2-14-32, caja: Armentia, Arriaga, Ascarza, Berrosteguieta, Betoño), *Carobizulo* (1926, AMV, sig. 02/014/034, Forasteros VXYZ), *Carabezulo* (1953, AMV, sig. 47-54-4).

[2] *PALAZIOETAKOLANDA*. *Prado de los Palacios* (1481-1486, AMV, sig. 10/007/000, f. 51), *Campo los Palacios* (1543, AHPA, P. 6.659), *Palazioetataco landea* (1659, AHPA, P. 9.075, f. 100v), *Landa de los Palacios* (1737, AHPA, P. 885, f. 28), *Campo de los Palacios* y *Prado de los Palacios* (1799, AHPA, P. 1.897, f. 369v).

PALAZIOETAKOLANDA. *Prado de los Palacios* (1481-1486, AMV, sig. 10/007/000, f. 51), *Campo los Palacios* (1543, AHPA, P. 6.659), *Palazioetataco landea* (1659, AHPA, P. 9.075, f. 100v), *Landa de los Palacios* (1737, AHPA, P. 885, f. 28), *Campo de los Palacios* y *Prado de los Palacios* (1799, AHPA, P. 1.897, f. 369v).

PALAZIOALDEA. *Palacioostaldea* (1624, AHPA, P. 5.525, f. 48v), *Palazio saldea* (1670, AHPA, P. 3.716, f. 383v). «Una heredad en el termino de *Palazio saldea* y por la ondonada al *Campo de los Palazios* como ban de esta ciudad para Castillo» (1670, AHPA, P. 3.716, f. 383v).

Algunas veces es el propio escribano el que hace la traducción simultánea: «Una pieza en el término de *El Rincón*, y en basquenze *Oquelua*» (1630, AHPA, P. 2.597, f. 639).

De ese cajón de sastre lleno de tóponimos, han resultado los siguientes nombres normativizados:

En Vitoria se presentan 671 términos y lugares (piezas, heredades, campas, terrenos, casas, conventos, huertas, riachuelos,… etc.) y 922 nombres de vías (calles, paseos, sendas, plazas, etc.)

De *Ali*, 212, de *Aretxabaleta* y *Gardelegi*, 283, de *Armentia*, 290, de *Arriaga*, 153, de *Berroztegieta*, 285, de *Castillo*, 257, de *Eskibel*, 64, de *Gobeo*, 143, de *Lasarte* 303, de *Mendiola*, 225 y de *Monasterioguren* 194.

Todos los nombres se dan en la lengua en que se crearon, bien porque se sabe o bien porque se ha estimado: si es un nombre que ahora está en lengua castellana pero ha aparecido, o se conoce, el anterior en lengua vasca, se remite a él, por ejemplo, *Detrás de Judimendi,* remite a *Judimendiostea*, pues se conocen datos del siglos XVII que así citan a este término. O en un caso mucho más usual como es *Errekaleor*, que ha pasado al castellano como *Recaleor*, pero que al ser un nombre en lengua vasca se respeta su forma y su grafía, o el caso del nombre desfigurado *Uritiasolo* que remitirá al genuino *Oreitiasolo*.

Únicamente se dan en las dos lenguas las entradas de los lugares que actualmente tienen una entidad y están o deben estar rotuladas, no las que ya no existen. La entrada se hace a modo de rótulo: *Calle Bizenta Mogel kalea*. En algunos casos proponemos una versión diferente al nombre actual, como el caso de la calle *Cabo Bachicabo kalea* (actual *Batxikabo*) rescatando la grafía castellana que es la que corresponde a este nombre romance o el caso de *Burubizkarra*, que no es sino la desfiguración de *Borinbizkarra*, proponiendo *Calle Borinbizkarra kalea*.

En cada una de las voces, lo primero que se ha puesto es la abreviatura DOC. donde se recogen diferentes testimonios del nombre ordenados por fecha. Seguido se ofrece una cita, o más citas literales, donde aparece dicho topónimo. Para terminar con el apartado de observaciones, donde se apun-

ta lo que conocemos sobre el término, dónde se halla, un comentario lingüístico si procede, etc.

Al final de cada libro se incluyen los mapas de las localidades con la señalización de los términos que conocemos actualmente. En el de Vitoria, además, se han añadido 5 planos de la ciudad correspondientes a diferentes épocas del siglo XIX y del XX.

* * *

Orri hauetan agertzen diren izen guztiak gure lurretako izenak dira, ez ditu ezezagun batek asmatu, gure antzinekoek, arabarrek, gasteiztarrek, gure herri hauetako lagunek, baizik. Eta, ikus daitekeenez, toponimo gehienak euskaraz daude idatzita, honela agertu baitzaizkigu dokumentuetan. Hemen aurkezten dugun guztia ikusi ondoren, lasai esan genezake gure ohiko hizkuntza, gasteiztarron hizkuntza, euskara izan dela. Lan hau gaztelaniaz idatzita izan arren ez da euskarara hurbiltzeko oztoporik izango. Alderantziz, beste pausu handi bat emango dugu euskararen alde gure herri honetan.

Espero dut liburu hauek atseginez irakurtzea, ni lanean sentitu naizen bezainbat behintzat.

Esan beharra daukat, egitasmo honek zenbait arazo izan dituela eta argia ez ikusteko arriskuan izan dela baina, hemen dauden batzuei esker bukatu dugu lana.

Eskerrik asko Andres Urrutia euskaltzainburuari, niregan izan duen konfidantzagatik.

Eskerrik asko Jose Luis Lizundia Gasteizko Toponimia egitasmoaren arduradunari, emandako bultzada izugarriagatik.

Eskerrik asko Juanjo Zearreta kudeatzaileari, hasieratik bukaeraino murgildurik egon baita egitasmo honetan.

Eta azkenik, eskerrik asko Ricardo Badiolari, bera gabe gaur ez genituzkeelako esku artean izango liburu hauek.

Eskerrik asko denoi.

Euskaltzaindiaren 90. urteurrena: Iparraldea

Hazparne: *Elgar* Kultura Etxea,
2009ko ekainaren 26an

Euskera. 2009, 54, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564

Ongietorria

AROTZARENA, Patxi
Hazparneko auzapezordea

Hazparneko herriaren izenean, ongi etorri beroena deneri, eskerrak bihurtzen dauzkitzuet hemen, arratsalde huntan, gutartean, kausitzeagatik. Nahi nuke bereziki eskertu Euskaltzaindiari eta hunen lehendakari jaunari, hemen izateagatik.

Ohore egin daukuzue gure herria hautatuz zuen laneko biltzar hunentzat. Zoriontsu gira Euskaltzaindia omentsua gutarterat etorririk eta hau seinale bultzagarri bat daukagu, gaur Hazparne huntan, herriko hautetsiekin, euskararen alde, hasia dugun lan huni jarraikitzeko.

Hazparneko herri huntan, asko gelditzen da egiteko euskararen alde. Aitortu behar dugu azken 12 urte hauetan, gure ama hizkuntza balioz gabeturik baztertua izan dela. Gogoan haurtua dugu gaur, euskarak bere tokia behar duela herriko kudeakuntzan. Gure hizkuntza irakurtzen eta mintzatzen dugun hauek eskubide dugu hunen kausitzea, herriko argibide eta erabaki agerietan. Gure ekintza bidea dugu arlo huntan bermatzea.

Herriko liburutegian euskarari lotua den lanpostu bat sortua dugu, itzulpen lanak egiteko, nola, adibidez, herriko webguneko itzulpenak, hau laster osoki elebiduna izanen beharra baita. Herriko hautetsi bezala begi onez ikusten dugu, Hazparneko lurraldeak ere bere aldetik erabaki duela bide beretik jarraikitzea. Hunek erabaki du euskal teknikalari, lanpostu bete baten sortzea. Segur naiz, laster, elgarrekin, gure hizkuntzari berriz emanen diogula berena dagon lur huntan, nehoiz galdu behar ez zuen lehentasuna.

Euskera. 2009, 54, 1. 165-166. Bilbo
ISSN 0210-1564

Aurten herriko etxe huntan egin da ere *Herria* astekariaren biltzar nagusia eta 3000. zenbakia ateratzearen ospatzea. Gertakari hau gaurkoari lotuz, bi arrazoi itxaropengarri dauzkagu hor geroari buruz bultzagarriak dauzkagunak, lehen Hazparne huntan izan den Pierre Broussain auzapez euskaltzalearen helburuari jarraikitzeko.

Beraz eskerrak orori gaur hemen azaiteagatik eta guziz, eskerrak Euskaltzaindiari bere lan handiarentzat eta gure hizkuntza bizirik atxikitzeagatik.

Agurra

URRUTIA BADIOLA, Andres
Euskaltzainburua

Arratsalde on guztioi, euskaltzain, adiskide eta herritarrei.

Zuetariko askok ekitaldi honetarako gonbitea jaso duzuenean, honako hau irakurri duzue: 90. urteurreneko ospakizuna. Izan ere, Euskaltzaindiak 90 urte betetzen ditu aurten.

Hola du ospatzen Euskal Herriko lurraldeetan, Ipar zein Hego Euskal Herrian. Izanak gara Iruñean, Pirinioetako hizkuntzei buruzko Biltzarra ospatzen. Orobat, Gasteizen, Arabako Batzar Nagusietako egoitzan. Orain Iparraldean gara, Hazparneko herrian, hurrengoan Bizkaian era Gipuzkoan izango garelarik.

90 urte horiek historiaren zantzua daukatenik ezin uka. Historiarekin batera, alabaina, bizia ere bada Euskaltzaindiaren barnean. Baionan bildu da atzo Euskaltzaindiaren Zuzendaritza eta Iparraldeko euskaltzainek ere euren ohiko bilkura egin dute, urteko kontuak onesteko.

Historia eta bizia euskararen baitan. Horiek biltzen ditu Euskararen Akademiak egun ere, urteurren hori ospatzeko antolatu duen ekitaldian: bateko, bi euskaltzain oso, Xarriton eta Larre, beste bi euskaltzain osoei buruz mintzatzen: Broussain eta Hiriart-Urruty, hain zuzen ere. Gero, bi ikertzaile gazte izango ditugu mintzatzaile: Manuel Padilla Moyano eta Maia Duguine, Hazparneko euskarari buruzko xehetasunak emango dizkigutenak.

Betoz, beraz, horien ekarpenak eta aurreratu ditzagun, guztion artean, Euskararen eta Euskaltzaindiaren bidea eta zereginak.

Mila esker zuei.

Euskera. 2009, 54, 1. 167. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskaltzaindiaren 90. urteburukari
Hazparneko bilkura idekia (2009-VI-26)

Charritton Zabaltzagarai, Piarres
Euskaltzain osoa / emeritua

Euskaltzale, euskaltzain, herritar ala herriz kanpotik jin Jaun Andere, lagun zahar eta gazte guzieri: Agur eta Arratsalde on!

Aurten Euskaltzaindiak bere sortzearen 90. urteburukari Hazparnen behar zuela bilkura berezi bat ospatu, bere lehen asmatzaile eta sortzaile nagusietarik bat Pierre Broussain Hazparneko auzapez ohi zena izan zelakotz, niri tokatzen zait orain gogoratzea, ahal bezain laburzki, nor zen bada gizon handi hori eta zer mirakuilu egin zuen.

Aitortu behar dut ordea behin, nihaur ere sortzez hazpandarra izanagatik eta ttipidanik, haur haurretik, arto-landa iphuruan behizain egoiteko artetik, etxen berean banituelarik mota guzietako liburuak gure izeba Maienak bere osaba M^gr^ Janpiarre Diharce (1846–1931) Hazketa Eztiteikoarekin berrogei bat urte iraganik eta gero jarraian apez-gelari ofizio berean, M^gr^ Clément Joseph Mathieu (1882-1963) bere adineko apezpikugaiarekin, 1931an, nihaur 10 urteetara heltzean gure etxera etorri liburuekin geroxago liburuzale amorratua bilakatzeko gisan, eskura nituenaz geroz 1870eko gerlaz geroz Larresororoko, Uztaritzeko eta Baionako seminarioetan Iparraldeko jaun apaiz edo kalonje gehienek izan zituzten literatura eta filosofia ala teologia irakaslek zerabiltzaten esku liburu gehienak.

Bizkitartean nehon nehoiz ez nuen Broussain-darren aipurik ozen. Egia erraiteko, nihaur 1921eko urriaren 19an sortua bainaiz, aitzineko urtean supituki hila zen Ortheseko hirian, 1920eko apirilaren 27an, Hazparneko

Euskera. 2009, 54, 1. 169-174. Bilbo
ISSN 0210-1564

auzapeza, Pabeko Kontseilu Jeneralaren bilkuratik etxerat itzultzean, Piarres Broussain Salagoity izenekoa.

Bainan geroztik nihonek handitu arau eskoletako bideetan aurkitu irakasle batzuei esker zerbait ikasi dut gure euskal herrien historiaz, euskararen bilakaeraz, J. Moulier (Oxobi), J. Elissalde (Zerbitzari), Mgr J. Saint-Pierre (Antxuberro), Martin Landerretxe, Petiri Lhande-Heguy (S.J.) eta beste euskal idazle edo euskaltzain askoren liburuez eta heien biziko gorabeherez.

Ikasi nuen beraz horrela Piarres Broussainen euskaltzain alkia Hazparneko Herrikoetxean Georges Lacombe filosofo hizkuntzalariak hartu zuela 1921ean, bai eta geroago irakurri ere haren alki hura bera Euskaltzaindiak eman zioelarik Piarres Lafitte Iturralderi gure irakasle ohiak *Eskualzain sartzeko egunean1949-eko, Hazilaren 25ean Donostian* (sic) eman zuen hitzaldia.

Ondoko urtean berean, hau da 1950ean, eta nik uste «eskualzain berriak sustaturik, Azkueren eskutik Hazparneko sortetxera heldu zitzaitan nihauri euskaltzain urgazle agiria, adin berean eta esku beretik Piarres Lafittek Uztaritzen ukana zuen paper hura bera.

1951an ordea istripuz hil behar zen Azkue xaharra bera (1864–1951) eta Federiko Krutwig eta Jose Luis Alvarez Enparanza (Txillardegi) eta gerla ondoko belaunaldi berriarekin hasi zen zahar gazten arteko parabola. Ezen *euskara batuaren aments ederra* Azkuek eta Broussainek beren gaztaroan abiatua zutena, baina Broussain hil orduko zaharrek ehortzia zena, berpiztu zitzaigun orduan 30-40 urteetara heltzen ari ginen euskaltzale gazteri esker.

Azkue zenaren ondotik iragan ziren orduan beste bizpahiru euskaltzainburu nihonek ezagutu ditudanak: Inazio Maria Echaide (1884-1962), Jose Maria Lojendio (1910-1979) eta Manuel Lekuona (1894-1987).

1970ean Euskaltzaindiko karosaren giderrak Lekuona «zaharrak», orduan errespetu handiz erraiten zen bezala, bere baitarik, utzi zizkion Arantzazuko aita Luis Villasante frantziskotarrari, honek orduz geroz 18 urtez, Iparraldeko Piarres Lafitte eta Iparraldeko euskaltzain talde osoaren lauzkarekin eta Koldo Mitxelena Elissalt Errenteriar jakintsuari jarraikiz, euskara batuaren xedea nolazpait betetzeko gisan.

Anartean alabaina *Nerekin yaio nun* misteriozko izenburuarekin 2005ean Euskaltzaindiak berak IKER liburu sortaren 17. alea eskaini dioenaz geroz Txillardegiri, opari eta omenaldi gisa, ez dut nik orain hemen gaur errepikatzerik, nola nihaur ez nintzen euskara batuaren jaiotze horren lekuko izan, 1964eko Agorrilaren 29an. Ikusiko duzue hor, Jean-Louis Davant euskaltzainak berak 207-216. orrialdeetan kondaturik, nola Pierre Narbaitz kalonjeak, 1959 irian Hazparneko Ikastegian nihaur buruzagi ezarri ondoan giltzaturik, amestu zuen «Euskal Idazkaritza» baten altxatzea. 1962an edo 1963an ezen, Baionako Kordelieren karrikaren 14.ean eraiki zen Piarres Lafitten axolbean, Hegoaldeko eta Ipharraldeko euskaldun euskaltzale zahar ala gazte askoren biltokia.

Nor izan ziren *Baionako lehen biltzarraren partelierrak,* hots, Jean-Louis Davantez gain, J.M. Bilbao Morgakoa, Jesús Solaun Arrakudiagakoa, Telesforo de Monzon Bergarakoa, Eneko Irigaray Urdazubikoa, Roger Idiart Azkaingoa eta Txillardegi Donostiakoa; zer izan ziren aitzinetik lagun askorenganik batasunari buruz gomendatzen ziren eta onhartu behar ziren *erabakiak eta oharrak*, euskal idazkeraz, euskal deklinazioaz, euskal aditz transitiboez eta intransitiboez, bai eta handik laster sekulako garrantzia hartu behar zuen Ipharraldekoen *H* letraren onhartzea.

Euskara batuaren «biryaoitze» hortarik lekora, euskal Herriko Ipharraldean, bai Hegoaldean, bai Ekhialdean, bai Mendebaldean eta berdin Diasporan zer izan diren euskaltzale ala euskaltzain askoren bizimoldeak, mintzamoldeak eta idatzmoldeak bezainbat segurik aldatu dituzten haize aldiak, ortzantzak eta ortzadarrak aurki ditzakezue: nihonek ene liburutegiko xoko batean lo zegoen Bizkaiko AEK-ren Idazkaritzak duela aspaldi argitaratu zuen *ELE* deitu aldizkariaren 11-12. zenbakian besteak beste Txillardegiren eta Xabier Kintanaren lekukotasunak.

Dena dela gogorazi behar dizuet aita Villasanteren denboretan 1971an ospatu zuela Euskaltzaindiak ospe handitan *Leizarragaren mendeurrena*, baina horrengatik ez zuela belaunaldi berriak bere «euskara batu», «euskara osotu», «euskara estandartizatu», hots bere «euskara berriaren» edo «berrientzat» Krutwigek nahiko zukeen Kalbindar artzain Beskoiztarraren euskalkia onhartu. Alta bada zenbait hilabete zendu aitzin, Enrike Knörr

Euskaltzaindiaren Iker sailburua, Eskualzaleen Biltzar berpiztu berriak gonbidaturik, etorri zitzaigun, 2007ko apirilaren 28an Arabako *Lazarraga*ren paper zahar aurkitu berrien euskara, eta Lapurdiko Joanes *Leizarragarena* konparatzera.

Bego bada une batez bazterrera filologoen auzia, teologia ortodoxoen ala heterodoxoen arteko beste auzi batzuen aipatzeko, zeren eta XX. mendearen hasieran, hots, Azkue eta Broussainen mendean eta Hendaiako bere desterruan, Miguel Unamuno geureak «Kristautasunaren bataila» *L'agonie du Christianisme* frantses erdaraz idatzi zuelarik, aldarrikatu baitzuen, menturaz, jakintza berri batek, *hizkuntzalaritzak* edo *linguistikak* edo espainolek deitzen duten *filologiak* (euskalzain emerito honi barkatuko ahal diozue ez jakitea oraino nola erran behar den ingelesez!) *hizkuntzalaritzak* beraz, iratzarriko zuela XXI. mendean, aspaldian loakarturik zeuden «*philosofia*» eta «*theologia*» klasikoak.

Horra beraz zer izan beharra zen ene biziko lehen partean, 1934eko Piarres Lafitten *Aintzina*-tik Azkue, Lhande, Antxuberro, Lacombe, Lafont, Etchepare, Lekuona, Orixe, Villasante, Iratzeder edo Joxe Azurmendikilako filosofia eta Teologiarainoko eztabaiden abiadura, nihonek Tolosako Institutu Katolikoan 1973ko abenduaren 7an aurkeztu tesiaraino dirauena.

Uztaritzeko eta Baionako seminarioen ondotik eta bigarren *Aintzina*-ren ardura harturik eta horri esker 1945ean *Petite histoire religieuse du Pays Basque* argitaraturik, Jacques Maritain, Etienne Gilson, Georges Bernanos, Emmanuel Mounier eta beste pentsalari eztabaidatu askoren izenak ez nituen arrotz Erromara bidali gintuztelarik Roger Etchegaray ikaskidearekin bizpahiru urteentzat, ondoko urtean, 1946an. Eta 1947ko uztailaren 13an ene laguna Roger Ezpeletan apeztu zuen M^gr^ J. Saint-Pierre Antxuberrok eta egun berean nihaur apeztu ninduen M^gr^ Clément J. Mathieu Hazpandar apezpikuak.

Urte aberatsak izan ziren bi lagunentzat urte haiek; nahiz hirugarren urtean (1948an) zeiharkatu ziren gu bien ibilbideak: hona nola Roger Etchegaray ene lagunak bere oroitzapenetan kondatzen duen bezala (*J'ai senti battre le coeur du monde*, Fayard, 2007), itzuli zen Erromara eta, aita Bidagor jesuita euskalduna zuelarik irakasle, bere doktoregoa Erroman berean ira-

gan zuen apezpiku eta kardinale mailara heltzeko gisan bere aita Etchegaray Batista «Alhur» zenak hil aitzin agindua zioen bezala. Nihonek aldiz teologiako lizentzia Erromako Gregorianan aita Zapelena Iruritako seme jesuita maitagarriak kudeaturik ardietsi nuen 1948ko uztailaren 14ean, «Magna cum laude» notarekin. Zorigaitzez aldi honetan Baionara itzuli orduko salatu zidaten Erromarako bidea trabatua izan zela neretzat behin eta behin, nehoiz aitortu gabe non ziren oztopoak.

Beharrik bainuen nik ere Baionako apezpikutegian eta seminarioan begia atxikitzen baitzidaten Narbaitz, Larralde eta Sorre apaizek ene irakasle ohiek, hiruzpalau urtez ene harat-hunatak Hazparnetik Mauleraino ereman nindutenak Pariserako bidea hartu izan ahal nuen arte.

Baionan, Donostian eta arreba zenarekin Parisen egituraturik, Tolosan Pierre Eyt errektorearekin eta Karlos Santamariaren *Pax Christi-ko* aholkulari René Costekin aurkezturik 1973ko abendoaren 7an, Klaudio Harluxet zenaren gomendioz Montréalen egokitu nuen «Fides» argitaldaria baitan *Le droit des peuples à leur identité* titulupean 1979an eta agortu da geroztik, baina menturaz bere jatorrizko itxuran *Le fondement moral des libertés culturelles* edo Kultura Eskubideen oinarri etikoa «Euskaltzainak» liburu sortan Euskaltzainburu berriak Urrutia Jaunak argitaratu gei du Vatikanoko II. Biltzarrak Teologiari eman dion inharrosaldiak hartze baitu beharbada jadanik haren aitzineko Euskaltzainburuarekin Jean Haritschelhar Jaunarekin prestatu, aurkeztu, argitaratu eta agortu zen ene beste tesiarentzat egin den bezala.

Piarres Broussain Salagoityz idatzi nuen liburuaren edizio berria eskutan duzuenaz geroz hor jakinen duzue noiz, non eta nola idatzi nuen liburu hori eta bereziki nola Ameriketatik itzultzean eta Piarres Lafitten idazkari lanetan hastean ezagutzak egin nituen Jean Hiriart-Urruty eta Goity apezei eta Jean-Pierre Larramendy, Jean-Louis eta Jeanne Idiart Davant-i esker, Piarres Broussain zenaren bi alabekin eta heien familiarekin egunak eta egunak Hazparneko Artxiboetan eta Lehuntza Naguile selauruko kutxetan, bai eta Manu Sotak Euskal Erakustokian Jean Haritschelhar zuzendariaren gomendio zeuden gutunetan biltzeko eta argitaratzeko paperak eta paperak, azkenean denak digitalizaturik daudenak Euskaltzaindiaren zaintzapean.

Azken hitz bat buratzeko erran behar dut lehen «hitza hitz» baldin bazen are gehiago legezainen paperetan idatzia balin bazen, gaur egun behar bada Piarres Larzabalen «Paper mende»-ren ondotik, «Kopia mende» nagusitu zaigulako ez da beti fidatzeko.

Zuetarik norbaitek iturrietara joan nahi badu testuen «Exegesia» edo «Genesia» edo «Hermeneutika» egiteko asmotan Gaztelu Berriko bulegoan Baionan aurkituko ditu tesi honetaz bestalde *Azkue eta Broussainen arteko Elkarrizketa* liburua, Iker 4 gotorra eta ere Baionako Erakustokiko aldizkari batzuetan Jean Haritschelhar Jaun zuzendariarekin edo Jon Casenave adiskidearekin argitaratu genituen beste letra asko *Bulletin du Musée Basque,* Fonds G. Lacombe, N°108-109-110-111; 1985 /1986. etabar. Baina baditugu ere orain ikerle xorrotxak testu horien guztien interpretazio kontrajarriak egiten dituztenak hala nola Iker 22 hartzen baduzu konturatuko zara Jurgi Kintana Goiriena irakasle gazteak *R. Azkueren Pentsaera eta Obra: Intelektuala nazioa eraikitzen* deitzen duen bere Historia Tesian gogorki kritikatzen dituela Hendaiako eta Hondarribiko kongresuez (1901-1902) ezagutzen genituen Villasanteren bertsio «kanonikoa» deitzen duena eta ere Mikel Zalbidek 2003ko «Euskalzaleen Biltzarraren mendeurrenaren» kariara aurkeztu zuen bertsio berria: ikus Jurgi Kintanaren «su gibelekoa»!, 455- 483. orr. Gerokoak gero!

Jean Hiriart-Urruty 1927-1990

LARRE OTXOBI, Emile
Euskaltzain osoa / emeritoa

Hazparne herriko izarretarik bat hau ere: distiratsu bezain ixila, izarrak ixilak diren bezala. 1927an sortua, otsailaren 11an. Garai hartako hazpandar seme dohatuen gehienak bezala erraiteko maneran, apez-eskoletan egin zituen abiadurak, bai eta hunek, bururatu ere: Erroman, teologo-soziologo lizentziaturak ardietsiz. Horien segida Baionako diosesa edo elizbarrutian izan zuen, laster teologia erakasle, gero Hazparneko misionest eta predikari, baina, laster, Afrika ere behar zuen jastatu, Seminario Haundiko apezgaien moldatzailegoa ere utzirik, ainitz sailetarat ere arrakastatsu baita orotako on dena. Horra nola dugun 49 urtetan Elizbarrutiko Bikario Nausi Baionan.

Euskararen sailean, etxetik haste, Hazparnen berean, Hazketa Abitueneko mintzaira xotilari joanen zionik ez izanik nehon, hor ginuen bai Jean Hiriart-Urruty idazlea, lehenagoko Hiriart-Urruty Joanesederraenekoaren hari bereko iloba ttipia, *Gure Herria*, *Gazte*, *Etxea*, *Herria* aldizkarietan irakurriko dena, batean idazle eta maiz zuzendari ere.

1976an euskaltzain dugu hazpandarra, Louis Dassance Uztaritzekoaren segidan «Euskara odolean» zuelarik Lafitte jaunak zioen bezala. Gainerat hor ditugu *Herria*ko Piarres Lafitte beraren hitzak, diolarik hazketarraren lehen liburuko bilduman, nolakoa duen:

> *mintzaira xehe, bizi eta errexa, garbikeriak eta arradokeriak higuin dituela... herriz-herri entzun hizkuntza derabilala doi-doia apaindurik, irakurlea argitu nahiz, eta ez baitezpada hitz arrotzez harritu beharrez.*

Euskera. 2009, 54, 1. 175-181. Bilbo
ISSN 0210-1564

Segitzen ere du Lafittek bere hitzaurrean, erakutsiz Eliza ere hunkitzen duenetan, oraiko kanbiamenduak hor dauzkala aipagarri, ezin ukatuz mende huntako kanbiamenduak: *«Ainitz giristino haztoratuak, durduzatuak»*, baitira kontzilioaren hautu berriak ezin edo nekez konprenituz daudenak, kexu ere orobat zenbait. Horien aitzinean huna zer izan den Jean Hiriart-Urruty apezaren lana: hogei bat urtez *Herria* astekarian idatzi du 1969tik eta 1990 artean, bere asteko artikulua, arras gutitan huts eginez. Lehen bi urteetan, tokian zen Jean Hiriart-Urruty bera izanez kasetaren zuzendari. Gero aldiz, bera joan zelarik Afrika Burundirat, hango seminarioko erakasle (Bujumbura), beti segitu izan du hasi saila epe labur baten buruan. Hortaz erranen du Lafittek berak, nolakoa izan zen gure apez idazlea: *«Beti zentzuz eta goxoki, gauzak haxean ezarriz, zauriak goxatuz eta erakutsiz, nehori oldartu gabe»* ari zitzaiela gorago aipatu ditugun giristino kezkatueri gure mendeko egun inarrosietan.

Artikulu argigarri horiek orok gure apezaren heriotzearekin ukanen dute, egunez egun, beren bururapena. Maiatzaren 7koa da azken artikulua 1990 hartan eta, hain zuzen, bere betiko gazteari zen mintzo Euskaldun Gazteriaren arduradun izanik bera luzaz eta hau zuen bere azken artikulua Bernat Etchepareren hitzak hartuz *«Jalgi hadi plazara»* eta bere azken bi lerroak zituen:

Mugi, ez lotsa! Elgarretaratzeak emaiten dik indar.

Azkenaren azkena berriz, bulego gainean zuen zendu delarik, ondoko astekoa... paper xuri-xuria...

Horiek oro dira, hogei urtetako artikuluak sei liburutan bildurik daudenak, *Jauna dut argi* (I eta II), *Fedea gidari*, *Artzain solas*, *Izar alde*, *Aitaren etxerat*, azken hau Jean eta André bi anaien lanttoz osaturik, beraz familia bereko gai eta jakizkoak hauk ere.

Bera mintzo

Ezagutua da lehenagoko jaun ertoraren eta herriko xantrearena: ez ote zuen lehenak igande batez bazkariz gomitatu xantrea etxeko arnoarekin hastean, hau arinttoa, eta Bordelekoarekin ondarrean! Bainan bigarrenarentzat ele guti gure gizonak, aldiz lehena goretsia zuelarik gain-gainetik.

Eta beste huntaz, ez duzu deus erraiteko? erretorak. Aldiz besteak: *«Hau bera mintzo da Jauna!»* Hori bera erranen du, segurki, liburu hauk irakurriko dituenak ere... bat aurkitzen ahal badu bederen orain hogei urte bezalatsu agertu ziren lan horietaz.

Hain zuzen, gure gaia hola dugun huntan, nahiago eta hobe ginuzke berak mintza diten utzi gure adiskide zenaren obrak. Bat bederen hautatu dugu egungotz, ahoko gostuarentzat, asteroko artikulu horietan. Latza izan zen gaia, egia erran, 1980ko udaberri hartan, noiz-eta gure bi gazte xintxikatu baitzituen Baionako ospitale aitzinean, abertzale urrats ilunetan norbaiten beribilaren pean apailatzen ari zuten bonbak. Berak dio apirilaren 4eko artikulu huntan Jean Hiriart-Urruty apezak nola behar izan zuen gazte horietaz mintzatu. Ez du denen gostua eginen bere hitzetan, orotako moralista batzuek, elizako edo ez, botizkeriaren kondenamendu hotza nahita, bi aldeetakoen errespetua eta helduen erantzukizuna ere hor dela erakutsiz gure gazteriaren arduradunak, dela gazte, buraso eta herria bera hain maite zituen apezak. Baina orotan, betiko neurria eta bihotza. Huna aste hartako gogoetak:

Gure horiek
3-IV-1980

Aste huntako ene hitzñoa, Bazkoko besta ederraz egiteko xedea nuen. Bainan huna nun, joan den asteazken aratsaldean, Baionako ospitalean zartatu den bonbak Euskal-Herri guzia inarrosi duen, lano beltz batez bezala bazterrak estaltzen zituela.

Gertakari horren ondotik, ixilik egoitea litake enetzat errexena. Hoberena ere ba, erranen dautate zonbaitek. Eta bizkitartean, iduritzen zait mintzatu behar dutala, labur bada labur.

Bainan nori mintza? Orok dakiten moldean hil diren bi gazteak gogoan, heien laguneri nahi niokete erran: «Gu bezalako ainitzek, atsegin handi dugu ikusten ditugularik gazte batzu, beren herriari errotik atxikiak, beren indar guziak egiten herria bizi dadin, eta bizi bere baitan dauzkan ontasun guziekin. Hortan, osoki zuekin gaude. Bainan ainitz bagira, zuek

hartu duzuen gogorkeriaren bidea onar ez dezakegunak. Euskal-Herriak bortizkeria ainitz jasaiten duela, egia duzue; bainan bortizkeria horieri armekin ihardokitzea, bazterrak fundituz, jendeen artean beldurra sararaziz, bai eta zonbaiten bizia irriskutan ezarriz, ez zaiku iduritzen molde ona dela. Bestalde, arma guzietan itsuena, ez ote da bonba zuk manatu ez diozun lana eginen baitautzu berdin, behar ez den tokian eta tenorean, zorigaitzez askotan gertatu den bezala».

Holako zerbait nahi niokete erran, bihotz barne-barnetik, aipatu ditudan gazteri. Bainan ez naute entzunen, eta arras ontsa konprenitzen ditut: berriegia dute zauria; heientzat, ene solasen onartzea, galdu dituzten bi lagunen ukatzea litake.

Itzuliko naiz beraz ene adinekoeri buruz. Egun hauetan, aditu ditut Euskaldun xahar batzu, euskal-politikatik arras bazter daudenak. Segur naiz, beste nunbait, hemendik urrun, gertatu izan balitz Baionan gertatu dena, erranen zutela: «Gaixtaginak!». Bainan bi mutikoak nor ziren jakin orduko, kexu eta hasarrearen orde, pena eta bihozmina zaiote sortu ziotela: «Gaixoak!».

Asteazkeneko gau latz hartan, eta ondokoetan ere, hogoi urteko seme edo alaba bat duten aita-ama asko egon dira xifrituak: «Gure hura ez ageri. Nun ote dago? Zer ari da? Norekin dabila». Batek baino gehiagok gogoan erabili duke: «Gure etxean ere, guk uste gabean, beste batzuetan gertatu dena gertatzen ahal.

Nundik has gitazke gu, gazte horien jujatzen? Gureak ditugu, etxekoak ditugu. Aita edo ama batek bere haurra kondena ote dezake? Gaztek derabiltzaten urratsekin ez bagira akort, bereri erranen diotegu, ahal badugu, ahal bezain suharki, gure ikusteko moldea; eta gero, askotan ixilik sofritzea ukanen dugu.

Bestalde, behar ginuke ere naski guhauk egin dugunari edo ez dugunari behatu: guk, adinetakoek nolako mundua preparatu diotegu gazteri? Guk Euskaldunek, zer egin dugu Euskal-Herria bizi eta azkar begiratzeko? Gure haur zonbaiten errabia, ez ote du gure ezazolkeriak sort-arazi?

Eta gero, halako edo hulako bidea makurra edo lanjerosa dela erraitea, errex da. Guhauk zer bide erakusten eta hartzen dugu, gure herriaren alde, bereziki sail batean edo bestean kargu zerbait dugunek?

Familietan, badira heriotze batzu, etxekoen batasuna finkatzen dutenak, aintzinean samurtuak zirenen artean ere; badira beste batzu, haurrideen arteko berexgo eta herrak sekulan baino saminkiago agertzen dituztenak. Bi herritar gazteren galtzeak batetara balitza, herria doi bat maite dutenak bederen!

Aste Sainduak otoitz egitera deitzen ditu girixtinoak. Nola ez sar-araz gure otoitz-xedetan gure bi haurride gazteak, heien etxekoak, Euskal-Herriko gazteria guzia? Bazkori buruz, girixtinoek behar dute, Jesusen ondotik, bizi berri bati lotu. Badugu nun berma.

Gure herria iluntzen duten lano beltz guzien artetik, Bazko bestak pitz dezala bazterretan argi eta esperantza!

Denak ezin erran epe laburrez, alta balaitekeelarik luzatzekoa, ala eguneroko euskara horren distiraz, eta erran-molde alai eta omoretsuez, aski laitezke artikuluen tituluak berak ikertzea, berek emaiten diguten irakur-gosearekin. Huna, lehen liburuan berean dauzkagun batzu: Axalaz axola, Saindu gorriak, ametsetako eliza, Hiltzalea hil? Aita-amen katixima, Lurra apalegi zerua goregi, kameluaren konkorra, Elizan galtzadunak eta oso-osoa herritar gostuz apailatuak aurkitzen ditugun jan-edariak. Ez, ez ditugu egundaino krabata-ttattarretan ezagutu Abitueneko hazketarrak, eta hala-halakoak agertzen zaizkigu beren egintzetan ere guk egungo gaia dugun «Jeanot» huntarik haste, izen horrendako ere ez baitzuen egundaino bururik berotu euskal giroko familia hortako nehork.

Eta etxekoak berak hoin ixil daudenaz geroz, uste dut berek hertsatzen gaituztela, nahi ala ez, gu edo beste norbait, horienen erakustera denaden. Lehenik harrobi batetara bezala ikusi ditugu gure herrietako ainitz apez, erretor edo bikari, gure apez adiskide hunen ganat jotzen. Nork ez daki heldu zen igandeko Ebanjelioaren hitza hartzen zuela maiz bere artikuluaren koplaburuko, zerbait estakuruz edo agerian! Errextasunez, eta herriaren probetxutan, beren emankizuna iturri hortan aberastua, Jean Hiriart-Urrutyren artikulua hartzen zuten, zenbaitek hitzez hitz, beren igandeko predikuarentzat.

Erranen didate bestalde nork edo nork, eta galdea eginen, zer zuen ikustekorik apez euskaldun batek Euskaltzaindiarekin horien guzien artetik.

Lehenik, orok dakitena da apezek herriarekin eta euskararekin beti izan duten lekua. Eta Euskaltzaindiarekin nondik ez, haste-hastetik eta gero. Haatik mundua aldatu da 90 urtez, hortan ere, eta Jean Hiriart-Urruty lagunak hori jakin du, nehork jakitekotz. Nola ez da Euskal Herri huntan goratu, aberastu eta hobetu gure herriko gizon eta emazte argituen kopurua? Eta horren ikusteko, aitzinean ginuen Jean Hiriart-Urruty. Ez dugu hemen gutartekoen salatzerik baina erran behar da nehork baino hobeki ikusi duela, bere denborakotz Jean Hiriart-Urruty batek, utzi behar geniela guk apezek jakintsun erakasle, idazle eta beste gizon emazteeri lehen apezek neurri on batean izan duten lekua, xehetasun gehiago hemen ez emaiteko. Horiek nola, eta huntan bururatuz ene solasa, Jean Hiriart-Urrutyk zintzoki bete du bere euskaldun lekua Baionako elizaren buruan, Pierre Molères apezpikuaren laguntzan. Bere bigarren honen laguntzaz, berak euskara ikasi ondoan Lazkaon eta beste, eta eguneroko eskukaldiak bestalde, hastetik eta beti errespetatu du landestar gotzaiak euskara eta euskal kultura, bai-eta, nihaur naiz lekuko, Donibane Garaziko katekista multxo frantsestu baten aitzinean ere, erranez hitzez hitz, eta han nintzan, berriz ere diot:

> *Zuek, hemen, Garazin, Euskal-Herriko bihotz moldatzaileak, zor diozue zuen herriari, zuen kulturaz katekistek jabetzea, eta bietan, zuen haurren geroa delakotz zuen eskutan.*

Badakit lan zailari lotu zela hor gure Garazin ere zenbaitekin, baina ez zen lotsatu, han edo hemen berak (ez Garazin haatik) zerbait entzun izana gatik ere.

Ez da beraz harritzeko, hemengo hitz hauekin bururatu baitzuen, euskaraz Molères jaun apezpikuak Jean Hiriart-Urruty bere bikari nausiari ehortz-egunean Baionako Eliza Nausian egin zion predikua:

Euskaldun gizon eta apez

Bai, beti xinple eta barna ari zen.

Haren adixkide bati herenegun galdatu diotalarik, zein ziren gehienik erabiltzen zituen gaiak, erran daut: denak hunkitu ditu, girixtino bertute guziak. Eliza berri. Eliza gaurko munduarentzat.

Hori zuten bai jendek pentsatzen! Zenbaitek erran dukete neurriari sobera atxikia zela. Zuhurtziaz eta neurriz betea zen. Gizonaren adimenduari eta girixtino zentzuari mintzo. Herria erespetatuz.

Herria zuen maite, populuarekin zen goxatzen, Jesusen Eliza zuen maite.

Haren idatzia etzen ozpintsu, ez eta eztitsu, bainan gure patarretako arno arin eta goxoa zariola.

Euskaltzaindiak hori ikusia zuen, eta bere kideko hartuz, eskualde huntako idazle hoberenetarik bat sariztatua.

Eztabada gogorrenetan, kenka txar nahasienetan, beti zentzuz ari zen. Euskal kulturaren, euskararen, eta kultura horren Ebanjelioz argitzearen alde. Bainan zuzen den bezala, etzituen nahasten bere apez lana eta politika saila, zoziologian eta teologian jakintzun zenak.

Etzuen nahi Elizaz balia zitezen, Elizarenak ez diren helburuetako: Jainko-Semearen Ebanjelioa zuen zabaldu nahi. Beste frangok baino lehen, ikusten zuen zertarat daramaten ekintza eta solasek. Maizenik arrakasta guti duen dohaina, mende hunek nahiago baititu eztabadak eta izar faltsu batuen dirdirak.

Etzen haren baitan gehiegikeriarik. Maite zuen gauzen xeheki esplikatzea, maite elgarrizketatzea zuzenaren eta bakearen fagoretan.

Zinez gizona zen.

Hazparneko euskara
XVIII. mendeko testu argitaratugabe baten arabera

PADILLA MOYANO, Manuel
Euskal Herriko Unibertsitatea
IKER - UMR5478

Arrastiri on hazpandar eta kanpoko guztiei. Arrastiri on auzapez jauna, Euskaltzainburua eta euskaltzain jaun-andreok. Erran dezadan, lehen eta berriz, zuen artean izaitea eta hemen mintzatzea ohore berezia dela enetako. Eskerrak bihurtu nahi nizkieke Euskaltzaindiaren sortzearen urteurreneko sartzen den ekitaldi honen antolatzaileei bertan parte hartzeko aukera eskaintzeagatik, eta modu berezian Beñat Oyharçabali.

1. Izkribuaren aurkezpena

Joan den urtean Baionan, Euskal Ikasketak egiten nituelarik, Hazparnerekin lotura zuzena zukeen eskuizkribu argitaratugabe baten berri izan nuen, zeinez aitzineko urte batean Annie Lissarrek master lan batean lehenbiziko transkripzio lan bat egina baitzuen. Irakasleekin mintzatu ondoan, hartaz ikerketa berezia eta edizio kritiko bat egin zitekeela pentsatu nuen, eta horretarako lehen urratsak abiatu.

Alderdi fisikotik begiratuaz, izkirioa kaier batean dago, 205 orrialdetan hedatua. Ez da, beraz, testu laburtto eta ezdeus bat: bere 26.800 hitzekin lehen mailako lekukotasuna da, XVIII. mendeko nafar-lapurteraren corpusa emendatzen duena. Eskuz izkribatua da, eta zenbait pasartetan ilunago gertatzen bada ere, letrak ez du konprenitzeko arazo handirik emaiten.

Bi hitz idazkiaren **transmisioaz**. Badakigu Maurice Harriet izkirioaren lehen jabe izan zela. Hil ondoan († 1904) Uztaritzeko apezgaitegira iragan

Euskera. 2009, 54, 1. 183-192. Bilbo
ISSN 0210-1564

zen haren euskal bibliotekaren parterik handiena. Zenbait urteren buruan Etcheverry izeneko apez batek atxiki zuen Uztaritzeko bere gelako armairu batean. Denborarekin Etcheverryk Lafitteri uzteko proposatu zion apezgaitegiko buru zen Matthieu-ri (hazpandarra sortzez, 1931ean apezpiku izanen zena). P. Lafittek Aita Andiazabal egin zuen bere ondasun horren begirale. Duela zenbait urte, azkenean, Aita Andiazabalek eskuizkribu batzuren begiztatzeko utzi zizkion Charrittoni, eta honek IKER-eko ikertzaileei ere erakutsi, eta fotokopiak egitera utzi.

Ibilbide luzexko horretan, alta, era isilean bizi izan da testua. Guk dakigula, Harrietek bakarrik erabili eta aipatu zuen, bere hiztegian izkiriotik ilki zenbait adibide sartuz, *Vie de Jésus manuscrite* deiturapean. OEH-en ere haren aipamena agertzen da (Harrieten hiztegiaren bidez, ikus eskuizkribuan 45. orrialdean agertzen den *uhunbe* hitzaren sarrera).

Anonimoa da lana. Ez dakigu deus egileaz, nahiz apez bat zela aise suposa dezakegun. Lehen orrian **edukia** azaltzen zaigu, izenburu gisara: *Yesu Christo eguiazco Yainco Guizonaren bizia eta heriua laur evanyelista eguiazcuen eta sainduien arabera.* Jondoni Johanesen Ebanjelioaren ordena berean azalduak dira parabolak eta ere gai nagusiak. Zenbait parabola luzaz dira aipatuak, hala nola ogi bihiarena edo haur prodigoarena. Ama Birjinari leku handia eskaintzen zaio, testuaren hastapenean (1-40), bai eta Maria Magdalenari ere, penitent bezala (55-64). Zenbait pasarte garaiko gizarteaz mintzo zaizkigu, zeharka bada ere:

> *Egungo eguneco nescacha dohacabec, Elizaz baino plaza publicuez artha guehiago dutenec […] imitatzen die Andre Magdalena bere bekhatu eta desordretan, baina ez bere conbersio edo itzulmendu admiragarrian, eta orainic are gutiago bere penitenzia famatuian. (55-56)*

Formaren aldetik, testua solasaldi baten itxurapean egituratzen da, Kadet izeneko apeza eta Bettiri haurra elekide izanik. Urrun gara, beraz, debozio liburu zaharretarik, bai eta katixima baten formatik, zeren Aita Kadet eta Bettiri galto-arrapostu eskema mekaniko batera plegatu gabe, malgutasun eta libertate handirekin mintatzen baitira. Gure testua, beraz, aiseago koka daiteke XVIII. mendean indartsu zegoen genero didaktikoan. Gogora bedi garai hartan oinarrizko eskolatzea –Belapeyrek aipatu *ororen eskolak*–

Elizaren begipean zegoela, Iraultza artio bederen, eta euskaraz egiten zela (Oyharçabal 2001). Ekar dezadan hona solasaldiaren bizitasuna ongi islatzen duen pasarte bat (8-9):

> Cadet: *Orai goazin aitzina, Bettiriño, niri deusic behin galde eguin gabe. Artharequin entzuten nuyalaric.*
>
> Bettiriño: *Jauna, barkha zadazut, bainan neure ongui ikhasteco garxuarequin, ez nauque orai berian zuri galde bat eguin gabe: noiz conzebitu zuien bi garren Eva hunec Hirurtasuneco bi garren presuna hura?*
>
> Cadet: *Izpiritu herrebesac emaiten dauc Bettiriño, ene toleatzeco hatz borthiz hori; bainan ez dic irriric eguinen ni samurrarazirik. Virjina guzien lore eta elhorri gabeco arrosa charmant hunec –erran nahi diat Ama Virjinac– erran zangon bezen laster bere enbachadore zerutarrari: Huna Jaunaren zerbitzaria; Ecce ancilla. Zeinac baitzen aurora, edo argui urratze ayros hunen onhexmenduaren marca clarua, istant berian jautxi zuian izpiritu lurreco pharaizu huntara –erran nahi diat Virjina christalenen sabel lastanera– eta hartu zian sabel elhurra baino miliunetan churiago zen eta choilqui eguiazco Jainco batentzat gai eta digno zen huntan odo*[1] *chorta bat. Eta hortaric formatu zitian gorphutz eta arima bat bertze haurrenac bezala, eta guero Hirurtasun Sainduco bi garren presuna jauxi zuian, eta eguiazco guizon eguina guelditu behin bethicotz. Orai contez hiz Bettiriño?*
>
> Bettiriño: *Jauna huntaz contez niz, bainan samur ez bazinite, bertze galde labur bat banuque.*
>
> Cadet: *Phenxatzen diat, Bettiriño, zer galde eguin nahi duian.*
>
> Bettiriño: *Astia zira beraz jauna, zu; galde eguin nahi nautzun eya aita eta semia bera ere etzirenez trailatu ama virjinaren sabelian.*
>
> Cadet: *Hauche duc galde extraordinariua eguin dautayana undarrian, Bettiriño. Uste duca galde suerte guzien arraphostuac eman ere badizaqueyala?*
>
> Bettiriño: *Jauna, ez naiz anhiz penetan jaquintasunez eta arguiez, bainan bai anhizetan borondatiaz. Guzia zure nahian datza. Eta huntaz contentatuco naiz behin, bainan hunen arraphostuia behar dut.*

[1] Horrela izkribuan.

Erran dezakegu, beraz, idazkiaren **garrantzia** bikoitza dela: batetik, Hazparneko euskararen berri ematen digun lehen testua delakoz, nafar-lapurteraren corpusa emendatzen duena; bestetik, euskarazko genero didaktikoaren lekukotasun franko interesgarria delakoz.

2. Izkribuaren kokatze historiko eta geografikoa

Lot gakizkion orai izkirioaren kokatzeari. Zeregin honetan bi irizpide mota desberdin balia dakizkiguke: hizkuntzaz kanpokoak eta barnekoak.

2.1. Datazio irizpideak

2.1.1. Hizkuntzaz landakoak: **ur markak**. Euskarri fisikoaren datatzeko, ur marken ikertzeak franko lagunt gaitzake. Kontu horietan aditua den Koro Segurola andreari eskatu zitzaion paperaren analisia,[2] datu zehatzak eman dizkiguna. Estudio honen emaitzek munta handiko bi datu eskaini digute. Lehenik, XVIII. mendeko papergintzan ezaguna den deitura bat: Ballande familiarena, Gavaudun eskualdekoa. Bigarrenik, papera 1742 baino lehen datekeela egina; beti ere argi utziz kaiera 1742tik geroztik ere izan zitekeela erabilia. Nolanahi ere den, paperaren ekoizte datak XVIII. mende erdira garamatzake.

2.1.2. Hizkuntzaren barnekoak. **Grafia** kontuak datatze zereginetan lagungarri suertatzen bazaizkigu ere, geroko ikertze baterako utziko dira. Bada gure idazkian, halere, beste elementu bat arreta pizten duena: **Larramendiren hiztegiko hitzak**. Ezaguna denez, Larramendi zedarri ezin utzizkoa dugu XVIII. mendean. Bere proiektua euskarari duintasuna itzultzeko Errenazimendutik zetorren eskemari darraikio: 1) apologia, 2) gramatika eta 3) hiztegia. Kontrako usteak hedaturik iraun duen arren, Larramendiren egitasmoaren eragina Iparraldera ere iritsi zen.[3] Hazparneko *Vie de Jesus* honetan *Diccionario Trilingüe*-ko hitzak hatzeman ditugu, erran nahi baita Larramendi

[2] Annie Lissar-i zor diogu ikerketaren urrats hau.

[3] Gogora bedi Eguiateguy zuberotarraren lana, *Filosofo húskaldünaren ekheia* (1785), Larramendiren hitzez josia.

baino lehen lekukotu gabe zeuden hitzak. Bihoaz hiru etsenplu: *abrildu* «immolar, matar en sacrificio alguna res»; *gaindadi* «mysterio»[4] eta *irasenda* «contraveneno, antídoto». Horren arabera, testuak 1745 ondokoa behar luke izan.

2.2. **Kokatze geografikorako irizpideak**

2.2.1. **Erreferentzia zuzenak** Hazparneko herriari. Izan ere, Hazparne da izkirio osoan zehar aipatzen den leku bakarra, Bibliako toponimoez apart. Aipamenak ez dio zalantzari lekurik uzten: *Jendone Joanne Baptista, Hasparneco gure patroin loriosa*. Baliteke idazlea Hazparnetik kanpoko izatea, baina bederen jakin badakigu testua Hazparnen ziharduen eliz gizon batek izan zela izkribatua, bertako jendeari balia zekion.

2.2.2. **Hizkeraren ezaugarriak**. Aztertu dugunaren arabera, idazkiak islatzen duen hizkera bat dator Hazparnekoarekin. Uler bedi: testuaren ezaugarri dialektalak XVIII. mendean kokaturik, koherente dira Hazparneko egungo hizkeraraino heltzeko gertatu diratekeen zenbait aldaketekin, zeren euskalkiak definitzen dituzten isoglosak ez baitira mutaezinak mendeetan zehar, kanbiakorrak baizik.

3. **Hizkeraren oinarrizko deskribatzea**

Atal honetan ez dugu hizkera osoki deskribatuko, interes duten zenbait ezaugarri baizik, bereziki XVIII. mendetik gure egunetaraino aldatu direnak. Jarraik gakizkion Irantzu Epelderen tesiari (2003 : 323):

> *Bonaparteren arabera bost herrik osatzen dute berak «Lekorneko hizkera» izendatu zuenaren lur eremua: Hazparnek, Lekornek, Makeak, Luhusok eta Lekuinek. Hori hala da bere laugarren sailkapena aintzat hartzen badugu, baina horren aurreko sailkapenean, hirugarrenean, seigarren bat ere sartu zuen hizkera horren barruan: Aiherra.*

---

[4] Gure idazki alde batera utzirik, eta, hitz hau luzaz egon zen erabili gabe Larramendik proposatu zuenetik. Corpus Arakatzailearen emaitzen arabera, soilik Manuel Antonio Antia gipuzkoarrak († 1894) baliatu du *(San Frantzisko Asiskoaren bizitza* lanean, 1901ean argitaratua).

3.1. **Fonologia**

Gure testuak islatzen dituen ezaugarri fonologikoak, Hazparneko egungo hizkerarenekin alderatuak (Epelde 2003 : 323-326):

1. *ea > ia*. *Semia* (32), *zenian* (32), *aitzinian* (33), *atheratzia* (33); baina *Semeac* (74), *aitzinean* (110). Erran daiteke erregela hasia zela XVIII. mende erdirako, eta ondoren indartuz joan dela.

2. *oa > ua*. *Jaincuaren* (78), *ahua,* (79), *itxasua* (81). Erregela erregularzki betetzen da, *joan* aditzaren formen salbuespen bakarrarekin.

3. *ua > uia*. *Orduian* (201), *urguluia* (7), *zuian* (201), *templuian* (204); baina *orduan* (24), *urgulua* (22), *templuan* (47). Egungo Hazparnen *ua > üa* gertatzen da.[5]

4. *ue > uie*. *Duien* (70), *zituien* (80), *escuietan* (106); baina *duenian* (70), *zituen* (48), *escuez* (50). Egun, Hazparneko eskuaraz *zuen* adizkiak *ziin* forma eman du. Honako bilakaera proposa genezake: *zuen > zuien, zuin > züin > ziin*.[6] Gure testuan posible dira *duen / duien* edo *zituen / zituien* bezalako pareak. Aldiz, *zuien* beti.

5. *ie > ii* gertatzen omen da Hazparnen zenbait adizkitan. Testuan ez dago bilakabide horren aztarnarik.

6. *o > u / __ sudurkari* erregela indartsu omen dago egungo Hazparnen. Testuan: *hunec* (17), *hunen* (18), *huntan* (22), *undar* (24); baina *guizon* (131), *ongui* (140), *zonbait* (151). Ozen aitzin ere gertatzen ahal da: *hula, hulache*.

7. *ai > ei & i*. Testuan *ai* diptongoak ez du aldaketarik jaso: *baino* (24), *baizic* (26), *Jainco* (28), *saindu* (46). Monoptongazio bat izatekotan, *izan* aditzarena: *hiz, niz*. Halere *naiz*.

---

[5] <u> grafiak /u/ palataldu bat noraino islatzen duen ebaztea ez da hain sinple. Proposatzen dudan bilakabidea: *ua > uia > üia > üa*. Nolanahi ere den, argi dago testua jatorrizko hiatoaren eta egungo formaren arteko urratsaren isla dela.

[6] E. Bourciez-en datuen arabera (Videgain & Aurrekoetxea, 2004), Hazparnen XIX. mende bukaeran *zuen / zien* posible ziratekeen.

8. Hasperena. Bizi-bizirik zirauen testuaren garaian, bai eta ozen ondoan ere: *senhar* (31), *janhari* (41), *onhesten* (42), *ilhunbe* (187), *elhorri* (8), *zilho* (35), *garhaitu* (26), *orhoizten* (30), *urhaxa* (46).
9. Herskari hasperendunak. *Pharaizu* (7), *gorphutz* (9), *aphezac* (14), *ethor* (15), *othalaco* (15), *batheyatua* (20), *ikharatu* (24), *ikhusten* (27), *lekhuco* (30). Hots aspiratuek, beraz, indartsu zirauten XVIII. mendeko Hazparnen; badakigu historikoki gibelerat egin dutela, eremua ttipituz. Ikus Michelena 1977).

3.2. **Morfologia**

3.2.1. *Izen morfologia*

1. Datibo plurala. Polimorfismo nabaria dugu testuan, *-ei* (12 agerraldi), *-erri* (33 agerraldi) nahiz *-er* (6) akabantzak txandakatzen baitira. Egungo Hazparnen ekialdetik hedatu datekeen *-er* gailendu omen da.
2. Genitiboaren adiera destinatiboa, oso aldi bakanetan: *Jauna, gure hoberena da aitzina joaitia gure khondaira sainduian, mamu gaitxex-garrienen hoc bere guisa utziric* (143); *istantian hequientzat eta mundu guziarent* (173).
3. Soziatiboan *-(are)quin* baizik ez dugu. Ez dago *-kila(n)* bezalakorik testu osoan.
4. Erakusle pluraletan *hok* eta *hek* ditugu testuan, egun bezala.
5. Pertsona izenordain enfatikoetan *nihaur* sailekoak baizik ez ditugu ikusten. Arrastorik ez, beraz, *neroni* bezalako formen.

3.2.2. *Aditz morfologia*

1. *-tu* partizipio marka aspektua adierazteko *izan* edo *egon* bezalako aditzetan: *izatu* (6, 29), *egotu* (32).
2. *-(tu)ren* erako futuroak. *-N* eta *-l* akabatza duten aditzei, espero bezala, *-en* genitibozko morfema eransten zaie; *-tu* /*-i* partizipioek bai

-ko, bai *-ren* morfemak onartzen dituzte: *deithuco* (49), *ikhusico* (34) nahiz *deithuren* (2), *ikhusiren* (67). Hauez gain *izaren* (73), *ukharen* (100) eta *joaren* (64) bezalakoak ere badira.

3. *Ukhan.* Egun Hazparne aldean aditz perifrasietan erabiltzen bada, *izan*-en lekuan *(egin ukhan dut)*, gure testuan *ukhan* aditz nagusi gisa baizik ez da azaltzen. *Ukhan*-en hedakuntza, beraz, berria da.

4. Nor-nori adizkietan *-au-* da erro nagusia, ez bakarra: *zaut* (95), *zauc* (165), *zautac* (1) baina *zaizquit-zu* (76), *zayon* (188). Iduri luke *ai* gertatzen dela objektu plurala delarik edo 3. pertsonako datiboari eransten zaiola, baina ez beti: *zacoc* (195).

5. **eradun* ez da aukera bakarra forma tripertsonaletan, zeren datibo 3. pertsonakoa denean posible baitira *diot, diotet, nion, zion* bezalako adizkiak, Hazparneko hizkera modernotik desagertuak.

6. Polimorfismo nabarmena aditz laguntzaileen joskeran: *comeni zitzaion* (65) / *abiatu zangoyan* (121); *erran baitzion* (138) / *erran zangoyan* (19).

7. *-ke-*dun adizkiak *realis* moduetan: *Bichta hedatzen baitzen hasteric gabe finic ezduqueyen mugarri-taraino* (156); *Ez duquetela arrazoin asquiric bere erori-cuetan Debruaren accusatzeco* (129).

8. **in* aditza. *Jauna, erakhux ezaguzu edo iguzu* (109); *Aita, gure onthasunac phartituric indazu eni neure phartia* (118).

9. **edun*-en gaineko subjunktibo zaharra. *Dugun ikhus eya ni ala zuiec trompatzen othe guiren* (142).

10. **iron*-en adizkiak. *Zeren guizon itxu eta guezur khoyec ez baitiote correi, eta gutiago arranya, Izpiritu Sainduiaz eguin, erran, eta arranyatuiac diren gauza sacratu hoc* (62).

3.4. **Sintaxia**

1. Perpausen hedadura nabaria. Anitzetan puntuazio kaotikoak franko zailtzen du testuaren endelgatzea.

2. *-a* galdera marka bere-berekoa du testuak. Gaur egun Uztaritze aldean ez da baliatzen, Itsasutik ekialdera arrunta delarik.
3. Erlatiboa eskuinean ager daiteke, batzutan distantzia handiz: *christau bere beharra eta eritasun tristia ezaguturic, humilqui legue berrico putzu edo piscina puyant huntara bere osagarriaren onduan yinen direnac* (144). Usantza zaharra da hau, dudarik gabe (ikus De Rijk, 1979).
4. «Artikulu zehazturik gabeko superlatiboa» deit genezakeen egitura bitxi bat arrunt agertzen zaigu: *berri ondicuezen hau* (14), *ama lastanen hau* (17), *izpiritu gaitzex garrien hau* (26). Iduri luke superlatiboaren gainean eraikia dela.
5. *-ra + izan* mugimenduzko erranahian: *Capharnaura zenian* (114), *etchera denian* (116).

4. Azken hitza

Aurkeztu dugun izkribuaren ezaugarriak kontuan hartuz, iduritzen zaigu interes bizikoa dela:

– Hazparne aldeko euskararen lekukotasun zaharrena litekeelakoz.

– Nafar-lapurteraren corpusa emendatzen duelakoz.

– Euskarazko irakaskintzari lotu generoan koka daitekeelakoz.

– Haren hizkuntza baliabideek (eratorpena, mailegutza, aditza…) ikerketa saio bat merezi luketelakoz.

– Larramendiren eragin zuzena erakusten duelakoz.

Honengatik guztiagaik uste dugu Maurice Harrietek aipatu zuen *Vie de Jesus* (nahiago bada *Cadet eta Bettiri)* izeneko idazki anonimo honek ikertze sakonago bat merezi lukeela, zeinaren ondorioz edizio kritiko bat sortuko bailitzateke.

Aipamenak

DE RIJK, R. 1979. «Erlatiboak idazle zaharrengan». *Euskera,* XXV.

EPELDE, I. 2003. *Larresoroko euskara.* Doktorego tesi argitaragabea. Vitoria-Gasteiz: EHU.

LAKARRA, J.A. «Larramendiren hiztegigintzaren inguruan». *ASJU* XIX-1, 9-50.

LARRAMENDI, M. 1745. *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín.* Donostia: Bartholomé Riesgo y Montero. Berrarg. faksim. Donostia : Txertoa, 1984.

MICHELENA, L. 1977. *Fonética Histórica Vasca*. 2. arg. Donostia: *ASJU*-ren gehigarriak 4.

OYHARÇABAL, B. 1999. «Euskarazko irakaskintzaren historia ororen eskolen ildotik, Iraultzaren frantses garaiko eskola liburuxka bat». *Lapurdum,* IV, J. Haritschelharren omenez, 81-105.

——— 2001. «Zenbait gogoeta euskarak letra hizkuntza gisa izan duen bilakaeraz (XVII-XVIII. mendeak)». *Litterae Vasconicae,* 8, 9-46.

SARASOLA, I. 1986. «Larramendiren eraginaz eta». *ASJU* XX-1, 203-215.

VIDEGAIN, X. 2005. «Présentation du recueil Bourciez». *Lapurdum,* X, 315-324.

VIDEGAIN, X. & AURREKOETXEA, G. 2004. *Bourciez-en «Recueil des idiomes de la région Gasconne» bildumako euskal testuak.* On line: http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/08/05/48/PDF/Haur_prodigoa_testuak.pdf

Hazparneko euskaraz bi hitz[1]

DUGUINE, Maia
(UPV/EHU & Université de Nantes)
maia.duguine@ehu.es

Idazki honetan, Hazparneko euskara ukitzen duten zenbait gai aipatuko ditut. Helburua arrunt xumea dut: interesgarriak iruditzen zaizkidan Hazparneko mintzoaren alderdi batzuk aurkeztu nahi ditut, gaur egun hizkuntzalaritzan egiten den lanarekin perspektiban jarriz.

Lehenik, Hazparneko euskararen soziologiaz eta horren inguruan ikus daitekeen ideologiaz mintzatuko naiz, laburki. Ondotik, tokiko mintzoa bera nolakoa den ulertzeko pista batzuk irekiko ditut. Dialektologiaren ikuspegitik nola definitzen den ikusi ondotik, ezaugarri batzuk aurkeztuko ditut, gaur egun ezaugarri horietaz dakiguna laburki azalduz. Amaitzeko, geroari begira, irekiak diren aukera batzuk aurkeztuko ditut.

I. Hazparneko euskaldunak eta Hazparneko euskara

Hazparneko euskaldunez eta bertako euskalkiaz mintzatu aitzin, hizkuntzaren egoera soziolinguistikoaz zenbait hitz erran behar dira. Ongi jakina

[1] *Euskaltzaindia* eskertu nahi nuke, bai eta Aurelia Arkotxa eta Beñat Oyharçabal ere, erakundearen 90. hamarkadaren karietara Hazparnen hitzaldi bat ematera gonbidaturik, eta artikulu gisa *Euskera* agerkarian argitaratzeko posibilitatea emanik. Eskerrak ere Jon Artzari, Aritz Irurtzuni, bai eta Eusko Jaurlaritzak Hizkuntzalaritza Teorikorako Taldeari (HiTT) emandako GIC07/144-IT-210-07 dirulaguntzari, MCINen FFI2008-04789/FILO proiektuari eta ANR-eko TSABL proiektuari (ANR-07-CORP-033) ere.

den bezala, azken hamarkadetan euskararen ezagutzak eta erabilerak beherakada izugarria jasan dute ipar Euskal Herri osoan (ikus Coyos 2007, Eusko Jaurlaritza 2008).

1996tik 2006ra Eusko Jaurlaritzak egin inkesta soziolinguistikoek argi uzten dute elebidunen proportzioa orokorki jaisten ari dela:

1. taula. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. Iparraldea, 1996-2006 (%)

	16 urte edo gehiagoko biztanleriaren elebidunen ehunekoa		
Hizkuntza-gaitasuna	*1996*	*2001*	*2006*
Elebidunak	26,4	24,8	22,5
Elebidun hartzaileak	9,3	11,7	8,6
Erdaldun elebakarrak	64,2	63,5	68,9
Guztira	212400	221600	230200

Iturria: *IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza*. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Hazparne, bistan da, ez da joera horretatik kanpo gelditzen; transmisioaren atzerakada egunero ikus daiteke bertan ere. Biziki euskalduna zen herri honetan, gazte guti entzuten da orai euskaraz karrikan. Baina nola esplika aldaketa hori? Zergatik gizartea frantsesera lerratu da, edo lerratzen da? Ez naiz hemen analisi soziolinguistiko batean sartuko, baina Hazparneren eta hazpandarren ezaugarri batekiko lotura egin nahi nuke. Hazparne, inguruetako herririk handiena da. Gainera XIX. mendeko bigarren partetik XX. mendeko hastapenera, zapatagintza industria garrantzitsu bat garatu da, familia handiak agertu dira, eta biztanleen egoera ekonomiko orokorra hobetu da.

Historia berezi horren ondorioa den ala ez, ez da argi, baina inguruko herrietan hazpandarrak handikariak, hantusteak direlako iritzia hedatua da, eta gaur egun oraino dirauen trufa bilakatua da: «hazpandar horiek, zer handikariak!». Hantuste hori dela eta, pentsa liteke hazpandarrek jende xumearen hizkuntza, hots euskara, baztertu dutela 'handien' hizkuntza, erran nahi baita frantsesa, berenganatzeko.

Bitxiki, hipotesi honen aldeko datuak aurki daitezke, modu irrigarrian planteaturik, Telesforo Monzonek 1966an idatzi *Hazparneko anderea* an-

tzerkian. P. Lafittek dionez (1990), Molière-ren *Les femmes savantes* komediaren izpirituan idatzitako obra da hau, eta honela deskribatzen du 'Hazparneko anderea', hots, Geaxine pertsonaia: «andere hori ez da segur nor-nahi; moko fier bat bethi bai, bere familiaren ohoreaz ezinago hartua: bere senhar amerikanoaren fortuna ez askiz, handi-mandiarena egin nahi du eta «markisa» tituluaren ondotik dabila, irri-egingarri bilakatu beharrik ere».

Baina horrelako izaera edukitzeaz gain, Geaxinek hizkuntzari buruzko ideia argiak ditu. Begira adibidez ondoko pasartea. Geaxinek Mayi bere alaba markisarekin ezkondu nahi du, eta eszena honetan, Geaxine, Panpilli bere senarra eta markesa zaldiz dabiltza. Senarra Geaxineri euskaraz mintzatzen zaio. Hona hemen honen erantzuna (eta nik egin euskararako 'itzulpena'):

(1)

GEAXINE – Né mé parlé pa an bask
Ké ask!
Parlé moi de txebal
De golf é de tenis
Kom le fon lé markis
Mé né mé parlé pa
Txebusanpri de kuis
Sé né pa le langax
De un markis!

(1') '*Itzulpena*'

Ez zaitzaizkidala euskaraz mintza
Ze higuina!
Mintza zaldiez
Golfaz eta tenisaz
Markesek egiten duten bezala
Ez zatzaizkidala mintza
Otoi, izterrez
Hau ez da
Markesa baten hizkera!

Hemen, Geaxine frantsesez mintzatzen da. Ortografia nahasia erabiliz, Monzónek hizkuntza hori gaizki erabiltzen duela adierazten du. Bistan da, egile honen hutsegite batzuk begi-bistakoak dira; egia erran, hazpandar bat baino gehiago, espainol bat imajinatuko genuke hitz horien erraile (*ke ask* gaztelaniazko *que asco* daiteke, 'frantsesturik'; gisa berean, euskaldun batek *cheval* ez luke *txebal* ahoskatuko, baina *xebal*, eta abar). Hala ere, hemen islatzen den ideologia interesgarria da: euskara ez da markesa batek, ez eta Geaxine bezalako markesa-nahi batek erabil dezakeen hizkuntza: okaztagarria da.

Ikus dezagun beste pasarte bat. Ondokoan, Geaxinek Panpilliri Mikolasa sehiari kexatu zaiola adierazten dio. Hona elkarrizketaren jarraipena:

(2)

PANPILLI – ... Zer egin du?

GEAXINE – Zer egin? Mayi gure alabari eztio ba, nere aintzinean hol-hola erran: Mayi?

[...]

MIKOLASA – Nola erran behar nion ba?

GEAXINE – Gu bezalakoen alaberi erraiten zaien bezala: Mamasel.

Berriz ere ideia bertsua azaleratzen da Geaxineren hitzetan. Haiek bezalako goi mailako jendeari mintzatzerakoan, hauen maila soziala errespetatu behar da, baina gainera errespetu hori frantsesez adierazi behar da: horrela, alabari *mademoiselle* erran behar zaio. Berriz ere, Geaxine hantusteak frantsesa hobesten du.

Hazpandarrak Geaxineak ote dira? Euskaldun izateaz lotsa ote dira? Hipotesi honek euskararen atzerakadaren azalpenaren parte bat eskaini dezake, baina ez azalpen osoa. Lehenik, ezin liteke hipotesi hau Hazparnerekin bakarrik lotu, euskararen ezagutzaren eta erabileraren beherakada Ipar Euskal Herri osoan egin delako. Baina partikularki, ondoko galdera egin behar da: hazpandarrak egiazki besteak baino hantusteagoak ote dira? Ala ideia hau ez ote da eskualde guzietan gertatzen den herrien arteko betiko lehiak ekarritako beste aurreiritzi bat?

Ene asmoa ez baita erantzun baten proposatzea, galdera irekia utziko dut hemen, eta Xalbadorren 1972ko bertso batzuk ekarriko ditut eztabaidara. Mattinek kantatu bertso trufari batzuei erantzun gisa egin zituen:

(3) Zendako debru ari zerate pundu berekilan teman?
Gaurko egunean behar gintuzke puskat goraxau ereman
Zendako debru balio gabe diren solasak guk erran?
Hazparne'k merezi duenikan gaur ez baitakogu eman.

Bazkal-ondoan gaur izan dira pertsu haitada beroak,
Eta Hazparne'k argi ditzala oraikoak ta geroak.
Hazparne galtzen ari zaukula hor mintzo dira eroak,
ez, ez, Hazparne'k oraino bizi ditu eskualdun erroak.

Gure Jainkoak banatzen baitu behar denean grazia,
eta Hazparne ez du oraino arras debalde utzia.
Mediku on bat bada ber'ustez haren sendatzen hasia,
eta mera're bere alde du, etxian dauka farmazia.

Mattin, ez laike kantatu behar sekulan besten berririk,
bertzen bihotzak dauden lekuan uzteko geldi-geldirik.
Otoi, Hazparne, zuk erradazu ez duzun kusten argirik?
Baldin Hazparne itzaltzen bada, ez dugu Eskual-Herririk.

Ene bihotza agertzen badut ez naizazuela gaitzetsi,
berroi ta zazpi urte baditut, egi erten behar hasi.
Orai artean debaldekoa izan da ainitz garrasi,
gazte maiteak, segi zazue, nehoiz ez zazuela etsi.

Zonbaitek berdin erranen dute gu ez garela perestu,
erabiltzen ditugulakotz hal-hulako zonbait jestu.
Bainan Hazparne maitagarriak hortan hobenikan eztu,
idai desberdin izanagatik ibil zaizte eskuz-esku.

Gauza hau ikusiko balute gure arbaso lehenek:
Len etzukean holakorikan, zer debru derasa hunek?
Beren herria zain dezatela han sortu diren gizonek,
irririk nehoiz egin ez dezan ifernuan den Satanek.

Telesforo Monzónen antzerkiak, hor gaindi Hazparnez eta hazpandarrez entzuten dena islatzen du, eta eskualdea ezagutzen dutenentzat irrigarri egiten da. Haatik, irudi horrek errealitatea ere islatzen ote duen, hori ez da argi.

Hizkuntzaren alderdi soziologikoa horretan utzirik, ondoko atalean hizkuntzaren izaerara itzuliko gara. Horrela, Hazparneko mintzoa euskalkien artean nola kokatzen den ikusiko dugu.

II. **Hazparneko euskara: sailkapena**

Zein da Hazparnen mintzatzen den euskalkia? Euskal Herriko mapan, Hazparne Lapurdin kokatua da, baina ekialdean Nafarroa Beherearekin mugan da. Nafarroa Behereko hainbat herrirekin gainera, tradizionalki, kulturalki, eta geografiak eraginik ere, harreman hertsiak ditu, Aiherra, Isturitze, Bastida eta Lekuinerekin adibidez.

Bonaparte Printzeak egin euskalkien sailkapenean, Nafarroa Beherearekiko hurbiltasun hori islatzen da. Horrela, Hazparneko mintzoa 'mendebaldeko behe-nafarrera' multzoan sartzen da, Baigorrikoarekin. Baina ez da hala ere haustura handian Lapurdiko ekialdeko eta erdialdeko herrietako mintzoengandik: adibidez, Bonapartek mendebaldeko behe-nafarreraren multzo horretan berean kokatzen du Uztaritze.

Hortaz, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko mintzoen nahasketa edo 'mutante' bat ote da Hazparneko euskara? Ez, hau ez litzateke deskribapen egokia. Dialektologiak erakutsi digunez, anitzetan hizkeren arteko mugak ez dira zehatzak, eta, dirudienez, hori da hemen duguna. Horrela, Caminoren (2004) lanak erakusten du Hazparneko euskarak ez duela desberdintasun handirik ekialdean dituen mintzoekiko. Gisa berean, Epelderen lanak (2003, 2004) erakusten du mendebaldeko mintzoekiko ere desberdintasun tipiak dituela. Hau da, Hazparneren ekialdetik mendebaldera (edo alderantziz) aldaketak mailakatuak dira, ez baita muga dialektalik, eta Hazparneko mintzoa, naturalki, tarteko posizio horretan gertatzen da.

Horrek Zuazok (2008) egin sailkapenera eramaten gaitu. Hizkuntzalari honek, euskalkiak eta azpieuskalkiak bereiz ditzagun proposatzen du. Proposamen honetan, euskalki bat, Nafar-Lapurtarra, Lapurdiko kostatik Nafarroa Behere osora hedatzen da, eta bi azpi-euskalki ditu: sartaldekoa eta sortaldekoa. Bi hauen artean, tarteko eremu bat bada, Uztaritze, Jatsu, Haltsu eta Kanbo herriekin, besteak beste. Sailkapen honetan, Hazparneko mintzoa, nafar-lapurteraren sortaldeko multzoan kokatua da, baina tarteko eremuan diren Kanbo, Haltsu eta Jatsu herrien mugakide izaki, nolabait ez da sartaldeko mintzoetatik urrun.

Ondoko atalean, Hazparneko euskararen 'ezaugarri' batzuk aurkeztuko ditut, hauetaz dakiguna laburki azalduz.

III. **Hazparneko euskara: ezaugarri batzuk**

Aitzineko atalean erran bezala, Hazparneko euskara arrunt erdikoa gertatzen da nafar-lapurteraren eremuaren baitan. Horrengatik, guti dira gramatikaren aldetik bereziak eta bereizgarriak izanen diren ezaugarriak. Hau dela eta, atal honetan aurkeztuko ditudan lau hizkuntza-fenomenoetatik bat ere ez da Hazparneko euskaldunengan bakarrik entzuten. Areago, 'Hazparneko eskualdea' deitzen den horren mugen bestaldeko aldakietan ezaugarri dira ere.

Hainbat arrazoirengatik hautatu ditut lau fenomeno horiek. Alde batetik, gehienak euskalaritzan guti deskribatuak direla iruditzen zait; honenbestez, toki tipi hau eskaini nahi diet. Bigarren arrazoia aitzinekoari lotua da: guti ezagutuak direnez, irakurleentzat berritasun interesgarri bat izan litezkeela uste dut. Eta hirugarren arrazoia berekoia da: hizkuntzalari gisa, 'bitxikeria' hauek aspaldidanik ene kuriositatea kitzikatzen dute, eta bereziki interesgarriak iruditzen zaizkit. Ikusiko dugunez, hizkuntzalariak hauetako batzuen ikertzen dabiltza gaur egun. Hortaz, artikulu hau, egiten ari den lanaren aurkezteko plataforma gisa ere erabili nahi nuke.

Erran bezala beraz, lau fenomeno aurkeztuko ditut hemen, bat fonetikaren alorrekoa, besteak joskerari lotuak. Lehenik, Hazparneko eta inguruetako herri batzutako ezaugarri fonetiko bat ikusiko dugu: *ü* soinua. Ondotik,

komunztaduraren 'desagertzeaz' mintzatuko gara, zehar osagarrien (edo datiboen) komunztadura eza ikusiz. Hirugarrenik, 'bai/ez' galderak *-a* formako atzizki batekin eratu daitezkeela ikusiko dugu. Amaitzeko, Hazparne eta inguruetako barietateetan, bestelako galderen eraikitzeko bi manera direla ikusiko dugu: *galdera estandarrak* eta *galdera indartuak* bereiziko ditugu.

a. **ü soinua**

Has gaitezen fonetikarekin, hots, soinuekin. Euskaraz, *ü* grafiarekin idazten dugun soinua Zuberoko aldakiari lotzeko ohitura dugu. Euskalariak aspaldian ohartuak dira haatik, Zuberotik urrun, Lapurdiko ekialdea dei genezakeen eskualdean, hurbila den soinu bat entzuten dela; eta Hazpandarrengan atzeman daitekeela besteak beste (P. Charrittonek (1985) P. Broussain aipatzen du).

Gainera, zubererarenak ez bezalako ezaugarriak ditu soinu honek. Alde batetik, artikulazioa ez du arrunt berdina: Epeldek (2004) dionez, ez dirudi Zuberokoa bezain palatalizatua. Ondotik, ez da batere kasu beretan agertzen: Hazparnen eta inguruetan, *ü* soinua *u* + *a* motako elkarketetan gauzatzen da (asimilazio prozesu bat da).[2] Har dezagun *gatu* izena lehen adibide gisa. Izen honi *-a* artikulua gehitzerakoan, *u* soinua *ü* bilakatukoa da: *gatüa*. Gisa berean, *galdu* aditzari artikulu bera gehitzen bazaio partizipio gisa erabiltzerakoan, *galdüa* ahoskatuko da.

Azpimarratu behar da arau fonetiko hori desagertzen ari dela, eta gaur egun belaunaldi gazteenei bakan entzuten zaiela horrelakorik Hazparnen.

b. **Zehar osagarriarekiko komunztadura**

Euskaraz aditzaren flexio-morfologia aberatsa dela erran ohi da. Bereziki, aditz laguntzailea bere argumentuekin, hots, ergatiboz, absolutiboz eta/edo datiboz markatuak diren subjektu eta osagarriekin jokatzen da. Hau ondoko adibidean itxuratzen da:

---

[2] *u* + *a* elkarketetan bokalen gauzatze fonetikoa moldatzen duten (beste motako) prozesuak badira ipar ekialdeko beste mintzo anitzetan ere (ikus Hualde 1991: 181, Epelde 2003, 2004).

(4) Nik haurrei afaria prestatu *diet*.

Perpaus honetan, *diet* aditz laguntzailea *nik* ergatibozko subjektuarekin, *haurrei* datibozko zehar osagarriarekin eta *afaria* absolutibozko osagarri zuzenarekin jokatua da. Hori dela eta, zehar osagarririk gabeko perpaus batean, aditz laguntzailearen forma desberdina izanen da, komunztadura marka bat gutiago edukiko duelako. Horrela, azpiko esaldian, aditz laguntzaileak forma desberdina du, ez delako zehar osagarri batekin jokatzen:

(5) Nik afaria prestatu *dut*.

Bestalde, komunztadura baitezpadakoa da: aditza, perpausean dituen argumentu guziekin jokatu behar da. Hortaz, ondoko perpausak ez dira gramatikalak, adibidez:

(6) *Nik afaria prestatu naiz.

(7) *Nik afaria prestatu da.

Hau da, aditza ezin da argumentu bakar batekin jokatu bi dituelarik perpausean. Hala ere, Hazparneko euskaldunengan (eta orokorkiago ekialdeko mintzo askotan), ondokoa bezalakoak entzun daitezke:

(8) Nik haurrei afaria prestatu *dut*.

Hemen, aditz laguntzailea (5)ekoa bezalakoa da, erran nahi baita, subjektuarekin eta osagarri zuzenarekin jokatzen da bakarrik. (8) erabat txarra irudituko zaie beste euskalki bat mintzatzen duten hiztunei; baina jakin behar da (4) eta (8) gisako egiturak, biak onak direla Hazparnen (eta ekialdeko mintzoetan oro har; ikus Etxepare 2010 eta bertan eman erreferentziak).[3]

---

[3] Schurhardt-ek (1992: 266), Azkuek Hazparnen ondoko esaldi bitxia (*frase «estrambótica»*) entzun zuela dio:

(i) Gizon hori mila libera zor dut nik.

Hemen, ez da zehar osagarriarekiko komunztadurarik, baina gainera osagarri hau ez da *-ri* datiboarekin markatua ere. Hala ere, ez dut uste hau adibide adierazgarria denik: hazpandarrei berei arrunt *bitxia* egiten zaie.

Iduri luke beraz zehar osagarriarekiko komunztadura hautazkoa dela hiztun hauentzat. Hala ere, nola ez, gauzak ez dira hain sinpleak. R. Etxepare eta B. Oyharçabal ikerleek daramaten lanak erakusten du zehar osagarriarekiko komunztadura ez dela hautazkoa: (4)ko eta (8)ko perpaus motak onak badira ere, kasuan kasu, komunztadura eza edo komunztaduraren presentzia bestea baino hobea izan daiteke, edo aukera bakarra. Adibidez, Etxeparek (2010) erakusten du zehar osagarria anafora bat delarik, orokorki ez dela komunztadurarik egiten:

(9) Bakea eman dezagun elgarri.

(10) Maizegi dugu gure buruari galde egiten.

Haatik, datu hauekin paraleloan, beste kasu batzuetan komunztadura beharrezkoa dela erakusten du; hau gertatzen da *gustatu* bezalako aditz psikologikoekin adibidez:

(11) Mireni ez zaio gustatu.

(12) *Mireni ez da gustatu.

Bestalde, Etxepare eta Oyharçabalek (2008) beste fenomeno batekiko lotura interesgarri bat egiten dute. Ipar ekialdeko hizkeretan, besteetan ez bezala, *-ri* datibo markak (zehar osagarria markatzen duenak) erabilera zabala du. Hau azpiko adibideek itxuratzen dute: datiboa, espazio harremanetan (13), aditz aspektualen osagarrietan (14), aditz atelikoen osagarrietan (15) edo postposizio konplexuetan (16) ager daiteke:

(13) Erretora badoa atearen gakoa*ri*. (P. Larzabal, *Lan guztiak*)

(14) Jostea*ri* lotu da.

(15) Atea*ri* jo.

(16) Paretа*ri* kontra.

Etxeparek (2010) hau guztia frantsesaren eraginaren ondorio bat izan litekeela iradokitzen du. Zehazkiago, frantsesaren *à* preposizioaren jokamoldearekiko moldatutako aldaketa dela proposatzen du; hala izaki, frantsesaren eraginak euskalki hauetako datiboaren jokamolde orokorra azalduko luke.

Aipatu datiboari buruzko lan honek bezala, beste lan batzuk gaur egun ipar Euskal Herriko mintzoetan ikus daitezkeen aldaketa zenbait frantsesarekiko kontaktuak eraginak izan litezkeela iradokitzen dute (ikus adibidez Duguine & Irurtzun 2010). Honek, hizkuntz-aldaketaren ulermen eta azalpen egokiak erdiesteko bidea irekitzen du, ikerketarako bide berri bat irekiz (ikus ere Epelde & Oyharçabal 2009, hizkuntza aldizkatzeaz).

d. **Galdera-erantzun indartuak**

Aurkeztuko ditudan azken bi fenomenoak galdera-erantzun pareetan agertzen dira. Lehena 'galdera-erantzun indartuen' fenomenoa deitzen da. Fenomeno hau zer den ulertzeko, har dezagun galdera-erantzun pare estandar bat, eman dezagun (17)koa:

(17) A: Nork jan ditu gereziak?
B: Haurrak jan ditu gereziak.

Bi perpaus hauetan, *nork* galde-hitza eta *haurrak* galdegaia (erantzuna ematen duen hitza) *jan ditu* aditz multzoaren ezkerreko gunean agertzen dira. Hau euskararen gramatikaren arau orokor bat da; ondoko adibideak erakusten duenez, galde-hitza edo galdegaia perpauseko beste osagai bat izanik ere – hemen osagarri zuzena –, gune horretan agertuko da:

(18) A: Zer jan du haurrak?
B: Gereziak jan ditu haurrak.

Euskarazko galdera eta erantzun estandarretan honako araua dugu beraz: galde-hitza edo galdegaia aditz multzoaren ezkerrean agertzen da.

Hazparneko barietatean, haatik, egitura estandar honen ondoan beste bat dugu: 'egitura indartua'. Hau (19)ko elkarrizketan itxuratzen da, (17) koaren parekoa litzatekeena:

(19) A: Nork ditu gereziak jan?
B: Haurrak ditu gereziak jan.

Hitz ordena, hemen, desberdina da: galde-hitza/galdegaia ez da aditz multzo *oso*aren ezkerrean, baizik eta aditz *laguntzaile* soilaren ezkerrean.

Interesgarria dena, bestalde, ondoko hau da: egitura estandar eta egitura indartuek ez dute baitezpada esanahi ber-bera (ondoko eztabaida Duguine & Irurtzun (2008) lanean oinarritzen da). Har ditzagun berriz ere bi galdera motak:

(20) Nork jan ditu gereziak? *Egitura estandarra*
(21) Nork ditu gereziak jan? *Egitura indartua*

Nehork gerezirik jan ez duen egoera batean (20) galdetu daiteke, baina (21) galdetzea nolabait desegokia litzateke. Honen arrazoia ondokoa da: (21)eko galdera egiten duenak, norbaitek gereziak jan dituela inplikatzen du; hots, galdera *aurresuposizionala* da. Erran nahi baita (21)en erabilera egokia izanen dela bakarrik egia baldin bada norbaitek gereziak jan dituela.

Egitura indartuen beste berezitasun bat galdegai egituretan azaleratzen da. Horren ikusteko, har ditzagun galdegai egitura estandarra eta galdegai egitura indartua:

(22) Haurrak jan ditu gereziak. *Egitura estandarra*
(23) Haurrak ditu gereziak jan. *Egitura indartua*

Eta har dezagun ondoko egoera. Imajinatu gerezi saski bat genuela, eta gerezi kopurua tipitu dela. (22)koa esaten badut, posible da haurraz gain beste norbaitek ere gereziak jan izana. Adibidez, baldin badakit haurrak eta Peiok gereziak jan dituztela, (22) erran dezaket, benetako gezurrik erran gabe ((22)ren ondotik gehitu baitezaket «eta Peiok ere jan ditu»). Haatik, (23)ko perpausarekin, gereziak jan dituen bakarra haurra dela inplikatzen da. Honenbestez, Peiok ere gereziak jan baldin baditu, gezur baten esaten ari izanen naiz. Ildo beretik, ezin dut «eta Peiok ere ditu jan» gehitu.

Horrek erakusten du egitura indartuetan galdegaia, edo galde-hitza, *exhaustiboa* dela, egitura estandarretakoa ez bezala. Lehen egiturak erantzun osoa eskatzen du, bigarrenak ez.

Laburbilduz, egitura indartuek, egitura estandarrek ez bezala, gertakaria aurresuposatzen dute, eta exhaustiboak dira. Bestalde, ohargarria da nolabait P. Lafittek (1944) intuizio bera zuela. Horrela, (19)ko galdera indartua (24)koa bezalako perpaus erdibitu baten parekoa zela zioen.

(24) Nor da gereziak jan dituena?

Argiki, (24)ko galdera, egitura indartuak bezala, aurresuposizionala da, norbaitek gereziak jan dituela inplikatzen baitu (ezin dut (24) galdetu ez baldin badu nehork gerezirik jan). Gisa berean, exhaustiboa da. Hau da, gereziak haurrak eta Peiok jan baldin badituzte, «Haurra da gereziak jan dituena» erranez, ez dut erantzun osoa ematen. Gisa berean, esaldi honi ezin nioke gehitu «eta Peio da ere».

Entzun ohi da nafar-lapurteraz galdera-erantzunetarako bi egitura mota direla. Hemen ikusitakoarekin, erran dezakegu hau egia dela, baina ez dela zehatza, ez baitira baliokideak: elkarrizketaren testuinguruaren arabera, hiztunak egokiena den estrategia aukeratu behar du.

d. *-a* atzizkia 'bai/ez' galderetan

Erran bezala, aipatuko dudan azken puntua ere joskerari dagokio. 'Bai/ez' galderetan, erran nahi baita baiezko edo ezezko erantzuna har dezaketen galderetan atzematen da.

Bai/ez galderak, euskaraz, intonazioarekin markatzen dira batez ere, ez baita baieztapenarekiko hitz ordena aldaketarik (aitzineko azpiataleko galderetan ez bezala). Konparatu adibidez (25) eta (26):

(25) Haurrak jin dira.
(26) Haurrak jin dira?

Idatzian, (26)ko perpausa galdera dela galdera ikurrari esker asmatzen dugu. Ahozkoan, intonazioari esker. Bistan da, euskaraz *ote* edo *al* bezalako galde-partikulak ditugu. Hauek, aditz nagusia eta aditz laguntzailearen artean kokaturik, dudarik gabe perpausa galderazkoa dela adieraziko dute:

(27) Haurrak jin ote/al dira?

Haatik, partikula hauetaz gain, Hazparneko euskaran, eta inguruetako hainbat mintzotan (ikus ere Epelde 2004), beste bat dago, *-a* partikula. Partikula hori aditz laguntzaileari eransten zaio perpaus jokatuetan, baina *bai* edo *ez* hitzei ere lot dakieke. Hona hemen adibide batzuk:

(28)	Haurrak jin direa?	(Haurrak etorri al dira?)
(29)	Zerbait edan nahi duzuia?	(Zerbait edan nahi al duzu?)
(30)	Antzerkia ikusi zinutena?	(Antzerkia ikusi al zenuten?)
(31)	Baia?	(Bai ote?)
(32)	Eza?	(Ez ote?)

Euskaltzaindiak (1997: 500) ondoko adibidea ere ematen du. Hemen (33B), partikula *nik* subjektuari lotzen zaio:

(33) A: Zuek egin omen duzu hori.
B: Nika?

(28)-(30) adibideetan ikus daitekeenez, partikulak aditz laguntzaileko azken bokalaengan aldaketa fonologiko batzuk eragiten ditu. Bereziki interesgarria dena hemen, partikula honek duen jokabide berezia da: ez da *ote* edo *al* bezala bi adizkien artean kokatzen, baina atzizki batek bezala funtzionatzen du, aditzarengan aldaketa fonologikoak eraginez gainera (ikus Euskaltzaindia 1997).

Atzizki hau beraz, ez da besteak bezalakoa morfologikoki. Dakidanez, ez da euskal hizkuntzalaritzan honen azterketa xeherik egin. Horregatik, ezagunak diren ezaugarriak besterik ezin izanen ditut hemen aurkeztu.

Alde batetik, atzizki hau duten hizkeretan, *ote* partikula ere erabiltzen da. Horrela, *-a* eta *ote* 'hautazkoak' dira. Lafittek (1944) egiten duen deskribapenean, *-a* atzizkiak irakurketa 'neutro' bat du, eta *ote* partikulak dudazkoa. *Ikusi othe nute?* perpausa, adibidez, honela itzultzen du frantsesera: 'm'ont-ils vraiment vu?' (hots: benetan ikusi naute?). Banaketa hori gaur egungo hiztunengan zertan den ikustekoa da oraino: ez dakigu Lafittek egin bereizketa zertan den.

Baina beste ezaugarriak harrigarriak egiten dira, oraintxe ikusi dugun *ote* eta *-a* partikulen parekotasuna kontutan hartzen baldin badugu: biak joskeraren ikuspegitik aski desberdinak izan litezkeela erakusten dute. Alde batetik, Lafittek (1944) erakusten duenez, lehena mendeko perpaus batean sar daiteke, bigarrena haatik ez (ikus ere Euskaltzaindia 1997: 500):

(34) Ez dakit [ikusi ote nauten].
(35) *Ez dakit [ikusi nautena].

Beste aldetik, *-a* (beste hizkeretako *al* partikula bezala), bai/ez galderetara mugatua da. Ezin liteke, eman dezagun, ondokoak bezalako galderetan agertu (ikus Lafitte 1944, Euskaltzaindia 1997):

(36) *Nor etorri dea?
(37) *Nolako gizona ikusi duzuia?

Mintzo hauetan, haatik, ez da horrelako mugarik *ote* partikularentzat (ikus Euskaltzaindia 1997):

(38) Nor etorri ote da?
(39) Nolako gizona ikusi ote duzu?

Datu hauek erakusten dutenez, mintzo hauetako bi galde-partikulek guti gora behera esanahi bera dute, baina ez erabat. Gisa berean, guti gora behera joskera berdina dute, baina hemen ere eite hau ez da orokorra. Azterketa sakonagoa merezi lukeen 'bitxikeria' dela uste dut: alde batetik, gaur egungo erabileran nola kokatzen diren ikusi behar litzateke, eta ondotik, bien arteko berdintasunak eta desberdintasunak zehaztea interesgarria litzateke.

Atal honetan ikusi dugun bezala, guti dira Hazparneko mintzoa inguruko herrikoetatik bereizgarri egiten duten ezaugarriak (lexikoia salbu, bistan da). Hala ere, gogoan atxiki behar da hemen ikusi ditugunek, eta ikusi ez ditugun guziek, eremu zabalago batean jasotzen baldin badira ere, denen artean 'Hazparneko mintzoa' deitzen dena egiten dutela, hiztunek besteengandik dudarik gabe bereizten ahal dutena.

IV. **Hazparneko euskara: geroari so**

Hazparneko euskararen gaiari loturik, gauza biziki desberdinak aipatu ditut hemen; soziolinguistika, dialektologia, gramatika, eta abar. Horrekin islatu nahi izan dut hizkuntza edo mintzo batez dugun ezagutza 'zientifikoak'

alderdi anitz dituela, eta hauek beti urrunago jorratu daitezkeela. Lan horretan ari dira alor desberdinetako euskalariak.

Horrela, ikerketaren ikuspegitik, ipar Euskal Herriko mintzoen azterketa dela-eta esperantza edukitzeko arrazoiak badirela uste dut.


Adibidez, berrikitan argitaratzen hasi den Euskaltzaindiaren *Euskararen Herri Hizkeren Atlasak* balio handiko datuak ekartzen dizkigu tokiko mintzoez eta lexikoiez. Bide beretik, *Euskal Herriko Atlas Sintaktikoa*ren egitasmoa martxan da. Honen berezitasuna, dialektologian gutitan sakonki begiratzen den aldakortasun sintaktikoa aztertzea da. Honek, nafar-lapurterazko mintzo desberdinetako ezaugarri (morfo)sintaktikoak hobeki ezagutzeko aukera emanen digu, eta aitzineko atalean aipatu ditugun fenomenoak zehazkiago ulertu ahal izanen ditugu, herriz herri nola gauzatzen diren ikusiz.

Bestalde, IKER ikerketa guneko ikerlariek sortu duten *Norantz* egitasmoa bada ere. Honek, Hizkeren Atlasaren egitasmoak bezala, aldakortasunaren azterketa du helburu, baina arrunt modu desberdinean. Alde batetik, ez du ikuspegi geografikoa edo dialektologikoa hartzen: ipar Euskal Herrian euskarak aldaketa soziolinguistiko sakonak jasan dituela (eta jasaten dituela) kontuan harturik, gaur egungo hizkuntzaren egoera aztertzea du helburu nagusia, biharkoa nolakoa izan litekeen aurreikusteko, eta hemendik aitzinako garapena segitu ahal izateko. Hots, norantz goazen ikusteko.

Eta egitasmo handi hauei, bistan da, alor desberdinetan, ikertzaile, irakasle, euskaltzale desberdinek egiten duten lana gehitu behar zaie. Poliki-poliki, euskara hobeki ezagutzen ari gara, eta horrekin, batera, Hazparneko euskara ere.

Bukatzeko, esperantzazko beste datu bat ekarri nahi nuke eztabaidara. Idazkiaren hastapenean transmisioaren beherakada aipatu dut, orokorrean atzerakada handia nabaritzen dela azpimarratuz. Hala ere, esperantzarako arrazoiak badirela azpimarratu behar da: azken inkesta soziolinguistikoak ipar Euskal Herrian uzkailtze bat gertatzen ari litekeela iradokitzen du. Azpiko grafikoan, hiru inkestetako emaitzak agertzen dira, adin-taldeka adierazirik:

2. taula. *Elebidunen bilakaera adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2006 (%)*



Iturria: *IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza*. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Ikus daiteke aitzineko inkestetako emaitzetan ez bezala, 2006ko inkestaren emaitzetan, belaunaldi gazteenean (18-24 urte) den elebidun proportzioa aitzineko belaunaldian (25-34 urte) dena baino handiagoa dela: lehen aldiko gorakada bat nabarmentzen da datuetan. Hortaz, Geaxine ala ez, lanean segitzeko arrazoiak baditugu.

Bibliografia

CAMINO, I., 2004, «Nafarroa Behereko euskara», *Fontes Linguae Vasconum* 97, 445-486.

CHARRITTON, P., 1985, *Pierre Broussain, sa contribution aux études basques (1895--1920)*, Paris: CNRS.

COYOS, J.B., 2007, «Euskararen kale erabileraren V. neurketaren emaitzez Ipar Euskal Herrian», *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 64, 109-116.

DUGUINE, M. & A. IRURTZUN, 2008, «Ohar batzuk nafar-lapurterazko galdera eta galdegai indartuez», X. Artiagoitia & J. Lakarra (arg), *Gramatika jaietan. P. Goenagaren omenez,* Bilbao: UPV/EHU, 195-208.

———, 2010, «Nz-/*in situ* euskaraz: gazteen nafar-lapurterazko galdera-estrategia berri bat», B. Fernández, P. Albizu & R. Etxepare (arg), *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai,* Bilbao: UPV/EHU, 21-36.

EPELDE, I., 2003, *Larresoroko euskara,* Doktorego tesia, UPV/EHU.

———, 2004, «Lapurdiko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz», *Fontes linguae vasconum* 96, 271-304.

EPELDE, I. & B. OYHARÇABAL, 2009, «"Code switching" en las variedades orientales del vasco», esk. IKER-CNRS.

ETXEPARE, R., 2010, «Contact and change in a restrictive theory of Parameters», esk., IKER-CNRS.

ETXEPARE, R. & B. OYHARÇABAL, 2009, «Datiboa ifar-ekialdeko zenbait hizkeratan», adibidetegia, IKER-CNRS.

EUSKALTZAINDIA, 1997, *Euskal Gramatika. Lehen urratsak II,* Bilbo: Euskaltzaindia.

EUSKO JAURLARITZA, 2008, *IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza,* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

LAFITTE, P., 1979(1944), *Grammaire basque. Navarro-labourdin littéraire,* Berrargitaratua: Donostia: Elkar.

———, 1990, *Euskal literaturaz* (P. Urkizuren edizioa), Donostia: Euskal Editoreen Elkartea.

SCHURCHARDT, H., 1992(1922), «Sobre el vascuence de Sara (Labort)», *Euskera* 37, 253-292.

ZUAZO, K., 2008, *Euskalkiak: euskararen dialektoak,* Elkar: Donostia.

Jardunaldiak

Euskera. 2009, 54, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564

Uztapide bertsolariari omenaldia 100. urteurrenean

Euskaltzaindia. Herri Literatura batzordea

Zestoa, 2009-V-14

Euskera. 2009, 54, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564

Uztapideren omenez

ZUBIMENDI, Joxe Ramon
Euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiko Herri Literatura batzordearen idazkaria

Manuel Olaizola «Uztapide» (Zestoa, 1909 - Oiartzun, 1983) bertsolaria (eta euskaltzain urgazlea) jaio zeneko ehun urteurreneko omenaldia zela eta, Euskaltzaindiaren izenean bildu zen Herri Literatura batzordea Zestoan, 2009ko maiatzaren 14an, *Uztapide, bat-batean* liburua aurkezteko eta batzordearen jendaurreko hitzaldiak egiteko, ondoren ageri den txandan jardunez:

– Herri Literatura batzordearen ezohiko bilera, Zestoako Udaletxean.
– Nikolas Aldai: *Uztapide, bat-batean* liburuaren aurkezpen-hitzak.
– Pello Esnal: «Uztapide bertsolaritzaren historian: ardatz, gailur eta maisu».
– Antton Aranburu: «Uztapide: eskua bertsotan».
– Joxe Mari Iriondo: «Garai bateko gai-jartzailea».

Xabier Euzkitze batzordekideak egin zuen hizlarien eta gaien aurkezpena, baita Uztapideren omenezko bertsoak asmatu eta kantatu ere ekitaldiaren amaieran.

Zestoako alkate andrea izan zen mahaiburu. Euskaltzaindiari eskerrak emateaz gain, hitz bitan azaldu zuen Uztapide nor izan zen egiaz ezagutzen hasi zela omenaldiko ekintzei esker eta, bereziki, maiatzaren 14ko hitzaldi horiei esker.

Udaletxeko areto nagusian jende askotxo bildu zen entzule, eta gogotik txalotu zituen hitzaldiak; izan ere, ekitaldi goxoa izan baitzen, mamitsua eta umoretsua aldi berean, esanguratsua eta alaia: oso atsegina denentzat. Gainera, entzuleek liburuaren ale bana hartu zuten opari eta, azkenean, mokadu onak askari.

Euskera. 2009, 54, 1. 215. Bilbo
ISSN 0210-1564

Uztapide bat-batean (Antologia)
Liburuaren aurkezpen hitzak

ALDAI , Nikolas
Euskadi Irratiko kazetaria

Liburu honen berri ematerakoan, edo eta nola gauzatu den adierazterakoan, aurrena talde lan bat dela nabarmendu behar da. Eta ez edozein taldek egina, gainera. Denboran eta partaidetan zabala eta ugaria den taldearen lanari esker egin bait da liburu hau.

Denborari dagokionean hiru aldi bereizi beharko genituzke. Bata, bertsoak sortu eta jaso zeneko aldia izango litzateke. Eta hor, noski, Uztapide bera azalduko zaigu protagonista nagusi bezala. Jose Manuel Olaizola Urbieta, Uztapide bera eta berarekin kantatu zuten hainbat bertsolari: Basarri, Xalbador, Lazkaotxiki, Mitxelena, Lasarte, Lopategi, Azpillaga eta abar. Baina aldi horretakoetan nabarmendu beharrekoak dira protagonista nagusi horiek kantatutakoak jasotzen ahalegindu zirenak ere. Horien artean daude Patxi Mujika, Antonio Zavala, Martin Ibarguren eta Jose Mari Iriondo. Hauei eskerrak eta zorionak eman behar zaizkie duela 40-50 urte egin zuten ahaleginarengatik.

Urteetan honuntzago etorri, eta joan zen mendearen azken hamabost urteetan Euskadi Irratiak izandako burubidea aipatu beharko genuke bigarren aldi baten ardatz bezala. Euskadi Irratiaren ekimen bati esker eman zitzaien ezagutzera belaunaldi berriei aipatu dugun lehen aldikoek utzitako uzta mardula.

Eta izan zen bigarren aldi honetan airez, uhinez zetorkionari, ihes egin ez zezan, aparteko arreta eskaini zionik. Zestoako zapatari, Laxaro Garatek, esate baterako. Honek kaset mordo bat bete zuen irratiz emandako ber-

Euskera. 2009, 54, 1. 217-220. Bilbo
ISSN 0210-1564

tsoekin. Antonio Zavalak bezalaxe, zapata-kaxatan gordetzen zituen kasetak. Jaso eta gordetzea ezin bestekoa dela, erakutsi ziguten txikitan, baldin eta gerora izaterik nahi bagenuen.

Urteetan gaur arte etorri, eta hirugarren aldi batean, Laxaro Garateren kasetak Xabier Unanuek jasotzen ditu eta ordu askoko ahaleginaren ondoren, paperera pasatzen ditu bertso horiek. Irratiz emandako informazioari esker, noizkoak, nongoak eta nortzuk kantatuak diren zehaztuz egindako transkripzioak, guztiak ere.

Transkripzio horien artean, Uztapide tarteko zela egindako bertso saioekin egin genuen topo, «Uztapide Gogoan« elkarteak mendeurrenerako liburu bat egitea proposatu zuenean. Antologia antzekoa izan beharko zukeen liburua nahi zuten. Galtzak bete lan berarekin zuen zeregina izanik ere, Pello Esnalek liburuaren ardura beregain hartzeko prest zegoela ikusteak gauzak asko erraztu zituen eta animoz beterik ekin genion lanari..

Ahalik eta trabarik gutxiena eginez, Pellori lana errazte aldera izan dira nire ahalegin guztiak zeregin honetan. Eskerrak Pelloren kemenak eta pazientziak ez diren zurrunkaldi bakarrean txautzekoak!!! Eta azkenean, eskuartean dugu liburua.

Jose Mari Iriondo izan da liburuarekin batera kaleratutako CDaren, konpaktoaren ardura bere gain izan duena.

Uztapide Bat-batean-Antologia dio liburuak azalean. Eta hala da: Uztapidek bat-batean botatako bertsoekin egindako liburua, batetik, eta aldi berean, nik uste esan dezakegula, oraindainokoan egin izan den bildumarik osatuena dela.

Noski, hala ere, osatu daitekeen bilduma. Urrutirago joan gabe, asko eta asko izan dira «Uztapide Gogoan» elkarteak gure eskuetan jarri zituen bertsoaldietatik liburutik kanpora utzi ditugun saioak. Eta agian oraindik ere egon daiteke zokoren batean erdi-galduan Uztapideren bertsoak jasotzen dituen beste grabazio zaharren bat.

Eta bestalde, bai, antologia da liburu hau. Hitzak berak adierazten duenez, aukeratutako loreak, bitxiak, bertsorik onenak direlako hautatu ditugunak. Nolatan ez jabetu, ordea, hautaketa tarteko den guztietan bezala,

subjetibitateak, norbakoitzaren gustuak ez duela besteenarekin zertan bat etorririk. Guretzat aparta dena, beste batentzat, ez hain ona izan daitekeela; eta alderantzizkoa. Hori gertatu daitekeen zerbait da.

Hori kontuan izanda ere, ordea, eta nahiz eta Uztapide-zale ez izan, bertso-zale baldin bazara, entzule, ez dut uste liburu hau pasatzean zure griña zimeldu edo zapuztuko zaizunik. Ziur nago batean ez bada bestean, edo eta agian guztietan, aurkituko duzula zertaz gozatu.

Diodan bezala, nahiz eta jakin nik eta zuk ez dugula zertan apeta berekoak izan, nik aitortzen dut gozatu egin dudala liburu hau prestatzerrakoan.

Gozatu, lur-samurrean hesolak mazoka sartzen direnean bezala, edo lursamurreko jorra-lekuan atxurrean aritzean bezala. Horrelaxe, esker-onekoak baitira Uztapideren arrazoi-beteko bertsoak. Eta asko dira liburuan zehar aurkituko dituzun gisa hontako bertsoak.

Baina badira, eta ez gutxi, arrazoi-galduan, hala ere alderoari fin eutsiz kantatutako ale dotoreak ere. Honelakoetan, gainera, aparteko disdira izaten bait du kantu-lagunaren aleak; batez ere, kantu-lagun hori Xalbador denean. Edo Lasarte, Basarri, Lazkaotxiki, edo eta Jose Lizaso. Eta zer esan eskolatugabeak izan arren, herri-memoria gardenetik hain ugari edanak ziren Perurenarekin edo Xaltorekin Uztapidek egindako saioetaz? Bakarrren bat edo beste jasotzen da liburuan. Seguru gozatuko duzula, entzule, bai irakurriz edo kantatuz.

Eta hunkituta aritu izan naiz liburu honen pasarte bat baino gehiago idazterakoan. Uztapideren bertsoteak bai baitu grazia hori. Bai farmurria sortarazteko eta baita malkoak isuarazteko ere.

Uztapideren bertuteetako bat izan zen, bestalde, kantu-lagunaren pareko aritzea, batez ere plazan ari zenean; artista handiek ohi duten bezala. Besterik zen txapelketetan eta sariketetan. Eta oraindik bada beste kapitulu bat Uztapide harrigarri egiten duena. Bere lagunarteko saioetan isuritzen zuen bertsote aparta. Umorez eta pikardiaz betea.

Guzti horietatik muestra bat baino gehiago aurkituko duzu, entzule, liburuan zehar. Eta jabetuko zara, nola Uztapidek eta bere garaikideek gauzatzen duten, urtez urteko beren ahaleginari esker, Pizkunde garaian abiatu-

tako iraultza hura. Nola gerra-ondorengo basamortu hartan osatu zuten, oraindik ere hein haundi batean indarrean dagoen bertso egutegia, eta finkatu zuten plazako bertsotea.

Isil nadin, ordea, guzti honetaz mintzatuko bait zaizue orain Pello Esnal, liburu honen arduradun nagusia. Ni gustura nintzateke zuetako bakoitzak liburu hau maixiatu, eta bere horrietan, itulan bezala atzera-aurrera batzuk egin ondoren, «honelakoxe bat merezi zian Uztapidek» esango balu. Besterik ez. Mila esker zuen arretarengatik.

Uztapide bertsolaritzaren historian: ardatz, gailur eta maisu[1]

ESNAL, Pello
Euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiko Herri Literatura batzordekidea

Manuel Olaizola, «Uztapide» bertsolaria (Zestoa, 1909 – Oiartzun, 1983), 1935a baino lehenago plazaratu zen[2] eta 1972ko apirilaren 30ean gelditu kantatu ezinda, Donostian, Anoeta pilotalekuan (gaur egun Atano III.a denean). Bitarte horretan, ia berrogei urtean jardun zuen lagunartez lagunarte eta plazaz plaza bertsotan, hainbat bertsolarirekin batera (Basarrirekin, hogeita sei urtean); eta hiru aldiz izan zen Euskal Herriko txapeldun: 1962, 1965 eta 1967ko bertsolari-txapelketa nagusietan. Bertsolari eta bertsozaleen ahotan dabil, hil eta hogeita sei urte geroago ere.

Aurten (2009an), Uztapide jaio zeneko mendeurrena ospatzen ari garenez, merezi du hura bertsolaritzaren historian kokatzea, eta ikustea zer leku bete zuen eta zer-nolako ondarea utzi zigun. Horrexetan saiatuko naiz idazlan honetan, soil-soil bada ere, bi puntu zirriborratuz. Lehenengoan, bertsolaritzaren historiaren begiratu azaleko bat eskainiko dut. Bigarrenean saiatuko naiz eskenatoki horretan kokatzen Uztapideren bat-bateko bertsogintza eta itzala.

---

[1] *Uztapide bat-batean* liburua (Aldai, Esnal, 2009) aurkezteko prestatutako lana. Zestoan izan zen aurkezpena, 2009ko maiatzaren 14an.

[2] Basarrik esan zuenez, Uztapiderekin 1935ean kantatu zuen lehenengo aldiz, Oikian; baina ez zekien zehazten zein egunetan, nahiz eta zioen San Isidro egunaren (maiatzak 15) inguruan izan zitekeela (Aldai; Esnal, 2009: 21). Ordurako plazaratua zen Uztapide. Berak dioenez, Lasturren kantatu zuen lehenengoz plazan, Kortatxorekin, San Nikolasetan (Uztapide, 2009: 155; Aldai; Esnal, 2009: 368; abenduaren 6an da San Nikolas eguna); urteak, beranduenik, 1934a izan behar du.

Euskera. 2009, 54, 1. 221-240. Bilbo
ISSN 0210-1564

1. **Bertsolaritzaren historia: bi mugarri**

Ezagunak ditugu bai Antonio Zavalak, bai Santiago Onaindiak eta bai Juan Mari Lekuonak eskainitako bertsolaritzaren historiak. «Bosquejo de historia del bersolarismo» du izenburu Zavalarenak (Zavala, 1996: 111-253). *Gure bertsolariak* liburuan ematen digu berea Onaindiak (Onaindia, 1964: 197-331). Eta bi lekutan ditugu Lekuonaren historia eskematikoak: «Bertsolariak historian: sailkapen-saioa» lanean (Lekuona, 1982: 109-121) eta «Historia del bertsolarismo» atalean, «Literatura oral vasca» lanaren baitan (Lekuona, 1998: 90-100).

Ez da nire asmoa historia horiek berrikustea eta, are gutxiago, berridaztea. Baina kontuan izatekoak dira horien mugak: 1936an amaitzen da Zavalarena, 1963an Onaindiarena, eta 1978an eta 1980an Lekuonarenak; bi azken aditu hauenak, idazten dituzten egunetan. Zavalak ere ekar zezakeen haria 1963raino –ordukoa du lana, lau hitzalditan eskainia–, baina arrazoi historiko batek etenarazten dio 1936an; izan ere, «el año 1936 termina una etapa del bersolarismo para dar comienzo a otra, en la cual nos encontramos [1963an]» (Zavala, 1996: 252).

Nire ustez, Zavalaren hitz horiek berek balio dute, aldeak alde, 1980rako ere. Eta, hala, bi mugarri handitzaz jo ditzakegu 1936 eta 1980 urteak bertsolaritzaren historian; eta, horren arabera, hiru aro edo aldi bereiz ditzakegu historia horretan: 1936a baino lehenagokoa, 1936tik 1980ra bitartekoa eta 1980tik gaurdainokoa.

Puntu honetan, ur handitan sartu gabe, bi mugarri horiez jardungo dugu, mugarri bakoitzean bertsolari erabakigarri bana aipatuz: lehenengoan, Basarri; bigarrenean, Amuriza.

1936: Basarri

Antonio Zavalak, aipatu berri ditugun hitz horien ondoren, honela jarraitzen du, 1936 urtea zergatik den mugarri arrazoituz:

> *Además de un acontecimiento externo, la guerra, suceden otros varios, internos al bersolarismo, que marcan el fin de una época y el comienzo de*

> *otra: la muerte de Txirrita, cabeza y representante de una generación; la celebración en San Sebastián de dos campeonatos con el nombre de Bertsolari-eguna, día del bersolari, el 20 de enero de 1935 y el 19 de enero de 1936; el libro Literatura oral euskérica de D. Manuel Lecuona; y las publicaciones de D. Juan José Macazaga [...]. Todos estos eventos eran signos claros de que se empezaba a cambiar de criterio respecto de los bersolaris.*
>
> *En los dos campeonatos citados se dieron a conocer, como esperanzadoras promesas, Basarri y Uztapide, cabezas ambos de la generación de bertsolaris de la posguerra, a la que hemos excluido de nuestro trabajo.*

Zavalaren hitz horien osagarri, hiru gai aipatu nahi nituzke orain, oso labur bada ere: 1) Jose Manterola eta XIX. mendeko bertsolari-lehiaketak, 2) 1935eko eta 1936ko bertsolari-txapelketen testuingurua eta 3) Basarriren bertsolari-proiektua.

Jose Manterola eta XIX. mendeko lehiaketak

Antonio Zavalak sutsu hitz egiten du Jose Manterolaz, bere bertsolaritzaren historian (Zavala, 1996: 204-210). Baina «El bersolarismo» izeneko idazlanetik jaso ditut ondorengo hitzak, argibide jakingarria eskaintzen digutenez (Zavala, 1996: 263-264):

> *Al terminar la segunda guerra carlista surge en el país un movimiento a favor de su lengua. Se diría que el pueblo vasco, ocupado hasta entonces en la defensa de su estructura foral y derrotado en esta batalla, se dispone ahora a la salvaguarda de este otro constitutivo de su esencia. Sus ojos se fijan entonces en el bersolarismo, que nadie, excepto Iztueta primeramente y Gorosábel después, había sabido ver, y lo cataloga como uno de los elementos más importantes e íntimos del alma popular.*
>
> *Vinieron entonces los concursos. No nacen, como el desafío, del mismo pueblo; es la clase culta la que se los procura a éste. Su más decidido impulsor fue José Manterola, principal artífice de este movimiento en favor del idioma.*

Lehiaketen artean ezagunena, noski, Azpeitiko Lore Jokoetakoa da. Jakina denez, Manterolak ez baina, Antonio Abbadiak eratzen zituen Lore

Jokoak. Eta horien baitan izan zen, 1893an, Azpeitiko lehiaketa, ondoren mikatza ekarri zuena: Udarregi eta Pello Errotaren arteko sesioa eta haserrea (Zavala, 1963)[3]. Aurretik, ordea, izan ziren beste lehiaketa batzuk. Esaterako, Irunen 1881eko irailaren 9an jokatua (Zavala, 1996: 263-264)[4].

Orain, dena den, merezi du azpimarratzea, eta gogoan hartzea, bertsolaritzaz egindako balorazioa, «herri-arimaren osagai garrantzitsu eta barnekoienetako bat», beti ere kontuan izanda «klase kultuak» egindako balorazioa dela.

Berehala, ordea, XX. mendearen hasieran, klase kultu berak gutxietsi egingo du bertsolaritza, garbizalekeriaren izenean, mordoiloa omen da-eta bertsolariek darabilten euskara. Ondorioz, puska batean ez dira lehiaketak antolatuko. Merezi du gogoratzea nola dioen Zavalak (Zavala, 1996: 265):

> *Pero a principios de siglo se puso de moda el purismo del lenguaje. El vascuence hablado estaba corrompido; había que purificarlo. Vino, en consecuencia, el desprecio al bersolari. Éste, impertérrito, siguió cantando en las plazas de aldea y en las tabernas y sidrerías: pero ya no hubo concursos.*

---

[3] Antonio Zavalaren *Azpeitiko Premiyoaren bertsoak* liburuan dugu lehiaketa horren berri zehatza, eta ondoren sortutako liskarraren emaitza (bertsotan) oparoa. Esaterako, hor kontatzen du nola udaletxeko balkoitik kantatu zuten, arratsaldeko lau eta erdietan hasita, besteak beste, Joxe Bernardo Otañok, Udarregik eta Pello Errotak, bost mila entzuleren aurrean, hiru gizon ospetsu epaile zituztela: Resureccion Maria Azkue, Domingo Agirre eta Felipe Arrese.

[4] Bederatzi bertsolari izan ziren partaide: bi asteasuar (Pello Errota eta Juan Kruz anaia), bi Usurbilgo (Gorria eta Udarregi), hiru hondarribiar (Labandibar anaiak), Juan Jose Belderrain, Zizurkilgoa, eta Olloki, Igeldokoa. Lehenik, gaia emanda jardun zuten binaka; gero, bertsolari batek puntua jarrita eta besteak bertsoa osatuz. Merezi du gogoratzea zein gai ipini zizkieten ere, eta zer ordenatan: Pello Errota eta Udarregiri, *baldin elkartzen bagera euskaldunak, izango ditugu oraindik zoriontasunak* (gogora dezagun amaitu berria zela bigarren gerra karlista); Gorria eta Juan Kruz Elizegiri, *baserritarren bizia hobea da kaletarrena baino*, eta Gorriak kaletarraren alde egingo zuen eta Juan Kruzek baserritarraren alde; Belderrain eta Nikolas Labandibarri, *maiz kalera etortzen dan baserritarra, aberastutzeko modu txarra*; Labandibar beste bi anaietako bat uraren aldeko jarri zuten eta bestea ardoaren aldeko; eta, azkenik, Olloki eta Pello Errotari (Olloki bakarrik gelditu zenez, berriz kantarazi zioten Pello Errotari), Olloki langilea izango zen eta Pello alferra. Epaimahaikoak zein ziren ere badakigu: Arturo Kanpion, Alfonso Maria Zabala, Klaudio Otaegi eta laugarren bat. Hauek, epaia ematerakoan, hiru sailetan banatu zituzten bertsolariak: onenak, Udarregi, Gorria eta Pello Errota; ondoren, Juan Kruz, Belderrain eta Olloki; eta, azkenik, Labandibar anaiak.

Zavalak ezin izan du disimulatu, batetik, klase kultuaren diskurtsoak sortzen dion ezinegona eta, bestetik, bertsolariekiko sentitzen duen atxikimendua[5].

Manuel Lekuona, Aitzol eta 1935 eta 1936ko txapelketak

Testuinguru horretan etorriko da Manuel Lekuonaren lana (1978: 131-157; 187-257; 259-540): «La métrica vasca» hitzaldia (1918), «La poesía popular vasca» hitzaldia (1930) eta *Literatura oral euskérica* liburua (1935). Berak itzuliko dio bertsolaritzari prestigioa.

Eta, behin prestigioa berreskuratuz gero, hortxe dugu bertsolaritza, berriro ere, euskara eta euskal kulturari eusteko baliagarri. Are gehiago: euskal pizkundeari eragiteko baliabide. Eta, poesia kultuak zeregin horretan huts egin duenez, Aitzolek nahikoa du Manuel Lekuonaren hitz erdi bat, lehen «Euskal jaiak», «Euskeraren Egunak» eta «Olerti Egunak» bezala, orain «Bertsolari Egunak» eratzeko: 1935eko San Sebastian egunez lehenengoa, Basarri txapeldun izendatuko duena; urtebete geroago bigarrena, Txirrita txapeldun izendatuko duena

Horra hor, berriro ere –Zavalaren hitzak erabiliz– «klase kultua» bertsolaritza helburu kulturalen-eta zerbitzuan baliatuz. Horretarako –orain, Julio Urkaregiren hitzak erabiliz–, beharrezkoa izango da, lehenik, bertsolaritza balio handikotzat jotzea eta, ondoren, bertsolaritza hori promozionatu, horren aldeko giroa piztu, tabernatik antzokira eraman, arlote-mailatik atera. Horrela lortuko da herri-olerkigintzaren bidez herriaren izpiritua erakustea; ahozko literaturaz baliatuz poesia kultua egitea (Urkaregi, 1987: 143-144) [6].

---

[5] Azken batean, Antonio Zavalaren pentsamenduaren muinean gaude. Deustuko Unibertsitateak *Honoris causa* doktore izendatzen duenean, ideia horiek izango ditu bere hitzaldiaren ardatz (Zavala, 2000).

[6] Honela dio Julio Urkaregik (Urkaregi, 1987: 139-140; 143-144):

Euskararen inguruko ekintza guztietan sartuta ikusten dugu «Aitzol». […] Euskal kulturak jarraitu behar zituen bideak aztertu eta erakutsi zituen artikulu ugarietan zehar. «Pizkunde» proiektua zeukan gogoan, Sabino Aranarengan oinarritu zuena. «Euskal Pizkundea»ren bultzatzaile izan zen eta nazioaren zutabe-elementuak landu. […] Sentimendu nazionalaren bilakaeran olerkigintzak zeukan garrantziaz jabetu eta olerkigintzari eman zion lehentasuna. «Olerti-Egunak» antolatu zituen. Olerki-Lehiaketetan plazaratu ziren «Lizardi», «Lauaxeta», «Orixe», besteak beste.

Testuinguru horretan, bete-betean ulertzen dira, besteak beste, Basarri gazteak 1935eko Bertsolari Egunean kantatutako zenbait bertso.

Bai agurraren bi lehen lerroak:

> Uso zuri bat inguratu zait
> goizean egun argitzez...

Bai beste baten hasiera:

> Bertsolariak eman diote
> Txeko erriari gorantza.
> *Mireio* batek edergailutan
> josia zuan Proventza.

Erraz ulertzen da Basarrik berak eskuratu izana lehen saria. Eta ezin esanguratsuagoa da Txirritaren erreakzioa. Bertso ezagun hau kantatu baitzuen saioaren amaieran:

> Larogei urte gaiñean ditut,
> nago anketako miñez.
> Donostiara etorria naiz
> erren aundia egiñez.
> Bi bastoirekin txit larri nabil
> pausorik eman eziñez.
> Euskera ia aztu zait eta
> erderarikan jakiñ ez.
> Maisu batekin eskolan laster
> asi bear det latiñez.

Ez dakigu nola ulertuko zuen orduko entzuleak bertso hori. Barre-algara ederrak egin zituela, bai, badakigu. Hala gogoratzen baitzuen Basarrik,

---

Bertsozaletasunak aldaketak bat suposatzen du «Aitzol»en filosofian. «Aitzol»ek promozionatu zuen olerkigintza kultua minoritarismoan erori zen. Ez zuen lortu berak espero zuen arrakasta. Manuel Lekuonari jarraituz, estrategiak bide herrikoiak hartu zituen. Lekuonak eredu herrikoiez baliatzeko gomendatu zion. Herri-olerkigintzaren bidez, herriaren izpiritua erakutsi nahi zuten. Bertsolaritza promozionatzeko ordua zen. Bertsolaritza baloratu eta horren aldeko giroa piztu. Ahozko literaturari prestigioa eman nahirik, txapelketak antolatu zituen. Lehen txapelketa 1935ean ospatu zen, Kursaalen. Bigarrena, Victoria Eugenian, 1936an. Bertsolaritza tabernatik antzokira eraman zuten. Bertsolaritza arlote-mailatik ateratzea lortu zuten, gai altuagoak ipiniz. Ahozko literaturaz baliatu, eta poesia kultua egin nahi.

eta halaxe idatzi baitzuen lekuko batek: Joseba Zubimendik (Zubimendi, 1985: 39-40):

> *Bertso onek algara ederrak egin-azi zituan. Izan ere bukaeran buru-eskuakin Ariztimuño apaiza erakutsiaz, maixutzat bera aukeratua zeukala adierazten zuan.*

Antonio Zavalaren iruzkina falta zaigu, arestiko «éste, impertérrito, siguió cantando en las plazas de aldea y en las tabernas y sidrería» haren parekoa.

Basarriren bertsolari-proiektua

Testuinguru berak argitzen du zer izango den Basarriren bertsogintza. Lehen Bertsolari Egunean ez ezik, bizitza osoan izango du Basarrik gogoan helburu bera. Ikus dezagun Juan Mari Lekuonaren eskutik.

Lekuonak oso egoki jakin zuen ikusten eta atzematen zer leku izan zuen Basarrik bertsolaritzan eta zer ekarpen egin zion. «Basarriren bertsolari proiketua» idazlanean argitaratu zuen (Lekuona, 1998: 364-378).

Horixe da hitza: proiektua, egitasmoa. Baina behar bezala ulertuta: ez modu zurrunean, baizik sortzailean. Ez, beraz, aldez aurretik bidea eta planak ondo zehaztuta dituen proiektuaren moduan, baizik bidea ibilian egingo duenarenean:

> *Gauza nabaria da, Basarriren plazako kantugintzaren azpian bertsolari proiektu bat egon dela beti, egitasmo bat; hasieran, beharbada, susmo hutsa zena, baina gerora, bizikizunen eraginez, gero eta argiagoa eta indartsuagoa egiten den proiektua.*

Lekuonak, berriro ere, egoki asmatzen du egitasmo horren funtsa azaltzen (nireak dira azpimarrak):

> *Egitasmo honi esker, eta egitasmo bera zuten beste bertsolariei esker, burutzen da eta mamitzen bertsolaritza berriagoa, pizkunde garaiko bertsolaritza publikoa, hain jakina eta gorena.*

Eta egoki asmatzen du proiektuak non duen iturburua erakusten ere:

> *Egitasmo berri batek oso berea du errealitateari buruzko ikuspegi ezkorra edukitzea. Eta gauzen egoera kaxkarrak zuritzen du, ez gutxi, egitasmo*

> *berria. Antzeko zerbait gertatzen da Basarriren bertsolari proiektuarekin ere. Hutsune eta beharkizun askotxo ikusten ditu 30. urte inguruko bertsolaritzan. Egoerak markatzen ditu proiektu berriaren beharra ezezik, baita bere nolakotasunak eta eragin guztiak ere.*

Juan Mari Lekuonak, ondoren, gerra aurreko bertsolaritzaren beharrik gorrienak azaltzen ditu, beti ere Basarriren hitzen arabera: orduko bertsozaleen egoera tamala, bertsolarien jokabide desbideratua, bertsolarien hizkuntza baldar eta traketsa, egoera barregarrietan kantatzea…

Hain zuzen, egoera ezkor horri buelta ematea izango du helburu Basarriren proiektuak, eta horretan arituko da hainbat urtetan buru-belarri. Ondorioak, begien bistan daude:

> *Lehenengo Bertsolari Eguna 1935ean ospatu zenean, Basarrik saria irabazi ezezik, aitzindaritza bat hartu zuen bere bizkar, bertsolaritza berriagoan aurresku izateko eginkizuna hartu. Eta gero, urte askoan gainera, zeregin hori bete bertsozko emanaldietan, batez ere plazako eta jendaurreko bertsolaritzan.*
>
> *[…] Eta langintza hau ez zen nolanahikoa. Gehienetan Uztapide lagun harturik, herririk herri, ibilera gaiztotan, desgaraian, baina beti kantuzko zerbitzu leialean.*
>
> *[…] Plazan agertu zenetik itxaropena sortu zuen eta eginkizun bat bere gain hartu. Gaur, denboraren joanean ikus daitekeenez, emaitza mardula da berak eskaini diguna.*

Horra hor, hitz gutxitan, zer izan zen Basarriren bertsogintza. Basarrik, azken batean, bere-berea egin zuen gerra aurreko mugimendu haren egitasmoa, eta hura garatzen saiatu zen hainbat urtetan, beste bertsolariak lagun zituela. Beste kontu bat da bertso-lagunak zer neurritan zituen, jakinaren gainean ala ez, proiektu beraren partaide eta eragile.

1980: Xabier Amuriza

Antonio Zavalak 1936az dioena parafraseatuz esan dezakegu 1980ez ere. Kanpoko gertaera batek ez ezik –Francoren heriotzak eta trantsizio poli-

tikoak– bertsolaritzaren barne-gertaera batzuek ere aro edo aldi baten azkena markatzen dute eta beste baten hasiera urratzen. Barne-gertaera horien artean, aipatzekoa da 1980ko bertsolari-txapelketa nagusia, Euskaltzaindiak antolatu eta Xabier Amuriza bertsolariak irabazi zuena.

Zenbait puntu garatuz osatu beharko genuke zirriborro hori; besteak beste, Amurizaren proiektua zehaztuz. Baina, Zavalak 1936an bezala, hobe izango dugu 1980an etetea haria.

Dena den, merezi du arreta jartzea 1967ko bertsolari-txapelketan. Horren azalpen soilak eramango gaitu bertsolaritza sozialaz hitz egitera. Hala ere, ez genuke ahaztu behar bertsolaritzaren alderdi ludikoa.

1967ko txapelketa

Itsusi samarra izan daiteke, baina neure buruaz hitz egin beharrean naiz. Izan ere, Euskal Herritik kanpora bizi nintzen 1967an, ez telebistarik ikusi eta ez egunkaririk irakurri. Eskerrak, besteak beste, gurasoen bisitak izaten genituen tarteka.

Kontua da gurasoen bisita izan nuela 1967ko ekainean, orduko bertsolari-txapelketa nagusia izan berritan, eta aitak *El Diario Vasco* egunkariaren orrialde bat eraman zidala, non zetozen txapelketaren kronika eta Xalbadorren argazkia, jendea txistuka ari zitzaionean aterea.

Txapelketa hura hala pasatu da historiara: Xalbadorri txistua jo zioteneko txapelketa gisa. Ez dago horren argi, ordea, Xalbadorri jo zizkioten ala Euskaltzaindiarentzat ziren txistuak. Noizbait argitu beharko da puntu hori ere. Aitak, dena den, egunkariko orri hura eman aurretik, bere erara laburbildu zidan zer izan zen txapelketaren azken saioa: esanez zer-nolako giro beroa izan zen jaialdian eta, batez ere, zer-nolako bertsoa bota zuen hasi berritan Jon Lopategik. Hobeto esanda, zer doinurekin kantatu zuen bertso hura.

Merezi du zertxobait aztertzea bertsoa, doinu eta guzti. Bertsoa, berez, bertso arrunta da: Irigoienek lau puntu jarrita –berez, ordez, bidez, nekez–, Lopategik honela osatu zuena (Zavala, 1967: 39):

Jai dotore onek
ez dira egin berez,
segitu bear degu
beti olako bidez:
erdera artu gabe
guriyaren ordez,
euskera gorantz doa
baiña oraindik nekez.

Beraz, zer du bertsoak aitarentzat txapelketaren ispilu izateko? Hitzek, ezer apartekorik ez. Doinuak egiten zuen orduan aparteko. Hobeto esanda, Lopategik erabilitako doinuak –«Aita zer egin duzu»– eta ondoren zetorren errepikak:

Gu gira Euskadiko
gazteri berria.
Euskadi bakarra da
gure aberria.

Gaur, irribarrea eragiten digu hori horrela izateak. Baina Joanito Dorronsorok, esaterako, honela dio kanta hori eta disko berekoei buruz (Dorronsoro, 1988: 348):

> *Diktadura garai beltz haietan esperantzaren argia ekarri zigun Ifarraldeko mediku-senatoreak [Mixel Labegeriek] bere diska klandestinoaren bidez. Mezu abertzale garbia zekarren irudi poetiko eta doinu xarmantaz jantzia; errepika eta bertso [estrofa], teknika egokiaz baliatuz. Garai haietan kantu hauek gure barrenetan sortu zuten zirrara misteriotsua gaurko gazteei adierazten ez da erraza.*

Lopategik, beraz, kantuan erabilitako doinuaz eta iradokitako errepikaz hitz egin zuen; molde, aire eta giro horretan hartu zuen indarra hitzez esandakoak. Doinuaren xarmak kutsatu zuen bertsoa, bat-batean sortutakoa esana ere bereganatuz. Kasu horretan, doinua bera izan zen bertso. Zenbatek ekin ote zioten, isilean bederen, «Gu gira Euskadiko gazteri berria» kantatzeari?

Aita ez genuen kazetari, baina ezin uka bazuenik kazetari-sena. Izan ere, 1967ko txapelketa hura, agian, Xalbadorri txistua jo ziotenekoa adina izan zen Lopategik «Aita zer egin duzu» doinua erabili zuenekoa.

Bertsolaritza sozialaren atarian gaude.

Bertsolaritza soziala

Juan Mari Lekuonak, 1960az ondorengo bertsolaritzaz ari dela, honela dio bertsolariek orduan erabiltzen zituzten gaiei buruz (Lekuona, 1998: 99):

> *La temática se ha polarizado bastante en el mundo social y político del pueblo vasco. Al bertsolari se le ha exigido ser el intérprete y el animador de la colectividad en sus sentimientos y en sus afanes, en su pensamiento y en su lucha. Paralelamente a la poesía social de los autores cultos ha surgido lo que podrá denominarse bertsolarismo social. Dentro de esta tendencia, generalizada hoy [idatzia berez 1978koa da], cabe destacar dos nombres, los dos pertenecientes a la generación vizcaína actual: J. Lopategi en el campo de la improvisación en público, y X. Amuriza en el bertsolarismo social consignado por escrito.*

Berehala egingo du jauzi Amurizak plazara. Herriaren zati handia eske ari da. Habia prest dago. Dena den, esan bezala, hemen etengo dut bertsolaritzaren historiaren haria.

2. Uztapide bertsolaritzaren historian

Urte horietan bizitzea egokitu zitzaion Uztapideri. Eskenatoki horretan izango da punta-puntako protagonista. Hogeita bost urte ditu 1935eko urtarrilean, Basarrik lehen txapelketa nagusi hura irabazi zuenean. Buru-belarri bizi da bertso-munduan. Ondo ezagutzen du bere inguruko tradizio zaharra. Hogeita sei urterekin kantatuko du, 1936ko Bertsolari Egunean; bigarren saria emango diote. Gerrateko etenaren ondoren, bera izango du bertsolaritzak protagonista nagusia, Basarrirekin batera.

Uztapidek bete-betean bizi izan zuen bigarren aroa. Bizi ez ezik, bera izan zen, Basarrirekin batera, aro horren oinarri eta ardatz. Basarrik baino hobeto ezagutu zuen aro zaharra. Eta plazan kantatzen jarraitu zuen, Basarrik utzi zuenean ere. Eta Uztapidek berak aitortu zuen bertsolari handia zela Amuriza, batek baino gehiagok bertsolari zela ere zalantzan jartzen zuenean, 1980ko txapelketa nagusia irabazi ostean (Esnal, 2009).

Hiru gai zirriborratuz aletuko ditugu kontu horiek: 1) Uztapide, bertsolaritza zaharraren jarraitzaile, 2) Basarriren bertso-lagun, 3) Amurizari lekukoa ematen.

Gauzak gehiago zehatz eta biribil daitezke, baina erraz egin lezake hori norberak, lehenengo puntuan esanak erreferentzia dituela. Atze-oihal horren gainean ipinita, nabarmen azaltzen dira Uztapideren figuraren ertzak eta hezur-mamiak.

Bestalde, *Uztapide bat-batean* liburuko hiru pasarte luze erabiliko ditut. Azken batean, liburu horren segida eta osagarria da idazlan hau[7].

Bertsolaritza zaharraren jarraitzaile

Uztapide, bertsolaritza zaharraren seme ez ezik, haren jarraitzaile ere izan zen.

Hasteko, bete-betean bizi izan zuen bertsolaritza zaharra. Horretaz jabetzeko, nahikoa da *Lengo egunak gogoan* irakurtzea (Uztapide, 2009). Eta, bizi ez ezik, gozatu ere egiten zuen. Uztapide gaztearen bertsogintzan ez da sumatzen bertsolaritzarekiko aitzakiarik, ez euskararen aldetik, ez bertsogiroarenetik. Hark ez du epaitzen bertsolaritza. Are gutxiago, gaitzesten. Ondorioz, Uztapide gazteak ez du ikusten, Basarrik bezala, bertsolaritza zaharra eraberritu behar denik. Horregatik, bertsolaritza zaharraren jarraitzaile da; Basarri baino jarraitzaileago.

Uztapide gazteari iritsiko zitzaizkion mugimendu berriaren oihartzunak. Baina hori: oihartzunak. Hasiera hartan, ez zuen bere burua sentitzen mugimendu hartako partaide; are gutxiago, eragile. Hala ere, urte askoan izango du Basarrik bidaide.

Basarriren bertso-lagun

Ez dago Uztapideren bertsogintzaz jarduterik, Basarrirena aipatu gabe. Eta alderantziz. Izan ere, esan bezala, hogeita sei urtean ibili ziren elkarrekin

[7] Gogoan izan lehen oin-oharrean esana: *Uztapide bat-batean* liburuaren aurkezpenerako prestatua da idazlana.

herriz herri. Horregatik, *Uztapide bat-batean* liburua, neurri batean, Basarriren bat-bateko bertsoen antologia ere bada.

Bertso-kantuan uztarkide izan ziren Basarri eta Uztapide. Baina, lehenago esan dugunez, galdera da zer neurritan izan ziren egitasmo bereko uztarkide. Bidaide bai. Baina gogaide?

Hasierako zalantzak

Uztapide gazteari ere iritsi zitzaizkion, nonbait, mugimendu berriaren oihartzunak eta zipriztinak. Eta, horrelakoetan, ez da erraza izaten mugimenduaren uholdeak ez harrapatzea.

Ez dakigu zer neurritan busti zuen uholde hark. Baina, 1936ko Bertsolari Egunean behintzat, Uztapide saiatu zen nolabait giro hartara egokitu eta moldatzen (Aldai; Esnal, 2009: 23-24):

> *Urtebete lehenago, 1935ean, zeresanik franko utzi zuen euskaltzaleen artean lehenengo bertsolari-txapelketak. Esan beharrik ez dago arreta biziz aztertuko zutela ekitaldi hura gainontzeko bertsolariek ere. Eta Basarrik, txapela jantzi zuenak, lehen bertsotik eragindako harridura eta sortutako miresmena gogoan, Uztapidek ere ondotxo pentsatuak eramango zituen hasierako agurreko bi bertsoak:*
>
> *Nere agurra emen bildu diran*
> *eusko donostiarrari*
> *eta lantegi zoragarri au*
> *emen jartzen dutenari.*
> *Eskerrak eman bear dizkiet*
> *epaimaieko jaunari,*
> *oiez gaiñera teatro ontan*
> *dauden entzule danari.*
>
> *Nere maixu ta guzi det emen*
> *olerkari ikastola,*
> *ene anaia maitagarriak*
> *artu entzuteko ajola.*
> *Emen ikusten det nik jendeak*

maitasun piska badula,
bestela oinbeste euskaldun ezin
onera bildu iñola,
biotz barrendik agurtutzen det
euskaldunaren odola.

Hor daude, agerian, Uztapide gaztearen egokitze-ahaleginaren arrastoak: «eusko donostiarrari», «olerkari ikastola», «euskaldunaren odola»... Baina ezin ukatu hitz horiek arrotz egiten direla haren ahotan. Ez dakigu zer neurritan sumatzen zuen horiek kantatzean bere burua eroso.

Kontrapuntu

Gerra amaitu eta berehala hasi zen Uztapide bertsotan. Lau urte geroago itzuli zen Basarri etxera, langile-batailoi batetik. Laster ziren biak elkarrekin kantuan. Baina euskal gizartean ez zen geratzen gerra aurreko mugimendu haren arrastorik, ez bada Basarri eta gutxi batzuen gogoetan. Eta, geldituta ere, ez zegoen azaltzerik. Debekuak agintzen zuen.

Giro hartan hasiko dira biak elkarrekin bide luzea egiten. Eta, besteak beste, bi bertsolariren artean bertsotan egiteko moldea hezurmamituko dute. Ezaguna da, topiko bihurtzeraino, bertso-saioetan Basarrik irekitzen zuela bidea eta Uztapidek jarraitzen ziola. Baina ez da hori soilik. Hona hemen testigantza bikain bat (Lertxundi, 2001: 349-350; Aldai; Esnal, 2009: 35-38):

> *Nik dozena bat urte nituala, gutxi gorabera, Aiako festetan, Donato Deunaren egunez, 1944-ko abuztuaren 7-an, Basarri eta Uztapide ekarri zituzten.*
>
> *Nere denboran leenengo aldiz orduan entzun nien neurri artako bertsolari batzuei. Nik nerez txikitandik ekarri nuan bertso-zaletasuna; eta egun artan bi bertsolari sonatuenak aurrez aurre ikusi eta aien bertsoak entzunez egotea, gaur Aita Santua ikustea baiño aundiagoa zan askozaz ere.*
>
> *Meza nagusi ondoren, era ontan jarri zuten bertsolariak kantatzeko tokia: plazaren erdi-erdian bi bukoi edo kupel aundiren gaiñean oltzadura bat; gaiñera igotzeko eskaillera, ertz batean; gaiñean, alde banatan aul-*

kietan eserita bertsolariak; eta erdian, beste aulki batean jarrita, botilleroa, noizik eta bein aiei tragoxka bana emateko.

Garai artan bertsolarientzat gai-jartzaillerik etzan izaten, eta beti edo geienetan Basarrik ematen zion asera, eta nondik nora joan bear zuten bidea jarri ere bai.

Lendabizi, Basarrik erriko Zaindariari kantatu zion; eta Uztapidek ere berdin. Ez dakit ziur gai artan bina edo iruna zenbat bertso kantatuak izango zituzten. Baiña Basarrik urrengo bertsoan erriko agintariengana jo zuan.

Orretarako, oartxo bat egin nai diot irakurleari, gauza nola gertatu zan jakiteko eta Uztapideren ateraldia errezago ulertzeko. Lenago esan det nola kupelen gaiñeko oltzaduran jarri zituzten bertsolariak. Inguru guztia jendez beteta zegoan, eta aurreko aldean erriko alkate jauna bere zinegotziekin aulkietan eserita. Alkatea eun eta berrogei kilo izango zan gutxienez, eta ortatik etorri zan Uztapideren bertso gogoangarri ura.

Basarrik, kantatzeko bidea jarri zion, azkeneko bi puntuak onela kantatuz:

Orain urrengo eginkizuna
au degu bertsolariak:
bion artean jaso ditzagun
erriko agintariak.

Uztapidek:

Basarri oni burutazio
xelebrek zaizka etortzen,
zer lanbidetan sartutzen geran
ezta kontuan erortzen.
Agintariak goraltze ori
etziok erreza lortzen,
kostako zaiguk alkate jauna
emen goraño jasotzen.

Uztapideren bertsoa entzun zan une ura, Aiako plazan arrigarria izan zan. Ura adierazteko ez dago itzik. Ango parre-algarak eta aiek oiuak! Ura jendearen eromena! Bertsozaleak gozatzeko uneak oiek izaten dira.

Orrelako gauzak, norberak bizitzen ez baditu, eziñezkoa da gertatuaren berri ematea.

Horra hor bertsolariek jarritako festa. Festaren magia eta ederra. Basarrik eta Uztapidek ez dute bertsogintza berdin ikusten eta juzgatzen. Baina badakite ahaleginean bat egiten herriaren zerbitzutan.

Kontrapisu eta osagarri

Ordu asko eta asko eman zituzten elkarrekin Basarrik eta Uztapidek. Bai bertsotan eta bai lagunarteko otordu, tertulia eta abarretan. Ez dakigu zenbat hitz egingo zuten bertsogintzaz. Tarteka, beren ikuspegiak-eta trukatuko zituzten, noski. Agian, Basarri saiatuko zen Manuel leziatzen. Baina gehiegi ere ez. Manuelek bazekien entzuten, eta nahikoa zuen hitz gutxirekin. Horren erakusgarri, pasarte esanguratsu hau kontatzen du Nikolas Zendoiak (Zendoia, 1998: 223):

> *Bazkari-denboran, bere ateraldi batek erakutsi zidan edozein moduz ez zala jardun bear berarekin izketan. Lopategi gaztea zan eta gizon ikasia. An ari zan amar minutu inguruan bere adierazpenak egiten. Jende guztia isilik, berari entzuten. Alegia, mundua noiztik dan, eta gizona tximuarengandik datorrela eta abar. Manuel zaarra ere isilik; baiña alako batean esan zion:*
>
> *–Ba, zu ere olakoxea zera, ba, ta sinistu egin bearko da.*
>
> *An bukatu zan Lopategiren sermoia.*

Errazago botatzen zaizkio horrelakoak gazte bati. Eta, beharbada, Basarrik ere entzun beharko zuen horrelakorik noizean behin. Baina ez dut uste honek aukera handiegirik ere emango zionik. Elkarren mugak eta ertzak ezagutuko zituzten, eta aurrera. Gehienez ere, inoiz urrunegi joan bazen Basarriren lezioa, ez zen asko izutuko Uztapide. Antonio Zavalak esan zuena erantsi beharko genuke geuk ere: «éste, impertérrito, siguió cantando en las plazas de aldea y en las tabernas y sidrerías». Baina Basarri ere ez zen asko izutuko Uztapideren jarrera eta ateraldiekin.

Kontuak kontu, biek elkarrekin jardun zutela urte askoan herriz herri eta lagunartez lagunarte. Azken batean, elkarren arteko bertsogintzak eta jarduerak axola zion.

Dena den, herriak sumatzen zuen bien arteko aldea. Eta ez soilik bertsoak kantatzeko moduan. Sumatzen zuen, nolabait, proiektu bat zegoela Basarriren bertsogintzaren oinarrian, eta halako planteamendu eta teorizaziorik gabekoa zela Uztapiderena.

Hitz gutxitan esateko –horrela jarduteak dituen arriskua guztiekin–, bertsogintza kultua zen Basarrirena; herrikoia Uztapiderena. Eta, hala ere, biek elkarrekin uztartzen asmatu zuten. Eta bien ekarriez osatu eta aberastu zuten emaitza: aldi berean, bertsogintza kultua eta herrikoia moldatzen, eratzen eta hezurmamitzen asmatu zuten.

Sentiberatasun sozialaz

Horregatik, bertsogintza jantzia da Uztapide zaharrarena. Heldutasun eta nortasun osoz egokituko da garai berrietara.

Uztapideren azken urteetako bertsolaritzaz ari dela, argi esan du Juan Mari Lekuonak: bertsolari jartzen zitzaizkion gai askok zerikusi handia dute Euskal Herriko mundu sozial eta politikoarekin («la temática se ha polarizado bastante en el mundo social y político del pueblo vasco»).

Uztapidek ez zion muzin egin eskari horri. Barru-barrutik erantzungo dio, bere burua saldu gabe. Ja ez da 1936ko Bertsolari Eguneko gazte hura.

Nahikoa izango da adibide batekin. Usurbilen gaude, 1971ko Santa Isabeletan, uztailaren 3an (Aldai; Esnal, 2009: 349-350).

Uztapide, Joxe Lizaso, Mattin, Xalbador, Lopategi eta Azpillaga bertsolariek kantatu zuten, plazako pilotalekuan izandako jaialdian.

Ekitaldian jasotako dirua, jaialdiko grabazioak dioenez, ikastolari laguntzeko eta Urrujulegi maisu hil berriaren familiari laguntzeko izan zen.

Jaialdiko pasarte batean, ondorengo gai hau jarri zion Antton Aranburuk Uztapideri, hiru bertso kanta zitzan.

Isuriko zenituen txikitan. Haziagoa izandakoan ere bai. Malkoak.

Gure maisuak gaia zer dedan
esana dizute aurrez.
Ortik kanpora nik esaterik
pentsatzen ez det ezer ez.
Aitortze 'izutet, anai-arrebak,
bertatik biotz jatorrez,
Euskal Errian bizi naizela
malkotan eta negarrez.

Karga aundia bein artu nuen
ta au iñoiz ez zait arintzen.
Ni bezelaxe beste bat ere
nola ez da emen mintzen?
Irurogei urte emen eta
asi burua urdintzen.
Ta pena daukat: gure ondoan
atzerritarrak agintzen.

Galduak eta irabaziak
izan oi ditu jokuak.
Baiña galera seguru dauka
guk egin degun tratuak.
Madrid aldera joaten dira
Euskal Errian batuak.
Ta euskaldun bati nola ez isuri
begietatik malkuak?!

Uztapide zaharraren bertsoak dira. Hamar hilabete barru geldituko da kantatu ezinda. Harro utzi ditzake plazak. Bere egitekoa bete du. Gaurko egunetaraino ekarri du bertsolaritza zaharra. Katea ez da eten. Are gehiago: gailur-gailurrera igo du bertsolaritza zaharra. Bera du bertsolaritzak ardatz eta gailur.

Amurizari lekukoa ematen

Kantatu ezinik geratuta ere, gertu-gertutik jarraituko du bertsolaritza. Eta Uztapidek berak aitortuko du bertsolari handia dela Xabier Amuriza,

batek baino gehiagok bertsolari zela ere zalantzan jartzen zuenean, 1980ko txapelketa nagusia irabazi ostean.

Amurizak ere asko estimatzen zuen Uztapide. Eta gustura kontatzen ditu harekin bizi izandako zenbait pasadizo. Besteak beste, honako hau (Esnal, 2007: 10-11):

> *Behin, joan da Amuriza Oiartzuna bertsotara; eta, bertsoak entzutera bildutakoen artean, hor ikusi du Uztapide, bakarrik eserita, bertso-jaialdia noiz hasiko zain. Xabier hurbildu eta ondoan jarrita, hizketan hasi omen ziren denbora-pasa, bertsolari lagunak azaldu artean. Baina denbora aurrera, eta inor ageri ez. Orduan, Amurizak esan omen zion:*
>
> *–Hemen gaude, Manuel, bi tonto bezala.*
>
> *–Bi tonto bezala ez. Bi tonto –erantzun Uztapidek.*

Amurizak ez zuen aukera handirik izan Uztapiderekin tratatzeko. Baina seguru kantatu ziola, isilik bederen, aitari kantatutako hura: «nik egingo duk arbola haundi zuk emandako hazia».

Manuelen hiletetan, behintzat, ozen aitortu zuen Oiartzungo elizan, hango jendetza haren aurrean, hura izan dela bertsolaritzak izan duen «maisurik haundina».

Bibliografia[8]

ALDAI, N.; ESNAL, P. (2009): *Uztapide bat-batean. Antologia.* Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia [Auspoa Liburutegia 313].

DORRONSORO, J. (1988): *Bertsotan II: 1936-1980*. Donostia: Gipuzkoako Ikastolen Elkartea.

ESNAL, P. (2007): *Manuel Olaizola «Uztapide»*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia [Bidegileak 47].

——— (2009): «Uztapide: 100 urte». In *El Diario Vasco*, 2009.05.06: 83.

LEKUONA, J.M. (1982): *Ahozko euskal literatura*. Donostia: Erein.

[8] Argitalpen bat baino izan dituzten lanetan, eskurago izan dezakeguna aipatzen dut.

——— (1998): *Ikaskuntzak Euskal Literaturaz (1974-1996)*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea.

——— (1978): *Idaz-lan guztiak: 1. Aozko Literatura.* Tolosa: Librería Técnica de Difusión [Kardaberaz bilduma 22].

LERTXUNDI, J.M. (2001): «Lagunen oroitzapenak». In Uztapide. *Berriz plazara II*. Oiartzun: Sendoa [Auspoaren sail nagusia 12]: 349-363.

ONAINDIA, S. (1964): *Gure bertsolariak*. Bilbo.

URKAREGI, J. (1987): «Zenbait topiko 'Aitzol' zenari buruz». In *Jakin* 45: 137-145.

UZTAPIDE, M. OLAIZOLA (2009): *Lengo egunak gogoan*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia [Auspoa Liburutegia 314].

ZAVALA, A. (1963): *Azpeitiko Premiyoaren bertsoak (1893-1895)*. Tolosa: Auspoa [Auspoa Liburutegia 27].

——— (1967): *Bertsolari-txapelketa (1967-VI-11)*. Tolosa: Auspoa [Auspoa Liburutegia 67].

——— (1996): *Auspoaren auspoa I*. Oiartzun: Sendoa [Auspoa Liburutegia 238].

——— (2000): «Doktore berriaren hitzaldia *Honoris causa* doktore izendapenean». In Askoren artean. *Antonio Zavalaren ohoretan*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.

ZENDOIA, N. (1998): *Beranduko birigarroa*. Oiartzun: Sendoa [Auspoa Liburutegia 254].

ZUBIMENDI, Y. (1985): *Bertsolari-guduak. 1935-1936.* Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia [Bigarren argitalpena. Lehenengoa: Donostia: Euskaltzaleak, 1935].

Uztapide: eskua bertsotan

ARANBURU, Antton
Euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiko Herri Literatura batzordekidea

Manuel Uztapide. 1962ko txapelketan «ama» gaia emanda, gure Manuelek bizituko zuen trantze beretsuan nagoela esango nuke neu ere. Haren orduko bertso-bukaera gogora ekarriz, hauxe da niri ere burura datorkidan gauza bakarra: «**beste zer esanik ezta...esanikan...Uztapide**». Beraz, hark «ama» esan zuen bezala, «Uztapide» diot nik, beste zer esanik ez-ta: Uztapide.

Di-da batean esango dut esan beharrekoa, baina kontuan eduki, esango dudan tajuzko gauza bakarra dagoeneko esana dudala, «Uztapide» alegia.

1. **Manuelek bertsozaletu ninduen**, Basarrirekin batera, jakina, Usurbilgo Udaletxeko balkoitik kantari ikusita; behin baino gehiagotan gainera. (San Juan eskea, Santa Ageda, Ara nun diran, Lagundurikan denoi...)

Ordukoa dut lehen oroitzapena. Baina, harritu, harritu, **1971**an seko harritu niduen Manuelek, neu gaijartzaile nintzela Usurbilgo plazan egindako saioan baino gehiago, saioaren ondoren. **Patri**nera sartuta, sekulako festagiroa jarri zuen Uztapidek. Ni berarekin bakarrik gogoratzen naiz, baina gauza bat geratu zitzaidan grabatuta: «**honek bertsoak eskuarekin kantatzen dizkik**». Hau da, orkestra-zuzendari bat izan zitekeen nik gau hartan ikusi nuen Uztapide..eta, noski, orkestra osoa, bera zen, bertso kantari. Espektakulu totala. Hori da nik Manuel zenaz dudan oroitzapenik biziena...**eskuarekin kantatzen** zituela hark bertsoak, bat bestearen atzetik, etengabe.

2. Hori alde batera utzita, ez diot gaurko bertsolaritzaren inguruko diskurtsoari ezer gehituko; hor dabiltzanak gustura dabiltzala dirudi eta kitto!

Euskera. 2009, 54, 1. 241-243. Bilbo
ISSN 0210-1564

Hala ere, Manuel gogoan dudala, galdera bat egingo dut: **nor da bertsolari gaur gure artean?** Bertsolari izeneko horiek denak al dira bertsolari? Ez dut uste kantari ikusten ditugun denak bertsolari direnik.

Gaur hemen mahaikide izan behar zuen Abel Muniategik, **«bertsoginak» eta «bertsolariak»** bereizten ditu, batik bat, ia gehienek egin dituzten unibertsitate-ikasketen ondorioz, euren prozesu mental eta jardun dialektiko edota erretorikoaz ohartuta.

3. Beste kontu bat: bertso munduan **zer ez da aldatu azken hamarkadetan**? Bertsolaria, bertsozalea, publikoa, bertso-emanaldiak, plaza bera.. dena aldatu da, eta baita **bertsoa ere aldatu da**...ikusi besterik ez dago zer kantatzen den gaur, edo zein den bertso-kantagaia.

Bizitza bera bere eguneroko joan-etorri eta, beraz, bere aberastasun guztian hain kantagai ez izateak penatzen nau gehiena. Bertsolaria, arrotz, besteretua ikusten dut askotan...**trabestitua** –horrela esan badaiteke–: antzesle, pailazo, mago, aktore, txotxongilo, rapero... «Treatroa», koñe!

4. Badakit **ikus-entzunezkoek,** ikus-entzunezkoen mundu bizi eta koloretsu horrek, bere pantaila guztiekin, **jauzi kualitatibo** bat eginarazi diotela eta eginarazten diotela egunero bertsolaritzari. Hau oso kontuan eduki behar da gaurko bertsolaritza ulertzeko.

Ideologia kontuarekin ez naiz sartuko, gauzak gehiago ez txispatzearren, baina inork ikerketa edo, agian, tesi on bat egin nahi badu bertsolaritzaren azken urteotako garapenaz, **«ideologia eta bertsoa»** gaian aurki dezake zer aztertua.

5. Hauxe ere esan nahi nuke, **txapelketa nagusi** urtean gaudenez. Nire irudipena da, **txapelketak markatzen duela gaur bertsolaritzaren norabidea**. Edo beste modu batera esanda: txapelketa dela, lehen egin dudan «nor da bertsolari?» galderari erantzun zehatza ematen dion ekintza nagusia, bertsolari mota jakin bat lehenetsi edo hobesten duelako, hain zuzen ere, txapelketak.

Beraz, **nolako txapelketa, halako bertsolaria**, esango nuke nik; hori dela gaurko ekuazioa. Eta hori horrela izanda, zilegi da, noski, **nolako txapelke-**

ta? galdetzea ere. Hori da beste galdera handia: nolako txapelketa antolatu behar da?

6. Bukatzeko, gaurko bertsolaritzari eta bertsolariei begira jarrita, Xenpelarrez gogoratzen naiz askotan, eta hark kantatutakoarekin: **«zatoz gure kalera, baserritar legera...musika horiek utzita»,** modernokeria horiek denak utzita, esango genuke gaur; eta, baita ere **«debalde festa preparatzen det gogoan dedan orduan»,** horrekintxe gogoratzen naiz, kontu eginik, lehen baino askoz ere musika tentagarri gehiago daukagula gaur.

Beraz, hori: «zatoz gure kalera, baserritar legera...» horixe hots egiteko gogoa ematen dit batzutan. Eta hori pentsatzen dudanean Uztapiderekin gogoratzen naiz beti, ingurukoak aho zabalik berari begira zituela, bertsoak eskuaz edo eskuarekin kantatzen ikusi nuen Manuel Uztapiderekin. Hura bai bertsolaria!

Gai-jartzaile baten larriak

IRIONDO, Joxemari
Euskaltzain ohorezkoa eta Euskaltzaindiko Herri Literatura batzordekidea

Hasieran baietza eman nuen, baina gero dira hemen kontuak. Nondik eta nola hasi? Zer esan lehen ere esan ez denik?

Baina erabaki dut gai-jartzaile triste baten estuasunak eta larriak kontatu beharko ditudala; eta horixe eta ez besterik dira ondorengo nere gogoeta xinple hauek. Ez nuke nahi garai bateko neure lanaren pozak eta penak azpimarratzea besterik. Egia da, bai, nik egiten nituen pekatu berdinak egiten ikusi nuela/dudala beste asko ere.

«Garai ederrean hator», esango du norbaitek; eta egia da berandu dela, nere garaia joan baitzen, eta nekez egingo dut berriro gaijartze-lanik, jaialdi zehatzen batean ez bada behintzat (*Xalbador egunean*, adibidez) Hala ere, Uztapide haundiaren mendeurreneko ospakizun honetan gai hau zertan ez nuen aipatzen esan zidaten gure Herri Literatura batzorde honetako kideek, Uztapiderekin lotura zuzena izan nuenez. Eta baietza eman nien orduan, zergatik ez nekiela, gai-jartzera joaten nintzanean bezelaxe.

Zestoan, 1962an

1962an hasi eta 1983 arte ehunka bertso-jaialdi aurkeztu eta beste horrenbestetan bertsolariei gaiak ematen ahalegindu nintzen, hogeita bost urte inguruan.

Lehenengo gai-ematea, halabeharrez, hementxe Zestoa egin nuen. Ordurako irratian egiten genuen *Bertsolari gazteen sarkiketa* zelako hartan

Euskera. 2009, 54, 1. 245-253. Bilbo
ISSN 0210-1564

(1962ko otsailetik maiatzera egin genuen lehenengoa) igande eguerdiero jartzen nizkien gaiak bertsolari gazteei. Baina jendaurrean, 1962ko San Jose egunez, hementxe *Hermanotako ikastetxeko* bazkalondoan izan nintzen lehenengoz, nere lagun min Joxe Sagarzazu zenak eskatuta. Gogoan daukat estu eta larri etorri nintzela. Ez dakit nola esan nuen baietz, ez bainuen esperientziarik artean. Norbait ikusi nuen ordurako gaiak ematen, baina ez da berdin besterik ikusi edo norberak gaiak eman. Baina gaztetasunak ematen duen ausardiarekin etorri nintzen sekula inork eman ez zidan gai-jartzaile titulua neure kontura hartuta. Gero ere, 1963an-eta etorri izan nintzen festa hartara, Uztapide, Basarri, Lizaso, Oranda, Lazkano eta abarrekin.

1972ko apirilaren 30ean, Anoetako pilotalekuan Uztapide, Agirre, Azpillaga eta Gorrotxategiri *Odolkiak ordainetan* gaia eman nien egunean hantxe nintzen. Denuntzia izan genuen denok. Eta gero, *Gazteak zer dira zuretzat?* gai emanda hitzik gabe egun hartan gertatu zen. Beraz, Uztapide-Basarri, Lizaso-Agirre-Lazkano… guzti horiei gaiak emateko aukera izan nuen, eta askotan izan ere. –portzierto, ehunka bertso-saiotan izan nintzela esan dut. Gogoan daukat 1976an 66tan izan nintzela, eta seitan bakarrik ordaindu zidatela zerbait, ordura arteko bataz-bestekoa onduta.

Hala ere, esan behar dut jaialdi bakoitza, edo gaijartze bakoitza, sufrimentu bat izan zela neretzat. Ustez behintzat, zein bertsolari ziren kontuan hartu, bertsolari bakoitzaren kutiziak aztertzen saiatu, bakoitzari zegokion gaia eta bikote-laguna egokitzen ahalegindu, eta hor joaten nintzen, baina beti beldurrez, beti ikaraz.

Gaijartzea

Oso oker ez banago, lehenengo gai-jartze ofiziala, Pello Esnalek aipatu duen 1935eko Donostiako *Bertsolarien gudu* hartan egin zela uste dut. Eta handik aurrera egin diren bertsolari txapelketa guztietan ezinbestekoa izan da bertsolariei gaiak ematea. Bidezkoa dirudi gainera, gaiak jarri egin behar baitira txapelketa/sariketatan, bertsolari asko biltzen direlako jeneralean, eta nolabaiteko arauak jarri behar direlako neurketa edo nor-gehiagoka horietan, gero bakoitza neurtu ahal izateko. Ez dago beste modurik, agian,

historiak jasotzen dituen lehenengo neurketa haietan bezala jokatu ezean behintzat.

Baina herriko festatako bertso-jaialdietan, txapelketa edo neurketa batean bezala egin behar al da bertsotan gaiak emanda? Eta lau, sei edo zortzi bertsolari hartu eta jaialdia programatzen bada, eta ordu pare bateko bertsosaioa toki itxian egin, nolabaiteko mugak jarri beharko dira. Nola utzi libre eta bakoitzak nahi duen bezala horrenbeste bertsolari saio batean? Nola egin ordu t'erdi edo bi orduko jaialdia bertsolari denak gai librean direla?

Alabaina, toki itxian egiten diren bertso-jaialdiak mugatu behar badira ere, ez al dira aski hiru-lau bertsolari jaialdi baterako? Eta hor ere gaiak eman behar al zaizkie bertsolariei, nahiz eta bertsozalea hortaraxe ohitu dugun? Areago: gaiak jarri behar badira ere, beharrezko al da gaia eman eta bat, bi, hiru bertso eskatuz bertsolarien lana mugatzea? Begira zer dioen oraintsu hil zaigun Joxe Lizaso zenak[1]:

> *Bertso bat kantatzeko ere gaia ematen dizute-eta orain! Bi kantatzeko ere bai! Nik ezin det ori onez eraman. Kontra dagoenak pentsatuko du nai duena, segitzea dauka! Gurea joan da! Baiña gurea beste era batekoa izan zan. Baiña nik ezin det oraingo au eraman. Gaiñera, gezurra esan bear baldin bada ere, sentitu egin bear da. Nik ez badet gaia sentitzen, zer edo zer esango det nik ere, baiña sentitzen ez dan bertsoa... Norbera ez badago lazo orretan, alperrik da.*

Bestalde, beharrezko al da lau oinak, puntuak eta abar erabiltzea, txapelketetan egiten den bezala? Asmakiloak, txisteak eta abar ere jarri izan dira inoiz (Ataungo Altzanipen Joxemiel Barandiaranen omenaldikoan (1972) jarri zuten asmakiloa datorkit burura).

«Hau» eta «hori esan behar duzu» askotan agintzen zaio bertsolariari. Eta oso artifiziala eta lotua iruditzen zait hori dena, ez bururik eta hankarik duena.

Bertsolari berak ere ikusi izan ditut lehen eta orain ere gaiak ematen beste bertsolariei, «hau esan behar duzu» eta «hori erantzun behar diozu» esanez.

---

[1] *Zeruko Argia,* 2003ko irailaren 14a.

2004an Getxoko bertso-eskolak antolatu zuen saio batean, adibidez, «zuk esan behar duzu, zuria beltza dela; aldiz, zuk, beltza zuria dela erantzun behar diozu. Bina bertso». Beraz, gure garaian bezala oraintxe ere[2].

Azpeitiko Santo Tomasetan, orain dela urte asko, puntua irakurri egin omen zion Joxe Lizasori gaijartzaileak (Tomas Etxaniz jaunak), eta Joxek esan:

–Ez, ez. Hori kantatu egin behar dezu, kantatu–; eta gai-emaileak orduan:
–Kantatu zeuk kantatu, hortarakoxe kobratzen dezute-ta…

Pasarte xelebre asko konta liteke, baina labur beharrez, 1960ko txapelketa nagusian Andres Narbarte *Xalto* zenari pasatu zitzaiona ere bitxia da. Txapelketa zan Donostian, bertsolariak neurtu eta saritzeko eguna. Eta puntua honela jarri zioten Alfonso Irigoien jaunak:

–Belgatarren erregin
egin da Fabiola.

Eta Narbartek:

Igerri diot, Alfontso, egiya diyola,
beste gaiñekun etzan mintzatuko orla
Antxen pentsatutzen det zerbait badagola.

Narbarteri, edo edozein bertsolariri ere berdin da, jarri egin behar zaio holako puntua! (Eta…*egin da Fabiola* neurriz ere gaizki dago gainera, *Fabio-la* egiten ez bada, zortziko txikiak bigarren bertsoan sei silaba eskatzen baititu, eta hor ez daude sei, zazpi baizik).

Ez dago esan beharrik, Narbartek ez zekiela tutik belgatarren erregina zen Fabiola, ala Zeanuriko zekorra zen.

Xalbadorri, *Erromako zubia* gaia eman zioten beste txapelketa batean, Baxenafarroan *Ortzadarra* esaten dutela kontuan izan gabe. Zozketaz egokitu zitzaion gaia, jakina.

---

[2] *Urola Kostako Hitzan 2009.02.15:* «Zer da gai-jartzea? Nola egin bertso-saio txar bat gaien erruz». Unai Elizasu eta Antoni Egañak, 2009ko otsailaren 18an, Azkoitian.

Eta beste eredu asko ere aipa genezake, noski. Geroko elkarrizketan aterako dira holakoak. Manuel Uztapidek bere «Lengo egunak gogoan II» liburuan zera kontatzen du, 59ko azaroaren 8an Eibarren egin zen txapelketa hartaz:

> *Sariketa bat izan zan Eibarren orain dala urte batzuek, eta gu ere an giñan. Ori San Pedro egunetik aparte zan, Untzagako plazan zan (San Pedro egunean beste jaialdi bat egiten baitzuten han), eta bazan jendea pranko. Sarrera ordaindu bearrik ere etzan, da Eibarren iñon baño gutxiago begiratzen zaio gauza orri; baña beintzat gauza nola zan esaten det.*
>
> *Mobel edo Mogel edo orrelako izen bat ibilli zan an juradukoen ezpañetan. Guk, an giñan bertsolariak, ez genekigun gizon ori zer izan zan eta gutxiagorik ere, ta gaian ez giñan sartu bertsolaririk iñor ere bear bezela.*
>
> *Zazpi bertsolari juntatu giñan: Zepai, Mitxelena, Lizaso, Lasarte, Garmendia, Agirre ta ni. Bertsolariak iñork bear bezela gairik ibilli ez gendualako, ez piperrik ez gatzik etzuan eduki orduko sariketak.*
>
> *Nik askotan esan det, eta berriz ere esango det, bertsolariak zenbat dakiten begiratuta gaiak jarri bear lirakela; baña juradukoak berentzat moduko gaiak jartzen dituzte askotan. Ez dakite gu zenbateraño motzak geran. Berak, geienak karrerako gizonak dira, eta guk ere jakin bear degula uste dute, berak bezela*[3].

Bakoitzari dagokiona

Baina gaijartzaile arruntak ere horixe ta bera egiten du askotan: bertsolariaren kutizi eta joeraz (eta jakituriaz) asko pentsatu gabe, gai ilun samarrak jarri, nahiz eta gaurko bertsolariek informazio gehiago duten lehengo haiek baino.

Eta jartzen den gaia jartzen dela, «hiru bertso gai honi buruz» agindu eta, aupa mutilak!, gaiak hiru bertsotarako eman dezakeela, bitarako ez duela ematen, edota bertsolariak gustura hartu badu, lau edo bost ere bota dezakeela pentsatu gabe.

---

[3] *Lengo egunak gogoan* II.

Gai denak ez dute balio bertsolari guztientzat. Bertsolari bakoitzaren gustuak eta joerak ezagutu behar ditu gai-emaileak, eta nori berea ematen saiatu.

Gaia ematean begirazunak eta sinuek ere asko balio dute/zuten zenbaitekin. Adibidez, Joxe Lizaso zenari gaia jartzean, lasai-lasai burutik hanketara begiratu eta desapio-itxuran gaia emateak asko balio zuen, eta piztu egiten zen hura, eta desapioari desapioarekin erantzuten zion. Edota Azpillaga eta Joxe Oranda bikote apraposa zen gai jakin batzuetan, elkarri edozer esan eta bixi-bixi erantzun zuten haiek.

Nik hasieran esan dizuet ahaleginak egin arren ere ez nuela asmatzen. Gogoan daukat Azpeitiko Soreasun egindako bertso-saio batean bertsolari bat –Joxe Joakin Mitxelena zena– hasarretu egin zitzaidala, eta «gaiak jartzen denbora asko pasatu eta bertsolariari bi edo hiru bertso bakarrik botatzeko agintzen diozute!» esan zodala. Egun hartan, bengantzaz-edo, gaia eman eta «nahi adina bertso bota hitzak, Joxe Joakin» eskatu nion, eta bi bertso bota eta eseri egin zen.

Beste norbaitek «neri gairik txarrenak nola jarriko ibiltzen zinan beti», esan zidan urteak pasata gero hasarre, nahiz eta bazekien hori gezurra zela, gezur hutsa. Baina holaxe pentsatzeko adina eskubide bazuen hark ere.

Gogoz behintzat, gaiak eman nituen jaialdi bakoitzean bertsolariaren luzimenduari erreparatu nion beste guztien gainetik. Eta zin egin dezaket hori hola zela, nahiz eta badakidan ez nuela asmatzen askotan. Bistan da.

Garai hartan, jaialdia txukun samar egin eta bertsolariak eta bertsozaleak gustura uztea zen lehenengo helburua, eta ez bertsolariei gai zailak jarriz haiek neurtzen ibiltzea. Inoiz etxeratu nintzen uste baino lasaiago, jaialdi txukun eta dotore semarra egin genuela ikusita; baina beti gelditu zitzaidan «zinesgarria ez den teatro» horren kezka. Oraindik ere, urduri jartzen naiz jaialdi haietako gaijartzeaz gogoratzen naizen bakoitzean.

Bestalde, bakarkako gaietan-eta ohitura haundia izan da puntu luze (bederatzi puntuko) edo doinu jakinetara bertsolaria behartzeko. Zepai zena, adibidez, hasarretu egiten zen doinua aldatzera behartzen genuenean. «Zuek ari zerate bertsolaritza izorratzen!», esan zidan behin Idiazabalgo bere jatetxean. Zer pentsatua eman zidan.

Bertso-neurriei buruz, berriz, zer esan? Ikustazua Basarrik zer zioen 1959ko azaroaren 8an Eibarren egin zen txapelketa hura zelaeta:

> *Txapelketa, Euskaltzaindiak antolatu zuen (A. Irigoyen), Juan Antonio Mogelen omenez; eta zazpi bertsolarik hartu zuten parte: Uztapide, Lasarte, Joxe Lizaso, Zepai, Garmendia (Ordizian txapeldun izana), J.J. Mitxelena eta Joxe Agirre* Oranda *(Aginagan txapeldun izana). Eibarko Unzagako plazan egin zen lehiaeta. Basarrik ez zuen parte artu nai izan.*
>
> *Egun artako epai-maia, Antonio Arrue eta Koldo Mitxelena, Euskaltzainditik; eta Bordari, Antonio Zavala eta Juan San Martin.*
>
> *Azkenengo saioan, bederatzi puntukoan kantatzeko agindu zien Irigoyenek, eta berak ez zuela kantatuko erantzun zion Uztapidek, eta epaimaiak atzera jo bear izan zuen, lau puntuko bertsoa kantatzeko aginduz. Ala ere, Mitxelenak bederatzi puntukoa kantatu zuen, zertan ari zen arrastorik gabe.*

Oso hasarre agertu zen hurrengo eguneko kronikan, gazteleraz:

> *En mi crónica del domingo, precisamente, decía yo que nunca se debía obligar a los bersolaris a utilizar la melodía de las nueve consonancias, o lo que de otra manera decimos, a cantar «versos de nueve puntos». Y recalcaba que, en tal caso, el fracaso sería estrepitoso ante la imposibilidad de los bersolaris de vencer la gran dificultad. Mi extrañeza fue total en cuanto el jurado dio la orden de que los bersolaris cantasen en nueve puntos el tema obligado del día.*
>
> *Y… ocurrió lo que yo me presentía. Que los bersolaris protestaron enérgicamente de la decisión y el jurado tuvo que revocar la orden.*
>
> *Conociendo el complicado mecanismo de las estrofas de nueve puntos, en ninguna parte cabe esta exigencia. Sólo un bersolari cantó los nueve puntos y sin ninguna obligación de hacerlo, ya que el jurado había revocado la orden y se les había pedido que cantasen «versos de cuatro puntos.*
>
> *Y el único que se atrevió con la estrofa de nueve puntos, la comenzó y la terminó, eso si, pero sin mencionar el tema obligado y sin contenido eficaz*[4].

[4] 2) *La Voz de España*, 1959.

Uztapidek, adibidez, onartzen zuen gaiak jartzea. Eta gehiago: «Gaiak asko errezten du bertsolariaren lana», aitortu zuen bere *Lengo egunak gogoan* liburuan[5].

Gutxiengo baldintza batzuk

Ausardia behar litzake horretarako, eta ez diot inori leziorik eman nahi, gaijartzen goi-tituludun asko dago-ta gaur egun. Baina inork eman ez didan lizentzia hartu eta polbora berriro inbentatzen aritu gabe, gaijartzailearen gutxieneko baldintza batzuk hauexek izan litezkeela nago:

a) Lehenengo bertsolari-sena behar du gai-jartzaileak ere, bestela…

b) Gaia eman behar dion bertsolaria ongi ezagutu behar du gai-jartzaileak.

c) Bertsolari bakoitzari dagokion gaia argi eta zehatz ematen saiatu behar du, bertsolariarekin batera gaian inplikatuz eta bertsolariaren lana erraztuz.

d) Bertsolaria luzitzeko moduko gaia ematen ahalegindu behar du batez ere gai-emaileak.

e) Gaiak argia eta benetakoa behar du izan, gehiegizko loturatatik alde eginez.

f) Eta, hala ere, ahal denean, bertsolariak gai librean utzi behar dira, bertso-saio bakoitzerako hiru-lau bertsolari programatuz.

Badakit pelotalekuetara edo antzokietara jendea erakartzeko programak haunditu eta puztu egin behar direla. Baina, ez ote dira nahiko hiru-lau bertsolari saio eder bat egiteko, bertsolariak ahalik libreena utzita?

Badakit jaialdiak arautu egin behar dirala, eta bertsolariari errazten zaizkiola bere lana gaiak emanez –hala aitortzen du Uztapidek berak–, baina… Garai bateko bertsolari zaharrek egingo zituzten saio libreak, Zepai eta Txapelek, Basarri eta Uztapidek, Mattin eta Xalbadorrek, Lizasok eta Lasartek,

[5] Hain zuzen ere, maiatzaren 21ean Tolosan Antonio Zavalari egingo zaion omenaldian aurkeztuko da liburu honen berrargitalpena.

Agirrek eta Lazkanok, Azpillaga eta Lopategik eta beste hainbat eta hainbatek inork agindu gabe egiten zituzten saio haietaz gogoratzen naiz, eta… inbiria pittin bat sentitzen dut. Bai, badakit zahartzaroko ajeak izan ditezkeela hauek, baina nik ere neurea erreibindikatzeko eskubidea izango dut ba, ez?

A, eta konforme ez bazaudete, ahaztu dena eta aurrera, gure bertsolaritzak segi dezan gero ere.

Uztapidek 100 urte

EUZKITZE, Xabier
Kazetaria eta Euskaltzaindiko Herri Literatura batzordekidea

Ez dakit nola konta
litekeen bi elez
zenbat aldiz oroitzen
naizen Manuelez.
Ta kantuz oroitzea
bidezkoa denez,
bizpahiru kantatuko
ditut gutxienez.

Manuel Uztapide,
Endoian jaioa,
hizketan egokia,
bertsotan iaioa,
erantzun zorrotzetan
bizkor arraioa,
beti haize freskoa
zekarren leihoa.

Atzetikan begira
hortxe zauzkat, maisu,
gorago zaude eta
makurtzen natzaizu.
Oraintxe mende laurden
itzali zinan zu,
baina gaur Zestoara
zeuk bildu gaituzu.

Euskera. 2009, 54, 1. 255-256. Bilbo
ISSN 0210-1564

Ni ez naiz hain oparo
eta hain abila,
baina hauxe zan nere
ekarri umila.
Barruak eskatzen dit
isildu nadila.
Gora Uztapide ta
zuei esker mila!

Euskaltzaindia, Onomastika batzordea: Toponimia ikastaroa

Durangon, 2009ko ekainaren 4an

Euskera. 2009, 54, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564

Toponimia gizarteratzeko lanen garrantzia

MUGURUTZA MONTALBAN, Felix
Euskaltzaindiko Onomastika batzordekidea

Gizakia omen da, izaki guztien artetik, abstrakziorako ahalmena duen bakarra. Hau da, bere pentsamenaren bitartez, aurrean ez dituen alegiazko errealitate batzuk bizi ditzakeela. Adituen esanetan, burmuinaren hiperfuntzioari zor diogu gaitasun hori: gaixotasun izan zitekeen hori ezinbesteko baliabide bihurtu zen gizakiaren eboluzioan. Nola edo hala, horri esker, edozein tokiri egin dakioke erreferentzia bertan izan barik. Hortik, eta giza lengoaiaren eskutik, sortu zen toponimia: gizakiaren unibertsoko espazioak antolatzeko «koordenada» sistema berezia, egun satelite bidezko GPSek egiten dutenetik ez oso urruna.

Hobeki ulertzeko ilustra dezagun adibide batez. Irudika dezagun Gorbeiako Itxina bezalako paraje bat, labirinto karstikoa, eta Euskal Herria osoan aurki dezakegun paisaiarik ulergaitzenetakoa. Nahikoa izan da bertan toponimia aplikatzea, anabasa geologiko hori mende eta mendeetan zehar antolatzeko eta menderatuta izateko. Haren bitartez, inguruko herritarrek ez dute inolako oztoporik izan artzain txabola, ikaztegia edo harpea non ziren zehazteko. Toponimiaren garrantziaz ohartarazteko, pentsa dezagun nolakoak izango liratekeen mapak, leku izenak agertuko ez balira... Definizioz, esan daiteke toponimo bat entitate geografiko bati erreferentzia egiten dion izen berezia dela. Azalpen nahikoa tekniko eta akademikoentzat baina ez toponimian harago sartu nahi duenarentzat. Leku izenak gehiago dira, zerbait miresgarri, egiatan existitu gabe guztiok ezagutzen, onartzen eta konpartitzen duguna. Sinetsi ikusi barik... Ez al zen hori fedearen definizioa? Eta hori dena gutxi balitz, gure pentsamen eroaren ekoizpena den toponimia

Euskera. 2009, 54, 1. 259-263. Bilbo
ISSN 0210-1564

hori, azken finean, gizarte, kultura, herri edo gizabanakoen historia gorde duen geruza sistema bat da. Ez hemen, munduko bazter guztietan baizik, ez baita toponimia erabiltzen ez duen kultura edo zibilizaziorik ezagutzen.

Esan bezala, hiztun komunitate bati buruzko berebiziko informazioa iragaten digun sistema da: linguistikoa, historikoa, etnografikoa, antropologikoa... toponimian edozer sartu daitekeelako.

Horrela gauzak, erraz ulertuko dugu nola erabaki zen toponimoei ondare kultural ez materialaren tratamendua eman behar zitzaiela, New York en 2007ko abuztuan izandako Izen Geografikoen Normalizazioari buruzko Nazio Batuetako Bederatzigarren Konferentzian.

Eta ondare hitza aipatzen dugun unetik bertatik, guri, Administrazioari, dagokigu horri beti loturik doazen hiru faseen beteketa bermatzea: ondare hori a) jaso, b) egonkortu eta c) hedatu behar dugu. Batez ere, azken hau, hedatzearena, ondare ez materiala izateagatik, desagertzeko arrisku bizia duelako. Beste modura esanda, toponimiaren erabilera sustatu egin behar dugu haren irautea bermatzeko.

Ondare hori gal ez dadin, ahalegin berezia egin behar dugu, azkeneko mendean erabat aldatu zaizkigulako produkzio sistemak eta, ondorioz, behinola lurrarekin zegoen lotura estua barreiatu egin delako ia desagertu arte. Arau orokor moduan esan daiteke behar ez den toponimoa ez dela erabiltzen eta erabiltzen ez den toponimoa desagertu egiten dela. Bai hemen bai munduko azken bazterrean ere.

Bestalde, eta arestikoari jarraiki, esan behar da toponimo guztiek ez dutela galtzeko arrisku bera. Berriz ere, ilustra dezagun adibide batekin. Aurkintza eder bat ezagutzen dut, Aitzalde izena duena. Nik badakit non den baina nekez asmatuko du hau irakurtzen duen besteren batek. Errazagoa izango zaion, beharbada, behin esanda Aiztondo mendiaren hegian dagoela. Hala ere, seguru aski, oraindik ez da non den asmatzeko gauza esango. Baina hurbiltzen joango da esaten zaionean mendi horretara Beruete herritik igo ohi dela, herri hori Basaburuan dagoela eta Basaburua Nafarroa dela eta Nafarroa Euskal Herriko atal bat dela eta, azken hau, Europaren barruan dagoela. Identifikaziorako zailetik errazerako ibilbide honetan

ohartuko gara azken izenek (Europa, Euskal Herria...) ez dutela inolako galtzeko arriskurik baina bai izan dezakete beste muturrekoek (Aitzalde...). Horrelakorik gerta ez dadin, ondarea iraunarazteko hiru fase orokor horietan lan egin behar dugu. Goazen banan banan ikustera.

Toponimia jaso. Lehenik eta behin izenen ahozko testigantzak jaso behar ditugu, haien bitartez herri ahoskapena eta kokapen zehatza zein den jakiteko. Premia larrienekoa da, berriemaile egokiak, tamalez, geroz eta gutxiago direlako. Biltze lan hori ezin daiteke edonola egin eta egokiena da Euskaltzaindiari aholkua eskatzea jakiteko zein metodologia erabili behar den, zoritxarrez, gaizki egindakoek, ez dutelako gehienetan atzerabiderik.

Bestetik agiri historikoetan izen horiek utzitako arrastoa aztertu behar dugu. Oso lan garrantzitsua baina, lanen hurrenkeran, eta nire aburuz, bigarren fasean egin behar dena, informazio hori ez delako galtzen urte bat beranduago egitea erabakiz gero.

Ahozko eta idatzizko informazio historikoa eskuan izanda, eta horretarako adostutako irizpideak baliatu eta gero, izendapen estandarizatu bakar bat aukeratu behar dugu. Bakarra esan dugu mapa batean eta erabilpen funtzionalerako ezin dugulako bat baino gehiago erabili. Honetarako ere, Euskaltzaindia dago, laguntzeko prest.

Euskara oraindik ere normalizatu gabeko hizkuntza denez, azkeneko fase honetako emaitza askok arazoak sortzen ditu sarri herri hartzaileen artean. Zenbaiten iritziz, ahozko forma hautatu behar da, forma historiko eta estandarizatua albo batera utziz, «herriarena» delako. Baina, egun erabiltzen direnen artean, zein da ahozko forma egoki eta bultzatu beharrekoa: Austiarmin; Austearmin; Austarmin Austigiarbin ala Austigiarmin? Eta zer egin behin jakinda gutxira arte Austegiarmin dokumentatu izan dela? Azken hau bazterrean utzi eta ahozko horietako bat da indarrez ezarri beharrekoa? Ez al da hori izen horri egin dakiokeen traiziorik handiena egitea?

Gainera, herri ahoskerako Zebilla, Güerba edo Cajtilla bezalako izenak sekulan idazten ez baditugu zergatik bai Zeani (Zeanuri), Elorrixo edo antzerakoak. Hizkuntza sendo batek ez dituen izen anormalizazioak hizkuntza ahulak onartu behar?

Horrelako hutsegiteetan maisuak izan gara, sarri, euskaldunok. Beti gehiegikeria gurtzen eta txalotzen... Berdin txuletak jaten, harriak jasotzen edo gure izenen «herri» ebakera zein den erabakitzen. Are gehiago, irudi denez, askorentzat «euskarazkoagoa» da txarren ahoskatzen den izena: oker borobila. Euskarazkoagoa al da Zeani Zeanuri baino? Zeren arabera? Izenen estandarizazioa ezinbestekoa da eta gainerako hizkuntzek egiten badute ez dago arrazoirik gurean ere ez egiteko.

Toponimia egonkortu. Behin izenen informazioa eta forma estandarizatuak ditugula, egonkortzeari ekin behar diogu. Horretarako hoberena, ofizialtzea da. Baina gure herrietako toponimia ofizialtzeko modurik ez dugu salbu eta herri edo kale izenetan. Horretarako egokia da oso, irizpide batzuk finkatzea udal ordenantza baten bitartez arautzea: elebitan joango diren, elebakarrean, berezko toponimoa lehenetsi sorrera berrikoen eta pertsona izenen aurrean...

Bestetik, egokiena da forma bakar bat onartzea, eta ez elebitan, praktikan INEra bidaliko den informazioa, programa informatikoetan erabiliko dena eta abar, horietako bat bakarra izango delako, gehienetan, erdarazkoa.

Bestetik, herriko toponimia osoa zabaltzeko eta ezagutarazteko biderik onena mapa bat egitea da, gerora, etxe guztietara banatuko dena. EAEn aukera ederra dago horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak urtero urtero horretarako laguntza deialdi berezia egiten duelako. Mapa kostuaren hiru laurdenak ordaintzen ditu, beraz, udalei gainerako laurdena eta BEZ dagozkie. Laguntzak udalerriaren azaleraren araberakoak izaten dira baina diru nahikoa izaten da mapa on bat egiteko.

Mapa bat egin aurretik, aholkagarria da oso, bildutako toponimia guztiarekin erakusketa bat egitea. Egingo dugunaren mapa beraren inprimaketa aurreko proba ere izan daiteke. Eta arrakastatsu suerta dadin, ezinbestez parte hartzea sustatu behar dugu: etxe guztietara gonbidapenak, berriemaileak izan direnei gonbidapen berezia, kultura elkarteak...

Erakusketak onurak besterik ez dakartza: toponimia lana parte hartzaile bihurtzen dugu, ekitaldi kultural bat egiten dugu, balizko okerrak zuzentzeko oso bide efektiboa da eta, azken finean, egindako lanari legitimitate

bat ematen zaio, herritarren «izenpea» daramalako. Sendagai onenek bezala, ez du kontraindikazio ezagunik.

Behin mapa izanda edonolako erabilpena eman diezaiokegu: ikastetxeekin lan egin, mendi elkarteekin, turismo bulegokoekin eta abarrekin.

Bestetik, komenigarria da oso, izenen informazioa gizarteratzea, batik bat, estandarizazio prozesuan jasandako aldaketak ulertu ahal izateko. Aldaketa horien zergatia –forma dokumentatuak...– ezagututa, askoz errazago onartuko dira egokitzapen horiek. Horretarako aholkagarriak dira argitalpen xume eta erakargarriak. Ikerketa sakonak bestelako helburuetarako egokiak diren arren, ez dira oso efektiboak gure helburu honetarako. Lan osoak webgunean edo bestelako euskarri digitalean eskaini daitezke.

Gure izenek seinaleetan izango duten presentziari erreparatu behar diogu: kale izenak, bide seinaleak, etxe izenak edo toponimoak dauden tokietakoak: ibilbide toponimikoen aukera ere hor dugu.

Hortik aurrera, nahi duguna egin dezakegu toponimia gizarteratzeko: umeentzako jokoak, unitate didaktikoak, baliabide informatikoak...

Dena dugu baliagarria, Aiztondo mendian dagoen Aitzalde tokiaren izena bezalakoak galdu ez daitezen. Eta ez ahaztu: ezagutu eta erabiltzen den toponimoa ez da sekulan galtzen.

Kale-izendegiak
Izenak hautatzeko irizpideak eta erabiltzeko arauak

GORROTXATEGI, Mikel
Euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiko Onomastika batzordearen idazkaria

0. Atarikoak

Testu honen helburua udal agintari, langile zein hiritarrei kale izendegiak erabiltzeko tresna ematea da. Lehengoen kasuan arautzeko eta finkatzeko baliagarriak diren hainbat aholku eta arau emango zaie. Bigarrenei berriz erabiltzeko oinarri batzuk. Oinarria Onomastika batzordeak irizpideak badira ere oraingo idazki honetan haratago joateko asmoa izan dugu eta arauez gain bestelako aholku eta nazioarteko erabilerak ere aipatuko ditugu, lagungarriak izango direlakoan.

Beraz, ez dugu hemen hizkuntza araugintza soilik landuko, bestelako aholku eta gomendio ere emango baitugu.

a) Izenen aukeraketa, Toponimoak <edo> pertsona izenak?

Izendegi bat osatzean lehenengo puntua izenen aukeraketa da. Euskal Herrian ez dago hori arautzen duen legerik, baina nazioartean badira lege batzuk nola edo hala alde hau ukitzen dutenak.

– **Gomendio nagusia tokian tokiko izenak (toponimoak) erabiltzea da.** 2007an Izen Geografikoen Normalizazioari buruzko Nazio Batuen 9. Konferentziak ebazpenean toponimoak kultura-ondare ukiezinaren parte direla zehazten du.[1]

[1] (UNGEGN, *United Nations Group of Experts on Geographical Names*). http://unstats.un.org/unsd/geoinfo/

Euskera. 2009, 54, 1. 265-277. Bilbo
ISSN 0210-1564

– **Ondorioz pertsona izenen erabilera murriztu beharko litzateke,** Nazio Batuen aholkuz jarraiki. Aipatutako erakundeak bi proposamen ditu, bizi direnen izenak ez erabiltzea eta heriotzatik erabili arte epe bat jartzea.[2]

Bigarren arau hori leku askotan dago indarrean EE.BB-etan eta Kanadan, besteak beste, debekatuta dago legez bizirik dagoen inoren izena erabiltzea. Lehenengo kasuan hamar urte eman behar dira hiltzen denetik izena erabili arte, Kanadan berriz urte osoa nahikoa da espedienteari ekiteko. Suitzan eta Nicaraguan ere antzeko legediak daude. Lege hauen helburua jende ezagunaren, kirolarien, kantarien eta abarren heriotzak dakarren beroaldia baretzea da.

Espainiako Erresuman, ostera ez dago horrelako araurik eta nahiko arrunta da apur bat ezaguna den edonori jatorrizko herrian kaleak eskaintzea, maiz omenduak berak inauguratzen duena.[3]

b) Estandarizaioa zertarako?

Toponimia hizkuntzaren esparru berezia da arrazoi askorengatik. Herritarrengandik oso hurbil egonik jendeak «bere» egiteko ohitura du eta ondorioz, sarriegi, txokokerietan erortzeko arriskua dago. Hau saihestu behar eta jendeari izenak arautu behar direla jakinarazteaz gain arautze hori ez dela nork bere etxean egin beharreko zerbait azaldu behar zaio. Baina, gure

---

[2] Noting that little guidance exists on the practice of adopting a personal name during the lifetime or shortly after the death of a person,

1. Recommends that the appropriate national authorities discourage the use of personal names to designate a geographical feature during the lifetime of the person in question;
2. Also recommends that the appropriate national authorities include in their guidelines clear statements on the length of the waiting period they wish to establish before using a commemorative name. http://unstats.un.org/unsd/geoinfo/uncsgn/RES%20(UN)%20E%20updated%20(1-9%20CONF).pdf

[3] Torrenjon de Ardoz herrian salbuespen moduan ikusten da bizi den bati kale bat eskaintzea:

Con carácter general, deberá respetarse la denominación originaria de la nomenclatura de las vías públicas. (...) Los nombres pueden ser personales. Así, se puede dedicar el nombre de una calle a personas en vida, aunque se considerará una excepción a la regla general, que consiste en dedicar los nombres de las calles a personas fallecidas.
http://www.ayto-torrejondevelasco.es/docsBD/ordenanzas/31.pdf

Herrian maizegi pentsatu izan dugu arautzea dela helburua eta ahoz erabiltzen zena baztertu behar zela. Hau, jakina, ez da horrela.

Baina Nazio Batuek azpimarratu dute estandarizazioaren beharra, besteak beste, arrazoi praktikoengatik. Baina ez da bakarrik, eta hemen aipatutako gomendio horiek labur gelditzen dira, arautu behar, **normalizatu** ere egin behar da.

Aurreko ikastaroan aipatu genuen arautzea ez dela normalizatzea eta kontzeptu bi horiek argi eduko behar dira.

Arautzea maila landuari dagokio, idazteari batik bat, eta izen horiek erabilera estandarra finkatzean datza: *Bilbo* edo Idiazabal.

Normalizatzea izenaren egoera soziolingusitikoari dagokio eta izen hori ongi erabiltzea litzateke. Lehen aipatutako kasuetan *Idiazabal* ongi normalizatuta dago, Hiztunek ezagutu eta erabiltzen dute, nahiz eta inguruan ahoz *Izaal* modukoak arruntak izan. Izena ofiziala ere bada. *Bilbo*, ere, nahiko normalizatuta dago, nahiz eta, harrigarria bada ere, ofiziala ez izan.

Nazio Batuetako Izen Geografikoetako Aditu Taldearen arabera (GENUNG), nazioarteko esparruan ez ezik, esparru nazionalean edo lokalean ere izen geografiko zuzenak izatea funtsezkoa da, datu geografikoak zenbait testuingurutan hobeto ustiatzeko[4]:

– plangintza jasangarriko estrategietan
– garapen ekonomikoan
– ingurumen-kudeaketan
– banaketa-zerbitzu kolektiboen azpiegituretan
– biztanleriaren erroldetan eta estatistiketan
– jabetza-eskubideetan eta katastroan
– larrialdi eta giza laguntzako zerbitzuen koordinazioan
– merkataritzan eta turismoan
– ondare kulturalaren eta naturalaren sustapenean
– komunikabideetan mapak, atlasak eta nabigazio-mapak egitean

[4] http://www.fomento.es/MFOM/LANG_FR/DIRECCIONES_GENERALES/ORGANOS_COLEGIADOS/CSG/Comisiones/COMISIO N_NOMBRES_GEOGRAFICOS2.htm

c) Proposamenak egiteko aukerak

Sarritan udalak kale bat eraikitzean izenaren hautaketa prozesuaren amaieran gauzatzen da arin eta irizpiderik gabe. Herriko toponimia bilduta dagoen kasuetan erraza izaten da izen egokia aurkitzea bai lanean bertan begiratuta bai egileari berari kontsulta egin eta gero, baina beti ez dago aukera hori.

Biderik eraginkorrena Hirigintzara jotzea da. Bertan, kalea eraikitzeko espedientearen barruan edukitzen dituzte espropiatutako lurren dokumentazioa eta izenak agertzen dira. Bat baino gehiago ageriko balitz egokiena hautatu beharko litzateke. Izena aukeratze lan horren barruan idazkera egokia zein den ere aztertu beharko dugu horretarako Euskaltzaindiak argitaratu zituen irizpideak hartuta edo, zuzen zuzenean Onomastika zerbitzura joz.

Baina batzuetan horrela ez dugu ezer lortuko, izenak ez dagoelako edo agertzen direnek erabiltzeko aukerarik ematen ez dutelako. Bai jadanik erabilita daudelako, bai generikoegiak direlako (*Etxaurre, Etxazpi...*) Horrelako egoeretako beste bidea eduki behar da. Eredua izan zen garai batean Getxo. Bertako toponimoak erabiltzen zituzten kale berriak izendatzeko eta izenik ez zegoenean herrian bertan galdutakoak berreskuratzen zituzten, hala nola desagertutako baserriak. Hau aski ez zenean mendi izenak erabiltzen hasi ziren, izen hauek erabat neutro eta hizkuntza bietan erabilgarriak zirelako.

d) Hiritarren parte-hartzea

Leku batzuetan aukera eman zaie hiritarrei izenen aldaketen gainean iritzia emateko. Hau ideia bikaina da, komeni baita jendearen parte hartzea, baina ezin da edonola bideratu eta argi dago aukera hau bereziki baliagarria dela izenak aldatzeko, ez berriak jartzeko, azken honetan ere erabil badaiteke ere. Zaragozan, esaterako, Lege berria dela eta aldatu nahi diren kaleen gaineko iritzia emateko kale hartan bizi behar da eta zehaztutako prozedura bete beharko du[5]. Horretarako zeintzuk izen aldatuko diren eta zeintzuk ordezkatuko dituzten adierazi zaie hiritarrei.

---

[5] De acuerdo con la Ordenanza Municipal para Identificación y Rotulación de Vías y Fincas Urbanas, los interesados deberán presentar sus instancias en las oficinas del registro del Ayuntamiento de Zaragoza. Asimismo, deberán aportar su nombre, apellidos, motivo por el que se está disconforme al cambio del nombre de la calle y cuáles son sus nuevas propuestas. Tras el tiempo

Argi dago aldaketa denean jendeari behar bezalako informazioa eman behar zaiola kontrako jarrerarik ez sortzeko.

1. **Kale, plaza eta besteen izenak**

Gaur egungo lege eta ohiturek esaten dute izenak dagokien idazkera sistema eman behar direla, eta izen bikoitza bakar bakarrik onartuko dela desberdinak direnean, *Donostia / San Sebastián* edo *Askatasuna/Libertad* modukoetan bezala. Hori da izendegia hau gauzatzean erabili den hizkuntza irizpide nagusia.

Aurrekoari lotua eta kale-izendegien erabilera ikusirik, erabiltzaileari erraztasunak ematea ere badenez gero, **izenak finkatzean erabilgarritasuna bilatzen saiatu behar da**. Hori dela eta, izenak bortxatu gabe, hizkuntza bietan ahalik eta hurbilenekoak aukeratzen ahalegindu gara.

Arrazoi beragatik inoiz azaltzen diren izen luzeak eta erabilgaitzak, bereziki generikoa baduten izenekin, erraztera jo dugu. Generikoa dutenek arazo bi sortzen dituzte: batetik izenak bikoizten dira, generikoak desberdinak izateaz gain joskera dela-eta lekune bana hartzen dutelako (*Calle del Doctor Begiristain / Begiristain Doktorearen kalea*); bestetik generiko horiek gehienetan eguneroko jardueran desagertu egiten dira, jendeak izen berezia baino ez baitu erabiltzen. Hori dela-eta, nahiz eta proposamenean azaldu, izen ofiziala aldatzea erakunde honi ez, baizik udal agintariei baitagokie, izen generikoa kentzea proposatzen da, hortaz *Begiristain kalea / Calle (de) Begiristain*.

Zer esanik ez, **Begiristain Doktorea kalea* modukoak gaizki daude eta, ondorioz, ezin dira erabili.

1.1. **Izen bereziekin**

Egitura orokorra honako hau da: [*Izen berezia + kalea*]. Adibidez: *Aizkorri kalea, Ibaeta plaza, Castelao kalea,* etab. eta ez **Aizkorriren kalea,*

---

necesario para estudiar las diferentes alegaciones, el Consistorio contestará mediante una carta y de forma individual a las personas que hayan presentado alguna objeción.

Ibaetako kalea* edo **Castelaoren kalea*. Beraz ez da gaztelaniaz maiz agertzen den ***de* preposizioa itzuliko: *Calle de Cervantes / Cervantes kalea.*

Izen berezi hori elementu batez baino gehiagoz osatua egon daiteke, izendeiturez adibidez. Horrelakoetan ere, euskal tradizioari jarraituz eta Euskaltzaindiaren erabakiei so eginez (1922.eko lotazilaren 28koa) genitiboaren kasu marka ezabatu egiten da: *Arturo Campion kalea, Julio Urkixo kalea, Toribio Altzaga kalea, Xabier Lizardi kalea,* etab.

Gaztelaniazko kale-izenetan lehenbiziko osagaian bertan batzuetan ***de*** preposizioa agertzen da izena eta deitura lotuz, (*Telesforo de Aranzadi, Juan de Antxieta ...*) Horrelakoetan, preposizioa kendu egin dugu gehienetan, beregainki tradizio luzerik ez dutenetan: *Telesforo Arantzadi, Juan Antxieta,* e.a. Erdal deituretan, ordea, *de* hori gorde egin dugu: *Antonio de Sucre kalea, Diego de Rojas kalea.* Besterik da, jakina, deitura konposatuetan agertu ohi diren *de* hori: *Torcuato Luca de Tena,* esaterako. Hauetan preposizioari eutsi egin zaio, deituraren parte delakoan.

1.2. **Izen arruntekin**

1.2.1. *Izen elkartu gisa*

Kale edo plaza izenaren lehen osagaia izen arrunt bat izan daiteke. Gaztelaniazko deituran, batzuetan singularra eta plurala bereizten badira ere, euskaraz, oso ongi dokumentaturiko usadio jator baten arabera, izen elkartu gisa ematearen aldeko gara, hots, inolako artikulu ez kasu markarik gabe: *Konstituzio plaza, Foru pasealekua, Dendari kale, Merkatari plaza,* etab. Eta ez *Konstituzioaren plaza, Foruen pasealekua* edo *Dendarien kalea* gramatikalki egokiak badira ere. Inoiz erabili diren ez **Konstituzioa plaza* edo **Foruak pasealekua* ez daude ongi.

Horrelako erabileraren lekukoak dira Ordiziako *Garagartza portalea* eta *Labekale* edo Gernikako *Frantses kalea*, adibide bi emateagatik.

1.2.2. *Genitibo markarekin*

Hala ere, zenbaitetan, ez zaigu iruditu bidezko artikulua ezabatzea. Izan ere, batzuetan, sintaxiak hala eskaturik, genitiboaren hondarkia nahitaezko gertatzen da: *Probostuen plaza / Plaza de los Probostes, Agirre Lehendakariaren kalea /Calle del Lehendakari Agirre,* esaterako.

Genitiboaren hondarkia ezin ezaba daiteke, bestalde, deizioaren mugatutasunak artikulua azaltzea eskatzen duenean. Hori gertatzen da, adibidez, izen bereziaren ondoan izen generikoa azaltzen denean, bereziki pertsona izenaren ondoren lanbidea edo gainerako izen edo adjektibo deskribatzaileren bat dugunean. Adibidez: *Arbos Musikariaren pasealekua, Jose Elosegi Alkatearen kalea, Areiltza Doktorearen kalea, Jauregi Jeneralaren plaza,* e.a.

Hala ere, gorago esan bezala, erabilerak generikoa desagertarazi duenean hobe da izen berezia soilik ematea: *Jose Elosegi kalea, Areiltza kalea,* etab. Ez da horrelakorik prosatzen generikoa kentzea nahasgarria izan daitekeenean, izen berezia errepikatzen den kasuetan esaterako. Horren adibidea *Jauregi kalea* eta *Jauregi Jeneralaren kalea* lirateke. Gogoratu bestalde, egungo erabilera ofiziala ez dela bat ere sistematikoa eta era askotan ager daiteke: deitura soila (*Elhuyar*), deitura bi (*Agirre Miramon*), deitura eta generikoa (*Arbos Musikaria*), izen deitura (*Arturo Campion*) eta izen deitura eta generikoa (*Doctor Klaudio Delgado*).

Genitibo marka ezin ezabatua gertatzen da, orobat, artikulua nahitaezkoa dugunean: *Abuztuaren Hogeita Hamaikako kalea*[66]*, Alfontso VIII.aren kalea, Ternuako Arrantzaleen kalea.*

1.2.3. *Leku-genitiboarekin*

Batzuetan, –kasu gutxitan, egia esan– deizioak leku bati erreferentzia egiten dionez gero, *-en* genitiboaren ordez, *-ko* leku-genitiboa izango dugu *Ategorrietako galtzada zaharra, Areatzako zubia, Amaragañeko kalea, etab.*

---

[6] Abuztuaren Hamaika kalea ere egokia bada ere, gaur egun usadio zabalduena denbora marka erebiltzea denez horrela prposatzen da.

Nongo kasua erabiliko da bestalde *zubi* edo *tunel* izendatzean, hori baita erabilera jatorra.

Baina betiere, sintagma mugatua dugun neurrian, hondarkia *(-en* nahiz *-ko)* agerian izango da: **Gurutze Zuria kalea* ez, *Gurutze Zuriko kalea*; **Doktore Begiristain kalea* ez, *Begiristain doktorearen kalea*, baizik.

1.3. **Kale izena toponimo zahar bat denean**

Horrelakoetan izena bere horretan errespetatzen da, forma ihartutzat emanez. Horrek esan nahi du batzuetan artikuluarekin agertuko dela eta beste batzuetan artikulurik gabe. Nolanahi ere, kasu batean eta bestean hitza oso-osorik gordeko da, izen berezia balitz bezala. Horrela, *Errotaetxea kalea* edo *Urartea kalea,* alde batetik, eta *Illunbe kalea* bestetik.

Baina, eta hau oso garrantzitsua da, izena ezin da edonola idatzi. Izenak idazteko irizpideak finkatu zituen Akademiak aspaldian eta horren arabera arautu dira Nafarroako, EAEko eta Iparraldeko toponimoak. Ez luke, eta ez du, inolako logikarik izango irizpide horiek alde batera uztea eta norberaren herrian irizpide berriak asmatzea. Ulertezina litzateke, eta da, herri batean izen bat modu batean arautzea eta ondokoan bestela, gure herrian sarriegi gertatu den bezala.

Irizpideak aspaldian argitaratu zituen Euskaltzaindiak, baina *Euskeran* agertu zen testua zaharkituta dago eta aurreko ikastaroan banatu zen eguneratuago dagoen testua. Horretaz gain, geroago beste dokumentuak sortu ditu Akademiak Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan DEIKER institutuak Eusko Jaurlaritzarentzat egin dituen estandarizazio lanen inguruan. Honekin batera doakizue irizpideen laburpena eta etxe izenaz esaten da osorik hori izan daitekeelako eguneroko jardueran maiz ukitu behar dugun gaia.

1.4. **Bide osagaia duten kaleak**

Hauetan, bide osagaiak aski informazio ematen duenez, kale hitza ez idaztea gomendatzen da. Batzuetan artikuluarekin emango da: *Amezketabi-*

dea, Agitibidea, etab., eta beste batzuetan artikulurik gabe: *Aldapabide*, adibidez. Horren arazoia berezko erabilera da, bide-dun toponimoak horrela ibiltzen direlako. Oro har, toponimoa berria denean artikuluarekin emango da.

Bide osagaia aurreko hitzari itsatsia idatzi behar da, *Altxuenebidea, Errotazarbidea, Murgilbidea,* salbu ezkerreko elementu hori bi hitzez edo gehiagoz osatua egon edo gaztelaniazkoa denean. Adibidez: *Elbira Zipitria Andereñoaren bidea* edo *Aingeru Zaindariaren bidea.*

Bideak nondik norakoa aipatzen duenean, berriz, ohikoa izan da *Arkaia-Otazu bidea* moduko egitura erabiltzea.

1.5. **Letra moldeen erabilera**

Euskaraz, frantsesaz eta gaztelaniaz ez bezala, generikoa atzean doa eta hitz hasieran ez doanez letra xehez idatzi behar da, izen berezia ez bada *Kale Txikia* edo *Plaza Barria* kasuetan bezala. Izenaren gainerako osagai guztiak espezifikotzat jo behar dira eta letra larriz idatzi, barnean generikoa badago ere. Hortaz *Alamedako Markesaren plaza* edo *Arteta Margolariaren kalea* eta ez **Arteta margolariaren kalea* edo **Arteta Margolariaren kalea*.

2. **Pertsona izen-deituren grafia**

Dudarik ez dago arlo hau dela korapilatsuena eta zailena ebazteko. Bidezkoena hizkuntza bakoitzari berea ematea denez **deiturak jatorrizko hizkuntzaren idazkeran emango dira**, inguruko auzo hizkuntzetan egiten den bezala, *Nebrixa>Nebrija*.

Hala ere Espainia edo eta Ameriketan euskal deitura dutenak ugariak izanik gogorra litzateke haiei ere aldatzea, *Bolivar askatzailea*, esaterako, eta horrelakoetan bere horretan uztea proposatzen da. Gauza bera gertatzen da garaikideak izan eta deitura euskalduntzeko aukera edukirik ere euskaldundu ez dutenekin (*Gabriel Celaya* edo *Pío Baroja* modukoak).

Ponte izenen kasuan berriz jabeek erabili zuten moduan jartzea erabaki zen, izen bikoitza, hala erabili zutenentzat gordez. Hala ere Euskal Herriko

zenbait pertsonaia historikoren kasuan bidezkoa da euskaraz ematea, *Bernat Etxepare*, konparaziorako. Ez da gomendatzen mende honen hasierako idazkera. Beraz, *Uriarte'tar Joseba Andoni*-ren ordainez, *Jose Antonio Uriarte* emanen da.

Generikoez aritzean esan bezala ponte-izenen erabilera ez da bat ere sistematikoa eta askotan agertu arren besteetan ez da agertzen, herri usadioari jarraiki. Hori dela eta nahasgarria ez den kasuetan kentzea gomendatzen da.

2.1. **Erdal izenak**

Oro har, erdal izen-deiturak, dauden-daudenean utzi behar dira: *Calle Ignacio Mercader / Ignacio Mercader kalea, Calle Ramon y Cajal / Ramon y Cajal kalea, Calle Arturo Campion / Arturo Campion kalea.*

Dena dela, azentuari dagozkion seinu diakritikoak, hots tilde ikurrak ezaba daitezke.

2.2. Euskal izen-deiturak

Gorago esan bezala euskal deiturak euskal ortografiarekin eman dira, soil soilik. Ponte izenak, berriz, bere horretan utzi dira, idazkera bikoitza pertsonaia historikoa izan edo hala erabili zutenentzat utziz. Beraz: *Calle Isidro Antsorena / Isidro Antsorena kalea, Calle Javier Barkaiztegi / Javier Barkaiztegi kalea, baina Calle Bernat Etxepare / Bernat Etxepare kalea, Calle Juana de Albret / Joana Albret kalea*, etab.

3. **Leku-izenen idazkera**

3.1. **Euskal leku izenen idazkera**

Euskal toponimo batez osatutako izenak, euskal grafiara egokitu dira, izen bakarra emanez: *Zarautz, Zuhatzu, Munaitz*, etab.

Aurreko irizpidearen salbuespena hizkuntza bietan tradizioa desberdinak daudenean gauzatu da eta honelakoetan biak eman dira. Beraz, *Nafarroa Beherea kalea / Calle Baja Navarra*, etab.

3.2. **Hitz arrunten itzulpena**

Erdal izen arruntak (*Ferrerias, Marina, Astilleros* etab.) euskarara itzulita eman dira: *Oleta kalea* (ez *Olaeta*), *Itsas kalea, Ontzitegi kalea,* etab.

Badira, ordea, beste deitura berriagoak, erakunderen bati dagozkionak (*Ur Zaleak,* etab.), hauek izen berezitzat har daitezke eta, horrenbestez, tradiziorik ez den bitartean, ez dugu ukitu beharrik ikusi.

4. **Santu izena duten kaleak**

Gure tradizioan, bai literaturan, bai onomastikan eta bereziki hagiotoponimian horrela agertzen diren santu izen zaharrekin, aposizio honetaz horniturik azaltzen direnekin[7], *Done, Dona* erabiltzea gomendatzen da, *San, Santa* adjektiboak gainontzekoentzat utziz. Hortaz, *Done Bikendi kalea, Done Eztebe kalea, Done Joan kalea*, baina *San Frantzisko kalea*. Kristoren ama izendatzeko *Andre Maria* hobesten da, baina *Andra* erabiltzen den inguruan azken hau ere erabil daiteke arauan zehazten den bezala..

5. **Kale edo plaza hitza aipatu gabe aritu behar denean nola joka?**

Errotulaziotik aparte, «kale» hitza eman gabe hitz egin nahi denean, toponimoak, izen sintagma normaltzat deklinatu beharko lirateke: baldin ar-

[7] **Dona**: Alodia, Grazia / Garazi, Julia, Maria, Mariana, Pia. **Done**: Agustin, Bikendi/Bizente, Blas/Bladi, Emiliano/Millan, Erroman, Eztebe, Felix, Fruktuoso/Murtuts, Jakue (Donejakue bidea Compostelara zihoan bidea izendatzeko), Joane (Donibane), Julio, Jurgi, Kosme, Kristobal / Kristobare, Laurendi, Leon, Martie / Martin, Martzelo, Meteri, Mikel, Paulo, Pelaio, Petri, Salbatore, Saturdi, Sebastian, Tomas eta Zipriano.

tikulua badute, artikuluarekin (*Harrian, Harriko, Harritik,* etab.) eta ez badute, gabe, izen propio gisa: *Gaztelubiden, Gaztelubidetik*, etab.

Pertsona izena duten kaleetan ere, izen hori osorik hartuko da: *Antonio Gaztañetan, Nemesio Otañotik,* etab.

Baina izen elkartu modura eratutako izenetan (*Konstituzio plaza, Foru pasealekua, Bake plaza,* etab.) arazoa sortzen da. Izan ere, kasu batzuetan pluralean eman beharko litzateke: *Foruetan*; beste batzuetan berriz singularrean *Konstituzioan*. Beste zenbaitetan, azkenik zentzugabekeria litzateke generikoa kentzea: *Bakean, Geltokian* edo *Eskolan* esaterako. Hortaz, izen elkartu gisa emandako kale izenetan ezin da generikoa (*kale, plaza*, etab.) kendu: *Posta kalea, Foru plaza, Iturri kalea*, etab.

Bestalde, eta hau inportantea da, sarritan helbideak jartzerakoan, ez da «kale» hitza agertzen. Orduan, absolutiboan emango da kalea: *Done Bladi, 4; Joan XXIII.a, 3; etab. Baina Konstituzio plaza, 5; Foru pasealekua, 12,* etab.

6. **Azken oharrak. Xaflen diseinua bideratzeko irizpideak**

Euskara eta gaztelania, hitz ordenari begira, aski desberdinak direnez, biderik egokiena hizkuntza bakoitzari bere xafla eskaintzea da. Leku askotan plaka bakar batean eta sarritan elkarren hurren eman dira kale izenak *Avenida de Algortako etorbidea*, esaterako, erabilera okerrak (batez ere gaztelaniaz) sortuz: «*vivo en la calle Algortako*». Beraz egokiena holakoetan xafla bitan ematea da.

Bestalde, euskaraz artikulua eta kasu marka hondarkian bat eginik azaltzen baitira, ezin daitezke bi osagaiak berezirik idatzi, gaztelaniazko *de* preposizioarekin gertatzen denaren kontra. Hori dela-eta *Antso Jakituna-ren kalea* moduko idazkerak okertzat aitortuko ditugu. Holakoetan bereiz liteke ***Antso Jakituna****ren kalea* moduko idazkerak erabiliz, baina sistema honek ez luke balioko pluralerako, pluralean artikulua eta genitibo marka bat eginda agertzen baitira. *Nafarroako Errege-erreginen kalea*-ren kasuan, adibidez. Aurrekoa ikusita bereizketarik ez egitea proposatzen da.

Etxe izenek arazo berezia sortzen digute askotan ahozko eta idatzizko erabilera urruti samar egon daitezkeelako, bereziki azken urteotan populismorako egon den joeraren ildotik. Holakoetan, behin behineko irteera moduan ahozko aldaera ere eskain liteke, baina mailakea ongi zehatuz. Esaterako *Altolagirre* ondoan *Antonar* ere gehi liteke, baina ongi azalduz ez direla maila berean erabili behar.

Getxo

ARANGUENA, Javi
Udal ordezkaria

Getxoko Udalak 2004an argitaratu zituen *Leku-izenak* toponimia liburua eta mapa.

Toponimia zabaltzen jarraitzeko, Getxoko ezaugarri soziolinguistikoak kontuan izanda, 2005ean *Leku-izenak toponimia CDa* argitaratu zen.

CD honen helburu nagusiak bi ziren: alde batetik lehen hezkuntzan ari diren umeen artean toponimia zabaltzea eta bestetik liburu eta maparen edizioa berriztatzea formatu digitalean.

– Lehen hezkuntzako ume eta gazteei zuzenduta dago CDaren zatietako bat. Zati honetan, modu ludiko batean adin bakoitzari egokitutako jokoen bidez ezagutaraztera eman nahi da herriko toponimia. Lehenengo jokoak zailtasun maila baxuenekoak dira eta aurrera egin ahala zailtasun maila hori gora doa: marraztea, diferentziak aurkitzea, puzzlea osatzea, galdera anitzei erantzutea, «altxorra» topatzea... Jokoak zailtasunean gora egiten duen neurrian ikasleak toponimiaren ezagutza aktiboagoa izaten du. Joko guztiak gainditzen dituenarentzat sari txiki bat dago, diploma.

– Bigarren zatia liburuaren eta maparen edizio berri bat da eta berauetan lan egiten laguntzeko bilatzaile ezberdinak topatu ahal ditugu, aspaldiko argazkien bilduma eta herrian zehar egin ahal diren ibilaldien proposamenarekin. CDan 8 ibilbide proposatzen dira, garraio publikoa duten guneetan hasi eta amaitzen dira ibilbideak eta oinez ordu bat ala bi egiteko pentsatuta daude. Gainera, CDek, ibilbideetan zehar topatuko ditugun inguruen ikuspegi panoramikoak eskaintzen dizkigute.

Euskera. 2009, 54, 1. 279. Bilbo
ISSN 0210-1564

Zumaiaren izana izenen bidez gizarteratzea

AZKUE IBARBIA, Imanol eta AZKUE IBARBIA, Xabier
Udal ordezkariak

Dagoeneko bost urte dira Zumaiako Udalak bete-betean heldu ziola herriko leku-izenak biltzeko eta finkatzeko lanari. Ez da hain tarte luzea, horrelako lanak kudeatzea prozesu luzea eta inoiz amaitzen ez dena delako; hala ere, dagoeneko emaitza batzuk eman ditu, esanguratsuenak mapa toponimiko berria eta *Zumaia, izena eta izana* liburua.

Hasteko, garrantzitsua da ikerketa edo bilketa egiten den garaian gogoan izatea gero leku-izenak gizarteratzea etorriko dela. Horregatik, komeni da leku-izenez gain bestelako materialak ere ondo jasotzea: tokien argazkiak, jendearenak, argazki zaharrak, soinu-grabazioak, bibliografia, etab.

Mapa toponimikoa kaleratu genuen lehenbizi, eta baita Zumaiako etxe, elkarte eta ikastetxe guztietara doan banatu ere; atzealdea argazki zaharrak kokatzeko eta toponimo berezi batzuen berri emateko baliatu genuen. Mapa garrantzitsua izan arren, ez da nahikoa leku-izenak gizarteratzeko, eta herriari ondare hori itzultzeko liburu bat landu eta argitaratzea erabaki genuen. Ordura arteko liburu gehienekin alderatuta, diseinuaren eta dibulgazioaren aldeko apustua egin genuen, eta toponimoekin batera bestelako kontu ugariren berri ematen du liburuak, Zumaiaren izana izenen bidez azaltzeko.

Nork bere herrian dituen kanalak aprobetxatu behar dira oro har. Zumaian, adibidez, herri-aldizkarian argitara eman ditugu ibilbide batzuk, toponimo adierazgarrienen fitxak, informazio hori guztia blog batzuetan ere zabaldu... Bestelako ekimen batzuk ere bideratu ditugu: institutuko gaztee-

Euskera. 2009, 54, 1. 281-282. Bilbo
ISSN 0210-1564

kin sentsibilizatzeko jarduera bat antolatzea, Udalaren panel eta planoetan toponimoak berrikustea, kale eta elementu berrietarako leku-izen zaharrak erabiltzen hastea, etab.

Funtsezkoa da harremanak ondo landu, jendea kontzientziatu eta erne ibiltzea: kazetariekin, irakasleekin, zinegotziekin, udaleko langileekin, elkarteekin... Nahikoa baita hedabideetan edo lagun artean izen desegoki batzuk bultzatzea, antzinako toponimo batzuk arriskuan jartzeko. Itsasertzean baditugu hainbat adibide, surflariekin gertatutakoa, esaterako: arrantzaleentzat Planeria dena (Aizpurupeko senadan) *Playa Gris* bataiatu zuten gazte batzuek; orain mundu guztian egin da ezagun eta zaila izango da horri buelta ematea.

Zumaiako Udalak toponimoak gizarteratzearen garrantzia ikusten du, zorionez, eta elkarlanean saiatuko gara baliabide egokiak jartzen lehengo ekimenak sendotu eta berriak antolatzeko: erakusketaren bat, webgune berezia... Ea horrela guztion ondareari eustea lortzen dugun.

Erandio

HERNÁNDEZ, Ana eta ARRIAGA, Amaia
Udal ordezkariak

Aurrekariak

Erandiok, 1984 urtean, Bilbotik banatu eta gero, onartu zuen gaur arte indarren egon den kale izendegia. 1988 urtean, herriko toponimia ikertu eta biltzeko lan bat egin zen, baina bere horretan geratu zen ikerketatxo hura. 2003 urtean mapa toponimikoa argitartu zuen Hirigitza Sailak eta Euskaltzaindia arduratu zen toponimoak gainbegiratzeaz. 2003an bertan Euskara Biziberritzeko Plana (EBPN) onartu zuen Udalbatzak eta bertan beste neurri batzuen artean hau jaso zen:

– Euskararen elikadura Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea: 3.a.03/1-Toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisaia normalizatu Euskaltzaindiarekin bat etorriz

Horren ondorioz, 2004an Erandioko Toponimia biltzeko beka deitzeko erabakia hartu zuen Udalak.

Beka

Toponimia bekaren helburua Erandioko Toponimia bildu, sailkatu, kokatu, aztertu eta finkatzeko proposamena egitea izan da. Bekaren oinarrietan Euskaltzaindiak egindako proposamenak barneratu ziren eta ondoren 2005an beka esleitu zen. Hori baino lehen, Udalak Euskaltzandiarekin

Euskera. 2009, 54, 1. 283-286. Bilbo
ISSN 0210-1564

hitzarmena sinatu zuen. Hitzarmenaren ondoroiz, Euskaltzaindiari 1500 euro eman zitzaizkion, eta Euskaltzaindiak aholkularitza eta zuzendaritza lanak egiteko tutore bat jarri zion bekadunari. Horrez gain, Euskaltzaindiak bekaren jarraipen batzorderako kide bi izendatu zituen.

Bekari amaiera emateko, 2007ko azaroan Erakusketa ibiltaria eta hiru hitzaldi antolatu genituen (Erandioko 3 auzotan). Hitzaldi horietan, bekaren emaitzak plazaratu ziren. Bizilagun asko bertaratu ziren eta harrera oso ona izan zen.

Erakusketa hiru astez izan zen erakusgai, hiru auzotan. Auzoetako mapak eta ortoazgakiak erabili genituen batetik, eta bestetik txosten osoa eta auzoetako txostenak ere kontsultagai egon ziren. Ekarpen asko jaso ziren, eta hainbat zalantza argitzeko bide eman zuen. Balorazioa oso ona izan zen.

Gizarteratze lanak

Bekari amaiera eman ostean, eginbeharrekoen zerrenda ikusi, eta lehenik eta behin, kale izendegia egokitzeko erabakia hartu zen. Udalbatzak, kale izendegi berria onartzeaz gain, Toponimia lana gizarteratzeko ekintzen plana ere onartu zuen. Plan horren barruan ondoko ekintzak eta helburuak jaso dira:

– Erabakiaren berri dagokion lekuetan eman: INE, Euskaltzaindia, Aldizkari ofizialak, Jabego erregistroa, Katastroa, BFA, Eustat, HPS, Eusko Jaurlaritza…eta gure Udaleko sail guztietan.
– Mapa berria argitaratzea, toponimo normalizatuak kokatzeko.
– Liburuxka, normalizaziorako arrazoiak azaltzeko, kale izendegian egindako aldaketak argitzeko eta informazio erakargarria zabaltzeko.
– Web orria: bertan bilduko dira Maparen pdf, liburuxkaren pdf-a, mendeetako mapak, Toponimoen aurkibidea eta biltzailea, hainbat toponimoren ahozko grabazioak, eta azkenik ekarpenak egiteko txokoa: argazki zaharrak, dokumentuak…
– Unitate didaktikoak, belaunaldi berriei toponimia ondarea transmititzeko. LH eta DBHrako unitate didaktikoak dira, zikloka antolatuta

daude eta Hizkuntza eta Kultura ondarea jaso eta zabaltzeko egitasmoarekin lotura izango dute. Azken proiektu hau, Uribe Kosta, Getxo eta Leioarekin batera garatzen ari gara. Unitate didaktikoak sortzeaz gain, hainbat monografía egiteko asmoa dugu proiektu horren barruan: eskualdeko bertsolaritza, mitologia, kantak, ipuinak…

– Seinaleak aldatzea: kale izendegian egindako aldaketak ikustarazteko.

Horrez gain, beste ideia batzuk ere mahaigaineratu ditugu:

– Erakusketa berregin ikastetxez ikastetxe eraman ahal izateko.

– Mapen panelak herrian zehar erakusgai jarri, udalerriko mapa eta auzoetako mapak. Eraikinetan zein kalean jartzeko formatuak bilatuz (formikan…)

– Mapa toponimikoa komiki eran

– Ibilbide toponimikoak

– Bideoak, dokumentalak

Era berean, beste egitasmo batzuekin lotzeko beharra eta aukera ikusi dugu:

– Bizkaian, Ondare Jardunaldiak

– Turismoa (ibilbideak, informazio gidak, panelak…)

– Elkarteen ekintzak, egitasmoak…(Mendi taldeak, kultur elkartea…)

– Garraiobideekin (autobus eta metro geltokiak…)

– Udal argitalpenak (urteko gida…)

Amaitzeko, Toponimian adituak ez baga ere, aritzearen ondorioz beste batzuentzako lagungarri izan daitezkeen aholkuak eta kontuan hartzekoak aipatu nahi ditugu:

Arlo honetakoak ez bazarete, hori izan baita gure kasua, toponimia zer den, zertarako ikertu eta normalizazioan janztea komeni da. Hartu horretarako tartea, gero lagungarri izango zaizue eta. Hauek epe luzeko lanak izaten dira, komeni da hasieratik kontuan hartzea, lan hauek ez dira beka edo bilketa lanarekin amaitzen.

Artxiboetako agiriez gain, artxibo grafikoei ere garrantzia eman behar zaie, bilketa lanean hori kontuan hartzen bada, gizarteratze lanak ere arinago egin ahal dira. Gordetzeaz gain, ondo sailkatuta gorde behar dira.

Taldean lan eginda, lana aaberasteaz gain, denok aberasten gara. Filologoez gain, beste aditu batzuek ikuspegia aberastu ahal dute, historialariek, geografoek…Horrelako lanak osotuagoak izaten dira.

Politikarien aurrean, teknikariok ez dugun pisua, Euskaltzaindiak izan dezake zenbait egoeratan.

Bermeo

ALVAREZ DE ZARATE, Maite
Udal ordezkaria

Whereas Uhlenbeck loved to publish, Rollo loved to teach. The Classics Section of the University of Cape Town still awards each year 'the best student in Latin II, based upon the student's performance in all aspects of the course (essays, exercises, tests and examination). The sum awarded is small: c. 200 Rands, depending on what interest the endowment has generated in the past year.'[33]

Rollo's life brought him from Glasgow to Germany and from there to the Netherlands, Basque Country, South-Africa and Rhodesia/Nyasaland

---

[32] See also De Josselin de Jong's 1913 Ojibwe language and grammar study (Orthography, Vowels, Texts with English Translation, Vocabulary).

[33] Information kindly provided by David Wardle of the University of Cape Town.

(since 1964 Zimbabwe, Zambia and Malawi). Hopefully this article will inspire a number of scholars from a host of nations to honor him with a similar bundle of essays as Uhlenbeck was.

Literature

BAKKER, P. 'C. C. Uhlenbeck and the Basque language.' In: *Canadian Journal of Netherlandic Studies*. Eds. Inge Genee & Jan Paul Hinrichs. XXIX. ii / XXX, i (Fall 2008 / Spring 2009): 79-103.

BAKKER, P. and HINRICHS, J.P. 'C. C. Uhlenbeck: A Bibliography of his writings (1885-2009).' In: *Canadian Journal of Netherlandic Studies*. Eds. Inge Genee & Jan Paul Hinrichs. XXIX. ii / XXX, i (Fall 2008 / Spring 2009): 165-205).

BOSTOEN, K. 2007. *Gastdocentschappen in Zuid-Afrika. Verslag over Karel Bostoens verblijf in 2007 in Zuid-Afrika, als gastdocent aan de Universiteit van Stellenbosch (Guest lectureships in South-Africa. Report on Karel Bostoen's 2007 residence in South Africa at the University of Stellenbosch).* Leiden: University of Leiden web-archives[34].

DEEN, N.G.H. 1928. Letter of May 28 to Julio de Urquijo. San Sebastian: Koldo Mixtelena. Julio de Urquijo Archive, Donostia. Catalog number 8.263.

DE JOSSELIN DE JONG, P.J.B. 1913. 'Original Ozibwe-Texts with English Translation, Notes and Vocabulary.' In: *Baessler-Archiv.* Ed. P. Ehrenreich. Beiheft V. Leipzig und Berlin: Druck und Verlag von B. G. Teubner.

——— 1952. 'In Memoriam Christianus Cornelius Uhlenbeck (18th October 1966-12th August).' In: *Lingua* 3, 1: 243-66.

---

[34] From Bostoen's *Report*: 'R. Bleichsteiner (Vienna) in *Anthropos* 20 (1925: 1192), Jaime de Angulo in *American Anthropologist* N.S. 28 (1926: 437-38); Ernst Lewy (Berlin) in *Orientalistische Literaturzeitung* 31 (1928: col. 821-22); C. C. Uhlenbeck in *Museum: Maandblad voor philologie en geschiedenis* 34 (1926-1927:101-02), R. M. de Azkue (Baskische Academie) in *La Revista Internacional de Estudios Vascos* 16 (1925: no. 4.).'

I would like to thank Karel Bostoen for putting me on the trail of the Rollo descendents and Smuts' article, which led me to the *Reports of the Classical Association*, Foyita & Bernard Sleumer and Gerda Bloemraad-Heiser for their help with the map and Rollo's and Kalzakorta's Spanish texts, and Colin McDonald for checking the translation of Louisa Rollo's diary.

EGGERMONT-MOLENAAR, M. with contributions of Alice Kehoe, Inge Genee and Klaas van Berkel. 2005. *Montana 1911: A Professor and his Wife among the Blackfeet.* Calgary: University of Calgary and Lincoln Ne: University of Nebraska Press.

——— 2009. 'The Uhlenbecks' Life in Letters.' In: *Canadian Journal of Netherlandic Studies*. XXIX. ii / XXX, i (Fall 2008 / Spring 2009): 23-46.

KALZAKORTA, J. 2006. "William Rollo eta *The Basque Dialect of Marquina*". In: William Rollo, 2006. *The Basque Dialect of Marquina,* Bilbao: Labayru Ikastegia, V-L[35].

NOORDEGRAAF, J. 'C. C. Uhlenbeck and the Humboldtian tradition in linguistics.' *In: Canadian Journal of Netherlandic Studies.* Eds. Inge Genee & Jan Paul Hinrichs. XXIX. ii / XXX, i (Fall 2008 / Spring 2009): 47-69.

OLABARRIA, J. 2004. *William Rollo, Euskaltzain urgazlearen datu bio-bibliografikoak. Markinako Udalari erantzuteko bilduak.* Bilbao: Azkue Biblioteka-Euskaltzaindia.

PAAP, H.D. and HAIJO, J. Westra, with Mary Eggermont-Molenaar. 2007. 'The Return of Wenebozho, and an Ojibewe Myth in Latin.' *European Review of Native American Studies.* 21:1 (19-24).

ROLLO, W. 1923. Letter of July 31 to Don Julio de Urquijo. In: Julio de Urquijo Archive, Saint Sebastian, library of Diputacion, Koldo Mitxelena Kulturunea.

——— 1925. *The Basque dialect of Marquina.* Amsterdam: H. J. Paris.

——— 1926. Letter of August 19 to Señor de Urquijo. Julio Urquijo Archive.

——— 1930. *Archivum Historicum Romanum.* (Guide to the Roman Historical Archive with introductory essays, critical discussions and source charts). London: University of London Press.

——— 1931. Letter of November 8 to 'Dear Sir' at the *Revue Internationale des Études Basque*. Julio Urquijo Archive.

[35] Note Gartzia: 'This introduction has two annexes: a) The three letters of Rollo to Urkixo (p. XXIX-XXXIV) in the Urkixo Archive (Saint Sebastian); b) The two articles published in RIEV by Azkue (p. XXXV-XLIV) and a reply from Rollo (p. XLIV-XLVIII), both in Spanish; and three short reviews of the Rollo's book by Georges Lacombe, Antoine Meillet and Robert Bleichsteiner, in French and German.'

——— 2006. *The Basque dialect of Marquina.* Sarrera eta obraren azterlana, Jabier Kalzakorta. Bilbao: Labaryru Ikastegia.

ROLLO, W. and OSCAR, J.S. Satchel. 1931. *Ovid's Metamorphoses: A Selection.* Edited with introduction, notes and index of proper names. Cape Town: Juta & Co., Ltd..

SMUTS, F. 1960. 'Classical Scholarship and the Teaching of Classics at Cape Town and Stellenbosch.' In: *Acta Classica* 3: 7-31. Stellenbosch: University of Stellenbosch.

STEVENSON, G.H. 1931. Rev. of: '*Archivum Historicum Romanum* by W. Rollo.' In: *The Classical Review,* Vol. 45, No 2 (May), p. 89.

Agiriak

Euskera. 2009, 54, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskaltzaindia. Batzar-Agiriak

Euskera. 2009, 54, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564

Bilbon, 2009ko urtarrilaren 30ean

Andres Urrutia euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, buruordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Aurelia Arkotxa,
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Joseba Lakarra,
Emile Larre,
Miren Lourdes Oñederra,
Andoni Sagarna,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ibon Sarasola,
Ana Toledo,
Joan Mari Torrealdai eta
Patxi Uribarren euskaltzainak.

Pello Telleria idazkariordea, Jose Antonio Aduriz eta Alfontso Mujika, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Miren Azkaratek, ahala P. Goenagari. Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori. Sagrario Alemanek, ahala A. Iñigori. Mikel Zalbidek, ahala A. Urrutiari. Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:10ean hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak eta, bertan direla.

1. Bilera hasi baino lehenagoko oharrak. Euskaltzainburuak, bilduak agurtu ondoren, ahoz honako oharrok egin ditu:

1.1. Batzarraren irauteaz. A. Urrutia euskaltzainburuak bilkura goizez besterik ez dela izango jakinarazi die etorririkoei.

1.2. Wi-Fi sisteman sartzeko aukera**.** Hemendik aurrera osoko batzarra egoitzan egiten denean aukera izango da Interneterako sarbidea izateko, Wi-Fi sistemaren bidez.

1.3. Tx. Peillenen osasunaren berri**.** Euskaltzainburuordeak Tx. Peillen euskaltzainari egin berri dioten ebakuntzaren berri eman du; dena ongi joan dela baina oraindik zati baterako susperraldia pasatu beharko duela jakinarazi du.

1.4. B. Oihartzabali zorionak. Euskaltzainburuak Beñat Oihartzabal euskaltzainburuordeari zorionak adierazi dizkio Baionako Hiria eta Eusko Ikaskuntza saria eman berri diotelako.

2. Aktari buruzko oharrak. J. L. Lizundiak egindako ohar eta zuzenketekin, abenduko akta ontzat eman da.

3. Exonomastika

3.1. Europako hiri nagusiak (I) onartzea. J. L. Lizundiak hitza Alfonso Mujikari eman dio, zerrendako izenez jasoriko oharrak eta azal ditzan. Hauek egin dituzte oharrak: Miren Azkarate, Jean Haritschelhar, Miren Lourdes Oñederra, Mikel Zalbide eta Andres Iñigok. Egindako oharrak aintzat harturik, *Augsburg, Genova, Gante, Malinas, Porto, Treveris, Gdansk, Helsingor* eta *Gijón* toponimoei lehentasuna ematea erabaki da. M. L. Oñederrak exotoponimoen ahoskeraz egindako oharra ere ontzat eman da.

J. Haritschelharrek *Napoles* eta *Brujas*-en kasuetan idazkera bakarra ematea eskatu du. Botoetara joanda, ordea, bitasuna uztea onartu da. Gero, idazkera zirilikoari buruzko oharrak irakurri ondoren, hizkuntza horien transkripzio- eta korrespondentzia-taulak idatzirik eman dira.

3.2. Europako hiri nagusiak (Alfabeto zirilikoa euskarara aldatzeko transkripzio-irizpideak) aurkeztea. J. L. Lizundiak hitza X. Kintanari eman dio, berorrek batzordean onarturiko irizpideekin Alfontso Mujikak prestaturiko transkripzio-taula azal dezan. Eskaturiko azalpenak ere eman dira.

Oharrak Euskaltzaindira aurtengo otsailaren 21erako igortzea erabaki da.

4. Hiztegi Batua

Pello Salabururen zuzendaritzapean, eta Jose Antonio Aduriz idazkariaren laguntzarekin, *establezimendu*-tik *estentsibo*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu egin dira.

5. Esku artekoak

5.1. Antonio Zavalaren hilberri-txostena. Antonio Zavala euskaltzain emeritua 2009ko urtarrilaren 2an hil zela gogorarazi du Euskaltzainburuak. A. Zava-

laren hilberri-txostena egiteko, Zuzendaritzak Jose Mari Iriondo euskaltzain urgazlea eta Herri Literatura batzordekidea proposatu du eta onartu egin da.

5.2. Azkue Bibliotekako soberazko liburuak. Azkue Bibliotekan sobera dauden liburuen zerrenda banatu da, 2007an eta 2008an pilatuena. Horrekin Pruden Gartzia zuzendariaren gutuna dago, liburuok eskatzeko prozedura-azalpenekin, horien interesa duketen euskaltzainek eska ditzaten.

5.3. 2008ko Azkue Sariak. Azkue Sarietarako Epaimahaia iazko kide berekin osatzea erabaki du Zuzendaritzak, eta halaxe berretsi da:

A mailan: Yolanda Arrieta, Igone Etxebarria eta Antton Irusta Zamalloa.

B mailan: Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta eta Kirmen Uribe.

6. Azken ordukoak

6.1. Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiari diru-laguntza handiagoa. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Alderdi Sozialistak aurrekontuei egindako emendakinari esker, 2009. urterako 75.000 euro gehiago ematea erabaki du, Andres Iñigok erran duenez, aurrekoan baino % 46 gehiago.

6.2. Nafarroako Unibertsitate Publikoarekiko hitzarmena. Urtarrilaren 21ean Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Euskaltzaindiak sinatu zuten hitzarmenaren Jarraipen Batzordean hiruna kide ukanen dituzte bi erakundeek. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak hiru kide hauek proposatzen ditu: Patxi Salaberri, koordinatzailea izanen dena, Andres Iñigo eta Juan Jose Zubiri euskaltzain urgazlea. Ontzat eman da.

6.3. Joan Mari Torrealdairen eta Imanol Muruaren azalpena, SIADECOren bidez eginen den inkestaz. Gure Erakundearen 90. urteurrenaren ospakizunen barruan, Euskaltzaindiaren irudiaz, nortasunaz eta bere lanaz gure gizarteak duen pertzepzioaz SIADECOk txosten bat egin eta, ondoren, Akademiari eskuratuko dio, gure lanarekin jendea konforme dagoen ala ez jakin eta hortik behar diren ondorioak ateratzeko. Metodologia hau izanen da: lehenik 10 laguni elkarrizketa sakonak eginen zaizkie eta ondoren 1.500 lagunen artean iritzi bilketa prestatuko da. Bigarren proiektua liburu bat prestatzea izanen da, Euskaltzaindiari buruzkoa, irailean ateratzeko. Obra arina izanen da, Imanol Muruaren laguntzaz egitekoa, eta, horretarako, Euskaltzain osoei laguntza eskatuko zaie

6.4. Hurrengo batzarra. Euskaltzaindiaren hurrengo batzarra 2009ko otsailaren 27an, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian izango dela iragarri du

Euskaltzainburuak. Goizean ohiko bilkura izango da eta arratsaldean hilberritxostenak irakurriko dira.

6.5. Banaturiko liburua. Euskaltzainen artean *Domingo Agirreren Gutun Bilduma*, (Euskaltzainak, 6) banatu da, Sebastian Gartzia Trujillok prestatua.

Batzarra 14:10ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Donostian, 2009ko otsailaren 27an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Adolfo Arejita,
Aurelia Arkotxa,
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Andoni Sagarna,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ana Toledo,
Joan Mari Torrealdai,
Patxi Uribarren eta
Piarres Xarriton euskaltzainak

Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Alfontso Mujika eta Jose Antonio Aduriz, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari; Miren Azkaratek, ahala P. Goenagari; Miren Lourdes Oñederrak, ahala A. Arkotxari; Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori; Mikel Zalbidek A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:10ean hasi da Gipuzkoako Aldundiaren Jauregian, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak eta, bertan direla.

1. Bilera hasi baino aurreko oharrak. Euskaltzainburuak, aretoan bilduak agurtu ondoren, ahoz honako oharrok egin ditu:

1.1. Batzarraren irauteaz. A. Urrutia euskaltzainburuak bilkura goizez besterik ez dela izango jakinarazi die etorririkoei.

1.2. Ageriko bilkuraz. Arratsaldean 4:30etan ageriko bilkura izanen da, hilberri-txostenak irakurtzeko.

2. Aktari buruzko oharrak. J. L. Lizundiak eta J. M. Torrealdaik ohar bana egin dute. Biak ontzat eman dira.

3. Exonomastika

3.1. Europako hiri nagusiak I onartzea. Aurreko bilkuran banaturiko zerrenda, Europako hiri nagusien izenekin, oharrik gabe, onartu da.

3.2. Alfabeto zirilikoaren euskarazko letraldaketa. X. Kintanak jatorrizko hizkuntzetan alfabeto zirilikoaz idatziriko izenen transkripzioaz argibide orokorrak azaldu ditu, eta idatzirik banatu dira. Ondoren, Alfontso Mujikak, banatu diren transkripzio-taulei buruzko ohar eta argitasun batzuk egin ditu, Ivan Igartuak **ий** eta **ый** digrafoei proposatu dituenak, adibidez. Irizpide horiekin, Errusia, Bielorrusia, Ukraina eta Bulgariako hiriburuak eta bertako hiri nagusien euskarazko transliterazioa proposatu da. Gure orain arteko tradizioa kontuan izanda, kasu batzuetan salbuespenak egin dira, hala nola Sebastopol eta San Petersburgo hirien kasuan. J. Haritschelharrek *Jalta* izenaren antzera, j grafema euskaraz daramaten izenak ebakitzeko moduaz oharra egin behar dela esan du. J.L. Lizundiak erantzun dio hori kontutan hartuko dela eta L. Oñederrarekin jada hitzordua jarria dela hori argitzeko.

3.3. Europako hiri nagusiak II aurkeztea. Exonomastika batzordeak 2009/2/10ean onarturiko zerrenda aurkeztu du, Errusia, Bielorrusia, Ukraina eta Bulgariako hiriburu eta hiri nagusien izenak euskaraz emateko hitzekin eta beroriei buruzko datu argigarriekin. Oharrak egin eta bidaltzeko epea martxoaren 20raino jartzea erabaki da.

4. Hiztegi Batua

Pello Salabururen zuzendaritzapean, eta Jose Antonio Aduriz idazkariaren laguntzarekin, *estheticienne*-tik *etorberri*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu egin dira.

5. Eskuartekoak

5.1. Ordainketaren agiriak. Uztail, abuztu, eta iraileko ordainketa-agiriak banatu ditu J. J. Zearretak. Laguntzailea azarotik otsailera bitartean lanean izan ez delako, pertsonal faltaz ezin izan da lehenago ordaindu. Gerta daiteke, J. L. Lizundiak esan duenez, oraindik kontzepturen bat ordaintzeke gelditzea.

5.2. Datorren martxoko bilkurak

5.2.1. Osoko batzarra. Berau martxoaren 26an, ostegunean arratsaldeko lau eta erdietan eginen da Bizkaian, Urkiolan hain zuzen ere.

5.2.2. XVI. Barne Jardunaldiak. Hurrengo egunean, ostiralean, leku berean goizeko 9etan, Barne Jardunaldiak hasiko dira eta egun bereko arratsaldean eta biharamun goizean segituko dute, banatu den programaren arabera.

Barne Jardunaldietan, banatu den programaren arabera, Barne Erregelak eztabaidatu eta, hala balegokie, eguneratzea proposatuko da. Ondoren IKER eta JAGON sailburuek ibilian ari diren egitasmoen berri emanen dute, bai eta egitasmo berrienak ere. Halaber, euskararen kalitateari buruzko gogoetak eginen dira.

Era berean, Argitalpenei doakienez, *Euskera* agerkariaren eraberritzea eta B. Atxagaren proposamen bat aurkeztuko dira. Bukatzeko, IKT batzordeak Lexikoaren Behatokiaz hitz eginen du, eta, azkenik, Euskaltzaindiaren webguneaz ere bai.

Ostatua *Lagunetxea hotela* izanen da. Horren premia duten euskaltzainei izena aurretik ematea eskatu zaie.

Larunbatean, bazkalondoan, Urkiola inguruko parke naturalean txangoak egiteko aukera izango da.

6. Azken ordukoa: Tx. Peillenen euskaltzain emerituaren ordezkoa hautagaia. Txomin Peillen euskaltzaina emeritu egoerara iragatearen ondorioz, gaur amaitzen zen horren ordezko hautagaiak aurkezteko epea. Kandidatu bakarra aurkeztu da: Xarles Videgain jauna, P. Xarrittonek, J. Haritschelharrek, J. Lakarrak eta B. Oihartzabalek sinaturiko dokumentuarekin, aldean proposaturikoaren *curriculum vitae* duela. Bozketa datorren martxoaren 26an izanen da.

Batzarra 14:00etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Ageriko bilkura

Donostian, 2009ko otsailaren 27an.

Otsailaren 27an, arratsaldeko 16:30ean, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, hilberri-txostenak irakurtzeko.

Ageriko bilkuran bildu dira:

– Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andoni Sagarna, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Pierre Charritton, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Patxi Salaberri, Patxi Uribarren, Ana Toledo, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide euskaltzain osoak.

– Pierre Andiazabal, Koldo Artola, Joseph Camino eta Joseba Intxausti ohorezko euskaltzainak.

– Joxe Agustin Arrieta, Marcel Etxehandi, Eustasio Etxezarreta, Patxi Galé, Michel Itzaina, Maria Pilar Lasarte, Manu Ruiz Urrestarazu, Patri Urkizu eta Juan Jose Zearreta euskaltzain urgazleak. Ezin etorria adierazi dute Pakita Arregik eta Jose Ramon Etxebarriak.

– Amaia Okariz eta Maixa Goikoetxea Euskaltzaindiko langileak.

Andres Urrutia euskaltzainburuak ongi etorria eman die bertaratuei, eta nork noren hilberri-txostena irakurriko duen gogorarazi: Mari Pilar Lasartek Milagros Bidegain euskaltzain urgazlearena irakurriko du, Joseba Intxaustik Jose Ignacio Telletxea Idigoras euskaltzain urgazlearena, Pierre Charrittonek Jackes Etxeberri euskaltzain urgazlearena, Jose Luis Lizundiak Henrike Knörr euskaltzain osoarena, Jean Haritschelharrek Xabier Diharce «Iratzeder» euskaltzain osoarena eta, Adolfo Arejitak, Karmelo Etxenagusia ohorezko euskaltzainarena.

Euskera. 2009, 54, 1. 347-403. Bilbo
ISSN 0210-1564

Maria Pilar Lasarte: «Milagros Bidegain»

Milagros Bidegain Donostian jaio zen 1922ko ekainaren 6an eta 2006ko abenduaren 23an hil. Batxilergoa amaituta ez zen Unibertsitatera joan, baina bai ordea ikasten jarraitu. Hala, etxean, Filosofia eta Letrak ikasteari ekin zion eta Latinean espezializatu zen. Azterketak Valladoliden egiten zituen, eta han eskuratu zuen titulua.

Titulazioa lortu ondoren, lagun batek eta berak akademia bat ireki zuten Irunen. Bertan, kartzelatik irten berria zela, aurkitu zuen lana Koldo Mitxelenak. Akademian ez ezik, Donostiako Institutuan, Gurutzearen Alaben ikastetxean eta Errenterian ere irakasle ibili zen Bidegain ondorengo urteetan, harik eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Liburutegiko liburuzain plaza lortu zuen arte. Bertan izan zen, jubilatu zen arte.

Urte askotan zehar, euskarazko eskolak eman zituen Gipuzkoako Foru Aldundian. Bestalde, Irun Hiriko literatur sarien epaimahaikide ere izan zen.

Joseba Intxausti: «Jose Ignacio Telletxea Idigoras»

Jose Ignacio Telletxea Idigoras Donostian jaio zen 1928ko apirilaren 15ean eta 2008ko martxoaren 8an hil zen. Euskaltzaindiak 1979ko abenduaren 20an euskaltzain urgazle izendatu zuen.

Erromako Unibertsitate Gregorianoan Eliz historian, eta Madrilgo Unibertsitate Konplutensean Filosofia eta Letretan lizentziatu zen. Teologian doktorea zen. Gasteizko Teologia Fakultatean irakasle izan zen, bai eta Salamancako Elizaren Unibertsitatean ere. Salamancan jubilatu zen.

Fray Bartolome Karrantzakoaren lana zabaldu zuen, baita Catalina Erauso, Manuel Larramendi, Molinos, Miguel de Unamuno eta beste hainbat pertsonaia historikorena ere. Loiolako Inazioren biografia da, ezbairik gabe, bere lanik ezagun eta zabalduena: *Ignacio de Loyola, solo y a pie*.

Joseba Intxaustiren esanetan, «bizitza pertsonala eta akademiko-soziala, biak, erabat gurutzaturik ageri dira Telletxearen bizi-ibilaldian, ikerkuntza eta argitalpenerako bizi zela, baina ez laborategi ezkutu batean, gizarteko eta jakitunen arteko harremanak ongi zainduz baizik». Ikerlari ona, hizlari aparta –Joseba Intxaustiren aburuz– mundura begira eta munduan ibiliz bizi izan zen. Telletxeak bere erroak Euskal Herrian gorde zituen beti. Intxaustiren esanetan, «Donostiako

historiak asko zor dio, berak ondu dituen lanengatik, noski, eta, era berean, sustatzaile bezala egin duen lan bipilagatik, BEHSS sortu eta gidatzeagatik».

Pierre Charritton: «Jacques Etcheverry»

Jacques Isidro Etcheverry Unanue Donibane Lohizunen jaio zen 1921eko abenduaren 16an eta, Baionan hil, 2008ko martxoaren 22an. 1965eko azaroaren 24an euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak. Pariseko Sorbona Unibertsitatean Filosofia eta Psikosoziologia ikasketak egin zituen.

Donostiako Herri Irratiarekin egin zituen kolaborazioak, *Basque Eclair* egunkarian ere lan egin zuen Baionan, eta *Activités en Pays Basque* Baionako Merkataritza Ganberaren aldizkariaren zuzendaria izan zen. *Gure Herria* aldizkarian artikuluak argitaratu zituen. Radio France-ren «Kronikak» izeneko atala ere egin zuen.

Baionako Euskal Museoan euskara klaseak eman zituen, baita Baionako Lizeoan ere. Etcheverry izan da, Frantziako Administrazioak ordainduta, euskarazko eskolak eman dituen Iparraldeko lehen irakaslea, batxilergoa barne. Lizeoaz gain, Elizaren ardurapeko ikastetxeetan ere irakasle izan zen. Jacques Etcheverryk euskalduntze zein alfabetatze eskolak eman zituen bere bizitzan zehar. *Lapurdi itsas-hegia* liburua argitaratu zuen, 1977an.

Jose Luis Lizundia: «Henrike Knörr»

Henrike Knörr Borràs Tarragonan jaio zen 1947ko martxoaren 2an eta, Gasteizen hil, 2008ko apirilaren 30ean. Aita Gasteizkoa eta ama katalana, zazpi urte zituela Gasteizera etorri zen bizitzera. Filosofia eta Letretan lizentziatu zen 1981ean, Madrileko Complutense Unibertsitatean, Filosofia Hutsaren sailean, Alfred N. Whitehead filosofoaren gaineko lan batekin. Koldo Mitxelenaren laguntzaile izan zen Arabako Ikastetxe Unibertsitarioan. Gero, Gasteizko Filologia, Geografia eta Historia Fakultatean irakasle izendatu zuten eta horretan jardun zuen hil arte. 1987an, Euskal Filologiako Doktore titulua eskuratu zuen, Maurice Harriet apaizaren hiztegi argitaragabeari buruzko tesiarekin, Koldo Mitxelenaren zuzendaritzapean. Euskal Filologiako katedraduna zen, 1995az geroztik.

Euskaltzaindiak 1975ean hautatu zuen euskaltzain urgazle eta bi urteren buruan, 1977ko otsailaren 26an, euskaltzain oso, Antonio Arrueren ordez. Euskal-

tzaindiaren barne kargu batzuk bete zituen, hala nola, Euskaltzaindiko buruordea, 1995etik 2004ra bitartean; diruzain, Jagon sailburu eta idazkaria (1992-1995) eta Onomastika batzordeburua (1984-2001); 2004ko abenduaren 17tik Iker Sailburua zen; bestalde, Euskaltzaindiaren Arabako ordezkaria zen 2001etik.

Artikulu ugariren eta liburu batzuen egilea. Gogokoen zituen gaien artean leku eta pertsona izenei buruzko ikerketak eta euskararen historia eta euskal testuak daude. Hainbat egunkaritan eta aldizkaritan argitaratu dira bere artikuluak. 1993an, beste batzuekin batera, *Landazuri* aldizkaria sortu zuen.

Henrike Knörrek Akademian egindako ibilbideaz bereziki mintzatu da Jose Luis Lizundia, baina beste erakunde, elkarte eta talde askotako partaidetza eta lankidetza ere aipatuz: Euskal Herriko Unibertsitatea, Sancho el Sabio erakundea, Landazuri elkartea, Eusko Ikaskuntza, Euskalerriko Adiskideen Elkartea.

Jean Haritschelhar: «Xabier Diharce «Iratzeder»

Xabier Diharce «Iratzeder» Donibane Lohizunen jaio zen 1920ko urtarrilaren 4an eta, Beloken hil, 2008ko urriaren 13an. Uztaritzeko eta Baionako Seminarioetan egin zituen apaiz ikasketak. Hogeita bat urte zituela, Belokeko beneditarren komentuan sartu zen. Lau urte geroago, 1945ean, apeztu zen. 1948tik 1968ra arte beneditar nobizioen irakasle izan zen; gero priore eta 1972an abade izendatu zuten. Hamabost urtez izan zen Belokeko abade. Ondoren, 67 urte zituela, 1987an, Afrikara joan zen, Dahomey estatuko Zagnanado komentura, baina hamazazpi hilabete besterik ez zituen bertan eman, eta berriro Belokera itzuli zen. Hor bizi izan zen azken arnasa eman arte. 1953ko urtarrilaren 1ean euskaltzain urgazle izendatu zuten eta 1962ko uztailaren 27an, berriz, euskaltzain oso, J. Elissalderen ordez. 1963an, Beloken, sarrera hitzaldia egin zuen, «Belokeko euskal bidea» gaiari buruz. Kanta askoren letrak prestatu zituen, lehenik Gabriel Lertxundi beneditarrarekin batera –*Kantikak* liburua, horren emaitza– eta berak bakarrik geroago. Urteaga, Garbizu, Olaizola eta Bengoa musikalariek musika jarri zizkieten. Aita Donostiak musikaturikoak ere badira.

Salmoak obra nagusiaren egokitzaile izan zen Iratzeder. Bere liburu batzuk: *Argiz argi, Zeru menditik, Uhaineri nagusi, Oroitzapen purruxkak*. Bere olerki liburuak *Biziaren olerkia* liburuan bilduak dira.

Iratzeder poetak lagunduta –bere olerkiek lagunduta– egin du Jean Haritschelharrek gaurko hitzaldia. Itsasoa, mendia, Jainkoa, Euskal Herria, euskara...

horiek izan dira Iratzederren poesiaren gai nagusiak, Haritschelharrek esan bezala. Poemaz poema joan da, eta Belokeko abadearen ahotsa berpiztu du gaurko ekitaldian. Horrela amaitu du Jean Haritschelharrek: «Joan zaigu Iratzeder olerkaria, Belokeko Aita Abade ohia, Jainkoaren, euskararen eta Euskal Herriaren zerbitzari umila. Ba ote da xede edo helburu ederragorik? *Biziaren olerkia* liburua eskaini didalarik hauxe idatzi zuen: «*Nere pindarrak bihotz zonbeitetan pindar piztuko duelako esperantzan.*» Halakoa zen Iratzeder eta Lafitte-k idatzi zuen bezala: «*Bertzek jo dezatela hil-zeinua goizetik arrats, on bazaiote. Iratzeder-ek Bazko ezkila joiten dauku, mundu huntako argietarik bertzeko argietarat geramatzala, argiz-argi.*» Ene otoitz xumea –gaineratu du Haritschelharrek–: betiereko argian dagoela!».

Adolfo Arejita: «Karmelo Etxenagusia»

Karmelo Etxenagusia Uribe Iurretan jaio zen 1932ko apirilaren 24an eta, Bilbon hil, 2008ko azaroaren 6an. Gordexola, Artea eta Gasteizko seminarioetan egin zituen apaiz ikasketak. 1955ean apaiztu zen eta segidan Seminarioko irakasle izendatu zuten. Geroago Comillas-eko Seminarioan ikasi zuen Eliz Zuzenbidea. Ondoren, Erroman, Teologia eta Eliz Zuzenbidea ikasten jarraitu zuen.

Karmelo Etxenagusiaren literaturarekiko zaletasuna handia izan zen eta hala erakutsi zuen beti. Bere ikasle izandakoen esanetan, berak sentitzen zuen zaletasun bera pizten zuen jendearengan. Euskal literaturari buruzko antologia batzuk idatzi zituen, besteak beste *Euskal Idazleak bizkaieraz. Antologia. Testu azterketak. Ariketak*, Jon Kortazar eta Aitor Etxeberriaren laguntzaz egina, eta *Iparraldeko Euskal Idazleak. Antologia*. 2003an, *Euskerea nire bizitzan* liburua kaleratu zuen. Arejitaren hitzetan, «libururik ederrena, Etxenagusiak bizkaieraz zuen doinu ederra gozatu ahal izateko»

Mikel Zarateregin batera, Derioko Udako Euskal Ikastaroen sortzaile izan zen, 1969an. Aurrerantzean, Derioko Udako Ikastarotik sortu zen Labayru Ikastegiaren bultzatzaile handienetarikoa ere izan zen. 1995eko irailaren 8an, 63 urte zituela, Bilboko gotzain laguntzaile izendatu zuten, eta zeregin horretan ibili zen ordutik 2008. urtera arte, jubilatu arte. Ohorezko euskaltzaina zen, 1998ko apirilaren 24an izendatua.

Batzarra 18:30ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Urkiolan (Abadiño), 2009ko martxoaren 26an

Andres Urrutia euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Aurelia Arkotxa,
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Miren Lourdes Oñederra,
Txomin Peillen,
Andoni Sagarna,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ana Toledo,
Joan Mari Torrealdai,
Patxi Uribarren,
Piarres Xarriton eta
Mikel Zalbide euskaltzainak

Pello Telleria idazkariordea, Juan Jose Zearreta kudeatzailea eta Jose Antonio Aduriz, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari; Miren Azkaratek, ahala P. Goenagari; Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori; Ibon Sarasolak, ahala Beñat Oihartzabali; Joseba Lakarrak, ahala Beñat Oihartzabali.

Batzarra arratsaldeko 16:30ean hasi da Urkiola-Abadiñoko *Lagunetxea* hotelean, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Otsaileko batzarraren akta. Joan den hileko batzarraren aktaz ez da oharrik jaso. Beraz ontzat eman da.

2. Bilera hasi aurreko oharrak. Euskaltzainburuak, aretoan bilduriko euskaltzainak agurtu ondoren, ahoz honako oharrok egin ditu:

2.1. Batzarraren irauteaz. A. Urrutia euskaltzainburuak bilkura arratsaldean besterik ez dela izango gogorarazi die etorririkoei.

Euskera. 2009, 54, 1. 347-403. Bilbo
ISSN 0210-1564

2.2. XVI. Barne Jardunaldiak. Bestalde, bihar, ostiral egun osoan eta larunbat goizean XVI. Barne Jardunaldiak izango direla gogorarazi du.

3. Esku artekoak

3.1. Santiago Ezkerra euskaltzain urgazlearen heriotza. Santiago Ezkerra Etxarri Aranazko euskaltzain urgazle nafarraren heriotzaren berri eman du A. Urrutiak. Berorren bizitza eta nortasunaz Andres Iñigo mintzatu da. Zuzendaritzak hala proposaturik, berori izanen da, halaber, haren hilberri txostena eginen duena.

3.2. *Herria* astekariaren 3.000. zenbakia. Baionako ***Herria*** astekariak aurten bere 3.000 zenbakia atera duela eta, Euskaltzaindiak zorionak eman eta atxikimendua adieraztea erabaki du.

3.3. Zinpeko itzultzaileen habilitaziorako lege-proposamena. Eusko Jaurlaritzatik helduta, zinpeko itzultzaileen habilitaziorako lege-proposamena jaso da. Zuzendaritzak oharrak egin dizkio, epaimahaikoen artean Euskaltzaindiaren ordezkaria ere sartzea eskatuz.

3.4. *Bikain* ziurtagiria. Eusko Jaurlaritzak enpresetan euskararen erabilera egokia sustatzeko antolatu duen *Bikain* ziurtagirirako epaimahaia osatzeko, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak ordezkari Xabier Kintana idazkaria izatea proposatu du. Ontzat eman da.

3.5. Euskaltzainen curriculumaz. P. Telleria idazkariordeak euskaltzainen artean zeini bere curriculuma banatu dio, bakoitzari datuak aldatu edota eguneratzeko aukera emateko. Hortik jasoriko datu berriekin Euskaltzaindiaren Prentsa Zerbitzuak euskaltzain guztien curriculumak eguneratu nahi ditu.

3.6. Hurrengo batzarrak Gasteizen. Datorren hileko bilkura Gasteizen izanen da apirilaren 23an (ostegunean) izanen da, arratsaldeko 16:30ean, eta biharamunean goizeko 9:00etatik 11:30ak arte.

90. urteurreneko ospakizunaren Ageriko Bilkura apirilaren 24an (ostiralean) izanen da Gasteizen, eguerdiko 12etan, Arabako Batzar Nagusietan.

J. L. Lizundiak berria osatu du, esanez, ospakizun instituzionalean hiri-toponimiaz Gasteizko Udalerriko *Malizaeza* eskualdean egindako ikerketa lanak bertan aurkeztuko direla.

3.7. Sarako Idazleen Biltzarra. Urtero Lapurdiko herri horretan Idazleen Biltzarrak antolatzen duen liburu-azokan Euskaltzaindiak aurten ere, apirilaren 13an, goizeko 11:30ean liburu batzuk aurkeztuko ditu:

Artzain beltxaren neurtitzak, (Zaldubirena) Henri Duhauk prestatua.
Bizitzaren Hiztegiaz, Txomin Peillenek idatzia.
Zuberoako Literaturaz, Jean-Louis Davantek idatzia.

Liburu horiez gainera, Aurelia Arkotxa euskaltzain osoak Euskaltzaindian sartzean irakurri zuen mintzaldia ere aurkeztuko da, *Bazterrez* izenekoa. Euskaltzain oso guztiak hara gonbidatu dira.

Aurkezpenez landa, Euskaltzaindiaren *Pirinioetako Hizkuntzak* erakusketa ikusgai izanen da, irudi eta testuen bidez, euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez azaldua.

4. Exonomastika. Alfabeto zirilikoa erabiltzen duten estatuetako hiri nagusien zerrenda onartzea. Ez da oharrik jaso, eta, beraz, aurreko hilean aurkezturiko zerrenda ontzat eman da. Halere J. L. Lizundiak lehenagotik onarturiko bi izenekin kontraesana ageri dela ohartarazi du. X. Kintanak azaldu duenez, transliterazioa beti berdin egiteko, izen bi horien grafia, nazioarteko ohiturari jarraikiz, *Txernobyl* eta *Khanty Mansi* agertu beharko litzateke, eta horrela egitea erabaki da.

5. Tx. Peillenen emeritu izatearen ondoriozko domina-hutsartea. Zuberoako euskaltzain hau emeritu izatera heltzearen ondorioz, berorren hutsartea betetzeko hautaketa egin da, ondoko emaitza hauekin:

Xarles Videgainek: aldeko 17 boto. Boto zuriak 11. Beraz, Xarles Videgain euskaltzain oso hautaturik gelditu da.

6. Hiztegi Batua

Pello Salabururen zuzendaritzapean, eta Jose Antonio Aduriz idazkariaren laguntzarekin, *etrusko*-tik *etzun*-erainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu egin dira.

7. Azken ordukoak

7.1. Batzar-dietak. J. L. Lizundia diruzainak eta Juanjo Zearreta kudeatzaileak kontuen berri azaldu eta urriko, azaroko eta abenduko batzar dieten ordainketen zenbatekoak eman dizkiete euskaltzainei.

7.2. Biharamunean (martxoaren 27an) XVI. Barne Jardunaldiak goizeko 9etan hasiko direla gogoratu zaie euskaltzainei.

Batzarra 20:00etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Urkiolan (Abadiño), 2009ko martxoaren 27an (goizean)

Andres Urrutia euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana idazkaria,
Jose Luis Lizundia diruzaina,
Andoni Sagarna Iker sailburua,
Andres Iñigo Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Aurelia Arkotxa,
Miren Azkarate,
Jean-Louis Davant,
Jean Haritschelhar,
Joseba Lakarra,
Emile Larre,
Miren Lourdes Oñederra,
Txomin Peillen,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ana Toledo,
Joan Mari Torrealdai,
Patxi Uribarren,
Piarres Xarriton eta
Mikel Zalbide euskaltzainak

Pello Telleria idazkariordea eta Juan Jose Zearreta kudeatzailea, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari, eta Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori.

1. JARDUNA

Martxoaren 27an, goizeko 9:00etan, Euskaltzaindiaren XVI. Barne Jardunaldiak hasi dira, Bizkaiko Urkiola-Abadinoko *Lagunetxea* hotelean, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Jardunaldien aurkezpen-hitzak. Hasieran euskaltzainburuak, han bilduak agurtu ondoren, ekitaldiaren aurkezpen-hitzak esan ditu:

1.1. Aurretikoak. Euskaltzainburua Etxalarko XV. Barne Jardunaldietan planteatu ziren asmo eta egitekoetatik abiatu da. Gogoratu duenez, Zuzendaritza berriak bere gobernu-programa

Euskera. 2009, 54, 1. 347-403. Bilbo
ISSN 0210-1564

garatzea izan du helburu, proposamen hauekin: Alde batetik Euskaltzaindia berriztatzeko prozesua: horretarako, aurreko Barne Jardunaldietan erabaki bezala, adinaren arabera, euskaltzain oso batzuk emeritu izatera pasatu dira 2006-2008 urteetan eta, aldi berean, euskaltzain berri batzuk sartu dira, ordezkotasuna bermatzeko. Berau jada bukatua da.

1.2. Barne-kudeaketa berritzea. Euskaltzaindiaren praktikak zenbait barne-erregela aldatu eta eguneratzea eskatzen du. Ondoren horren zergatiak bereziki azaldu ditu, egitasmoen eta batzordeen ibilbideak aztertuz.

Irtenbidea, A. Urrutiaren aburuz, batzorde ahaldunduak sortzea litzateke, horiek prozesuak arindu eta, behin proposamen heldua landu eta aurkeztu ondoren, osoak irakurketa bakarrean gauzak berehala erabakiko lituzke eta. Alde horretatik, proposamen batzuk egin ditu.

1.3. Barne erregelak eguneratzea

Ondoren, Euskaltzainburuak, Idazkariaren eta Diruzainaren laguntzaz, Barne Erregelen aldaketa proposatu du, artikulu batzuk jada zaharkiturik gelditu direlako, eta, erdietsi nahi diren helburuetarako, beste batzuk oztopo izan daitezkeelako. Hortaz, hirurek aldatzeko artikulu guztiak banan-banan irakurri dituzte, bakoitzaren ordez zer nolako testua proposatzen den azalduz.

Proposamenen hautazko testuak aurtengo apirilaren 20a baino lehen helarazi beharko zaizkio Zuzendaritzari.

Aldaketa hauen guztion helburu orokorrak euskaltzain oso eta emeritu guztien egoerari egokitu, osoko bilkuren funtzionamendu arindu, egitasmoak bultzatu, Euskaltzaindiaren gizarteratze-bidean aurrera egin eta Akademiaren kudeatzelana erraztea direla azpimarratu du Euskaltzainburuak.

1.4. Euskaltzaindiaren Hiztegia

Egitasmo hau oraintsu ondu den hitzarmenaren arabera, 2010. urtearen bukaeran amaituko dela esan du.

Horretarako *Euskaltzaindiaren Hiztegia: adierak eta adibideak* izeneko Batzorde ahaldundua sortzea proposatzen da, honela osatua: a) burua: Iker sailburua; b) idazkaria: Euskaltzaindiaren idazkaria, c) kideak: *Euskaltzaindiaren Hiztegia: adierak eta adibideak* egitasmoaren zuzendaria, 3 euskaltzain oso, osoko bilkurak hautatuak, Hiztegi Batuko lantaldearen arduraduna, ahotsaz baina botorik gabe. Erabakiak gehiengoz hartuko dira, berdinketa kasuetan buruaren botoa erabakigarria izanik.

Bilerak hilean bi aldiz eginen dira, Bilboko egoitzan nahiz ordezkaritzetan. Koordinatzaileak Euskaltzaindiaren idazkaria eta idazkariordea izango dira. Azalpenak hilero emango dizkio osoko bilkurari Batzorde ahaldunaren buruak, egitasmoaren aurrerapenen berri emateko.

1.5. Hiztegi Batua (2. itzulia)

Era berean, Hiztegi Batuaren prozedura arintzeko asmoz, beste Batzorde ahaldun bat proposatu du Euskaltzainburuak. Batzorde honen ondorioetarako, idazkariordeak euskaltzain osoei zerrendak letraka bidaliko lizkieke, oharrak egin litzaten. Oharrik gabeko hitzak besterik gabe onartutzat joko lirateke. Letra ohardunak behin erabakiz gero, Batzorde ahaldunduak osoko bilkurari berrespena eskatuko lioke, horretarako antolatuko liratekeen bilkura berezietan. Batzorde honek beste hiztegi berezien ekarriak koordinatuko lituzke, hots, Zientzia/Teknika hiztegia, Zuzenbide/Administrazio hiztegia, eta Onomastika, Exonomastika eta Gramatika batzordeetatik etorri eta eragina izan lezaketen guztiak.

Batzorde ahaldundua honela osatuko litzateke: a) burua: Iker sailburua, b) idazkaria Euskaltzaindiaren idazkaria, c) kideak: 3 euskaltzain oso, osoko bilkurak hautatuak, Hiztegi Batuko lantaldearen arduraduna, ahotsaz baina botorik gabe. Erabakiak gehiengoz hartuko dira, berdinketa kasuetan buruaren botoa erabakigarria izanik.

Bilerak hilean bi aldiz eginen lirateke, Bilboko egoitzan nahiz ordezkaritzetan. Koordinatzaileak Euskaltzaindiaren idazkaria eta idazkariordea izango lirateke. Azalpenak hileroko bilkurari adieraziko lizkioke Batzorde ahaldunaren buruak, egitasmoaren aurrerapenen berri emateko. Salbuespen gisa, Batzorde ahaldunduan adostasunik ez balego, eztabaida osoko bilkuran egingo litzateke eta bertan ebatziko. Batzorde ahalduna maiatzean jarriko litzateke indarrean, eta ekaineko osoko bilkuran hasiko batzorde horren burua azalpenak ematen osoko bilkurari.

Ondoren, ikerketa eta jagote arloko egitasmo batzuen egoeraz mintzatu da Euskaltzainburua. Argitalpenak berriztatzeko beharraz eta Euskaltzaindia euskalgintzaren nahitaezko erreferente gisa mantentzeko komenientziaz.

Akademiaren 90. urteurrena dela eta, Euskaltzaindiak, ospatzeko, argitalpen eta ekimen bereziak egiteko asmoa daukala esan du. Kultur eragileekin harremanak landu eta hitzarmenak lantzeko asmoa ere adierazi du. Diru-iturrien egoeraz bere kezka azaldu du, krisiak Euskaltzaindiaren proiektuen finantziaketan ukan dezakeen eragin txarragatik. Oraingo hitzarmenaren argi-ilunak ere gogoratu

ditu, batez ere erakunde batzuek ordaintzeko orduan erakusten duten atzerapen kaltegarriagatik. Etorkizunerako, irtenbidea, nolabait, programa-kontratuak ezartzean izan litekeela adierazi du.

2. Iker sailburuaren txostena

Andoni Sagarnak *«Zer eta nola ikertu behar du Euskaltzaindiak?»* txostena irakurri du, hasieran 1982an Luis Villasantek Akademiaren helburu eta zereginez egiten zituen kontsiderazioak gogoratuz. A. Sagarnaren ustez Euskaltzaindiak ikerketa aplikatua eta praktikoa egin beharko lituzke, ikerketa teorikoa ahantzi gabe.

Jada martxan dabiltzan edo hasteko prest dauden egitasmoei begirada orokorra egin eta gero, hemendik aurrera ikerketa antolatzeko eraz jardun du. Alde horretatik, oraingo talde-lanaren bidetik aurrera eginez, sare-lana egitera heldu beharra dauka, gurean ari diren gainerako herri-erakunde eta elkarte pribatuekin lankidetzan aritzeko. Adibide gisa Lexikoaren behatokia jarri du, *Berria* egunkariaren eta *EiTB*rekin sinaturiko hitzarmenen bidez lortua nabarmenduz. Bukatzeko, Corpusen garrantzia nabarmendu du, ondoko helburuak Erreferentzia-corpusa eta Literatura-corpusa landuz joateko.

Ondoren, «euskara batuaren hurrengo urratsak» egiteko proposamenak azaldu ditu, hizkuntzaren kalitatea eta gaitasun gramatikala, soziolinguistikoa eta estrategikoa lantzeko, kontsultei erantzuteko, araugintza, aholkularitza eta kalitate-ziurtagiri egokiak luzatzeko erak xeheki azalduz. Ontzat eman da.

2.1. Euskal Gramatika Orokorra

Pello Salaburuk, Batzordearen buruak azaldu du azken bi urteetan batzordeak egindako lana, EGLUren inguruan. Bestalde ere, azaldu du, *Euskal Gramatika Orokorra 2008-2009*ko proiektua ez dela betetzerik izan, eta datorren urtean izanen lukeela segida. Beraz, aurten egitasmo horrek ez du finantzaketarik beharko.

2.2. Euskal Corpus Onomastikoa (ECO)

Andres Iñigok ECO proiektuaren estruktura eta kronograma aurkeztu eta azaldu ditu. 2007an ezarritako lehentasuna Euskal Herri osoko toponimiaren datu-basea osatzea bazen, Nafarroari eta Iparraldeari dagozkienak eginak dira jada. Bestalde, EAEren datu-basearen migrazioaren ordez eginiko lanei dagokienez, ondoko hauek ere burutuak dira: P. Salaberriren *Eslaba aldeko euskararen*

azterketa toponimiaren bidez. Onomastika eta Exonomastika batzordeek atondurik, Euskaltzaindiak emandako arauak. Joan Ignazio Iztuetaren *Guipuzcoaco condaira,* K Mitxelenaren *Apellidos Vascos*, Caro Baroja, Mitxelena, Salaberri, eta abarren zenbait artikulu. Bilduriko datu kopuruei dagokienez, idatzizko iturri eta datuetan, informatzaileetan, ahozko eretan, ponte-izenetan, deitura, exonimo eta lekuizenetan 2007tik 2009ra bilduriko emaitzen zenbatekoak eskaini dira. Proiektua hasieratik orain arte egunean doa, Patxi Galé teknikariaren lan onari eta erantzukizunari esker.

2009-2011 urteetarako honako helburuak proposatzen dira: 1) Euskal Herri osoko oinarrizko datu-basea osatzea. EAEko HPS/Deiker datutegia gehitzea nahiz geure kasa osatzea. 2) Toponimia Zerbitzua eskaintzea: Nafarroako Gobernua, Iparraldeko IGN, Eusko Jaurlaritza, Aldundiak, Udalak... eta jardunaldi praktikoak. 3) Datu-basearen egitura, eskaini nahi diren zerbitzuetara egokitzea. 4) Ikerketak bultzatzea: Udal bekak, lankidetzak, hitzarmenak, Unibertsitatea... 5) Monografia lokal sakonen emaitzak jasotzen segitzea. Ontzat eman da.

2.3. Gasteiz udalerriko toponimia

H. Knörrek hasi eta, bere heriotza goiztiarragatik bukaturik ezin ikusi zuen lana, antzinako *Malizaeza* merindadearena, hiriburua barne, amaitua du J. L. Lizundiak, Elena Martinez de Madina batzordekidearekin. Bere txosten idatzi bietan (Gasteizko toponimia III, eta Gasteizko Toponimia hurrengo egitasmoaz, hots, Ubarrundiako sei herrienaz. Errendapen laburra) euskaltzainak lan horien ezaugarri nagusiak eta datuak biltzeko materialen berri eman du. Ontzat eman da.

Biei, Andres Iñigo eta Jose Luis Lizundiari, zorionak eta eskerrak eman zaizkie.

3. Eguerdiko etena. Barne Jardunaldien goizeko ekitaldia eguerdiko 13:40an bukatu da, bazkaltzera joateko. Arratsaldeko 4:30ean segitzeko da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Urkiolan (Abadiño), 2009ko martxoaren 27an (arratsaldean)

Andres Urrutia euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana idazkaria,
Jose Luis Lizundia diruzaina,
Andoni Sagarna Iker sailburua,
Andres Iñigo Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Aurelia Arkotxa,
Miren Azkarate,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Joseba Lakarra,
Emile Larre,
Miren Lourdes Oñederra,
Txomin Peillen,
Patxi Salaberri,
Ana Toledo,
Joan Mari Torrealdai,
Patxi Uribarren,
eta Mikel Zalbide
euskaltzainak

Pello Telleria idazkariordea eta Juan Jose Zearreta, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari, eta Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori.

2. JARDUNA

Batzarrak arratsaldeko 16:30ean segitu du toki berean, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia

Ibon Sarasola zuzendariaren ezin etorriaz, haren egitasmoko Elizabet Kruzetak eta Gabriel Frailek aurkeztu dute Iker saileko egitasmo horren egoera. Beste hiztegietako definizio eta adierak aztertu eta adostasunak bildu dituzte, eta orain arte E letraraino heldu dira. J. L. Lizundiak, X. Kintanak eta A. Sagarnak ere hitz egin dute.

5. Euskararen Herri Hizkeren Atlasa

Adolfo Arejitak Atlasa eratzeak orain arte izandako bilakaera gogorarazi du: 1) Hasierako prestatze-lana, J. Haritschelharren gidaritzapean burutu zen.

2) Ondoren, Beñat Oihartzabalek hartu zuen lanaren gidaritza. 3) Geroago Andolin Eguzkitzak bere gain hartu zuen, eta, beronen heriotzaz gero, 4) Adolfo Arejitak, oraingo zuzendariak. Beronek atlasaren oraingo egoera zertan den azaldu du. M. L. Oñederrak galdetu du datuak nolako euskarrian gordeko diren, eta erantzun izan zaio.

Bestalde, J. Haritschelharrek eginiko galderari erantzunez, Euskaltzainburuak lehen bi liburukiak aurtengo udaren bukaera baino lehen ikustea espero duela esan du. Edizioaren argitalpenean gertaturiko atzerapen handia dela eta, Andres Urrutiak, halaber, Euskadiko Kutxaren pazientzia eta portaera ona goraipatu du.

6. Ahozko Tradiziozko Hizkera Corpusa

Ahoz jasoriko tradiziozko hizketaren bilketa. A. Arejita euskaltzainak Aritz Abaroa jauna aurkeztu eta beronek proiektua zertan dagoen argitu du. Zuzenik, grabagailuaz, edo zeharka, inoren eskutik jasoriko era horretako materialak eta lekukotasunak biltzeko prozedura xeheki azaldu du, horrekin ahozko erregistroan eraturiko corpusa sortzeko, idatziaren osagarri. Katalogatzea, transkribatzea eta lan hori burutzeko baliabideak ere kontuan izan ditu, ahozko artxiboen biblioteka lortzeko helburuaz. P. Goenagak egitasmoaren luze-laburraz eta geografi kokapenaz galdetu du. A. Arejitak erantzun dio, Bermeotik hasi direla esanez, gero beste tokietako lekukotasunak ere biltzen segitzeko.

7. Zientzia eta Teknika hitz bilduma

Euskaltzaindiaren Hiztegia zientzia eta teknika hitzekin osatzeko, arlo horietako oinarrizko lexikoa biltzeko orain arte eginiko lana azaldu du X. Kintana egitasmoaren buruak. Osakide finkoak Iñaki Irazabalbeitia (proiektuaren idazkaria, Elhuyar), Kepa Altonaga eta Gidor Bilbao (EHU) eta Andres Alberdi (Hezkuntza Saila) eta Antton Gurrutxaga (Elhuyar) dira.

Egitasmoaren buruaren gaixotasunez ia 2008 osoan lan egiterik izan ez badute ere, berriz lanean hasi eta jadanik honako aurrelanak burutu dira: 1) Lanaren metodologia zehaztu. 2) Jorratzeko diren jakintza arloak erabaki. 3) Oinarrizko termino zerrenda osatu. 4) Proiektuaren datu-basea diseinatu eta antolatu eta matematikako aditu taldea osatu (Patxi Angulo, Jabier Duoandikoetxea, Sabino Madariaga eta Andres Alberdi) eta oinarrizko terminoak bidali, horiek berrikus eta lehen aukera prestatzeko.

A. Sagarnak, zientzia eta teknika orokorretan bestelako taldeek morfologian eginiko lanekin koordinazioan egotea proposatu du. Iradokizuna ontzat eman da.

8. Zuzenbide/Administrazio hitz bilduma

Andres Urrutia euskaltzainburuak azaldu duenez, jada 2001ean sortu zen «Administrazio-zuzenbidea» hiztegirako lantaldeak 400-600 hitzeko hiztegia ontzea da helburua, Hiztegi Batuan txertatzeko. Talde hau Euskaltzaindiaren ordezkariekin (zuzendaria eta idazkaria), IVAP-HAEEko, INAP eta Ipar nahiz Hego Euskal Herriko zuzenbide fakultateetako ordezkari banarekin osatuko da, bertan UZEI eta beste batzuk ere ordezkatuak izanik. Batzordea Euskaltzaindiaren egoitzan kokatuko da. Bilerak hilero egingo ditu (bideo-hitzaldiak barne). Helburuan Hiztegi Batuaren (2. itzulia) batzordeari zerrenda onartua helaraziko zaio.

Lan hori egiteko erabiliko den Corpusa ondokoek osatuko dute: Lege-testuek; aldizkari ofizialek, eskuliburuek, Euskaltermek, Terminologia batzordeak, Hiztegiek eta IVAP-HAEEren datu-baseak. Lana ibilian jartzeko, egitekorik behinenak batzordea sortu, kronograma egin eta proiektua abian jartzea dira.

9. Iker egitasmo berriak

9.1. Euskal Hiztegi Historiko eta Etimologikorantz (EHHE)

Joseba Lakarrak eta Blanca Urgellek izkribuz aurkeztu eta, laburturik J. Lakarrak irakurririko lana da. Bertan orain arteko euskal hiztegien historia laburra azaldu ondoren, beren argi eta itzalekin, gure hizkuntzan oraindik falta dugun hiztegi etimologikoaren deskripzioa egin du. Bidean zenbait autorek, aitzindari gisa, K. Mitxelenak eta A. Irigoienek batez ere, argitaraturiko material baliotsuak aipatu ditu. Ondoren, era horretako hiztegiak osaeran bete beharko lituzkeen baldintzak azaldu ditu, bai eta albora utzi beharreko akatsak ere. Azkenean, kronograma, helburuak eta giza eta material baliabide zehatzak aipatu ditu, horiek aurrekontuetan ukan dezaketen eraginagatik. Proposamena onartu ondoren, egitasmoaren arduradunak Zuzendaritzarekin mintzatzea erabaki da, egitasmoaren xehetasun tekniko eta antolamenduzkoak finkatzeko.

9.2. Herri Literaturaren Corpusa

Pello Esnalek Herri Literaturaren corpusa osatzen joateko premia azaldu du. Alde batetik bilketa legoke, materialak eskuratuz. Ondoren material horien lanketa letorke, hots, beroriek egokiro antolatu eta, azkenik, plazaratzea. *Auspoa* bildumako materiala jada digitalizaturik dagoela gogoratu du. Era berean, XX. Mendeko argazkiak eta ilustrazioak, bertsolaritza munduarekin lotuak eta bertsopaperak ere bildu beharko lirateke. Proposamena onartu ondoren, egitasmoaren arduradunak Zuzendaritzarekin mintzatzea erabaki da, egitasmoaren xehetasun tekniko eta antolamenduzkoak finkatzeko.

9.3. Euskal Fonetikaz

Miren Lourdes Oñederrak bere txostena aurkeztu du, euskara estandarrean fonetika baturako arauak zehazteak eta erregela batzuk konplitzeak ekar ditzaketen arazoak erakutsiz. Hiztunen ohiturei oso loturik dagoen arloa denez gero, arreta berezia behar duela azpimarratu du. Proposamen bi egin ditu: a) Batzorde baten antolakuntzarako urratsak ematea eta, b) Hiztegigintzarekin uztartuz, hiztegi berezi baten bidez, arauen erabileraren pedagogia egokia eta eraginkorra bideratzea ahoskeraren aldetik. Ustezko Batzorde horrek (EBAZ) Euskara Batuaren Ahoskera Zaindurako emandako aholku eta arauak berrikusi beharko lituzke, esparruen arabera. Euskaltzaindiak, gure hizkuntzaren errealitatea ikusita, ez lituzke besteak betetzera derrigortu beharko berak eskuarki betetzen ez dituen arauak. Ontzat eman da proposamena.

9.4. Zenbait gogoetagai, 90. urteurrena oparoaldi baten atalase bihurtzeko

A. Sagarnak aurkeztua. Hasteko, Sagarna euskaltzainak euskararen batasunerako 1968tik Akademiak emandako arauek izan duten harrera eta aplikazioa aztertu ditu. Alde batetik, pertsona landu eta hizkuntzaren profesionalek (irakasle, kazetari, idazle eta jendaurreko hizlariek), oro har, kasu egin diote, baina hiztun masa zabala dago oraindik, horiek ez dakizkielako, betetzen ez dituena.

Hizkuntzaren jendaurreko erabilera instituzionalizatua zaindu beharra dago, eta horren kalitateaz arduratu, horretarako planifikazio sistematikoa erabiliz. Gaitzespen gordinez okerrak gaitzestea ez da egoki izaten, eta hobe da zuzentzen laguntzea.

Horretarako, lehenik eta behin kalitatea zertan datzan ikertu eta adostu beharra dagoela esan du A. Sagarnak. I. Sarasolaren pasarte bati loturik hizkuntzaren zuzentasunaren eta egokitasunaren arteko ezberdintasuna azpimarratu du, eta berezikienik zaindu beharrekoa bigarrena dela esan. Nazioarteko espezialista batzuen bidetik, gaitasun gramatikala, gaitasun soziolinguistikoa eta gaitasun estrategikoa bereizi ditu. Euskal gizarteak hizkuntzaren kalitateaz dauzkan zalantzei eta kontsultei erantzuten jakin behar du Euskaltzaindiak, eta Kalitate-zerbitzu bat antolatu, horren bidez, araugintza orokorrez gainera, aholkularitza ere eskaintzeko. Horretarako, beharrezkoa dakusa A. Sagarnak Euskaltzaindiak kalitate-ziurtagiria eskaintzea, euskararen nolakotasuna bermatzeko.

Hori, nolabait, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak 2008ko martxoaren 5eko agindua osatzera letorke, hots, *Bikain* Euskararen Kalitate Ziurtagiria. Bukatzeko,

Euskararen erabileraren kalitatea bermatzeko prozedura lantzeko puntu batzuk zehaztu ditu: Jendaurreko euskararen kalitatea. Euskara zuzentzaileen trebakuntza bultzatzea. Gaitasun komunikatiboa lantzeko eta neurtzeko prozedurak aztertu eta aplikatzen dihardutenekin harremanak areagotzea. Euskaltzaindiaren kalitate-zerbitzua eratu eta Akademiaren kalitate-ziurtagiria sortu eta Eusko Jaurlaritzari *Bikain* ziurtagiriaren barruan sar dezan eskaintzea.

Ondoan, euskaltzain batzuek (P. Goenagak, A. Sagarnak, A. Urrutiak, B. Oihartzabalek, J.L. Lizundiak, J. Lakarrak, eta X. Kintanak) entzundakoari buruzko iritzi osagarri batzuk adierazi dituzte. Ontzat eman da proposamena.

Batzarra 20:15ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Urkiolan (Abadiño), 2009ko martxoaren 28an (goizean)

Andres Urrutia euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana idazkaria,
Jose Luis Lizundia diruzaina,
Andoni Sagarna Iker sailburua,
Andres Iñigo Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Aurelia Arkotxa,
Patxi Goenaga,
Joseba Irazu «Bernardo Atxaga»,
Joseba Lakarra,
Miren Lourdes Oñederra,
Patxi Salaberri,
Ana Toledo,
Joan Mari Torrealdai,
Patxi Uribarren,
eta Mikel Zalbide
euskaltzainak

Pello Telleria idazkariordea, Juan Jose Zearreta eta Iñaki Kareaga, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Miren Azkaratek, ahala P. Goenagari; Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori.

3. JARDUNA

Batzarra goizeko 9:00etan hasi da Bizkaiko Urkiola-Abadiñoko *Lagunetxea* hotelean, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

10. Jagon sailburuaren txostena

Andres Iñigok aurkeztu du txostena eta, azken urteotan eginiko eta aurreikusia den lanaren erakusle, sailaren ardurapean argitaraturiko liburuok aipatu ditu:

10.1. Azkeneko argitalpenak

Recuperación del euskara en Navarra, Miquel Gros i Llados (2007). *Hizkuntza-zuzenbidea Testu-bilduma euskaraz,* Euskaltzaindia – Sustapen Batzordea (2007). *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*, Euskal Herriko Ikastolen

Konfederazioa eta Euskaltzaindiak (2008). *Testu antolatzaileak: Erabilera estrategikoa* (P. Esnalen eskutik), Corpus Batzordean (2008).

10.2. Jagonet Zerbitzua

Bestetik, zerbitzu honen erabileraren datuak ere eskaini ditu.

10.3. 2009-2011 artean aurreikusitako lanak.

Corpus batzordea:

Hitz ordena lantzen (P. Esnalen eskutik)

Euskalkien lantaldea:

Sakanako ekarria amaitzea. Hurrengo zerrendekin jarraitzea.

Sustapen batzordea:

2009: XIV Jagon jardunaldiak: «Etorkinak eta euskara».

Iparraldeko datuak: E. Baxok, B. Coyos, AEK, EAEko inkesta Soziologikoa: III.-IV. datuen bilakaera. HABEko datuak; Nafarroakoak**,** Etorkinen behatokikoak, UNESCO etxekoak, Deustuko Unibertsitatekoak (Eurokarta), kanpoko esperientziak.

Lan osagaiak:

Testu juridikoak osatuz joatea.

Hurrengo urteetako jardunaldien hurrenkera erabaki eta prestatzea.

10.4. Aurreikusitako argitalpenak

XI. Jardunaldietako lanak (EAEko euskararen legearen 25. urteurrenekoak)

Euskararen bilakaera EAEn (M. Gros.)

Hitz ordena lantzen (Jagon 7 modukoa)

Jagonet

Egiten ari den lan zerbitzuarekin jarraitu eta, ahal den neurrian, zerbitzu osoagoa eskaini.

11. Euskararen Historia Soziala

Joseba Intxaustik aurkeztu eta azaldu du Joanes Etxeberri egitasmoa zertan den. Orain arte lantaldea eratzen eta zereginak banatzen aritu dira, eta egindako

lana antolatzen. Era berean, artxiboak aztertzen jardun dira. Ondoren, Mikel Zalbidek hitza hartu eta beste herri batzuetan egindako ikerketez mintzatu da, horietatik zer atera litekeen azalduz. Nikolas Gardner ere mintzatu da thesaurusa egiteko bide eta emaitzaz, bai eta aurkituriko zailtasunez ere. J. L. Lizundiak iradokizuna egin die, Gasteizko eta Iruñeko legebiltzarrek eta gobernuek 1980tik hona egindako hitzarmen, lege, dekretu, dokumentu, etab. jasotzeko. B. Oihartzabalek, A. Arkotxak, J. A. Arana Martijak eta P. Uribarrenek egindako argitze-galderei erantzun diete taldekoek. Batzarrak ontzat eman ditu proiekturako eskariak. A. Urrutiak esan du Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak bi urteko kontratu egoera gainditzeko ahaleginak egingo dituela.

12. Argitalpenak

1) Literatura aldizkariaren proposamena

Bernardo Atxagak, hots, Joseba Irazu euskaltzainak, Akademiak aldizkari kultural bat argitaratzea proposatu du. Oraingoz *Erlea* izena izango luke. Horko lanak profesionalek eginak lirateke eta ordainduak. Urtean hiru zenbaki aterako lirateke, lau hilabeterik behin, hain zuzen. Atal batean «urrezko liburuak» edo etxeko liburutegi guztietan egon beharko luketen ehun liburu hautatuei eskainiko litzaieke. Idazleek hizkuntzarekin izandako harreman pertsonala kontatzeko tokia ere izango luke aldizkariak. Gainera, munduko beste lekuetako berriak, eztabaidarako foroak eta iritziak elkarri adierazteko gune moduan erabil liteke. Era berean, gogoeta-hitzaldiak antolatuko lirateke. M. L. Oñederrak zenbait kontsiderazio egin ditu, errebista editatzeko erredakzio-kontseiluaz. P. Goenagak egindako galderari ere erantzun dio. B. Atxagaren proposamena ontzat eman da.

2) *Euskera* agerkaria

Erakundearen argitalpenak direla eta, *Euskera* agerkaria berregituratu eta eguneratu beharra azpimarratu du argitalpen-batzordeburuak, bai formaz eta bai mamiaz ere alde batzuetan zaharkiturik gelditu delako. Agerkariaren edukia hizkuntza-arauetara lerratu da gero eta gehiago. Ez dago idazketa-batzorderik eta jarraipenik ere ez zaio egiten. Eraldatzeko proposamenean agerkariaren aurkezpena (azala eta gainerakoak) eta barruko edukiak aipatu ditu. Aldizkaria urtean hiru aldiz aterako litzateke. Lehen zenbakian lehenengo seihileko jarduerak eta xedapenak jasoko lituzke, bigarrenak urteko bigarren seihilekoak, eta hirugarrenak ikerketa-lanak eta ekarpen teoriko-praktikoak.

Zenbaki bakoitzeko bizpahiru azterlan argitaratuko lirateke eta beste horrenbeste gai monografiko. Era berean oharrak, aipamen bibliografikoak eta al-

bisteak ere ekarriko lituzke. Horretarako, Bildumen arduradunak Argitalpen batzordearekin bildu eta berregituratu beharra dakusa, gaiak eta estilo-liburua argitaratu, ale-kopurua 500-600etara mugatu eta idazketa-batzordea sortzea: Burua: euskaltzainburua; idazkari akademikoa: euskaltzain osoa; idazkari teknikoa: argitalpen arduraduna, eta, kide gisa, 5/6 euskaltzain oso. Era berean indexazio-bidean jarriko da, eta aldizkariari jarraipena eginen zaio.

Gainerako argitalpenez, Euskaltzainburuak azken urteotako ibilbidea gogorarazi eta aurrera eraman nahi duen berriztatze-lana azaldu du, bai eta *Jagon* eta *Euskaltzainak* deritzen bildumekin ibilian segitzeko asmoa ere. Norabide berrian, gure gizartean Euskaltzaindiaren irudia eta ikusgarritasuna zaindu beharra ere aipatu du, B. Atxagak eginiko proposamenaren bidetik. Bildumen arduradunekin, hor arestian aipaturiko bilduma berriak barne, argitalpen-batzorde berria antolatu beharra ikusi du, norabide berria emateko. Hor Euskaltzaindiaren argitalpen batzordea, argitalpen zehatzen agerrarazlea eta Euskaltzaindiaren argitalpen arduraduna leudeke. Txostena ontzat eman da.

13. Informazio eta Komunikazio Teknologia batzordea. Lexikoaren Behatokia

Andoni Sagarnak egitasmoaren oinarrizko ideiak azaldu ditu. Hiztegi Batuko Lantaldearen proposamenaz prosa arrunteko corpus monitore bat prestatu nahi litzateke, hedabideei begira, batez ere. Horrekin lexikoaren erabilera azterketak egin litezke, eta hortik lexikoari dagozkion arauak atera. Bestalde, Euskaltzaindiaren informatika alorreko segurtasun plana abian jarri dela informatu du. Gainera, Euskaltzaindiaren arau-erabakien banaketa elektronikoa egiten eta eguneratzen ari da.

Lexikoaren Behatokia egitasmoaren zehaztasun teknikoak diseinatzeko helburuaz, EHUko IXA taldearekin, UZEIrekin eta Elhuyar-ekin harremanetan jartzea pentsatu da. Ongi ikusia eman zaio.

14. Euskaltzaindiaren Iker-Jagon/tegiak

Iñaki Kareagak, Euskaltzaindiko informatikariak azaldu duenez, Euskaltzaindiak, 2007ko Barne Jardunaldietan onarturiko jarraibideetatik aurrera joanez, lehenago paperean argitaraturiko hainbat lan, dagoeneko euskarri digitalean eskaintzen ditu, horrela, interesatuek erosoago eta era malguagoan erabil ditzaten. Hor jadanik hiztegi, antologia liburu, ikertze-lan, bilduma eta aldizkari batzuk daude eta horien izenburuak aipatu ditu. Era berean eduki berrien bertsio

elektronikoak prestatzen eta azpiegitura teknikoa hobetzen dihardu, esaterako, *Euskera* agerkariaren edizio digitala hobetzeko egitasmoa eta Euskaltzaindiaren webgunerako testu osoko bilatzailea.

Azkenean, Hiztegi Batu Oinarriduna –(HBO)– eratzeko faseak azaldu ditu, bakoitzaren iturri eta lankideekin. Amaieran A. Arkotxak galde egin du ea frantsesetik ere informazio hori bil daitekeen. A. Sagarnak baietz erantzun dio, zehaztasun maila berberaz ez bada ere. P. Goenagak ere galdetu du arau batzuei buruz, eta A. Sagarnak erantzuna eman dio.

Batzarra 13:45ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Gasteizen, 2009ko apirilaren 23an

Andres Urrutia euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Adolfo Arejita,
Aurelia Arkotxa,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Joseba Lakarra,
Emile Larre,
Miren Lourdes Oñederra,
Txomin Peillen,
Andoni Sagarna,
Patxi Salaberri,
Ibon Sarasola,
Ana Toledo,
Joan Mari Torrealdai,
Patxi Uribarren,
Xarles Videgain,
Xarriton, Piarres
eta Mikel Zalbide euskaltzainak

Pello Telleria idazkariordea, Juan Jose Zearreta eta Jose Antonio Aduriz, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Pello Salaburuk, ahala Jean Haritschelharri; Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari; Miren Azkaratek, ahala P. Goenagari; Jean-Louis Davantek, ahala Txomin Peilleni; Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori. Lourdes Oñederrak bilkura amaitu baino lehen joan beharragatik, ahala Aurelia Arkotxari.

Batzarra arratsaldeko 16:30ean hasi da Gasteizko Canciller Ayala hotelean, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Aurreko batzarren aktak. Idazkariak adierazi duenez, ez da oharrik jaso eta beraz, martxoko osoko batzarraren akta ontzat eman da.

Martxoan Urkiolan egin ziren XVI. Barne Jardunaldien akta gaur banatu da.

Euskera. 2009, 54, 1. 347-403. Bilbo
ISSN 0210-1564

2. Bilera hasi aurreko oharrak Euskaltzainburuak, aretoan bilduriko euskaltzainak agurtu ondoren, ahoz honako oharrok egin ditu:

2.1. Xarles Videgaini ongietorria. Euskaltzainburuak ongi etorria eman dio Xarles Videgain euskaltzain berriari.

2.2. Batzarraren iraupenaz. Euskaltzaindiaren batzarra gaur arratsaldean eta bihar goizean (11:00 arte) eginen da, ondoren Arabako Foru Aldundira ageriko bilkurara joateko.

3. Eskuartekoak

3.1. Literatura Sari Nazionalerako epaimahaikideak izendatzea

Urtero bezala, Espainiako Gobernuaren Kultura Ministerioak Euskaltzaindiari Literatura Sari Nazionaletarako epaimahaikideak izenda ditzala eskatu dio. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzaren proposamena hauxe izan da:

Letrak: Andres Urrutia
Olerkigintza: Sebastian Garzia Trujillo
Narrazioa: Jon Kortazar
Saiakera: Xabier Altzibar
Antzerkia: Patri Urkizu
Haur Literatura: Maria Jose Olaziregi

Itzulpenerako ez da inor izendatu.

Proposamena ontzat eman dira.

3.2. Txillardegiren omenaldiaz

Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi» euskaltzain urgazleari omenaldia egiteko asmoz, *Bat* soziolinguistika aldizkariaren proposamena jaso da, bertan parte hartzeko baldintzekin. Baldintza horiek euskaltzainen artean banatu dira.

3.3. Erkidegoetako irrati-telebistak beste erkidegoetan entzun eta ikusi ahal izateko eskaria.

Itzalketa digitala dela eta, une jakin batetik aurrera ezingo da irrati edo telebista autonomikoen emanaldirik ikusi beste erkidegoetatik. Hori dela eta, *Acció Cultural del País Valenciá* elkartearen eskaria jaso da, aurrerantzean ere irrati-telebista autonomikoen emanaldiak beste autonomi erkidegoetan ere entzun eta ikusi ahal izateko neurriak jar daitezen, eta horretarako atxikimendua eskatuz. Eskariari atxikimendua ematea erabaki da.

3.4. Euskal Telebistarekiko hitzarmena

Euskaltzaindiak Euskal Irrati Telebistarekin sinatu berri duen hitzarmenari esker, horko emanaldietan erabiliriko testuak eta materialak Euskaltzaindiaren Lexiko-behatokian erabili ahalko dira. Horren xehetasunak A. Sagarnak azaldu ditu.

3.5. Maiatzeko batzarrak

Euskaltzaindiaren hurrengo osoko batzarra maiatzaren 29an, goizeko 12,30ean izanen da Bilbon, arratsaldean segitzekoa. Biharamunean, goizeko10,30ean Arratzuko elizan Joseba Lakarraren sarrera-hitzaldia izango da, J. A. Arana Martijak erantzutekoa.

4. Barne Erregelen aldaketak

Oharrik jaso gabeko artikuluak, hasieratik, guztien adostasuna zegoenez gero, besterik gabe ontzat eman dira. Ondoren, ohardun artikuluak banan-banan berrikusi dira.

4.1. Aldaketei eginiko oharrak

Barne Erregelak aldatzeko proposamenek, hiru ohar multzo jaso dituzte: P. Goenagak, M. Azkaratek eta M. Zalbidek, zeinek bere kontutik aurkeztuak.

– 1.11. art. P. Goenagak proposatua. Ontzat eman da.
– 1.12. art.- M. Zalbidek proposatua. Hau ere ontzat eman da.

P. Xarrittonek berorren zuzenketaren euskara kritikatu du. Zalbidek azalpena eman dio, bai artikuluaren mamiaz eta bai formaz ere. I. Sarasolak zuzen iritzi dio Zalbideren testuari eta uste du bakoitzaren euskararen on-txarrez mintzatzea galarazi beharko litzatekeela.

– 4.2. eta 4.3. art.- P. Goenagak eskatu du aldatzea, euskalkien ordezkotasuna zalantzan jarriz. Lizundiak esan du ezin dela hori egin, euskaltzainen lurralde ordezkotasuna Estatutuetan jarria dagoelako, eta arazo juridikoak sorraraz litzakeelako. Goenagak bere ikuspuntuak adierazi ditu, amore emateko prest badago ere, ez dagoela guztiz ados esanez. Oraingoz aldaketarik ez egitea erabaki da.
– 11. 6.art. P. Goenagaren aldaketa onartu da.
– 35. art. P. Goenagaren aldaketa onartu da.
– 36. art. P. Goenagaren aldaketa onartu da.
– 37. art. P. Goenagaren aldaketa onartu da.
– 52. art. P. Goenagaren aldaketa onartu da.

– 53. art. M. Zalbideren aldaketa onartu da.
– 54. art. P. Goenagak eta M. Zalbidek aldatzeko eskatu dute. M. Zalbideren aldaketarekin onartu da.

4.2. Artikulu berria txertatzea, egitasmoen arteko kudeaketa-koordinazioa bideratzeko.

A. Sagarnak *ikertegi* hitzaren erabileraz eta esanguraz argibideak eman ditu.

M. Zalbide egitasmoen arteko kudeaketa-koordinazioa lortzeko moduaz luze mintzatu da. P. Goenagak ere erreparoak jarri ditu. J. L. Lizundiak bere adostasun-desadostasunak agertu ditu. P. Goenagaren aldaketa-proposamena botoetara eramanda, honako emaitzak izan dira: P. Goenagaren proposamenaren alde (ezer ez aldatzea): 3 boto; M. Zalbide eta zuzendaritzaren arteko testu adostuaren alde: 17; abstentzioak: 4.

4.3. Atal berriaren edukia

– 57. 6. eta 57.8. art. M. Azkarate, P. Goenaga eta M. Zalbideren oharrak ontzat eman eta moldatu dira.
– 59.9., 59.10. eta 59.11 art. Ontzat eman dira, eta P. Goenagaren eta M. Azkarateren oharrak kontuan izanda, «nahitaezkoa»ren ordez, «lekurik egokiena» jarriz.
– 87. art. P. Goenaga eta B. Oihartzabalen oharrak onarturik, «erredakzio batzorde»ren ordez, «erredakzio kontseilu» jarriz eta «kontseilukideak» hitza erabiliz, testua ontzat eman da.

4.4. Sariak

M. Azkarateren oharra ontzat emanda, Euskara saria irabazi duten pertsona juridikoak ez dira ohorezko euskaltzain izango. P. Goenagak lehen artikuluari egindako oharra, «emango ditu»ren ordez «eman ditzake» jartzea ontzat eman da.

M. L. Oñederrak galdetu du ea beste akademiek saririk ematen duten. Baietz erantzun dio Lizundiak, bai Akademia Galegoak, bai Katalanak eta bai Espainolak ere.

B. Oihartzabalek eta J. Lakarrak eskaturik, saria lortzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa ez da besterik gabe euskaltzain ohorezko izango.

Webguneari buruzko artikulu proposamena dela eta, A. Toledok esan du kontraesan bat agertzen dela, eta «baztertu gabe» dakarren esaldia ez dela egokia.

J. L. Lizundiak beste aditz bat jartzea eskatu du. *Euskera* aldizkari ofiziala dela eranstea proposatu du euskaltzainburuak. Ontzat eman da.

4.5. Ahala Idazkariari

Barne Erregeletan egin diren aldaketa eta gehiketak kontuan izanik, Idazkariari ahal eman zaio, batetik, artikuluak behar bezala ordenatzeko eta bestetik, idazkera bateratzeko.

5. *Euskaltzaindiaren Hiztegia: adierak eta adibideak* batzorde ahaldundua

Ez du oharrik jaso eta, beraz, ontzat eman da horretarako Batzorde ahaldundua antolatzea.

6. Hiztegi Batua (2. itzulia) batzorde ahaldundua

Oharrak bidaltzeko epearen barruan ondokoak jaso dira:

J. L. Davantek orain arteko prozeduraren akatsak salatu ditu, eta, prozedura azkartzeko, hemendik aurrera proposatzen diren aldaketak ondo iruditzen zaizkio.

M. Azkaratek ere ongi dakusa batzorde ahaldundua eratzea.

J. L. Lizundiak pozgarri deritze Davanten eta Mirenen proposamenei, erakusten duten adostasunagatik. Bestetik, euskaltzain berak gogorarazi du L.Villasante euskaltzainburu izan zenean ere, *Bizkaiko aditz laguntzaile batua* horrelako ordezkaritza legislatiboaren bidez onartu zela.

Pello Salaburuk bere desadostasuna azaldu du proposatzen den aldaketari buruz, aurretik, berari eta J. A. Adurizi kontsultatu ez zaielako. Gaizki dago, bere ustez, talde-burua aldatzea eta bera botorik gabe uztea. Hilabete bat atzeratzea eskatzen du.

Andoni Sagarnak P. Salaburuk bere erantzunean eginiko aipamen batzuk argitu ditu, salaketa bera ere gezurtatuz. J. Haritschelharrek, halaber, P. Salaburuk salaturiko atzerapenak argitu eta azaldu nahi izan ditu.

Euskaltzainburuak argitu duenez, proposamena Zuzendaritzak egiten du, eta horixe besterik ez da: proposamena, interesatuen artean aztertzekoa. P. Salaburuk eskaturiko hilabeteko atzerapena onartu da.

Era berean, desadostasunak konpontzeko, Zuzendaritzak hau proposatu du: oraingo Hiztegi Batua (2. itzulia) batzordeko kide guztiak (lauak) maiatzean bilerara deitzea, apirilaren osoko batzarraren ondoren, haien iritzia entzuteko;

Zuzendaritzako guztiak ere gonbidatuko dira bilera horretara, nahi duena joan dadin. Ontzat eman da. Edonola ere, oraingo prozedura aldatzean akordioa izan da, eraginkorragoa izan dadin.

7. Batzorde eta egitasmoen organigrama

Euskaltzainburuak banatu den organigrama azaldu eta euskaltzainek eginiko galderei erantzun ondoren, testua ontzat eman da.

Batzarra 20:45ean eten da, bihar, areto berean segitzeko.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Gasteizen, 2009ko apirilaren 24an

Andres Urrutia euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Adolfo Arejita,
Aurelia Arkotxa,
Jean Haritschelhar,
Joseba Lakarra,
Emile Larre,
Miren Lourdes Oñederra,
Txomin Peillen,
Andoni Sagarna,
Patxi Salaberri,
Ana Toledo,
Patxi Uribarren,
Xarles Videgain,
Piarres Xarriton, eta
Mikel Zalbide euskaltzainak

Pello Telleria idazkariordea, Juan Jose Zearreta eta Jose Antonio Aduriz, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari; Miren Azkaratek, ahala P. Goenagari; Joan Mari Torrealdaik, ahala A. Sagarnari, eta Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 9:05ean hasi da, Gasteizko Canciller Ayala hotelean, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Hasi aurrekoak. Atzoko bilerari jarraikiz, Euskaltzainburuak egungo goizeko programa gogorarazi du. Jendaurreko ageriko bilkura eguerdiko 12etan izanen da Batzar Nagusien egoitzan, jendaurreko bilkuran.

2. Exonomastika. Europako hiriak: J. L. Lizundiak Europako hirien zerrenda aurkeztu du, jada onartua. Tx. Peillenek exonimo batzuen fonetikaz argibideak eskatu ditu. Lizundiak erantzun dio hori kontuan izanda, laster argibide batzuk publikatuko direla, aholku gisa. A. Sagarnak atzerriko

toponimo batzuen ebakiera bera ere grabaturik eman daitekeela esan du. Hala egitea onartu da.

3. Hiztegi Batua (2. itzulia)

Pello Salabururen ezin etorriaz, J. A. Aduriz idazkariaren gidaritzapean *euforia*tik *esajerazio*–rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu dira.

Euklidear moduko adjektibo eratorriak onartzeko komenientzia aipatu eta berretsi da.

4. Hurrengo batzarrak

Hurrengo batzarra Bilbon izango da maiatzaren 29an. Biharamunean Arratzun (Bizkaian) J. Lakarraren sarrera-hitzaldia izanen da.

5. Banatzekoak

Ondoko liburuak banatu dira:

– *Artzain Beltzaren Neurtitzak.* Zalduby. Euskaltzainak 5. Henri Duhauk prestatua.
– *Antonio Arrue: Idaztiak eta hitzaldiak*. Euskaltzainak 5. Antonio Zavalak presatua.
– *Biziaren Hiztegiaz.* Txomin Peillen. Euskaltzainak 7.
– *Zuberoako literaturaz.* Jean-Louis Davant. Euskaltzainak 9.
– *Euskera* 2008, 1.
– Sagrario Alemanen sarrera-hitzaldia (separata).
– Aurelia Arkotxaren sarrera-hitzaldia (separata).
– *Gasteizko Toponimia*-ri buruzko bi liburukiak.

Batzarra 11,05ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Ageriko bilkura

Gasteizen, 2009ko apirilaren 24an.

Apirilaren 24an, eguerdiko 12:00etan, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du Gasteizen, Arabako Foru Aldundian, 90. urteurreneko ospakizun bezala.

Ageriko bilkuran bildu dira:

– Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andoni Sagarna, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Aurelia Arkotxa, Pierre Charritton, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Joseba Lakarra, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Patxi Salaberri, Ana Toledo, Patxi Uribarren, Xarles Videgain eta Mikel Zalbide euskaltzain osoak. Ezin etorria adierazi du Jean-Louis Davantek.

– Jose Antonio Aduriz, Gorka Aulestia, Ricardo Badiola, Patxi Galé, Pruden Gartzia, Aingeru Ibisate, Peli Martin Latorre, Jesus Mari Makazaga, Manu Ruiz Urrestarazu, Pello Telleria eta Juan Jose Zearreta euskaltzain urgazleak. Ezin etorria adierazi dute Xabier Erdoziak eta Jose Mari Etxebarriak.

– Jose Antonio Gonzalez Salazar, Elena Martínez de Madina eta Roberto Gonzalez de Viñaspre batzordekideak.

– Juan Jose Galdos, Montserrat Ocio eta Zuriñe Rescalvo Gasteizko Toponimia lantaldekide ohiak.

– Amaia Okariz eta Itziar Rekalde Euskaltzaindiko langileak.

Juan Antonio Zarate Arabako Batzar Nagusietako lehendakaria eta Xabier Agirre ahaldun nagusia ondoan zituela, Andres Urrutia euskaltzainburuak

Euskaltzaindiak Araban duen presentzia aldarrikatu du: «Erakunde arabarra gara eta Euskal Herri osoa hartzen duen erakundea ere bagara, euskararen inguruan». Orobat, eskerrak eman ditu euskaltzainburuak: «Euskaltzaindiaren ibilbidea urte luzeetan ahalbidetu duten agintariei nahiz gizarte arabarrari; eskerrak zuei, egun honetan Euskaltzaindiari laguntzera etorri zareten guztioi, eta gerorako gonbita: lan egin dezagun guztiok elkarrekin, euskararen eta euskal kulturaren alde, Araban, Euskal Herrian eta mundu osoan».

Bai Batzar Nagusietako lehendakariak, bai eta Xabier Agirre ahaldun nagusiak ere, Akademiaren lana goraipatu dute eta euren instituzioak euskararen alde egiten ari diren lana nabarmendu nahi izan dute, baina baita hiritar guztiena ere. «Eskerrak –esan du Agirrek– euskara ikasi eta irakatsi duten guztiei, eta eskerrak euskara eguneroko tresna bihurtzen duten arabar guztiei».

Patxi Uribarren

Patxi Uribarrenek euskarak Araban izan duen ageriko bilakaera historikoari buruzko gogoeta egin du. Historikoki, etxebizitzak hirietan bilduta egoteak, inmigrazioak eta gaztelerazko eskolatzeak euskararen garapena mugatu dute. Horrek ezin ezkuta dezake, halere, Araba euskalduna izan zela. Lazarraga, Betolaza, Barrutia edota Ulibarri idazleen lekukotza, horren adierazgarri.

Haien lanari jarraiki, XX. mendean auskara sustatzeko ekinean jardun dutenak gogora ekarri ditu Uribarrenek, gaurko eguneko ikertzaile eta sortzaileen lana ahaztu gabe. Horrekin guztiarekin, etorkizunari begira, erronka nagusiak zertan diren aipagai izan ditu: euskal guneak zaindu, irakaskuntzari laguntzeko beste tresna batzuk garatu, helduen euskalduntzea indartu…

Manu Ruiz Urrestarazu

Arabako toponimiaren azterketa xumea egin du bere mintzaldian Ruiz Urrestarazu Arabako ordezkariak, eskualdetik eskualdera dauden alde eta berezitasunak nabarmenduz. Geografiaren arabera, Nafarroa, Gipuzkoa zein Bizkaiko euskalkien eragina antzeman daitekeen arren, arabar toponimiak izaera propio eta aberatsa agertzen du, kultura-muga bati dagokiona hain zuzen ere. Euskaltzale guztiak toponimia zale izan dira eta dira, Manu Ruiz Urrestarazuren ustez, eta aipagai izan ditu azken mende honetan gehien nabarmendutakoak, mintzairaren

altxorra azaleratzen lagundu dutenak, Henrike Knörr zenaren lanari aitorpen berezia eskainiz.

Gasteizko toponimia

Ekitaldi honetan ere, *Gasteizko Toponimia I / Toponimia de Vitoria I (Ciudad / Hiria)* eta *Gasteizko Toponimia II / Toponimia de Vitoria II (Malizaeza)* izeneko liburuak aurkeztu ditu Euskaltzaindiak. Bi liburuak Euskaltzaindiak argitaratzen duen *Onomasticon Vasconiae* bildumaren 27. eta 28. liburukiak dira, hurrenez hurren. Aurkezpena Jose Luis Lizundia Exonomastika batzordeko buruak eta Gasteizko Toponimia egitasmo buruak eta Elena Martinez Madina liburuen egileak egin dute.

Gasteizko eta Malizaeza merindadeko toponimo historikoak eta gaur egun bizirik dirautenak biltzen dituzten lan horien egileak hauek dira: Henrike Knörr eta Elena Martinez de Madina. Horiekin batera, José Antonio González Salazar, Juan José Galdos, Montserrat Ocio eta Zuriñe Rescalvo ikertzaileek osatu duten taldea aritu da informazioa biltzen. Knörr egitasmoaren zuzendaria zen, eta hil ostean Jose Luis Lizundiak hartu zuen bere gain zeregin hori.

Ekitaldia Xabier Agirre Arabako Diputatu nagusiaren hitzekin amaitu da, 14:00etan.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Bilbon, 2009ko maiatzaren 29an

Andres Urrutia euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Adolfo Arejita,
Jose Antonio Arana Martija,
Aurelia Arkotxa,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Miren Lourdes Oñederra,
Txomin Peillen,
Andoni Sagarna,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ana Toledo,
Joan Mari Torrealdai,
Patxi Uribarren,
Xarles Videgain,
Piarres Xarriton, eta
Mikel Zalbide euskaltzainak

Pello Telleria idazkariordea, Alfonso Mujika eta Jose Antonio Aduriz, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Bernardo Atxagak, ahala Andres Urrutiari; Miren Azkaratek, ahala Pello Salabururi; Ibon Sarasolak, ahala Pello Salabururi; Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori; Miren Lourdes Oñederrak, ahala Aurelia Arkotxari, egon ez den tartean; Jean-Louis Davantek, ahala Txomin Peilleni.

Batzarra goizeko 12,30ean hasi da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Hasi aurrekoak. Euskaltzainburuak, batzar aretora helduak agurtu ondoren, ezin etorrien ahalak aipatu ditu. Azken 3 aktei buruzko oharrak direla eta, P. Uribarrenek zuzenketa bat egin du apirilaren 24koaz, eta onartu egin zaio, beste akta guztiekin batera. Ondoren, Euskaltzainburua eguneko aztergaietara pasatu da, eguerdian eta arratsaldean ukitzekoak banatuz..

2. Onomastika. Nafarroako izendegia. Andres Iñigok hitza hartu eta

Euskera. 2009, 54, 1. 347-403. Bilbo
ISSN 0210-1564

Nafarroako Gobernuak udal izenez harturiko azken erabakia azaldu du. Hor, aldatu diren izenak, eta erabakirikoaren eta argitara emandako testuen artean zenbaitetan ageri diren desadostasunak azaldu ditu, zerrenda zehatza eginez. Euskaltzaindiak zerrenda zuzendua argitaratu eta udal horien artean zabaltzea erabaki du. P. Xarrittonek kontsiderazio batzuk egin ditu, eta J. L. Lizundiak, J. Haritschelharrek, Tx. Peillenek eta A. Iñigok erantzun diote. Azkenean, Iñigoren proposamena ontzat eman da.

3. Ordezkaritzetako arduradun eta ordezkarien proposamenak

Euskaltzainburuak organigraman egindako aldaketak azaldu ditu, proposaturiko ordezkarien izenekin: Arabarako, Manuel Ruiz Urrestarazu. Gipuzkoarako Andoni Sagarna. Nafarroarako Andres Iñigo eta Iparralderako Beñat Oihartzabal.

Iparraldean, Baionako bulegoan, P. Xarrittonek bere arduradun-karguan segituko du orain arteko baldintzetan, ekonomikoak barne, nahiz eta organigraman agertu ez. Zuzendaritzak hurrengo bilkuran zehaztu eta onetsiko du hori eta Xarrittoni adierazi.

P. Goenagak galdetu du ea zergatik proposatu izan den Arabarako ordezkari, Manuel Ruiz Urrestarazu, hots, euskaltzain oso ez den bat. Euskaltzainburuak erantzun dio zuzendaritzaren proposamena izan dela, eta lehen ere, H. Knörren hutsunea betez, horretan ibilia dela. P. Salaburuk prozedura hori ez duela garbi ikusten esan du. A. Arejitak, aldiz, ongi iritzi dio Manu Ruiz Urrestarazuren proposamenari. Proposamena ontzat eman da.

4. Euskaltzaindiaren batzorde eta egitasmoen organigrama

Ondoren, Euskaltzainburuak, karpetan idatzirik banatua zen batzorde eta egitasmoen organigrama xeheki irakurri eta komentatu du, horietako bakoitzak proposatu dituen kide berriak azpimarratuz, eta, Céline Mounole kidearen kasuan, horren curriculuma ere erantsiz.

Gehitzeko kideen zerrenda eta osaera, batzorde eta egitasmoetan banan-banan aztertu ondoren, onartu dira kasu guztietan.

5. Hiztegigintzako batzorde eta egitasmoak

Idazkariordeak hiztegigintzako batzorde eta egitasmoen organigramaren osaera paperak banatu ditu. Proposatu guztiak onartu dira. Euskaltzaindiaren Hiztegia-Adierak eta adibideak batzorde ahaldundurako kideak, euskaltzain osoei dago-

kienez, honako hauek izendatu dira, zuzendaritzaren proposamenez: Beñat Oiartzabal, Adolfo Arejita eta Patxi Salaberri.

Hiztegi Baturako batzorde ahaldundua bereziki tratatu da. Euskaltzainburuak azpimarratu du maiatzaren hamaikan bildu zela zuzendaritza Hiztegi Batuko (2.itzulia) batzordearekin, aurreko osoko bilkuran adierazi bezalaxe. Horren ondorioz eta bilera horren akordioak jasotzeko, Euskaltzainburuak idatzi du testu berri bat eta berriro igorri zaie parte hartu zuten guztiei testu berria, euren oharrak egin ditzaten. Testu berri hori oraintxe banatu da Osoko Bilkuran. Hartara, M. Azkaratek eta P. Salaburuk testu berri horri aurkeztu dizkiote euren oharrak.

P. Salaburuk bere oharra ahoz azaldu du, Hiztegi Batuaren osaeraz zenbait desadostasun agertuz. Beste ohargilearen ezin etorriaz, Euskaltzainburuak M. Azkarateren oharrak irakurri ditu, eta, oro har, bere adostasuna agertu ere bai. Hortaz 3.4. eta 3.7. ontzat eman dira. 4.5.ko iradokizuna ere onetsi da. Orobat, 4.6.ko zalantza argitu dio A. Urrutiak. 7.2.ko eskaeraz, hots, orain arte ponente izan denak gero ere segitzeaz, ordea, Euskaltzaindiaren zuzendaritzak batzorde ahaldunduak aurrerantzean bere burua antolatzeko eskubidea izan behar duela uste du.

Ildo berean, J. L. Lizundiak ondo iritzi die Mirenen proposamen gehienei baina pentsatzen du batzorde ahaldunduak bere autonomia propioa izan behar duela bere ibilbidea antolatzeko. Andoni Sagarnak uste du ez dela zaila izango barne ibilbide hori kide guztien artean adostea. Bukatzeko, ontzat eman da Osoko Bilkuran aurkeztutako testua, osaera eta xehetasunak barne, eta barne-ibilbidea egiteko agindua ere eman zaio batzorde ahaldunduari, gero zuzendaritzari aurkeztekotan eta berak onartzekotan. Orobat, eta testu horren arabera, orain arte Hiztegi Batua (2.itzulia) batzordearen kideak barneratuta geratu dira batzorde ahaldunduan, gainerako kideekin batera. Batzorde ahaldunduaren kideen kopurua osatzeko, zuzendaritzak Patxi Uribarren euskaltzain osoa kide izendatzea proposatu du eta hala onartu da.

6. Sarrerako erakustokia

Euskaltzaindiaren beheko solairuko leihoak, Plaza Barrira begira daudenak, erakundearen historia eta zenbait idazlanen berri emateko erabiltzea erabaki du zuzendaritzak, eta asmo hori jada praktikara eraman dela adierazi da.

Ordubietan eten da batzarra, arratsaldean segitzeko.

Bazkalondoan, arratsaldeko 4etan, berriro ekin zaio bilerari.

7. Exonomastika. Kanpoko leku-izenak ahoskatzeko irizpideak

J. L. Lizundiak txosten honen helburua aurkeztu eta, ondoren, hitza Alfonso Mujikari eman dio. Beronek, txosten idatzi batekin, beste hizkuntza batzuetako fonemak adierazteko grafiak euskaraz nola adierazi edo transkribatu azaldu du, hor ager daitekeen kasuistika nagusiarekin. Ipar eta hegoldeko irakurtze-ohitura nagusiak kontuan izan dira. A. Mujikak, batez ere *j, g (ge, gi), x, kh* eta *y* grafemek hizkuntza batzuetan duten balioagatik, jatorrizkoa esateko zailtasuna duten euskaldun hiztunentzat (ipar eta hegoaldekoentzat) ordezko hurbilak proposatu ditu, beti ere gomendio gisa.

J. L. Lizundiak katalan kultura munduko adibideak azaldu ditu, argigarri. Era berean, beste dokumentu batean, Euskaltzaindiaren gomendioa deritzonaz, Europako hizkuntza garrantzizkoenetan, kontsonante zein bokal talde batzuen ahoskera euskaraz nola eman daitekeen iradokitzen da, etsenplu ugarirekin. M. L. Oñederra konforme agertu da Alfonsoren proposamenarekin. Andoni Sagarnak, bestalde, exonimoen ebakera egokia zein den adierazteko proposamena aurkeztu du, kasu bakoitzean grabazioen bidezko aholku egokiak bideratzeko. Oharrak egiteko epea: ekainaren 19ra arte.

8. Hiztegi Batua (2. itzulia)

P. Salabururen gidaritzapean, J. A. Adurizen idazkariaren laguntzaz, *exakzio*-tik *ezkanda*–rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu dira. Era berean, lehendik gelditua zen *eustarri* hitzaren buruzko txostena aurkeztu du Adurizek, baina «dike» hobetsirik.

9. Esku artekoak

9.1. *Peru Abarka*ren irakurketa

Euskal autu klasiko honen irakurketa ekainaren 18an Arriaga teatroan eginen dela iragarri da, interesatuek izena eman dezaten. Era berean, *Peru Abarka* dela eta, Euskaltzaindiaren beheko aretoan, erakusketa jarriko da.

9.2. Sari Nazionalerako epaimahaikidea

Sari Nazionaletako itzulpen lehiaketarako epaimahaikide Paskual Rekalde izendatu du Zuzendaritzak, Euskaltzaindiaren ordezkari.

9.3. Euskadi Literatura sariak

Euskaltzaindiak aurtengo Literatura Sarietarako epaimahaikide Gorka Aulestia (Euskarazko literaturan) eta Joseba Urzelai (Euskarazko itzulpenean) izendatu ditu.

9.4. Hurrengo batzarrak

Hurrengo osoko batzarra ekainaren 26an**,** ostiral goizean izanen da Hazparnen. Egun berean, arratsaldean, 90. urteurreneko ospakizun ekitaldia eginen da, iraganeko euskaltzain hazpandarrak omentzeko. Ekitaldiak Elkar kulturgunean eginen dira.

Era berean jakinarazi da uztailaren 16an, ostegun arratsaldean, osoko batzarra eginen dela Akademiaren egoitzan. Uztailaren 17an, berriz, ostiral goizean, ageriko bilkura izanen da *Real Academia Española, Real Academia Galega* eta *Institut d'Estudis Catalans*-en ordezkariekin.

9.5. Uztail-urrietako batzarrak

Abuztuan, oporrengatik, ez da osoko batzarrik eginen, ez eta irailean ere. Berez irailari legokiokeen osoko batzarra urriaren 8an, ostegun goizean, izanen da Donostian. Egun berean, iluntzean, Kursaal Jauregian musika emanaldia eskainiko da.

Urriaren 9an, ostiralean, 90. urteurrenaren amaierako ekitaldi instituzionala eginen da Gipuzkoako Foru Aldundian.

9.6. Joseba Lakarraren sarrera-hitzaldia

Gogoratu egin da, halaber, Joseba Lakarra Andrinua euskaltzainaren sarrera-hitzaldia bihar, maiatzaren 30ean, Arratzuko parrokian izango dela goizeko 10,30etan.

10. Banaturiko liburuak

Morgako seme den Felix Bilbao euskaltzain urgazleak idatziriko *Ipuin barreka* liburua, Labayruk eta Morgako udalak berrargitaratua, bilerara etorritakoen artean banatu da, Adolfo Arejitaren ekimenez.

Batzarra arratsaldeko 7,00etan amaitu da.

Andres Urrutia, euskaltzainburua	Xabier Kintana, idazkaria

Ageriko bilkura

Arratzun, 2009ko maiatzaren 30ean.

Gaur, maiatzak 30, egin da Joseba Andoni Lakarra Andrinua euskaltzainaren sarrera ekitaldia, Arratzuko San Tomas elizan, goizeko 10:30etan hasita.

Bildu dira:

– Euskaltzain osoak: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andoni Sagarna, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Sagrario Aleman, Jose Antonio Arana Martija, Adolfo Arejita, Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Pierre Charritton, Patxi Goenaga, Joseba Lakarra, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Pello Salaburu, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren, Xarles Videgain eta Mikel Zalbide. Ezin etorria adierazi dutenak: Jean-Louis Davant, Jose Irazu «Bernardo Atxaga», Patxi Salaberri, Ibon Sarasola eta Patxi Zabaleta.

– Ohorezko euskaltzainak. Ezin etorria adierazi dutenak: Xabier Gereño, Patxi Oroz eta Jose Antonio Retolaza.

– Euskaltzain urgazleak: Joseba Agirreazkuenaga, Dorleta Alberdi, Kepa Altonaga, Xabier Altzibar, Gotzon Aurrekoetxea, Ricardo Badiola, Gidor Bilbao, Iñaki Camino, Xabier Erdozia, Juan Manuel Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Pruden Gartzia, Sebastian Gartzia Trujillo, Juan Luis Goikoetxea, Rikardo Gomez, Joakin Gorrotxategi, Jazinto Iturbe, Jabier Kaltzakorta, Jon Kortazar, Itziar Laka, Manu Ruiz Urrestarazu, Iñaki Segurola, Koro Segurola, Pello Telleria eta Juan Jose Zearreta. Ezin etorria adierazi dutenak: Martzel Andrinua, Jose Mari Etxebarria, Jesus Mari Makazaga eta Paskual Rekalde.

Euskera. 2009, 54, 1. 347-403. Bilbo
ISSN 0210-1564

– Batzordekideak: Gorka Intxaurbe, Amaia Jauregizar, Ane Miren Loidi, Julen Manterola, Céline Mounole eta Erramun Osa.

– Langileak: Lutxi Alberdi, Amaia Okariz, Josune Olabarria eta Resu Orbe.

Juan Jose Zearreta kudeatzaileak ekitaldiaren aurkezpen orokorra egin du. Ondoren, Xabier Kintana idazkariak, Barne Erregeletako 64.8 eta 64.9 ataletan esaten dena betez, ekitaldi akademikoaren nondik-norakoa azaldu du.

Josu Sabin Olano Arratzuko alkatearen ongietorriak eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren agurrak hasiera eman diote gaurko ekitaldiari.

Ondoren, Jose Luis Lizundia eta Aurelia Arkotxa euskaltzainek lagunduta, batzar tokira sartu da Joseba Lakarra «Aitzineuskera berreraikiaz: zergatik ezkerra?» izenburuko sarrera-hitzaldia irakurtzera.

Joseba Lakarra: *«Aitzineuskera berreraikiaz: zergatik ezkerra?»*

Aitzineuskararen berreraiketaren helburuak eta beharrak aipagai izan ditu bere berbaldian Lakarra euskaltzainak, baita orain arteko eboluzioa ere. Arlo horretan, «Koldo Mitxelenaren lan filologiko eta diakroniko bikaina» nabarmendu du, euskararen garapenerako ekarpen ezinbestekoa dena.

Hari jarraiki, belaunaldi oso batek ikerketa-aro emankorra gauzatu du eta Lakarrak gogoratu du bere lanaren xede nagusietako bat izan dela CVC monosilaboa, berori hitzen erro-eredu izaki. Bere hitzetan «erroen forma kanonikoaren azterketak, hitzen egiturak, jatorri eta bilakabideak lehen ez genuen laguntza eskaini digute, bide batez berreraiketaren beste alderdi batzuetarako oinarriak jartzen lagunduaz».

Joseba Lakarrak, aitzineuskara zaharrago eta sakonagoa aztertu eta proposamen bat aurkezteko baliatu du gaurko sarrera-hitzaldia. Zer dela-eta bere hitzaldiaren izenburua («zergatik ezkerra?»)? Bada, Mitxelenak bere ikerketetan adierazi bezala, ezker-muturra delako hainbat kontsonanteri dagokionez berreraiketarako kokagunerik zailena: «zailtasun horiek bertan diren irregulartasun ugarietatik datozelarik –adierazi du–, guztiz erakargarri bilakatzen dira aztertzailearentzat, irregularitateen azterketa baita aitzinamendu-bide nagusia hizkuntzen diakronian». Horren haritik, bada, aitzineuskara zaharrago eta sakonagoa aztertzeko proposamen bat aurkeztu du, «erroen eta hitzen ezker aldea bereziki miatuaz».

Euskararik zaharrena aztertzeko bide emankorra zabalik eta luzatzeko moduan dagoela uste du Arratzuko ikertzaileak. Berak planteatzen duen hurbilketa-eredua bateragarria da guztiz azken urteotan abiatutako fonologia edota morfologia berreraiketa lanekin. Bere esanetan, ikertu gabeko fenomeno eta aldaketak azaleratu direlarik, «ezinbestean lagunduko digute historiaurreko kronologia aberatsagoak eraikitzen».

Jose Antonio Arana Martija: «*Gabon kantak eta arkaismoen bestelako mintegiak*»

Arkaismoez eta Joseba Lakarraz mintzatu da Jose Antonio Arana Martija bere hitzaldian. Lehenik, Lakarraren ibilbide akademikoa gogora ekarri du: oinarrizko ikasketak Gernikan egin zituen, batxilergoa Derion eta Euskal Filologia ikasi zuen, Koldo Mitxelena irakasle zuelarik. Doktore lehenago, eta gero katedratiko bihurtu zela ere gogorarazi du.

Arana Martijaren esanetan, Lakarrak «lan oparoa eman digu hizkuntzalaritzaren arloan». Artean ikasle zela, argitara emandako lan batzuk aipatu ditu, eta horiek abiapuntutzat hartuta, arkaismoak, bilantzikoak eta Gabon Kantak izan ditu mintzagai euskaltzain emerituak. Izan ere, euskara arkaikoa ere Arana Martijaren lan-xedeetako bat izan da bere ibilbidean zehar, eta gainera, bide horretan, hainbat aldiz bat egin dute Lakarrak eta Arana Martijak berak. Gogoan du, esaterako, Lakarrak burututako lehendabiziko lanetako batean, «*Oharrak zenbait arkaismoz*» (1983), berak Marijesiei buruz egindako lana hartu zuela hizpide, beste hainbaten artean.

Arkaismoen ikerketan, gabon kantetan murgildu da bereziki Arana Martija, haien lexikoa eta egitura aztertzen buru-belarri, geure ondarearen altxorra hor ere gordetzen delarik. Bere esanetan, «euskalki guztietan galdu diren hitz zaharrok, arkaismo absolutuak deitzen dira. Arkaismo erlatiboak izaten dira euskalki batzuetan bizirik mantentzen direnak. Dena den, erudituek baztertzen dituzte, eta herria da horiek erabiltzen dituena. Ahoz gordetako mito eta kantuetan bizirik jarraitzen dute, eta erran zaharretan, hots, paremiologian». Horra euskara arkaikoari heltzeko beste aukera bat.

Ekitaldiaren amaieran, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoa dela adierazten duen diploma eta domina eman dizkio Joseba Lakarrari. Ondoren, Dorleta Alberdi, euskaltzain urgazle eta kazetari arratzuarrak Juan

Bautista Bilbao «Batsi» arratzuarraren *Hau mundu arrano hau* liburuko atal bat irakurri du.

Eskola-lagunak, auzokoak eta herrikideak beren-beregi Arratzuko koruan elkartuta, Alberto Lauzirika zuzendari zutela, kanta hauek abestu dituzte: *Maitia nun zira* eta *Mendian lar artean*. Azkenik, opariak eman dizkiote Joseba Lakarrari Josu Sabin Olano alkateak, Euskal Herriko Unibertsitateko Gasteizko Letren Fakultateak eta Fakultate horretako ikerketa-taldeak, lankide eta adiskideek.

Ekitaldia eguerdiko 13:00ean bukatu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Hazparnen, 2009ko ekainaren 26an

Andres Urrutia euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Adolfo Arejita,
Aurelia Arkotxa,
Miren Azkarate,
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Joseba Lakarra,
Emile Larre,
Andoni Sagarna,
Ana Toledo,
Patxi Uribarren,
Xarles Videgain eta
Patxi Zabaleta, euskaltzainak

Pello Telleria idazkariordea eta Jose Antonio Aduriz, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari; M. Lourdes Oñederrak, ahala Aurelia Arkotxari; Patxi Salaberrik, ahala Andres Iñigori; Pello Salaburuk, ahala Jean Haritschelharri; Ibon Sarasolak, ahala P. Salabururi; Joan Mari Torrealdaik, ahala A. Sagarnari; Patxi Uribarrenek, ahala Andres Urrutiari, egon ez den bitarterako; Adolfo Arejitak, ahala J. L. Lizundiari, egon ez den bitarterako; Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori, egon ez den bitarterako; Mikel Zalbidek, ahala A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 9,30ean hasi da Hazparneko Kultur Etxean, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Hasi aurrekoak

Batzarrerako jaso diren ahalak Idazkariak irakurri ondoan, Euskaltzainburuak batzarrak, gehienik ere, 13,15 arte iraunen duela jakinarazi du.

2. Aktari oharrak. Aktan aipatzen den Peru Abarkaren «nobela» ez baina *autua* hitza jartzeko eskatu du Ana

Toledok, Literatura Ikerketa batzordekoek darabilten bezala. Horrela egitea erabaki da.

Era berean, Andres Iñigok Nafarroako Gobernuak darabiltzan zenbait izenen eta Onomastika batzordeak erabakirikoen artean ageri diren «desadostasunak salatu»-ren ordez, «desadostasunak azaldu» jartzea eskatu du. Ontzat eman da.

Besterik gabe, akta onartu egin da.

3. Onomastika. Kanpoko leku-izenak ahoskatzeko irizpideak. Miren Lourdes Oñederrak egindako autozuzenketak eztabaidatu egin dira. Oro har, irizpideak ontzat eman dira, baina zalantza batzuk hobeki argitzea erabaki da, deklinabideena bereziki.

Hortaz, *g, j, v* (*Argentina*, *Versalles*) eta frantsesezko *eu* kasuak hurrengorako uztea erabaki da, Xarles Videgain, Jean Haritschelhar eta Patxi Goenagaren ahozko oharrei kasu eginik.

4. Hiztegi Batua. E letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta erabakitzea.

J. A. Adurizen ardurapean *ezker-aihen*-etik *ezuste*–rainoko hitzak, eztabaidatu eta onartu dira, E letrako oharrak amaitutzat emanik.

5. Esku artekoak

5.1. Kultura Ministerioaren eskaria

Madrileko Kultura Ministerioarengandik gutun bat jaso da, berak antolaturiko «Premio Nacional de Periodismo Cultural 2009»ko Sari Nagusirako mahaikidea eskatzen. Atzo Baionan bildu ondoren, Zuzendaritzak, horretarako, Jose Mari Iriondo euskaltzain urgazlea proposatzea erabaki zuen. Osokoak ontzat eman du proposamena.

5.2. University of Massachusetts-tik eskaria

Unibertsitate horretako antropologia-irakasle den Jacqueline Urla andreak, gutun baten bidez, *Conflicto Lingüístico en Euskadi* liburutiko irudi batzuk erabiltzeko baimena eskatu dio Euskaltzaindiari. Ikertzaile horren lana ezagututa, Akademiak baimen hori ematea erabaki du.

5.3. Uztaileko ospakizunak

Euskaltzaindiaren 90. urteurreneko aurtengo ospakizunen barruan, uztailaren 16 eta 17an Espainiako beste hizkuntza akademiak Euskaltzaindira etortzera

gonbidatzea erabaki du. Egun horietarako programa ere aurkeztu da, eginkizunak eta egitekoak gogoratuz. Azkenean Akademia guztien artean adierazpen bat egitea erabaki da, elkarrekiko lankidetza bultzatzeko. Elkarrekiko adierazpenarekin batera, oroigarri batzuk banatuko zaizkie akademiko guztiei. P. Zabaletak Okzitaniako eta Frantziako akademiak ere gonbidatzea proposatu du, baina, batetik, A. Urrutiak okzitaniarrekin –akademia batasunik ezagatik– leudekeen problemak azaldu ditu. Bestaldetik, B. Oihartzabalek Frantziako Akademiaren berri eman du, eta horretarako ezegokitasuna azalduz ere bai. Halere, Patxi Zabaleta Pariskoa ere gonbidatzearen alde agertu da. Euskaltzainburuak, ordea, horretarako, urrian aukera egokiagoa izan litekeela esan du.

5.4. Joanes Etxeberri egitasmoa

Euskaltzainburuak Euskararen Historia Soziala ikertzen eta prestatzen diharduen Joanes Etxeberri egitasmoaren jarraipen batzordekideen izenak eman ditu, Zuzendaritzak atzoko bileran onartuak, hots:

Kideak (ahotsa eta botoa dutenak):
- Euskaltzainburua
- Diruzaina
- Jagon Sailburua
- Iker Sailburua
- EHSko Zuzendari orokorra
- EHSko Iker-saioen zuzendaria

Teknikariak (ahotsa bai, baina botorik ez)
- Kudeatzailea
- EHSko bulegoburua

6. Azken ordukoak

6.1. Juri Zytsar ohorezko euskaltzainaren heriotza

Juri Zytsar errusiar hizkuntzalari eta ohorezko euskaltzaina 2009ko ekainaren 25ean hil da, 81 urte zituela. Euskararen ikerkuntzan eginiko lanengatik 1992ko otsailaren 1ean ohorezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak. Hilberritxostena X. Kintanak egitea proposatu du Zuzendaritzak, eta onartu da.

6.2. Robert Lafont okzitanista hil da

Era berean, Xarles Videgainek Robert Lafont okzitanista eta europar federalistaren heriotzaren berri eman du, ekainaren 24an hil zela argituz. Haren hurbilekoei doluminak bidaltzea erabaki da.

Alegriaren eskutik dator atal honetako bigarren lana: *Errepikapen lexikoen fenomenoa ahozko modalitatearen koherentzia sintaktikoaren ikuspegitik aztergai*.

Azterketa honetako corpusa, alegia datu enpirikoak, ahozko solas arruntetan jasotakoa da. Grabatzen ari zaienik ere ez dakite solas hauetako ekoizleek. Gure artean oso gutxi estudiatutako kontua da horrelako materiala, eta hemengo azterketa gaia, errepikapen lexikoa, alegia, oso da esanguratsua ahozkoaren eta bereziki euskarazko ahozkoaren ezaugarriak ezagutzeko.

Zabalak, berriz, *Kortesiaren azterketa euskarazko bi debatetan* lana aurkezten digu. Oraingoan ere ahozko testuak ditugu aztergai, baina kasu honetan debateak, testu formalak beraz, jendaurrekoak. Aurreko lanean ez bezala, debateetan, esaten denari eta esateko moduari arreta gehiago jartzea eskatzen da ahozko testu hauetan. Kortesia adierazteko formak bereziak dira hizkuntza bakoitzean, eta testu generoaren arabera ere alda daitezke. Lan honetan, irratian edota telebistan emandako debate batzuetatik abiatuz, gazteak eta adinekoak nolako kortesia baliabideak erabiltzen dituzten aztertzen da, eta garbi geratzen da oso baliabide ezberdinak direla batzuk eta besteak erabiltzen dituztenak.

Azken lanari *'Omen'en zalantzak argitu nahian* izenburua jarri dio bere egile den Zubeldia ikertzaileak. Partikula honen azterketan ez dago adostasunik eta lan honek ikusbide berriak dakartza *omen* osagaiaren izaera hobeto ezagutze aldera. Horretarako, orain arteko gramatika eta hiztegiek esandako gauza batzuk baztertu eta beste batzuk zehazten ditu ikertzaileak. Egungo semantika eta pragmatikako bereizketa nagusiak hartu ditu oinarri eta bidelagun horiek jorratzeko.

Euskarazko irakastereduen inguruan, ikerketa bultzatzea eta egin diren horietako zenbait ekarpen plazaratzea da liburu honen helburu nagusia. Eta hizkuntza zientzia asko leudeke inplikatuak hemen. Guk psikolinguistikatik, hizkuntzalaritzatik, soziolinguistikatik eta didaktikatik egindakoak bildu ditugu nagusiki. Lan hauek, jakina, egiten diren eta egin beharko liratekeen guztien artean adibide batzuk besterik ez dira. Halere, ez dugu uste oker gabiltzanik, egindako aukera euskal irakaskuntza ulertzeko eta hobetzeko esanguratsua dela diogunean.

Aurkezpena amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu euren babesarekin eta diru-laguntzarekin ikerketa hauek ahalbidetu dituzten erakundeei. Ministerio de Ciencia e Innovación delakoak *Bilingüismo y multilingüismo: adquisición, ense-*

ñanza y usos de las lenguas. Criterios explicativos del desarrollo lingüístico. (FFI2009-13956-C02-01, subprogama FILO) egitasmoa 2009-2012 aldian, *La lengua oral: adquisicion y uso en poblaciones bilingües y multilingües* (Hum2006-11862-C03-01/filo) egitasmoa 2006-2009 aldian, eta *La adquisición del lenguaje en situaciones de bilingüismo familiar y bilingüismo escolar* (BFF2003-05196) 2003-2006 aldian; Eusko Jaurlaritzak *Hizkuntzaren jabekuntza, prozesamendua eta erabilera. Euskara, elebitasuna eta eleaniztasuna* (IT-262-07) egitasmoa 2007-2009 aldian eta *Adaptación al euskara del nivel III del Inventario del Desarrollo de las Habilidades Comunicativas MacArthur-Bates* (PI2009-22) egitasmoa 2009-2011 aldian; Euskal Herriko Unibertsitateak (9/UPV 00033.130-13614/2001) *Euskararen jabekuntza eta irakaskuntza* egitasmoa 2001. urtetik aurrera. Laguntza horiek barik ezinezkoa izango zen hemen aurkezten diren ikerlanak aurrera ateratzea. Horiez gain, eskerrak eman nahi dizkiegu gure ikerketako subjektuak izan diren guztiei eta eurengana hurreratzen lagundu diguten guztiei, euren ezinbesteko laguntza musu truk izan da eta.

Euskal eredu elebidunak, murgilketa eta hizkuntzen irakaskuntza bateratua: kontzeptuen berrikusketa[1]

IDIAZABAL, Itziar
Euskal Herriko Unibertsitatea

MANTEROLA, Ibon[2]
Euskal Herriko Unibertsitatea

Jasotze data: 2009-10-26
Onartze data: 2009-11-26

[1] UPV/EHUko (9/UPV 00033.130-13614/2001), Eusko Jaurlaritzako (IT-262-07), eta MEC/MICINN eko (BFF2003-05196; HUM2006 - 11862; FFI 2009 – 13956) ikerketa laguntzei esker ari gara bideratzen egitasmo hau.

[2] Larringan eta Garcia Azkoaga lankideei gure eskerrik beroenak egindako zuzenketa eta oharrengatik. Akatsak gureak dira, jakina.

Artikulu honen helburua euskal irakasteredu elebidunen inguruan hausnarketa egin eta aurrera begira hizkuntzen irakaskuntza integraturako hainbat oinarri proposatzea da. Lau ardatz nagusiren bueltan antolatzen da hausnarketa hau: lehen bi ardatzetan euskal irakaskuntza ereduak abian jartzerakoan eta ondorengo ebaluazioetan irizpide kuantitatiboek izan duten garrantzia azaltzen da, irizpideon indar-guneak eta ahuluneak nabarmenduz. Hirugarren ardatzak murgilketa bidezko irakaskuntzaren oinarri psikolinguistikoak eztabaidatzen ditu. Hizkuntzen didaktikara jotzen da laugarren ardatzean, esparru honetatik egiten diren hainbat gogoeten eta proposatzen diren baliabide zehatzen baliagarritasuna nabarmenduz. Hizkuntzen irakaskuntza integraturako hainbat oinarri proposatzen dira artikuluaren bukaeran, ikasle elebidunen euskarazko eta gaztelaniazko 5 eta 8 urte arteko garapena erakusten duen ikerketa bateko emaitzetatik abiatuta.

Hitz-gakoak: Irakasteredu elebidunak, murgilketa, hizkuntzen didaktika bateratua, euskararen disziplinarizazioa, testu-generoa.

En este artículo se reflexiona acerca de los modelos vascos de enseñanza bilingüe y se proponen bases para una enseñanza integrada de lenguas. Esta reflexión pivota en torno a cuatro ejes: los dos primeros tratan sobre la importancia que han tenido los criterios cuantitativos tanto en la puesta en marcha de los modelos bilingües como en las sucesivas evaluaciones. Se destacan las virtudes y las carencias de estos criterios. El tercer eje analiza los principios psicolingüísticos de la enseñanza por inmersión. Los recursos y las reflexiones que parten del ámbito de la didáctica de las lenguas centran el cuarto eje del artículo. El trabajo concluye con una propuesta de bases para la enseñanza integrada de lenguas, que parte de una investigación empírica sobre el desarrollo del euskera y del castellano en alumnos bilingües de 5 y 8 años.

Palabras clave: Modelos vascos de enseñanza bilingüe, inmersión, enseñanza integrada de lenguas, disciplinarización del euskera, géneros de texto.

Cet article est une réflexion sur les modèles basques d'enseignement bilingue et propose des bases pour un enseignement intégré des langues. Cette réflexion s'articule autour de quatre axes: les deux premiers traitent de l'importance qu'ont eue les critères quantitatifs aussi bien dans la mise en œuvre des modèles bilingues que dans les évaluations successives. Ils soulignent les atouts et les faiblesses de ces critères. Le troisième axe analyse les principes psycholinguistiques de l'enseignement par immersion. Les ressources et les réflexions qui partent du domaine de la didactique des langues constituent le quatrième axe de l'article. Le travail conclut par une proposition de bases pour l'enseignement intégré des langues, qui part d'une étude empirique sur le développement du basque et de l'espagnol chez les élèves bilingues de 5 et 8 ans.

Mots-clés: Les modèles basques d'enseignement bilingue, immersion, enseignement intégré des langues, disciplinarisation du basque, genre textuel.

In this article a reflection is made on the Basque bilingual teaching models and proposes a basis for an intergrated teaching of languages. This contemplation focuses on four central points: the first two deal with the role played by quantitative criteria when implementing the bilingual models as well as when evaluating them in successive times. Special mention is made of the strengths and weaknesses of these criteria. The third point examines the psycholinguistic principles of immersion education. The resources and reflection that are based on didactics in the field of languages is the fourth point of the article. The paper concludes with a proposed basis for the integrated teaching of languages that is part of empirical research on the development of the Basque language and of Spanish in 5 and 8 year old bilingual students.

Keywords: Basque models of bilingual teaching, immersion, integrated teaching of languages, disciplinarisation of basque, texte genre.

Sarrera

Euskal Herrian azken 30 urteetan garatu diren irakasteredu elebidunen inguruan aurrerapauso bat emateko asmoarekin lau ardatzen inguruan egingo dugu gogoeta. Hasteko, euskal irakasteredu elebidunen zedarritze eta azterketan irizpide kuantitatiboek izan duten lehentasuna eta garrantzia erakutsi nahi dugu; irakaskuntza elebiduna ezartzea euskal eskola-sistemaren eraberritze edo erreforma sakonena izan da eta ezinbestekoa da datuen ezagutza. Nolanahi ere, aurrera egiteko, benetan irakasten diren hizkuntzak, eta bereziki euskara, erabiltzeko gaitasuna zenbateraino eta nola lortzen den erakusteko, ikerketa kualitatiboen beharra handia da. Bigarren, eta berriz ere irizpide kuantitatiboak nagusi, irakasteredu elebidunak legeztatu orduko abiatu, eta gerora garatu diren ebaluazio programen aipamen laburra egingo dugu, eta bide batez haien garrantzia azpimarratu. Euskaraz irakasteak, murgilketa ereduen hedapenak, hizkuntzen irakaskuntza bateratuak, eskatzen dituen erabaki didaktikoen atzean bada gogoeta psikolinguistikorik; hizkuntzaren jabekuntza eta funtzionamendua ulertzeko ikuspuntua garrantzitsua da erabaki horiek koherenteak izango badira. Hirugarren puntuko jardunak gogoeta horien nondik norakoak aztertuko ditu, labur bederen. Laugarren, hizkuntzen didaktikatik helduko diogu gaiari. Finkatzen ari den jakintza arloa izanik (Dolz et al, prentsan), hizkuntzen didaktikatik gero eta kontzeptu teoriko eta baliabide zehatzagoak eskaintzen dira ez bakarrik hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak hobeto ulertzeko, baita ikasleen hizkuntza trebetasunak modu eraginkorrean garatzeko ere.

Helburu aurrerakoiak garbi izatea ezinbestekoa da: euskaraz eta erdaraz (gaztelaniaz, frantsesez nahiz ingelesez) hitz eginez atera behar luke ikasleak eskolatik. Emaitza hori lortzeko askotariko bitartekoak urtetik urtera garatzen joan dira, arduradun politiko eta gizartearen eragina bitarteko, eta 1. puntuan ikusiko den bezala emaitza nabarmenak lortu dira Euskal Herrian. Halere, lehen esan bezala, gogoeta eta baliabide didaktiko zehatzetan pausatuko gara lan honetan. Aztergaien artean: hizkuntzarteko elkarreragina, irakaskuntza-

edukien diziplinarizazioa, testu-generoen bitartekotza eta sekuentzia didaktikoak. Azkenik, eskuartean dugun hizkuntza-jabekuntza ikerketa jarraitu baten zenbait emaitza aurkeztuko dugu. Euskaraz nahiz gaztelaniaz, H1 izan nahiz H2 izan, Lehen Hezkuntzan zehar lortzen den garapenaren adibide batzuk aurkeztuko ditugu, haien bitartez hizkuntzen irakaskuntza integraturako irizpide zehatzak eman daitezkeela erakuste aldera. Bukatzeko zenbait ondorio ateratzen ahaleginduko gara.

1. Euskal irakastereduen zedarritze eta azterketan irizpide kuantitatiboen garrantzia

Euskal irakastereduek historia laburra dute. Hastapenak joan den mendean, gerra aurrean, Bizkaiko Diputazioaren auzo eskolen ekimenaren inguruan, Nafarroako eta Donostiako zenbait elkarte eta familia euskaltzaleen eskutik, eta bereziki Elbira Zipitriak irudikatzen duen ikastolaren inguruan ikusi behar dira (Intxausti, 1990). Orduan hasi zen lehenengo aldiz euskara eskola-hizkuntza izaten. Euskara beste edozein hizkuntza eskolaturen modura ikasgaiak landu eta eskuratzeko bitartekoa bilakatu zen lehenengo aldiz ikastolen eskutik. Ordura arte euskarak eskolan inoiz lekurik izan bazuen ikasgai gisa izango zuen seminario batzuetan, edota katixima irakasteko elizaren inguruko ekimenetan (Intxausti, ibid.). Nolanahi ere, euskara ez zen eskolako hizkuntza "arrunta" izan ikastolak sortu arte. Hirurogei eta hamarretan ikastoletako irizpide nagusia, alboan gaztelaniaz egiten zen eskolaren antzera edo parean, dena, gaztelaniarenak ez beste ordu guztiak, euskaraz egitea zen. Geroago Kanadako oihartzunen ondorioz murgilketa deituko zena (etxetik erdaldunak ere euskaraz eskolatzea) ikastoletan modu berezian gauzatu zen. Murgilketarako giro euskalduna irakasleen eta ikasle euskaldunen bitartez sortzen ahalegintzen ziren. Zenbat eta ikasle euskaldunen proportzioa handiagoa, orduan eta hobeto ikasten zuten euskaraz etxetik erdaldun ziren haurrek ere. Lan idatzietan apenas agertzen den baldintza edo printzipio honen berri, baina garai hartako irakasleen artean nahikoa zabaldua zegoen; ehu-

neko jakin bat (%30?) baino gehiago erdalduna baldin bazen zailtasunak gehituko ziren ustea eta esperientzia.

Etxetik euskaldun direnak erdaldunekin nahastean euskara galtzen denaren irudipena, bestalde, nahikoa zabaldua dago. Oinarri honetatik sortu izan dira gutxi edo gehiago garatu izan diren D eredu ezberdinak ere. D eredu naturala deitutakoa, esate baterako, etxetik euskaldunak alde batetik eta erdaldunak bestetik bildu eta talde berezituak egitea, nahikoa ohitura arrunta izan da hainbat ikastoletan.

Zenbatekoek, kontzeptu kuantitatiboek eragin handia izan dute irakasteredu elebidunak zedarritu eta aztertzeko orduan: zenbateraino da euskalduna testuingurua (euskaldunen portzentajeak)? Zenbat ordu, zenbat gai euskaraz? Zenbat irakasle euskaldun? Zenbat ikaslek gainditzen dute espero den euskara maila?

Ofizialki, alegia, Espainiako Gobernuak Konstituzio berria eta ondorengo Autonomia Estatutua hitzartu ondoren, euskara ere hizkuntza ofizialtzat hartu zuen, eta hala euskara eskolako hizkuntza ofiziala bihurtu zen. Espainiako Hezkuntza Ministerioak 1979 urtean argitaratu zen jatorrizko diseinuan lau irakasteredu ageri dira (Ministerio de Educación y Ciencia, 1979): A, B, C eta D. Ikasle euskaldunen portzentajea eta ingurune soziolinguistikoan euskaldunen portzentajea izan ziren irizpide nagusiak jatorrizko ereduen diseinuan: A eredua etxetik erdaldun eta inguru erdalduneko ikasleentzat; B eta C etxean eta inguruan erdaldun edo erdi-erdaldun edo erdi-euskaldunentzat; eta D etxetik euskaldun ziren haurrentzat. Euskarak eskolan izan behar zuen lekua ere, gehien bat, era kuantitatiboan bideratzen zen: A ereduan, ehuneko txiki bat euskara ikasgaiarentzat (%10 edo); erdibideko aukera (%50 edo) B eta C ereduetan, euskara eta gai batzuk euskaraz; eta ia guztia (%90 edo) D ereduan, gaztelania izan ezik, dena euskaraz egitea proposatzen baitzen. Berez, murgilketa (zatikako murgilketa) ereduak B eta C ziren. Hauetan proposatzen zen, partez behintzat, euskaraz irakastea etxetik hizkuntza hau (ondo) jakin ez arren.

Bazen, halere, beste irizpide nagusi bat kuantitatiboa ez zena. Etxeko eta inguruko euskararen presentzia edozein izanik ere, gurasoen aukera zen eta da

irizpide nagusia eredu batean edo bestean haurrak eskolatzeko. Baldintza nagusi honez gain, Euskal Herriko murgilketa ereduek beste zenbait baldintza garrantzitsu ere betetzen zituzten, nolabait munduan zehar, eta derrigorrez egin izan den eta egiten den submertsio deituriko irakaskuntzarengandik garbi bereizten duena. Labur bederen gogoratu behar da ikaslearen H1a ez dela gaitzesten edo mespretxatzen. Helburua elebidun bihurtzea da, ez norberaren hizkuntza ordezkatzea. Halaber, irakaslea elebiduna da, beraz, ikaslearen H1a ere ezagutzen du. Hau dela eta, haurrak arroztasuna gaindi dezake, batetik, eta irakaslearengan eredu elebiduna izango du, bestetik. Azkenik, ikasleak H2an egiten dituen aurrerapenak aztertu eta txalotu egiten dira; aldiz, lortu ez dena, oraindik ikasi ez dena da submertsioak azpimarratzen duena.

Eusko Jaurlaritzak, 1983ko elebitasun dekretuan, hiru eredu legeztatu zituen: A, B eta D. Eta aukera horiek eskaini ditu eskola publikoetan ahal izan den heinean eskaerari erantzun ahal izateko. Zalbidek (1998) ondo azaltzen du eskolaren euskalduntze prozesuak nolako ibilbidea egin duen, hartarako behar izan diren baliabideak maila guztietan gauzatuz. Euskal eskolak izan duen eraldatze prozesu sakon honen datuak, eredu ezberdinetan eskolatu diren ikasleak, eredu batera eta bestera egokitu/bermoldatu diren eskolak, irakasle euskaldunen (elebidunen, agiridunen) kopuru geroz eta garatuagoak, ... behin eta berriro aztertu dira xehetasun handiarekin (Zalbide,1998; Etxeberria, 2005; Gardner, 2000, 2004; Zalbide & Cenoz, 2009...).

Azken urtean, eta Eusko Jaurlaritzak abian izan duen ereduen birmoldaketa egitasmoaren inguruan ere, askotan D ereduaren alde eta A ereduaren kontra egiteko (edo alderantziz) irizpide kuantitatiboak eragin handia izan dute. Emaitzarik hoberenak D ereduak ematen baditu, zergatik ez dena D eredu bilakatu? Irakasleriaren %80 euskaldundu baldin bada, zergatik ez %100a lortu? Beste lekuetan (Katalunian esaterako) dena katalanez egiten bada, zergatik guk ez egin dena euskaraz? Dena edo ezer ez, aspaldiko kantuaren modura.

2. Ereduen ebaluaketa

Nolanahi ere, zenbakietan irudikatzen da ebaluaketa eta hori oso garrantzitsua izan da euskal irakastereduen garapenerako. EIFE programei (1986, 1989, 1990) eta hein handi batean haietako emaitzei esker, irakastereduak onartuak eta eredugarriak bihurtu dira euskaltzale nahiz euskararekiko aparteko atxikimenik ez duenarentzat. Edozein eredu dela ere, ebaluaketa hauen ondorio nagusi bat, lehentxeago edo geroxeago, (EAEn) eskolaumeek gaztelania-maila egokia arazorik gabe lortzen dutela erakustea litzateke. Mamu hori (ia dena euskaraz egiten bada erdaraz ikasiko ez denaren beldurra) baztertuta, euskarazko emaitzak ageri dira lehian ereduen artean, eta nahikoa argi geratzen da D eredua dela maila hoberenak lortzen dituena. Halere, D ereduko eskola guztietan ez dira maila berdinak lortzen, ez eta B eredukoetan ere. A ereduan, berriz, EAEn behinik behin, badirudi euskara ez dela inolako lehentasuna, eta ondorioz hizkuntza honetan lortzen diren emaitzak eskasak dira.

Ñabardurak ñabardura, eta euskarazko emaitzak gora-behera, 2000 urtetik aurrera hainbat nazioarteko erakunderen eraginez (OCDE erakundeak bultzatutako PISA programak, Europar Kontseiluko Europako Hizkuntzen Irakaskuntza eta Ebaluaziorako Erreferentzi Markoa, TIMSS programak,...) kanpo ebaluaketek geroz eta garrantzia handiagoa dute hezkuntzan eskolaren errendimenduak neurtzen, eta Euskal Herrian bezala inguruko herrialde guztietan ere. Gurean, eta bereziki EAEn, eragin aparta dutela esan behar, nahiz eta, berez, ez euskara gaitasuna ez elebitasun maila neurtzeko pentsatutako ekimenak ez izan. Oro har, PISA ebaluaketei esker frogatu ahal izan da hizkuntzan (irakurketa-probak euskaraz edo gaztelaniaz egin zitezkeen PISA ebaluaketan), matematiketan nahiz zientzietan, estatu espainiarreko eta beste hainbat hezkuntza sistema elebakarreko ikasleen antzera (apur bat hobeto ere bai batzuetan) erantzuten dutela ikasleek (ikus adibidez, ISEI-IVEI, 2008). Irakaskuntza elebidunak, beraz, eskola elebakarrak bezain errendimendu onak edo hobeak lortzen ditu. Horrez gain, jakina, elebidunak bi hizkuntza dakizki, eta hirugarrena ikasteko aukera handiagoak ditu (Cenoz, 1994; Cenoz & Hoffmann, 2003).

Euskara mailan ez dira nahi edo uste bezain maila onak lortu: azken ebaluaketetan ageri denez (ikus ISEI-IVEI: B2, 2005; B1, 2007), D ereduan ere ez da %100-ik lortzen. Ereduak badu garrantzia baina, nolanahi ere, ereduak besterik gabe ez du ziurtatzen euskaraz ondo ikastea. Badirudi, nolabait, eskolaren kalitate mailarekin lotzen dela lortzen den euskara maila. Izan ere, eskolatik kanpoko faktoreek (etxeko hizkuntza, testuinguru soziolinguistikoa, norbanakoaren gaitasunak,...), nola ez, eragin garbia duten arren, baldintza (ia) berdinetan emaitza ezberdinak ageri dira.

Emaitzen datu kuantitatibo garrantzitsuez gain, ebaluaketa hauek beste zerbait uzten dute agerian: irakaskuntza elebiduna eta murgilketa gauzatzeko modu ezberdinak daudela. Bestela esanda, murgilketako gela guztietan ez dela hizkuntza-objektu berbera irakasten, eta irakaskuntzarako sortzen diren bitarteko didaktikoak ere ez direla berdinak leku guztietan. Irakaskuntza-modu ezberdin horiek zertan gauzatzen diren, edo zenbaterainoko eragina duten, ordea, gutxi dakigu.

Izan ere, eta joera kuantitatiboak jarraituz ondorioztatu izan dena, "zenbat eta intentsiboagoa izan eredua (D alegia), orduan eta hobeak direla emaitzak" (Etxeberria (2005, 220), ez da beti egia osoa inondik inora. Gure uste apalean, euskarazko irakaskuntza, euskararen didaktika, eta bereziki murgilketa bidezko irakaskuntza, ez da nahikoa aztertu. *Zenbat eta (ordu) gehiago eta hobeto* baina irizpide zehatzagorik beharko genuke. Adibidez, hizkuntzaren zein alderdi dira pertinenteenak euskararen ikaskuntza bermatzeko? Eta alderdi horiek berdinak al dira euskara H1 zein H2 izan? Gutxi dakigu hizkuntzaren jabekuntza prozesuaz, eta ez dakigu zehazki zein den irakaskuntzaren eragina hizkuntzaren (euskararen) eskuratze prozesuan. Izan ere, eskolan denbora (ordu kopuru) berean oso gauza ezberdinak egin daitezke, egiten dira, eta egin beharra dago, herritar euskaldun eleanitzak lortuko badira.

3. Murgilketa ereduen oinarri psikolinguistikoak eta mintzairaren kontzeptua

Iritzi arrunt batean oinarritzen da murgilketaren kontzeptua. Haurrek beren giroan egiten den/zaien hizkuntza ikasten dute txikitan, modu inkontzientean, ikasten ari diren hizkuntzari(/ei) ez eta eginkizunari (hizketan ikasteari, alegia) arretarik jarri gabe. Eskolak haurrarena ez den hizkuntza batean behar den giro hori sortzen badu, batez ere haurra gaztea den bitartean, beste hizkuntza hori ikasiko du konturatu gabe.

Maila teorikoan ere, gauzak sinpleak balira bezala jokatu da: hizkuntzaz jabetzea gizakiak duen berezko gaitasunaren heltze hutsa besterik ez bada, eta gainera zenbat eta gazteago hobeto ikasten baldin badira hizkuntzak, ez legoke hainbesteko arazorik giro aproposa sortuz, txikitatik beste hizkuntza bat irakasteko:

> *Immersion education is based on the idea that a first language is acquired relatively subconsciously. Children are unaware that they are learning a language in the home. Immersion attempts to replicate this process in the early years of schooling (...) It is the task at hand that is central, not conscious language learning* (Baker, 2002, 361).

Psikolinguistikaren esparruan, haur elebidunen inguruko ikerketak joan den mendeko hasieran hasi ziren garatzen familia elebidun batzuetako haurren jarraipenezko azterketa famatuen eskutik (Ronjat, Leopold eta beste ikerlarien lanen laburpen on bat McLaughlin (1984) egilearen liburuan aurki dezakegu). Psikolinguistikan, eta aztergaia beti ere gizabanakoaren gaitasun indibidualetan oinarrituz, asko aztertu da haur elebakar nahiz elebidunaren hizkuntza jabekuntza goiztiarraren inguruan, eta garbi geratu da baldintza egokietan, nagusiki familia elebidun edo eleanitzetan, haurrak 2, 3 edo hizkuntza gehiago ikas ditzakeela elebakarrak berea ikasten duen denbora bertsuan eta emaitza berdinekin (Meisel, 1990, 1994, 2001, 2004). Euskaraz ere ongi frogatua dago gaitasun hori (Barreña, 1995; 2001; Ezeizabarrena 1996; Almgren, 2000).

Egia da, gizarte elebidun eta eleanitzaren baldintzak eta ikerketa psikolinguistikoetako familietako baldintzak ez direla berdinak. Munduan, bestalde, aspalditik jardun da eskola (dagokion agintearen eraginez) ikasleen etxekoa ez den hizkuntzan eskolatzen, beste hizkuntza berri (nagusi) bat/batzuk irakasten. Kolonizazio zahar eta berrietatik hasi eta immigrazio prozesuek eragindako eskolatze ekimen ezberdin gehienetan, eskolak ikasleentzat etxekoa ez den hizkuntza/k irakatsi izan ohi du/ditu. Ekimen horiek, jakina, batez ere bigarren hizkuntza hori irakastea dute helburu, eta gutxitan izan dute gogoan ikasle horien elebidun edo eleanitz bihurtzeko aukera; hori dela eta eskolako elebitasunaren inguruko teorizazioa eta ikerketak baino bigarren hizkuntzaren ikaste mailak eta haien ebaluazio moduak garatu izan dira nagusiki.

Nolanahi ere, eta maila apalagoan bederen, joan den mendeko garai bertsuan hasi ziren garatzen ikerketak bereziki eskolaren bitartez elebidun bihurtzen diren ikasleen emaitzak aztertuz. Adibide on bat Genevako Nazioarteko Hezkuntza Bulegoak, 1928an, Luxenburgon antolatutako Elebitasunari buruzko I kongresua da (Ries et al. 1932). Bertan, elebitasuna arazo iturri bezala aurkezten da, eta adibide esanguratsuenetakoa Ingalaterran Galestar haurrek ingelesa gaizki ikasten zutela eta eskolan emaitza txarrak zituztela adierazten duen lana da (ibid.).

Eskolako elebitasuna arazo bezala irudikatzetik aukera bezala ikustera heltzeko Kanadako ikerketak izango dira aitzindari. Genesse (1983, 1987) edo Cummins (1979, 1983, 2000...) eta beste autore askoren lanak ikustea besterik ez dago. Adibidez, Cummins (1983) egileak, St Lambert esperimentu arrakastatsuaz (Lambert & Tucker, 1972) gain, beste hainbat eskola eta herrialdetako adibideak aurkezten ditu, batzuetan emaitza onak eta besteetan ez hain onak agertzen direlarik. Hori guztia kontuan izanik, elebidun arrakastatsuaren sekretua, alegia, lehen hizkuntzan zein bigarrenean, zein eskolako beste ikasgaietan emaitza onak lortzea, zertan datzan azaltzen ahalegindu da, eta xede horrekin zenbait azalpen edo hipotesi psikolinguistiko eskaini ditu autore honek.

Hasteko, garapen interdependientea bezala ezagutzen den hatsarrea proposatzen du. H1en eta H2ren arteko zenbait trebetasunetan elkar menpekotasuna

gertatzen dela adieraziko du. Bereziki esanguratsua irakurketa/idazketa trebetasuna litzateke. H1ean irakurtzeko gaitasuna lortzeak H2n bidea asko errazten du: "*To the extent that instruction in Lx is effective in promoting proficiency in Lx, transfer of this proficiency to Ly will occur provided there is adequate exposure to Ly (either in school or environment) and adequate motivation to learn Ly*" (Cummins, 1981; Cummins 2000tik (38. orrian) jasoa).

Baina zerk ahalbidetzen du x hizkuntzatik y hizkuntzara hizkuntza trebetasunak mailegatzea? Cumminsek iradoki zuen hiztun elebidunengan badagoela bi hizkuntzen jakintzatik haratago dagoen sakoneko edo azpiko gaitasun komun bat, "*common underlying proficiency*" (CUP) delakoa, bi hizkuntzentzat komunak liratekeen gaitasun kognitiboz eta akademikoz osatua. Hau horrela, hizkuntza bakoitzaren ezaugarriak azalekoak lirateke, eta hauen azpian legoke, berriz, sakoneko gaitasun komun hori.

Cumminsen ustez, idazketa-irakurketa gaitasunak, kontzientzia fonologikoa eta ahozko ekoizpenaren zenbait alderdi pragmatiko (Cummins, 1979/1983) hizkuntzen arteko interdependentziaren lekuko lirateke.

Murgilketa edo bigarren hizkuntza bidezko irakaskuntzari lotutako beste auzi bati ere heldu zion Cumminsek: nola azaldu hezkuntza elebidun programa batzuetan ikasleek emaitza onak lortzea eta beste programa batzuetan emaitza ez hain onak lortzea? Cumminsek (ibid.) "*Threshold Hypothesis*" edo gutxienezko hizkuntza gaitasunen atalasearen hipotesia proposatu zuen galdera honi erantzuteko asmoz. Cavallik (2005) hipotesi honen inguruan dioenez, elebitasuna ez da, berez eta modu absolutuan, hezkuntza elebidunaren arrakasta nahiz porrota azaltzeko faktorea. Aitzitik, elebitasunaren ondorio kognitiboak ikasleak hizkuntzetan lortzen duen gaitasun mailaren menpe leudeke. Gaitasun-maila jakin batetik behera, elebitasunak ondorio kognitibo negatiboak izan litzake. Gutxieneko maila honetatik gorako maila batean, baina goragoko beste maila batera iritsi gabe, elebitasunak ez leukake ondorio zehatzik. Azkenik, maila jakin batetik gora, elebitasunak ondorio kognitibo positiboak leuzkake, eta elebitasun gehitzailea ekarriko luke, alegia, ikasleak

lehen zein bigarren hizkuntza egoki garatzea eta maila akademikoan ere elebakarrak baino emaitza hobeak lortzea.

Cumminsen hipotesiek arrakasta handia izan dute, eta irakaskuntza elebidunaren eta murgilketa ereduen garapenean oso emankorrak gertatu dira nahiz eta, psikolinguistikan ohikoa den bezala, izaera indibiduala duten hipotesiak diren, alegia, norbanakoaren hizkuntza garapen prozesutik begiratzen diren nagusiki. Bestela esanda, norbanakoaren inguruak (dela irakasleak edo eskolak, dela eskolaz kanpoko inguruak) hizkuntzaren garapenean daukan papera bigarren mailan geratzen da.

Hala ere, Cumminsen ekarpena, eta bereziki aipatu elkarmenpekotasunaren hipotesia, emankorra iruditzen zaigu. Emankortasuna ez dator CUP edo sakoneko gaitasun komunaren proposamena baliagarritzat daukagulako, baizik eta hizkuntza batean, ez derrigorrez H1ean, egiten diren lorpenak, garatzen diren trebetasunak, beste hizkuntzan eragina izatea (beste hizkuntzara mailegatzea) oso intuizio zentzuduna izateaz gain, frogatu ere sarri frogatu izan delako.

Kontua da, aspalditik "salatu" izan diren maileguak, hizkuntza ukipen egoeretan, eta beraz, elebidunetan edo H2ko ikasleengan (Corder (1975) lekuko), fonetika/fonologia, hiztegia eta morfosintaxia arlora mugatu izan direla, eta oro har, arbuiagarriak bezala ikusi izan direla. Hainbesteko arazoa zen hizkuntza arteko eragina (interferentziak deitzen ziren) non H2ren ikaskuntza H1etik guztiz aparte egitea gomendatzen zen. Ahal izanez gero, ordu ezberdinak ez ezik, irakasleak ere ezberdinak izatea gomendatzen zen, itzulpenak saihestu beharreko zerbait ziren,...; nolabait hizkuntza bakoitza bere aldetik eta inolako ukipenik gabe lantzea zen garai bateko H2ren irakaskuntzarako gomendiorik garrantzitsuena. Jakina, aipatutako arloak (fonetika/fonologia, hiztegia eta morfosintaxia) hizkuntza bakoitzak bereak ditu, eta ikasi beharrekoak dira, baina hizkuntzaren erabileraz jabetzea ez da mugatzen arlo horietara. Bestela esanda, arlo horiek testu generoen eta diskurtso moten moldetatik pasatzen ez badira (edo moldeetan itsasten ez badira) ez dute hizkuntzaren erabilerarako apenas balio (Larringan, liburu honetan bertan; Bronckart, 1996/2004, 2007).

Beraz, interdependentziaren hipotesia baliagarritzat hartuta ere, uste dugu elebitasunaren garapenean hizkuntzen arteko eraginak (transferrak) aztertzerakoan ezinbestekoa dela diskurtso eta testu maila kontuan izanik egitea. Bestela esanda: H2ren ikaskuntza prozesuen ikerketan mailegu edota transfer kontuak berrikusi beharra dago, baina ez forma edo azter-unitate isolatu batzuetara soilik mugatuz (ergatiboa bai edo ez euskara H2 dutenengan, adibidez). Hizkuntzaren erabileraren berri modu osoago, zehatzago eta egokiagoan ematen duten testua edo diskurtsoa bezalako azter unitateak ardaztzat hartu beharra dago.

Auzi hau erabakitzeko ikerketak derrigorrezkoak dira. Guk geuk (Idiazabal, 2000; Idiazabal & Larringan, 1997, 2004) ikusi genuen nola eskolan euskaraz landutako zenbait gaitasun diskurtsibo gaztelaniara mailegatzen ziren, nahiz eta azken hizkuntza honetan landu gabeko gaitasunak izan. Ikasle elebidun talde bati argudiozko testuak idazten irakatsi zitzaien euskaraz; gaztelaniaz horrelakorik irakatsi ez arren, argudiozko testuen hainbat trebetasun, bereziki diskurtso mailakoak, lortuak zituztela erakutsi zuten antzeko testuak, baina gaztelaniaz, idazteko eskatu zitzaienean.

Cumminsen atalase mailaren hipotesia ere zentzuzkoa da oso. Elebidunek, gutxienez hizkuntza batean, elebakarrak berean duten maila ziurtatu behar dute, baina jakina, hizkuntza maila zertan oinarrituz erabakitzen den jakin behar da. Hemen ere, irakaskuntzan ohikoa den gramatikak hizkuntzaren sistemari buruz informatzen gaituen arren, bere baitan ez du hizkuntza baten erabileraren maila esanguratsurik zedarritzen. Derrigorrezkoa da hizkuntzaren testu-mailako funtzionamendua kontuan hartzea hizkuntza bere osotasunean, alegia, erabiltzeko moduan, ikasi/irakatsiko bada.

Joan den mendean Vygotski (1934/1997), errusiar psikologoak proposamen psikolinguistiko oso bestelakoa egin zuen. Mintzaira norbanako bakoitzean gauzatzen bada ere, ezin da prozesu indibidual bezala irudikatu; izaera soziala du, historikoki gauzatzen dena, elkarreraginean ikasten da. Eta irakats-instantziek, tartean eskolak, eragin handia dute mintzairaren garapenean, bereziki idatziaren eskurapena tarteko. Beste alde batetik, eta hau litzateke

hipotesi psikolinguistikoa, mintzairak gizakiaren garapen psikologikoan, pentsamenduaren eraikuntzan, eragin zuzena du. Joan den mende erditik aurrera eta oraindik ere Psikolinguistikan nagusi diren korronte kognitibistek, jabekuntza prozesu indibiduala bezala irudikatzen dute, eta eragin sozialaren zentralitatea ukatzen (edo kontuan hartzen ez) badute ere, geroz eta nabarmenagoa da Vygotskiren hipotesiaren pertinentzia eta logika. Gizarteratze prozesuekin lotu behar da mintzairaren eskuratze garapena. Mintzaira prozesu historiko-soziala da eta diskurtso mailan gauzatzen da. "Ez dago mintzairara zuzenean iristerik, testutik eta diskurtsotik pasatu barik" (Larringan, liburu honetan bertan 12. or). Hizkuntzaren erabilera testu-moldeek edo generoek irudikatzen dute egokiago, hizkuntzalaritza formalak edo gramatikak erabilitako esaldiak edo perpausak baino. Eta bestalde, mintzairaren gauzatze hauek gizakiaren (gizartearen?) mintza-egintzaren fruitu dira. Hizkuntza mintza-praktika da eta ez norbanakoaren adimenaren gaitasun baten heltze prozesua, nahiz eta, jakina, gizakiak gaitasun mental horiek, biologikoak nahi bada, badituela badakigun.

Gogoeta ildo hau Bronckart eta bere taldearen (Bronckart, 1996/2004, 2007; Dolz, Pasquier & Bronckart, 1993) Interakzionismo Sozio Diskurtsiboan (aurrerantzean ISD) oinarritzen da, eta gure ustez, murgilketaren arrakasta edo abilidadeak azaltzeko guztiz emankorra iruditzen zaigu. Liburu honetan bertan, Larringanek eskaintzen digu ISDaren azterketa, eta testua eta testu-generoa hizkuntzaren didaktikarako baliabide bezala arakatzen ditu bertan.

Laburbilduz, psikolinguistikan sar ditzakegun ikerketek familia elebidun edo eleanitzetako haur elebidun edo eleanitz guztiz arrakastatsuak erakutsi izan ditu, munduko hainbat lekutan bezala hemen ere. Eskola bitarteko sortu diren elebiduntze- prozesuak irakurketa ezberdinagoak izan dituzte. Elebitasuna arazo bezala ikustetik aukera eta abantaila izatera heldu da, eta arrakastaren baldintzak eskolaren eraginarekin uztartzeko psikolinguistikoak dei ditzakegun zenbait hipotesi erabili da. Cumminsen elkarmenpekotasunaren hipotesia litzateke horietako bat. Alegia, x hizkuntzan ikasten diren trebetasunak y hizkuntzara transferitzen edo mailegatzen dira. Bestalde, elebitasuna eta garapen kognitiboa edo eskola errendimenduetako arrakasta lotzeko ere

beste hipotesi garrantzitsu bat ekarri digu Cumminsek. "*Threshold Hypothesis*" edo atalaseen hipotesiaren arabera, elebidunak bere hizkuntzetako batean behintzat elebakarrak berean duen maila (oinarrizko atalasea) lortu behar du atzerapenik ez izateko; bi hizkuntzetan maila egokia lortuz gero (atalase gorena) hizkuntza mailako aurrerapenaz gain bestelako ezagutza eta errendimenduetan ere abantailak izango ditu elebidunak. Bi hipotesiak izango dira oso emankorrak irakaskuntza elebiduna eta murgilketaren kontzeptualizaziorako. Baina hipotesi hauek frogatu egin behar dira eta horretarako ohiko gramatikan oinarritutako lanek baino mintzairaren ikusmira sozio-diskurtsiboak askoz aukera gehiago eskaintzen dizkigu. Gure ustez, batetik, mintzairaren azterketa sakonagoa behar da hizkuntza edukiak zer eta nolakoak diren ulertzeko, eta haiek modu eraginkorragoan irakasteko. Mintzaira giza elkarreragin bezala eta testu eta diskurtso mailako edukietan, erabileretan, gauzatzen den prozesu (egintza) bezala ulertu behar da. Eta bestetik, hizkuntzaren garapenean inguruarekiko elkarrekintzak duen funtsezko rola azpimarratzeak eskatzen du eskolak bere osotasunean eta hainbat maila ezberdinetan ikaslearen garapena bideratzeko sortu duen sistema konplexua aztertzea. Beraz, hizkuntzen erabileren eskuratze prozesuak hizkuntza batean zein bestean nola lortzen diren argituko duten ikerketak erronka nagusiak dira psikolinguistikarentzat, hizkuntzalarientzat eta hizkuntzen didaktikarentzat.

4. Hizkuntzen didaktikaren ekarpena murgilketari

Hizkuntzen didaktika nahikoa berria da ikerketa-esparru autonomo gisa (Dolz, et al., prentsan). Eskolan gertatzen den hizkuntzen ikas-irakaskuntza prozesuak ditu aztergai nagusi, eta psikolinguistikak edo hizkuntzalaritzak ez bezala, ikaslearen, irakaslearen eta irakats-objektuaren (edo irakaskuntza edukien), hau da, sistema didaktikoaren hiru muturren arteko lotura konplexuak aztertzen ditu. Izan ere, gorago esan bezala, hizkuntzen garapena ez da ikaslearen gaitasun kognitiboen bilakaera soil bezala ikusten, edo irakaslearen inputaren barneraketa huts bezala. Hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntza

zertan datzan ulertuko bada, hiru muturren arteko elkarrekintzak aztertu beharra nabarmentzen da.

Hatsarre hauetan oinarrituta, jarraian murgilketako irakaskuntza edukiei buruzko hausnarketatxo bat proposatuko dugu, diziplinarizazioa deritzon kontzeptutik abiatuta.

4.1. Edukien diziplinarizazioa

Diziplinarizazioa eskolan irakasten diren edukiak edo ikasgaiak sortzeko prozesuari deitzen zaio eta bi ditu pauso nagusiak: batetik, jakintzen sorrera, eta bestetik, jakintza horiek eskolan txertatzea, hau da, jakintzak ikasgaietan banatzea, ikasgai hauen ikasketa-planak edo curriculumak diseinatzea, eta hauetatik abiatuta, testuliburuak eta i(ra)kaskuntza-sekuentziak sortzea (Thévenaz-Christen, 2005). Adibide bat ematearren, euskal eskoletan NORK gramatika-kasua irakatsi dadin, beharrezkoa izan da, lehendabizi, ikerketaren esparruan, hizkuntzalariek euskaraz NORK kasuaren funtzionamendua ikertzea. Ondoren, hezkuntzaren esparruan, hizkuntzalariek testu zientifikoetan idatzitakoa curriculumetara eta material didaktikoetara egokitu behar izan da, behin "euskara" ikasgaiaren barruan txertatu ondoren, azkenik, irakasleak gelan NORK kasua irakats dezan, eta ikasleek ikas dezaten.

Hizkuntza-edukien diziplinarizazioa aztertzea funtsezkoa iruditzen zaigu hizkuntzaren irakaskuntza-ikaskuntzari buruzko hausnarketa egiteko orduan. Izan ere, hizkuntzen irakaskuntzan hizkuntzaren funtzionamenduari buruzko eta hizkuntzaren garapenari buruzko ikerketek daukaten garrantzia ez da nolanahikoa, ikerketa-mailan proposatzen diren hainbat ikuspegi teoriko-metodologikoetatik egiten den aukerak gutxi-asko baldintzatu egiten duelako hizkuntzen irakaskuntza[3].

[3] Dena dela, "hezkuntza-jarraibide ofizialetan" agintzen dena eta ondoren ikasgeletan egiten dena sarri ez datoz bat, "objet enseigné" edo benetan irakasten den irakaskuntza-edukiaren inguruan azkenaldian egin diren ikerketek erakutsi duten bezala (Schneuwly & Thévenaz, 2006; Schneuwly & Dolz, 2009).

4.1.1. *Ikerketa-mailako proposamenak*

Beraz, lehendabizi ikerketa-mailan egin den hainbat proposamen laburtuko dugu. Murgilketa bidezko irakaskuntzan irakatsi beharreko hizkuntza-edukiei buruzko proposamenak dira. Oro har, esan izan da murgilketan hizkuntzen irakaskuntza ikuspegi komunikatiboan oinarritzen dela. Hatsarre orokor honetatik haratago, ordea, egin izan dira proposamen zehatzagoak (laburpen interesgarriak: Baker, 2002; Genesee, 2004). "*Focus on meaning*" deritzonaren arabera, ikasleek hizkuntza erabileraren erabileraz eta modu inkontzientean edo nahi gabe ikasten dutela onartzen da, eta hemendik abiatuta, ikasleek gelan hizkuntza erabiltzea sustatzen da, benetakoak, esanguradunak eta balio komunikatibodunak diren egoerak sortuz. Proposamen hau "*focus on forms*" edo hizkuntzaren gramatikaren arauen irakaskuntzari kontrajartzen zaio. Dena dela, Geneseek (ibid.) dioen bezala, hainbat ikerketetan erakutsi da ikasleek gelan hizkuntza erabiltzean bakarrik oinarritutako irakaskuntza ez dela nahikoa ikasleen hizkuntza gaitasuna garatzeko. Ikuspegi komunikatiboaren izenean hizkuntzak erabiltzeko egoerak sortzea, bere horretan bakarrik, ez da hizkuntzak ikasteko bermea. Garbi dago, hizkuntza irakatsi egin behar da.

Gauzak honela, ikuspegi komunikatiboa oinarri hartuta hizkuntza egitura eta forma zehatzak modu esplizituan irakastean oinarritzen den "*focus on form*" delakoa tarteko bide bezala proposatu izan da. Izan ere, Geneseeren ustez, ikasleek euren beharrizan komunikatiboak betetzeko behar dituzten hizkuntza formak modu esplizituan irakatsi behar dira. Autore honen arabera, agerikoak dira "*the potential benefits of instruction that explicitly teaches forms relevant to students' communicative needs or that draws their attention to linguistic forms by making these forms salient during communicative classroom activities*" (2004, 555). Cumminsek (2000) ere antzeko ildotik jotzen du, hizkuntzen erabileraren eta hizkuntzaren ezaugarri formalen irakaskuntza uztartu beharra adieraziz.

Proposamen hauen baliagarritasuna erabat ukatu gabe, uste dugu, oro har, hizkuntzen erabilera irakastea ahalbidetuko duen eduki zehatzak definitzeko ezintasuna agerikoa dela. Atal honen bukaeran helduko diogu eztabaida honi.

Jarraian, diziplinarizazio prozesuaren bigarren pausoari helduko diogu, hau da, hezkuntzako jarraibideen azterketari. Haur Hezkuntzako euskararen diziplinarizazioa aztertzeko saio bat egin dugu.

4.1.2. *Euskararen diziplinarizazioa Haur Hezkuntzan*

Batetik, E.A.E.ko zein Nafarroako curriculumak (Eusko Jaurlaritza, 1992; Nafarroako Gobernua, 1992) eta bestelako eskola-jarraibide ofizialak (Eusko Jaurlaritza, 1995, 1997) aztertu ditugu, eta bestetik, hainbat material didaktiko. Guztietan ere funtsezkoa jotzen da ahozko hizkuntzaren garapena, haurrarengan komunikazioa, irudikapena, jarduera ludikoa eta sormena ahalbidetzen baititu. Zentzu honetan, oso argiak dira oinarrizko curriculum dekretuak. Eta bi curriculumetan azpimarratzen da, halaber, hizkuntzaren garapena inguruarekin elkarrekintzan gertatzen dela (helduarekin, batez ere).

Hizkuntza irakaskuntza-ikaskuntzarako eduki gisa definitzerakoan, aurpegi askoko objektua marrazten da curriculumetan: ahozko erabilerak (elkarrizketa, eta batez ere, ipuina), hizketa egintzak (eskaerak, agurrak...) eta baita ere morfosintaxia eta hiztegia. Irakaskuntzarako bitartekoak, berriz, ikasle-irakasle elkarrekintza eta horren barruan, kalitatezko inputa. Euskara bigarren hizkuntza denerako, helduarekiko elkarrekintza, segurtasun afektiboa eta emozionala edo inputaren kalitatea proposatzen dira marko didaktiko orokor modura. Halaber, esaten da ez dela komeni haurraren euskaran aurki litezkeen forma-akatsetan edo H1eko interferentzietan gehiegi zentratzea.

Haur Hezkuntzarako material didaktikoei dagokienez[4], hiru aztarna nagusi bereiz litezke nahikoa argi euskararen edukiei begiratuta: ipuina (ahozko mintzaira lantzeko funtsezko bitartekotzat); hizketa egintzak edo Tough-en hizkuntza funtzioak bezala aipatu izan direnak; eta aditz formak edota deklinabidea bezalako gramatika alderdiak, hiztegiarekin batera. Baina eduki hauek denek ez daukate, inondik ere, zehaztasun maila bera: ipuinaren aldean, hizketa egintzei eta gramatika-hiztegiari dagozkien edukiak askoz ere zehaztuagoak daude. Gauza

[4] Ikus erreferentzia zehatzak artikuluaren bukaeran.

berbera gertatzen da euskararen ebaluazioarekin ere: gramatika alderdiak ebaluatzeko irizpideak askoz ere garatuagoak daude ipuinaren alderdiak baino.

Beste alde batetik, irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarrekintzari garrantzia handia ematen zaio material didaktikoetan. Irakasleari dagokio elkarrekintza horietan euskara lantzeko testuinguru komunikatiboak sortzea. Esaterako, irakasleak ikasleen ikaskuntzara bideratu behar ditu hizkuntza txokoak, hau da, ikasleek hizkuntza gara dezaten gelan sortutako espazio bereziak (hiztegiez edota ipuin-liburuez hornituak).

Euskara bigarren hizkuntza modura irakasten denerako, ez dago apenas argibide berezirik material didaktikoetan. Giltza-Edebéren kasuan, eta irakaskuntza edukiei dagokienez, gramatika eta hizketa egintzak zehazten dira, eta hauen irakaskuntzarako bitartekoak dira: kalitatezko inputa, ipuina (hizkuntza egintzen zerbitzura), elkarrekintzen sorrera, eta euskara H1 duten haurren kasuan baino ipuinen ulermen galdera errazagoak. Haurtxoako materialetan, bere aldetik, proposatzen da irakasleak ikasleei ipuinak kontatzerakoan ipuina sinpletua edo egitura sinpleagoak erabiliz egin behar duela. Gramatika-alderdi bereziak ere iradokitzen dira.

Laburbilduz, argigarria deritzogu edukien zehaztasun maila handia, izan ere, berez, Haur Hezkuntzak berea duen ezaugarrietako bat edukien diziplinarizazio ahula da. E.A.E.ko curriculumean esaten den bezala, "jakintzagaizko antolaketa, erabat arbuiagarria ez bada ere, ez da oso egokia Haur Hezkuntzan, zeren haurrak ikasteko duten era ez da zatikatua." (Eusko Jaurlaritza, 1992, 32). Gure ustez, euskarak Haur Hezkuntzatik bertatik "ikasgai itxura" izatearen atzean eskolari euskararen biziberritzean eman zaion funtsezko papera dago: euskara hizkuntza gutxitua da, ikasle askorentzat bigarren hizkuntza, eta eskolaren bidez euskararen normalizazioa lortzeko bidean (Zalbide, 1998), zenbat eta goizago hasi euskara modu esplizituagoan irakasten, orduan eta lorpen hobeagoak.

Nabarmendu nahi dugu, halaber, gramatikaren edukiak direla gehien zehazten direnak, eta aldiz, adierazpenari edo testuari/diskurtsoari lotutako edukiak

askoz ere modu lausoagoan agertzen direla. Azkenik, azpimarragarria da ez dagoela apenas argibiderik euskara H2 modura irakasteko edukiei dagokienez. Ikasgelan gertatzen dena aztertzen duten ikerlanen faltan, argibide ofizialei eta material didaktikoei emandako begiratuak iradokitzen du parekatu egiten direla euskara H1 modura eta H2 modura i(ra)kastea. Zentzu honetan, ematen du ontzat ematen dela murgilketa goiztiarrean H2aren ikaskuntza nahigabe edo eduki berezirik irakatsi gabe gertatzen dela aldarrikatzen duen ikuspegia.

Ondorio orokor modura, azpimarratu nahi dugu, lehenik eta behin, edukien diziplinarizazioa aztertzea oso modu baliagarria izan daitekeela eskolan irakatsi beharreko edukiez hausnartzerakoan. Hortik aurrera, eta murgilketari dagokionez, uste dugu hizkuntzen irakaskuntza ikuspegi komunikatibotik proposatzeko orduan, eraginkorrak izango diren edukiak falta direla. Hizkuntzen erabilera irakatsi behar dela aldarrikatzen da etengabe, baina gero behin eta berriro perpausaren mailan bakarrik funtzionatzen duten hizkuntza alderdiak proposatzen dira zehaztasunez. Testu edo diskurtso mailakoak, aldiz, oso modu lausoan ageri dira.

4.3. Testu-generoak eta sekuentzia didaktikoak: murgilketarako irakaskuntza-edukiak eta bitartekoak

Ikasleei morfologia eta sintaxia irakatsita soilik hizkuntza erabiltzen ikasten dela inork gutxik defendatuko du gaur egun. Eta hizkuntzen irakaskuntzaren unitatea definitzeko orduan perpausaz haratago joan beharra ere ez da, honez gero, azken orduko berrikuntza. Zein da, ordea, unitate hori? Morfologia eta sintaxia zer diren garbi asko dagoen bezalaxe, garbi ote dago zein den hizkuntzen erabileran trebatzeko ikasleei irakatsi beharreko hori? Gure ustez, auzi honetan erantzunik garbiena eta eraginkorrena Bronckart, Schneuwly, eta Dolzen ikertaldeek egindako ikerketetatik datorkigu. Hizkuntzen erabilera irakasteko orduan testu-generoak proposatzen dituzte irakas-objektu modura, generoetan trebatzeak baitakarkio ikasleari gizarteko askotariko hizkuntza jardueretan parte hartzeko aukera.

Gizataldeen historian zehar hizkuntza erabiltzeko moldeei dagozkie testu-generoak. Nolabait esateko, testu-generoak denboran zehar egonkortu diren hizkuntza erabiltzeko moduak dira. Egonkortasun hori, noski, denborari, historiari hain lotua dagoenez, etengabe aldatzen da. Honexegatik, ezinezkoa da behin betirako balioko duen testu-generoen sailkapen bat egitea (Bronckart, 1996/2004). Hizkuntza jarduera berriak sortu ahala, genero berriak sortzen dira (chata, SMS edo esamesa); edo hizkuntza jarduerak desagertzen doazen heinean, halaxe generoak ere (bandoa).

Testu-generoa, hortaz, hizkuntza jardueran parte hartzeko bitarteko gisa defini daiteke. Eta hortxe hartzen du, hain zuzen ere, irakaskuntza-objektu gisa daukan erabilgarritasuna. Hizkuntzen irakaskuntzaren helburua ikasleak hizkuntzen erabileretan trebatzea baldin bada, generoak menderatu ahala genero horiek erabiltzen direneko jardueretan parte hartu ahal izango dute.

Baina zein testu-genero landu eskolan? Alegia, hizkuntzaren zein erabilera irakatsi eskolan? Ez dira nolanahiko galderak. Ahozko generoen gaineko Dolzen eta Schneuwlyren (1998) proposamen ezagunean genero formalak irakastea proposatzen da. Batetik, eskolan hizkuntzen (eta gainontzeko gaien) ikaskuntzarako baliagarriak direnak (laburpena, ahozko azalpena, oharrak hartzea...), eta bestetik, gizarteko jarduera publikoan parte hartzeko tresnak diren generoak (debatea, elkarrizketa...).

Murgilketa bidezko irakaskuntzaren ikuspegitik, baliagarria deritzogu testu-genero formalen aldeko autuari. Izan ere, euskara bezalako hizkuntza gutxitu baten kasuan, eskolaz kanpoko erabilera formalak ez dira ugariak izaten, eta eremu horietarako hiztunak sortu beharra dauka eskolak[5]. Hizkuntzen irakaskuntza hizkuntzen egoera soziolinguistikoari zeinen estu lotzen zaion erakusten duen adibide bikaina da hauxe.

[5] Noski, erabilera informaleko eremuak ere gutxi ditu hizkuntza gutxituak, eta genero informalen lanketa ere bere gain hartu behar duela esan izan da batzuetan. Garrantzirik inondik ere ukatu gabe, artikulu honetan ez dugu auzi honetan sakonduko.

Testu-generoak irakasteko baliabide zehatz bat ere proposatzen digute Dolzek eta Schneuwlyk: sekuentzia didaktikoak. Helburua testu-generoen erabileraz jabetzea da: esaterako, dena delako testu-genero bat zein egoera komunikatibotan erabiltzen den irakasten da. Genero horren ezaugarri testual-diskurtsiboak lantzeaz gain, jarduerak dituen ezaugarri gramatikalak ere lantzen dira, jakina, gramatika arauak ezinbestean errespetatu behar baitira testu/diskurtsoen funtzionamendurako. Ikasleei zentzu komunikatibo osoa duten proiektuak aurrera eramateko proposatzen zaie. Adibidez, gelan ahozko azalpenak egiteko proiektu bat proposatzen zaie. Lehendabizi, irakasleak ikasleen gaitasunak detektatzen ditu, ikasleek ekoiztutako aurre-testuak ebaluatuz. Aurre-testuek islatzen dituzten trebetasunak eta zailtasunetatik abiatuta, hainbat jarduera edo ariketa zehatz egiten dira gelan. Jendaurrean hitz egiterakoan, ahotsaren erabilera lantzeko. Edo ahozko azalpeneko gai nagusia behar bezala aurkezteko behar diren hizkuntza baliabideak lantzeko. Edo entzuleenganako begirada lantzeko. Eta abar. Azkenik, ikasleek post-testuak ekoizten dituzte. Proiektuaren bukaera da hau. Irakasleak sekuentzia didaktikoan zehar ikasleek egindako lorpenak ebalua ditzake, edo, noski, oraindik lortu ez dituzten trebetasunak identifikatu. Ikaslearentzat ere autoebaluaziorako bitartekoa litzateke jarduera hau.

Sekuentzia didaktikoek badituzte nabarmentzea merezi duten bi ezaugarri nagusi (Dolz & Schneuwly, ibid.). Batetik, koherentea da. Ikasleen trebetasunetatik eta zailtasunetatik abiatzen da jarduera edo tailer zehatzak prestatzerakoan. Eta bukaerako ekoizpenek sekuentziari osotasuna ematen diote. Bestetik, baliabide oso malgua da, ikasle-talde bakoitzaren trebetasunetara egokitzeko moduko jarduerak proposatzen dituelako.

Hurrengo atalean haur elebidunek euskaraz eta gaztelaniaz testu-genero jakin batean dauzkaten trebetasun eta zailtasunak aurkeztuko ditugu, abian den ikerketa bateko emaitzak labur-labur aurkeztuz. Ikusiko dugunez, ipuin-kontaketaren sekuentzia didaktikoak diseinatzeko orientabide interesgarriak ematen dira bertan. Eta gainera, hizkuntzen irakaskuntza integratua egiteko aukera ere ematen dute emaitzek, ikasleek H1ean zein H2an dituzten trebetasunak eta zailtasunak aztertzen baitira.

5. Euskal eredu elebidunen inguruko ikerketa baten zenbait emaitza eta ekarpen

Lan honen lehen, bigarren, eta hirugarren ataletan zenbait ikerketa aipatu ditugu. Eskolari dagokionean, kanpo ebaluaketak lirateke esanguratsuenak. Oro har, ereduen bitartez gauzatzen den irakaskuntzaren bermea eskaintzen dutenak. Eta guztiz garrantzitsua iruditzen zaigu emaitza horien ezagutza eta zabalkundea, azken batean, euskara bezalako hizkuntza gutxitu batean egiten den irakaskuntzaren parekorik munduan ez baita erraz aurkitzen, eta gure ustez eredugarria izan daiteke esperientzia hau hainbat eta hainbat hizkuntza txiki eta/edo gutxiturentzat.

Ondoren aipatuko dugun ikerketa, alabaina, beste baldintza batzuetan egina izan da, eta gure ustez, batetik, euskararen jabekuntza prozesua H1 zein H2 bezala oso gertutik ezagutzeko aukera ematen du; eta bestetik, euskararen irakaskuntza beharrak, berriro ere H1 zein H2 modura, zehazkiago irudikatzeko oso baliagarria da.

2002 urtean hasita, bi ikasle talde ari gara jarraitzen, 5, 8 eta 11 urterekin euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza bilketak eginaz. Talde bat familia eta giro aldetik euskaldun diren ikasleek osatzen dute; Zumaiakoa, nolabait kontrol taldea litzateke, euskara H1 duena, eta euskarazko garapenaren lekukotasuna emango liguke. Gaztelania aldiz, H2 litzateke talde honentzat. Beste taldea, Lizarrakoa da; etxeko eta inguruko giroa gaztelaniazkoa, baina D ereduan eskolatua 2 urtez geroztik. Euskara H2 bezala irudikatzen dugu talde honetan eta eskolaren bitartez egiten den euskararen ikaskuntza aztertzeko talde esperimentala litzateke; jakina, talde honentzat, gaztelania H1 litzateke.

Ikerketaren beste ezaugarri garrantzitsua azter unitatea da. Eskola giroan ahoz umeek kontatutako ipuinak jaso ditugu. Haurrek burutu beharreko hizkuntza-jarduera, entzundako ipuin bat "andereñoarena" eginez eta marrazkien laguntzaz beste umeei kontatzea da, ipuina berreraikitzea, alegia. Azter

unitatea, beraz, testua, eta ahozkoa. Mintzaira bere osotasunean irudikatzeko, gorago aipatu ditugun baldintzak, eta nagusiki perpausaren maila gainditzea, zehazki bete nahi izan dugu ikerketa honetan. Bestalde, hizkuntzarteko elkarmenpekotasunaren hipotesia ere nahikoa ongi azter daiteke ikerketa honetan; lehenengo adinetan behintzat, haurrek euskaraz bakarrik jasotzen baitute ipuinaren inguruko irakaskuntza "formala"; esan nahi baita eskolaren bitartekoa. Goazen adibidetarako bederen datu batzuk aurkeztera.

Bost urteko haurrak zenbateraino dira gauza ipuinak bere kabuz kontatzeko bere H1 hizkuntzan? Eta euskara H2 denean? Eta gaztelaniaz, kalean eta inguruan zerbait entzun arren, zuzenean erabiltzen ez duten hizkuntzan? Eskolan, eta bereziki haur hezkuntzan, hain erabilia den ipuin kontatzeak zer adierazten digu haurren hizkuntza- garapenari buruz?[7]

5.1. Autonomia narratiboa

Haurrek ipuin asko entzuten dituzte. Bereziki eskolan ipuinak irakurri edo kontatu egiten zaizkie haurrei, baina ez dugu uste haurrak ipuinak kontatzen ikas dezaten ahalegin berezirik egiten denik. Halere, gure ikerketako haurrek, eskolan ikasia dute ipuinak kontatzen, ahozko jardun gisa. Autonomia narratiboa esaten zaio ipuina hasi eta buka bere kabuz kontatzeko trebetasunari. Oraingoz ez dugu begiratuko ipuina nolako osotasun edo zuzentasunarekin kontatzen duten. Ondorengo taulan (1.taulan) ageri dira 5 eta 8 urterekin jasotako emaitzak. Euskaraz, H1 naiz H2 izan, antzera moldatzen dira. Apenas behar duten adinekoaren laguntzarik ipuina hasi eta bukatzeko. Gaztelania H2 den kasuan, alegia Zumaian, 5 urterekin ezinezko eginkizuna da haur gehienentzat. Eta ez da harritzekoa gaztelaniaz ez baitzaie eskolan ezer erakutsi eta etxean eta kalean ere nagusiki euskaraz bizi baitira. Heren luze batek (%37,5) halere, lortzen du laguntzarik gabe ipuina gaztelaniaz kontatzea 5 urterekin. Zortzi urterekin gehienek arazorik gabe kontatzen dute ipuin osoa.

[7] Ikus Garcia et al (prentsan) edo Almgren et al, liburu honetan bertan haur hauen hizkuntza-garapenaren emaitza eta azalpen gehiago.

Esan behar da, bestalde, 8 urterekin laguntza eskatzen duten haurrek, beti ere H2koak, euskaraz bezala gaztelaniaz ere, hiztegi arazoak dituztela soilik. Adinekoari hitz zehatz baten galde eginez eteten dute bere jarduna, eta hori arazoa baino gaitasun eta zehaztasun ardura bezala ere har daiteke, jakina (Ikus liburu honetan bertan, Almgren et al. lanean zehaztasun gehiago puntu honi buruz).

1. TAULA

AUTONOMIA NARRATIBOA BI TALDEETAN ETA BI HIZKUNTZETAN (%)

	Kontaketarako autonomia	
	5 urte	8 urte
Euskara H1	87	100
Gaztelania H1	77,1	100
Euskara H2	89	92
Gaztelania H2	37,5	83

Emaitza hauek, bere xumetasunean, garrantzitsuak direla uste dugu. 5 urterekin eta euskera H2 izanik, oso emaitza ona da haurren %89k ipuina hasi eta bukatu arte bere kabuz kontatzeko gauza direla frogatzea. Haur berberek, gaztelaniaz, hau da bere H1ean ia emaitza berdina ematen dute (%87). Hau ere interesgarria da. Gure ustez haur hauek ipuinak kontatzen euskaraz ikasi dute, eta trebetasun diskurtsibo hau gaztelaniara mailegatzen dutela esatea zentzuzkoa dirudi. Euskara H1 taldekoek, 5 urterekin, ez dakite, denek ez behintzat, gaztelania nahikoa jarduna egin ahal izateko, baina 8rekin bai. Eta hauek ere ikasi euskaraz ikasi dute ipuinak kontatzen, baina gaztelaniaz ere ongi moldatzen dira. Alegia, esan daiteke, H1etik H2ra gertatzen direla mailegu edo transferrak, baina baita alderantziz ere, H2tik H1era.

5.2. Ipuinen egitura

Aurreko puntuan ipuina bere kabuz hasi eta bukatzeko gaitasunari begiratu diogu. Oraingoan, ipuinaren osagai nagusiak zenbateraino agertzen diren aztertuko dugu, eta horretarako Adam (1992) egileak ematen duen 5 ataleko egitura hartuko dugu irizpide. Alegia, ipuinaren hasierako atala, aldaketa edo desoreka adierazten duena, ekintzen garapena biltzen duena, oreka berreskuratzeko ageri den atala eta azken egoera aipatzen duena lirateke bost atal horiek. Ondoren, 2. taulan ageri denak atalak agertzen diren edo ez besterik ez du esaten; alegia, atal bakoitzean parte hartzen duten pertsonaia edo ekintza nagusiak dauden edo ez, edota nolako zehaztasunarekin aipatzen diren ez da hemen neurtzen[8].

2. TAULA

IPUINAREN ATALAK EUSKARAZ (H1 ETA H2) ETA GAZTELANIAZ (H1 ETA H2) BI TALDEETAN, 5 ETA 8 URTEREKIN (%)

	1 Hasiera egoera		2 Aldaketaren abiapuntua		3 Garapena		4 Konponbidea Oreka berria		5 Azken egoera	
	5 urte	8 urte	5 urte	8 urte	5 urte	8 urte	5 urte	8 urte	5 urte	8 urte
Euskara H1	100	100	91,9	95,8	100	100	100	95,8	100	100
Euskara H2	91	97	86	97	100	100	100	100	100	97
Gaztelania H1	94	94	81	97	100	100	91	89	73	89
Gaztelania H2	30	95,8	30	100	30	100	30	100	30	100

[8] Liburu honetan bertan, Almgren et al. lanean, beste irizpide batzuk erabili dira ipuinaren egiturako atalen presentzia aztertzerako orduan.

Taula honetatik ere zenbait ondorio atera daitezke. Lehenengoa, aurreko taularen ondotik ondorioztatu daiteke: ipuina hasi eta buka bere kabuz egiten duenak, badaki ipuina testu bezala atal jakin batzuek osatzen dutela, eta beraz, lortua du ezagutza diskurtsibo garrantzitsu hori. Euskara H1 nahiz H2 izan, emaitzak oso antzekoak dira, eta ez da harritzekoa, izan ere eskolan eta euskaraz landua dute ipuina bi taldeek. Gaztelania H1 denean ere oso emaitza onak ageri dira. Hasierako eta azkeneko atalak, nolabait ritualizatuenak izaten direnak, eta ipuinari ainguraketa eta errematea ematen diotenak, batzutan ez dira ageri, eta 8 urterekin ere badira haur batzuk atal horiek esan gabe uzten dituztenak. Gaztelania H2 den kasuan aurrerapen nabarmena ageri da 5 eta 8 urte bitartean. Eskolan gaztelania gutxi landu duten arren, eta 5 urterekin hitz egiten jakin ez arren, gai dira 8 urterekin egitura osoa erabiliz ipuina kontatzeko. Eginkizuna euskaraz landu dute eskolan, baina nahikoa trebaturik ageri dira gaztelaniaz ere gauzatzeko.

Autonomiari buruz esan duguna errepika dezakegu hemen ere: H1etik H2ra eta alderantziz mailegatzen dira trebetasun diskurtsiboak.

5.3. Zer da 5 eta 8 urte bitartean ikasten dena?

Aurreko bi puntuetan zenbait datu kuantitatibo eman dugu, eta bertan ikusi da 8 urterekin 5ekin baino emaitza hobeak lortzen direla. Hori espero den zerbait da. Nolanahi ere, garrantzitsua da 8 urterekin gehiago egiten duten hori zer den ondo begiratu eta ikustea. Euskara maila aztertzerakoan, ez dugu alde nabarmenik ikusi bi taldeen artean (H1 ala H2). Adinari dagokionean aldiz, ipuinaren osotasuna eta bereziki atal bakoitzean ageri den zehaztasuna eta horretarako erabiltzen diren mekanismo formalak ezberdinak dira bi adinetan. Egia da, norbanako batetik bestera ere alde handiak daudela. Ume batzuk 5 urterekin ere oso ipuin osatuak eta zehatzak kontatzen dituzte, baina 8 urterekin 5ekin baino askoz gehiago dira ipuin osoagoak ekoizten dituztenak.

Ondoko adibideak haur berberak 5 eta 8 urterekin emandakoak dira. Ipuinaren atal berbera aipatzen da.

(1) Esan zuen Matxin Zaku/ ui! erreka bat! /eta gero sartu zuen poltsan/ eta joan zen/ (PF5 H2)

(2) Baina bidetik/ ibai oso oso handia zegoen/ eta Mattin Zaku ezin zuen pasa/ orduan pentsatu zuen oso ongi eta esan zuen / badakit zer egin!/ ibaia nire zakuan sartuko dut / eta sartu zuen/ (PF8 H2)

Aldea nabarmena da, bietan ekintza nagusiak ageri diren arren. (1) adibidean, ekintzen aipamen soilak agertzen dira, aditzaren inguruan (*esan-sartu-joan*). Badago harridura marka bat ere, beraz modalizazioa adierazten duen esamolde bat bada hor (*ui! erreka bat!*), eta kontalaria eta pertsonaiaren ahotsak ongi bereziak daude. Ipuina ez dago gaizki kontatua. Bigarren adibidean, ordea, beste trebezia bat ikusten da. Espazio eta denbora markatzaile zehatzak ageri dira, edukia (bidetik/ibaia) eta berbaldia ere ("baina", "orduan", "oso ongi") zehaztasunez adierazten direla. Aditz mailan ere, aldeak ageri dira; lexikoan, adibidez, "pentsatu zuen" verba sentiendi moldekoa da, "eta esan zuen" arrunta baino egokiagoa pertsonaiaren egoera adierazteko: denbora (lehena/oraina/geroa) eta aspektu formak (perfektua/inperfektua) ere testuak, alegia narrazioaren eskakizunei lotzen dira: "zegoen", lehen aldiko inperfektua, narrazio testuetan balio garrantzitsua duen forma; "ezin zuen pasa", "sartuko dut eta sartu zuen"; "badakit zer egin" esatean, bestalde, subjektuaren egoera adierazten da, gainditu beharreko zailtasunak aurreratzen ditu, eta berbaldiaren markatzaile kataforikoa litzateke. Balorazio eta iruzkinak ere agerian daude; ezina eta ezinaren gainditzea, dramatizazioa eta korapilatzea begiratuz kontatua dago (*baina... oso oso handia ...ezin zuen pasa*); protagonista ez da ekintzen subjektu hutsa, haren gogoetak ere ageri dira (*pentsatu zuen ... badakit zer egin!*). Mekanismo formalak ugariak dira: pertsonaien arteko bikoizketak (berbaldi erreferitua) eta oposizio bikoteak ere ugariak dira: "ezin vs badakit zer egin"; inperfetua (burutugabea) vs lehen aldi burutua; bidea (jarraipena) vs ibaia (etena); "pentsatu" vs "esan". Kontalaria eta entzulearen arteko elkarreragina kontrolatzeko estrategia oso aproposak erabiltzen dira: zailtasuna, ezintasuna, pentsatu beharra, lorpena,... ageri dira. *Esan-sartu-joan* ekintzen hurrenkera baino askoz gehiago.

Gaztelaniaz egindako garapenaren adibide bat ere erakutsiko dugu. (1) eta (2) adibideetako haur berberaren gaztelaniazko ipuin-kontaketatik atereak daude, 5 urterekin (3) eta 8 urterekin (4):

(3) *ya he cortado toda la leña / pues ahora tienes que adivinar cuántos pájaros hay en el bosque / luego / búho búho búho! / cuántos pájaros hay en el bosque? / tres mil / y luego fue a la bruja y le dijo / tres mil /* (PF5 H2)

(4) *ya he terminado / bruja! / la última prueba qué es? // la bruja le dijo // la última prueba es adivinar cuántos pájaros hay en el bosque / y dijo: / y pensó / e / Cen-tellita / pero yo no sé cuántos pájaros hay! / le llamaré al búho / y llamó al búho / búho! / búho! / búho! // entonces enseguida el búho apareció y / le contó cuántos pájaros hay // le dijo el búho a Centellita / en el bosque hay tres mil pájaros / y dijo / Centellita / vale / enseguida se lo diré a la bruja // fue adonde / a: / donde estaba la bruja y le dijo / ya sé cuántos pájaros hay / hay tres mil pájaros /* (PF8 H2)

Euskarazko (1) eta (2) adibideetan bezala, bi hauek ere gaztelaniazko ipuineko momentu berdinari dagozkie. Centellita da ipuinaren izena (eta protagonistarena), eta hemen jarri dugun zatia Centellita "heroiak" sorgin "gaiztoak" ezarritako froga bat gainditzen duen momentutik hasten da (*ya he cortado la leña*, (3)an), eta hurrengo froga gainditzearekin bukatzen da (*tres mil*, (3)an).

5 urteko adibidean ipuinaren oinarrizko ekintzak agertzen dira: Centellitak froga bat pasatzea, jarraian sorginak hurrengo froga pasaraztea, Centellitak hontzari laguntza eskatzea froga pasatzeko, eta azkenik, laguntza jasota, froga pasatzea. Alde honetatik, esan behar da pasarte zehatz honetan jadanik 5 urterekin haur honek eduki tematikoa ongi antolatzen duela. Baina euskarazko 5 urteko adibidean ikusi bezala, ekintza hutsak kontatzera mugatzen da haurra. Kontalariaren ahotsaz gain, pertsonaiarena ere agertzeak kontaketarako nolabaiteko trebetasuna erakusten duen bezala, ezin esan, adibidez, pertso-

naiei erreferentzia egiteko baliabideak oso garatuak daudenik. Sorginak *pues ahora tienes que adivinar cuántos pájaros hay en el bosque* erantzun ostean, ez da gehiegi zehazten hurrengo ekintza Centellitak egiten duenik (*luego / búho búho búho*). Dirudienez, ekintzen egileak zein diren zehazteko ardura kontalariak ez du beregain hartzen 5 urterekin.

Aldiz, 8 urterekin, pasarteari dagozkion ekintza guztiak agertzeaz gain (eta behar bezala ordenatuta), bestelako trebetasunak ikusten dira haurraren ekoizpenean. Euskarazko 8 urteko ipuinean bezala, protagonista ez da ekintzen egile huts modura agertzen, baizik eta pentsatu egiten du (*y pensó*) eta bere ekintzak egin aurretik, aditzera ematen ditu geroaldia eta iragan burutua erabiliz (*le llamaré al búho / y llamó al búho*) . Azken adibide honek berak erakusten du, halaber, kontalariaren presentzia ere markatuago dagoela. 5 urterekin,

(5) *pues ahora tienes que adivinar cuántos pájaros hay en el bosque / luego / búho búho búho!*

Aldiz, 8 urterekin,

(6) *la última prueba es adivinar cuántos pájaros hay en el bosque / y dijo: / y pensó / e / Cen-tellita / pero yo no sé cuántos pájaros hay! / le llamaré al búho / y llamó al búho / búho! / búho! / búho! //*

(6) adibideko *y llamó al búho* esatean (5) adibideko */luego/* hutsarekin baino askoz ere markatuago ageri da kontalaria. Esan dugu 5 urterekin kontalariaren eta pertsonaien ahotsak, biak ageri zirela jadanik. Baina garbi ikusten da 8 urterekin kontalariaren presentzia argiagoa dela.

Azkenik, 8 urterekin pertsonaiei erreferentzia askoz ere modu konplexuago eta zehatzagoan egiten zaie. Ekintzaren egilea zein den beti garbi dago (hurrenkera hauxe da: la bruja > Centellita > el búho > Centellita). Enuntziatu batetik bestera egilea berbera denean (adib, *entonces enseguida el búho apareció y / le contó cuántos pájaros hay*), erreferentziaren mantentzea subjektua isilduz eta aditzeko pertsona marka bidez egiten da. Aldiz, enuntziatu batetik bestera egilea aldatzen denetan, eta beraz, beharrezkoa dirudienean pertsonaiaren izena bera esatea

anbiguotasunak saihesteko, halaxe egiten du haurrak: *la bruja le dijo // la última prueba es adivinar cuántos pájaros hay en el bosque / y dijo: / y pensó / e / Cen-tellita / pero yo no sé cuántos pájaros hay!*. Aldi berean, *buho* hitzaren errepikapen anaforikoak *"le llamaré al búho / y llamó al búho / búho! / búho! / búho!"*adierazkortasun (elokuzio) balio handia eransten dio ipuinari. Bi adinetako ipuinen artean beraz, aldeak maila guztietakoak dira, berbaldi mailakoak, testu mailakoak, edukizkoak eta formalak.

Lehen esan dugun bezala, emaitza hauen azterketak ikasleek hizkuntza bakoitzean zer ikasi duten eta zer ez zehaztasunez adieraz dezakete. Ezagutza hori oso da garrantzitsua euskaraz zein gaztelaniaz zer irakatsi behar den erabakitzeko. Bi hizkuntza (edo gehiago) era bateratuan irakatsi nahi badira eskolan ezinbestekoa da ikaslearen ezagutzetatik abiatzea eta alferrikako lanak alboratzea.

6. Hizkuntzen irakaskuntza integraturako zenbait ondorio

Artikuluaren amaiera honetan hizkuntzak modu bateratuan edo integratuan irakasteko zenbait oinarri proposatuko ditugu, orain arteko ataletan garatu ditugun ideietatik abiatuta. Dudarik gabe, murgilketa bidezko i(ra)kaskuntzaz dakiguna abiapuntu baliagarria izan daiteke hizkuntzen irakaskuntza integratu eraginkor batentzat.

Hizkuntzen irakaskuntza bateratuak hainbat hizkuntzen irakaskuntza ikuspegi koordinatuan eta koherentean egitea aldarrikatzen du, eta hori hainbat mailatan: irakaskuntzarako programen mailan, hizkuntzak irakasterakoan gelan erabili beharreko terminologian eta baita irakasleek prestatutako jardueretan ere (Roulet, 1980). Funtsean, hizkuntza bakoitza modu bakartuan eta isolatuan irakastea baztertzen da: *"la didactique intégrée (...) envisage les langues non de façon individuelle, mais comme un ensemble dont les composantes sont organisées dans une progression curriculaire"* (Gagnon & Deschoux, 2008: 2).

Didaktika integratuaren zeregin nagusienetakoa, nagusiena ez bada, ikasleengan eleaniztasunaren garapena ziurtatzea da. Hau da, helburua hauxe da:

ikasleek etxetik dakarten hizkuntzaz gain, gizarte elebidunetan ukipen egoeran dauden beste hizkuntzak, edo atzerriko hizkuntzak ikastea. Baina hau baieztatzen den modu berean, ñabardura garrantzitsu bat egin behar da. Hizkuntzen irakaskuntza integratuaren helburua ez da ikasi beharreko hizkuntza bakoitzean elebakarrek duten gaitasuna lortzea, baizik eta hizkuntza bakoitzean gizarte beharrizan jakin batzuei aurre egiteko adinako gaitasunak lortzea (Idiazabal & Larringan, 2004; Wokusch 2008; Cavalli 2008) Adibidez, eskolaz kanpo erabilera-eremu asko dituen hizkuntza batean ikasleek lortu beharreko trebetasunek eta atzerriko hizkuntza batean lortu beharrekoek ez dute zertan berberak izan. Azken batean, ikasleengan garatu beharreko hizkuntza-errepertorio konplexua hizkuntza bakoitzaren egoera soziolinguistikoari hertsiki lotuta dago (Dolz, 2005; Cavalli, 2008).

Ikaslearen ikuspuntutik, garrantzitsua da oso jakitea ikasleak hizkuntza bakoitzaren zein erabilera zehatz daukan eskura (edo belarrira) (Gajo et al, 1996). Hortik aurrera, garbi dago ikasleengan eleaniztasuna finkatzeko helburua hizkuntzaren erabileran oinarritu behar dela (Dolz, 2005). Ikasleei askotariko egoera komunikatiboetan hainbat hizkuntzatan jarduteko gaitasunak irakatsi behar zaizkie, eta horretarako, sekuentzia didaktikoen bitartez, ikasleak testuen / diskurtsoen ekoizpenean trebatu beharra dago. Baina ez hizkuntza batean eta bestean eduki berberak irakatsiz, baizik eta argi identifikatuz hizkuntzaren zein gaitasun diren bateragarriak (batean ikasi ezkero besterako ere ikasiak leudekeenak) eta zein diren, aldiz, hizkuntza bakoitzean beren beregi ikasi beharrekoak.

Honetarako, ordea, ezinbestekoa da ikasleen hizkuntza-trebetasunak eta zailtasunak zein diren ahalik eta zehatzen aztertzea. Eta uste dugu hementxe egin dezakeela ekarpen nabarmena 5. puntuan aurkeztu dugun ikerketak.

Gainetik aurkeztu ditugun aztergaietan (autonomia narratiboa eta egitura narratiboa), eman ditugun bestelako adibideetan zein beste lan batzuetan erakutsi dugun moduan, etxetik gaztelaniadunak izanik euskaraz eskolatzen diren haurrek euskara ikasi egiten dute (Almgren et al., edo Ezeizabarrena et al. liburu honetan bertan). Eta euskaraz gain gaztelania ere ikasi egiten dute

(Almgren et al, 2008). Euskaraz eskolatu arren, gaztelaniazko hizkuntza trebetasunak ere garatu izana Cumminsen interdependentziaren hipotesi orokorrak azal dezake. Hala ere, gure orain arteko emaitzen ekarpena izan liteke hizkuntzen arteko interdependentzia hori maila testual-diskurtsiboan gertatzen dela erakustea (ondorio bertsuak Idiazabal eta Larringan (2004) lanean).

Halaber, testu-generoak ikasleen trebetasun eleanitzak garatzeko bitarteko baliagarriak direla ere erakutsi dugu. Hizkuntzen irakaskuntzaren helburua ikasleak hizkuntzaren erabileretan trebatzea dela aitortzen da gaur egun, eta gure ikerketen arabera, haur txikiekin ere (5 urterekin) posible da testu-generoen ekoizpena bideratzen duten egoera komunikatiboak sortzea. Aurrez helduaren ahotik entzundako ipuin bat birkontatzea da gure ikerketan egin dugun aukera, eta dirudienez, emaitzak ez dira hain txarrak. Ezta etxetik erdaldunak izanda murgilketa bidez euskara H2 bezala ikasten duten haurren kasuan ere. Ikasleen trebetasunak eta zailtasunak identifikatzea esku hartze eraginkorraren ezinbesteko baldintza da (Dolz & Schneuwly, 1998). Zentzu honetan, gure ikerketako datuak irakaskuntzarako erreferentzia-puntu gisa ere balio lezakete ingeniaritza didaktikoa deitzen den hizkuntzen didaktikaren azpi esparruan (curriculumen edota material didaktikoen diseinuan). Kasu honetan ahoz kontatutako ipuina izan da aztergaia, baina duda barik bestelako erabilerak irakasteko orduan ere, ikasleek hizkuntza bakoitzean dakitena zer den ezagutzea abiapuntu ezinbestekoa da, helburuak zehaztu eta denbora alperrik galdu gabe, gabeziak, hutsuneak osatzeko.

Hizkuntzen irakaskuntza bateratua egiteak, beraz, kasu bakoitzean zer irakatsi behar den ezagutu eta horren arabera erabakiak hartzea esan nahi du. Lehen azaldu dugun bezala, sekuentzia didaktikoak bitarteko egokiak dira bi (edo hiru...) hizkuntzetan testu-genero ezberdinetako adierazpen trebetasunak, idatzizkoak eta ahozkoak, landu ahal izateko. Andorran irizpide hauen inguruan osatutako plangintza erabiltzen dute katalana, gaztelania, frantsesa eta ingelesa eskolan ikasteko (Dolz & Wharton, 2008). Aostan, adibidez, frantsesa eta italiera era txandakatuan erakusteko erabiltzen dituzte (Floris, 1993). Bestalde, ISD ikusmoldea ardatz harturik, badakigu testuen antolaketa (gau-

zatzea) goitik beherako zentzuan ikusten bada, alegia, generoaren orokortasunetatik abiatu eta egitura zehatzagoetara iristeko, hizkuntza guztietan pareko operazio edo eragiketak gauzatzen direla (generoaren aukeraketa, planifikazioa, diskurtso moten aukera, konexioa, kohesioa, eta abar. (Bronckart, 2003)[9]. Gaitasun diskurtsiboak deitu ditugun eragiketa horiei esker ulertuko litzateke gure datuek erakusten dutena, alegia, testu-genero bat hizkuntza batean menderatzeak beste hizkuntzan ere ikasia gertatzea.

Hizkuntzaren didaktikaren zeregina litzateke irakaskuntzarako baliabideak sortzea (sekuentziak eta haiek erabiliko dituzten irakasle prestatuak), haien praktika aztertzea, eta baita ikasgelan gertatzen dena behatzea ere. Alegia, aurrez sortutako esku hartze programek ikasgelan nola funtzionatzen duten behatzea.

Euskal irakasteredu elebidunek eta eleanitzek azterketa sakona eta etengabea behar dute, hizkuntzen irakaskuntzan faktore askok eragiten dutelako, faktore horiek aldakorrak direlako eta lorpenetatik bezainbat ikas daitekeelako lortu gabeko emaitzetatik.

[9] Euskal Herrian ere, hainbat eskoletan ekin diote testuetan oinarritutako hizkuntzen irakaskuntza bateratua gauzatzeari . Ikus adibidez, Arano et al. (1996), edo Iruñeko *Hegoalde* ikastolako esperientzia (HikHasi, 2005). Nolanahi ere, ikerketak ez dira behar bezain ugariak.

Bibliografia

ADAM, J.M. 1992, *Les textes : types et prototypes*, Paris, Nathan.

ALMGREN, M. 2000, *La adquisición del tiempo y aspecto verbal en euskara y castellano*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea. Argitaratu gabeko doktorego tesia.

ALMGREN, M., BELOKI, L., IDIAZABAL, I.& MANTEROLA, I. 2008, «Acquisition of Basque in successive bilingualism: data from oral storytelling», in P. Siemund, & N. Kintana, arg., *Language Contact and Contact Languages*, Amsterdam, John Benjamins, 239-259.

ALMGREN, M., IDIAZABAL, I., MANTEROLA, I. 2009, «Euskararen ikaskuntza H1 eta H2 gisa 5 eta 8 urte bitartean», *Euskera* (2009) 2.

ARANO, R.M., BERAZADI, E. & IDIAZABAL, I. 1996, «Planteamiento discursivo en un proyecto de educación trilingüe», *Actas II Col'loqui Internacional: Les llengues a l' Europa comunitaria. Barcelona 1994. Diálogos hispánicos, Nº 18:* M. Pujol & F. Sierra, arg., *Las lenguas en la Europa Comunitaria II. La enseñanza de segundas lenguas y/o de lenguas extanjeras*, Amsterdam- Atlanta, GA, arg., Rodopi. 65-88.

BAKER, C. 2002, *Foundations of Bilingual Education and Bilingualism. 3rd Edition,* Clevedon, Multilingual Matters.

BARREÑA, A. 1995, *Gramatikaren jabekuntza-garapena eta haur euskaldunak,* Bilbo, EHU.

BARREÑA, A. 2001, «Grammar Differentiation in Early Bilingual Acquisition: Subordination Structures in Spanish and Basque», in M. Almgren, A. Barreña, M.J. Ezeizabarrena, I. Idiazabal y B. McWhinney, arg., *Research on child language acquisition*, Somerville, Cascadilla Press, 78-94.

BRONCKART, J.-P. 2003, *Quelles séquences didactiques pour l'enseignement bilingue ?* Mende, Hitzaldia, 2003ko urriaren 29a.

BRONCKART, J.-P. 1996, *Activité langagière, textes et discours. Pour un interactionnisme socio-discursif*, Paris, Delachaux et Niestlé. Gaztelaniazko itzulpena: 2004, *Actividad verbal, textos y discursos. Por un interaccionismo socio-discursivo*, Madrid, Infancia y Aprendizaje.

BRONCKART, J.-P. 2007, *Desarollo del lenguaje y didactica de las lenguas*, Buenos Aires, Miño y Davila.

CAVALLI, M. 2008, «Didactiques intégrées et approches plurielles», Babylonia, 1 (2008) *La didactique intégrée des langues : expériences et applications*.

CENOZ, J. 1994, «Inglesa bigarren edo hirugarren hizkuntza legez ikastea», in I. Idiazabal & Kaifer A. arg., *Hezkuntzaren eraginkortasuna eta irakaskuntza elebiduna Euskal Herrian. Eficacia educativa y enseñanza bilingüe en el País Vasco,* Vitoria/Gasteiz, HAEE- IVAP.

CENOZ, J. & HOFFMANN, C. 2003, «Acquiring a third language: what role does bilingualism play?», The international Journal of Bilingualism, vol 7-1 (2003) 1-5.

CENOZ, J. & ZALBIDE, M. 2009, «Bilingual Education in the Basque Autonomous Community : Achievements and Challenges», in J. Cenoz, arg., *Teaching Through Basque. Achievements and Challenges*, Clevedon, Multilingual Matters. 5-20.

CORDER, S.P. 1975, «Error Analysis, Interlanguage and Second language Acquisition», Language Teaching and Linguistics Abstracts, 8 (4) (1975) 201-218.

CUMMINS, J.1979, «Linguistic interdependence and educational development of children», Review of Educational Research, 49, (1979) 222-251.

CUMMINS, J. 1983, «Interdependencia lingüística y desarrollo educativo de los niños bilingües», *Infancia y aprendizaje, 21*, (1983) 37-61.

CUMMINS, J. 2000, *Language, Power and Pedagogy. Bilingual Children in the Crossfire*. Clevedon, Multilingual Matters.

DOLZ, J. 2005, «Implications didactiques de la proximité linguistique», in L.F. Prudent, F. Tupin & S. Wharton, arg., *Du plurilinguisme à l'école. Vers une gestion coordonnée des langues en contextes éducatifs sensibles*, Berna, Peter Lang. 341-357.

DOLZ, J. PASQUIER, A. & BRONCKART, J.-P. 1993, «L'acquisition des discours: émergence d'une compétence ou apprentissage des capacités langagières?», Etudes de Linguistique Appliquée, 92 (1993) 23-37.

DOLZ, J. & SCHNEUWLY, B. 1998, *Pour un enseignement de l'oral. Initiation aux genres formels à l'école*. Issy-les-Moulineaux, ESF.

DOLZ, J. GAGNON, R. & MOSQUERA, S. prentsan, «La didáctica de las lenguas : una disciplina en proceso de construcción».

DOLZ, J. & WHARTON, S. 2008, Une approche sociodidactique comparée de l'enseignement des langues : le rôle des langues premières de socialisation, in : S. Hanhart, A Gorga, M.-A Broyon & T. Ogay, arg., *De la comparaison en éducation*, Paris, L'Harmattan. 282-305.

ETXEBERRIA, F. 2005, *Elebitasuna eta Hezkuntza Euskararen Herrian*, Donostia, Erein.

EUSKO JAURLARITZA, 1992, *Oinarrizko Curriculum Diseinua. Haur Hezkuntza*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

EUSKO JAURLARITZA, 1995, *Haur Hezkuntzan euskara lantzeko curriculum-materialak (Egoera komunikatiboak)*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

EUSKO JAURLARITZA, 1997, *Aho hizkuntzaren sustapena Haur Hezkuntzan*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

EZEIZABARRENA, M.J. 1996, *Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niños bilingües.* Bilbao, Euskal Herriko Unibertsitatea, Doktorego Tesia.

EZEIZABARRENA, M.J. MANTEROLA, I. & BELOKI, L. 2009, «Euskara H2 goiztiarraren ezaugarrien bila: adizkiak eta gramatika-kasuak haurren ipuin-kontaketetan», *Euskera* (2009) 2.

FLORIS, P. 1993, «Le modèle didactique de l'enseignement bilingue à l'école primaire du Val d'Aoste», Etudes de Linguistique Appliquée 25/3, (1993) 199-213.

GABIÑA, J.J. et al. 1986, *EIFE . La enseñanza del euskera: la influencia de los factores,* Vitoria/Gasteiz, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

GAGNON, R. & DESCHOUX, C.A. 2008, «L'album bilingue et l'enseignement de la lecture : Un dispositif de formation des maîtres en didactique intégrée des langues», Babylonia, 1 (2008) *La didactique intégrée des langues: expériences et applications*.

GAJO, L., KOCH, P. & MONDADA, L. 1996, La pluralité des contextes et des langues: une approche interactionnelle de l'acquisition, *Bulletin Suisse de linguistique appliquée, 64,* 61-86.

GARCÍA AZKOAGA, I., IDIAZABAL, I. eta LARRINGAN, L.M. prentsan, «Contar un cuento a los 5 y a los 8 años. Una explicación de las diferencias desde el interaccionismo». *II Encontro Internacional do Interaccionismo SocioDiscursivo*, Lisboa.

GENESEE, F. 1983, «Bilingual education of majority-language children: The immersion experiments in review», Applied Psycholinguistics, 4 (1983) 1-46.

GENESEE, F. 1987, *Learning through two languages*, Cambridge, M.A. Newubury House.

GENESEE, F. 2004, «What do we Know About Bilingual Education for Majority-Language Students?», in T.K. Bhatia & W.C. Ritchie, arg., *The Handbook of Bilingualism*, Oxford, Blackwell Pubilshing Ltd.

HIK HASI, 2005, Hizkuntza Trataera Bateratua testu-generoetan oinarrituta: euskara + ingelesa + gaztelania. Iruñeko Hegoalde Ikastola. *Hik Hasi 103*, 2005, 22-25.

IDIAZABAL I. 2000, « Hizkuntza trebetasunen transferentzia programa elebidunetan ». Ikastaria (2000) 12.

IDIAZABAL I. 2003, «Euskal Irakasteredu elebidunak etorkizunari begira», in M. Atxaga, arg., *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena. Sabino Arana Elkargoaren Jardunaldiak 2001*, Bilbao, Fundación Sabino Arana Elkargoa, 341-353.

IDIAZABAL I.& KAIFER, A., arg., 1994, *Hezkuntzaren eraginkortasuna eta irakaskuntza elebiduna Euskal Herrian.Eficacia educativa y enseñanza bilingüe en el País Vasco*. Vitoria/ Gasteiz, HAEE- IVAP.

IDIAZABAL, I. & Larringan, L.M. 1997, «Transfert de maitrises discursives dans un programme d' enseignement bilingue Basque-espagnol», A.I.L.E. (Acquisition et Interaction en Langue Etrangère), 10 (1997) 107-126.

IDIAZABAL I. & LARRINGAN, L.M. 2004, «La competencia discursiva: una noción clave para la didáctica de las lenguas y la didáctica del plurilingüismo», in A. M. Lorenzo, F. Ramallo & X.P. Rogríguez-Yanez, wd., *Bilingual Socialization and Bilingual Language Acquisition: Proceedings from the Second University of Vigo International Symposium on Bilingualism,* 2002. Vigo, Servizo de Publicacións da Universidade da Vigo.

INTXAUSTI, J. 1990, *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioa.

LAMBERT, W.E. & TUCKER, R. 1972, *Bilingual Education of Children. The St. Lambert Experiment,* Rowley, MA, Newbury House.

LARRINGAN, L.M. 2010, «Testua, testu-generoa eta hizkuntza ikas/irakaskuntza», *Euskera* 2010:2.

ISEI-IVEI, 2005, *Euskararen B2 maila. Derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran (DBH4)* http://www.isei-ivei.net/

ISEI-IVEI, 2007, *Euskararen B1 maila Lehen Hezkuntzan*. http://www.isei-ivei.net/

ISEI-IVEI, 2008, *PISA 2006 ebaluazioaren azken txostena. 15 urteko ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Proiektua Zientzietan, Matematiketan eta Irakurketan. Euskadiko emaitzak* http://www.isei-ivei.net/

MC LAUGHLIN, B. 1984, *Second language acquisition in childhood. Vol.1: Preeschool Children. Vol. 2: School-Age children (2nd Edition)*. Hillsdale, N.J., Erbaum.

MEISEL, J. M., arg., 1990, *Two First Languages: Early Grammatical Development in Bilingual Children*. Dordrecht, Foris.

MEISEL, J. M., arg., 1994, *La adquisición del Vasco y del Castellano en niños bilingües*. Frankfurt am Main, Vervuert.

MEISEL, J. M. 2001, «The simultaneous acquisition of two first languages: Early differentiation and subsequent development of grammars», J. Cenoz & F. Genesee, arg., *Trends in Bilingual acquisition*, Philadelphia / Amsterdam, John Benjamins Publishing Company, 11-41.

MEISEL, J. M. 2004, «The bilingual child», in T.K. Bhatia y W.C. Ritchie, arg., *The handbook of bilingualism*, Oxford, Blackwell, 91-113.

Ministerio de Educación y Ciencia, 1979, *El lenguaje en la Educación Preescolar y Ciclo Preparatorio. Vasco – Castellano*, Servicio de Publicaciones del Ministerio de Educación y Ciencia.

Nafarroako Gobernua, 1992, *Haur Hezkuntza Lehen Hezkuntza Kurrikulo-Dekretua*.

RIES, M.N., HUGUES, J. & SAER, D.J. 1932, *El bilingüismo y la educación, Trabajos de la Conferencia Internacional celebrada en Luxemburgo del 2 al 5 de abril de 1928, organizado por la Oficina Internacional de Educación de Ginebra*. Madrid, Espasa Calpe.

ROULET, E. 1980, *Langue maternelle et langues secondes. Vers une pédagogie intégrée*, Paris, Hatier.

SIERRA, J. & OLAZIREGI, I. 1989, *EIFE 2. La enseñanza del euskera: la influencia de los factores*, Vitoria/Gasteiz, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

SIERRA, J. & OLAZIREGI, I. 1990, *EIFE 3. La enseñanza del euskera: la influencia de los factores,* Vitoria/Gasteiz, Servicio central de publicaciones del Gobierno Vasco.

SCHNEUWLY, B. & THÉVENAZ, Th. 2006, *Analyses des objets enseignés. Le cas du français,* Bruxelles, De Boeck.

SCHNEUWLY, B. & DOLZ, J. prentsan, *Des objets enseignés en classe de français. Le travail de l'enseignant sur la rédaction de textes argumentatifs et sur la subordonnée relative*, Rouen, Presses Universitaires de Rouen.

THÉVENAZ-CHRISTEN, T. 2005, *Les prémices de la forme scolaire. Etudes d'activités langagières orales à l'école enfantine genevoise,* Université de Genève, Thèse de Doctorat.

VYGOTSKI, L.S. 1934/1997, *Pensée et langage*. Paris, La Dispute.

WOKUSCH, S. 2008, «Didactique intégrée des langues: la contribution de l'école au plurilinguisme des élèves», Babylonia, 1 (2008) *La didactique intégrée des langues: expériences et applications*.

ZALBIDE, M. 1998, «Normalización lingüística y escolaridad: un informe desde la sala de máquinas», Revista Internacional de Estudios Vascos, 43, 2, (1998) 355-424.

*** Eskolako material didaktikoen erreferentziak**

Askoren artean, 1993, *Haurtxoa Bat, Gidaliburua Haur Hezkuntza 3 urte*. Donostia, Elkar-GIE.

Askoren artean, 1993, *Haurtxoa Bi, Gidaliburua Haur Hezkuntza 4 urte*. Donostia, Elkar-GIE.

Askoren artean, 1993, *Haurtxoa Hiru, Gidaliburua Haur Hezkuntza 5 urte*. Donostia, Elkar-GIE.

Askoren artean, 2001, *Urtxintxa. Haur Hezkuntza 5 urte, Irakaslearen gidaliburua*, Donostia, Elkarlanean-Ikastolen Elkartea.

Askoren artean, 1990, *Santillana Superliburuak*, Madrid, Santillana.

FELIPE, M. & MARTIN, K. 1993, *Lea Balea, 5 urte, Gida,* Bilbo: Ibaizabal Argitaletxea.

Giltza-Edebé, 1995, *Mamua, Haur Hezkuntza 3 urte. Gidaliburua,* Sondika, Giltza-Edebe Taldea.

Giltza-Edebé, 1995, *Tximinoa, Haur Hezkuntza 4 urte. Gidaliburua,* Sondika, Giltza-Edebe Taldea.

Giltza-Edebé, 1995, *Galtzagorri, Haur Hezkuntza 5 urte. Gidaliburua,* Sondika, Giltza-Edebe Taldea.

Testua, testu-generoa eta hizkuntzaren ikas/irakaskuntza

LARRINGAN ARANZABAL, Luis Maria
Euskal Herriko Unibertsitatea

Sarrera data: 2009-10-30
Onartze data: 2009-11-26

Euskera. 2009, 54, 2-1. zatia, 505-539. Bilbo
ISSN 0210-1564

Egun, "testua", "testu-generoa" kontzeptuak oso erabiliak dira hala hizkuntz deskripzioetan, nola hizkuntzen irakaskuntzan. Halere, zer diogu "testua" diogunean? Zer diogu "testu-genero" diogunean? Zein da bi nozio horien pertinentzia deskriptiboa? Zer erlazio dago bi horien artean? Zer zerikusi du hizkuntz(ar)en ikas/irakaskuntzarekin? Galdera horiei erantzute aldera, testu-hizkuntzalaritzaren eta, bereziki, Interakzionismo Sozio-Diskurtsiboaren (ISD) ekarpenetara jo dugu. ISDren ildotik, hiztunak mintzaira-ekintza bat gauzatu nahi duelarik, testua osatzea du bide; baina, hortik sortutako testua, ez da "zer" linguistikoa, komunikaziokoa baizik, errealitate konplexua, zeren testuan testuinguruko zenbait faktorek hartzen du parte, besteak beste, egoerazkoak eta sozio-historikoak, hots, sozio-kulturalak. Eta honek badu ondoriorik: faktore horiek testuaren "konfigurazioa" eragiten dute. Testua, ezinbestean dugu testu-molde bateko. "Testua" eta "generoa" bi kategoria horien arteko erlazioak eta gorabeherak derrigorrezko baldintza dira testu enpiriko baten estatusaren eta dimentsio sozialaren berri emateko. Kontuan izan beharrekoak dira testuaren ulermenerako eta ekoizpenerako. Ohar hauek, hizkuntzaren irakaskuntzan diharduten entzat pentsatuak daude, batik bat.

Hitz-gakoak: Mintzaira, gramatika, testua, testu-generoa, hizkuntz irakaskuntza, interakzionismo sozio-diskurtsiboa

Los términos "texto", "género de texto", aparecen con mucha frecuencia tanto en la descripción lingüística como en la enseñanza de las lenguas. No obstante, conviene saber cuál es la pertinencia descriptiva de cada uno, y las relación existente entre ellos. Por nuestra parte, entendemos que la aportación de la lingüística textual y, en especial, la del Interaccionismo Socio-Discursivo nos pueden ayudar al esclarecimiento de las dos cuestiones planteadas. De acuerdo al ISD, el texto es la materialización de una acción de lenguaje. Ahora bien, el texto -paradójicamente- no es una entidad lingüística, sino una unidad comunicativa, praxeológica, lo que equivale a decir que los factores contextuales forman parte de la configuración del texto, donde éste queda asociado al momento socio-histórico de la producción, pero también inscrito, necesariamente, en un género dado. En el texto, tropezamos con el género; en el género, tropezamos con el texto. Ambas categorías deben abordarse de forma conjunta a la hora de establecer la dimensión composicional de los textos. Estas reflexiones están orientadas a los enseñantes de lengua.

Palabras clave: Lenguaje, gramática, texto, género de texto, enseñanza de la lengua, interaccionismo socio-discursivo

Les termes « texte » et « genre de texte » reviennent très souvent aussi bien dans la description linguistique que dans l'enseignement des langues. Néanmoins, il convient de savoir quelle est la pertinence descriptive de chacun et la relation existante entre eux. Pour notre part, nous comprenons que l'apport de la linguistique textuelle, et en particulier celui de l'Interactionnisme Socio-Discursif, peut nous aider à éclaircir les deux questions posées. Selon l'ISD, le texte est la matérialisation d'une action du langage. Or, paradoxalement, le texte n'est pas une entité linguistique, mais une unité communicative, praxéologique, ce qui revient à dire que les facteurs contextuels font partie de la configuration du texte, où ce dernier est associé au moment socio-historique de la production, mais aussi inscrit nécessairement dans un genre donné. Dans le texte, nous rencontrons le genre ; dans le genre, nous rencontrons le texte. Les deux catégories doivent être abordées ensemble au moment d'établir la dimension compositionnelle des textes. Ces réflexions sont orientées vers les enseignants de langue.

Mots-clés: Langage, grammaire, texte, genre de texte, enseignement de la langue, interactionnisme socio-discursif.

The terms "text", "text genre", appear with great frequency both in the linguistic description as well as in the teaching of languages. Nevertheless, it is convenient to know what is the descriptive relevance of each term, and the relationship between them. As far as we are concerned, we believe that the contribution of the textual linguistics and, in particular, the Socio-Discursive Interaction that can assist us to clarify the two issues raised. According, to the SDI, the text is the materialisation of a language action. But, paradoxically, the text is not a linguistic entity, but a communicative unit, albeit praxeological, which is to say that that the contextual factors are part of the configuration of the text, where the former becomes associated to the socio-historical moment of production, but also by necessity, written in a given genre. In this text, we stumble over the genre; and in the genre, we stumble over the text. Both categories must be addressed jointly at the moment of setting the compositional dimension of the texts. These reflections are aimed at language teachers.

Keywords: Language, grammar, text, text genre, language teaching, socio-discursive interaction.

Sarrera

Lerro hauen helburu nagusia testua eta testu-generoa kontzeptuen espazio deskriptiboa eta pertinentzia didaktikoa argitzea da. Zer diogu "testua" diogunean? Zer diogu testu-genero diogunean? Zein da bi nozio horien arteko erlazioa? Zer zerikusi du hizkuntz(ar)en ikas/irakaskuntzarekin?

Baina, beste askotan gertatzen den bezala, lanari ekiterakoan beste kontzeptu batzuk ere –hurbileko mugakideak izanik- kontuan hartu beharra gertatu zaigu. Egia esan, gabiltzan arazoan, ezin saihestu izan dugu eskema osoagoa, honako hauxe hain zuzen: "*Mintzaira <> gramatika <> testua (generoa) <> diskurtsoa (mota) <> hizkuntzen ikas/irakaskuntza*".

Horrela, lau erlazio-sail egin ditugu, sail bakoitzean hiru nozio bilduz:

a.— "Mintzaira - gramatika -ikas/irakaskuntza"
b.— "Mintzaira - testua – ikas/irakaskuntza"
c.— "Mintzaira - testu-moldea – ikas/irakaskuntza
d.— "Mintzaira – diskurtsoa (mota) – ikas/irakaskuntza

Guk, bereziki, b) eta c) sailetan dugu interesa. Horiexek dira hornituenak eta garatuenak. Dena den, iruditu zait a) sailaz ere zerbait esatea komeniko dela bi arrazoirengatik: gainerakoetarako sarbide delako, batetik; eta bestetik, izan ohi duen itzalagatik. Laugarrena, hots, "mintzaira – diskurtsoa – ikas/irakaskuntza" saila beste baterako utzi da, ez garrantzirik ez duelako, haren garatzeak luzeegi joko zuelako baizik.

Lan honek, sarrera honetaz gain, hiru atal ditu (1, 2, 3 zenbakiz markatuak), sail bakoitzeko bana; azken atalean (4.ean) zenbait gogoeta biltzen dira, konklusio gisa edo. Atal bakoitzak, azkenekoak izan ezik, bi azpiatal ditu nozio bikoteen arabera. Hauek dira lehenbizikoaren bi azpiatalak: "mintzaira-gramatika" (1.1), eta "gramatika-irakaskuntza" (1.2). Bigarren atalekoak, berriz, hauok: "mintzaira-testua" (2.1), eta "testua-irakaskuntza" (2.2). Beste hauek hirugarrenekoak: "mintzaira – testu-generoa" (3.1) eta "testu-generoa – irakaskuntza" (3.2). Azpi-atalaren barruan, zenbait puntu ager daitezke.

Arestian esan bezala, testua eta testu-generoa ditugu hizketa-gai; hizkuntzaren ikas/irakaskuntza da helburu pedagogikoa.

1. Mintzaira-Gramatika-Hizkuntzaren ikas/irakaskuntza

Esan bezala, lehenbizi mintzairaren eta gramatikaren arteko "toles ezkutu" baten berri ematen da; ondoren, zerbait esango da gramatikak hizkuntzen irakaskuntzan izan duen -eta oraindik ere baduen!- presentziaz eta pisuaz.

1.1. Mintzaira eta gramatika

Mintzaira, jakintza askoren azter-objektu izan ohi da, baina, dakigunez, objektu behagarri beraren gainean, muga-barruti, hots, "espazio deskriptibo" ugari eta guztiz bestelakoak burutu daitezke. Muga-barruti horietako bat gramatikarena da. Hemen gramatika diogunean, esaldia edo perpausa oinarri duenaz ari gara, eta alderdi formaletara mugatzen denaz.

Mintzairaren eta gramatikaren arteko harremanak, bestalde, askotan izan dira mintzagai eta eztabaidagai.

Gramatika jakintza da, arau jakinen gainekoa; mintzaira, berriz, erabilera eta komunikazioa da batez ere. Eta bi horien artean -hots, gramatikaren (jakintzaren) eta erabileraren artean ez dago zuzeneko "segidarik" edo loturarik; esan gura da, ez dagoela automatikoki batetik bestera pasatzerik; gramatika jakiteak ez du erabilera segurtatzen.

Egin dezagun konparazio bat. Har dezagun irratigailua. Gauza bat da irratigailuaren alderdi teknikoaren eta barne funtzionamenduaren *jakintza* izatea. Teknikoki nola funtzionatzen duen jakitea, alegia. Besterik litzateke, ostera, irratigailuaren halako edo holako erabilera egitea: haren programazioa egitea, edukiak finkatzea, erabilera soziala zehaztea...Erraz aditzen da bi alderdi horien artean ez dagoela bi-unibokotasunik, jarraipenik. Horrela, irratigailuaren osaera teknikoa nolabaiteko kaxa beltza izan daiteke haren erabiltzailearentzat.

Baina, mintzairaren kasuan, besterik gertatzen da: mintzaira, jatorrizko hiztunarentzat behintzat, ez da kaxa beltza, ez da jakintza (teknikoa). "Ezagutzen du" haren barne funtzionamendua. Jatorrizko hiztunarentzat, bere hizkuntzaren erregelak eta mekanismoak "gardenak eta agerikoak" dira: eskuragarri ditu, eta aplikatzen ere ditu.

Gauzak horrela, bidezkoa da ondoko galdera filosofikoa egitea: Zertako balio du batek zer egiten duen *jakiteak*, alegia, jakintzak, baldin eta *jakintzak hori gabe* ere ederki moldatzen baita? Zein da gramatikaren funtzioa? Jakintza horrek zer gehitzen dio erabilerari?

Mintzairaren izaerak berak nahastu egiten gaitu: dimentsio "paradoxikoa" errepara dakioke. Esaten da mintzaira sistema-arauez dagoela hornitua, barne-arauen esanetara dagoela, barneko eta berezko legeen arabera funtzionatzen duela. Baina, hori esan eta beste hau ere gehitu beharra dago: gizakiak ez du mintzaira hori bere horretan eta besterik gabe onartzen. Bere erregelak ere ezarri nahi dizkio, kanpotikoak eta beste izari batekoak direnak, hain zuzen. Gizakiak mintzairarekiko "ardura" eta "arreta" erakusten du. Babestu eta zaindu –kontrolpean eduki– nahi du mintzaira, mintzairaren artzain eta jagole da. Ez du hura desbidera dadin gura. Eta hori "razionalitate" premia baten aitzakian egiten da, kaosik gerta ez dadin. Gizakiak bere "ukitua" ezinbestean sartzen du mintzairaren barnean. Praktika batzuk lehenetsi eta hobetu egiten ditu, beste batzuk gaitzetsi, eta hori inolako araurik urratu barik. Horrela, mintzaira erabat instrumentalizatua, mediatizatua, ageri zaigu. Ezinezko da mintzaira zuzenean harrapatzea! Ondo erreparatuz gero, bada hor, beti hortxe, mintzaira den horretaz irudikapen selektibo eta partzial bat. Gain-kodetze bat, hain zuzen.

Jakina, bi tentsio guztiz bestelako elkartzen direlarik, kortazirkuitua edo zirkuitolaburra gertatzen da. Dimentsio sozialeko tentsioa kontuan ez hartzeak isats luzea du ondorio gisa, eta korapilo eta buruhauste askoren azalpenerako eta askabiderako giltza da. Guk erlazio paradoxikoa deitu dugu. Mintzairaren dimentsio soziala, horra.

Gertatzen da demokrazian bezala. Demokrazia-sisteman hiritar orok hitz hartzeko, iritziak izateko **"berdintasun potentzial"** bera du. Baina gero, errealitatean, "**desberdintasun efektiboa**" da nagusi: hots, **ez-berdintasuna** da nagusi hiritar horrek bere iritziak eta abiaburuak adierazteko dituen konpetentziei dagokienean.

Halatan, gramatikaren ikas/irakaskuntza, besterik badirudi ere, ez da, demagogikoki mintzatuz, zerbait "berezkoa", "erraza", edota "herritar guztien gustukoa"...

Mintzaira bide neketsua gertatzen zaio ez bakarrik arrotzari, baizik eta jatorrizko hiztunari ere. Batzuetan neurriz gaineko pozetan ari da, eta, bestetzuetan, ikaragarrizko porrotetan ari da hiztuna. Mintzaira indiferentea da hiztunekiko, baina hiztunak (giza taldeak, klaseak) ez dira indiferenteak mintzairarekiko. Distantzia hori da paradoxaren abiaburu.

1.2. Gramatika eta hizkuntzen irakaskuntza

Hizkuntzaren irakaskuntzaren historiaren berri duenak ondo daki gramatikak hizkuntzaren ikas/irakaskuntza programetan izan duen presentziaz eta zamaz, bai metodologian eta bai edukiak edo syllabusa osatzerako orduan.

Gutxienez hiru garai bereiziko dira, nahiz eta, beharbada, justuago litzatekeen eredu edo planteamendu esatea: a) garai edo planteamendu klasikoa; b) planteamendu komunikatiboaren garaia; c) egungo kontestualizazio eta planteamendu berriagoak, testuarena, testu-tipologiarena, diskurtsoarena, hizkuntz aniztasunarena, merkatuko premia berriena...

Hizkuntzaren irakaskuntza tradizionalak, hots, klasikoak gramatika izan du bere oinarri, eta, maiz, baita jomuga ere. Izan ere, hizkuntza ikastea xede-hizkuntzako gramatikako entitate ezberdinak apur-apurka jasotze gisa ikusi izan zen garai batean. Eta hizkuntza irakaslearen eginkizun pedagogikoa, azken batean, gramatika irakastea izan zen, eta ikasleen hutsak zuzentzea. Eredu horretan kodearen organizazioari buruzkoak izan ohi dira hizkuntzaren irakasleak batez ere eskaini izan dituen jakintzak. Egiturak lantzea hizkuntza lantzearen baliokide jo izan da (cf. Nunan 1995).

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran -gurean zerbait beranduago!- hizkuntz irakaskuntzaren iraultza antzeko bat gertatu zen. Halatan, hizkuntza "hizkuntza bizi" gisa irakatsi beharrak, hizkuntzak komunikatzeko tresna gisa jotzeak, aldaketak ekarri zituen. Planteamendu komunikatibo deitutako hori benetan izan da planteamendua, syllabusen eta metodoen berridura baino zerbait zabalagoa eta osoagoa izan baita. Besteak beste, honako aldaketak eragin zituen:

- Komunikazioa eskatzen duten ataza errealak erabiltzea;
- Gramatika-zuzentasunari indarra kentzea;
- Ikaslearen autonomia handitzea;
- Aintzat hartzea materialak, metodoak, ikaslearen helburuak, ikasgelaren soziologia eta beste zenbait faktore. Planteamendu honen ikuspegietako asko zuzenak dira oraindik eta oso pertinenteak.

Prometan eta metodologian ez ezik, mintzairaren teorian ere eragina izan du. Irakaskuntzak, izan ere, ikusi ditu hizkuntza formak gramatika ikuspuntutik ez ezik, komunikazioan betetzen dituzten funtzioei begira ere aztertu behar direla. Eta horren ondotik egin dira ezagutzatik erabilerara pasatzea, sistema linguistiko sintetikotik analitikora, produktutik prozesura, esalditik testura eta pragmatikara, zuzentasunetik egokitasunera, gaitasun linguistikotik gaitasun komunikatibora. Aipatutako igarotze horiei zor zaie neurri batean hizkuntzaren irakaskuntzan aspaldion oinarri teoriko, metodologiko eta didaktikoetan eman den aurrerakuntzarik handiena. (HABE: 1999:17) Baina, zenbaitetan, zalantzak sortu izan dira gramatikaren irakaskuntzaren efektibotasunaz. Gure mugetatik kanpo, gramatikari hizkuntza irakaskuntzan garrantzia kentzeko saioak eta lanak izan dira. Gramatikaren arabera egituratutako syllabusen balioa kolokan jarri izan da. Horren ildotik, gramatiken moldatzeak eta egokitzeak egin dira: irakaslearen gramatika, gramatika laburra, gramatika inplizitua vs esplizitua...

Egun, hirugarrenik, beste urrats bat eman da eta kontestualizazio berri baten aurrean gaude. Faktore eragile ugari dira tartean. Besteak beste: mintzaira-deskripzio berriak, demanda berria, egoera sozio-kulturalaren aldaketa, syllabus-anitzen premia... Beste azter- eta ikas-unitate batzuk ere sartu zaizkigu:

testua, testu-moldeak, diskurtsoa eta diskurtso-motak... Ezin ahantz daitezke Europako Kontseiluak bultzatutako bi proiektuak: *Europako Erreferentzia Marko Bateratua* eta *Hizkuntzen Portfolio Europarra*.

2. Mintzaira-Testua-Ikas/irakaskuntza

Ohiko eskemari jarraituz, bitan banatuko dugu atal hau: aurrena "mintzaira-testua" nozio bikotea ikusiko da; ondoren, "testu-irakaskuntza".

2.1. Mintzaira eta testua

Itzulinguru luzetxoa egin dugu, baina komenigarria delakoan egin dugu, sail horrek erro sakonak baititu boteak gure artean. Gatozen orain gure zuzeneko gaira, gatozen testura eta testu kontuetara.

Neke handirik gabe deskriba daiteke zein den perpausak duen barne-egitura, hots, erraz asmatzen da zein den perpausa osatzen duten atalen arteko hierarkia-egitura, baina ezinezkoa da beste horrenbeste egitea testuarekin. Izan ere, ez dago gorago jokatzerik. Zergatik? Erantzungo da perpausa (frasea) modu edo eratze linguistiko askea dela banaketari dagokionez. Perpausa, Benvenisterentzat, ez da gorago integra daitekeen zerbait, bere gainetatik ez baitago beste osotasunik. Proposizio-multzo bat (= diskurtsoa edo berbaldia) ezin daiteke goragoko multzo (klase) batean integratu. Honela dio autoreak:

> De ahí que la proposición no pueda ingresar como parte en una totalidad de rango más elevado. Una proposición puede solamente predecir o seguir a otra, en una relación de consecución. Un grupo de proposiciones no constituye una unidad de un orden superior a la proposición. No hay nivel lingüístico más allá del nivel categoremático. (Benveniste, 1974:128).

Baina Benveniste ez da hor geratzen. Haren ustetan, ez dago perpausarik jaulkitze unetik kanpo, perpausa hura esaten den momentuari lotua dago. Berriz ere bere hitzak ekarriko ditut:

> "Con la frase es franqueado un límite, entramos en un nuevo dominio. (...).
>
> La frase, creación indefinida, variedad sin límite, es la vida misma del lenguaje en acción. Concluimos que con la frase se sale del dominio de la lengua como sistema de signos y se penetra en otro universo, el de la lengua como instrumento de comunicación, cuya expresión es el discurso.
>
> (...)
>
> Cuando el lingüista intenta por su parte reconocer los niveles del análisis, hace un recorrido inverso (al del hablante), a partir de las unidades elementales, hasta fijar en la frase el último nivel. Es el discurso, actualizado en frases, donde la lengua se forma y se configura. Ahí comienza el lenguaje. Podría decirse, calcando una fórmula clásica: nihil est in *lingua* quod non prius fuerit in *oratione*." (Benveniste, 1971 in 1974: 128-130).

Argi dago: azter-unitate maila gorena perpausa edo frasea da. Aitortzen da, era berean, ez dela hor agortzen mintzairaren azterketa, zeren eta mintzaira bere erabileran ere azter daiteke, eta aztertu beharra dago, alegia, "diskurtso" (autorearen hitza erabiliz) gisa aztertu beharra. Baina zati luzeena falta zaigu: unitate berri hau zehaztea.

Zein da, bada, testua nozioaren espazio deskriptiboa? Zein haren balio interpretatiboa? Zein da nozio honen pertinentzia? Zer erlazio du mintzairarekin eta zer lotura hizkuntzaren ikas/irakaskuntzarekin?

Galdera horiei erantzuteko, bi hurbilketako ekarpenak ekarriko ditut: a) lehenbizi, testu-teoriaren -testu-hizkuntzalaritzaren- ekarpenak; b) bestetik, Interakzionismo Sozio-Diskurtsiboaren ildotik, Genevan, Bronckart autorearen gidaritzapean egindakoak.

2.2. Testu-hizkuntzalaritzaren ekarria

Testu maila ez da gramatika mailaren segida berean dagoen beste urrats bat, gorago edo legokeena. Testua unitatea, zentzu honetan, ez dago esaldiz

edo perpausez osatua. Ez zaie "fonema-monema hitza-sintagma-perpausa" serieko / saileko unitateei artikulatzen, hierarkizazio horretatik at gelditzen baita. Halatan, testuak dira:

Ospa!
Aho hori..!
Dagoenean bonbon eta bestela hor konpon
Bero, gero!

Testua, baina, modu positiboz ere defini daiteke. Testua, esan bezala, ez da unitate linguistikoa, komunikazio-forma baino. Autonomia komunikatiboa duen unitate txikiena da. Hiru irizpideren arabera definitzen ahal da: a) tamaina gora-behera, testuak biltzen dituen hizkuntza osagaiei nolabaiteko forma errepara dakieke; b) testuak, beti ere, mezu bat bideratzen du; c) testuak komunikazio kontuekin du zerikusia.

Horrela, testuaren esanahia esaldi ezberdinen eta guztien batura baino zerbait gehiago da, hots, testuaren esanahia deskribatzeko ez da aski esaldi bakoitzaren (aleen) eta guztien esanahien besterik gabeko zerrendatze soila egitea. Horrekin esan nahi da testuak baduela "esanahi erantsi bat" perpausetara errenditzen ez dena. Esanahi erantsi hori zedarritze aldera, esaten da, testua, gutxienez, ondoko tasun edo ezaugarri hauen jabe dela: a) testuaren barnean eta berari esker, perpausen desanbiguatzea egin daiteke, testuak bide eta aukera ematen baitu hitzen adiera zehazteko; b) testuari perpausari ez bezalako aurresuposizioak eta inplikazioak errepara dakizkioke; c) testuaren eta esaldiaren parafrasiak eta laburtzapenak guztiz bestelakoak izan ohi dira.

Testuaren esanahia bideratzeko erabilitako operazioak *gaitasun* edo *konpetentzia* mailakoak direla proposatzen du testu-hizkuntzalaritzak. Hau da, operazio horiek hizkuntz sistemaren barrukoak direla. Zentzu honetan, testu-mailako gertakariak mintzaira-gaitasunaren osagai lirateke. Halatan: a) testua osatzen duten perpausen interpretazioa superegitura semantikoaren barruan egingo litzateke; b) testuaren eta bera osatzen duten perpausen ar-

tean bateragarritasun baldintzak leudeke; c) testua osatzen duten segmentoen artean baliokidetza-erlazioak atzeman daitezke.

Beaugrande eta Dressler (1972) autoreek testua komunikazio-gertaera bezala definitzen dute, testutasunak ondoko zazpi ezaugarri hauek biltzen dituela: kohesioa, koherentzia, kausaltasuna, onargarritasuna, intentzionalitatea, informatibitatea, eta intertestualitatea. Aurreneko biak kontzeptu "izarrak" dira eta testuari begiratzen diote; hirugarrena, hots kausaltasuna, koherentziaren adierazle da. Gainerako lauak, erabiltzaileari egiten diote erreferentzia. Bestalde, ondoko hauek dira testu-komunikazioaren printzipio edo osagai gorenak: eraginkortasuna, eragiletasuna eta egokitasuna.

Nozio horiek guztiak, jakina, metalinguistikoak izanik, oraingoz ez dira linguistikoak. Ahalegin eta lan ugari egin da beroriek hurbilagotik zehazteko eta operatibizatzeko. Efektibitaterik izango badute hizkuntz unitatez hornitu beharra dago.

2.3. ISD-ren ildotiko planteamendua: Bronckart-en ekarpena

Autore honek testuaren teoriari oinarri sendoak eskaintzen dizkio, oro har, mintzairaren funtzionamendua eta izaera aztertzeko, eta bereziki, hala testuaren estatusa zehazteko, nola testu-tipologia arazoa testu teoriaren barnean integratzeko. Bestalde, bereizkuntza ontologikoa (*in re*) defendatzen du testuaren eta diskurtsoaren artean, eta horrek mesede ikaragarria egiten dio hala hizkuntzalaritzari zein didaktikari. Azkenik, oso kontutan hartzen du hizkuntzen ikas/irakaskuntza.

Planteamendu honen kokatze epistemologikoak eta metodologikoak hiru aribide ahalbidetzen dizkigu: a) mintzairaren ekoizpen-arazoa aztertzeko bidea; b) testu-generoei eta diskurtso-tipologiei ekiteko bidea; c) hipotesi tipologikoak ikas/irakaskuntzan (eta hezkuntzan eta psikologian) izan dezakeen eragina aztertzeko aribidea.

Bronckart-en hurbilketa Interakzionismo Sozio-Diskurtsiboa (aurreran-tzean ISD) deitu korrontearen barruan kokatzen da.

2.3.1. *Testuaren estatusa (ISD)*

ISD-ren azterketaren helburuetarik da "benetako hizkuntz praktikak" aztertzea, hau da, mintza-praktika errealak eta kokatuak aztertzea. Saussure (2002) autoreari jarraiki defendatzen da testuak eta diskurtsoak direla hizkuntz zeinuen agertze eta antolatze-leku bakarrak. Ez dago mintzairara zuzenean iristerik, testutik eta diskurtsotik pasatu barik. Bestalde, Vygotski-ren ildotik, postulatzen da testuak eta diskurtsoak giza-garapenerako baliabide direla. Giza-ekintzen egituratze-lanetarako tresna da mintzaira, eta, horrenbestez, emozioen eta/edo ideien transmisioa egitetik haratago doan zerbait.

Gauzak horrela, ISD-rentzat "testuak" (pluralean) giza-talde baten mintzaira-jardueren baliokide enpiriko eta linguistikoak dira; "testua" (singularrean), berriz, mintzaira ekintza baten baliokide enpiriko eta linguistikoa da (Bronckart, 2006b: 139). Azpimarra dezagun: testua produktu edo emaitza soziala da. Testuan hartzen dute lur giza-jarduerek, komunikazio-jarduerek eta beroren arteko denbora/espazioko gorabeherek. Hizkuntza praktikak testuetan bilakatzen dira esanguratsuak.

Bi dira ISD-k eskaintzen dizkigun oinarrizko produktuak: mintzaira-ekintzei buruzko eredua, eta testu-arkitekturaren eredua:

> "Les produits de base de l'ISD son d'une part le modèle de l'action langagiére, qui vise à conceptualiser les conditions syncroniques des textes, et le modèle de l'architecture textuelle". (Bronckart, 2005b, 155)

Gatozen bi ekoizpen-ereduok hurbilagotik zehaztera.

2.3.2.*Testua atzemateko hiru helduleku; mintzaira-ekintzen eredua.*

Eredu honetan testua atzemateko hiru helduleku proposatzen dira, eta, era berean, ekintzen prozesua ere zirriborratzen da. (Larringan, 1998:60-65).

a) Lehen heldulekua: estatus orokorra.

Hauxe da testuari oratzeko lehen heldulekua.

Testua berbazko produkzio-unitatea da, berezko hizkuntz bateko unitatez osatua dago, eta komunikazio-egoera bati lotua; testu eta diskurtso batek, edozeinek, helburua badu eta beti ere solaskidearengan koherentziazko efektua eragin nahi du. (Bronckart, 2004: 47 eta ond.). Ahozkoa zein idatzizkoa izan daiteke, eta luzeagoa edo laburragoa. Hitzezko ekintza baten materializazioa da. Unitate linguistikoz osatua dago, baina, bere horretan, ez da hizkuntz unitate, *komunikazio-unitate* baizik. Nahiko da testuaren planifikazio orokorra, xede-asmoak... begiratzea, konturatzeko faktore linguistikoez gain beste faktore praxeologiko eta kognitibo batzuk ere biltzen dituela:

> "(...) la noción de texto puede aplicarse a toda producción verbal situada, oral o escrita: un diálogo familiar, una exposición oral pedagógica, las instrucciones de uso de un aparato, un artículo periodístico, una novela, etcétera, constituyen textos, de dimensiones que pueden ser muy diferentes, pero que, en cualquier caso, están dotados de características *comunes*. Todo texto está en relación de interdependencia con las propiedades del contexto en el espacio producido; todo texto presenta un modo determinado de organización de su contenido referencial, (...). Cada texto, finalmente, pone en práctica mecanismos de textualización y de asunción de responsabilidad enunciativa destinados a asegurar su coherencia interna. (Bronckart, 1996: 48)

Hartara, elkarrizketa bat, iritzi-artikulu bat, txiste bat, eztabaida bat, saiakera bat... horiek guztiak testuak dira, beste hauek bezalaxe: "*merkealdiak*", "*bidesaria*", *tabakorik gabeko gunea*", "*salgai*"... Testua ekoizpen-unitate eta komunikazio-unitate da.

b) Bigarren heldulekua: estatus tipologikoa:

> "Los textos son productos de la actividad humana y, en este sentido, como hemos subrayado en el capítulo anterior, se articulan con las necesidades, intereses y condiciones de funcionamiento de las formaciones sociales en cuyo seno se producen. Dado que los contextos sociales son diversos y evolutivos, en el curso de la historia se han elaborado "modos de hacer" de los textos o diferentes **clases de textos**. (o.c.: 48)

Beraz, esan dezakegu testuak, komunikazio-unitate orokorrak direla, baina, era berean, formazio soziolinguistikoen jokamoldeetara egokitutako testu-generoetan banatzen direla.

Nolanahi ere, Bronckart-ek testu-generoen sailkapena egiteko, zenbait arazo ikusten ditu: genero bat definitzerakoan irizpide anitz erabil daitezke (helburua, edukia, eta abar kontuan hartuta), lortu nahi den eragin komunikatiboaren arabera genero desberdinak izango ditugu (epikoa, poetikoak, lirikoak...), erabiliko diren euskarrien izaeraren arabera ere sailka daitezke testu-generoak (eleberria, ipuina, artikulua, erreportajea...), eta eduki tematikoaren arabera ere egin daiteke sailkapena.

Horregatik, autore honek oso zaila ikusten du testu-generoen sailkapen bat egitea, oso anitzak direlako eta ezaugarri desberdinak dituztelako. Horregatik, eredu modura geratzen dira *intertestua* deritzan eraikuntza sozio-historikoak:

> "La realización efectiva de una acción verbal, en el marco de una formación social, proviene de la explotación de *formas comunicativas* en uso; en otros términos, necesita recurrir al acervo de los **géneros de texto**, que son constructos históricos. Esos géneros, que se encuentran disponobles en el *intertexto*, se adaptan permanentemente a la evolución de las exigencias sociocomunicativas y conllevan mútiples *indexaciones* sociales. Están organizados en *nebulosas*, de fronteras difusas y móviles, y por lo tanto no pueden ser objeto de una clasificación definitiva." (o.c. 1996:68)

Izenburuan adierazten den moduan, geroago berrartuko dugu eta berenberegi ekingo tipologia kontu honi.

c) Hirugarren heldulekua: testuaren estatus indibiduala

Testuaren azken dimentsioa da, eta baita sortze maila indibidual altuena duena ere. Oso lotua dago estilo indibidualari. Diferentziatze-iturri da.

Genero berekoak izanik ere, eta diskurtso mota desberdinez osatuak egon arren, benetako testu-aleak (testu enpirikoak, alegia) gehiago desberdindu daitezke. Izan ere, testu bakoitzari ezaugarri indibidualak errepara dakizkioke.

"Testu enpirikoa" nozioak berbazko ekoizpen indibiduala eta bakarra izendatzen du. Ekoizlearen arabera, testu konkretuetako zenbait alderdi ederki desberdinak izango dira testu batetik bestera, edota testu-molde batetik molde bereko beste batera, bi testu horiek egile berberarenak izan arren. Gizarteak eskura jartzen dizkion testu-molde bat gidari duelarik ere, ekoizleak aukera linguistiko propioak egin ohi ditu, zertzelada indibidualak testura ditzake. Areago: nekez ditugu bi testu elkarren kopia.

Gatozen ondoren mintzaira-ekintzen ibilbidea / hurrenkera zirriborratzera. Bronckart autoreak **"adoption-adaptation" ("jasotze-egokitze")** nozio bikotea darabil hiztunaren ekintzen-prozesua adierazteko.

Hiztunak, mintzaira-ekintza burutu nahi duelarik, testu bat gauzatu beharko du. Horretarako, lehenbizi testuingurua hartu beharko du kontuan: testu oro testuinguru batean erabiltzen da. Ezinbesteko zaio, beraz, testuinguru horretako parametroei buruzko irudikapen bat egitea (aurreikuspen bat). Irudikapen bat parametro fisikoei dagokie; beste bat, parametro psikosozialei (nortzuk diren partaideak, zein toki soziala...); azkenik, edukiari eta ezagutzei (esatekoei, aurretiaz dituen ezagutzei...) dagokie. Ohar bedi parametro horiek hizkuntzaz kanpotikoak direla, nahiz eta testuan jorratuko diren.

Hurrengo urratsa, testu-moldearen hautatzea litzateke.

Testu-moldea hautatzean, "intertestura" jo beharko du hiztunak, eta erreparatu beharko du testua asma daitekeen eredua duen ala ez duen, eta eredu horiek noraino ezagutzen dituen; erabakiko du horietako zein zaion egokiena, zein testu-eredu duen eskuragarri, holakoetan zein molde den ohikoena. Sarritan, jakina, mota mugatu xamarreko komunikazioetan oso erraz asmatzeko moduko ereduak izango ditu; beste batzuetan ez, ostera.

Zera dio Bajtin-ek:

> "Seul l'Adam mythique abordant avec sa première parole un monde pas encore mis en question, vierge, seul Adam-le-solitaire pouvait éviter totalement cette orientation dialogique sur l'object avec la parole d'autrui". (Bajtin, 1934)

Edota beste hau:

> "En cualquier esfera existen y se aplican sus propios géneros, que responden a las condiciones específicas de una esfera dada; (...). Una función determinada (científica, técnica, periodística, oficial, cotidiana) y unas condiciones determinadas, específicas para cada esfera de la comunicación discursiva, generan determinados géneros, es decir, unos tipos temáticos, composicionales y estilísticos de enunciados determinados y relativamente estables". (Bajtin, 1995 [1929]: 254)

Intertestua komunikaziorako bitartekari bat da, ezin baitu ekoizleak aurretik ezer ez balego gisa jokatu, honetan printzipio sozial batek agintzen baitu.

Gauzak horrela, hiztunak mugimendu bikoitza egiten du: batetik, testu-molde bat hautatzen du, hots, egokien iruditzen zaion testu-molde bat hartzen du; bigarrenik, testu-moldea lagun duelarik, ekintzari dagozkion moldaera eta ezaugarri indibidualak hartaratuko ditu. Testua, azken finean, autore batena da, testuak egile bat du.

Mugimendu bikoitz horren emaitza testu bat da, zeinetan integratzen diren ezaugarri orokorrak, generikoak eta partikularrak. (Bronckart, 1996, 2004).

2.3.3. *Testu enpirikoen barne-osaera*

Aurkeztu berri dugun mintzaira-ekintzen ereduak, mintza-praktiken alderdi psiko-sozialaren edo egoerazkoaren berri ematen digu, baina ez digu ezer esaten testuen barne antolakuntzaz eta egituraz. Eta hori urrunxe gelditzen da benetako testuetatik. Izan ere, testuen barne-egitura, eraketa eta funtzionamendua azalduko duen eredua falta da. Halatan, ISD-ren barruan, 1980 geroztik, saiatu dira testuaren barne egitura edo arkitektura azaltzeko patroi-eredua asmatzen eta jorratzen.

Autoreek hostore edo "hojaldrearen" adibidea baliatu ohi dute **testuaren barne-osaera** azaltzeko. Esaten da, berdin nola hojaldrea ebakitzerakoan geruza desberdinak agertzen diren, testuan ere hiru geruza bereizi ahal direla:

a) Azpiegitura orokorra: berau da testuaren mailarik edo geruzarik orokorrena eta sakonena; haren estatusa ez da linguistikoa, mintzaira (langagière) esparrukoa baizik. Bereizketa horrekin esan nahi da ezagutzazko makro-egiturei dagoeneko mintzaira forma eman zaiela, baina ez forma linguistikorik. Esaterako: "sarrera", "garapena", "konklusio aldia; lehenbizi... bigarrenik.... hirugarrenik; "aurkezpena... azken agurra; marko teorikoa eta metodologikoa, emaitzak eta eztabaida, konklusioak"... gisako formak ditugu; eta horiek guztiak mintza-eskemak dira, "langagières" dira baina ez "linguistiques", hots, zeinu linguistikoz jantzi gabeak.

Azpiegituraren osagaiak dira: a) egitasmo orokorra (xede-asmoen alorra), edo eduki tematikoaren antolaketa; b) diskurtso-motak, hots, testua osatzen duten segmentu-motak eta berorien arteko artikulatze-moduak; c) sekuentzien organizazioa, zeinek zeresan handia duen testu-moldea ezaugarritzeko orduan. Berau dugu edukien lehen antolatze-maila.

Hona kasu birtual bat: Urliak bere burua lanpostu baterako aurkeztu du. Hautagai horri ez dela onartua izan esan behar zaiolarik, nola jokatuko du egileak? Zer jokabide hartuko du? Nola adieraziko dio Urli horri ez dela onartua izan? E-maila bidaliko ote dio? Telefonoz adieraziko? Edota, gutun bat bidaliko? Bestalde, zer bide diskurtsibo baliatuko du? Azalpen bat emango dio? Argudiatuz ekingo dio? Bertsotan esango dio ezetza?

Erabaki horiek berbalitatearen alorrekoak dira, baina ez unitate linguistikoak (hizkuntz zeinuak).

Nunan autoreak bere *Hizkuntzak Irakasteko Metodologia* liburuaren sarreran anekdota bat dakar, argigarri izan daitekeena:

> "Behin batean, Frank Lloyd Wrightek, arkitekto amerikar handiak, bere estudioan sartu eta bere azken proiektua burutu berria zuela iragarri zuen. Zur eta lur, ikasleak ingurutara begira hasi ziren planoen bila, baina ez ziren inon ere ageri. Orduan arkitektoak hala esan zien, "Orain papereratzea besterik ez dut egin behar". *Hizkuntzak Irakasteko Metodologia* urte askotan idazten aritu naizen liburua da -papereratzea izan da arazorik larriena" (Nunan, 1995:13).

Berdin nola arkitektoak, testu-ekoizleak ere bere eginkizunerako aurreideiak biltzen ditu, baina oraindik asko falta zaio, luzeena seguruenik, bildutako eduki hori –"en otra vuelta de tuerca"- gehiago xehetzea, linealtasunak dakarren zatitzea egitea, erredakzioa, alegia.

b) Testualizazio-maila litzateke hurrengo geruza: Testualizazio izeneko geruzan edukiaren bigarren antolatze bat egiten da, beti ere linealitatearen eskakizunei eutsiz. Ber-antolatze honetan, edukia berriz zatitu, urkuldu edo birrindu egiten da, edota teknikoki esanda, diskretizatu, harik eta azken erredakziora iritsi arte. Antolatzaileek edukia banatzen dute, baina baita lotu ere.

Jar dezagun adibide bat:

> "EIRE, Nafar Ateneoa eta Nafar Gobernuko Euskarabidea elkarlanean"
>
> Zazpi Eirekidek hitzaldiak eman zituzten Nafarroako hainbat herritan, 2009ko martxoan eta apirilean. Bi hitzaldi ziklo izan ziren –bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz- eta Nafar Ateneoak eta Nafar Gobernuko Euskarabideak antolatu zituzten , EIREren eta herrietako ordezkarien laguntzarekin.
>
> Jarduera honen lehen urratsak 2007an eman ziren. Orduan, Nafar Ateneoaren Euskal Kultura sailak proiektua aurkeztu zuen unibertsitatearen eta ikerketaren mundua Nafarroako herrietara hurbiltzeko. Egitasmoak bi adar zituen: batetik, "Zientzia, Teknologia, Krisia eta Komunikazioa" izeneko alor zabalaren inguruan hainbat hitzaldi euskaraz eskaintzea, alegia, gai zientifiko eta akademikoak herrietako jendeari modu erakargarri eta argian eskaintzea; eta bestetik, "Nafarroa eta euskara" binomioaren inguruan beste zenbait saio (historia, ahozko tradizioak, toponimia, etab.), baina azken hauek gaztelaniaz, erdaldunak euskararen mundura hurbiltzen laguntzeko.
>
> Proiektuaren beste ezaugarri bat zen, herriek beraiek hautatzen zutela zein hitzaldi ekarri nahi zuten berenera, Ateneoak prestatutako hitzaldi-zerrendaren aurrean. Ziklo bikoitz hau Nafar Gobernuko Euskarabideak onartu eta finantzatu zuen.

> Hizlariak eta gaiak aurkitzeko, Nafar Ateneoak, Juan Karlos Lopez-Mugartzaren ahaleginari esker, gonbidapena egin zion EIRE elkarteari, eta baita beste ikertzaile batzuei ere, bi hitzaldi-ziklo horietan partaide izateko. EIREko zuzendariak eskaintza jaso eta informazioa zabaldu zuen Eirekideen artean proposamenak egin zitzaten. Zazpi Eirekidek aurkeztu zuten beren burua eta hitzaldietarako gai-proposamenak egin (ikus ondokoa). Jarduerak oso ongi hartuak izan ziren herri guztietan." (*Eireka*, 8., 2009: 4.)

Hasteko izenburua eta testu enborra bereizten dira, posizioa eta letra tamaina baliatuz. Izenburuak, laburpen izaki, kohesio-balioa du; banatzeak eta bakantzeak, berriz, edukiaren lehen segmentaketa eragiten dute.

Enborrera eta, edukia paragrafotan banatuta datorkigu. Esan behar da paragrafoa -idatzizko baita gure testua- edukiaren banaketa formalki erakusteko mekanismo dugula. Paragrafoa, beraz, konexio- eta kohesio-mekanismo izan daiteke.

Testua, besteak beste, esaldiz osatuta dago, non informazioa/edukia galdegaia-rema gisa antolatua dagoen. Ondoren, esaldi bakoitzak besteen gainean eragiten du, eta esaldiok beren artean josiak ageri zaizkigu. Gai edo mintzagai nagusi bat ageri zaigu (izenburuan ere aurreratzen dena), baina zenbait azpigai ikutzen dira, gai nagusiari buruzko informazioa eta edukia osotuz.

Kontu honetan, hau da, banatze eta lotze honetan, bi sail ageri dira: konexio-saila eta kohesio-saila. Bi lotura-modalitate ditugu; kohesioari dagokionez, esan behar da nozioen arteko identifikazioa bideratzen duela, batez ere. Konexioari dagokionez, ostera, esan behar da proposizio-egituren eta atalen arteko kateatzea burutzen duela. Ohar bedi hizkuntza unitate bestelakoak ditugula baterako eta besterako. Honelatsu:

Kohesio-osagaiak ditugu: "*Bi hitzaldi-ziklo*" *... bata... bestea; "jarduera honen... lehen urratsak, orduan, egitasmoak... bi...batetik... eta bestetik ...beste zenbait saio azken hauek... proiektuaren... beste ezaugarri bat... ekarri berenera ... Ziklo bikoitz hau... elkarteari... beste zenbait ikertzaileri... bi hitzaldi horietan... hitzaldietarako... jarduerak.."*

Horiek guztiak kohesio-baliabideak dira, bakoitzak ezaugarri propioak baditu ere: izena errepikatzea + artikulua, parasinonimia, sinonimia, mekanismo kataforiko eta anaforikoak... Beren artean sareak osatzen dituzte.

Konexio-osagaiak ditugu: "*orduan, batetik... eta bestetik, baita ... ere, alegia, eta abar, baina;* eta beste baliabide batzuk: *puntuazioa... gidoitxoak...ikus ondoko.. parentesiak...*". Testu-antolatzaile horiek hierarkia-egiturari oratzen diote batik bat, ez nozioen arteko geometriari.

Maiz zaila egiten da bi sail horien arteko bereizkuntza egitea: adibidez, *batetik ... bestetik...*, baina, izatez, bi fenomeno ezberdin dira.

Esan bezala, bi sailak dira isotopikoak, biltzaileak. Biak, alde batetik, edukiaren banatzea eta diskretizazioa eragin ohi dute, eta, bestetik, zati eta atal horien arteko lotura ere bai, bakoitzak bere mailan. Linealtasunak berekin dakarren urkultzea bideratu eta segurtatu ohi dute. Ohar bedi, sail hauetako hizkuntz unitateek ez diela uko egiten propio dagokien izendatze-funtzioari eta gramatikazereginari; "bi" sintagmak kopurua adierazten du (semantika), eta zenbatzaile zehaztua da (gramatikalki). Halaz ere, balio kataforikoa du diskurtsoan zehar.

"Sail isotopikoa" nozio berria da (bigarren aldikoa). Hona bere zedarritzea:

> "En este caso, el término *serie isotópica*, tomado de Greimas (1966), puede ser interpretado según los puntos de vista de la *complejidad* (Nicolis, G. & Prigogine, I. (1994) *La estructura de lo complejo*. Madrid: Alianza Universidad, traducción de A. Klein de la edición original (1987)) como una serie de elementos relacionados a *"larga distancia"*, cuyo efecto organizador no puede ser apreciado a partir del estudio de cada una de las unidades aisladamente tomadas sino a partir de su actividad conjunta: unas segmentando, balizando o discretizando series, paquetes o secuencias de frases; otras uniendo las frases en el interior de estas secuencias. Dicho de otra forma, y utlizando esta vez el lenguaje de la sistemática (Morin, 1977; Atlan, 1979; Le Moigne, 1984; Lerert, 1993), la función, el papel estructurante de los organizadores en la cadena textual es una propiedad *emergente* de la serie como todo y no de sus partes o unidades.

> (...) la introducción del concepto de serie isotópica permite explicar la emergencia de las nuevas funciones y formas que estas unidades toman a nivel discursivo ("segmentar" el texto en *segmentos discursivos*, "balizar" las *secuencias* que componen estos segmentos; "empaquetar" en estas secuencias las diferentes *fases* de frases; "unir" las frases de estas fases). Además, permite también, visualizar la re-organización lingüística del contenido en unidades de niveles jerárquicos distintos; si vamos de arriba abajo, de texto a la frase, tenemos: (*textos* > *segmentos discursivos* > *secuencias* > *fases* > *frases*). Y si vamos de abajo arriba, tenemos: "fonemas < palabras < frases <; lo que permite a su vez situar y plantear mucho mejor que con el modelo anterior el problema del paso "crítico" de la frase (territorio de la gramática tradicional) y las unidades textuales (tradicionalmente lugar de estudio del planteamiento comunicativo, pragmático, o verbal pero no lingüístico. (Alonso & Bronckart, 2007, 44-45)

c) Ardura enuntziatiboa


Ardura enuntziatiboa bideratzen duten mekanismoak (modalitateak, modalizazioa, ahotsak...). Koherentzia pragmatikoari estuki lotuak daude. Zeresan handia dute eragin nahi den zentzu-efektuan. (Bronckart, 1996, 120). Ez dute edukiaren antolamenduan parte hartzen. Alderdi honi dagokionez, hasi-masietan gaude oraindik, lehen urratsak ematen. Egoera hori larriagoa da euskarari dagokionean, ez baitira lehen urratsak ere eman. Maila edo geruza hauxe da azalekoena. Goiko testuan ez dugu adibide argirik; modalizazio urriko testua da. Baina ikus hurrengoa:

> -"Bai, jakina. Baina, adibidez, zure jatetxe eder hori badela jakiteko ere, norbaitek eman beharko dit, ba, horren berri ezta? Ez al zaizu aldrebes samarra iruditzen?
>
> -Bai, egia esan badirudi lehengo garaiko kontua dela. Baina, izan ere, publizitatearen kontu hori enpresa handientzako kontua dela iruditzen zait"
>
> Enuntziazio ardura eta modalizazio markatzaileak ditugu: "*jakina, bai, egia da, alde batetik; eta bestetik, beharko, iruditzen zait, badirudi...*"

"Son menos dependientes de la linealidad y de la progresión textuales y están dirigidos al destinatario, explicitan las voces que se expresan en el texto y su relación con el agente productor. A su vez, por medio de los recursos sutiles y lingüísticamente muy diverosos de la modalización, se toman las tomas de posición, las evaluaciones y las apreciaciones que estas voces introducen sobre el contenido temático." (Bronckart, 2007:140); ikus baita Bronckart, 1996:130-133; Alonso eta Bronckart :2007: 44-45)

1. IRUDIA

TESTUEN BARNE-EGITURA (ARKITEKTURA)



2.4. Testua eta ikas/irakaskuntza

Testua, egia esan, presente egon da hizkuntza irakaskuntza tradizionalean. Euskararenean barne. Hizkuntzaren gaineko lekzioek, askotan, testu bat izan dute abiaburu eta abiapuntu, autore "on" batena hain zuzen ("praelectio"). Areago oraindik, maizetan irakaskuntzaren ardura bat "estiloa" bultzatzea izan da, beste hitzetan esanik, estiloa duen testu bat burutzea.

Baina oraingo honetan, jakina, testuaren adiera modernoagoaz edo teknikoagoaz ari gara.

Euskararen programetan eta testuliburuetan jo du testuaren kukuak. Hasiera batean kokilduta bezala, geroago indar handiagorekin.

Testuaren sartzeak eta testuaren gaineko ikuspegia onartzeak hizkuntza programetan (eta syllabusean) aldaketa nabarmenak ekarri ditu: testu hau osatu, paragrafoak ordenatu, testu-motak asmatu eta igarri, edukiaren harilkatzea asmatu, ideia nagusia eta bigarren mailakoak atera... gisa horretako kontsignak ageri dira.

Era berean, testuaren asmoaz, testuinguruaz, mintzaira-ekintzaren parametro fisikoez eta psiko-sozialez mintzatzen da. Orobat, igorlea, hartzailea, solaskidea, enuntziatzailea.... hitz arruntak dira gure artean. Bestalde, saialeku paregabeak gertatu dira ondoko deskripzio-alorrak: diskurtso-ainguraketa, antolamendua, kohesio-baliabideak, konexio-mekanismoak, anafora-sistema, testu-loturak, lokailuak, testu-antolatzaileak, diskursto-markatzaileak, eta abar.

Badakigu jakin testuaren ekartzea beti ez dela izan testu-pedagogia praktikatzeagatik, baizik eta benetako testuak erabiltzearren, testuaren inguruan –eta aitzakiara– beste alor batzuk lantzeko, hain zuzen. Testua, besteak beste,

- morfemen, atzizkien... harrobi
- irakurketa bultzatzeko aitzakia
- zenbait azterketarako aitzakia
- mundura begira dagoen hizkuntzalaritza

- testu osoago baten atala
- dispositibo didaktikoa

bilakatu da.

Gure artean eta gureaz, testuaren inguruan egindako hizkuntz deskribapen-lanen eta proposamenen berri zehatza nahiez gero, jo Alonso eta Bronkart ala Plazaola, (2007) liburuko, "ANEXO" B izeneko 6., 7. eta 8. tauletara. (59-61.or)

Testuaren gaineko gorabeherak, eskolatik kanpo ere pil-pilean daude, hala komunikazio alorrean (kazetaritza...), nola erakundeetan (administrazioan, hizkera teknikoetan...). Hurrengo puntu batean aipatuko dira eremu horietan jorratutako testu-genero batzuk.

3. Mintzaira, testu-generoa eta hizkuntz ikas/irakaskuntza

Bestetan bezala, aurrena mintzaira eta testu-generoa izango ditugu mintzagai; ondoren, aldiz, testu-generoa eta irakaskuntza.

3.1. Mintzaira eta testu-generoa

Mintzaira, testu eta diskurtso bidez datorkigu, eta testuak, berriz, generotan. Generoak beti ere berbazko ekoizpen ororen saihets ezineko aribideak dira: testu orori genero bateko edo besteko izatea dagokio. Benetako mintzapraktika aztertzerakoan testua eta generoa funtsezko kategoriak dira, banaezinak. Bi horien arteko harremanak, azken batean, testuaren osaeraren edo konposizio-dimentsioaren isla dira (Bronckart, 1996,:74). Horrela, "Testu librea" espejismo bat litzateke: testu librearen eta genero bateko testuen erredakzioaren arteko ezberdintasunak azalekoak dira, ezen patroi estilistiko eta kulturalak (intertestua), azken batean, berberak izan ohi baitira batentzat eta bestearentzat. Hau da, ez dago molde edo genero bat testu libreentzat eta beste bat "hala proposatutako testuentzat".

Zer esan testu-generoen sailkapenaz? Antzinakoa da testuak sailkatzeko joera, eta zenbaitetan premia ere bai. Antzinakoa izanagatik, kontuak nahiko "gordin" daude. Zergatik? Testuak, esan bezala, komunikazio-unitateak dira, eta komunikazio horretan sortutako testu-tankerak, testu-antolamenduak... ugariak eta guztiz bestelakoak izan ohi dira. Komunikazio-moduak adina.

Baina horrek ez du esan nahi nahastea eta antolaketarik eza dela nagusi. Gizartean existitzen diren testu-praktikak ez daude besterik gabe metatuak, elkarren alboan eta modu kaotikoan pilatuak, modu organikoan eratuak baizik. Halatan, testu batzuk beste batzuk baino antzekoagoak dira. Edota desberdinagoak, zeren testuen arteko heterogenotasuna dibertsitatea pentsatzeko ere lanabes da. Adibide batzuk emanez gero, ez dugu traba handirik izaten zein den antzekoago eta zein diferenteago igartzeko. Intuitiboki behintzat. Izan ere, testuak produktu historikoak ere badira, historian zehar eginkizun jakin batzuk betetzeko gizataldeek sortuak. Horrek bere arrastoa uzten du testuan. Eginkizun horiek eta gizataldeen presentziak erabakitzen dute zer-nolako testua sortuko den hiztunak komunikatzen direnean. Eta horietako testu-molde askori izenak ere eman zaizkio: indexatuak agertzen zaizkigu, horra. Jakina, izenaren eta izanaren arteko lotura zein den jakin behar.

Testu-tipologia nozioa komunikazioko kategoria arrunt gisa aztertu da (*folk linguistics*), lausoa dudarik gabe, baina ustez objektibagarria dena. Eta ahalegin handiak eta ugariak egin dira, intuitiboki ez ezik, modu zientifikoagoan eta objektiboagoan deskribatzeko eta kontzeptualizatzeko ere. (Beacco, 2004):

Testu-generoen tipologizazio zehatza ez da batere erraza : hala sailkatze-jarduera bera nola irizpideak aldatu egiten dira; are, testuak eurak ere aldatu egiten dira eta berriak sortzen. Ahaleginak ahalegin eta proposamenak proposamen ez da adostasunik.Tipologiak, historian barrena, ugaritu egin dira eta deiturak ere guztiz bestelakoak dira sarritan. Sailkatze-zurrunbiloan erortzeko arriskua erreala da. Schnewly-k (1987) berrogei bat proposamen biltzen ditu, eta zazpi irizpide edo oinarri bereizten. *Langue Française* 1987, 74 zenb. diskurtsoen tipologiari dedikatua dago; Petitjean (1989) eta Maingeneau au-

toreek ere tipologizazioa bertan behera uztea proposatzen dute; Barthes ere, ezezkor agertzen da.

Volochinov-Bajtin autoreenak dira tipologiaren aldeko aurrekari baikorrenak eta arrakastatsuenak. Bajtin-ek funtsezko abiaburu bat enuntziatzen du testu teoriarentzat:

> "Apprendre à parler, c'est apprendre à structurer des énoncés (parce que nous parlons par énoncés et non par propositions isolées et, encore moins, bien entendu, par mots isolées). Les genres du discours organisent notre parole de la même façon que l'organisent les formes grammaticales (syntaxiques)." (1984: 285.or)

Berbaldi edo « diskurtso-generoak » « enuntziatu egonkorrez osatutako » entitatetzat jotzen ditu. Areago, beroriek duten norma-indarra aldarrikatzen du:

> "Les genres du discours, comparés aux formes de langue, sont beaucoup plus changeants, souples, mais, pour l'individu parlant, ils n'en ont pas moins une valeur normative: ils lui sont donnés, ce n'est pas lui qui les crèe. C'est pourquoi l'énoncé, dans sa singularité, en dépit de son individualité et sa créativité, ne saurait être consideré comme une combination absolument libre des formes de langue. » (o.c.1984: 287)

Honez gero, komeni da Bajtin-en beste hipotesi bat ere ekartzea hona, hizkuntz unitateek "*tout de l'énoncé fini*" delakoaz duten erlazioari buruzkoa:

> "Lorsque nous choisissons un type donné de proposition, nous en choisissons une proposition donnée, en fonction de ce que nous voulons exprimer à l'aide de cette proposition, nous sélectionons un type de proposition en fonction du *tout* de l'énoncé fini qui se présente à notre imagination verbale et qui détermine notre opinion. L'idée que nous avons de la forme de notre énoncé, c'est-à-dire d'un genre précis du discours, nous guide dans notre processus discursif. » (o.c.1984: 288).

Bajtin-en haritik, eta haren oharrak kontuan hartuz, Adam autoreak hainbat lan eta ahalegin egin du espazio minimo hori gehiago zehazteko. Baita

sailkatzeari buruzko eragozpenak agerian jarri ere bai; haren ustetan ez dago sailkapen zurrunik egiterik. Testua entitate heterogeneoa da eta. Soilik sekuentziak dira egonkorrak eta sailkagarriak. Eta gehitzen du gutxi direla oinarrizko sekuentzia horiek: gehienez ere hamarren bat edo. Horrela bada, testua barik sekuentzia bilakatzen da nozio nagusia eta zentrala autore honen proposamenean; era berean, sekuentzia da tipologiarako funtsezko oinarria. Sekuentzia-mota hauek nolabaiteko marko eta mugapen gertatzen zaizkio hiztunari bere mintzajardunean. Hona sekuentzia prototipikoen zerrenda: (Adam , 1992)

- narrazio-sekuentzia;
- injuntzio-instrukziozko sekuentzia;
- deskripzio-sekuentzia;
- argudiapen-sekuentzia;
- azalpen-esposizio-sekuentzia;
- *conversationnelle*-dialogal (elkarrizketakoa)
- (*poétique-autotélique*)

Bronckart-ek onartzen du, beste autore batzuek bezala (Bajtin, Adam...), ezinezkoa dela testu-tipologia zehatza eta zurruna (behin-betikoa) egitea. Onartzen du ez dagoela sailkapen egonkorrik egiterik. Horrek ez du esan nahi, ostera, beste punturaino joan behar dela, eta esan ezinezkoa dela kategorizazio oro. Lor daiteke nolabaiteko karakterizazioa, zenbait irizpide erabiliz gero: esaterako, diskurtso-motak, osaera sekuentziala, garapen tematikoa, testualizazio mekanismoak... eta abar kontuan hartuz. Hortik sortutako sailkatzea nahiko "lausoa" litzateke, eta lausotasun hori adierazte aldera "testu-generoa " deitzea proposatzen du, eta ez "testu-mota".

Izan ere, ezinezkoa da testua modu zuzenean karakterizatzea, hau da, hizkuntz unitateetan oinarrituz; baina, daitekeena da *zeharbidez* eta *indirektoki* karakterizazio errentagarri bat egitea. Osagai desberdinen presentzia, maiztasuna, helburua, banaketa, eta konfigurazioak ikusiz definitu ahal da genero batekoa edo bestekoa den testu ale konkretua. Zeintzuk diren antzekoagoak,

zeintzuk desberdinagoak. Bestalde, arazoa ez da testu-ale konkretu bat zein generotakoa den asmatzea, genero horren ezaugarriez baliatzea baizik testu baten ekoizpena egiterakoan. "Genero-tasuna" hurbiltzeko laguntza da, aurrera egiteko plataforma, ez azken hitza. Alderdi horretatik, bidezko dirudi testu narratiboaz, argudiapen testuaz.... mintzatzea. Testu-generoa tresna metalinguistiko lez agertzen da.

Bronckart-entzat, testuaren eta generoaren arteko harremanak eta harahonak erakusten dute argien eta nabarmenkien mintzairaren estatus soziala, mintzaira / gramatika bikoteak baino hobeto.

3.2. Testu-generoa eta irakaskuntza

Testua den horri ekitean, testuaren genero-izaera ekarri dugu, ezinbestean. Baina azkenik -azkena baina ez txikiena- testu-generoei buruzko beste hipotesi (balio) bat aipatu beharrean gaude: alegia, testu-generoek heziketarako duen mediatizazio-balioa.

Gauzak horrela, genero-tasuna tresna metalinguistiko izateaz gain, hezkuntzarako eta gizakiaren garapen psikologikorako bitarteko ere agertzen da. Berau dugu, dudarik gabe, gure artean arreta gutxien jaso duen balioa edo ezaugarria.

"Jasotze/egokitze" (adoptatze/adaptatze) bikotea estrategia heziketa-balioaren bideratzaile da:

> "El agente progresa en su conocimiento de géneros, con sus propiedades lingüísticas y sociales; se inserta en las redes de significaciones colectivas cristalizadas en los modelos pre-existentes, aprendiendo a situarse respecto de los mismos, a analizarlos, a gestionarlos. Si la práctica de los géneros constituye un lugar importante del aprendizaje social, es porque es a este nivel donde se ponen en práctica los procesos de mediación que contribuyen al desarrollo de propiedades principales de las personas (contribución a la identidad, inserción en el tiempo, dominio de los razonamientos...).

Aipu horretan ikus daitekeenez, testu-generoaren (bere adiera zabalean) auzi-arazoa ez da eskola-testuetara mugatzen, bizitzako mintza-praktika guztiak harrapatzen baititu. Gure artean, gutxienez, hiru esparrutan du oihartzuna testuaren generotasunak.

a) Eskola-eremuan honako genero (molde, agian ?) hauek ageri dira:

- biografia
- iruzkinak
- elkarrizketa
- bibliografia-fitxa
- laburtzapena/sintesia
- argudiapen-testua
- deskripzio-testua
- azalpen-testua
- informazio-testua
- instrukzio-testua
- narrazio-testua
- erreseina

b) Komunikazio (sozialeko) eremuan beste hauek:

- Iritzi-testua (artikulua)
- albistea
- kritika
- editoriala
- entrebista
- jazoerak
- erreportajea
- publizitate-testua
- debatea / eztabaida

c) Erakunde eta lanbide eremuan, berriz::

- akta
- zirkularra edo ibiltorria
- komunikazioa (papers)
- informazio-orria
- curriculum vitae
- txostena
- erreklamazioa
- helegitea /errekurtsoa
- zerbitzu-oharra

4. Gogoeta batzuk konklusio gisa

a) Gramatikaren irakaskuntzak tradizio luzea du. Gure artean itzala ere bai. Egia da, bestalde, hizkuntzen irakaskuntzaren esparruan egindako ikerketek irakaskuntzaren metodoetan eragina izan dutela. Edozein kasutan, hala egin diren jakintza berriak nola merkatuaren barnean agertutako aldaketek, ez batzuek ez bestetzuek, ez dute oraindik indar edo balio nahikorik izan -gure artean behintzat!- irakaskuntza naturalagoak edo "gramatika gabekoak" bideratzeko.

b) Gaur egun esan daiteke ez dagoela gramatikaren gaineko kontua ikuspuntu unibertsalista batetik erabakitzerik, hau da, egoera guztietarako eta irakaskuntza mota guztietarako balioko duena, zeren ez baitago ikas-irakaskuntzari buruzko eta hizkuntzen irakaskuntzaren merkatuari ezikusiarena egiterik. Behar duguna hauxe da: irakaskuntzaren helburuak ezarri edo kategorizatzeko egitura zabal bat, irakaskuntzaren edozein eredutan aplikatu ahal izango dena. Horregatik, hasieran jarritako sei puntutako eskema planteamendu egokia iruditzen zaigu. Nozio horiek, gure ustez, solidarioak dira elkarrekiko, nahiz eta beren arteko erlazioak eta hierarkia aldian-aldian erabaki beharko diren. Kontrasteak eta nolabaiteko oposizioak dauden arren, ez dirudi zuzena denik beren arteko erlazioak modu dikotomikoan plantea -

tzea. Bestalde, aldiko kasketaldiak, moda eta bilin-bolonka efektua gainditzeko bidea izan liteke, bereziki metodologiaren alorrean.

c) Testua, testu-generoa, diskurtsoa... nozio eta espazio deskriptibo berriagoak sartu zaizkigu hizkuntzen irakaskuntzan. Nozio horiei ateak ireki zaizkie hizkuntzaren irakaskuntzan. Gero eta balio handiagoa ematen zaie. Baina testuak eta testu-generoak ikas/irakaskuntzaren objektu bihurtzen ari dira, horien gaineko jakintzak transmititzen hasiak gara, ustez, gero ondorio gisa aplikatu egingo direla. Testuen eta generoen deskripzioak egin ditugu, zenbaitetan testuaren didaktizazioan ere gutxi-asko asmatzen ari gara (adibidez, sekuentzia didaktikoak). Baina huts eta akats larrienak, ustez, pedagogizazioan ari gara egiten: hemen lehengo lepotik dugu burua, eta aurreko lakio berean erortzen ari gara. Lehen gramatika irakasten genuen, orain testuari buruzko "jakintzak" erakusten ditugu. Testuak eta testu-moldeak ikas- eta irakats-objektu bilakatzen ari dira, beste batean gramatikarekin egin zena errepikatuz. Jokatzen da testua eta testu-generoa jakintza multzo bat balira, menderatu beharrekoa. Testu-generoak ezer badira, laguntza eta bitarteko (plataforma) dira, ez jomuga. Barru-barruan bi jokabide oker daude hor: metodologikoa bata, aplikazionismoa praktikatzea; epistemologikoa, bestea, azken buruan nolabaiteko platonismoa onartzen duena, baina kontuan hartu behar da jakintza ez dela mintzaira, ez dela aski testu ezaugarriak buruz ikastea, testuaren erabilera bermatzeko. Tentazio horretan erortzen ari garen susmoa dugu. Susmo hori, bestalde, ez da pertsonala, talde oso batena baizik.

d) Halatan, ISD-ren ikuspegia urrutitxo geratzen ari zaigu. Izan ere, metodologian aldaketa batzuk egin badira ere, tamaina handiko beste hainbat ondorio ez dira gauzatu. Esaterako, testu-generoa kategorien arteko gorabeherak eta bariazioak, artikulazio horretako balio soziala... erabilera desberdinen ber-semiotizazioak, oro har. Hezkuntz sistemek ez ditu jaso ISD-ren ildoan planteatzen diren puntu zabaletako asko, besteak beste, testu-generoek (erredakzioaren sozializazioak) heziketan duen bitartekari-balioa. Mintzairaren oinarrizko dimentsio soziala etengabe ateratzen da, eta kontuan hartzekoa da behin eta berriz eta maila guztietan: gramatika mailan, testu mailan, eta diskurtso mailan.

e) Testu-generoen errentagarritasunari dagokionez, hizkuntz irakasleak badu eskarmentu positiborik: narrazio-testua (ipuina bereziki), saialeku paregabea gertatu da genero izaera aztertzeko. Ez al dago "eredu" hori beste testu-genero batzuetara ere hedatzerik? Esaterako, deskripzio-testura, azalpen-testura, argudiapen-testura...

Bibliografia

ADAM, J.-M. 1992, *Les textes: types et prototypes*, París, Nathan.

ADAM, J.-M. 1999, *Linguistique textuelle. Des genres de discours aux textes*, París, Nathan.

ALONSO FOURCADE, M. P. & BRONCKART, J.-P. 2007, «Por un Interaccionismo Socio-Discursivo: Historia de una trayectoria», in I. Plazaola & M.P. Alonso, arg., *Testuak, diskurtsoa eta generoak*, Donostia, Erein, 13-61.

BAJTIN, M. 1984, «Les genres du discours», in Bajtín, M. 1984, Esthétique de la création verbale, Paris, Éditions Gallimard, 262-308.

BEACCO, J.C. 2004, «Trois perspectives linguistiques sur la notion de genre discursif», *Langages*, 153 (2004) 109-119.

BEAUGRANDE, R.-A. & DRESSLER, W.U. 1972 *Einführung in die Textlinguistik*, Verlag, Tübingen; Gaztelaniazko argitalpena: *Introducción a la lingüística del texto*, Barcelona, Ariel.

BENVENISTE, E. 1974, *Problemas de lingüística general*, 1971 in 1974, Barcelona, Siglo XXI.

BOUQUET, S. 1998, "Linguistique textuelle, jeux de langage et sémantique du genre», in *Langages*, 129 (1998) 112-124.

BRONCKART, J.-P. 2005b, «Os géneros de texto e os tipos de discurso como formatos das interacçôes de desenvolvimento», in Menéndez, F.M. *Análise do Discurso*, Lisboa, Hugin, 37-79.

BRONCKART, J.-P. 1985, *Le fonctionnement des discours*, Neuchâtel, Delachaux et Niestlé.

BRONCKART, J.-P. 1996, *Activité langagière, textes et discours*, Neuchâtel, Delachaux et Niestlé.

BRONCKART, J.-P. 2005a, «Les différentes facettes de l'interactionnisme socio-discursif», *Calidoscopio*, vol. 3, 3, 149-159.

CASTELLÁ, J.M. 1999, «Las tipologías textuales y la enseñanza de la lengua. Sobre la discursividad, los límites y algunas perversiones», in *Textos de Didáctica de la Lengua y la Literatura*, 10 (1999) 23-31.

COUTINHO, M. A. 2005, «Para una lingüística dos géneros de texto», in Braga, *Diacrítica*, 73-88.

CHAROLLES, M. 1989, «Analyse du discours, grammaire de texte et de l'écriture», in Y. Reuter, org., *Les interactions lecture-écriture*, Berna, Peter Lang,

CHISS, J.-L. 1987, «Les grammaires et les textes: et l'enseignement du française», *Le Français aujourdd'hui*, 79.

CHISS, J.L. 1987, «Malaise dans la classsification», *Langue française*, 74 (1987) 10-28.

CIAPUSCIO, G. E. 1994, *Tipos textuales*. Enciclopedia semiológica. Universidad de Buenos Aires, Buenos Aires.

COMBETTES, B. 2000, «Phrase, texte, discours: quels cadres pour l'étude de la langue?», *Pratiques*, 107/108 (2000).

EGGINS, S. eta MARTIN, J.R. 1997, «Géneros y registros del discurso», in Van Dijk, T.A., rec., *El discurso como estructura y proceso*, Barcelona, Gedisa, 335-371.

FILLIOLET, J. 1987, «La typologie des discours, mythe ou réalité pédagogique?», *Langue Française*, 74 (1987) 97-107.

HABE, 1999, *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua* (HEOK), Donostia: Eusko Jaurlaritza.

IDIAZABAL, I. & LARRINGAN, L.M., arg., 1998, *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratze baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*, Vitoria/Gasteiz, Diputación Foral de Alava eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

LARRINGAN, L. M. 1996, *Testu-antolatzaileak bi testu motatan: testu informatiboan eta argudiapen testuan*, Doktorego-tesia, EHU/UPV (argitaratu gabea).

LARRINGAN, L. M. 1998, «Testuen analisirako zenbait nozioren kontzeptualizazio bidean», in I. Idiazabal & L. M. Larringan, arg., *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratze baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*, Vitoria/Gasteiz: Diputación Foral de Alava eta Euskal Herriko Unibertsitatea, 43-104.

LARRINGAN, L. M. 1998, «Koherentzia, kohesioa eta konexioa nozioen egoera, bereziki euskal deskribapeni dagokienean», in I. Idiazabal & L. M. Larringan, arg., *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratze baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*, Vitoria/Gasteiz:Diputación Foral de Alava eta Euskal Herriko Unibertsitatea, 11-43.

NUNAN, D. 1995, *Hizkuntzak ikasteko metodologia. Irakaslearen liburua*, Donostia. HABE.

PETITJEAN, A. 1989, «Les typologies textuelles», *Pratiques*, 62 (1989) 86-125.

PLAZAOLA, I. eta ALONSO, M.P., arg., 2007, *Testuak, diskurtsoak eta generoak. Euskal testuen azterketa korrontea*, Zarautz, Erein.

SAUSSURE, FERDINAND DE, 2002, *Écrits de linguistique générale,* Paris, Galimard.

SCHNEWLY, B. 1987, «Quelle typologie de textes pour l'enseignement? Une typologie des typologies», in J.L. Chiss, J. P. et ali., arg, *Apprendre/Enseigner à produire des textes écrits*, Bruxelles, de Boeck, 53-63.

TUSÓN, A. 1994, «Iguales ante la lengua, desiguales en el uso. Bases sociolingüísticas para el desarrollo discursivo», *SIGNOS*, 2 (1994) 30-39.

VERDÍA, E., CONDE, G. & CASSANY, D. 2002, *Marco común europeo de referencia y Portfolio de las lenguas*, MOSAICO, 9. Madrid, Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.

Gelako interakzioa: irakasleen esku-hartzea eta ikasleen ahozko ekoizpena. Jolas arauen azalpena lehen hezkuntzako ikasleen eskutik[1]

SAINZ OSINAGA, Matilde
Mondragon Unibertsitatea

GARRO, Eneritz
Mondragon Unibertsitatea

OZAETA, Arantza
Mondragon Unibertsitatea

PEREZ LIZARRALDE, Karmele
Mondragon Unibertsitatea

EGIZABAL, Diego
Mondragon Unibertsitatea

Sarrera data: 2009-07-31
Onartze data: 2009-11-26

[1] Ikerlan hau Eusko Jaurlaritzaren (HU-2007-24) eta MEC (EDU-2008-0567/EDUC) diru-laguntzei esker egin da. Orobat, eskerrik beroenak *Kurtzebarri* eskolako (Aretxabaleta) klaustroari hiru urtez elkarrekin egin dugun bideagatik.

Lan honetan edukien bidezko hizkuntzaren ikas-irakaskuntzaren (Snow et al., 1989: Laplante, 2000) hainbat alderdi aztertzen dira Lehen Hezkuntzako gela batean. Batetik, aztertu dugu irakaslearen esku-hartzearen zorroztasuna aurretik diseinatu duen Sekuentzia Didaktikoarekiko (SD), hau da, transposizioa nolakoa den. Bestetik, begiratu dugu SDan zehar irakasleak ikasleekin sustatzen dituen elkarrekintza motak eta ikasleengan bultzatzen dituen ikaskuntzak; asmoa da aztertzea ikaskuntza bikoitza bultzatzearren (curriculumarena batetik, ahozko generoarena bestetik) irakasleak zer nolako elkarrizketa mota zabaltzen duen gelan. Bukatzeko, ikasleen ekoizpenak aztertu ditugu ikusteko zer nolako garapena izan duten SDaren eta irakaslearen esku-hartzea tarteko. Aztergai izan dugun SDan, Ingurunearen Ezagutza arloari dagozkion hainbat edukiren eta prozesuen azalpenen gaineko ahozko testuak landu dira.

Hitz-gakoak: Irakaskuntza elebiduna, eduki bidezko hizkuntzaren ikas-irakaskuntza, elkarrekintza didaktikoa, ahozko hizkuntza, transposizio didaktikoa.

En el presente estudio se analizan diversos aspectos relacionados con la enseñanza-aprendizaje de lengua por medio de contenidos curriculares (Snow et al., 1989: Laplante, 2000) en un aula de Educación Primaria. La Secuencia Didáctica (SD) que hemos analizado responde al doble objetivo disciplinar: al Conocimiento del Medio y a la lengua oral (genero de explicación de procesos). Por un lado, analizamos, en el marco de la transposición didáctica, el diseño de la SD y su implementación. Por otro lado, observamos los tipos de interacción y los aprendizajes que suscita la docente entre los alumnos. En definitiva, se trata de conocer las intervenciones de la maestra que atienden el doble aprendizaje: curricular y lingüístico. Por último, hemos analizado las producciones iniciales y finales de los alumnos para conocer los aprendizajes que han realizado a lo largo de la SD.

Palabras clave: Enseñanza bilingüe, enseñanza-aprendizaje de lengua por medio de contenidos, interacción didáctica, lengua oral, transposición didáctica.

La présente étude analyse divers aspects liés à l'enseignement-apprentissage de langue par le biais de contenus scolaires (Snow et al., 1989: Laplante, 2000) dans une salle de classe de l'Enseignement Primaire. La Séquence Didactique (SD) que nous avons analysée répond à un double objectif disciplinaire : à la Connaissance du Milieu et à la langue orale (genre d'explication des procédés). D'une part, nous analysons, dans le cadre de la transposition didactique, la conception de la SD et sa mise en œuvre. D'autre part, nous observons les types d'interaction et les apprentissages que suscite l'enseignant chez les élèves. En définitive, il s'agit de connaître les interventions de la maîtresse qui assurent le double apprentissage : scolaire et linguistique. Enfin, nous avons analysé les productions initiales et finales des élèves pour connaître les apprentissages qu'ils ont réalisés au cours de la SD.

Mots-clés: Enseignement bilingue, enseignement-apprentissage de langue par le biais de contenus, interaction didactique, langue orale, transposition didactique.

This research examines several aspects related to language teaching-learning through curricular contents (Snow et al., 1989: Laplante, 2000) in a primary school classroom. The Didactic Sequence (DS) that we analysed responds to a dual discipline purpose: to the Knowledge of the Means and the spoken language (process explanation genre). Firstly, we analysed, within the framework of didactic transposition, the design of the DS and its implementation. Furthermore, we noted the types of interaction and the learning raised by the teacher among the students. All things considered, it deals with knowing the teacher's intervention, who takes on the dual learning: curricular and language. Finally, we analysed the initial and final productions of the students to become acquainted with the learning that has been taught throughout the DS.

Keywords: Bilingual education, language teaching-learning contents, didactic interaction, spoken language, didactic transposition.

Sarrera

Azterketa hau ikerketa zabalago baten parte da, Kurtzebarri eskola publikoan (Gipuzkoa) gauzatu dena, D ereduan eta Haur eta Lehen Hezkuntzako geletan. Kontuan izan behar dugu ikasleen erdiarentzat euskara bigarren hizkuntza dela. Mondragon Unibertsitateko MIKER taldearen lanaren muina da aztertzea nola uztartzen diren ahozko hizkuntzaren eta curriculumeko arloen ikas-irakaskuntza, hain zuzen ere, ikas-irakaskuntza elebidunaren berezitasunei heltzeko asmoz.

Lan honek hainbat helburu lortu nahi ditu: a) aztertzea sekuentzia didaktiko baten programazioaren eta gelako inplementazioaren arteko koherentzia; b) deskribatzea eta aztertzea irakasleak bere helburuak lortzeko sustatzen dituen elkarrekintzak eta sekuentzian zehar ikusitako erregulazioek ikasteko bi alderdiei erantzuten ote dieten, alegia, hizkuntzazko edukiei (hartzaileari egokitzea, testu antolaketa, lexikoa...) eta arauen ikaskuntzari (jolasen sailkapena, baliabideak...); eta c) ezagutzea zer ikasi duten ikasleek irakaslearen esku-hartze didaktikoari esker (aurretestu eta ondotestuen arteko konparazioa).

Lehen helburua lortzeko, irakasleak diseinatutako SD aztertu dugu eta gelan behatutako saioekin konparatu dugu. Bigarren helburua lortzeko, gelako hiru saiotan behatutako elkarrekintza motak aztertu ditugu. Eta hirugarren helbururako, ikasleek ekoiztutako "jolas-arauen azalpena" testu-moldearen ahozko aurretestu eta ondotestuak aztertu ditugu.

SDaren azken xedea da Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako ikasleek 5 urteko haurrei (Haur Hezkuntza) azaltzea nola jolasten den gustukoen dituzten jolasetara, alegia, azaltzea zeintzuk arau eta ezaugarri dituzten jolas horiek. Ikasleak ikasten duenak ezagutzaren bi alderdiri erantzuten die: Hizkuntza arloa (euskarazko ahozko "jolas arauen" moldeari) eta Ingurunearen Ezagutzaren arloari, ikasleak gizarte eta kultur ingurunearen gaineko edukiak eskuratu behar baititu. Bertan ikusi ahal dugu, beraz, nola ikasten den hizkuntza curriculumeko edukien bidez (Snow, Met eta Genesse, 1989; Carrasquillo eta Rodriguez, 1996; Laplante, 2000; besteak beste).

Uste dugu testuinguru horretan irakasleak bere esku-hartzeetan instituzionalizatzen dituen edukiak eta eragiten duen elkarrekintza didaktikoaren ezaugarriak erabakigarriak direla ikaskuntza bikoitza sustatzeko.

1. Marko teorikoa

1.1 Ahozko hizkuntza curriculumaren bidez ikasten da eta curriculuma hizkuntzaren bidez

Hizkuntzaren ikas-irakaskuntza curriculumeko beste arlo batzuekin (Ingurunearen Ezagutza, Matematika, Artearen Historia...) batera lantzeko beharra sortu da, batez ere, etxeko hizkuntza eta eskolako hizkuntza bat ez datozen testuinguruetan (Richard-Amato eta Snow, 1992; Crandall, 1993; Mohan et al., 2001), hau da, murgiltze egoeretan. Testuinguru horietan ikusi da dena delako arloari buruzko ezagutzak eraikitzeko beharrezkoa dela hizkuntza alderdietan arreta jartzea, hizkuntzak arloko ezagutzak bideratzen baititu, eta ulermena ezagutzaren eraikuntza aurreko baldintza baita.

Hizkuntza eta curriculumeko arloak integratzeko ez da nahikoa hizkuntzako eskolak ematea eta ez da nahikoa, ezta ere, hizkuntza hori komunikazio-hizkuntza izatea. Murgiltze ereduetan egindako ikerketek erakutsi dute hizkuntza batean komunikazio konpetentzia altua lortzeko, beharrezkoa dela testuinguruak sortzea ikaskuntza negoziatu ahal izateko —hizkuntza edukien esanahia eta forma—, horrela hizkuntza ulertu eta ekoiztu ahal izango da (Swain, 1985; Kowal eta Swain, 1987). Murgiltze ereduetako metodologiak hizkuntza edukien esanahia negoziatzea bermatzen du eta, horren ondorioz, eredu horietako ikasleek ulermen maila altua izan ohi dute (Cummins eta Swain, 1986; Genesee, 1987; Gabiña et al., 1986). Haatik, ikerketek azpimarratu dute hizkuntza formen negoziazioa dela, hain zuzen ere, murgiltze ereduek duten erronketako bat (Swain, 1985; Kowal eta Swain, 1987; Lyster, 1999).

Formaren negoziazioak, bestalde, berekin inplizituki dakar ikasleei ahozko zein idatzizko testuak ekoizteko aukera eman behar izatea; izan ere, ekoizpenak gauzatze sintaktikoa eskatzen du, ez bakarrik prozesamendu semantikoa (ulermenean bezala). Dena dela, murgiltze geletan egindako behaketetan ikus daiteke irakasleek kontrolatzen dituztela gelako elkarrizketa gehienak eta ikasleen ekoizpenak askotan irakasleen galderei emandako erantzun soilak direla, eta ekoizpen horiek oro har oso laburrak izan ohi direla (Swain, 1985). Hori guztia kontuan hartuta, badirudi beharrezkoa dela murgiltze ereduetako didaktika berrikustea.

Badaude bi estrategia murgiltze ereduetako asebetetze maila jasotzen lagunduko luketenak: lehena, esan dugun moduan, hizkuntza curriculumeko edukien bitartez lantzea; bigarrena, bultzatzea ikaslearengan gehiago oinarritzen den ikuspegi pedagogikoa (Arnau, 1997). Lehen estrategiak eskatzen du curriculumeko arloei dagozkien hizkuntza helburuen lanketa sistematikoa (Snow et al., 1987); beste hitz batzuetan esanda, arlo bateko edukiak planifikatzerakoan beharrezkoa da ikasleek ezagutza berriak ulertu, azaldu edota eraikitzeko zein hizkuntza eduki behar duten jakitea. Halaber, arloetako edukiak erabil daitezke hizkuntza gaiak lantzeko, zuzenean arloko edukiak garatzeko beharrezkoak ez izan arren, eduki horiekin bateragarriak izan daitezkeelako, eta modu horretan, murgiltze ereduetako ikasleek ahoz zein idatziz izan ditzaketen hutsuneak osatzen lagun dezaketelako. Laplante autoreak (2000) dio murgiltze ereduetako ikasleek bi eginkizun dituztela: eduki zientifikoez jabetzea (Matematiketan, Gizarte Zientziatan...) eta eduki horiez hitz egiteko erabiltzen den hizkuntza zientifikoaz jabetzea. Beraz, zaila da ezagutzak eraikitzea arlo jakin horretako eduki linguistikoari arretarik jarri gabe.

Ikaslearengan gehiago oinarritzen den ikuspegi pedagogikoari dagokionez, Laplantek (2000) izaera interaktibodun testuinguruak sortzearen alde egiten du. Testuinguru horietan abiapuntua ikasleen aurrezagutzak izango dira, bai arloari zuzenean dagozkionak, bai gaitasun linguistikoei dagozkienak ere. Horrek ikasleei aukera emango lieke hizkuntza modu esanguratsuan erabiltzeko eta hizkuntza zein zientzia ezagutzak eraikitzeko.

Curriculumeko edukiak eta hizkuntza edukiak integratzeaz jarduten duten autoreek argi banatzen dituzte landu beharreko arloen ezaugarri bereizgarriak (besteak beste, Carrasquillo & Rodríguez, 1996; Laplante, 1993; Plazaola & Leutenegger, 2003; Sainz Osinaga & Bilbatua, 1998; Serra, 2004). Hala, ez da berdin Hizkuntza batzea Matematikarekin, Natur Zientziekin edota Gizarte Zientziekin. Badakigu arloak mugatuko duela ez bakarrik lexikoa, batzuetan esan den moduan, baizik eta baita eduki diskurtsibo eta linguistikoak ere. Adibidez, Hizkuntza landu nahi badugu Gizarte Zientzien arloarekin, lehenengo eta behin jakin beharko dugu arlo horretan hizkuntzak zein funtzio komunikatibo betetzen dituen. Hala, hainbat autorek diotenaren bidetik, arlo hori egokia da gizarte mundua deskribatzeko eta azaltzeko: antolaketak, harremanak, eta abar. Autore batzuek (Abrams, 1993; Carrasquillo eta Rodriguez-ek, 1996 aipatua) diote gizarte-ezagutzen ulermen eta ekoizpenean zenbait eragiketa kognitibo behin eta berriz egiten direla: kausa-ondorioa; konparaketa eta kontrastea; datuak jaso, antolatu eta ulertzea; hipotesiak formulatzea; inferentziak egitea... Orobat, testu tipologia aintzat hartuz (Dolz eta Schneuwly, 1997) ezagutza arlo horri testu-molde batzuk dagozkio bereziki: deskribapena, gertaeren kontaketa, kontaketa historikoa, azalpena, txostena, araugintza... Ikuspuntu honetatik, Hizkuntza eta Gizarte Zientziak integratzerakoan erabakiko da zein alderdi diskurtsibo, zein testu-molde, zein hizkuntza baliabide... landu, ahoz eta idatziz, balioko dutenak hizkuntza landuz gizarte zientziak lantzeko, eta alderantziz.

1.2 Ahozko hizkuntzaren eta ikasgelako elkarrekintzaren inguruko hurbilpen teorikoa

Gaur egun hainbat paradigma bereizten dira ahozkoaren didaktikan. Rabatel-ek (2004) esaterako, lau paradigma desberdintzen ditu: a) ahozko hizkuntzaren arauak ezagutzeko helburuarekin ahozkoaren sintaxia aztertzen duen paradigma; b) hizkuntzaren generoen azterketatik ahozkoari hurbiltzen zaion paradigma (Dolz & Schneuwly, 1998); c) ahozkoaren zeharkakotasunari hurbilpen kognitiboa egiten dion paradigma, zeinetan ahozkoaren lanketa

curriculumaren jakintza arlo guztietan lantzearen aldeko apustua egiten den, horrek ezagutzen eraikuntzan laguntzen duelako; eta d) ahozkora hurbiltzen dena elkarrekintzaren azterketatik, betiere kortesiaren ikuspegitik. Bosgarren bat ere erantsiko dugu, Bouchard-ena (2004), zeinek arrazoi sozial, kognitibo nahiz bestelakoengatik egoera ahulean dauden ikasleek egiten dituzten "arriskupeko" praktika komunikatiboak bereizten dituen.

Gure azterketa "b eta c" paradigmen artean kokatzen da, alde batetik, testumolde baten gaineko lanketa didaktikoa aztertzen duelako; eta bestetik, landutako testu-moldearen bidez transmititutako ezagutzaren eraikuntzan behaturiko elkarrekintzek duten eragina ere aztertzen duelako.

Hautatu ditugun erreferentzia teorikoak, beraz, bi alorrekoak dira: alde batetik, ikasgelan behatzen diren elkarrekintzei dagokiena; eta beste aldetik, ikasleek ekoizten duten testu-moldeari dagokiona. Hori horrela, irakasleak egiten duen bitartekaritza/elkarrekintza zedarritzeko, ahozko jardueren bidez egiten dituen erregulazioak aztertu ditugu Thévenaz-Christen-i (2005) jarraiki: (1) jolasaren gaineko fokatzeak (hau da, edukiari, jolasari eta bere arauei buruz irakasleak egiten dituen galdera eta baieztapenetan); (2) hitza hartzeko, azaltzeko edota hitz egiteko ikasleei egiten dizkien gonbidapenak; (3) jolasaren arauen nahiz edukiaren birformulazioak (irakasleak birformulatzen duenean ikasleak esandakoa, duen garrantzia azpimarratu egiten du); (4) hizlariaren rolaren gaineko xehetasunak (irakasleak hobesten du mantso hitz egitea, zehatza eta argia izatea...); (5) entzulearen rolaren gaineko xehetasunak (aditu, arretaz begiratu, ulertzeko galderak egin...); (6) generoari dagozkion alderdi linguistiko nahiz testualei buruzko aipamenak (jardueren deskribapena, hizkuntzaren zehaztasuna, hiztegia...).

Bestalde, Plazaola eta Leutenegger-ekin (2003) bat eginik, eta kontuan hartuta aztergai izan dugun proiektua plurala dela, interes handikoa deritzogu ikustea nolako erregulazioak egiten dituen irakasleak ikas-irakaskuntza prozesuaren aldi desberdinetan. "Enuntziazio bikoitzaren" inguruan Trevise-k (1979) (Plazaola eta Leutenegger-ek, 2003, aipatua) egindako bereizketa ere

oso baliogarria zaigu, agerian uzten baitu irakasleak, gai jakin bat lantzen ari den bitartean, forma linguistikoei ere errepara diezaiekeela.

Azkenik, ikasleek testu-molde jakin baten ezaugarriak bereganatu behar dituzte, "jolas arauak" delakoarenak. Thévenaz-Christen (2002) aintzat harturik, generoa ezaugarritzen dugu ondoko alderdien arabera: a) berbaldi-ekintzaren testuinguru parametroak (interpelazio formak, elkar-ulermenerako arreta markak...); b) eduki tematikoa (erreferentzia materialari —keinuz edo hitzez—; jokalari kopuruari, hasierako jolas-arauei, jolasaren azken helburuari eta irabazteko baldintzei); c) planifikazio-markak (interakzioaren arabera: pertsona batek edo gehiagok kudeatzen duen testua, solaskideak eta materialaren gertutasuna...); d) testuratze-markak (akzio aditzak, materialen eraldaketa prozesua azaltzen laguntzen duen lexikoa, jokalariak irabazle edo galtzaile bihurtzen diren...).

1.3 SDaren helburuak eta horien transposizio didaktikoa

Chevellard-ek (1985) transposizio didaktikoari buruz teorizatzen du identifikatzeko zein prozesuren bidez bihurtzen diren erreferentziazko jakintza teorikoak irakatsi beharreko jakintzak. Nozio horretaz baliatu gara jakiteko ea irakasleak SDan programatu dituen edukiak ikasgelara eramaten dituen. Bestela esanda, jakin nahi dugu ea SDan jasota dauden edukiak, ikasleekiko elkarrekintzaren bidez instituzionalizatzen ote dituen irakasleak ikasgelan. Transposizio didaktikoaren azken aldiaz dihardugu, beraz.

Transposizio didaktikoan zehar izaten diren arriskuak aski ezagunak direnez, beharrezkoa ikusten da zaintzea transposizio-aldi batetik bestera gertatzen diren eraldaketetan erreferentziazko nozioak ez desitxuratzea gehiegi. Bronckart eta Plazaola autoreek (1996) ohartarazten gaituzte transposizio didaktikoaren bi arrisku nagusiez: lehenengoa erreferentziazko teoriaren egiazkotasunari dagokio, eta bigarrena, tokiz aldatzen diren jakintzak euren testuingurutik ateratzeak dakartzan ondorioei.

Azterketa lan honetan lehenengo arriskuari baino ez zaio erreparatuko. Behatu dugun irakasleak, ikastetxeko beste batzuekin batera, hainbat erabaki hartu

du: a) Hizkuntzari dagokionez, ikuspegi testual eta diskurtsiboa lantzea, eta helburu gisa proposatu du ikasleek "jolas arauak" testu-moldea ahoz ekoiztea (Bronckart, 1996; Dolz eta Schneuwly, 1997); b) Ingurunearen Ezagutzari dagokionez, haur jolasak lantzea, arau sozial eta kulturalen inguruko edukiei estu lotuak daudenak, eta c) sistema didaktikoari dagokionez, SD erabiltzea planifikazio eta ikaskuntzaren bitartekaritzarako tresna gisa (Dolz eta Schneuwly, 1998).

Gogoan izan gure analisia transposizio didaktikoaren azken aldian gertatzen dela, hau da, ikusiko dugu koherentzia ote dagoen, SD osatzeko aintzakotzat hartutako ikuspegi epistemologiko, curricular eta didaktikoaren, eta irakaslearen jardunaren artean.

2. Alderdi metodologikoak: corpusa eta ikerketa helburuak

Analisirako darabilgun lagina 12 ikaslekoa da. Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailan ari dira eta erdiak du euskara lehen hizkuntza. Aztertu dugun saio bakoitza ordu eta erdikoa da.

Lan honetarako ditugun helburuak askotarikoak direnez metodologia desberdinak hautatu ditugu konplexutasunari erantzuteko. Lehenengo helburuan bi alderdiri egingo diegu so: batetik, begiratuko dugu SDan diseinatutakoa koherentea ote den gelako saio bakoitzean behatutakoarekin eta bestetik, erreparatuko diegu saio bakoitzean maistrak instituzionalizatzen dituen edukiei. Analisia egiteko Bronckart eta Plazaola-ren (1998) lanean oinarritu gara. Lehen helburu honetarako SDaren bederatzi saioak hartu ditugu kontuan.

Bigarren helburuari erantzuteko, maistrak bideratzen duen interakzioaren analisia egingo da. Horretarako Thévenaz-Christen (2005) autorearen proposamena hartu dugu, testu preskriptiboaren didaktikaz argi iturri baita. Jolasen tailerra gauzatzeko diseinatu den SDaren hiru saio hautatu ditugu analizatzeko: lehena, bosgarrena eta azkena. Lehendabiziko saioan, ikasle bakoitzak ezagutzen duen jolas bat azaltzen die besteei (aurretestua); tarteko saioan, ikasleek aukeratu duten jokoaren aurkezpena entseatzen dute 5 urteko haurren gelara

joan aurretik. Azken saioan, ikasleek ahoz azaltzen diete Haur Hezkuntzako ikasleei prestatu duten jolasa (ondotestua). Hiru saio horietako irakasle-ikasleen arteko elkarrekintzazko sekuentziak baino ez ditugu aztertuko. Horietan ikasleak ahozko "jolas arau" bat ekoizten du gelaren aurrean eta irakasleak interakzionatzen du ikasle horrekin hainbat helbururekin. Helburu horiek aztertu ditugu marko teorikoan aipatu dugun Thévenaz-Christen autorearen (2005) 1etik 6rako kategorizazioari jarraituz.

Azkenik, esan bezala, ikerlan honen hirugarren helburu nagusia da ikustea ikasleen lan diskurtsiboan aldaketarik egon ote den sekuentziaren hasieratik bukaerara, eta, hala bada, alde horiek non antzeman daitezkeen. Horretarako aztertu ditugu ikasleek banaka ekoiztutako aurretestuak (12 ale) eta binaka ekoiztutako ondotestuak (6 ale). Kontuan hartu dugu ikasleek "jolas hori zelan da?" galderari emandako erantzuna. Ezaugarritze hori egiteko erreferentzia nagusia izan dira Thévenaz-Christen-ek (2002) aipatzen dituen jolas baten azalpena egiterakoan agertu ohi diren parametroak.

3. Datuen analisia

Gure analisiak hainbat alderdi ukitzen ditu: lehenengoa (3.1.), irakaslearen helburuei eta horien transposizio didaktikoari dagokie, hau da, SDak jasotzen dituen helburuei, SDak eskola saio bakoitzean aurreikusten dituen jarduerei, eta instituzionalizatu nahi diren edukiei. Bigarrena (3.2.), elkarrekintza sekuentzien araberako saio bakoitzaren antolaketari dagokio. Analisi hori hiru denboratan egin dugu: lehendabizi SDaren saio bakoitzari dagozkion datuak analizatu ditugu (1., 2. eta 9. saioak) eta ondoren, hiru saioak elkarrekin erkatu ditugu. Horretarako hiru alderdiotan ipini dugu begia: a) saio bakoitzaren antolaketa elkarrekintza sekuentzien arabera; b) irakaslearen helburuak eta euren transposizio didaktikoa eta c) irakasleak bultzatzen duen elkarrekintza mota. Analisiaren hirugarren puntua (3.3.), ikasleen aurretestuen eta ondotestuen azterketari dagokio.

3.1 Sekuentzia Didaktikoa eta irakasleak instituzionalizatzen dituen edukiak: programatutakoa eta gelaratutakoa

Sekuentzia Didaktikoaren deskribapena

Sekuentzia LH 1. eta 2. mailako ikasleei zuzenduta, ordu eta erdiko bederatzi saiotan gauzatu da. Azken xedea jolas bat ikasi ondoren bost urteko ikasleei azaltzea izanik, esan daiteke hainbat jolas ezagutu eta horietara jolasten ikasi ez ezik, jolas horiek besteei ahoz nola azaldu ere ikasi dutela. Jarraian SD erantsi dugu.

Proiektua: jolasen tailerra
Ikasmaila: LHko 1. eta 2. mailak
Data: 2007ko martxoa

Azken xedea: ikasitako jolas bat beste gelakoei azaltzea

Etapak	**Helburuak**	**Jarduerak**	**Materialak**
Testuinguratu: Egoeran kokatu, azken-xedea azaldu... *(1. saioa)*	Egoeraz jabearazi Aurreko testu-generoen egoerarekin lotu (errezeta, eraikuntza bat nola egin...) Aurreikusi sekuentzia osoaren koherentzia Azken xedearen berri eman	Ezagutzen dituzten jolasak gogorarazi Irudikatu azalpenak Entzundakoaren zerrenda egin (irakasleak arbelean) Sekuentziarako prestatu	Jolasen CDa ikusi (askotariko ereduak) Jolasak banatu eta jolastu
Aurretestua (zer dakigu eta zer egiten ikasi behar dugu) *(1. saioa)*	Aurrez ezagutzen duten jolasa deskribatu	Ikasle batzuek beste batzuei azaldu Ebaluatzeko orrian jaso besteen jardunari buruzko oharrak	Bakoitzaren jolasaren deskribapena Erregistratu: bideoz grabatzeko materiala Ebaluatzeko txantiloia

1. modulua: Komunikazio egoera irudikatu *(2. saioa)*	Haurrek komunikazio egoera ulertu (dakienak ez dakienari jolasten erakutsi)	Igorlea (dakiena), hartzailea (ez dakiena) eta azaldu behar dutena irudikatzeko elkarrizketa Sekuentziarako prestatu	Antzeko egoera komunikatiboez hausnartzeko materiala (argazkiak, kartak, irudiak...)
2. modulua: Antolatu eta egituratu *(3. eta 4. saioa)*	Deskribapena antolatzen eta egituratzen formulak ikasi Entzutearen garrantzia azpimarratu Bi/hiru hizlariren parte hartzea koordinatzen ikasi Koordinatu ahozko azalpena eta euskarrien erabilera (argazkiak, eskema...)	Sarrera egiteko eta moduak ikasi: norbere burua aurkezteko eta azalduko duena aurkezteko (perpaus metadiskurtsiboak) Deskribapenak izango dituen jolasak adostu eta izena eman bakoitzari: sarrera, materiala, jolasaren arauak, agurra Hizlari-entzuleen arteko elkarrekintzaz hausnartu Egoera berria sortu eta egoera berriaren barnetik hurrengo urratsa markatu (*galtzen duena... eta besteek jarraitu egingo dute...*)	1. eta 2. fitxak 1. fitxa. Ekoizpen mugatua: jolas baten atalak nahasita eman eta bere ordenan jarri eta justifikatu. Azaldu eta arrazoitu ahoz hartutako arrazoia. 2. fitxa. Ekoizpen mugatua: atal ezberdinei sarrera egiten dieten hitzak edo antolatzaileak ezabatu testutik eta ikasleak bere tokian jarri behar ditu. Arrazoiak eskatu eta hipotesiak egin: zergatik dakigu "lehendabizi" jolasaren azalpenaren hasieran egon dela?, etab. Erregistratu: bideoz grabatu
3. modulua: Dokumentatzen ikasi *(3. eta 4. saioa)*	Dokumentatzen ikasi hainbat iturri erabiliz (liburuak, CDak, internet, landa-lana...) Haurrentzat esanahia daukaten eta eraginkorrak	Mahai jolasak eta kanpo jolasak ezberdindu Kultura ezberdinetan jolas ezberdinak egiten dira, baina akaso ezaugarri antzekoak dituzte.	Jolastu bitartean argazkiak atera Erregistratu: bideoz grabatu

	diren euskarriak adostu Erabiliko den materiala izendatzen ikasi Momentuan egiten ari direna adierazten ikasi	Hausnartu Jolasa hautatzeko irizpideak finkatu, arrazoiak eman (erraz jolasteko, originala, jokalari askok parte har dezakete aldi berean, gure patioan jolasteko aproposa) Lexikoa eta esamoldeak
4. modulua: Unitate linguistikoak *(5. eta 6. saioa)*	Ulergarri bihurtu Komunikazio egoerari erantzuten dioten elementuak finkatu	Jolasen lexikoa Jolas motak izendatu Aditzaren denbora eta pertsona Antolatzaileak: lehenengo, ondoren, azkenik Dikotomiak: batzuk... eta besteek/batzuk... eta besteek.../irabazi duenak... eta galdu duenak... Aldiberekotasuna adierazteko: ... egin bitartean/ ikusten duenean... Hurrenkera: ondoren/ eginda gero... Eta horrela/ modu honetara/ era honetara...
5. modulua: Hizkuntzaz kanpoko elementuak *(6. eta 7. saioa)*	Entzuleen arreta erakarri Adierazpenaren espazioaz jabetu	Begiradaren garrantziaz jabetu Ahotsaren garrantzia: ikasleari ondo entzun behar zaio Keinuen garrantzia

Erregistratu: bideoz grabatu

Azken Ekoizpena *(8. saioa/ entsegua)* *(9. saioa/ azken ekoizpena)*	Entzuleen aurrean hitz egin Informazio egokia eman	Deskribapena egiteko kontrol zerrenda ahoz aurkeztu Beste gelara joan (edo haiek etorri) Aurkezpena ikasleen artean egin: bakoitzak bere burua aurkeztu, esango duena aurkeztu eta ekintzaren atal bat deskribatu	Materialak Erregistratu: bideoz grabatu

1. TAULA. SEKUENTZIA DIDAKTIKOA ZEHAZTUTA

3.1.2. *Sekuentzia Didaktikoa gelan: irakasleak instituzionalizatutako alderdiak eta transposizioa*

SDan ikusi dugun moduan, 9 saioz osaturiko lanketa da esku artean duguna. Eskola bakoitzean maistrak aurreko saioan landutakoa birgogoratzen du eta egingo denaren aurrerapena egiten du. Saioz saioko analisia egin ondoren, ikusten da irakasleak bereziki alderdi batzuetan egiten duela indarra, hots, alderdi batzuk "instituzionalizatzen" dituela: edukiari dagokionez, jolasaren sailkapena, ezaugarriak eta nola jolastu; informazioaren bilketari dagokionez, galderen egokitasuna, informazio eskaera nola egin eta informazioa idatziz jasotzearen abantailak; eta testu-moldeari dagokionez, hartzaileari egokitu beharra, papera irakurri gabe hitz egitea, kortesiazko formulak eta gorputz hizkuntzaren eta hizlariaren begiradaren lanketari dagozkionak. Hona hemen horien inguruko hainbat zehaztapen.

Edukiari dagozkion hainbat alderdi indartzen ditu maistrak. Jolasak sailkatzeko irizpideak eta aztertzeko ezaugarriak lantzen ditu: izena, zenbat lagun, non, materiala, abestirik ote duen, arauak, jokalarien rolak, transformazioak, bost urtekoentzat aproposa ote den, eta abar. Horiek erabiliko dituzte ikasleek beraiek aurretestuetan deskribatutako jolasak, ume txikiek deskribatu-

tako jolasak eta ereduzko testuetako jolasak sailkatzeko, besteak beste. Maistrarentzat hiztegiaren zehaztasuna ere (harrapaketa jolasa, soka-salto jolasa) oso garrantzitsua da.

Informazioaren bilketari dagokionez, 2. saioan landa lana egiten dute: ume txikien gelara joanda, galdetzen dute zein jolas ezagutzen duten eta zein ez. Informazio horren arabera, erabakiko dute zein jolas azaldu txikiei. Irakasleak hainbat alderdi instituzionalizatzen ditu: hartzailearentzat esanguratsuak eta interesgarriak diren datuak ematea, eta baita jolasa adinarentzat egokia izatea ere. Horretarako galderen egokitasunaz hausnartzen dute (zertarako eta zer galdetu, jakin nahi dutenaren arabera); informazio eskaera nola egin, adeitasunez (atea jo, agurra, aurkezpena, eskaera, eskerrak ematea eta agur esatea); informazioa idatziz jasotzearen abantailak.

Bukatzeko, testu-moldeari lotutako zenbait alderdi azpimarratzen ditu. Lehenik, esan beharrekoa aldez aurretik idatziz jasotzearen garrantzia nabarmentzen du, baina baita ahozkoa idatzitik deslotu beharra ere, azalpena buruz jakitea eta paperik gabe egin ahal izatea. Bigarrenik, hartzaileari egokitzearen garrantziaz jarduten du (zertarako irakatsi haurrek badakizkiten jolasak?), eta jolasa ez dakien batek ulertzeko moduan azaldu behar dela, eta gainera modu atseginean. Hirugarrenik, kortesiazko formulen lanketa dago: norberaren burua nola aurkeztu (lehenik laguna, gero norbera), eta agurra. Bukatzeko, baliabide ez-berbalek ahozko azalpenetan duten pisuaz hitz egiten du: begiradaren garrantzia; azalpenaren ulermena errazteko keinuek, antzezpenek, ahotsak eta gorputz adierazpenak duten balioa; kokapenaren garrantzia, eta abar.

Jarraian, irakasleak instituzionalizatzen dituen alderdiak multzokatu eta ondorengo taulara eraman ditugu, irakurleak ikus dezan zein saiotan zer instituzionalizatu den.

	Jolasa: ezaugarriak	Sailkapena	Jolas-arauak	Informazio eskaera nola egin	Galderen egokitasuna	Informazioa idatziz jasotzearen abantailak	Hartzailearen egokitu	Papera irakurri gabe hitz egitea	Kortesiazko formulak	Gorputz hizkuntza eta hizlariaren begirada
1.saioa	x	x	x							
2.saioa		x		x	x					
3.saioa	x					x				
4.saioa					x		x			x
5.saioa								x	x	x
6.saioa							x			x
7.saioa						x				x
8.saioa	x					x				x
9.saioa										

2. TAULA. IRAKASLEAK INSTITUZIONALIZATZEN DITUEN EDUKIAK

Taula honetan jasotako datuak irakasleak instituzionalizatu dituen ezagutzak dira, hau da, eskolak, irakaslearen bitartez, garrantzizkoak direla aditzera ematen dituenak. Kontua da, horiek SDan programatutakoekin alderatzen baditugu, zenbait desberdintasun ikusten ditugula: batetik, irakasleak 3. moduluan programatu zuen "dokumentatzen ikasi, hainbat iturri erabiliz", eta horietako bat baino ez dute gauzatu ikasleek, landa lanarena, hain zuzen. Izan ere, haurrak ez dira harremanetan jarri jolas motak/arauak dituzten informazio iturriekin. Bestetik, irakasleak sekuentzian programatu arren, ez ditu 4. moduluko alderdi testualak berariaz lantzen. Hala ere, maistrak instituzionalizatzen ditu behin eta berriro komunikaziozko alderdiak (hartzailearekiko egokitasuna, alderdi paratestualen garrantzia, paperik gabe hitz egiteko egokitasuna, etab.).

Aipagarria deritzogu alderdi komunikatiboei ematen zaien tokiari, izan ere, benetako bihurtzen dute egin beharreko hitzalditxoa. Zentzu horretan, agerian da ez dela ahozko ariketa tribiala, eta lortua dela ataza honen helburu nagusia. Nolanahi ere, irakasleak ez du arretarik jarri antolaketako alderdie-

tan, ezta testuratze-mekanismoetan ere (berrartze anaforikoak, antolatzaileak, modalizazioak hartzaileari begira, etab.). Landu gabe gelditu dira, orobat, hizkuntzaren alderdi formalak, alegia, gramatikaz ari gara; eta irakasleak, behatu dugunaren arabera, izan du okasiorik zuzenketak egiteko. Horrek guztiorrek agerian jartzen du ahozkoa lantzeko konplexutasunak dakarren problematika bat: alderdi guztiak aldi berean lantzeko zailtasuna.

3.2 Irakaslearen esku-hartzea eta ikaste helburu bikoitza

Atal honetan, irakaslearen elkarrekintza analizatuko da, ikusteko modu zehatzagoan zertan den bere esku-hartzea ikas-irakaste prozesu honetan. Horretarako, 3 saio aztertu ditugu eta horietako elkarrekintzetan ikusiko dugu non ardazten duen ikasleen lanketa, hots, zer instituzionalizatzen duen bere ahozko jardunaren bidez.

3.2.1 *Behatutako datuen analisia: 1. saioa*

Ordu eta erdiko saioa da. Bertan irakasleak SDaren helburuak partekatzen ditu ikasleekin eta laguntzen die ulertzen zein izango den azken xedea. Ikasleen parte-hartzea altua da. Interakzio-sekuentzia bakoitzean ikasle batek hartzen du parte, beraz, gure analisian 12 sekuentzia aztertu dira.

Saio honek hiru atal ditu, eta argi bereiz daitezke: lehenean, maistrak ikasleei SDaren azken xedea aurkezten die, eta eurekin partekatzen ditu egitekoak; galderen bidez laguntzen die identifikatzen zein testu genero/molde ekoitziko duten. Horretarako, irakaslea baliatzen da eskolan lehenago egin diren lanez eta lan egiteko moduez. Saioaren bigarren partean, ikasle guztiek banan-banan aurkezten dute, gelakideen aurrean, eurek aukeratu duten jolasa eta beronen arauak. Hirugarren partea saioaren itxiera da, eta maistrak hausnartzen du ikasleekin batera jolasen egokitasunari buruz, zer jolas den egokia noiz-non-norekin egiteko; azkenean, jolas bat egitea proposatzen die. Azken jarduera horrek ikusarazten die ikasleei beharrezkoa dela jolas arauak definitzea eta konpartitzea, jolasa jolastuko bada.

Ikasleek egiten dituzten jarduerak koherenteak dira helburuekiko, baita maistrak diseinatu duen SDan agertutako jarduerekiko ere. Guk aztertuko ditugun maistra-ikasle interakzioak saioaren bigarren parteari dagozkionak dira.

Maistraren helburuak

SDan jasotako helburuak eta gelan behatutakoa bat datoz, horregatik baieztatzen dugu irakasleak programatu zituen helburuen transposizio fidela egin duela, hau da: a) ikasleek ulertzea proposatu zaien komunikazio egoeraren zentzua, "ezagutzen duten jolas baten arauak azaltzea 5 urteko umeei"; b) ikasleek ulertzea komunikazio egoera eta martxan jarri beharko dituzten estrategiak; c) ikasleak testu generoari/moldeari buruz dituzten aurrezagutzetatik abiatzea ("ekintzak deskribatzeko testua").

Maistrak sustatzen duen elkarrekintza mota

Gorago ere esan dugunez (1.2. atalean), sei analisi kategoria bereizten ditugu (Thévenaz-Christen, 2005), hurrengo taulan jasotzen ditugunak:

Analisi kategoriak	1		2		3		4		5		6		Guztira
Sekuentziak	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%	N
1	10	58,88	2	11,76	3	17,64	1	5,08	1	5,08	-		17
2	9	60	1	6,66	5	33,33	-		-		-		15
3	6	66,60	2	22,20	1	11,10	-		-		-		9
4	11	55,00	1	5,00	7	35,00	1	5,00	-		-		20
5	21	61,76	4	11,76	8	23,52	-		1	2,94	-		34
6	10	55,50	3	16,60	5	27,70	-		-		-		18
7	21	72,40	3	10,34	3	10,34	-		-		2	6,89	29
8	14	56,00	1	4,00	7	28,00	1	4,00	-		2	8,00	25
9	13	48,14	1	3,70	11	40,74	-		1	3,70	1	3,70	27
10	13	56,52	3	13,04	2	8,70	-		4	17,39	1	4,35	23
11	9	56,25	1	6,25	6	37,50	-		-		-		16
12	8	53,30	2	13,33	4	26,60	-		-		1	6,60	15
Guztira	145	58,47	24	9,68	62	25	3	1,21	7	2,82	7	2,82	248

3. TAULA. SD-AREN 1. SAIOAREN ELKARREKINTZA SEKUENTZIAK

3. taulak erakusten du maistraren elkarrekintza erdiak baino gehiago (%58,47) jolasaren eduki-arauei dagozkiela. Birformulazioek ere tarte handia dute irakaslearen berbaldian (%25), gehienak iluna izan daitekeen informazioa argitzeko edo zehazteko erabiltzen dira. Nabarmen da, bestalde, hitza hartzeko gonbitea ikasle guztiekiko interakzioan agertzen dela, denek dute hitz egiteko parada. Azkenik, beharrezkoa da markatzea testu edo hizkuntza alderdiek interakzioetan duten pisu apala (%2,82).

Hona hemen analizatutako kategoriak islatzeko adibide batzuk:

1. katg.: a ber/ eta jolas hortara jolasteko/ ze/ ze gauza biou?

2. katg.: uf! Danok urte arte/ ta gero gure bada jarraitu ezta?

3. katg.: bale ba/ a ber Nagore/ etorri zu oin/ a ber/ ze jolas esplikau biozkotzu zuk?

4. katg.: ez baina altu egin biozu eh!/ bestela ez dou entzuten.

5. katg.: Jokin jarri ondo/ Ibai/ Ibai/ a ber gauza bat/ zuri gustetan jatzu/zu berbetan zabiltzanian besteak entzuten egotia ezta?

6. katg.: zapatila gorde.../ nola esan dozu?/ zapatilak?

Beharrezkoa da, orobat, behatu diren elkarrekintza-sekuentziak errekurtsiboak direla markatzea. Sekuentzia guztiek jarraitzen diote eskema bati, hiru atalez osatua dagoen eskema bati, hain zuzen: lehenean, maistrak ikasleari hitza ematen dio; bigarrenean, ikasleak jolasa azaltzen du; eta hirugarrenean, maistrak, galderen edo birformulazioen bidez, laguntzen dio ikasleari hobeto azal ditzan jolasaren azalpenean argi gelditu ez diren alderdiak.

3.2.2 *Behatutako datuen analisia: 5. saioa*

Saio hau 1.aren eta 9.aren artekoa da. Bosgarren honetan, maistrak proposatzen die ikasleei 5 urteko umeen aurrean egingo duten aurkezpenaren entsegu orokor bat egitea. Entsegu horretan, ikasleek aintzat hartu beharko dituzte SDaren aurreko saioetan ikasitakoak. Horrenbestez, ikasleek praktikatu egiten dute gelaren aurrean nola aurkeztu euren burua 5 urteko txikien aurrean, bai eta nola egin jolasaren sarrera ere. Hona hemen adibide bat:

ir:a ber/Ainhoa (2. katg.)
ik1:zer?
ir: ba zer/esan bizauen/zelan ingou aurkezpena?(4. katg.)
ik1: ba/eh/hara jun/eta/ba/arratsalde on
ir:arratsalde on (3. katg.)
ik1: zertarako gatozen
ir:bai/baina esan zer/esan inbihouzu zertara gatozen (4. katg.)
ik1: gatoz/eh
ik2: euskal jolasak erakusten
ik1: jolas batzuk erakustera (3. katg.)
ir:jolas batzuk erakustera
ik1: ni
ir:nor naiz/edo (4. katg.)
ik1: Ainhoa naiz

Maistrak egun horretako egitekoa abiatzen du ikasleei gogora ekarriz zer ikasi duten sekuentziaren aurreko saioetan. Ondoren, komunikazioaren alderdi paraberbalak lantzeari ekiten dio: begirada, ahotsaren bolumena, keinuak, gorputzaren jarrera, eta abar. Gero, ikasleak binaka antolatzen dira; bikote bakoitzak bere aurkezpena egiten du eta azalduko duen jolasa esplikatzen du, aintzat harturik aldez aurretik egin duten kontrol zerrenda batean jasotako printzipioak. Entsegu orokor horretan, bikote guztiek parte hartzen dute eta maistrak eurekin interakzionatzen du. Saioaren parte hori izango da ondoren aztertuko duguna. Eguneko saioa bukatzen da jolas bat eginez.

Maistraren helburuak

Irakasleak transposizio didaktiko fidela egiten du dituen helburuekiko: gogora ekartzen du egindako bidea eta ikasitakoa, eta markatzen du baita oraindik ikasteko dagoena ere. Egiteke dituzten lanen artean ahozko komunikazioaren alderdiak eta kortesiazkoak daude, eta horiei eskaintzen die saioa. Maistra saiatzen da "oradoreei" ulertarazten zein garrantzitsua den begiradaren eta gorputzaren bitartez harremana sortzea entzuleekiko. Maistra, azalpena garatzeko, euskal kulturan publiko diren pertsonaiez baliatzen da, umeentzat ezagunak eta esanguratsuak direnez.

Maistrak sustatzen duen elkarrekintza mota

12 elkarrekintza-sekuentzia identifikatu dira. Horietako bakoitzean ikasle-bikoteak bere buruaren aurkezpena egiten du eta azaltzen du hautatu duten jolasaren nondik norakoa. Baliatzen ditugun analisi kategoriak 1. saiorako erabili diren berberak dira. Bigarren taula honetan jasotzen dira behatutako datuak.

Analisi kategoriak	1		2		3		4		5		6	Guztira	
Sekuentziak	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%	
1	-		2	22,20	2	22,20	5	55,50	-		-		9
2	-		2	20	1	10	2	20	-		5	50	10
3	-		1	25	1	25	-		-		2	50	4
4	-		1	100	-		-		-		-		1
5	-		3	60	-		2	40	-		-		5
6	-		3	18,75	-		11	68,75	2	12,50	-		16
7	2	40	3	60	-		-		-		-		5
8	-		2	50	1	25	1	25	-		-		4
9	-		-		-		4	80	1	20	-		5
10	5	55,50	1	11,10	-		3	33,30	-		-		9
11	2	40	1	20	1	20	-		1	20	-		5
12	6	37,50	1	6,25	1	6,25	4	25	3	18,75	1	6,25	16
Guztira	15	16,85	20	22,47	7	7,86	32	35,95	7	7,86	8	8,98	89

4. TAULA. SD-AREN 5. SAIOAREN ELKARREKINTZA SEKUENTZIAK

4. taula horretan agertzen diren datuen arabera, ikusten dugu maistraren elkarrekintzak ikasleek egin beharrekoarekin uztartzen direla, baita ikaste-helburuekin ere; izan ere, saioa ematen dute hartzaileari nola egokitu ikasten. Horregatik maistrak jartzen du arreta hartzailearekiko egokitzapenean nagusiki. Horra hor irakaslearen elkarrekintzen %35,95 laugarren kategoriari eskainita. Hona hemen adibide batzuk:

4. katg.: baina gauzatxo bat esan biotzuet/ zuek ahal dozue ya/ ez da irakurri biher dana/ holan jartzen dauen moduan.

4. katg.: lehenengo puntua/ altu eta garbi/ a ber/ aurkezpena.

Markatu beharrekoa iruditzen zaigu alderdi testual edo gramatikalek jasotzen dutela arreta. Kategoria horretarako aurkitu ditugun adibideak, hala ere, ikasleen aurkezpenaren ordenari dagozkie, hau da, kortesia alderdiei, interesgarriak begitandu zaizkigunak.

250 ik3: Ibai eta/ Lur gara

251 ir: Lur eta Ibai/ esaten da bestian izena lehendabizi

3.2.3. *Behatutako datuen analisia: 9. saioa*

SDaren azken saioa eskolako jolastokian egin da, 5 urteko umeekin batera. Saioaren pisua Lehen Hezkuntzako ikasleek daramate, eurek azaltzen diete txikiei prestatuaz joan diren jolasa. Maistraren presentzia diskurtsiboa oso nabarmen jaisten da: ikasleak dira saioaren jabe, eurek dute ahotsa.

55 minutuko saioa da eta 6 elkarrekintza-sekuentzia identifikatu dira. Horietako bakoitzean, ikasle-bikoteak modu ko-generatuan azaltzen die 5 urteko haurrei sekuentzian zehar eurentzat egindako lanaren emaitza. Elkarrekintza-sekuentzia guztiek antolaketa antzekoa dute: ikasleen aurkezpenarekin hasten dira eta, jarraian, jolasa azaltzen dute. Maistrak oso noizbehinka baino ez du parte hartzen.

Maistraren helburuak

Saio honetako xedeak SDaren helburuekin lotzen dira, noski; izan ere, SDaren azken xedea praktikan jartzea eskatzen da. SDaren gauzatzeak bat egiten du beronen diseinuarekin.

Maistrak sustatzen duen elkarrekintza mota

Maistrak gutxi hartzen du parte, eta bere esku-hartzea oso fokalizaturik dago hiru aktibitatetan: hitza hartzera gonbidatzean, birformulazioan eta azal-

tzen duenak duen rolarekiko zehaztapenak ematean. Irakaslearen esku-hartzea loturik dago ikasleak behar duen laguntza motarekin eta egin behar duen eginkizunaren ezaugarriekin. Hona hemen aurkitu ditugun irakaslearen interakzioaren ezaugarriak.

Analisi kategoriak	1		2		3		4		5		6	Guztira	
Sekuentziak	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%	N
1	-		3	27,20	5	45,45	2	18,18	1	9,09	-		11
2	2	22,20	2	22,20	2	22,20	2	22,20	1	11,10	-		9
3	2	28,50	2	28,50	3	42,80	-		-		-		7
4	-		2	33,30	-		4	66,60	-		-		6
5	-		2	40	2	40	-		1	20	-		5
6	1	16,60	3	50			1	16,60	1	16,60			6
Guztira	5	11,36	14	31,80	12	27,27	9	20,45	4	9,09			44

5. TAULA. SD-AREN 9. SAIOAREN ELKARREKINTZA SEKUENTZIAK

Hona hemen irakaslearen bitartekaritzaren adibide batzuk:

ir: bukatzen da/danak harrapatzen dauenian (1. katg.)

ik4: bai

ir: danok sarean zaudetenian/ezta?/harrapatuta zaudetenian (3. katg.)

(...)

ir:bueno poliziak/alde hortara eh?/poliziak hor (1. katg.)

ik5: poliziak horra

ir:eta lapurrak hor//ulertu duzue zelan dan?/jokin zer inbida oin/oin zer inbida (4. katg.)

(...)

3.2.4. *Aztertutako hiru saioen analisi konparatiboa*

Behatu diren hiru saioetan maistrak bideratu dituen elkarrekintzen gainean hiru motatako analisiak egin ditzakegu: a) hitz-hartzeen maiztasunari buruzkoa; b) kategorien gainekoa; eta, c) ikasleek egin beharreko atazari lotutako egokitasunaren araberakoa.

Hitz-hartzeen maiztasunari dagokionez, alde handiak daude hiru saioen artean. Analisian ikusi ahal denez, irakasleak hitz-hartze gutxiago egiten du SD aurrera joan ahala. Bestalde, arreta ematen digu maistrak SDaren saio bakoitzean alderdi desberdinetan erreparatzeak eta fokalizatzeak. Lehenengo saioan nagusiki edukietan jartzen du ardatza, ikaslea azaltzen ari den jolasarauak argitu nahi ditu; horretarako bere hitz-hartzeak batez ere bideratzen dira egiaztatzera jolasa ezagutzen dela edo berauen arauak birformulatzera. Aurrerago, 5. saioan, ikaste-objektuari egokitzen zaio (norbere buruaren aurkezpena eta jolasaren azalpena), eta, hortaz, irakaslearen hitz-hartzeak bideraturik daude nagusiki hartzaileari egokitzeko egin beharrekoetara. Azken saioan ia desagertu egiten dira maistraren hitz-hartzeak eta oso modu nabarmenean jolas-arauei buruzko zehaztapenak.

Bukatzeko, beheko taulari begira, esango dugu irakaslearen hitz-hartzeak, hala maiztasuna nola kategoriak, nahiko loturik daudela SDan markatutako helburuetara eta ikasleek egin behar dituzten lanetara. Era berean, egokitzen dira ikaslearen ikaste-mailari, eta, hortaz, zenbat eta ikasketa handiagoa egin, orduan eta irakaslearen hitz-hartze gutxiago dago.

Analisi kategoria	1		2		3		4		5		6		Guztira
Saioak %	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%	N
1	145	58,47	24	9,68	62	25	3	1,21	7	2,82	7	2,82	248	100
5	15	16,85	20	22,47	7	7,86	32	35,95	7	7,86	8	8,98	89	100
9	5	11,36	14	31,82	12	27,27	9	20,45	4	9,09	-	-	44	100
Guztira	165	43,31	58	15,22	81	21,26	44	11,55	18	4,72	15	3,94	381	100

6. TAULA. IRAKASLEAREN HITZ-HARTZEAREN MAIZTASUNA SAIO BAKOITZEAN

3.3 Ikasleen ekoizpenen azterketa

Esan dugun moduan, lan honen hirugarren helburua da ikustea ea ikasleen lan diskurtsiboan aldaketarik egon den SDaren hasieratik bukaerara, eta horretarako aztertu ditugu ikasleek banaka ekoitzitako aurretestuak (12 ale) eta binaka ekoitzitako ondotestuak (6 ale). Aurretestu eta ondotestuotan ikusten da garapen argia dagoela Thévenaz-Christen (2002) autoreak ematen dituen parametroen arabera. Gure corpusak badu berezitasun bat, autore horren banaketak kontuan hartzen ez duena, eta hori da SDan landu nahi den azalpenaren izaera formala. Horren ondorioz, berbaldi-ekintzaren testuinguru parametroen barruan integratu dugu hizlariak egiten duen bere buruaren aurkezpena eta azalpenaren helburua esplizitatzea ere (*gu Gorka eta Saioa gara eta Kantauriko Itsasoa jolasa aurkeztera* gatoz).

Hona dakargu, garapen horren erakusgarri, jolas beraren (*Lapurrak eta poliziak*) aurretestu eta ondotestu baten adibidea.

LAPURRAK ETA POLIZIAK

AURRETESTUA:

Mi:eh / lapurrak eta poliziak
[...]
Mi:ba eh / takaten/tokaten ba jente askoi lapurra ba faten die korrikan / eta poliziak gelditzen die kontetan eta gero / eh kontatzen dabenian hamar edo holan / ba faten die lapurrei / lapur... / lapur... / lapurrei harrapetan

ONDOTESTUA:

Jk:kaixo gu Asier eta Jokin gara / eta poliziak eta lapurrak jolasa aurkeztera gatoz
As:harrapaketa jolasa da / gela osoak jolasteko modukoa/zuentzat oso aproposa / frontoian edo pistan
Jk:lehenengo / lehenengo bi talde osatu / batzuk poliziak eta beste batzuk lapurrak
ha:ni polizia
ha:ni lapurra

ha:ni polizia

Jk:eta gero lapurrak jartzen die / korrika juango die eta / poliziak hogei kontau eta lapurrak harrapetan juango die

ir:a ber zeintzuk izango die poliziak?

batzuk:ni!

ir:bueno poliziak / alde hortara eh? / poliziak hor

ha:poliziak horra

ir:eta lapurrak hor//ulertu duzue zelan dan?/jokin zer indbida oin/oin zer inbida

Jk:eta poliziak / hogei kontau / eta juango die lapurrak harrepetan / eta lapurren bat harrapetan badauie / itxiko dauie hortxe lapurra / lapurra / eta juango die beste lapurrak salbetan [bitartean haur batzuk korrika dabiltza azalpenak entzun gabe]

ir:a ber! / lapurrak! // ulertu duzue?

de:bai

ir:bai / a ber azaldu hauei / ze hauek ez dira enterau

Jk:ba poliziak/hogei kontetan dabenian /zuek harrapetan fango die / eta norbait harrapetan badau / itxiko dabie han/eta norbait itxoitxen daonian ya / zelan / eh / txo: / bestiek / beste lapurrek salbatuko dabie / txokala emonez albokuai / eta bukatzen da jokua lapur guztixak harrapata dazenian

Lehen begi-golpean ikus daitekeenez, aurretestua baino askoz luzeagoa da ondotestua: aurretestuak 26 berba ditu eta ondotestuak, ostera, 110 berba. Hitz kopurua ez da hobekuntzaren adierazle bera bakarrik, baina argi dago bestelako hizkuntza baliabideak agertuko badira hitz kopuruak ere gora egin behar duela. Bestalde, honakoa ikus daiteke:

a. Berbaldi-ekintzaren testuinguruari dagokionez, aurretestuan esatariak ez du bere **hizlari rola** errepresentatzen, ez eta aurkezpenaren helburua aurkezten ere; ondotestuan, ordea, bai. Bestalde, aurretestuan ez zaio **entzuleari erreferentziarik** egiten; ondotestuan bigarren pertsona plurala erabiltzen da entzuleei erreferentzia egiteko (*zuentzat oso aproposa, zuek harrapetan fango die*), eredua ematen da (*ni polizia, ni lapurra...*), entzuleak eta jolasaren protagonistek bat egiten dute eta hizlariak erreferentzia egiten die (*gela osoak jolasteko modukoa,*

zuentzat oso aproposa; zuek harrapetan fango die). Bukatzeko, azpimarratu behar da aurretestuan ez bezala, ondotestuan **prozesu osoa** kontatzen dela.

b. Eduki tematikoari dagokionez, aurretestuan **pertsonaiak** zeharka aipatzen dira, ondotestuan, berriz, aurkeztu egiten dira (*lehenengo bi talde osatu/batzuk poliziak eta beste batzuk lapurrak*). Aurretestuan ez dago **jolas motari, espazioari, arauei** edota **transformazioei egindako erreferentziarik**; ondotestuan, berriz, aipatzen dira: jolas mota (*harrapaketa jolasa da*); espazioa (*frontoian edo pistan*); arauak (*lehenengo bi talde osatu...; eta bukatzen da jokua lapur guztixak harrapata dazenian*); eta transformazio erreferentziak (*norbait harrapetan badau/itxiko dabie han/eta norbait itxoitxen daonian ya/zelan/eh/txo:/bestiek/beste lapurrek salbatuko dabie/txokala emonez...*).

c. Planifikazio markei dagokienez, lehenengo eta behin, aipatu behar da aurretestua ikasle bakarrak kudeatzen duela eta ondotestua bi ikaslek kudeatzen dutela; hala ere, bi autore egon arren, lokutorea bakarra da eta bien artean testu bakarra eraikitzen dute (Ducrot, 1984). Horren harira, ez dago inongo trantsiziorik eta hitz-ematerik autore baten eta hurrengoaren artean, eta jarraikortasuna dago bien arteko berbaldietan. **Testu loturetan,** bi testuen artean ez da alde nabarmenik antzematen, bietan daude *eta, eta gero* eta *kontatzen dabenian*; eta ondotestuan *lehenengo* zenbatzailea ere agertzen da.

d. Testuratze-markei begiratuz gero, bai aurretestuan eta bai ondotestuan batez ere **akzio-aditzak** daude (*tokatu, joan, gelditu, kontatu, harrapatu, korrika joan, jarri, salbau...*), nabarmen gehiago ondotestuan, agian luzeagoa eta osatuagoa delako. Aurretestuan jolaseko partaideak ez dira aurkezten eta ezaugarritzen, berrartzeko elipsia eta errepikapena erabiltzen dira; ondotestuan jokalariak aurkeztu egiten dira (*bi talde osatu, batzuk poliziak eta beste batzuk lapurrak*), jokalarien berrartzea egiten da erabiliz bereziki izenordeak (*norbait*) eta errepikapenak (*polizia, lapurra*). Bukatzeko, aipatu behar da, aurretestuan ez bezala, ondotestuan prozesu osoaren eta eraldaketaren berri emateko lexikoa agertzen dela (*harrapatu > txokala egin > salbatu; harrapatu > jolasa bukatu*).

Adibidean ikusi ahal denez, aurretestu eta ondotestuen artean alde nabarmenak daude hainbat mailatan. Hala ere, jakin gura izan dugu aurretestuetatik ondotestuetara bilakaera hori zertan den. Horretarako Thévenaz-Christen autoreak (2002) proposatutako parametroetan *continuum* bat definitu dugu, "jolas-arauen azalpena" testu-moldeari gutxien lotzen zaizkionetik gehien lotzen zaizkionera. *Continuum* horretan lerratu ditugu corpuseko aurretestu eta ondotestuak, eta modu horretan ikusi ahal izan dugu ikasleek testu-moldeari dagokion zein parametrotan izan duten garapen maila altuena. Esan bezala, parametroak *continuum*ean zehaztu ditugu eta testuek beti ez dituzte maila bateko ezaugarri guztiak betetzen; hala ere, beti lerratzen dira gehiago —ezaugarrien maiztasuna eta distribuzioa kontuan hartuta— maila batera edo bestera.

	A maila	**B maila**	**C maila**	**D maila**
Berbaldi- ekintzaren testuinguru parametroak	Ez dute euren burua aurkezten. Prozesua apenas azaltzen da eta irakaslearen galderek bideratzen dute azalpena. Ez diote entzuleari erreferentziarik egiten.	Ez dute euren burua aurkezten. Prozesuaren azalpenaren zati bat azaltzen da, baina ez osotasuna. Irakaslearen aldamiatzeak lagundu dezake azalpena osatzen. Entzuleari zeharka egiten diote erreferentzia: ezagutza konpartitua.	Ez dute euren burua aurkezten. Prozesuaren azalpen ia osoa agertzen da. Entzulea azalpenean inplikatzen dute: 1. pertsonaren erabilera, ezagutza konpartitua...	Euren burua aurkezten dute. Aurkezpenaren gaia zehazten dute. Prozesuaren azalpen osoa agertzen da eta irakaslearen aldamiatzea ez da beharrezkoa. Entzulea da azalpenaren helburua: erreferentzia zuzenak, 2. pertsona pluralaren erabilera, galdera zuzenak...
Eduki tematikoa	Ematen den informazioa ez da jolasaren prozesua ulertzeko nahikoa. Ez dago erreferentziarik jolas-arauei, materialari, jokalariei, espazioari eta jolasean zehar gertatu beharreko transformazioei.	Erreferentzia inplizitua jolas-arauei, materialari, jokalariei, espazioari eta jolasean zehar gertatu beharreko transformazioei.	Erreferentzia esplizitua jolas-arauei, materialari, jokalariei, espazioari eta jolasean zehar gertatu beharreko transformazioei.	Zerrendatzea edota aurkezpena eta erreferentzia esplizitua jolas-arauei, materialari, jokalariei, espazioari eta jolasean zehar gertatu beharreko transformazioei.

Planifikazio-markak	Ekintzak aipatzen dira hurrenez hurren. Testu loturak *eta* lokailuarekin egiten dira soilik.	Ekintzak aipatzen dira hurrenez hurren. Testu lotura gutxi, batez ere *eta* eta oinarrizko espazio-denborazko antolatzaile batzuk: *gero, orduan.*	Metadiskurtso marka batzuk daude. Hainbat antolatzaile: espazio-denbora antolatzaileak, eraldaketa adierazten duten antolatzaileak, segida osatugabeak...	Metadiskurtsoa erabiltzen da azalpena antolatzeko. Testu lotura asko: segidak, espazio-denbora antolatzaileak, eraldaketa adierazten duten antolatzaileak...
Testuratze-markak	Ekintzak adierazteko aditzak. Ez dira aurkezten eta berrartzen jokalariak eta rola, materiala eta espazioa.	Ekintza adierazten duten aditz batzuk, denborazko eta baldintzazko esaldiak. Jokalariak, materiala, espazioa eta abar aurkeztu eta berrartzen dira modu ez zehatzean. Baliabide nagusiak erakusleak eta elipsia dira.	Ekintzak adierazteko aditz ugari, denborazko eta baldintzazko egiturak, prozesuaren hurrenkera azaltzeko lexikoa. Jokalariak, materiala, espazioa eta abar aurkeztu eta berrartzeko baliabide nagusiak erakusleak, izenordeak eta errepikapenak.	Ekintzak adierazteko aditz ugari eta askotarikoak, denborazko eta baldintzazko esaldiak, prozedura azaltzeko lexikoa. Eraldaketa eta ondorioak adierazteko anaforak. Jokalariak, materiala, espazioa eta abar izendatu eta berrartzen dira modu sistematikoan: izenordeak, errepikapenak, hiperonimoak, biltzaileak...

7. TAULA. "JOLAS-ARAUEN AZALPENA"" TESTU-MOLDEAREN EZAUGARRITZEA

Sailkapen horren arabera, gure aurretestu eta ondotestuek ondoko banaketa dute:

		A maila	B maila	C maila	D maila
Aurretestuak	Berbaldi-ekintzaren testuinguru parametroak	4, 8, 12, 6	3, 5, 7, 10, 11	1, 2, 9	
	Eduki tematikoa	4	1, 3, 5, 6, 7, 9, 10, 11, 12	2, 8	
	Planifikazio-markak	5, 10, 12	3, 4, 6, 7, 8, 9, 11	1, 2	
	Testuratze-markak	3, 4, 6, 11	5, 7, 8, 9, 10, 12	1, 2	

8. TAULA. AURRETESTUEN SAILKAPENA 7. TAULAKO EZAUGARRITZEAREN ARABERA

		A maila	B maila	C maila	D maila
Ondotestuak	Berbaldi- ekintzaren testuinguru parametroak			13, 15	6', 7', 11', 14
	Eduki tematikoa		13	6', 14, 15	7', 11'
	Planifikazio-markak			6', 7', 11',13, 14,15	
	Testuratze-markak	13	11'	6', 14, 15	7'

9. TAULA. ONDOTESTUEN SAILKAPENA 7. TAULAKO EZAUGARRITZEAREN ARABERA

Taulan islatzen denez, ondotestuek egokiago betetzen dituzte "jolas-arauen azalpena" testu-moldearen ezaugarriak, eta nahiko modu nabarmenean gainera. Berbaldi-ekintzaren testuinguru parametroei dagokienez, esan behar dugu aldea bereziki nabarmena dela, aurretestuetan ez bezala, ondotestuetan sistematikoki aurkezten baitute euren burua aditu moduan, eta gaiaren aur-

kezpena egiten dute (*gu Ainhoa eta Nagore gara / eta hilabeteak jolasa aurkeztera gatoz*). Ondotestuetan, prozesua ia kasu guztietan bere osotasunean aurkezten da; aurretestuetan, ostera, prozesuko zati batzuk isildu edo nahastu egiten dira (1, 2 eta 9 testuetan salbu) eta maistrak bere elkarrekintzarekin informazioa osatzen laguntzen die ikasleei. Parametro honekin bukatzeko, aipatu behar da aurretestuetan gutxitan dagoela entzuleari egindako erreferentziarik eta ondotestuetan hori sistematikoki egiten da; hala ere, erreferentzia horiek ez dira solaskidetzakoak (*entzuten da?, azalduko dizuegu* modukoak), baizik eta entzulearen parte-hartzaile izaerari zuzendutakoak (*zuentzat oso polita izango da; poliziak hogei kontetan dabenien / zuek harrapetan fango die*).

Eduki tematikoari dagokionez, aurretestuetan edukia modu inplizituan aurkezten eta garatzen da *(ba kanguroak lehenengo juen bidia paretara korrika*); ondotestuetan, berriz, edukiari erreferentzia esplizituki egiten zaio (*soka jolasa da [...] frontoian edo pistan jolastu leike [...] lehenengo bi lagunek soka eragiten hasten dira*).

Planifikazio-markez ari garela, ikusten da esaterako ondotestuetan metahizkuntzaren erabilera handiagoa dela (*maritxiri jolasa irakastera gatoz; kanika txiki bat aurkeztera gatoz*), baina alde hori ez da horren nabarmena testu-antolatzaile eta lokailuei dagokienez. Aurretestuetan baino antolatzaile gehiago badaude ere, batetik, segidak osatugabeak dira (*lehenengo*) eta, bestetik, *eta*, *eta gero* eta espazio-denbora antolatzaileak dira erabilienak oraindik ere.

Bukatzeko, testuratze-marketan, aurretestu eta ondotestuen artean aldea egon badago ere, ez da horren sistematikoa eta orokorra, eta ikusten da sei ondotestuetako bitan testuratze-markek hutsuneak dituztela edota oso oinarrizko baliabideak erabiltzen direla.

Atal honekin amaitzeko, nabarmendu gura dugu guk hobekuntzatzat jo dugun hainbat alderdi (hizlariaren rola agertzea, entzuleari erreferentzia egitea, aurkezpen gaiaren berri ematea, eta abar) ondotestuetan nahiko modu "artifizialean" egiten direla.

Jo: hola/gu Jone eta Iraide / eta maritxipi jolasa / irakastera gatoz

Id: dantza jolasa / da / gelako neska eta mutilak jolastu leikete // abestia ikasi behar da / frontoian edo pistan jolastu leike / leku zabala behar da

Horren harira Dolz eta Schneuwly autoreek (1998) diote ondotestuak, batzuetan, ikasitako testu-moldearen karikaturak izan ahal direla, ikasitakoa denboran oso gertu dagoelako eta benetan zer barneratu duten beranduago jakingo delako.

Ondorioak eta galderak

Azterlanean ikusi ahal izan dugu irakasleak ikasleak aditutzat eta solaskide gaitzat hartzen dituela, jarrera zabalarekin maistrak gelako kide guztiei eskaintzen die parte hartzeko aukera, galdera ireki baten/batzuen bidez. Parte-hartze hori erraztu egiten du, esan bezala, gaia ikasleentzat ezaguna eta hurbila izateak. Ikasgelako giro lasaiak eta errespetuzkoak, orobat, hitz egiteko aukera eta errorerako tartea eskaintzen die ikasleei, eta ahozko hizkuntzaren lanketan ezinbesteko ezaugarriak dira horiek.

Bestalde, irakasleak birformulazioen bidez aukera ematen die ikasleei zehazteko, gehitzeko, aldatzeko edota txukuntzeko azalpenean ilun gera zitezkeen alderdiak. Birformulazio horien tonua baikorra eta errespetuzkoa da ikasleek esaten dutenarekiko.

Irakaslearen parte-hartzeak batez ere edukien inguruan sakontzera bideratuta daude (zein den jolasa, jolasen sailkapena, zeintzuk diren jolas-arauak eta abar). Horregatik, ikusten da desoreka dagoela edukiei dagokien parte-hartzearen eta ekoitzi beharreko testu-moldeari dagozkien alderdien artean; oso gutxi baitira, esate baterako, planifikazio edo testualizazioari eskainitako tarteak. Maistrak ez du enuntziazio bikoitza aintzat hartzen, eta ez da sekuentzia metalinguistikorik antzematen, hau da, "segmentos de discurso que fomentan la propia producción discursiva en sus aspectos puramente lingüísticos o bien discursivos" (Plazaola eta Leutenegger, 2003).

Langai izan dira, berebat, ahozko komunikazioari lotuta datozen zenbait baliabide: begiradaren garrantzia, gorputz-hizkuntza, kokapena, ahotsaren bolumena, eta abar. Kortesiak eta hartzaileari egokitu beharrak ere tratamendu zaindua izan dute saioetan. Guztiarekin ere, alderdi linguistikoak soilik dira elkarrekintza guztien %3,93, hau da, esan berri dugun moduan, irakaslearen diskurtso metalinguistiko urria dago alderdi testual edo diskurtsiboei buruz, baita gramatika kontuen gainean ere. Horri lotuta, esan behar da hor badagoela kontraesan bat maistrak lehen saioan ikasleei aurkeztutako "ibilbide-orri"aren eta gero egindakoaren artean, zeren lehen saio horretan irakasleak azpimarratzen du zein garrantzitsua den jendaurrean "ondo hitz egitea", ez bakarrik edukiaren mailan, baita formaren mailan ere.

Ildo horretatik, nabarmendu behar dugu, ikasleen ekoizpenetan ikusi ahal izan dugula aurretestu eta ondotestuen artean garapena egon badagoela. Garapen hori bereziki esanguratsua da berbaldi-ekintzaren testuinguru parametroetan eta eduki tematikoan, ez, ordea, horren modu orokortu eta sistematikoan, planifikazio- eta testualizazio-parametroei dagokienez. Horrek berriz ere SDaren transposiziora garamatza, hartan helburu moduan agertzen baitzen alderdi horien lanketa, baina ikusi ahal izan dugu gelaratzean ez dela langai bihurtu. Hori da SDan planifikatutakoaren eta gelaratutakoaren artean ikusi ahal izan dugun kontraesan bakanetakoa, izan ere, gainontzeko aspektuetan oso koherente jokatu du irakasleak SDan diseinatutakoarekiko: saioen antolaketa, jarduerak, elkarrekintzen izaera...

Azkenik, uste dugu agerian jartzen dela zein zaila den arreta jartzea hizkuntzak eskolan duen estatutu bikoitzari, ikas-irakaskuntza objektu eta bitartekari. Galdetzen diogu geure buruari zenbateraino dagoen sustraituta gure artean bigarren hizkuntzan edukiak landuta, berariazko lanketarik gabe, ikasiko dela hizkuntza. Galdetzen dugu, alabaina, hizkuntzaren eduki bitartezko metodologiaz hitz egiten dugunean, ez ote dugun edukia batetik eta hizkuntza bestetik lantzen, ez modu integratuan, baizik isolatuan; bata bestearen ondoan, baina benetako txertaketarik gabe.

Bibliografia

ARNAU, J. 1997, «Aproximación pedagógica, contexto y lenguaje en los programas de inmersión en catalán», *Ikastaria*, 9 (1997) 65-73.

BOUCHARD, R. 2004, «Apprentissage» de l'oral en L1 y pratiques de clase: un débat en CP/CE1. Analyse interactionnelle et énonciative d'un dispositif innovant, le "petit laboratoire", In A. Rabatel, *Interactions orales en context didactique,* Lyon, Presse Universitaires de Lyon, 67-89.

BRONCKART, J.P. 1996, *Activié Langagière, textes et discours,* París, Delachaux et Niestlé.

BRONCKART, J.P.; PLAZAOLA, I. 1996, «Théorie des actes de langage et enseignement de la L2. Un exemple de transposition didactique», in M. Pujol & F. Sierra, arg., *Las lenguas en la Europa comunitaria II,* Diálogos Hispánicos, 18 (1996) 13-33.

BRONCKART, J.P.; PLAZAOLA, I. 1998, «La transposition didactique. Histoire et perspective d'une problematique fondatrice», *Pratiques*, 97-98 (1998) 35-58.

CARRASQUILLO, A. eta RODRIGUEZ, V. 1996, *Language Minority Students in the Mainstream Classroom,* Clevedon, Multilingual Matters.

CHEVELLARD, Y. 1985, *La transposición didáctique,* Grenoble, La Pensée sauvage.

CRANDAL, J. 1993, «Content-centered learning in the United States», *Annual Review of Applied Linguistics*, 13 (1993) 111-126.

CUMMINS, J. eta SWAIN, M. 1986, *Bilingualism and Education: Aspects of Theory, Research and Practice,* London, Longman.

DOLZ, J.; SCHNEUWLY, B. 1998, *Pour un enseignement de l'oral: initiation aux genres formels à l'école*, París, ESF.

DOLZ, J. eta SCHNEUWLY, B. 1997, «Los genres scolaires. Des pratiques langagières aux objets d'enseignement», *Repères*, 15 (1997) 27-40.

DUCROT, O. 1984, *El decir y lo dicho. Polifonía de la enunciación,* Barcelona, Paidós.

GABIÑA, J.; GOROSTIDI, R.; IRURETAGOIENA, R.; OLAZIREGI, I. eta SIERRA, J. 1986, *EIFE. La enseñanza del euskera: la influencia de los factores,* Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua.

GENESEE, F. 1987, *Learning through two languages: Studies of immersion and bilingual education,* Rowley, MA, Newbury.

KOWAL, M.; SWAIN, M. 1997, «From semantic to syntactic processing: How can we promote it in the immersion classroom?», in R. K. Johnson y M. Swain, arg., *Immersion education: international perspectives,* Cambridge, Cambridge University Press.

LAPLANTE, B. 1993, «Stratégies pédagogiques et enseignement des sciences en inmersion français. Le cas d'une enseignante», *The Canadian Modern Language*, 49:3 (1993) 566-588.

LAPLANTE, B. 2000, «Apprendre en sciencies, c'est apprendre á parler sciences: des élèves de l'immersion nous parlent des réactions chimiques», *The Canadian Modern Language Review,* 57:2 (2000) 245-271.

LYSTER, R. 1999, «La négociation de la forme: la suite...mais pas la fin", *The Canadian Modern Language Review*, 55:3 (1999) 355-384.

MOHAN, B. 2001, «The second language as a medium of learning», in B. Mohan, C. Leung & C. Davison (eds.) *English as a second language in the mainstream,* Cambridge, CUP.

PLAZAOLA, I.; LEUTENEGGER, F. 2003, «Enseñar matemáticas en una segunda lengua. Análisis de la interacción didáctica», *Cultura y Educación,* 15:4 (2003) 357-371.

RABATEL, A. 2004, «L'oral réflexif et ses conditions d'emergence», in A. Rabatel, *Interactions orales en context didactique,* Presse Universitaires de Lyon, 5-27.

RICHARD-AMATO, P. eta SNOW, M. 1992, *The multicultural classroom,* New York, Longman.

SAINZ OSINAGA, M. eta BILBATUA, M. 1998, «Elaboración de un programa integrado de lenguas (euskara y castellano) en modelos de inmersión tomando como eje el área del Conocimiento del Medio», in J. Arnau; J.M. Artigal, *Inmersión Programes: a European Perspective*, Universitat de Barcelona.

SERRA, J.M. 2004, «Eskola, hizkuntza eta inmigrazioa Catalunyan», *Soziolinguistika aldizkaria*, 52 (2004) 129-143.

SNOW, A. M., MET, M. eta GENESEE, F. 1989, «A conceptual framework for the integration of language and content in Second/Foreing language instruction», *TESOL Quartely,* 23 (1989) 201-217.

SWAIN, M. 1985, «Communicative competence: Some roles of comprehensible input and comprehensible output in its development», in Gass, S.; Madden, C., arg., *Input in Second Language Acquisition*, New York, Newbury House, 235-256.

THÉVENAZ-CHRISTEN, T. 2005, «Les prémices de la forme scolaire. Études d'activités langagières orales á l'école enfantine genevoise». [Interneteko dokumentua http://www.unige.ch/cyberdocuments/theses2005/Thevenaz/these.pdf,azken kontsulta: 2009-07-30]

THÉVENAZ-CHRISTEN, T. 2002, «Milieu didactique et travail de l'élève dans une interaction maître-élève: apprendre à expliquer une règle de jeu à l'école enfantine genevoise", In P. Venturini; Ch. Amade-Escot, A.; Terrise, A., koord., *Études des pratiques effectives: l'approche des didactiques,* La Perisée sauvage Editions.

Zergatik eskolaratzen dituzte gurasoek seme-alabak euskarazko hizkuntza-ereduetan?[1]

AMORRORTU, Estibaliz
Deustuko Unibertsitatea

ORTEGA, Ane
"Begoñako Andra Mari" Irakasle Eskola

Sarrera data: 2009-11-06
Onartze data: 2009-11-26

[1] Eskerrak eman nahi dizkiegu lana egiten lagundu diguten guztiei: lehendabizi partaideei, galde-sorta erantzun dutenei eta, bereziki, mahai-inguruetan parte hartu duten solaskideei. Horrezaz gain, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, diruz lagundu baitu artikulu honek oinarri hartu dituen datuak arakatzeko *Amarauna* ikerlari-taldeak burutu duen ikerketa. Amaraunakide diren Itziar Idiazabal, Andoni Barreña eta Belen Urangaren ekarpenak ezinbestean aipatu eta eskertu beharrekoak dira.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren azken eskolaratze-datuek hizkuntza-eredu elebiduna eta, are gehiago, euskarazko murgiltze-ereduaren etengabeko eskaeraren igoera berretsi dute. Artikulu honetan gurasoek, eta bereziki guraso erdaldunek, zein arrazoik bultzatuta hartzen duten hizkuntza-eredu horien aldeko ebatsia aztertzen da. Batetik, euskarazko ereduen alde egiteko integrazio- eta tresna-motibazioak daude; bestetik, euskarari berari, hizkuntza-jabekuntza eta ikaskuntzari eta elebitasun eta eleaniztasunari buruzko aurreiritziek ere eragiten dute gurasoen erabakian. Aurkeztuko diren datuak erdaldunen euskararekiko aurreiritzi eta jarrerak aztertzen dituen ikerketa zabalago baten bildu dira.

Hitz-gakoak: Hizkuntza-jarrerak, aurreiritziak, hizkuntza-ereduak, tresna-motibazioak eta integrazio-motibazioak, hezkuntza elebiduna.

Los últimos datos de matriculación del Departamento de Educación del Gobierno Vasco confirman la tendencia al alza ininterrumpida en la demanda de los modelos lingüísticos bilingües y en especial del modelo de inmersión en euskera. En este artículo se examinan las razones por las cuales los padres y madres, y especialmente los y las no vascohablantes, optan por dichos modelos. Por un lado, existen motivaciones integradoras e instrumentales para elegir los modelos en euskera; por otro lado, ciertos prejuicios y creencias sobre la propia lengua vasca, sobre la adquisición y aprendizaje de una lengua y sobre el bilingüismo y multilingüismo en general también influyen en dicha decisión. Los datos aquí presentados forman parte de una investigación más amplia sobre los prejuicios y actitudes hacia el euskera de los y las no vascohablantes.

Palabras clave: Actitudes lingüísticas, prejuicios lingüísticos, modelos lingüísticos, motivaciones instrumentales, motivaciones integradoras, educación bilingüe.

Les derniers chiffres d'inscription du Ministère de l'Éducation du Gouvernement Basque confirment la tendance à la hausse ininterrompue dans la demande des modèles linguistiques bilingues et en particulier du modèle d'immersion en basque. Cet article examine les raisons pour lesquelles les parents, et particulièrement les non-bascophones, optent pour ces modèles. D'une part, il existe des motivations intégratives et instrumentales pour choisir les modèles en basque; d'autre part, certains préjugés et croyances sur la langue basque elle-même, sur l'acquisition et l'apprentissage d'une langue, sur le bilinguisme et le multilinguisme en général influencent également cette décision. Les données présentées ici font partie d'une étude plus large sur les préjugés et les attitudes à l'égard du basque des non-bascophones.


Mots-clés: Attitudes linguistiques, préjugés linguistiques, modèles linguistiques, motivations instrumentales, motivations intégratrices, enseignement bilingue.

The latest enrolment data from the Department of Education of the Basque Government confirms the continued increasing demand for bilingual educational models and in particular for the immersion model in Basque. This article examines the reasons why parents, especially non-speakers of Basque, choose those models. Integrative and instrumental motivations are discussed, as well as the influence of the parents' beliefs and prejudices concerning the Basque language itself, language acquisition and language learning, and the phenomena of bilingualism and multilingualism. The data presented here are part of a wider research on the linguistic prejudices and attitudes non-Basque speakers show towards the language.

Keywords: Language attitudes, linguistic prejudices, linguistic models, instrumental motivations, integrative motivations, bilingual education.

1. Sarrera

Azken datuen arabera (Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila, 2009), Euskadiko Autonomia Elkartean familien ehuneko bostak baino ez du aukeratu gaztelaniazko hizkuntza-eredua bere seme-alabak haur hezkuntzan matrikulatu dituztenean. Izan ere, 2009-10 ikasturtean haur hezkuntzan hasi diren haurren %4,98 baino ez dago A eredu elebakarrean eskolatuta, %71,13 D euskarazko murgiltze-ereduan dagoen bitartean; gainontzeko %23,89 B eredu elebidunean dago. Euskal eskola sisteman euskarazko murgiltze-ereduaren eskaerak, D ereduaren eskaerak, etengabeko igoera bizi izan du azken hogei urtean, lehen irudiak erakusten duenez.



1. IRUDIA
HAUR HEZKUNTZAKO IKASLEEN PORTZENTAIA (%)
HIZKUNTZA-EREDUAREN ARABERA

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila eta Euskal Estatistika Erakundea

Etengabeko D ereduaren igoera horrek harridura sor diezaioke gizarte elebakarrean bizi denari edo arrazoia identitatean edo ideologia politikoan bilatu behar dela pentsatzen duenari. Irudiak erakusten duen bilakaera ez dago

aldi berean gertaturiko bilakaera ideologiko batek eraginda (ikus Baxok eta beste 2006: 47. orr. eta hh): euskal hiritarren identitatean euskarari garrantzia handia ematen ala ematen ez dioten partidu politikoek azken urteetan atera dituzten emaitzetan ez da aparteko aldaketarik ikusten; bestetik, euskararen presentzia nabariagoa bada ere, ez da handitu azken urteetan D ereduaren eskaera hazi den neurrian (Eusko Jaurlaritza 2008) eta D ereduaren eskaera eskualde euskaldunagoetan eta erdaldunagoetan, bietan, igo da etengabe. Izan ere, guraso erdaldun askok, baita inguru erdaldunetan bizi direnek eta haien burua abertzaletzat ez dutenek ere, bere seme-alabentzat D eredua aukeratzen dute. Edo beste modu batera esanda, familiaren eta inguruaren hizkuntza-egoerak, gurasoen ideologiak eta euskararekiko kokapenak -euskarari euskal hiritarren identitatean ematen zaion garrantzia- soilik ezin dute azaldu gizarteak euskarazko ereduen alde, eta batez ere D ereduaren alde, egindako apustu garbia.

Artikulu honetan gurasoek, batez ere guraso erdaldunek, zein arrazoi dituzten bere seme-alabentzat euskarazko hizkuntza-ereduak aukeratzeko aztertuko da, ikerketa zabalago bateko datuak (Amorrortu eta beste 2009, *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*) oinarri hartuta. Lehendabizi, ikerketaren nondik-norakoak aurkeztuko dira; bigarrenez, ebatsi hori hartzeko gurasoek izan ditzaketen integrazio- eta tresna-mailako motibazioak azalduko dira; hirugarrenez, erabakian eragiten duten euskarari, elebitasunari eta hizkuntza-jabekuntzari buruzko aurreiritziak aztertuko dira; azkenik, datuetan oinarritutako eta euskararen normalizazioari begira kontuan hartu beharreko hausnarketa egingo da.

2. Ikerketaren nondik-norakoak

Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak izeneko ikerketan bi motatako datuak bildu ziren: alde batetik, metodo kualitatiboa erabili zen talde-eztabaiden bidez euskararekiko jarreren aniztasun ahalik eta zabalena

arakatzeko. Horretarako, 12 eztabaida-saio egin eta 47 partaideek emandako datuak batu ziren (ikus id.: 25-26. orr. haien ezaugarriak ezagutzeko). Mahai-inguruak Bilbo (3 saio; haietatik bat kazetariek osatua), Barakaldo, Gasteiz, Iruñea (talde bi), Donostia, Durango, Zarautzen, Soraluze eta Eibarren burutu ziren. Mahai-inguruak transkribatuta, edukiaren analisiari ekin zitzaion eta, horren ondorioz, euskararako propioa den jarreren tipologia bat egin zen. Horrezaz gain, euskararen kontra ez egonik ere erabat alde ez daudenek zein ezaugarri eta gai komunak dituzten ere argitu zen.

Bestetik, azterketa kualitatibo hartatik abiatuta, zenbait auzi era kuantitatiboan aztertzeko galde-sorta diseinatu eta erabili zen, jarrerok erdaldun elebakarren artean zein maiztasunarekin eta zein aldagai soziodemografiakoekin batera ageri diren antzemateko (ikus id.: 21-29 eta 217-224). Galdesorta Euskadiko Autonomia Elkarteko 18-55 urte bitarteko 598 lagun erdaldunek erantzun zuten. Lagina eskualde euskaldunagoa/erdaldunagoa, sexua eta adina aldagaietan errepresentatiboa izan zedin aukeratu zen.

Gurasoek seme-alabak euskarazko hizkuntza-ereduetan eskolaratzeko zein motibazio eta zein aurreiritzi dituzten aztertuko da aipaturiko ikerketan bildutako datu kualitatibo zein kuantitatiboez baliatuta. Arestian esan bezala, batez ere guraso erdaldunek dauzkaten motibazio eta aurreiritziak dira hemen aztertuko direnak.

3. Seme-alabak euskarazko hizkuntza-ereduetan eskolaratzeko motibazio integratzaileak

Asko eta askotarikoak izan daitezke guraso erdaldunen bere seme-alabak euskarazko hizkuntza-ereduetan eskolaratzeko motibazioak. Atal honetan aipatutako ikerketan agertu diren motibazio integratzaile edo identitarioak aipatuko dira.

3.1. Euskararekiko konpromisoagatik

Euskal herritarren identitatean euskarari aparteko garrantzia ematen diotenek euskararekiko konpromisoak bultzatuta eskolara ditzakete seme-alabak. Horixe izan da ikastolen sorreran arrazoi eragile nagusia (Tejerina 1992, Intxausti 2005, besteak beste). Oraindik ere garrantzia dauka euskararekiko konpromisoak, guraso batzuentzat behintzat, lekuko honek adierazi bezala[2]:

> (1) *Yo sabía que para aprender euskera mi hija tenía que estudiar en una ikastola, y desde luego a mí, pensando en forma práctica hubiese preferido que fuese al colegio alemán o francés. Pero por respeto tiene que aprender. (BI-B, 87)*

3.2. Integratzeko

Gaur, inguru euskaldunetan erabat ez ohikoa litzateke erdarazko ereduan eskolaratzea eta, beraz, integratzeko guztiz beharrezkoa da euskara bidezko ereduan ikastea:

> (2) *– Yo creo que si le llevas es porque tampoco es que tienes otra alternativa tampoco. O sea, yo encantado de que aprenda, porque aprende un idioma, porque está con sus amigos también, es que ahora igual cambias el colegio, ¿por qué va a éste? Pues por cercanía o porque van sus amigos. Al final todo te influye. (ZA-C, 23).*
>
> *– Sí, la sociedad de Zarauz es como comentabas. En realidad, salvo que quieras ser un apestado, en el sentido, si vas al modelo de castellano, es que va a estar solo en clase. (ZA-F, 24)*

Baina ez dago dudarik familia denek ez dutela aukeratu euskarazko eredua integrazio-arrazoiak bultzatuta. Izan ere, ikerketaren atal kuantitatiboan euskara haientzat euskal hiritarren hizkuntza ala hizkuntzetako bat den galde-

[2] Artikuluan zehar mahai-inguruetako partaideen aipuak agertuko dira, gako baten bidez emanda, haien konfidentzialtasuna gordetzeko. Gakoaren lehen bi letrek taldea identifikatzen dute (BA-Barakaldo, BI-Bilbo, KA-Kazetariak eta abar) eta ondorengoek solaskidea; zenbakiek aipu bakoitza zein berba-hartzetan dagoen adierazten dute. Artikulu honetan ageri diren aipuak gaztelaniaz daude, hizkuntza horretan egin zirelako. Gainera, berbalizazio zehatzak ematen dira partaideek eurek esanda bezala. Horregatik, aipuek ahozko hizkuntzaren ezaugarriak erakusten dituzte.

tzean, erdia baino gehiagok (%52,3) hizkuntzetako bat baino ez dela erantzun dute (id.: 226). Alabaina, adostasun handia dago Euskadiko umeek euskara ikasi behar dutela esaterakoan: "Euskadiko umeek euskara ikasi beharko lukete" baieztapenaren aurrean batetik laurako eskalan bataz beste 3,98ko adostasuna erakutsi zuten galdesorta erantzun zuten erdaldunek. Zeintzuk dira, bada, gurasoek seme-alabak B edo D eredura bidaltzeko dituzten beste arrazoiak?

4. Seme-alabak euskarazko hizkuntza-ereduetan eskolaratzeko motibazio instrumentalak

Beste motibazio batzuek tresna-balioarekin zerikusi handiagoa dute integratzeko nahi edo arrazoi identitarioekin baino. Euskararen prestigioa hobetu denez, beharrezkotzat jotzen da ("etorkizunean beharko dute"). Batez ere euskaldunak ez diren guraso askorentzat bere seme-alabek "modu naturalean" ikas dezaten modurik errazena eskolaren bidez egitea da.

4.1. Euskararen prestigioa handitu da

Euskarak azken hamarkadetan, gaitasuna zabaltzeko eta erabilera normaltzeko egin diren ahaleginen ondorioz, prestigioa irabazi du. Eremu publikoan –erakunde publikoetan eta komunikabideetan gehien bat– euskararen presentzia handitzeak lehen ez zeukan prestigioa eta tresna-balioa eman dio. Orain ez da baserritarren irudiagaz lotzen: ikerketa kuantitatiboan erantzuleen % 80 baino gehiago ez dago ados edo ez dago bat ere ados "euskara oraindik ere baserritarren hizkuntza da" baieztapenarekin (id.: 248. orr). Ikus ikerketa kualitatiboan parte hartu zuen hurrengo partaidearen balorazioa:

> (3) *Yo creo que la gente tiene voluntad, aprecia la importancia de conocer el euskera. Yo creo que en eso se han dado pasos muy importantes, que la valoración que se hace de la lengua, del euskera, hoy en día es mucho mejor que la que se podía hacer en otras épocas que era incluso de desprecio en ocasiones. (BI-A, 258)*

4.2. Euskara beharrezkotzat, desiragarritzat jotzen da

Tresna-balioa aitortuta, beharrezkotzat sumatzen da euskara:

(4) *Pero ahora hay una percepción por eso... Yo creo que les escolarizan mucho en modelos en euskera porque hay una percepción de que es necesario el euskera para..., cosa que igual hace años no había o la había mucho menos. (KA-B, 175)*

Beharrezkotzat hartzen denez, ez dakiten askok desiragarritzat jotzen dute:

(5) *A mí me parece más prestigioso en cuanto a mérito, en cuanto a mérito, que me parece muy meritorio alguien que habla euskera. Yo cuando escucho a alguien que habla bien euskera, digo, "Jo, ¡qué suerte!, qué suerte o cómo se lo ha currado, o qué suerte ha tenido." (GA-B, 39)*

Arestian esan den bezala, ikastolen sorreran, 1960. hamarkadan, motibazio nagusia euskararekiko konpromisoa izan bazen, orain seme-alabak euskarazko hizkuntza-ereduetan eskolaratzea erabakitzen duten guraso askoren arrazoi nagusia euskararen tresna-balioa da. Izan ere, haien ustez, seme-alabek euskara jakitea abantaila izango da, lana bilatzeko, "ondo etorriko zaie", edo, hobeto esanda, litekeena da ez jakitea desabantaila izatea:

(6) *Ahora lo que se está premiando es el saber euskera. O sea, si te metes en cualquier empleo público, si no tienes euskera, lo tienes muy difícil. (GA-B, 44)*

(7) *Porque ahora no creo que nadie se plantee no meter a un hijo a una ikastola cuando saben que el futuro aquí, en el País Vasco, es hablar euskera. (BA-C, 38)*

Guraso batzuentzat, gainera, tresna-motibazioa daukaten bakarra izan daiteke:

(8) *Nosotros vemos, al cabo del año vemos cientos de personas, de parejas o que han tenido hijos, o que los quieren tener, que te cuentan, el modelo tal, y la mayor parte de la gente les mete en el modelo en el que meten euskera. Pero, ¿por qué? Porque el día de mañana lo van a tener más fácil, si no... (GA-B, 56)*

Euskarak prestigioa irabazi duen seinale, erdaldun gehienek etorkizun oparoa aurreikusten diote. Uste horrek seme-alabak euskaldunak izan daitezen nahi izatea eragiten du (ikus 5.5. atala).

5. Euskarari, hizkuntza-jabetasunari eta eleaniztasunari buruzko aurreiritziek eraginda

Integrazio- eta tresna-arrazoiez aparte, gizartean hizkuntzaren inguruan dauden uste orokortuek edo aurreiritziek ere eragiten dute hizkuntza-eredua aukeratzeko orduan, eta euskarazko hezkuntzaren aldeko erabakia indartzen dute. Aurreiritzi batzuek helduek eurek euskara edota beste bigarren hizkuntza bat ikasteko orduan dauzkaten zailtasunekin daude lotuta: *euskara zaila da*; *umeentzat euskara ikastea oso erraza den bitartean helduentzat ia ezinezkoa da*; *hizkuntza bat ikasteko modurik onena murgiltzea da*. Beste batzuek, berriz, eleaniztasunaren pertzepzioarekin daukate zerikusia (*zenbat eta hizkuntza gehiago hobe*) edo euskararekiko pertzepzioarekin (*euskarak etorkizun oparoa dauka*).

5.1. Euskara hizkuntza zaila da

Euskara hizkuntza zaila da aurreiritzia oso zabal dabil (ikus id: 157-162; ikus baita Moreno Cabrera 2000: 115-136). Gehien aipatu den zailtasunaren arrazoia zera da: euskara zaila da inguruko beste hizkuntzekiko distantzia tipologiko handia duelako:

> (9) *Y luego yo sigo diciendo, para mí, o sea, es una opinión mía, personal, que el euskera como lengua es difícil, es de las lenguas más difíciles. Igual porque no tiene raíces latinas, y nos basamos en el castellano. (DO-C, 161)*

Gramatika ere zaila omen dauka euskarak, hurrengo partaide honek esan duen bezala:

> (10) *Me parece que el problema que tenemos la gente ya que lo hemos hecho de mayores, es que nosotros pensamos en castellano. Entonces, queremos aprender la gramática y la gramática yo creo que en euskera es muy difícil porque no hay una regla que siempre sea estricta, siempre hay una cosa que en esa regla cambia, entonces tú ya te armas un lío en la cabeza, un taco. (BA-C, 40)*

Aurreiritzi hau helduak euskarara hurbiltzeko oso oztopatzailea bada ere, seme-alabak eskolaratzeko orduan, euskarazko hizkuntza-ereduetara bidaltzera bultzatzen ditu familia erdaldun asko. Izan ere, euskararen zailtasuna helduen

bigarren hizkuntzaren ikaskuntzaren testuinguruan arazotzat sumatuagatik, umeen testuinguruan ez da arazotzat ikusten, hurrengo atalean azalduko denez.

5.2. Helduentzat hizkuntza bat ikastea oso zaila den bitartean umeentzat oso erraza da

Aurreko aurreiritziarekin lotuta, euskara hain hizkuntza zaila izanda, ia ezinezkoa da helduentzat ikastea. Gainera, askok indartzen dute euskararen berezko zailtasunak oraindik zailago egiten duela:

(11) *Sí, ellos [helduek] van a tener problemas porque el euskera es difícil. (KA-A, 176)*

(12) *- Lo que no puedes cambiar es que el euskera es difícil. Eso no lo puedes cambiar, que el euskera es difícil, es una lengua difícil, entonces eso no se puede cambiar, entonces eso pues... (DU-C, 323)*

- Pero hasta el inglés y el francés, que no son tan difíciles, nos cuesta aprender. DU-B, 324)

- Yo creo que no son tan difíciles. (DU-C, 325)

- Nos cuestan mogollón. (DU-B, 326)

- Bastante menos, creo yo. (DU-C, 327)

Bestalde, askok uste du pertsona batzuek erraztasuna dutela bigarren hizkuntzak ikasteko eta beste batzuek, berriz, ez:

(13) *Y luego yo también estoy convencida que cada persona... Hay gente que tiene facilidad para los idiomas. (DO-C, 163)*

Izan ere, heldu batzuk ez ei dira gai bigarren hizkuntza bat ikasteko:

(14) *Mi caso es bastante parecido. Siempre castellano en casa, la mujer también en su casa todo castellano. Soy del 65, me tocó la época mala, no conseguí aprender a hablar euskera. Ya he estado también yo en AEK y cosas de ésas, pero donde no entra, no entra. (ZA-D, 9)*

Azterketa kualitatiboan helduentzat bigarren hizkuntza bat ikastea oso zaila delako ustea oso orokorra zela ikusirik, azterketa kuantitatiboan zein neurri-

tan dagoen zabalduta aztertu nahi izan zen eta hurrengo baieztapenarekin adostasun maila erakuts zezaten eskatu zitzaien galdesorta erantzun zuten erdaldunei: "Ia ezinezkoa da heldutan ikastea oso hizkuntza zaila delako". Eztabaida-taldeetan agertu zen aurreiritzia berretsi zen: lagineko erdia (%45,3) aurreiritziarekin ados edo oso ados agertu zen (id: 250-251).

Helduen bigarren hizkuntzak ikasteko zailtasunak indartzen dituzten pertzepzioak ez dira ezerezetik sortu: heldu askok euskara bigarren hizkuntza bezala arrakasta osoz ikasi badute ere, beste asko dira heldutan euskara ikasten saiatu eta arrakasta lortu ez dutenak. Azterketa kuantitatiboan parte hartu duten erdaldunetatik % 67,7k inoiz ahalegindu direla adierazi dute –apur bat ere hitz egiteko gai ez badira ere– (id: 235 eta hh). Aldi berean kontuan hartu behar da, momentu honetan zergatik ez diren ikasten ari galdetzerakoan, %31,9k "oso hizkuntza zaila iruditzen zaidalako" erantzun dutela, beste arrazoi batzuen artean (id: 245-246).

Aurreiritziaren bestaldean, haurrek erraz ikasten dute, "ahaleginik egin gabe":

> (15) *Si hubieses aprendido desde pequeñito, con tres añitos no te hubiese costado. A mí francés no me ha costado estudiar porque nací en Francia y aprendí francés y a mí no me costó aprender, a mí no me supuso ningún esfuerzo. / Los críos son como una esponja, es una gozada. (BI-D, 219/221)*

> (16) *Yo creo que todo lo que aprendes de pequeño luego lo puedes recordar, o puedes... Y si no lo aprendes de pequeño, luego es mucho más difícil, pienso yo. (DU-C, 48).*

Guztiz zabal dabilen uste orokortu hau, umeek hizkuntza erraz, inolako ahaleginik egin barik, ikasten dutela, arinkeria dela azpimarratu behar da. Izan ere, hizkuntzak bizitza osoan zehar ikasten dira eta txikitan hainbat gauza ezin dira ikasi, batetik, umeek euren gaitasun kognitiboa guztiz garatu ez dutelako eta, bestetik, dena ikasteko aukerarik eta beharrik ere ez dutelako. Arestian esan bezala, mahai-inguruetako partaideen arabera, helduentzat bestelakoa da ikaskuntza prozesua, askoz nekagarriagoa:

(17) *Una persona desde pequeñita sí puede estudiar dos o tres idiomas, independientemente que sea euskera, inglés, francés, lo que sea, sin tener que estar como nosotros, sufriendo ahí con los verbos. (IR1-B, 59)*

5.3. Murgiltzea da euskara ikasteko metodo bakarra edo murgiltzean baino ezin da euskara ikasi

Partaide batzuek adierazi bezala, euskararen ikaskuntzaren arrakasta, beste hizkuntzekin gertatzen den legez, murgiltzean datza: beharra daukazunean erabili egiten duzu eta horrela bermatzen da gaitasun komunikatibo osoa:

(18) *También tuve ciertas..., pues estuve, en mi época, no sé si... me imagino que todo el mundo conoce la historia de "Kutxidazu bidea", famoso, aunque no la haya leído, la habrá oído, o habrá oído de la película... Bueno pues, lo mío es un poco autobiográfico, pasó así. Te mandan con los indios a la reserva para ver si aprendes, porque en la realidad es la manera de... la manera de aprender eso que a ti te falta. (BA-F, 107)*

(19) *¿Cómo se piensa en euskera? Yendo a un pueblo donde sólo se hable euskera y obligándote a hablar en euskera. (BA-B, 47)*

Zabal dabilen aurreiritzi horretatik abiatuta erraz ondoriozta daiteke hizkuntza bat ikasteko metodorik onena murgiltzea bada, eskolan ere hizkuntza horretan zenbat eta murgiltze gehiago izan orduan eta hizkuntza-gaitasun handiagoa, hots, D ereduan hobe.

Bestalde, inguru erdaldunetan euskara "modu naturalean" bizitzeko aukera bakarra eskola da, ikasteko eta erabiltzeko leku bakarra. Mahai-inguruetako partaideek sarri erabili dute *naturaltasuna* terminoa euskarak erdarak dituen funtzio berak eta guztiak dituen kasuetarako, egunerokotasuna eta normalizazioa adierazteko, eta *naturaltasun-falta* terminoa hala gertatzen ez denean, hala nola, euskara erabiltzeko aukerarik ez dagoenean, hiztunak oso ondo ez dakienean edo egoera baterako bakarrik erabiltzen denean.

Euskara modu naturalean ala ez bizi denari buruzko pertzepzio oso ezberdinak daude, batez ere inguru soziolinguistikoaren arabera: inguru euskaldu-

netan, Zarautzen esate baterako, euskara naturaltasun osoz bizi dutenez, euskararen inguruan inolako gatazka sozialik ez dela sortzen uste badute ere, inguru erdaldunetan euskararen presentzia eskasak modu naturalean bizitzea ezinezko egiten du:

> (20) *Pero el euskera yo siempre lo he vivido como algo natural. También es verdad, insisto, que yo desde pequeño hasta la adolescencia he hablado en euskera en ikastola y demás. Desconozco la realidad, pero la que me ha tocado a mí vivir, ésa. Y lo que sí es verdad es que aquí sí que yo lo veo como algo más habitual. (ZA-F, 24)*

Esan bezala, erdara nagusi den lekuetan, ezin da euskara modu "naturalean" bizi, edo gutxieneko naturaltasunez bizitzeko aukera bakarra eskola da. "Naturaltasuna", eta, azken batez, hizkuntza-ikaskuntza arrakastatsua, izateko, egoera askotan bizi behar da hizkuntza horretan. Euskal hezkuntza-sistemak eskaintzen duen murgiltzeak "naturaltasun" atal bat, behintzat, bermatzen duela sumatzen da. Guraso erdaldun askok, gainera, eskolan gaitasun komunikatibo osoa eskuratu daitekeela uste dute eta, azken batez, eskolak euskararen etorkizuna bermatzen duela, "denek ikasten dutenez..." (ikus 5.5. atala).

Orain arte azaldutako aurreiritziak normalean aldi berean agertzen dira eta oso mesedegarriak dira familia erdaldunek umeak B eta, are gehiago, D eredura bidal ditzaten: batetik, helduek bigarren hizkuntzak ikasteko dituzten zailtasunak gehienen ahotan daude, baita umeek duten erabateko erraztasuna ere; bestetik, ikasteko modurik onena murgiltzea dela uste izanda, hezkuntza-sistema baliatu nahi dute bere seme-alabek modu erraz, "naturalean", ikas dezaten.

5.4. Zenbat eta hizkuntza gehiago hobe; hizkuntza bi jakinda askoz errazago ikasten dira beste batzuk

Eleaniztasunari buruzko aurreiritzi batzuek ere eragiten diete guraso askori seme-alaben hezkuntzari buruzko erabakiak hartzerakoan. *Zenbat eta hizkuntza gehiago hobe* aurreiritzia nahikoa zabal dago, kontrakoa pentsatzen duenik ere badagoen arren. *Hobe da guztiontzat hizkuntza bakarra* (ikus (21) eta (22) aipuak) eta

zenbat eta hizkuntza gehiago hobe (ikus (23) aipua) aurreiritziak txanponaren alde biak dira. Lehenengoa elebitasun eta eleaniztasunerako oso oztopatzailea da, eta askotan hizkuntza txikiekiko (kasu honetan euskararekiko) ezkutuko kontrako jarreren adierazle. Bigarrena, aldiz, eleaniztasunerako oso mesedegarria da:

(21) *Yo creo que lo ideal sería que hubiese una lengua para todos. / Eso sería para mí [egoera ideala, danontzat hizkuntza bat egotea], porque además no me gusta nada estudiar lenguas, o sea, no me gustan las lenguas, porque no me resultan fáciles. (DU-C, 276/288)*

(22) *Es que a mí no me parece un problema que se pierdan los idiomas, o sea, que se dejen de hablar. O sea, a mí si el castellano se perdiera y sólo se hablara inglés en todo el mundo, me parecería una ventaja, sería más fácil entenderse con cualquiera en cualquier parte del mundo. (GA-B, 195)*

(23) *Yo personalmente creo que cuantos más idiomas tengas mejor. Pero hablando lo que estamos hablando ahora, yo creo que si vives aquí euskera y castellano, esos dos idiomas, yo creo que hay que intentar mejorar, hay que intentar conocerlos. (DU-B, 224)*

Elebitasuna sozialki desiragarria dela aspalditik argi dauka ondoko partaide honen amamak:

(24) *Pues llegamos y, "¿Qué tal?", y dije, "Pues este año vamos a dar euskera", que era como... y me dijo mi abuela, "Yo hablo euskera". Y yo dije, "Esta mujer..." Y me contó que estuvo en Madrid sirviendo y dos de sus compañeras eran euskaldunes. Y ella me decía, "A mí me daba mucha envidia cuando ellas hablaban entre ellas y yo no les entendía. Y me daba mucha envidia porque ellas hablaban dos idiomas y yo sólo sabía uno y entonces yo les dije que me enseñaran, pero después de los años y de la vida y después de 40 años de no hablar..." y tal, y dice, "Se me ha olvidado". Pero decía, "Zer moduz? Ondo, eta zu?" Y en ese sentido igual he tenido algo activo por parte de mi abuela, de decir, qué bien que puedes hablar dos idiomas en vez de uno. En ese sentido mi abuela no lo veía como algo politizado el euskera, al contrario, lo veía como lo que hablaban sus compañeras que eran del País Vasco, y ¡Jo!, qué bien que entre ellas lo hablaban. (BI-F, 286)*

Elebitasunari buruzko ikerketek sarri erakutsi dute denontzat hizkuntza bakarraren abantailak azpimarratzen dituztenak normalean elebakarrak izaten direla. Gehienetan hizkuntza bakar hori eurena izatea nahi dute. Erdaldunen artean egin zen ikerketa kuantitatiboan aurreiritzi horren presentzia neurtu zen: "nik uste dut hobeto komunika gaitezen idealena munduan hizkuntza bakarra egotea litzatekeela" baieztapenarekin ados edo oso ados agertu ziren inkestatuen % 38 (id: 253-254). Datu hau kezkagarria izan daiteke: batzuek, modu arinean, hizkuntza bakarraren komunikaziorako abantaila "ideal" praktikoa erakusten dutela dirudi. Erantzun hori *hizkuntza-aniztasuna komunikazio eraginkorrerako muga de*lako uste okerrean oinarrituta egon daiteke eta, euskararen testuinguruan kokatuta, euskararen kontrako jarrera eta balorazio eskasa ezkuta dezake, zenbait kasutan behintzat. Txanponaren ifrentzua, DU-Bren (ikus (23) aipua) iritzia da: *zenbat eta hizkuntza gehiago jakin hobe*, eta hemen, euskara eta gaztelania, gutxienez.

Ugari izan dira ikerketa kualitatiboan gizartean hizkuntza biak jakitearen abantailak azpimarratu dituztenak: *hizkuntza bi jakinda askoz errazago ikasten dira beste hizkuntzak*:

> (25) *Ya de entrada, sabes que hay dos idiomas, y eso es un logro y luego a la hora de aprender otro es mucho más fácil porque estás acostumbrado a pensar en dos idiomas. (BI-B, 288)*

> (26) *X [bere semearen izena] habla cuatro idiomas, pero es que el haber hablado castellano y euskera perfectamente le... yo tengo la impresión y luego ha ocurrido también con Y [beste semearen izena], el que tiene 16 años, de que le ha facilitado el aprendizaje de otras lenguas. O sea, eso es así. (KA-A, 91)*

Aurreiritzi honek eleaniztasunaren aberastasuna ere indartzen du, eleaniztasunak kultura-aberastasuna eta mentalitatea zabaltzea dakarrelako. Hizkuntzak jakiteak beste mundu batzuk, beste errealitateak ezagutzea ahalbideratzen du eta beste errealitate batzuk ezagutzeak mentalitatea irekitzen dizu:

> (27) *Es que eso es lo que hay que pensar, si es algo enriquecedor, si cuanto más idiomas hables, la mentalidad tienes muchísimo más abierta, eso para empezar, y que entiendes mucho mejor las demás realidades y las demás culturas. (BI-D, 287)*

(28) *Hay un tío que dice que el que sólo conoce una religión, no conoce ninguna, y el que sólo conoce una lengua, no conoce ninguna tampoco. Y yo estoy muy de acuerdo con eso, o sea, que me parece muy pobre, me parece muy pobre. Y el tener dos idiomas, eso es de mi cosecha, para mí es tener dos almas, dos formas de ver el mundo. Y es enriquecedor, o sea... Entonces, bueno, sí, podríamos decir, "Va, pues venga, tiramos todos los idiomas a freír puñetas, y hablamos todos inglés". Pues hombre, me parece bastante penoso. Es como decir, "Mira, cogemos toda la selva del Amazonas y la plantamos de pinos, y ya está". (GA-E, 203)*

Ikerketa kuantitatiboan, erdaldunen artean, *hizkuntza bi jakinda* (euskara eta gaztelania) *askoz errazago ikasten dira beste batzuk* aurreiritziarekin adostasuna neurtu zen: %30 baino ez dago ados aurreiritzi horrekin (id: 251-253). Eleaniztasunaren eta txikitatik elebidun izatearen abantailak gogotan izatea oso mesedegarria da gurasoek umeak euskarazko ereduetan eskolara ditzaten eta, beraz, are gehiago indartu beharko lirateke aurreiritzi positibo horiek.

5.5. Euskarak etorkizun oparoa dauka

Erdaldun gehienek etorkizun oparoa aurreikusten diote euskarari. Uste horrek seme-alabak euskaldunak izan daitezen nahi izatea eragiten du eta, beraz, oso mesedegarria da belaunaldi gazteek hezkuntza-sistemaren bidez euskara ikas dezaten, baina aldi berean arrisku handia dakar euskararen normalizaziorako, askok uste baitute, ume "denek" ikasten dutenez, euskara ez dagoela arriskuan, "erlaxatu" gaitezkeela, alegia:

(29) *Pero yo creo que con toda la gente que va subiendo de edad, no va a pasar eso, porque va a saber todo el mundo. / Creo que se hablará, por lógica, ¿no? Si ya..., quiero decir, en un entorno que de diez saben dos, pues no vas a ponerte a hablar en euskera, pero si en un entorno de diez saben ocho, pues igual los otros dos tendrán que aprender. (DU-C, 395/397)*

(30) *Hombre, yo creo que, de que desaparezcamos nuestra generación. Porque cuando desaparezcamos nuestra generación, igual lógicamente mis hijos con sus hijos hablarán en euskera, y en casa, y hablarán todos. (ZA-C, 122)*

Kasu hoberenetan adierazpenok ezjakintasun-neurri bat erakusten dute eta hizkuntza gutxituek zer-nolako arazoei aurre egin behar dieten ez jakitea. Beste batzuetan, arazoa sinpletzeko estrategia izan daiteke: "ez dakit zergatik kexatzen diren". Horietan euskararen eta bere aldeko hizkuntza-politikaren inguruko jarrera negatiboak ezkutatzen dira. Ideia honi *arrosa koloreko etorkizuna* deitu zaio (id.: 208-209).

6. Euskarazko hizkuntza-ereduetan seme-alabak ez eskolaratzeko arrazoiak

Ikerketan ez zen beren-beregi jardun gurasoek seme-alabak euskarazko hizkuntza-ereduetan ez eskolaratzeko dituzten arrazoiez. Alabaina, mahai-inguruetan gai horretaz ideia batzuk irten ziren eta galdesorta kuantitatiboan, aurreiritziak aztertu zirenean, gehiago sakondu zen. Uste oker eta arrazoi horiek, nagusi ez izanda ere, belaunaldi gazteak, elebidun edo eleaniztun izan daitezen, hezkuntza-sistemaz baliatzea oztopatzen dute eta arrazoi dira euskarazko ereduak, batez ere D eredua, mesfidantzaz sumatzeko.

6.1. Lehen hizkuntzan ikasi behar da arrakasta akademikoa izateko

(31) *Pero recuerdo aquello: "¿Tus hijos van a estudiar en euskera?". Yo decía: "Sí." Porque el entorno, ¿no?, la familia... Entonces, "Pero eso puede significar un fracaso escolar para él." Esto era... Te lo decía bastante gente, ¿no? (KA-A, 21)*

KA-A solaskideak iraganaz jardun du baina murgiltze-programetan ikasten duten familia erdaldunen seme-alabek gutxiago ikasten dutelako usteak, edo zalantzak behintzat, oraindik badirau batzuen artean, ondoko aipuetan ikus daitekeenez:

(32) *Yo pienso que si estudio en una lengua que no es la mía, no puedo aprender igual ni por nada. (DU-C, 17)*

(33) *Si no han tenido comprensión de la lengua, no pueden tener comprensión de los contenidos, digo yo, ¿o no? (DU-C, 74)*

Izan ere, ikerketa kuantitatiboan aurreiritzi horren presentzia neurtu zen: "Familia erdaldunen eta euskaraz ikasten duten seme-alabek irakasgaien edukiak gaztelaniaz eginda baino txartoago ikasten dituzte" baieztapenaren aurrean adostasun mailakatua emateko eskatu zitzaien galdesorta-erantzuleei: ia hirutik batek (%29,30) euskaraz ikasten duten familia erdaldunen umeek gutxiago ikasten dutela uste du eta ia bostetik batek (%18,40) ez daki erantzuten. Tamalgarria da gizartean hezkuntza-sistema elebidun eta eleanitzek balia ditzaketen edukien transferentzia eta hizkuntzen trataera bateratuari buruz zeinen ezjakintasun handia erakusten duten erantzun hauek. Lehen hizkuntzan eta eskolan ikasitakoan behar bezalako gaitasuna badute ikasleek eta ikaste-prozesua behar bezala ematen bada ez dago inolako arazorik lehen hizkuntza ez den beste baten arrakasta akademiko osoarekin ikasteko.

6.2. Elebitasun goiztiarrik ez dago: *ezin da ama-hizkuntza bi izan*

Batzuentzat ezinezkoa da elebiduna izatea, beti ere, hizkuntza bat besteari gailenduko zaio, eta gailentzen dena beti izango da lehen hizkuntza:

> (34) *Sí, pero ellos pensarán en algún idioma, o soñarán en un idioma o... en uno de los dos, o ¿en los dos? / Cada uno piensa en un idioma. No puedes pensar en dos, ¿no? (DU-C, 230/244)*

Azken bi aurreiritzi horiek, *lehen hizkuntzan ikasi behar da arrakasta akademikoa izateko* eta *ezinezkoa da ama-hizkuntza bi izatea,* oso oztopatzaileak dira eleaniztasunari begira eta familia erdaldun batzuek euskarazko hezkuntza mesfidantzaz antzematea eragiten dute.

6.3. Gurasoak euskaldunak ez izatea

Gurasoak euskaldunak ez izatea baterako zein besterako, euskarazko hizkuntza-eredua aukeratzeko zein ez aukeratzeko, arrazoi izan daiteke: guraso batzuek "euskalduna ez naizenez", euskara ikasteko ahaleginak eginda ala ez, seme-alabek ikas dezaten nahi dute eta horretarako modurik errazena hezkuntza-sistemak berak ematen dituen aukerak baliatzea da:

(35) *No conseguí aprender a hablar en euskera. (...) Sí me he preocupado de que mis hijos aprendan euskera. El mayor ya perfecto, y el pequeño está en ello, tiene cuatro años todavía. (ZA-D, 9)*

Beste batzuek, ordea, "nik ez dakidanez, ezin izango diet ikasketetan lagundu" azpimarratzen dute eta argumentua seme-alabak D ereduan ez eskolaratzeko arrazoi nagusi bihurtzen dute.

7. Hausnarketa, aurkeztutako datuak abiapuntu

Artikuluan zehar erakutsi denez, gurasoek seme-alabak B eredu elebidunera edo D murgiltze-eredura bidaltzeko arrazoiak askotarikoak dira; gainera, euskararen balio integratzaile zein instrumentalean daude oinarrituta, baita hizkuntzari berari, hizkuntzen ikaskuntzari eta elebitasunari buruzko uste eta aurreiritzietan ere.

Arrazoi-aniztasun hori ezagutu eta onartu behar da eta hizkuntza-auziei buruzko giza-eztabaidan eta erakundeek egiten duten hizkuntza-plangintzan kontuan hartu behar da. Euskararen egoeran dagoen hizkuntza batentzat askotariko motibazioak izatea indargunea dela esan daiteke, motibazio-aniztasunak euskararen aldeko neurrietan gizartearen sektore asko inplikatzea dakar eta.

Bestalde, hemen aurkezturiko arrazoi eta aurreiritziak ikerketan agertutakoak direla azpimarratu behar da: seguruenik hemen ez daude diren guztiak, egindako eztabaida-saioetan agertu direnak baino; hau da, lekukoentzat interesgarriak edo kezkagarriak izan direnak.

Euskararen integrazio- eta tresna-balioari dagokionez, bai dimentsio batean bai bestean egiten diren balorazio gero eta positiboagoak gurasoek eredu elebidun eta euskarazko murgiltze-ereduaren alde hartutako erabakia azaltzeko eragile garrantzitsuetako bat direla baieztatu da. Batzuentzat motibazio integratzaileak giltzarri dira; beste batzuentzat, motibazio instrumentalak. Ez dago zalantzarik motibazio mota biek elkar lagundu eta indartzen dutela. Integra-

zio-motakoen artean ondokoak daude: alde batetik, norberaren euskararekiko konpromisoa eta euskara izaki- eta giza-nortasunaren osagai den aldetiko balorazioa; bestetik, hizkuntzara sarbideak euskararen mundura sarbidea dakarrela pentsatzea, hots, integrazio handiagora sarbidea. Tresna-balioari dagokionez, gurasoek seme-alaben etorkizunari begira euskaraz jakitea garrantzitsua dela, eta euskarak azken hamarkadetan prestigioa irabazi duela sumatzea azpimarratzekoa da.

Hizkuntza-auziei buruzko aurreiritziei dagokienez, horiek hiztunen jarreren osaeran eta jokabidean duten garrantzia aintzakotzat hartu behar da. Ikerketa honek sarri kontzienteak ez diren zenbait uste errotu, baina sarri nahikoa egonkor eta ez kontrastatu direnak, argitara ateratzea ahalbideratu du. Jarrera guztiek bezala, aurreiritzi horiek, egiazkoak izan ala ez, egintzara bultzatzen dute eta, beraz, haien izaera eta eragina ezagutu behar da, gurasoek umeak eskolaratzerakoan, eredu elebidun edo euskarazko murgiltze-ereduari begira, onuragarriak ala oztopatzaileak diren gizarteari azaltzeko.

Eragile onuragarrien artean honako hauek daude: euskara ikasteko metodorik onena eta naturalena murgiltzea dela pentsatzea (ez bada bakarra, euskararen presentzia urria den testuinguru soziolinguistikoetan bereziki), umeek hizkuntzak oso erraz ikasten dituztela uste izatea, "zenbat eta hizkuntza gehiago hobe" eta elebiduna izanda beste batzuk errazago ikasten direla pentsatzea. Helduek euskara ikas dezaten negatiboak diren usteak umeen testuinguruan positibo bihurtzea interesgarria da: euskara oso hizkuntza zaila eta, beraz, heldutan ikasteko oso zaila delako usteak indartu egiten du guraso ez euskaldunek seme-alabek txikitan euskara ikas dezaten erabakia hartzea.

Bestalde, badaude, baita, aurreiritzi negatiboak, edo pertsonaren arabera positibo zein negatibo izan daitezkeenak. Negatiboen artean elebitasun eta hezkuntza elebidunari buruzkoak interesgarriak dira. Horrela, badaude elebiduna izatea ezinezkoa dela uste duenik edo "ama-hizkuntzan" ikasi ezik edukiak ezin ikas daitezkeela pentsatzen duenik. Horientzat, bai eurak eta bai haien umeak erdaldunak izanda, B edo D ereduetara bidaltzea kaltegarria litzateke, umeen heziketari begira.

Azkenik, euskalduna ez izatea eragile ezberdina izan daiteke eskolaratze-eredua aukeratzerakoan: batzuentzat euskarazko ereduen aldeko motibazioa den bitartean, ezin dutelako hizkuntza etxean transmititu, hain zuzen, besteentzat oztopatzailea da, irakaspen-hizkuntza ez dakitenez, seme-alabei ikasketetan ezin izango dietela lagundu beldur baitira.

Laburbilduta, gurasoek umeak B edo D ereduan eskolaratzeko dituzten arrazoiak aztertu dira artikuluan. Dena dela, apustu horrek gurasoentzat eurentzat eta gizartearentzat suposatzen duenari buruzko hausnarketa egitea komenigarria da.

Datuek zera erakusten dute: seme-alabak B edo D ereduetan eskolaratu ostean guraso asko euskara ikasten jartzen direla, helburua apur bat (umeei etxeko lanekin laguntzeko beste) ikastea bada ere; gurasoak euskararen munduan seme-alabek egiten dituzten jardueren bidez ere inplikatzen direla, ez bakarrik eskolako jardueretan, aisialdikoetan ere bai. Heldu ez euskaldunek euskararen mundutik guztiz kanpo bizitzeko egoera gaindi dezaten eta mundu hori ezagutu eta positiboki balora dezaten oso garrantzitsuak dira bi datu horiek.

Euskarazko murgiltze-eredua orokortzen den heinean, gizarte osoari dagokion fenomeno bihurtu da. Alde batetik, agerian dago gizarteak elebitasunaren aldeko erabakia egin duela; bestetik, euskararen egoera kontuan hartuta, elebitasuna lortzeko modurik onena murgiltzea dela antzematen dela, eta ez euren seme-alabak euskaldun elebakar izan daitezela gura dutelako, baizik eta gaztelania, bestela ere, hezkuntza-sisteman gutxiago landuta ere, haren erregistro guztietan eskuratzen dutela antzematen delako (ikasle elebidunak lortzeko murgiltze-ereduaren eraginkortasunerako ikus Idiazabal eta besteak 2007 eta Sierra J. 1996 –Cenoz eta Genesee 1998an aipatua–). Horrexegatik, beste gizarte elebidun batzuetan gertatzen ez den bezala, hezkuntza elebidunaren alde egin ordez, nagusiki hizkuntza gutxituzko murgiltze-sistemaren alde egin da.

Bestalde, artikulu honetan aurkeztu diren datuek beste gai interesgarri batzuk plazaratzera daramatzate. Gurasoek euren seme-alabak eskolaratzeko hizkuntza-eredua hautatzeko dituzten motibazioen artean, eredu bakoitzaren

balorazio ezberdina ere izan daiteke (ikus Idiazabal 2003a, 2003b). Izan ere, izan daiteke gizartean D ereduaren bidez jasotzen den heziketa berritzaileagoa, esanguratsuagoa eta, azken batez, hobea, delako pertzepzioa egotea. Hala ere, holako ideiarik ez da irten eztabaida-saioetan, ezta ikasle familiaz erdaldunen euskararen gaitasuna eskola publiko, pribatu edo ikastolek hobeto bermatzen duten ere. Gai hauetaz sakontzeko berariazko ikerketa egin beharko litzateke.

Amaitzeko, eta aurkeztu diren datuak aintzakotzat hartuta, euskara normaltzeko bidean, inguru erdaldunetan umeen inguruan sortzen diren euskara erabiltzeko aukerak gehiago baliatu beharko lirateke. Umeak euskarazko hizkuntza-ereduetan eskolaratzen dituzten euskaldun berrientzat eta euskara pixka bat dakitenentzat ekimen zehatzak pentsatu beharko lirateke, gurasoek bere gaitasun komunikatiboa etengabe hobetzea eta garatzea lortzeko, neurri batean, behintzat, umeekin euskaraz hitz egiten jarrai dezaten.

Bibliografia

AMORRORTU, E., ORTEGA, A., IDIAZABAL, I eta BARREÑA, A. 2009, *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria/Gasteiz.

BAXOK, E, ETXEGOIN, P., LEKUNBERRI, T., MARTÍNEZ DE LUNA, I., MENDIZABAL, L., AHEDO, I., ITZAINA, X., eta JIMENO, R 2006, *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

CENOZ, J. 1998, «Multilingual Education in the Basque Country», in Cenoz, J. eta Genesee, F., *Beyond Bilingualism. Multilingualism and Multilingual Education,* Multilingual Matters, Clevedon, 175-191.

EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA (2009), www.eustat.es, azkenengoz ikusita: 2009/09/04.

EUSKO JAURLARITZA, 2008, *IV. Inkesta Soziolinguistikoa 2006*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.

EUSKO JAURLARITZA, HEZKUNTZA SAILA 2009, www.euskadi.net, azkenengoz ikusita: 2009/09/04.

IDIAZABAL, I. 2003a, «Eskolaren kalitatea eta euskara», *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 49 (2003) 195-199.

IDIAZABAL, I. 2003b, «Euskal Irakasteredu elebidunak etorkizunari begira», in Mikel Atxaga, arg., *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena. Sabino Arana Elkargoaren Jardunaldiak 2001*, Fundación Sabino Arana Elkargoa, Bilbo, 341-353.

IDIAZABAL, I., AMORRORTU, E., BARREÑA, A., ORTEGA, A. eta URANGA, B. (2007). «Mother Tongue, Language of Inmersion. What can the School do to Revilitaze Minorized Languages?» *Procedings of the XII Conference of the Foundation for Erdengared Languages*. The Netherlands: Fryske Akademy, 139-145.

INTXAUSTI, J. 2005, «Zergatik ikasi hizkuntza? Zergatik alfabetatu? Euskal Esperientzia, 1960-2000», in Martí, F., Ortega, P., Idiazabal, I., Barreña, A., Juaristi, P., Junyent, C., Uranga, B., eta Amorrortu, E., *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*, Euskal Herriko Unibertsi-tatearen Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 239-242.

MORENO CABRERA, J.C 2000, *Dignidad e igualdad de las lenguas: crítica de la discriminación lingüistica*, Alianza, Madrid.

TEJERINA, B. 1992, *Nacionalismo y lengua*, Siglo XXI, Madrid.

Lehenengo hitzak eta morfologia-markak haur euskaldunengan: elebakarrengan eta elebidunengan[1]

BARREÑA, Andoni
Salamancako Unibertsitatea

GARCIA, Iñaki
Mondragon Unibertsitatea

Sarrera data: 2009-07-31
Onartze data: 2009-11-26

[1] Ikerketa hau garatzeko lagun askoren laguntza izan da beharrezkoa, haatik, guztioi eskerrak: datuak jasotzen lagundu ziguten gurasoei eta irakasleei, datuok ekoitzi zituzten haurrei, ikerketa aurrera ateratzeko lagundu diguten *Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda* taldeko gainerako lankideei (Margareta Almgren, Nekane Arratibel, Julia Barnes, Amaia Colina, Marijose Ezeizabarrena, Juanjo Zubiri eta Alazne Petuya), ikerketa babesaz eta diruz lagundu duten erakundeei (Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Ikerkuntza eta Unibertsitate Saila -PI2004-16-, Espainiako Hezkuntza, Zientzia eta Teknologia Ministeritza -BFF2003-05196, Hum2006-11862-0c03-01/filo, Hum2006-11862-C03i-02/filo-, Mondragon Unbertsitatea eta SEASKA), eta idazlana hobetzeko eta ulergarriagoa egiteko lan egin duten guztiei, bereziki Asier Irizarri, Josune Zabalari eta behatzaile ezezagunei.

Euskera. 2009, 54, 2-1. zatia, 603-638. Bilbo
ISSN 0210-1564

Ikerlan hau 8 hilabetetik 30 hilabetera bitarteko 1.392 haurren euskara-datuetan oinarritzen da, euskara elebakartasunean edo elebitasunean -gaztelaniarekin zein frantsesarekin batera- garatu duten haurrengan, alegia. Datuok haurren gurasoek emandakoak dira. Horretarako *Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda* tresnaren *Hitzak eta keinuak* (*8-15 hilabete*) eta *Hitzak eta esaldiak* (*16-30 hilabete*) galdetegiak bete dituzte. Ikerlanaren helburuak hauexek dira: aztertzea euskara bereganatzen ari diren haurren hiztegiaren barne-egitura, euskararen garapenaren hasiera-hasieratik; arakatzea hiztegiaren eta gramatikaren garapenen arteko erlazioak, hots, begiratzea hiztegiaren tamainaren eta hitz-elkarketaren eta morfologiaren garapenaren hasieraren arteko erlazioak; eta ikertzea aipatutako helburuak elebakarrengan eta elebidunengan era bertsuan gertatzen ote diren. Horretarako, hainbat datu eskaintzen dira ikerlanean, haurren adinaren eta euskarak entzundakoan duen presentziaren arabera. Nabarmen gertatzen da izenen ehunekoa askoz ere handiagoa dela gainerako lexiko-kategoriena baino hizkuntzaren garapenaren hasiera-hasieran, edo morfologia-hitzak garatzen direla beranduen. Aipatzekoa da, bestalde, 26. hilabetetik aurrera euskarak entzundakoan duen presentzia eragile esanguratsu bihurtzen dela euskararen garapenean.

Hitz-gakoak: Elebakartasuna eta elebitasuna, entzundako euskara-kantitatea, euskararen jabekuntza, hiztegiaren tamaina, lexikoaren garapena, morfologiaren garapena

Este trabajo de investigación se basa en los datos de euskara de 1.392 niños monolingües y bilingües de 8 a 30 meses, que han desarrollado dicha lengua como su primera lengua, a veces junto al castellano o francés. Los datos han sido facilitados por los padres rellenando los cuestionarios del instrumento *Communicative Development Inventories* adaptados al euskara (*Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda*): *Palabras y signos* (*Hitzak eta keinuak*), para niños de 8 a 15 meses, y *Palabras y frases* (*Hitzak eta esaldiak*), para niños de 16 a 30 meses. Los objetivos de esta investigación son: analizar la estructura interna del léxico de los niños que adquieren el euskera, desde el inicio mismo del desarrollo lingüístico; estudiar las relaciones entre el desarrollo del léxico y de la gramática, es decir, observar las relaciones iniciales entre el tamaño del léxico y el desarrollo de la morfología; y comprobar si los objetivos citados ocurren de un modo semejante en los niños monolingües y bilingües. Con tal fin, se presentan numerosos datos lingüísticos, de acuerdo a la edad de los niños y al tiempo de exposición al euskara de los mismos. Los datos muestran que el por-

centaje de los nombres es manifiestamente superior al del resto de las categorías léxicas en el inicio del desarrollo lingüístico, y que los elementos morfológicos son los que se desarrollan más tardíamente. Por otro lado, también se observa que a partir de los 26 meses de edad el tiempo de exposición al euskera resulta un factor significativo en el desarrollo de dicha lengua.

Palabras clave: Monolingüismo y bilingüismo, tiempo de exposición al euskera, adquisición del euskera, tamaño del léxico, desarrollo del léxico y desarrollo morfológico.

Ce travail d'étude repose sur les données du basque de 1392 enfants monolingues et bilingues âgés de 8 à 30 mois, qui ont développé cette langue comme leur première langue, parfois aux côtés de l'espagnol ou du français. Les données ont été fournies par les parents en remplissant les questionnaires de l'instrument *Communicative Development Inventories* adaptés au basque (*Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda*) : *Mots et signes* (*Hitzak eta keinuak*), pour les enfants de 8 à 15 mois, et *Mots et phrases* (*Hitzak eta esaldiak*), pour les enfants de 16 à 30 mois. Les objectifs de cette étude sont les suivants : analyser la structure interne du lexique des enfants qui acquièrent le basque, dès le début du développement linguistique ; étudier les relations entre le développement du lexique et de la grammaire, c'est-à-dire observer les relations initiales entre la taille du lexique et le développement de la morphologie ; et vérifier si les objectifs cités se réalisent de manière semblable chez les enfants monolingues et bilingues. À cette fin, on présente de nombreuses données, selon l'âge des enfants et leur temps d'exposition au basque. Les données montrent que le pourcentage des noms est manifestement supérieur à celui des autres catégories lexicales au début du développement linguistique, et que les éléments morphologiques sont ceux qui se développent plus tardivement. D'autre part, on observe également qu'à partir de 26 mois, le temps d'exposition au basque est un facteur significatif dans le développement de cette langue.

Mots-clés: Monolinguisme et bilinguisme, temps d'exposition au basque, acquisition du basque, taille du lexique, développement du lexique et développement morphologique.

This research is based on data regarding Basque from 1,392 monolingual and bilingual children between the ages of 8 to 30 months, who have developed this language as thier first language, sometimes together with Spanish or French. The data has been provided by parents who have filled out questionnaires of the document *Communicative Development Inventories* translated into Basque as (*Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda*): *Palabras y signos* (*Words and signs*) (*Hitzak eta keinuak*), for children between the ages of 8 to 15 months, and *Palabras y frases* (*Words and phrases*) (*Hitzak eta esaldiak*), for children between the ages of 16 to 30 months. The objectives of this research are: to analyse the internal structure of the lexicon of the children who learn Basque, from the very beginning of language development; to study the relationships between the development of the vocabulary and grammaer, that is, to note the initial relationships between the size of the lexicon and the development of the morphology; and to verify whether the cited objectives occur similarly in both monolingual and bilingual children. To this end, numerous linguistic data is submitted, according to the ages of the children and the exposure time thereof to Basque. The data demonstrates that the percentage of the names is clearly greater to that of the rest of the lexical categories at the beginning of the linguistic developmnet, and the morphological elements are those that develope later. Moreover, it is also noted that from the age of 26 months the exposition time to Basque is a significant factor in the development of the language.

Keywords: Monolinguism and bilinguism, exposition time to Basque. acquisition of Basque, lexicon size, lexical development and morphogical development.

Sarrera

Munduko haur guztiek, edozein izanik bereganatzen ari diren hizkuntza, urrats berak betetzen dituzte jabekuntzaren garapenean, psikolinguistikaren arloko adituek azken aspaldian erakutsi dutenez (Gleitman eta Newport, 1995; Serra *eta beste*, 2000; Guasti, 2002).

Hasieran, haurraren lehenengo urtean, gutxi gorabehera, garapen fonologikoa gertatzen da; edo zehatzago esanik, haurraren garapen fonologikoa egiten zaigu azpimarragarriena hizkuntzaren garapenean. Haurrak entzuten duen hizkuntza identifikatzen du egun gutxi dituenean (Mehler *eta beste*, 1988; DeCasper *eta beste*, 1994). Lau hilabete dituenean, eta lehenago ere hainbaten, haur elebidunak hizkuntza biak identifikatzen ditu, eta hizkuntza arrotzetatik bereizi (Bosch eta Sebastián-Gallés, 2001a, 2001b). Hilabete gutxirekin ere, zezelera edo totelera aroan hain zuzen, bere inguruan entzuten dituen hizkuntza-hotsak erabiltzen hasten da, eta entzuten ez dituen hainbat ere bai, bere mintzamen-organoek eta hizkuntza-ahalmenak horretarako ahalbidetzen dutelako (Locke, 1983; Werker, 1995; Guasti, 2002). Hamar edo hamabi hilabete dituenerako, bere hots-gaitasuna entzuten duen hizkuntzaren hotsak ekoiztera mugatzen da eta lehenago izan duen ahalmen zabalagoa murrizten da; halere, oraindik ez ditu erabiliko garatzen ari den hizkuntzaren hots guztiak (Newport, 1990; Elman, 1993).

Entzuten duen hizkuntzaren hots guztiak egiteko gauza ez den arren, urtebete inguru duenean, lehen hitzak hasiko da ekoizten haurra (López-Ornat *eta beste*, 2005). Hasiera-hasieran hitzak banan-banan erabiliko ditu. Aro honi ikertzaileek *hitz bakarreko aroa* deitu diote (Brown, 1973; Idiazabal, 1991; Zubiri, 1995). Edozelan ere, hitzak erabili baino lehen, haurrak ulertu egiten ditu hitzok, eta 13 hilabete dituenerako, esaterako, badirudi berrogeitaka hitzetik gora ulertzen dituela, askoz ere gutxiago darabilen arren (De Houwer *eta beste*, 2006; Barreña *eta beste*, 2008).

Hamazortzi hilabete dituenean, gutxi gorabehera, hitz biko ekoizpenak hasiko da egiten haurra (Serra *eta beste*, 2000; Serrat *eta beste*, 2004). Aro hone-

tan haurra hitzak elkartzen hasiko da, *hori ez* edo *aitita apapa* bezalako esaldiak sortuz (Barreña, 1995). Aro honi *hitz biko aroa* deitu zaio.

Hilabete gutxira, nabarmen hasiko dira agertzen haurraren hitzezko ekoizpenean morfologia-markak eta sintaxi-ezaugarriak, eta bat-batean ez bada ere, apurka-apurka aipatutako hizkuntzaren berezitasunok egoki garatzen joango da haurra. Horrela, hiru urte dituenerako, konplexutasun sintaktiko sendoa izango du haurraren hizkerak (Bel, 2001).

Bost urte betetzen dituenerako, eta seguruenik lehenago ere bai, ahozko hizkuntza guztiz garatua izango du haurrak (Gleitman eta Newport, 1995; Guasti, 2002). Hemendik aurrera hiztegia aberastu beharko du, eskola-hizkuntzaren arauetara moldatzen ikasi beharko du bere hizkera, pragmatikaren eta diskurtsoaren arloak landu eta sendotu beharko ditu eta bereganatu duen hizkuntzaren aldaerak ere erabiltzen ikasi beharko du: baina bost urte dituenean berezko gramatikaren hezurdura guztiz bereganatua duela esan daiteke.

Horrela laburbil daiteke haurraren lehen hizkuntz(ar)en garapena munduko edozein hizkuntzatan, betiere haurraren garapena baldintza arruntetan gertatzen bada, hots, ez badu inolako zailtasun fisiko edo psikikorik hizkuntza garatzean.

1. Lexikoaren eta gramatikaren garapenen arteko erlazioa

Goian egin den laburbilketaren ondorioetako bat jabekuntzan hizkuntzaren atalen artean gertatzen den garapen asinkronikoa da. Fonologiaren ataleko elementuak dira haurrak ekoizten dituen lehenak; ondoren, hitzak erabiltzen hasten da haurra, eta, azkenik, gramatikaren ataleko ezaugarriak garatzen ditu. Horrek ez du esan nahi atal bakoitza guztiz garatua izan behar duenik hurrengoarekin hasteko, noski.

Hizkuntzaren garabide horretan kategoria lexikoen agerrera –eduki semantikoa daukaten hitzak, alegia (izenak, adjektiboak, aditzak eta adberbioak)- goizago

gertatzen da kategoria gramatikalena baino –erlazionatzeko erabiltzen diren hitzak edo hizkiak (artikuluak, postposizioak, kasu-markak, menderagailuak)-.

Ugari izan dira garapen lexikoaren eta gramatikalaren arteko erlazioa baietsi duten ikertzaileak. Erlaziook hiztegiaren tamainaren eta lehen hitzen elkarketen edo morfologiaren zein sintaxiaren agerreren korrelaziotzat hartu dira (Bates, Bretherton eta Snyder, 1988; Marchman eta Bates, 1994; Bates *eta beste,* 1994; Bates eta Goodman, 1997; Bassano, 2000; Devescovi *eta beste*, 2005; Serrat eta Sanz-Torrent, 2004).

Ildo horretatik, 30 hilabete baino gutxiagoko haur ingelesdunen masa lexikoaren eta gramatikaren arteko korrelazio handia behatu eta gero, ikertzaileek lexikoari buruzko masa kritikoaren kontzeptua proposatu dute, zeinek gramatikaren garapenari ekiteko haurrak beharrezko duen hiztegiaren tamaina zehazten duen. Horrela, bada, Marchman eta Bates (1994)-k edo Bates *eta beste* (1994)-k ikusi zuten haurra hitzak elkartzen hasten dela –hitz bikoak osatuzbere ahozko ekoizpenetan behin 50-200 hitz arteko hiztegia darabilenean, eta 400 hitzeko hiztegia duenean korrelazio estua gertatzen dela hiztegiaren tamainaren eta esaldiaren konplexutasunaren artean. Horregatik proposatu zuten 400 hitzetan zehaztea *masa kritiko* kontzeptua: haurrak beharrezko du *masa kritiko* hori gramatikaren garapena sustatzeko eta. Halere, 400 hitzeko hiztegia izatea ez da beti nahikoa izaten gramatika garatzen hasteko, aipatutako ikertzaileek ikusi zutenaren arabera.

Hizkuntza erromantzeetako jabekuntza-garapena aztertu duten beste hainbat ikertzailek ere antzeko emaitzak aurkitu dituzte italieraz, gaztelaniaz eta galizieraz (Caselli, Casadio eta Bates, 1997; Gallego eta López Ornat, 2005; Pérez-Pereira eta García-Soto, 2003; Devescovi *eta beste*, 2005), eta bereziki nabarmendu dute garapen lexikoaren eta hainbat atzizkiren garapen morfologikoaren arteko korrelazio handia. Katalanez eta gaztelaniaz ere ikertu da alor honetan, eta aditz-morfologiaren ekoizpena aztertzean garapen lexikoaren eta gramatikalaren korrelazio handia (Serrat *eta beste,* 2004) edo hiztegi orokorraren garapenak aditz-morfologiaren garapena aurreikusteko duen balioa (Serrat *eta beste, agertzeko*) baietsi dute hizkuntza bietan, besteak beste.

Arratibel *eta beste* (2005)-k eta Pérez-Pereira *eta beste* (2006)-k ere korrelazio handia aurkitu dute 30 hilabete baino gutxiagoko haurren hiztegiaren tamainaren eta lehen atzizkien garapenaren artean, euskaraz zein galizieraz. Barreña *eta beste* (2006)-k gramatika zein sintaxia garatzen hasteko haur euskaldun txikiek beharrezko duten hiztegiaren tamaina ere zehaztu dute: 100 hitzekoa hitz-elkarketak egiten hasteko -hitz bikoak ekoizteko, alegia-, 200 hitzekoa izen-morfologia ekoizten hasteko eta 400 hitzekoa aditz-morfologia erabiltzen hasteko.

Lexikoaren eta gramatikaren erlazioaz gain, jakina da ikertzaileen artean haurra lehen hitzak erabiltzen hasten denean, hasiera baten, izentzat har daitezkeen hitzak darabiltzala gehien, hots, izenak aditzak baino lehenago ekoizten dituela, oro har (Bates, Dale eta Thal, 1995; Caselli *eta beste*, 1995; Guasti, 2002).

Hitzak ekoizten hasten denean, kategoria ezberdinetakoak darabiltzan arren, bereziki munta handikoak dira izenak haurraren hiztegitxoan. Aldi horretan, zalantzarik gabe, izentzat jo daitezkeen hitzek osatzen dute multzo handiena, eta adjektiboak, adberbioak, aditzak, izenordainak edo gramatika-hitzak beluago hasiko da haurra erabiltzen, helduen hizkeran duten ehunekoetara apurka-apurka hurreratuz.

Ildo horretatik, proposatu izan da aditzak ikasteko eta ekoizteko haurrak beharrezko duela egitura sintaktikoa menderatzea (Brown, 1958; Guasti, 2002). Hipotesi horren arabera, haurrak aditz jakin batzuen esanahia bereganatzeko, besteak beste, beharrezko ei du inguru sintaktikoak eskaintzen dion informazioa prozesatzeko gaitasuna izatea, hots gramatikaren jabe izatea. Ez ei da, beraz, nahikoa inguru semantikoa aditzen esanahiak ikasteko.

Kontua da egin diren zenbait ikerketaren arabera nabarmena dela hasierako hiztegian izenen ehunekoak munta handiago duela aditzena baino. Horrela, esaterako, katalanaren, euskararen, galizieraren eta gaztelaniaren garapena alderatzean honakoa ikusi zuten 16tik 30 hilabetera bitarteko haurren hiztegiaren barne-eraketa arakatzean: aditzen ehunekoak nabarmen egiten zuela gora lau hizkuntzetan haurren hiztegiaren tamainak gora egin ahala (Barreña eta Serrat, 2007). Ikerketa honetan 517 haur katalandun, 975 euskaldun, 700 ga-


lizieradun eta 593 gaztelaniadun aztertu zituzten, eta 0-50 hitz bitarteko hiztegia zuten haurrengan %2,6, %6,7, %2 eta %2,6 izanik aditzen ehunekoa, hurrenez hurren hizkuntzaren arabera, 501-600 hitzeko hiztegia zeukatenengan %15,3, %17,2, %18,7 eta %15,3 izatera iritsi zen (ikus lehen grafikoa).

Izenen ehunekoak, ostera, ondoko bilakaera izan zuen aldi berean: %50,3tik %57,4era haur katalandunengan, %48,3tik %56,6ra haur euskaldunengan, %43,7tik %53,2ra haur galizieradunengan eta %46,1etik %53,7ra haur gaztelaniadunengan.

1. GRAFIKOA

ADITZEN EHUNEKOAREN BILAKAERA HIZTEGIAREN TAMAINAREN ARABERA, HAUR KATALANDUN, EUSKALDUN, GALIZIERADUN ETA GAZTELANIADUNENGAN

Iturria: Barreña eta Serrat, 2007



Emaitza horiek argi uzten dute aditzen ehunekoa gutxienez seikoiztu egiten dela hizkuntza latindarretan eta ia hirukoiztu euskararen kasuan hitzen ekoizpenaren hasiera-hasieratik haurrak 500etik gorako hitzeko hiztegia bereganatzen duen arte. Halakorik, ostera, ez da izenekin gertatzen. Bestalde, nabarmena da haur euskaldunek hasiera baten (hiztegiaren tamaina 200etik beherakoa denean) askoz ere aditz ehuneko handiago darabiltela hizkuntza latindarren bat garatzen ari diren haurrekin alderatuta.

Haur euskaldunen hizkuntzaren garapenaren hasiera-hasieran gertatzen den berezitasun hau, aditzen ehuneko handiagoa erabiltzea haur gaztelaniadunekin, galizieradunekin eta katalandunekin alderatuta, alegia, azaldu nahian bi arrazoi proposatu dira (Almgren *eta beste*, 2008): 1) haur euskaldunek inputean sarriagotan entzutea aditzaren errotzat jo daitekeen forma (*etorri, ekarri*) -aditz mugatuetan (*etorri zara, ekarri duzu*) zein ez-mugatuetan (*etorri hona!, ekarri hori!*)- haur erdaldunek baino, zeinen hizkuntzetan forma mugatu aldakorrak (*ven, vienes, vengo, ...*) arruntagoak diren; 2) euskararen egituran aditzaren inguruan biltzen den gramatika-informazioa handiagoa izatea, izenaren inguruan biltzen denarekin zein hizkuntza latindarretan aditzen inguruan biltzen den informazioarekin alderatuta, eta euskararen berezitasun honek haur euskaldunak aditzak lehenago edo goizago erabiltzera bultzatzea.

2. Elebakarrak eta elebidunak euskara garatzen

Euskararen garapena lehen hizkuntza legez aztertzean, kontuan izan behar da badirela gure gizartean euskara hutsean garatzen duten haurrak, euskaldun elebakarrak alegia, eta euskaraz gain beste hizkuntzaren bat ere garatzen dutenak –gehienetan gaztelania edo frantsesa-, euskaldun elebidunak, hain zuzen.

Txiki-txikitatik hizkuntza bi entzun arren haurra gai dela biak lehen hizkuntza legez garatzeko erakutsi du jabekuntza elebidunaren ingurukoko ikerkuntzak (De Houwer, 1991, 1995; Genesee, 2001; Meisel, 2004, 2008), baita euskara eta gaztelania garatzen ari diren haur elebidunengan ere (Ezeizabarrena, 1996; Elosegi, 1998; Almgren, 2000; Barreña, 2001).

Elebidunek hizkuntza biak elebakarren legez gara ditzaten, hots, elebidunen garapena hizkuntza bietan elebakarren antzekoa izan dadin jabekuntzaren urrats nagusietan, jabekuntzaren erritmoan zein erdietsitako hizkuntza-gaitasunean, haur elebidunek zenbait baldintza bete behar dituztela antzeman da: hizkuntza biak txiki-txikitatik entzutea eta inputean bereizita entzutea. Baldintza horiek betez gero, aukera handi-handiak izango dituzte elebidunek hizkuntza biak elebakarren antzera bereganatzeko.

Alabaina, baliteke elebidunen eta elebakarren jabekuntza-erritmoa ezberdina izatea. Egia da ez dela zertan erritmo-alderik nahitaez izan behar, baina egia da, baita ere, alde kuantitatiboa izan daitekeela hizkuntzaren bereganatzearen erritmoan haur elebidunen eta elebakarren artean (Barreña *eta beste*, 2008; Pérez-Pereira, 2008).

Ildo honetatik, ikusi da hizkuntza bi aldi berean garatzen ari den haurrak ez duela kontzeptuetan elebakarrek baino gutxiago bereganatzen, baina izan dezakeela hizkuntza bakoitzean elebakarrek baino hitz gutxiago (Pearson *eta beste*, 1995, 1997). Nolabait, haurra gaztea denean, 30 hilabete izan aurretik, ikusi da haur elebidunen hiztegiaren garapena erlazionaturik dagoela entzuten duen hizkuntzaren kantitatearekin: zenbat eta gehiago entzun, orduan eta hiztegi handiagoa hizkuntza horretan, eta alderantziz.

Euskaraz ere gauza bera ikusi izan da (Barreña *eta beste*, 2008). Hala, bada, 16tik 30 hilabetera bitarteko 950 haurren datuekin ikusi da 26 hilabetetik gorako haurrengan munta handia duela entzuten duten euskara-kantitateak euskarazko hiztegiaren eta euskal gramatikaren garapenerako. Esateko, entzuten duten euskara-kantitatea %60tik jaisten denean ikusi da haurrek hiztegiaren garapena zein gramatikaren garapen txikiagoa dutela elebakarrekin alderatuta.

3. Helburuak eta metodologia

Lan honen bidez aurkezten den ikerketaren helburuak honako hauek dira: 1) aztertzea euskara bereganatzen ari diren haurren hiztegiaren barne-egitura, hots, ikusi hitz-kategoriek (izenak, izenordainak, adjektiboak, aditzak eta adberbioak) duten presentzia eta bilakaera jabekuntzaren hasieran; 2) arakatzea hiztegiaren eta gramatikaren garapenen arteko erlazioak, hots, begiratzea hiztegiaren tamainaren eta hitz-elkarketaren eta morfologiaren garapenaren hasieraren arteko erlazioak; 3) ikertzea aipatutako helburuak elebakarrengan eta elebidunengan era bertsuan gertatzen ote diren.

Metodologiari dagokionez, ikerketa egiteko *Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda* testa egitean jasotako datuak aztertuko dira (Barreña *eta beste*, 2008). Tresna hori ingelesezko *MacArthur-Bates Communicative Development Inventories* izenekoaren egokitzea da (Fenson *eta beste*, 1993). Tresna bi galdetegik osatzen dute: bata, 8 hilabetetik 15 hilabetera bitarteko haurren gurasoek bete dezaten; bestea, 16 hilabetetik 30 hilabetera bitartekoenek betetzeko.

Galdetegiak egitean lau izan ziren iturri nagusiak hiztegia eta elementu morfologikoak aukeratzeko unean: 1) jatorrizko tresna (Fenson *eta beste*, 1993), testaren egitura orokorra eta helburuak zehazten baititu; 2) aurretik eginda zeuden tresnaren hainbat egokitzapen, hala nola, galizierazkoa edo Mexikoko gaztelaniazkoa (Pérez Pereira eta García Soto, 2003; Jackson-Maldonado *eta beste*, 2003); 3) euskararen jabekuntzaren garapena deskribatzen eta aztertzen zuten hainbat ikerlan (Barreña, 1995; Ezeizabarrena, 1996; Zubiri, 1997; Elosegi, 1998; Almgren, 2000); 4) aurre-testaren ondorioak, bertsio horretarako galdera guztiak irekiak izan baitziren gurasoen informazio zabalagoa biltzeko asmorekin.

Oro har, galdetegiek haurraren hizkuntza-maila islatzen dute. Lehen galdetegian, 8tik 15 hilabetera bitarteko haurren gurasoek bete behar dutenean, keinukomunikazioaz, haurrak ulertzen dituen hitzez eta haurrak erabiltzen dituen hitzez itauntzen da. Bigarren galdetegian, 16tik 30 hilabetera bitarteko haurren gurasoek bete behar dutenean, haurrak darabilen hiztegiaz, morfologiaz eta sintaxiaz itauntzen da. Bigarren galdetegian gurasoek honako informazioa eman behar dute: 21 eremu semantikotan bildutako 646 itemi buruzkoa, morfologiaarloko 56 itemi buruzkoa eta garapen morfosintaktikoaren berri, haurrak ekoitzitako hiru esaldi luzeenak idatzita. Hizkuntza-datuez gain, galdetegietan haurren hainbat datu eskatzen dira, hala nola, adina, neba-arreba kopurua, hizkuntzekiko harremanak, osasunaren arloan izandako arazoak, eta abar[2].

Tresna honen fidagarritasuna neurtzeko, jatorrizko bertsioan egin zen bezala (Fenson *eta beste,* 1993), barne-konsistentzia zein puntuazioen egonkortasuna aztertu dira euskarazko egokitzapenean. Baliagarritasuna neurtzeko,

[2] Tresna honen deskribapen zehatzagoa izateko, ikus Barreña *eta beste*, 2008.

baliagarritasun konbergente eta iragartze-baliagarritasuna ikertu dira. Guztietan emaitzak egokiak izan dira, testaren ingelesezko jatorrizko bertsioan zein hainbat egokitzapenetan lortutakoak adina egokiak (Barreña *eta beste*, 2008; García *eta beste*, 2008).

Bestalde, datuak arakatzean haurrak bi eratan sailkatuko dira: batetik, darabilten hiztegiaren tamainaren arabera; eta, bestetik, euskarak euren egunerokoan izan duen presentziaren arabera. Horiez gain, haurren adina ere kontuan izan da.

Horrela, darabilten hiztegiaren tamainaren arabera, Bates *eta beste* (1994)-k eginiko proposamenetik abiatu da ikerlana, arlo honetako ikerketak egiteko erabiliena dena (Barreña eta Serrat, 2007). Sailkapen honetan haurrak ondoko multzoetan bereizten dira, edozein adin dutela ere, unean darabilten hitz-kopuruaren arabera: 0-50, 51-100, 101-200, 201-300, 301-400, 401-500, 501-600 eta 601-703 hitzeko hiztegiak dauzkatenak.

Euskarak umeen egunerokoan duen presentziaren arabera lau taldetan bereiziko dira haurrak: A) euskaldun elebakarren taldea, entzundako inputetik %90etik gorakoa euskarazkoa izan dutenen taldea, B) euskara maila handian entzun duten elebidunen taldea, entzundakotik euskararen maiztasuna %60tik %90erakoa izan dutenak, C) euskara maila ertainean entzun duten elebidunen taldea, entzundakotik euskara %60tik %40erakoa izan dutenen taldea, D) euskara maila txikian entzun duten elebidunen taldea, entzundakotik euskara %40tik %20rakoa izan dutenena.

Guztira 1.392 haurren datuak miatuko ditugu. Horietako 442 haur 8tik 15 hilabetera bitartekoak dira, eta gainerako 950 haurrak 16tik 30 hilabetera bitartekoak.

4. Emaitzak

Atal honetan erakutsiko diren emaitzak haurren adinaren arabera daude antolatuta. Horregatik, hasieran 8tik 15 hilabetera bitarteko haurrentzako galdetegian bildutako emaitzak aurkeztuko dira, eta, ondoren, 16tik 30 hilabete bitarteko haurrenak.

4.1. Zortzitik hamabost hilabetera bitarteko haurren ahozko ekoizpena

Urtebete izan aurretik oso hitz gutxi darabilte haurrek, eta euretako askok eta askok, gehienek ikusiko den legez, bat bera ere ez. Guztira, 8tik 11 hilabetera bitarteko 189 haurren hizkuntza-maila aztertu da, eta horietatik 139k (%73) ez dute hitzik ekoizten, bat bera era ez (ikus lehen taula), gurasoek diotenez.

Gainontzeko 50ek (%26), ostera, hitz gutxi batzuk darabiltzate. Baina, horietako gehienek hitz bat edo bi baino ez darabiltzate; halere, bada 16 hitz darabilenik ere.

1. TAULA
LAGINEKO 8TIK 15 HILABETERA
BITARTEKO HAURREN HITZ-EKOIZPENA

	Haur-kopurua		
Hiztegia	*8-11 hilabetekoak*	*12-15 hilabetekoak*	*Haurrak guztira*
Hitzik ez	139 (%73,5)	60 (%23,7)	199 (%45)
Hitz bakarra	11 (%5,8)	21 (%8,3)	32 (%7,2)
2-10 hitz	36 (%19,1)	125 (%49,4)	161 (%36,5)
11-50 hitz	3 (%1,5)	43 (%17,4)	47 (%11)
51-100 hitz		2 (%0,8)	2 (%0,4)
101-108 hitz		1 (%0,4)	1 (%0,2)
	189 (%100)	253 (%100)	442 (%100)

Urtebete ere ez duten haurrek darabiltzaten hitzen kategoriari begiratuta, ondokoa esan daiteke: duda barik hitzik erabilienak izenak dira, baina ez dira bakarrak. Izenez gain aditzen bat edo beste ere agertzen da, baina gainerako kategorietakorik ez dutela erabiltzen esan daiteke.

Pertsona-izenen artean erabilienak haurraren inguruko senitartekoenak daude: *aita* 37 haurrek darabiltzate, *ama* 31k, *amama* 8k, *aitita* 4k, *izeba* 2k

eta *osaba*, *arreba*, *umea, andereño, 'haurraren izena'* eta *'pertsonaren baten izena'* batek bakoitza.

Izentzat jo daitezkeen hitzen artean, zentzurik zabalenean, animaliaren edo objekturen bat izendatzen dutelako, hitz onomatopeikoek ere munta handia dute, hala nola, *brun-brun* (8), *guau-guau* (7), *muu* (5), *tan-tan* (3), *bee* (2), *kua-kua* (2), *pun* (1) eta *rin-rin* (1) onomatopeiek.

Gaineko izenen artean erabilienak *txakurra* (3), *motoa* (2) eta *erlojua* (2) dira. *Astoa, behia, txahala, txerria, autobusa, kamioia, kotxea, trena, baloia, panpina, pilota, esnea, gaileta, ogia, ura, titia, argia, giltza, txupetea, afaria* eta *pixa* haur bakarrak ekoizten duela jaso da.

Askoz ere gutxiago diren arren, aditzak ere badira hitz ekoitzien artean. Lau dira lagineko haurrek erabili dituztenak: *abestu* (3 haurrek), *eman* (3 haurrek), *jo* (2 haurrek) eta *dantzatu* (haur batek).

Adberbiorik ez da agertu. Adjektibo bakarra aurkitu da, ume bakarrak erabilia: *guapo*. Halere, hitz horren adjektibo-izaera zalantzan jar daiteke. Izenordaintzat jo daitekeen *hura* ere haur batek ekoizten du, eta gauza bera esan behar *bat* hitzari buruz.

Horiez gain, badira sailkapen zaileko beste hainbat hitz ere erabilien artean: *agur* (4), *ez* (4), *bainatzera* (3), *arri-arri* jolasa (2) eta *ixo* (1).

Halere, gogoan hartu behar da, hemen hitza euskararen arauaren arabera idatzita erakusten bada ere, gurasoei ez zaiela eskatzen haurren ahoskatzea helduena bezalakoa izatea, horretara hurreratzea baino, zehaztutako objektua edo ekintza identifikatzeko ahozko etiketaren bat erabiltzea, alegia[3].

[3] Hona hemen galdesorta betetzerakoan gurasoei eman zitzaien oharra umearen ahoskerari buruz: "... hartu zerrenda eta markatu haurrari esaten entzun dizkiozun hitzak. Haurrak hitzen bat horrela edo beste era batera esaten badu (adibidez, "pilota" esan beharrean "piota" edo antzekoren bat esaten badu, edo zure herrian edo etxean bakarrik erabiltzen duzuen moduren batean egiten badu) markatu hitza...".

Ulermenari begiratzen bazaio, 8tik 11 hilabete arteko haurrek 37 hitz ulertzen ei dituzte batez beste, gurasoen esanetan. Horietatik, beti batez bestekoak adierazita, 24 izenak dira, 6,5 aditzak, 1,6 adjektiboak, 0,8 adberbioak eta 0,5 izenordainak. Gainontzekoak sailkatzeko zailak direnetakoak dira.

Urtebete inguruko haurrek, 12tik 15 hilabetera bitartekoek, ostera, hitz gehiago ekoizten dituzte. Halere, oraindik ere 253 haurretatik 60k (%24) ez darabil hitz bakarra ere, 146k (%58) hamar hitz edo gutxiago darabiltzate, eta bakarrik 3 haurrek ekoizten dituzte 50etik gora hitz (datu horiek eta gehiago lehen taulan ikus daitezke).

Erabilienen artean batez ere izentzat jo daitezkeenak daude. Adin-tarte honetan haur bakoitzak 6,6 hitz darabiltza batez beste, eta horietatik 5,2 izenak dira, 0,4 aditzak, 0,1 adjektiboak, 0,08 izenordainak, 0,06 funtzio-hitzak, 0,04 adberbioak, eta abar. Nabarmena da, beraz, oraindik ere izenek daukaten garrantzia haurraren hiztegian.

Izenen artean erabilienak haurraren ingurukoen izenak dira, hala nola, *aita* (131), *ama* (115), *amama* (50) eta *aitita* (37). Onomatopeien bidez izendatzen diren abereak eta objektuak ere sarritasun handia erakusten dute: *guau-guau* (117), *muu* (69), *brun-brun* (62), *kua-kua* (35), *bee* (23), eta abar. Animaliak izendatzeko izen arruntak ere badarabiltzate: *txakurra* (30), *ahatea* (13), *behia* (11), *hartza* (10), ... Gaineko izenen artean janari-edari kontuekin lotuak eta inguruko tresna erabilienak daude: *ura* (35), *txupetea* (25), *argia* (19), *gaileta* (19), *ogia* (14), *zapatak* (14), *biberoia* (13) eta *pilota* (13), esaterako.

Aditzen artean erabilienak *jo* (18), *eman* (10), *bota* (10), *jan* (7) eta *amaitu* (6) daude. Adjektiboen artean erabiliena *guapoa* da (6). Izenordainen esparruan kontua pizten hasi dela esan daiteke: *hura* (9), *hau* (6) eta *ni* (4). Tokizko adberbioak ere badira: *han* (7), *hemen* (3) eta *hor* (2). *Bat* funtzio-hitz legez hartu dena ere, helduen hizkeran bederen, 13 haurrek darabilte.

Izenen eta gainontzeko kategorien artean ekoizpenean gertatzen den aldea, esaterako, aditzekin alderatuta hamahiru aldiz izen gehiago erabiltzea, ez da

gertatzen ulermenaren arloan (hiru aldiz izen gehiago aditzak baino). Gurasoen informazioaren arabera, 12tik 15 hilabete bitarteko haur bakoitzak batez beste 117 hitz ulertzen ditu, eta horietatik 72 izenak dira, 23 aditzak, 6,1 adjektiboak, 2,8 adberbioak eta 1,7 izenordainak.

Labubilduta, 8tik 15 hilabete bitarteko haurrek euren lehengo hitzak erabiltzen hasten dira aldi honetan. Haur askok 10 hitz baino gutxiago darabiltzate, eta hiru dira, 442 haurretatik, 50 hitz baino gehiago darabiltzatenak. Ia haur erdiek, 199ek hain zuzen, ez du oraindik hitzik ekoizten.

Nabarmena da, bestalde, adin-tarte honetan izenek daukaten garrantzia haurraren hiztegian, bereziki ekoizpenean. Aditzak ere badira haurren hiztegian, baina askoz ere gutxiago. Gaineko kategorien erabilera ez dela, edo izanik, oso murritza dela esan daiteke.

Amaitzeko, esan behar da adin honetako haurrek joera dutela hitzak banan-banan esateko, oraindik ez baitira hitz biko aroan sartu, ez baitute hitzak elkartzeko joera edo ahalmena, alegia.

4.2. Hamaseitik hogeita hamar hilabetera bitarteko haurren ahozko ekoizpena

Adin-tarte honetan 950 haurren datuak aztertu dira. Halere, 16tik 30 hilabetera bitarteko haurren datuak era ezberdinetan taxututa erakutsi eta aztertuko dira azpiatal honetan: lehenengo eta behin, hiztegiaren barne-eraketa aztertuko da adinaren eta entzundako euskararen kantitatearen arabera; ondoren, berriro ikertuko da hiztegiaren barne-eraketa, baina oraingoan haurrek darabilten hiztegiaren tamainaren arabera taxututa; jarraitzeko, hiztegiaren tamainaren eta hainbat elementu morfologikoren eta sintaktikoren garapenen arteko korrelazioak arakatuko dira entzundako euskararen kantitatearen arabera; eta, amaitzeko, haurren hitzik eta morfologia-marka erabilienak zeintzuk diren erakutsiko da, adinaren arabera.

4.2.1. Adinaren eta entzundako euskararen kantitatearen arabera eginiko azterketan, haurrak hiru adin-tartetan bereizita aztertu dira adinari dagokio-

nez (16tik 20 hilabetera bitartekoak, 21etik 25 hilabetera bitartekoak eta 26tik 30 hilabetera bitartekoak) eta lautan entzundakoan euskarak duen presentziaren arabera, lehenago zehaztu den legez (A -<%90-, B -%60tik %90era-, C -%40tik %60ra, D -%20tik %40ra-) (ikus bigarren taula).

2. TAULA
LAGINEKO 16TIK 30 HILABETERA BITARTEKO HAURRAK ADINAREN ETA ENTZUNDAKO EUSKARA-KANTITATEAREN ARABERA

Entzundako euskara-kantitatearen araberako haur-taldeak

Adina	*A taldea (<%90)*	*B taldea (%60-%90)*	*C taldea (%40-%60)*	*D taldea (%20-%40)*	*Guztira*
16-20 hil	162 (%68,6)	42 (%17,8)	23 (%9,7)	9 (%3,8)	236 (%100)
21-25 hil	193 (%60,5)	64 (%20,1)	42 (%13,2)	20 (%6,3)	319 (%100)
26-30 hil	234 (%59,2)	105 (%26,6)	33 (%8,4)	23 (%5,8)	395 (%100)
Guztira	589 (%62)	211 (%22,2)	98 (%10,3)	52 (%5,5)	950 (%100)

Haurrek darabilten hiztegiaren tamainari begiratzen bazaio (hirugarren taula), nabarmen ikus daiteke i) adinak aurrera egin ahala hiztegia ere hazten dela, eta ii) 21. hilabetetik aurrera euskal hiztegiaren tamaina entzundako euskara-kantitatearen arabera hazten dela. Batez besteko datu hauetan agerian geratzen da, zilegi den legez, adina eragile esanguratsua dela hiztegiaren tamainaren hazkundean. Entzundakoan euskarak duen presentziaren eragingarritasuna, ostera, soilik ikus daiteke 26. hilabetetik aurrera, zeren adin horretatik aurrerako datuetan baino ez dira aldeak esanguratsuak, analisi estatistikoak erakusten duen bezala: $F_{(3,391)}=9,77$; $p<0,001$.

3. TAULA

LAGINEKO 16TIK 30 HILABETERA BITARTEKO HAURREN HITZ-EKOIZPENA ADINAREN ETA ENTZUNDAKO EUSKARA-KANTITATEAREN ARABERA

Adinaren eta entzundako euskara-kantitatearen araberako haur-taldeak

	16-20 hilabetekoak				*21-25 hilabetekoak*				*26-30 hilabetekoak*			
	A	B	C	D	A	B	C	D	A	B	C	D
Hitzak	74	70	51	99	218	210	168	167	404	367	322	242
Izenak	%65	%64	%70	%65	%61	%62	%67	%65	%57	%58	%62	%66
Besteak	%8	%7	%7	%7	%6	%6	%6	%5	%5	%5	%5	%5
Aditzak	%12	%13	%13	%13	%16	%15	%12	%13	%16	%16	%15	%12
Adjekt.	%5	%5	%4	%7	%6	%6	%6	%6	%7	%7	%7	%7
Adberb.	%2	%2	%2	%2	%3	%3	%2	%2	%3	%3	%3	%2
Izenord.	%2	%2	%1	%2	%2	%2	%1	%1	%2	%2	%2	%1
Morfol.	%5	%5	%3	%3	%6	%6	%5	%6	%8	%8	%7	%5

Bestalde, hiztegiaren barne-eraketari begiratzen bazaio (hirugarren taula), ondoko ondorio nagusia atera daiteke: iii) hiztegiaren tamaina handituz doan heinean beraren barne-eraketa aldatuz doa; horrela, bada, hiztegiaren tamaina handituz doan neurrian izenen ehunekoa jaitsi egiten da, eta aditzen, adjektiboen eta morfologia-hitzen ehunekoak, aldiz, hazi egiten dira.

Hiztegiaren tamaina hazi ahala izenen ehunekoa gutxitu egiten dela baieztatzea ondoko emaitzetan oinarritzen da: batetik, hiztegiaren tamaina gehien hazten den haur-taldeengan nabarmen ikusten da fenomeno hau, esaterako, A eta B taldeetako haurrengan, 16tik 20 hilabetera bitartean hiztegiak 74 eta 70 hitzekoak direnean, izenen ehunekoak %65 eta %64 dira, eta gero, 26tik 30 hilabetera bitartean hiztegiak 404 eta 367 hitzekoak direnean, izenen ehunekoak %57ra eta %58ra murriztu dira; bestetik, hiztegiaren tamaina gutxiago hazten den haur-taldeetan izenen ehunekoak behera egiten du baina ez horrenbeste, esaterako, C taldean, zeinetan 51 hitzeko hiztegia izan dutenean

%70koa izan den izenen ehunekoa eta 322 hitzekoa denean euren hiztegia %62ra murriztu den izenen ehunekoa.

Bestalde, hiztegian aditzen ehunekoak gora egiten du hiztegiaren tamaina hazten den heinean, eta hori nabarmen ikusten da A, B eta C haur-taldeen adinaren araberako bilakaera ikusita. Gauza bera gertatzen da adjektiboen bilakaeran. Morfologia-hitzen hazkundean are nabarmenagoa da fenomeno hau (ikus hirugarren taula).

Badirudi, beraz, hasieran, hiztegia txikiagoa denean, haurrek darabilten izenen ehunekoa handiagoa dela, eta, ostera, hiztegia handitu ahala gainerako kategorietako hitzen ehunekoek gorantz egiten dutela, bereziki aditzenak, adjektiboenak eta morfologia-hitzenak, haurren hizkeraren gramatika-konplexutasuna ere handituz.

4.2.2. Halere, hiztegiaren barne-eraketaren aldaketa nabarmenago gertatzen da haurren datuak hiztegiaren tamainaren arabera aztertzen badira, eta horri ekingo zaio azpiatal honetan. Horretarako, 16tik 30 hilabetera bitarteko haurrak zortzi taldetan sailkatu dira, darabilten hiztegiaren tamainaren arabera (ikus laugarren taula).

4. TAULA
LAGINEKO 16TIK 30 HILABETERA BITARTEKO HAURREN BANAKETA DARABILTEN HIZTEGIAREN TAMAINAREN ETA ENTZUNDAKOAN EUSKARAK DUEN PRESENTZIAREN ARABERA
Hiztegiaren tamaina (hitz-kopurua)

Entzundako euskara	*0-50*	*51-100*	*101-200*	*201-300*	*301-400*	*401-500*	*501-600*	*601-700*	*Guztira*
A: *elebakarrak*	137 (%23,3)	46 (%7,8)	84 (%14,3)	78 (%13,2)	81 (%13,8)	87 (%14,8)	61 (%10,4)	15 (%2,5)	589 (%100)
B: *elebidunak (%60-%90)*	38 (%18)	25 (%11,8)	29 (%13,7)	25 (%11,8)	40 (%19)	24 (%11,4)	27 (%12,8)	3 (%1,4)	211 (%100)
C: *elebidunak*	22	15	22	16	11	7	4	1	98

(%40-%60)	(%22,4)	(%15,3)	(%22,4)	(%16,3)	(%11,2)	(%7,1)	(%4,1)	(%1)	(%100)
D: elebidunak (%20-%40)	7 (%13,5)	12 (%23,1)	11 (%21,2)	10 (%19,2)	7 (%13,5)	4 (%7,7)	1 (%1,9)	-	52 (%100)
Guztira	204 (%21,5)	98 (%10,3)	146 (%15,4)	129 (%13,6)	139 (%14,6)	122 (%12,8)	93 (%9,8)	19 (%2,0)	950 (%100)

Hiztegiaren tamainaren araberako datuek argi erakusten dute hiztegiaren barne-eraketaren garabidea: hiztegia hazi ahala izenen ehunekoak egiten duen beherakada eta aditzen, adjektiboen eta morfologia-hitzen ehunekoek egiten duten goranzko bidea (ikus bosgarren taula).

5. TAULA
LAGINEKO 16TIK 30 HILABETERA BITARTEKO HAURREN
HIZTEGIAREN BARNE-ERAKETA HIZTEGIAREN TAMAINAREN ARABERA

	Hitzak	*Izenak*	*Aditzak*	*Adjekt.*	*Adberbioak*	*Izenordainak*	*Morfologia*
0-50	22	%71	%7	%1	%1	%2,2	%0,8
51-100	74	%67	%10	%4	%2,1	%1,8	%1,7
101-200	149	%66	%13	%5	%1,8	%0,7	%2,6
201-300	249	%63	%14	%6	%2,2	%0,8	%3,5
301-400	347	%60	%15	%6	%2,5	%1,4	%4,3
401-500	449	%58	%16	%7	%3,0	%1,5	%4,7
501-600	551	%56	%16	%7	%3,4	%1,9	%5,7
601-700	640	%55	%15	%8	%3,7	%2,3	%6,1

Haurrek hitz gutxi darabiltzatenean, hiztegiaren tamaina 50 hitzetik beherakoa denean, nabaria da, batez besteko datuetan, izentzat jo daitezkeen hitzak direla gehienak, %71 hain zuzen. Ondoren, hiztegiaren tamaina handitu

ahala, izenen ehunekoa etengabe jaisten da hiztegiaren barne-eraketan, neurtutako azken tamainan %55 izanik. Kontuan izan ehunekoez ari dela azterketa egiten, zeren zenbaki absolutuetan ikaragarri hasten da izenen kopurua hiztegiaren tamaina hasten den heinean.

Gainerako hitz-kategoriek, hiztegiaren tamaina hasi ahala, eurek ere irabazi egiten dutela esan daiteke, beti ehunekoetan, noski. Aditzen gorakada nabarmena da, bikoiztu egiten baita beraren ehunekoa hiztegiaren tamainan. Halere, azkeneko neurketan, zertxobait jaitsi egin dela dirudien arren, baliteke jaitsiera hori haurrek galdetegiaren arabera sabaia jo dutelako izatea, une honetan batez besteko datuetan 101 aditz ekoizten baitituzte talde honetakoek galdetegian 105 aditzi buruz itauntzen denean.

Adjektiboek eta adberbioek gora egiten dute apurka-apurka. Hainbaten nabariagoa da adjektiboak goizago handitzen direla (hots, hiztegi txikiagoarekin), adberbioak baino, zeintzuk ikerketa honetan aztertu den aldiaren azkenerantz lortzen baitute haztea.

Beluen hazten den hitz-kategoria (beti hiztegiaren tamainaren arabera), duda barik, morfologia-hitzena da. Gogoan izan, esaterako, 300 hitzeko hiztegia dutenek, gutxi gorabehera, 600 hitzeko hiztegia dutenen ehunekoaren erdia dutela morfologia-hitzetan; kopuru absolutuetan laurdena, beraz.

4.2.3. Hiztegiaren eta gramatikaren garapenen arteko erlazioa aztertzeko 16tik 30 hilabetera bitarteko haurren ondoko emaitzak korrelazionatu dira: batetik, haurrek darabilten lexikoa edo hiztegiaren tamaina; bestetik, atzizkiak, adizkiak eta haurrek ekoitzitako hiru esaldi luzeenetan darabiltzaten morfemen arabera lortutako indize berezia, *esaldi luzeena*ren indize-neurria (EL), alegia.

Hiztegiaren tamainan haur bakoitzak ekoizten dituzten hitzak zenbatu dira. Atzizkien artean izen-sintagmei eransten zaizkien morfologia-marken erabilera zenbatu da, hala nola, pluralaren *–k* marka, ergatiboaren *–k* marka, datiboaren *–i* marka, genitiboaren *–en* marka, toki-genitiboaren *–ko* marka eta inesi-

boaren, adlatiboaren, soziatiboren eta beste zenbait postposizioen markak (guztira, 16 marka). Adizkien artean adin hauetako haur txikiek erabiltzen dituzten 36 adizkien erabilera neurtu da (*naiz, zara, da, gara, zarete, dira, nintzen, zen, nago, dago, goazen, zait, zaizu, zaio, dut, duzu, du, ditut, dituzu, ditu, daukat, dauka, dauzkat, dauzka, dakit, daki, diot, dizut, dizkiot, dizkizut, nion, nizun). Esaldi luzeena*ren indizearen arabera haurren garapen sintaktikoa neurtzen da, esaldietan erabiltzen duten morfema-kopurua islatuz eta batez bestekoa eginez hiru esaldien artean.

Emaitzek (seigarren taula) nabarmen uzten dute hiztegiaren tamaina korrelazionatuta dagoela morfologiaren zein sintaxiaren garapenarekin, gutxienez hemen neurtutako elementu morfologikoen garapenekin eta *esaldi luzeena*ren indizearekin (EL). Egindako korrelazio guztiak esanguratsuak gertatu dira, edozein dela ere haur-taldea entzundako euskararen arabera: A, B, C zein D.

6. TAULA
LEXIKOAREN ETA GRAMATIKAREN ARTEKO KORRELAZIOAK
16TIK 30 HILABETERA BITARTEKO HAURRENGAN,
EUSKARAK UMEEN EGUNEROKOAN DUEN PRESENTZIAREN ARABERA

		N	Atzizkiak	Adizkiak	EL
Lexikoaren	A: euskaldun elebakarrak	589	,869*	,801*	,709*
ekoizpena	B: euskara maila handian entzun duten elebidunak	211	,846*	,793*	,654*
	C: euskara maila ertainean entzun duten elebidunak	98	,807*	,744*	,680*
	D: euskara maila txikian entzun duten elebidunak	52	,673*	,718*	,316*

* Korrelazioa esanguratsua gertatu da ($p<0,01$).

4.2.4. Azpiatal honetan hitzik eta morfologia-markarik erabilienak zeintzuk diren erakutsiko da, baina datuak hiru adin-taldetan (16-20, 21-25, 26-30) antolatuta. Azpi-atal honen asmoa zera da, haurrek erabiltzen dituen hitzak zein diren zehatz erakustea.

Zazpigarren, zortzigarren eta bederatzigarren tauletan, beraz, ezkerreko zutabean hitzak kategoriaka sailkatzen dira (onomatopeiak, izenak, izen bereziak, hitz bereziak, aditzak, adjektiboak, adberbioak, izenordainak, funtzio-hitzak, izen-sintagmaren markak, aditz-sintagmaren markak, adizkiak eta koordinagailuak) eta adin-tarte jakin horretan erabilienak idatzi dira. Berezi diren hitz-kategoriak orain arteko baino zehatzago agertzea (esaterako, *izen bereziak* eta *onomatopeiak* bereiztea) argitasuna ematearen alde egin da. Datuok hiru tauletan bereizi dira adinaren arabera: zazpigarrenean 16tik 20 hilabetera bitarteko haurrenak, zortzigarrenean 21etik 25 hilabetera bitartekoenak eta bederatzigarrenean 26tik 30 hilabetera bitartekoenak.

7. TAULA
LAGINEKO 16TIK 20 HILABETERA BITARTEKO HAURREN HITZ ETA MORFOLOGIA-MARKA ERABILIENAK (EHUNEKOAK)

Onomatopeiak	guau-guau (86), muu (78), brun-brun (70), kua-kua (55)
Izenak	ura (68), ogia, zapatak (46), txupetea (46), gaileta (45), jogurra, patata, pilota, txakurra (40), argia (39), hartza, ahatea (35), ahoa (34), begia (32), behia (30)
Izen bereziak	aita, ama (93), amama (67), aitita (59), umea (39), izeba (30)
Hitz bereziak	agur (61), ez (60), kaka (49), bai (46), txiza (30)
Aditzak	eman (42), bota (35), lo egin (30), apurtu (28), jo (26), hartu (25)
Adjektiboak	beroa (22), handia (16), bustia, txikia (14), zikina (12)
Adberbioak	hemen (38), ondo (20), gero (4)

Izenordainak	hau (32), ni (24), nirea (15), zu (8)
Funtzio-hitzak	gehiago (17), asko (16), bat (10), beste bat (8), bestea, dena (7), gutxi (5)
Izen-sintagmaren markak	-ra (11), -an, -k, -en, -ena (10), -i, -k pl. (6), -ekin (5), -entzat, -z (4), -ko (2)
Aditz-markak	-ta (12), -tzen (3), -ko (2)
Adizkiak	goazen (10), da (6), dago (5)
Koordinagailuak	eta (4)

8. TAULA
LAGINEKO 21TIK 25 HILABETERA BITARTEKO HAURREN HITZ ETA MORFOLOGIA-MARKA ERABILIENAK (EHUNEKOAK)

Onomatopeiak	guau-guau (96), muu (91), miau (86), bee (79), kua-kua (77)
Izenak	ura (89), ogia (83), txakurra (81), begia (80), ahoa (79), zapatak, gaileta, patata (78), argia, arraina, jogurra (77), eskua, txupetea (75), pilota, hartza, kotxea (74), behia, katua (73), burua, sudurra (72), belarria (70), etxea, txoria (68), atea (67), euria (66), ardia, giltza, trena (65), zaldia (64), biberoia, haragia (63), ahatea, ilea, esnea (62), botak, ipuina, ipurdia (61), astoa, lorea, sagarra (60)
Izen bereziak	aita, ama (97), amama (89), aitita (86), umea (68), zaintzailearen izena (65), izeba (64)
Hitz bereziak	agur (92), ez (89), bai (88), kaka (76), txiza (65)
Aditzak	bota (77), eman (71), apurtu (66), etorri, lo egin (64), jan (61), hartu (60), jo, saltatu (57)
Adjektiboak	beroa (61), handia (58), bustia (56), txikia (53), zikina (48)
Adberbioak	hemen (81), ondo (58), gero (31)
Izenordainak	hau (66), ni (63), nirea (48), zu (32)
Funtzio-hitzak	asko (55), gehiago (52), bat (37), beste bat (36), bestea (30), gutxi (29), dena (24)

Izen-sintagmaren markak	-an (49), -ra (45), -en (38), -i, -ena (37), -k (32), -ekin (30), -k pl. (24), -entzat (21), -z (20), -ko (11)
Aditz-markak	-ta (41), -tzen (21), -ko (10)
Adizkiak	goazen (51), da (30), dago (28), dut (25), nago (22), dakit (16), naiz (15), du (14)
Koordinagailuak	eta (24)

9. TAULA
LAGINEKO 26TIK 30 HILABETERA BITARTEKO HAURREN HITZ ETA MORFOLOGIA-MARKA ERABILIENAK (EHUNEKOAK)

Onomatopeiak	guau-guau, muu (96), miau (95), bee (89), kua-kua (86)
Izenak	ura (97), begia, ogia (95), txakurra, ahoa, kotxea (94), eskua, katua, patata (93), atea, burua, jogurra (92), baloia, etxea, gaileta, sudurra (91), botak, argia, behia, trena, zapatak (90), arraina, belarria, eskola/ikastola, ilea, txoria (89), esnea, globoa, ipuina, pilota (88), euria, zaldia (87), giltza, ipurdia, tortila (86), aulkia, ohea, pijama, purea, sagarra, txokolatea (85), astoa, biberoia, eguzkia, haragia, lorea (84), arroza, karameloa, platanoa, mendia (83), galtzerdiak, hanka, margoak (82), adurzapia, ahatea, ardia, kamioia, painala, papera, prakak, tripa, zapatilak (81), bizikleta, makarroiak, telefonoa, titia, txerria (80)
Izen bereziak	aita, ama (99), amama (98), aitita (95), umea, zaintzailearen izena (85), gizona, izeba, pailasoa (80)
Hitz bereziak	agur, bai, ez (97), kaka (91), txiza (86)
Aditzak	bota (94), etorri (87), jan (86), eman (85), apurtu (84), hartu, jo, lo egin (83), abestu, itxi, kendu (81), jausi, eseri, ikusi, saltatu (80)
Adjektiboak	handia (89), beroa (86), bustia (829, txikia (81), zikina (77)
Adberbioak	hemen (91), ondo (83), gero (70)
Izenordainak	ni (88), hau (82), nirea (80), zu (67)

Funtzio-hitzak	asko (86, gehiago (80), beste bat (69), bat (66), gutxi, dena (64), bestea (52), gutxi (29)
Izen-sintagmaren markak	-an (84), -ra (77), -i (72), -k (63), -ekin, -ena (62), -k pl., -en, -z (54), -entzat (50), -ko (40)
Aditz-markak	-ta (69), -tzen (55), -ko (45)
Adizkiak	goazen (78), da (67), dut (66), nago (62), dago (58), dakit, naiz (52), du (46), duzu (41), daukat (40), zait (34), zara (31), daki, diot, zaio (21), dauka (25), zaizu (21), dira (20), gara (18), dizut (14)
Koordinagailuak	eta (63)

Adinaren arabera antolatutako datuotan nabarmen ikus daiteke 16tik 20 hilabete bitarteko haurrek, behintzat hemen aztertutako 236 haurrek, kategoria lexikoetako hitzak garatzen dituztela, bereziki izenak eta aditzak. Izen berezien artean, esaterako, *aita* eta *ama*, haurren %93k darabiltza, eta izen arrunten artean *ura* da hitzik erabiliena, %68k baitarabil. Aditzen artean, *eman* haurren %43k darabil. Morfologia-markak, ostera, oso haur gutxik erabiltzen dituzte adin-tarte honetan, eta erabilienak izen-sintagmei eransten zaizkienetakoak dira: *–ra* (%11k), *-an* (%10ek), *-k* ergatiboa (%10ek) eta *–en / -ena* (%10ek); aditzei eransten zaien *–ta* marka (%12k) ahantzi gabe[4].

Bigarren adin-tartean, 20tik 25 hilabetera bitartean, kategoria lexikoetako hitzen nagusitasuna nabaria da aztertutako 319 haurren artean: zenbait izen arrunt haurren %80k darabil, hara nola, *ura*, *ogia*, *txakurra* eta *begia*; *bota* eta *eman* aditzak haurren %70ek; *beroa* eta *handia* adjektiboak haurren %60k. Morfologia-marken erabilera, ostera, apalagoa da. Horien artean izen-sintagmei erantsen zaizkien hainbat marka dira erabilienak, %30aren erabilera ondokoak gainditzen dutela: *-an* (%49k), *-ra* (%45ek), *-en* (%38k), *-i* (%37k), *-ena* (%37k), *-k* ergatiboa (%32k) eta *–ekin* (%30ek). Aditz-sintagmaren inguruko

[4] *Goazen* adizkiarena kontu berezia dela dirudi, haurrek formula bezala ikasi dutela esan daiteke eta. Horregatik ez da sartu laburbilketa honetan.

bik baino ez dute gainditzen erabilera hori: *-ta* (%41ek) eta *da* adizkia (%30ek). Bestalde, azpimarragarria da adizkien artean adin-tarte honetan singularreko lehen eta hirugarren gramatika-pertsonei dagozkien adizkiak direla nagusi (*da*, *dago*, *dut*, *nago*, *dakit*, *naiz*, *du*), eta bigarren gramatika-pertsonari dagozkion adizkietako batek ere ez duela horien maiztasuna lortzen.

Azken adin-tartean, 26tik 30 hilabetera bitartean, aztertutako 395 haurren %90ek gutxienez *ura*, *begia*, *ogia*, *txakurra*, *ahoa*, *kotxea*, *eskua*, *katua*, *patata*, *atea*, *burua*, *jogurra*, *baloia*, *etxea*, *gaileta*, *sudurra*, *botak*, *argia*, *behia*, *trena*, eta *zapatak* izen arruntak, *aita*, *ama*, *amama* eta *aitita* izen bereziak, *bota* aditza, *hemen* adberbioa, eta *bai*, *ez*, *agur* eta *kaka* hitzak darabiltza. Morfologia-marken erabilera ere asko zabaldu da haurren artean adin-tarte honetan, baina oraindik ere apalagoa da hauen erabileraren ehunekoa. Haurren erdiek, esaterako, gutxienez izen-sintagmei eransten zaizkien 10 marka darabiltzate (*-an*, *-ra*, *-i*, *-k* ergatiboa, *-ekin*, *-ena*, *-k* plurala, *-en*, *-z*, *-entzat*), nolabaiteko aditz-aspektua adierazten duten bi (*-ta*, *-tzen*) -aspektu burutua adierazten duena ahaztu barik (zero markatzat har daitekeena)- eta 6 adizki (*da*, *dut*, *nago*, *dago*, *dakit*, *naiz*).

Adizkien arloan azpimarragarria da gertatzen den hurrenkera maiztasunaren arabera 26tik 30 hilabetera bitartean: 1. orainaldiko lehen eta hirugarren gramatika-pertsonei dagozkien adizki iragangaitzak eta iragankorrak (*da* %67k, *dut* %66k, *nago* %62k, *dago* %58k, *du* %46k); 2. orainaldiko bigarren gramatika-pertsonari dagozkion adizki iragangaitzak zein iragankorrak (*duzu* %41ek; *zara* %30ek); 3. orainaldiko zehar-osagarriren bat adierazten duten adizkiak (*zait* %34k, *diot* %21ek, *zaio* %21ek, *zaizu* %21ek, *dizut* %14k); 4. orainaldiko pluraleko adizkiak (*dira* %20, *gara* %18, *zarete* %5ek); 5. pluraleko osagarri zuzena adierazten duten adizkiak (*ditut* %9k, *ditu* %9k, *dituzu* %6k, *dizkiot* %2k) eta iraganekoak (*zen* %9k, *nuen* %6k, *nintzen* %5ek, *zuen* %4k, *nion* %4k, *nituen* %1ek). Azpimarratzekoa da hurrenkera bera ikusi dela luzerako ikerketa egin den haurren garapenean ere (Barreña 1995, Ezeizabarrena 1996).

5. Ondorioak eta geroko ikerlerroak

Erakutsitako emaitzetan ikusten den legez, nabarmena da haurraren hiztegiaren barne-egituran aldaketa gertatzen dela hiztegiaren tamaina hazi ahala. Adina ez bada beti oso gardena fenomeno hau ikusteko, hiztegiaren barne-egitura hiztegiaren tamainaren arabera aztertuta argi ikus daiteke hiztegia hazi ahala bere barne-egitura aberastu eta aldatu egiten dela, hemen aztertutako adin-tartean bederen.

Hasiera-hasieran, hitzak ekoizten hasten denean haurrak batez ere izenak erabiltzeko joera du. Une horretan aditz, adjektibo, adberbio eta morfologia-hitz gutxi darabiltza haurrak. Baina, laster hasiko da haurra hitz-kategoria guztietakoak erabiltzen. Beharbada, zehaztu beharko da izenen ehunekoa beti izango dela handiena haurraren hiztegian, baina azpimarratu behar da kategoriak era mailakatuan hasten direla agertzen bere hiztegian: lehenengo izenak, ondoren aditzak, adjetktiboak eta adberbioak, eta azkenik morfologia-hitzak.

Izenen erabileraren bidez bizidunak eta bizigabeak hitzen bidez ezagut daitezkeela ikasi du haurrak, eta hortik abiatuta bere inguruaz jabetzeko ahaleginetan pertsona, bizidun eta bizigabeei dagozkien hitzak ikasteari ekiten dio.

Garrantzia berezia dauka aditzen erabilerak, jakina baita aditzen esanahiaz jabetzeko haurrak beharrezkoa duela nolabaiteko egitura sintaktikoren bat erabiltzea edo prozesatzea. Ildo horretatik, azpimagarria da 26 hilabetetik 30 hilabetera bitarteko haurren %80k, edo gehiagok, gutxienez 15 aditz ekoizten dituela (ikus bederatzigarren taula), eta aditz hauen artean, erabilienak direnak adin-tarte horretan, badira argumentu bakarrekoak (*etorri, jausi, eseri*), bi argumentukoak (*bota, hartu, jo, ikusi*) zein hiru argumentukoak (*eman, kendu*). Aditzen ekoiztearen hasieran, beharbada ez ditu argumentu horiek esaldian ekoitziko edo ez die izenei euskararen gramatikak ezartzen dizkien marka bereziak erantsiko, zein funtzio betetzen duten adierazteko, baina berehala ikasiko du hori egoki egiten, eta izenei dagozkien markez gain, komunztadura egokia islatzen duten adizkiak ere erabiltzen hasiko da.

Adjektiboen eta adberbioen bidez zehaztasuna irabaziko du haurrak adierazi nahi duenaren inguruan.

Morfologia-hitzak, multzo legez hartuta, azkenak dira agertzen. Hamasei hilabete izan baino lehen oso haur gutxik erabiltzen dituzte. Kontuan izan behar da 16 hilabetetik 20 hilabetera bitarteko haurren artean morfologia-hitzik erabilienak haurren %15ek ere ez darabiltzatela (ikus zazpigarren taula): *-ta* (%12k), *-ra* (%11k), *-ren*, *-rena*, *-an*, *-k*, (%10ek), eta abar. Halere, hurrengo zortzi hilabeteetan asko garatuko dira haurrengan eta 25etik 30 hilabetera bitarteko aldian haurren %60tik gora darabiltzate halako batzuk, gutxienez (ikus bederatzigarren taula). Gogoan izan behar da, gainera, morfologia-hitzak gramatikaren hezurdura osatzen dutela, eta gramatikak ahalbidetzen duela, hiztegi mugatuaren jabe izanik, ekoizpen mugagabea izatea hitz egitean.

Bestalde, gramatikaren eta hiztegiaren arteko erlazioak era nabarmenean ikusi ahal izan dira bildutako emaitzei esker (ikus seigarren taula). Edozein dela haurrek entzundako euskararen kantitatea, korrelaziook beti gertatu dira esanguratsu eginiko analisi estatistikoen arabera; horrela, esan daiteke lexikoaren ekoizpenak erlazio zuzena duela garapen morfologiko-sintaktikoarekin, hau da, ekoizpen lexikoa handitu ahala ekoizpen morfologikoa eta sintaktikoa ere handitzen direla.

Amaitzeko, aurreikusi den hirugarren helburuaren ildotik, elebakarrak eta elebidunak era bertsuan garatzen ote duten euskara, zera esan daiteke: 1. hiztegiaren tamaina hazi ahala hiztegiaren barne-eraketa era bertsuan eta zentzu bertsuan aldatzen da haur-talde guztietan (ikus hirugarren taula) 2. haur-talde guztietan aurkitu dira korrelazioak hiztegiaren tamainaren eta atzizkien, adizkien eta esaldi luzeeraren garapenaren artean (ikus seigarren taula); 3. badira aldeak euskaraz gehiago (elebakarrak eta euskara maila handian entzun duten elebidunak, A eta B taldeak alegia) eta gutxiago (euskara maila ertainean zein maila txikian entzun duten elebidunak, C eta D taldeak alegia) entzuten duten haurren artean, batez besteko datuetan behintzat; badirudi lehenek bizkorrago garatzen dituztela hiztegia zein gramatika, aztertutako adin-tartean behintzat (ikus hirugaren taula).

Etorkizunari begira, argi dago, bi zentzutan gutxienez, ikertzen jarraitu beharko litzatekeela. Batetik, 30 hilabetetik aurrera gertatzen dena ikertu beharko litzateke: nola garatzen dute euskara? Zer gertatzen da hemendik aurrera euskara garatzeko aurkitutako erritmo diferentziarekin? Bestetik, elebidunen bi hizkuntzetan ikertu beharko litzateke: nola garatzen dute beste hizkuntza elebidunek? Hirugarrenik, zailtasun fisiko zein psikikoak dituzten haur euskaldunak hizkuntza nola garatzen duten ere jorratzeko arloa da.

Bibliografia

ALMGREN, M. 2000, *La adquisición del tiempo y aspecto verbal en euskara y castellano*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Doktorego Tesia.

ALMGREN, M., Ezeizabarrena, M.J. eta Barreña, A. 2008, «Considering language typology one more feature in momolingual and bilingual development», in *The Second European Network Meeting on Communicative Development Inventories* biltzarrean aurkeztutako komunikazioa, University of Zagreb, Dubrovnik.

ARRATIBEL, N., BARREÑA, A., PÉREZ-PEREIRA, M. eta FERNÁNDEZ, P. 2005, «Comparaciones interlingüísticas euskara-gallego del desarrollo léxico y gramatical infantil», in M.A. Mayor, B. Zubiauz eta E. Díez, arg., *Estudios sobre la adquisición del lenguaje*, Aquilafuente - Ediciones Universidad de Salamanca, Salamanca, 983-996.

BARREÑA, A. 1995, *Gramatikaren jabekuntza-garapena eta haur euskaldunak*, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.

BARREÑA, A. eta SERRAT, E. 2007, «Relaciones entre los desarrollos léxico y gramatical de la fase inicial de la adquisición del lenguaje (16-30 meses): una comparación interlingüística», in *V Congreso Internacional de Adquisición de Lenguaje* biltzarrean eginiko simposioa. Ovieu.

BARREÑA, A. 2001, «Grammar Differentiation in Early Bilingual Acquisition: Subordination Structures in Spanish and Basque», in M. Almgren, A. Barreña, M.J. Ezeizabarrena, I. Idiazabal eta B. McWhinney, arg., *Research on child language acquisition*, Cascadilla Press, Somerville, 78-94.

BARREÑA, A., García, I. eta Ezeizabarrena, M. 2008, «Influence of the linguistic environment on the development of the lexicon and grammar of Basque bilingual children», in C. Pérez-Vidal, M. Juan-Garau eta A. Bel, arg., *A portrait of the young in the new multilingual Spain. Issues in the acquisition of two or more languages in multilingual environments*, Multilingual Matters, Londres, 146-169.

BARREÑA, A., GARCÍA, I., ALMGREN, M. eta ARRATIBEL, N. 2006, «Lexikoaren eta gramatikaren garapenen arteko erlazioaz», *Gogoa*, VI-I (2006) 55-76.

BARREÑA, A., GARCÍA, I., EZEIZABARRENA, M., ALMGREN, M., ARRATIBEL, N., OLANO, I., BARNES, J., PETUYA, A. eta COLINA, A. 2008, *MacArthur-Bates komunikazio garapena neurtzeko zerrenda. Euskarara egokitua. Erabiltzaileentzako gida eta eskuliburu teknikoa*, UEU, Bilbo.

BASSANO, D. 2000, «Early development of nouns and verbs in French: Exploring the interface between lexicon and grammar», *Journal of Child Language*, 27 (2000) 521-559.

BATES, E. eta GOODMAN, J. C. 1997, «On the inseparability of grammar and the lexicon: Evidence from acquisition, aphasia and real-time processing», *Language and Cognitive Processes*, 12 (1997) 507-586.

BATES, E., BRETHERTON, I. eta SNYDER, L. 1988, *From first words to grammar: Individual differences and dissociable mechanisms*, Cambridge University Press, New York.

BATES, E., MARCHMAN, V., THAL, D., FENSON, L., DALE, P., REZNICK, J. S., REILLY, J. eta HARTUNG, J. 1994, «Developmental and stilistic variation in the composition of early vocabulary», *Journal Child Language*, 21 (1994) 85-123.

BEL, A. 2001, *Teoria lingüística i adquisició del llenguatge. Anàlisi comparada dels trest morfològics en Català i en Castellà*, Institut d'Estudis Catalans. Biblioteca Filològica, XLIV, Bartzelona.

BOSCH, L. eta SEBASTIÁN-GALLÉS, N. 2001a, «Evidence of early language discrimination abilities in infants form bilingual environments», *Infancy*, 2 (2001) 29-49.

BOSCH, L. eta SEBASTIÁN-GALLÉS, N. 2001b, «Early Language Discrimination Capacities in Infants from Bilingual Environments», in M. Almgren, A. Barreña, M.J. Ezeizabarrena, I. Idiazabal eta B. McWhinney, arg., *Research on child language acquisition,* Cascadilla Press, Somerville, 78-94.

BROWN, R. W. 1958, *Words and Things: An Introduction to Language,* Free Press, Glencoe, Illinois.

BROWN, R. 1973, *A first language. The early stages,* George Allen & Unwin Ltd, Londres.

CASSELLI, M. C., Casadio, P. eta Bates, E. 1997, «A comparison of the transition from first words to grammar in English and Italian», *Journal of Child Language*, 26 (1997) 69-111.

DE HOUWER, A. 1991, *The Acquisition of Two Languages from Birth: a Case Study*, Cambridge University Press, Cambridge.

DE HOUWER, A., BORNSTEIN, M. eta DE COSTER, S. 2006, «Early understanding of two words for the same thing: A CDI study of lexical comprehension in infant bilinguals», *International Journal of Bilingualism,* 10-3 (2006) 331-347.

DE HOUWER, A. 1995, «Bilingual Language Acquisition», in P. Fletcher eta B. McWhinney, arg., *The Handbook of Child Language*, Blackwell, Cambridge MA, 219-250.

DECASPER, A. J., Lecanuet, J. P., Busnel, M. C., Granier-Deferre, C. eta Maugeais, R. 1994, «Fetal reactions to recurrent maternal speech», *Infant Behaviour and Development*, 17 (1994) 159-164.

DEUCHAR, M. eta QUAY, S. 2000, *Bilingual Acquisition: Theoretical Implications of a Case Study*, OUP, Oxford.

DEVESCOVI, A., CASELLI, M.C., MARCHIONE, D., PASQUALETTI, P., REILLY., J. eta BATES, Elisabeth 2005, «A crosslinguistic study of the relationship between grammar and lexical development»", *Journal of Child Language,* 32 (2005) 759-786.

ELMAN, J. L. 1993, «Learning and development in neural networks: The importance of starting small», *Cognition*, 48-1 (1993) 71-99.

ELOSEGI, K. 1998, *Kasu eta preposizioen jabekuntza-garapena haur elebidun batengan*, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.

EZEIZABARRENA, M. J. 1996, *Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niños bilingües*, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.

FENSON, L., Dale, P. S., Reznick, J. S., Thal, D., Bates, E., Hartung, J. P., Pethick, S. eta Reilly, J. S. 1993, *Communicative Development Inventories. User's Guide and Technical Manual*, Singular Publishing Group, INC, San Diego.

GALLEGO, C. eta LÓPEZ-ORNAT, S. 2005, «El desarrollo del vocabulario temprano. Su evaluación con el iLC», in M.A. Mayor Cinca, B. Zubiauz de Pedro eta E. Díez-Villoria, arg., *Estudios sobre la adquisición del lenguaje*, Aquilafuente - Eds. Universidad de Salamanca, Salamanca, 909-928.

GARCIA, I., ARRATIBEL, N., BARREÑA, A. eta EZEIZABARRENA. 2008, «Adaptación de los inventarios MacArthur-Bates al euskara: desarrollo comunicativo entre los 8 y 30 meses», *Infancia y Aprendizaje*, 31-4 (2008) 411-424.

GENESEE, F. 2001, «Bilingual first language acquisition: Exploring the limits of the language faculty», *Annual Review of Applied Linguistics*, 21 (2001) 153-168.

GLEITMAN, L. eta NEWPORT, E. 1995, «The invention of language by children: environmental and biological influences on the acquisition of language», in L. Gleitman eta M. Liberman, arg., *Language: An Invitation to Cognitive Science*, Vol 1 (bigarren edizioa), 124.

GUASTI, M. T. 2002, *Language acquisition. The growth of grammar*, The MIT Press, Cambridge, Massachusetts.

IDIAZABAL I., 1991, «Haur txikien hizkuntz heldutasuna neurtzeko baliapide bat: esaldien batez besteko luzera (EBBL) edo "MLU"'», in J. A. Lakarra, arg., *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Gipuzkoako Foru Aldundia - ASJU Gehigarria, 1289-1295.

JACKSON-MALDONADO, D., THAL, D., FENSON, L., MARCHMAN, V. A., NEUTON, T. eta CONBOY, B. 2003, *MacArthur inventarios del desarrollo de habilidades comunicativas. User's Guide And Technical Manual*, Paul H. Brookes, Baltimore.

LOCKE, J. L. 1983, *Phonological Acquisition and Change*, Academic Press, New York.

LÓPEZ ORNAT, S., GALLEGO, C., GALLO, P., KAROUSOU, A., MARISCAL, S. eta MARTÍNEZ, M. 2005, *Inventario de Desarrollo Comunicativo MacArthur. Manual de la adaptación española*, TEA Ediciones, Madril.

MARCHMAN, V. eta BATES, E. 1994, «Continuity in lexical and morphological development: a test of the critical mass hypothesis»", *Journal of Child Language*, 21 (1994) 339-366.

MEHLER, J., JUSCZYK, P., LAMBERTZ, G., HALSTED, N., BERTONCINI, J. eta AMIEL-TISON, C. 1988, «A precursor of language acquisition in young infants», *Cognition*, 29 (1988) 143-178.

MEISEL, J. M. 2004, «The bilingual child», in T.K. Bhatia eta W.C. Ritchie, arg., *The handbook of bilingualism*, Blackwell, Oxford, 91-113.

MEISEL, J. M. 2007, «Age of Onset in Successive Acquisition of Bilingualism: Effects on Gramatical Development», *Arbeiten zur Mehrsprachigkeit – Working Papers in Multilingualism*, 80 (2007) 3-31.

PEARSON, B. Z., Fernández, S. C. eta Oller D. K. 1995, «Lexical Development in Bilingual Infants and Toddlers: Comparison to Monolingual Norms», in B. Harley, arg., *Lexical issues in Language Learning*, Ann Arbor, Benjamins, 31-57.

PEARSON, B. Z., Fernández, S. C, Lewedeg, V. eta Oller D. K. 1997, «The relation of input factors to lexical learning by bilingual infants», *Applied Psycholinguistics*, 18 (1997) 41-58.

PÉREZ PEREIRA, M. eta GARCÍA SOTO, X. R. 2003, «El diagnóstico del desarrollo comunicativo en la primera infancia: adaptación de las escalas MacArthur al gallego», *Psicothema*, 15-3 (2003) 352-361.

PÉREZ PEREIRA, M., ALMGREN, M., RESCHES, M., EZEIZABARRENA, M. J., DÍAZ, C. eta GARCÍA, I. 2006, «Cross-linguistic comparisons between Basque and Galician», *Dubrovnic Meeting on the Adaptations of the MacArthur-Bates Test* biltzarrean aurkeztutakoa.

PÉREZ-PEREIRA, M. 2008, «Early Galician/Spanish Bilingualism: Contrasts with Monolingualism», in C. Pérez-Vidal, M. Juan-Garau eta A. Bel, arg., *A portrait of the young in the new multilingual Spain. Issues in the acquisition of two or more languages in multilingual environments*, Multilingual Matters, Londres, 39-62.

SERRA, M., SERRAT, E., SOLÉ, M. R., APARICI, M. eta BEL, A. 2000, *La adquisición del lenguaje*, Ariel, Bartzelona.

SERRA, M. eta SANZ-TORRENT, M. 2004, «"Las 400 palabras": datos para una perspectiva constructivista de la interfaz léxico-sintáctica», *Anuario de Psicología*, 32-2 (2004) 235-255.

SERRAT, E., SANZ-TORRENT, M. eta BEL, A. 2004, «Aprendizaje léxico y desarrollo de la gramática», *Anuario de Psicología*, 35-2 (2004) 221-234.

SERRAT, E., SANZ-TORRENT, M., BADIA, I., AGUILAR, E., OLMO, R., LARA, F., LLORENÇ, A. eta SERRA, M. (agertzeko), «La relación entre el aprendizaje léxico y el desarrollo gramatical», *Infancia y Aprendizaje*.

WERKER, J.F. 1995, «Age-related changes in cross-language speech perception: Standing at the crossroads», in W. Strange, arg., *Speech Perception and Linguistic Experience*, York Press, Baltimore.

ZUBIRI, J. J. 1995, «Euskarazko haur-hizkeraren berezitasunak», *Huarte de San Juán*, 1 (1995) 175-203.

ZUBIRI, J. J. 1997, *Izen sintagmaren determinazioa eta kasuen jabekuntza eta garapena hiru urte arte. Goizuetako bi haur euskaldun elebakarren jarraipena*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Doktorego Tesia.

Euskara H2 goiztiarraren ezaugarrien bila: adizkiak eta gramatika-kasuak haurren ipuin-kontaketetan[1]

EZEIZABARRENA, Marijose
Euskal Herriko Unibertsitatea

MANTEROLA, Ibon
Euskal Herriko Unibertsitatea

BELOKI, Leire
Euskal Herriko Unibertsitatea

Sarrera data: 2009-11-20
Onartze data: 2009-11-26

[1] Eskerrak eman nahi dizkiegu Lizarrako Ikastolako, eta Zumaiako Maria eta Jose Ikastetxeko haur, irakasle eta gurasoei beren laguntza eta prestutasunarengatik, eta baita Irati Mujika, Karmele Pérez, Eneritz Garro eta HIJE-ELEBILAB ikertaldeko gainerako kideei ere. Ikerketa hau erakunde hauen diru-laguntzarekin egin da: EHU (IT-262-07 proiektua), Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa (HUM2006-11862-C03-01-FILO proiektua), Espainiako Zientzia eta Teknologia Ministerioa (CSD2007-00012 proiektua) eta Zientzia eta Berrikuntza (FFI2009-13956-C02-01).

Ikerlan honetan bi haur-talde elebidunen, alegia, euskara lehen hizkuntza (H1) edota euskara bigarren hizkuntza goiztiardunen (H2g) ipuinetan agertzen diren adizkietako pertsona eta numero komunztadura-markak aztertu dira, eta baita aditzaren subjektu (S), objektu zuzena (OZ) eta zehar objektu (ZO) argumentuak diren izen-sintagmetako gramatika-kasuak ere, bi helburu zehatzekin: a) ea bost urteko bi haur-taldeak helduaren eredura modu berean hurbiltzen diren ikustea; eta b) H2g taldean sei hilabeteko tartean bildutako bi laginetan, bost urte eta bost urte eta erdiko adinen artean alegia, garapenik ageri den aztertzea.

Oro har, H1 eta H2g alderatuta, adizki jokatuetan egiten dituzten huts-kopuruen artean alderik ez badago ere (%10 inguru), kualitatiboki badaude aldeak. H2gko bi laginen artean ere huts orokorren maiztasuna berdintsua bada ere (%10 inguru), huts gutxiago aurkitu dira sei hilabeteren buruan egindako bigarren saioan, adizki eta testuinguru "zail" direlakoetan.

Kasu gramatikalen erabileran, berriz, H1 eta H2gren arteko aldeak nabarmenagoak dira. Ergatiboa erabiltzen duten kasuetan helduek bezala erabili ohi dute H1 taldeko haurrek, eta bi saioetan H2gekoek. Datiboaren ekoizpena ia beti zuzena da H1ekoen kasuan, eta H2gkoek huts gehixeago egiten dituzte, lehen saioan batez ere. Absolutibokotzat hartu izan den zero markaren erabileran nabari da alde handiena H1 eta H2garen artean, H2gkoek beste kasu batzuen ordez erabili baitute sarri; gehienetan ergatiboaren ordez.

Aztertutako datuek erakusten dute izen-sintagmetako kasu- markatzearen jabekuntza ez datorrela bat, denboran, adizkietako kasu-komunztadura marken jabekuntzarekin, bereziki ergatiboaren kasuan.

Hitz-gakoak: Hizkuntzaren jabekuntza goiztiarra, ipuin-kontaketa, aditz-morfologia, kasu gramatikala, absolutiboa, datiboa, ergatiboa, H1, H2g.

La presente investigación se centra en las marcas de persona y número de las formas de flexión verbal compleja en euskara o lengua vasca, así como en las marcas de caso ergativo, absolutivo y dativo producidas por niños bilingües en una tarea narrativa. Los datos confirman la presencia de errores en los dos grupos de niños de 5 años de edad (euskara L1 y euskara L2 t(emprano)). El estudio comparativo entre grupos (L1 vs. L2t) así como el comparativo entre dos muestras del grupo L2t, obtenidos con un intervalo de 6 meses, revela resultados interesantes sobre al grado de madurez en la producción de la morfología de persona antes de los 6 años.

En la producción de formas verbales conjugadas no se aprecian diferencias cuantitativas entre L1 y L2t ni entre las dos muestras de L2t, dada la baja frecuencia de formas erróneas (10%) en las tres muestras. Las diferencias que se observan entre las tres muestras son de orden cualitativo, como por ejemplo la distribución de determinadas formas o contextos de conjugación considerados "difíciles".

La producción de algunas marcas de caso distingue claramente a L1 de L2t. Si bien la producción de la marca de caso ergativo tiene lugar, tanto en L1 como en las dos muestras de L2t, siempre en contextos en los que se esperaría la producción de tal marca, la producción del dativo es casi siempre correcta en L1, mientras que se aprecian más usos incorrectos en el grupo L2t; sobre todo en la primera sesión. El sobreuso frecuente de la marca cero (asociada al caso absolutivo) por parte del grupo L2t en contextos de otros casos como el ergativo diferencia a este grupo del grupo L1.

Los datos analizados muestran que la adquisición de la morfología de caso en los SSNN no es simultánea a la adquisición de la morfología verbal de concordancia con ellos, especialmente para el caso ergativo.

Palabras clave: Adquisición temprana del lenguaje, narración de cuentos, morfología verbal, caso gramatical, absolutivo, dativo, ergativo, L1, L2t.

La présente étude porte sur les marques de personne et le nombre des formes de flexion verbale complexe en euskara ou langue basque, ainsi que sur les marques de cas ergatif, absolutif et datif produites par les enfants bilingues dans une tâche narrative. Les données confirment la présence d'erreurs dans les deux groupes d'enfants âgés de 5 ans (basque L1 et basque L2 p(récoce)). L'étude comparative entre groupes (L1 vs. L2p) ainsi que l'étude comparative entre deux échantillons du groupe L2p, obtenus sur un intervalle de 6 mois, révèlent des résultats intéressants sur le niveau de maturité dans la production de la morphologie de personne avant 6 ans.

Dans la production des formes verbales conjuguées, on n'observe pas de différences quantitatives entre L1 et L2p ni entre les deux échantillons de L2p, étant donné la faible fréquence des formes erronées (10%) dans les trois échantillons. Le type de différences que l'on observe entre les trois échantillons est d'ordre qualitatif, comme par exemple la distribution de certaines formes ou de certains contextes de conjugaison jugés « difficiles ».

La production de certaines marques de cas distingue nettement L1 de L2p. Même si la production de la marque de cas ergatif a lieu aussi bien en L1 que dans les deux échantillons de L2p, toujours dans des contextes où l'on pourrait s'attendre à la production de cette marque, la production du datif est presque toujours correcte en L1, tandis que l'on observe davantage de mauvaises utilisations dans le groupe L2p, surtout lors de la première session. La surutilisation fréquent de la marque zéro (correspondant au cas absolutif) par le groupe L2p dans des contextes d'autres cas comme l'ergatif différencie ce groupe du groupe L1.

Les données analysées montrent que l'acquisition de la morphologie casuelle dans les SN n'est pas simultanée avec celle de la morphologie de l'accord entre le verbe et les SN, plus particulièrement en ce qui concerne le cas ergatif.

Mots-clés: Apprentissage précoce du langage, narration de contes, morphologie verbale, cas grammatical, absolutif, datif, ergatif, L1, L2p.

This research focuses on the person and number marking in the inflected verb forms, as well as the ergative, absolutive and dative case marking on the NPs produced by bilingual children in a narrative task in Basque. The data confirms the presence of errors in two groups of five year-old children (Basque L1 and e(arly)L2). The comparative study between groups (L1 vs. eL2) as well as the comparison between two samples of the eL2 group, obtained with an interval of 6 months, revealed interesting findings concerning the degree of maturity in the production of the person morphology by children under 6 years of age.

In the production of conjugated verb forms there are no appreciable quantitative differences between either the L1 and eL2 groups between the two samples of the eL2 group, given the low frequency of erroneous forms (10%) in the three samples. Differences found among the three samples are qualitative, as it can be observed in the distribution of some agreement forms and agreement contexts considered "difficult".

The production of some morphological cases are clearly distinguishable from L1 to eL2. Even though, the production of ergative case occurs, both in L1 as well as in the eL2 samples, always in contexts where one would expect the production of such a mark, the production of the dative case is almost always adult-like in L1, whilst most noticeable incorrect uses are appreciated in the L2t group, especially in its first session. The frequent overuse of the zero marking (corresponding to the absolutive case) by the L2t group in contexts of other cases such as the ergative distinguishes this group from the L1 group.

The data analysed show a different pace in the acquisition of case morphology and argument- verb agreement marking, especially for ergative case.

Keywords: Early acquisition of language, storytelling, verbal morphology, grammatical, absolutive, dative, ergative cases, L1, L2t.

Sarrera

Bigarren hizkuntzaren jabekuntza goiztiarraren (H2g) eta lehen hizkuntzaren (H1) jabekuntzaren artean dauden antzekotasunen eta ezberdintasunen auzian (Meisel 2007) kokatzen da lan hau, eta aztergai nagusia haur elebidunek euskaraz kontatutako ipuinetan ageri diren aditz-formek, eta NOR, NORI eta NORK kasu markadun izen- sintagmek osatzen dute.

Ipuinek egoera "naturaletan" ekoitzitako esaldi soilen azterketatik eta bideratutako egoeretan ekoitzitako perpaus isolatuen azterketatik harago doan ikerketa-markoa eskaintzen dute, alegia, alderdi diskurtsiboarena (Berman 2009). Sarritan haurren ipuin-kontaketak hizkuntza-garapenaren dimentsio testual-diskurtsiboa aztertzeko erabiltzen badira ere (adibidez, ikus liburu honetan bertan Almgren et al.-en lana), hemen haurren kontaketak hizkuntza-garapenaren dimentsio gramatikala aztertzeko erabiliko ditugu.

Ikerlan honetan bost urteko bi haur-taldek (euskara H1 eta euskara H2g) kontatutako ipuinetan agertzen diren adizkietako pertsona eta numero komunztadura-markak aztertzen dira, eta baita esaldietako subjektua, objektu zuzena eta zehar objektua diren izen-sintagmetako absolutibo (NOR), ergatibo (NORK) eta datibo (NORI) gramatika-kasuak ere, bi helburu zehatzekin: a) ikustea bi haur-taldeak helduaren eredura modu berean hurbiltzen diren; eta b) aztertzea H2g taldean sei hilabeteko tartean bildutako bi laginetan, bost urte, eta bost urte eta erdiko adinen artean alegia, garapenik ageri den. Helburu nagusia, ordea, H1/H2 bereganatze goiztiarraren bereizketari buruzko eztabaidan emaitza berriak gehitzea da, galdera zabalago baten erantzunera hurbildu nahian: zer erakuts diezagukete bost urteko haurren ekoizpen-datuek H1 eta H2 goiztiarrari buruz? Bi xede horiek betetzeko hiru lagin alderatu dira: euskara lehen hizkuntza duten haurrak (5;00-5;04 adin tartea) edo *H1* taldea; euskara bi urtetik aurrera eskolan ikasi duten haurren lehen saioa (5;00-5;04 adin tartea) edo *H2g-I* taldea; eta azkenik, euskara H2g talde beraren edo *H2g-II* taldearen bigarren saioa (5;06-5;10 adin tartea). Halaber, lan

honetako datuak beste ikerketa batzuetako emaitzekin erkatu dira, psikolinguistikako literaturan puri-purian dagoen eztabaidan murgilduz; hau da, ea hizkuntza bat bereganatzeko adinak, hizkuntzarekiko harremanak (harreman handiagoa vs. txikiagoa) eta hizkuntzaren jabekuntza gertatzen den testuinguruak (etxea vs. eskola) hiztun-motak bereizten dituen: esate baterako, ea alderik badagoen H1, H2 goiztiar eta H2 berantiarra izeneko hizkuntza-jabetze prozesua izan duten taldeen artean, edota hiztun elebakar eta elebidun goiztiarren hitz bidezko jardunen artean.

Hara hemen artikuluaren egitura: aztergaia dugun euskal komunztaduraren ezaugarri nagusiak azaldu ondoren (2. atala), H1 eta H2 goiztiarraren arteko eztabaida (3. atala) eta euskal aditzaren jabekuntzako emaitza nagusiak (4.a) ageri dira. Ikerketa honetako corpusaren, metodologiaren (5.a) eta emaitzen berri (6.a) eman ondoren, emaitzen eztabaida (7.a) eta ondorioak (8.a) datoz.

1. Euskal aditza eta argumentuekiko komunztadura

Jakina da euskaraz aditz jokatuaren egitura konplexua dela morfologiaren ikuspegitik, izan ere, aditz jokatuan NOR, NORK eta NORI kasudun argumentuen pertsona eta numero-markak agertu behar baitute, argumentu horiek esaldian agertu (1a), zein isilduta egon —parentesiek adierazten duten legez— (1b), adizkia desegokia izan ez dadin (1c,1d). Gogoratu behar da, halaber, NORK edo E(ergatibo) kasudun subjektua 3. pertsona singularra denean edo NOR A(bsolutibo) kasudun objektu zuzena 3. pertsona singularra denean, aditzeko komunztadura-marka hotsik gabekoa (Ø) dela askotan (Trask 1981). Ez da halakorik gertatzen, ordea, NORI edo argumentu D(atiboa) 3. singularra denean */–o/*.

(1)	a. Jon-ek	Miren-i	goxokiak	eman	**d-i-zki-o-Ø**
	b. (Jon-ek)	(Miren-i)	(goxokiak)	eman	**d-i-zki-o-Ø**
	c. *Jon-ek	Miren-i	goxokiak	eman	**d-u-Ø**
	d. *Jon-ek	(Miren-i)	goxokiak	eman	**d-it-u-Ø**

Adizki bakoitzak dituen pertsona eta numero tasunak hobeto ikusteko, aditz-formetako komunztadura konplexu hau zifren bidez kodetu da lan honetan: 1etik 3rako zenbakiak 1., 2. eta 3. pertsona singularrak irudikatzeko erabiliko dira, eta 4tik 6rakoak, berriz, pluralekoak. Hartara, 4ak 1. pertsona plurala adieraziko du, 5ak 2. pertsona plurala, eta azkenik, 6ak, 3. pertsona plurala. Zifren ordenari dagokionez, lehendabiziko gunean absolutiboa adierazten da (NOR), hau da, aditz iragankorretako objektu zuzena (OZ) edo iragangaitzetako subjektua (S). Bigarren gunean, berriz, ergatiboa (aditz iragankorreko S edo NORK argumentua), eta azkenik, hirugarren kokagunean, datiboa (NORI kasua). Honela, (1) adibideko *dizkio* edo dagokion lehenaldiko *zizkion* aldaera 633 modura adierazten da: NOR 3. pertsona plurala da (6-), NORK subjektua 3. pertsona singularra (-3-) eta NORI zehar objektua, azkenik, 3. pertsona singularra (-3).

(1)	Jon-ek	Miren-i	goxokiak	eman	**d-i-zki-o-Ø**	(633)
	Jon-E3s	Miren-D3s	goxokiak-A3pl	eman-BUR	A3pl-D3s-E3s	

2. Elebitasun goiztiarra: H1 vs. H2 goiztiarra

Jaiotzatik aurrera bi hizkuntza batera (bi H1) bereganatzen dituen haurra elebidun goiztiartzat jotzen da. Elebitasun goiztiarraren inguruan egindako ikerketa askok erakutsi dute jabekuntza elebidun goiztiarra jabekuntza elebakarraren parekoa dela: garapen-aroak berdintsuak dira hizkuntzaren egituraren zein erabileraren ikuspegitik, lortutako gaitasun-maila ere bai, eta haurrek bi hizkuntzak argi bereizten dituzte (Meisel 2007). Hala egiaztatu dute, gainera, euskara eta gaztelania aldi berean, biak etxean, bereganatzen dituzten haurren gaineko ikerketek (Barreña 1995, Ezeizabarrena 1996, beste askoren artean).

H1 eta H2ren artean, berriz, aldeak handiagoak dira, zenbait garapen-aro berdintsuak badira ere. Ezberdintasunak daude ekoizpenen luzeran, garapenaren erritmoan eta lortutako mailan. Eta bi dira alde hauen eragile nagusiak:

H2ren jabekuntzaren hasierako adina eta aurretik bereganatutako hizkuntzaren (H1en) ezaugarriak (Meisel 2007). H2ren bereganatze-prozesua txikitan gertatzen bada, bigarren hizkuntzaren jabekuntza goiztiarra (H2g) deitzen zaio. Aldiz, helduaroan gertatzen denari bigarren hizkuntzaren jabekuntza berantiarra (H2b). Nolanahi ere, elebitasun goiztiarraren esparruan kokatu beharra dago jaiotzatik hizkuntza bat (H1) bereganatuta, ondorengo urte txikietan gertatutako bigarren hizkuntza baten jabekuntza ere (H2g). Ondorioz, H2gren izaera eta ezaugarriak zehazteko asmoarekin, H2g delakoa H1ekin, 2H1ekin edota H2brekin alderatzeko saio batzuk egin izan dira.

Dena dela, ez dago oraindik nahikoa datu argi H2g eta H1en jabekuntzaren arteko antzekotasun/ aldeak zein diren erabakitzeko. Esaterako, gaitasun-maila berbera lortzen ote dute H1 eta H2g motako garapena izan duten hiztun helduek? Berberak ote dira jabekuntza-prozesuko garapen-aroak H1 eta H2gean? Eta azken finean, nolakoa ote da —baldin badago— jaiotzetik beste hizkuntza batekin batera ikasitako 2H1 motako garapenaren eta H2g motako garapenaren arteko aldea? Eta zein adinetatik aurrera agertzen da? Alegia, jaiotzatik hizkuntza bakarra bereganatuta, hiru, lau, bost edo sei urterekin beste hizkuntza bat bereganatzen hasi den haurraren kasua zeren adibide da, *aldi bereko* elebitasun goiztiarraren (2H1) ala *ondoz ondoko* elebitasun goiztiarraren (H2g) adibide?

Meiselek (2007) lantzen dituen gaiak dira hauek. Zehazki, alemana H1 izanik, hiru bat urtetik aurrera frantsesez eskolatutako haurren frantsesa aztertzen du, frantsesa H2g modura hartuta. Eta jaiotzatik frantsesa alemanarekin batera bereganatu duten haurren jabekuntzarekin (2H1ekin edo aldi bereko elebitasun goiztiarrarekin) eta frantsesa heldutan bereganatu dutenekin, H2b(erantiarra) dutenekin, konparatzen du. Bi ikerketetako emaitzak ematen ditu, eta bietan adizki jokatuak dira aztergai nagusia.

Meiselek ondorioztatzen du hiru eta lau urte inguruan frantsesa ikasten hasitako haurren ekoizpenek antz handiagoa daukatela helduaroan frantsesa ikasten hasitakoen ekoizpenekin (H2b), alemanarekin batera jaiotzatik frantse -

sa bereganatutakoen ekoizpenekin baino (2H1). Hasierako faseak luzeagoak izateak, zenbait egitura konplexu bereganatzea (inoiz bereganatzekotan) frantsesa H1 duten haurrei baino denbora gehiago kosta izana, ekoizpenen aldakortasuna (adin bereko haurrengan zein norbanakoarengan) eta garapen-erritmo motela dira H2g helduen bigarren hizkuntzaren jabekuntzara hurbiltzen duten ezaugarriak, edo bestela esanda, H2g elebitasun goiztiarretik (2H1) bereizten dutenak. Meiselek hiru eta lau urte artean proposatzen du 2H1 eta H2g-ren arteko muga. H2b-rena, berriz, 8 urtetik aurrera.

Azken urteotan gero eta gehiago dira euskara H1/H2 legez bereganatzearen arteko aldeen inguruan osatutako ikerketak. Hala bada, helduekin egindako esperimentu-lanek erakutsi dute aldeak daudela euskarazko ergatibo kasua edota objektu pluralarekiko komunztadura prozesatzeko garaian, euskara H1 legez eta euskara H2 legez hiru-lau urtez geroztik ikasitakoen artean; denak ulermen eta ekoizpen-mailako gaitasun handiko helduak izan arren. Hizkuntza bereganatzeko adinaren eragina nabarmendu izan dute (Zawiszewski 2006, besteak beste). Aldiz, bestelako emaitzak aurkitu dira ahozko ipuinen ekoizpenetan. Haur elebidunei buruzko zenbait lanetan erakutsi da euskara bi urtetik aurrera bigarren hizkuntza bezala eskola inguruan bereganatu duten haurrek (H2g) eta lehen hizkuntza (H1) dutenek[2] maila antzekoa dutela, gaitasun diskurtsiboei dagokienez (Alngren *et al.*, 2008; Beloki *et al.*, 2005). Antzekotasunak ikusi dira haurrek ekoitzitako ipuinen antolaketa tematikoan eta egitura narratiboan, eta baita testuratze-baliabideetan ere, nola izen-kohesioan, hala aditz-kohesioan (Bronckart 1996 / 2004). Euskararen alderdi morfologikoak ere aztertu dira corpus hauetan beretan eta ez da ezberdintasun kuantitatiborik aurkitu: euskara H1 izan ala H2g izan, argumentuak eta aditzen arteko komunztadura-akatsak urriak baitira bi taldeetan (% 4,7 H1en kasuan, eta %4,4 H2gren kasuan).

[2] Kontuan izan behar da, ordea, haurrok euskaraz gain beste hizkuntzaren batean ere badakitela hizketan jada 5 urterako, eta beraz, lan honetako alderaketa talde elebidunen artekoa dela gehienbat, 2H1 / H2g artekoa alegia, eta ez horrenbeste H1 / H2g artekoa.

Beraz, 2H1/H2 bereizteko, hizkuntzarekin harremanetan hasitako adina eragile oso garrantzizkotzan jo izan den arren (Meisel, 2007), ez dirudi bera bakarrik nahikoa denik hizkuntza bereganatzeko modu nagusiak bereizteko; besteak beste, adin txikitan (2-4 urte bitartean) ikasitako hizkuntzarekiko harremanaren indarraren arabera, gaitasun-maila edo hiztun-mota desberdinak ere nabarmen baitaitezke. Barreña, Ezeizabarrena & Garciak (2008), esate batera, ez dute alderik aurkitu euskara lehen hizkuntza bakartzat edota beste hizkuntza batekin batera bereganatzen duten haur txikien artean, baldin eta haur elebidunek euskara asko entzuten badute inguruan; baina aldeak aurkitu dituzte, hiztegi zein gramatika-mailan, oso txikitatik inguru elebidunean hazita, euskara asko edo gutxi entzuten duten hiru urtez beherako haurren artean. Barreña eta besteren lagineko haur guztiek dute euskararekiko harremana (handiagoa edo txikiagoa) oso txikitatik eta inguru hurbilean, eta, ondorioz, euskara ikasteko garaian testuinguru formala izan / ez izan horrek duen eraginaren galdera erantzuteke geratzen da.

Aipatutako azken emaitzok kontrajarriak ematen dute: alde batetik, Zawizewskiren (2006) lanak euskara H1 eta H2 goiztiarra bezala bereganatutako helduen arteko aldea nabarmentzen du; Beloki et al. (2005) eta Almgren et al. (2008) lanetan, aldiz, H1 eta H2dun haurren emaitzak berdintsuak direla erakutsi da; eta azkenik, Barreña et al.-ek (2008) 2H1 prozesuen artean alde nabarmenak egon daitezkeela erakutsi dute. Kontuan izatekoa da, besteak beste, aipatutako lanotan hizkuntza-gaitasuna neurtzeko erabilitako metodologia desberdinek beste aldagai asko sartu dituztela alderaketan: esate batera, ikerketa-subjektuen adina (helduak / haurrak), adinarekin lotuta doazen hizkuntza bereganatzeko beste hainbat eragileren aniztasuna (hizkuntza ikasteko testuinguru ez formala / formala, erabiltzeko ohitura, motibazioa, beste hizkuntza batzuk jakitearen eragina) eta abar. Goraxeago aipatutako kontrajartze hori itxurazkoa bakarrik bihurtzen da emaitzon irakurketa aldagai anitzei erreparatuz eginez gero, izan ere, bigarren hizkuntzarekiko hasierako adinaz aparte (Zawiszewski 2006, Meisel 2007), hizkuntza horrekiko harremanaren indarra

ere oso kontuan izan beharreko eragile erabakigarria da elebitasunean, eta oso bereziki elebitasun goiztiarrean (Barreña et al. 2008).

3. Aditz-morfologiaren eta gramatika-kasuen garapena

Aditz-komunztaduraren bereganatze goiztiarraren gainean garatu diren ikerketa longitudinalek erakutsi dute haur elebakar zein elebidunek lehen urteetan menderatzen dutela aditz-komunztadura, lau urte bitartean gai baitira ia beti egokiak diren adizki jokatuak ekoizteko, esaldian agertzen diren NOR, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK argumentuekin bat datozenak (Ezeizabarrena 1994; Barreña 1995, Barreña et al. 2008). Beste lan batzuek erakutsi dute, ordea, hiru-lau urterekin gehienetan helduek bezalako adizkiak erabili arren, komunztadura anitzeko adizkiak ez direla oso ugariak oraindik, izan ere, tarteka helduek erabiliko lituzketenak baino adizki sinpleagoak ekoizteko joera ikusten baita (Ezeizabarrena 2003, Fernandez & Ezeizabarrena, 2003).

Ikerketa longitudinal edo luzarokoon arabera, haurrak mailaka edo pausoz pauso ekoizten du euskararen aditz-morfologiaren konplexutasuna. Ikusi da, besteak beste, garapenaren hasieran pertsona eta numero-markarik gabeko adizkiak (edo zero markadunak) ekoizten dituztela haurrek, batzuk zuzen itxurakoak, beste batzuk ez horrenbeste. Nolanahi ere, hasierako ekoizpen desegokiak urritzen doaz ondorengo aroetan, eta gero eta maizago ageri dira adizki gero eta konplexuagoak. Ondorioz, aditzen gauzatze produktiboaren bilakaera lau aro-urratsetan bereizia azaldu izan da, soinudun pertsona-marken agerrera nola garatzen den kontuan izanda (Ezeizabarrena 1996, 2003):

Lehen aroa. Aditz-flexioaren ekoizpen (emankor)ik gabekoa: formulak, *da* kopulak, infinitiboak.

Bigarren aroa. Komunztadura bakuneko aroa. Ageriko pertsona-marka bakarra ekoizten den aroa, eta hura beti subjektuarekin komunztaduran (NOR eta NOR(3s)-NORK adizkiak): ***n**aiz, du**t**.*

Hirugarren aroa. Komunztadura bikoitzaren aroa. Haurrak objektu-pertsona marka agerikoak ekoizten dituena. Aditzeko pertsona-markak subjektuarekin ez ezik objektu batekin ere bat datoz (NOR-NORK, NOR-NORI) aro honetan: *d**it**u**t*, *z**ai**t*.

Laugarren aroa. Komunztadura hirukoitzaren aroa. Haurra gauza da perpausaren subjektuarekin ez ezik, beste bi objektuekin ere bat datozen ageriko pertsona-marka egokiak ekoizteko (NOR-NORI-NORK): *di-**zki-o-t***.

Lau urtera arte ikertu diren haur elebakarren eta elebidunen datuek aditzera eman dutenez, haurrek bi edo hiru soinudun komunztadura-markak ekoizten dituzten adinetan ere -ikus *–a-/ -(g)u-/ -z* (2a)n-, esperoko ez ziren komunztadura-markarik gabeko aditzak ekoizten dituzte, tarteka, (2b)-ko NOR3pl-ren *-z-* falta (espero: *ezin dodaz hartu*) adibide.

(2) a. zaldixe-k emon-go **(d)-otz-a-(g)u-z** (M 4;00,17)
NORpl eman-ETORKIZUN NOR3s-Lag-NORI3s-NORK1pl-NOR3pl 643

b. *nik holan be ezin **dot** hartu gauzak (M 4;00,17)
NORK NOR3s-Lag-NORK1s

Aditz-aldiari dagokionean, ordea, hasierako hilabeteetan orainaldiko adizki jokatuak bakarrik agertu ohi dira, eta zortzi-hamarren bat hilabete geroago ekoizten dituzte haurrek lehenaldiko adizkiak (Barreña 1996, Ezeizabarrena 1996).

Kasuen ekoizpena ere ez da bat-bateko prozesua izan ohi, NOR, NORK eta NORI, kasu-mota bakoitzak bere erako bilakaera erakutsi ohi baitu, hainbat haurren datuek erakutsi dutenez (Barreña 1995, Zubiri 1997, Elosegi 1998, Larrañaga 2000). Luzerako corpusetan kasu-markak hurrenkera honetan agertzen dira (lehen adibideak), oro har: NOR > NORK > NORI, baina hasiera-hasieran ekoizpen guztiak ez datoz bat helduen ereduarekin.

(3) a. hau da tutua (P 2;05)
b. *Pe(r)u(k) azin du (P 2;04)
c. etsunahi (=ez du nahi) amak (P 2;05)
d. eba(g)i nik (O 2;00)
e. *ni(k) argia ukitu (O 2;00)

f.	ez, niri ez zait gustatzen ezer	(P 2;10)
g.	*(e)xan di(t) mediku(k) biha(r) polo jateko	(B 2;11)

Absolutiboa aurren-aurrenetik ekoizten da espero den testuinguru guztietan; datibo-markarik gabeko adibideren bat edo beste haur guztiengan aipatzen bada ere, haurra berehala hasten da datibo argumentua behar duen kasu markarekin ekoizten. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, ergatiboarekin, haurrak ergatibodun izen sintagma espero den testuinguru guztietan behar bezala ekoizteko (%90etik gora), urte erditik gora itxaron beharra baitago. Hala bada, helduen ereduaren araberako kasu-markaketa hurrenkera honetan garatzen dute haurrek: NOR -> NORI -> NORK. Datibo-kasua haurren ekoizpenetan agertzen hiruretatik azkena izan arren, hasierako huts batzuk kenduta berehala hasten dira haurrak testuinguruak eskatzen duen datibo-markarekin ekoizten. Beraz, ergatiboa da, haurra elebakar zein elebidun izan, huts gehien erakusten duen kasua, nahikoa maiz gertatzen baita *–k* marka gauzatu gabeko izenordain edo izen-sintagmak ekoiztea, bai haur elebidunen (3b), bai elebakarren ekoizpenetan (3e,g). Testuinguru fonologikoaren arabera ere ez dirudi alde handiegirik erakusten duenik ergatibo-marka ekoizteak, bokal aurrean ere hutsak agertzen baitira (Ezeizabarrena & Larrañaga 1996; Elosegi 1998).

4. Corpusa eta metodologia

4.1 Haurrak

Ikerketa honetan 5 urteko 24 haur elebidunek (euskara-gaztelania) hartu dute parte, bi taldetan banatuta: H1 eta H2g alegia. Beloki, Idiazabal eta Manterolak (2005) aztertutako haur-talde berekoak dira, baina hemen talde bakoitzean adinez gazteenak diren 12 haurrak hautatu dira: H1 laginean 5;00-5;04 adin-tarteko 12 haur eta H2g-I laginean 5;00-5;04 adin-tarteko beste 12 haur. Oraingo lan honetan H2g-I taldeak sei hilabete geroago ekoitzitako datuak ere behatzen dira (H2g-II 5;06-5;10), H2g taldean garapenik ba ote da-

goen ikusteko. H1 taldekoek euskara dute lehen hizkuntza, etxeko giroan ikasia baitute. Halaber, eskolaratzea ere, 2 urtetik aurrerakoa, euskarazko ereduan egin dute. Talde hau herri euskaldun batean bizi da: datu soziolinguistikoek erakusten dutenez, herriko biztanleen %64k badaki euskaraz (Eustat 2001) eta %58k egunero erabili ohi du (Soziolinguistika Klusterra 2006).

H2g taldeak gaztelania du lehen hizkuntza, etxeko testuinguruan ikasitakoa. Ingurune soziolinguistikoa ere nagusiki gaztelaniaduna dute herrian, euskaraz dakiten biztanleen ehunekoa txikia baita, %6koa (Nafarroako Estatitistika Institutua 2001). Haur hauek eskolaren bidez izan dute euskararekiko lehen harremana, bi urtetik aurrera parte hartzen duten murgilketa-eredu goiztiarrean.

4.2 Metodologia

Istorioak edo ipuinak kontatzeko gaitasunen ikerketaren esparruan autore askok ikusi dute egoki 5 urteko adina haurren kontaketarako trebetasunak aztertzeko, adin horretan nahikoa finkatuta baitituzte, besteak beste, kontaketarako autonomia eta egituraketa narratiborako trebetasuna (Bamberg, 1987; Berman & Slobin, 1994; Serra & et al. 2000; De Weck, 1991).

Ipuin-kontaketa bidez jaso dira lan honetako ahozko hizkera-datuak, haurrei *Mattin Zaku* izeneko ipuina ahoz kontatu eta ahoz kontaraziz, hain zuzen. Ipuin hau Arratibel eta Zubizarretaren (2001) *Txomin Ipurdi* ipuinaren bertsio egokitua da. Aurrena, haurrak bospasei laguneko taldetan bilduta, helduak ipuina kontatu die ekintza zein egoera nagusiak adierazten dituzten hamabi marrazkiz osatutako liburuaren laguntzaz. Ipuina entzundakoan, haur batek beste taldekide bati kontatu dio ipuina, marrazkiak erakutsi gabe, taldetxoko gainontzeko haurrak beste gela batean daudela. Bigarren haurrak, ipuina (jada bigarren aldiz) entzun ondoren, hirugarrenari kontatu dio, eta horrela taldeko haur guztiek ipuina kontatu arte.


Haurren ekoizpenen lagin hau ipuin-kontaketen bidez osatua izanak eragin zuzena izan lezake ekoizpenetan forma batzuk beste batzuk baino gehiago ekoiz-

tearekin. Esate baterako, pertsona gramatikal batzuk maiztasun handiagoz agertzea espero liteke ipuinetan nagusi diren kontaketa-zatien edo elkarrizketa-zatien arabera. Kontaketa-zatietan 3. pertsona nagusitu ohi da, aldiz, elkarrizketa-zatietan, 1. eta 2. pertsonak (Plazaola 1990, 2007). Hau dela eta, hasiera batean aurreikus zitekeen bildu ditugun haurren ekoizpenetan 3. pertsonako adizkiak izatea nagusi, eta neurri txikiago batean agertzea 1. eta 2. pertsonak. Dena dela, honetan eragina izan lezake kontalariak ipuineko elkarrizketa-zatiak estilo zuzenean ala zehar estiloan egin izanak; estilo zuzenean egindakoetan 1. eta 2. pertsonak agertuko baitira maiz (eta orainaldian), eta, aldiz, elkarrizketa-zatiak zehar estiloan eginez gero, 3. pertsonako adizkiak erabat nagusituko dira haurren ipuinetan.

5. Haurren datuak

Corpus honetan hirugarren pertsona da ipuinetan nagusitzen den aditzetako pertsona gramatikala, 1. grafikoak erakusten duen moduan. 1. eta 2. pertsonak, aldiz, gutxiago ageri dira. Laginen artean ez dago alde nabarmenik, H2g-II taldean 1. eta 2. pertsonak zertxobait maizago ageri badira ere (%16,5), H1 eta H2g-I taldeekin alderatuz gero (%11 bietan ere).

1. GRAFIKOA
1. 2. ETA 3. PERTSONAKO TESTUINGURUAK (%)



Haurrek ekoitzitako komunztadura-formen egokitasuna neurtzeko, ekoizpenaren bi alderdi begiratu dira. Batetik, behatu da ea haurrek aditz jokatuak bere argumentu isil zein gauzatuek eskatzen dituzten eta esperoko liratekeen pertsona-marka guztiekin osatzen dituzten (testuinguruaren araberako zuzentasuna), eta, bestetik, ekoitzitako adizki jokatuek duten konplexutasun eta zuzentasun-maila, agertzen diren testuinguruetan (ekoizpen-mailako zuzentasuna). Lehenengo behaketak aukera emango digu ikusteko ikergai ditugun bost urteko haur elebidunak a) testuinguruko tasun sintaktiko guztiak antzemateko gauza izateaz gain, b) euskal adizkien zerrenda osoa eskuragarri izan, eta, c) testuinguruko pertsonekin bat datozen adizki bakun edo konplexu egokiak ekoizteko gauza diren. Ala, haur txikiagoekin ikusi den bezala, testuinguruarekin bat letozkeen komunztadura-markak egin beharrean osatugabeko adizkiak egiteko joera duten (ikus 2b), agian zenbait aditz-forma oraindik ezagutzen ez dituztelako edo testuinguruko pertsona-numero tasunen bati arretarik jarri ez eta markatu gabe utzi dutelako aditzean. Bigarren behaketak, berriz, beste zerbait egiaztatu nahi du: ea haurrek ekoizten dituzten adizkiak a) bere hiztegiko, buruz ikasitako hitzak izateaz gain, b) adizki horiek duten pertsona-markaketaren konplexutasuna menderatzen duten; alegia, ea forma ezagutzeaz gain, behar den testuinguru sintaktikoan ere kokatzen duten.

Hori dela eta, haurren datuen aurkezpena lau zatitan banatu da: lehendabizi, ekoitzitako formak zein diren ikusiko da haurren adizki konplexuen erabilera helduena bezalakoa den ikusteko (5.1) eta ondoren, adizki konplexuak espero izan diren testuinguruak aurkeztuko dira (5.2). Hirugarrenik, "zailtzat" jotako adizki eta testuinguruez jardungo dugu (5.3), eta azkenik, izen-sintagmetako kasu-markaketa izango dugu aztergai (5.4).

1. TAULA
HIRU LAGINETAKO KOMUNZTADURA-MARKEN EGOKITASUNA

	H1	H2g-I	H2g-II
Testuinguru-kopurua	449	455	642
Adizkien egokitasuna (%): ekoitzitako adizkien pertsona-numero markak zein neurritan datozen bat testuinguruarekin.	90,2	85,2	88,5
Testuinguru mailako egokitasuna (%): testuinguruak eskatzen dituen pertsona-numero markak zein mailatan dakartzaten adizkiek.	90,6	85,3	89,1

Oro har, adizki guztien artean aurkitutako hutsen kopurua ehunekotan (%15-%10 bitartean) oso handia ez bada ere, Beloki *et al.*-ek (prentsan) ikusi bezala, datuek erakutsi dute ekoizpenei zein testuinguruei erreparatuta, haurrek zailtasunak bi norabideetan dituztela (ikus 1.taula). Batzuetan haurrak ekoitzitako adizkiak ez daramatza testuinguruaren arabera izan beharko lituzkeen pertsona-numero marka guztiak. Esaterako, *zion* (333) motako adizkia eskatzen duen testuinguruarekin du zailtasuna (4a)-ko haurrak datibo-markarik gabeko *zuen* ekoitzitakoan (330). Baina gertatu ohi da, bestalde, haurrek marka horiekin berekin ekoitzitako adizkia egoki ez erabiltzea (4b) eta (4c)-ko adibideetan bezala.


(4) a. *gero esan zun* (330) *Mattin Zakuk bere amari* (H1,18) espero: *zion* (333)
b. *eta gero hil in zion* (333) (H1,6) espero: *zuen* (330)
c. *korrikan otso bat a- agertu zion* (333) (H2-II,14) espero: *zitzaion* (303)

5.1 Ekoitzitako adizki jokatuen zuzentasuna

Gorago aipatu bezala (4.2), *Mattin Zaku* ipuinaren kontaketan oinarritu izanak asko murrizten du pertsonen ugaritasuna eta pertsonen arteko konbinaketa-aukera ere, eta, beraz, paradigmako adizki-formen aniztasuna.

Corpusean guztira 28 pertsona-konbinaketa agertu dira adizkietan, eta oro har adizki gehienak %90etik gorako erabilera egokiarekin hiru laginetan (2-4 grafikoak).


2. GRAFIKOA
1. ETA 2. PERTSONA MARKADUN ADIZKIEN ZUZENTASUNA HIRU LAGINETAN (%)



Bigarren grafikoak erakusten duen bezala, 1. eta 2. pertsonako markadun adizkien erabilera ia erabat helduena bezalakoa da (%100 zuzen), *naiz-nintzen* eta *diogu-genion* motak salbuespen, baina adizki horietako adibide desegokiak gutxi izanik (bana), ez dira hurrengo ataletan kontuan hartuko. Hirugarren pertsonarako markak bakarrik dituzten adizkien datuek bestelako irudia erakusten digute, izan ere, desegoki erabilitako adizkien iturri nagusi baitira (3. grafikoa).

3. GRAFIKOA

3. PERTSONAKO ADIZKIEN ZUZENTASUNA HIRU LAGINETAN (%)




Datu orokorretatik harago, ekoitzitako adizki jokatu moten zerrenda aldatu egiten da lagin batetik bestera. Ikus 4. grafikoan hiru laginetan (ezkerraldean), bitan (erdian) eta bakarrean (eskuin aldean) agertzen diren motak. Eskuinaldean erabat desegokiak diren bi mota nabarmentzen dira: *diogu* formako (5a) adibidea, bakarra corpus osoan, eta haurrek beren kabuz sortutako adizkiak edo *neologismoak* (5b,c).

(5) a. *jarriko dugu herriko plazan eta erreko diogu* (H2-II, 5) espero: *erreko dugu*
b. *aplastatuko dioiela* (H2-II, 12) espero: *zapalduko dutela*
c. *eraman zaiete oilotegira* (H2-II, 12) espero: *eraman ezazue*


4. GRAFIKOA

HIRU LAGINETAN, BIETAN ETA BAKARREAN AURKITUTAKO ADIZKIEN EGOKITASUNA, MAIZTASUN HANDIKO ZEIN TXIKIKO ADIZKIAK BARNE



Orain arte aipatutako adizki guztiak ez dira, ordea, emankorrak corpusean. Adibidez, lagin bakoitzean 12 edo adibide gehiagoko adizki-motak bakarrik kontuan hartuz gero (batez beste, talde bakoitzean, haur bakoitzeko adibide bana), corpus osoko adizki-moten kopurua 9ra jaisten da, eta hauetatik hiru taldeek ekoitzitakoak 5 bakarrik dira (5. grafikoa), bostak hirugarren pertsonako markadunak.

5. GRAFIKOA
ADIZKI EMANKORRENEN EGOKITASUNA (%) HIRU LAGINETAN



5.1.1. H1 eta H2g taldeen alderaketa

Erabilera emankorreko adizkietan ez da alde handiegirik ikusten hiru taldeetan ekoitzitako adizki-mota kopuruen artean. H1ekoek beti zuzen erabiltzen dituztenak zuzen erabiltzen dituzte H2koek ere: *da-zen*, *dira-ziren*, *zara-zinen*. H1ekoek gehienetan (%95-80) zuzen erabili dituztenetan, aldiz, H2koek gehiagotan huts egiten dute (%88-75): *dute-zuten*, *du-zuen*. Emaitza hobexeagoak erakutsi dituzte, ordea, H2koek *dio-zion* (>%85) motaren erabileran H1ekoek baino (%80).

Alderdi kuantitatiboez gain, alderdi kualitatiboak ere begiratzeak bere garrantzia izan lezake taldeak bereizteko garaian. Ondorengo xehetasunak adizki


jakin batzuetara mugatzen dira: hirugarren pertsonakoak, hiru taldeetan ekoitzi direnak eta adibide askoko zein gutxiko direnak.

Oro har, adizki-moten aniztasuna handiagoa da H2 taldean, H1ean baino. Badira 11 adizki-mota hiru taldeetan aurkitzen direnak, baina H2g taldeak adizki-mota gehiago ekoizten ditu bi saioetan H1ek baino (13 mota): 16 mota H2-I saioan eta 23 mota (22 mota + neologismoak) H2-II saioan. Zuzentasunari erreparatuz gero, adizki gehienek %90etik gorako erabilera egokia erakusten dute hiru taldeetan, 4. grafikoan ikus daitekeen bezala. Egokitasun-maila txikixeagoa erakusten dute, ordea, *dute-zuten, dio-zion, du-zuen, diote-zioten* bezalako adizki-mota jakin batzuek. Izan ere, adizki hauek beste adizki batzuk esperoko liratekeen testuinguruetan erabili dituzte, tarteka, hiru taldeetako haurrek (%40-%95eko egokitasuna); H2-Ieko taldean bereziki, *ditu-zituen* (6. grafikoa). Gainerako adizkiak beti ondo erabili dituzte H1ekoek: *ditu-zituen, dira-ziren, da-zen* (6. grafikoa). Adibide askoko zein gutxiko adizki arazotsuak kontuan izanez gero ere, lehen edo bigarren pertsonako absolutibo zein ergatibodun subjektu markadun adizki gehienak egoki erabili dituzte haurrek ia kasu guztietan.

Bi adizkitan aurkitu dira H1 / H2 taldeen arteko alde nabarmenenak: *du-zuen* (330) eta *diote-zioten* (363) adizkietan.

6. GRAFIKOA

HIRU LAGINETAKO 3. PERTSONAKO ADIZKIEN ZUZENTASUNA (%)



6. grafikoak erakusten duen bezala, H1ekoek helduek bezalako erabilera erakusten dute singularreko zein pluraleko formetan, eta tarteka agertzen diren hutsak *du-zuen*–en (%10) eta datibo markadun *dio-zion* bezalako adizkien gehiegizko (%20) erabileran aurkitzen dira, testuinguruak eskatzen zuen beste forma baten ordez erabili baitituzte. H2koen artean joera hori bera aurkitzen da, eta indartsuagoa dela erakusten dute hutsen maiztasunek, %20koak baitira *du-zuen*ekin eta %10-40 ingurukoak datibo-markadun adizkiekin. H2ko haurren artean, *dio-zion* gehienetan egoki erabilia agertzearen arrazoia (%85 inguru zuzen) ipuinean izaera ia formulaikoa duen *esan zion* aditzaren maiztasuna izan daiteke. Aipatutakoez gain, *ditu-zituen*-en (%75 zuzen) erabilera okerra ere nabaritzen da H2 taldearen lehenengo saioan (H2g-I). Jarraian, hau guztia adibideekin erakutsiko dugu.

Esate batera, *du-zuen* (330) adizkia askotan erabiltzen da datibo-markadun *dio-zion* (333)-en ordez (4a). Hurrengo atalean ikusiko den bezala, *ditu-zituen* (630) testuinguruan egindako hutsak agertu dira hiru laginetan (6a,b,g), baina H2g taldean bakarrik hedatzen da *zuten*-en erabilera *zituen* (630) testuinguruetara (6c,6f).

Datibodun *zion* (333) eta *zioten* (363) formak datiborik gabeko testuinguruetan erabilita agertzen dira inoiz, *zuen* (330) (6d) edo *zituen* (630), edota *zuten*-en (360) (6h) ordez. Horrelako hutsak gertatzen direnetan objektua kasu guztietan biziduna izan ohi da (6d,e). Beraz, huts hauetan ezin esan daiteke pertsona-akatsa dagoenik, kasu-akatsa baizik, eta aditz jakin batzuekin agertzen dira, gainera: *esan*, *eraman*, *harrapatu*, *ikusi*, *sartu*. Inoiz, *zion* (333) eta *zioten* (363) formak datibodun beste forma batzuen ordez ere agertzen dira, inoiz NOR-NORI paradigmakoa den *zitzaion*-en (303) ordez, eta horrelako aditzekin: *loditu*, *agertu*, *joan* (6e).

Hirugarren pluralekiko komunztadura ere hutsetarako gunea da: *akabatu*, *ekarri*, *jan* aditzekin doan laguntzaileak NOR-3pl marka eraman beharrean NORK-3plren marka baitarama behin baino gehiagotan. Horrelako hutsak,

alegia, *zuten* (630) ekoiztea *zituen* (360) adizkiaren ordez (6f), H2g taldean bakarrik aurkitu dira, aurreneko zein bigarren saioan gainera, eta berdin objektu bizidun (6c) zein bizigabeekin (6f).

(6) a. *ta plis plas akabatuztu zuen guzti oilarrak* (H2-I17) espero: akabatu zituen oilar guztiak
b. *eta otsoa den den zaldiak akabatu zuen* (H2-I23) espero: otsoak zaldi denak akabatu zituen.
c. *eta orduan otsoa zaldi guztiak akabatu zuten* (H2-II32) espero: *kabatu zituen*
d. *eta (azeria) poltsan sartu zion* (H1-1) espero: *poltsan sartu zuen*
e. *eta gero suakin jun zion* (H1-1) espero: *joan zitzaion*
f. *eta puskak jan zuten* (H2-I29) espero: *puskak jan zituen*
g. *eta pin pon hildu zuen* (H2-I31) espero: *hil zituen*
h. *eraman zioten zalditegira* (H1-14) espero: *zuten*

5.1.2. H2g-I eta H2g-II taldeen alderaketa

Adizkien egokitasunaren sendotzea sumatu da H2g taldean lehenengo saiotik (H2g-I) sei hilabete geroago egindako bigarren saiora (H2g-II). Esate batera, eta 6. grafikora bueltatuz, *ditu-zituen* adizki-motaren zuzentasuna H2g-Iean %75ekoa zen eta %100ekoa bihurtu da H2g-IIan (dena dela, adibide gutxi daude bi laginetan). Gainera, erabilera oker gutxiago aurkitu dira *du-zuen* (330) adizkiarekin eta *dira-ziren*-ekin (600) H2g-IIan, H2g-Iean baino. Kontrako joera ikusten da, aldiz, *diote-zioten* adizkiekin; agian adizki honen ikasketa atzerantz doala pentsa genezake, baina kontuan izan behar da guztira adizki honen oso adibide gutxi agertu direla: H2g-Iean 5 adibide, H1ean 10 (horietatik 2na adibide oker), eta H2g-IIan, berriz, 18 adibide (horietatik 11 oker). Adibide gutxiok, ordea, ez dagozkio haur bakar edo pare bati bakarrik, aitzitik, zenbait taldekideren artean banatzen dira, eta hori dela eta, pentsa daiteke adizki honekiko hutsak fenomeno orokorragoa direla bost urteko haurren artean.

Honela labur genezake azken bi ataletan azaldutakoa:

1) Zuzentasuna. Hiru taldeetan emankorrak diren bost adizkietan, H1ekoek zuzentasun-maila handixeagoa erakusten dute H2gekoek baino, eta adizki gehienetan H2gekoek bigarren saioan zuzentasun handixeagoa, sei hilabete lehenagoko H2-Iekoan baino (*diote-zioten* (363) salbuespen).

2) Pertsonen agerrera. Lehen eta bigarren pertsonako markak ekoizteko garaian ez dute zailtasunik erakutsi bost urteko haur hauek, ez H1ekoek, ezta H2gkoek ere. Aditz iragankor eta iragangaitzak era emankorrean H2g taldean agertzen dira gehien, eta, laugarren ikusi den bezala, *dut-nuen* (310) edota *duzu-zenuen* (320) adizkiak H2gean bakarrik agertzen dira. Aldiz, *zara-zinen* motako adizkietako kopuruak talde guztietan agertzen badira ere —gehienetan *nora zoaz* edo *atera zaitez* adibideei dagozkienak—, H1 taldean haurren erdiek, zazpik hain zuzen, ekoitzi dute estilo zuzeneko forma hauetakoren bat; H2 taldean, berriz, hamabitik hamaikak.

3) Bost urteko haurrek ez dituzte plural eta datibo-markak ehuneko ehunean menderatzen. H2 taldeko haur batzuek *zuten* (360) eta *zituen* (630) adizkiak nahasteak adierazten du testuinguruko pluraltasun tasunarekin jabetu arren, haurrek ez dakitela pluraltasuna adizkian nola markatu behar den, plurala S edo O, bietako bati bakarrik dagokionez. Objektua hirugarren pertsonako biziduna denean ere, haurrek zailtasunak dituzte adizkia NOR-NORKekoa edo NOR-NORI-NORKekoa hautatzeko garaian, eta inoiz baita NOR-NORIkoa den erabakitzeko ere (6e), bai H1ekoek bai H2gekoek.


5.2. Komunztadura-testuinguruak

Aztertu diren hiru laginak (H1, H2g-I eta H2g-II) batera hartuta eta kontuan izanda adizkiak bakunak edo aniztunak izan daitezkeela pertsona-markaketari dagokionean, guztira 25 pertsona-konbinaketarako testuinguru zenbatu dira, taldeen artean zein talde bereko haurren artean ezberdintasunak badaude ere. Hiru taldeetatik bakar batek ere ez ditu 25 testuinguru-motetako adibideak ekoitzi, eta 12 dira hiru laginetan agertu direnak. Ikus, 7. grafikoaren ezkerral-

dean. Grafikoaren erdi-eskuinaldean, berriz, lagin bakarrean edo bitan bakarrik aurkitutako pertsona-testuinguru motak eta kopuruak ageri dira.

7. GRAFIKOA


ESPERO DIREN ADIZKI-MOTAK ETA KOPURUAK



7. grafikoak erakusten duen bezala, hiru laginetan agertzen diren testuinguru-motak dira talde bakoitzean ere adibide gehien erakusten dituztenak. Oro har, alde handiak daude pertsona-testuinguru batzuetatik besteetara, 5.1 atalean ekoitzitako adizkietan ikusi den bezala: testuinguru mota emankorrenak 3. pertsonako NOR, NORK eta NORIrenak dira ipuinetan, lehen eta bigarren pertsonarako testuinguruak ere badauden arren. Halere, 8. grafikoak erakusten duenez, zuzentasun-maila handiagoa ageri da lehen eta bigarren pertsonako testuinguruetan ekoitzitako adizkietan, hirugarren pertsonak bakarrik dauden testuinguruetan baino.

8. GRAFIKOA

ADIZKIEN ZUZENTASUN-MAILA (%) LEHEN & BIGARREN/HIRUGARREN PERTSONAKO TESTUINGURUETAN




8. grafikoak erakusten dituen portzentaje orokorrak kontuan izanez geroz, haurrek ekoitzitako aditzen pertsona-markak bat etorri ohi dira aditzaren argumentu diren pertsonekin: ia beti (%4z beheko hutsak) lehen eta bigarren pertsona ageri denean, baina gutxiagotan hirugarren pertsona hutsa ageri den testuinguruetan, hiru taldeek % 10etik 17ra bitartean egiten baitituzte hutsak batez beste.

6.2.1 Taldeen arteko alderaketa: H1 eta H2g; H2g-I eta H2g-II

Zuzentasunari dagokionez, oso berdintsu jokatzen dute hiru taldeek. Bostehun bat testuingurutan ekoitzitako aditz jokatuetatik asko dira zuzenak, bai H1ean (%89) bai H2g-Iean (%85,3) eta baita H2g-IIan ere (%89,1). 8. grafikoan ikusten den bezala, lehen eta bigarren pertsonako adizkiekin oso berdintsu jokatzen dute hiru taldeek (>%96 zuzen); aldiz, hirugarren pertsona hutseko testuinguruetan H1 laginean huts gutxixeago dago (%10) H2g-IIan baino (%12), eta gutxiago oraindik H2g-Iean baino (% 17).

Testuinguru emankorrei dagokienez, gehiago dira H2 taldean (9 lehen saioan, 10 bigarrenean) H1 taldean baino (7 testuinguru). Hiru laginetan emankorrak diren testuinguruak 9. grafikoan bildu ditugu.

9. GRAFIKOA
HIRU LAGINETAN EMANKORRAK DIREN PERTSONA-TESTUINGURUETAN
EKOITZITAKO ADIZKIEN ZUZENTASUNA (%)



Hiru taldeetan emankor diren pertsona-testuinguruetan zuzentasun-maila handia da oro har, baina aldeak egon badaude. 9. grafikoak erakusten duen legez, *da-zen* (300) eta *du-zuen* (330) testuinguruetan espero bezalako adizkiak ekoizten dituzte H1eko zein H2ko haurrek (%90etik gora hiru taldeetan), eta berdin *dio-zion* eta *dira-ziren* (%95-85 zuzen) testuinguruetan ere. Bestelakoa da egoera, ordea, ergatibo plurala *dute-zuten* (%78-68) edo datibo pluralaren markadun *die* (<%20 zuzen) bezalako adizkia espero den testuinguruetan, 3 laginetako haurrek beste adizki batzuk ekoitzi ohi baitituzte maiz.

5.3. Testuinguru eta adizki "zailak"

Bost urteko haurrek ekoitzitako adizki batzuk ez datoz beti bat testuinguruko pertsona-markekin, eta, aurreko ataletan ikusi den legez, pertsona-numero tasun konbinaketa batzuk dagozkien testuinguruak edota adizkiak zailagoak gertatzen dira beste batzuen aldean. Hala bada, *zaila* zer den zehaztuko dugu (7)an.

(7) *Zailtasunerako irizpidea.* Testuinguru edo adizki bat talde batentzat *zaila* dela esango da adibide kopuru sendo batean (haur bakoitzeko adibide bateko proportzioa, gutxienez) aurkitutako hutsen kopurua %20tik gorakoa bada.

Hiru taldeentzat adizki arazotsu direnen artean konta litezke *die-zien*, eta *diote-zioten* adizkiak ere, zail izateko bi baldintzak gutxigatik ez baitituzte betetzen: adibide-kopurua 12z beherakoa da, eta hutsen kopurua %20koa. (ikus *diote-zioten* H1 taldean). H2g taldearentzat adizki gehiago dira arazobide edo zailak direnak. Horien artean *du-zuen* formak gertatzen dira zailak lehen saioan, eta ia zailak bigarrenean, huts-kopurua muga-mugan agertzen baita H2g-IIan (%19). Bestalde, *ditu-zituen* ere oker erabili dute H2gekoek lehenengo saioan (10 adibideetatik 8), eta bigarrenean jada emankor eta ongi erabilita agertzen da adizki hau. 10. eta 11. grafikoetan ageri den *diote-zioten* adizkia ere arazo-iturri da H1 zein H2ko haurrentzat, baina erabat emankorra izan ezean ezin dugu "zailen" artean beti sartu, ez baitu zailtasun-irizpidearen adibide-ugaritasunaren baldintza betetzen. Hauek kopu-


ruak: H2g-Ieko lehenengo saioko 5 ekoizpenetatik 2 oker, eta H2g-II saioan 18tik 11 adibide desegoki.

Testuinguruei dagokienez, berriz, hirugarren pertsonako ergatibo pluralarekin bat datorren *dute-zuten* (360) adizkia gertatu da zaila, eta baita datibo plurala duten testuinguruak ere (*die-zien*, 336); hiru laginetako haurrentzat zailtasun-irizpidea osorik betetzen baitute. Esate batera, *die* bezalako forma espero zen testuinguru guztietatik (16 adibide H1 taldean eta 14 H2g-I taldean), bakar batean ere ez dute haurrek espero zen adizkia ekoitzi. Hiru laginetan akats-iturri den beste testuinguru bat *ditu-zituen* (630) da, H1ean adibide gutxi dituguneZ, lagin honetan (7)ren arabera ez da zail izatera iristen, baina H2geko haurrentzat zaila da lehen zein bigarren saioan.


Adizkien erabileran ikusitakoaren antzera, oro har, H2geko haurrek huts gutxiago egin ohi dituzte testuinguruetan ere 5;6eko adinarekin (H2g-II), sei hilabete lehenagoko saioarekin alderatuz gero. Bigarren saioan asko berdintzen dira H1ekoekin, eta inoiz H1ekoek baino emaitza hobeak ere lortzen dituzte, *die-zien*-en kasuan ikus daitekeen bezala.

Testuinguru eta ekoizpenetan aurkitutako zuzentasun-maila ikus daiteke adizkika, 10. eta 11. grafikoetan. Zailtasunerako bi irizpideak (<%80 zuzen, eta 11 adibide baino gehiago) betetzen dituzten testuinguru edota adizkiak biribilaren bidez adierazi dira, eta galdera ikurrarekin 12 adibide adina ez, edota hutsen ehunekoa %20ko mugan daukatenak. Ikur berezirik gabeko zutabeen bidez, berriz, akatsen batzuk agertu arren, haurrek menderatzen dituzten pertsona-konbinaketak adierazten dira. Labur esanda, haurrek adizki gehienak egoki erabiltzen dituztela ikusi arren, adizkien erabilera ez da helduena bezalakoa erabat, eta alde handiak ikusten dira testuinguru batzuetatik besteetara. Izan ere, pertsona-numero tasun multzo jakin batzuk konbinatzen diren testuinguru zenbaitetan, *dute-zuten* (360) eta *ditu-zituen* (630) adibidez, haurrek tarteka beste adizki batzuk erabiltzeko joera erakusten dute. Nahiz eta testuinguru horretarako egokia litzatekeen adizkia ezagutu eta erabiltzen duten gehienetan egoki erabiltzen duten (%>90 zuzen).

10. GRAFIKOA
TESTUINGURUAREN ARABERA ESPERO ZIREN ADIZKIEN ETA EKOITZITAKO ADIZKIEN ZUZENTASUNA H1 TALDEAN (%)



11. GRAFIKOA
TESTUINGURUAREN ARABERA ESPERO ZIREN ADIZKIEN ETA EKOITZITAKO ADIZKIEN ZUZENTASUNA H2geko BI SAIOETAN



5.4. Komunztadura: adizki jokatuak eta argumentuen kasu-markak

Komunztadura aditzaren eta bere argumentuen tasunen berdintasunean datza, bien pertsona, numero eta kasu-markak bat etortzean, alegia. Euskararen aditz-morfologia ugariak esaldiak zuzenak izatea ahalbidetzen du, NORK

kasudun S, NOR kasudun OZ edota S eta NORI kasudun ZO argumentuak agertu ezta ere (gogoratu (1)eko adibideak), pro-drop hizkuntzetan S markaketarekin gertatu ohi den bezala (Rizzi 1986). Argumentuok gauzatu gabe esaldiak zuzenak izate honek, ordea, zaildu egiten du galanki komunztaduraren azterketa, haurren ekoizpenetan batez ere; ikertzaileak beti ezin baitu erraz jakin "isildutako" izen-sintagmak zein nolako kasu edo numero-tasunak edukiko zituzkeen, haurrak esan izan balu. Beraz, ipuinari dagokion pasarteak edota aurreko edota ondorengo esaldietan agertzen diren pertsonaiek eman digute askotan argumentu isil horiek identifikatzeko bidea.

Esate batera, *zituen* (630) bezalako adizkiak dagozkien testuinguruetan, OZ 3. plurala isiltzeko joera nabaria ikusi da kontaketan, testuinguruarengatik OZ plurala dela jakin badaiteke ere, askotan. Komunztadura hutsak, beraz, bi eratakoak izan daitezke: a) *egitezko hutsak*, tasunen bati dagokion markaren ordez besteren bat egiteagatik, edo b) *ez-egitezko hutsak*, tasunari dagokion marka gauzatu gabe uzteagatik. H1 eta H2g taldeen artean aldea dagoela dirudi gai honetan, izan ere, H2g taldean bakarrik agertzen baitira zenbait ez-egitezko huts deitutakoak; esate batera, aditzaren OZ plural markarik gabeko adizkia (*zuen* 330) objektu plurala gauzatua duten esaldietan (8a,b). Horrelako adibideak H2g taldeko haurren erdien ekoizpenetan aurkitu dira, lehen zein bigarren saioan. H1 taldean, berriz, esperoko litzatekeen OZ pluralaren marka falta izatea da arruntagoa, baina ez adizkian bakarrik, baita izen sintagman ere (8c). Azken adibide hori, beraz, ez da komunztadura huts bat, kontaketan espero zitekeen plural tasuna ez gauzatzea baizik.

(8) a. *eta jan zuen* (330) *denak polloak* (H2-I 9); espero: *jan zituen* (630
b. *eta akabatu zuen denak oiloak* (H2-II 9); espero: *akabatu zituen* (630)
c. *ta dana akabatu zun* (H1 3); espero: *danak akabatu zituen* (630)

Zuen (330) moduko adizkien erabilera desegokia *zion* (333) bezalako datiboarekiko komunztadura espero den testuinguruetara ere hedatzen da. Komunztadura-testuinguru hau oso ugaria izan ohi da ipuin-kontakizunetan, *esan zion* aditz-formaren erabilera ugariak eraginda, besteak beste. Baina tes-

tuinguru honetan hutsen maiztasuna ez da handia (<%5) hiru laginetan[3], eta dauden huts apurrak *zuen* (330) *zion*-en (333) ordez erabiltzetik sortzen dira (9a,b), argumentu-datiboa esaldian gauzatuta egon arren.

(9) a. *ta esan zuen Mattin Zakuk bere amari* (H1 14) espero: esan zion
b. *Matxin Zaku(k) esan zuen erregeari* (H2-I 21) espero: esan zion

Emankorra ez izanagatik huts-iturria den beste testuinguru bat *zien*-ena (336) da. Gehienetan, *zion* (333) datiboaren plural-markarik gabeko adizkia ekoizten dute bere ordez hiru taldeetako haurrek. Gehienetan ZO isildutako esaldiak badira ere, badira zenbait adibide datibo markadun IS egonda, aditzek kasu-komunztadura bai baina numeroarena erakusten ez dutenak, denak H2g taldean. Hala, H2g-IIko 4 adibide okerretatik 3tan agertzen da datibodun argumentu plurala gauzatuta.

(10) *esan zion erregea(k) soldaduei* (H2g-II 5) espero: *esan zien*

Adibide honetan ikusten den bezala, ekoitzitako adizkia bat dator pertsona-tasunetan perpauseko argumentuekin (3. pertsona), eta ez-egitezko hutsa pluralaren markaketan datza.


Jarraian datozen (11a-c) adibideetan, berriz, ezin esan daiteke komunztadura-akatsa dagoenik, ez behintzat pertsona eta kasu-tasunetan. Akatsa izen-sintagmaren kasu-markaketan dago, haurrak ez baititu Mattin Zaku ipuinaren araberako errol tematikoak gramatika-marka egokien bidez adierazi. Esate batera, (11a)-ko *otsoa*-ri, jasalea izanda, ez dagokio *–kin* soziatibo atzizkia, baizik eta absolutiboa, (11b-c) datibodun objektuekin gertatzen den bezalaxe.

(11) a. *eta otsoakin topatu zuen* (H1-3) espero: *otsoa topatu zuen (?otsoarekin topatu zen)*
b. *azazkalakin danai akabatu zion* (H1-6) espero: *danak akabatu zituen*
c. *eta eman zioten suari* (H2I,31) espero: *eman zioten sua* (*?eraman zuten sutara*)

[3] Adibide bakarra H1 taldean.

Izen-sintagmetan aurkitutako hiru gramatika-kasu marken zuzentasunaren ehunekoak 12. grafikoan bildu dira. Esaldietan ekoitzitako argumentuen kasu-markaketan aldeak daude, bai NOR, NORK eta NORI hiru gramatika-kasuen artean, eta baita H1 eta H2gren artean ere.

12. GRAFIKOA
EKOITZITAKO KASU-MARKEN ZUZENTASUNA HIRU LAGINETAKO ADITZ JOKATUDUN ESALDIETAN (%)



Hiru laginetako haurrek ergatibo-marka ekoitzi dutenetan egokia izan da beti (%100 inguru zuzen). Datiboaren kasuan zailtasun gehixeago agertzen dira H2g taldean. Halere, lehen saiotik (%78 zuzen) bigarrenera (%87 zuzen) akatsak gutxitu egiten dira. H1ekoek hutsen batzuk bakarrik erakusten dituzte, baina ezin esan daiteke datiboarekin zailtasunik dutenik, ez eta absolutiboaren erabilerarekin ere. H2g taldean, berriz, absolutiboaren erabilera da huts gehienen iturria, ekoizpenen %30ean beste kasu batzuen ordez agertzen baita (ia beti ergatiboaren ordez), goragoko zenbait adibidetan ikusi den bezala (9b, 10). Huts-mota hau, gainera, oso hedatuta dago H2geko kideen artean, izan ere, haur guztiek egin baitute mota honetako akatsen bat H2g-II saioan ere.

6. Emaitzen inguruko eztabaida

Lan honetan jakin nahi izan duguna zera izan da, ea zer erakuts diezaguketen bost urteko haurren ekoizpen-datuek balizko H1 eta H2g jabetze-moduen arteko aldearen inguruan. H1 eta H2 goiztiarrak alderatzeko, kontuan izan beharra daude adina, *adin kronologikoa* dei dakiokeena, eta *hizkuntza-adina*, edo hizkuntzarekin izandako harreman-denbora (entzule edo hiztun bezala), definizioz ezin baitira adin kronologiko bereko eta hizkuntza-adin bereko bi H1 eta H2g jabetze-modu aurkitu. Bi taldeen arteko alderaketan, beraz, lehenengo ikusi dugu ea adin kronologiko bereko euskara H1 eta H2g-dunek berdin jokatzen duten hizkuntza-eginkizunetan. Eta ondoren, euskara inguruan denbora bertsuan izandako H1 eta H2g taldeak alderatu dira, hau da, hizkuntza-adin bertsuko taldeak.

Euskararen gramatikaren ezaugarri berezkoa da aditz jokatuak subjektu-objektuen tasunekin bat etorri beharra pertsona, numero eta kasuan. Tasun horien bat etorri behar hori, gainera, derrigorrezkoa izanik, biziki erakargarria gertatzen da hizkuntza-gaitasunaren azterketarako, euskararako gaitasuna duen ororen ezaugarri nagusi bihurtzen baita NOR, NORI eta NORK kasuen markaketa izen-sintagmetan zein aditz jokatuan.

Pertsonari dagokionez, aztertutako datuetan oso maiztasun-maila desberdina aurkitu da hirugarren pertsona hutsen arteko tasun-konbinaketak gertatu diren testuinguru-adizkien (adizkien ia %90 hiru laginetan) eta lehen edo bigarren pertsona-markaren bat espero edo gauzatu den testuinguru-adizkietan (%10). Ez da alde nabarmenik aurkitu H1 eta H2gren artean gai honetan, H2gren bigarren saioan lehen eta bigarren pertsonak zertxobait ugariago agertu badira ere (%16,5). Talde-mailako datuen arabera, zeharkako estiloaren nagusitasun argia islatzen dute pertsona-hautaketa hauek; berdintsua dena, gainera, H1 eta H2gean, eta bat datorrena H1 eta H2gren artean gaitasun-diskurtsibo mailako antzekotasunak daudela dioten beste lan batzuetako emaitzekin (Beloki et al 2005, Almgren et al 2008). Taldeetako norbanakoen datuei erreparatuta, ordea,

H2g taldeko 12 haurretatik 11k ekoitzi dute estilo zuzeneko pasarteren bat, lehen edo bigarren pertsonako markadun adizkiren bat erabiltzeak adierazten duen bezala, eta beraz, H2g taldean estilo zuzena erabilitako haurren kopurua handiagoa da H1ekoan baino (12 haurretik 7k).

Adizkien erabileraren zuzentasunari dagokionez, akats gutxi aurkitu dira bi taldeen artean, eta egiten dituzten huts-kopuruen artean, alde txikia nabarmentzen da (H1 %10 / H2g %15-12). Alde kuantitatiboak baino adierazgarriagoak dirudite H1 eta H2gren artean aurkitutako alde kualitatiboek.

Alde batetik, ekoitzitako adizkietan ikusi denez, bost urteko haurrentzat oraindik ere arazo-iturri diren pertsona tasun-konbinaketa batzuk badaude, haurrak ez baitira oraindik helduek bezalako adizkiak erabat erabiltzeko gauza. Zuzentasun-maila handiagoa erakusten dute H1ekoek hiru laginetan emankorrak diren bost adizkietan (5. grafikoa), oro har. *Mattin Zaku*ren kontaketan agertu beharreko lehen eta bigarren pertsonako markadun adizkiak egokiro erabiltzen dituzte, forma sendotzat har daitezkeenak ugariak dira, beraz. Halere, hirugarren pertsonen arteko konbinaketa batzuk (datibodun edota pluralekoren bat tartean dagoenean, gehienbat) akats-iturri dira haurren ekoizpenetan. Esate batera, hiru laginetan aurkitzen dira *dute-zuten, dio-zion, du-zuen, diote-zioten* adizkiak gaizki erabilitako adibideak, eta huts-kopuru handiagoa erakutsi ohi dute H2gekoek H1ekoek baino, gehienetan. Zailtasuna zehazteko irizpideen arabera (7), ordea, adizki zail bakarra aurkitu da ekoitzitako adizkien corpusean, eta zaila H2g taldearentzat bakarrik izan da, *du-zuen* mota hain zuzen. Adizki hau, emankorra izanik, beste batzuen ordez erabili ohi dute (%20) H2gekoek, eta gutxiagotan H1ekoek (%11). H2g taldearen bi saioak alderatuz gero, bigarren saioko adizki arazotsuen zuzentasun-maila kontuan izanda, H2g-IIko emaitzek H1ekoen antz handiagoa dute. *Die-zien* adizkia da salbuespen gai honetan.

Adizki-motetan ikusi den bezala, testuinguruetan ere pertsona-konbinaketa aukerak ugarixeagoak izan dira H2gean (9 mota emankor lehen saioan eta 10

bigarrenean), H1ean baino (7 mota). Hutsegite-maila handiagoa aurkitu da hirugarren pertsona hutseko tasunak zeuden testuinguruetan, eta hiru taldeetan gertatu da. H1ekoek %10ean huts egin dute testuinguru hauetan, H2koek %16an lehen saioan eta %12an bigarrenean. Badira hiru laginetan hutsak aurkitu diren testuinguruak, *du-zuen, dute-zuten, ditu-zituen, diote-zioten* eta *die-zien* adizkiak espero zirenetan, hain zuzen. Bost testuinguru hauetan denetan H2koek huts gehiago egin dituzte H1ekoek baino. Zailtasunaren irizpidearen arabera, hiru testuinguru dira zailak H2koentzat (*dute-zuten, ditu-zituen eta die-zien)*, eta hauetatik bi H1ekoentzat (*dute-zuten* eta *die-zien)*. H2ko lehen saiotik bigarrenera hutsegiteen maiztasunak zertxobait behera egiten badu ere, lehenengo saioan zailak diren testuinguruak bigarren saioan ere halaxe gertatzen dira. Ezin esan daiteke, beraz, hobetze handiegirik dagoenik sei hilabeteko tartean.

Testuinguru eta ekoizpen-mailako datuak bateratuta, oro har, ez da pertsona-mailako hutsik aurkitu (3. pertsona besteren baten ordez erabiltzea, adibidez). Ia huts guztiak hirugarren pertsonen konbinaketetan izan dira, baina batez ere objektua biziduna edo plurala izan denetan. Batzuetan NOR-NORI-NORK *zion* paradigma edo NOR-NORK *zuen* paradigma hautatzeko garaian, eta inoiz NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK paradigmen artean ere bai; H1 eta H2g taldeetan. Subjektu pertsona-mailan ez da akatsik aurkitu talde bakar batean ere. Antzeko arazoak edo paradigma-hautaketa bereziak aurkitu izan dira etxetik elebidunen luzaroko ikerketetan ere (Ezeizabarrena 1996), eta inoiz baita euskalkien artean ere (Fernandez & Ezeizabarrena 2003). Emaitzok erakusten dute, pertsona-markaketa euskararen morfologiaren alderdi sendoa izanik, ez dela arazo haur euskaldunen aditz-paradigmen erabilera ikasteko garaian, ez H1ekoentzat ezta H2gekoentzat ere. Zailtasun handixeagoa sortzen dute, ordea, aditz barruko kasu eta numero-markek.

Pluraltasunaren zailtasunaren adibide dugu NOR-NORK *zuten* adizkia NOR-NORK *zituen*-ekin nahastea. Horrelako hutsak H2 taldeak egiten ditu nagusiki, eta lehenengo saioan batez ere.

Oro har, bi taldeen arteko aldea nabarmenagoa da H1 eta H2g-I alderatuz gero; H2g-II laginean H1ekoen antzeko emaitzak aurkitzen baitira gai honetan. Halere, badira H2g-II taldeak bakarrik ekoitzi dituen adizkiak, eta ez H1ean ez eta H2g-Iean aurkitu ez direnak: *die-zien* eta neologismoak. Adizkion ekoizteak argi erakusten du adin horretako haurrak trebeak direla testuinguruko tasunak antzematen, inoiz, bila dabiltzan adizkia oraindik eskuragarri ez badute ere bost urterekin. Horrela uler daitezke testuinguru-mailako hutsegite altua *die-zien*-ekin 10. eta 11. grafikoetan (gutxixeago 2.saioan) edota adizki berriak sortu beharra (*ireki zuetenean*, *zuten*-en ordez edota *eraman zaiete*, *ezazue*-ren ordez).

Izen-sintagmetako kasu-markaren azterketak ere emaitza interesgarriak eskaini dizkigu hiru gramatika-kasuen ekoizpenaren inguruan. Ekoizpenari erreparatuz gero, ergatibo kasu-markaren erabilera helduena bezalakoa da hiru laginetan, adibide bat edo beste kenduta; bost urteko haurrek ez baitute beste kasu-markaren baten ordez erabili. Datiboaren eta absolutiboaren kasuan, aldiz, emaitza desberdinak aurkitu dira H1ean eta H2an. Etxetik euskaldunak diren haurren ekoizpenetan hutsegiteak urriak dira (guztira 5 oker 157 datibo eta absolutibo adibidetatik); H2geko ekoizpenetan, aldiz, gehiago: 71 adibide oker 242 absolutibo + datiboko adibidetatik, lehen saioan, eta 95 oker 325etik bigarrenean. Datiboaren erabileran bakarrik %20ko hutsak erakutsi dituzte lehen saioan eta %13koak bigarrenean. Baina batez ere absolutiboaren erabilera "hedatuegia"-rena dute ezaugarri bi taldeon kontaketetako esaldiek. Izan ere, %30ean beste kasu bat esperoko litzatekeenetan agertzen dira zero marka absolutiboa duten izen-sintagmak, eta maiztasuna ez da batere aldatzen lehen saiotik bigarrenera; fosilizazio antzeko baten adierazgarri. Absolutiboaren erabilera hedatua, gainera, ergatiboa esperoko litzatekeen kasuetan gertatu da ia beti.

Gure laginetan ikusi dugunez, bost urteko haurren artean H1ekoek bereganatua dute jada izen-sintagmetako kasuak markatzea, ez ordea H2gekoek. Austin-ek (2007) 2-3 urteko haurrekin garatutako zeharkako ikerketan ere, ergatiboa isiltzea maiz gertatzen dela erakutsi du, bai elebidunen (%50,4) bai elebakarren

artean (%31,4), baina bi taldeen arteko aldea esanguratsua da. Lan honetako haurren eta Austinen haurren adinak desberdinak badira ere, emaitzak era bateratuan azal daitezkeela dirudi. Haur elebakarrek 2-3 urterekin %30 inguru huts egiten dute ergatibo-marka espero denetan, baina beti ekoizten dituzte, berriz, bost urterekin aztertutakoek. Adin bereko H2gdunek, berriz, huts asko egiten dituzte 2-3 urterekin (%50), asko oraindik 5 urterekin (%30). Garapenarekin batera menderatzen den zailtasuna izateko, oso aurrerapen txikia, bat ere ez, erakutsi dute gure H2geko haurrek sei hilabeteren buruan. Hutsen maiztasuna egonkor mantentzeak fosilizaio-gertakariaren hastapenaren antza du euskara H2 berantiarraren ezaugarri ezagun ere badena.

Bestalde, hizkuntzazko adin bertsuko H1 eta H2dunen arteko alderaketak erakusten du ikastolan hiru urte daramatzaten bost urteko euskara H2dun haurrek ez dituztela egiten bi-hiru urteko haur euskaldun elebakarrek egin ohi dituzten zenbait huts-mota, esate batera, adizki jokatugabeen gehiegizko erabilera (Ezeizabarrena 2003), edota hirugarren pertsonako adizkien erabilera (tarteka) bestelako pertsona esperoko zenetan (Barreña 1995). Egiten dituzte beste huts batzuk, ordea, H2gekoek eta haur elebakarrek ere bai, esate batera, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK paradigmetako formen arteko nahasketak, *zion* (333), *zuen* (330)en ordez (edo alderantziz) bezalakoak (Ezeizabarrena 1996, Fernandez & Ezeizabarrena 2003). Eskolan sei hilabete gehiago jardun ondorengo saioan (H2g-II) huts horiek urritu direla ikusi da, eta pentsatzekoa da urte pare baten ondoren huts horiek gainditua izango dituztela H2dun haurrek, H1ekoek bezala.

Kasuari erreparatuz gero, H2gekoek testuinguru askotan ez dute ergatiboa ekoitzi, H1dun haur txikien antzera (Barreña 1995, Larrañaga 2000, Almgren & Barreña 2001). Baina etxetik euskaldun diren haurrek (elebakarrak eta elebidun batzuek) ergatiboaren morfologia-marka 3-4 urterako menderatu ohi duten ohi duten bezala (Barreña 1995, Zubiri 1997, Elosegi 1998), gure laginetako H2dunen datuek ez dute horrelakorik espero izatera bultzatzen, ez baita urte erdian (H2g-I/H2g-II) batere hobekuntzarik ikusi haien ekoizpenetan (%30 huts bi saioetan).

7. Ondorioak

H1 eta H2g taldeen ahozko ekoizpenen artean dauden aldeak azaleratu ditu aztertutako corpusak. Ekoizpenak eta testuinguruak kontuan izanda, oro har, hutsen kopurua txikia izanik eta tasun batzuk sendoak izan arren (pertsona), badira kasua edota numeroa bezalako tasun ahul(xeago)ak direnak oraindik, bost urteko haurren aditz-izen mailako morfologia ekoizpenetan. Argumentu anitzeko tasunak dituzten formen erabileran bakarrik aurkitu dira zailtasunak, eta horiek objektuaren kasu eta numeroari dagozkie batez ere. Adizki berdintsuetan izan dira zailtasunak bi taldeetan, baina nabarmenagoak izan dira H2g taldean H1ean baino, bereziki lehenengo saioan. Bi taldeak bereizi dituena *duzuen* adizkeraren erabilera hedatuegiarena izan da H2gean, objektu plural edota datibo-markaren bat duten adizkien ordez erabilita. Izen-morfologian, berriz, ergatibo-kasuaren ahulezia nabarmentzen da H2gean, askotan absolutibo *besterik ezeango* (default) kasuak ordezkatua. Bi ezaugarri hauek har daitezke euskara H2g, H1etik bereiztearen adierazgarri. Gure ustez, ezin esan daiteke, ordea, oraindik, bi ezaugarri hauek gaztelaniaren eraginaren ondorio direnik; Austinek (2007) ergatiboarentzat dioenaren kontra, gaztelaniarekin desberdinak diren euskararen beste ezaugarri batzuk menderatzen baitituzte H2g taldeko haur hauek berauek. Esate batera, aditzaren argumentu anitzekiko komunztaduraren derrigortasuna (neologismoak adibide).

Hizkuntza entzun edo hitz egindako denboraren eraginak, ordea, ez dirudi berdin eragiten duenik adizkien morfologiaren garapenean eta izen-sintagmetako kasu-morfologiaren garapenean. Adizkien morfologia ikasteak komunztadura-arauak ezagutzea eskatzen du (tasunak, derrigortasuna, marka jakinak) eta baita paradigmetako forma-zerrenda osoa ere. Morfologia-hiztegi osoaren erabilera menderatzeak eskatzen duen denbora, nonbait, bost urte baino gehiagokoa da H1ekoentzat, baina ziurrenik, laburragoa H2gekoentzat. Aurreikusi zitekeen bezala, bi taldeetako haurrek oraindik hutsak egiten dituzte adizki konplexu batzuetan, baina horietan bakarrik. Zuzentasun-mailen

arteko hurrenkera horrela antolatzen da: H1 (5 urte euskaraz) > H2g-II (3;6 urte, egun erdiz, euskaraz) > H2g-I (3 urte, egun erdiz, euskaraz).

Bestalde, izen-morfologiari dagokionean, esaldian gauzatutako argumentuekiko komunztadura *ez-egitezko* hutsak bi taldeek egiten badituzte ere, *egitezko hutsak* H2geko taldean bakarrik aurkitzen dira (H1ean salbuespenen bat, besterik ez). Ikusitakoaren arabera, ziurrenik, adizkiak menderatzeko baino denbora gehiago beharko dute H2gekoek komunztadura menderatzeko. Eta gehiago oraindik, ergatiboaren kasu-markaketa H1dunek bezala egiteko, menderatzez gero.

Amaitzeko, beraz, aztertutako datuok zera erakutsi dute: hizkuntzarekiko hasiera-adinak eragina duela hizkuntzaren jabekuntzan, izan ere, aldeak aurkitu ditugu, 2-3 urterekin, txikitatik hasita, euskaraz egiten duten haurren artean. Beraz, Meiselek (2007) H1/H2 bereizketarako proposatutako 4 urtetik aurrerako adina baino goizago koka genezake adinaren eragina: 2-3 urteetan. Adin bereko bost urteko H1 eta H2geko haurren morfologian parekotasun handiak egon badaitezke ere adizkien erabileran, bi alde kualitatibo aurkitu dira H1 eta H2geko emaitzen artean: esaldian gauzatutako argumentuekiko komunztaduran egitezko hutsak, eta zero kasu markaren erabilera hedatuegia ergatiboko testuinguruetan.

Bibliografia

ALMGREN, M. & BARREÑA, A. 2001, «Bilingual acquisition and separation of linguistic codes : ergativity in Basque versus accusativity in Spanish», in K.E. Nelson, A. Aksu-Koç & C.E. Johnson (arg.), *Children's Language. Interactional Contributions to Language Development,* Mahwah, Laurence Erlbaum, 27-48.

ALMGREN, M., BELOKI, L., IDIAZABAL, I.& MANTEROLA, I. 2008, «Acquisition of Basque in successive bilingualism: data from oral storytelling», in P. Siemund & N. Kintana (arg.) *Language Contact and Contact Languages*, Amsterdam, John Benjamins, 239-259.

ARRATIBEL, J., ZUBIZARRETA X. 2001, *Txomin Ipurdi*, Donostia, Erein.

AUSTIN, J. 2007, «Grammatical interference and the acquisition of ergative case in bilingual children learning Basque and Spanish», *Bilingualism: Language and Cognition* 10 (2007), 315-331.

BAMBERG, M.G. 1987, *The Acquisition of Narratives,* Berlin, Mouton de Gruyter.

BARREÑA, A. 1995, *Gramatikaren jabekuntza-garapena eta haur euskaldunak*, Bilbao, EHU-UPVren Argitalpen Zerbitzua.

BARREÑA, A. 1996, «Aditz-aldiaren erabilera goiztiarra haur euskaldun elebakar batengan», Hizpide, 35 (1996) 25-38.

BARREÑA, A., GARCIA, I., EZEIZABARRENA, M.J., ALMGREN, M., ARRATIBEL, N., OLANO, I., BARNES, J., PETUYA, A. & COLINA, A. 2008, *MacArthur-Bates Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda,* Bilbo, UEU.

BARREÑA, A., EZEIZABARRENA, M.J. & GARCIA, I. 2008, «Influence of the linguistic environment on the development of the lexicon and grammar of Basque bilingual children», in C. Pérez-Vidal, M. Juan-Garau & A. Bel (arg.), *A Portrait of the Young in the New Multilingual Spain,* Clevedon, UK, Multilingual Matters, 86-110.

BELOKI, L., EZEIZABARRENA, M.J. & MANTEROLA, I. (prentsan), «Morfología verbal temprana en narraciones de euskera L1 y L2», in *XXV Congreso de la Asociación Española de Lingüística Aplicada*.

BELOKI, L., IDIAZABAL, I. & MANTEROLA, I. 2005, «Bost urteko haur elebidunen euskarazko ipuin-kontaketak», Bat Soziolinguistika Aldizkaria, 56 (2005) 79-94.

BERMAN, R.A. 2009, «Language development in narrative contexts», in E.L. Bavin (arg.), *The Cambridge Handbook of Child Language*, Cambridge, CUP.

BERMAN, R. & SLOBIN, D. 1994, *Relating events in narrative: a crosslinguistic developmental study,* Hillsdale, New Jersey, Lawrence Erlbaum.

BRONCKART, J.-P.1996, *Activité langagière, textes et discours. Pour un interactionnisme socio discursif*, Paris, Delachaux et Niestlé. [Gaztelaniazko itzulpena] 2004, *Actividad verbal, textos y discursos. Por un interaccionismo socio-discursivo*, Madrid, Infancia y Aprendizaje.

DE WECK, G. 1991, *La cohésion dans les textes d'enfants,* Paris: Delachaux et Niestlé.

ELOSEGI, K. 1998, *Kasu eta preposizioen jabekuntza-garapena haur elebidunbatengan*, EHU/UPVko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.

EUSTAT. 2001, www.eustat.es.

EZEIZABARRENA, M.J. 1994, «Primeras formas verbales de concordancia en euskara», in J.M. Meisel (arg.), *La adquisición del vasco y el castellano en niños bilingües,* Frankfurt, Vervuert, 181-230.

EZEIZABARRENA, M.J. 1996, *Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niños bilingües,* Bilbao, EHU-UPVko Argitalpen Zerbitzua.

EZEIZABARRENA, M.J. 2003, «Null Subjects and optional infinitives in Basque», in N. Müller (arg.), *(In)vulnerable Domains in Multilingualism*, Amsterdam, Benjamins, 83-106.

EZEIZABARRENA, M.J. & Larrañaga, M.P. 1996, «Ergativity in Basque: a problem for language acquisition?», Linguistics, 34-5 (1996) 955-992.

FERNANDEZ, B. & EZEIZABARRENA, M.J. 2003, «Itsasaldeko solezismoa, datiboaren lekualdatzearen argipean», in J.M.Makatzaga & B. Oihartzabal (arg.), *P. Lafitteren sortzearen mendemugako biltzarra.Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. Mendearen atarian,* Bilbo : Euskaltzaindia, 255-278.

LARRAÑAGA, P. 2000, *Ergative Sprachen, akkusative Sprachen. Der Erwerb des Kasus bei bilingualen Kindern*, Franfurt am Main: Vervuert.

MEISEL, J. 2007, «Child second language acquisition or successive first language acquisition?», *Arbeiten zur Mehrsprachigkeit- Working Papers in Multilingualism,* Hamburg, Sonderforschungsbereich Mehrsprachigkeit, 33-64.

Nafarroako Estatistika Zerbitzua. 2001, www.cfnavarra.es/estadistica.

PLAZAOLA, I. 1990, «Ipuin kontaketa euskaraz: aditzaren funtzionamenduaz zenbait elementu», in I. Idiazabal (arg.), *Hizkuntzaren psikopedagogia,* Bilbo, Labayru.

PLAZAOLA, I. 2007, «Euskal intertestua : hiru diskurtso tipoen funtzionamendua», in I. Plazaola & M.P. Alonso Fourcade (arg.), *Testuak, diskurtsoak eta generoak. Euskal testuen azterketa korrontea*, Donostia, Erein, 77-100.

RIZZI, L. 1986, «Null objects in Italian and the theory of pro». *Linguistic Inquiry* 17, 501-557.

SERRA, M., SERRAT, E., SOLÉ, R. BEL, A. & APARICI, M. 2000, *La adquisición del lenguaje*, Barcelona, Editorial Ariel S.A.

Soziolinguistika Klusterra. 2006, *Kale erabileraren neurketa. Zumaia.*

TRASK, R.L. 1981, «Basque Verbal Morphology», *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak. Iker 1*. Bilbo, Euskaltzaindia, 285-304.

ZAWISZEWSKI, A. 2006, «Perpaus egituraren urraketak euskaldun goiztiar eta berantiarrengan *Gertaerei Loturiko Potentzialen* bidez», in B. Fernandez & I. Laka (arg.), *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*, EHU/UPVko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 915-931.

ZUBIRI, J.J. 1997, *Izen sintagmaren determinazioaren eta kasuen jabekuntza eta garapena hiru urte arte (Goizuetako bi haur euskaldun elebakarren jarraipena),* argitaratu gabeko Doktorego Tesia. EHU/UPV.

Euskararen ikaskuntza H1 eta H2 gisa 5 eta 8 urte bitartean

ALMGREN, Margareta
Unesco Etxea

IDIAZABAL, Itziar
Euskal Herriko Unibertsitatea

MANTEROLA, Ibon
Euskal Herriko Unibertsitatea

Sarrera data: 2009-11-09
Onartze data: 2009-11-26

Euskera. 2009, 54, 2-1. zatia, 683-721. Bilbo
ISSN 0210-1564

Artikulu honetan euskara egoera soziolinguistiko desberdinetan ikasi duten bi ikasle-talderen 5 eta 8 urte arteko euskararen garapena aztertu dugu. Talde bat etxetik euskalduna eta euskaraz eskolatua den bitartean, bestea etxetik erdaldun izanik euskaraz D ereduan murgilketa bidez eskolatu diren ikasleek osatzen dute. Bi haur-taldeek ekoiztutako ahozko ipuinen azterketan oinarritu gara 5 eta 8 urte arteko euskararen garapena behatzeko. Aurrez heldu baten ahotik entzundako ipuin bat birkontatzea da haurrei eskatu zaien zeregina.Hainbat trebetasun testual-diskurtsibo aztertzen dira haurren ipuinetan: ipuin-kontaketaren egitasmo orokorra beregain hartzea edo kontaketarako autonomia, ipuinaren eduki tematikoaren antolaketa, aditzaren bitartez eraikitzen den kohesioa eta ardura enuntziatiboaren mekanismoak. Emaitzetan ikusten denez, bi taldeek antzeko gaitasunak dauzkate ipuin-kontaketaren hainbat alderditan. Bi taldeen artean agertu diren ezberdintasunak ez dira beti H1 taldearen aldekoak izan. Oro har, H2 taldekoek helduaren ahotik entzundako ipuina estuago erreproduzitzen dute, H1 taldeko haurrek "ereduarengandik" askeago diruditen bitartean. Ondorio orokor modura, haurren hizkuntza ikuspegi testual-diskurtsibotik aztertzearen pertinentzia aldarrikatzen da artikulu honetan.

Hitz-gakoak: Ipuina, euskara H1, euskara H2, autonomia narratiboa, denbora ainguraketa, ardura enuntziatiboa.

Este artículo analiza el desarrollo del euskera en alumnos de 5 y 8 años de edad que han aprendido esta lengua en contextos sociolingüísticos diferentes. Un grupo se compone de alumnos que tienen el euskera como primera lengua y han sido escolarizados en euskera, mientras que para el otro grupo la primera lengua es el castellano pero la escolarización ha sido en euskera en un programa de inmersión total y precoz. Nuestro estudio se basa en el análisis de narraciones orales producidas por estos dos grupos. La tarea encomendada a los alumnos consiste en la reproducción de un cuento narrado inicialmente por un adulto. Se analizan diversas capacidades textuales-discursivas: la autonomía narrativa o la capacidad de hacerse cargo de principio a fin de la actividad de contar un cuento, la organización del contenido temático del cuento, la cohesión verbal y los mecanismos de asunción de responsabilidad enunciativa. Los resultados muestran capacidades similares en ambos grupos. Las diferencias encontradas no son siempre favorables al grupo L1. En general, los alumnos del grupo L2 tienden a reproducir de manera más fiel el modelo adulto, mientras que los alumnos del grupo L1 parecen tomarse mayor libertad respecto

al modelo. Como conclusión general de este trabajo se destaca la pertinencia de analizar el lenguaje infantil desde un punto de vista textual-discursivo.

Palabras clave: Cuento, euskera L1, euskera L2, autonomía narrativa, anclaje temporal, responsabilidad enunciativa.

Cet article analyse le développement du basque chez les élèves âgés de 5 et 8 ans qui ont appris cette langue dans des contextes sociolinguistiques différents. Un groupe se compose d'élèves qui ont le basque comme première langue et ont été scolarisés en basque, tandis que pour l'autre groupe la première langue est l'espagnol mais la scolarisation s'est effectuée en basque dans un programme d'immersion totale et précoce. Notre étude repose sur l'analyse des narrations orales produites par ces deux groupes. La tâche confiée aux élèves consiste en la reproduction d'un conte dit initialement par un adulte. Différentes capacités textuelles-discursives sont analysées : l'autonomie narrative ou la capacité à se charger du début à la fin de l'activité consistant à dire un conte, l'organisation du contenu thématique du conte, la cohésion verbale et les mécanismes de prise en charge de la responsabilité énonciative. Les résultats montrent des capacités similaires dans les deux groupes. Les différences trouvées ne sont pas toujours favorables au groupe L1. En général, les élèves du groupe L2 tendent à reproduire fidèlement le modèle adulte, tandis que les élèves du groupe L1 semblent prendre plus de liberté par rapport au modèle. En conclusion générale de ce travail, on souligne la pertinence d'analyser le langage des enfants d'un point de vue textuel-discursif.

Mots-clés: Conte, basque L1, basque L2, autonomie narrative, ancrage temporel, responsabilité énonciative.

This article analyses the development of Basque in 5 to 8 year old students who have learned this language in different sociolinguistic contexts. One group is composed of students who have Basque as their first language and who have attended school in Basque, whilst the first language of the other group is Spanish but the schooling has been in Basque in an early and total immersion programme. Our study is based on the analysis of oral narratives produced by these two groups. The task given to the students was the reproduction of an original tale told initially by an adult. Several textual and discourse skills were

analysed: the narrative autonomy or the ability to take charge from beginning to end of the story-telling activity, the organisation of the thematic context of the story, the verbal cohesion and mechanisms of assumption of enunciative responsibility. The results demonstrate similar skills in both groups. The differences found were not always favourable to the L1 group. In general, the L2 group students tended to reproduce the adult model more accurately, whilst the L1 group students seemed to have taken greater liberty with respect to the model. As an overall conclusion of this work, the relevance of analysing child language from a textual-discursive point of view should be mentioned

Keywords: Story, L1 Basque, L2 Basque, narrative autonomy, tense anchoring, enunciative responsibility.

Sarrera

Euskal Herriko eskoletan euskara ikasten dela kontu ezaguna da. 1984 urtean abiatu ziren EIFE ebaluaketa programa aitzindariek (Gabiña et al., 1986, Sierra & Olaziregi, 1989, 1990) ongi erakutsi zuten etxetik euskaldun zenak, nahiz ez zenak, eskolaren bitartez euskara garatzeko aukera izaten zuela, beti ere zenbait faktoreen eragina bitarteko. Irakastereduaren, eremu soziolinguistikoaren, eskolako interbentzio motaren, eta beste aldagai batzuen arabera emaitza ezberdinak badaudela ere badakigu. Horren froga dira IVEI/ISEI (2005, 2006, 2008) erakundearen bitartez azken urteetan egin diren ebaluazio lan oparoak.

Gure ikerketak[1] ere eskolako elebitasuna aztertzea du helburu, baina datu orokor horiek baino apur bat areago joan nahi du. Haur eskolaren azken urtetik abiatu eta lehen hezkuntzan zehar euskarari dagokionez nolako garapena ematen den zehaztasunez aztertzea helburu duen ikerketa baten datuak eskainiko ditugu. Lan honetan 8 urte arterainoko garapena azalduko dugu. Etxe eta inguru soziolinguistiko euskalduneko haur talde baten datuak erreferentzia bezala erabiliko ditugu. Beste taldea, berriz, etxe eta inguruari dagokionean gaztelaniaduna izango da. Bi taldeak, eskolan 2 urterekin hasita, euskaraz eskolatuak dira. Ikusten denez, bi testuinguru soziolinguistiko ezberdinetan gertatzen den euskararen garapena konparatzen dugu. Aztergaia ipuina izango da, eskolan ohikoa den testu moldea, heldu bati entzun ondoren ikasleek ahoz birkontatua.

Bi talde hauen 5 urteko eta 8 urteko ipuinen azterketan hiru mailatako datuak begiratuko ditugu, Bronckarten (1996) testu arkitektura oinarri hartuta: testuaren azpiegitura orokorraren mailakoak, testuratze mailakoak eta ardura enuntziatiboaren mailakoak. 1.3. atalean zehatzago aurkeztuko ditugu haurrek ekoiztutako ipuinen aztergaiak.

[1] Ikerlan hau egiteko honako erakunde hauen laguntza jaso dugu: UPV/EHU (9/UPV 00033.130-13614/2001 proiektua), Eusko Jaurlaritza (IT-262-07 proiektua), eta MEC/MICINN (BFF2003-05196; HUM2006 - 11862 proiektua; FFI 2009 – 13956 proiektua).

Haurren hizkuntza garapena aztertzeko orduan asko erabili den baliabidea da ipuina (ikus Berman (2009), laburpen interesgarri baterako). Ahozko ipuina lantzea, bestalde, eskolan hain eraginkorra den hizkuntza idatziaren (literacy) abildadeak aurreikusteko eta garatzeko oso eraginkorra dela ere nahikoa ezaguna da. (Snow & Dickinson, 1990; Pearson, 2002; Schneuwly, 1986).

Euskara lehen hizkuntza (H1) nahiz bigarren hizkuntza (H2) bezala nola ikasten den aztertzeak, oro har, elebidunen hizkuntza jabekuntzan eta eskolaren (murgilketa ereduen) eraginaren gainean erakutsi interesgarriak eman ditzake. Izan ere, ia jaiotzatik elebidun (2H1) diren haur oso gazteen datu ugariek, euskara/gaztelaniari buruzkoek (esate batera, Barreña, 1995; Almgren, 2000, Almgren & Idiazabal, 2001; Meisel, 1994), nahiz beste hizkuntzetakoek (Meisel, 2001) garbi erakusten dute bi hizkuntzen jabekuntza era berezituan egiten dutela eta elebakarren antzeko garapena burutzen dutela. Aldiz, beranduago, edo ez era berean behintzat, elebidun bihurtzen diren haurrak gutxiago ikertu dira, salbuespenak salbuespen (Lanza, 2001, Verhoeven & Strömqvist, 2001, Strömqvist & Verhoeven , 2004; Meisel, 2007), eta gure lanak eremu honetan egingo luke ekarpena.

Artikulu honek egin nahi duen beste ekarpena hizkuntzaren ezaugarriei dagokiena da. Orain arte, eta euskaraz bereziki, batez ere gramatika alorreko ezaugarriak aztertu dira haurren hizkuntza garapenean. Ipuinekin lortu ditugun datuek hizkuntzaren garapena maila testual-diskurtsiboaren ikuspuntutik aztertzeko aukera ematen dute. Interes berezia du datu hauek ezagutzeak, 5 eta 8 urte bitarteko euskararen garapen prozesuari buruzko datu zehatzak ez baitira ezagutzen, ez euskara H1 denean, eta are gutxiago H2 denean.

Lan honetan, eta hasteko, datuak biltzeko eta aztertzeko erabili dugun metodologia aurkeztuko dugu. Ondoren, haurren ipuinen azterketak emandakoak erakutsiko dira. Bukatzeko, ondorioak aterako ditugu, eskola bidezko euskara H2ren garapenean arreta berezia jarriz.

1. Metodologia

1.1. Populazioa

Ikerketa honetan bi haur talderekin lan egin da. Talde bat, Zumaiakoa, H1 taldea deituko duguna, 24 haurrek (9 neska eta 15 mutil) osatzen dute, eta beren etxeko hizkuntza euskara izateaz gain, euskaraz daude eskolatuta, eta ingurune soziolinguistiko euskaldunean bizi dira (Zumaia, % 64.4 euskaldunak, Eustat, 2001). Beste taldea, Lizarrakoa, H2 deituko duguna, 37 haurrek osatzen dute (19 neska eta 18 mutil). Beren etxeko hizkuntza gaztelania da, eta bizi diren ingurune soziolinguistikoan gaztelania gailentzen da (Lizarra, % 6 inguru euskaldunak, Nafarroako Estatistika Zerbitzua, 2001). Dena dela, azken talde honetakoak ere euskaraz eskolatuta daude 2 urtez geroztik, D ereduan. Hau guztia aintzat hartuta, bigarren talde honetako haurrentzat euskara bigarren hizkuntza dela esan dezakegu.

1.2. Egoera esperimentala

Ikertzaileak Arratibel eta Zubizarretaren (2001) Txomin Ipurdi ipuinaren bertsio egokitu bat (Mattin Zaku) kontatzen die haurrei, bost edo seiko taldetan bilduta. Hamabi marrazkiz osatutako liburuaren laguntzaz kontatzen die ipuina haurrei, eta marrazki hauek ekintza zein egoera nagusien adierazle dira. Mattin Zaku ipuinaren hasierako egoeran bere amarekin bizi da, eta oso behartsuak dira. Aldaketa bat gertatzen da, ordea, Mattinek erregearen gaztelura joatea pentsatzen baitu (desorekaldia), dirua eskatzera, eta hala, bidean barrena abiatzen da zaku eta guzti (ekintzen garapena). Mattin Zakuk bidean hiru pertsonaia, azeria, otsoa eta ibaia, aurkitzen ditu, eta hirurak zakuan sartzen ditu. Gaztelura iristean, dirua eskatzen dio erregeari, baina erregeak oilo erraldoietara, zaldi basatien artera eta azken-azkenik herriko plazara, sutara, bidaltzen du. Egoera zail hauek gainditzeko hiru pertsonaiek laguntzen diote Mattin Zakuri. Azeriak oilo erraldoiak akabatzen ditu, otsoak zaldiak, eta ibaiak, berriz, sua itzaltzen du. Erregeak, azkenean, dirua ematea erabakitzen du (orekaldia), eta oreka sortzen da. Bukaerako egoeran, Mattin Zaku amarengana aberastuta iristen da, eta handik aurrera...

Helduak egin duen kontaketa entzun ondoren, seiko taldetik bi haur hartu, eta batek besteari kontatzen dio ipuina. Ipuina entzun duten gainerako haurrak beste gela batera eramaten dira. Haur kontalariak marrazkiak ditu lagungarri, baina ez dizkio haur entzuleari erakusten; ahal dela, deskripzio hutsak saihestu eta kontaketak ekoitz ditzaten. Ondoren, ipuina entzun duen haurrak hirugarren lagunari kontatuko dio, bospasei haurrek gauza bera egin arteko katea osatuz. Gelan bertan ikertzaile bat edo bi egoten dira, haurren jarduna grabatu eta argibideak emateko. Ondorengo hau da ematen zaien kontsigna: "ondo-ondo kontatu ipuina zure lagunari, grabatu egingo dugulako, eta gero haur txikiagoek entzungo dutelako. Gainera, zure lagunak beste bati kontatu beharko dio gero".

Saio guztiak grabatu dira bideoz, eta ortografikoki transkribatu, baina haurren ahoskera gordez. Adibidez, *naezu jun nerekin gaztelura* bezalako enuntziatuak ez dira bihurtu *nahi duzu joan nirekin gaztelura*. Adineko ikerlariak talde txiki bakoitzarekin egin behar izan dituen kontakizunak ere modu berean jaso eta transkribatu dira. Emaitzak aztertzeko orduan baliagarria izango zaigu informazio hau.

Haurren ipuinak biltzeko egoera komunikatiboa bi taldeetako haurrek 5, 8 eta 11urte zituztela errepikatu da, euskaraz zein gaztelaniaz. Honek elebitasunaren garapena modu jarraituan aztertzeko aukera paregabea ematen digu. Gogoratu, dena dela, lan honetan euskarazko 5 eta 8 urteko datuak izango ditugula aztergai.

1.3. Datuen azterketarako metodologia

Ahoz kontatutako ipuinak aztertzeko modu ezberdinak erabil daitezke, eta hala erabili dira ikerketa ezberdinetan, bakoitzak bere helburuen arabera. Gurean, haur euskaldun elebidunen euskararen garapena ezagutu nahi dugu, eta hizkuntza hau H1 edo H2 den kontuan hartuko da. Azter unitate bezala ipuina aukeratu da, eta berau aztertzeko Bronckartek (1996; ikus baita ere Larringan, liburu honetan bertan) testuaren osaera ereduan eskaintzen dituen hiru mailak izango dira irizpide nagusi. Lehenengoa azpiegitura orokorraren

maila da. Testua bere osotasunean hartzen da kontuan, eta bertan hiru alor begiratuko dira: a) ipuin-kontaketaren egitasmo orokorra beregain hartzea edo kontaketarako autonomia, b) ipuinaren eduki tematikoaren antolaketa; zehazki, ipuinetako bost sekuentzia edo faseak (Adam, 1992), eta c) egitura simetrikoaren osotasuna eta hasiera/amaierako moldeen egokitasuna aztertuko dira. Bigarren maila testuratze mekanismoen maila da, eta bertan sartzen dira konexioa eta izen eta aditz kohesioa. Testuari koherentzia tematikoa ematen dioten mekanismoak dira hirurak. Lan honetan aditzaren bitartez eraikitzen den kohesioa begiratuko dugu zehazki, eta horretarako ipuinaren hasiera ataleko denbora ainguraketa kontuan hartu eta denbora horren mantentzea eta kudeatzea behatuko dira. Hirugarren eta azken maila ardura enuntziatiboa bideratzen duten mekanismoen maila da. Modalizazio formak, ahots ezberdinen kudeaketa, ebaluazioak, eta iruzkinak lirateke bitarteko nagusiak testuari koherentzia pragmatikoa emateko (Bronckart, o.c.), eta zeresan handia dute entzulearengan eragin nahi den zentzu-efektuan. Azken maila honetan, beste bietan bezain ezaugarri zehatzak ez badauzkagu ere, hainbat baliabide bildu ditugu hizkuntza-garapenaren adierazgarri direnak.

Oro har, espero dugu 5 eta 8 urte bitartean ipuinak "gizendu" egingo direla, osatuago, zehatzago, adierazkorrago egingo direla. Ipuin-kontalariak bideratu behar duen elkarreraginaren elementu asko agertuko dira eta horiek identifikatzeko ahalegina ere bada lan hau.

2. Ipuinaren azpiegitura orokorra

Atal honetan ipuinaren kontaketa jardunean edukiaren kudeaketa nola egiten den ikusiko da. Ipuinaren luzera (hitz kopurua) bera adierazgarria izan daiteke eta datu horiek eskainiko dira, hasteko. Ondoren, haurrek ipuina bere osotasunean zenbateraino beregain hartzen duten ikusiko da, alegia, bere kasa hasi eta bukatzeko autonomiarik duten. Eta azkenik, ipuinaren bost faseko gainegitura aztertuko dugu, baita gainegitura barneko atalen arteko lotura edo simetriak zenbateraino agertzen diren ere.

2.1. Ipuinen luzera

Ikasleek testu geroz eta luzeagoak ekoiztea eskolako lorpen bezala ikusi izan ohi da (Pearson, 2002:136). Gure azterketan ez diogu hainbesteko baliorik eskaintzen luzerari (ikus ondorengo iruzkinak) baina, nolanahi ere, datu interesgarria izan daiteke.

1. TAULA
IPUIN LUZERAK (HITZ KOPURUAK)

	Batez beste	Ipuinik luzeena	Ipuinik laburrena
Helduaren eredua	554	565	543
Euskara H1 5 urte	195	362	99
Euskara H1 8 urte	293	391	183
Euskara H2 5 urte	272	546	139
Euskara H2 8 urte	348	479	249

Taula honetan haurren ipuinen hitz kopuruak jaso ditugu batez bestekoetan, eta baita talde bakoitzeko ipuinik luzeena eta laburrena ere. Ikus daitekeenez, helduak haurrei kontatutako ipuinen aldean, haurrenak laburragoak dira. Helduaren ipuinek, gainera, ez dute aldakortasun handirik erakusten hitz kopuruetan, alegia, helduaren ahotik haur talde ezberdinek entzundako ipuinek hitz kopuru oso antzekoak dauzkate.

Haurren emaitzei begiratuta, ikusten da bost urtetik zortzi urtera batez besteko hitz kopurua hazi egiten dela, bai euskara H1 taldean (195etik 293ra), eta baita euskara H2 taldean ere (272tik 348ra). Hala ere, aipagarria da talde bakoitzaren barruan eta bi adinetan aldakortasun handia dagoela. Ipuinik luzeenaren eta ipuinik laburrenaren arteko diferentziei begiratu besterik ez dago. Ia kasu guztietan ipuinik luzeenak laburrenak baino bi edo hiru aldiz hitz kopuru handiagoa dauka. Hau bereziki H2 taldeko 5 urteko ipuinetan ikusten da, ipuin laburrenaren eta luzeenaren arteko aldea 407 hitzekoa baita.

H1 eta H2 taldeak konparatuta, azpimarratu behar da bi adinetan H2 taldekoen batez besteko luzera H1 taldekoena baino altuagoa dela: 272 vs. 195 bost urterekin, eta 348 vs. 293 zortzi urterekin. Arrazoi bat baino gehiago proposatu nahi ditugu diferentzia hauen zergatia ulertzeko: lehenik eta behin, oso litekeena da arrazoi metodologikoak egotea honen atzean. 2.2. atalean esan dugu nola transkribaketa ortografikoak egin ditugun, baina haurrek ekoiztutako esamoldea bere horretan gordez. Honek bere eragina dauka ipuinetako hitz kopuruak kontatzerakoan. Adibidez, euskara H1 taldeko haurrek aditz laguntzailearen kontrakzioak egiteko joera daukate: aldaera estandarreko *joaten da* baino, askotan *jutea* esaten dute (eta hala transkribatzen da, jakina). Aldiz, H2 taldekoek, *joaten da* esaten dute. Hitz kontaketa ordenagailu bidezkoa denez, H2 taldekoei bi hitz kontatzen zaizkiena H1 taldekoei hitz bakarra kontatzen zaie.

Beste arrazoi bat izan daiteke H2 taldekoek H1 taldekoek baino gehiagotan amaitzen dituztela ipuinak bukaerako formularekin: *(eta) hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila Lizarrako plazan* (14 bat hitz) Eta hau bi adinetan gertatzen da.

Bi taldeetako hitz kopuruen arteko aldea ulertzeko beste faktore bat zehar estiloaren erabilpena izan daiteke. Dirudienez, H1 taldekoek joera gehiago daukate zehar estiloa erabiltzeko. H2 taldekoek, aldiz, estilo zuzena gehiago erabiltzen dutela ematen du. Orduan, H1 taldekoek nolabait pertsonaiek esandakoa laburtu egiten dute zehar estiloaren bidez, H2koek pertsonaien esanak hitzez hitz gehiago errepikatzen dituzten bitartean, horrela testuak luzatuz. Hona hemen adibide bat:

(1) behin batean Makin Zaku eta bere ama etxe batean bizi ziren / eta esan zion Makin Zaku amari / ama! hemendik ez o- ez oso urrutik gaztelu bat dago / ber- diru bilara diru bila joango naiz / (H2-33[2], 5 urte). 34 hitz.

(2) Mattin Zaku pobria zan bere amakin / ta / esan tzion bere amai gaztelu bat bilatu zula / ta errege eta ga- erregia zeola ta erregiai dirua e-eskatuko ziola (H1-12, 5 urte). 26 hitz.

[2] H2-33 darabilgu H2 taldeko 33. haurra adierazteko.

Eta azkenik, H2 taldekoen ipuinetan egitura narratiboko atalak osatuago daude, hau da, ipuinetako ekintza eta egoera gehiago agertzen dira H2 taldean, eta honek ere badu eraginik H2 taldekoen ipuinak luzeagoak izatean. Baina egitura narratiboaren kontu hauei 2.3. eta 2.4. ataletan helduko diegu sakonago.

2.2. Kontaketarako autonomia

Haurrek erakusten duten kontaketarako autonomia mailak hizkuntza garapenean haurrek dialogismotik monologismora ematen duten pausoa islatzen du. Izan ere, haur txikiek kontaketa jardueran egiten dituzten lehen pausoak helduen laguntzarekin egiten dituzte. Haurraren garapenaren ikuspegi vygotskiarrean funtsezkoa den helduaren paper erregulatzailea dakarkigu gogora: txikitan aurrena heldua da haurraren kontaketa jarduera erregulatzen duena. Heldua da haurraren eta haurrak egin beharreko ekintzaren (kontaketaren) arteko bitartekoa, eta haurrak geroxeago barneratzen du jarduera hori berak bakarrik edo bere kasa erregulatzeko gaitasuna (Matthey, 2003). Bost urteren inguruan, berriz, haurra helduarengandik "askatzen" hasten da, kontaketak modu autonomoan kudeatzen ditu, kontaketaren jarduera beregain hartuz. Azken finean, kontaketaren jarduera monologizatu egiten da (De Weck, 1994). Gure ustez, zentzu honetan ulertu behar da kontaketaren jabekuntzan bost urteko adina mugarri modura azpimarratu izana hainbat autoreren lanetan (Bamberg, 1987; Berman and Slobin, 1994; Serra et al, 2000).

2. TAULA
AUTONOMIA NARRATIBOA EHUNEKOETAN (%)

	Kontaketarako autonomia	Helduaren laguntza
Euskara H1 5 urte	87	13
Euskara H1 8 urte	100	0
Euskara H2 5 urte	89	11
Euskara H2 8 urte	92	8

2. taulak erakusten duenez, bi taldeetako haur gehienak bost urterekin Mattin Zaku ipuina modu autonomoan kontatzeko gai dira. Behin helduaren kontaketa entzunda, eta marrazkiak aurrean dituztela, ipuina euren kasa ekoizten dute haur gehienek. Azpimarratu behar da, gainera, ez dagoela apenas alderik bi taldeen artean.

Helduaren laguntza behar duten haurren kasuan, gure ustez bi laguntzamota bereiz litezke. Bestela esanda, bi dira kontaketa autonomoak eragozten dituzten faktoreak. Alde batetik, haur batzuek ipuin-kontaketaren jarduerari hasiera emateko ezintasuna daukate. Adibidez:

(3) H1-24, 5 urte.

Heldua[3]: *ta oain XXXri ipuia kontatuko diozu? /*

Haurra: *baietz! / esan dizut (4´´) bazen / e ba (10´´) ze / enaiz akordatzen ya e? /*

Heldua: *marrazkiai beitu eta akordatuko [zea] /*

Haurra: *[ez takit] /*

Heldua: *benga aber /*

Haurra: *bazen behin (asperena) ba (9´´) em /*

Heldua: *(7´´) a bai / aber marrazkia nik ere ikusi nahi det aber ze pasatzen zan marrazkian? a bai! / ze pasatzen da hor / XXX / Mattin Zakurekin?/*

Haurra: *ba dirua nahi zula /*

Heldua: *aaa! / ba segi! / badakizu /*

Haurra: *eta / e / nahi zuna dirua / e ba / amakin bizi zen e-ta bes-te e-eun batian / e ba / azeria bere atzetik juten zen eta esan tzun /*

[3] Oinarrizko zenbait transkribaketa-irizpide: enuntziatuen arteko mugak marra etzanaren (/) bidez; kortxete artean ([...]) agertzen diren ekoizpenak aldi berean ekoiztuak izan dira. X bidez, transkribatzaileak ulertzen ez duen silaba bakoitza.

Bigarren hitzartzean haurrak ipuin-kontaketa hasteko saiakera egiten du: *bazen / e ba*. Baina segundo batzuen ondoren adierazi egiten du bere ezintasuna, ipuinarekin ez dela akordatzen esanez. Helduak marrazkien laguntza proposatzen dio eta seigarren hitzartzean haurrak berriro ekiten dio kontaketari, baina oraingoan ere ezin. Azkenean, bigarren helduak marrazkiaren laguntza are esplizituagoa eskaintzen dio haurrari, pertsonaiaren izen eta guzti. Ipuina abiatzen duen egoera nagusiari buruzko galdera egitean (*ze pasatzen da hor / XXX / Mattin Zakurekin?*), haurrak zuzen erantzun (*ba dirua nahi zula*), helduak balorazio positiboa egin eta haurrari hitza eman (*aaa! / ba segi! / badakizu*), eta azkenean, haurrak kontaketaren kontrola hartu eta ipuina bukaera arte kontatzen du (hamargarren hitzartzean hasita). H1 taldean autonomoak ez diren haurren kasuak orain deskribatu dugun honelakoak dira. Eta gauza bera gertatzen zaie 5 urteko H2 taldeko lau haurrei.

Honez gain, H2 taldean bakarrik ikusi dugun gertaera bat aipatu nahi dugu. Haurrek bere kabuz kontaketa eten egiten dute hiztegi mailako arazo batek eraginda. Gure ustez, ezin da esan autonomia faltagatik denik, edo behintzat, ez da aurrez ikusitako autonomia-falta berbera. Kontaketa aurrera eramateko zailtasunak izanda ere, haurrak beraiek dira interakzio egoera kudeatzen jarraitzen dutenak, helduari galdera eginez, helduaren laguntzaren zain geratu beharrean:

(4) H2-6, 5 urte

Haurra: *eta ireki zion erregea / eta esan zioten / eraman e oilo-tegira / a e: (4´´) oilar elaldoiak (=erraldoiak) txikitzeko (5´´) eta oilategian atera e: esan zion m: m: e: // e: (4´´) nola esaten da hau? (marrazkia seinalatuz) /*

Heldua: *a:- /*

Haurra: *a:- /*

Heldua: *ze-? /*

Haurra: *a- /*

Haurra2: *azeria /*

Haurra: *azeriari / atrapatu oiloak / eta eta eta atera zuen zakuatik eta / e txikitu egin zuten /*

Adibide honek erakusten du kontaketaren jarduera ingurukoaren (helduaren eta beste haurraren, kasu honetan) laguntzarekin erregulatzen dela. Helduari laguntza oso modu esplizituan eskatzen dio haurrak (*nola esaten da hau?*) marrazkia eta guzti seinalatuz. Helduak, hasieratik erantzuna eman beharrean, pertsonaiaren izenaren lehen hotsa bakarrik eskaintzen dio laguntza gisa eta haurrari hitza bilarazten dio (2 eta 5 hitzartzeak). Baina azkenean entzuten dagoen haurrak ematen du soluzioa (6. hitzartzea), eta soluzioa errepikatuta, haurrak bere kasa aurrera jarraitzen du kontaketarekin.

Zortzi urterekin haurrek erakusten duten autonomia maila dela eta, 2. taulan ikusten da H1 taldeko haur guztiak gai direla ipuina hasi eta buka bere kasa kontatzeko. Garapena argia da, zentzu honetan. H2 taldean, berriz, zortzi urterekin oraindik hiru haurrek laguntza behar dute kontaketa aurrera eramateko.

Badago, ordea, atentzioa deitu digun gertaera bat. Haur batzuek hiztegi mailan zehaztasuna bilatzen dute, eta horrek helduari galderak egitera daramatza (5):

(5) H2-28 8 urte

Haurra: *bazen behin Mattin Mattin Zaku eta bere ama / baserri batean bizi ziren / eta oso: / oso: / (3") / pobrea nola esaten da? /*

Heldua: *hori da / bai bai / horrela / ondo /*

Haurra: *oso pobreak ziren // egun batean / erregengana joan zi- joan zen Mattin Zaku /*

Adibide honetan ikusten da haurrak jakin badakiela *pobrea* nola esaten den (konturatu ez duela esaten *nola esaten da pobre?*, hau da, gaztelaniazkoa ez duela ematen, baizik eta euskarazkoa, *pobrea*). Baina hala ere, euskarazko hitz "zehatza" eskatzen dio helduari, agian, zergatik ez, *behartsu* eskatzen dio. Hel-

duak, ordea, *pobrea*-k balio duela irizten dio eta ondorioz, haurrak ipuina kontatzen jarraitzen du.

(6) H2-25 8 urte

Haurra: dirua nahi dut! dirua nahi dut! / esan zuen / ireki zi- zuen atea eta: // nola esaten da esposa? (Helduari galdetuz) /

Heldua: e? /

Haurra: esposa /

Heldua: lotuta / esan lotuta /

Haurra: eta eskuak lotuta jarri zitzaio- / zi:- / zituzten // erregearengana eraman zuten /

Beste adibide honek ere haurrek zortzi urterekin zehaztasunera jotzeko daukaten joera erakusten du. Ez, ordea, aurreko adibidean bezala, hiztegi mailako zehaztasuna bakarrik. Kasu honetan, ipuineko ekintzen xehetasunak eman beharrak sortu dio haurrari hiztegi mailako ezintasuna. Bost urteko kontaketetan ez bezala, protagonista eskuburdinekin lotu izana bezalako deskribapenak ohikoagoak dirudite zortzi urterekin. Kuriosoa da, bide batez, helduaren eta haurraren arteko elkarrekintza honetan nola helduak haurrak eskatzen ez zion beste soluzio bat ematen dion. Alegia, haurrak *esposa* izenaren baliokidea eskatu eta helduak adizki bat eskaintzen dio. Eta honek, ikusten da 5. hitzartzean, komunztadura mailan eragozpenak sortzen dizkio haurrari.

2.3. Ipuinaren gainegitura narratiboa

Lehenago, 1.3. atalean aurreratu bezala, testuaren azpiegitura orokorraren mailan kokatzen da ipuinaren gainegitura narratiboa (Bronckart, 1996). Gainegitura narratiboa, egitura narratiboa, sekuentzia narratiboa, istorio edota intriga egitura (ingelesezko "story structure" eta "plot structure"-en ordainetan, hurrenez hurren), antzeko aztergaiari eman zaizkion izen ezberdinak dira. Denek funtsean aztergai dutena da ipuin edo istorioetako eduki tematikoa

zein egituraren arabera islatzen den, hau da, istorioetako egoera, gertaera eta ekintzen planifikazioa zein egituraren arabera egiten den. Propp (1928 /1970) izango da ziurrenik ipuinetako edukiak egitura narratibo baten arabera antolatu zituen lehenetakoa. Haren 31 funtzioen eredua Larivaillek (1974) sinpletu ondoren, gaur egun oso hedatua dagoen proposamena Adamen (1992) bost ataleko sekuentzia narratiboa da. Proppek 31 ekintza zerrendatu zituen moduan, aurrena Larivaillek, eta azkenik, Adamek, ekintza horiek ataletan edo faseetan multzokatu eta istorio eta ipuinek bost ataleko egitura narratiboa daukatela aldarrikatzen da: hasierako egoera (lehen fasea), desorekaldia[4] (bigarren fasea), ekintzen garapena (hirugarrena), orekaldia (laugarrena) eta bukaerako egoera (bosgarren fasea)[5]. Hauxe da lan honetan haurrek ekoiztutako ipuinetako gainegitura narratiboa aztertzeko erabiliko dugun eredua.

Lehendabizi, ikusiko dugu ea haurren ipuinetan fase guztiak agertzen diren. Faseen agerrera erabakitzeko, hauek dira gure irizpideak: 1. fasean pobretasuna edo diru falta oinarrizko elementu bezala hartu dugu, eta 2. fasean diru bila joatearen erabakia. 3. fasean, ekintzen garapena orokorki garatzen dela argi dago, baina simetriak aztertzen direnean (3.4) sakonago aztertuko dugu fase hau. 4. fasearen elementu nagusia dirua lortzea da eta 5. fasean Mattin Zaku eta amaren egoera berria eta zoriontsua aipatu behar da.

[4] Lan batzuetan (Arbilla & Kaifer, 1988) indar transformatzailea eta indar orekatzailea erabili izan diren bezala (frantsesezko "force transformatrice" eta "force équilibrante"ren ordainetan), beste batzuetan desorekaldia eta orekaldia hautatu dira (Ocio, 1998). Guk ere Ocioren hautu bera egin dugu hemen.

[5] Koda edo morala ere gehi daiteke, bukaeran, baina ez da derrigorrezko atala.

3. TAULA
IPUINAREN GAINEGITURA 5 ETA 8 URTEREKIN EUSKARA
H1 ETA H2 DENEAN EHUNEKOETAN (%)

	1. fasea	2. fasea	3. fasea	4. fasea	5. fasea
H1 5 urte	41	79,16	100	91,6	83,3
H1 8 urte	91,6	83,3	100	91,6	95,8
H2 5 urte	81	86	100	100	86
H2 8 urte	92	97	100	100	100

3. taulan ikusten dugunez, euskara lehen edo bigarren hizkuntza izateak baino garrantzia gehiago dauka adinak datuen arteko diferentziak azaltzerakoan. Adinaren eragin hau batez ere H1 taldean da nabarmena: haur gehienek ez dute hasierako egoerako diru falta aipatzen 5 urterekin. 8 urterekin, berriz, ia denek egiten dute. Azken fasea ere gehiagotan agertzen da 8 urtekoen ipuinetan 5 urtekoetan baino. H2 taldekoen ipuinetan ere 8 urterekin faseak gehiagotan agertzen dira 5 urterekin baino.

2.4. Ipuinaren eduki tematikoaren simetriak eta haien kudeaketa

Lan honetan darabilgun gainegitura narratiboaren ereduak atalen arteko simetriak aztertzeko aukera ematen du. Simetria hauek ipuinen oinarrizko ezaugarria den eraldaketa prozesua islatzen dute. Horrela, lehen fasean edo hasierako egoeran pobretasuna (edo tristura...) dena, azken fasean edo bukaerako egoeran aberastasuna (edo poza...) bihurtzen da. Desorekaldian etxetik diru eske alde egitea dena, orekaldian dirua lortzea eta etxeratzea bihurtzen da. Eta azkenik, hirugarren atalean edo ekintzen garapenean, protagonistak hiru laguntzaile magiko bilatzeak beranduxeago pertsonaia gaiztoaren frogen aurrean laguntzaile horien laguntza jasotzea dakar. Eraldaketa edo simetria

prozesu hauek ipuineko edukien osotasuna islatzen dute, edo ipuineko edukiek osatzen duten batasuna. Orduan, haurren ipuinetan simetria hauek begiratuta ikusi ahal izango duguna da ea zenbateraino diren gai ipuineko edukiak osotasuna duen egitura baten arabera antolatzeko edo ordenatzeko. Haurrek ipuinak planifikatzeko dituzten trebetasunak eta gabeziak modu oso zehatzean aztertzeko aukera ematen digu honek. Lehendabizi, 2.4.1. atalean, batetik, hasierako egoera (1. fasea) eta bukaerako egoeraren (5. fasea) arteko simetria, eta bestetik, desorekaldiaren (2. fasea) eta orekaldiaren (4. fasea) arteko simetria aztertuko dugu (4. taulan). Ondoren, 2.4.2. atalean, ekintzen garapeneko simetriak (3.fasean) behatuko ditugu (5. taulan).

2.4.1. Hasierako eta bukaerako faseen simetriak

4. taulak adierazten du haurrek zenbateraino eraikitzen dituzten bi faseen arteko simetriak.

4. TAULA

HASIERAKO ETA BUKAERAKO FASEEN SIMETRIAK (%)

	1. + 5. faseak	2. + 4. faseak
H1 5 urte	29	71
H1 8 urte	79	96
H2 5 urte	73	86.5
H2 8 urte	92	97

H1 taldean 5 urteko adinean oraindik simetria arazoak argi agertzen dira. Hau da: hasierako egoerako pobretasuna eta bukaerako aberastasun egoera 7 kasutan bakarrik agertzen da. Aldiz, 8 urterekin haur gehienek simetria gordetzen dute.

H2 taldera pasata, 1. eta 5. faseetako simetriak argiago agertzen dira, eta 8 urterekin ia denek adierazten dituzte bai hasierako pobretasuna eta baita bukaerako aberastasuna ere.

Desorakaldiaren eta orekaldiaren arteko simetriei dagokienez, H1 taldean adinaren eragina nabaritzen da, eta 5 urterekin ez bezala, 8 urterekin ia haur denek simetria gordetzen dute. H2 taldean 5 urterekin dagoeneko haur gehienek fase biak kontatzen dituzte eta 8 urterekin denek, batek izan ezik.

Oro har, bi haur taldeak konparatuta, adinaren eragina argiago agertzen da H1 taldean H2 taldean baino eta bi taldeen arteko aldea batez ere 5 urterekin nabarmentzen da. Azkenik, bi taldeek, eta adin bietan, 1. eta 5. faseetako simetriak baino argiago azaltzen dituzte 2. eta 4. faseetakoak.

2.4.2. Ekintzen garapena faseko simetriak

Bukatzeko, ipuinetako 3. faseko edo ekintzen garapeneko edukien arteko simetriak begiratuko ditugu. 3. taulan ikusi dugun moduan, haur guztien ipuinetan ageri da atal hau, izan ere, gutxi asko denek kontatzen dute zerbait ekintzen garapeneko atalean. Baina orain aztergaia ez da ea garapen fasea egon badagoen ala ez, baizik eta elementu guztiak eta euren arteko simetria agertzen diren ala ez. Mattin Zaku ipuina aurkeztu dugunean (1.2), ikusi dugu nola hiru laguntzaile agertzen zaizkion Mattin Zakuri erregearen gaztelura diru bila doan bitartean. Bata bestearen atzetik hirurak sartzen ditu zakuan eta errege gaiztoak jartzen dizkion hiru froga maltzurren aurrean, hiru laguntzaileek, banan-banan, lagundu egiten diote Mattin Zakuri. Ipuinari osotasuna ematen dion simetria argia da: laguntzaileak ipuinean azaldu diren orden berean agertzen dira Mattin Zakuri laguntzeko. 5. taulan erakusten da ea haurrek simetria hauek zenbateraino adierazten dituzten euren kontaketetan.

5. TAULA

EKINTZEN GARAPENA FASEKO SIMETRIAK (%)

	Simetria osoa
H1 5 urte	66,6
H1 8 urte	91,6
H2 5 urte	81
H2 8 urte	100

Ikusten denez, H1 taldean aldaketa argia dago adinarekin: 8 urterekin ia ipuin denak simetrikoak dira ekintzen garapenean, 5 urterekin, berriz, sarritan ekintzen garapeneko elementu tematikoren bat edo bi falta da. H2 taldean ere adinaren araberako garapena ikusten da eta 8 urterekin haur denen ipuinetan ageri da simetria osoa.

3. Aditz kohesioa

Sarreran aurreratu dugun moduan, aditz kohesioa testuratze mekanismoen artean sartzen da (Bronckart, 1996). Testuan adierazten diren egoeren, gertaeren edota ekintzen antolaketa tenporala eta hierarkikoa markatzen da aditz kohesio mekanismoen bidez: testuaren oinarrizko denbora markatzea eta denbora hori testuan zehar mantentzea aditz kohesioari dagozkio. Halaber, aditz kohesioaren barruan sartzen da egoeren, gertaeren eta ekintzen artetik batzuk lehendabiziko planoan jartzea eta beste batzuk bigarren edo atzeko planoan jartzea (erliebegintza, Larringanen (1998) terminoa erabilita).

Ipuinen kasuan, kontuan hartuta bertan nagusia den diskurtso tipoa kontaketa dela (Bronckart, ibid.), oinarrizko denbora lehenaldia izan ohi da, eta hau lehenaldiko adizkien bidez adierazten da (baita lehenaldiko denbora markatzeko balioa duten testu-antolatzaileekin ere). Bestela esanda, denboraren ainguraketa lehenaldian egiten da eta ipuinean zehar denbora lehenaldian mantentzen da. Orainaldi balioa duten aditzen agerrera, berriz, elkarrizketa segmentuetara mugatzen da.

Haurrengan *Frog Story* (Mayer, 1969) kontaketetako denboraren adierazpena aztertu duten lan batzuek ainguraketa lehenaldian egiten dela (Berman, 1988; Stephany, 1994) erakutsi badute ere, beste ikerketa askotan justu kontrakoa ikusi da, alegia, haurrek Frog kontaketak orainaldian kokatzen dituztela (Bamberg, 1987; Hickmann & Roland, 1992, Sebastian & Slobin, 1995); kontraesan hau Akinçi & Kern (1998: 244) egileen lanean ere aipatzen da.

Are gehiago, orainaldiko aditzen erabilera handia haur txikien kontaketen ezaugarri nagusietako bat dela baieztatu izan da (Bamberg, 1987, Berman, 1988, Berman & Slobin, 1994), istorioak komunikazio egoeratik aparteko mundu diskurtsiboan kokatu ezinaren adierazgarri.

Datozen lerroetan, ikerlan honetan aztergai ditugun bi haur taldeen ipuinetan aditz kohesio mekanismoen funtzionamendua ikusiko dugu. Batetik, haurrek ipuinak zein denboratan ainguratzen dituzten ikusiko dugu eta, bestetik, oinarrizko denbora ipuinean zehar zenbateraino mantentzen duten begiratuko dugu.

3.1. Denbora ainguraketa eta mantentzea

6. TAULA
IPUINETAKO DENBORA AINGURAKETA
ETA DENBORA MANTENTZEA (%)

	Ainguraketa lehenaldian	Lehenaldian mantentzea	Lehenaldi-orainaldi jauziak	Lehenaldia-orainaldia txandakatzea
Euskara H1 5 urte	100	79.5	20.5	0
Euskara H1 8 urte	100	67	12	21
Euskara H2 5 urte	100	89.5	10.5	0
Euskara H2 8 urte	100	94	0	6

6. taulak adierazten duen bezala, haur guztiek, euskara H1 izan zein H2 izan, lehenaldian ainguratzen dute ipuina, bai bost urterekin eta baita zortzi urterekin ere. Jadanik bost urterako haur denek kokatzen dute istorioa komunikazio egoeratik kanpo dagoen "kontaketa mundu" batean. Eta zortzi urterekin berdin. Jarraian pare bat adibide:

(7) *bazen / behin / Mattin / Zaku izeneko mutil bat / eta amari / en esan tzion / en / ikusi zu- / entzun zuela / en er- / bere baserritik gertu / gaztelu bat zegoela / eta / en erregeak diru asko zuela /* (H1-10 8 urte)

(8) *bazen behin / m: / Martin izeneko mutiko bat eta esan zion bere amari / ama / gaztelura joango naiz / dirua / diru bila / zeren ziren pobreak /* (H2-2 8 urte)

Bi adibideetan haurrek ipuina lehenaldian ainguratzen dute, bietan ere *bazen behin* lehenaldiko aditza eta denborazko testu antolatzailea erabilita. Behin testuko denbora lehenaldian kokatuta, adibideetako bi haurrek lehenaldian jarraitzen dute *eta amari esan zion* esanez, eta horrela biek ere segidan elkarrizketa segmentu bat datorrela aditzera ematen dute. Jarraian zehazki begiratuko dugu ea haurrak nola moldatzen diren zati narratiboetan lehenaldiko denbora mantentzen. 6. taulako "lehenaldian mantentzea" zutabeari begiratuta, ikusten da bi taldeetan eta bi adinetan haurren gehiengoak lehenaldiko oinarrizko denbora bere horretan mantentzen dutela. Haur hauek ipuina lehenaldian ainguratu eta ipuin osoa lehenaldian kontatzen dute (orainaldiko elkarrizketa zatiak kenduta, noski). Beste haur batzuek, berriz, lehenaldian kontatzen dute ipuin ia osoa, baina tartean-tartean, halako batean, orainaldirako jauzia egiten dute. Adibidez:

(9) *hurrengo goizean / joan tzen eta / bidian / en aurkitu zuen azeri bat / eta esan tzion nora doan eta / erregearena doala / eta zakuan sartu zuen /* H1-10 8 urte

Denbora haustura deitzen denaren ohiko adibidea da hau. *eta esan zion nora doan* enuntziatuan *doan* orainaldiko aditzak kontaketaren denbora espero gabe hautsi egiten du.

Azkenik, "lehenaldia-orainaldia txandakatzea" zutabean bildu ditugu ipuinetako kontaketa zatietan bi denbora horiek txandaka erabilita ere, denbora hausturarik eragiten ez duten kasuak. Esate baterako:

(10) *ailegatu zen eta esan zuen / azeri! / atera / atera zakutik! / atera eta ñam ñam ñam / oilo guztiak / e / jan // hurrengo egunean morroiak joaten dira / ikustera ea da- dago eta hor lasai eserita / eraman dute erregearengana eta esaten du erregeak*

moio- morroiri / eraman zaldi salbajearengana / ea akabatzen dute beraiekin // orduan / ailegatu zen eta esan zuen / otso! / atera ham- / atera hemendik! / orduan / ñam ñam ñam / za- / e / zaldi guztiak jan zuten / H2-19 8 urte

Mattin Zaku ipuinaren bukaera aldeko zati bat da adibide honetan agertzen dena. Ikusten denez, kontaketa lehenaldian dator: *ailegatu zen eta esan zuen*. Gero, elkarrizketa zatiaren ondoren, berriro kontaketa segmentu bat dator, baina lehenaldian egin beharrean, haurrak orainaldira txandakatzen du: *hurrengo egunean morroiak joaten dira*. Eta orainaldian jarraitzen du: *eraman dute erregearengana eta esaten du erregeak*. Eta gero, atzera berriro ere lehenaldira aldatzen da denbora: *orduan / ailegatu zen eta esan zuen*. Lehenalditik orainaldirako jauziak badira ere, aurreko adibidearen aldean, bestelako fenomenoa ikusten da hemen. Ez dira inolaz ere denbora hausturak, espero ez direnak, nolabait "akats" modura har litezkeenak.

Aipagarria da, bestalde, H2 taldean gertatzen den fenomeno bat: haurrak konturatu egiten dira aditzaren denbora ez dutela behar bezala ekoiztu eta euren burua zuzentzen dute. H1 taldean, aldiz, ez da horrelako "auto-zuzenketarik" ikusi. Hona hemen adibide bat:

(11) *eta esan zion Matxin Zaku e ea nahi baduz- nahi z-nahi ba-zu: duzu / nahi bazuen etorri / eta esan zion baietz* (H2-9, 5 urte).

Aditz kohesioaren atal hau bukatzeko, esan daiteke oro har H2 taldekoak sistematikoagoak direla lehenaldiko oinarrizko denbora mantentzen H1 taldekoak baino. 5 urterekin bi taldeek egiten dituzten denbora-jauziak (gehixeago H1 taldean). Denbora-txandakatzeari dagokionez, adinarekin gehiago agertzen dela ikusi dugu, eta batez ere, H1 taldean.

3.2. Elipsiak

Aditz kohesio mekanismoen barruan, euskararen ezaugarri berezi bat aditz laguntzailea isiltzea da. Halakoetan, aditzaren denbora markak eliptiko bihurtzen dira. Ipuin-kontaketei dagokienez, eta bereziki ekintzen garapenaren fasean, aditz laguntzailea isildu egiten da, hala kontakizunak dinamika eta

bizkortasuna irabazten duela. Ipuin kontalaritzan ohikoa den baliabide hau, 5 urterekin apenas agertzen den. Aurkitu ditugun adibide bakarrak, H1 taldekoak izan dira (12). H2 taldean, laguntzaile isilduak baino ahaztutakoren bat gehiago dela esan genezake (13):

(12) ta / en / zakua hartu –tu –tu (4´´) (Ø) *ta jun tzen ya basotikan* H1-4, 5 urte.

(13) eta es- ere esan zion jateko zaldi guztiak / eta eta orduan en joan (Ø) berriz / esan zion erregea / H2-5, 5 urte.

Bigarren bilketan, alegia, 8 urterekin esandako ipuinetan, sarriago agertzen da baliabide hau. Eta oso antzerako joerak aurkitu dira bi taldeetan: H1 taldean 9 haurren ipuinetan ageri dira elipsiak, eta H2 taldean 12 haurren ipuinetan (talde osoarekiko proportzioak antzekoak dira). Hona hemen zenbait adibide ((14) eta (15) H1 taldekoak eta (16) eta (17) H2 taldekoak):

(14) ta / e gazteluko diru guztia bildu (Ø) eta eman in zion / H1-5, 8 urte.

(15) gazteluan / atea jo / ta jo (Ø) / eta azkenean / soldaduak etorri (Ø) eta / eraman egin zuten/ (...) ollategira eraman (Ø) eta / azeria atera zuen / H1-10, 8 urte.

(16) eta Martin baietz esan (Ø) eta zakuan sartu zuen / (...)orduan azeria e / zakutik irten (Ø) eta / e / zis zas / oilo guztiak jan zituen / (...)// orduan / ideia bat eduki (Ø) eta otsoa-ri deitu zion / H2-2, 8 urte.

(17) orduan / e / Mattin Zakuk azeria / e / poltsa barruan sartu (Ø) eta abiatu zen // (...)orduan ere ibaia e / poltsa barrura sartu (Ø) eta / eta pasa zuen / H2-5, 8 urte.

4. Ardura enuntziatiboa / komentarioak / koherentzia pragmatikoa

Testu arkitekturaren hirugarren maila honetan balio pragmatikoa duten alderdiak bilduko dira: ekintzen testuingurua edo eszenatokia zenbateraino zehazten den ikusiko da, eta baita ere ekintzen zergatiak eta kausa-ondorioak zein neurritan kontatzen diren. Halaber, pertsonaien barne egoerak, arazoen

konponbiderako prozesuak edota kontalariaren nahiz solaskidearen behar komunikatiboak agertzen diren behatuko da. Forma linguistikoen aldetik, ez dago forma unibokorik, balio bakar eta zehatza duenik, baizik eta erabilera askotarako baliagarriak dira gehienak: kalifikazioak, indargarriak (enfasiak), iruzkinak, esapide modalak, esaldi eginak (sententziak), esatariaren eta beste ahotsen eta ikuspuntuen presentzia adierazten dutenak...

Beste lanetan ere, nahikoa modu lausoan agertzen dira baliabide hauek. Ikerlari batzuek berformulazioak deitu diete (Martinot, 2000) adinean aurrera egin ahala haurrak bere ipuinak "gizentzeko", osatzeko, "erakargarriago egiteko" erabiltzen dituzten baliabideei. Quasthoff egileak (1997) dionez, 4/5 urterekin episodio narratiboak aditz hutsez ematen badira ere, 7 urte inguru dutenean haurrek episodioak osatu eta zabaldu egiten dituztela esaten digu. Shiro-k (2003), berriz, ebaluazio eta modalizazio baliabideez eta haien berantiartasunez hitz egiten digu.

Maila honetako baliabideen kuantifikatze lana ez da erraza, azken batean, elementu asko balioanitzak direlako eta zein multzotan kontatu erabakitzea beti-beti argia ez delako izaten. Ondoko adibideak haur berberak emanak dira 5 eta 8 urterekin. (19) adibidea (18) baino garatuagoa dela nahikoa argi dago, ekintzaren zailtasunari buruzko iruzkina osatuagoa egiten da bigarrenean:

(18) orduan konturatu zan zeola itsaso bat eta itsasua sartu zun e: / zakuan H1-10, 5 urte.

(19) ikusi zuen ***ibai haundi*** *bat zegoela eta / en* ***ezingo zuela pasa*** *eta /* ***hori ere bai*** */ zakuan sartu zuen/* H1-10, 8 urte.

Adibide hauei gainbegiratuz ondokoa behintzat esan daiteke:

Lexikoa zehatzagoa da (itsaso/ibaia) eta kalifikatua dator (19) adibidean (*ibai haundi bat).*

Ekintzaren zailtasuna zehazten da *(ezingo zuela pasa),* eta kontaketak eskatzen duen interakziorako elementu nagusia da hau.

Ipuinetan ohikoa da gertaeren errepikapena, generoaren ezaugarri garbia. "*Hori ere bai*" esaten denean anafora bidezko berrartze bat daukagu, baina aurretik esandakoekin lotura egiten du "*ere*" bitartez, eta hala gertakari errepikatua dela adierazten da.

Horrela bada, kuantifikazio gutxi batzuk besterik ez dugu emango azter maila honetan. Nagusiki, kualitatiboak izango dira gure analisiak, zenbait kategoriaren inguruan bilduak.

4.1. Ipuinetako iruzkinak

Talde bateko zein besteko ipuinen artean, badira batzuk non iruzkin oso gutxi edo inolako iruzkinik agertzen ez den. Ipuineko ekintzak biluzik bezala ageri dira testuaren egituraren arabera, aditz soilen arabera lerrotuta. Ipuinak nahikoa osoak izan daitezke baina ez dago baloraziorik ez ekintzari, ez testuinguruari (background), ez pertsonaien egoerari buruz. Dena dela, gutxi dira horrelako batere iruzkinik gabeko ipuinak, eta 5 urterekin aurkitzen dira nagusiki, 7 taulan ageri den bezala. Taula honek oso oinarrizko kontaketa adierazten du, iruzkin bakarreko ipuinak zein gehiagokoak multzo berean sartu direlako. 7. taulak erakusten du bi taldeetan 5 urterekin badaudela batere iruzkinik gabeko kontaketak, nahiz eta gehienetan iruzkinen bat edo batzuk ageri diren. Aldiz, 8 urterekin, ia ipuin denetan aurki daitezke iruzkinak.

7. TAULA
IRUZKINAK (%)

	Iruzkinak bai	**Iruzkinik ez**
Euskara H1 5 urte	71	29
Euskara H1 8 urte	91	9
Euskara H2 5 urte	81	19
Euskara H2 8 urte	100	0

Jarraian, 20 eta 21 adibideek haur berberaren ipuin zati bat erakusten dute, 5 eta 8 urterekin kontatu bezala, eta bertan ongi ikus daiteke iruzkindutako eta iruzkindu gabeko ipuinen izaera:

(20) *ta gero oilo handien zeara eraman tzuten ta / esan tzion / esan tzion / azeria! azeria! irten! irten! / ta / e / oiluak jan tzitun // ta gero esan tzun e / eramateko zeara / e / zaldietara // ta gero esan tzion / otsoa! otsoa! atea! / ta zaldiyak jan tzitun / ta gero esan tzun erregiak / e / sutan jartzeko ta /* H1-4, 5 urte.

(21) Mattin Zakuk esan tzuen / azeria atera! ta azeriak ***kris-kras kris-kras*** *oiyo* ***danak*** *jantzituen eta / en Mattin Zaku* ***lasai lasai gelditu zen*** *eta hurrengo egunean esan / jun tzien esklabuak eta esan tzuten /* ***ze ari da hemen lasai lasai Mattin Zaku?*** *ta orduan / en orduan esan tzion erregeak / eraman zaldigira! // eta zaldigira eraman zuten / eta erregeak esan tzion /* ***eta ez itzuli!*** / H1-4, 8 urte.

Nabari denez, adibide honetan agertzen diren iruzkinak modu askotakoak dira eta balio testual diskurtsibo eta enuntziatibo desberdinak izan ditzakete. Iruzkin mota ezberdinak bereizteko saio bat egin dugu.

4.1.1. *Ekintzari buruzko iruzkinak*

Ekintza adieraztea oinarri-oinarrizko hizkuntza jarduna da; ipuin batean, ezinbestekoa. Haien kateatzeak, testuak eskatzen dituen antolamendu kanonikoak nola egiten diren, lehen eta bigarren mailako azterketan ikusi ditugu. Hemen, ekintza edo egoeraren ezaugarriak eta zergatiak, kausa-efektu harremanak, zirkunstantziak, zailtasunaren esplizitazioak izango ditugu aztergai. Nolabait, ekintzaren adierazpena osatzen duten elementuak. Jarraian datozen adibideetan, binaka hartuta, haur berberak bost eta zortzi urterekin egindako ekoizpenak pareka litezke:

(22) ta gero / ***han tzeon*** *erregiaren gaztelua ta / e / ba /* ***ezin tzun pasa*** *ta /* ***hau ere / ba / zako barrura sartuko*** *zula pentsa-tze zun // ta / e / ya / e* H1-4, 5 urte.

(23) gero Mattin Zaku */ e: erri(yo)* ***handi handi bat i****kusi zun /* ***ta o luzea eta oso sakona ta orduan ezintzuen zeharkatu*** */ ta orduan esantzuen / erreka sartu boltsara eta boltsara sartu zen* H1-4, 8.

(24) / zegoenean oi- oi-lotegian esan zion azeriak / ni nahi dut irten! nahi dut irten! / oiloak daude hemen! / jango dituzu? / bai! bai! / oraintxe irtengo naiz! / eta ***irten zenean / jan behar zituen*** *oilo guztiak eta* ***jan zituenean*** *tripa loditu zion //* H2-14, 5 urte.

(25) // hor joan ziren erregearen morroiak eta Mattin Zaku *erregearen aurrera eraman zuten / esan zion erregeak / oilategira eramango zaitut /* ***eta bihar / ea nola zauden ikusiko dizut / oilo basatiak gose daude eh! / abisua / ematen dizut*** */ gero / oilategian / azeriari deitu zion / azeria! azeria! / atera zakutik! / eta azeriak oiloak jan zituen /* ***kris kras / mokadu batean barruan z- / bere tripan zeuden*** *//* H2-14, 8 urte.

Adibideetan ezaugarri asko azpimarratu ditugu, ekintza edo egoera zedarritu eta kontakizuna erakargarriagoa, solaskidearekin elkarreragin biziagoa sortarazten dutenak. Haur berberak bost eta zortzi urterekin egoera berean ekoiztutako adibideak garapenaren adierazgarriak dira.

4.1.2. *Bigarren, edo planoari buruzko iruzkinak*

Ingelesez *background* deitzen dena ipuinetako ekintzen atzeko planoa sortzeko erabiltzen den baliabidea da. Ekintzen artean maila edo erliebe ezberdinak bereizteko erabiltzen da (Larringan, 1998). Atzeko planoen bidez, ekintzak zein testuinguruak zehaztu eta indartu egiten dira, eta hala ipuinaren kalitatea, haren komunikazio balioa, indartu egiten da. Adibidez:

(26) eta ***ia ia*** *gaztelura iritsi zen /* ***baina*** *ibai / ibaia zegoen eta* ***ez zekien zer egin baina*** *ideia bat* ***bururatu*** *zitzaion / z- ibaia zakura sartzea / eta* ***hori*** *egin zuen //* H2-11,8 urte.

4.1.3. Protagonistei buruzko iruzkinak

Ondoko adibideetan ikusiko dugu nola askotan pertsonaiek ekintza hutsak egiteaz gain, pentsatu, bururatu, asmatu, eta bestelako barne gogoetak egiten dituzten. (27) eta (28) adibideek ongi erakusten dute maila honetan haur berberak egin duen aurrerapena. Lehenengoan ekintza biluziak ageri diren bitartean, bigarrenean, berriz, egoera zehazteaz gain barne gogoetak adierazten ditu. Gauza bera ikusten dugu (29) eta (30) adibideetan:

(27) eta geo erri (erriyo) bat luzia zan eta geo beste erri(erriyo) bat hartu zun (5´´) eta geo esan zun / jo zun atia / H1-5, 5 urte.

(28) "jun zan aurreaka ta / ibaya haun- / en luze bat ta zabala zon ta / ***pentsa - tzen hasi zen*** *aber ze in /* H1-5 8 urte.

(29) ta gero en / e jun tzan eta / bi-bide oso haundi haundi bat e: azaldu zan / da gero beste aldetik jun tzan / H1-9, 5 urte.

(30) ta / ibai luze eta zabal batekin to- topo in tzun / da san tzun / ***ta ideya bat euki zun*** */ ta en zea / esan tzun / ibaya sartu zaku barruan /* H1-9, 8 urte.

Gogoeta horiek esplizituki adierazten dituzte batzuetan (31,32). Harridura esapideak (ezin liteke!) eta egoera pertsonalak (lasai, haserre, nazkatuta,...) gero eta sarriago agertzen dira 8 urterekin.

(31) ba / gaztelu ***haundi haundi bat ikusi zula ta / harea jun nahi zula*** *dirua eskatzea (...) zaintzailleak etortzerakuan / esan zuen/* ***ala / ala / ezin liteke!*** */ eta erregearengana eraman zuten / (...) zaintzailleak etorri eta Mattin Zaku* ***horren lasai ikustean*** */ esantzuen /* ***ez da posible!*** H1-3, 8 urte.

(32) eta gero / erregea / ***asko haserretu*** *zen / eta / herriko plazan erretzea erabaki zuen /* H2-11, 8 urte.

4.2. Esapide modalak

Ipuin gehienetan galderazko eta harridurazko esapideak ageri dira. Ipuin honetan galde-erantzunak ezinbestekoak dira, eta oso sarri ageri dira galderak

eta haiekin batera harridurek ere presentzia handia dute, bai 5 eta baita 8 urterekin ere. Jakina da baliabide honek ipuinari bizitasuna ematen diola, solaskidearen arreta erakartzeko balio duela, eta ahozko kontaketan elkarreragina sortzeko bitarteko arrunta bezain emankorra dela:

(33) eta etxera iritsi zenean esan zion amari / ***aberatsak gara! aberatsak gara! oso aberatsak gara!*** H2-11, 5 urte.

(34) orduan erregeak esan / zuen / ***eraman zalditegira! / eta ez itzuli!*** */* H1-4, 8 urte.

Kontuan har, 33 adibidean, harridura esapidea hiru aldiz errepikatua datorrela, eta hirugarrenari "oso" gehitzen zaiola. 5 urteko ume honek bikain adierazten du dirua lortzeak sortutako poza eta hala amaitzen du ipuina erdiespena azpimarratuz.

4.3. Beste ahots batzuen ekartzeak, esapide eginak, orokortzeak.

Ipuinetan eduki bereziki interesgarriak dira ahots berrien sortzeak, ikuspuntu ezberdinak ekarri, eta haien hitzak kudeatzeak. Gizarte-ezagutzan dagoen zerbait, sententzia balioa duten esapide eginak agertzen dira ("entzun dut hortikan", "hemen alperrei ez zaie dirurik ematen"), eta hala espazio diskurtsibo berriak sortzen dira. Adierazpen hauek 5 urterekin noizbait agertu dira:

(35) / Matxin Zaku eta bere ama oso pobreak ziren eta esan zion Matxin Zaku amari / ***lasai ama / entzun dut er- / ez as- ez urrutik*** *gaztelu bat dagola eta han errege bat bizi dela / eta diru asko dauka* H2-2, 5 urte.

Baina gehien bat, 8 urtekoen artean erabiltzen dira. Ikus (36, 37) eta (38,39) haur berberek 5 eta 8 urterekin pasadizo berbera nola kontatzen duten:

(36) behin batean Mattin Zaku ies(=?) bere amari esan tzion / ba / gaztelu haundi haundi bat ikusi zula ta / harea jun nahi zula dirua eskatzea H1-3, 5 urte.

(37) ***entzun det handikan*** */ gaztelu bat daola / han erregiana ta aberatsak diala* H1-3, 8 urte.

(38) gero ireki zuten eta en oilategira eraman tzuten H1-18, 5 urte.

(39) eta gizonak eraman in tzuten kartzela / ze erregeak esan tzun / ***hemen alferrai eztieu ematen / bakarrikan lana in ber / du*** */ ta / orduan / eraman tzuten / /* H1-18, 8 urte.

Atal honetara ekarri ditugun ezaugarriak, ekintza nagusiaren ondoan gaineratzen den zerbait adierazten dute. Esaterako, oilategira (edo kartzelara ?) Mattin Zaku eramate ekintzaren muina berdina da bi adibideetan (38/39); baina erabakia eta haren arrazoiak azaltzen dira 8 urterekin. Eduki berri hauek dimentsio sozio-diskurtsibo garbia dute, eta ez dira kasualidadez edo norbanakoaren joera estilistikoaren ondorioak. Hori bai, haur batzuk beste batzuk baino gaitasun handiagoa erakusten dute, bakoitzaren ipuin kontalaritza esperientziaren garapen ezberdinaren seinale bezala ikusi behar dena.

Azterketa kualitatibo honetan, bestalde, ez dugu H1 eta H2ko haurren artean diferentzia nabarmenik ikusi. Testu arkitekturaren hirugarren azterketa maila honetan begiratu ditugun alderdi batzuk 5 urterekin agertzen dira, eta bi taldeetan agertu ere. Iruzkinak ere 5 eta 8 urterekin ageri dira, baina izaera eta aberastasun handiagoa ikus daiteke 8 urterekin. Beste ahotsak sortzea bestalde, kasik 8 urte arte agertzen ez den baliabidea dela esan dezakegu. Oro har, beraz, adinaren, eta jakina, esperientziaren eragina ikusten da bi taldeetan.

5. Eztabaida eta ondorioak

Artikulu honetan euskara egoera soziolinguistiko desberdinetan ikasi duten bi ikasle-talderen hizkuntza garapena aztertu dugu. Talde bat etxetik euskalduna eta euskaraz eskolatua den bitartean (H1 taldea), bestea etxetik erdaldun izanik euskaraz murgilketa bidez eskolatu diren ikasleek osatzen dute (H2 taldea). 5 eta 8 urte arteko garapena aztertu dugu bi taldeetan.

Ikasleen ipuin-kontaketetan aurrena azterketa kuantitatibo bat egin dugu, eta erakutsi dugu 8 urterekin ipuin luzeagoak ekoizten dituztela bi taldeetan,

nahiz eta oraindik helduen kontaketak baino laburragoak izan. Horrez gain, H2 taldeko ikasleek ipuin luzeagoak ekoizten dituztela ikusi dugu, bai 5 urterekin eta baita 8rekin ere. Dena dela, bi taldeetan eta bi adinetan talde barruko aldakortasuna azpimarratzeko modukoa da.

Neurri orokor hauez gain, ikasleek ipuina hasi eta bukatu euren kabuz zenbateraino egiten duten ere aztertu dugu. 5 urterekin ikasle gehienek ipuina kontatzeko autonomia handia erakusten dute, baina badira batzuk helduaren laguntza behar dutenak. 8 urterekin, eta batez ere H1 taldean, autonomia-maila altuagoa da. Ikasle guztiek ipuina hasi eta bukatu euren kabuz kontatzen dute. H2 taldean garapen hau ez da hain argia, ikasle batzuek oraindik ere helduaren laguntzaz kontatzen dutelako ipuina. Baina aipagarria da talde honetan hiztegi mailan zehatzak izateko nahiak daramatzala ikasle asko helduaren laguntza eskatzera.

Ipuinetako gainegitura narratiboa dela eta, lehen begirada batean ikusi dugu 5 urterekin Mattin Zaku ipuineko atal batzuk falta direla bai H1 eta bai H2 taldeetako ekoizpenetan. 8 urterekin, berriz, ipuinak osatuagoak dira. Aipagarria da H1 taldekoen ipuinetan hutsune gehiago agertzen direla, batez ere 5 urterekin, eta zehazki, hasierako egoerari dagokionez.

Gainegitura narratiboaren azterketa finagoa eginez, atalen arteko loturak edo simetriak zenbateraino gordetzen diren ikusi dugu. Bi adinetan H2 taldekoen ipuinak hobeto kateatuta agertzen dira, atalen arteko loturak argiagoak dira, eta elementu tematiko gutxiago falta dira H1 taldekoen ekoizpenetan baino.

Hurrengo aztergaia aditz kohesioa izan dugu. Zehazki, ipuinetako denbora ainguraketa eta kontaketan zehar ageri den aditz denboraren mantentzea aztertu ditugu. Ikasle denek eta bi adinetan ipuinak lehenaldian ainguratzen dituzte. Gehienek ipuinek oso berea duten "bazen behin" edo antzeko adierazpide eginak erabili dituzte. Nabari da ikasleek jakin badakitela ipuinen mundu diskurtsiboa ekoizpen-egoeratik kanpo kokatzen dela. Lehenaldiko denboraren mantentzea dela eta, H2 taldekoek bi adinetan sistematikoagoak dirudite ipui-

nean zehar lehenaldiko denborak mantentzen (orainaldiko elkarrizketa-zatietan izan ezik, noski). Bi taldeetan denbora-jauziak edo hausturak maizago agertu dira 5 urterekin, eta batez ere H1 taldean. 8 urterekin, aldiz, haur batzuek denbora-txandakatzeak egiten dituzte, eta honetan H1ekoek joera argiagoa daukate. Dirudienez, helduak haurrei emandako eredua (lehenaldiko eredu kanonikoa) H2koek estuago jarraitzen diote, H1ekoek askeago diruditelarik. Elipsiak direla eta, azkenik, ez da alde handirik ikusi bi taldeen artean 8 urteko adinean, nahiz eta elipsiarena bereziki H1 taldekoen ezaugarria zela espero.

Analisi kualitatiboagoa egin dugu ipuinetako ardura enuntziatiboa aztertzerakoan. 5 urteren aldean, 8 urterekin ekintzen zein pertsonaien gaineko iruzkin zehatzagoak egiten direla esan behar da: ekintzen eta pertsonaien inguruko iruzkinak osatuagoak eta zehatzagoak dira. 5 urterekin ia ekintzak besterik egiten ez dituzten pertsonaiak nagusi diren bitartean, 8 urtekoen ipuinetan pertsonaiek pentsatu, asmatu, iritziak eman edo ideiak izaten dituzte. Halaber, zuzenean pertsonaienak ez diren ahotsak maizago ageri direla ematen du 8 urterekin. Azkenik, eta beti ere kontaketa zehatzen faltan, ez dirudi alde nabarmenik dagoenik H1 eta H2 taldeen artean. Adinaren eragina nabarmenagoa da.

Lana bukatze aldera, garrantzitsua deritzogu azpimarratzea euskara eskolaren bidez garatu duten ikasleek etxetik euskaldun diren ikasleen pareko gaitasunak dauzkatela ipuin-kontaketari dagozkion hainbat alderditan. Bi taldeen artean agertu diren ezberdintasunak ez dira beti H1 taldearen aldekoak izan. Ematen du H2 taldeko ikasleek estuago erreproduzitzen dituztela ipuinak bereak dituen hainbat ezaugarri (egitura narratiboaren osotasuna, lehenaldiko denbora). Aldiz, H1 taldeko haurrek ipuina kontatzeko orduan ereduarengandik askeago dirudite, nolabait, helduarengandik entzundakoa euren erara eraldatzeko joera handiagoa balute bezala. Agian, euskara eskolan ikasitako hizkuntza delako, H2 taldekoak ereduarekiko kontzientzia handiagoa izatea dakar, eta hau lexiko-mailan ere islatzen da talde honetan. Hiztegimailako zailtasunen aurrean, H1 taldekoek ez bezala, H2koek helduarengana (hau da, ereduarengana) gehiago jotzen dute.

Lan honetan ikasleen testu/diskurtso mailako hizkuntza trebetasunak bereziki aztertu ditugu. Ipuinak genero den aldetik dauzkan hainbat ezaugarri begiratu ditugu, eta uste dugu hizkuntzaren garapena aztertzeko orduan esaldi mailako azterketa gramatikala iristen ez den alderdi garrantzitsuen berri eman ahal izan dugula.

Ipuinen garapena antzemateko oinarrizko eduki edo unitate nuklearrak nola hedatzen diren behatu beharra dago. Slobinek (1991) berak aipatu izan duen bezala, espiralean ematen den mugimendua genuke garapenarena; ikasitakoa birpasatuz, lortutakoaren gainean jardunez, baina beti ere mailaz maila garatuz. Ikusi da baita ere, ikuspuntua lekualdatzeak berak ere garapena areagotzen duela (ikusi, esaterako, 25 adibidean oilo basatien egoera nola zehazten den 8 urterekin). Informazio gehitze bat ere badago, ekintzari buruzko zehaztasunak, adibideak, egoera psikologikoak, harira datozen azalpentxoak. Adierazpenak eta berradierazpenak (berrartzeak) ere informazio asko ematen digute ipuin kontatze garapenari buruz. Esaterako, 19.adibidean, "eta hori ere bai" esaten duenean, aipatu berri duen ibai handia eta pasatu ezinezkoa menderatu egiten duela adierazten digu, lehen beste laguntzaileekin egin duen moduan. Ipuina ezinezkoa gainditzea da azken batean, eta generoa errepikapenaren errepikapenez gauzatzen da. 5 urterekin, oro har, haurrak gauza dira ipuinen eduki nagusia birkontatzeko, emandako eredua gertutik jarraituz. Adin horrekin haur batzuek gehiago ere egiten dutela ikusi dugu. Nolanahi ere, 8 urterekin garbiago ikusten dira garapenaren zenbait ezaugarri eta horietarako ikasi dituzten hainbat hizkuntza baliabide, testu eta diskurtso mailako baliabideak nagusiki, erakutsi nahi izan dugu.

Ikusi dugu, baita ere, aztertutako egoeran, euskara H1 zein H2 izan, bi ikasle talde hauek ipuin kontaketak eskatzen dituen gaitasunak era nabarmenean garatu dituztela.

Bibliografia

ADAM, J.M. 1992, *Les textes: types et prototypes*, Paris, Nathan.

AKINÇI, M. A. & KERN, S. 1998, «Développement de la temporalité chez des enfants monolingues el bilingues», BCILL, 99, Temps et Discours (1998) 237-255.

ALMGREM, M. 2000), *La adquisición del tiempo y aspecto verbal en euskera y castellano*. EHUko tesi argitaratu gabea.

ALMGREN, M. & IDIAZABAL, I. 2001, «Past tense verb forms, discourse context and input features in bilingual and monolingual acquisition of Basque and Spanish», in Cenoz, J. & Genesee, F., arg., *Trends in Bilingual Acquisition*. John Benjamin's Publishing Company, Amsterdam/Philadelphia, 107 -130.

ARBILLA J.K. & KAIFER A. 1988, «Gainegitura narratiboa eta aditz-kategoriaren unitateak haurrek idatzitako ipuinetan», in *II Euskal Mundu Biltzarra, Euskara Biltzarra, III Alea*, Bilbo, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.

ARRATIBEL, J., ZUBIZARRETA X. 2001, *Txomin Ipurdi*, Donostia, Erein.

BAMBERG, M.G. 1987, *The Acquisition of Narratives,* Berlin, Mouton de Gruyter.

BARREÑA, A. 1995, *Gramatikaren jabekuntza-garapena eta haur euskaldunak*, Bilbo, EHU/UPVren Argitalpen Zerbitzua.

BERMAN. R.A. 1988, «On the ability to relate events in narrative», *Discourse Process,* 11 (1988) 469-497.

BERMAN, R.A. 2009, «Language development in narrative contexts», in *The Cambridge Handbook of Child Language*, arg. E.L. Bavin, Cambridge, CUP.

BERMAN, R. & SLOBIN, D. 1994, *Relating events in narrative : a crosslinguistic developmental study,* Hillsdale, New Jersey, Lawrence Erlbaum.

BRONCKART, J.-P.1996, *Activité langagière, textes et discours. Pour un interactionnisme socio discursif*, Paris, Delachaux et Niestlé. [Gaztelaniazko itzulpena] 2004, *Actividad verbal, textos y discursos. Por un interaccionismo socio-discursivo*, Madrid, Infancia y Aprendizaje.

DE WECK, G. 1994, «Las dificultades de lenguaje al comienzo de la escolaridad», *Infancia y Aprendizaje*, 23 (1994) 55-68.

Eustat. 2001, www.eustat.es.

GABIÑA J. et al., 1986, *EIFE La enseñanza del euskera: la influencia de los factores,* Vitoria/Gasteiz, Servicio central de publicaciones del Gobierno Vasco.

GARCIA, I., IDIAZABAL, I. & LARRINGAN, L.M. (2009) «Contar el mismo cuento a los 5 y a los 8 años. Una explicación desde la perspectiva del interaccionismo sociodiscursivo». *Estudios linguísticos. Linguistic Studies, 3,* (2009) 1647-0346.

HICKMANN, M. & Roland, F. 1992, *Déterminants sémantiques et pragmatiques dans l'acquisition du temps et de l'aspect: Étude comparative du Français, de 1'Allemand et de l'Anglais*. Lyon, Réseau Européen de Laboratoires sur l'Acquisition des Langues.

ISEI-IVEI. 2005, *Euskararen B2 maila. Derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran (DBH4)* http://www.isei-ivei.net/

ISEI-IVEI. 2007, *Euskararen B1 maila Lehen Hezkuntzan*. http://www.isei-ivei.net/

ISEI-IVEI. 2008, *PISA 2006 ebaluazioaren azken txostena. 15 urteko ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Proiektua Zientzietan, Matematiketan eta Irakurketan. Euskadiko emaitzak* http://www.isei-ivei.net/

LANZA, E. 2001, «Temporality and language contact in narratives by children bilingual in Norwegian and English», in *Narrative Development in a Multilingual Context,* arg. Verhoeven, L. & Stromqvist, S., Amsterdam, John Benjamins.

LARIVAILLE, P. 1974, «L'analyse (morpho)logique du récit», Poétique, 19.

LARRINGAN, L.M. 1998, «Testuen analisirako zenbait nozioren kontzeptualizazio bidean », in *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratze baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*, arg., Idiazabal, I. & Larringan, L.M, Gasteiz: EHU eta Arabako Foru Aldundia.

LARRINGAN, L.-M. (prentsan), «Testua, Testu-Generoa eta Hizkuntzaren Ikas/Irakaskuntza», *Euskera* II (2009).

MARTINOT, C. 2000, «Étude comparative des processus de reformulations chez des enfants de 5 à 11 ans», Langages, 140 (2000) 92-123.

MATTHEY, M., 2003, *Apprentissage d'une langue et intération verbale,* Berne, Peter Lang

MAYER, M. 1969, *Frog, Where are you?*, New York, Dial Press.

MEISEL, J.M., org. 1994, *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües,* Frankfurt, Vervuert.

MEISEL, J. M. 2001, «The simultaneous acquisition of two first languages: Early differentiation and subsequent development of grammars», in *Trends in bilingual acquisition*, arg., J. Cenoz and F. Genesee, Amsterdam, John Benjamins.

MEISEL, J. 2007, «Child second language acquisition or successive first language acquisition?», *Arbeiten zur Mehrsprachigkeit- Working Papers in Multilingualism,* Hamburg, Sonderforschungsbereich Mehrsprachigkeit, 33-64.

Nafarroako Estatistika Zerbitzua. 2001, www.cfnavarra.es/estadistica.

OCIO, B. 1998, «Haurren narrazio-testuetatik bilduak», in *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratze baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*, arg. Idiazabal, I. & Larringan, L.M. arg., Vitoria/Gasteiz, Arabako Foru Aldundia.

PEARSON, B. Z. 2002, «Narrative Competence among Monolingual and Bilingual School Children in Miami», in *Language and Literacy in Bilingual Children*, arg., D.K. Oller & R.E. Eilers, Clevedon, Multilingual Matters. 135-174.

Propp, V. (1928) 1970, *Morphologie du conte*, Paris, Seuil.

QUASTHOFF. U. M. 1997, «An interactive approach to narrative developmen», in *Naralive Devclopment: Six Approaches, arg.,* M. Bamberg, Hillsdale NJ, Lawrence Erlbaum Associates.

SCHNEUWLY, B. 1986, «Narration et description : pourquoi sont-elles si importantes à l'école obligatoire ?», Education et Recherche, 8 (1986) 89-120.

SEBASTIAN, M.E. & SLOBIN, D.I., 1995, «Más allá del aquí y el ahora: el desarrollo de los marcadores temporales en el discurso narrativo en español». *Substratum* 5: 41-48.

SERRA, M., SERRAT, E., SOLÉ, R. BEL, A. & APARICI, M. 2000, *La adquisición del lenguaje*. Barcelona, Ariel

SHIRO, M. 2003, «Genre and evaluation in narrative development», Journal of Child Language, 30 (2003) 165-195.

SIERRA, J. & OLAZIREGI, I. 1989, *EIFE 2. La enseñanza del euskera: la influencia de los factores,* Vitoria/Gasteiz, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

SIERRA, J. & OLAZIREGI, I. 1990, *EIFE 3. La enseñanza del euskera: la influencia de los factores,* Vitoria/Gasteiz, Servicio central de publicaciones del Gobierno Vasco.

SLOBIN D.I. (1991) «Learning to think for speaking: Narrative langauge, cognition, and rhetorical style», *Pragmatics* 1 (1991) 7-25.

SNOW, C.E. & DICKINSON, D.K. 1990, «Social sources of narrative skills at home and at school», *First Language*, 10 (1990) 87-103.

STEPHANY, U. 1994, «Tense and aspect in narrative child discourse. A comparison of Greek and French», First Lisbon Meeting on Child Language Kongresuan aurkeztutako komunikazioa. Ekainak 14-18.

STRÖMQVIST, S. & VERHOEVEN, L., arg., 2004, *Relating Events in Narrative: Typological and Contextual Perspectives*. Mahwah, NJ, Lawrence Erlbaum Ass.

VERHOEVEN, L. & STROMQVIST, S., arg., 2001, *Narrative Development in a Multilingual Context,* Amsterdam, John Benjamins.

Ahozko narratibotasuna interakzionismoaren argitara: kohesio mekanismoek esaten digutena[1]

GARCIA-AZKOAGA, Ines-M.
Euskal Herriko Unibertsitatea

DIAZ DE GEREÑU, L.
Euskal Herriko Unibertsitatea

Sarrera data: 2009-09-21
Onartze data: 2009-11-26

[1] Lan hau ikerketarako laguntza jaso duten proiektu hauei esker egin da:

- MICINN: Bilingüismo y Multilingüismo: Adquisición, enseñanza y usos de las lenguas. Criterios explicativos del desarrollo lingüístico.
- BIMUDES (FFI 2009–13956– CO2–01 (FILO)
- EJ /GV ikertaldea (IT481-10)

Euskarazko kontalaritza garaikideko bi adituk jendaurrean egindako konta-saio biren azterketa egiten da lan honetan. Kohesioa hizpide hartu eta testuaren alderdi honek narratibotasunean duen eragina azaltzen dugu elkarren osagarri diren hiru ikuspegitik: forma linguistikoa, balore enuntziatiboa eta dimentsio soziala. Hiru iturri horietatik edaten du konta-saioak narratibotasuna eraikitzeko eta prozesu horretan konta-saioa testu-genero bezala ezaugarritzeko. Erakusten dugun bezala, narratzaileak baliatzen dituen mekanismoak askotarikoak dira, baina ezaugarri nagusia da kohesio-mekanismo horiek testuinguruarekiko duten mendekotasuna eta berehalakotasuna.

Hitz-gakoak: Ahozkotasuna, testu-generoa, interakzionismoa, kohesioa, ahozko narrazioa, diskurtsoa.

En este trabajo se analizan dos sesiones de cuenta-cuentos realizadas por dos especialistas de esa actividad en euskera. Tomando la cohesión como eje, tratamos de explicar el efecto que este aspecto textual tiene en la narratividad; para ello, utilizamos una triple perspectiva: la de la forma lingüística, la del valor enunciativo y la de la dimensión social. La sesión de cuentos se nutre de esas tres fuentes a la hora de construir la narratividad y caracterizar esa sesión de cuenta-cuentos como género textual. Como mostramos, los recursos que utiliza el narrador son de muy diversos tipos, pero destaca especialmente la dependencia que los mecanismos de cohesión tienen del contexto y el carácter inmediato o improvisado de su construcción en el momento de la enunciación.

Palabras clave: Oralidad, género textual, interaccionismo, cohesión, narrración oral, discurso.

Ce travail analyse deux séances de conteur réalisées par deux spécialistes de cette activité en basque. En prenant la cohésion comme axe, nous essayons d'expliquer l'effet que cet aspect textuel a sur la narrativité ; pour cela, nous utilisons une triple perspective : celle de la forme linguistique, celle de la valeur énonciative et celle de la dimension sociale. La séance de contes s'alimente de ces trois sources pour construire la narrativité et caractériser cette séance de conteur comme genre textuel. Comme nous le montrons, les ressources que le narrateur utilise sont des plus variées, mais soulignons en particulier la dépendance

que les mécanismes de cohésion ont du contexte et leur construction de caractère immédiat ou improvisé au moment de l'énonciation.

Mots-clés: Oralité, genre textuel, interactionnisme, cohésion, narration orale, discours.

This paper discusses two storytelling sessions performed by two specialists of this type of activity in Basque. Taking cohesion as a central point, we attempt to explain the effect that this textual aspect has on narrative text, therefore, we used a triple perspective: that of linguistic form, the enunciative value and the social dimension. The session drew stories from these three sources when constructing the narrative and characterising this story telling session as a textual genre. As we have shown, the resources used by the narrator are of many kinds, but especially noteworthy is the dependence of the mechanisms of cohesion that the context and immediate or improvised character construction had at the time of utterance.

Keywords: Orality, textual genre, interaction, cohesion, oral narration, discourse.

Sarrera

Norbaitek galde dezake zer daukan eskaintzeko oraindik ahozko narrazioaren azterketak euskararen eremuan. Gure ustez badago zer aztertua oraindik, bai linguistikoki eta bai literaturaren aldetik ere. Izan ere, asko izan dira eta dira oraindik ere euskaraz egin diren bilketak ahozko tradiziozko narratiba biltzeko eta horien gaineko iruzkinak han eta hemen aurki daitezke, esan beharrik ez dago. Baina gertuago erreparatzen diegunean maiz idatziz jaso diren testu horiei, konturatzen gara gehienak komunikazio-egoera jakinetan jasota daudela: inkesta-egoeran eta ez jendaurreko komunikazio-irizpideak kontuan hartuta. Beharbada horregatik, beren balio estetikoa ez da beti nahikoa baloratua izan (Lafitte, 1973; Aulestia, 1994), eta berriz, goratuago izan dira balio etnografikoagatik, esate baterako. Hau da, helburu folkloriko, antropologiko, pedagogiko eta dialektologikoak zituzten komunikazio-egoeratan sortutako kontakizunen testuak izan dira maiz bildumen muin, eta ez tradizionalki gizartean bete duten lehen mailako helburu ludiko, estetiko edo literarioen azpian sortutako testuak. Beraz, material horren guztiaren mugak aipatu behar direla iruditzen zaigu, testu-generoen aldetik begiratuta behintzat. Behin eta berriz azpimarratu den bezala (Hélias, 1990; Larringan, 1992; Diaz de Gereñu, argitaratzeko), ipuinak kontatzea ez da ipuinen berri ematea, ez laburtzea, ez eta irakurtzea ere. Beraz, ahozko narrazio literarioak bere horretan eta mintzajardunean hartzen duen testualitatean bada oraindik zer ikertu gure ustez, batik bat ahozko hizkuntzaren analisi linguistiko enpiriko eta gaurkotuen arabera. Lekuonak berak eremu horretan azterketa berrien beharra bereziki aipatu zuen bere *Ahozko Euskal Literatura* (1982) lanean ipuingintzari eskainitako atalean. Atal labur horretan, mintzagai ditu batez ere idatziz jasotako ahozko kontakizunen bildumak, baina ahozko genero legez dauzkan ezaugarriak ez dira zehatz deskribatzen, ez behintzat beste ahozko literatur genero batzuen sakontasunarekin.

Euskararen eremuari bagagozkio, horrez gain, gaur egun euskaraz kontalari ari direnen jarduna industri-ondoko gizarteetan eta mundu mailan gertatzen ari

denaren antzera (Calame-Griaule, 1991), tradiziozko narratibagintzaren ondare kultural eta diskurtsiboa berrinterpretatzen eta egokitzen ari da. Zoritxarrez ez ditugu ezagutzen kontalari tradizionalen grabazioak, berriz diogu, saio edo egoera errealetan eginak eta transkribatuak. Berriz, garaikide diren kontalariak aspaldi ditugu gure artean kontari: Koldo Amestoi, Pello Añorga, Itziar Zubizarreta... kontalari garaikideak. Zer dakigu, ordea, praktika garaikide honetaz? Zer ahozko jendaurreko narrazioaz? Zer mintza-jardunaren eta testuaren arteko artikulazioaz? Nola gertatzen ari da testuaren mailan praktika tradizional horren jarraipena eta ondare kultural horren guztiaren berregokitzea? Zein dira testu-generoaren funtzionamendu eta ezaugarriak? Hainbat galdera daude erantzuteko.

Gure ikuspegia sozio-diskurtsiboa izanik, testuak eta diskurtsoak jotzen dira mintza-jardueraren emaitzatzat, jarduera horretan biltzen baitira edukiaren, egitura komunikatiboaren eta unitate linguistikoen konfigurazioa (Bakhtine, 1984); mintza-jarduera hori, gainera, kokatutako berbazko interakzioa da (Roulet, 1997) zeinak dimentsio linguistiko, testual eta egoerazkoak integratzen dituen bere barnean (Bronckart, 1996, 2004; Roulet et al., 2001). Testu bat ekoizten denean, beraz, praktika sozio-kultural bezala dituen eskari eta betebehar jakinei eta genero bati atxikita ekoizten da, hau da, ekoizlearen berbazko ekoizpenak beti izango ditu dagokion testu-generoarekin identifikatzea ahalbidetzen duten ezaugarriak.

Gure ustez, kohesio-mekanismoen ikerketak lagun gaitzake ahozko narrazioaren berezko ezaugarri zenbait identifikatzen, bai jarduera sozio-diskurtsiboa den aldetik eta baita dimentsio ahozko eta interaktiboa dituen aldetik ere.

Ikuspegi horretatik kohesioa testualizazio-mekanismoen mailan txertatzen da eta testuaren koherentzia tematikoan eragiten duten propietate/ezaugarrietako bat da; testu batean zehar dagoen informazioaren progresio egokia eta egitura proposizionalen elementuen arteko harremana kohesio-mekanismoen araberakoa da. Horiek erakusten dituzte bai generoaren ezaugarri nagusiak bai kontestuaren arabera ekoizle jakin batek egin dituen errepresentazioen adaptazio-operazioetatik eratortzen diren berezitasunak (Bronckart, 2001).

Konta-saioan zehar kohesio-mekanismoek kate isotopikoak sortzen dituzte, narratzaileek beren testu-produkzioa osatzen duten diskurtsoko objektuak harremanetan jarri eta aurreratzeko darabilzkiten estrategien emaitza gisa. Anaforek egiteko nagusia izaten dute kate isotopikoen eraketan, baina hauen ondoan kohesioaren eraikuntzan modu ezberdinetan eragiten duten eta forma ezberdinak hartzen dituzten baliabideak ere ageri dira.

Idatzizko testuan kohesioa identifikatzen eta aztertzen, neurri batean behintzat, erraza den artean, ahozko ekoizpenetan askoz konplexuagoa gertatzen da. Idatziaren ezaugarrietako bat da hain justu egituraketa sintaktiko tinkoa eta gaiaren garapenaren linearitatea; ahozko hizkuntza transkribatzen dugunean berehala ikusten da, ordea, unitate linguistikoak eurak zedarriztatzea ere zailagoa dela idatzian baino eta sintaxia ere oso konplexua dela, idatzizkoan gertatzen den oso bestelakoa. Ahozkoak bere bereak dituen egitura sintaktikoak ageriko zaizkigu mintza-jarduera errealen transkripzioetan, ohitura ez duenarentzat idatziarekiko okertzat jo ditzakeenak (Idiazabal & Larringan, 2008), momentuan bertan eraikitzetik sortzen diren egiturak agertzen baitira, amaitu gabeko itxura eta gainjartze itxura hartzen dutenak diskurtso-objektuen joan-etorri etengabean (Luzzati, 1998, 2004); Luzzatiren berbetan, ikuspegi enuntziatiboaren arabera, koherentzia sintaktikoaren nozioa enuntziatua garatzen den artean era ez linealean mugitzen den leihoa baino ez da.

Horri gaineratu beharko genioke ahozko narrazio literarioan gauzatzen diren praktiken heterogeneneitatea, historikoki (Fabre & Lacroix, 1974; Vernus, 2002) eta gaur egun ere (Pittet-Blanchard, 1990) oso komunikazio-egoera ezberdinetan gauzatzen direnak. Komunikazio-egoera bakoitza bakarra eta izaera eta ezaugarri ezberdinetako (Vernusek aintzinako gaubelen plastikotasunaz hitz egiten du) saioa izanik, ahozko narrazioaz izan daitekeen irudi monolotikoa albora utzi behar da, konta-saioak ez baitira ipuin edo kontakizunen justaposizio hutsa (Diaz de Gereñu et alii, 2008). Ahozko narrazioan, ahozko literatur eremuko praktiketan ohi den bezala, sistema semiotiko ezberdinak batzen dira sormen-lanean: musika, mugimenduak, keinuak, argiak...testu-

genero ezberdinen segmentuak agertzen dira narratiboez gain (poesia, asmakizunak, abestiak, antzerkia, diskurtso politiko eta erlijiosoak...).

Horrek guztiak narrazioaren berezko heterogeneitatea (Adam & Lorda, 1999) areagotzen du eta horrekin lotuta testualizazioari eta kontestualizazioari lotutako mekanismo-sare konplexuak aurkitzen ditugu kontalari adituen konta-saioetan, burutu behar duten programa diskurtsibo-enuntziatiboa gauzatzeko beharrezkoak direnak.

Kohesioaren eraikuntzak berebiziko garrantzia du, baina Grobetek (2001) dioen moduan, informazio-egituraren analisiaren zailtasunetako bat berorren izatezko konplexutasuna aztertzea da. Euskarazko narrazioaren inguruan egin den lan guztiagatik ere, haurren ahozko narrazioaren azterketan (Idiazabal et alii, 2008) nahiz idatzizko narrazioan egindakoetan (Garcia-Azkoaga, 2004), ez dugu ahozko testu-genero honetan kohesioa nola eraikitzen den aztertzen duen ikerketa zehatzik eta enpirikorik.

Horrela, testu-genero honen zenbait alderdi sakonago aztertu eta ezaugarritu nahi genituzke. Gainera, analisi linguistiko eta diskurtsiboa testu literarioari hurbiltzen ahaleginduko gara, Rastierrek (2001) proposatzen duen ildoari heldu nahian. Honen arabera, literatura mintzairaren erabilera espezifikoa baino ez da azken finean, eta diziplina biek banatuegi dirautela diosku, literatur fenomenoen deskribapen osoagoen kaltean: "La littérature est, et ne peut être consideré come autre chose qu'une sorte d'extension et d'application de certaines propriétés du langage" (Borges, OC, I, p. 1154 in Rastier 2001, 4).

Narrazioan kohesioa ziurtatzeko baliabide ohikoenetako edo konbentzionaletako bat da determinatzaile indefinituen erabilera pertsonaiak eta diskurtsoko objektu berriak aurkezteko, eta ondoren, haiei erreferentzia egiteko elementu anaforiko gisa sintagma definituak, pronominalizazioak, ordezkatze lexikoak eta elipsiak erabiltzea. Baliabide horiei gaineratu behar zaie Larringanek (1992) eduki erreferentzialarekin eta lexikoarekin harremana duen praktika linguistikoarekin lotzen dituen beste hainbat elementu, aldiberean

dimentsio estetikoa dutenak, esate baterako: onomatopeiak, antonimo jokoak, bertsoak, abestiak, eta abar.

Gure hipotesia da ahozko narrazioaren kohesioak idatzian ohikoak diren anaforen eta estrategia kohesiboen eremua gainditzen duela, ekintza eta interakziozko intentzio-asmo hitzarmen batean, ahozko narrazioaren mintza-jardueraren kode komun batean oinarritutako zeinuen kodetze- eta deskodetze-prozesu hutsa baino gehiago baita; mintza-jardueraren ko-eraikuntza diskurtsiboari (Jacques, 1985), ahozko literaturaren estetikari, kontestuari eta abarri lotutako estrategia diskurtsiboek osatzen duten prozesua da. Zentzu horretan, kohesioaren azterketa ezin da egin ikuspuntu linguistikotik bakarrik. Bestalde, nahiz eta kontalariek literaturari dagozkion baliabide estilistiko eta erretorikoak erabili konta-saioetan, jardun horietan agertzen diren kohesio-elementuak baldintzatuak daudela uste dugu, batetik saioen planifikazioagatik eta bestetik praktikan garatzen den interakzio-egoera bakoitzagatik: konta-saio mota, entzuleen harrera, entzule mota eta kopurua, saioaren baldintza fisiko eta materialak, aldez aurretik ezarritako edo erabakitako gaia,... Alderdi soziodiskurtsibo horiek guztiek baldintzatuko dute kohesioaren zenbait erabilera, bai alderdi diskurtsibo-testualean eta baita erabilitako forma linguistikoei dagokienez ere; esate baterako, hasierako berba batekin erreferentziakidetasunean diharduten sintagma batzuk (*oilarra → ... /... gure gizon oilardunaren oilarra*), edo mintzairaren balio designatiboak balio poetiko edo estilizatuekin batzen dituzten enuntziatuen zabaltzea, baita metaketa bidez ere (*aizkora batekin → ... / aizkora! harrizko aizkora / harrizko aizkora batekin!*) edo elementu tematiko berriak sartzeko kontalariak erabiltzen dituen baliabide bereziak, zenbaitetan pertsonaien ezaugarritze psikologikoaren bitartez (*Don Serio*) edo, bestetan abestien edo onomatopeien bitartez (*dilin dilin dilin dilin ... istoria honek horrela esaten du ... herri txiki hartan noski / bazan eskola bat... Don Seriyo / eskolako kanpaiak jo / (musikatuta) dilin dalan / dilin dalan / dilin dalan / eta herriko neska mutil guztiak / eskolara abiatu ziran...*), etab.

1. Corpusa eta aztertzeko metodologia

Lan honetan bi konta-saio aztertuko ditugu. Saiook ahozko narrazioa aztergai duen corpus zabalago batekoak dira. Entzule ezberdinak dituzten bi saio dira; bata helduentzako antolatuta dago eta bestea haurrentzako. Narratzaile biak profesionalak dira, nahiz eta batak besteak baino esperientzia luzeagoa duen. Narrazioak ikerketa-proiektu baten[1] egitasmoan bildu ziren audioz, eta HIJE[2] taldeak ezarritako irizpide eta helburuei jarraituz transkribatu ziren gerora aztertzeko.

1.1. Konta-saioak

Hauek dira aztertu ditugun bi narrazio-saio edo konta-saioak:

Kontalaria	Saioaren izenburua	Iraupena	Entzule mota
Koldo Amestoi	Makilargi	67'	Helduak
Rai Bueno	Izengabea	37'	Haurrak

Lehenengoa (2000.12.15) entzule helduei zuzendutakoa da. Basauriko kultur etxeko antzokian burutu zen saioa eta entzuleak atze samarrean eseri ziren, lehenengo lekuak libre utzita. Saioa hasi aurretik eszenatokiaren erdian aulki bat ageri zen eta argi nagusiak itzalita zeudela, argi xume batzuek argitzen zuten apenas agertokia, giro lasaia iradokiz. Antolatzaileetako batek kontalaria aurkeztu eta hura panderoa eskuan zuela atera zen eszenatokira. Saioa hasi eta eszenatokiaren erdian zutik zirauela lehenengo poema esan zuen. Gero, saio osoa pasa zuen eszenatoki erdiko aulkian eserita[3] kontatzen, entzuleak agurtu zituen arte.

[1] Eusko Jaurlaritzak lagundutako "Ahozko testu publikoen azterketa euskaraz- PI-1999-18" proiektua.

[2] HIJE: Hizkuntzaren Jabekuntza eta Erabilera ikertaldea.

[3] Honek ez du esan nahi mugitzen ez denik. Jakina denez, eserita egonik ere gorputzeko hainbat mugimendu egin ohi dira kontatzean, batez ere soin eta aurpegiarenak. Baina izan daiteke ere

Rai Bueno kontalariak burututako saioa Biarrizko Itsas Argi ikastolan izan zen (2004.06.25). Irakasleek ere saioan parte hartu zuten, hogeitabost bat ikaslerekin (5-7 urte bitartekoak). Kontalariak entzuleei jolastokira ematen duen atean egin zien harrera, eta sarrarazi zituen eta eseriarazi lasaitasunez. Behin denak eserita, saioari ekin zion, eszenatoki gisa atondutako lekuan zegoen aulkian eseri, eta bertan eserita kontaketa osoa igaro zuen saioaren bukaera heldu arte. Kontalaria oiartzuarra izanik, saioaren hasieran bertan esplizituki entzuleei azaldu zien hizkeragatik-edo ulertezinak zitzaizkien hitzak galdetzeko. Eskolako jangelan egin zen saioa, baina hasi aurretik kontalariak berak egokitu zituen aulkiak, anfiteatro gisako forma emanez.

Makilargi konta-saioaren edukiaren muina bederatzi kontakizunek osatzen dute, narrazio-ildo nagusi batek zentzua edo lotura ematen dietela. Kontakizunok biltzen dituen narrazio-marko nagusia herri baten historia da. Historia horri hasiera emanez, lehen ipuinean hiru pertsonaia aurkezten zaizkigu, bakoitzak objektu bat dakarrelarik, eta objektu horien bitartez herrian zenbait aldaketa eragingo direlarik; horrela, pertsonaia nagusi hauen garapenaren bitartez, nekazal gizarte baten bizimodutik gizarte modernoago batera igarotzeko bidea kontatzeko aitzakian, istorioak harilkatzen joango dira. Kontakizunon edukia hemen laburtzea ezinezkoa da, duten luzeragatik eta konplexutasunagatik.

Haurrei zuzendutako saioan, berriz, bi istorio kontatzen dira, erabat ezberdinduak eta loturarik ez dutenak. Lehenengo istorioak kontatzen du nola irakasle zuhur batek ikasleei eskatzen dien bi minututan zuhaitz bat eta haren puntan txoria marrazteko. Irakasleak galdetzen dionean Fatima izeneko ikasle bati zergatik ez duen txoria marraztu, honek erantzuten dio irakasleak uxatuta alde egin duela txoriak. Bigarren istorioan errege batek erret jauregiko txori zaintzaileari eskatzen dio ametsetan egin duen txoria nahi duela eta harrapa dezala. Lortu ezean lepoa moztearekin mehatxatzen du. Ia hala gertatzen da ger-

---

hankak altxatzea, mugitzea, instrumentuak jotzean sortzen direnak... denetarikoak erabiltzen dituzte kontalariek: ahoz mintzatzean halabeharrez gertatzen direnak, kulturaren arabera datozenak, norberaren estiloa ezaugarritzen dutenak, e.a. Berariaz lantzen eta zaintzen den alderdia da hau.


tatu ere, baina halako batean erregea konturatzen da gaztearen txirularen soinua dela benetan ametsetan entzundako kanta, eta bizia barkatzen dio. Horrez gain, sari gisa erregeak egun batez nahi duena egitea oparitzen dio gazteari. Honek jauregiko txori guztiak askatu eta hauek aldi berean gaztea hegan eramaten dute.

Makroegiturari dagokionez, oso argiak dira aldeak bi saioen artean. Azal ditzagun lehenengo eta behin beheko taulan ageri diren makroegituraren elementuak. Konta-saioetan, gehiago edo gutxiago, esplizituki edo inplizituki, komunikazio-egoerako parametroen lanketa egiten da. Hau da, komunikazio-egoeraren, saioaren nondik norakoak aipa daitezke, zer espero daitekeen, zenbat edo zer nolako kontakizunak izango diren aurrera daiteke, eta abar. Hau jardueraren markoa izendatu dugu, Goffman-en (1991) lanetan oinarrituta, mintzakideak elkarrekin aritu ahal izateko etengabe negoziatzen duten interakzio-egoeraren etengabeko eraikuntzaz aritzeko. Behean ikusten denez, bi saioetan agertzen den maila da hau, jarduerari berari dagokiona. Baina ez du ez forma bera ez eta distribuzio bera ere konta-saio bi hauetan. Haurrekin egindako konta-saioan, ipuin bakoitzaren aurretik eta atzetik jorratzen du kontalariak jardueraren markoa, eta oso era esplizituan gainera (kontalaria dela esanez, zenbat ipuin kontatuko dituen esanez, txaloak jo behar direla esanez, eta abar). Helduei egindako saioaren hasieran eta bukaeran agertzen da markoa jorratuta, baina modu askoz inplizituagoan (esate baterako, rolen banaketa kantu bidez edo zirika eginez jorratuta). Hala ere, bi saioetan agertzen da jardueraren markoa berariaz landuta hasieran eta bukaeran. Badirudi bietan, ahozko interakzio-egoerak izanik, behar dela gutxieneko harreman bat jorratu mintzakideen artean, betiere, konta-saioaren mintza-jarduerak eskatzen duen eran. Saioaren garapenean, haurren kasuan ipuinetik ipuinera, esate baterako, oso era esplizituan agertzen da jardueraren markoa landuta. Hala ere, eta nahiz eta beheko taulan ez dugun adierazi, garrantzitsua da azpimarratzea bi saioetan eta kontakizunen barruan, jardueraren markoa lantzen dela maiz. Hau da, garatzen ari den komunikazio-egoera mintzagai izan daiteke hainbat arrazoirengatik saio osoan zehar. Lehen esan dugunez, konta-saioak ez baitira kontakizunen justaposizio hutsak.

Bestetik, marko narratiboa deitzen duguna daukagu testuen egituran, Genetten (1989) proposamena gure beharretara moldatuta darabilguna. Marko narratiboa deitzen dugun horretan bi maila bereizten ditugu aldi berean. Bata, maila diegetikoa, saioaren muina osatzen duten kontakizunek edo sekuentzia narratiboek eratzen dutena. Bestea, marko narratibo horretan goragoko maila bat osatzen duen maila extradiegetikoa, konplexutasun narratiboaren iturri dena. Maila honek, kontakizunen gainetik legokeen kontakizuna irudikatuko luke, *Mila gau eta bat gehiago*-n Sherezaderen istorioak beste guztiak biltzen dituen modura, adibidez. Taulan erakusten dugunez, helduekin egindako saioak maila narratibo bi hauek erakusten ditu, haurrekin egindakoak bakarra, ordea. Honek esan nahi du, kontakizun gehiago egiteaz gain, konplexutasun narratiboa handiagoa dela helduen konta-saioan.

Beraz, bi saioen arteko aldeak asko dira: iraupena (haurrekin egindako saioek nekez gainditu ohi dituzte hiru ordu laurdenak), jardueraren markoaren tratamendua, kontakizun kopurua, konplexutasun narratiboa eta abar. Horrela irudika dezakegu bien arteko alde hori:

<table>
<tr><th colspan="7">Rai Bueno. Haurrak entzule, 5-7 urte (37')</th></tr>
<tr><td colspan="2">Jardueraren markoa</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td rowspan="2">Marko narratiboa</td><td>Maila extradiegetikoa</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Maila diegetikoa/ S. narratiboak</td><td></td><td>1</td><td></td><td>2</td><td></td></tr>
</table>



Jardueraren markoa: narratzaileak komunikazio-egoeraren parametroak lantzen ditu soil-soilik eta berariaz. Kontakizunetik kanpo ari denean.

Maila extradiegetikoa: marko narratiboaren barruan. Kontakizunak biltzen dituen material narratibo nagusia eta saioan zehar garatzen dena. Adibidez, ipuinetik ipuinera doan tartea.

Maila diegetikoa: marko narratiboaren barruan. Sekuentzia narratiboa osatzen duen kontakizun bakoitza.

1.2. Azter-unitateak

Kontalarien saioak ahozko tradizioaren praktika eta mintzajardun zenbaiten jarraipen modernoa dira, aldaketa sozio-historikoen harian egokitu eta berreginak, eta artxitestuan eskura dauden testu-generoen erabilera jakina egiten dutenak. Bakhtinen (1984, 285) arabera, ekoizpen-prozesuen azterketan hiru elementuk dute zeregina: agentea aurkitzen den berbazko ekintzaren egoera, berbazko komunitateko artxitestuan erabilgarri dauden ereduak, eta genero-eredu baten adopzio eta adaptazioak, zeinak testu bat produzitzerakoan hartutako edo adoptatutako generoaren eta egoera zehatzaren ezaugarriei egokitzeko prozesuan erabilitako markak erakutsiko dituzten aldi berean.

Bestalde, ahozkoan mezua kontestuan bertan eraikitzen da, harekiko abstrakziorik egin gabe, hau da, kontestuaren parametroak presente daude eta eragina dute berbazko ekintza osoan zehar, bereziki entonazioaren eta parataxiaren bitartez, enuntziazioa gidatuz eta moldatuz edo egokituz. Honek sarri

ekartzen du idatzian baino sintaxi laxoagoa eta norma gramatikalengatik askeagoa. Prozesu komunikatiboa, narrazioaren eraikuntza kasu honetan, sistema linguistikoari lotuta dago, eta horrenbestez, enuntziazio horren aztarnek narratzaileak bere egitasmo diskurtsiboa burutzeko darabilzkien kohesio-mekanismoaren osotasunean ere izango dute isla (Benveniste, 1966).

Ikusiko dugun bezala, ahozko mintza-jardueran kohesioa ez da testualizatzen soilik baliabide sintaktikoen bitartez, aurrekaria berrartzen duten elementu anaforikoen bitartez edo testu barneko kate erreferentzialen bitartez; jarduera garatzen den egoerari erreferentzia eginda ere testualizatzen da, eta kontestuko nahiz berbazko elementuak diskurtsoan integratuta eta hainbat estrategien bitartez entzuleen eta narratzailearen arteko konplizitatea agerian utzita. Errepikapen, perifrasi eta berformulazioen bitartez egiten da hori esate baterako; alde batetik, saioan zehar entzulearen memorian narrazioaren garapenari jarraitzen laguntzeko, eta bestetik, zenbait efektu estetiko lortzeko; keinuek zeresan handia dute; onomatopeiak, soinuen erabilerak eta musikalizazioak diskurtsoa iradoki, oroitarazi edo aktualizatzeko eta horrela entzuleengan eragiteko erabiltzen dira.

Alderdi horiei guztiei heltzeko eskema bat egokitu dugu zeinak ohiko anaforekin batera ahozko narrazioaren praktika linguistikoan inplikatuta dauden beste baliabide batzuk integratzen dituen, besteak beste, balio estetiko-poetikoa areagotzen duten onomatopeiak, soinua, musika eta kantak, esanahi berezia hartzen duen lexikoa, e.a. Eskema osatuko dugu narrazioaren markoan narratzaileak integratzen dituen erreferentzia kontestualen atalarekin, hau da, mintza-jarduera garatzen den espazio fisikoari (erreala edo fantasiazkoa) edo pertsonei eta objektuei erreferentzia egiten dien adierazpideekin eta kontestuan agertzen diren gorputz-espresioak deiktikoki seinalatzen dituzten markadore guztiekin; espresio horiek guztiak funtzionamendu anaforikoa erakutsiko dute interakzioko elementu bat seinalatzen duten heinean (Fillietaz, 2002, 197). Horrela, bada, hiru talde izango ditugu kontuan: ohiko adierazpide anaforikoak, errekurtso estetiko-poetikoak eta interakzioaren kontestuari dagozkion adierazpide erreferentzialak.

Ohiko adierazpide anaforikoen atalean pronominalizazioak, errepikapenak eta ordezkatzeak izango ditugu:

- Pronominalizazioak: [... neskatila bat ... *bere* izena Fatima...]
- Errepikapenak:
  - Aurrekariaren errepikapen hutsak edo artikulu definitu edo demostratzailearekin determinatutako sintagmen berrartzea: [... gizon bat ... gizona ... gizon hori...]
  - Aurrekari baten errepikapen partzialak (infraespezifikazioak) edo zabalak (supraespezifikazioak): [... gurutze batzuk... gurutze handi hoiei begira gure gizonak ...]
- Ordezkatze lexikoak:
  - Sinonimo diskurtsiboak: [... txori andana ... milaka txori haiek...]
  - hiperonimoak: [...oilarra... txori horrek...]
  - hiponimoak: [... gizon bat ... igitaiduna...]
  - anafora kontzeptualak: [... igitai bat ... tresna txar hau...]
  - asoziazio bidezko anaforak: [... eskola ... pupitrea ... arbela ... klarionak ...]

Baliabide estetiko-poetikoen kasuan identifikatuko ditugu soinu eta musikalizazioak, iruzkinak, onomatopeiak, interjekzioak eta funtzio konnotatiboa duten izen bereziak:

- Abestiak: [... garai hartan izan ziren ere lau emakume... *maitia galdegin zautan premu nintzanez*...]
- Iruzkinak: [...*mahaira hurbildu zan eta kajoia egin zuen zabaldu / kajoia da mahaiaren barrenean dagoena tiruar*[4]*!*...] [...*holako: baseliza: ermita batzuk eraikitzen*...]
- Onomatopeiak: [...*reglak zirin / reglak zaran* ...]

[4] Frantsesezko *tiroir*.

• Interjekzioak: [...*hortxe herriko enparantzan haritzaren azpian exeri eta ua::!*...]

• Izen berezien balio konnotatiboa: [...*irakaslearen izena Don Seriyo zan! Don Seriyo oso irakasle serio serioa zan*...]

• Interakzio-kontestuarekiko adierazpide erreferentzialen artean, batik bat, lekuzko aditzondoak eta zenbait erakusle hartuko ditugu kontuan, adibidez: Kontestuari erreferentzia egiten dieten lekuzko aditzondoak: [...*sorbalda gainean / hemen / oilar bat /*...]

• Eta abar.

Behin forma linguistikoak zehaztuta eta kohesio-mekanismo horiek beren dimentsio linguistiko, interakziozko eta sozio-diskurtsibo osoan aztertze aldera (Bronckart, 2005; Roulet et alii, 2001; Garcia, Idiazabal & Larringanek (argitaratzeko)), proposatutako eskemari jarraiturik, estrategia horien interpretazioa egingo dugu enuntziazioaren aldetik beren dimentsio interakzionala kontuan harturik, (hau da, zein den beren zeregina testuaren mailan); hirugarrenez, estrategia horien dimentsio sozialari erreparatuko diogu testu-generoa identifikatutako estrategia kohesiboekin nola artikulatzen den interpretatzen saiatzeko. Ez dugu, kohesio-mekanismo guztien azterketa erabat zehatza egingo, gure helburua testu-genero honen ezaugarritzea ahalbidetuko duten kohesio-mekanismoei buruzko informazioa eskuratzea eta eskaintzea baita.

2. Azterketa eta emaitzak

Lehenik eta behin, esatariak darabilzkien kohesio-mekanismoen forma linguistikoei erreparatuko diegu, gero dimentsio interaktibo eta sozialari begiratzeko.

2.1. Kohesio-mekanismoen dimentsio linguistikoa

Atal honetan lehenik, ohiko adierazpide anaforikoak jorratuko ditugu.

• Pronominalizazioak:

Berrartze pronominaletan oinarritutako kohesio-mekanismo gutxi aurkitzen ditugu testuen luzera kontuan hartzen badugu. Hauek dira ohikoenak:

> **(1)** bizi zan mutiko bat / bere izena zan / Amilotx! Amilotxek beti buruan / ibiltzen zuen kapela urdin urdin bat / [...] gure mutikoak zer egiten tzuen? gure mutikoak...
>
> **(2)** egun hortan / sartu ziren gure herrian / hiru gizon / [...] gizon horietariko batek bazeukan eskuan igitai bat / [...] / eta holako batez herri batetik pasatzerakoan eta landa baten ondotik pasatzerakoan / gari landa baten ondotik ikusi zuten hortxe gizon bat / aizkora batekin / garia / mozten / epaiten / aizkora! harrizko aizkora / harrizko aizkora batekin! au:! hiruak gelditu zien eta / i (entzuleei zuzentzen zaie zuzenean igitaia zer den ulertzen ez dutela aurreratuz bezala) a igitaia! m! igi / igitaia da / holako esku tresna bat / ho:lako itxura bat daukana / (keinuz eta onomatopeiez irudikatuko du) ui pin tan! (ingelesezko all right) ol rait? ho:lakoa! horrekin hurbildu da gizona eta esan dio (pertsonaiaren ahotsez) begira! zuk ja! harrizko aizkora horrekin ez duzu gauza handik egingo / baina honekin bai posible da lana egitea / begira! nekazaria pixka bat baztertu ta / gure gizona: (igitaiaren mugimendua egingo du) rist rast rist rast / horrela egiten du / igitaiak / eta horrela egin du / eta horrela ebaki du / garia! (elkarrizketa) oh! nekazaria gelditu da harrituta / aizu! holako lana / holako / holako tresna txar honek! aizu ta: / salgai daukazu hau? (erantzuna) ba:i / salduko dizut! eta gure es gizonak / saldu / saldu egin zion / igitaia! garesti / (onomatopia zinikoa) hihaha! garesti! eta gu:re / igitaiduna / poliki poliki: / (esku batekin poltsiko baten kolpeak emanez, ibiltzearen erritmoa ere eginez) di:rua / poltsi::koan poliki poliki urrundu zen...

(1) kasuan *bere* forma pronominala dugu, hau da, hirugarren pertsonako genitiboaren forma pronominal indartua. Aurrekari duen *mutiko bat* formari korreferentzia eginez gramatikalki interpretatzen den forma anaforikoa dugu. (2) adibidean *hiru gizon* aurrekaria dugu, lehenik *hiru hiruak* (11. adibidea) izenordain zenbatzaile bikoiztuaren bitartez berrartua eta gero *hiruak* formaren bitartez. Zenbatzaile bera aurrerago berrartzen da erakusle batek lagunduta. Adibide berean *besteak* izenordea *gizon horietako batek* forma anaforikoarekin kontrastean erabiltzen da, *hirugarrenak*ekin gertatzen den modura. Forma pronominal hauez gain, eta beharbada adierazgarria dena, bi adibideetan erabiltzen den lehen pertsonako *gure* izenorde pluralaren kasua da, izenlagun gisa erabiltzen dena, aurrekarian dagoen izena errepikatuta zein izen berri baten ondoan jarrita.

• Errepikapenak:

Aurrekari bati anaforikoki erreferentzia egiteko erabili den izen sintagma maiz berdin berdin errepikatzen da, baina daraman determinatzailea aldatuta, hau da, aurrekarian agertzen den *bat* artikulu mugagabea adierazpide anaforikoan determinatzaile mugatu batek ordezkatuta agertuko da, izan artikulu izan erakusle, esate baterako (2) adibideko *hiru gizon* > *hiru gizonak* > *hiru gizon horiek*, (4) adibideko *egurrezko regla bat* > *egurrezko regla hura,* e.a. Berdin gertatzen da elementu anaforikoa ordezkapen lexikala denean eta aurrerago errepikatuta agertzen denean: *ikusi zuten hortxe gizon bat* > *gizona* > *nekazaria* > *nekazaria.*

Sarri, aurrekaria aktualizatzen duen izen-sintagmak ekar diezaioke zehaztapenik (3. adibidea), edo alderantziz, aurrekarian zegoen elementu atributiboren bat ixil daiteke baina horregatik bere zentzuak eta esanahiak zehaztasunik galdu gabe (4. adibidea). Edozein kasutan, errepikapena islatuta dago izen-sintagmaren muinean:

> **(3)** ikusi du ere bai / mendi / garai haietan / gailur gailurretan holako: gurutze batzu jartzen! (txalo jo du) gurutze handi hoiei begira...

> **(4)** herriko neska mutil guztiak / eskolara abiatu ziran [...] irakaslearen izena zan Don / Don seriyo! Don Seriyo oso irakasle serio serioa zan / bigoteak zituen luze luze / luze / luzeak (haurrak parrez) egun batez / Don Seriyo [...] kajoiaren barrenetikan egun hartan zer atera? egurrezko / r:egla bat Don Serio / egurrezko regla hura eskuetan zula / ekarri zuen gora / altxatu zuen goraino / eta egurrezko regla hura airean astinduz / alde batera egin zuen bere indar guztiyekin! zirin! [...] zaran! reglak / zirin / reglak zaran! neska mutiko guztiyak / bakoitza bere mahaian bakoitza bere pupitrean / geldi! ixil! ixilik / [...] neska mutiko guztiyak / pupitrearen azpitikan bakoitzak atera zuen bere arbela / bere arbel txikiya / atera zituzten klarionak /...

Zehaztapen mota arrunta izaten da izen edo enuntziatu baten errepikapena. Ondorengo adibideetan gertatzen den bezala, aurrekariaren aktualizazioa birformulazio bat izan daiteke: *bakoitza bere mahaian / bakoitza bere pupitrean* (4); *landa baten ondotik / gari landa baten ondotik* (2); *bere arbela / bere arbel txikiya* (4); hainbatetan, gainera, birformulazioen metaketa gerta daiteke: *aizkora! harrizko aizkora / harrizko aizkora batekin!* (2).

Oso ohikoak dira erakusleak lagunduta egiten diren errepikapenak: *hiru hauek* (2), *egurrezko regla hura* (4), *baserri hortatik* (5), e.a.

> **(5)** holako batez etxe / baserri baten ondotik pasatzerakoan [...] laster ikusi zen / katua / ateratzen / baserri hortatik / ...

Arrunta da errepikapenen artean elementu anaforiko pronominal eta lexikalak biltzen dituzten aktualizazioak aurkitzea, (1)eko *gure mutikoa* berrartzearen adibidea, (2)ko *gure herrian* adibidea, (2)ko *gure gizona* edo (6)ko *gure Ahoandi* kasu. Hauetan, lehen pertsonako pluraleko genitiboa, *gure*, aurkitzen dugu izenlagun funtzioarekin:

> **(6)** badakizue nik e ikasketak egin nahi nituen / errementari izateko! errementari:: delako gure:: / Ahoandi: alkatea bezela...

Gramatika ikuspegitik *gure* izenordainak hainbat pertsona inplikatzen ditu, esataria barne dela. Ikuspuntu horretatik ez da anaforikotzat jotzen, nahiz eta begibistakoa den bere erabilerak eragina duela kohesio narratiboan. Dakigun bezala, izenordain plural hori oso arrunta da euskaraz, familiarteko harremanak edo norbere etxebizitza moduko ohiko lekuak adierazteko. Era berean, oso baliabide ohikoa da euskarazko ahozko tradiziozko narrazioetan, baita izen bereziekin ere: *gure Ahoandi* (6) eta horrela erabiltzen dute bi narratzaileek aztertu ditugun bi saioetan. Bestetik, *gure* genitiboak dimentsio interakzionala eta soziala du, aurrerago ikusiko dugun bezala.

• Ordezkatze lexikalak:

Ordezkatze lexikalen artean sinonimo diskurtsibo bezala funtzionatzen duten hainbat adierazpide aurkitzen ditugu, bai izen-sintagma eran baita aditz-sintagma eran ere:

> **(7)** barrenean zeuden txori andanak / hegoak zabaldu / eta aideratu ziran / leihotik kanpo! baina ez oso urrun / milaka txori haiek nun pausatu eta gazteluko torrerik altuenean egin ziran gelditu!...
>
> **(8)** begira nik ipuiak kontatzeko behar dudan gauza bakar bakarra da / zuek ixilik baino / nei gustatzen zait esatea / behar dut zuek lasai egotea / trankil / ...

Hiponimoen eta hiperonimoen erabilerak eduki narratiboa zehazten edo zabaltzen laguntzen du, *nekazaria* hiponimoaren kasuan bezala (2); (9) adibideko hiperonimoak, *txori horrek*, oilarra modu despektiboan kontzeptualizatzen du, txori gisa alegia, eta horrela balio ebaluatzaile-argumentatibo handia hartzen du enuntziatuak, diskurtsoak hartuko duen norabidea aurreratuz.

> **(9)** hirugarrenak / sorbalda gainean / hemen / oilar bat [...] nik badaukat hau / ikusi? ze da hori? hau da oilarra! eta honek badauka kantatzen / duen mementotik / poderea / indarra / iguzkia altxarazteko / (ez sinistuarena eginez) o:ha / ba:i! txori horrek / je je!...

> **(10)** igid / igitaia daukatenak / o! / igitaia zaukan gizon honek / egin du goiz osoan xa:! rist rast lana! eta ebaki / moztu! egin du lana! m:! eguerdian / geldi! beste nekazari lagunekin elkartu dia / elkarrekin bazkaldu hortxe kanpoan eta / lagun batek e / hau tresna hau ikusi ta: (elkarrizketa) hau zer da?...

Igitaia daukatenak / o! igitaia zaukan gizon honek bezalako sintagmek funtzio anaforikoa dute eta horregatik interpretatu behar dira lehenago kotestuan eman den informazioarekin. Erlatiboak balio anaforikoa du berez, baina bigarren adierazpidean, balio hori indartzen da erakusleak lagunduta dagoelako. Harreman gramatikal estua dago horrelakoetan aurrekaria eta anaforizatzailearen artean.

Aurretik dagoen aditz baten nominalizazioaren ondorio den anafora kontzeptualik ere bada: (2, 11, 12): *saldu → diru horrekin; amets egin dot → nire ametsean.*

> **(11)** saldu zien oilarra! a::! eta urrundu zen / (poltsiko aldean kolpeak joaz eta kantuz) nahiko dirukin poltsikoan / hiru hiruak elkartu eta hiruak jarraitu zuten bidea! esaten da: / hiru hauek / diru horrekin / gure herrian / lurrak erosi zituztela / lur horietan etxeak eraiki eta hortxe daudela geroztik!...
>
> **(12)** Amilotx gaur gauen amets egin dot / ta erregeak jarraitu zuen / nere ametsetan / inoiz entzun dudan kanturik / abextirik izugarri politena entzun dot...

Asoziazio bidezko anaforek diskurtsoko objektu berriak sartzen dituzte narrazioan partekatzen diren eta oso prototipikoak diren munduko jakintzekin lotuta daudenean, esate baterako eskola mundua: *pupitre, arbela, klariona* (4) adibidean.

• Errekurtso estetiko-poetikoak:

Balio estetiko-poetikoa duten errekurtsoen artean pertsonaien izen bereziak daude. Izen berezien erabilera kohesio-mekanismo garrantzitsua da oso, pertsonaiari erreferentzia zuzena egiten diote eta haren identifikazioa errazten

dute erreferentzia-katean. Baina gainera, pertsonaiaren izenaren aukeraketa narrazioetan ez da nolanahikoa. Funtzio denominatibo hutsa izatetik urrun, aukeratutako izen bereziek pertsonaia ezaugarritzen dute eta horregatik pisu konnotatibo eta estetiko handia dakarkiote narrazioari, ikusi bestela hurrengo adibideetan: *Don Seriyo* (4), *Nineu* (13), *Ahoandi* (14), *Betibil* (15),...

> **(13)** oilarduna / oilar saltzailea / goizian goizik oilarrekin dabil han gizon hau / hain goizik es altxatu lan egiteko oilarrak saltzeko / hoinbeste oilar saldu du nun: / nekazari: / aberats bilakatu baita / Nineu / deitzen dugu guk / Nineuk baditu holako // (kontalariak harro plantak keinuz) gainetik beiratzen zaitu beti / Nineu! Nineu pa!...
>
> **(14)** gure gizonak! eta: / gero hainbeste gauza ikusi ta entzun eta gogoetatu ta: hasi da (soinu bat) pi / hizketan / gauzak kontatzen kontatzen! a ! hanbat gauza dakiela! noski gero ta gehiago daki eta:: / ez dakiena ere kontatu egiten du! zuheitz baten azpian hortxe herriko enparantzan haritzaren azpian exeri eta ua::! hasten da! herritarrak hurbiltzen zaizkio eta egunero badauka gauza esateko ta hainbat gauza eder eta / a holako / hitzlari haundia bilakatu da nun eman baitiogu guk izena Ahoandi! ezizena [...] erabaki baitzuen egun batean / m / bere burua aurkeztuko zuela / alkate izateko / ba:! egin zuen lagunen artean / aurkeztu bere burua / eta bambambam! eta alkate!...
>
> **(15)** bigarrena / ka katuduna / hura:: bankulari bilakatu da / bueno! ez dakit nik katuak bezela holako añañañ (muturrean keinu bereziak egiten ditu) (XX) ba badauka bi bigu bigote / hemen eztago e? (ahopeka dabil) (XXX) bigote bigote orduan bigote lodi lodia hola / ta beti / hor tik bat bezala dauka / m (XX) busti busti busti eta ile bakotxa kontatu:: egiten balu bezela! bueno / hau / bankularia / Betibil deitzen dugu / Betibil / ma! bil! ta bil! ta bil! ...

Baliabide estetiko-poetikoen atalean sartu ditugun onomatopeien, musikaren eta soinuen erabilerari dagokionez, balio kohesiboa dute aurretik aipatutako edo atzetik etorriko den elementu bati erreferentzia egiten dieten heinean: *igitaia* > *rist rast rist rast* (2); *regla* > *zirin zaran* (4); *makilakin* > *tunta tunta*; *mailuakin* > *tintintin tintintintintin* (17),... beti agertzen dira onomatopeia hori sortzen duen objektuari lotuta. Bestetik, aurrekariaren errepikapena sahiesteaz gain elementu hauek narrazioari erritmoa ematen diote eta estetika literarioz janzten:

> **(16)** harri zabal bat / eta harri zabal honi makilakin / (panderoaz kantatuz) tunta tunta (panderoa jotzen hasiko) jo jo eta jo! jo eta jo!...
>
> **(17)** burni hori / suan / suan eman eta gorri gorria eder ederra zaukala / ingudi gainean / mailuakin (kantatuz) tintintin tintintintintin (panderoa joko) tintintin tintintin e:::! ikusten dut zuen aurpegietan / errementariak daudela / zuen tartean / (panderoa jotzeari hemen utziko) bo enfin! badakizue zergaitik egiten duen mailuak e e: / ingudiaren puntan tintintintin hori? ba zuek / jakingo duzue! m:: bakarrik da: / mailuak tintintin egiterakoan / badauzka segu:ndu batzu / bi gogoeta egiteko / jakiteko nola jo behar duen burnia / gogoetak egiteko / eta burniak memento horretan / (arnasa hartuko du berak ere) arnasa pittin bat hartu ta ttum! berriro etortzen zaio / erortzen zaio / mailua eta / (gogor abestuz) dun da din! eta dandandandindindindindindandadindindi / eta horrela lan ta lan ari zela gure gizona...
>
> **(18)** baiñan badakizu / beti hirukote batean badago / hirugarren ba / hirugarrena / nahiko (burua seinalatuz) buebue! edo: hemendik edo:: hankak / kasu honetan da / hankak ez dutela: / aski laster e:rematen gizona / beste biek jarraitze dute korrika lasterka hirugarrena (pertsonaia larri uluka) e e e itxoiñ itxaron itxaro ai / adixkide / itxaron itxaron itxaron! itxaron / besteak

> (azkar doazela adieraziz) bifufufufufufu / hantxe nunbait izkutuan jarri dia...

Interjekzioak bat-bateko inpresioak adierazteko erabiltzen dira. Ahozko hizkuntzan hain ohikoak diren hizkuntza-elementu hauek alboragarritzat hartu izan dira, eta hainbat autorek esanahi gabetzat hartu eta "eskoria" edo "parasito" hitzekin izendatu dituzte. Horrek garbi adierazten du ahozkoan agertzen diren zenbait elementuk oraindik ez dutela estatus linguistiko garbirik edo zabalik lortu, nahiz eta beren egiteko diskurtsiboa aspalditik erakusten eta aztertzen den (Brès, 1996; Laforest, 1996; Sacks, 2000). Elementu horien izaera eta funtzioa askotarikoa izateaz gain, ezinbesteko elementuak dira gaur egun ahozko hizkuntzaren ikerketaren arloan zabal erakusten ari den bezala (Blanche-Benveniste, 1997; Luzzati, 1998).

Gure ustez, interjekzioak esanahia duten hizkuntza-elementuak dira, intentzionalitate batekin sartzen direlako eta diskurtsoan betetzen duten zereginetik datorkielako esanahia. Horrela, ahozko narrazioan ere, itxuraz hondakinak diruditen elementu horiek esangura hartzen dutela ikusten dugu enuntziazioaren ikuspegitik eta ez dira ulertzen ez bada aurrekari batekin harremanetan: *harrizko aizkora batekin! au:!* (2), *haritzaren azpian exeri eta ua::!* (14) edo narratzaileen keinuei lotuta: *ho:lako itxura bat daukana / (keinuz eta onomatopeiez irudikatuko du) ui pin tan*! (2). Asmo zehatz baten arabera sartzen diren elementuak dira, diskurtsoan kate isotopikoen parte gisa integratzen direnak. Askotan beren aztarna linguistikoa testuan uzten duten diskurtsoekintzak edo ez berbazko-ekintzak dira:

> **(19)** ta (_)! a a / badakizue / guk gizonok mutilok piska bat edan eta / gure indarrak hortxe sentitzen ditugu: / berrituak bezela! e indar indartuak berrindartuak (indartsu plantak eginez) da ta ña ta! ...

Atal honekin bukatzeko, errepara diezaiogun hainbat adberbioren erabilerari. Leku-adberbio hauek sarritan deiktikoki erabiltzen dira espazioan dagoen zerbait seinalatzeko, baina ahozko narrazioetan badago multzo bat balore ze-

haztugabearekin erabiltzen dena sententzia edo aforismo tankerako enuntziatuetan: *hortxe kanpoan* (10), *hortxe herriko enparantzan* (14), *hantxe nunbait izkutuan* (18), *hortxe / gure herrira heltzean: / mendi tontor horren gainean* (20), *hantxe nunbait landa batean* (21), *iguzkia poliki poliki hantxe altxatzen* (22), eta abar:

> **(20)** jarraitu zuten bidea hiru gizonek eta / holako batez [...] /orduan/ hortxe / gure herrira heltzean: / mendi tontor horren gainean ikusi zuten / ikusi zituzten bi gizon...
>
> **(21)** eta morroi horrekin lanean jinjinjinjin! hantxe nunbait landa batean...
>
> **(22)** bota ta bota kukurruku ta guziak zerura! eta ikusi ere bai iguzkia poliki poliki hantxe altxatzen...

Unitate linguistiko horiek beti agertzen dira korrespondentzian kotestuan dagoen beste batekin, zenbaitetan hura hobeto mugatzeko eta zehaztasun efektua sortzeko, eta hortik datorkie hartzen duten balore anaforikoa. Hala eta guztiz ere, zenbaitetan unitate linguistiko batzuek deiktikoki seinalatzen dituzte gorputzaren keinu edo adierazpenak, elementu diskurtsibo edo jarduera garatzen ari den kontestuko errealitate ez linguistiko bati egiten diotelarik erreferentzia. Ondorioz, konta-saioek testu-barneko erreferentziaziorako erabiltzen diren elementuen antzeko balio anaforikoa hartzen dute (Fillietaz, 2002), hau da, kotestuaren barruan aurrekari batekin lotuta interpretatzen diren erakusle eta aditzondoen antzekoa, esate baterako, (23) adibidean *hementxe* narratzaileak egiten duen keinuari lotuta doanean. Horretaz gain, badaude beste erakusle batzuk beste testuinguru batean deiktiko liratekeenak, baina hemen elkarrizketaren testuinguruan erabiltzen direnak eta testuinguruan fisikoki esistitzen ez den arren ipuinaren testuinguruan esistitzen den zerbait irudikatzeko edo erabiltzen direnak: *hau, honekin, hori, honek...* (24) adibidean, esate baterako, elkarrizketa bat da eta narratzaileak *honekin egin dezaket* esaten duenean forma horrekin adierazten duena da narratzailea katua irudikatzen ari dela, aurrean izango balu bezala. Beste horrenbeste gertatzen da gainontzeko adibideetan ere:

(23) hiru lagun hoiek / igitaia zaukana / katua zaukana / eta oilarra (sorbalda seinalatuz) hementxe / eta oilarrarekin nekazari hauek zer egite ute ba? ...

(24) katua besoetan zaukan hau / poliki poliki hurbildu ta: / esan tzion (elkarrizketa, katua duenak oso lasai, bestea larri) begira! nik / honekin egin dezaket gauza guzia...

(25) lagun batek e / hau tresna hau ikusi ta: (elkarrizketa) hau zer da? ba / mozteko / epaiteko / a bai? e:: probatu dezaket?...

(26) guk beti betitik hori egin dugu / gure aita aitonek eta guziek / lurra jo ta iguzkia altxa!/ nik badaukat hau / ikusi? ze da hori? hau da oilarra! eta honek badauka kantatzen / duen mementotik / poderea / indarra / iguzkia altxarazteko / (ez sinistuarena eginez) o:ha / ba:i! txori horrek...

2.2. Mekanismo kohesiboen dimentsio interakzionala

Maila interakzionalak ez du esan nahi interlokuzioa egon behar denik, maila honetan mintzakideen artean sortzen den eraginen sarea aztertu nahi da, elkarreragina bideratzen duen dimentsioa da eta. Dimentsio horrek azpiegitura mailatik hasi eta testuaren maila guztiak biltzen ditu, hau da, kate isotopikoak osatuz zentzuaren efektua sortzeko erabiltzen diren baliabide guztiak, estetiko-poetikoak barne, eta hor kokatuko dugu, hain zuzen, kohesioaren azterketa.

Interakzioaren dimentsioan kokatuta beraz, atal honetan kohesio-mekanismoak ikuspegi enuntziatibo batetik interpretatzeko ahalegina egingo dugu. Zentzu horretan, kohesio-mekanismoetan enuntziazioak uzten dituen aztarna linguistikoak atzemango ditugu horien bitartez narratzailearen komunikazioasmoak ulertu nahian, entzuleen arreta lortze aldera abian jartzen dituen baliabideak, haien emozioetan eragiteko erabiltzen dituenak, narrazioan inplikatuta dauden diskurtsoko objektuak eta pertsonaiak memorian ezartzeko erabiltzen dituen estrategiak, diskurtso-objektuak nola aktualizatzen di-

tuen, nola uzten dituen eta errekuperatzen dituen berriz..., alegia, entzuleak bereganatzeko baliatzen dituen estrategiak. Hori guztia, jakina, kontestuaren errepresentazioari lotuta eta bere mintza-jardueraren helburu den mundua sortzera bideratua, baliabide guztiak narrazioaren eta sormen literarioaren menpe jarriak, hau da, jarduera narratiboaren zerbitzura. Zeregin horretarako erabiltzen dituen unitate linguistikoak, baita txikien eta hutsalenak ere, beraz, efekturen bat sortzera bideratuta egongo dira, eta alde horretatik esanahia hartuko dute diskurtsoan.

Lehen esan dugun bezala anafora pronominalak ez dira oso ugariak, baina bai, ordea, errepikapen mota ezberdinak eta ordezkatze lexikalak, hau da, izen bat oinarri dutenak. Anafora mota hauek oso zeregin garrantzitsua dute kohesioaren eraikuntzan, eta sarritan intentzionalak dira; narratzaileak apropos erabiltzen ditu espresibitatez betetako enuntziatuen bitartez ikuspegi jakin bat agerian uzteko; entzuleengan efektu jakin bat eragitera eta bere enuntziazioarekin esanahiak sortzera bideratuta daude.

Errepikapenak maiz erabiltzen dira, baina erabilera hori ez da mugatzen izenak edo izen-sintagmak errrepikatzera, aditz-sintagmei ere eragiten die: *bizi ginen* (27), *pasatzeakoan* (2), *harrapatu* (28)...

> **(27)** oso ederki bizi ginen zorion zoriontsu / pake pakean / egun hortaraino / jo ai zoriontsu! harro harro bizi ginela / burua gora! hantxe / zeruan / je! izadia natura gure inguruan / babesle: / lagun / eta: oinak / ama lurraren gainean finkatuak / oso zoriontsu ta harro bizi ginen gu / egun hortaraino / egun hortan / sartu ziren / gure herrrian / hiru gizon...
>
> **(28)** harrrapatu ote duzu? harrapatu? ze? harrapatu: ba:: arratoina! arratoia! arratoia!...

(27) adibidean *bizi ginen* aditz-formaren erabilerak halako joko poetikoa inplikatzen du; narratzailea aditz horretaz eta errepikapenaz baliatzen da igarotako garai bat gogora ekartzeko eta garai hori ipuinean gertatuko denarekin

kontrastean jartzeko; aditz-forma horiekin batera beste hitz edo adierazpen batzuk ere agertzen dira, esate baterako, *pake pakean*, *harro harro*, balio dutenak antzinako garai haiek eta garai haietako baloreak gehiago nabarmentzeko. Narratzaileak, horrela, esanahi jakin bat ematen dio bere enuntziatuari. (2) adibidean, objektu bat (*gari landa*) zehazteaz gain harekin beste bat harremanetan jartzeko (*igitaia*), errepikapenak entzuleen arreta fokalizatzeko balio du eta erritmoa eta tentsioa ezartzen dio narrazioari. (28) adibidean aditzaren errepikapenak zenbait ahotsen parte hartzea inplikatzen du eta horrek errealismoa eta bizitasuna ematen dio narrazioari. Narratzailea, horrela, narrazio-mundua eraikitzen doa entzuleen buruetan irudiak sorrarazi ahala. Atzera egin eta (2) adibidean jartzen badugu arreta, *aizkora! harrizko aizkora / harrizko aizkora batekin!* adierazpideak tresna horren izaera primitibo eta zaharkitua nabarmentzen du *igitaia*rekin kontrastean, hau da, gertaeren bilakaeran eragin zuzena izango duen objektuarekin; (4) adibideari dagokionez *bere arbela / bere arbel txikiya* adierazpidean adjektiboaren erabilera ipuinaren protagonisten eta entzuleen tamainarekin lotutako irudi bat proiektatzen du, alegia, umeen txikitasunarekin lotutakoa (Kortazar 2007, 542).

Joko poetikoa eragiten duten elementu horiek guztiak, lehen esan dugun bezala, ez dira errepikapen hutsak edo esanahirik gabeko unitateak. Zenbait kasutan kutsu ironiko handia dute: *Nineu! Nineu pa!* (13), *Betibil / ma! bil! ta bil! ta bil!* (15), *da ta ña ta!* (19), e.a., eta jarrera enuntziatiboa agerian jartzen duten neurrian modalizaziotik gertu ere badaude.

Blanche-Benvenistek (2000) erakusten duen moduan, ahozko hizkuntzaren ezaugarri berezkoa den errepikapena idatzizko literaturan erabili izan da. Autorearen esanetan efektu-estiloak bilatu izan dituzte idazleek ahozko hizkuntzaren formetara hurbiltze aldera. Errepikapenaz gain metaketa paradigmatikoa, hitzen bilaketa eta sintagmen ardatzean joan-etorriak egitea, zalantza egitea eta ahozkoaren antzeko fenomenoak ere erabili izan direla gaineratzen du. Ahozko jendaurreko narrazioak ere ahozko solasa oro har ezaugarritzen duten fenomenoen erabilera berezi eta jakina egiten duela ikusi

dugu kohesioaren kasuan. Kontalari hauengan baiezta dezakegu errepikapenak ez direla inola ere akats edo pobrezia literarioaren iturri. Alderantziz, behar komunikatibo eta estetikoei erantzuten dieten sormen-lan konplexuaren langai eta emaitza dira.

Gure genitiboarekin lagunduta doazen errepikapenen kasuetan, (1, 2, 5, 9) adibidetan ikusi ditugunak kasu, maiz erabiltzen du narratzaileak pertsonaiei edo istorioa gertatzen ari den lekuari erreferentzia egiteko: *gure herria*, *gure gizona*, *gu:re igitaiduna*, *gure nausia*, *gure morroia*, *gure andrea*, *gure Ahoandi*, *gure Maiena*, *gure gidaria*, *gure lagunak...* Baliabide horrek indar narratiboa ematen dio kontaketari. Alde batetik, leku bat ekartzen du gogora, leku komuna narratzailea eta entzulearentzat; bestalde, pertsonaiak entzuleengana hurbiltzen ditu azken hauen konplizitatea bilatzeko eta narrazioan partaide egiteko. Beste era batera esanda, narratzaileak entzuleen inplikazioa bilatzen du, ikuspuntu narratiboa aldatuta, garatzen ari den istorioaren partaide bilakatuz entzulea.

Ordezkatze lexikalei dagokienez, anafora kontzeptualen erabileraren helburua (*oilarduna*, *oilar saltzailea*, *gure igitaiduna*, *igitaia zaukana*) kohesio formen aldaera ekartzera ez ezik entzuleen memoria sustatzera eta pertsonaiak eta bestelako diskurtso-objektuak elkarren artean bereiztera bideratuta ere badaude. Anafora hauek elementu desberdintzaile bat sartzen dute; dena dela, hizkuntza-forma berdina erabil daiteke aurrekari ezberdinei erreferentzia egiteko, esate baterako, ipuinetako objektu edo tresna magikoak eskuz aldatzen direnean (29) adibideetan *igitaia* hasieran pertsonaia baten eskuetan dago eta pertsonaia hori *igitaiduna* da, (30) adibidean, igitaia eskuz aldatu da eta jabe berria ere *igitaia dauka(te)nak* bihurtzen da:

> **(29)** sartu ziren gure herrian / hiru gizon > gizon horietariko batek bazeukan eskuan igitai bat > gure gizona > gure gizona > gure igitaiduna
>
> **(30)** ikusi zuten hortxe gizon bat > zuk ja! > nekazaria > igitaia daukatenak / igitaia zaukan gizon honek

Gorago esan dugun bezala, erlatiboek balore anaforikoa dute kotestuan dagoen aurrekari baten arabera interpretatu behar direlako; (29, 30) adibideetan erlatiboak (*gure igitaiduna, igitaia daukatenak, igitaia zaukan gizon honek*) bere testuingurutik ateraz gero ematen digun informazio bakarra da igitaia gizon baten eskuetan dagoela, baina ez zein gizonen eskuetan, ez dago jakiterik jatorrizko jabea den (saltzailea –hiru protagonista nagusietako bat–) edo jabe berria (eroslea –narrazioan zehar agertzen den beste pertsonaietako bat–), horretarako ipuinaren hariari jarraitu behar diogu, maila narratibora jo behar dugu, ez baita nahikoa gramatikak ematen digun informazioa. Gauzak horrela eta kontuan hartuta erlatibozko berrartze hori narrazioaren une aurreratu batean agertzen dela, eta agerpena istorioan beste diskurtsoko objektu batek (kasu honetan pertsonaia berri bat) parte hartu ondoren gertatu dela, gure buruari galdetzen diogu erlatiboaren erabilera ipuinaren egiturarekin lotuta izango ote den eta entzuleen memorian era indartsuagoan eragiteko erabiltzen den, hau da, narratzailea oraingoan erosleari buruz ari dela azpimarratzeko erabiltzen den. Interpretazio honen aldekoa izan liteke pluraleko lehehengo pertsonako genitiboaren erabilera (*gure gizona*) eta baita interjekzioen erabilera ere, esate baterako (10) adibidean: *igitaia daukatenak / o! / igitaia zaukan gizon honek* , "o!" interjekzioak, osatu gabeko sintaxian edo parataxi gisa horrelako zerbait izango luke baliokide: "eta igitaia duena / zer gertatu da igitaia duenarekin?". Nolanahi ere, ukaezina da, sortzen dituen harreman gramatikalen haratago, diskurtso-objektua aktualizatu eta fokalizatzeko estrategia narratibo gisa erabiltzen dela.

Konta-saioan zehar berrartzeak gertatzen dira, pertsonaia nahiz objektuenak, eta oraintxe aipatutakoak baliabide batzuk dira berrartze horiek modu eraginkorrean egiteko.

Erabiltzen diren kontzeptualizazio motak direla eta, interakzioaren ikuspegitik narratibotasun handia dute balore argumentatiboa duen ebaluazio bat sartzen dutelako eta istorioaren garapenaren orientazioa iradokitzen dutelako, adibidez, narratzaileak pertsonaia baten ahotsaz baliatuta oilarrari *txori* deitzen dionean (9 adibidea) eta izendapen horren jarraian barrea egiten duenean,

nolabait iradokitzen zaiguna da oilar horrek bere benetako boterea frogatu beharko duela, ez dela txori ziztrin bat.

(5) adibidean *haritza* hiponimoaren erabilerak irudikatze-estrategia bezala funtzionatzen du entzuleen buruetan leku edo espazio narratiboaren irudia eraikitzen laguntzen duelako: *...zuhaitz baten azpian / hortxe herriko enparantzan / haritzaren azpian...*

Ikuspegi linguistikotik izen bereziak denominatiboak dira, baina narrazioen kasuetan balore konnotatibo handia dute pertsonaien karakterizazioa garraiatzen dutelako, sarritan ezaugarri psikologikoetan oinarrituta, eta horrenbestez haien portaerari eta gertaerei buruzko informazioa iradokiz (*Don Seriyo* (4)). Horren eragina narrazio osoan proiektatzen da:

> **(31)** behin bazan gaztelu baten dorrerik altuenean hantxe bizi zan mutiko bat bere izena zan Amilotx / Amilotxek beti buruan ibiltzen zuen kapela urdin bat.../ Amilotxek negar egin zuen...

Goiko (31) adibidean pertsonaiari *Amilotx* izena ematean hizkuntzaren dimentsio interaktibo eta sozialak jartzen dira jokoan. Interakzioa zentzuaren efektu gisa ulertzen badugu, *Amilotx* izendapenak, txori baten izena alegia, irudipenezko ipuinari lotuta dago, eta nolabait, ipuinaren amaieran gertatuko dena iradokitzen du, izen horrek benetan ezkutatzen duena, hau da, pertsonaiaren izaera magikoa iradokitzen du baina agerian jarri gabe. Pertsonaien izen bereziek duten funtzio karakterizatzailea entzuleen buruetan irudi jakin batzuk sortzera bideratuta dago eta entzuleek istorioan gertatuko denari buruzko hipotesiak egin ditzakete izen horiek entzunda. Hori guztia, jakina, narratibotasuna lantze aldera. Zenbait kasutan pertzepzio-estrategia bat da, pertsonaien izaeran eta portaeran aldaketa edo transformazio bat nabarmentzeko intentzioa duena, kasu hauetan, gainera, narratzaileak ipuin bat bukatutzat eman eta beste batekin has daiteke, adibidez, maila diegetikoan *gizon* dena extradiegetikoan *Ahohandi* izan daiteke ((14) adibidea). Maila diegetikoan aurkezten diren pertsonaiak izanik, hona hauen aurrekari gisa lehendabiziko izendapenaren agerpenaren adibidea:

> **(32)** hiru gizon / herriz herri ibili zien gizon hauek / gizon horietariko batek bazeukan eskuan igitai bat / igitaia / em:? besteak bazeukan bere besoetan katu bat / eta hirugarrenak / sorbalda gainean / hemen / oilar bat...

Lehenengo kontakizuneko hiru gizon horiek, kontakizuna amaitu eta gero maila extradiegetikoan garapena jasaten dute eta izendapen berriak jasoko dituzte (*Betibil*, *Atzapar* eta *Nineu*; edo *igitaiduna* > *Atzapar* > *promotore*). Pertsonaia bakoitzaren garapenak beste kontakizun bat ahalbidetuko du konta-saioan, "aitzakia" edo hari narratibo gisa. Horrek konplexutasun narratiboa dakar. Hélias (1990) autoreak aipatzen du Bretainiako kontalari tradizionalek entzuleen arreta, nahi edo jarreraren arabera saioa luzatu edo moztu egiten zutela kontakizunetako pertsonaia berrien aitzakian beste kontakizun gehiago egiteko edo alderantziz, mozteko. Beraz, badirudi testuaren azpiegituraren eta kohesioaren elementuen arteko artikulazioa estua dela interakzio-egoera hauetan.

Onomatopeien kasuan, beren erabilerak adierazkortasuna ematen dio narrazioari. Elementu ikoniko hauek eduki subjektiboa garraiatzen dute eta irudikatze- eta pertzeptzio-estrategia gisa funtzionatzen dute, entzuleen irudimenera jotzen baitute:

> **(33)** gure gizon oilardunaren oilarra kukurrukuka ta kikirrikika hortxe! eta kanporatu zien ou:! nekazariak / eta ikusi zuten bou::! bota ta bota kukurruku ta guztiak zerura!...
>
> **(34)** *Kontalaria*: (...) azaldu zan txori bat / txori txiki txiki bat / saltoka! ttan ttan! saltoka ttan! saltoka ttan! ta papoa! kolore gorria! hantxe zijoan ttan ttan! gorri gorri / ttan ttan! gorri gorri / bere izena badakizue zein dan noski!
>
> *Entzuleak*: XXX
> .....ez
> .....bai
> *Kontalaria*: .....ez? ttanttangorria! Ezagutzen dezute?

ttanttangorria?
Entzuleak: bai::::::i!
Kontalaria: mutikoak ttanttangorria ikusi / sa:rea hartu eta sarea egin zuen d:ia::t! jaurti!

Onomatopeien balore ikoniko hori garbi ikusten da (34) adibidean, non onomatopeia aurrekari batekin korrespondentzian dagoen (*txori bat*), baina gainera, badu balore kataforikoa ere, txorien saltotxoak (*ttan-ttan*) imitatuz diskurtso-objektu berria iradokitzen baitu, asmakizun bat balitz bezala aurkeztuta. Izan ere, asmakizun erako antzeko estrategiak ohikoak dira ahozko narrazioetan (Hélias, 1990; Larringan, 1992; Kaltzakorta 1989). Onomatopeia hori, gainera, narratzaileak eskuekin egiten duen keinuekin lagunduta doa, hatz erakuslearekin eta hatz luzearekin imitatzen baitu txoriaren ibilera. Bestalde, onomatopeia osatzen duten fonema horiek txoriaren izenean ere agertzen dira (*ttan ttan! > ttanttangorri*) eta joko poetiko tankerako horrek balio estetiko-literarioa ematen dio narrazioari eta haren dimentsio interaktiboa eraikitzen laguntzen du.

Onomatopeiak, beste hainbat elementu bezala, keinu ikonikoak dira, diskurtso-egintzak ez diren arren testuan hizkuntza-aztarna uzten dutenak eta irudiak burura ekartzeko estrategia bezala balio dutenak.

Mundu narratiboa poetikoki iradokitzen duten beste elementu batzuk ere baditugu, esate baterako enuntziazioan esanahiak sorrarazten dituzten interjekzioak eta bestelako elementuak edo fonema multzoak (*au* (2), *oh* (2), *ua* (14), *ma* (35),...) edo abestiak (*maitiak galdegin zautan...*):

(35) garai hortan izan zen ere hiru andrek izan tzutela / nahiko / bizi hortan / gure herriko bizian parte handia hartu zutela / lau / hiru andre / hiru ma ziren / hm! (abestuz) *maitiak galdegin zautan premu nintzanez / maitiak galdegin zautan premu nintzanez / premu premu nintzela bainan etxerik ez etxerik ez / maitiak galdegin zautan / polita nintzanez / maitiak galdegin zautan polita nintzanez / polit polita nintzela bainan / hum! larrua beltz larrua beltz /* bo! ma / ma / hiru (panderoari kolpea) ma ma horietarik bat zen Maiena!

> Maiena / igande goiza zen [...] (kriskitin) hori! Maialeren gauza / en fin! bigarren ma izan da: / au e Margaita!/ [...] hirugarren ma / Maialen da! ni nire amona / amona Maialen! bueno hor piska bat emango o sartuko naiz nire intimita / hau da nire bizian! intimitatea ezta! intimitatea! bakarrik nere amona Maialen nere aittona e / Manuren ze a emaztea da! Manu / eskulangilea delako / Manu hargiña da! eta: [...] hori zen hirugarren ma! ...

Gorago jarri dugun adibidean *ttan-ttan* adierazpideak txoriaren irudia iradokitzen duen bezala, hemen *ma* silabak, *ama*, *emakume*, *maitia* bezalako hitzetan ere badagoena, modu poetikoan iradokitzen digu aurkeztuko dituen hiru emakumezkoen agerpena, eta narrazioaren aldetik pertsonaia berri diren hiru andre horien izen bereziak ere *ma* silabaz osatuko dira: *Maiena*, *Maialen*, *Margarita*.

Makilargi kontu saio honetan bertan, aipatzen diren lekuekin lotuta zein testuinguruko espazioarekin lotuta dauden leku-adberbio ugari agertzen dira, sarritan, balore zehaztugabearekin; adberbio horien erabilerak indar narratiboa ematen dio kontakizunari eta irudikapen-estrategia bezala funtzionatzen dute. Lehen esan dugun bezala, funtzionamendu anaforikoa duten adberbioak dira kontestua kotestuan integratzen dutelako (ikus gorago 20, 21,22, 23, 24, 25, 26 adibideak ere); kate isotopikoak, beraz, kontestuko eta kotestuko elementuak biltzen ditu:

> **(36)** gure gizonak badaki / itsas sakon sakonean daudela / m:: / aingurak / badakizu? itsasuntziek galdutako: burnizko hoiek / hortxe daude / [...] / hortxe daude: / [...] ta gu hortxe tartean gizonak bobo! [...] / gizakiaren artean / hortxe nunbait /...
>
> **(37)** konturatu naiz azkenean / tunela / hantxe berekaldean hantxe tunelaren erditik txio:u lau pista /...

Era berean, erakusleen eta haien forma eratorrien erabilerak: *honekin, horrela* (38 adibidea), ez dute adierazten aurrekari batekiko erreferentzia soilik, irudikapen-estrategiatzat ere erabiltzen baita, eszenatokien aldaketa adierazteko, edo pertsonaien arteko elkarrizketak txertatzeko:

> **(38)** gizon bat / aizkora batekin [...] zuk ja! harrizko aizkora horrekin ez duzu gauza handik egingo / baina honekin (> igitaia) bai posible da lana egitea / [...] gure gizona: (igitaiaren mugimendua egingo du) rist rast rist rast / horrela egiten du / igitaiak / eta horrela egin du...

Badaude maila extradiegetikoan dauden elementuak berrartzen dituzten erakusleak ere, ondoren maila diegetikoan integratzen direnak (*igitaia* > *horrekin*). Igitaiari dagokionez, esate baterako, lehen aldiz maila diegetikoan agertzen da (*gizon horietariko batek bazeukan eskuan igitai bat* (2)), lehendabiziko ipuinean.

Gatozen orain une batez atalean ikusi ditugun adberbioen erabilerara (*hantxe kanpoan, hortxe herriko enparantzan, hantxe nunbait izkutuan...*), enuntziatu horiek ipuinen narratibotasuna sortzen laguntzen dute; Garcia et alii-n (argitaratzeko) esaten genuen bezala, aforismo edo sententzia balorea duten enuntziatuak dira eta horrelakoetan narratzaileak lokutore ezezagun baten ahotsaren bitartez hitz egiten du.

Polifonia-jokoek, (40, 41) adibideak kasu, adierazkortasuna ematen diote narrazioari eta errealismoa ematen diote istorioan kontatzen diren gertaerei, narratiboago bihurtzen dute istorioa:

> **(39)** aha! harro harro / a::: a! honek denak! denak! katu ta ba: xagu a arratoi guztiak denak hil / hil dizkizu! a bai? eta / salduko ze / zeniguke hau?...

Amaitzeko ahozko mintza-jarduera hauetan agertzen diren beste bi fenomeno aipatu nahi genituzke, labur bada ere. Batetik, narratzaileek, egokien deritzenean, testuaren kohesioan ardatz diren elementuei buruz galde diezaiekete entzuleei, interlokuzioaren bidez nolabaiteko diskurtsoaren ko-eraikuntza esplizitua eginez. (35) adibidean ikus daiteekeen bezala, narratzaileak asmakizun poetiko gisa aurkeztu duen txoriaren izena asmatzea eskatzen die edo hobe esan, lehenengo galdetzen die ea asmatu duten zein txori izango den kontakizunean agertuko dena. Beste adibide bat honako hau dugu:

(40) *Kontalaria:* eta gure: lagunak / kamioian sartu eta rau! abiatu da / berriro kamioi / m / e: / (kriskitin; ahaztu zaionarena eginez) kolorea?

Entzuleak: gorri ta beltza

Kontalaria: a hori da! gorri ta beltza / gorri ta beltza / detaile hoiek dira zue ba gure irudia ere piska martxan emateko / ahaz / eta badaukat holako (kriskitin) / beti (_) / ka: / kamioi gorri ta beltza / berriz abiatu da bum!...

Ikusten den bezala, kontalariak lehenik kamioaren koloreak ahaztu balitzaizkio bezala jokatzen du, eta gero, zirikatzeko entzuleei esaten die irudimena laguntzearren galdetu duela. Interakzioa indartzeko interlokuziozko mekanismoa da.

Bestetik, aipatu nahi genuke ahozko hizkuntzaren izaerari berari lotuta lapsuak (edo sasi-lapsusak) gertatzen direla konta-saioetan, hau da, gerta daiteke transkribatutako testuetan konturatzea sintaxiaren aldetik perpausak osatu gabe daudela edo oso bereziak direla (adibideei begiratu besterik ez dago), hutsen bat dagoela pertsonaia bat aipatu beharrean beste bat aipatu delako, edo aditz forma singularren eta pluralen arteko erabilera nahastuak eta komunztadura nahasketak (*igitaia daukatenak / o! / igitaia zaukan gizon honek* (10)), e.a. Ahozko hizkuntzan sintaxia ez da idatzian bezain sistematikoa eta era honetako lapsusak aurkitzea arruntagoa da idatzian baino. Arrazoia agerikoa da: idatzian berrirakurketak eta zuzenketak egiteko astia dago, eta ahozkoan berriz, aurrera egitea baino ez dago hutsa konpontzeko. Gainera, genero honi dagokionez, aurkitu ditugun lapsusek ez dute inola ere eragozten ulermena eta istorioaren jarraipena. Batetik, ahozkoan ez dago segmentalki agertzen den elementu linguistiko hori bakarrik kohesio-mekanismo gisa, keinuek, tonoak, eta abarrek laguntzen dute, eta beraz, izenez nahastu arren kontakizunean bertan badaude beste mintzairazko nahiz ez mintzairazko zeinu edo mekanismoak ulermena ahalbidetzen dutenak. Bestetik, narratzaileek ez dute sekula atzera egiten haiek konpontzeko, arian-arian konpontzen dituzte, narrazioak aurrera joan ahala,

zenbaitetan istorioaren beste une batean berriz ere izendapen egokiak erabilita, beste batzuetan, (10) adibidean bezala, interjekzio bat baliatuta birformulazio egokira igarotzeko. Horrela narratibotasunari heltzen dio denbora guztian.

Fenomeno horiek azaltzeko leihokatzearen teoria proposatu zuten Luzzati & Mir-Samii, (1996) eta Luzzatik (2004). Autore horiek gogorarazten diguten bezala, ahozko hizkuntzan komunztadurak esate baterako, pentsamenduaren bitartez eta enuntziazio-egoerako baldintzatzaileen arabera egiten dira, eta ez sintaxiaren bitartez. Fenomeno hori azaltzeko leihokatze sintaktikoaren teoria proposatzen dute eta horren arabera modu ezberdinetan eraikita dauden leihoak aurkituko genituzke transkribatutako ahozko testu batean; teoria horren ikuspegitik enuntziazioaren kudeaketa kognitiboa oso gorabeheratsua da; jokoan jartzen du lokutorearen konpetentzia, baina konpetentzia hori era berean haren hizkuntza-gaitasunaren mende dago eta haren enuntziazioarekin lotuta. Horrek eskatzen du koherentzia sintaktikoa etengabe eta arian-arian sortzen joatea. Nolanahi ere koherentzia sintaktikoaren gabezia edo berezitasun hori ez da inola ere oztopo koherentzia pragmatikoarentzat, ez du entzuleen ulermena edo kontakizunaren ulermena oztopatzen. Bukatzeko, esan dezagun, giza jarduera hau, praktika sozio-kulturala den heinean, artearen arloari lotuta dagoela eta ez hainbeste zientifikotasunari, hau da, ez du eta ez du behar beste genero formal batzuek eskatzen duten zehaztasun eta zuzentasun maila edo mota bera (hitzaldiak, testu teknikoak, epaiketak, e.a.).

2.3. Elementu kohesiboen dimentsio soziala

Dagoeneko esan dugun bezala, ikuspegi sozio-diskursibotik ahozko narrazioak testu-ekoizpen kokatuak dira, beren barnean biltzen dituztenak maila linguistikoa, maila testuala edo enuntziatiboa eta maila soziala edo egoerazkoa.

Ikuspegi sozialetik mintza-jarduera gertatzen ari den testuinguruari lotutako ikuspegiak integratzen ditu ahozko narrazioak eta alde horretatik, komunikazio-helburuekin bat datorren testu-molde jakin bat adoptatzera edo hartzera eta ondoren egokitzera behartuta dago narratzailea. Saio narratiboetan na-

rratzaileak ez du soilik ipuin edo istorio bat kontatzen; saio osoa hartu behar du kontuan, entzuleen aurrean aurkezten den momentutik saioa guztiz bukatu arte, betiere entzuleak kontuan hartuta. Saio hori kudeatzeko erabiliko dituen hizkuntza-baliabide guztiak zein hizkuntzazkoak ez direnak entzuleriarengan igurikimenak sortzera bideratuta daude. Bere programa diskurtsiboa aurrera eramateko orduan narratzaileak testuinguruaren irudikapen bat du, eta mintza-jarduera irudikapen horren araberakoa izango da eta hura gauzatzeko testuak edo diskurtsoak baliatuko ditu, kultura eta gizarte horretan identifikagarriak diren testuak eta historian zehar gizarte horren ezagutzak transmititzeko erabili izan direnak: "Langage verbal constitué de *signes* [...]. Signes organisés en *textes ou discours* qui codifient et conservent les connaissances de l'espèce au-delà des cycles de vie des individus;..." (Bronckart, 2005), alde horretatik, beraz, testu bakoitza "kokatutako hizkuntza-egintza baten gauzatze semiotikotzat har daiteke" (Bronckart, 2001).

Hasieran esan bezala, ahozko narratzaileen saioak beren heterogeneitate enuntziatiboa dute ezaugarri nagusitzat. Ikuspegi horretatik, nabarmentzekoa da saio narratiboetako erreferentzia-munduak aktibatzen dituzten elementuen balore soziala. Esate baterako, *Fatima* bezalako izen bereziaren erabilera, gure erkidegoan ez ohikoa den emakumezkoen izena eta aldatzen ari den gizarte batera eramaten gaituena, edo *Don Serio* izena, edo *egurrezko erregela bat* adierazpidea, eskola-esperientzia jakin batera hurbiltzen gaituena, irakasleen zorroztasunarekin eta zigor fisikoarekin lotuta dagoena.

(2) adibideko *harrizko aizkora batekin!* adierazpidearen kasuan, tresna horrek igarotako denborari dagokiola adierazten da, tresna zaharkitua dela eta garai berrietara egokitu beharra azaltzen da. Beheko adibideari erreparatzen badiogu, *gurutze handi horiek* adierazpideak guretzat ezaguna den errealitate kultural batera garamatza, baina era berean, kritika sozial bat ekartzeko erabiltzen da, gurutzeak ezpatekin (sinbologia belikoa) alderatzen baititu, horrekin batera enuntziatuaren lexikoak duen konnotazio erlijiosoarekin: *gurutze*, *zeru*, e.a.

> **(41)** ikusi du ere bai / mendi / garrai haietan / gailur gailurretan holako: gurutze batzu jartzen! (txalo jo du) gurutze handi hoiei

> begira gure gizonak /(digresio tonoa) m! ein zuen / o! hau! m! badirudi / zeruko ezpata bat dela / zeruak ezpatak botatzen balitu bezela lur gainera! a:! eta gure gizonak badaki / itsas sakon sakonean daudela / m:: / aingurak / badakizu? itsasuntziek galdutako: burnizko hoiek / hortxe daude / hiru: / hortzetako sardeak bezela lurra: eta itsasoaren: sardeak / zeruari begira! gaiñeko / aingeru txuria ta / lur azpiko aingeru gorria! hortxe daude: / borrokatzeko prest ez:pata ta sardea!...

Era berean, narrazioetan gizakien bertute eta handinahiak integratzen dira, pertsonaiek hartzen dituzten ezizenetan islatzen direnak. Ezizen horietan laburtzen da, halaber, narrazioetan zehar pertsonaiek jasatzen dituzten transformazioak: *Amilotx, Nineu* (13), *Ahoandi* (14), *Betibil* (15), *Atzapar* (33).

Pertsonaiak, gizakien akzioak, gertaeren eragile izan daitezke:

> **(42)** hori guzia etzen gertatuko gure herrira ezpalira etorri hiru gizon! batek bazuen eskuan e: / igitai bat / ps:! bigarrenak bere besoetan holako katu bat / hirugarrenak e sorbalda gainean / o oilar bat /...

Kultur ondarearen berregokitzea dagoela esan daiteke, bai ekintza edo akzio motei dagokienez: *hotela eraiki, golfa, autopista, tunelak*, ..., baita gainontzeko lexikoan ere: *oporrak, aisia, promotore, pentsio, bankulari*,...

> **(43)** non bere e / eremuetan / eginarazi baitzuen e / golf bat / golfa / golf eder bat hemezortzi zulotakoa...
>
> **(44)** igitaiak saltzen noski eta igitaiak saltzerakoan sik sik auzoko gauzak moztu ebaki ta / (hitz totelka) eta e (duda-mudan ari da) / promotore bilakatu da...
>
> **(45)** utzi lana! emango diogu / hilero / diru piska bat / pentsioa...

Abestien, poemen, onomatopeien, errefrauen... erabilera komunitatearen kultur-ondareko elementuak dira, narratzaileak sormen narratiborako erabil -

tzen dituenak. Elementu horiek, gainera, entzuleen arreta narratzaileak arianarian nabarmendu nahi dituen alderdietara bideratzeko erabiltzen dira.

Modu batera edo bestera, narratzailea ahozko tradizioan dagoen genero batetik abiatzen da, eta entzuleek zailtasunik gabe identifikatzen dute genero hori testuaren sormenerako gaurkotasuna duten elementuak integratu diren arren, izan lexikoaren esparrukoak zein baliatzen dituen errekurtso eszeniko eta instrumentalak. Ikuspegi horretatik, narrazio-saio biek errespetatzen dituzte testu-generoaren ezaugarriak baina narratzaile bakoitzak egiten duen testualizazioaren emaitza testu-produkzio ezberdina da.

Dimentsio sozialari dagokionez, bi testu narratiboen arteko ezberdintasun nagusia lexikoak, izen propioek eta gauzatzen diren ekintzek duten balio konnotatiboei dagokie, besteak beste. Helduek giza esperientzia handiagoa izanik, haiei zuzendutako saioetan testualizatzen diren eduki erreferentzialak ere konplexuagoak dira. Literatura eremuari eta nola ez narrazioari berezko zaion osagaietako bat atzematen dugu beraz: giza esperientziari buruzko gogoeta. Brunerren hitz hauek gogoratuko ditugu: "Je veux simplement dire, à cette étape, que le récit, même fictionnel, donne forme à ce qui existe dans le monde réel et qu'il lui confère même une sorte de droit à la réalité (Bruner 2002, 21)".

Badirudi, giza esperientziaren gogoeta hori, halakoa edo holakoa izan, oso lotua dagoela garaian garaiari, eta berezko ezaugarri duela berehalakoan eta jendaurrean egiten den kontakizunaren genero honek behintzat. Beraz, kontakizunen dimentsio sozialaren mailak ere etengabeko moldaketak eta berrinterpretazioak egitea eskatzen du, generoaren adaptazio-prozesua gauzatzekotan.

3. Ondorioak

Lehenik eta behin, ohar bat kohesio-mekanismoak biltzeko erabili dugun eskemaren inguruan, izan ere hori besterik ez da, eskema bat. Lana egin ahal izateko eredu bat, ahozko narrazioan agertzen diren baliabideen aniztasunaren berri ematen laguntzeko lanabesa. Ez du beraz, inola ere ez, kohesio-mekanis-

moen sailkapen zurrun eta estua izan nahi, kasuan kasu eta testu-generoaren arabera mekanismo horiek itxura eta zeregin ezberdina har dezaketelako.

Ondorietako bat da testu idatziaren sintaxia gainditzen duten forma kohesiboak ageri direla ahozko narrazioetan. Testu idatzian kohesioa kotestuan dauden hizkuntza-marken bitartez adierazten da esplizituki, ahozko narrazioetan, ordea, sintaxi hori testuinguruan dauden elementuekiko erreferentzian eraiki daiteke; hizkuntza idatzian eta ikuspegi estu batetik deiktiko izango liratekeen elementuek balore anaforikoa bereganatzen dute ahozko saio hauetan. Horrela, keinuak, mugimenduak eta testuinguruko elementuei egiten zaizkien erreferentziek balore ikonikoa hartzen dute eta testuan aztarna uzten duten egintza ez diskurtsiboen edo ez berbalen parte izatera igarotzen dira. Hortaz, anaforen aurrekariei dagokienez ez dira beti berbalizatutako elementuak, zenbaitetan mintza-jardueraren testuinguruan era batera edo bestera dauden elementuak baitira.

Testuinguruko elementuak kotestuan integratze horren beste arrazoi bat da ahozko narrazioetan diskurtso-objektuen aktualizazioa arian-arian eta espontaneoki egiten dela, narratzaileak aurretik prestatutako programa diskurtsibo-enuntziatiboa duen arren. Beste era batera esanda, nahiz eta narratzaileak aurretik planifikatuta eta era batera edo bestera landuta[5] duen kontatu behar duena, jarduna gertatzen ari den momentuan bertan eta berehalakoan hartzen dituen erabakiak, intentzioarekin edo intentziorik gabe, espontaneoki gauzatzen ditu; horren erakusgarri dira keinuen, elementu kontestualen agerpena, enuntziazioan interpretatzen diren deixiak, eta gainontzeko mekanismoen parte hartzea kohesioaren eraikuntzan. Esataria eta entzulearen artean dagoen interlokuzioetan kohesioa elkarren artean eraikitzen dute, eta eraikitze hori ere lokala eta espontaneoa da. Espontaneitatearen hirugarren adierazle bat dira gorago ikusi ditugun lapsusen agerpena eta komunztadura ezak, baina horiek ez dute mintza-jarduera gertatzen den unean

[5] Héliasek (1990) dio bere aitonak, Bretainian XX. mendeko hasierako kontalari tradizional ezaguna zenak, arbola bati kontatzen ziola trebatzeko eta probak egiteko, konta-saio batera gonbidatua izan eta aspaldian jendaurrean saiorik egin gabe egonez gero.

inola ere anbiguotasunik sortzen eta testu-koherentzia ezarik eragiten; eta esan bezala, ez dute eragozten testuen ulermena.

Horretaz gain kontuan izan behar da, Larringanen (1992) hitzak ekarriz gogora, narratzaileak sortzen duen testua ez dela banako lokutore baten jarduera sinbolikoaren emaitza, baizik eta modu transitiboan funtzionatzen duten bi instantzia enuntziatiboen emaitza.

Gainera, baliabide kohesiboen erabilerak, eta bereziki baliabide estetiko-poetikoen atalean sailkatu ditugun baliabide ez konbentzionalek, intentzionalitate handia erakusten dute, saioen interakzio narratiboa eraikitzera bideratuta, hain zuzen. Horrela, narratzaileak testua kohesionatzen du eta era berean estetika literarioa sortzen du. Hau irudikatzeko eta orain arte kusi ditugun adibideak osatzeko, ikus dezagun berriz, nola kontalariak pertsonaia berriak karakterizatzen dituen. Herriko errementariari buruzko kontakizuna integratzen duen zatia ikusiko dugu adibidean:

> **(46)** a baño e! burnia / zeinek aurkituko du burnia / nun? zeiñek landuko du? herrian / aukeratu / egin zuten / gizon bat / pum! zu / errementari / tu! errementari / zer da? (poesia tonoa) *errementari! burnia atxeman eta lan egin!* ez eskatu niri nola egin zuen gizon honek / lehen burni zati hori / aurkitzeko / dakiguna / da / egin tzuela / mailua!

Ikusten denez, "*eta herrian aukeratu zuten gizon bat, errementari izateko (...)*" bezalako segmentu batetik urrun aurkitzen dugu goikoa: polifonia jokoak, *pum-zu-tu* (onomatopeia/izenordain/interjekzio eta bestelako fonema multzoak) bezalako osagaien arteko joko estetikoa, errepikapena, errefrau erako esaldi poetikoak... testualizazio modu hauek mereziko lukete azterketa sakonagoa.

Ahozkotasun literarioaren[6] genero honek hizkuntza-baliabideak nola darabiltzan ikusi nahi izan dugu, sarreran aurreratu bezala, hizkuntzalaritzaren

[6] Héliasi (1990, 217) hartu diogu terminoa, egokiagoa baiteritzo ahozko genero honen eremua izendatzeko.

eta literaturaren azterketak batzeko ahaleginetan. Horrela ekidin nahi genituzke han eta hemen, gaurko eta atzoko autoreetan aurreiritziz jositako deskribapenak, hala nola Lafitten hau: "Mintzairaz den bezainbatean, ez da egiazko legerik: kondatzaile bakoitxak badu bere euskara eta bere jeinua. Etxeko eta herriko hizkuntza baderabila, dakien neurrian ala mordoilo, aditzaileei kausitu nahiz. Kondatzean, edergailu guti: han-hemenka atsotitz bat edo bertze; konparazione bat edo bertze, arrabots edo zarata-hitz batzuk jostatzeko ateraldi bakar batzuekin" (1973, 165).

Héliasen esanetan (1990), kontalari tradizionalek beren kontakizunetan batzuetan ulergaitza eta asmatua zen lexikoa zerabilten. Sormen bide handia eskatzen duen jarduera estetikoa da dudarik gabe, hitzaren artea ere badena. Ekin diogun bidetik erakutsi nahi izan dugu literatur balio horiek baliagarriak direla oso konta-saioa genero bezala ezaugarritzeko. Larringanek (1992) dioen moduan, euskarazko kontalaritzak erosio doblea jasan du, linguistikoa eta kulturala, baina badarrai eta ondare kultural eta linguistiko garrantzitsua da gaur egun ere. Baina azpimarratu nahi dugu mintza-jarduera eta genero bezala berezkoak diren irizpide estetiko eta linguistikoekin aztertu beharra dagoela oraindik ere.

Ahozko narrazioan parte hartzen duten sistema semiotikoen heterogeneotasunak idatzian ohikoak ez diren kohesio-mekanismoak mobilizatzen ditu. Zalantzarik gabe, azpimarratu behar den alderdietako bat da mekanismo horien aniztasuna, ez baitira mugatzen ohiko forma anaforikoetara, eta gainera, sortzen diren harreman anaforikoak gramatikatik haratago doaz. Testuinguruko elementuak eta narratzailearen keinu eta mugimenduek garrantzi handia dute eta ezinbestekoak dira kohesioa nola eraikitzen den ulertu ahal izateko; kate isotopikoen elementu gisa integratzen dira narratzailearen diskurtsoan, errefrauekin, iruzkinekin, abesti eta soinuekin,... eta saioetako balore narratibo eta kulturala taxutzen eta estetika literarioa eraikitzen laguntzen dute beste hainbat elementurekin gertatzen den bezalaxe.

Testu-generoaren ikuspegitik konta-saioak genero jakin batekoak bezala identifikatuak izan daitezen, genero horrek berezkoak dituen zenbait elementu mo-

bilizatzera behartzen du narratzailea; ezaugarritze horrek urteetan zehar garatzen joan den lan soziala eskatzen du, eta horri esker gizarteak, etengabeko hartze-egokitze prozesu batean, testu bat genero bateko ale bezala identifikatzen du.

Dena dela, genero bat hartu edo adoptatu ondoren, kasu honetan narrazio-saioa, egokitze-lana narratzaile bakoitzak sortzen duen testuan eta bakoitzak narrazioari ezartzen dizkion berezitasunetan islatzen da. Alde horretatik, ezberdintasuna nabari da aztertutako saio bien artean. Helduei zuzendutako saioko narratzaileak umeei zuzendutako narrazio-saioan baino askoz zoliagoak eta zorrotzagoak diren baliabide eta esanahiak erabiltzen ditu, entzuleei egokituta eta errealitate konplexu batekiko interpretatu behar direnak. Ikuspegi sozio-diskurtsibotik ikusten da diskurtso narratiboak egun indarrean dauden giza baloreak integratzen dituela: lexiko modernoaren bitartez, gaur egungo gizartearen ezaugarriak narrazioan sartuta, narrazio-saioaren eszenifikazioan... Umeei zuzendutako saioan ere kohesio-mekanismoen zolitasuna eta intentzionalitatea nabari dira, baina apalagoak eta entzuleen adinera eta ezagutza-mundura egokituta. Gainera, arrazoi horrengatik, kohesioa eraikitzeko erabiltzen diren baliabideek iradokitzen digute planifikazioak eta interakzio-egoera partikularrak zenbaterainoko duten eragina.

Narrazio-saioetako kohesioan hainbat interakzio jartzen dira jokoan narratzailearen eta haren jarduera garatzen ari den testuinguru sozialaren artean. Dimentsio linguistikoari, interakzionalari eta sozio-diskurtsiboari eragiten dieten interakzio horien berri emateko, hiru alderdi horiek hartu ditugu kontuan eta ikusi dugu, ahozko sintaxia oso berezia izanik, erabiltzen diren zenbait kohesio-mekanismo egoki interpretatzeko, azalpenari ezin zaiola heldu ikuspegi linguistikotik soilik; hori da gertatzen dena zenbait errepikapen motekin, interjekzioekin, hainbat eraikuntza sintagmatikoekin, onomatopeiekin, soinu eta abestiekin, eta abarrekin.

Bestalde, aztertu dugun elementu askoren kasuan ikusi dugun bezala, kohesioa eta modalizazioaren mugak ez dira beti oso garbiak mekanismo horren erabilerak ikuspegi enuntziatiboak ere jartzen dituztelako agerian (anafora

kontzeptualen ebaluazioen bitartez, izkutuko ahotsen edo esatariaren jarreren bitartez, ironiaren bitartez, izenen konnotazioaren bitartez, e.a.).

Arrazoi berberarengatik, kohesioa ezin da interpretatu ikuspegi gramatikaletik soilik, ikuspegi hori ez da nahikoa ahozko narrazioan gertatzen denaren ikuskera bat izateko; beste sailkapen batzuk behar ditugu serie isotopikoak eta enuntziazioan esanahiak sortzen dituzten marka linguistikoak eta haien arteko harremanen funtzionamendua hobeto azaltzen lagunduko digutenak. Gramatikak ez dirudi determinantea, baina bai, Larringanek (1992) azpimarratzen duen bezala, ikuspegi komunikatibotik, jarduera kultural eta berbazkoa den neurrian narratzaileak hartzen dituen erabakiak.

Labur esanda, kohesio-mekanismoek narratibotasunean duten eragina egiaztatu dugu. Kontatzen jakitea testuaren zerbitzura jartzea da eta besteak beste testualizazio-mekanismo anitzak erabiltzen jakitea, alderdi formal, interakzional eta sozialak biltzen dituzten baliabideak kontuan harturik eta sormen literarioaren menpe jarririk. Hala eta guztiz ere, ahozko kontakizunetan mobilizatzen diren baliabide horiek testu-generoari egotzi diezazkiokegun berezko ezaugarriak dituzte, eta horrek baldintzatuko du azken batean beren baliagarritasuna. Bukatzeko, lan honek erakusten du testu-generoen ikuspegia ere balia dezakegula literatur alderdietara hurbiltzeko. Literatura hizkuntzaren erabilera bat baita eta ahozko narrazio literarioak, besteak beste, ahozko solasaren bitartekoak ere baliatzen ditu.

Bibliografia

ADAM, J.-M. & LORDA, C.-U. 1999, *Lingüística de los textos narrativos*, Barcelona, Ariel.

AULESTIA, G. 1994, «Marcel Jousse y Manuel Lekuona: dos pioneros de la literatura oral». *RIEV: Revista Internacional de los Estudios Vascos*, tomo XXXIX, 1 (1994) 27-40.

BAKHTINE, M. 1984, *Esthétique de la création verbale*, Paris, Gallimard.

BLANCHE-BENVENISTE, C. 1997, *Approches de la langue parlée en français*, Paris, Ophrys.

BRÈS, J. 1994, *Le récit oral*, Montpellier, Praxiling Montpellier III.

BRONCKART, J.-P. 1996, *Activité langagière, textes et discours,* Paris, Delachaux et Niestlé.

BRONCKART, J.-P. 2001, «L'enseignement des discours. De l'appropiation pratique à la maîtrise formelle», in *Proceedings of the 8th Conference of the International Association for the Syudy of Child Language*, Somerville, Cascadilla Press, 1-16.

BRONCKART, J.-P. 2004, «Commentaires conclusifs. Pour un développement collectif de l'interactionnisme socio-discursif», *Calidoscopio*, vol. 2 nº2 (2004) 113-123.

BRONCKART, J.-P. 2005, «Les différentes facettes de l'interactionnisme socio-discursif», *Calidoscopio,* vol. 3, nº 3, (2005) 149-159.

CALAME-GRIAULE, G. 1991, *Le renouveau du conte*, Paris, CNRS.

DIAZ DE GEREÑU, L., LARRINGAN, L.-M. & IDIAZABAL, I. 2008, «Ipuin kontalaritzaren eredu berria?» in *Euskaltzaindiaren XV. Nazioarteko biltzarra*, Bilbo, Euskaltzaindia, 47-58.

DIAZ DE GEREÑU, L. (argitaratzeko), «La dinámica en el análisis discursivo de las prácticas verbales de los narradores contenporáneos en lengua vasca», in II Encontro Internacional do Interaccionismo SocioDiscursivo-linguagem e desenvolvimento: perspectivas epistémicas e praxiológicas, Lisboa, 2007.

FABRE, D. & LACROIX, J. 1974, *La tradition orale du conte occitan*, Paris, PUF.

FILLIETAZ, L. 2002, *La parole en action. Élements de pragmatique-psycho-sociale*, Québec, Ed. Nota bene.

GARCIA, I.; IDIAZABAL, I.; LARRINGAN, L.-M. (argitaratzeko), «Contar el mismo cuento a los 5 y a los 8 años. Una explicación desde la perspectiva del interaccionismo socio-discursivo». in II Encontro Internacional do Interaccionismo SocioDiscursivo-linguagem e desenvolvimento: perspectivas epistémicas e praxiológicas, Lisboa, 2007.

GENETTE, G. 1989, *Figuras III*, Barcelona, Lumen.

GROBET, A. 2001, «L'organisation informationelle: aspects linguistiques et discursifs». *Journal of French Language Studies*, vol. II, 1 (2001).

GOFFMAN, E. 1991, *Les cadres de l'expérience,* Paris, Minuit.

HÉLIAS, P.-J. 1990, *Le quêteur de mémoire*, Paris, Plon.

IDIAZABAL, I, & LARRINGAN, L.-M. 2008, «Ahozkoari antza hartzeko hiru gogoeta», in *Euskalgintza XXI mendeari buruz,* Iker-19 XV, Bilbo, Euskaltzaindia, (2008) 29-38.

IDIAZABAL, I.; MANTEROLA, I. & ALGREM, M. 2008, «Acquisition of Basque in successive bilingualism: data from oral storytelling», in *Language Contact and Contact Languages*, Amsterdam, John Benjamins.

JACQUES, F. 1985, «La mise en commucauté de l'énonciation», *Langages*, 38 (1985) 47-72.

KALTZAKORTA, X. (1989), «Herri ipuinen hasiera eta amaiera formulak» in Kaltzakorta, X, Larringan L.M. & Etxebarria, J.M., arg., *Tradiziozko ipuingintza,* Bilbao: Labayru, 11-32.

KORTAZAR, J. 2007, «Ainoa» in Sabadell-Nieto, Joana, koord., *Cien años de poesía. 53 poemas en catalán, gallego y vasco: estructuras poéticas, pautas crítica,* Bern, Berlin, Bruxelles, Frankfurt am Main, New York, Oxford, Wien, 535-546.

LAFOREST, M. 1996, *Autour de la narration*, Québec, Nuit Blanche Éditeur.

LARRINGAN, L.M. 1992, «Ipuingintza: Komunikazioa eta praktika linguistikoa», in *Euskera- XXXVII*, (Separata) (1992) 497-505.

LEKUONA, J.-M. 1982, *Ahozko Euskal Literatura,* Donostia, Erein.

LUZZATI, D. & MIR-SAMII, R. 1996, «La transition de l'accord par le relatif: vers une théorie de "fenêtrage"», *Faits de langues*, Volume 4, 8,(1996) 193-202.

LUZZATI, D. 1998, «Rhétorique et description de l'oral», *Verba*, 25 (1998) 7-30.

LUZZATI, D. 2004, Le fenêtrage syntaxique: une méthode d'analyse et d'évaluation de l'oral spontané, *MIDL*, Paris, 29-30 [http://www.limsi.fr/MIDL/actes/session%20I/luzzati_MIDL2004.pdf].

PITTET-BLANCHARD, C, & ALII 1990, *Que sont les conteurs devenus?* Genève, Institut d'études sociales.

RASTIER, F. 2001, *Arts et sciences du texte*, Paris, PUF.

ROULET, E. 1999, *La description de l'organisation du discours. Des dialogues oraux aux discours écrits*, Paris: Hatier.

ROULET. E.; FILLIETAZ, L.; GROBET, A. & BURGER, M. 2001, *Un modèle et un instrument d'analyse de l'organisation du discours*, Bern, Berlin, Bruxelles, Frankfurt /M., New York, Oxford, Wien, Lang.

SACKS, H. 2000, *Lectures in Conversation*, Vol. I & II, Oxford, Blackwell.

VERNUS, M. 2004, *La veillée, découverte d'une tradition*, Yens sur Morges, Cabedita.

Errepikapen lexikoak ahozko modalitatearen koherentzia sintaktikoaren ikuspegitik aztergai[1]

ALEGRIA SUSPERREGI, Alaitz
Bigarren Hezkuntzako irakaslea

Sarrera data: 2009-07-25
Onartze data: 2009-11-26

[1] UPV/EHUko (9/UPV 00033.130-13614/2001), Eusko Jaurlaritzako (IT-262-07), eta MEC/MICINN eko (BFF2003-05196; HUM2006 - 11862; FFI 2009 – 13956) ikerketa laguntzek ahalbidetu dute ikerketa hau.

Lan honen helburua ahozko elkartruke komunikatiboetan oso ohikoa den fenomeno baten, errepikapen lexikoen, inguruan sortu ohi diren ordenamendu eta egitura sintaktiko bereziak deskribatu eta interpretatzea da. Ugariak dira ahozko estilo baten adierazletzat har ditzakegun fenomenoak: parataxia, monema proposizionalak, anakolutuak, errepikapenak, silepsi eta elipsi fenomenoak... Horiek guztiak behar bezala deskribatu, interpretatu eta epaitzeko, ordea, ahozko modalitatearen sintaxiaren arauen barruan neurtu, baloratu eta interpretatu behar dira. Hain zuzen ere, azken ideia honi jarraituz, eta ahozko modalitatearen koherentzia sintaktikoa hobeto ezagutzeko asmoz, izaera espontaneoa duten ahozko 19 testuetan zehar aurkitutako errepikapen lexikoak aztertu ditugu. Horretarako, ahozko sintaxia aztertzeko Daniel Luzzatik proposatzen duen Koherentzia Sintaktikodun Leihoak izan ditugu azter-unitate nagusi. Azterketa horren emaitza gisa jasotzen da errepikapena bezalako fenomenoen inguruan eraikitako egitura sintaktikoak ez direla inolaz ere baztergarriak. Ahozko koherentzia sintaktikoaren eta enuntziazio baldintzen ikuspegitik guztiz onargarri eta justifikagarriak dira eta kasurik gehienetan funtzio zehatzen bat betetzen dute –esaterako, edukiaren ulermena ziurtatu, aberastu edo erraztea edota mintzakideen arteko elkarkidetza alderdia indartzea–.

Hitz-gakoak: Ahozko hizkuntza, solasaldia, ahozkoaren sintaxia, koherentzia sintaktikoa, errepikapen lexikoak.

El principal objetivo de este trabajo es describir e interpretar estructuras sintácticas particulares que son resultado de un fenómeno muy común en las conversaciones orales: el fenómeno de las repeticiones léxicas. No son pocos los fenómenos que son considerados como indicadores de un estilo oral: la parataxis, los monemas proposicionales, los anacolutos, las repeticiones, la silepsis o la elipsis... Sin embargo, no debemos olvidar que para describir, interpretar y juzgar o valorar todos ellos desde un punto de vista lingüístico es imprescindible tener en cuenta las leyes sintácticas de la modalidad oral. Siguiendo esta última idea y con intención de conocer mejor la coherencia sintáctica de la modalidad oral, hemos analizado las repeticiones léxicas encontradas en 19 textos orales de carácter espontáneo. Las Ventanas de Coherencia Sintáctica propuestas por Daniel Luzzati han sido nuestra unidad de análisis principal. Como resultado de nuestro estudio mostramos que las estructuras sintácticas creadas alrededor de fenómenos como la repetición no son en absoluto despreciables. Al contrario, estas estructuras tan particulares son totalmente aceptables y justificables desde el punto de vista de la coherencia sintáctica y las condiciones de enunciación propias del leguaje oral; más aun, en la mayoría de los casos realizan

alguna función específica – por ejemplo, asegurar, enriquecer o facilitar la comprensión del contenido o reforzar la interacción entre los interlocutores-.

Palabras clave: Lenguaje oral, conversación, sintaxis oral, coherencia sintáctica, repeticiones léxicas.

Le principal objectif de ce travail est de décrire et d'interpréter des structures syntaxiques particulières qui sont le résultat d'un phénomène très courant dans les conversations orales : le phénomène des répétitions lexicales. Les phénomènes considérés comme des indicateurs d'un style oral ne sont pas rares : la parataxe, les monèmes propositionnels, les anacoluthes, les répétitions, la syllepse ou l'ellipse, etc. Cependant, nous ne devons pas oublier que pour tous les décrire, interpréter et juger ou évaluer d'un point de vue linguistique, il est indispensable de tenir compte des lois syntaxiques de la modalité orale. En suivant cette dernière idée et afin de mieux connaître la cohérence syntaxique de la modalité orale, nous avons analysé les répétitions lexicales trouvées dans 19 textes oraux à caractère spontané. Les Fenêtres de Cohérence Syntaxique proposées par Daniel Luzzati ont constitué notre unité d'analyse principale. Comme résultat de notre étude, nous montrons que les structures syntaxiques créées autour de phénomènes comme la répétition ne sont absolument pas négligeables. Au contraire, ces structures si particulières sont tout à fait acceptables et justifiables du point de vue de la cohérence syntaxique et des conditions d'énonciation propres au langage oral ; plus encore, dans la majorité des cas ils réalisent une fonction spécifique – par exemple assurer, enrichir ou faciliter la compréhension du contenu ou renforcer l'interaction entre les interlocuteurs-.

Mots-clés: Langage oral, conversation, syntaxe orale, cohérence syntaxique, répétitions lexicales.

The main objective of this paper is to describe and interpret individual syntactic structures that are the result of a very common phenomenon in spoken language: the phenomenon of lexical repetition. There are few phenomena that are regarded as indicators of an oral style: parataxis, propositional monemes, anacoluthons, repetitions, syllepsis or ellipsis... Yet we must not forget that to describe, interpret, judge or evaluate all from a linguistic point of view it is essential to take into account the syntactical laws of the oral

modality. Persisting with this latter idea and to better understand the syntactic coherence of the oral modality, we analysed the lexical repetitions found in 19 oral texts of an idiopathic nature. The Syntactic Coherence Windows proposed by Daniel Luzzati have been our primary unit of analysis. As a result of our research we have demonstrated that the syntactic structures created around phenomena of repetition are by no means negligible. Rather, are so peculiar that they are perfectly acceptable and justifiable from the viewpoint of syntactic coherence and the enunciation conditions themselves of spoken language, or rather, in most cases perform some specific functions, for example, assure, enrich or facilitate understanding of the content or strengthen the interaction between storytellers.

Keywords: Oral language, conversation, oral syntax, syntactical coherence, lexical repetitions.

1. Aurretikoak

Hizkuntzaren ahozko eta idatzizko modalitateak zein hauetariko bakoitzean sortutako testuetako egitura sintaktikoak alderatzerakoan hainbat desberdintasunekin egiten dugu topo. Hauek, funtsean, modalitate bakoitzaren linealtasun, izaera material eta enuntziazio baldintzekin dute zerikusia. Ahozko modalitatearen gauzatze lineala denborazkoa da eta gauzatze testualen materialari begira, kanal desberdinen bitartez helarazten da mezua. Interlokutoreen artean hitzak ez ezik, begiradak, keinuak, inpresioak... elkartrukatzen dira. Beraz, hizkuntzazko elementuek, elementu prosodikoek, paralinguistikoek, kinesikoek eta proxemikoek bezainbesteko garrantzia hartzen dute. Idatzizko ekoizpenen linealtasuna bestalde, espaziala da eta materiala, grafikoa. Enuntziatuen[2] eraikuntzari begira, ahozkoan berehala eraikitzen ditugu enuntziatuak, pentsatzen eta aukeratzen diren heinean esaten ditugu hitzak; idatzian ordea, enuntziatuak eraiki aurretik denbora gehiago har dezakegu, zer esan nahi dugun eta nola esan nahi dugun pentsatzeko.

Horrela bada, bi modalitateek hitzak enuntziatuan ordenatzeko orduan sistema sintaktiko bera oinarri hartzen badute ere, ahozko enuntziatuetan –bereziki, honen ekoizpen espontaneoenetan, lagun arteko solasean, esaterako- idatzizkoetan hain ohikoak ez diren fenomeno bereziekin egiten dugu topo: parataxia, monema proposizionalak, anakolutuak, errepikapenak, silepsi eta elipsi fenomenoak... (Luzzati, 1998; Krier, 2000). Hauek guztiak, ahozko diskurtsoaren gauzatze testual askotan arruntak badira ere, modalitate idatziaren arau edo lege sintaktikoen ikuspegitik arau hausteak dira.

Ahozko euskararen hizkuntza-azterketa ugari egin dira gurean, bereziki, dialektologia eta fonologiaren arloan. Era berean, diskurtsoaren analisiaren barruan ere pixkanaka ugaritzen ari dira ahozko hizkuntza aztertzeko lanak,

[2] Enuntziatu: Hizketa-mailan, helburu komunikatiboa duen hitz-multzoa, testuinguru espazio-tenporal batean jaulkia, eta mintzajardunaren oinarrizko unitatetzat har daitekeena. Perpaus gramatikal edo ez-gramatikal baten bitartez nahiz perpausa laburbil dezakeen esamolde baten bitartez gauza daiteke (Elhuyar-en Euskal Hiztegi Moderno-tik hartutako definizioa).

esate baterako, Larringan & Idiazabal (2001), Diaz de Gereñu (2004, 2005; argitaratzeko), Idiazabal & Larringan (2005, 2007), Larringan (2002, 2007), Idiazabal & Garcia (2007), Garro (2007), Garcia, Idiazabal & Larringan (prentsan); Almgren et alii (2008) edo ahozko adierazpena lantzeko proposamenak bertsolaritzaren tradiziotik abiatuta (Gartzia, 2008). Lan askok debatea bezalako testu-genero formalak edota ipuingintza eta ahozko ipuin kontalaritzaren eredu enpirikoak dituzte aztergai, baina komunikazio-egoera espontaneoetan gauzatutako mintzajardunetatik[3] sortutako testuak, guk dakigula behintzat, ez dira oraindik aztertu[4] euskaraz, eta are gutxiago testu horien sintaxiaren berezitasunak. Eta beste hainbeste esan beharrean gaude ahozko testu errealen sintaxiaren azterketei dagokienez. Horregatik, beste hainbat hizkuntzetan egin diren azterketen (besteak beste, Blanche-Benveniste, 1997; Briz, 1998, 2000, 2002; Gadet, 1989; Kerbrat-Orecchioni, 1990, 1996; Luzzati, 1996, 1998, 2004; Nonnon, 1999; Vigara, 2002) bidetik, euskarazko ahozko modalitatearen barruan genero formaletik urrun dagoen hizkera ezagutu eta karakterizatzea egin beharreko lana dela uste dugu. Behar horri erantzuteko bideari hasiera ematea da, beraz, lan honen helburu orokorra.

Gure asmoa, beraz, ahozko modalitatean -zehazki, izaera espontaneoa duten mintzajardunetan- aurkitzen dugun sintaxiaren deskribapenari ekitea da. Gure helburua gorago aipatutako fenomeno berezien inguruan sortzen diren ordenamendu eta egitura bereziak deskribatu eta interpretatzea da. Izan ere, hauetariko asko ahozko estilo baten adierazle ez ezik, ahozkoaren sintaxiaren deskribapen eta funtzionamenduaren inguruko hipotesiak osatzeko lagungarriak ere badirela uste dugu.

Dena den, guztiari ekitea ezinezko zenez, fenomeno sintaktiko konkretu batean jarri dugu oraingoan arreta: errepikapen lexikoetan. Bost testuinguru

[3] Aurrerantzean mintzajardun adiera erabiliko dugu ahozko diskurtsoaren edozein gauzapeni erreferentzia egiteko.

[4] Horren erakusle dugu film eta telesailetako hizkera-ugaritasunari erantzuteko Euskal Telebistan burutzen ari diren arakatze eta sorkuntza lana (cf. Larrañaga, 2003).

komunikatibo erreal eta desberdinetan jasotako testuetan errepikapen lexikorekin lotuta aurkitutako hitz-ordena eta egiturak izan ditugu aztergai. Hauen deskribapena egin eta hauek ahozkoaren sintaxian duten funtzioa zein den ezagutu nahi izan dugu horrela. Horretarako, ondorengo ideia hartu dugu abiapuntu: ahozko modalitatearen sintaxian –hitzek enuntziatuan erakusten duten ordenamenduaren ikuspegitik ulertuta (Krier, 2000)– eragin zuzena duten baina idatzizko arauen ikuspegitik epaitu ezin diren errepikapenak bezalako fenomenoak ahozkoaren sintaxiaren arauen barruan neurtu, baloratu eta interpretatu behar direla.

Dena den, azterketan murgildu aurretik, eta lan hau bere testuinguruan hobeto kokatzeko, hainbat kontu izango ditugu hizpide, hala nola: ahozko modalitatearen izaera anizkoitza; ahozko testu askotako sintaxi berezia eta berau aztertzeko bi proposamen; edota errepikapen lexikalen inguruan egin diren azterketen emaitzak.

1.1. Ahozko hizkuntza eta ahozko diskurtsoaren testuratzea

Zer ulertzen dugu "ahozko hizkuntza edo ahozko modalitatea" diogunean? Ahozko diskurtsoaren gauzatzea komunikazio-jarduera arrunt, espontaneo eta lagun artekoarekin, eta hizkuntza idatzia emaitza landu eta estandarrarekin parekatzeko joera nagusi izan da urteetan zehar (Blanche-Benveniste, 1987)[5]. Ahozko eta idatzizko diskurtsoen gauzapen testualak "espontaneo" eta "landu" kategorietan oinarrituz konparatzea, ordea, ez da egokia bi kasuetan aurki baititzakegu modu espontaneoa edo landuagoan sortutako ekoizpenak[6] (Blanche-Benveniste, 1997). Funtsean, beraz, ahozkoa eta idatzizkoa

[5] Honako ideia hau, besteak beste, Blanche Benvenistek (1987) XX. mende hasieraz geroztik ahozko frantsesa (*française parlé*) aipatzen duten lan teoriko eta dokumentuak (bereziki, liburu pedagogiko eta gramatika liburuak) aztertu ondoren ateratako ondorioa da.

[6] Interneteko "chat" bitartezko komunikazioaren baitan sortzen den idatzizko testua esaterako, aurretik landu gabe, unean bertan espontaneoki eraikitzen den testua dugu; eta alderantziz, ahoz jendaurrean egin ohi diren aurkezpenak aurretiko prestaketa baten emaitza izaten dira.

mintzajardunen continuum edo ardatzean aurkitzen ditugun bi modalitate edo gauzatze direla onartzen da gaur egun.

Gauzak horrela, onartu behar dugu ahozko testuak, idatzizkoak bezala, ugariak ez ezik soziologia desberdinekoak ere izan daitezkeela. Hiztunok eguneroko bizitzan komunikazio-egoera desberdinei lotuta parean tokatzen zaizkigun behar, interes, zein harreman sozialei erantzuteko ahozko mintzajardun desberdinenetan gauzatzen ditugun testuak sortu eta eraikitzen ditugu: publizitate-testua, erosle-saltzaile arteko elkarrizketa, bat-bateko bertsoa, gai baten inguruko aurkezpena, laneko elkarrizketa, telebistako debatea, antzerkia... Beraz, argi dago ahozko modalitateaz ari garenean ez garela ahozko bakar batez ari, idatzizkoaren arau berberak jarraitu gabe eraikitzen diren mintzajardunen gauzapenez baizik.

Ahozko modalitateak erakusten duen heterogeneotasun horren barruan halere, Dolz & Schneuwlyk (1998) muturreko bi ahozko mota bereiztea proposatzen digute. Batetik, ahozko "espontaneoa" edo solas gisako elkartruke komunikatiboetan aurkitzen dugun hizkera inprobisatua. Bestetik, "idatzi mintzatua" edo ahoz gauzaturiko idatzizko hizkuntza, hau da, aurretik idatzia edo planifikatua izan den testu batean oinarritutako ahozko ekoizpena. Muturreko bi ahozko praktika hauen arteko continuumean ezaugarri bereizgarriak dituzten ahozko erabilera desberdinak aurkituko ditugu, beraz.

Halaber, askok uste izan dutenaren aurka, azken hamarkadetan ahozko diskurtsoaren gauzapen testual desberdinen inguruan egin diren ikerketek (besteak beste, Gadet, 1989; Blanche-Benveniste, 1990, 1997; Kerbrat-Orecchioni, 1990, 1996) argi erakutsi dute ahozko erabilera edo mintzajardunik informal eta planifikatu gabeena ere –lagun arteko solasa, esaterako–, arau edo erregela batzuen gainean eraikita dagoela.

Lan hau burutzeko erabilitako ahozko testuak, aurrerago zehaztuko dugun moduan, ahozko mintzajardunen continuum horretako muturreko ahozko espontaneotik hurbilen koka ditzakegun testuak dira, aurrez (guztiz) aurreikusi gabeak izan diren komunikazio-egoeretan bildutakoak. Dena den, ko-

munikazio-egoera bakoitzarekin zerikusia duten faktoreek (mintzakideen ezaugarriak, denbora- eta espazio-markoa, elkartrukearen helburua zein formaltasun-maila) mintzajardun hauen barruko hainbat alderditan eragina dutela jakinik ere – hitz-hartzeen zein hitz-txanden funtzionamenduan, mintzakideen gorputz-jarreretan, hizketa-gaian, aukeratutako hizkuntza-erregistroan...(Kerbrat-Orecchioni, 1996; Traverso, 2005)- oraingoz ez gara haien tipologia eta sailkapen kontuetan sartuko.

Sailkapen tipologikoak alde batera utzita, merezi du halere, guztiek partekatzen duten ezaugarri bat aipatzea: mintzajardun hauen dimentsio dialogikoa[7], interlokutore edo mintzakideei etengabeko inplikazioa eta arreta ez ezik haiek bertan parte hartzen ari direla era esplizituan adieraztea ere eskatzen diena. Kerbrat-Orecchionik (1996) gogorarazten digun moduan, bereziki dialogalak diren mintzajardunetan, hartzaileak igorlearengan ahulaldia sumatzen duenean, espontaneoki elkartrukearen jarraipena ziurtatzeko balio duten erregulatzaileak ("bai", "ez dakit ba", "ondo", "mh", "a ha", "primeran!"... modukoak) ugaritzeko joera izaten du; eta alderantziz, ahulaldi hori igorleak hartzailearengan antzematen duenean, harek elementu fatikoak ("eh?", "ezta?", "ulertzen?", "ez al zaizu iruditzen?"... modukoak) biderkatzen ditu honen arreta berreskuratzeko. Gure corpuseko testuak dialogalak izanik, dimentsio dialogiko hau oso kontuan izan dugu aztergai ditugun errepikapen lexikoen funtzioa interpretatzeko orduan.

1.2. Ahozko testuen sintaxia

Ahozko eta idatzizko modalitateak continuum edo ardatz berean kokatuta daudela onartzen dugun une beretik hauen atzean erregimen desberdinen baitan gauzatutako hizkuntza-sistema bakar eta bera aurkitzen dugula onartzen dugu (Gadet, 1989; Blanche-Benveniste, 1987). Oinarri gramatikal eta

[7] "Solaskidearen hitz txanda jarraitzen eta entzuten ari denak elkarreragin sarearen eraikuntzan parte hartze aktiboa erakusten duen une beretik hitz egin dezakegu mintzajardunaren dimentsio dialogikoaz" (Alegria, Diaz de Gereñu eta Manterola, 2008).

lexikal bera partekatzen da bi kasuetan. Desberdintasunek, hortaz, bakoitzaren linealtasun, izaera material eta enuntziazio-baldintzekin dute zerikusia, baita komunikazioaren izaera berarekin ere. Zentzu horretan, ahozko modalitatea idatzizkotik bereizten duten ezaugarri nabarmenenak horrela laburbilduko genituzke[8]:

- Mezua helarazteko kanal eta osagai mota desberdinak erabiltzea: hizkuntzazko elementuak, elementu prosodikoak, elementu paralinguistikoak, hizkuntzaz kanpoko elementuak.

- Elementu hauen izaera esklusibo eta iheskorra, behin ekoiztutakoan –grabatu ezean, behintzat– berreskura ezinak baitira.

- Mezuaren berehalako gauzatzea denborak baldintzatua izatea.

- Atzera jo eta esandakoa ezabatu edo aldatzeko aukerarik eza.

- Enuntziatuen interpretazioari begira testuinguruak eta mintzakideen ezagutza konpartituak duen garrantzia.

- Elementu betegarrien presentzia[9].

- Intonazioaren eta sintaxiaren arteko harreman estua.

- Parataxiaren[10] - hau da, segmentu frastikoen arteko lotura esplizitu ez egitearen- aldeko joera.

Ezaugarri hauek guztiek, zalantzarik gabe, ahozko testu askotan aurkitzen dugun sintaxi, itxuraz, berezi horren erantzule dira. Gauzak horrela, solasa

[8] Ikus Alegria, Diaz de Gereñu eta Manterola (2008).

[9] "eh" partikula zalantzazkoa zein betegarria; hitz laburren errepikapenak, hitz (talde) baten gainean eginiko zuzenketak, bertan behera utzitako hitz edo enuntziatuen hasierak, amaitu gabe utzitako enuntziatuak, hitz tarte laburrak, elementu fatiko ("mh", "ah",...) eta mintzajardunaren markatzaileak, bokalen luzapenak...

[10] Parataxiaren adib.: "hau da A4 bat bezela/ folio bat bezela/ pentzatz(en) (d)et/ honeaño", hipotaxi bidez –hau da, koordinazio eta menderakuntza bidez- "hau A4 bat bezalakoa, folio bat bezalakoa dela pentsatzen dut" ekoiztu beharrean.

bezalako mintzajardunak sintaxi berezi, inkoherente eta agramatikal batekin erlazionatu ohi diren ezaugarri eta fenomenoen agertoki izaten dira maiz:

- Parataxi bidez gauzatutako loturak: intonazioaren bidez gauzatutako koordinazioa:

(1) *hau da A4 bat bezela/ folio bat bezela/ pentzatz(en) (d)et/ honeaño* (13. elk.)

- Monema proposizionalak: hitz bakarreko esaldiak, adberbio izaerako elementuetara murrizturiko predikatuak:

(2) *ezetz esan zuen / orain ekuxita akaso/ zuk ekuxita esanez keo* (16.elk.)

- Anakolutuak: esaldi edo enuntziatu erdian buruturiko egitura aldaketa, hasierako komunztadura falta duen elementu edo unitate bat bertan behera utziz:

(3) *yo esque bueno no me parece muy oportuno* (R.A.E.)

[a mi]

- Elipsiak:

(4) *Æ badakate gatza o...*(5.elk.)

- Lexikalki gauzatu ez den balentzia, gramatikalki amaitu gabeko itxura hartzen duten egiturak:

(5) A: *gaixki egondu zera?*

B: *ez gizona dabilkit nahikooo Æ* (1.elk.)

- Sintaktikoki galdetzaile eta substantibo alternantzia segidan, galdetzailearekin bat datorren funtzio sintaktikoa azaltzen ez duten erantzun laburrak:

(6) *Bidaia bat egin behar dut – Nora? – Balear Uharteak – Bakarrik? – Nadinekin – Noiz arte? – Ekaina amaiera* (Jean Martineten adibidea, Krier 2000-tik hartua)

- Elementu parasitikoak:

(7) *ah ba deituko diot/ e- esango dio- bai bai ba nik deituko diot gero orain mobilera ta:: bue:- biyek elkarrekin/ azalduko gera* (7.elk.)

- Errepikapen lexikoak:

(8) *beste bikin polita florerua jartzeko polita duzu* (3.elk.)

Horrelako adibideen aurrean bistakoa da perpausa ez dela ahozko testuen sintaxia aztertzeko azter-unitate egokia, ahozkoan denetariko egiturekin egiten baitugu topo. Halere, antzeko kasuak idatzizko erabilera askotan ez aurkitzeak ez du adierazten ahozko testuetan maiz topatzen dugun sintaxia esklusiboa edo inkoherentea denik. Ahozkoak koherentzia sintaktiko propioa du. Luzzatik (1998) dioen moduan, idatzian koherentzia sintaktikoaren nozioa absolutua da. Perpausa da markoa eta gramatikaltasuna eta onargarritasuna dira koherentzia neurtzeko erabili ohi diren irizpideak. Ahozkoan, aldiz, koherentzia sintaktikoa erlatiboa, dinamikoa eta aldakorra da. Ez dago ekoizpenak epaitzeko balio digun aurrez zehaztutako markorik eta gramatikaltasun eta onargarritasun kontzeptuak berriz, unean uneko komunikazio- baldintza eta egoeren menpe daude.

Nola aztertu, orduan, ahozko testuetan maiz agertzen zaizkigun hitzen ordenamendu eta egitura berezi hauek? Krier-en (2000) ustez ahozkoaren sintaxia aztertzen hasi aurretik, komeni da "sintaxi" hitza darabilgunean zer ulertzen dugun argitzea. "Sintaxi" hitzarekin "ordena ezarketa" ulertzen badugu, hizkuntza-adierazpenen kasuan, diskurtsoko elementu jarraien ordenaz ariko ginateke. Beraz, ikuspegi honetatik egindako hizkuntzaren sintaxiaren azterketak enuntziatuaren barruan hitzak zein modutara ordenatzen diren edo ordena daitezkeen du aztergai.

Jarraian ahozko sintaxia aztertzeko proposatu diren bi azterketa aurkeztuko ditugu labur: Aix en Provence-ko GARS taldearena, batetik eta Daniel Luzzatirena, bestetik. Haien asmoa ez da hiztunaren gaitasun komunikatiboa

islatzen duen sistema bakar eta egonkor baten existentzia frogatzea, sistema bere horretan deskubritzea baizik. Arbuiatu beharrean, ahozko testuek erakusten duten heterogeneotasun eta ezegonkortasuna deskripzioan integratzen ahalegintzen dira. Ahozkoaren ekoizpenaren berri ematen diguten hizkuntza-arrasto eta hutsegiteen azterketan ez ezik, ahozkoaren berezko egituraketa sintaktiko eta diskurtsiboan ere jartzen dute interesa. Hizkuntza ekoizpen errealez osatutako corpusean oinarrituta, hizkuntza bere horretan, errealitatean agertzen den bezala (eta ez "behar lukeen" moduan) aztertzen dute.

1.2.1. GARS taldearen proposamena

Aix-en-Provenceko GARS (Groupe Aixois de Recherches en Syntaxe) taldearen azterketak komunikazio-egoera desberdinetan[11] bildutako ahozko testuez osatutako corpus zabal batean oinarritutakoak dira. Testu hauek monologalak dira gehienak. Darabilten prozedura berriz, guztiz deskriptiboa eta induktiboa da. Ikuspegi orokor bat hartu eta dena kontuan hartu beharrean, azterketa maila eta plano desberdinen arteko bereizketa egiten dute. Abiapuntu bezala maila morfo-sintaktikoa hartzen badute ere, irizpide deskriptiboak egokituz eta moldatuz beste azterketa-maila batzuk (lexikoa, tematiko zein diskurtsiboak) ere kontuan hartzeko aukera ematen du haien proposamenak.

Haien ordenamendu-sistemak garbi erakusten du ahozko testuen antolaketa berezia, "hezurdura sintaktiko" multzo bat eskaintzen baitu. Ordenamendu honen funtsa transkribatutako testua bi dimentsio edo ardatzen baitan antolatzean datza: ardatz horizontala edo sintagmatikoaren eta ardatz

[11] Zenbait elkarrizketa (gazteen zein helduen artean eta etxebizitza pribatuetan zein leku publikoetan buruturikoak); bizitzari buruzko kontaketa ugari (emakumeen bizimoduaz, haurtzaroaz, gerrako pasarteak, auzoko bizimoduaz...); gertaera edo gai zehatzen inguruko pasarteak (hiri barruko denda txikien egungo egoeraz); biztanleen eta instituzioen arteko harremanen ingurukoak; bere lanbidean esperimentatua den norbaiten ahotik jasotako pasartea; elkarte edo asoziazioren baten izenean hitz egiten dutenen pertsonen testigantza; irrati eta telebistatik jasotakoak etab.

bertikala edo paradigmatikoaren baitan. Testuko elementu eta unitate desberdinak bi ardatz hauen arabera ordenatzeko orduan, lehenik eta behin, gobernu sintaktikoaren teorian oinarrituz, aditzak gobernatuak direnak eta aditzaren gobernutik kanpo gelditzen direnak (*éléments associés*) bereizten dituzte. Hala, beheko adibidean antzeman dezakegun moduan, ardatz horizontalean zehar-funtzio sintaktiko eta diskurtsibo bakoitzari kokaleku sintagmatiko propio bat dagokio. Halaber, funtzio (eta kokaleku) bera partekatzen duten unitateak paradigma edo ardatz bertikal beraren azpian aurkitzen dira:

(9) *on est allé à on est arrivé à Barcelone on s'est perdu à Barcelone du coup on a dit tiens ben on va jusqu'à Valence puis on est allé là-bas*
(LIC 93, Sagape, Savelli, Blanche-Benveniste, 1990-etik hartua)

	on	est allé	à
	on	est arrivé	à Barcelone
	on	s'est perdu	à Barcelone
du coup	on	a dit	tiens ben on va jusqu'à Valence
puis	on	est allé	là-bas

Ardatz paradigmatikoaren erabilerari eskerrak, oso modu argian aurkez daitezke ahozkoan oso ohikoak diren egituraketa arrasto eta fenomenoak: esaldi osatze edo aldaketa, unitate beraren errepikapenak, aditzik gabeko segida nominalak, hutsegite, zalantza-une, bertan behera gelditutako enuntziatu, berformulazioak etab. Baita, enuntziatu batean autonomia intonatiboa eta semantikoa izan arren, kategoria gramatikalen arteko gobernuzko erlazio bidez azaldu ezin ditugun eta galderen erantzunetan maiz aurkitzen ditugun "bai, ados" moduko enuntziatuetako elementu edo unitateen banaketa ere.

Bereziki ahozko erabilera batzuetan hain arruntak diren arrasto hauek, ordea, ez dituzte hizkuntzaren sintaxi gisa definitzen, hizkuntzaren ahozko modalitatearen ekoizpen modu eta ezaugarri gisa baizik (Blanche-Benvenistek, 1997). Haien iritziz desegokia da, *subjektua+aditza* egituradun enuntziatu bat

ekoizteko hainbat saiakera hutsal aurkitzen ditugun beheko adibidea bezalako kasuetan, zati anitzez osatutako segida sintagmatiko bakarra dugula interpretatzea. Haien interpretazioaren arabera, beheko segida honetan, funtsean, kokaleku sintagmatiko bera partekatzen duten unitateak aurkitzen ditugu:

(10) *j'obs- je constate simplement je euh que malheureusement Martine ben elle a jamais fait son travail*

j'obs-
je constate simplement
je euh que malheureusement Martine ben elle a jamais fait son travail

(Blanche-Benveniste, 1997)

Haien iritziz, gisa honetako hutsegite edo saiakerak azterketarako traba baino, egituraketa sintaktikoaren balizko seinale dira.

Bestalde, elkarren gobernupean egon gabe nolabaiteko mendekotasuna erakusten duten unitate edo zatiak *-plus je cours* , *plus je deviens sportif* (Sav FP89, Blanche-Benveniste, 1990-tik hartua)- azaltzeko GARS taldeak ezinbestekotzat jotzen dute bi azter-lerro edo sintaxi-maila bereiztea:

- Sintaxia: aditza, izena edo adjektiboa bezalako kategoria gramatikalen gainean oinarrituriko egitura edo unitateen arteko erlazioen eremua;[12]

- Makro-sintaxia: kategoria gramatikalen gobernu bidez azaldu ezin ditugun erlazioen eremua. "Perpaus" gisa ulertzen ditugun unitate osoak zein honen maila gainditzen duten unitateak kontuan hartzen dituen maila[13].

[12] Eremu honek ez du ezinbestean bat etorri behar "perpaus" itxurako eta ezaugarri diskur -tsibo eta intonatibodun unitatearekin.

[13] Hona Blanche-Benvenistek (1990:39) eskaintzen digun adibidea: *il a beau avoir une carte omplètement paumé*. Unitate oso bat bezala ikusten dugun adibide honen barruan, kategoria sintaktikotara mugatzen den sintaxian oinarrituz, aditzaren gainean eraikitako egitura bat

Makro-sintaxiko oinarrizko unitatea "gunea" (frantsesez, *noyau*) da, enuntziatu batean autonomia intonatiboa eta semantikoa duen unitatea. Gune batek, berak bakarrik, enuntziatu bat osa dezake. Halere, ahozkoan unitate makro-sintaktiko desberdinak osatuz elkarren jarraian doazen gune-multzoak aurki ditzakegu. Beheko adibide honetan esaterako, lau gune jarrai bereizten ditu Blanche-Benvenistek (1997): [à Toulon] [exact] [oui] [á Toulon].

(11) *Elle habite à Toulon, c'est ça, hein?*

À Toulon, exact, oui, á Toulon (Guili 3,4, Blanche-Benveniste 1997-etik hartua)

1.2.2. Daniel Luzzatiren proposamena

Bigarren proposamena berriz, D. Luzzatirena (1996, 1998, 2004) dugu. Autore honek ahozko hizkuntza aztertzeko, batez ere, egoera espontaneoan sortutako ahozko praktika monologal eta dialogal desberdinek osatzen duten corpusa darabil[14]. Ahozkoa ikuspegi sintaktiko-enuntziatibotik aztertzen du, "fenêtrage syntaxique" deritzon metodoaren bitartez.

Koherentzia Sintaktikodun Leihoen (KSL aurrerantzean) inguruan proposatutako analisi honen azpian aurkitzen dugun ideia honakoa da: enuntziazio prozesuarekin batera sortua eta hautemana den ahozko enuntziatu espontaneo batean nozio hau leiho sinple batekin definitzen da. Leiho hau modu ez linealean, enuntziatuaren eta honen garapenaren neurrira, zabaltzen da (Luzzati, 1998, 2004).

Luzzatiren (2004) esanetan, ahozko ekoizpena zaindu edo neurtuagoa den heinean, koherentzia sintaktikodun leihoek zabalera handiagoa hartzeko joera

(*il a beau avoir une carte*) eta adjektiboaren gainean eraikitako beste bat (*complètement paumé*) dugula azal dezakegu. Aldiz, bi egiturak unitate nagusi beraren barruan duten elkarrekiko lotura ez da kategoria batean oinarritutako egituren kasuan aurkitzen duguna bezalakoa.

[14] Kafetegian bilduriko eguneroko bizitzari buruzko pasarteak; telefonoz buruturiko elkarrizketa estiloko praktika transakzionalak.

izaten dute. Era berean, leihokatzeen aniztasuna ahozko espontaneoaren ezaugarri da. Hau da, zenbat eta hizkuntza maila espontaneoago edo askeagoa orduan eta KSL labur gehiagorekin egingo dugu topo[15]. Halaber, leihoen zabalera potentzial hau ere hiztun bakoitzaren gaitasun komunikatiboaren adierazle litzateke (Luzzati & Mir-Samii, 1996); bestela esan, zenbat eta leiho zabalagoak, orduan eta komunikazio gaitasun handiagoa.

Gauzak horrela, ahozko enuntziazioan zehar, koherentzia sintaktikoa une jakin batean mugatua ez ezik, malgua den zerbait ere bada. Mugatua, ezkereskuin mugatua aurkitzen den entitate bat delako, nahiz eta maiz ez den enuntziatu osoa bere horretan hartzera iristen. Malgua, enuntziatuen garapenaren arabera eta haien neurrira eraldatzen delako.

KSLak "esparru sintagmatiko minimo" gisa definitzen dira eta hauen barnean, unitate desberdinen arteko (buru eta osagarrien arteko) gobernu- eta mendekotasun-erlazioak gauzatu ohi dira. Luzzatik 6 leihokatze mota bereizten ditu:

(a) Leiho arrunta [—] adib.: [*vous savez mon mari a un yacht*]

(b) Leiho etena [—< adib.: [*mon mari et moi sommes allés dans*<

(c) Hasierarik gabeko leihoa >—] adib.: > *à l'ile du Soleil Levant*]

(d) Leiho paradigmatikoa1 [—[—[— adib.: [*hier* [*hier matin mon mari et moi...*

(e) Leiho paradigmatikoa2 —]—]—] adib.: *nous sommes allés à ehu*] *dans un*]

(f) Segmentu bera partekatzen duten leihoak

(f1) [1a—[1b—1a]—1b]

Adib.: [*vous savez* [*mon mari a un yacht*] *vous savez*]

[15] Luzzati hiru hizkuntza egoera desberdinetan gauzaturiko ahozko ekoizpenen artean egindako konparaketan oinarritzen da hori esateko, guztiak ere, hizkuntza maila desberdinei dagozkienak.

(d) [—[—[— eta (e) —]—]—] motako leihokatzeak, ardatz paradigmatikoaren barneko bilaketa prozesuak lirateke. (f) [1a—[1b—1a]—1b] motako egituren kasuan berriz, unitate segida batean, XYZ, hiruetako bat beste biek partekatzen duten unitate bat da (*mise en commun*). Azken hau erdiko posizioan aurkitzen denean (f1), egoera bikoitzean aurkitzen da maiz, batetik, menpekotasun-egoeran eta bestetik, gobernu-egoeran gure corpusetik atera dugun adibide honetan gertatzen den moduan: *bueno/ oin- oin ipiñi tube* <*bentilaziyuek eta gauzak*> ipiñita dare *eh* (*bentilaziyuek eta gauzak*: osagarri zuzenaren funtzioa vs subjektuaren funtzioa). Apokoïnu izenez ere ezagunak diren (f) motako leihokatzeak ahozko enuntziatuetan maiztasun handia duten eta ahozkotasunari oso lotuta dauden fenomenoak dira.

Analisi modu honen bitartez, gutxieneko leihokatze sintaktiko bat osatzera iristen ez diren unitate, elementu edo pasarteak leihokatzeetatik kanpo gelditzen dira, erraz identifikatzeko moduan. Kasu horretan aurkitzen direnetariko batzuk hitz betegarriak (*ba, eh, bueno, hori...*) zein diskurtso barruko artikulatzaile eta markatzailek (*baina, eta orduan, eta...*) dira. Unitate sintaktiko zenbaiten errepikapenek edota bertan behera gelditutako hitz eta bestelako unitateen hasierek, aldiz, KSLn tipologia ematen digute aditzera –ardatz paradigmatikoaren barneko bilaketa prozesua, beraz, (d) eta (e); eta amaitu gabeko egiturak (b)–.

1.3. Errepikapenaren fenomenoa ahozkoan

Lan honetan, sarreran aurreratu bezala, ahozkotasunarekin estuki lotuta dagoen fenomeno bat dugu aztergai, errepikapen lexikoena. Errepikapen lexikoak aurretiko prestaketarik ez duten ahozko mintzajardunetan –bereziki, espontaneoenetan- gertaera arruntak dira, ahozkotasunaren elementu identifikagarriak (Luzzati, 1998) eta literaturan ere aski aipatuak.

Frédéric-ek (1985) gogorarazten digun moduan, tradizio erretorikoak errepikapenen modalitate desberdinen sailkapenari begira egindako ekarria handia eta esanguratsua da (cf. m taldea, 1987, Garavelli, 1988). Egun ezagutzen ditugun errepikapen mota gehienak, erretorika klasikoko figuren zerrenda

edo inbentarioetan sailkatuta eta izendatuta agertzen dira. Aipatu berri dugun autore honek hizkuntzan aurki ditzakegun errepikapen-modalitate desberdinak -errepikapen formalak (grafikoak, fonikoak, lexikoak, sintaktikoak, suprasegmentalak), semantikoak zein morfo-semantikoak- biltzen ditu lan bakar batean. Bi sail nagusi bereizten ditu errepikapen mota guztien artean:

- Borondatez kanpo egindako errepikapenak:

a) Zalantzazko une baten edo esan beharrekoa bilatzeko denbora hartzeak: *eh, bueno, ba* eta antzeko partikula betegarrien errepikapena;

b) Beldurra, urduritasuna, poza, haserrea, harridura, urduritasuna bezalako emozioren batek eragindakoak;

c) Informaziorik helarazi ez, baina arrazonamendu baten etapa desberdinak markatzeko funtzioa betetzen dutenak: *eta orduan...baina orduan... eta orduan...*;

d) Lexikalizatuak, erabileraren poderioz, hizkuntzan hitz bakarra eta bera balira bezala (baina ez balio berarekin) erabiltzen diren errepikapenak: *gorri-gorria*; *txiki-txikia...*

- Mintzakidearen nolabaiteko borondatea agerian uzten duten errepikapenak: mezuaren ulergarritasuna eta argitasuna helburu egindako informazio gehitzeak (adib.: *noiz botatzen iozu ho(r)i fungizida ho(r)i?*).

Blanche-Benvenistek zuzentzen duen GARS taldeak ez du zuzenean eta zehazki errepikapenaren fenomenoa aztertzen, baina ahozko sintaxia aztertzeko proposatzen duen hurbilketaren barruan aipatzen duen fenomenoetariko bat dugu errepikpena. Talde honek errepikapen-kasu batzuk ardatz sintagmatikoaren garapena oztopatzen duten gertaerak direla azaltzen digu:

(12) *hier hier mon mari et moi sommes allés dans un dans-*

---

hier

hier mon mari et moi sommes allés dans un

dans

Gisa honetako errepikapen lexikoak ardatz paradigmatikoan gertatzen eta azaleratzen diren gertaeren -zalantza une, zuzenketa, informazio gehitze, aberastasun estilistiko, denbora hartze etabarren- emaitza ikusgarriak lirateke, hizkuntza mintzatuaren ekoizpen modu eta prozesuaren arrasto. Arrasto hauek, haien iritziz, baliagarriak dira besteak beste diskurtsoa nola garatzen dugun, hau aurrera eramateko erabiltzen ditugun unitateak zein diren edo gure memoriaren mugak zein diren aztertzeko.

Luzzatik (1998), bere aldetik, figura erretorikoak erabiltzen ditu hizkuntza mintzatuak berezkoak dituen zenbait fenomeno aztertzeko. Erretorikan oinarritutako hurbilketa hau ahozkoaren deskripzio gramatikala helburu hartuta, ahozko estiloaren berezitasunak eskuratzeko egokia izan badaiteke ere, honek dituen traba eta gabeziak ere gogorarazten dizkigu: zenbait figuren izaera arbitrarioa eta hauen identifikazioak berarekin dakarren subjektibitate maila. Errepikapen figuren inguruan burututako azterketa orok sintagmaren mailako segmentazioa eskatzen du. Kontua da askotan egindako segmentazioak baldintzatzen duela figura baten edo bestearen arteko hautua. Bestetik, errepikapenen interpretazioa dugu. Luzzatik proposatzen duen moduan, errepikatutako sintagmek ez dute beti erlazio paradigmatikoa erakusten, hau da, ez dute nahitaez erreferente berari lotuta agertu behar. Hau hobeto azaltzeko ondoko adibidea dakarkigu:

(13) *le tuyau il était bouché le toyau il était bouche hein tu penses hé le tuyau il était bouché ça faisait déjà un petit moment*

Errepikapen kasu hau *épizeuxe* (a/a) figura erretoriko gisa identifikatzen du Luzzatik. Hau interpretatzerakoan, ordea, ez ditu errepikatutako hiru atal edo unitateak paradigma eta erreferente beraren baliokide kontsideratzen. Haren iritziz, kasu honetan errepikatutako elementuen estatus sintaktikoak elkarrekiko esklusiboak dira. Lehenengo atala hiztunak bere buruari egiten dion galdera gisa interpretatzen du, bigarrena, galdera erretoriko horren adierazpenezko erantzun bezala, eta aurrerago agertzen den hirugarren agerraldia, berriz, aurreko galde-erantzunen joko horren azpimarratze bezala.

Luzzatik, beraz, Blanche-Benvenistek aipatzen dituen "errepikapen paradigmatikoen" ondoan, "errepikapen sintagmatikoak" ere bereiztu behar direla defendatzen du. Bigarren mota honen barruan alderdi komunikatibo eta pragmatikotik interpretatu beharreko errepikapenak, asmo edo helburu komunikatibo jakin bat ezkutatzen dutenak, sartu beharko genituzke haren ustez.

Errepikapenen fenomenoa aztergai duten beste zenbait autorek (Tannen, 1987; T. Villamizar, 1993; Álvarez, 1994) funtzio erretoriko eta poetikoak aipatzen dituzte. Tannen-en iritziz, errepikapena formula errituala sortarazteko bitarteko bat da eta izaera automatikoa du. Bere funtzioen artean berriz, honakoak bereizten ditu: hizketaldia modu eraginkorragoan, azkarragoan eta neke gutxiagorekin burutzea. Haren iritziz, zenbait errepikapenek hizketaldiaren zama edo dentsitate semantikoa arintzearekin bat, mezuaren ulermena errazten dute. Bestetik, hizketaldiaren edo diskurtsoaren kohesioa eta funtzio fatikoa ere bideratzen ditu.

Guri dagokigunez, errepikapen lexikoaren fenomenoa ahozkoan gertaera arrunta izanik, ahozkotasunaren edo ahozko "espontaneotik" hurbilen aurkitzen den estilo baten ezaugarri ez ezik, ahozkoaren mezuaren antolatze modua ezagutzeko bidea ere ematen digun fenomenoa dela uste dugu. Ahozko modalitateak maiz erakusten duen sintaxi, formalki, "bereziaren" eragileetariko bat dugu errepikapena. Era berean, Luzzatirekin (1998) bat egiten dugu errepikapen kasu asko alderdi komunikatibo eta pragmatikotik interpretatu beharrekoak direla dioenean. Errepikapenen kasuak ugariak ez ezik, askotarikoak ere izan daitezke eta beraz, ez dago guztiak irizpide berdinak erabiliz azaldu eta baloratzerik. Hau guztia hala dela frogatzeko ahozko bost mintzajardun mota desberdinen transkribaketan oinarrituz, ondoko hiru galdera hauek erantzuten ahalegindu gara:

- Zein dira eta nolakoak dira errepikapen fenomenoaren inguruan sortzen diren egitura edo konfigurazio sintaktikoak?
- Lege sintaktikorik urratzen al dute errepikapenek?
- Zein funtzio betetzen du errepikapenak egitura bakoitzean?

2. Metodologia

2.1. Corpusaren ezaugarriak

Gure corpusean bildu ditugun ahozko testuak telefonoz zein aurrez aurreko komunikazio-egoera errealetan sortutako ahozko ekoizpenak dira. Ahozko elkartruke hauek isilpean[16] grabatu eta mintzakideei baimena eskatu ondoren *Audacity* programaren laguntzaz transkribatu ditugu. Briz-ek (1998, 2002) darabilen transkripzio-sisteman oinarritu gara transkripzio-irizpideak aukeratzerakoan.

Esan bezala, ahozko espontaneoaren ezaugarriak dituzten mintzajardunak izan ditugu eskuartean, bost komunikazio-egoeratan jasotakoak: azokan gertatutako bat-bateko topaketak; lagun/familia arteko solasak; hitzordua zehazteko lagun/familia arteko telefono-deiak; elkartruke transakzionalak (gehienak azokan eta dendetan gertatuak) eta irrati-saio batera egindako telefono-deiak gaian aditua den espezialistari aholkua eskatzeko.

Bertan parte hartu duten mintzakideei dagokienez, hauen ikasketa-maila eta sexua, adina zein elkarren arteko harremana desberdinak badira ere, guztiak dira adinez nagusiak eta etxetik euskaldunak edota eguneroko edo ohiko hizkuntza euskara dutenak. Gehienez ere lau mintzakidek eraikitako solasak dira guztiak.

Elkartrukeen formaltasun-mailari dagokionez, hau, oro har, pertsonen arteko harremanaren araberakoa da. Harreman estua duten edo ezagun diren mintzakideen arteko elkartrukeetan, oro har, ezezagun diren eta tratu funtzionala duten kasuetan baino tonu informalagoarekin egin dugu topo.

[16] Mintzajardun bakoitzari dagokion berezko komunikazio-egoera ez baldintzatzeko eta behatzailearen paradoxa ekiditeko (Labov, 1983) hartu dugu erabaki hau.

1. TAULA

CORPUSA OSATZEN DUTEN TESTUAK ETA HAIEN INGURUKO DATUAK

Elkarreragin mota	Erref. zkia	Iraupena	Hitz kopurua	
Bat-bateko topaketa	Trans. 1	1'03	79	
	Trans. 2	0'27	72	
	Trans. 3	0'46	97	
	Trans. 4	2'22	250	498
Lagunarteko solasa	Trans. 5	27'13	3108	
	Trans. 6	7'20	740	3848
Lagunarteko telefono deia	Trans. 7	1'07	182	
	Trans. 8	2'34	453	
	Trans. 9	2'46	436	1071
Elkarreragin transakzionala	Trans. 10	1'47	189	
	Trans. 11	0'53	81	
	Trans. 12	3'00	216	
	Trans. 13	1'38	77	
	Trans. 14	4'19	197	
	Trans. 15	3'47	285	
	Trans. 16	10'47	1861	2906
Irrati-kontsulta	Trans. 17	4'49	686	
	Trans. 18	2'57	414	
	Trans. 19	2'56	390	1490
Guztira		79,51	9813	

2.2. Datuen tratamendua

Gure azterketa esaldi edo enuntziatu mailan errepikatutako unitateetara mugatu dugu. Unitate hauek hitz bakar batez zein hitz multzo batez osatuak izan daitezke. Hauen aukeraketa egiteko orduan unitatea elementu batek baino gehiagok osatutakoa den kasuetan ez dugu ezinbestekotzat jo unitatea bigarrengo agerraldian bere osotasunean, berdin-berdin, errepikatua izatea. Beraz, elementu batekin/batzuekin lotutako aldaketak jasan dituzten errepi-

katutako unitateak ere ontzat hartu ditugu[17] unitate osoak funtzio sintaktikoa bera mantentzen jarraitzen duten neurrian. Unitatea lehenengoz agertzen denetik bigarrengoz agertzen denera aurki ahal izan ditugun aldaketak honakoak izan dira:

- Elementu berri baten gehitzea:

(14) *hemendik haraino bat/ hartzia [pareta dana]// [leihoko pareta dana]/ ta holan ya dau mahi oso bat*

- Elementu baten kenketa:

(15) *baino ez dira [gauza pertsonalak] hoiek?/ eske klaro [Æ pertsonalak] izango dira*

- Elementu baten ordezkapena:

(16) *[zea berriya]//[medikaziyo berriya] jarri zioten prostatantzako ta;*

Laburbilduz, corpusean errepikatuta agertzen diren unitateak biltzeko garaian kontuan hartu ditugun irizpideak ondoko hauek izan dira:

- Errepikapena hitzaren mailatik gorako eta perpausaren mailatik beherako unitateak izatea.

- Errepikapenak hiztunak hitz-txanda beraren barruan buruturikoak izatea.

- Errepikatutako unitateek, agertzen diren enuntziatu edo esaldiari dagokionez, funtzio sintaktiko bera erakustea, ondoko esaldien kasuan gertatzen den bezala:

(17) *Zubiondo/ zuk badakizu non dan Zubiondo?*

[17] Jakin badakigu, aldaketa hauek unitatearen balio denotatiboari dagokionez ere aldaketak eragiten dituela.

(18) *bai nik/ nik gomendatuko nizuke ziurtatzia men- mentu oinak hemenguak diala eh?*

(19) *gizona hil tzitzakonin lehen lehenengo nobiyu izendako horrekin/ horrekin ezkondu eta oain hori hil*

(20) *beste bikin polita/ florerua jartzeko polita*

Aldi bereko bi hitz-hartzeak eragindako errepikapenak ere jaso ditugu, baita ere, kanpoko zarata edo bestelako faktoreren batek eragindako errepikapenak, beti ere, hiztunak hitz-txanda beraren barruan gauzatuak badira. Baina bazterrera utzi ditugu hitz-txanda mantendu, berreskuratu edota hura galtzeko arriskuaren beldurrez burututako errepikapenak. Bestetik, aldaketa fonetikoren bat izan duten unitateak ere ontzat hartu ditugu: *ein dezu* > *in dezu* etab.

Aldiz, ez ditugu kontuan hartu:

- Formalki berdinak baina semantikoki desberdinak diren hitz polisemikoak.

- Zalantzaz transkribaturiko zatiren bat duten enuntziatuen baitan topatutako errepikapenak;

- Aldi bereko hitz-hartze zein hitz txandaren aurre-hartze baten ondorioz hiztunak "erdizka" utzitako unitateak ere (adib.: [*nahiko-*] [*nahiko lan*]; [*eman-*]/ [*emango (d)izut*]).

- Enuntziatu beregainetan aurkitutako unitateen errepikapenak (cf. 21 eta 22 adibideak), ezta unitatea bigarren agerpenean birformulatutako enuntziatu baten barruan aurkitzen bada ere (cf. 23 eta 24 adibideak):

(21) *ez haundixa EZ DAUKET NAHI DOT haundixa// baña txikiña dauket*

(22) *ze PELIGROSUE dauen espaloi hau/ LATZA nola dauen*

(23) *ZEAKIN zijon/ GURE NERE KOÑATAN ILLOBAKIN zijon*

(24) *euro bat HAMABI PLA- LANDARE/ PAKETE BATEK euro bat*

Luzzatik proposatzen duen eta lan honetan erabiliko dugun "leiho" kontzeptua kontuan hartzen badugu, goiko adibideetariko bakoitza bi leiho oso eta beregainetan bana dezakegu (nahiz eta 24 adibidean aditzaren elipsia dugun). Aldiz, guk aztergai izango ditugun kasuetan, errepikatutako unitateak leiho bakar eta beraren barruan (cf. 25) edota leiho banatan, leihoetariko batean bakarrik aurkitzen den unitatea konpartituz (cf. 26: IN BI(HAR D)OZU; 27: HAU DA) agertzen zaizkigu:

(25) [*hartu-hartu*] *zenbat jan dituzute?*

(26) *baña klaro* [*hori*<[*hori bai*<[*hori IN BI(HAR D)OZU neurrira*]

(27) [*HAU DA A4 bat bezela*] *folio bat bezela*]

Adibide guztiak eskuartean edukitakoan, Luzzati bereizten dituen 6 leihokatze mota desberdinak kontuan hartuta, errepikatutako unitateetan aurkitu ditugun eskema edo egiturak bereizi eta transkribatzeari ekin diogu. Horretarako, ondoko ikurrak erabili ditugu eta oinarritzat hartu dugun irizpide nagusia, Luzzatik egin bezala, "errepikapen paradigmatikoak" eta "errepikapen sintagmatikoak" bereiztea izan da. [18]:

[...] Leiho arrunta, errepikatutako unitateak barnean hartzen dituena.

[18] Egitura desberdinak transkribatzeko erabili dugun sistema hau erretorikak baliabide/figura literario desberdinen eskemak transkribatzeko eta Luzzatik (2004) leihokatze desberdinak bereizteko darabiltzaten sistemetan oinarrituz osatu dugu.

(X) Errepikatutako unitatea. Dagokionean, bigarren agerpenean, honen barruan gertatzen diren aldaketak ere (X1)>(X2) adierazi ditugu;

/ Denbora-tarte labur baten bidez zein intonazioaren[19] bidez markatutako muga;

... Enuntziatuan parte hartzen duten gainerako unitate sintaktiko eta elementuak;

__* Errepikatutako unitateekin lotura sintaktikoa duen unitatea;

& juntagailua;

[...< Enuntziatuaren jarraipena etena;

(...) Hitz tarte edo elementu betegarriren batez osatutako zatia.

Egitura edo eskema desberdinak bereiztu eta gero, hauetariko bakoitzaren deskripzioa eta interpretazioa egin eta hauen arteko konparaketa egin dugu.

3. Emaitzak

Irizpide eta baldintza hauek guztiak kontuan hartuta, 83 errepikapen-kasu bildu ditugu gure corpusean.

2. TAULA

CORPUSEAN BILDUTAKO ERREPIKAPEN KASUAK

Bat-bateko topaketa	Lagun/ familia arteko solasa	Lagun arteko telefono-deia	Elkartruke transakzionala	Irrati-kontsultak	GUZTIRA
7	24	10	29	13	83

3.1. Errepikapenak barne hartzen dituzten egituren deskripzioa

Arestian adierazitako ikurren arabera, 83 errepikapen-kasuak jarraian deskribatuko ditugun bederatzi eskemetariko baten arabera transkribatu ditugu:

1. [...((X)&(X))...]: [*eta ni* ((***berba***) *eta* (***berba***)) Æ*]

2. [...(X)(X)...]: [(***hartu***)-(***hartu***) Æ* *zenbat jan dituzute?*]

3. [...(XX)...*...]: [(***ondo-ondo***) *pasa** *ordun*]

4.1. [...(X)<
[(...)(X)...*...]: [*zergatiken* (***Koro re***)/< [(*ez ez zuri bakarrik ez*)(***Koro ere***) *ikusten non** *horrela*]

4.2. [...(X)<
[(X)<[(X)...*...]: [*bai Korok ere ez dakit* (***zerbait problema***)/< (***zerbatt***)/< [(***zerbatt problema***) *bazuen** *bai/ oseake: beldurtu egin nizun?*]

5. [(X1)
[(X2)...*...]: [(*ba* ***polita***)/ [(***buelta polita***) Æ*]

6. [...*... (X1)]: [*orduan mahaixak hemendik haraño bat hartzia** (***pareta*** (X2)] ***dana***)/ (***leihoko pareta dana***)

7. [(X)...*...]/(X)]: [(***esan diyozu***) *hiru litro hartze itugula ezta*?]/ (***zuk esan diyozu***)]

8. [(X)/
[(X)...*...]: [(***oin***)/ (***oin***) *ipiñi tube** *bentilaziyuek eta gauzak ipiñita dare eh*]

9. [(X)...[*]...(X)]:[*eta* (***juan bi(har) zara***) [*bixar institutora**] (***juan bi(har) zara***)]?

Goiko bederatzi egituretan aurkitzen ditugun leiho-kopuruari eta haien izaerari erreparatzen badiogu, artean bi multzo nagusi bereiz ditzakegu:

a) Leihoa bakar eta beraren, hau da, Luzzatik "leiho arrunt" (A motakoa) deritzon leiho motaren barruan aurkitzen diren errepikapen-unitateen eskemak: 1, 2 eta 3.

b) Leiho banatan aurkitzen diren errepikapen sintaktikoak: 4, 5, 6, 7, 8 eta 9 eskemak.

Lehenengo hiru eskemei dagokienez, errepikaturik agertzen zaizkigun unitateak, enuntziatu beraren barruan, elkarren segidan edo juntagailuz elkarturik agertzen zaizkigu. Bigarren [...(X)(X)...] (***hartu-hartu*** *zenbat jan dituzute?*) eta hirugarren [...(XX)...*...] (***ondo-ondo*** *pasa* ordun*) errepikapen kasuetan, errepikapenak unitatea behin bakarrik agertuko balitz transmitituko ez lukeen esanahi edo balio bat ematen dio enuntziatuari, enfatiko eta adierazkorra bi kasuetan. Lehengo motari [...((X)&(X))...] (*eta ni* ***berba*** *eta* ***berba*** *Æ**) dagokionez berriz, hau hanpatze-funtzioa duen errepikapen-formula bat dugu, nahitaez, horrela osatua izan behar duena; aurrekoetan ez bezala, unitateren bat kenduz gero, enuntziatua ez litzateke ulergarria izango (*eta ni berba*). Guztietan berdin-berdin mantentzen da unitatea, inolako barne aldaketarik jasan gabe. Beraz, kasu bakar batean ere ezin dugu lege urratzerik aipatu. Frédéric-ek (1985) bereizten dituen bi sail nagusien arabera banatu behar bagenitu, hiruak mintzakideak borondatez kanpo egindakoak direla esango genuke; bigarrena eta hirugarrena mintzakidearen emozioaren eraginez sortuak eta lehenengoa berriz, lexikalizatutako formula genuke. Bide nabar, bigarren eta hirugarren motako errepikapenek mintzakidearen solaskidetzaren aldeko jarrera erakusten dute. Multzo honen interpretazioarekin bukatzeko, esan behar dugu, guztiak direla sintagmatikoak. Errepikapen mota hauek duten funtzioa betetzeko ardatz sintagmatikoaren segidan ulertu behar ditugu, ez dira inolaz ere ez baliokide, ez ordezkagarri, nolabaiteko elkarren beharra dute efektua sortzeko.

Jarraian bigarren multzokoak (4., 5., 6., 7., 8. eta 9. eskemak) izango ditugu hizpide. Askotarikoak dira eskema hauetan aurkitzen ditugun leiho motak, baita egitura bereko leiho desberdinen arteko lotura edo erlazioa eta balio pragmatikoak ere.

4. motaren barruan sailkatu ditugun bi kasuetan, unitateak leiho banatan aurkitzen ditugu; hauetariko lehena etena izan den leiho bat dugu. Lehengoaren kasuan [...(X)<[(...)(X)...*...] (*zergatiken* ***Koro re/*** *ez ez zuri bakarrik ez* ***Koro ere*** *ikusten non* horrela*) honen barruan, hiztunak tartekatutako hitz tarte labur bat (beste zenbait kasutan, *eske*, *bai* gisako betegarriren bat) aurkitzen dugu bi unitateen artean. Bigarren kasuan [...(X)<[(X)<[(X)...*...] (*bai*

Korok ere ez dakit ***zerbait problema/ zerbatt/ zerbatt problema*** *bazuen* bai/ oseake:: beldurtu egin nizun?*), hiztunaren zalantza une batek eragindakoa dugu errepikapena.

Bi kasuetan ere, esanahiari dagokionez, enuntziatuaren mezua berdin-berdin ulertuko genuke errepikapenik gabe ere, errepikapenak ez baitu balio pragmatikorik gehitzen. Horregatik transkribatu ditugu goian -errepikapen kasuak deskribatzeko erabilitako eskemak azaltzerakoan- bi unitateak ardatz paradigmatiko beraren azpian. Halere, esan beharra dago lehengo kasuan unitatea errepikatzera behartuta gaudela hitz tarteak moztutako enuntziatuaren haria berreskuratzeko, honen interpretazioa zaildu egingo bailitzateke bestela: *zergatiken Koro re/ ez ez zuri bakarrik ez Æ ikuste non horrela*. Eskema parekoa da bi kasuetan eta borondateari dagokionez, biak dira borondatez kanpo eginak. Bigarren unitatearen errepikapenak bietan (kasu bakoitzean arrazoi desberdinengatik) bertan behera gelditutako edo gelditzeko arriskua zuen enuntziatua berreskuratzeko funtzioa betetzen du, azken honen garapena eta ulermena ziurtatzen ditu. Bestetik, 4. motako errepikapen hauetan ere, ezin dugu gramatikaren arau urratzerik aipatu; alderantziz, urraketa, zenbait kasutan, errepikapenik egin ezean aurkituko genuke lerro batzuk gorago ikusi dugun adibidearekin froga dezakegun bezala.

5. [(X1)[(X2)...*...] (*ba* ***polita/*** *buelta* **polita** *Æ**) eta 6. [...*... (X1)] (X2)] (*orduan mahaixak hemendik haraño bat hartzia** ***pareta dana/*** *leihoko* ***pareta dana***) eskemetan aurkitzen ditugun leihoak berriz, Luzzatiren (d) [...[...[... eta (e) ...]...]...] motakoak dira, hurrenez hurren. Unitateetariko bat aurkitzen den leihoa ez da guztiz osoa, baina ezta 4. motako leiho etenen [...(X)< [(...)(X)...*...] eta [... (X)< [(X)...*...] gisakoa ere. Egia da, neurri batean, 4. motako errepikapenen antza dute, bi leihoak ardatz paradigmatiko berari baitagozkio. Aldea, antolaketa paradigmatikoaren sorburuan aurkitzen dugu: 4. eskeman, unitatearen errepikapena, lehen leihoaren garapenean gertatutako etenak eragindakoa da; esan berri dugun bezala, errepikapenaren egitekoa enuntziatuaren jarraipena ziurtatzea da; 5. eta 6. errepikapenen kasuan berriz, enuntziatuaren edukia boro-

biltzeko edo hau modu argiago batez azaltzeko egindako errepikapenak aurkitzen ditugu. Beraz, azken hauek ez dira, berez, leiho etenak, berrartu eta birmoldatutako leiho zatiak baino. Izan ere, 4. eskeman ez bezala, bi unitateak ez dira formalki berberak; bigarren unitatean zehaztasunen bat (*bai* ***beste*** *bat* ***beste*** *klasie pixkat fin- xuabego*; *noiz botatzen iozu* ***ho(r)i*** *fungizida* ***ho(r)****i?*) edo informazio berriren bat (*hemendik haraño bat hartzia* ***pareta dana*** *leihoko* ***pareta dana***) gehitzen da. Esan beharreko hitza eskura ez dugunean erabiltzen ditugun *zera* moduko partikulen kasuetan ere, egitura honekin egiten dugu topo: *baño: zea* ***berriya*** *medikaziyo* ***berriya*** *jarri zioten prostatantzako ta.* Kasu guztietan bigarren errepikapena ezabatuko bagenu, enuntziatuak zuzena izaten jarraituko luke, baina azken adibide honen kasuan, ez genuke mezua osorik interpretatzeko nahikoa informazio edukiko (*zea berriya*). Dena den, guztietan aurkitzen duguna zera da mintzakidearen mezua ulergarriago egiteko borondatea.

7. [(X)...*...]/(X)] (***esan diyozu*** *hiru litro hartze itugula ezta*?/* ***zuk esan diyozu***) eta 8. [(X)/[(X)...*...] (***oin/ oin*** *ipiñi tube* bentilaziyuek eta gauzak ipiñita dare eh*) errepikapenek berriz, neurri batean, ikusi berri ditugun 5. eta 6.aren antza dute. Haietan bezala, errepikatutako bi unitateek aurreko edo ondoko leihoan -eskuinean edo ezkerrean- aurkitzen den unitate bera (*) partekatzen dute. Aitzitik, 5. eta 6. egituretan ez bezala, 7. eta 8.ean unitateak bere horretan errepikatzen dira, ez dago zehaztasun, zuzenketa edo informazio gehitzerik. Gainera, 7. motako errepikapenetan ezin ditugu bi unitateak baliokidetzat hartu, horregatik transkribatu dugu sintagmatikoki eta ez paradigmatikoki. Kasu honetan, bigarren unitateak balio pragmatiko garbia du, zerbait gehitzen dio aurretik esandakoari. Insistentzia bitartez, aurreko enuntziatutik (gehien) azpimarratu nahi dugun edukia zein den ematen dugu aditzera, mintzakideari mezu osoaren interpretazio lana erraztuz. Bestetik, mintzakideen arteko elkartrukeen barruan ere elkarkidetza edo solaskidetzaren aldeko jarrera positiboa erakusten dugu. Hau ondo ikusten da corpusean bildu dugun beste adibide honetan: *salako: mahia borobilan* ***lehen*** *maizago bazka-bazkaltzen genun edo* ***horrela ez?*** ***lehen*** ***ez?*** *denak batera baño orain nola ez dugun: hainbeste koinziditzen.* Mintzakidearen borondateari dagokionez, hau borondatez kanpoko

errepikapena litzateke, emozioak (7. eskemako adibidearen kasuan, nolabaiteko urduritasunak) eragina. Beste zenbaitetan aldiz, errepikapenak mintzakidearen berrespena edo solaskidetzaren aldeko jarrera helarazten dute (***hok*** *zer eitten due hemen* ***hok****!*; ***bai bi anai*** *bizi dire* ***bai bi anai***).

8. eskemari dagokionez (***oin/ oin*** *ipiñi tube* bentilaziyuek eta gauzak ipiñita dare eh*), hau paradigmatikoki transkribatu dugu, esanahiari begira errepikapenak, gaineratu, ez duelako ezer berririk gaineratzean; bi unitateak baliokideak dira. Beraz, lehengoa ezabatuz gero ere, enuntziatuaren esanahiak berdina izaten jarraituko luke. Halaber, lehengoak bigarrenak betetzen ez duen funtzio bat betetzen du. Honek unitateak enuntziatuan garatuko den mezuaren muina jaso (edo topikoa) aurreratzen duela esan dezakegu; bigarren unitatea aldiz, edukiarekin (remarekin) batera aurkitzen dugu. Egitura hau darabilgunean ere, lehen unitatearen alborakuntzaren bitartez, mintzakideari deskodetze-lana errazten diogu. Ahozkoaren komunikazio-beharretara moldatzen den egitura dugu.

Batari zein besteari dagokionez ere, ez dugu gramatika urraketarik aurkitzen. Osorik agertzen ez diren leihoak bigarren leiho osoari esker erraz interpretatzen ditugu.

Azkenik, Luzzatik (1998, 2004) "mise en commun" edo "apokoïnu" bezala, ezagutzen dituen (f) motako leihoa dugu 9.a [(X)...[*]...(X)] (*eta* ***juan bi(har) zara*** *bixar institutora** ***juan bi(har) zara****?*). Kasu honetan, errepikapen-unitateak leiho banatan aurkitzen ditugu, egitura oro har hartuta, erdian aurkitzen den unitate bat partekatuz. Bestela esan, bi leiho oso, bakar batean integraturik baleude bezala da. Hau ezkerretik erdira zein erditik eskuinera, inolako etenik gabe eraikita dago eta intonazioa bera ere, nolabait, bi norabideetara egokitzen da. Ondorioz, bi "irakurketa" dira posible:

(28) *eta* ***juan bi(har) zara*** *bixar institutora* ***juan bi(har) zara****?*

(28') ***juan bi(har) zara*** *bixar institutora?*
√

(28'') *bixar institutora* ***juan bi(har) zara****?*
√

Gorago ikusi berri dugun 7. eskemaren [(X)...*...]/(X)] antza handia duela nabarmen dezakegu. Baina azken honetan, bi unitateek unitate bera partekatu arren, bi leihoen artean denbora tarte labur baten bidez zein intonazioaren bidez markatzen den muga bat bereizten da. Ondorioz, unitate komun hori leihoetariko baten gauzatzearekin entzuten eta lotzen dugu. Bestela esan, "irakurketa" posible bakarra dago:

(29) ***esan diyozu*** *hiru litro hartze itugula ezta? zuk* ***esan diyozu***

(29') ***esan diyozu*** *hiru litro hartze itugula ezta?*
√

(29'') *hiru litro hartze itugula ezta? zuk* ***esan diyozu***
X

9. errepikapen motako enuntziatuen kasuan, errepikatutako unitateetariko bat kenduko bagenu, mezua bere horretan ulertuko genuke, hau da, errepikapenak ez dio esanahi pragmatiko berezirik gehitzen. Bi unitateak baliokidetzat jo ditzakegu beraz. Gure iritziz, errepikapen hau ahozko komunikazioaren behar materialei erantzuten dien errepikapena da. Ahozko materialaren iraupen laburrak hiztuna inkontzienteki esan berri duen unitatea bigarren aldiz errepikatzera darama, lehengoa jada desagertu dela-eta, enuntziatu osoa bigarren aldiz eta aurrekoaren gainean eraikirik. Honako hau, beraz, ahozkoaren komunikazioaren izaera bereziari -ahozko enuntziatuen izaera iheskorrari- zor zaion egitura genuke.

Laburbilduz, hainbatetan leiho eten edo osatu gabeak aurkitzen baditugu ere (cf. 4.1; 4.2; 5.; 6.; 7. eta 8. motak), bakar batean ere ez da arau sintaktikorik urratzen. Bestalde, bederatzi egituren artean hiru sail nagusi bereiz ditzakegu:

• Errepikapen paradigmatikoak (4., 5. eta 6.a): bereziki mezuaren ulergarritasuna eta enuntziatuaren eraikuntza aurrera eramatea dute helburu:

zergatiken ***Koro re/***

ez ez zuri bakarrik ez ***Koro ere*** *ikusten non* horrela;*

bai Korok ere ez dakit ***zerbait problema/ zerbatt/*** _

zerbatt problema *bazuen bai/ oseake:: beldurtu egin nizun?;*

ba ***polita/***

buelta ***polita*** *Æ**

*orduan mahaixak hemendik haraño bat hartzia** ***pareta dana/***

leihoko ***pareta dana***

• Errepikapen sintagmatikoak (1., 2., 3. eta 7.a): balio pragmatikoren batekin (insistentzia edo enfasia) lotuta daude eta maiz mintzakideen arteko elkarkidetza-alderdia indartzeko bitarteko gisa interpreta ditzakegu (2., 3. eta 7.a): ***hartu-hartu*** *zenbat jan dituzute?;* ***ondo-ondo*** *pasa* ordun!;* ***esan diyozu*** *hiru litro hartze itugula ezta*?/ zuk* ***esan diyozu****.*

• Ahozko komunikazioaren izaera eta ezaugarriei oso lotuta dauden errepikapenak: [(X)/[(X)...*...] eta [(X)...[*]...(X)].

oin/ oin *ipiñi tube* bentilaziyuek eta gauzak ipiñita dare eh;*

eta ***juan bi(har) zara*** *bixar institutora** ***juan bi(har) zara****?*

4. Ondorioak

Lan honetan errepikapen lexikoen fenomenoa aztergai hartuta ahozko enuntziatu edo esaldietan aurkitutako ordenamendu eta egitura bereziak ahozko estilo baten adierazle direla ikusi ahal izan dugu. Izan ere, ahozko bost komunikazio-egoera erreal desberdinei dagozkien elkartrukeetan bereiztu ditu-

gun bederatzi errepikapen moten artean, etendako leiho edo enuntziatu ez osoak aurkitu baditugu ere (cf. 4., 5., 6., 7., eta 8. motak), horiek guztiak ahozko koherentzia sintaktikoaren eta enuntziazio-baldintzen ikuspegitik guztiz onargarri eta justifikagarriak dira. Haietan ez da inongo arau sintaktikorik urratzen. Horregatik, ez dugu, aztergai izan ditugun kasuetan behintzat, errepikapena baztergarritzat jotzeko inongo arrazoirik ikusten. Alderantziz, kasu askotan funtzio zehatzen bat betetzen du errepikapenak. Errepikapen paradigmatikoek (cf. 4., 5. eta 6. motak) enuntziatuaren eta honekin batera helarazi nahi den edukiaren ulermena ziurtatu, aberastu edo erraztea dute helburu. Bestetik, errepikapen sintagmatikoek (1., 2., 3. eta 7. motak) erakusten duten moduan, errepikapen-kasu batzuk ikuspegi komunikatibo eta pragmatikoa kontuan hartuta interpretatu beharrekoak dira. Errepikapena ez baita soilik gertaera paradigmatikoekin zerikusia duen fenomenoa, ardatz sintagmatikoaren garapena oztopatzen duten zalantza-une, hitz-tarte eta informazio-gehitzeek eragiten dutena. Are gehiago, errepikapenak elkartrukeetan mintzakideen artean sortzen eta eraikitzen den elkarkidetza -edo dimentsio dialogikoaren- alderdiari begira ere, bere funtzioa betetzen du zenbait kasutan. Izan ere, emaitza bera lortzeko erabili ohi diren bestelako estrategien -esaterako, funtzio fatikoa duten elementu edo fatemen ("eh", "ezta?" "bai?")- baliokidetzat jo dezakegu zenbaitetan. Beraz, solaskidetza eta mezuaren deskodetzea errazteko hiztunek eskura duten estrategia bat gehiago dela esan dezakegu.

Bederatzi moten artean, azkenik, edukiaren esanahiari begira aldaketarik eragin ez arren -funtzio pragmatikorik eduki ez arren-, ahozko komunikazioaren izaera eta ezaugarriei oso lotuta dauden bi errepikapen mota (8.a eta 9.a) ere bildu ditugu: [(X)/[(X)...*...] eta [(X)...[*]...(X)]. Lehengoa intonazioaz edo etenaz baliatzen da mintzakideari enuntziatuan garatuko duen edukiaren barruan pertinentea dena nabarmentzeko, eta horrela mezuaren deskodetzea errazten da. Bigarrenak berriz, ahozko komunikazioaren behar materialei erantzuten die, enuntziatuen berehalako izaera eta iraupen iheskorrari. Bata zein bestea, ahozko modalitatearen berezko egitura edo konfiguraziotzat har ditzakegu, honen enuntziazio-baldintzetara egokitzen baitira. Biek ere ahozko

sintaxiaren funtzionamendu eta mekanismoak agertzen dizkigute, enuntziazioaren garapenean zehar birmoldatu, eraiki eta antzematen den ordenamendu sintaktiko baten erakusle dira.

Azterketa honen bitartez errepikapenaren fenomenoa ahozko modalitatearen funtzionamendu sintaktikoa ezagutzeko eta ulertzeko baliagarri zaigula ondorioztatu dugu. Hari eskerrak, ahozko estilo baten erakusle diren egiturak ezagutu ditugu: [(X)/[(X)...*...] eta [(X)...[*]...(X)]. Eta gainera, gure abiapuntua berretsi ahal izan dugu, alegia, ahozkoaren eta idatzizkoaren koherentzia sintaktikoa ezin direla inolaz ere parekatu. Bi dira ideia hori indartzen duten arrazoiak: a) errepikapena bezalako fenomenoak ahozko komunikazioaren behar materialei, hau da, enuntziatuen berehalako izaera eta iraupen iheskorrari erantzuten dieten gertakariak dira; eta b) bereziki ahozko elkartruke dialogaletan mintzakideen artean sortzen eta eraikitzen den elkarkidetza alderdiarekin harreman estua dute. Beraz, argi dago errepikapena bezalako fenomenoen inguruan eraikitako egitura sintaktikoak ahozko modalitatearen arauen barruan neurtu, baloratu eta interpretatu behar direla.

Gogorarazi behar dugu bestalde, fenomeno hau tentuz aztertu beharrekoa dela. Gure azterketa errepikapen kasu gutxi batzuetara mugatu badugu ere, berehala konturatu gara haien barruan ere, aldeak ez direla nolanahikoak.

Komenigarria deritzogu halaber, aurrez prestatu gabe eraikitako ahozko elkartrukeetan –eta bereziki era espontaneoan sortutakoetan- errepikapenaz gain, bestelako fenomenoak ere aztertzea: parataxia, monema proposizionalak, anakolutuak, silepsi eta elipsi fenomenoak... Ez hori bakarrik, guk hemen berezitzat eta ahozko estilo baten berezitasun gisa interpretatu ditugun egiturek, mintzajarduenen izaera idatzizko modalitatera hurbildu ahala edo hiztunaren tipologiaren arabera agerpen bera duten edo ez ikustea ere interesgarria litzatekeela uste dugu.

Bibliografia

ALMGREN, M., BELOKI, L., IDIAZABAL, I.& MANTEROLA, I. 2008, «Acquisition of Basque in successive bilingualism: data from oral storytelling», in P. Siemund, & N. Kintana, arg., *Language Contact and Contact Languages*, Amsterdam, John Benjamins, 239-259.

ALEGRIA, A., DIAZ DE GEREÑU, L. & MANTEROLA, I. 2008, «Ahozko komunikazioa. Ahozko diskurtsoa arautzen duten osagaiak eta arauak. Ohiko errutinak eta formulak. Ahozko komunikazioari dagozkion estrategiak», in *Euskara eta Literatura. Gai hautatuak*, MAD, Sevilla.

ÁLVAREZ, A. 1995, «El nivel discursivo en dialectos semicriollos: ¿habla simplificada o función poética?», *A.L.H.*, XI (1995) 29- 42.

BLANCHE-BENVENISTE, C. & JEANJEAN, C. 1987, *Le français parlé, transcription & édition*, Didier érudition, Paris.

BLANCHE-BENVENISTE, C. 1990, «Un modèle d'analyse syntaxique "en grilles" pour les productions orales», *Anuario de Psicología*, 47 (1990) 11-28.

BLANCHE-BENVENISTE, C. 1997, *Approches de la langue perlée en français,* Ophrys, Paris.

BRIZ, A. 1998, *El español coloquial en la conversación: esbozo de pragmatización*, Ariel Lingüística, Barcelona.

BRIZ, A. 2000, «Estructura de la conversación» in *¿Cómo se comenta un texto coloquial?*, Ariel Practicum, Barcelona, 51-80.

BRIZ, A. 2002, *Corpus de conversaciones coloquiales,* Arco Libros, Madrid.

DIAZ DE GEREÑU, L. 2004, «El cuento oral», in *Actas del VII Congreso Internacional de la Sociedad Española de Didáctica de la Lengua y la Literatura*, Santiago de Compostela: Deputacion Da Coruña, 335-342.

DIAZ DE GEREÑU, L. 2005, «Ahozko kontaketa eta eskolako jarduera», *Ikastaria* 14 (2005).

DIAZ DE GEREÑU, L. (argitaratzeko), «La dinámica en el análisis discursivo de las prácticas verbales de los narradores contenporáneos en lengua vasca".

DOLZ, J. & SCHNEUWLY, B. 1998, *Pour un enseignement de l'oral: introduction aux genres formels à l'école*, ESF, Paris.

FRÉDÉRIC, M. 1985, *La Répétition. Étude linguistique et rhétorique*, Max Niemeyer Verlag, Tübingen.

GADET, F. 1989, *Le française ordinaire*, Colin, Paris.

GARCÍA-AZKOAGA, I.-M. 2007, «Ahozko azalpena unibertsitatean, ezagutzak ebaluatzeko tresna bat baino gehiago», in *Ahozko hizkuntza: Euskararen azterketarako eta didaktikarako lanak*, Bilbo: EHU. (http://testubiltegia.ehu.es/Ahozko-Hizkuntza).

GARAVELLI, B. M. 1988, *Manual de retórica*, Catedra, Madrid.

GARRO, E. 2007, *Jendaurreko Debateak Euskaraz. Diskurtso Erreferituaren Azterketa*, UPV/EHU, Bilbo.

GARTZIA, J. 2008, *Jendaurrean Hizlari, (Ahozko) Komunikazio Gaitasuna Lantzeko Eskuliburua*, Alberdania, Irun.

Grupo m 1987, *Retórica general*, Paidós, Barcelona.

KERBRAT-ORECCHIONI, C. 1990, *Les interactions verbales*, 1 (1990) Colin, Paris.

KERBRAT-ORECCHIONI C. 1996, *La conversación*, Seuil, Paris.

Kerbrat-Orecchioni, C. & Traverso, V. 2004, «Types d'interactions et genres de l'oral" *Langages*, 153 (2004) 41-52. Sejer-Larousse, Paris.

IDIAZABAL I. & GARCIA I.-M. (arg.) 2007, *Ahozko hizkuntza. Euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan*, UPV-EHU, Bilbo (sarean: www.testubiltegia.ehu.es).

IDIAZABAL, I. & LARRINGAN, L. M. 2001a, «Estructura dialogal y organización temática en el debate de adolescentes», in *III Jornadas Internacionales sobre la Adquisición de las lenguas del Estado*, Málaga.

IDIAZABAL, I. & LARRINGAN, L.M. 2001b, «Ahozko euskara formala eta haren egitura sozio-diskurtsiboa», *V Congreso Vasco de Sociología*, Bilbo.

IDIAZABAL, I. & LARRINGAN, L.-M. 2003, «Ahozkoari antza hartzeko hiru gogoeta», XV. Biltzarra ("Euskalgintza XXI. Mendeari buruz"), Bilbo.

IDIAZABAL I. & LARRINGAN L.-M. 2005, «A propos de la structure périodique des énoncés oraux. Un outil pour la didactique des débats scolaires», in J.-F. HALTE & M. RISPAIL (Eds.), *L'oral dans la calsse. Compétences, enseignement,activités,* L¨Harmattan, Paris, 91-103.

LARRAÑAGA, A. 2003, «Kaleko hizkera telebista saioetan», *BAT Soziolinguistika,* 48 (2003) 39-51.

LARRINGAN, L.M 2002, «Debate con jóvenes: interlocución, tema y tarea», *Textos, 29* (2002) 21-30.

LARRINGAN, L.M. 2006, «Lagunarteko ahozko euskara: deskripzioak, azalpenak eta didaktikarako proposamenak», in *XXV Cursos de Verano-XVIII Cursos Europeos, Euskal Herriko Unibertsitatea*, Donosita-San Sebastián.

LABOV, W. 1983, *Modelos sociolingüísticos*, Cátedra, Madrid.

Luzzati, D., & Mir-Samii, R. 1996, «Le transition de l'accord par le relatif: vers une théorie du fenêtrage», *Faits de langue,* 8 (1996) 193-202.

LUZZATI, D. 1998, «Rhétorique et description de l'oral", *Verba*, 25 (1998) 7-30.

LUZZATI, D. 2004, «Le fenêtrage syntaxique : une méthode d'analyse et d'évaluation de l'oral spontané", MIDL, Paris, 29-30.

ROULET, E. 1991, «La pédagogie de l'oral en question(s)» in M. Wirthner eta beste, *Parole étouffée, parole libérée Fondements et limites d'une pédagogie de l'oral*. Delachaux et Niestlé, Neuchatel.

TANNEN, D. 1989, *Talking Voices. Repetition, dialogue and imagery in conversational discourse*, Cambridge University Press, Cambridge/New York.

TRAVERSO, V. 1996, *La conversation familière*, PUL, Lyon.

TRAVERSO, V. 2005, *L'analyse des conversations*, Armand Colin, Paris.

VIGARA, A.M. 2002, «Estudio del español coloquial: razones para el optimismo», *Español actual,* 77-78 (2002) 5-26.

VILLAMIZAR, Thania 1993, «Repetición de estructuras sintácticas en el habla rural», *Boletín Antropológico*, 27, Universidad de Los Andes, Mérida..

Kortesiaren azterketa euskarazko bi debatetan[1]

ZABALA ALBERDI, Josune
Mintzola Fundazioa

Sarrera data: 2009-07-28
Onartze data: 2009-11-26

[1] "*Euskararen jabekuntza eta irakaskuntza*" (9/UPV 00033.130-13614/2001) proiektuan UPV/EHUko *HIJE* taldeak ikertzaile lanetarako emandako diru-laguntzaren ondorioa da artikulu hau.

Pertsonarteko elkarrekintzetan ahozko hizkuntzaren jokabidea zein den jakin nahiaz gauzatu da ondorengo lana. Ahozko diskurtsoen analisian baitaratua, hizkuntzaren ikuspegi psikosozialean oinarritua, eta euskarazko debate publikoen azterketei jarraitua (gazteena eta helduena). Pragmatikaren eremuan, hizketa-egintzen teoriarekin abiatu da Kortesiaren Teoriaren aurkezpena (Brown eta Levinson, 1978, 1987; Kerbrat-Orecchioni 1992, 1996, 2005), eta interakzionismo sozio-diskurtsiboarekin (Bronckart, 1996) garatu da gazte eta helduek telebista edo irratiz egindako bi debate aztertzeko tresna. Horretan, teoria landu eta corpus-azterketaren emaitzak plazaratu dira, eta ondorio nabarmen batera iritsi gara: euskaraz kortesia estrategien balio eta funtzioak ezberdinak direla gazte eta helduen artean.

Hitz-gakoak: Kortesia, irudia, lurraldea, komunikazio hitzarmena, diskurtsoa, debatea.

Esta investigación pretende analizar e interpretar el comportamiento observado en el lenguaje oral de las interacciones interpersonales. Insertado en el análisis del discurso oral, basado en una perspectiva psicosocial del lenguaje, se han analizado debates públicos en euskera de jóvenes y de adultos. En el campo de la pragmática, se ha partido de la teoría de los actos de lenguaje. Desde la Teoría de la Cortesia (Brown y Levinson, 1978, 1987; Kerbrat-Orecchioni 1992, 1996, 2005) y el interaccionismo sociodiscursivo (Bronckart, 1996) se ha desarrollado la herramienta utilizada para el análisis de dichos debates realizados en radio o televisión. Los resultados del análisis realizado nos llevan a concluir que en las producciones de los jóvenes y adultos el valor y las funciones de las estrategias de cortesía son netamente diferentes.

Palabras clave:
Cortesía, imagen, territorio, contrato comunicativo, discurso, debate.

Cette étude vise à analyser et à interpréter le comportement observé dans le langage oral des interactions interpersonnelles. Inséré dans l'analyse du discours oral, basé sur une perspective psychosociale du langage, on a analysé des débats publics en basque de jeunes et d'adultes. Dans le domaine de la pragmatique, on est parti de la théorie des actes du langage. De la Théorie de la Politesse (Brown et Levinson, 1978, 1987 ; Kerbrat-Orecchioni 1992, 1996, 2005) et l'interactionnisme socio-discursif (Bronckart, 1996), on a développé l'outil utilisé pour l'analyse de ces débats réalisés à la radio ou à la télévision. Les résultats de l'analyse effectuée nous amènent à conclure que dans les productions des jeunes et adultes la valeur et les fonctions des stratégies de politesse sont nettement différentes.

Mots-clés:

Politesse, image, territoire, contrat communicatif, discours, débat.

This research aims to analyse and interpret the behaviour observed in the oral language of interpersonal interactions. Inserted in the oral discourse analysis, based on a psychosocial perspective of language, public debates given by young persons and adults in Basque have been analysed. Pragmatically, we have commenced from the theory of speech actions. From the Politeness Theory (Brown and Levinson, 1978, 1987; Kerbrat-Orecchioni 1992, 1996, 2005) and the socio-discursive interaction (Bronckart, 1996) a tool has been developed which is used for the analysis of these radio or television debates. The results of the analysis lead us to conclude that in the reproductions of young persons and adults the value and the functions of the strategies of politeness are substantially different.

Keywords:

Politeness, image, territory, communicative contract, speech, debate.

Sarrera

"Nolako laguna, halako jarduna" esaerak gonbidatzen gaitu jakitera edozein elkarrekintzatan ondoan dugun lagunak garamatzala hizkuntza-baliabide, -molde edo -tresna jakin batzuk erabiltzera. Izan hitzaldi bat ematen ari garenean, izan debate publiko bateko partaide garenean, lan-bilera batean edo lagunarteko elkarrizketa arrunt batean. "Beste horrek (horiek)", beraz, eragin egiten du gure ekoizpenen eduki eta jarreran, besteak beste. Esanguratsua da ideia hau ondorengo lerroetan garatuko dena soka horrixe tiraka jasoa baita.

Izan ere, komunikazio egoera bakoitzean ezberdin komunikatzen da hiztuna testuinguruak erasanda: ziurtasunez edo ziurgabetasunez jokatuko du, zirraratsu ekingo dio bere hitzari, zauri-minez erantzungo du, zeharbidez arituko da erantzun zailtxoren bat eman beharko badu... Eta jokabide horien adierazleak hizkuntzaren bitartez agertzen ditu.

Perpausaren ikuspuntutik harago begiratu behar baina, aipatu duguna hizkuntzan nola agertzen den azaltzeko. Pragmatika modernoak, hain zuzen, pauso batzuk eman ditu komunikazioaren azalpena bestelako begiekin ikuskatzeko, eta ibilaldi horretan, hainbat iturrietatik edanez[2] eskuratu du komunikazioa pertsonarteko harremanetan, gizartean eta kulturan ulertzeko modua.

Hizkuntza fenomenoak harreman sozialetan aztertzeko ahalegina da Kortesiaren Teoriak egindako aurrerapena; ulerturik hartu-emanetan onarpen soziala eta banakoaren askatasuna bilatzen ditugula, helburu hori erdiesteko darabiltzagun tresna linguistikoak aurkeztu dizkigu. Zehazki esateko, komunikazioaren hariak etenik izan ez dezan hiztunok darabiltzagun hizkuntz baliabideak zein diren argitu du Kortesiaren Teoriak (Brown eta Levinson, 1978, 1987; Kerbrat-Orecchioni, 1992, 1996, 2005).

[2] Antropologia linguistikoa (Duranti, 1997), komunikazioaren etnografia (Gumperz eta Hymes, 1964), interakzionismo sinbolikoa (Goffman, 1971), etnometodologia (Garfinkel, 1964), etab.

Ekarpenok adierazgarri zaizkigu arrazoi ugari tarteko: giza harremanetan hiztunok ditugun desio eta beharren gaineko gogoeta egiten da, bere izaera unibertsaletik harago kultura bakoitzak bere-bereak dituen jokabide sozial eta linguistikoak aitortzen zaizkio, eta horiek guztiak hizkuntzan nola islatzen diren aurkezten du.

Bide batez, Kortesiaren Teoria euskararen eremuan aurkezteak aberats gintzakeelako ustean gauzatu da ondorengo lana, eta bi euskarri ditu: batetik, teoria bera azaleratzea, eta bestetik, euskarazko debate publikoetan gazte eta helduek darabiltzaten baliabide hautatuen azterketa erakustea. Jakitea debate publikoetan zertan berdindu eta ezberdintzen diren gazte eta helduak, euskaraz ahozko diskurtsoetan gertatzen denaz geroz eta jantziagoak izan gaitezen.

Idiazabalek eta Larringanek (2003) egindako ikerketez gaindi, euskararen eremuan ez daukagu helduleku gehiegirik, eta umilki, lan honek euskararen ikerketari jakintzaren apur bat eskaini nahi dio.

1. Komunikazioaren alderdi sozial eta indibiduala lankidetza hitzarmena eta irudiaren nozioa

Gizakiak hizkuntza darabil bere errealitatea errepresentatzeko, bere behar edo sentimenduak adierazi edo komunikatzeko eta komunikazioaren harira jolas egiteko. Hortik esaten da hizkuntzaren funtzioak hiru direla: funtzio errepresentatzailea, funtzio komunikatiboa eta funtzio ludikoa (Bigas eta Correig, 2000, 44).

Wittgenstein filosofoak esana zuen (1953) hizkuntza erabiltzea haren erabilerari esker ditugun bizitzeko modutan parte hartzea dela, *hizkuntza jokoak* eraikitzeko arau multzoaz jabetzea dela hizkuntza batez jabetzea. Haur txikiak telefonoa eskutan hartzean egiten duena behatu besterik ez dugu aipatua argitzeko. Hitz bakan batzuk ekoizten dituen haurrak sarrera ematen dio elkarrizketari, isilune batzuk egingo ditu "norbaiti" entzuten ari zaion itxurak

eginez, gorputz imintzioak eta hotsak egingo ditu "norbaitekin" hizketan balebil bezala... eta telefonoa eskegi aurretik agurtu egiten du "norbait hori". Bere ingurune hurbilean ikasiak berreraikitzen ditu, hein batean.

Hizkuntzaren alderdi sozialak ez ezik, elkarrekintzan parte hartzen duten pertsonen ezaugarri psikosozialek ere eragiten dute ahozko (edo idatzizko) elkarrekintzan. Pertsonen jarrerak, partaideen jatorriak, pentsamoldeak, euren arteko harremanaz egin duten interpretazioak... Hizkuntzalaritza alorrean ahaztezinak dira, adibidez, komunikazioaren abiapuntu, jarraipen eta amaiera aztertzeko.

Hizkuntzaz mintzatzean, hortaz, bi heldulekutatik ekin diogu: hizkuntzaren izaera sozial eta indibiduala aintzakotzat hartuz.

Baina nola uztartzen dira bi eremuok elkarrekin harremanetan jartzen garenean? Komunikazioak aurrera egin dezan, ezinbesteko dugu –edozein testuinguru dela tarteko– komunikazio hitzarmena adostu eta aurrera eramatea. Halakorik gabe, harremana eten egingo litzateke, hitzaren jarraidura ahitu. Komunikazio arauak eta parte hartzaile bakoitzaren "nor-tasuna" (edo irudia) kontuan hartzen ditugu, besteak beste.

Gune horretantxe hel geniezaioke Kortesiaren Teoriari, *komunikazio hitzarmena* kontzeptuarekin batera. Komunikatzean, partaideek aurrez edo bitartean hartzen dituzten erabaki adostuez eta horien eraginez norberak hautatzen duen jarrera sozial zein linguistikoez jardutea esan nahi du. Hein batean, identitate sozialaz aritzea esan nahi luke hitzarmen komunikatiboak, eta bi ardatz hartzen dira aintzakotzat: ardatz horizontala eta ardatz bertikala (Kerbrat-Orecchioni, 1992).

Ardatz horizontalean, elkarrekintza eraikitzen duten urruntasuna eta hurbiltasuna neurtzen dira. Printzipioz, berdinen arteko ardatza da: elkarte-kideona, bikotekideona, ikaskideona, lagunona... Ardatz bertikalean, berriz, harreman hierarkiakoa neurtzen da: adin tarteak, estatus profesionalak, klase sozialak edo ezagutza mailak baldintzatua. Horiez gain, gaitasun pertsonalek ere eragiten dute: konpetentzia linguistiko handiagoa, indar handiagoa edo diru gehiago izateak, hainbaten artean.

Izaera edo portaera horien aztarna linguistikoak ez hizkuntzazko –ahots tonua; imintzio edo mugimenduak; begirada; betetzen den espazioa; janzkera, etab.– eta hizkuntzazko –tratamendu forma asimetrikoak; espazio interlokutiboaren betetze maila; gaien iniziatiba eta jarraipena; ekintza mehatxatzaileen erabilera askea, etab.– markatzaileekin ezartzen ditugu. Ardatz hauek guztiak partaide bakoitzak bere buruari jarritako identitate sozialaren arabera ezartzen dira, eta elkarrekintzan alda daitezke, negoziatuz edo gatazkara eramanez.

Ikuspegi sozial horretatik norbanakotasunera egingo dugu, orain, jauzi. Goffman-i (1967, 1971) zor diogun *norberaren eraikuntza sozial*era, hain zuzen.

Ekintza-komunikatiboa sozialki uler daiteke agertoki baten gisan, zeinetan aktore bakoitzak bere pertsonaia interpretatzen duen. Subjektu hiztuna pertsonaiatzat hartzen da, gainerakoekin harremanetan bere burua babesten ari dena. *Norbere burua* eraikuntza soziala izaki, *irudia*ren bitartez (face) agertzen da; elkarrekintza aukera askotarikoetan bakoitzak agertzen duen irudia da hori (Calsamiglia eta Tusón, 2007, 150).

Har dezagun adibidetzat "Ainhoa, X ikastetxeko zuzendaria". Eskolak ematen ari denean, sozialki ezarri eta onartua den irakaslearen irudia aurkezten du, eta testuinguruak baldintzatuta (ikasleen adina, euren gaitasun eta jarrera, iraskasgaia...) aukera ezberdinak jorratzen ditu bere helburua lortzeko: galderen bidez eskaerak egiten dizkie ikasleei; arreta mantentzeko deiak egiten ditu; ereduak ematen ditu; zoriondu egiten ditu ikasleak... Zuzendari lanetan, berriz, ezberdina da bere rola, beraz, bestelako portaera sozial eta linguistikoak eraikitzen ditu; ezberdin jokatzen du, halaber, lagun artean dagoela... Testuinguru bakoitzean sozialki onartuak diren irudiak lantzen ditu Ainhoak, eta bere buruaz gain, partaideenak ere zaintzen ahalegintzen da komunikazioaren hariak etenik izan ez dezan.

Ikusten denez, kontzeptu dinamikoa da irudiaren nozioa, izate sozialarentzat "objektu sakratu" bat, testuinguru bakoitzean eraldatzen ari dena. Ekintza bera hizkuntzazko nahiz ez-hizkuntzazko adierazleen bidez gauzatu ohi da, eta hauek sinbolikoki jokatzen dute egoera bakoitzean egokien den irudia eraikitzen.

2. Kortesiaren teoria

Brown eta Levinson (1978, 1987) izan ziren Kortesiaren Teorian adierazpiderik osatuena, metodologiarik zurrunena eta aplikaziorako tresnarik egokienak proposatu zituztenak. Haien ekarpenak, ordea, aurrez egindako lanei zor dizkiegu. Goffmanek (1971) ekarri zituen *lurraldea* eta *irudi publikoa* nozioak, adibidez. Grice-n (1967) Lankidetza Printzipioen hutsuneei erantzuteko etorri ziren Searle-ren (1969) eta Lakoff-en (1973) Erregelak. Leech-ek (1983), berriz, Kortesia Printzipioak garatu zituen. Aipatu adituen hutsuneak osatuz gorpuztu da ikuspegia, eta hauen kritika eraikitzaileetatik datoz ondorengoak ere (Kerbrat-Orecchionirena, 2004, 2005). Oro bat, hizketa-egintzen teorian sustraiturik guztiak.

Gizabanako guztiok geure irudi publikoa dugulako ideiarekin abiatzen da teoria hau (*face*); guztiok irudia babestu nahi dugula postulatuz (*face want*), eta gizarte harremanen funtzionamendu onak eramaten gaituela gainerakoena ere zaintzera (*face work*). *Irudia* nozio metaforikoak bi bereizgarri ditu:

a) *Irudi negatiboa:* norberarena ulertzen den lurraldea da, edozein gizaki sozialek gorde nahi duen ekintzarako askatasuna.

b) *Irudi positiboa*: pertsona bakoitzak bere buruarentzat eskatzen duen balio eta estimuari dagokio; onartua sentitzeko beharrari.

Elkarrekintzan badira, ordea, irudi publikoa (bai norberarena, bai besterena) arriskuan jartzen duten ekintzak. Irudi publikoaren Aurkako Ekintzak dira (IAEak): aginduak, egozpenak, mehatxuak, adierazpen eta galdera zuzenak, etab. Kasu hauetan, baldin eta irudi publikoa mintzerik nahi ez bada, mehatxuaren potentzialtasuna leuntzea izan ohi da arruntena. Hau da, irudiaren aurkako ekintzaren aurrean, mehatxua arintzen saiatzen gara: eskaera bitartez agintzen dugu, proposamenak eginez kontseiluak eman, kontzesio bidez kontra-argudioak agertu, eskuzabal aurkeztu, eskaintzak egin, etab.

Irudiaren Aurkako Ekintzen balioa neurtzeko, berriz, honako faktore hauek hartzen ditugu aintzat (Brown eta Levinson, 1987):

1) **Botere erlatiboa (B).** Solaskideak esatariarekiko duen botere erlatiboari dagokio. Harreman sozialaren dimentsio bertikala da.

2) **Distantzia soziala (D).** Interlokutoreen arteko familiartasun maila eta kontaktua hartzen ditu aintzat. Dimentsio horizontala hartzen du.

3) **Gainjartze maila (G)**. Ekintza batek irudi publikoarekiko duen gainjartze maila adierazten du.


Guztiek dute izaera soziala, azkena ere kultura bakoitzak zedarritzen baitu. Faktoreon balioak batuz lortzen da IAEen arrisku potentziala, ondoko formulaz osatua:

$$IAE\ x = (B + D + G)\ x$$

Teorian aurrera eginez, irudi publikoa etengabe ari zaio bere nortasunari eusten, eta komunikazioan zenbaterainoko arriskuen aurrean agertzen den, hainbateko estrategiak erabiliko ditu hiztunak elkarrekintza samurtzeko. Hona hemen ospe-galtze arrisku estimatuak neurtuz eraiki litezkeen irudi-lanketa ezberdinak:

1. TAULA

OSPE-GALTZE ARRISKU ESTIMATUA



Brown eta Levinson (1987, 60)

Eskeman agertzen diren estrategiak bost dira:

1. Irekia eta zuzena.
2. Irekia eta zeharkakoa, kortesia positiboarekin.
3. Irekia eta zeharkakoa, kortesia negatiboarekin.
4. Estalia.
5. IAEa saihestea.

Demagun, solaskideak[3] zaborrak eraman ditzan nahi duela esatariak. Desio honekin partaideen irudi positiboa eta negatiboa arriskuan jartzen denez –IAE bat gauzatzear dago–, bost bide leuzkake irudia lantzeko. Aurreko eskema aintzat hartuz honakoak lirateke aukerak:

1. *Eraman zaborrak!*
2. *Zaborrak eraman behar ditugu.*
3. *Zuretzat lan handia ez bada, zaborrak eramango zenizkidake?*
4. *Zaborra usaina hartzen ari da.*
5. *Zaborra eramateko eguna da gaur.*

Adibideok testuinguru jakinetan jaso eta ulertu beharko bagenituzke ere, horrela uler litezke: lehenengoan, partaideen irudiak bortxatu egin dira agintera erabiliz (IAE bat gauzatu da). Bigarrenean, irudiaren aurkako mehatxua leuntzeko saiakera egin da 1. pertsona pluralarekin (egin beharraren erantzukizuna bi partaideei egotzi zaie: agindu duenari eta agindua jaso duenari). Hirugarrenean, irudi negatiboa zaindu nahirik, agindua eskaera bihurtu da galdera eta baldintza erabiliz. Laugarren adibidean, berriz, agindua inplizituki emateko ahalegin bat agertzen da. Eta azkenean, ezin ziurta genezake IAErik legokeenik, hots, agindurik eman nahi izan denik.

Ikertzaileok gaineratu zuten kortesia negatiboa zela hiztunek gehien erabiltzen zutena. Halaber, jakinarazi zuten kultura edo hizkuntz komunitate ba-

[3] *Solaskide* terminoa *hartzaile, interlokutore, mintzaide* edo *hizketakide* hitzez ordezkatu izan dugu.

koitzak ezberdin irudikatzen zituela IAEak, beraz, elkarrekintzan agerian ziren arriskuak unibertsalak izaki ere[4], kortesiaren erabilerak kulturaz kultura ezberdintzen zirela.

Ildo horretatik esan izan da kultura anglosaxoiak lotura zuzenagoa duela kortesia negatiboarekin, eta, aldiz, ekialdeko kulturak, kultura grekoa eta mediterraneoa kortesia positiboaren jardunbidearekin lotu izan dira (Matsumoto, 1989; Sifianou, 1992; Haverkate, 1994). Euskararen alorrean ez da oraindik horrelako ikerketarik egin, beraz, ezin aitor geniezaioke kortesia mota jakin baten izaerarik.

Landu dugun ikuspegia teoria osatuenetakotzat hartua izan bada ere, gizartearen ikuspegi arrunt katastrofista duela leporatu izan zaio, eta Kerbrat-Orecchioniren ekarpenek teoriaren gora-beherak berdindu dituzte.

IAEekin batera *Irudia Indartzeko Ekintzak* (IIEak) ere badirela proposatu du Kerbrat-Orecchionik (1996, 2004). Laudorioak, eskertzeak, desio onen adierazpenak eta zoriontzeak dira horrelakoak. Ez dira balizko min jakin bat konpontzeko eraikiak, portaera estimulatzaile eta positiboak adierazteko sortuak baino.

Bi kortesia mota deskribatzearekin nahikoa orokortu du teoria: *kortesia negatiboa* (IAEak saihestean edo horietako ekintzaren bat leuntzean datzana) eta *kortesia positiboa* (IIEa eraikitzean oinarritzen dena) ditugu, eta elkarrekintza IAE eta IIEen joan-etorrien adierazpideek osatzen dute. Hona zehaztapenak:

- **Kortesia negatiboa.** IAEak leuntzeko prozedura hauek darabiltza hiztunak: zeharbidezko hitz-egintzak; moduzko denborazko edo pertsonazko desaktualizatzaileak (baldintza; kortesiazko iragana; itzuli inpertsonala edo pasiboaren erabilera); prozedura erretorikoak (litotea edo eufemismoa); aitzinako errepertorioari dagozkion kortesia formulak (*eskerrik asko*; *mesedez*; *erregutzen dizut*; *etab.*); elkarrekintza abiatzeko era-

[4] Ingelesa, Celdada (Mexikoko Yacatán probintziako hizkuntza maia) eta Tamil hizkuntzak alderatu, eta ondorioztatu zen Brown eta Levinsonen teoriak ezaugarri unibertsalak zituela irudi publikoaren eta IAEen gaineko lanketaren gaian.

biltzen diren enuntziatuak; konponketa prozedurak (barkamen eta justifikazioak); desarmatzaileak[5]; lausengatzaileak; modalizatzaile edo txikigarriak; etab.

- **Kortesia positiboa**. IIEak indartzeko, berriz, eskerrak ematea, goraipatzea, konplituak egitea eta gisakoetan oinarritzen da.

Laburbilduz, geure ekinaldietan, testuingurua eta partaideak hartzen ditugu kontuan ezaugarri psikosozialek baldintzatuta. Komunikazio hitzarmena eta kortesia tarteko, badakigu irudien aurkako ekintzen aurrean norberaren eta besteren irudiak zaintzea dagokigula –ekintza mehatxatzailea leuntzea edo irudia indartzea–, eta ekintza horien guztien zantzuak uzten ditugu hizkuntzaren azaleran –hitzezko eta hitzez kanpoko adierazleak–.

Ildo horretatik, debate publikoetan parte hartu duten gazte eta helduek berdin irudikatzen ote dute testuingurua, debatea bera (ekintza sozio-diskurtsibo gisa), irudiaren zaintza, komunikazio hitzarmena? Hizkuntz baliabide berak erabiltzen ote dituzte? Maiztasun berarekin? Helburu bera lortzeko? Balio diskurtsibo bera ote dute erabili dituzten baliabideek? Galderon erantzun bila ekingo diogu hurrengo atalari.

3. Gazte eta helduen debate publikoak: corpusaren azterketa

Bi debate hautatu ditugu azterketa enpirikoa egiteko[6]: helduen debatea (GB: EKO, hemendik aurrera) eta gazteena (HDA: GURASOAK, aurrerantzean). Biek ala biek dituzten ezaugarri komunak honako hauek dira: debatearen generoari dagozkio; testuinguru formalean gauzatzen dira; komunikabideek jaso eta helaraziak dira; moderatzaile batek bideratzen ditu; lau partaide baino gehiagok gauzatzen dute; partaideek elkar ezagutzen dute; hurbileko sentitzen

[5] Esanahiaren egokitasunaren alde jokatuz, hemendik aurrera "aurre-hartzaile" deituko diegu.

[6] Eneritz Garrok bere tesi lanerako bildu eta transkribatuak dira. (Garro, 2007).

dira; gai jakin bat dute eztabaidagai; bertako partaideentzat hurbileko gaiak garatzen dira; eta solaskideak, oro har, helduak dira. Ezberdintasunak, berriz, honako hauek ditugu:

2. TAULA

BI DEBATEEN EZBERDINTASUNAK

	GB: EKO	HDA: GURASOAK
Euskarria	Euskadi Irratia: *Goizean behin* saioa	Euskal Telebista: *Hori da arrazoia* saioa
Urtea	1999	1997
Iraupena	0:20:00	1:04:00
Gaia	Ekonomia. Asteko gaien errepasoa	Gurasoek beti al dute arrazoia?
Partaide kopurua	Moderatzailea: 1 Hizlariak: 4	Moderatzailea: 1 Hizlariak: 16
Adina	Ez dakigu	12-14

Partaideak eta euren arteko harremana zuzenean ezagutzen ez baditugu ere, ohar gintezke ardatz horizontala nagusitzen dela elkarrekintzotan: aurrez elkar ezagutzen dute; lanak edo ikasketek batzen dituzte afektiboki; eta uneko egoera formalean gauzatzen dute elkarrekintza. Ardatz bertikalari begira, susma genezake partaideak ezberdin litezkeela gaitasun pertsonaletan, batik bat, konpetentzia linguistiko txiki-handiagoan eta norberaren izaeran.

3.1. Debatearen zedarritzea

Gure aztergaia den testu-moldea argudiozko testua da: debatea. Argudiapen modu bat da, eta ahozko formalen artean, ziurrenik, ezagunena (elkarrizketarekin batera). Zehaztasunaren onuran, Idiazabalek eta Larringanek (2001) eta Garrok (2007) landuetatik elikatu gara ondorengo azalpenetarako.

Berbaldi-egintza bat da debatea (Bronckart, 1996). Izan ere, A egoera jakin batetik B egoera berrira iragaten da ekintza-diskurtsiboa, hau da, aurrerapen

diskurtsiboa gauzatzen da, eta bien bitartean, hainbat hizkuntza-egintza sortzen dira. Ibilbide horretan, partaideek gai jakin baten gainean eraiki eta azaleratzen dituzte argudioak, adostasunak zein ezadostasunak agerian jartzen dituzte, argumentatzeko baliabide askotarikoak darabiltzate, etab.

Debateetan garrantzi handikoa da moderatzailearen rola. Oro har, instituzioaren izenean hitz egiten du, gaiak mahai-gaineratzen ditu, mintzagaien abiapuntua eta amaiera berak ipintzen ditu, hitza eman edo kentzen die parte hartzaileei, eta solaskideen arteko hartu-emana kudeatzen du. Tertulietan ez bezala, debateetan moderatzaileak ez du iritzirik ematen. Hala, esan liteke debatea poligestionatua dela, eta gure kasuan, formala.

Debate bateko partaideak bi entzule izan beharko ditu kontuan: batetik, solaskidea (debatean parte hartzen duen hartzailea), eta bestetik, debate horren entzuleria (debatea ikus-entzuten ari den hartzailea). Horrek eragina izango du, besteak beste, maila diskurtsiboan, beraz, hartzaile-tasunari garrantzia emateak badu esanguratasunik.

Izan ere, argumentazioaren helburua da hartzailea norberaren ikuspuntuaren balizkotasunaz konbentzitzea (norberaren ikuspuntua justifikatzea). Solaskideari argudioak mahai-gaineratzea, justifikazioak eraikitzea, bere iritziarekin bat egitea, bere hitza ahotan hartzea... eta gisako eragiketak gauzatzea esan nahi du. Azken batean, argumentazioaren bitartez komunikazio hitzarmenean mintzaidearekin negoziatzea.

Hiztun norbanako bakoitzak bere ikuspuntuaren zilegitasuna frogatzeko ahaleginak egiten ditu, bere egia onartzekoa dela ziurtatzen ahalegintzen da, eta hein berean, solaskideek onar dezaten saiatzen; hori guztia hartzailearen (hartzaileen) irudia eta bere iritzia (edo argumentua) zainduz.

Ikusmolde honek bete-betean egiten du topo kortesiaren teorian garatuarekin. Larringanek (2002) debatearen ezaugarri orokorrak zehazten dituenean ere ideia hori gaineratzen du: debateko partaideek ezin dute bestearekiko askatasunez jokatu, solaskideen iritziak eta ikuspuntuak kontuan hartu behar baitituzte. Horren ondorioz, debateko parte hartzailea behartuta dago beste-

ren esanak bere diskurtsoan txertatzera, eranstera edo haren harira, beste argumentu batzuk mahai-gaineratzera.

Horrez gainera, debate baten mintzagaia ez da aurrez finkatzen. Komunikazioaren hariak noranzko bat edo bestea har lezake bertan parte hartzen duten hiztunen edo moderatzaileak bideratutako galderaren arabera. Hizketagaia elkarreraginean eraikiz doa, eta lankidetza printzipioari men eginez partaide guztien irudiak aintzat hartu beharra suertatzen da komunikazioak hutsik egingo ez badu. Irudiaren Aurkako Ekintzak saihestu eta leuntze ahaleginean, kortesia estrategia pragmatikoak darabiltza hiztunak izan norberaren irudia babesteko, izan besterena zaintzeko.

3.2. Kortesia-aztarna adierazleen bilaketa dimentsio enuntziatiboan

Hizketa-egintzen teoriatik abiatuta, dimentsio enuntziatiboan jarriko dugu orain geure arreta[7], eta kortesia estrategiak behatuko ditugu jakin nahi baitugu debateak –genero den neurrian– zein kortesia estrategia erabiltzea eskatzen duen.

Azterketa-gai dugun corpusa maila enuntziatiboan aztertzeko, halere, *hizketa-egintzetatik enuntziazio*rako urratsa eman beharrean gaude. Hizkuntzaren gaineko ikuspegian aurrera eginez, *ekintza-diskurtsibo* gisa ulertzen dugu hizkuntza (Bronckart, 1996) *enuntziatua*, *testua* eta *diskurtsoa* giza ekintzaren forma gisa ulertuz.

Gure corpusak, beraz, testuinguru jakin batean egin den hizkuntza-ekintzaren gauzapen direla ulertzen dugu, eta enuntziatuetan azaleratzen diren aztarna diskurtsibo jakinak –kortesiarekin zerikusia dutenak– behatzea izango da helburu nagusia.

Ondokoak izango dira elementu linguistiko behatuak:

1. Izenordain pertsonalak.
2. Aditz moduak.
3. Modalizatzaileak.

[7] Nahiz badakigun zeresan handia emango lukeela dimentsio interlokutiboa eta tematikoa zorrotz aztertzeak ere. Calsamiglia eta beste (1997) dira horren adibide garbi.

Corpus-azterketatik ondorioztatu dugunez, hautatuak izan diren baliabideok Irudiaren Aurkako Ekintzak leuntzeko estrategia gisa erabili dira, eta hirurek dute elkarrekiko harreman estua. Elkar-mendekotasunean daudela esan genezake.

3.2.1. Pertsona izenordainen erabilera: deiktikoak

Aipatu dugu testu oro bere esatari eta solaskideen mendekotasun erlazioan gauzatzen dela, beraz, berbaldiaren azterketan garrantzitsua da behatzea nork hitz egiten duen eta nori ari zaion hizketan (Bajtín, 1929; Bally, 1932; Bühler, 1934; Jakobson, 1960).

Benveniste-k (1966) *Subjektuaren eraikuntza psikosiala*ren ideiarekin ikuspegi gramatikaletik harago salto egin, eta pertsona izenordainek enuntziazioan zuten funtzioaren berri eman zuen. Ildo horretatik, testuinguruaren berri ematen duten adierazleak erabiltzen ditugu hiztunok, eta horietako adierazle aztertuenak dira deiktikoak. Deixiak testuinguru jakin bateko lurralde partekatua adierazten du (fisikoa, soziokulturala, kognitiboa eta testuala). Elementu deiktikoek denbora eta espazioa antolatzen dituzte, partaideak egoeran lekutzen, baita diskurtsoaren testu elementuak ere. Sei deixi mota zehaztu izan dira ikerketa diskurtsiboetan: *pertsonala, espaziala, denborazkoa, soziala, testuala* eta *moduzkoa*.

Testuinguru jakinean ekoizten den testuak halako edo holako subjektu mota eraikitzea eskatzen du[8], eta gure corpusean subjektu psikosozialek duten balioa aztertzea dagokigu.

Esan bezala, izenordain pertsonalak diskurtsoaren pertsonen adierazleak dira (enuntziazio unean bertan daudenak eta handik kanpokoak). Pertsona izenordainak eta edutezkoak (posesiboak) ditugu batetik, eta bestetik, pertsona aditz morfemak. Hizketa-ekintza egoeran gauzatzen dira, eta testuinguruak baldintzatzen du hauen erabilera eta zentzua. Nolakoa den partaideek egin

[8] Subjektu ezberdinak eraikitzen dira, adibidez, lagunarteko elkarrizketan edo debate publiko batean. Gure azterketan, debate publiko izateak baldintzatzen ditu hiztunak subjektu sozial jakinak eraikitzera, hots, debate publikoari zuzenki dagozkionak lantzera baldintzatuta daude.

nahi duten erreferentzia mota, halako erabilerak gauzatuko dira ondoko taulan ikusten den bezala[9]:

3. TAULA

PERTSONA IZENORDAINAK

ERREFERENTZIA MOTA	ERABILERAK
INTERLOKUTOREEN ERREFERENTZIARIK EZ	Enuntziazioaren partaideak ezkutatzen ditu eta erreferentziazko edukian indarra jarri: - 3. p.s. - Eraikuntza inpertsonalak edo pasiboak, agenterik gabeak
AUTO-ERREFERENTZIA (esatariak bere burua agertzen du)	1. p.s. (batik bat, ingurune hurbilean) 2. p.s. (interlokutorea txertatzen du) 3. p.s. / bat (orokortze efektua egiten du) 1. p.p. (lokutorea talde batean kokatzen du) - *Modestiazko plurala* (lokutoreak talde bateko partaide gisa gauzatzen du ekintza) - *Inklusiboa* (lokutoreak esataria edo interlokutorea txertatzen du taldean)
ZU-ren AGERPENA (solaskidearen edo interlokutorearen agerpena)	Interlokutorea esplizituki agertzen da testuan: 2. p.s. 2. p.p. *Deixi soziala.* Tratamendu forma jakinak erabiltzen dira toki batetik bestera: Interlokutorea talde bateko kidetzat hartzen da: 2. p.p. Solaskidea eta esataria taldeko kidetzat hartzen dira: 3. p.p. Orokortu egiten da: 2. p.s.

Hernandez (1995); Calsamiglia eta Tuson (2007). *Sintesi bat.*

[9] Hernandez (1995) eta Calsamiglia eta Tuson (2007)-etik ateratako sintesia da taulan ezarria.

Azalpena argitze aldera, adibide garbi bat honakoa izan liteke: esataria "ni" izanik, izenordain mota askotarikoak erabiltzea auto-erreferentzia egiteko. Ikus dezagun zein ezberdintasun dauden ondoko enuntziatuetan (HDA: GURASOAK):

> *27. XB baina lotsa alde batera uzten* ***baduzu*** */ gero hobeto sentitzen* ***zara zure*** *aitekin // kontatu ostean egiten* ***duzuna*** */ eta hori*
>
> *207. AE gauza bat ondo egiten* ***duzunean*** *ez* ***dizute*** *esaten eta gero txarto egiten* ***duzunean*** */ bronka bat de la letxe?*

Bi adibideotan esatariak bere burua agertzen du, ideiak orokortzen ditu eta interlokutorea txertatzen du bere hizketa-ekintzan. Horretarako, 2. p.s. darabil. Ondorengoan, aldiz, interlokutorearen erreferentziarik ez da ageri, baina hemen ere orokortze efektua lortzen du. Oraingoan, 3. p.s. erabilita:

> *437. MB* ***bateri*** *gustatzen* ***bajako*** */* ***eztako*** *gustau behar* ***danari*** *hori*

Azkenean, berriz, solaskideak bere burua argi aurkezten du 1. p.s. darabilela:

> *340. MA urte bat? / hori inposible da /* ***ni*** *eskapatu egingo* ***nintzateke*** */* ***ni*** */ bartzelonara (zarata)*

3.2.2. Aditzaren erabilera: aditz moduak

Brown eta Levinsonek (1987) *desaktualizatzaile* deitzen diete esatariaren eta ekintza mehatxagarriaren artean distantzia ezartzen duten baliabideei. Kerbrat-Orecchionik (1996), aldiz, *prozedura ordezkatzaileetan* txertatu ditu, eta denborazko, moduzko eta pertsonazkoak direla zehaztu:

BALDINTZA edo SUBJUNTIBOA.

> *- Orri hori hona ekarriko* ***bazenu****...*
>
> *- Joan* ***gaitezen*** *etxera.*

KORTESIAZKO AHALERA.

> *- Gertura* ***zenezake*** *liburu hori?*

INPERTSONALIZAZIOA, NOMINALIZAZIOA edo INDEFINITZEA.

*- Arazo hau ez **da** behar bezala konpondu.*

*- Hemen **ezin da** erre.*

Bestalde, aditz moduak hizketa-ekintzari ematen dion estatusarekin lotzen dira: aginterak ezarpenezkoa ematen dio; indikatiboak ekintzari edo ekintzen konstatazioari; subjuntiboak planteamendua edo iniziatiba konpartitua adierazi nahi du, nahiz batzuetan aginteraren rola ere hartzen duen; ahalerak, berriz, gaitasuna ordezkatzen du. Gure corpusean ikusiko dugu aditzaren erabilerak zertara daramatzaten hiztunak.

3.2.3. Modalizazioaren erabilera: aditz modalak eta eratorriak

Enuntziazio prozesuan gauzatzen den beste elementu adierazgarri bat da modalizazioa. Fenomeno diskurtsiboa da, eta gauzak esateko *moduaz* diharduGu ekintza honen gainean hitz egitean. Izan ere, hiztunok munduarekiko errepresentazioa egiten dugunean *dictuma* gauzatzen dugu, eta ekintza hori beti egoten da *modus* jakin batekin jantzia. Zer esan nahi dugu horrekin? Gure ekoizpen guztietan dictuma eraldatu egiten dugula bi ardatzek baldintzatuta:

> **- Lokutorearen eta ekoizten dituen enuntziatuen arteko harremana.** Lokutoreak bere enuntziatuetako edukien gainean hitzezko eta ez-hitzezko adierazpideak eraikitzen ditu –lexiko jakina, izenondo eta aditz ondo batzuk, diskurtso antolatzaileak, gorputz mugimenduak, ahots tonuaren aldaketa...– eta horien bitartez, enuntziatuaren gainean duen jarrera zein den adierazten du. Modalitatea esateko moduarekin uztar genezake, bestela esateko, hiztunak bere enuntziatuekiko jartzen duen asertibitate edo adierazkortasun mailarekin.
>
> Horrelakoetan, hainbat bide hauta daitezke: adierazpenezkoa izatea, harridura adieraztea, zalantzaren berri ematea, aginte jitez ekitea, ziurtasunez jokatzea, bere balioak zein diren erakustea, adierazkorra izatea, etab.

> - **Lokutoreak bere interlokutoreen gainean duen jarrera.** Hitzarmen-komunikatiboan partaideen arteko harremanak zuzenean baldintzatzen ditu hiztunak, eta ondorioz, baita haiek ekoizten dituzten enuntziatuak ere. Nolakoa den berbaldi-ekintza bateko partaideen harremana eta haien irudiak bortxatzeko arriskua, halako baliabideak erabiliko dituzte hiztunek komunikazioaren haria eten ez dadin. Modalizatzaileak ditugu, hain zuzen, baliabide horien adierazgarri garbiak. Kasu honetan ere hiztunek euren enuntziatuak eraldatzen dituzte euskarrion bitartez: aditzondoak, izenondoak, aditz modalak, lexiko jakina...[10]

Beraz, lokutoreak bere edukiaren eta interlokutoreen gainean egin dituen irudikapenak modalizatzaileen bitartez adierazten ditu. Garrantzitsua da, orduan, kortesia aztertzean enuntziatuetan zein modalizatzailek parte hartzen duten analizatzea.

Gure corpusetako erabilera modal guztiak aztertzeak luze joko lukeenez, aditz modaletatik eratorriak diren baliabideak ikuskatu ditugu. Honako hauek aztertu dira:

- JAKIN: *ziurra da, jakin badakigunez, ez dakit, agian, ziur asko...*

- BEHAR IZAN: *egin behar da, beharrezkoa da, ezinbestekoa da...*

- NAHI IZAN: *nahi dugu, saiatu gara, desio dugu...*

- AHAL IZAN: *izan liteke, agian, posible da, ezin da...*

- OHITURA IZAN: *beti, inoiz ez, ia beti, ohi, batzuetan, bestetan...*

[10] Modalitatea diskurtsoan aztertua izan da enuntziatzailearen ekintza subjektiboaren zati bezala (Kerbrat-Orecchioni, 1980b; Ducrot, 1980b; Cervoni, 1987; Vion, 1992; Authier, 1995).

4. Corpusaren azterketa

Corpusean aurkitu ditugun estrategia hautatuak antolatu eta sailkaturik bi debateen alderaketa egitea dagokigu atal honetan.

4.1. Pertsona izenordainen erabilera

Helduek norberaren erreferentzia egiten dutenean 1. p.s. edo 1. p.p. erabiltzen dute. Horretan, halere, leuntze estrategiak darabiltzate beti: hala modalizatzaileren bat, nola 1. p.p. inklusiboa. Hona bi adibide argigarri:

> **1.p.s. aditz modalak lagunduta**
> *57. KU bueno / **nik esango nuke** / ona dala euroa / halatxe piskat / makal egon dolarrakin / ona da / e / esportadorientzat oso ona da / eta **nik uste det** / euskal herrixan asko / esportatzen da / eta **nik ez det uste** berri hain ona dala (...)* (GB: EKO)

> **1.p.p. inklusiboa**
> *108. JG bai baino / ez dago // bestela hasi **gaitezke** zenbat jendek erretzen duen / edo erretzen **dugun** / orduan horrekin hasten **bagara** / **gure** osasunarekin / ba gauza asko kuestionatu egin behar **ditugu*** (GB: EKO)

Bestalde, gazte zein helduen testuetan gordetzen dira interlokutoreen irudiak, baina helduenetan askoz gehiagotan. Solaskidearen irudia gordetzean, 3. pertsona singularra gailentzen da, adibide honetan ikusten den bezala:

> **3. p.s. asertzioetan**
> *106. KU eta ez **dio** hainbeste hainbeste / **horrek** hainbeste ardura / eta nik uste dut hor / e:: / **jende** asko / gehiegi **dagola** / asko zaintzen **dula** nola **bera** agertzen **dan bestian** aurrian / e // eta jatekuakin da beste beste ibilera bat **daka*** (GB: EKO)

Gazteek, aldiz, euren burua leundu gabe agertzen dute askotan. Esatariaren irudia modalizatu gabe agertu ohi da, adibide honetan bezalaxe:

1.p.s. modalizatu gabe

13. AE ba / paulak esan duen hori bai ze da // ze osea (...) / hamar t'erdiak arte / hamarrak / ta ***niri*** *uzten* ***didate*** */ beti / ba / bederatziak / bederatzi t'erdiek //* ***ni*** *ba ez* ***dut*** *ulertzen zergatik izan behar den hori // (...)* (HDA: GURASOAK)

Gazteen argumentazio biderik erabiliena, norberaren esperientziatik abiatutako justifikazioa da, eta esatariaren irudia ageri-agerian uzten da justifikazio orokorrak egiteko. Begira enuntziatuari:

Justifikazioak eta orokortzeak norberaren esperientziatik

22. AE baina hori xabierrek esaten duena bai / hitz eginez / eta hori // oso ondo dago / baina // osea / ***ni orain hasten naiz gurasoekin hitz egiten / eta ez dute serioski hartzen ezer //*** *osea* ***/ ez dira jartzen serioski nirekin hitz egiten //*** *esan nahi duena da* ***ez dizutela sinesten*** (HDA: GURASOAK)

Hizketakidearen irudia agertzen denean, 2. p.s. eta 2. p.p. darabiltzate, batez ere. Ez dute besteren irudia babesten, zuzenean ekintza mehatxagarria bideratzen baitzaio interlokutoreari, ondorengoetan bezalaxe:

2.p.s. balorazioa eginez

455. AE ba hori konfiantza falta da // ze ***zuri*** *esaten* ***badizute*** *ia erretzen* ***baduzun*** *ala ez eta* ***zuk*** *ezetz esaten* ***baduzu*** *eta ez* ***badizute*** *sinesten / horrek...* (HDA: GURASOAK)

Galdera zuzenak, asertibitate gabeak

69. ?? zer uste ***dozu*** */* ***zuri*** *esango* ***dotsutela*** */ ala?* (HDA: GURASOAK)

Eta 2. pertsona 1.arekin aurkaritzan ere agertu ohi da eta hura baloratuz askotan:

2.p.s. vs. 1.p.s.

181. PI ***zuk*** *ez* ***dozu*** *eukiko /* ***nik badaukat*** (HDA: GURASOAK)

Ondoriozta genezake helduek 1. p.p. inklusiboa eta 3. p.s. orokortzailea darabiltela gehienetan, eta norbere burua aurkezten dutenean modalizatuz egiten

dutela. Gazteek, aldiz, euren irudiaren aurkako ekintza gehiago egiten dituzte 1. p.s. eta 2. p.s. askotan jomuga ugaritarako agertzen baita. Alde horretatik esan liteke gazteek debateetan parte hartzean irudia babestu baino areago, erakutsi, haren gainean hitz egin, hari erantzun... beharra sentitzen dutela, eta horregatik direla horren ageriko komunikazioaren agertokian irudiak.

4.2. Aditz moduen erabilera

Gazte eta helduen corpusean agertzen dira kortesia estrategiekin lotura duten aditz moduak. Hauen erabilera eta maiztasuna, ordea, ezberdinak dira. Helduek aditz moduak erabili dituzte IAEak leuntzeko: baldintza, kortesiazko ahalera eta inpertsonalizazioak ugari dira. Horiekin batera 1. p.p. eta 3. p.s. erabili dira gehien. Beraz, euren burua talde jakin batean kokatuz edo orokortuz aurkeztu dute, ekintza mehatxagarriak saihestu beharrez. Adibide adierazgarriak dira ondorengoak:

Baldintza, argumentuak leunduz
90. JG? (...) ba gure ekonomiaren bultzadarako ona ***izango litzateke*** */ kalitatezko / e nekazaritza produktuak / eta hobekuntza / (...)* (GB: EKO)

Ahalera, asertzioak leundu eta orokortzeak eginez
90. JB? ...nik uste / kontsumo / hau da / azalera handiko / e komertzioek / sekulako responsabilidadea ***euki dezaketela*** *honetan / eta (...)* (GB: EKO)

Inpertsonalizazioa
96. KU bai hori / hori hala da / burruka ***dago*** */ eta* ***bakoitzak nahi du*** *ba merkiau saldu / eta irabazi / eta hortako* ***eiten da*** */ ba egin behar* ***dan*** *guztia / (...) / behin gutxi gora bera* ***probatu ezkero*** *gauza berri bat / baino merkiaua / ba huratxe* ***saltzen da*** */ jakin gabe / e / ze ondorio* ***eukiko dittun*** */ eta noiztik nora / nola oin lehen baino askoz kontrol gehixau* ***daon*** */ ba gauza hoiek* ***agertzen dira*** */ ezta* (GB: EKO)

Gazteen artean, berriz, ez dago goiko adibideen modukorik. Moduzko aditzak darabiltzatenean, helburua ez da IAEak leuntzea. Gehientsuenetan, argumentatzeko garaian egoera baten berri emateko (edo adibide bat emateko)

baliabideak dira; ez beraz, irudiaren arriskuaz jabeturik hura babestekoak. Aipagarria da, gainera, horrelako aditz mota gutxi erabili dela.

> **Adibide eta egoera bat: 3. p.p. baldintzarekin**
> *273. PI eta* ***beren aitak*** *zure aiten lagunak* ***badira*** */ zuk ze uste dozu / utziko dizutela joatea ala?* (HDA: GURASOAK)
>
> **Adibide eta egoera bat: 2. p.s. baldintzarekin**
> *457. AU* ***zuk*** *konfiantza* ***eukiko zenuke*** */* ***zuk*** *seme bat eukiko* ***bazendu*** *eta oingo gizartia baino txarrago egongo bazan?* (HDA: GURASOAK)

Beraz, pertsona izenordainen azterketan aipatua berrestea dagokigu aditz moduekin. Helduek IAEak leuntzeko darabiltzate, eta horretarako hainbat bide hautatu dituzte. Gazteentzat, aldiz, aditz moduak ez dira IAEak saihesteko baliabide, ez baitituzte funtzio horrekin erabiltzen. Gainera, aditz molde hauek erabiltzean, ahalik eta formarik arruntena hautatzen dute.

4.3. Modalizatzaileen erabilera

Helduen eta gazteen corpusetako aditz modal nahiz modalizatzaileen adierazpide batzuk aztertu ditugu lan honetan. Bien artean bada ezberdintasun ageriko eta errepikakor bat: helduek, batez ere, IAEak leuntzeko erabili dituzte, eta gazteek kontrako efektua lortzen dute horien bitartez.

Helduen corpusean aditz modalek partaideen irudiak eta argumentuak guritzeko balioa dute, eta orokorrean, 1. p.p. eta 3. p.s.rekin uztartuak agertu dira. Zer lortzen dute horrela? Euren argumentuak edo esan-ekintzak talde gisa aurkeztea edo orokortzea, beti ere, haiei lotutako partaideen irudia babestuz. Modalizatzaileen gainean, gauza bertsua esan genezake: askotan, lokutorearen irudia babesteko edo euren argumentuak leuntzeko indarra dute modalizatzaileek. Adibide esanguratsua da ondokoa:

> *55. JB ba* ***ondo*** */ euroa* ***ez dakit*** */ galdetu beharko diogu / ezta? / baina / nik* ***uste*** *det / orain dala aste bete edo bi aste / egon zan* ***halako*** */ bueno / kezka zabaldu* ***bat edo*** */ bueno /* ***pixkat*** *ixildu dala // seguru asko / beste berri batzuk izan dittugulako / baina euroaren / egoera* ***orokorra*** */*

> *bueno ba / **antzekoa** da ez / kosoboko gerra hori konpondu da **gutxienez** // eta / nik **uste** det / haiek **piskanaka** / gorantza jo behar lukela ez // **behintzat** estatu batuek ez **dirudi momentuz** interes tasak igoko dituztenik eta / **ondo samar** / **ondo samar** / esango **nuke*** (GB: EKO)

Gazteen corpusean, aldiz, aginte baliodun *behar* adizkiaren kopuru samalda da adierazgarria, eta 2. p.s.rekin ezkonduta agertzen dira, gainera, ekintza gehienak. Gainerako aditz moduetan ere euren irudia eta partaideena biluzteko joera dago mina, amorrua, ezinegona eta antzekoak aditzera ematen baitituzte. Horrelakoetan ere 2. p.s. gailentzen da. Esan bezala, *behar* erruz erabili da IAEak gauzatzeko:

> *233. ?? baina zu horren kontra joan **behar** zara!* (HDA: GURASOAK)

> *319. GB (...) edo zigortzen dizu eta zu izan bazara / ba / esan **behar** duzu / ba / ni izan naiz (zarata)* (HDA: GURASOAK)

Bestalde, gazteek helduek baino askoz moldalizatzaile gutxiago erabili dituzte, eta horiek behin eta berriz errepikatu dira corpusean. Ikus ditzagun bi adibide:

> *10. PI ba / gurasoek **gehienetan** bai dutela arrazoia / baina **batzutan** ez / **batzutan** / ba / hanka sartzen dute / ta hori // baina egiten duten guztia / gure onerako da // ta* (HDA: GURASOAK)

> *462. EA **den dena** / ez / baina / **apur bat** kontrolatu behar dizute / baina **den dena** ez* (HDA: GURASOAK)

Azterketaren hariak lotuz zilegi da ondorioztatzea gazteen eta helduen artean badirela ezberdintasunak irudiaren lanketan: forma ezberdinak erabili dituzte, maiztasuna ez da berdintsu izatera ere iritsi eta nolakotasunean aldea ikaragarri handia da. Halaber, bereziki nabarmendu nahi dugu azter-lan izan diren baliabideak elkarrekiko mendekotasunean aurkitu ditugula.

5. Ondorioak

Helduak eta gazteak –debate publikoetan trebatuak eta gutxitan arituak–, debate publikoa eta kortesia estrategiak josi ditugu azterketa honen oihalean. Estrategiak ikuspegi enuntziatibotik aurkeztu eta aztertzen ahalegindu gara, hautatutako baliabideen analisia egin dugu, eta gazte zein helduen arteko alderaketan murgildu gara.

Azken emaitzetan argi eta garbi gelditu da testuinguruaren ezaugarriek baldintzatu dutela gazte eta helduen ekoizpenaren nolakotasuna. Egoera formala presente izateak eta denbora mugatuak eraman ditu partaide guztiak gauzatze linguistiko jakinak eraikitzera. Gaiak eta moderatzailearen lanak ere baldintzatu du partaideen ekoizpena: gazteena oso hurbileko gaia zen ("Gurasoek beti al dute arrazoia?"), eta moderatzaileak horren inguruko galdera zuzenak egiten zizkien; helduenak, aldiz, gizarte-ekonomia mailakoak ziren, eta moderatzailearen galderak orokorragoak. Horrek, jakina, eragin izan du gaien inplikazio mailan, eta nabaritu egin dugu enuntziazioan eta argumentatzeko moduan: gazteek euren esperientzietatik abiatutako argumentuak zituzten, barnetik kanpora irtenak; helduek, ostera, iritziak orokortzeko ohitura handiagoa zuten. Dena dela, testuinguruaren muga hauek izan al dira bakar-bakarrik bi corpusak ezberdintzearen adierazgarri nagusiak?

Partaideen adinak ere eragin izan du baliabide aztertuen maila guztietan (nolakotasunean eta kantitatean, batez ere). Komunikazio hitzarmenaren ardatz horizontala izan da beste baldintza garrantzitsu bat: gure ondorioetako bat da gazteen gertutasun haria oso laburra izateak eragin duela ekoizpenetan.

Jakin badakigu testu-molde bakoitzak bere ezaugarri diskurtsiboak dituela, eta gure azterketa-gaia debatea izatearekin postulatu dugu debateari zuzenean atxikitzen zaizkion ezaugarriak topatuko ditugula corpusetan. Hala gazteenean, nola helduenean, debatearen ezaugarriak topatu eta aurkeztu ditugu, beraz, biei aitortu dizkiegu debateari dagozkion elementu nagusiak.

Testu-moldearen ezaugarriak berdintsuak izan badira ere, gazteen eta helduen artean alde handixkoak topatu ditugu argumentazio eta enuntziazio mailan. Testu-molde beraren gainean erabilitako estrategiak ezberdinak izan dira. Zehaztu dugu helduek IAEak leuntzeko darabiltzaten estrategiak ugariagoak eta aberatsagoak direla. Gazteek, aldiz, IAE ugari gauzatu dituzte, eta gainera, debatea aurrera joan ahala ugaritu egin dira ekintzok: ezadostasuna adierazi dute indarrez, aginduak bortizki eman dituzte, baieztapen orokortzaileak egin dituzte, zeharbide gutxiko iritziak eman dituzte, euren burua gordinki aurkeztu dute adibideetan, asertibitaterik gabeko galdera zuzenak ugariak izan dira, leporatzeak ere bai... Helduen corpusarekin alderatuz, amildegia izugarri handia da.

Nabarmendu dugu, bestalde, helduek oso kontuan hartzen dutela debatearen solaskidea –debatean parte hartzen ari dena, entzulea edo "gizartean" dagoena–, eta gazteentzat, berriz, solaskidea bera debatean bertan dagoena dela bakarrik. Horrek zertara darama hiztuna? Helduen kasuan, haien guztien irudia babesteko hamaika ahalegin egitera; gazteen egoeran, aldiz, debateko mintzaidearekin komunikazio-jokoa egitera, izan bere irudia indartuz, izan irudia erasotuz. Horregatik gailendu zaigu horren kopuru handian 2. p.s.a. Ildo horretatik, helduek hitz txandak errespetatu dituzte, debateko partaideen hitza zainduz; gazteen artean, ordea, nor baino nor ibili dira hitza zeinek lehenago eta azkarrago hartuko.

Berdin gertatu da norbere burua babestu behar edo behar ezarekin ere. Gazteek euren irudia babestu ez, biluztu egin dute. Diren moduko agertu dira, 1. p.s.ean eta 1. p.p.ean askotan: bakarrik edo talde bereko kide gisa. Euren esperientzietatik abiatu dira iritziak eman nahiz ideiak orokortzeko, eta labur ekoiztu dituzte argumentu printzipalak. Aitorpenak, etsipen edo min adierazleak trumilka topatu ditugu. Iritzia eta irudia leundu, zertarako? Horixe egin dute helduek modalizatzaile ugariren bitartez, desfokalizatzaileekin, prozedura erretorikoak erabilita, erlatibizazio eta orokortzeak nagusituz... Gure corpuseko helduek beti izan dute gogoan zein izan litekeen debatearen joan-etorriko arriskua: IAEak egitea. Horiek gauzatu aurretik, bitartean eta

ondoren ekoitzi dituzte leuntze estrategiak; emaria oparoa izan da, jardun ekoizpenak oso luzeak eta txukun antolatuak.

Elkarrekintzan, ostera, agertokiko irudiak indartu, lausengatu edo argiztatu ere egin dira, nolabait esateko. Adostasun eta aldarte oneko unetan gertatu dira halakoak, oro har. Helduek bromak, balioespenak eta onarpenak egin dizkiete debateko partaideei, eta gazteek, berriz, zenbaiten iritzien adostasuna adierazi dute. Iritzi trukearen nondik norakoan, halere, horrelako uneak ez dira izan zenbakitan handiak.

Gure corpusetako kideek euren irudia landu dute ekintza-diskurtsiboan. Ezberdin landu ere, genero berdinaren berbaldi-ekintza zelarik. Gure lanaren ondorio garrantzitsu bat da gazteek eta helduek ezberdin irudikatzen dutela irudia arriskuan jartzeko ekintza bera, eta horregatik, hain zuzen, darabiltzatela ezberdin eta helburu ezberdinetarako baliabide batzuk edo besteak. Testuaren gainazal linguistikoak arrunt kolore ezberdineko gelditu dira.

Nolabait esan liteke helduen irudiaren lanketa gazteena baino orekatuagoa izan dela. Izan ere, helduen corpusean irudi positiboaren eta negatiboaren adierazleak ugari eta berdintsu erabili izan baitira. Gazteen artean, ordea, irudi positiboa ez da gehiegi zaindu, testuinguru informalaren adierazleez josita gelditu da testua eta irudi negatiboak leuntzeko baliabideak, ostera, oso urriak izan dira.

Orduan, baldin eta debateak –testu-molde gisa– partaideen irudien lanketan zaintza handia eskatzen badu, zer dela eta ez dira gazteak horren irudi zaintzaile leialak izan? Galdera honi bi erantzun bila liezazkiokeela iruditzen zaigu: batetik, izan liteke gazteek bestela irudikatzen dutela irudiaren lanketa komunikazio-hitzarmenean, euren arteko hartu-emanaren gertutasunak daramatela (debate honetan) irudiak mintzeko arriskurik ez sumatzera; bestetik, izan liteke kortesia estrategia hauen beharraz eta erabileraz oraindik ez jabetu izana, eredurik jaso ez izana, irakatsi ez izana.

Hizkuntzaren irakaskuntza eta didaktikari begira, aberasgarri litzateke, agian, gazteei debateetan (baita beste berbaldi-ekintzetan ere) irudia nola lan -

tzen den irakastea. Ereduak erakutsi eta trebetasunak landuz gazteak, berriz ere, debate publikoan jarriko balira sumatuko al genuke aldaketarik? Horra hor, hurrengo baterako ikerketa lan bat.

Azkenik, berretsi dugu geure lanean aztertu diren kortesia baliabideak elkar-mendekotasunean agertu direla. Bestela esateko, baliabide aztertuen balio edo funtzioak elkarren lotura zuzenean topatu ditugu: IAEak leuntzeko izenordain jakinen ondoan aditz mota eta modalizazio jakinak jaso ditugu. Konturatu gara euren artean badela balizko harreman bat, eta aurrera begira garrantzitsua litzateke elkar-mendekotasunaren sokari tira egitea (ahozko edo idatzizko) testu-moldeen azterketan sakontzeko.

Gure lanaren azken hondarretan, ezin dugu ukatu gure azterketa xumea izan ez denik. Aurrera begira, interesgarria litzateke corpus gehiago hartuta emaitzak berdinak ote diren aztertzea. Beharrezkoa da, horrez gain, aztertu gabe gelditu diren kortesia estrategiek berbaldi-ekintzetan nola jokatzen duten jakitea. Aberatsa litzateke, gainera, testu genero eta adin-talde ezberdinak alderatzea. Zenbat hutsune, hainbat betekizun ditu kortesia estrategien unibertsoak.

Bibliografia

AUTHIER, J. 1995, *Ces mots qui ne vont pas de soi: boucle réflexive et non-coïncidence du dire*, Larousse, Paris.

BAJTÍN, M.M. 1929, *Estética de la creación verbal*, Siglo XXI, Mexiko. 1982.

BENVENISTE, E. 1966, *Problemas de lingüistica general I,* Siglo XXI, Mexiko. 1971.

BIGAS, M. eta CORREIG, M. 2000, *Didáctica de la lengua en la educación infantil*, Síntesis educación, Madril.

BRONCKART, J. P. 1996, *Activité langagière, textes et discours. Pour un interactionisme socio-discursif,* Delachaux et Niestlé, Laussane.

BROWN P. eta LEVINSON, S.C. 1978, «Universals in language use: Politeness phenomena», in E. Goody (arg.), *Questions and politeness. Strategies in social interaction*, Cambridge University Press, Cambridge, 56-289.

BROWN P. eta LEVINSON, S.C. 1987, *Politeness. Some Universals of Language Use*, Cambridge University Press, Cambridge.

BÜHLER, K. 1934, *Teoría del lenguaje*, Alianza Editorial, Madril. 1985.

CALSAMIGLIA, H. eta beste 1997, *La parla com espectacle. Estudi d'un debat delevisiu*, Universitat Autònoma de Barcelona, Bartzelona.

CALSAMIGLIA, H. eta TUSÓN, A. 2007, *Las cosas del decir. Manual de análisis del discurso*, Ariel Lingüística, Bartzelona.

CERVONI, J. 1987, *L'enonciation*, Presses Universitaires de France, Paris.

DUCROT, O. 1980b, *Les mots du discourse*, Minuit, Paris.

DURANTI, A. 1997, *Antropología lingüística,* Cambridge University Press, Madril. 2000

GARFINKEL, H. 1964, «Studies on the Routine Grounds of Everyday Activities», in D. Sudnow (arg.), *Studies in Social interaction,* The Free Press, New York, 1-30.

GARRO, E. 2007, *Jendaurreko debateak euskaraz. Diskurtso erreferituaren azterketa,* EHU, Gasteiz.

GOFFMAN, E. 1959, *La presentación de la persona en la vida cotidiana*, Amorrortu-Murgia, Madril. 1987.

GOFFMAN, E. 1967, *Ritual de la interacción. Ensayos sobre el comportamiento cara a cara*, Tiempo Contemporáneo, Buenos Aires. 1970.

GOFFMAN, E. 1971, *Relaciones en público*, Alianza, Madril. 1979.

GRICE, P. 1967, *Logic and Conversation*, Harvard University, William James Lectures, Harvard.

GUMPERZ, J. eta HYMES, D.H. 1964, *The Etnography of Communication,* in *American anthropologist*, 66. bol., 6. zk., 2 zatia.

HAVERKATE, H. 1994, *La cortesía verbal. Estudio pragmalingüístico*, Gredos, Madril.

HERNANDEZ, C. 1995, «Deíxis social y cortesía en textos científicos: un estudio contrastivo», Verba, 22 (1995) 477-500.

IDIAZABAL, I. eta LARRINGAN L.M. 2003, «Las estrategias de imagen en los debates. Una insuficiencia pragmático-discursiva de adolescentes entrenados», in G. Luque, A. Bueno eta G. tejada (arg.) *Las lenguas en un mundo global. Languages in a global World. Actas del XX Congreso anual de la Asociación Española de Lingüística Aplicada,* Jaen, AESLA & Universidad de Jaen, 37-43.

IDIAZABAL, I. eta LARRINGAN, L.M. 2001, (argitaratzeke), «Ahozko euskara formala eta haren egitura sozio-diskurtsiboa: Debatea», in *V. Euskal Soziologia Kongresua*ren aktak, Bilbo.

JAKOBSON, R. 1960, «Lingüística y poética», in *Ensayos de lingüística general*, Ariel, Bartzelona, 347-395. 1984.

KERBRAT-ORECCHIONI, C. 1980b, *La enunciación. De la subjetividad en el lenguaje*. Hachette, Buenos Aires. 1986.

KERBRAT-ORECCHIONI, C. 1992, *Les interactiones verbales*, (II. liburukia), Armand Colin, Paris.

KERBRAT-ORECCHIONI, C. 1996, *La conversation*, Seuil, Paris.

KERBRAT-ORECCHIONI, C. 2004, «¿Es universal la cortesía?», in Bravo eta Briz (arg.), *Pragmática sociocultural: estudios sobre el discurso de cortesía en español,* Ariel Lingüística, Bartzelona, 39-53.

KERBRAT-ORECCHIONI, C. 2005, *Le discours en interaction*, Armand Colin, Paris.

LAKOFF, R. 1973, «The logic of politeness; or minding your p's and q's», in *Papers form the ninth regional meeting of the Chicago Linguistic Society*, Universitiy of Chicago, Chicago, 292-305. 1983.

LARRINGAN, L.M. 2002, «Debate con jóvenes: introducción, tema y tarea», Textos de didáctica de la lengua y la literatura, 29 (2002) 21-31.

LEECH, G.N. 1983, *Principios de pragmática*, Universidad de la Rioja, Logroño. Felipe Alcantararen itzulpena, oharrak eta hitzaurrea. 1997.

MATSUMOTO, Y. 1989, «Politeness and conversation universals: Observation from Japanese», Multilingua, 8, 2/3 (1989) 207-222.

SEARLE, J. R. 1969, *Actos de habla*, Cátedra, Madril. 1986.

SIFIANOU, M. 1992, *Politeness phenomena in England and Greece: A cross-cultural perspectiva*, Clarendon Press, Oxford.

VION, R. 1992, *La communication verbale. Analyse des interactions*, Hachette, Paris.

WITTGENSTEIN, L. 1953, *Investigaciones filosóficas*, Crítica, Bartzelona. 1988.

‘Omen’en zalantzak argitu nahian

ZUBELDIA, Larraitz
Euskal Herriko Unibertsitatea

Sarrera data: 2009-07-31
Onartze data: 2009-11-26

Euskera. 2009, 54, 2-1. zatia, 843-883. Bilbo
ISSN 0210-1564

'Omen'en esanahiaren eta erabileraren berri ematea dugu helburu lan honetan. Saiatuko gara argudiatzen 'omen' duen esaldiaren hiztunak adierazten duela proposizio bat hiztuna ez den beste batek esana edo baieztua dela, edo hari entzuna edo irakurria (ez ikusia). Horixe du bere esanahia, eta, horri jarraiki, erakutsiko dugu orain arteko gramatika eta hiztegiek 'omen'i lotu izan dioten ziurtasunik eza ez dela haren esanahiaren parte, baizik eta hiztunak eragin dezakeen inplikatura, 'omen'dun esaldi bat eginez. Esango dugu, baita ere, 'omen'i ematen dizkioten '*parece (que)*' edo '*il paraît (que)*' gisako baliokideak ez direla bereak, baizik eta 'bide'renak.

Horretarako, orain arteko gramatika eta hiztegiek esandako gauza batzuk baztertu eta beste batzuk zehaztu beharko ditugu. Egungo semantika eta pragmatikako bereizketa nagusiak hartuko ditugu oinarri eta bidelagun horiek xehetzeko.

Hitz-gakoak: esanahia, edukia, esandakoa, inplikatura, proposizio-edukia.

El objetivo de este trabajo es definir el significado y explicar el uso de la partícula '*omen*' del euskara. Intentaremos argumentar que el hablante, mediante una proferencia con '*omen*', expresa que una proposición es dicha o afirmada por otro hablante, o bien escuchada o leída a otro hablante. Ése es su significado, e intentaremos demostrar que el contenido de incertidumbre que las gramáticas y diccionarios han asociado a 'omen' no es parte de su significado, sino la implicatura que puede producir el hablante mediante la realización de una proferencia con 'omen'. Veremos también que los equivalentes como 'parece (que)' o '*il paraît (que)*' asignados a '*omen*' no son sus equivalentes, sino de la partícula '*bide*'.

Para ello, tendremos que descartar algunas de las cosas propuestas acerca de '*omen*' por las gramáticas y diccionarios publicados hasta hoy, y precisar algunas otras. Partiremos de las principales distinciones de la semántica y pragmática, con el fin de que nos ayuden a refinar lo dicho hasta ahora acerca de '*omen*'.

Palabras clave: Significado, contenido, lo dicho, implicatura, contenido proposicional.

L'objectif de ce travail est de définir la signification et d'expliquer l'utilisation de la particule « *omen* » du basque. Nous essaierons d'argumenter que le locuteur, grâce à une profération avec « *omen* », exprime qu'une proposition est dite ou affirmée par un autre locuteur, ou bien écoutée ou lue à un autre locuteur. C'est là sa signification, et nous essaierons de démontrer que le contenu d'incertitude que les grammaires et dictionnaires ont associé à « omen » ne fait pas partie de sa signification. En effet, il s'agit plutôt d'une implicature que le locuteur peut produire au moyen d'une enoncé avec « *omen* ». Nous verrons également que les équivalents comme « *parece (que)* » ou « il paraît (que) » assignés à « *omen* » ne sont pas ses équivalents, mais plutôt de la particule « *bide* ».

Pour cela, nous devrons écarter quelques-unes des propositions au sujet de « *omen* » faites par les grammaires et dictionnaires publiés à ce jour, et en préciser quelques autres. Nous partirons des principales distinctions de la sémantique et de la pragmatique pour nous aider à affiner ce qui a été dit jusqu'à présent au sujet de « *omen* ».

Mots-clés: Signification, contenu, ce qui a été dit, implicature, contenu propositionnel.

The aim of this paper is to define the meaning and explain the use of the particle '*omen*' in Basque. We shall attempt to argue that the speaker, by the utterance of '*omen*', expresses that a proposition is said or asserted by another speaker, or either heard or read by another speaker. That is its meaning, and we shall attempt to prove that the content of uncertainty that grammar books and dictionaries have associated with '*omen*' is not part of its meaning, but the implicature that the speaker can produced by making an utterance with '*omen*'. We shall also see that equivalents such as '*parece (que)*' or '*il paraît (que)*' ('seems that') assigned to '*omen*' are not its equivalent, but the equivalent of the particle '*bide*'.

To do so, we must cast aside some of the items proposed concerning '*omen*' by grammar books and dictionaries published up to now, and describe in detail some others. We shall start from the main distinctions of semantics and pragmatics, in order to help us purify what has been stated concerning '*omen*'.

Keywords: Meaning, content, what is said, implicature, propositional content.

Sarrera

Aspalditik aipatu izan dituzte 'omen', 'ei, 'bide', 'ote', 'al' eta antzeko partikulak euskarazko hiztegigile eta gramatikariek euren lanetan. Eta badirudi ez zaiela erraza izan horien erdarazko ordaina ematea erreferentzia gisa auzoerdaretako bat edo ingelesa hartu duten hiztegigileei, ez baita horien ordain zuzenik hizkuntza horietan. Bestelako parafrasien bidez eman beharra dago horien baliokidea, eta badirudi bide makurretik eraman dituela horrek batzuetan. Euren azterketa sintaxian oinarritu dute gramatika askok, eta, gainerakoan, definizio laburra edo ordainak ematera mugatu dira, edo euskalkien araberako banaketaren berri ematera. Baina munduan badira halako partikulak eta gehiago dituzten hizkuntzak, eta baita horiek aztertzen saiatzen diren hurbiltze semantiko eta pragmatikoak ere.

'Omen' partikula aztertzera mugatuko gara lan honetan, badu-eta zer aztertua. Zehazkiago, haren esanahia eta erabilera aztertzea dugu xede; eta alderdi batzuetara mugatu beharko dugu horren baitan ere.

Hiru ezaugarri bereiziko genituzke orain arteko lanetan 'omen'i[1] buruz esan den horretan:

a. Hiztunak adierazten duen/aditzera ematen duen proposizioa besteren batek esana dela ematen du aditzera/adierazten du.

b. Hiztunak[2] adierazten du ez duela esaten duen proposizioaren egiari buruzko ziurtasunik.

---

* Batetik, eskerrak eman nahi dizkiot Kepa Kortari, lan hau egiteko oinarria eta gehiago emateagatik. Baita Andoni Barreña eta Txantxon Zubeldiari ere, egindako zuzenketa eta iradokizunengatik. Bestetik, aipatu nahi nuke Eusko Jaurlaritzaren doktoradutza aurreko beka baten laguntza izan dudala, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren Ikertzaileen Prestakuntzarako Programako laguntza baten bitartez.

[1] Komatxo sinpleak (') adierazpenak aipatzeko eta 'zuhurtzia' komatxo gisa erabiliko ditugu; bikoitzak ("") esaldiak markatzeko. Proposizioak errepresentatzeko, berriz, LETRA LARRI TXIKIAK baliatuko ditugu.

[2] 'Hiztuna' erabiliko dugu, baina uler bedi horrekin hiztuna, idazlea...; esaldiaren egilea, oro har, esaldia ahoz edo idatziz egin duena.

c. Erdarazko '*se dice (que)*', '*parece (que)*', '*on dit (que)*', '*il paraît (que)*', '*dice(n) (que)*'ren baliokidea da.

(a)k Mitxelenak (1987) eta Sarasolak (1996) diotena laburbiltzen du.

> **omen** (...) II. (...) ◆ (Partikula, zeinaren bidez aditzera ematen den adierazten den informazioa beste pertsona edo iturri batzuetatik datorrela; aditz forma pertsonalaren aurre-aurrean jartzen da).[3] (...) (Mitxelena, 1987, 244-245)

> **1 omen.** (XVII ea.). Hiztunak aditzera ematen duenaren berri entzunez (ez ikusiz) jakin duela adierazteko erabiltzen duen partikula. (...) (Sarasola, 1996, 614)

Euskaltzaindiak (1987, 1993), berriz, (b) eransten dio aurrekoari:

> Esaten duguna besteri entzuna diogula eta, beraz, ziurtasun neurria haren bizkar uzten dugula adierazteko, esate baterako, **ei** eta **omen** ditugu (...). (Euskaltzaindia, 1987, 502)

> Partikula horien [*omen* eta *ei*] modaltasunak bata bestearekin loturiko bi alderdi ditu: a) esaten dena besteri entzuna dela adierazten dute batetik, eta b) egia denentz ezin duela hiztunak erabat ziurtatu. (Euskaltzaindia, 1987, 515)

> *Omen* eta *ei* partikulek adierazten duten modaltasunak bi aurpegi erakusten dizkigu: hiztunak esaten duena besteri entzuna dela eta esaten duen horren egiatasunaz ez dagoela batere ziur. (Euskaltzaindia, 1993, 446)

Baina ez da Euskaltzaindia bakarrik uste horretakoa. Hasierako gramatikari batzuek ere zalantzazkotzat zuten 'omen' partikula. Larramendik (1854, 196), esaterako, *adverbes de doute* delakoen azpian sartzen du, eta Lafittek (1962, 162)[4] ere zalantza adierazteko adberbioekin batera sailkatzen; van Eysek (1873, 301) *particule dubitative* esaten dio.

---

[3] **omen** (...) II. (...) ◆ (Partícula con la que se da a entender que la información que se expresa proviene de otras personas o fuentes; se coloca inmediatamente antes de la forma vbal. personal). (Mitxelena 1987, 244-245).

[4] Lafitteren lanari dagozkion orrialdeen erreferentziak 1979ko edizioarenak dira.

(c) hiztegi elebidun eta gramatika gehienek jasotakoari dagokio. Honakoek, besteak beste: Larramendik (1729, 307-308), van Eysek (1873, 301), Azkuek (1905-1906, 841), Lafittek (1962, 47)[5] eta Elhuyarrek (2000, 490).

Horiek horrela, honako hau argudiatu nahi dugu:

I. (a)ko definiziotik, hau da Mitxelenaren eta Sarasolaren definizioetatik, jo beharra dago 'omen'en esanahia deskribatzeko. Zehaztu egin beharra dago, hala ere.

II. (b) okerra da. Izan ere, hiztunak adieraz dezake zalantza 'omen' erabiliz, baina zalantza ez da haren esanahiaren parte, ezpada hiztunak bere esaldiarekin eragiten duen inplikatura, esaldiaren eduki pragmatikoa. Batzuetan, esplizituki adierazten du zalantza hiztunak, ondoren.

III. (c) ez da guztiz zuzena, '*parece (que)*' eta '*il paraît (que)*' ez baitira 'omen'en ordainak.

Beraz, Mitxelenaren eta Sarasolaren definizioen bidetik jo beharra dagoela iruditzen zaigu, 'omen'en esanahiaren eta erabileraren berri emateko. Hasteko, 'omen'en hainbat ezaugarri bilduko dugu, gero esango ditugun gauza batzuk argitze aldera (1. atala). Jarraian, bi hiztegigileen ildoari helduko diogu, baina zehaztu egin beharra dagoela azpimarratuko dugu (2. atala). Semantikako eta pragmatikako oinarrizko kontzeptu batzuk baliatuko ditugu horretarako, bi bereizketa nagusi ekarriz: esanahia *vs.* edukia (3.1. azpiatala) eta esandakoa *vs.* inplikatutakoa (3.2. azpiatala). Bereizketa horiek lagunduko digute 'omen'en esanahia eta edukia zehazten (4. atala). Segidan, argudiatuko dugu ziurtasunik ezak ez duela lekurik esanahi horretan, eta ikusiko dugu 'omen'en esanahiaren parte ez baina hiztunak 'omen' duen esaldi bat eginez eragin dezakeen inplikatura dela (5. atala). Horren ildoan, hizpide hartuko dugu zalantzaren ideia horrek izan duen eragina; batetik, kazetaritzan (5.1. az-

[5] Larramendiren lanari dagozkion orrialdeen erreferentziak 1979ko edizioarenak dira; Azkuerenak, 1984koak; eta Lafitterenak, 1979koak.

piatala), eta, bestetik, euskal hiztunengan (5.2. azpiatala). Jarraian, erakutsiko dugu, gure ustean, '*parece (que)*' eta '*il paraît (que)*' gisakoak ez direla 'omen'en ordainak, ezpada 'bide'renak (6. atala). Eta, azkenik, ondorioa eta aurrera begirakoak bilduko ditugu (7. atala).

1. 'Omen'en hainbat ezaugarri

- Sintaktikoki *aditz-multzoko partikula* da 'omen'. Aditz jokatuekin joaten da, elementu horrekintxe agertzen da gehienetan; dela agerian, dela isilean.[6]

Aditz-sintagmaren gunean joaten da, beraz. Baiezko perpausetan, aditz trinkoarekin haren aurrean, eta perifrastikoekin aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean:

(1) Bihar omen datoz lagunak.

(2) Bihar etorriko omen dira lagunak.

Ezezkoetan, berriz, trinkoetan haren aurrean, eta perifrastikoetan aditz laguntzailea aurreratuta, haren aurrean:

(3) Ez omen datoz bihar lagunak.

(4) Ez omen dira bihar etorriko lagunak.

Aditzik gabe nekez edukiko dugu, hortaz, 'omen'.

---

[6] Ager bailiteke aditza isilean dela, nahiz galdera baten erantzunean bakarrik dela, aditzik gabe. Hona hemen adibide bana, hurrenez hurren:

(i) Garrantzitsuena ez omen irabaztea, parte hartzea baizik. (*Berria*, 2006-02-11, 5)

(ii) Bai omen (Larramendi, 1854, 196)

Horrez gain, aipatzekoa da Iparraldeko erabilera; 'omen' perpausaren bukaeran agertzea, hain zuzen:

(iii) Beldur masiboa da panikoa, omen. (*Berria*, 2006-02, 18)

- Adierazpen-perpausei soilik atxiki dakieke 'omen'. Horietan bakarrik ager daiteke, ez du lekurik galde-perpausetan (ez galdera zuzenetan, ez zehar-galderetan),[7] harridurazko perpausetan eta aginterazko perpausetan.[8] Hona hemen adibide bana, hurrenez hurren:

(5) Biharko bukatuko omen du lana.

(6) *Biharko bukatuko omen du lana?

(7) *Zer lan bukatuko omen duen biharko!

(8) *Buka omen ezazu lana biharko!

- Lehenxeago ikusi bezala, adierazpen-perpausetan ager daiteke 'omen' ukazioaren aldamenean, baina *eragin eremu* zabala izango du beti ukazioarekiko (Haddican, 2007, 71-74). Har dezagun, esate baterako, adierazpen-perpaus sinple bat:

(9) Euria ari du.

eta horren ukazioa:

(10) Ez du euririk ari.

Erabil daiteke 'omen' perpaus horren esaldi baten berri emateko:

(11) Ez omen du euririk ari.

'Omen'ek 'ez'ekiko eragin eremu zabala duela (eta, alderantziz, 'ez'ek 'omen'ekiko eragin estua duela) diogunean, honako hauxe esan nahi dugu: (11)ren edozein esaldik adierazten duen proposizioak honako itxura hau duela:

[7] Zehaztapen bat egin beharra dago galderei dagokienez. Galdera arruntetan agertu ezin den arren, badirudi ager litekeela '*interrogative flip*' delako galderetan (Ginzburg & Sag, 2000; Matthewson eta beste, 2007), zeinetan solaskideak esandakoa errepikatzen duen hiztunak, galdetzaile bat sartuta. Esaterako, onargarria egiten zaigu honako adibide hau:

(iv) Norekin ari omen nintzen dantzan?

[8] Perpausez ari gara hemen, perpaus motez, sintaxiaz alegia; eta ez perpaus horiekin egin daitekeenaz. Batek adieraz dezake, esate baterako, harridura "Bihar etorriko omen dira lagunak!" esanez. Baina adierazpen-perpausa izaten segitzen du perpausak, ez du harridurazko perpausen egiturarik.

OMEN [EZ (EURIA ARI DU)]

eta sekula ez honako beste hau:

EZ [OMEN (EURIA ARI DU)].

- Ezin da *iteratu* 'omen'; esan nahi baita, 'omen' erabilita sortutako perpaus egiturari ezin zaio berriro ere 'omen' ezarri, ezin zaio bitan jarri aditz berari. Behin bakarrik ager daiteke perpaus bakuneko:

(12) *Biharko bukatuko omen du lana omen.

2. Definizioak zehaztuz

Mitxelenaren eta Sarasolaren definizioen ildotik jo beharra azpimarratu dugu, 'omen'en esanahia emateko, zalantza adierazten duelako ideia bazter utzita. Bi puntutan jarri nahi dugu arreta.

- Bi aditz darabiltzate horren berri emateko, 'aditzera eman' eta 'adierazi', baina justu alderantziz. Mitxelenak dio 'omen'ekin aditzera ematen dela adierazten den informazioa beste pertsona edo iturri batzuek emana dela; beraz, 'omen'ekin zerbait *aditzera eman* egiten da, haren arabera. Sarasolak, berriz, esaten digu aditzera ematen duenaren berri entzunez (ez ikusiz) jakin duela adierazteko erabiltzen duela hiztunak 'omen'; hortaz, 'omen'ekin zerbait *adierazi* egiten da. Horrez gain, zerbait hori adierazitako informazioari buruzkoa da, Mitxelenaren iritzian; aditzera ematen duenari buruzkoa, aldiz, Sarasolaren ustez.

- Bi gauza bereizten dituzte euren definizioetan: batetik, 'omen'en 'azpiko' edukia eta, bestetik, 'omen'ek eduki horri eransten dion efektua edo ñabardura.

Lehenengo puntuari dagokionez, argitu behar da zer egiten den 'omen'dun esaldi bat egiten denean: zerbait *esan* egiten da? Zerbait *adierazi*? Zerbait *aditzera eman*? Esanahi desberdina dute hirurek, termino gisa, semantikako eta prag-

matikako tradizioetan, eta horien berri ematen ahaleginduko gara, labur bada ere, 'omen'en esanahiaren definizioa zehazte aldera.

Bigarren puntuak, berriz, Searleren (1969) hizketa-ekintzen teoriako bereizketa bat dakarkigu gogora. Hain zuzen, hizketa-ekintza orotan, bi osagai bereizten dira haren ilokuzio-alderdiari dagokionez: *ilokuzio-indarra* (*F*) edo hizketa-ekintzarekin zer egiten den (baietsi, hitz eman, eskatu, zigortu, iradoki, ziurtatu, eta abar), batetik; eta, *proposizio-edukia* (*p*) edo hizketa-ekintzaren asetze-baldintzak (egia-baldintzak, baierakoen[9] kasuan), bestetik, egiten denaren edukia. Hala, proposizio-eduki bera izan dezakete ilokuzio-indar desberdina duten esaldiek. Esaterako, Eñautek esandako (13) esaldiak:

(13) "Joango naiz." (promesa)

eta Leirek esandakoek

(14) "Eñaut etorriko da." (baiespena)

(15) "Eñaut, etor zaitez!" (erregua)

(16) "Eñaut etorriko al da?" (galdera)

proposizio bera dute; alegia,

EÑAUT ETORRI,

baina ilokuzio-indar desberdina.

Galdera bat sortzen da azterketa hori 'omen'i ezartzean: zeri egiten dio ekarpena 'omen'ek, ilokuzio-indarrari ala proposizio-edukiari edo egia-baldintzei? Goiko adibidean, 'Eñaut'ek, 'etor'ek eta '*pro*' izenordain isilak proposizio-edukiari egiten diote ekarpena; aditz jokatuari dagozkion morfemak, 'al' partikula, doinua edo entonazioa eta bere zeinu grafikoak, berriz, ilokuzio-indarra markatzeko bitartekoak dira. Eta 'omen'?

[9] Bost taldetan sailkatzen dira ilokuzio-indarrak, hizketa-ekintzaren ilokuzio-xedearen arabera; hiztunak ilokuzio-ekintza egitean duen gutxieneko asmoaren arabera, alegia (Searle, 1969; Vanderveken, 1990, 1991): baierakoak, konpromisozkoak, zuzentzekoak, agerbidezkoak eta adieraztekoak.

Hortxe utziko dugu galdera hori oraingoz (4. atalean helduko diogu berriro), eta lehenengo puntukoei erantzuten saiatuko gara lehenbizi, hainbat kontzeptu ekarriz.

3. Kontzeptu batzuk argituz

Gaur egungo pragmatikako oinarrizko bi bereizketa ekarriko ditugu, ezinbesteko izango baitzaizkigu gauza batzuk ulertzeko: esanahia *vs.* edukia eta esandakoa *vs.* inplikatutakoa.

3.1. Perpausa eta esaldia: esanahia eta edukia

Perpausak (hizkuntza jakin bateko adierazpenez osatutako kate gramatikal osoak) ez du egia-baldintzarik berez; esan nahi baita, ez du proposiziorik adierazten bere kabuz, ez du edukirik. *Esaldiak* (perpaus bat erabiltzeko ekintzak) ditu egia-baldintzak, eta *proposizio* baten bidez irudikatzen dira. Esaldiak, edo esaldia egiten[10] duen hiztunak, proposizio hori adierazi egiten duela esaten da; esaldiaren *edukia* esaten zaio proposizio horri. Kaplani (1989) jarraiki, perpausaren esanahia[11] eta esaldiaren edukia bereizi behar dira. Esaterako,

(17) Ni bertsolaria naiz.

perpausak *esanahia* dauka, euskal hiztun gisa ezagutzen duguna; 'ni', 'bertsolari', '-a' eta 'naiz'en esanahiak eta horien konposizio-erregelak badakizkigun neurrian.

Nolanahi ere, ez da nahikoa esanahia jakitea hiztunak, perpaus hori erabiliz, adierazitako proposizioa mugatzeko; hau da, esaldiaren *egia-baldintzak* mugatzeko. Izan ere, hiztuna bera esaldiaren edukiaren osagaietako bat da, eta

[10] Ingelesezko '*utter*' esateko darabilgu 'esaldia egin'. '*Say*' ('*what is said*') eta '*utter*' ('*utterance*') bereizten baitituzte ingelesez; 'esan' ('esandakoa') eta 'esaldia egin' ('esaldi') erabiliko ditugu guk.

[11] Kaplanek (1989) 'karaktere' esaten dio 'esanahi'ri.

kontuan hartu beharra dago. Eman dezagun Amets Arzallusek esan duela (17). Egia-baldintzen semantikarien hizkera erabilita, Ametsek egindako esaldiak adierazitako proposizioa egiazkoa da baldin eta bakarrik baldin Amets bertsolaria bada. Kasu honetan egiazkoa da, Amets bertsolaria baita. Baina esaldia Ametsek ez baizik Maialen Lujanbiok egina bada,

(17') "Ni bertsolaria naiz",

beste bat da proposizioa; eta, ondorioz, baita egia-baldintzak ere, perpausaren esanahia berbera izanagatik. Esaldiaren edukia Maialeni buruzkoa denez gero, egiazkoa da baldin eta bakarrik baldin Maialen bertsolaria bada. Eta kasu honetan ere egiazkoa da, Maialen bertsolaria baita. Eduki desberdinak adierazten dituzte, hortaz, perpaus beraren bi esaldi horiek, hiztuna nor den; bata Amets Arzallusi buruzkoa baita; bestea, berriz, Maialen Lujanbiori buruzkoa.

Bi gauza bereizi beharra daude, beraz, esaldien edukia mugatzean: perpausaren esanahiaren ekarpena eta esaldiaren testuinguruaren ekarpena. Berebat gure aztergaiari dagokionez, bi gauza bereizi beharra dauzkagu 'omen'en esanahiaz eta erabileraz ari garenean. Batetik, esanahia, kodetzen duen informazioa, testuinguruaren informaziorik erantsi gabe, euskara jakinda ezagutzen duguna. Bestetik, edukia, 'omen'dun perpausaren esaldiak adierazten duen proposizioa, eta 'omen'ek horri egiten dion ekarpena (baldin eta proposizioari egiten badio ekarpena, eta ez ilokuzio-indarrari).

3.2. Esandakoa eta inplikatutakoa

Gricek (1967) damaigu pragmatikako beste bereizketa, ezagunena seguru asko: '*esandakoa*' ('adierazitako proposizioa' ere esango diogu) eta '*inplikatutakoa*' ('hiztunak aditzera ematen duena' ere erabiliko dugu) bereizi beharra daude esaldi batean. Har dezagun Griceren beraren adibide ezagun bat. A eta B hizketan ari dira C lagunari buruz. C banketxe batean lanean hasi berria da.

(18) A: "Zer moduz dabil lanean C?"

B: "Ez dute kartzelan sartu oraindik."

Erabilitako perpausaren esanahia eta testuingurua kontuan hartuta, Bk adierazitako proposizioa egiazkoa da baldin eta bakarrik baldin C ez badute kartzelan sartu, lan berrian hasi denetik esaldiaren denbora arte. Hori litzateke Bk esandakoa. Baina hori komunikatu nahi al zuen Bk? Ezezkoan gaude. Garbi dago Bk beste zerbait ere eman diola aditzera Ari, edo beste zerbait ere inplikatu duela esandakoa esanez: esaterako, Ck ez duela lapurretarik egin oraindik, hura ezagututa espero zitekeen bezala. Hobeto ezagutu beharko genuke testuingurua, zehatz jakiteko zer eman nahi izan dion aditzera Bk Ari. Baina Bk esandakotik desberdina da, behintzat, aditzera emandako hori. Bi gauza bereizi beharra daude, ondorioz, esaldiaren edukiaren baitan: esandakoa eta inplikatutakoa.

Esandakoari dagokionez, argitu beharra dago ez dela mugatzen perpausaren *esanahi konbentzionalera*, nahiz eta hortik abiatzen den. Izan ere, esandakoa mugatzeko, hala dio Gricek (1967), bi gauza egin behar dira: (i) anbiguotasunik balego, ebatzi, eta (ii) adierazpen indexikoen eta testuinguruaren mendeko bestelako adierazpenen erreferentziak finkatu. Esaldiaren edukiari dagokio, beraz, esandakoa, hiztunak adierazitako proposizioari; eta ez perpausaren esanahi hutsari. Baina, era berean, bereizi egin beharra dago hiztunak aditzera emandako edo inplikatutako proposiziotik (proposizioetatik). Esanahi konbentzionala, esandakoa eta inplikatutakoa bereizten dira, hortaz.

Inplikaturei dagokienez, bi mota bereizten ditu Gricek: inplikatura konbentzionalak eta elkarrizketa inplikaturak. *Inplikatura konbentzionala* da hitzen esanahi konbentzionalak eragindako inplikatura.[12] *Elkarrizketa inplikatura partikularizatua*, berriz, egoera jakin batean *p* proposizio bat esanez sortzen da, testuinguruaren ezaugarri berezien bidez; eta, beraz, aldatu egiten da testuinguruaren arabera. Esandakoa esan izanari dago lotuta.

[12] Esan beharra dago oso eztabaidatua izan dela inplikatura konbentzionalen kontzeptua. Batzuek diote ez dela halako kategoriarik (ikus Bach, 1999, besteak beste). Nolanahi ere, beste batzuk (Potts, 2005) berriro berreskuratzen saiatu dira.

Elkarrizketa inplikaturak[13] bakarrik hartuko ditugu kontuan 'omen'i dagokionez (5. atala). Hainbat bereizgarri dituzte halako inplikaturek. *Ezabagarritasuna* da esanguratsuena, eta guri interesatzen zaiguna. Elkarrizketa inplikaturak ezabagarriak dira. Hiztunak esplizituki ezaba edo bertan behera utz dezake, arazorik gabe, *p* proposizio bat esatean sor daitekeen *q* inplikatura; "baina ez dut *q* esan nahi izan" gisako zerbait esanda. Edo inplizituki ezaba dezake, esaldiaren testuingurua aldatuta. 'Test' gisa balia daiteke, oro har, ezabagarritasuna, esandakoa eta inplikatutakoa bereizteko, eta horretarako erabiliko dugu guk ere.

4. 'Omen'en esanahia eta edukia

Kontzeptuak argitu ondoan, gure proposamenaren arabera 'omen'ek duen esanahia emateko moduan gara. Esanahiaz ari garenean, kodetzen duen informazioaz ari gara; testuinguru orotatik kanpo, euskara dakigun heinean, ematen digun informazioaz. Zehaztapen bat egin beharra dago, hala eta guztiz. Izan ere, partikula dugu 'omen', eta ez du, hortaz, berezko esanahirik perpausetik kanpo. Termino *sinkategorematikoa* dela esango dugu, Erdi Aroko logikarien hitzak baliatuz. Hori dela eta, 'omen'dun perpausen esanahia aztertu beharko dugu, eta ez 'omen'en beraren esanahia.

Izan bitez *S* perpausa, *p* proposizioa (Sren esaldiak adierazten duena) eta 'S_{omen}' 'omen' duen perpausa. Horiek horrela, honako hau da 'S_{omen}' perpausaren esanahia, gure proposamenaren arabera:

[13] Elkarrizketa inplikaturen baitan ere, beste bereizketa bat egiten du Gricek (1967); elkarrizketa inplikatura partikularizatuak eta orokortuak bereizten ditu. *Partikularizatua* testuinguru jakin bati lotua da; *orokortua*, berriz, esaten dio esaldi bateko hitzen forma jakin batek, oro har (testuinguru jakin bat gogoan izan gabe, alegia), inplikatura jakin bat edo mota jakin bat sortzeari. Baina berak ere aitortzen du askotan zaila dela orokortuen adibide egokiak topatzea, erraza dela-eta halako inplikaturak konbentzionaltzat hartzea. Horretan utziko dugu eztabaida, ez baitzaigu interesatzen lan honetarako.

($M\text{-}S_{omen}$) HIZTUNA EZ DEN BESTE(REN) BATEK ESANA DA *p* (edo OMEN-*p*).

Zehatz ditzagun gauza batzuk aurrera egin aurretik:

- Bi hiztun bereizi beharra dauzkagu, gutxienez, 'omen'en esanahiaren berri ematean. Batetik, 'omen' dakarren hiztuna, '*hiztuna*' esango dioguna, 'omen' duen esaldia egin duena. Bestetik, '*jatorrizko hiztuna*', 'omen'en bidez ekarritako esaldia egin duen hiztuna, jatorrian *p* esan duena.

Badu muga bat 'omen'ek jatorrizko hiztunari dagokion bezainbatean: ezin izan daiteke hiztuna bera, hiztuna ez den besteren bat izan beharra dauka. Fallerrek (2002, 191) dio, cuzco kitxuako '*-si*'rekin ('omen'en antz handia du), jatorrizko hiztuna ezin daitekeela izan ez hiztuna bera, ez hiztunak aurrean duen laguna, entzulea; hirugarren pertsona izan beharra dauka, haren ustez. Guri iruditzen zaigu, ordea, 'omen'en kasuan, balitekeela entzulea izatea jatorrizko hiztuna; ez zaigu iruditzen 'omen'ek eragozpenik duenik jatorrizko hiztuna bigarren pertsona izateko. Esaterako:

(19) "Ez omen zenidan barkatzeko eskatuko, barkaziorik ez omen zeneukalako." (Mendiguren Elizegi, 2006, 33)

Beraz, badirudi euskarak ez duela cuzco kitxuako '*-si*'ren murrizpenik, zentzu horretan.

- Testuinguruaren informazio gehiagorik gabe, eta 'omen' iteratzerik ez dagoenez, ezin dugu argitu *p* bera ($M\text{-}S_{omen}$) tankerako proposizioa den ala ez; alegia, jatorrizko hiztunaren perpausa 'omen'duna zen ala ez.

- 'Esana da' diogunean, Griceren zentzuan esaten dugu; hau da, esaldiaren edukiaren zentzuan, hiztunak egindako esaldiaren bidez adierazitako proposizioa da. Hark baino hertsiago ulertuta, dena dela. Izan ere, adierazpen-perpausetara mugatuta baikaude, *baieztuaren* baliokidetzat hartu behar da, 'omen'en kasuan. Esan dugu, 'omen'en ezaugarriak eman ditugunean, adierazpen-perpausei bakarrik lot dakiekeela. Adierazpen-perpaus batek baieztua izan behar du beste batek esandako *p* proposizioak; ez aginterazko perpaus batek agindua, galde-perpaus batek galdetua, edo heiagora- edo harridura-perpaus batek adierazia.

- Beste batek esandako *p* hori proposizioa da, hiztunak bere hitzetan dakarrena, *indexikoak* egokituta. Gehienetan, hiztunaren hizketako unera eta bere ikuspegira egokitu behar izaten dira izenordainak eta denbora markak; zehar-estiloan bezala.[14]

Alde horretatik, 'omen' urrundu egiten da tankerako baliabide dituen komatxoetatik. Komatxoekin ere beste batek esana dakargu, baina hitzez hitz; 'omen'ekin, berriz, hiztunarengana egokituta. Alabaina, nahas edo tarteka litezke biak, *mixed quotation* delakoa sortuz; nahasketa gramatikaren aldetik zuzena denean betiere. Halakoetan, 'zuhurtzia komatxoak' izan ohi dira batzuetan. Kasu horietan, hiztunak garbi utzi nahi izaten du beste baten hitzak ekarri dituela, eta ez bereak; bestearen hitz zehatza(k) dakar(tza). Har dezagun (20) esaldia:

(20) "Ni mendizalea naiz."

Demagun Unaik esan duela hori. Komatxoak erabiltzen dira, estilo zuzenean, horren berri emateko:

(21) Unaik esan du: "Ni mendizalea naiz".

Horiek lirateke jatorrizko hiztunak esandako hitzak, estilo zuzenean. Honela emango genuke 'omen'ekin:

(22) "Unai mendizalea omen da."

Hiztunak egokitu egin ditu jatorrizko hiztunaren hitzak; 'ni' izenordainaren lekuan 'Unai' izena sartu du, eta 'naiz' aditzaren ordez 'da' jarri.

Baina badirudi ez dagoela eragozpenik biak tartekatzeko ere:

(23) "Unai 'mendizalea' omen da."

[14] Hain zuzen, 'esan du(te)'ren esanahiaren parekotzat har daiteke 'omen'ena, eta, askotan, parafrasi horren bidez ematen dugu 'omen'dun perpausaren esanahia. Nolanahi ere, desberdintasun esanguratsuak dituzte biek; biak bereiz aztertzeko adinakoak (ikus Zubeldia & Korta, 2007, 249-253).

Baliteke hiztunak garbi utzi nahi izatea Unaik berak esan duela hala, nahiz eta bere ustez ez den oso mendizalea; gustatu arren, oso gutxitan joaten baita mendira. Kasu horretan, zuhurtzia komatxoak direla esango genuke.

Goian eman duguna litzateke, beraz, 'omen' duen perpaus baten esanahia, edo perpaus horren esaldi guztiek batean duten *eduki semantiko minimoa*:[15]

($M\text{-}S_{omen}$) HIZTUNA EZ DEN BESTE(REN) BATEK ESANA DA *p* (edo OMEN-*p*).

Baina 'omen' duen perpausaren esaldi bat eginez hiztunak esandakoa mugatzeko, jatorrizko hiztunak berak 'omen' erabili duen edo ez erabaki beharra dago. Izan ere, ikusi dugu, Griceri jarraiki, bi gauza egin behar direla halako esaldi bat eginez hiztunak esandakoa mugatzeko: (i) anbiguotasunik balego, ebatzi; eta (ii) testuinguruaren mendeko adierazpenen erreferentziak finkatu.

Anbiguotasuna ebazteko, *p* 'omen'duna den edo ez erabaki behar da.[16] Izan ere, 'omen' iteratzerik ez dagoenez, hainbat bitarteko egon daiteke jatorrizko hiztunaren eta hiztunaren artean. Hala, *p* bigarren edo hirugarren eskukoa izan daiteke, edo jatorri indeterminatukoa (Aikhenvald, 2004, 178-179; Faller, 2002, 4-10). Esaera zaharren kasuan, adibidez,

(24) "Ikusi nahi ez duena baino itsuagorik ez omen dago." (*Berria*, 2006-03-02, 32)

---

[15] Korta eta Perryren 'Pragmatika Kritikoa'ren arabera (ikus, adibidez, Korta & Perry, 2007), 'erreflexiboa' da proposizio hori, euren terminologiari segituz, hiztunari berari erreferentzia egiten diolako egia-baldintzetan.

[16] Gauza bera gertatzen da 'omen' aditz edo predikatu baten baitan txertatuta dagoenetan ere; alegia, mendeko perpausean agertzen denean. Esaterako:

(v) "Larraitzen zeak balseko soñue jotzen asi ementziela ta, ue ametitzen baninbanun kondenauta neola esantziakean!" (Ahozkoa)

Ikusi beharra dago jatorrizko hiztunak esana den 'omen' edo hiztunak sartu duen. Kasu horretan, erredundantea litzateke, 'esan' aditzak biltzen baitu edukia, nolabait. Baina beste baterako utziko dugu kontu hori.

ezin jakin daiteke nor den jatorrizko hiztuna, ezta esaldi hori zenbat hiztunengandik pasatua den ere; batek daki zenbat ahotatik igaro den.

Gauza bera gertatzen da zurrumurruak hizpide direnean:

(25) "Bere bigarren denboraldia du, eta Frantziako talde garrantzitsuen agendan omen dagoela diote azken zurrumurruek." (*Berria*, 2006-02-03, 28)

Berebat jatorrizko hiztunaren inolako arrastorik ematen ez duten gisa honetako adibideetan:

(26) "Denak ez, geienak bai. Zeatio emen auzo ontako gazte geienak emen juntatze gattuk... normalen... Beran tzeok beste soziedade bat eta an talde bat eta ola... esate omen die ?? baño askomuzkoik ez... etzekiat." (Ahozkoa)[17]

Beste batzuetan, ordea, garbi dago bigarren eskuko informazioa dela, jatorrizko hiztuna zehaztuta baitago, kotestuan edo testuinguru hurbilean: batek (jatorrizko hiztunak) zerbait esan du, eta une horretako hiztunak hari entzundakoa dakar 'omen'en bidez. Esate baterako:

(27) "«Ez daukat obsesioa hirugarren adinekoekin, baina atsegin dut edadeko emakumeen jarrerak aztertzea» dio Kobeagak. Ez omen dago horretan errukigabetasunik; «80 urteko emakume bat supermerkatu bateko ilaran aurrekoen txanda nola hartzen saiatzen den ikustea atsegin dut, besterik gabe»." (*Berria*, 2006-01-25, 39)

(28) "Aktoreen esanetan, zailagoa da publiko euskaldunari hitza ateratzea, baina behin hasita ez omen dute arazorik izaten." (*Berria*, 2006-02-01, 41)

[17] Asier Aizpuruak eta Larraitz Zubeldiak egindako grabazioen transkripzioetatik hartuak dira ahozko adibideak. 2001ean egin zituzten, Ataunen eta Abaltzisketan (Gipuzkoa).

(29) "Liburu egunean gertatu zitzaigun. Ezagun batzuek etxera gonbidatu gintuzten, eta senarrak afaria prestatu bitartean, emazteak etxea erakutsi zigun. (...) telefono-gida eta Argiñanoren errezeta-liburu bat, ez nuen etxe osoan beste libururik ikusi. (...)

Halako batean, emazteak barkamena eskatu zidan: ez omen dute irakurtzeko ohiturarik. Damu naiz bikotea ez zoriondu izanaz: etxe hartako liburu faltak logika gehiago du irakur zaletasunik gabeko liburu askoko batek baino." (Lertxundi, *Berria*, 2009-04-25, 5)

Kasu horietan, Kobeaga, aktoreak eta emaztea lirateke jatorrizko hiztunak, hurrenez hurren; testuinguruan aipatuta baitaude, esplizituki. Zehaztuta daude, beraz.

(ii) Erreferentziak finkatzeari dagokionez, berriz, gure ustez, 'omen'ek ez du testuinguruaz baliatuz finkatu beharreko argumenturik adierazten. Hortaz, Sk leuzkakeen indexikoei legozkiekeen erreferentziak lirateke *p* mugatzeko finkatu beharreko erreferentzia bakarrak.

Anbiguotasuna ebazteko eta erreferentziak finkatzeko lanak eginda, tankera honetako proposizioa adierazten du hiztunak 'S_{omen}' perpaus baten esaldiaren bidez, gure proposamenaren arabera:

HIZTUNA EZ DEN BESTE(REN) BATEK ESANA DA *p*,

edo, bestela,

HIZTUNA EZ DEN BESTE(REN) BATEK ESANA DA OMEN-*p*.

Horixe litzateke 'omen'en edukia.[18] Esan beharra dago, halere, ez dagoela zehaztu beharrik nork esana den *p* edo OMEN-*p*,[19] hiztunak adierazitako pro-

[18] Esanahi hori duela kontuan hartuta, *ebidentzialtzat* hartuko genuke 'omen', hala esaten baitzaie hiztunak bere informazioarentzat duen informazio-iturria markatzeko elementuei literatura orokorrean (ikus, besteak beste, de Haan 1999; Dendale & Tasmowski 2001 eta Faller 2002).

[19] Ez du '*pro*' izenordain isilik perpausean artikulatuta, 'esan du' edo 'esan dute' aditzek duten bezala (ikus Zubeldia & Korta, 2007).

posizioa mugatzeko. Nahiz eta, testuingurua baliatuz, muga daitekeen zehaztua edo zehaztugabea den; eta, zehaztua denean, identifikatu ere egin daiteke, ikusi dugun bezala. Baina adierazitako proposiziotik harago joango litzateke hori; *aberastutako* proposizioa litzateke, Sperber eta Wilsonen (1986/95) edo Carstonen (2002) hitzak erabiliz.

4.1. Zeri egiten dio ekarpena 'omen'ek?

Galdera bat utzi dugu zintzilik bigarren atalean: zeri egiten dio ekarpena 'omen'ek, ilokuzio-indarrari ala proposizio-edukiari? Badirudi, K. Mitxelenaren eta I. Sarasolaren definizioei jarraiki, esan beharko genukeela ilokuzio-indarrari egiten diola ekarpena 'omen'ek, ñabardura edo efektu bat erantsiko lioke *p* proposizio-edukiari. Hau da, oinarrian perpaus bera hartuta, 'omen'-dun eta 'omen'ik gabeko bi esaldik ez lukete desberdintasunik egia-baldintzetan, gauza-egoera berek egingo lituzkete egiazko ala faltsu. *Proposizio-eduki* bera lukete (30) eta (31) esaldiek:

(30) "Euria ari du."

(31) "Euria ari omen du."

Ilokuzio indarra aldatuko litzateke (31)n, baiezpenetik dena delakora, partikulak ezartzen dion ñabarduraren arabera.[20]

[20] Munduan badira 'omen'en tankerako hizkuntz elementuak dituzten hizkuntzak (*reportative*, *quotative*... esaten diete). Bada horietako elementu bat ilokuzio-indarraren adierazle gisa aztertzeko proposamen bat; Fallerrena (2002), hain zuzen. Cuzco kitxuako enklitikoak ditu aztergai hizketa-ekintzen teoria oinarri hartuta; tartean '*si*', 'omen'en antzekoa. Ez gara xehetasunetan sartuko hemen. 'Omen' proposamen horren arabera nola aztertuko litzatekeen ikusteko, ikus Zubeldia & Korta (2007). Badira gisa horretako elementuen bestelako azterketa semantiko eta pragmatikoak ere, hainbat teoriaren araberakoak. Esaterako, japonierako elementu ebidentzialak proposizioari ekarpena egiten dioten gisa aztertzearen aldeko hautua egin dute McCready & Ogatak (2007). Beste batzuek aurresuposizio gisa aztertzen dituzte: besteak beste, Schenerrek (2008) alemanierako '*sollen*', Matthewson eta bestek (2007) Pazifikoko ipar-mendebaldeko st'át'imcets hizkuntzako elementuak eta Izvorskik (1997) hainbat hizkuntzatako ebidentzialitatearen perfektua. Blassek (1989) eta Ifantidouk (2001), berriz, errelebantziaren teoria darabilte; nigeriar-kongoar sissala hizkuntzako.

Gure ustez, ordea, eta 'omen'i eman diogun esanahia emanda, beste bideari heldu behar zaio 'omen' aztertzeko: proposizio-edukiari egiten dio ekarpena 'omen'ek, esaldiaren egia-baldintzak aldatzen ditu, eta ilokuzio-indarra bere horretan geratzen da. Hala, (31) (30) bezain baiezpena da, gure azterketaren arabera. Kontua da desberdina dela biek baieztutakoa, egia-baldintza desberdinak dituzte. (30) egiazkoa da baldin eta bakarrik baldin euria ari badu; (31) egiazkoa da baldin eta bakarrik baldin hiztuna ez den besteren batek esana bada euria ari duela. Esan nahi baita, 'omen' duen perpausaren esaldi batekin beste proposizio bat sortzen da, 'omen'ik gabeko esaldiarenetik desberdina; desberdinak dira bi esaldien egia-baldintzak. Hortaz, esango dugu ez ditugula bereizten 'omen'en azpiko edukia eta horri 'omen'ek eransten dion ñabardura, ezpada bi eduki: jatorrizko hiztunaren esaldiaren edukia eta hiztunaren esaldiaren edukia.

Horixe da, beraz, 'omen' duen perpausaren esanahia, gure proposamenaren arabera. Eta iruditzen zaigu zalantzak ez duela lekurik esanahi horretan, ez da 'omen' duen perpausaren esanahiaren parte 'omen'i sarritan lotu izan dioten ziurtasunik eza. Ideia hori argudiatzen saiatuko gara jarraian, adibideen eta test baten laguntzaz; ezabagarritasun testaren bidez, alegia.

5. 'Omen'en inplikaturak: ziurtasunik eza

Ikusi dugu bi ezaugarri ematen dizkiola Euskaltzaindiak 'omen'i: (i) esaten dena besteri entzuna dela adierazten du eta (ii) hiztunak ez du ziurtasunik esaten duena egia den edo ez. Atal honetan, argudiatuko dugu bat gatozela lehenbizikoarekin; ez, ordea, bigarrenarekin. Esan dugu Larramendik eta van Eysek ere zalantzarekin lotzen dutela 'omen'. Uste berekoak dira honako hauek ere, besteak beste: Campión (1884), López Mendizabal (1943), Arotça-

'*re*' partikula aztertzeko batak, grezierako '*taha*' partikula aztertzeko besteak. Ikusten denez, aztertzaile bakoitzak teoria bat hautatzen du, aztergai duen hizkuntza eta horko partikularen ezaugarriak zein diren. 'Omen'en kasuan, proposizio edukiari ekarpena egiten dion gisan aztertzeari irizten diogu egokien.

rena (1951), Lafitte (1962), Trask (1981), Wilbur (1981), Agirre (1991), King (1993), Zubiri eta Zubiri (1995) eta Jendraschek (2003).

Hiztegiei dagokienez, berriz, *Orotariko Euskal Hiztegia* (1987) argitaratu arte, guk esku artean izan ditugunek behintzat, ez dute esplizituki aipatzen zer esanahi duen 'omen'ek; erdarazko ordainak ematera mugatzen dira. Mitxelenak iturriarekin lotzen du lan horretan 'omen'. Aitzitik, euskara hutsezko hiztegiak argitaratzearekin batera, 1990etik aurrera, 'omen' zalantzarekin lotzen hasi ziren esplizituki hiztegi batzuk, nahiz eta iturriaren balio hori ere gordetzen duten.

Ziurtasunik ezarekin lotzen du 'omen'en esanahia Elhuyar eta Elkarlaneanen hiztegiak (1994, 853-854), esaterako:

> **1 omen**. *partik*. Hiztunak aditzera ematen duenaren ziurtasunik ez duenean, baina hala jakin duela adierazteko erabiltzen duen partikula. (...)

Baita Bostak baten hiztegiak ere (1991, 391-392):

> **2** hiztunak gauza baten ziurtasunik ez duenean, baina jendeak hala dioela adierazteko, aditz trinkoaren edo laguntzailearen aurre-aurrean jarririk, erabiltzen duen partikula: garai batean sorginak biltzen omen ziren koba hartan. Bide, ei.

Gure ustez, ordea, ezin da esan ziurtasunik eza 'omen'dun perpausen esanahia denik. Izan ere, ziurtasunik eza 'omen'dun perpausen esanahiaren osagaia balitz, 'omen'dun perpausen esaldi guztiek adieraziko lukete ziurgabetasuna. Haatik, bestelakoak dira kontuak adibideei erreparatuz gero.

Oraindik gehiago esango genuke, azkenean kosta egiten da benetan zalantza adierazten duen adibideren bat topatzea; arakatutako corpusean, behinik behin, erabateko ziurtasunaren eta ukazioaren adibideak agertzen dira gehiena.

Har dezagun adibide bat. Gaude ondo erakusten duela argudiatu nahi duguna: batetik, zer esanahi duen 'omen'ek; eta, bestetik, 'omen'ek ez duela zalantzarik adierazten bere esanahiz:

> (32) "Xabier Gorrizek (Altsasu, 1984) atzo zortzi jaso zuen pilotakada buruan. Erremontista profesional gisa daramatzan

> hiru urteetako unerik gogorrena. (...) «Min itzela nuen. Batbatean. Zulaikari begira nengoen nora jo behar zuen jakiteko, eta bete-betean jo ninduen. Lurrera jausi nintzen, eta eskuak aurpegira eraman nituen. Mina dut gogoan, aurpegia handituta neukan, *arrautza* buruan... eta txistu hotsa belarrian! Txistu hots ozena!». (...) Altsasuko gaztea ez da gogoratzen, baina pilotakadak hots galanta egin omen zuen. «Kideek hotsa nola ez dudan gogoratzen esaten didate, beldurgarria izan omen zen. Nik, baina, nire garrasiaren, minaren, zalapartaren eta zorabioaren artean ez dut ezer gogoan. Anbulantzia goiz etorri zela baino ez».” (*Berria*, 2008-01-23, 33)

Hasieran, lehenengo pertsonan kontatzen ditu gertaerak, baina une batean hirugarren pertsona erabiltzera pasatzen da, besteek kontatutakoan oinarrituta, ia konorterik gabeko egoeran bizitakoaz gogoratzen ez dela eta. Horrexetarako darabiltza 'esaten didate' eta 'omen'. Eta ez zaigu iruditzen zalantzarik adierazten duenik hiztunak 'omen'ekin kasu horretan, erabateko ziurtasuna baizik.[21] Ez dirudi zalantzarik duenik pilotaren hots handiaz, hark emandako kolpea kontuan hartuta.

Baina badira oraindik eta adibide garbiagoak, 'omen'ek zalantza adierazten duelako ustearen kontra egiten dutenak, gure iritziz. Hurrengo etsenpluetan, esplizituki adierazten du hiztunak bat egiten duela 'omen'en bidez ekarritako edukiarekin (33-35) nahiz erabat ukatzen duela eduki hori (36-39), edo beste baliabide batzuen bidez ulertarazten du hori:

[21] Ez diogu inolako eragozpenik ikusten 'omen' erabiltzeari hiztuna erabat ziur dagoen kasuetan. Hala, ez dugu bat egiten Zubiri eta Zubirirekin (1995); izan ere, diote hiztunak ez duela 'omen' erabiliko beste bati entzundakoaren egiaz ziur badago. Gaude adibideek beste gauza bat erakusten dutela. Zuhurtasunarekin edo leialtasunarekin lotzen dugu 'omen'en erabilera halakoetan; hiztunak, ziur egonagatik, garbi utzi nahi du beste batengandik jasotako informazioa ematen ari dela.

(33) "Diplomaziarekin eta nazioarteko erakundeekin fidatu beharra dagoela dio Fukuyamak bere liburu berrian, baina Nazio Batuen Erakundea ez omen da fidagarria. Ados." (*Berria*, 2006-03-11, 5)

(34) "Eta... urdun mendia beintzet ue bazekiat, en kanbio Luix eztet uste juntzanik mendia. Ee... Luixik ez ementzan jun mendia eta... zenbat urte izango nizkian?... Luixik eztek jun mendia. Nik bazekiat Luixik eztala mendia jun." (Ahozkoa)

Mailakatzea dago adibide horretan. Hasieran, zalantza du hiztunak, baina beste batek esana dakar jarraian; eta, horren ondoren, ziur dago hark esandakoaz:

(35) "Aizak, baño izango uan difentzie... este... beno... oinbesteaiñokoa gutxigo, baño gure osabak eta oik oñez jute ementzien Ordizia lanea, oñez, oñez, oñez. Eta alpargatak austen zittuenen, zapatun da jaien kaporratzakiñ alpargatak josten!" (Ahozkoa)

Indartu egiten du besteak esandakoa, errepikapenaren bidez, eta ezin esan zalantzarik egiten duenik hala zela:

(36) "Bere bizialdi osoan lehen aldiz, Garcia Marquezek ez du iazko urte osoan esaldi bakar bat ere idatzi. Inspirazio falta omen (...) Zergatik ez du idazten Garcia Marquezek? Ez, jakina, inspirazio faltagatik, baizik eta nekatua, aspertua, hustua sentitzen delako." (*Berria*, 2006-02-10, 6):

(37) "Estiloa aldatu omen du Van Morrisonek lan honetan. Ez nago ados." (*Berria*, 2006-03-09, 41)

(38) "Nire hobe beharrez, nire segurtasunerako izan omen zen, baina nik ez dut hori onartzen." (Iñurrieta, 2004, 145)

(39) "Gaur hasten omen da hauteskunde kanpaina. Baita zera ere. Hori ez dute alderdi politikoek ere sinesten (...)" (Agirre, *Berria*, 2008-02-22, 3)

Garbi ikusten da 'omen'ek ez duela zalantzarik adierazten adibide horietan, eta aski irizten diegu horiei 'omen'ek ziurtasunik eza adierazten duelako ideia bazter uzteko. Esan dugu zalantza 'omen'en esanahia balitz, kasu guztietan adierazi beharko lukeela eduki hori, eta ez dirudi hala denik.

Zergatik lotzen dituzte, orduan, Euskaltzaindiak eta beste hiztegigile eta gramatikari batzuek 'omen' eta ziurtasun neurria? Esango genuke lotzen dituztela badirelako inplikatura hori sor dezaketen esaldi 'omen'dunak. Eta, horrez gain, beharbada, 'omen'en beraren izaerarengatik, bere esanahiz ez delako erabakitzen nora joko duen: adostasunera, desadostasunera, zalantzara... Ez du halako esanahirik jasotzen 'omen'ek bere baitan, eta badirudi nolabaiteko zalantza sortzen duela ezaugarri horrek. Neutroa da, nolabait esateko.

Ikus dezagun nola sortzen den zalantzaren inplikatura hori. Hartu, adibidez, honako etsenplu hauek:

(40) a. "(...) ordun Larraitzen batzuk soñue jo omentzuen ortzak zabalduta. (...)

b. nik eztakit ze jo zuen enon ikusi jotzen da... nei apaizak beak esantziñ emen Abaltziketan." (Ahozkoa):

(41) a. "1.000 zigarroren gaineko zerga igota eta tabakoaren gutxieneko prezioa zehaztuta iritsiko omen da arazoaren soluzioa. (...)

b. Prezioak igoko diren ikuskizun dago. Prezioak igota arazoa konponduko den ere bai." (*Berria*, 2006-02-11, 2):

(42) a. "Labayenek -Ramon Labayen zen orduko Kultura sailburua- esaten omen zuen (b) euskal telebistak aparra bezala egin behar zuela lan, gure hizkuntzarekin bazter guztiak nahasiz."

b. nik ez dakit egia den (Salaburu, 2002, 141)

(40a), (41a) eta (42a) esaldietan, zalantza adierazten du hiztunak, ondoko (40b), (41b) eta (42b) esaldien bidez baieztatzen duen bezala; eta ez da inolako arazorik sortzen.

Kasu horietan, gaude (a) esaldien inplikatura dela ziurtasun neurria. *Ezabagarritasun testa* delakoa (Grice, 1967) baliatu ohi da teoria pragmatikoan proposizio bat esandakoaren parte (esanahi semantikoa) edo inplikatura (eduki pragmatikoa) den ebazteko. Testa 'omen'en adibide horiei ezarriz gero, emaitzek erakusten dute inplikatura dela zalantza, eta ez esandakoaren parte; ezabagarria izaki. Izan ere, (40a), (41a) eta (42a)ren ondoren, esan dezakegu, hurrenez hurren, kontraesanik gabe:

(40c) Ez dut dudarik egiten hala izan zela, lehen ere hala jotakoak baitira.

(41c) Inork ez du dudarik egiten prezioak igoko direla, eta prezioak igota konponduko dela arazoa.

(42c) Ez dut dudarik egiten hala esan zuela, behin baino gehiagotan entzun bainion gauza bera.

Ezabagarria da, hortaz, ziurtasunik eza. Inplikatura ez baina 'omen'en esanahia balitz, ordea, ezingo genituzke horiek esan; kontraesana sortuko litzateke. Zehatz dezagun, bide batez, Griceren bereizketari jarraituz, elkarrizketa inplikatura[22] dela 'omen'en kasuan sortzen den inplikatura; inplikatura konbentzionalak ezin baitira ezabatu (Bach, 1999, besteak beste). Eta, ikusi bezala, zalantza ezabagarria da.

Laburtuz, gure azterketaren arabera, hiztunak informazioaren gainean duen ziurtasunik eza ez da esaldi 'omen'dunek adierazten duten proposizioaren parte, baizik eta esaldia eginez aditzera eman daitekeen inplikatura. Ondorio horixe bera ateratzen du Fallerrek (2002, 23) ere, cuzco kitxuako '*-si*' *reportative*

[22] Eta gehiago zehaztuta, 'elkarrizketa inplikatura partikularizatu' motakoa da, gure ustez. Baina beste baterako utziko dugu hori.

atzizkia aztergai duela:

> ['*-si*'k] Ez du kodetzen hiztunak uste duen edo ez txertatutako proposizioa egiazkoa edo posibilitatea den. Adieraz daiteke ziurtasun neurri bat, beste markatzaile batzuk erabiliz, edo testuinguruaren bidez inplikatuz, baina ez du *–si*k kodetzen.[23]

Berebat Schennerrek (2008, 555), alemanierako '*sollen*' *reportative*a aztertuta:[24]

> (...) nahiz eta $sollen_{REP}$ bateragarria den hiztunaren eszeptizismoarekin, praktikan oso arraroa da erabilera hori (...). Gainera, esplizituki markatu ohi da hiztunaren eszeptizismoa.
>
> Ondorioztatzen dugu $sollen_{REP}$ak ez duela lexikalki kodetzen hiztunaren zalantza. Eszeptismo ñabardurak eragin pragmatikoak dira.[25]

Erakutsi uste dugu 'omen'dun perpausaren esanahiak ez duela nahitaezko loturarik hiztunak ziurtasun neurria adieraztearekin, eta bazter batera utzi behar direla 'omen'en esanahia zalantzarekin lotzen duten ideiak. Mitxelenaren eta Sarasolaren definizioek irekitako bidetik jotzeari iritzi diogu egokien hasieratik, nahiz eta zehaztapen batzuk egin beharra aldarrikatu dugun. Zehaztapen horiek eginda eman dugu gure ustez 'omen'ek duen esanahiaren berri.

5.1. Eragina kazetaritzan

'Omen' zalantzarekin lotzeak eragina izan du eta du euskal hiztunen komunitatean; eta ez nolanahikoa, gure iritzian. Kazetaritzan sumatu dugu horren eragina, esaterako; eta baita euskal hiztunen ohar eta esanetan ere.

Kazetaritzan, ahalik eta informaziorik zehatzena eta zuzenena ematen aha-

---

[23] *It does not encode whether or not the speaker believes the embedded proposition to be true or a possibility. A degree of certainty can be expressed by using additional markers, or be implied by the context, but it is not encoded by* –si. (Faller, 2002, 23)

[24] Nolanahi ere, beste hizkuntza batzuetan, hiztunaren ziurtasunarekin lotzen dira, itxura denez, 'omen'en tankerako esanahia duten elementuak; hala nola turkieraz (Izvorski, 1997) eta tibeteraz (Garrett, 2001).

legintzen dira genero informatiboan, eta iturri ahalik eta zehatzenetik; hau da, nork esan duen eta zer esan duen zehaztuz. Horregatik, zuhur jokatu beharra dago, eta gauzak garbi utzi edo adierazi.

Prentsara mugatuko gara, eta *Berria* egunkarira, zehazki. Bi genero bereiziko genituzke 'omen'ek prentsan duen erabilerari dagokionez, maiztasuna kontuan hartuta: informatiboa eta iritzia ematearena. Albisteetan ez da iritzia ematean adina azaltzen partikula. Gaude balitekeela aholku bat egotea horren atzean. Izan ere, berri edo albisteetan 'omen' ez erabiltzeko aholkatzen dute, esanak nondik datozen adierazi behar dela eta. Hain zuzen, horixe izango da kazetaritzako testuen ezaugarri nagusietakoa: zehaztasuna. Hona hemen *Egunkaria*ren *Estilo Liburua*k dioena (2001, 14):[26]

> 20. Zurrumurruak ez dira albiste, eta EGUNKARIAk ez ditu albiste bihurtzen zurrumurruetan oinarritutako informazioak. Zabaltzen badira, hel diezaioke gaiari, betiere albistea zalantzazkoa edo fidagarria den esanda. Zalantza gutxitzeko, albistearen sorburura jo behar da, ahal bada egiaztatzeko edo gezurtatzeko; ezin bada, ahalegina egin dela adieraziko da. Zurrumurrua nola eta nork eraginda zabaldu den esan behar da.
>
> Ez dira albisteetarako hitzak *dirudienez*, *antza*, *nonbait*, *itxuraz*, *omen* [erabat zehazkabea denean], *bide* eta kidekoak. Esanak nondik datozen adierazi behar da beti.
>
> Baztertzekoak dira, era berean, *iturri fidagarrien arabera*, *adituek diotenez* eta antzeko formulak. Izen-abizenik ematen ez bada ere, iturria beti aipatu behar da ahalik eta zehatzen.
>
> Era berean, kazetariak onartu egiten du informazio iturri konfidentzialak babesteko eskubidea eta beharra.

---

[25] *(...) while* sollen$_{REP}$ *is compatible with speaker skepticism, this usage is in practice very rare (...). In addition, the speaker's skepticism is usually explicitly marked.*

We conclude that sollen$_{REP}$ *does not lexically encode speaker doubt. Skeptic overtones are pragmatic effects.* (Schenner, 2008, 555)

[26] Aipatzekoa da estilo liburuaren edizio berrituak (2006) ez dakarrela 'omen'.

> 21. Dudakoa kazetaritzan baliagarri ez den bezala, batzuetan erabat ziurtzat jotzen dena ere ezin da bere horretan adierazi. Salaketa, atxiloketa eta bestetan, frogatu gabekorik ezin da egiatzat eman.
>
> Halakoetan, *ustez*, *ustezko*, *omen*, *-elakoan* esapideak erabiltzen dira.

Hortaz, 'omen' ez erabiltzeko aholkatzen dute kazetaritzako estilo liburu horretan, iturriaren zehaztasunaren izenean.[27] Eta erabiltzez gero, diote frogatu gabe dagoen zerbaiten berri emateko erabiltzeko, erabat egiazkotzat jotzen ez dena ekartzeko. Genero informatiboari buruz ari dira.

Zalantzaren ideia dugu, beraz, berriro ere. Baina ikusi berri dugu, adibideen bidez, hiztunak erabil dezakeela 'omen' jatorrizko hiztunak esandakoaz erabat ziur dagoenean nahiz erabateko desadostasuna duenean ere, eta ez frogatu gabekoen berri ematean bakarrik. Esan dugu, gainera, iruditzen zaigula gutxiengoa direla halako adibideak. Eta ikusi dugu, baita ere, anbiguotasunaz aritu garenean (4. atala), ez dela bateraezina 'omen' erabiltzea eta iturria zein den zehaztea; askotan, testuinguruaren bidez zehaztuta ageri baitzaigu edo testuinguruaren laguntzaz inferi baitezakegu nor den jatorrizko hiztuna.[28]

Aholkuak aholku, esango genuke, euskal prentsa idatzian, bederen, maiz erabiltzen dela 'omen'. Hori bai, iritzi artikuluetan, batik bat, eta besteak esandakoa ukatzeko, gehienetan; ekarritako horren aurrean desadostasuna adierazteko, alegia. 2006ko urtarrilaren 22tik otsailaren 28ra bitarteko *Berria* egunkariak begiratu, hustuketa egin, eta han kausitutako 'omen' duten adibideak jaso ditugu, zer gertatzen den ikusteko; hilabete pasatxokoak, beraz. Eta badirudi bat egiten duela gaika duen banaketak ematen duten aholku

---

[27] Badirudi gauza bera gertatzen dela hizkuntza zientifikoan ere. Zabalaren (2005, 494) iritziz, "*Omen* partikula modala nekez erabiliko dugu euskara tekniko-zientifikoan ematen dugun informazioaren iturria eta erantzukizuna ezkutatzea, horrelako testuen betebeharren aurkakoa baita".

[28] Eurek ere zehazten dute, edonola ere, 'omen' ez erabiltzeko erabat zehaztugabea denean. Horrekin ulertzen dugu euren ustez ere zehatz daitekeela iturria batzuetan.

horrekin. Sailka[29] banatu ditugu agerpenak, eta bakoitzean 'omen' zenbat artikulutan agertzen den adierazi dugu. Agerpen kopuruaren arabera zerrendatuko ditugu:

-Iritzia → 53

-Kirola → 36 (horietatik 5 iritziak dira, eta beste 5 elkarrizketak)

-Kultura → 29 (13 iritziak, eta beste bana elkarrizketa eta literatura)

-Euskal Herria → 27 (1 iritzia, eta 3 elkarrizketak)

-Agenda → 12 (9 iritziak)

-Ekonomia → 10 (5 iritziak, eta bat elkarrizketa)

-Azkena → 8 (5 iritziak)

-Gaiak → 6 (4 iritziak)

-Harian → 6 (1 iritzia)

-Mundua → 3

Iritzi artikuluetan agertzen da gehien 'omen', eta, askotan, 'omen'en bidez ekarritako besteak esandako hori ukatzeko edo horrekiko desadostasuna adierazteko erabiltzen da. 'Gaiak' (zientziarekin lotutako albisteak), 'Harian' eta 'Mundua' sailetan agertzen da gutxien; eta agertzen denean ere, iritzietan, askotan. Berebat 'Ekonomia'n.

Beraz, iturriaren izaerarekin lotzen dute 'omen' ez erabiltzeko aholkua. Zenbat eta zehaztugabeagoa izan, orduan eta gutxiago erabiltzeko aholkatzen dute; zehazgabetasun itxura ematen baitu, euren ustez.

Haatik, ez diogu eragozpenik ikusten 'omen' erabiltzeari kazetaritzako testuetan, hala albisteetan nola iritzietan. Izan ere, zehatz daiteke iturria testuinguruan edo testuinguruaren laguntzaz, ikusi dugun bezala, eta erabil daiteke

[29] Egin kontu *Berria* berritua atera baino lehenagokoak direla. Lehengo sail banaketa ageri da, beraz.

'omen' hiztunak besteak esandakoa egiazkotzat duenean, nahiz horrekin bat egiten ez duenean. Hiztunak ez du besteak esandakoaren gaineko zalantzarik izan beharrik 'omen' erabiltzeko, nahiz eta izan dezakeen.

5.2. Eragina euskal hiztunengan

Topatu ditugu 'omen' zalantzarekin edo ziurtasunik ezarekin lotzen duten hiztunen ohar metalinguistikoak ere. Esate baterako, honela galdetu zion behin elkarrizketatuari irrati esatari batek:

(43) "'Omen' diozu zalantza duzulako?" (Etxezortu, *Euskadi Irratia*, 2006-09-26).

Hona hemen beste batzuk:

(44) "Erantzunek 'omen', 'nonbait', 'ei' eta, orokorrean, litezkeen modulatzaile guztiak eramaten zituzten, ardi-jabeak segurtasun osoz deus jakingo ez balu bezala." (Alonso, 2006, 124)

(45) "Ekainaren 10ean itzuliko omen da lehiara, Bartzelonan (Herrialde Katalanak). Omen, azken urtebetean behin baino gehiagotan egin baitio uko azken orduan lehiaketa batean aritzeari." (*Berria*, 2006-05-29, 29)

(46) "Orain bertan ere ez da aukera txarra Loiolako elkarrizketa politikoetan zertaz hitz egin zen eta nola gertatu zen euskaldunoi argi eta garbi jakinarazteko. Hau esan omen zen, bestea esan omen zen, beti omenka. Noiz jakin behar ditugu gertaera horiek argi eta garbi?" (*Berria*, 2009-01-16)

Halaber, badira 'omen'i eman diogun esanahiarekin bat datozen adibideak; alegia, 'omen' *p* proposizioa beste batek esana dela adierazteko erabiltzen delako ideia indartzen dutenak. Hala nola, Mendaur mendian behera zihoan gizon batek esana:

(47) "Ekainaren 7an, Trinitate egunean, meza izaten da ermitan. Beno, meza izaten omen da, nik ez dut-eta sekula ikusi."

Edo honako beste hauek:

(48) "Hura anabasa zen: ez omen zegoen gelarik jardunaldietako parte hartzaile guztientzat, nonbait, hainbat akreditazio falta omen zen edo oker zegoen, areto hartako aire egokituak ez zuen behar bezala funtzionatzen (omenik gabe, neu lekuko), interpretarien zerbitzuak are eta gutxiago (baina, interpretariekin, artean esan dezadan, gauza jakina da...)." (Alonso, 2001, 28)

(49) "Hanitzek kondenatzen duten holako emankizuna bainan sekulako arrakasta dauka, omen, eta diot, omen ez baitut ikusia." (J.H., *Herria*, 2001-05-10, 6)

(50) "*Omen* esaten ahaztutako pertsona da sortzailea, besteak beste. («Behin ba *omen* zen»: ez sortzailea, ez jakina, ezjakina; «behin bazen»: sortzailea, dakiena. Hala uste du munduak)." (Segurola, 2005, 15)

6. Balizko baliokideak

Esan dugu hiru gauza argudiatu nahi ditugula lan honetan. Batetik, ikusi dugu zer esanahi ematen diogun 'omen'i. Bestetik, erakutsi uste dugu 'omen'i askotan lotu zaion zalantza ez dela bere esanahiaren parte. Azkeneko puntua geratzen zaigu: erakustea 'omen'i ematen dizkioten ordain batzuk ez direla bereak.

Ez zaigu iruditzen 'omen'i ematen dizkioten erdarazko baliokide batzuk harenak direnik, ezpada beste partikula batenak; 'bide'renak, hain zuzen. Izan ere, hiztegigile eta gramatikari batzuek bi partikulei ematen diete 'dirudienez'en ('*parece (que)*', '*il paraît (que)*') gisako baliokidea (ikus Azkue, 1905-1906; Bostak Bat, 1996; Campión, 1884; Elhuyar, 2000; Mugica, 1981, besteak beste). Eta beste batzuek sinonimotzat dituzte biak (Arana, 2001;

Arejita, 2003; Arrasate, 1992; Bostak Bat, 1991; *Karmel,* 2003; Sarasola, 1996; UZEI, 1999, batzuk aipatzearren).

Gure ustez, ordea, 'omen'i eman diogun esanahia gogoan, 'omen'ek ez du 'dirudienez'en zentzurik; eta, gaude horretxek bereizten dituela, preseski, 'omen' eta 'bide' partikulak. Iruditzen zaigu ederki erakusten duela bien arteko desberdintasuna jarraian bilduko dugun adibideak:

(51) "Normaltzen ari bide gara: %25en inguruan omen dabil herri hazietako normaltasuna." (Torrealdai, 1977)

Gure ustez, 'herri hazietako normaltasuna %25en inguruan dabil' proposizioa adierazten duen esaldia entzun/irakurri egin du Torrealdaik. 'Normaltzen ari gara' ere besteren bati entzuna/irakurria izan daiteke, baina ez du zehazten hala den edo entzun/irakurri, neurtu, aztertu edo ikusitakotik berak atera duen ondorioa den.

Horrekin esan nahi dugu batek, lurra bustita ikusita, esan dezakeela (52) gisako zerbait:

(52) "Euria egin bide du."

Eta, egoera berean, horren baliokidetzat hartuko genituzke, berebat, honako beste hauek:

(53) "Euria egin du, nonbait."

(54) "Euria egin du, itxura denez."

(55) "Badirudi euria egin duela."

Baina ez 'omen'ekin emandakoa,

(56) "Euria egin omen du."

nola eta inork euriari buruzko ezer esan ez dion hiztunari. Kasu horretan bakarrik esango luke 'omen'dun esaldia; besteren batek euriari buruzko zerbait esan badio, alegia.

'Bide'ren adibideei erreparatuta, esango genuke erabil litekeela halako kasuetan:

(57) "Gauez, ostera bai, agertzen bide dira itsaspekoak azalera, Gregoryk kontatuko duen legez." (Jimenez, 2003, 187)

(58) "Egun haietantxe, hain zuzen, donostiarron festa nagusiaren ospaketa betean (urtarrilaren 20an, alegia), ni nengoen inguru hartatixe botatako granada batek zauritu bide zuen larriki (berehala gure arteraino zabaldu zenez) bere etxean bertan (...)." (Txillardegi, 1999, 278)

Baina baita norberak inferentzia bidez edo arrazoitzez ondorioztatutakoetan ere; hala zantzuren batean oinarrituta, nola bestela. Esaterako:

(59) "Hori baino izen arruntagorik zaila izanen zen asmatzen, baina agian horrexegatik jarri bide zen modan." (Iturralde, 2000, 83)

(60) "Aita ez zen inondik ageri: bere ohealdi haietako batean bide zegoen." (Zaldua, 2001, 164)

Halakoetan, inplizituki ageri ohi da, askotan, zantzua edo inferentzia egiteko arrazoia. Adibidez:

(61) "Hilketa baldintza izugarrietan burutu bide zen: hilotzari eskuin eskuko hatz nagia falta zitzaion." (Epaltza, 2000, 65)

(62) "Bai, uda bide zen, garai epelen bat behintzat, galtza haiek udakoak baitziren." (Oñederra, 1999, 128)

Beraz, izatez gero, 'esan du(te)'ren gisako edukia partekatzen dutelakoan gaude 'omen'ek eta 'bide'k; eta ez 'dirudienez'ena. Haatik, ez kasu guztietan, baizik eta arrazoitzea beste baten hitzetan oinarritua denean. Izan ere, badirudi beste batek esan izana dela 'bide' erabiltzeko arrazoia, kasu batzuetan.

Baina, 'omen'era mugatuta baikaude lan honetan, aurreragoko lanetarako utziko dugu 'bide'ren ezaugarrietan sakontzea,[30] bai baitauka zer aztertua partikula horrek ere. Orobat bien arteko bereizketan sakontzea. Nolanahi ere, ideia hori ekarri nahi izan dugu behintzat: 'omen'ek ez du 'dirudienez' esan nahi; eta, zentzu horretan bederik, ez dira sinonimo bi partikulak.

7. Ondorioa eta aurrera begirakoak

'Omen' partikularen esanahiaren eta erabileraren berri ematea izan da lan honen helburua, semantikako eta pragmatikako kontzeptuak oinarri hartuta. Bide horretan, orain arteko gramatika, hiztegi eta lanetan hari buruz esandako gauza batzuk baztertu eta beste batzuk zehaztu ditugu. Hiru gauza argudiatzea izan dugu helburu:

(I) Mitxelenaren eta Sarasolaren definizioen bidetik jotzea da egokiena 'omen'en esanahiaren definizioa emateko, baina zehaztu egin beharra daude. Egungo semantika eta pragmatikako kontzeptu nagusiak baliatu ditugu horretarako.

(II) Hiztunak ez du adierazten 'omen'en bidez dakarren proposizioaren egiaren gaineko ziurtasunik eza. Adieraz dezake zalantza 'omen'dun esaldiaren bidez; edonola ere, ez da 'omen'en esanahiaren parte, ezpada 'omen' erabiliz eragin dezakeen inplikatura. Esanahiaren parte balitz, adibide guztietan agertu beharko luke zalantzak, eta ikusi dugu ezin dela halako ondoriorik atera adibideei erreparatuta.

(III) '*Parece (que)*' eta '*il paraît (que)*' gisakoak ez dira 'omen'en baliokideak, baizik eta beste partikula batenak, 'bide'renak. Hiztegi

[30] Esan beharra daukagu 'bide'ri buruzko gure intuizioak ez direla oso sendoak. Izan ere, gure azpieuskalkian ez da erabiltzen 'bide' partikula, geroztik ikasia dugu.

eta gramatika batzuek ordain berak ezartzen dizkiete biei. Baina adibideen bidez ikusi dugu ez direla sinonimo.

Gure proposamenaren arabera, 'omen' duen esaldi baten hiztunak baiezten du proposizio bat hiztuna ez den beste batek esana dela, edo hari entzuna edo irakurria. Hala, proposizio-edukiari ekarpena egiten diola ondorioztatu dugu. Semantikako eta pragmatikako kontzeptuek lagunduta xehetu dugu 'omen'en esanahia, eta orain arte 'omen'ez esandakoa zorrozteko modua eman digute. Bi bereizketa nagusi ekarri ditugu: perpausaren esanahia *vs.* esaldiaren edukia eta esandakoa *vs.* inplikatutakoa. Horiei jarraiki bereizi ditugu 'omen'en esanahia, edukia eta inplikaturak. Eta, berebat, lagundu digute ziurtatzen ziurtasun gabezia ez dela 'omen'en esanahiaren parte, baizik hiztunak eragin dezakeen inplikatura.

Nolanahi ere, ez da hor bukatzen 'omen'en eremua. Azterkizun asko du oraindik ere, jorratu eta findu beharrekoa. Beste lan batzuetarako puntuak jarrita daude, beraz, erantzuteko zain. Horietako batzuk aipatuko ditugu bukatzeko.

Hasteko, gaude gehiago arakatu beharra dagoela 'omen'en eta 'bide'ren arteko harremana. Ikusi dugu ez direla baliokide, baina sakonago aztertu beharra dago 'bide', bakoitzaren lekua zedarritzeko. Horrez gain, eta hari horri tiraka, ikustekoa da, baita ere, zer gertatzen den aditzaren multzoan agertzen diren beste partikulekin; hala nola, 'ei', 'ote' eta 'al'ekin. Badirudi esanahi eta erabilera bera dutela 'omen' eta 'ei' partikulek, eta euskalkien araberako banaketan bereizten direla: 'ei' bizkaieraz bakarrik erabiltzen da, eta 'omen' gainerakoetan. Aztertzekoa litzateke, dena dela, 'omen'ez esandako guztiak balio ote duen 'ei'rentzat. Halaber, 'omen'en aztermodu berak balio ote duen partikula guztien berri emateko.

Bada beste puntu interesgarri bat. Entzuna/irakurria *vs.* ikusia bereizketa egin dugu. Eta ikus-entzunezko teknologia etengabe garatzen ari den honetan, azterketa polita egin liteke ikusteko nola ematen duten hiztunek hedabide bakoitzean jasotakoaren berri; esan nahi baita, zein partikularen bidez. Nola ematen dute euskaldunek irratian entzundakoaren berri? Eta nola kontatzen

dute egunkarian irakurritakoa? Nola ematen dute telebistan ikusitakoa/entzundakoa? Eta internetez jasotakoa? (Aikhenvald, 2004).

Teoria orokorrari helduta, beste azterkizun bat genuke ikustea non sartzen den euskara, besteak beste, partikulak aztertzeak argitara dakarren ebidentzialitatearen eta modalitate (epistemiko)aren arteko harremanaren eztabaidan; esana, ikusia, inferentzia, zalantza.... hizpide hartu ditugunez gero. Pil-pilean dago bien arteko harremanari buruzko eztabaida, eta lan asko dago horren gainean (ikus, besteak beste, Cornillie, 2009; de Haan, 1999; Dendale & Tasmowski, 2001; Faller, 2002; Matthewson eta beste, 2007).

Edozein moduz ere, beste lan batzuetarako utzi beharko ditugu egiteko horiek.

Bibliografia erreferentziak

AGIRRE, Jesus Maria 1991, *Euskal gramatika deskriptiboa*, Bizkaiko Foru Aldundia, Labayru ikastegia, Bilbo.

AIKHENVALD, Alexandra Y. 2004, *Evidentiality*, Oxford, Oxford University Press.

AREJITA, Adolfo 2003, *Labayru hiztegia. Bizkaiera eta batua (b)uztarturik. Euskera-gaztelania*, Labayru Ikastegia, Bilbao Bizkaia Kutxa, Ibaizabal, Bilbo.

AROTÇARENA, Abbé 1951, *Grammaire basque (dialectes Navarro-Labourdins)*, Maison Mame, Tours (1976ko edizioa, *Grammaire basque (dialectes Navarro-Labourdins)*, Jakin, Baiona).

ARRASATE, Manu 1992, *Euskarazko albistegietarako esku-liburua*, EITB, Bilbo.

AZKUE, Resurreccion Maria 1905-1906, *Diccionario vasco-español-francés*, dirección del autor, Bilbao; Paul Geuthner, Paris (1984ko edizioa, *Diccionario vasco-español-francés*, Euskaltzaindia, Bilbo).

BACH, Kent 1999, «The myth of conventional implicature», *Linguistics and Philosophy*, 22 (1999) 327-366.

BERRIA 2006, *Berria: Estilo liburua*, Andoain.

BLASS, Regina 1989, «Grammaticalization of interpretive use: the case of rɛ in Sissala», *Lingua*, 79 (1989) 299-326.

BOSTAK BAT 1991, *Eskola-hiztegia*, Elkar, Bilbo.

BOSTAK BAT 1996, *3000 hiztegia*, Karmel, Bilbo.

CAMPIÓN, Arturo 1884, *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*, Establecimiento Tipográfico de Eusebio López, Tolosa (1997ko edizioa, *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*. Vol. I, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao).

CARSTON, Robyn 2002, *Thoughts and utterances: the pragmatics of explicit communication*, Blackwell, Oxford.

CORNILLIE, Bert 2009, «Evidentiality and epistemic modality. On the close relationship between two different categories», *Functions of Language*, 16-1 (2009) 44-62.

DE HAAN, Ferdinand 1999, «Evidentiality and epistemic modality: Setting boundaries», *Southwest Journal of Linguistics*, 18 (1999) 83-101.

DENDALE, Patrick & Liliane TASMOWSKI 2001, «Introduction: Evidentiality and related notions», in P. DENDALE & L. TASMOWSKI, arg., *Journal of Pragmatics*, 33 (3) (2001) 339-348.

EGUNKARIA 2001, *Estilo Liburua*, Andoain.

ELHUYAR 2000, *Elhuyar hiztegia: euskara-gaztelania, castellano-vasco*, Usurbil.

ELHUYAR & ELKARLANEAN 1994, *Euskal hiztegi modernoa*, Usurbil/Donostia.

EUSKALTZAINDIA 1987, *Euskal gramatika. Lehen urratsak II*, Bilbo.

EUSKALTZAINDIA 1993, *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna*, Bilbo.

FALLER, Martina T. 2002, *Semantics and pragmatics of evidentials in Cuzco Quechua*. PhD thesis, Stanford University.

GARRETT, Edward John 2001, *Evidentiality and assertion in Tibetan*. PhD dissertation.

GINZBURG, Jonathan & IVAN, A. SAG 2000, *Interrogative investigations. The form, meaning, and use of English interrogatives*, CSLI Publications, Stanford.

GRICE, Paul 1967, «Logic and conversation», in D. Davidson & G. Harman, arg., (1975), *The logic of grammar*, Encino: Dickenson, pp. 64-75. Also published in P. Cole

& J.L. Morgan (arg.) (1975), *Syntax and semantics 3: Speech Acts*, New York: Academic Press, pp. 41-58. Reprinted in P. Grice (1989), *Studies in the way of words*. Cambridge (MA): Harvard University Press, pp. 22-40.

HADDICAN, Bill 2007, «Euskal perpausaren oinarrizko *espez-buru-osagarri* hurrenkeraren aldeko argudio batzuk», in I. Arteatx, X. Artiagoitia & A. Elordieta (arg.), *Antisimetriaren hipotesia vs. buru parametroa: euskararen oinarrizko hitz hurrenkera ezbaian*, EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 69-96.

IFANTIDOU, Elly 2001, *Evidentials and relevance*, John Benjamins Publishing Company, Amsterdam/Philadelphia.

IZVORSKI, Roumyana 1997, «The present perfect as an epistemic modal», in A. Lawson (arg.), *SALT VII*, Cornell University, Ithaca, NY, 222-239.

JENDRASCHEK, Gerd 2003, *La modalité épistémique en basque*, Lincom Europa, Muenchen.

KAPLAN, David 1989, «Demonstratives», in J. Almog, J. Perry & H. Wettstein, arg., *Themes from Kaplan*, Oxford University Press, Oxford, 481-563.

KARMEL 2005, *Eskola hiztegia. Oinarrizko hiztegia*, Bilbo.

KING, Alan R. 1994, *The Basque language. A practical introduction*, University of Nevada Press, Reno, Nevada.

KORTA, Kepa & John PERRY 2007, «How to say things with words», in Savas L. Tsohatzidis (arg.), *John Searle's philosophy of language: force, meaning, and thought*, Cambridge University Press, Cambridge, 169-189.

LAFITTE, Pierre 1962, *Grammaire basque (Navarro-Labourdin littéraire). Édition revue et corrigée*, Delmas, Bordeaux (1979ko edizioa, *Grammaire basque (Navarro-Labourdin littéraire). Édition revue et corrigée*, Elkar, Donostia).

LARRAMENDI, Manuel de 1729, *El impossible vencido. Arte de la lengua bascongada*, Antonio Joseph Villagordo Alcaráz, Salamanca (1979ko edizioa, *El impossible vencido. Arte de la lengua bascongada*, Hordago, Donostia).

LARRAMENDI, Manuel de 1854, *Grammaire de la langue basque : d'après celle du P. Manuel de Larramendi intitulée El impossible vencido / par S.G. Blanc*, S.H. Blanc et Cie, Lyon & Paris.

LÓPEZ MENDIZABAL, Isaac 1943, *La lengua vasca: gramática, conversación, diccionario: vasco-castellano, castellano-vasco*, Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires, (1977ko edizioa: *La lengua vasca: gramática, conversación, diccionario: vasco-castellano, castellano-vasco*. Auñamendi, Donostia/San Sebastián).

MATTHEWSON, Lisa; Henry DAVIS & Hotze RULLMANN 2007, «Evidentials as epistemic modals: Evidence from St'át'imcets», in J. Van Craenenbroeck, arg., *Linguistics Variation Yearbook 2007*, John Benjamins Publishing Company, Amsterdam, 201-254.

MCCREADY, Eric & Norry OGATA 2007, «Evidentiality, modality and probability», *Linguistics and Philosophy*, 30 (2007) 147-206.

MITXELENA, Luis 1987, *Orotariko euskal hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbo.

MUGICA, Placido 1981, *Diccionario vasco-castellano*, Mensajero, Bilbo.

POTTS, Christopher 2005, *The logic of conventional implicatures*, Oxford University Press, Oxford.

SARASOLA, Ibon 1996, *Euskal hiztegia*, Kutxa Gizarte- eta Kultur Fundazioa, Donostia. (2. edizioa 2007an, Elkar, Donostia).

SCHENNER, Mathias 2008, «Double face evidentials in German: Reportative 'sollen' and 'wollen' in embedded contexts», in A. Grønn, arg., *Proceedings of SuB12*, University of Oslo, Oslo, 552-566.

SEARLE, John R. 1969, *Speech acts. An essay in the philosophy of language*, Cambridge University Press, Cambridge.

SPERBER, Dan & Deirdre WILSON 1986/95, *Relevance. Communication & Cognition*, Blackwell, Oxford.

TRASK, Robert L. 1981, «Basque verbal morphology», in Euskaltzaindia, *Euskalarien nazioarteko jardunaldiak (Iker-1)*, Bilbo, 285-304.

VANDERVEKEN, Daniel 1990, *Meaning and speech acts, Vol. 1. Principles of language use*, Cambridge University Press, Cambridge.

VANDERVEKEN, Daniel 1991, *Meaning and speech acts, Vol. 2. Principles of language use*, Cambridge University Press, Cambridge.

VAN EYS, Willem J. 1873, *Dictionnaire Basque-Français*, Maisonneuve, Paris; Williams and Norgate, London.

UZEI 1999, *Sinonimoen hiztegia*. Donostia.

WILBUR, Terence H. 1981, «Basque syntax», in Euskaltzaindia, *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak* (Iker 1), Bilbao, 169-186.

ZABALA, Igone 2005, «Euskara batua eta euskara tekniko-zientifikoa», *Iker* 17, 485-511. Euskaltzaindia.

ZUBELDIA, Larraitz & Kepa KORTA 2007, «'Omen'ek esan nahi omen duenaz», *Gogoa*, VII-2 (2007) 237-269.

ZUBIRI, Ilari & Entzi ZUBIRI 1995, *Euskal gramatika osoa*, Didaktiker, Bilbo.

Corpusa[31]

ALONSO, Jon 2001, *Euskal karma*, Susa, Zarautz.

ALONSO, Jon 2006, *Erretzaileen eremua*, Susa, Zarautz.

EPALTZA, Aingeru 2000, *Rock'n'roll*, Elkar, Donostia.

IÑURRIETA, Iñaki 2004, *Kuskue tanden*, Alberdania, Irun.

ITURRALDE, Joxemari 2000, *Euliak ez dira argazkietan azaltzen*, Erein, Donostia.

JIMENEZ, Edorta 2003, *Hemingway eta euskaldunak zerbitzu sekretuetan*, Susa, Zarautz.

MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier 2006, *Arima enkoniatuak*, Elkar, Donostia.

OÑEDERRA, Lourdes 1999, *Eta emakumeak sugeari esan zion*, Erein, Donostia.

SALABURU, Pello 2002, *Euskararen etxea*, Alberdania, Irun.

SEGUROLA, Iñaki 2005, *Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo*, Alberdania, Irun.


TORREALDAI, Joan Mari 1977, "Euskal liburugintza 1976an", *Jakin*, 1 (1977) 124-129.

TXILLARDEGI 1999, *Putzu*, Elkar, Donostia.

ZALDUA, Iban 2001, *Gezurrak, gezurrak, gezurrak*, Erein, Donostia.

[31] EHUren Euskara Zerbitzuaren *Ereduzko prosa gaur* ataritik atera ditugu liburuetako adibideak.

C.C. Uhlenbeck (1866-1951): a linguist revisited



GENEE, I. and HINRICHS, Jan Paul (ed.)
Windsor, Ontario : Basil D. Kingstone. 2008
214 orr. : il. ; 23 cm. — (Canadan Journal of Netherlandic studies,
ISSN 0225-0500 ; 29, 2 (fall 2008)

GARTZIA ISASTI, Pruden
Euskaltzaindia

Euskera. 2009, 54, 2-1. zatia, 885-888. Bilbo
ISSN 0210-1564

Christian Cornelius Uhlenbeck (1866-1951) merezi duena baino gutxiago ezagutzen dugun hizkuntzalari holandarra da. Google orojakileari galdetuta, nederlanderazko Wikipediaraino joan behar duzu ganorazko sarrera baten bila (ez euskarazko, ez gaztelaniazko, ez frantsesezko eta ezta ere ingelesezko wikirik aurkituko duzu) ; hortaz gain, eta euskaratik abiatzen bazara bederen, Georges Lacombek 1922an RIEVen dedikatu zion artikulu labur baina laudoriotsua (http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/13445447.pdf) zerrendaren zazpigarren lekuan, hemeretzigarrenean Harluxet entziklopediako sarrera laburra, eta kitto (izango da besterik, baina nekez segitzen dugu bigarren orrialdetik aurrera, ezta?).

Eta pena da, benetan, euskararen ikerketaren alde hainbat lan egindakoa izanik, hain oharkabean pasatzea. Zeren nahikoa da aipagai dugun liburuari begiratu azkar bat ematea munta eta maila handiko ikerle baten aurrean gaudela ikusteko, haren mundu intelektuala gurea den mundutxo ia-ia beti halabeharrez txiki honetatik aski arrotz eta aski desgaraiko sentitzen badugu ere, Uhlenbecken munduak benetan mundu osoa hartzen zuelako, eta gureak, aldiz, gure etxeko txokoa eta beste lau gauzatxo, eta hortik aurrera ezer gutxi. Baina ekin diezaiogun albiste emate ordenatuago bati.

Aipagai dugun liburua *Canadian Journal of Netherlandic Studies* aldizkariko zenbaki bat da, monografikoki C.C. Uhlenbeck hizkuntzalariaren bizitza eta lanak aztertzeari dedikatua. Inge Geene eta Jan Paul Hinrichs dira edizioaz eta hitzaurreaz arduratu direnak, baina orotara hamar artikulu eta bi aurkibide (pertsonak eta hizkuntzak) ditu, zazpi ikerleren eskutik. Artikulu guztiak ingelesez daude, lehena salbu, nederlanderaz, zeinetan Jan Paul Hinrich-ek Uhlenbeck-en gaztaroaz diharduen. Egia esan, aldizkariaren izenburuari erreparatuta (*Netherlandic Studies*) inpresioa hartzen da derrigorrezko kuota bat betetzen ari dela, hala nola egiten duten euskararekin gure inguruko beste aldizkari askok.

Uhlenbeck-en bizitza biziki interesgarria begitandu zait niri. Holandan jaioa, gaztetatik agertu zuen letretarako aiherra eta, honela, hemezortzi urte

besterik ez zuela poema liburu bat argitaratu zuen, nederlanderaz ; pena da, zinez, gai hori tratatzen duen artikulua nederlanderaz idatzita egotea, jakingarria bailitzateke Cornelius gaztea bere jatorrizko giroan kokatzeko. Giro horretan, hain juxtu ere, eta gazte-gazterik, izan zuen euskararen berri eta maitemindu zen osotoro gure hizkuntzaz, bizi osoa iraun zion pasioa. Hari dedikatu nahi izan zion bere doktorego tesia, unibertsitatearen debekuaren ondoren (ez zegoen inor Leiden-en mota horretako lan bat epaitzeko) sanskritoaren azterketara zuzendu zuelarik. Eta jada baditugu mahaigainean hiru elementu aipagarri : poesia, euskara, sanskritoa. Ondorioa ezin ageriagoa da 1866an jaio zen gazte batentzat : erromantizismoaren oldarra positibismoaren metodoarekin ezkondu nahi izango duen hizkuntzalari baten aurrean gaude, hala nola, gure inguruan, estriktoki haren garaikideak diren Azkue, Unamuno, Sabino Arana edo, apur bat urruntxoago, baina oso antzera, Menéndez Pidal. Jatorrizko elementu horien konbinazioak, noski, emaitza desberdinak eman ohi ditu, kasuan kasu. Uhlenbecken emaitza dezente aldenduko da aipatu ditugun beste guztietatik : politikak ez dirudi erakarpenik izan zuenik berarentzat ; nederlandera bera ez zuen inoiz ikergaitzat hartu eta gaztetako poema horiek gaztetako pekatu gisa pasatu ziren (Pidalen kasuan bezala, adibidez). Euskararenganako grinak betirako iraun zion, baina hizkuntzalari profesional gisa unibertsitatean karrera bat egitera beharturik, beste hizkuntza batzuen ikerketarekin partekatu behar izan zuen. Lehenengo eta behin, sanskritoa, baina berehala agertu zuen hizkuntza *exotikoak* ikasteko eta ikertzeko grina : bereziki Groenlandiakoa(k) eta Ipar Amerikako indioenak, eta horien artean Black Foot deitu herriarena (hots, Hollywoodeko filmetan hainbeste eta hainbestetan ikusi ditugun lautada handietako Oin Beltzak). Nago euskara, sanskritoa, groenlandiera eta *oin-beltzera*-ren artean sakoneko konexio bat dagoela, haren gaztetako poemetan bilatu beharrekoa ziur aski. Kasualitatea ote hitz horiek hain oihartzun azkarra izatea Bernardo Atxagaren edo Joseba Sarrionandiaren literaturgintza ezagutzen duen edonorentzat ?


Ezin gara luzatu hemen artikulu bakoitzaren. Teknikoki, Peter Bakker-ek Uhlenbeck eta euskara gaiari dedikatzen diona da interesgarriena euskal fi-

lologoarentzat, baina hura besterik ez irakurtzea, nire uste apalean, Uhlenbeck-en irudi lehorregi bat izatera kondenatzea da. Ona izan daiteke, gutxienez, Jan Noordegraaf-ek haren oinarri teorikoei dedikatzen dionarekin konbinatzea, zeinetan bete-betean kokatzen duen berak *Humboldtiar tradizioa* deitzen duenarekin. Humboldt, Euskal Herriari buruz serioki hitz egiten hasita etengabe agertzen zaigun erreferentzia handia eta itzalezina. Noordegraafek, bere artikuluan, bitan banatzen du Europako hizkuntzalaritzaren tradizioak XX. mende hasieran, bata, humboldtiarra, *energeia* hitzaren inguruan antolatzen dena (hots, hizkuntza *energeia* gisa) eta bestea, Saussure-ri segituz *sistema* hitzaren inguruan antolatzen dena; bigarrena argi eta garbi nagusitzeak esplikatzen du, hein baten, hizkuntzalari humboldtiarrek pairatu duten marginazioa eta ahanztura; halaber, Humboldten asmo antropologikoak (jakina denez, harentzat hizkuntzalaritza antropologiaren atal bat zen funtsean) esplikatzen du primeran Uhlenbeck bezalako ikerle batek hizkuntza baten ikerketa herri baten manifestazio kulturalen osotasun banaezinaren baitan kokatu nahi izatea : oin-beltzera, lehenengo eta behin, herri baten hizkuntza da, hots, osotasun baten zati bat. Hortik Amerikara egin zituen bi bisitetan tribu horretako kideekin izandako bizipenak eta haien kontakizuna, Mary Eggermont-Molenaarrek artikulu batean (eta orain komentatzeko astirik ez dugun liburu berezi batean, *Montana 1911, a professor and his wife among the Blackfeet*, 2005) hain ederki berpiztua. Eta abar. Baina beude honela gure komentarioak.

Ez dugu aipatu gabe utziko ikerketa hauen iturrian paper garrantzitsua jokatu dutela Azkue Bibliotekan zaintzen dugun Uhlenbeck-en gutuneriak, Lacombe Artxiboan dagoena, zeinaren jabea Olaso Dorrea Sorrerakundea den; orobat, Euskaltzaindiaren artxiboan bertan dauden beste zenbait gutunek.

Liburu eredugarri hau irakurtzean ezin burutik kendu zein ederra litzatekeen urtero horrelakoren bat ateratzea euskal hizkuntzalari edota, zentzu zabalean, intelektualei buruz argitaratu ahal izatea.

The sisters of Sinai: how two lady adventurers discovered the Lost Gospels



SOSKICE, J.
New York : Alfred A. Knopf, 2009, 314 or

GARTZIA ISASTI, Pruden
Euskaltzaindia

Euskera. 2009, 54, 2-1. zatia, 889-894. Bilbo
ISSN 0210-1564

Gau eta egun liburu artean murgilduta bizi garenontzat (eta hau literalki ulertu behar da kasu batzuetan) galdera oinarrizkoa izaten da liburu horien egileei buruz, haien bizitza eta lanei buruz, zerbait jakitea, edo ezer interesgarririk jakitera iristea, bitxia, are txundigarri edo aztoragarria bada, hobe. Kasurik gehienetan idazleak, hots, literatoak, izaten dira gure kuriositatearen biktima nagusiak, edota inoiz edo beste antzeko estatusa duten bestelako egile batzuk, alegia, saiakera egileak (pentsalariak, zientzilariak...) normalki *intelektual* gisa sailkatu ohi ditugunak. Baina nora iritsiko ginateke gure kuriositatea horietako multzo zehatz batean pausatuko balitz, adibidez, filologoen baitan?

Aipagai dugun liburuak baldintza guztiak betetzen ditu Filologiaz bestelako ikuspegi bat izan nahi dutenen arreta bereganatzeko. Lehenengo eta behin, diziplina akademiko horretaz zeharka baino ez da ari, alegia, filologiaz baino filologoez dihardu, haien egunerokotasunaz, bizitzaz eta lanez. Bigarrenik, ingurune ezinago exotiko batean kokatzen da, XIX. mende bukaerako Cambridge-ko unibertsitatea eta Egipto eta Lurralde Santuetako monasterioak, mezkitak eta sinagogak. Hirugarrenik, protagonistak emakumeak dira, baina ez ohiko rol pasibo-atraktiboan, aitzitik, guztiz modu aktibo eta adoretsuan. Laugarrenik, gaiak ondokoak dira: espedizio arkeologikoak, eskuizkribu galduak, konspirazio akademikoak... aurkikundeak eta traizioak, denak filologikoak.

Zeren irakurle ausartari filologiarekiko zaletasuna aurresuposatu behar zaio liburu honi ekin baino lehen, baina hortik aurrera *Larrosaren izena*-ren eta *Indiana Jones*-en topiko eta ebokazioen artean etengabe kordokatzen den ekintza sorta jarraitu baten narrazioan murgilduko da. Sorpresaz sorpresa. Filologoen artean ere bai baitira lehiak, mahai gainekoak eta mahai azpikoak, ekitaldi akademiko arranditsuak eta teloiaren atzealdeko bitxikeriak, karrera akademiko distiratsuak eta horren oinarrian dauden konta ezinezko lanak, distira gutxikoak sarri eta ez oso eredugarriak batzuetan.

Protagonistak bi emakumezko eskoziar dira, Mrs. Lewis eta Mrs. Gibson, zentzu askotan Ingalaterra viktoriarra deskribatzen duten nobeletan aurki dezakegun pertsonaien zantzu guztiak dituztenak, besteak beste fede protestante

irmo eta militantea eta gizonezkoen munduan adore handiz murgiltzeko erabakimena, haatik bere nortasun oinarri-oinarrian kontserbadore (are, puritano) hori lotsarik gabe gordez ezezik, aldarrikatuz. Zehaztasun garrantzitsu bat, hala ere: guri Ingalaterraren ispilu ezinago topikoa iruditzen zaizkigun dama bi horiek ez dira ingelesak, ez herritartasunez, ez hizkeraz, ez ohituraz, ezta erlijioz ere, eskoziarrak baitira, eta presbiterianoak, hots, Ingalaterrako elizaz landakoak izateaz gain, harekiko mesfidantza eta, esango nuke neuk, are mespretxuan ere hazitakoak. Emakumeak, eskoziarrak eta presbiterianoak. Ez dira debaldeko adjetiboak, guri ñabardura horiek urrunak eta axolagabeak iruditzen bazaizkigu ere.

Ez naiz beren bizitza zinez txundigarriaren detailetan hemen arituko. Pintzelada batzuk soilik. Izenek iradoki dezaketenaren kontra Agnes eta Margaret ahizpak dira, bikiak gainera, gero bakoitza bere senarraren deituraren bidez ezagutuko baditugu ere, lurralde anglofonoetan arrunta den bezala. Eskoziako klase ertaineko familia batean jaioak eta heziak, ama gabe hazi ziren, eurak jaiotzean hil baitzen; zirkunstantzia horrek eta beren aitaren presbiterianotasun irmoak eragin erabakigarria izan zuen beren heziketan, txiki-txikitatik oso bizimodu independientea eraman baitzuten eta, hortaz gain, aitak, bere elizaren tradizioan, ardura berezia erakutsi baitzuen alabei ikasketak emateko, indar berezia eginez hizkuntza ikasketan; badirudi gazte-gaztetatik ikasi zituztela frantsesa, alemana, gaztelania eta italiera. Hizkuntza biziak eta hilak ikasteko erraztasuna eta norbere buruaren ardura osoa izatearena izango dira beren geroko arrakastaren giltza nagusia. Bada, hortaz gain, beste gertakari bat guztiz garrantzitsua beren gaztaroan jazoa, haren aitak ustekabeko diru kopuru handihandi bat jarauntsi baitzuen, gerora urte gutxian handiagotu zuena. Hil zen aita, ahizpa bikiek artean hogeita hiru urte zituztela, guztiz bakarrik utzirik baina, hori bai, guztiz aberats eta heziketa humanistiko eder baten jabe. Ordurako bere baitan hartzen zituen goi klase ingelesak, dudarik gabe, lord edo antzeko baten seme banarekin ezkontzeko presionatuko zien, abilki, baina bestelakoa zen gure bikien asturua: horren ordez Egiptora abiatu ziren, Nilo ibarreko monumentuak ezagutzera. Eta bakarrik, gizonik gabe, soilik beste emakumezko baten laguntzaz. Horra bere abentura intelektualen abiapuntua.

Garai hartako Egipto, artean independentea, europar aberatsen exotismo egarriaren helmuga naturalenetako bat zen. Liburuaren dohain handienetako bat da orduko turista urrien ibilien deskribapen zehatza ematea, zehatza eta, horregatik hain zuzen ere, beldurgarria sarri: kolonialismoaren urrezko aroaren erdi-erdian gaude, hots, europarrek Orienteko altxor artistiko eta kulturalak sistematikoki eta lotsarik gabe lapurtu edo, bi txakur txikitan erosi ondoren, erbesteratzen zuten sasoia. Ez da dudarik *Indiana Jones*-en pelikuletan deskribatzen den giroak oinarri guztiz erreala izan zuela, Hollywoodek gero nahierara moldatu bazuen ere; zine-pantaila batean ikusteak bere grazia izan badezake ere, liburu honetan zehaztasun osoz deskribatzen den giroa eta kasuak ezagutzeak ileak laztu eta gogoa zurtu besterik ez du egiten, adibidez, *Codex Sinaiticus* zorigaiztokoaren zoritxarra detaile osoz deskribatzen denean.

Zeren gure bikiek berehala erakutsi zuten eskuizkribu zaharrak bilatzeko jaiera, bereziki Bibliaren bertsio zaharrekin lotua. Horra gure ahizpak beren bizitzan zehar behin eta berriro Egiptora, Lurralde Santuetara eta Greziara itzuli izanaren arrazoi nagusia, zeina bilatu behar den Jaungoikoarenganako fede oso eta gartsu batek zientzia filologiko ez gutxiago oso eta ez gutxiago gartsu batek bat egiten duten puntu horretan. Izan ere, gure bi emakume hizkuntza zaleek beti sostengatuko dute Bibliaren eskuizkribu zaharren aurkikundeak lagundu besterik ez duela egiten fedearen argipena eta propagazioa, baldin eta errigore filologiko osoz ikertzen bada; egia bat eta bakarra izanik, antzinako testuen kritikak inoiz ez du Bibliaren egia zalantzan jarriko, aitzitik, hura argiztatu eta hobeto ulertzeko bidea baino ezin du eskaini, mendetan zehar ezjakintasunaren ondorioz pilatu zaizkion zikinkerietatik garbituz. Programa zientifiko erraz eta ederra, fedearekin guztiz bat datorrena.

Eskuizkribu zaharren bila egindako espedizioetan gure ahaizpek arrakasta nabarmena izan zuten. Lehena Sinaiko Santa Katalina monasterioan aurkitutako palimpsesto bat da, zeinean baitago Ebangelioez ezagutzen den bertsio zaharrenetako bat, siriakoz idatzia (hots, Siriako hizkuntza zaharrean), osoa eta VII. mendean datatua. Haren lehen edizioa Cambridgeko unibertsitateak argitaratua Agnesen eskutik (*The Four Gospels in the Old Syriac Version transcribed*

from the Palimpsest on Mount Sinai, 1894) zientzia bibliko eta filologikoen mugarri bat omen da. Ez zen izan bakarra. Izan ere, Agnesek eta Margaretek poliki-poliki ospea ezezik errekonozimendu akademiko zabala bildu zuten Europan, hainbat unibertsitatetako *doctor honoris causa* izendetuak izatera iritsi zena. Baina ez beren jatorrizko unibertsitatean, hots, Cambridgen, non bi oztopo handi izan zuten bidean: emakumeak izatea eta presbiterianoak izatea.

Eta puntu honetan iristen gara liburu honen bigarren *exotismo*aren narraziora: Ingalaterrako filologoen arteko giro akademikoa eta Cambridgeko unibertsitatea. Kurioski, ziur aski psikologikoki prest gaude ikusteko XIX. mende bukaerako Egipton turista aberats eta diletanteak eta merkatari lotsagabe eta gorazaleak elkarrekin bilduta antzinako monumentuen inguruetan, txarlatan eta tratulari indigenekin mota guztietako tratu ez-gardenak egiten, eskuizkribu hau edo artelan hura eskualdatzeko. Baina ziur aski ez gaude berdin prest ikusteko Cambridgeko *gentlemen*ak eta *lady*ak elkarri sastagaikatzen (metaforikoki), alegia, mota guztietako iruzurrak, itzulinguruak eta maniobrak prestatzen nork bere karrera akademikoa gizentzeko eta loria zientifikoa bereganatzeko, lagun hurkoa zapuztuz. Hemen ere Umberto Ecoren lehen nobelaren erreferentzia oso egokia izan daiteke, nire ustez, Ingalaterrako unibertsitateen giroa deskribatzeko (garai horretan, jakina).


Ildo horretan nabarmendu behar da gure bikiek Egipton izandako arrakastaren giltza, ziur aski, haien jarrera berezian eta ohiz kanpokoan aurkitu behar dela. Hasiera-hasieratik saiatu ziren ikasten ez soilik grekera klasikoa (orduko ingeles ikasi guztiak bezala) baizik eta baita ere grekera garaikidea (intelektual ingeles gutxik egiten omen zuena); horrek ahalbidetu zien Egiptoko autoritate eklesiastikoekin eta monasteriotako monjeekin (grekoak gehien bat) adiskidantza harremanak egitea eta haien uste ona irabaztea. Hortaz gain, argi eta garbi erakutsi zuten monasteriotako ondarea zaintzeko eta errespetatzeko borondatea, adibidez, beren burua eskainiz Santa Katalinako bibliotekako katalogo zehatz bat egiteko eta diru funtsak biltzeko ondare bibliografiko hori zaintzeko. Egia da, dirudienez, zenbait kasutan amore eman ziotela *irregularki* eskaintzen zizkieten eskuizkribuak erosteko nahiari, baina beste kasu

batzuetan beraiek izan ziren lapurrak salatu zituztenak, eskuizkribu baliosak beren jabe legitimoei itzuli araziz.

Tamalez, Egipton erabiltzen zuten jendetasuna eta ezkerreko eskua eskas izan zuten Cambridgen, non, harrigarriro guretzat, emakumezkoen estatusa oso zalantzagarria izan zen XX. mendea ondo sartu arte; liburuan detaile txundigarriak ematen zaizkigu, adibidez, 1896an komunitate akademikoan egin zen *erreferendum* moduko batez, emakumeek azterketa ofizialetara aurkezteko eskubidea izan zezaten (!); ekimena porrot itzela izan zen, gizonezko gehienek, ikasleek zein irakasleek, ez baitzeuden prest emakumeen lehia pairatzeko; erabili omen ziren *argudioen* artean honek merezi du berariaz aipatzea: neska gazteak mutilak baino finagoak eta langileagoak izanik, eta etxe oneko unibertsitarien artean hain ohikoak eta maitatuak ziren ikasle-parrandak egiteko jaidurarik, ohiturarik edo modurik ez izanik, mutil gazteak beldur ziren lotsagarri geratuko ote ziren horrelako batzuekin batera azterketa bera egiteko kinka larrian suertatuz gero; erremedioa, emakumeei azterketak egiteko eskubidea ukatzea (hots, titulu ofiziala izateko eskubidea ukatzea), nahiz eta libre izan eskolak jasotzera joateko. Horrelakoa zen giroa (234-237. or.).

Baina ezin gara hemen galdu liburu honetan kontatzen zaizkigun mila eta bat ñabardura eta anekdotetan. Gorde dezadan neuretzat harrigarrienetako batzuk, Cambridgeko bibliotekari jaunarekin lotutakoak, zeina baitzen, bide batez esanda, bikietako baten (Agnes) senarra. Izan ere, filologoak hezur eta haragizkoak badira ere (liburu honetan ederki frogatzen den bezala) bibliotekariak ez zaizkio atzean geratzen, eta batzuetan ederki aurreratuko zaizkie.

Do not Leave Your Language Alone



The Hidden Status Agendas Within Corpus Planning in Language Policy
Joshua A. FISHMAN
Lawrence Erlbaum Associates, Publishers
Mahwah, New Jersey, London, 2006, 158 or.

URRUTIA BADIOLA, Andres
Notarioa. Euskaltzainburua
Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakaslea

Euskera. 2009, 54, 2-1. zatia, 895-901. Bilbo
ISSN 0210-1564

Aspaldikoa da, soziolinguistikaren esparruan, corpus eta estatus izeneko alorren arteko sailkapena. Bi-bion arteko lotura estua ere nabaria izan da, hizkuntzaren plangintzaz jarduten denean.

Horiek berebiziko eragina izan dute, zer esanik ez, hizkuntza gutxieneko nahiz gutxituetan. Horixe da, izan ere, Joshua A. Fishman idazleak proposatzen duena liburu honetan. Haren hitzetan esateko:

> *For those who still shake their heads astoundedly at the "spectacle" of serious societal contortions on behalf of their small, weak, little known, and, seemingly, very forgettable languages, it is a prerequisite of a productive life in the modern world to set aside Olympian detachment or disdain for the unfortunate and to at least strive toward critical identification with all those who think as much (as often, as deeply, as concernedly), if not more, of their languages of minor reach as we think of our huge one. Critical identification with that huge segment of humanity with which we have no direct kinship ties is a vital part of genuine, activated, emotional, and intellectual modernization of our students and it is my sincere hope that this brief exercise will contribute to that goal both directly and indirectly via an "excursion" taking only a month or two* [XI. or.].

Hitzak hitz, titulua bera ere esanguratsua da, oraingoan Fishman maisua corpusari buruz ari delako. Sarrerako argibideak eman eta gero, bigarren kapituluan argi erakusten du hark zein den bi kontzeptu horien arteko lotura:

> *In the real world, status planning and corpus planning are more detached and isolated from each other than they should be from the point of view of optimal progress. But history is far from being directionally predictable, much less controllable, and these truisms too keep corpus planning and status planning from usually being just two sides of one and the same coin* [17. or.].

Fishmanek azalarazten du bere pentsamendua, ortogono baten bidez, lan-ardatz nagusiak zehaztuz. Lan-ardatz nagusi horiek bitarikoak dira, eta kapi-

tuluka garatzen ditu egileak. Hartara, garbitasun vs. jatortasuna (4. kapituluan); bakartasuna vs. mendebaldetasuna (5. kapituluan); klasikotasuna vs. orokortasuna (6. kapituluan); "ausbau" vs. "einbau" (7. kapituluan).

Kasu bakoitzean, azterketak adibide desberdinak eskaintzen ditu. Laugarren kapituluan, ingelesa abiapuntu hartuta eta lehen puntuaren ikuspegitik, garbitasunaren eta jatortasunaren kontua jorratzen du:

> *However, downward stylistic shifting in French can be mistaken for crudity and lack of education, whereas in English it signals comraderie, friendliness, shared* Gemeinshaft *and relaxed enjoyment of the moment [see Fig. 4.2]. Truly, vernacularity rules the English waves!* [37. or.].

Bosgarren kapituluan, aldiz, bakartasuna vs. mendebaldetasuna lantzen du, eta luze eta zabal barruratzen ditu euskara, estoniera, turkien errusiera, filipinera, txinera... horietan ikertzen direla kasuz kasu bakoitzaren egoera linguistikoa. Ondorenez, begi-bistakoak dira "corpus planning" delakoaren esparruan:

> *That is why corpus planning frequently entails oscillations and changes of direction, particularly so when (but not only when) the past is associated with a unique greatness that cannot be simply set aside to pursue the blandishments of modernity and globalization* [60. or.].

> *If one looks a little deeper, below the surface of language-related rhetoric, one usually finds other societal fissures with which the corpus planning differences co-occur. When that is the case, language, being so symbolic of culture-group membership as a whole, may be easily and falsely blamed for the contentiousness in society more generally. Language is rarely the only or chief culprit in so called "language conflict", whether or not the uniqueness foal is advanced, or the internationalization goal is pursued in corpus planning. This is also why, as much of the world moves ever further along the path of globalization, the historical and still emotional tug of uniqueness will probably never disappear entirely and, by its very presence, serve to temper and restrain globalization in various degrees* [61. or.].

Seigarren kapituluan, bestalde, klasikotasuna vs. orokortasuna ("panification") aztertzen du. Bide beretik, eta aurrekinak azalduz, honetara iristen da Fishman:

Gure hitzaldi honetan azaldu nahi genuke nola osatu den gaiari buruzko ibilbidea euskal literaturan. Kontua da oso garbi agertzen direla aro desberdinak (kronologia) eta aro bakoitzean erabili den genero literarioa.

Laburpen nagusi gisa, aro hauek aipa genitzake Gerra Zibilari buruzko narratibari dagokionez:

1) Literatura, propaganda. 1930.
2) Nobela alegorikoa. 1940-50.
3) Autobiografia fikzionatua. 1960.
4) Autobiografia. 1970.
5) Bigarren belaunaldia. Besteen memoria. 1980.
6) Bigarren belaunaldiaren bigarren aldia. 1990.
7) Nobela historiko berria. Azken garaiak.

1. Literatura, propaganda

Lehen aro batean, gerra piztua zegoelarik, literaturaren lehen helburua propaganda egitea da.

Euskal Herrian leialek mantendu zituzten botere egiturak martxan, artean kazetak eta idazteko sistema nagusi bat, propaganda barne zelarik. Alderdien egunkariek Gerra Zibila aipatu zuten bai kazetaritzan, berriak ematerakoan,

bai literatura egiteko orduan. Horrela bai *Euzkadik*, *Egunak* edo Alderdi Komunistaren *Euzkadi Rojak* eman zituzten lanak eta literatur lanak euskaraz

1937ko urtean eta *Eguna* egunkarian guda garaiko kontakizun bi argitaratu ziren. Entzutetsuena Txomin Arrutik, Mendi Lautak, argitaratu zuen *Loretxo* da. Egunkarian hamar ataletan argitaratu zen.

Maiz eleberri deitu izan bada ere, *Loretxo* kontakizun luze edo nobela laburra da, eta ziurrenik, amaigabea. Dena dela, gerraren esperientzia kontatzeko lehen ahalegina.

Lehen kapituluetan kontakizunaren gaiak zerikusia du ohitura eleberrigintzarekin. Loretxo kanpoko, Madrileko, Xabierrekin ezkontzekoa da, baina lotura horrek gora beherak izango ditu (ez du narratzaileak ongi ikusten harremana) eta azkenean, euskal abertzale den Yonekin ezkonduko da. Bigarren aldean, abian, Loretxo eta Yon ezkondurik direnean, nobelak maiteen arteko eskutitzak transkribatzen ditu, atal batean Yonenak eta bestean Loretxorenak. Yonek Elgetan eta Legution bizi izandakoa borroka kontatzen dio Lortexori, eta honek herrian bizi den egoera berri eta lazgarria du bere gutunen gai nagusi, faxisten menpean bizi duen egoera mingarria.

Ipuin luze horrek baditu bere joera bereziak, hala nola, maila narratiboen konbinaketa, eta, inoiz, Loretxo protagonistak bere buruari buruzko berriak irakurtzen ditu aldizkari baten, eta beraz, "mise en abyme" teknika erabiltzen du. Gutun teknika ere ez da nolanahikoa. Yonek bere gutunetan gudan daraman eguneroko bizitza kontatzen dio Loretxori. Dena dela, Gerra Zibilari buruzko lehen testigantza dugu euskal letretan eta egunerokotasunari oso lotua agertzen da.

Esteban Urkiaga, Lauaxetak (1905-1937) ipuin bi argitaratu zituen *Gudari* aldizkarian. "El fusil del abuelo" eta "Campa de Gustiz Ederra" ipuinen izenburuaren ondoan argitalpenak jarri zuen "(Traducido del Euzkera)" lema. Egileak hala jarri bazuen horrela izango zen, euskaraz idatziak eta gero gazteleraz emanak, nahiz eta gazteleraren zuzenak zalantza jartzen duen irakurlearen burmuinetan.

Ipuin bien gaia desertoreen inguruan da. Borrokara joan gabe ihes egiten dutenen historia. Ipuin biotan Lauaxetaren joera modernista nahastatzen da guda giro mingotsarekin, eta salaketa politikoarekin.

Beste alde batetik Alderdi Komunistak argitaratzen zuen *Erri* aldizkarian ikusten dira euskaraz idatziriko eta Gerraren gaia hurbiletik jarraitzen duten artikuluak.

1938. urtean eta Andoni Ruiz de Azua, Ogoñope, idazlearen zuzendaritzapean *Euzkadi* egunkaria Bartzelonan argitaratu zen. Bertan, noski, Gerrari buruzko zenbait ipuin eta kontakizun argitaratu ziren. Bartzelonako *Euzkadin* idazle bik hartzen dute parte berezia: Andoni Arozenak (ez dut bere izaerari buruz daturik aurkitu, soilik A-BI ezizenarekin sinatzen zuela) eta Errose Bustintzak, "Mañarikok" (1899-1953).

A-BIk erregistro bikoitza darabil. Oraindik jarraitzen du gerra aurrean nagusi zen ohitura-zaletasunarekin, baina ezin du gerraren gaia alde batera utzi eta horrela argitaratzen ditu "Yone" edo "Patxi eta Pello Bartzelonan" kontakizunak. Errose Bustintzak kontakizuna lantzen du: "Axe bai gudarija!", "Gudari errime bat" eta "Igone gexozaña" deituriko lanetan, eta gainera bere editorial gisako hausnarketetan: "Bildurra bai, baña larregirik ez", edo "Gudia, zoritxar andija da" deituriko artikuluetan.

2. Nobela alegorikoa. 1948-1957

Gerra Zibilari buruzko lehen nobela Buenos Airesen argitaratu zen 1948an, Jose Eizagirrek (1881-1949) idatzirik; egilea Zuzenbidean aditua zen, EAJko kidea eta Espainiar Gorteetako biltzarkide (1918an). Nobelari *Ekaitzpean* jarri zion izenburua.

Egilearen helburua honako hau zen:

> Aizkenengo gure gudate izugarriaren zipriztin beltzak mendimendian izkutatuta dagoen baserri bateraño nola iritxi diran, gaitzat artuta (4 or.).

Ez da nobela autobiografikoa inondik ere, eta euskal paisaia idilikoaren gainera jausten den gerra zibilaren orban beltza batik bat ideologikoa da. Baserrian bizi direnek gerraren ondorioak jasango dituzte: seme zaharrena galduko dute, reketeekin (militarrekin batera altxaturikoekin) joanik, borrokarako prestatzen ari zela; gertaera horrek ez du nobelan uste bezainbateko eraginik, ez baitu narrazio-eraginik izango. Gero, familiak gudari abertzale zauritu bat jasoko du etxean, kristau-errukiaren izenean; horrek herriko karlisten etsaigoa ekarriko die, eta ez diete bakerik emango. Bestalde, alaba zaharrena soldadu batez maiteminduko da, eta errepublikazaleen aldera igaroko berarekin. Bidaian lagun izango dute aitona zaharra, familiako burua, aspaldiko karlista; zilegitasunaren izenean, errepublikazaleen alde jarriko da.

Jose Eizagirrek nobelara ekarri nahi du abertzaleen tesi kuttun bat: berak zirela karlisten idealen oinordeko benetakoak, eta ez Francoren alde ari ziren reketeak. Gerra zibilak askoz ere pisu txikiagoa du 1950. urtean Argentinan argitaratu zen *Bizia garratza da* nobelan. Jon Andoni Irazusta (1884-1952) zen egilea, eta Eizagirre bezala, bera ere Gorteetan Diputatua izan zen 1932-1937 urteen artean.

1957. urtean eta Baionan Seber Altube euskaltzainak (1879-1963), A. Lertxundi izenburupean *Laztantxu eta Betargi* deituriko nobela argitaratu zuen. Nobelaren oinarria artifizio metanarratiboa da. Narratzaileak eskuizkribu bat aurkitu du eta zuzendu eta aukeratu egiten du. Laztantxuk Arrasturi deituriko hirian (izen horretan ahalegin handi gabe irakurri dezakegu Arrasate) bere Betargi senarraren gorpua aurkitzeko egiten dituen ahaleginetan oinarritzen da. Betargi fusilatu egin dute Donostian altxamenduaren ostean, eta faxistek ez dute gorpua itzultzen eta emazte gaixoak bide nekagarria (Kalbarioa izendatzen da nobelan bertan) egin beharko du gorpua ikusi arte.

Benetan gertaturiko ekintzetan oinarritu bada ere, idazleak molde estetiko desberdinak batu ditu testuan, nahasketa berezia sortu arte. Errealismoa bada, baina era berean, protagonisten izenek sinbolismoaren lirismoari sor diote poetikotasuna, eta errealismoaren kutsuaren aurrean, egileak nahiago izan du eskuizkribu aurkituaren teknika erabili urruntasuna lortzeko asmoz. Bikoiztasun

estetikoak badu bere paralelotasuna gai aldetiko bikoiztasunean. Bi baitira nobelaren gaiak: alde batetik, EAJ alderdiak mantentzen duen analogia adierazten du: benetako karlistak ez dira Francorekin altxatu direnak, EAJren magalean bukatu dutenak baino, eta puntu honetan Eizagirreren tesia defendatzen du nobelak; eta beste aldetik, autobiografiaren mugak ukitzen ditu *Laztantxo eta Betargik*, egoera latzaren kontakizuna abordatzen duen neurrian.

3. Autobiografia fikzionatua. 1961

Norberaren esperientzian oinarrituriko kontakizunak dira autobiografiak. Baina horretarako lehen pertsonaren kontaketa ezinbestekoa da. Autobiografia fikzionatuan oinarrizko ekintzak egileak bizi izandakoak izan daitezke baina narratzaileak hirugarren pertsonan kontatzen ditu fikziozko pertsonaien bizi-uneak balira bezala.

Arlo eta genero honetan lehenik, Martin Ugalderen (1921-2004) kontakizunak ditugu. 1961an Caracasen, non baitzegoen atzerriraturik eta kazetari lanetan aritzen baitzen, *Iltzaleak* konkakizun-liburua argitaratu zuen. Inondik ere, bildumari *Gizerailtza* izenburua eman nahi izan zion, liburuaren aurkibidean ikusten denez, baina azken unean iritzia aldatu zuen, eta azalean beste izenburu hori ageri da. Lehen kontakizunean, "nazionalak" Andoainen sartu zirenekoa kontatzen du. "Gizerailtza" ipuinean, lehen pertsonan kontatzen dira gazte baten gorabeherak; familia beldurrez dago, altxatuak badatozelako; 15 urteko mutila ihesi doa, eta bakardadea sentitzen du (egilearekin parekotasun handia du noski); etxera itzultzen da, hutsik aurkitzen du; gero, Nemesio euskal abertzaleak hartuko du etxean, eta gizon hori nola atxilotzen eta fusilatzen duten ikusiko du; lehen pertsonan adierazten du hori guztia.

Lehen ipuina, autobiografiaren ikuspegitik kontatua, hurbiletik ari da kontatzen. Gainerako kontakizunak ez dira halakoak, haiek urrundik idatziak baitaude, egoera pertsonal eta politikoari aurre egiten dion nerabe baten begiradan oinarriturik.

Dena dela, Martin Ugalde idazle berezia dugu euskal letretan, 1961. urtetik aurrera Gerra Zibilaren gaia ia bakarra da bere kontakizunean. Egileak historia ziklo osoa kontatu du bere ibilbide narratiboan: gerra nola heltzen den herrira, nola ihes egiten duten herritarrek, deserriratzea, eta exiliotik egindako itzulera. *Iltzaileak* ipuin liburua argitaratu zuenetik aurrera, baina genero ia bakarra landuko du: autobiografiaren fikzionalizazioa, garai batzuetan autobiografiak indarra hartzen duelarik, eta beste batzuetan, balantzaka, fikzioak gaina hartzen duelarik bere kontakizunean (batez ere Gerra ondorengoa kontatzen duten nobela zein ipuinetan, ihesaren historia *Erretiradako trena* (1997) lanean, eta deserritik itzulera *Itzulera baten historia* (1990) nobelan. Baina autobiografia eta fikzioa banatuta daudela ikusteko, nahikoa da ohartzea nobelen kronologiak ez duela jarraitzen historiaren denboraren jarraipena.

Gerrako gaia 1997. urtean *Erretiradako trena* argitaratzen duenean egingo ditu, nire uste apalean Martin Ugaldek bere ikuskizunaren sintesi nagusiak. *Iltzalleak* laneko estetikatik hurbil, kontakizunak han erabilitako teknikak darabiltza: lehen pertsonan kontatzen duen narratzailea, pertsonaia umiletan jarritako fokalizazioa, elipsiak moteltzen duen ohitura joera, espresionismoaren erabilera. Bildumari izenburua eman dion ipuinean, autobiografiara hurbildu da egilea. Bilbotik Santanderrera Erretiradako trenean doa protagonista. Egilea bezala, 1921. urtean jaio zen, eta 16 urte ditu, horrexegatik ezin izan du ihes egin barkuz eta trintxerak egitera behartuko dute.

4. Autobiografia. 1964. 1973-1983

Autobiografia fikzionatuarekin gertura hasten da autobiografia agertzen gure literaturan. Lehen-lehenik Sebastian Salaberriaren lana dugu, baina ondoren, eta Aita Zavalaren lanari esker, zenbait bertso zalek beren autobiografiak argitaratuko dituzte *Auspoa* sailean, jada 70. hamarkadan.

Sebastian Salaberria (1915-2003) armada frankistan ibili zen soldadu. Kontrako aldean, anaia zeukan. Borroka batean elkarren kontra aritu ziren, eta

bera zauriturik gertatu zen. Salaberriaren anaiak pentsatu zuen berak egin ziola tiro. Nobela autobiografiko bat idatzi zuen gertaera hari buruz: *Neronek tirako nizkin* (1964).

Badira beste lan autobiografiko batzuk ere, egileek gerran izandako gorabeherak kontatzen dituztenak. Hona batzuk:

- Sabin Irizar (1923-): *Txingo. Gertaldi eta ibilkeriak* (1973); euskal haurrak Frantziara eta Belgikara eraman zituztenekoa.
- Salbador Zapirain (1913-2000): *Txantxagorri kantaria* (1979).
- L. Alkain: *Gerrateko ibillerak* (1981).
- Patxi Lazkano: *Tiro tartean bertsotan* (1983).
- Zubikarai, Agustín (1914-2004): *Makillen egunak. Guda baten kerizpe eta autsetan*. (1983).

Adibide horiek guztiek ezaugarri berak dituzte. Auspoa sailerako idatzi zituzten (Zubikaraik egindakoa izan ezik). Sail hori bertsolaritzari buruzko gaietarako sortua izan zen. Testuak narrazio lineal batek ildotik idatziak dira, ahozko estiloan; oso gutxi sakontzen da sentipenetan, eta ekintzak hartzen dira oinarritzat; askotan, axaletik adierazi eta ia ez dira garatzen. Salbuespentzat jo liteke Pablo Fermin Irigarayk (1869-1949) idatzitako gerra garaiko autobiografia, *Gerla urte, gezur urte*, 1993an argitaratua, nahiz eta gertaerak jazo ziren garaian idatzia izan. Horrek garrantzitsua bihurtzen du memoria autobiografikoaren kontagintzan.

Celia Fernandez Prieto irakasleak (2000) autobiografiaz dio ezen genero horretan "la memoria no es tanto usada cuanto *representada, tematizada, figurada*". Beraz, autobiografiaren azterketa bikoitza proposatzen du: maila epistemologikoan, memoriaren fidagarritasunaren arabera, eta maila diskurtsibo eta testualean.

Lehen kontua memoriaren fidagarritasuna da, eta kontuan izan behar da:

a) memoriak asmatu egiten duela, sortzailea dela.

b) eta, halaber, memoriak ahaztu ere egiten duela; kontuan izan behar da, memorian datuak gerizatzen direla, estutu eta elkarri lekua kentzen diotela (2000, 71).

Autobiografia-generoan, egileek badakite:

> conscientes de que no pueden fiarse ingenuamente de su memoria y de que escribir su propia vida es construirla, producirla (¿invertarla?); por otra parte el contrato genérico requiere de ellos un compromiso de sinceridad y de veracidad (2000, 72).

5. Bigarren belaunaldiaren kontagintza. Besteen memoria

Bigarren aro bat ezartzerakoan, kontuan hartu beharko genuke ezaugarri hau: egileek ez zuten pairatu gerra; gerra ondoren jaiorik, ez dute berek bizitako historia kontatzen, gurasoek bizitakoa baizik. Besteren memoriaren kontagintza dugu, memoriari, batik bat gurasoenari, eusteko ahalegina.

Euskal Herrian, besteen memorian oinarrituriko literatura Trantsizioaren garaikoa da. Gerra Zibilari eta beste memoria horri buruzko lehen lana Jose Austin Arrietaren (Donostia, 1949) *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* (1979) da; lan horretan, Donostiako jai nagusiaren bazkaria familia giroan ospatu ondoren, aitak semeari gerrako gorabeherak kontatzen dizkio, fikziozko autobiografia bat onduz. Hala ere, nobela ez da aitaren memorian soilik oinarritzen; gerra ondorera ere kontatzen du, eta frankistak Donostian uda igarotzen zutenekoa, eta seminarioa uztea erabakitzen duen apaizgai baten narrazio autobiografikoa.

Nobelak garrantzi handia du, memoria kolektibo baten oinarriak eraikitzen hasten delako; gero, euskal kontagintzan erabiliko den mekanismo bat sartzen du: aitaren monologoa transkribatu eta arbuioaren mitoa eraikitzea.

Denboraldi luzea kontatzen zuten nobelak dira Joan Mari Irigoienen lanak(1948), batik bat beraren lan nagusia: *Poliedroaren hostoak* (1983). Egileak egitura konplexuko familia-sagak osatzen ditu, eta lehen karlistadaraino joten

du atzera, karlisten eta liberalen arteko gorabeherak aztertuz denboran zehar, harik eta egitura poliedriko konplexu bat osatzen duen arte.

Amalio Blanco-ren azterketetan, giza memorian historia zenbateraino agertzen den ikus daiteke, eta Pennebaker-en (1993, 49) ondorioak laburbiltzen ditu:

> a) Lo más probable es que las memorias colectivas se formen y se mantengan en torno a acontecimientos que representen cambios significativos a lo largo de la vida de la gente. Ocurre, sin embargo que este tipo de sucesos afecta de manera distinta en función de la edad;
>
> b) cuando la gente piensa y habla abiertamente de los sucesos se están poniendo las bases de la memoria colectiva;
>
> c) aunque la gente evite hablar de manera abierta sobre determinados sucesos ello no impedirá que sigan afectando a los individuos, sobre todo si éstos piensan de manera permanente sobre ellos;
>
> d) cuando un suceso ejerce un impacto colectivo suele tener una concreción en conductas individuales compartidas;
>
> e) con el transcurrir del tiempo, la gente tiende a mirar hacia atrás y a conmemorar el pasado en ciclos de 20 ó 30 años (Blanco, 1997, 95).

Arrietak eta Irigoienek idatzitako nobelek osatzen duten memoria besteri hartutakoa da, eta abertzaletasunaren ikuspegitik kontatua.

Eta horiei Koldo Izagirreren (1953) kontagintza gehitu beharko genieke: *Euzkadi merezi zuten* (1984). Gerra zibilari buruzko aurrenekoetako nobela korala da. Izagirrek, hizkuntzaren tenka baten bidez, 30eko hamarkada erabiltzen zen prosa gogorarazten du; denbora bat baino areago ahots bat eraikitzeko sortutako prosa barrokoa.

1987an, lan bitxi bat argitaratu zen; Gerra Zibila atzean zegoen, eta hondo historiko horretan mugitzen ziren pertsonaiak. Inazio Mujika Iraolaren (1963)

Azukrea belazeetan liburuaz ari naiz. Juan Rulforen eragina nabaria da liburuan; mexikarraren lanean kristinoen gerrak duen eginkizun bertsua du Gerra Zibilak Mujikarenean; hondo bat eraikitzen du, eta hortik mito edo sinbolo bihurtzen ditu narrazioetan agertzen diren gertaerak.

6. Bigarren belaunaldiaren bigarren aldia

1991an, Bernardo Atxagak (1951) gazte nobela bat argitaratu zuen: *Behi euskaldun baten memoriak*; bigarren belaunaldiak eginikotzat jo daiteke lan hori. Dena dela, gaiari dagokionez, aldaketa handia dakar, nahiz eta gazteei zuzendurik egon. Ezaguna denez, lan horretan Atxagak historia garaikidea hartzen du alortzat.

1993 eta 1995 artean, euskaraz hiru nobela argitaratu ziren gerra zibilari buruzkoak, eta laugarren batek ere jorratzen du gaia bidenabar. Egileak, 40ko hamarkadakoak ziren, eta gaiari lotzeko ikuspuntu desberdinak hautatu zituzten.

Luis Mari Mujika (1939) da lehena, *Lohitzu herrian uda partean* (1993) nobelarekin. Gerra zibilaren aurreko egunetako oroitzapenak kontatzen ditu; herri baten gorabeherak eta auzo arteko liskarrak kontatzen dira, zer datorkien jakin aurretikoak.

1994an, Joan Mari Irigoienek *Consummatum est* nobelaren azken orrialdeetan Gerra Zibilean gertatutakoaren laburpen bat egiten du.

Patxi Zabaletak (1947), Euskal Herriari eskainitako trilogia batean, *Badena dena da* (1995) argitaratu zuen. Estatu kolpearen unean hasten da nobela, eta Nafarroako Erriberan eta Mendian kokatzen, karlisten aldeko ekintzaileen muin-muinean. Eslogan erretorikoen atzean gordetzen den handinahi zekena eta gerraren ondorengo ustelkeria erakusten ditu egileak.

Urte berean (1995), Patri Urkizuk (1946) *Zoazte hemendik* argitaratu zuen, bere aitaren historiaren kronika nobelatua, 1936 eta 1940 artekoa. Patricio Urquizuk borroka utzi eta bestaldera pasatzea erabakitzen du, Iparraldera, baina han ere ez du bakerik aurkituko.

7. Nobela historiko berria

Hirugarren aldi historiko batean eraikitzen den memoriari eta 2000ko hamarkadan Gerra Zibilari buruzko literatura sorkuntzari Nobela Historiko Berria deritzo Ana Luengok (2004), betiere Nobela Historiko Tradizionalarekin kontrakotasunean.

Haren ustez, Gerra Zibilari buruzko nobela berri horiek biltzen dituzten ezaugarri nagusiak hauexek dira:

> 1) Alejamiento de la correspondencia fiel a los hechos históricos. En cuanto a la ficcionalización de otros referentes históricos como acontecimientos, batallas, personajes o lugares, también aparecen de alguna forma parodiados, desfigurados, exagerados, desplazados cronológicamente o negados [...] se han usado recuerdos que perviven en la memoria colectiva y que por ello se han moldeado mediante la inhibición, la confrontación o la repetición.
>
> 2) En la NNH no existe un tiempo lineal, sino que muestra la historia sin un relato primero claro, y hasta en diferentes des(órdenes) temporales [...] Esto replantea el concepto de realidad y de legitimación de la historia narrada.
>
> 3) En la NNH se da una individualización deliberada del narrador y de sus perspectivas y se acepta su subjetividad y hasta el desconocimiento de parte de la materia histórica. También se manifiesta desde la perspectiva de personajes, sea mediante la focalización interna, sea mediante diálogos, cartas, monólogos o narraciones dentro de la diégesis.
>
> 4) Gracias a esa multiplicidad de perspectivas, se da una mayor reflexión metahistórica tanto del narrador como de los personajes. Siguiendo a Hayden White y su concepto de "metahistoria", se entendería tal elemento en cuanto que el aspecto narrativo y el interpretativo tienden a ir juntos y a confundirse.

> 5) En la NNH se organiza a menudo la historia pasada desde el relato primero situado en el presente. Este tipo de novela histórica ha sido considerada como un rasgo constante en el replanteamiento posmoderno [...] Se presenta el acontecimiento pasado, pero a la vez se marca la contemporaneidad en el discurso de un narrador y un narratario extra o intradiegéticos, lo que no deja lugar a dudas de que se están narrando situaciones ya pasadas también a nivel diegético. [...] opino que lo que marca un hito es que obliga a que haya dos ejes temporales continuamente interrelacionados dentro de la narración.
>
> 6) La memoria posee un papel relevante como recurso para presentar el pasado cuando ambos niveles temporales conviven [...] Y, por ello, la memoria colectiva cobra importancia a nivel diégetico, pues muestra los caminos de conmemoración pública entre los personajes.

Euskal narraziogintzako egilerik garrantzitsuenetako bat Ramon Saizarbitoria (1944) da, eta hark erakutsi du modurik egiazko eta ahaltsuenean, eta aldi berean erarik poliedrikoenean, memoriaren garrantzia eta Gerra Zibilaren gaia Euskal Herrian. 1996an *Bihotz bi. Gerrako kronikak* argitaratu zuen; bi gerrari buruzko nobela modu eredugarrian eraikitzen du: sexuen arteko gerra eta gerra zibila. Bi planotan garatzen da nobela: alde batetik, ezkontzaz kanpoko maitasun bat kontatzen da, gizon xelebre baten eta Violeta izeneko emakume baten artean; gizonak entziklopediak saltzen ditu, eta emaztea hiltzeko asmotan dabil; emaztea, Flora, Molly Bloom-en isla da. Darabilen hizkuntzak eta teknikak Joyce-ren *Ulisses* oroitarazten du. Beste alde batetik, Gerra Zibilaren garaiko istorio bat kontatzen da, gizonaren aitaren eta Violetaren amaren arteko harremanari buruzkoa. Argumentu horren matazaren inguruan, egileak sagardotegi batean biltzen ditu Gerra Zibileko galtzaile batzuk, behin eta berriro beren istorioak kontatuz, nahiz eta narratzaileak antzematen dien "bizitza osoa elkarri kontatua ziotela zirudien".

Nobela hori, bere konplexutasun guztiarekin, Nobela Historiko Berriaren baitan koka daiteke Gerra Zibilari dagozkion istorioak kontatzen dituen zatie-

tan. Ramon Saizarbitoriaren ezaugarri nabarienetako bat da narratzaile ez-fidagarri batean oinarritzea. Kontatzen duena zalantzaz beterik kontatzen du; inoiz ez gaude ziur zer gertatu ote zen benetan, narratzailea ez baita gai Egia kontatzeko. Beraz, egia jakin ezin badugu, egia txikia geratzen zaigu. Egileak galtzaileekiko eta haien historiarekiko mirespena agertzen du, eta bere lanetan horri eusten dio. Nolabait, memoria kolektiboari eutsi, eta sortu egiten du.

Egile horrek idatzi du gehien euskaraz memoriari buruz. *Hamaika pauso* (1995) liburuan, frankismoak azkena fusilaturikoen bizitza kontatu zuen. Nobela hartan esaldi giltzarria zen: "Memoria plater hautsi bat da", berriro itsatsi ezin den zatia. Esaldi horrek postmemoriaren arrastoan jartzen gaitu, memoria postmodernoaren bidetik; egilearen lanetan, memoria da gai-ardatz nagusia.

Gizarte-memorian espezialistak diren James Fentress y Chris Wickham-ek idatzi dutenez, memoria aldakorra da:

> La memoria social suele ser selectiva, distorsionada e imprecisa (James Fentress y Chris Wickham, 2003, 26).

Ramon Saizarbitoriaren narratiba memoria ez-fidagarri hori zehazteko fikziotzat har dezakegu; memoria hori hauteslea da eta gauzak itxuraldatu eta denborari egokitu egiten ditu.

Memoria jorratzen duen beste nobela nagusi bat Bernardo Atxagaren (1951) *Soinujolearen semea* (2003) dugu.

Posmodernotzat jo ohi den lan bat izanik ere, historia zentzu hegeliarrean (modernoan) kontatzeko ahalegina nabaria da. Lan horrek Euskal Herriaren historiaren narrazio-ziklo bat ixten du; ETAren bortxakeria frankismoaren bortxakeriaren ondoriotzat agertzen du. Soinujolearen semea pertsonaia jabetzen da aitak zer adierazten duen: frankismoaren onarpen soziala; beraz, aita kolaborazionista da.

Nobelan, leku eta objektu jakin batek batasuna ematen diote testuari. Hala, baserriko ezkutalekua daukagu, karlisten gerra garaitik erabilia. Hantxe ezkutatzen da Don Pedro 1936an, frankistengandik ihesi.

Narrazioak bi plano ditu, eta historiaren ikuspegi subjektiboa eskaintzen du, egia historikoaren fikzioaren bidez; denbora desordenaturik dago, denbora-maila zenbait nahastuz; denbora hori batzuetan zehatza da, eta beste batzuetan lausoa, zehaztugabea. Nobelak denbora historikoari buruzko gogoeta egiten du, orainalditik antolatzen da lehenaldia, memoriaren baliabide gisa, eta horrek bihurtzen du Nobela Historiko Berriaren ereduetako bat.

Gerra Zibilaren presentzia geroago eta sarriago agertzen da ipuinen, kontakizunen liburuetan. Horrela aipagarria da Eider Rodriguezek (1977) agerturiko *Eta handik gutxira gaur* (2004) liburuan izenburu berdina duen ipuina.

2005. urtean Koldo Izagirrek (1953) *Sua nahi, Mr. Churchill* ipuin liburu gogoangarria argitaratu du. Bertan eman zuen "Idazlea" ipuin miresgarria. Hainbat gai gogor aipatzen dira nola hala: fusilatuen gorpuen aurkikuntza, memoriaren indarra eta bete beharra, eta batez ere, erailearekin bizibeharrak sortzen duen tentsio amaigabe eta suntsitzailea.

2007an bi kontakizun argitaratu dira Gerra Zibilari buruzkoak. Inazio Mujika Iraolak idatzitako *Sagarrak Euskadin* eta Jokin Muñozen (1963) *Antzararen bidea*, seguru asko azken aldian Gerra Zibilari buruz idatzi den lanik behinena. 60ko hamarkada jaiotako idazlea izanik, haren lanak Nobela Historiko Berriaren ezaugarriak jasotzen ditu; gaurko ikuspegitik kontatzen du istorioa, gerra aurreko garaian lau lagunek bizi izandako gorabeherak. Narrazioak bi plano ditu: 2003ko urtea, ama bat bere seme Igorren heriotzaren arrazoiak aurkitu nahirik, prestatzen ari zen bonba lehertuta hil baita. Ama horrek eramango gaitu bilbean zehar, Jesusengandik (emakumeak zaintzen duen zahar bat, Donostiako frankisten artean kide garrantzitsua izana) Nafarroako Erriberako Trilluelosen Errepublika garaian bildu zen lagun koadrilaraino. Haietako bakoitzak bere zoria izan zuen: Jesusek lagunak eta idealak utzi eta erreketean sartu behar izan zuen; haren lagunak berriz fusilatuak bata eta bestea eraila izan ziren. Argazki bat; koadrilako kide baten aurpegiak Igorren antza du, Lisaren seme hilarena; hortik pizten da emakumearen jakin-mina, eta Nafarroako Erriberan Altxamenduaren ondorengo egunetan izandako errepresioaren egiaren bila hasiko da.

Lan honek dirulaguntza bat jaso du "Hacia una teoría de la Historia Comparada de las literaturas del dominio Ibérico" (HUM 2007-62467) proiektuaren baitan, Fondos FEDER-ek sustaturik (zuzendaria: Fernando Cabo Aseguinolaza doktorea, Santiago de Compostela-ko Unibertsitatea).

Halaber, lan hau GIC 10/100 eta IT 495/10 Ikerketa Taldearen proiektuaren zatia da, UPV/EHUk eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundua.

Bibliografia

BEISEL, Inge (editora) (1997): *El arte de la memoria: incursiones en la narrativa española contemporánea*. Ask. Mannheim.

BLANCO, Amalio (1997): "Los afluentes del recuerdo" in RUIZ VARGAS, José María: *Claves de la memoria*. Trotta: Madrid.

FENTRESS, James; WICKHM, Chris (2003): *Memoria social.* Frónesis. Cátedra. Valencia.

HALBWACHS, Maurice (2004): *La memoria colectiva*. Prensas Universitarias de Zaragoza, Zaragoza.

HIRSCH, Marianne (2000): *Family frames. Photography, narrative and postmemory*. Harvard, Universitu Press.

HUTCHEON, Linda (2000): "Irony, Nostalgia and the Postmodernism" in VERLIET, Raymond and ESTOR Annemarie: *Methods for the study of Literature as Cultural Memory*. Rodopi. Amsterdam-Atlanta, GA. 189-207.

KEUNEN, Bart (2000): "Cultural thematics and Cultural Memory: Towards a Socio Culrural Approach to Literary Thermes" in VERLIET, Raymond and ESTOR Annemarie: *Methods for the study of Literature as Cultural Memory*. Rodopi. Amsterdam-Atlanta, GA. 19-30.

LUENGO, Ana (2004): *La encrucijada de la memoria*. Tranvía. Berlín.

SCHWAN, Gesine (2000): "La idea de punto final. Memoria, olvido y democracia". *Pasajes*. 3. Agosto 2000. 7-12.

VILAVEDRA, Dolores (2006): "A Guerra Civil na narrativa galega. Un ámbito moral". *Grial.* 170. 128-133.

Isiltasunaren gerraostetik gerrari buruzko autobiografiara

TOLEDO LEZETA, Ana M.
Euskaltzaindia
Deustuko Unibertsitatea
Euskaltzain osoa eta Literatura Ikerketako batzordekidea

Sarrera data: 2009-11-26
Onartze data: 2010-07-14

Euskera. 2009, 54, 2-2. zatia, 953-990. Bilbo
ISSN 0210-1564

Gerra Zibilaren amaieraren (1939) ondoko hogei eta bost urteetan kontaketaren barrutian gerra honek izan zuen oihartzuna eta oihartzun horren nolakotasuna aztertzen da. Gerra-garaian bertan bada gerrate-egunetan gertaerak kokatzen dituen kontaketarik: Mendi-lauta goitizenaz baliatuz, Domingo Arrutik "Loretxo" (1937) argitaratu zuen. Alabaina, gerra-ostean euskarazko adierazpen oro desagertu egiten da Hego Euskal Herrian. Muga hauetatik at berreskuratuko da euskal testuaren argitalpena. Gerra Zibilaren egunetako gorabeherez, nahiz eragin zituen ondorioez, diharduten lehen kontaketak Hego Euskal Herritik kanpo argitaratuko dira: Jon Andoni Irazustaren *Bizia garratza da* (Buenos Aires, 1950), Sebero Altuberen *Laztantxu eta Betargi* (Baiona, 1957) eta, azkenik, Martin Ugalderen "*Gizerailtza*" (Caracas, 1961). Gerraren amaieratik mende laurdenera dator Sebastian Salaverriaren *Neronek tirako nizkin* (Donostia, 1964) autobiografia, gerratean egin zituen ibileren berri emanaz: horra hor gerraren gaiari heltzen dion Hego Euskal Herrian argitaratutako lehen kontaketa.

Hitz-gakoak: Isiltasuna, salaketa, erailketa, gertaera erreala, lekukotasuna, autobiografia.

Se estudia la resonancia que alcanzó la Guerra Civil (1936-1939) en la producción narrativa durante el cuarto de siglo que sigue a su conclusión. Tras un breve análisis de "Loretxo" (1937) de Mendi-lauta (pseudónimo de Antonio Arruti), publicado en plena guerra, se constata la desaparición de toda manifestación literaria en euskera en la postguerra inmediata, hasta su recuperación de la mano de escritores exiliados. Se examinan los textos narrativos que sitúan los hechos narrados en algún momento de la Guerra Civil o relatan acontecimientos provocados por ella: *Bizia garratza da* (Buenos Aires, 1950) de Jon Andoni Irazusta; *Laztantxu eta Betargi* (Baiona, 1957) y "*Gizerailtza*" (Caracas, 1961) de Martin Ugalde. Por último, el relato autobiográfico *Neronek tirako nizkin* (Donostia, 1964) de Sebastián Salaverria, rememora sus experiencias en la contienda: ya ha transcurrido el primer cuarto de siglo para cuando hace su aparición el primer relato publicado en el Pais Vasco peninsular que aborda sucesos de la Guerra Civil.

Palabras clave: Silencio, denuncia, asesinato, hecho real, testimonio, autobiografía.

Le retentissement qu'a suscité la Guerre Civile (1936-1939) est étudié dans la production narrative durant le quart de siècle suivant sa fin. Suite à une brève analyse de « Loretxo » (1937) de Mendi-lauta (pseudonyme d'Antonio Arruti), publié en pleine guerre, on constate la disparition de toute manifestation littéraire en basque dans l'après-guerre immédiate, jusqu'à sa récupération de la main d'écrivains exilés. On examine les textes narratifs qui situent les événements narrés à un moment de la Guerre Civile ou qui relatent des événements provoqués par elle : *Bizia garratza da* (Buenos Aires, 1950) de Jon Andoni Irazusta ; *Laztantxu eta Betargi* (Baiona, 1957) et « *Gizerailtza* » (Caracas, 1961) de Martin Ugalde. Enfin, le récit autobiographique *Neronek tirako nizkin* (Donostia, 1964) de Sebastián Salaverria, remémore ses expériences dans la lutte: le premier quart de siècle s'est déjà écoulé quand le premier récit publié au Pays Basque péninsulaire qui aborde les événements de la Guerre Civile voit le jour.

Mots-clés: Silence, plainte, assassinat, fait réel, témoignage, autobiographie.

The repercussion that the Civil War (1936-1939) obtained in the narrative production during the quarter of a century following its end is analysed. After a brief analysis of "Loretxo" (1937) by Mendi-lauta (the pseudonym of Antonio Arruti), which was published during the war, the disappearance of all Basque literary expression in the immediate post-war period, until its comeback at the hands of exiled writers is corroborated. The narrative texts that place the facts described at any given moment of the Civil war or related events caused by same are analysed: *Bizia garratza da* (Buenos Aires, 1950) by Jon Andoni Irazusta; *Laztantxu eta Betargi* (Bayonne, 1957) and "*Gizerailtza*" (Caracas, 1961) by Martin Ugalde. Finally, Sebastián Salaverria's autobiographical story *Neronek tirako nizkin* (Donostia, 1964) calls up memories of his experiences in the war: by now a quarter of as century having elapsed since the first narrative making its appearance in the peninsular Basque Country that addresses the events of the Civil War.

Keywords: Silence, accusation, murder, true story, testimony, autobiography.

"Isiltasunaren gerraostetik gerrari buruzko autobiografiara" izenburupean, gerraren amaieraren ondotik (1939) gertaera honek zenbaterainoko oihartzuna izan zuen euskal narratiban aztertuko da. Amaitu eta hurrengo hogei eta bost urteetan izandako oihartzuna ekarriko da lerro hauetara, ez bakarrik jada denbora-tarte esanguratsua igaro delako, baita juxtu urteurren horrekin batera argitara ematen delako Hego Euskal Herrian gerrako oroitzapenak jasotzen dituen lehen eleberria. Argitalpen-lekuak badu garrantzirik; izan ere, Hego Euskal Herrian Gerra Zibil hori irabazi eta galdu dutenak bizi dira eta irabazi dutenek daukate agintea Espainian. Beraz, batetik, kontatzen diren gertaerak bizilagun ugarik bizi eta pairatutakoak dira; bestetik, agintean daudenentzat ere, oso gai "sentsiblea" da.

Gerra bukatu ondorengoa da isiltasuna; alegia, ez gerraz zihardu en kontaketarik, ez bestelakorik, plazaratzea. Aurretik, gerra-garaian, egin baitziren gai desberdinak zerabiltzaten kontaketak. Gerra-garaian bertan, "Mendi-lauta" goitizenaz baliatuz, Domingo Arrutik "Loretxo" (1937) argitaratu zuen *Eguna* egunkariaren orrialdeetan. Toma Agirrek, berriz, *Uztaro* (1937). Toma Agirreren eleberria ez bezala, Arrutirena gerra-egunetan kokatzen da. Folletoi gisa argitaratua, badu folletoi kutsurik ere: guraso karlista aberatsek beren alaba Loretxo Madrilgo udatiar handiki batekin ezkondu nahi luketen arren, honek Yon maite du. Yon, madrildar handikiaren aurrean, langile soila da; Loretxoren gurasoen ideologiaren aurrean, abertzalea. Haatik, 36ko gerrak atea joko du aurreikusten zen maitasun-istorioaren garapena baldintzatuz. Beren alderdikoek gerran eginiko sarraskiak ikusita, aurreko atxikimendu politikoa epeltzen eta hozten joango zaie Loretxoren gurasoei. Yonen alderdia, berriz, gero eta gehiago onartzen dute, azkenean Loretxorentzat mutilik egokientzat jo arte.

Loretxoren gurasoek bi gazteen arteko maitasun-harremana bedeinkatzeko zeuzkaten eragozpenak gainditu egingo dira, nahiz eta kontaketan zehar ez azaldu nola gainditzen diren oztopo horiek. Berbaldiak ez du jasotzen Loretxoren gurasoengan emandako bilakaera. Yon gudu-zelaian den bitartean gertatutako aldaketa da, baina tarte horretan kontalariak testuratzen duena ez da, ez Yonen ibilerak, ezta gurasoen pentsamenduaren bilakaera ere. Besterik da

Yon gerran dabilen garaian testua betetzen duena: maiteminduek elkarri igortzen dizkioten gutunak. Loretxok bidalitako eskutitzetan iragarritako berrira mugatzen da honen gurasoen jarrera-aldaketari eskainitako tartea. Ez gurasoen jarrera-aldaketa egiten joan den bide bezala erakusten da, ez Yon gerra den esperientzia latz hori nola doan bizi izanaz testuratzen da. Honela bada, "Loretxo" gerra-egunetan kokatutako kontaketa izan arren, ez dago gerraren kronikarik. Besterik da testuak jasotzen duena: beren maitasun-istorioa bizi izateko bi gaztek dauzkaten oztopoen gainditzea, gerrako gorabeherak direla eta. Berez, kontatuak izatera iristen ez diren gerrako gorabeherak izango dira eragozpenak gainditzea lortuko dutenak.

Gerraostean euskal adierazpen literarioa isildu egiten da Hego aldean. Ez da gerraz diharduen adierazpen literarioa isiltzen dela, baizik eta adierazpen literario oro. 1946. urte arte itxaron beharko da narratiban lehen argitalpenarekin topo egiteko. Ez hori bakarrik, argitalpen-lekua atzerrian kokatzen da: Buenos Aireseko Ekin argitaletxea. Urtebete lehenago argitaratua zuen Telesforo Monzonek *Urrundik* (1945) poema-liburua Mexikon.

Gerrak atzerriratu duen Jon Andoni Irazusta tolosarraren *Joañixio* (1946) da Ekin argitaletxeak kaleratzen duen lehen euskal eleberria. Atzerriratzen den pertsonaia baten istorioa kontatzen du. Atzerriratze hau, ordea, ez da, egilearena bezala, arrazoi politikoetatik eratorria, baizik eta soldadutza ekiditeak eta bizimodua aurrera atera beharrak eragina. Gizarte-errealitatean indiano bezala ezagutzen den pertsonaia moldatzen du: Ameriketara joan, bertan aberastu eta itzultzen dena, han irabazitakoen errentetatik bizi izateko aurrerantzean.

Atzerriratu diren pertsonaiak plazaratzen ditu Irazusta atzerriratuak, baina motibo desberdinek eragindako atzerriratzeak aurkezten ditu. Lehenbiziko eleberrikoa bizimodua irabazi beharrak ekarri zuen berekin, bigarrena, berriz, Gerra Zibilak.

Irazustak 1950. urtean argitaratuko du bere bigarren eta azken eleberria. Handik bi urtera, 1952an, zendu zen. Bigarren eleberri horretan, *Bizia garratza*

*da*n Gerra Zibilak bultzatutako atzerriratzea dakar. Andoni Uriaurre eta Ander Zubiburu "guda madarikatu baten ostikadak biali zitun" Kolonbiara. Gerra Zibila da erbestaldiaren kausa.

Irazustak ez du aztertzen kausa. Kausa aipatu eta, atzerriratu diren bi pertsonaien gorabeherak jarraitzen ditu. Gerrak errotik moztu du beren bizitza. Bordeleko portutik Kolonbiarantz ateratzen diren egunetik ez dute zorionaz gozatuko. Beti gogoan izan zitekeena eta izan ez dena... Egonezina, erraiekin bakerik eza, artegatasuna... nagusitzen doaz eta sentimendu hauei aurre egiteko barne-bakea eta zoriona bilatzeko ahalegina. Ez dute lortuko, ordea. Gerrak "elbarriturik" utzi ditu eta Kolonbiako erbestaldiak erakusten du zorigaitzera kondenaturik daudela. Ez dira helduko beren bizitza berregitera. Gerrak atzerrira bidali ditu. Gerra horrek, bestalde, ez du eragin bakarrik beraiengan. Beren ingurukoengan ere eragin du, buruan zeuzkaten egitasmoak gauzatzea zapuzteraino. Nahiz eta maitasunik aitortu gabe izan, bakoitzak bere maitea zuen eta, atzerrian beraiekin bizitza berregiteko asmoa hartzen dutenean, bataren maitea lekaime sartua da, bestearenak, kapitain batekin izana du alaba. Eragozpen hauek gaindiezinak dira edo, gainditzen direnean, beranduegi izango da. Hala, gerraren ondorioak heriotzako orduraino pairatuko dituzte.

Irazustaren bi eleberri hauen tartean Jon Eizagirrek bere eleberri bakarra argitaratuko du: *Ekaitzpean* (1948). Beste tolosar atzerriratu batengandik datorren eleberria da. Halaber, atzerrian argitaratua: Buenos Aireseko Ekin argitaletxean. Irazusta eta Eizagirreren biografietan bada osagai komunik: jaioterria, erbesteratu behar izan zutenak izatea, atzerrian eleberriak argitaratu izana, jarduera politikoa (adibidez, biak izan ziren diputatuak Madrileko Gorte Nagusietan), biak Zuzenbidea ikasitakoak izatea...

Zehazten ez den arren, *Ekaitzpean* eleberriko jazoerak 36ko gerra-garaian kokatzen dira, gertaldi horretara igortzen duten hainbat erreferentziari esker jakin daitekeenez. Haatik, ez du gerraren kronikarik egiten.

Lehenik eta behin zaila zuen kronika egitea, istorioaren berri emateko egindako aukeraren ondotik:

> Euskeraz irakurtzeko zaletasuna pixtu-arazi eta errezago irakurtzeagatik egintza onen geiena alkarrizketa-eran antolatu det. Eta ala, alkarrizketaz egiña dagona arturik, antzokirako ere errez antzeztu liteke[1].

Badirudi, *Basotarrak* (1913) opera-libretoaren egilea ere bazen Eizagirre, antzerkian narratiban baino erosoago sentitzen zela. Agerian uzten duena behintzat zera da, kontatzea baino nahiago duela pertsonaien arteko solasa. Beraz, kronikarik ez zuen egin, tarte oso apala hartzen baitu kontaketak. Gainera, kontaketa horretara ez da ekartzen gerra, baizik eta Aitzondo baserriko bizimodua. Kontaketan ausente dago gerra: Aitzondo baserrira noizbehinka ate-joka datorren gertaera baino ez da, bertako bizilagunengana berri txarren bat ekarriz, noski. Eroapenarekin jasaten duten berria da, betiere.

Irazustak bezala, gerra madarikatu eta, gerraren eragin kaltegarriak pairatzen dituzten pertsonaiei ematen die bizitza Eizagirrek.

50. urteen inguruan hasten da berriro plazaratzen euskal adierazpen literarioa Hego aldean. Gerraren amaieraren hamargarren urteurrenarekin batera etorriko da Salbatore Mitxelenaren *Arantzazu, euskal-sinismenaren poema* (1949) idazlan poetikoa. Hurrengo urtean lehen eleberria, eleberri laburra: Jon Etxaideren *Alos-torrea* (1950). Handik bost urtera, berriz, egile beraren *Joanak-joan* (1955). Eleberri historikoa lantzeari ekin zion bi idazlanotan eta, aurrerantzean ere, eleberri-mota horri eutsiko dio: Etxaideren jardun narratiboa iraganeko gertaera eta pertsonaia historikoek gobernatuko dute. Dena den, lehen aldi hurbilean bizi izan duen gertaera historiko dramatiko horretara, 36ko gerrara, ez du joko bere kontaketak osatzeko. Ezta Jose Antonio Loidik ere: nahiago du A*mabost egun Urgain'en* (1955) eleberriaren bidez euskal polizi eleberriari lehiatila irekitzea. Ezta Txillardegik ere, nahiz eta adinarengatik gerrako oroitzapenen bat izateko modua eduki. Txillardegik gogoeta sakonetan barneraturik dabiltzan euskal eleberrigintzako lehen pertsonaia gatazkatsuak ekarriko ditu,

[1] Eizagirre'tar, Joseba (1948): "Aurretik", *Ekaitzpean. Ipuinberri*, Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires, 4. or.

*Leturiaren egunkari ezkutua*n (1957) eta *Peru Leartza'ko*n (1960). Barnean daramaten gatazka, ordea, ez da Gerra Zibilak eragina.

1. Sebero Altube: *Laztantxu eta Betargi* (1957)

Gerra zibilaren egunetan kokatuz, gerraren gordintasuna eta krudelkeria erakusten duten pasarteak jasotzen lehena Sebero Altube izan zen *Laztantxu eta Betargi*rekin.

Gerra hasi eta gutxira, 1936. urtearen amaiera aldera, Hego Euskal Herritik atzerriratu zen Altube, 1958an itzuli zen. Urtebete lehenago Baionan argitaratua zuen aipatu kontaketa. Ez zen izan kontaketa oso ezaguna argitaratu zenean[2], ezta gaur egun ere. Inprimatutako aleen kopurua txikia izateaz gain, isilpean banatu zen Hegoan[3].

Gerra Zibilaren gatazkarik bizi izan ez zuen leku batean argia ikusi zuen idazlanaren egilea izanagatik, uko egin zion egiletasuna modu gardenean adierazteari. Bigarren abizenaz baliatu zen eginkizun horretarako: A. Lertxundi euskaltzainak izenpetzen du. Goitizenaren erabilerara jo ez bazuen ere, ez zuen

[2] Deigarria egiten da, adibidez, Andima Ibiñagabeitia bezalako euskaltzale batek kontaketa honen berririk ez izatea. Honela zioen behintzat Martin Ugalderen *Iltzaileak* (1961) ipuin-bildumari hitzaurrea egitean, 1960ko abenduaren 3ko datarekin: "Bearrezkoa genuen euskotarrok ere gudu-literatura gartsu bat, eta literatura orri asiera ezin obeagoa ematen dio Martin Ugalde'k bere ipui auekin. Negargarria, baiña oraindik euskaldun batek ere ez ditu liburuetan euskeraz eman orduko gertari deitoragarriak. Mututasun lotsagarrienean diraute oraindik ere". Ibiñagabeitia'tar, Andima: "Itz bi", Ugalde, Martin (1985): *Hiltzaileak*, Erein, Donostia, 6. or. Litekeena da *Laztantxu eta Betargi* ezagutzeko aukera handirik ez izatea Ibiñagabeitiak; izan ere, 1947an hartu behar izan zuen atzerrirako bidea eta, nahiz eta 1954 arte Parisen bizi izan zen, urte horretatik aurrera Guatemala du bizileku, harik eta 1956an Caracasera doan arte. Beraz, Ibiñagabeitia Ameriketan dago erbesteratuta Altubek Baionan argitara eman zuenean bere eleberria.

[3] Bere bigarren deituraz argitaratu zuen Baionan 1957. urtean eta isilpean banatu zen mugaz hemendik. "Argitaraldi tipiaz gainera zabalkunde eskasa izan zuen, garai hartako egoerak berakin zituen eragozpenegatik". San Martin, Juan (1979): "Hitzaurre gisa", Altube, Seber, *Laztantxu eta Betargi*, Hordago, Donostia, 7. or.

nahi izan bere burua zeharo agerian jartzea, Gerra Zibilean parte hartu ez zuen estatu batean kaleratu arren liburua. Badirudi babes bila dabilela bigarren abizen ezezagunagoan bere burua gordeaz.

Istorioak Laztantxu eta Betargi pertsonaiak aurkeztu eta, labur-labur, ezkondu aurrean –1935ko urrian ezkondu ziren– bizi izan zuten gertaeraren bat edo beste kontatzen du. Senar-emazteak zein zoriontsu diren azaldu ostean, data jakin batean kokatzen da: 1936ko uztailaren 18a. Hortik aurrera gerraren txinpartek harrapatuko dute gertaeren garapen-leku den Arrasturi, harik eta 36ko urriaren 21ean, beste 22 lagunekin batera, Betargi fusilatzen duten arte. Laztantxuk Arrasturitik Donostiara ekarri zituzten mutil hauen destinoa zein izan zen jakiteko egindako gestioez jarduteaz gain, beste fusilamendu eta sarraski batzuen berri ere emango du, gertaeren kontaketa amaitu aurretik. Kontatutako istoriotik ateratzen dituen ondorioak bilduaz ixten du idazlana.

Edizio-prestatzaileak hitzaurrean bertan iragartzen duen bezala, Laztantxu eta Betargiren istorioa du gune kontaketak, baina, bereziki, Betargi atxilotu eta Arrasturitik Donostiara dakartenetik, han eta hemen galdezka ibili ondoren, Laztantxuk fusilatu egin dutela jakiten duen arteko gertaerak jasotzen ditu. 1936ko urriaren 21eko data Laztantxu eta Betargiren istorioaren muin-muinean kokatzen da: ordu arteko gorabeherez kontalariak kontatutakoa pertsonaiak karakterizatzeko bitarteko besterik ez da. Bestela esanda, aurreko jazoeren kontakizuna, urriaren 21eko gertaeraren krudelkeriaren neurria iradokitzeko baliabide da.

Behin Betargi hilik eta Laztantxu horren jakitun, istorioa bere amaierara hel dadin alderdi bat gehiago gelditzen da jorratzeko: fusilamenduaren kausak. Halako zigorra zein delituk eragin ote zezakeen jakitea geratzen da, lehenik eta behin ezagutu nahi delako, baina, baita zurrumurru guztien "zerbait egingo zuten" horri aurre egiteko ere. Fusilamendu hauen ondotik Arrasturin bizi izan zituzten zenbait gerra-ekintzek eta hauek eragindako gizarte-giroak, azkenean, gogaitu egingo dute Laztantxu eta sorterria uztea erabakiko du. Oraindik istorioak Laztantxuk Betargiren azken uneei buruzko xehetasunak jakiteko (non hil zuten, nola, non ehortzi...) egindakoaren berri emango du.

Horrela bukatzen da istorioa, nahiz eta berbaldiak jarraitzen duen istorio horretatik ateratzen diren ondorioak eransteko.

1.1. *Benetan gertatu zena*

Altubek edizio-prestatzaile moduan –eta ez egile moduan– aurkezten du bere burua. *Laztantxu eta Betargi*ri eginiko hitzaurrean hainbat argibide eman zituen, besteak beste, honakoa: Arrasturin eta bere inguruetan gerra-garaian gertatutakoez diharduten Udalatxeko Ortulauaren paperak eskuratu zizkiotela. Paper horiek eskuan, edizioa prestatu du:

> Nik, neronek, egia esan, auxe besterik eztet egin: idazle orren *Paper-zati* ugariak, ordenatu lénbizi; gero, apartatu Arrasturi-ko gertaerai dagozkienak; eta azkenez, *Laztantxu*, emakume gazte ta ederraren istori unkigarriari dagozkionak, bereiztu eta antolatu (17. or.).

Harreman zuzenik ere ez da egon "benetako idazlearen" eta edizio-prestatzailearen artean, bitartekari batek ekarri baitizkio paperak:

> Eta ¿nor oté degu "Udalatxeko Ortulau" ori berori? Eztakit neronek ere. Nerí Paper-zati aiek ekarri zizkidanak, mixteriorik aundienaz, éskuratu zizkidan, ixilpeko kondizio orrekin emán omen zizkioten berari ere, eta ala entrégatzen zizkidala esan zidan (14. or.).

Gertaera errealen kontakizuna egitera doalarik eta, gainera, gerran galtzaile izan zirenak bidaide hartuta, gerra irabazi zutenak agintean daudela, Udalatxeko Ortulaua idazlea goitizen soilean gelditzen da. Are gehiago: Altubek berak ere ez du ezagutzen. Beste norbaitek helarazi dizkio paperak. Testuinguru sozio-politikoak eskatutako zuhurtzia-neurriei erantzuteko modua izan daiteke. Babesa babesaren gainean: Altubek bere burua gorde ezezagunagoa den bigarren abizenaren estalpean eta, "benetako egilearena", "Udalatxeko Ortulaua" goitizenaren azpian.

Beraz, Udalatxeko Ortulauaren paperak abiapuntu, A. Lertxundik prestatu du edizioa, prestatze-lan honetan lizentzia aski zabaletara joz; izan ere, ordenatu ez ezik, hautatu ere egin du argitaratzera zihoana:

> Au egiztatzeko, Laztantxuren egintza maitagarri asko kontatzen ditu Udalatxeko Ortulauak; bat auxe (18. or.).

Gehiago oraindik, edizio-prestatzailearen esku hartzea ez da mugatzen materiala hautatzera. Bada besterik ere: dela bere ahotsaz baliatzea Udalatxeko Ortulauak idatzitako pasarteren bat aurkezteko[4] nahiz iruzkintzeko edo, irakurleari argibideren bat gehitzeko[5], dela Udalatxeko Ortulauaren idatzia zuzenean gabe, bere ahotsetik iragazita emateko... Ez du eragozpenik, ezta lehen pertsonan presente egiteko ere: "eta... ¡nik dákit ba, zenbat olako edertasunez horniturik erakusten digun!" (18. or.).

Jakina, zeinahi eleberrigilek erabil dezakeen baliabide batera jo du Altubek, idatzia helarazi egin diotela adieraztean eta idatzi hori jaso bezala ez duela argitaratu agertzean. Dena den, zein bestek igorritako paperen edizio-prestatzaile izan, zein, seguruago dena, edizio-prestatzaile legez aurkeztea baliabide literario hutsa izan, idazlanaren argitalpen-urteko egoera sozio-politikoak gomendatutako jantzia izan daiteke, babesteko jantzitako mozorroa, hain juxtu.

Egiletzaren auzia argitzeko eginkizunaz gain, besterik ere bereganatzen du hitzaurreak: *Laztantxu eta Betargi*k kontatzen dituen gertaerak egia historikoaren kategorian txertatzen ditu.

Juan Carlos Guerrak non edo non azaldu zuen Arrasturiko haurren kanta bat oinarri hartuz, gezurra eta egia aurkajartzen ditu, Laztantxu eta Betargiren istorioaren egia kontatzera igaro aurretik eta, kontatu ostean, istorio honetatik ateratako ondorioekin idazlana ixten du.

---

[4] "*Laztantxu-ren* doaiak, onela agértzen dizkigu Udalatxeko Ortulauak:" (18. or.). "*Txanton* zeritzaion lagun batek, onela kóntatu zion 'Udalatxeko Ortulau'ari" (48. or.). "*Udalatxeko Ortulauak*, ona emen, ori, nola esplikatzen digun" (113. or.).

[5] "Apaiz ori nor zan eta abar, kontatu nízkizun, lenago ere, irakurle" (95. or.).

Honela dio Guerrak azaldutako haurren kantak:

> Sa-Mikolas Santua
> *Udalatxen Ortua*
> *Anboto Anboto madarikatua*
> Sa-Mikolas, Triskilitras
>
> *Guerra* jaunak, auxe zion: *Udala*-aitza ta *Anboto*-aitza, aurrez-aurre aurkitzen diralarik, elkarren etsai bailiran agértzen omen ditu kantu orrek (15. or.).

Altubek bere egiten du Guerraren ikuspegia eta, ildo horretan kokatuz, azalpenak ematen ditu. Azalpenok Laztantxu eta Betargiren istorioaren euskarri nagusi eraiki eta, berauen argitan istorioa irakurtzera gonbidatzen du.

Anbotoko Damak fama txarra omen zuen. Dama honen zerbitzariak, berau bezala, sorginak, herririk herri ibiltzen omen ziren gezurrarekin eta azpikeriarekin jende artean drogak eta nahasteak ipintzen. Ez da horrelakorik gertatzen Udalaitzen. Udalaitzen, haitz artean ba ei da, zelaitxo bat, ortutxo bat, baratze bat. Oso antzina komentu txiki bat omen zegoen eta bertan lau bosten bat fraile penitentzia gogorrak eginaz. Fraile horiek ere biltzen ei zituzten inguruko herrietako berri onak nahiz txarrak, baina Anbotoko sorginena ez bezalako erabilera egiteko, jende artean bakea eta kristautasuna zabaltzeko baitzituzten.

Altuberentzat berari idatziak helarazi dizkion Udalatxeko Ortulaua idazleak "Praille ongille oien lana egin nai duala dirudi; eta au, idazle arrek ere, *Anbotoko Sorgiñen* lan geiztoak erremeditzeko, gaur ere bai-báitira, *Sorgin* aien antzeko gaizkille gezurtirik asko" (16. or.). Egia zalea zelako, hain zuzen ere, ezarri zion idazle horrek Udalatxeko Ortulaua izena bere buruari.

Ondorioz, egia kontatuko du bere idatzietan Udalatxeko Ortulaua izendatzen den idazleak. Egia, Anbotoko sorginen lan gaiztoak erremediatzeko. Alegia, Gerra Zibileko gertaerez barreiatutako gezurrei aurre egiteko.

Altubek eginkizun pedagogikoa ematen dio hitzaurreari: argitaratzera doan kontaketaren giltzak adierazten ditu bertan. Lehenik eta behin, egia da kon-

tatzera doana, ez du, ez handitu, ez murriztu, kontatuko dituen gertaeren neurria. Bigarrenik, bada Anbotoko sorginik berriak oker zabaltzen dituenik "droga eta azpikerietan" jardunaz. Laztantxu eta Betargiren istorioa bi oinarri hauen argitan atzeman behar da. Bada, oraindik, hirugarren printzipio bat ere hitzaurrean, Laztantxu eta Betargiren istorioa amaitu ostean aterako diren ondorioekin harremanetan dagoena: Jaungoikoa eta Lege Zaharra banderapean bakarrik dago zuzentasuna.

Beraz, kontatutako gertaerak horrela jazo zirela sinetsiz irakurri behar da istorioa: egia historikoari erantzuten dio kontaketak. Egia historiko hori ezin jar daiteke auzitan. Ez dago, ezta ere, interpretazioen menpe. Udalatxeko Ortulaua da egiaren jabe dena eta ez zaie jaramonik egin behar Anbotoko sorginen lan gaiztoetatik jalgitzen diren esamesei.

Gertaera historiko batzuen berri ematera doa, benetan gertatu ziren jazoerak kontatzera doa, baldintza jakin batzuetan: batetik, gertaera horietan parte hartu zuten batzuk edo gertaera horiek ezagutu zituzten batzuk bizi dira; bestetik, lekuko izan ziren guzti horiek, atxikimendu handiago edo txikiagoarekin, gatazkaren alde batean ala bestean kokatu ziren eta, azkenik, nork bere aldea ikusi nahi luke arrazoiz beterik. Egoera honetan epai historikoa egitera doa. Hitz batean, lehen aldia eta idazketaren garaiaren orain aldia, biak daude jokoan; alegia, lehen aldiko gertaerek, gerrako gertaerek eragindako hondamendi eta nahigabe itzelean zein aldek jokatu zuen zuzen argitzeak berebiziko garrantzia du, nola hondamendi eta nahigabe horiek pairatu zituztenei begira, hala etorkizunari begira: historiak gertaera horiez egingo duen epaia guztiek irabazi nahi dute, alde batekoek zein bestekoek.

Altube Gerra Zibileko gertaera batzuk salatzera dator eta, aldi berean, epai historikoa egitera. Horretarako, dirudienez, ez du aski kontatutako istorioarekin eta hitzaurrea eransten dio. Kontatutako istorioak egia historikoari erantzuten diola bermatzeko bitarteko du hitzaurre hori. Altubek edizio-prestatzaile soilaren egitekoa bereganatzen du eta Udalatxeko Ortulauari egosten dio egiletza. Haatik, "egile ezezagun" horrek bazuen aurkezpen eta berme beharrik. Berme osoa emateko eginkizuna betetzen du hitzaurreak: Altube edi-

zio-prestatzaileak Arrasturiko gertaerak kontatzen dituen Udalatxeko Ortulaua bermatzen du. Bermea emateko jotzen du Arrasturiko haurren kantara. Kanta hau abiapuntu harturik aurkajartzen ditu Udalaitzeko Ortua, antzina lau bost fraileren komentu txikia izana, eta Anboto madarikatua. Egilea, Udalaitzeko fraile horiek bezalakoa da eta ez Anbotoko sorginak bezalakoa. Egileak Udalatxeko Ortulaua izena darama "egi-zale zalako".

Benetan gertatu zena kontatzen duela dioenez Altubek, asmazioak ez du lekurik. Berez, asmazioa, leku eta pertsona errealak babesteko bakarrik darabil. Hala, "bizi-lagunentzako errespetuz", gertaera-leku den herriaren izena bera ezkutatu nahi izan du, nahiz eta ez den zaila igartzen, Arrasatetik Arrasturirako jauzi soila egiten duelako. Jarritako estalkiak ez du gehiegi desitxuratzen; izan ere, batetik, hainbat soinu berdin gordetzen ditu; bestetik, bertako eta inguruko zenbait leku-izen aipatzean, izen errealari eutsi dio istorioaren garapenean zehar. Esaterako, hitzaurrean Udalaitz agertzen da, kontaketan barrena, Bergara, Antzuola eta abar. Gainera, hitzaurrean iragartzen duen eragiketa da gertaera-leku erreala ezkutatzearena:

> Nik, ortaríko istori bat kóntatuko dizuet. Zein erritakoa dan? Ango bizi-lagunentzako errespetuz, izenordez izentatuko det; ARRASTURI izenaz (13. or.).

Errespetu berdinaren izenean, estali egiten ditu gertaera-leku horretako bizilagun errealen izenak eta pertsonaia nagusientzat bi izen asmatu. Pertsonaia nagusi errealak ere babestu egin nahi ditu eta horretarako beren benetako izena pertsonen izendegitik kanpo dauden izenez ordezkatzen du: Laztantxu eta Betargi. Ez dira nolanahiko izenak hautatutakoak: gozotasunaren eta argitasunaren adierazle diren izenak aukeratzen ditu. Pertsonaiaren izaeran eta jarreran oinarrituz asmatutako izenokin izendatzen diren protagonistak, nekez izan daitezke gaizkile. Istorioak biktima legez aurkezten ditu eta biktima izate hori indartuago gelditzen da halako izenaren jabe diren pertsonaiak izatean.

Pertsonaia nagusientzat izenak asmatu eta, gainerako arrasturiarren izenak ezkutatu egiten ditu, puntu etenak erabiliz eginkizun horretarako. Horrela

gertatzen da, adibidez, *Dol...* karlista-apaizarekin, U. Gerra-bazkuneko buruarekin, U. Alkatearekin (42. or.), *Ub...* izeneko mutilarekin (48. or.), G... eta M... jaunekin (90. or.), A. tar D. jesuita on-on baten aitarekin (91. or.), baina Arrasturitik kanpo bizi direnen izen errealak aipatzeko eragozpenik ez du: M. Mujika gotzaina (90. or.), kasu.

Horrenbestez, leku eta pertsonaien izen errealen erabileran honako araua eraikitzen du: gertaera-lekukoak, modu batean ala bestean, ezkutatu; kanpokoak, berriz, gorde.

"Bizi-lagunentzako errespetuz" leku eta pertsonaien izenetan aipatu eragiketak egin izanagatik, gertaera historikoez ari delarik, "benetan gertatu zena" adieraztera doalarik, gertaera historikook denboraren ardatzean kokatu beharrean dago kontalaria. Kokatu zituen, noski.

Ez dago denbora markarik Laztantxu eta Betargiren ezkontza datatzen den arte. Laburpenaz baliatuz, pertsonaia nagusiak aurkezten ditu, baita ezkondu artekoan Laztantxuk bizi izan zituen gorabehera batzuk kontatu ere. Pertsonaiok aurkeztean, izaera, gizarte-maila, joera politiko eta abarren berri ematen du. Badago alderik beren artean gizarte-mailan, baita Laztantxuren familiaren joera politikoa Betargirenarekin bat ez etortzean ere. Eragozpenak dira elkar maite dutelako eta elkarrekin ezkondu gura dutelako. Laztantxuk etxetik ihes ere egingo du Bilbora, baina osaba baten bitartekaritza bide leunduko da Laztantxuren gurasoen jarrera eta elkarrekin ezkondu ahal izango dira: 1935eko urrian ezkondu ziren. Oso zoriontsu dira. Gerra etorriko da, ordea, zorion hori erro-errotik zapuztera.

Ezkontzen direnetik aurrera, data zehatzetako gertaera garrantzizkoren batzuk aipatzera mugatzen da kontaketa: gerra-giroko gertaera aipagarri bat hautatu eta, gertaera aipagarritik hurrengo gertaera aipagarrira jauzi egin. Honako joera honi lotzen zaio kontalaria: nabarmendu nahi den gertaerari data jarri eta, xehetasunen bat edo beste erantsiz, "gelditu" data horretan jazotakoan. Hala, tratamendu hau jasotzen duen gertaera, laburpen eta elipsiez inguraturik, azpimarraturik agertzen da.

Laztantxu eta Betargiren arteko ezkontza da denboraren ardatzean kokatzen lehena, –1935eko urria–, jarraian, Laztantxuren gurasoen ezkontzaren urteurrena, 1936ko uztailaren 18a. Berez, gurasoen ezkontzaren urteurrenaren aitzakiarekin zehazten den data ez dator urteurren hau nabarmentzera, egun berean gertatu zen beste zerbait baino: Gerra Zibilaren hasiera, bikote protagonistaren bizimodua erro-errotik hautsiko duen gertakaria.

Uztailaren 18tik urriaren 20ra arteko ekintzen kontakizuna gerrako gorabeherek harrapatuko dute. Arestian adierazitako jokabideari eutsiz, denboraldi horretako data jakin batzuetan gertaturiko jazoera aipagarria kontatzera mugatuko da. Uztailaren 18tik urriaren 12rarteko jauzia eginaz, "Día de la raza española"ra, "Urraca Pastor" emakume politikariak Arrasturira egindako bisitan bizi izan behar zutena kontatzen da. Urriaren 12a utzi eta, 18an kokatzen da kontaketa; izan ere, altxatuen armadako arrasturiar bat hil zuten Somosierran eta honen aldeko hileta-elizkizuna egin zen Arrasturin: elizako koruan zegoen Betargi bertatik atera eta kartzelara eraman zuten. Elipsi berri bat urriaren 20a arte. Kontalariak data honi astearen eguna gehitzen dio, asteartea. Denboraren ardatza zehaztasunean irabazi ahala, orduan eta estuagoa da pertsonaia nagusien egoera: Betargi, beste kartzeleratu batzuekin batera, kamioian sartu eta Donostiara dakarte.

Urriaren 20ra iristen denean gertaeren kontaketa, denbora-mailako markak metatuz doaz: asteko eguna zehazteaz gain, ordua ere zehazten da. Pertsonaia nagusiaren estuasuna eta larritasuna areagotuz doazen neurrian, denbora-markak pilatuz doaz, gero eta neurketa xeheagoa eginaz. Pertsonaia nagusiak bizi duen tentsioa iradokitzeko bitarteko dira denbora-marka hauek: senarrarekin gertatu dena jakin nahian dabilen Laztantxuren joan-etorri larrien berriei itsatsirik datoz.

"(URRILLAK 20, ASTEARTEA)", "GOIZEKO BEDERATZIRAK-EDO ZIRAN)": Laztantxuk Donostiarako bidaia hasten duen unea da. Jarraian, "DONOSTIAN (arratsaldeko irurak-edo ziran)", "Gabeko zortzirak-edo ziran" atalak datoz, harik eta, azkenean, Ondarretako kartzelara eraman dituztela jakin,

hona joan eta, senarrak egindako gutun batengatik, 500 pezeta ordaindu behar duen arte. "KALBARIUAREN BIGARREN EGUNA (Asteazkena. Oraindik Donostian)", "Eguerdi ingurua zan": Laztantxu Ondarretara doa Betargi bisitatzera. Libre utzi dutela esaten diote, nahiz eta ordurako eraila zuten egunsentian. Laztantxuren harat-honat larri hauek hirugarren egunik ere izango dute, "Kalbariuaren irugarren eguna (osteguna)": Arrasturin senarraren arrastorik aurkitu ez duenez, berriro Donostiara itzuli behar, honen bila segitzeko. "Egia samina"ren berria eskuratzen duenean, bilaketa amaierara heltzen da.

Gertaeren garapena orduen denbora-markarekin zehazteak, Betargi non daukaten jakiteko Laztantxuk egindako joan-etorriak nabarmentzen ditu. Laztantxu Betargiren bila dabilen egunak dira orduen markaren jabe egiten direnak.

Betargi fusilatu eta, Laztantxu gertaera hau ezagutzera iristen den unearen ostean, istorioa bukaerara dator. Fusilamenduek eragindako erreakzioen berri ematea bakarrik gelditzen da: arrasturiarren erantzuna, hain zuzen ere. Familiak, jakina, negar egin zuen, baina Betargi eta honekin batera fusilatu zituzten gainerako arrasturiarrak zerbaitengatik hilko zituztela zioen ahotsik zabaldu zen arrasturiarren artean. "Zerbait" hori bihurtuko da kontalariaren eta Laztantxuren obsesio; zer izan zitekeen "zerbait" hori. Arrasturin bertan frankotarrek egindako basatikeria gehiago erantsiko ditu kontalariak, hala nola herritarrak, –babesa bilatzea debekatuz–, hegazkinetatik jaurtitako bonben eskueran jarri zituztenekoa. Gaineratutako basatikeriok indartu egiten dute kontalariaren eta Laztantxuren ustea eta honela aldarrikatzen dute: "zerbait" egin beharrik ez dago heriotzara kondenatua izateko, ez dute ezeren beharrik nornahi fusilatzeko.

Laztantxuk Arrasturitik alde egitea erabakitzen du. Arrasturi utzi ondoren Laztantxuk aurrera eraman zuen azken ekintza bat gehitzen du kontalariak, istorioa zeharo itxi baino lehenago. Betargiren hilketaren inguruko xehetasunak ezagutzeko Laztantxuk jarraitutako urratsen berria jasoaz bukatzen du istorioa kontalariak; ez horrela, berbaldia; izan ere, epilogo moduan edo, fusilamenduei buruzko argibideren bat edo beste eman ostean, bai Betargirekin batera fusilatu zituzten 22 arrasturiarrez, bai handik gutxira fusilatu zituz-

ten beste 21 lagunez, bai beste fusilatu batzuei buruz, ondorioetara igarotzen da: hiru ondorio hiru kapitulutan barrena adieraziak.

Idazleak benetan gertatu zena kontatzea jomuga izateak eta hartzaileak ere horrela sumatzea nahi izateak –alegia, eskaintzen zaionak egia historikoari erantzuten diola–, beste eraginik ere izan zezakeen kontaketaren moldaketan: pertsonaia nagusiaren aukeraketan erabakigarri izan zitekeen.

Lehen begirada batean harrigarri samarra suertatzen da honakoa atzematea: nola hain heriotza bortitza, bidegabekoa eta dramatikoa izango duen pertsonaia saihestu eta, honen alarguna eraikitzen duen pertsonaia nagusi. *Laztantxu eta Betargi* dio izenburuak, baina, nahiz eta bi izenak juntagailu kopulatiboak lotu, lehena doa Laztantxu. Lehen tokia hartzen duen Laztantxu eraikitzen du, berez, pertsonaia nagusi kontalariak. Berarekin hasten eta amaitzen du zehazki kontaketa dena. Bere urratsak jarraitzen ditu istorioak: ezkontzeko jartzen dizkioten oztopoak, nola gainditzen dituen oztopo hauek... Laztantxuren familia aurkezten du kontalariak eta ez hilko duten Betargirena... Azkenean, fusilamenduak eta Gerra Zibileko beste sarraski batzuk salatzea xede duen kontaketak fusilatu baten emaztea hautatzen du pertsonaia nagusi eta fusilatua bera zeharo bigarren mailan uzten.

Heriotzak, besterik gabe, fusilatua izatearen ondorio izan gabe ere, berebiziko indar dramatikoa dauka. Ikusi besterik ez dago, adibidez, nola Anjel Lertxundiren *Hamaseigarrenean aidanez* (1983) eleberrian pertsonaia nagusi legez eraikitzen den Martzelinak nagusitasun horri ez dion eusten istorioaren garapen osoan: honen senar Domingoren heriotza tragikoak hartzen duen indarrak ahuldu egiten du zenbaitetan andrearen protagonismoa. Gauzak honela, deigarria gertatzen da *Laztantxu eta Betargi*n hilko dutena zeharo bigarren mailan kokatzea eta bera ezagutzeko aukerarik ez ematea. Kausak, seguru aski, kontalariarengan bilatu behar dira, Udalatxeko Ortulauarengan eta honek bere idatzian hartutako jarreran.

Altubek hitzaurrean gaineratzen duenez, "dana dan bezela, zeatz eta garbi" azaltzen duen idazle horrek, Udalatxeko Ortulauak, badu joera politikorik,

nahiz eta, aitortu, ez duen aitortzen: "euskaldun zar geienek bezela, karlista jokera dúala dirudi; aintxiñako karlista, ordea, *Jaungoikua ta Lege-zarra beste banderarik etzuten gure gurasoen gisako karlista*, onen iduriko esakerak maiz errepetitzen baititu" (17. or.).

Altubek hitzaurrean bertan iragartzen du argitaratzera doan kontaketaren jatorrian dagoen idatzia moldatu duen egilearen, Udalatxeko Ortulauaren, joera politikoa: aintzinako karlista, Jaungoikoa eta Lege Zaharra beste banderarik ez zuten gure gurasoen gisako karlista. Bidenabar esanda, karlista mugatzen duen "aintzinako" hori ez da funtsik gabea, testu osoan barrena behin eta berriz errepikatuko baitu kontalariak, 36ko gerra horretan Frankoren agindueta dabiltzan karlista guztiak ez dutela gordetzen "aintzinako" karlisten goiburua, ezta portaera-modua ere. Aintzinako karlisten ondoan karlista berriak agertu dira, gogor gaitzesten dituen karlista berriak:

> Eta zuek, karlista berriok, EUSKAL-GORROTOTZAILLE oiekin, burua batbat egín dezute euskal-anaien kontra; Kainek Abel-en kontra bezela... (111. or.).

"Dana dan bezela, zeatz eta garbi" kontatzeko asmoa aitortzen zaionez kontalari honi, beharko du iturri zuzenik, berriemaile zuzenik, gertaerak ezagutu eta zehaztasunez aditzera emango dioenik, kontatzen duen guztiaren lekuko nekez izan baitzitekeen bera.

Badirudi Udalatxeko Ortulaua karlista dela. Karlistak ziren, halaber, Laztantxuren gurasoak eta hortik izan zezakeen kontalariak familia honen ezaupidea. Betargi, berriz, abertzalea zen. Dena den, modu batera ala bestera, Laztantxu nahitaezko berriemaile du Udalatxeko Ortulauak; izan ere, kontatzen dituen hainbat gertaera pertsonaia honek bakarrik ezagutzen ditu: esaterako, Laztantxuk bakarrik zekizkien Betargiren berri izateko egindako gestioak. Beraz, "dana dan bezela, zeatz eta garbi" kontatu ahal izateko derrigorrezko zuen Laztantxuren lekukotasuna kontalariak. Hala, *Laztantxu eta Betargi*n zehatz-mehatz Laztantxu eta Betargiren istorioa dena alargunarengandik jaso zezakeen Udalatxeko Ortulauak: hortik Laztantxu pertsonaia nagusi eraikitzea, Laztantxuren

familiari buruzko albisteak biltzea... Egia historikoari leial izateak eta hartzaileari ere hala jokatzen duela sinesgarri egiteak ezarritako baldintza izan daiteke.

Zinez, atxilotzen duten unetik aurrerako berririk ematerik ez zuen Betargik, bai ordea, Laztantxuk. Honen ekarria funtsezkoa zen istorioaren alderdi batzuk agerian jartzeko, bestela ez baitzegoen ezagutzerik Betargirekin eta honekin batera atxilotu zituztenekin gertaturikoa. Kausak kausa, *Laztantxu eta Betargi*n Laztantxuren gorabeherak kontatzen dira, gerra-garaiko beste zenbait gertaera eta hauei buruzko iruzkinekin batera eta, fusilatzen duten Betargi, fusilatu bat izatera mugatzen da, ia berarekin fusilatu zituzten beste 22 arrasturiar haien pareko: pertsonaiari ez zaio erliebe handiagorik ematen. Udalatxeko Ortulauak benetan gertatu zena adieraztea zuenez jomuga, gertaera horien lekukoa behar zuen, gertaera horiek bizi izan eta konta zitzakeena. Baldintza honek, jakina, ez zion eskatzen, ezinbestean, Betargi hainbeste alboratzea: alargunarengandik eskura zezakeen senarrari buruzko xehetasun gehiago eta, horrela, fusilatzen dutenari ere sendotasunen bat eman ziezaiokeen kontaketan.

Azken finean, dela ardatz historikoari estu eusteak ezarritako morrontzengatik, dela gerra-garaiko basatikeriak salatzearekin aski izateagatik, salaketa egiteko moduaz gehiegi arduratu gabe, dela fusilamenduen egileak agerian jartzea fusilatuen berri ematea baino garrantzitsuagoa izateagatik, dela aipatutako arrazoi guztiengatik, nahiz besteren batengatik, kontua zera da: kontaketaren izenburura eraman arren fusilatzera doazenaren izena, gero, kontaketan barrena ez dela batere nabarmentzen; izan ere, abertzale eta Laztantxuk asko maite zuen mutila izatera mugatzen dira berari buruzko berriak. Istorioaren gunean dagoen pertsonaia, Betargi, berbaldiak, diskurtsuak, periferian kokatzen du. Gerra-garaiko fusilamenduak eta gainerako sarraskiak salatu nahi dituen istorioak, berbaldiaren, diskurtsuaren periferiara darama fusilatua.

1.2. *Salaketatik jokabideak arautzera*

Altubek salatu egin nahi ditu gerra-garaiko gertaerak, bereziki fusilamenduak. *Laztantxu eta Betargi*ra ez darama gudu-zelaiko kronika bat, ez darama

elkarren kontra tiroak jaurtiaz dabiltzanen arteko gatazka eta gatazka honek eragindako oinazea. Gerrak izan zuen beste alderdi bati heltzen dio: gerra-ekintzetan parte hartu ez izanagatik, epaiketarik gabe heriotzaren zigorrera kondenatu zituztenen berri eman nahi du. Berri eman eta, gertaerok salatu.

Kontatzen dituen gertaeren bidegabekeria, lehen-lehenik Txantonen ahotsean adierazten da:

> Karlista oiek, ongi dákite, Arrasturin, gerra-arazoetan ari-izan diran guziek, alde-egin dútela; emen eztala gelditu jende baketsu, umil eta on-ona baizik; oiek eztutela zer-ikusirik, ez gerra odoltsu orrezaz, ez beste ezetariko burrukaezaz. ¿ Eta, gizajo oien kontra jáurtitzen dituzte gorrotozko itz bildurgarriok? (49. or.).

Aurrerago kontalariaren ahotsean entzun daiteke:

> Gorago esan degun bezela, Frankotarrak Arrasturin sartu ziraneko, oien etsai, ZERBAIT (?) egin zezaketen guziek, alde egín zuten erritik. ¿ Zer egin bear zuketen, beraz, an, konpiantzan gelditu ziran mutil gizajoek? (88. or.).

Giltza nagusia hor dago, etsaien kontra ezer egin ez dutenak, atxilotu eta, inolako epaiketarik gabe, fusilatu izanean:

> ¿Olako basatikeriak Franco-ren etsaiek ere egin dituztela esango dezute? Euskalerrian éz; emen, Gobernuak edo Gobernu-peko buruzagiek aginduta, banarik ere ez; Eliz-gizonik ez ezik, Erri-gizonik ere ez (108. or.).

Gerrak ere bere joko-arauak ditu. Joko-arau hauek hautsi egin dituzte Frankoren aldekoek Arrasturin eta, oro har, Euskal Herrian. Zeinahi eskubide ezin du urratu gerrak: horra hor Altuberen salaketa.

Berez, Altubek argitaratutako kontaketaren izateko arrazoia ez dago kontatzeak nahiz kontaketak irakurtzeak sorrarazitako erakarmenean, baizik eta salaketan –gerrako sarraski eta hauen egileena– eta, salaketa honetan oin hartuz, ideario bat azaltzean.

Istorioa aitzakia da. Batetik, Arrasturin gerraren lehen hilabetetan altxatutakoek egin zituzten sarraskien kontaketa etengabe komentatzen du; bestetik, istorioa amaierara heltzean, berbaldi narratiboaren tokia berbaldi diskurtsibo soilak hartzen du kontaketa horretatik ateratzen diren ondorioak adierazteko. Ondorio horiek hiru multzotara biltzen ditu Altubek, lehena, "Euskal libertadeari eta euskalerritarren birtuteai dagokiena", bigarrena, "Laztantxuri ta Betargiri dagokiena" eta hirugarrena, "Apaiz fusillatuei dagokiena". Ondorio hauek jasotzea da istorioa kontatzearen jomuga nagusia. Laztantxu eta Betargiren istorioa ondorioak finkatzeko bitarteko bihurtzen du.

Altubez diharduela, honela dio Aita Villasantek:

> En los largos años de exilio fue presa de escrúpulos y ansiedades de conciencia, ocasionados por motivos religioso políticos[6].

Kontaketa honetan ere islatzen ditu kezka politikoak eta erlijiosoak. Ondorioen mailan, gainera, biak uztartzen ditu.

Hasteko, Laztantxuren zenbait unetako sentipenak azaltzeko motibo erlijiosoen erabilerara jotzen du. Kalbarioaren motiboaz baliatzen da, ez bakarrik kapituluren bati izenburua jartzeko, baita kapitulu barnean ere: behin baino gehiagotan agerrera egiten duen motiboa da. Esaterako, Laztantxu, senarra Donostiara dakarkion kamioiaren atzetik autoan txoferrarekin doanean, Ama Birjinak Kalbarioko bidean egindako bidaia datorkio gogora kontalariari:

> ¿Ez al-digu orrek gogora arazten, arako oiñazerik eta nekerik aundieneko beste bidaia bat? Alegia, Ama-Birjiñak, Kalbario-bidean-gora, bere Seme Zerutarraren atzean, biotza zatiturik, egin zuan bidaia ura? (54. or.).

Edo senarra ez dutela askatu egiaztatzean, Arrasturitik atzera Donostiara itzultzen denean, berriro Jaunaren Nekaldiko irudi batera jotzen du kontalariak:

> Izan ere, arrizko biotza beár zukean iñork, Laztantxuren aurrean, zer gertatu zan esateko. Laztantxuk, arpegia, garden: zuri

[6] Villasante, Fr. Luis (1979): *Historia de la literatura vasca*, Editorial Aranzazu, Burgos, 425. or.

> eta eder zúan; baiña Amabirjiña Doloretakoak bezela, biotza *zazpi ezpataz* zulatua zeukalarik, begitartea, oiñaze mingoitzez, errukigarri markatua agiri baitzuan (77. or.).

Nahiz Kristoren Nekaldiko irudiez baliatu, nahiz beste irudi erlijioso batzuez, Laztantxuren egoera irudikatzeko, betiere, Ama Birjinaren bizitzako uneren bat gogoratzen du kontalariak:

> Len bizi, *nere sabeleko frutu bedeinkatua, Iñigotxo*, alako lilluraz amestua, ill zitzaidan jaio zaneko (93. or.).

Bestalde, kontaketara dakartzan fusilamendu eta sarraski guztiak gogor arbuiatzen dituen arren, fusilamendurik ulertezinenak eta gaitzesgarrienak apaizenak lirateke: sakrilegioaren kategoria dagokie. Apaizen fusilamenduak eragindako gogoeta bati baino gehiagori tartea irekitzeaz gain, Eliz Agintari baten idatzia darabil bere iritziak indartzeko. Zehazki, M. Mujika gotzainak 1945ean ezagutzera emandako "Imperativos de mi Conciencia" behin eta berriz aipatzen du. Hala, Arrasturin fusilatu zituzten hiru apaizen gainean agiri horretan adierazitakoa hitzez hitz jasotzeaz gainera, Ariztimuño abadearen martirioaz esaten duenari ere, leku egiten dio. Hirugarren pasarte bat ere hartzen du, altxatuek beren mendean zituzten hainbat herritan eragin zituzten hilketei buruz diharduena, hain juxtu. Hitzez hitz jasotako pasarte hauekin batera, bada beste erreferentziarik ere: agiri horrek altxatuek Euskal Herrian hil zituzten beste 11 elizgizon eta kartzelaratu zituzten 200 apaizen berri ematen duela adierazten da.

Barruti erlijiosoak idazlanean egiten duen agerreraz beste aipamenik ere jaso daiteke. Ondorioen azalpena amaierara heltzean, kontalariak adierazten duen nahia lekuko: Udalaitzen Gurutze handi bat eraiki martiri guztion gomutagarri.

Beraz, mundu erlijiosoa, testu osora hedatuz, leku nabariaren jabe egitera heltzen da *Laztantxu eta Betargi*n.

Altuberen eleberriak, azken finean, gertaera batzuen salaketa giza komunitate baten nortasuna finkatzeko –euskaldunena– bitarteko bihurtzen du. Nortasun horren euskarri nagusietakoa kristau sinesmena da.

Giza komunitate horretako bizilagun guztiek ez diote eutsi nortasun horri; izan ere, aitortzen du Euskal Herriak beti izan dituela seme txarrak, erdaldunei Euskal Herria zapaltzen lagundu dietenak, baina, seme txar horietako bakoitzaren kontra gutxienez mila euskaldun zintzo agertu direla egiaztatuz, euskal semeak erakusten duena mugatzen du:

> 1º Gu, geure gurasoai jarraituz, giza libertadeen errespetatzaille benetakoak gerala.
>
> 2º Euskal-Kristautasuna, egiazkoa degula. Jesukristok irakatsi bezela, etsaia ere maite izatekoa; Kristau eztiranak, ezpataz gabe, maitasunaz eta ejenplu onaz geureganatzekoa (112. or.).

Honela bada, euskal eleberrigintzaren ibilbidearen argitan atzematen bada Altuberen idazlana, agerikoa da ez duela hausten mende erdi luzean genero honetako testuek adierazitako mundu-ikuskerarekin. Euskaldunaren jokabideak arautzeko leku izaten jarraitzen du euskal eleberriak. *Laztantxu eta Betargi*n karlista zaharren eredua hobesten da (eta ez Frankorekin bat egin duten karlista berriena). Zorionez, gerrate horretan izan dira eredu horrekin bat egiten dutenak:

> Gerrate ortan, orraitio, karlista zaarren legez jokatu duten euskaldunak ere, bá-ditugú, zorionez: Euskal-Abertzaleak (109. or.).

Helburu didaktikoaren menpe, igorri nahi diren mezuen adierazpenak etengabe harrapatzen du istorioa. Kontaketa etengabe iruzkintzen joatea aski ez eta, kontalariak, kontaketaren amaierara iristean, berbaldi narratiboa baztertuz, berbaldi diskurtsibo hutsari heltzen dio, oraindik gehiago nabarmenduz, istorioaren kontaketa bitartekoa izan dela Arrasturiko gertaeretatik ikasi behar dena azaltzeko: Arrasturin gerraren hastapenetan bizi izan zituzten gorabeherak aitzakia ditu euskaldunak izan behar dituen jokabideak arautzeko.

Ez du nahiko egia historikoaren berri ematea egostearekin kontatutako istorioari; izan ere, egian oinarritutako istorioa aldarrikapen jakin baten euskarri bihurtzen du. Istorioaren bidez salaketa egin, gerrako legeak zenbateraino urratu diren azalduz eta nortzuk izan diren urratzaileak agerian jarriz, ondorioetan ikasgaia jasotzeko. Ikasgaiak bere ideiak azaltzeko aukera ematen dio.

2. Martin Ugalde: "Gizerailtza" (1961)

Gerrari buruzko hurrengo berriak ere erbesteratu baten eskutik eta erbestetik datoz: Martin Ugaldek Venezuelan eman zuen argitara *Iltzailleak* (1961). Bost ipuinez osatua, lehenak, "Gizerailtza"k, gerra garaiko oroitzapenak dakartza.

Badago antzekotasunik Altuberen *Laztantxu eta Betargi* eleberriaren eta Ugalderen "Gizerailtza" ipuinaren artean. Kidetasunak bilatzen hasi eta, aurki daitezke batzuk. Batetik, biak gerra-egunetan kokatu eta, herri jakin bateko gertaerez ari dira; bestetik, biek "herri-gizonen" erailketaz dihardute; alegia, gerraren joko-arauak urratuz egindako erailketez: beren herrian "egunoroko bizimoduarekin" jarraitzen zuten gizonen erailketez. Andoainen, Arrasturin bezala, gizonak kamioietan sartu, norabait eraman eta fusilatu egiten dituzte.

Ekintzetan –gizerailtzak– eta ekintzon garapen-garaian –Gerra Zibila– eta garapen- lekuan –herri jakin bat– ez ezik, ekintzon egileak –frankotarrak– eta jasaleak –abertzaleak– seinalatzerakoan bat datoz. Baita ekintza horien jasaleak karakterizatzeko moduan ere: antzera karakterizatzen dituzte fusilatuko dituzten pertsonaiak. Betargi bezain zintzoa da Nemexio:

> Nemexio herrian zen gizonik onenetakoa zen. Elizkoia, sendi maitea, inori kalte egin baino lehenago edozer gauza egingo lukeen gizona. Abertzalea bai, fina; egiazko gizonari dagokion senide maitasunarekin batera bere hizkuntza eta herriarekin jarraiki izan zen gizona[7].

Gizon zintzo hauen erailketek ere antzeko bakardadera kondenatuko ditu alargunak. Herrikideak Laztantxu babestu zuten beste babestuko dute Iñaxi, Nemesioren emaztea, honen herrikideak. Horrela hil bazituzten zerbait egingo zutela entzun behar du Laztantxuk han eta hemen. Antzeko erantzuna jasotzen du Iñaxik bere herrikideengandik:

> Herritarrak, ia anaiak, Nemexio hain ondo ezagutzen zuten euskotarrak, euskaldunak (odol bera, hizpide bera) eta haiek

[7] Ugalde, Martin (1985): "Gizerailtza", *Hiltzaileak*, Erein, Donostia, 16. or.

> ez zeukatela ezer egiterik. Zergatik sartu zen politika gauzetan, zergutxiagotan!... "Naxionalista bazen, hor konpon; berak ikusiko zuela zer egiten ibili zen!" (20-21. or.).

Era berean, nola Altuberentzat, hala Ugalderentzat, gatazkaren alde batekoek eta bestekoek ez zituzten jokabide berdinak erakutsi. Altubek adieraziko du Eusko Jaurlaritzak ez zuela mendekurik hartu atxilotuta zeuzkan presoekin, hartarako egokiera zeukanean. Alegia, altxatuen basatikeriak ez zituela ordaindu txanpon berdinarekin. Bat dator Ugalderen ikuspuntua ere. Honela mintzo da Iñaxi, Nemexioren emaztea:

> Zer egiten ibili den?... Zuek ez al dakizue? –esan omen zien Iñaxik. –Eta halako pekatua al da bada abertzalea izatea? Zu ere Karlista zinen beste horiek sartu baino lehenago, baina ez zizuten horregatik kalterik egin (21. or.).

Alabaina, fabula-mailakoak dira berdintasunak: herrian ziren gizonik onenetakoen erailketaz eta gizon hauen alargunei herritarrek ukatutako babesaz dihardute. Osterantzean, bada alde nabarmenik fabula testura eramateko moduan, fabula egituratzeko moduan.

Aldea izenburutik bertatik hasten da. Erailketa salatu nahi dute bi kontaketek. Horretarako *Laztantxu eta Betargi* mamitu zuen Altubek, "Gizerailtza" Ugaldek. Lehenak, jadanik azaldu den legez, Laztantxu du protagonista, erailgo dutenaren emaztea; aitzitik, besteak, gizerailtza du protagonista; izan ere, Nemexioren erailketa, kasu bat baino ez da; kontalariaren ezaguna izateak bakarrik bereizten du gainontzekoengandik: kontalaria zelatan zela, Tolosako kanposantuan fusilatu zituzten zortzi lagunetako bat da Nemexio. Zinez, Altuberen eleberrian ere, Betargi ez da fusilatuko duten bakarra, baina bere izen propioa darama izenburura; Ugalderen ipuinaren izenburuak, berriz, guztiak biltzen ditu.

Ikuspuntua desberdina da. Ugalderen ipuinaren kontalariak lehen pertsonan eta lekuko moduan kontatzen du. Pertsonaiak ezagutzen ditu eta hauen berri eman dezake, baita gertaeren berri ere, bizi izan dituelako. Hamalau bat urteko mutiko hau Nemexioren etxean zegoen honen bila etorri zirenean;

gero, fusilamenduen lekuko izan zen Tolosako kanposantuan. Beste ikuspuntu batetik helarazten du istorioa Altubek aurkeztutako kontalariak: Udalatxeko Ortulauak "dana dan bezela, zeatz eta garbi" adierazi arren, hirugarren pertsonan kanpotik kontatzen du, kontalari orojakile legez. Ugalderen lekukoak bere begiekin ikusitako gertaerak testuratu dituen bitartean, Udalatxeko Ortulauak "dana dan bezela, zeatz eta garbi" testuratu izanagatik, ezin beregana dezake kontatutako jazoera guztien lekuko izatearen ezaugarria.

Ugaldek istorio soilaren kontaketaren bidez igortzen ditu gerra-garaiko basatikeriak. Altubek eta Ugaldek, biek, gatazkaren alde berdinean kokatuaz, altxatuek egindako basatikeriak kontatzen dituzte. Biek salatzen dute basatikeria, salaketa egiteko moduan dago aldea, ordea: Ugaldek istorioaren kontaketa hutsarekin aski du horretarako, Altubek, berriz, ez; izan ere, istorioaren kontaketa uneoro iruzkintzeaz gainera, ondorio batzuk ateratzeko aitzakia bihurtzen du. Gaiaren aurrean jokabide desberdina hartzen dute batak eta besteak. Basatikeria aurkeztearekin aski du Ugaldek; aitzitik, Altubek hartzailea konbentzitu egin nahi du aurkezten ari zaiona basatikeria denaz.

Ugalderen ipuinaren hasierak berak salaketa asmo literariodun testu batez egingo duela iragartzen du:

> Tolosa aldetik bazetozela!
> Billaboraino heldu zirela!
> Amasa bidetik sartu eta Nafarroa aldetik zetozen beste karlistekin batera Belabietatik behera, Goiburutik barrena, trenbidetik zehar, faszistak bazetozela...! (11. or.).

Etorrera honek eragindako sentimenduak (beldurra, izua...) aipatu ere egin gabe, sentimendu horiek igortzeko ahalmena duten esaldiez baliatzen da. Mintzaira ez du bakarrik zerbait esateko bitarteko, baita etengabe iradokiz joateko ere. Elementu erredundanteak ezabatzera jotzen duen mintzaira darabil: hitzak deuseztatzen ditu, eman nahi duen informazioa deuseztatu gabe. Erredundantziak ezabatzeko joera duen testuinguruan kokatutako adierazpena nabarmendurik gelditzen da.

Aditzaren ezabaketari, kasu, etekin handia ateratzen dio:

> -Hernanira, azkar!...-gure aitaren oihua (11. or.).
> -Eta gu, etxe atarian ia esku hutsik (11. or.).
> Kamioi baten gainean, ia nire kideko mutil bat (13. or.).

Batik bat esaldi laburrak osatuz eta esaldi labur hauetan elementu erredundanteak ezabatuz, presa, larrialdia, urgentzia, estuasuna, egonezina... helarazten ditu. Hala, esakuntzak eta esakuneak bat egiten dute: enuntziatuarekin uztartzen den enuntziazio modua darabil. Alegia, faszisten etorrerak eragindako efektuez jarduteko, urgentziaren eta estuasunaren sentimenduak igortzen dituen mintzaira-modu batera jotzen du. Gisa horretan, lehen pertsonan kontatzen duen kontalariak sentitzen duen estuasuna, hartzaileari transmititzea lortzen du.

Altubek eta Ugaldek testuratutako heriotzak gerra-tokikoak gabe, fusilatzen dituzten herri-gizonenak izatean, heriotzaren kausa oraindik askoz latzagoa da. Batak eta besteak gertaeraren basatikeria agerian uzten dute. Ugaldek, besteak beste, honako galdera erretoriko hauen bidez:

> Nor zen hango epaile?
> Nor eraile?
> Fusilak zituztenek al zuten arrazoin?
> Eta Jaungoikoa, non ote zen? (25. or.).

Ugaldek basatikeria nabarmentzen du, baita, beste era batean, batik bat kontalariaren iruzkinen bidez, Altubek ere, baina Altube basatikeriaren agenteak agerian jartzeak gehiago arduratzen du.

Nemexio eta beste lagun batzuen fusilamenduaren lekuko delarik, Ugalderen ipuinaren kontalaria, honakoa esatera iristen da:

> Alde batekoak erori beharrean, bestekoak erori izan baziren
> berdin irudituko zitzaigun guri (25. or.).

Gertaera bera salatzen du, zeinahi delarik ere gertaeraren egilea. Altuberentzat, ostera, berebiziko garrantzia du egileei mozorroa kentzeak: egia batzuk azaldu nahi ditu, historia ez dadin nolanahi kontatu.

Altubek hitzaurrean bertan adierazten du esku artean duen lantegiarekin lortu nahi duen xedea: Arrasturin gerra-garaian bizi izan zituzten zenbait gertaera azaldu, Anbotoko sorginen lan gaiztoei erremedioa jartzeko. Hots, gerrako gertaeren gainean gezurrak eta azpikeriak biderik egin ez dezan heldu dio zereginari. Nork jokatu zuen zintzo eta nork ez argitzea funtsezkoa da. Egia historikoa jakitera ematea da Altuberen helburua. Gertaera historikoez diharduenez, datatu eta guzti egiten ditu: Betargi 1936ko urriaren 21ean hil zuten. Ugaldek beste modu batean aurkezten du testua: ipuin bat da kontatzera doana. Lehenak historiaren ardatzean kokatzea bilatzen du, bigarrenak, berriz, fikzioarenean. Honenbestez, lehenari egia historikoa kontatzea dagokio, ez horrela, bigarrenari, gertaera errealak eraman arren kontaketara. Nor bere planteamenduaren eskakizunei lotu zitzaion: Altubek testuaren aurrean hartzen duen jarrera, historiaren ardatzean lekutuz, benetan gertatu zena kontatzekoa da, nork zer egin zuen argi gera dadin eta ikasi beharreko ikasgaiak ikasteko. Aldiz, fikzioaren ardatzean kokatzen den Ugaldek ez du zorrik historiarekin: literatura egitea agintzen du.

Jakina, esan beharrik ere ez dago: fikzioaren ardatzean kokatzeak ez du ukatzen benetan gertatu ziren jazoerak testuratzea. Fikzioak ez du baztertzen gertaera errealez jardutea, gertaera erreal horien berri modu gordinagoan ez ezik, modu eraginkorragoan, hunkigarriagoan, zirraragarriagoan... emateko ahalmena du, gainera.

Altubek Udalatxeko Ortulauaren paperak eman zituen ezagutzera Arrasturin zer gertatu zen jakin zedin eta inork desitxura ez zezan. Ugaldek, ostera, "konduak" idatzi zituen: hala zioen 1985eko argitalpenari egindako hitzaurrean, nahiz eta hitzaurre horretan bertan aitortu, "gerra gaizto hura zela kausa gertatu ziren pasarte batzu gogora"[8] zekartzala. Azken batez, Altubek eta Ugaldek jarrera desberdina hartzen dute testuaren aurrean eta gonbit desberdina luzatzen hartzaileari. Biak ari dira gertaera errealez, baina, bata, egia historikoaren kategorian kokatuz eta, bestea, "konduenean". Ondorioz, testura hurbiltzera doan hartzaileari luzatzen zaion gonbita desberdina da.

[8] Ugalde, Martin: "Hirugarren hitza", *Hiltzaileak*, 7. or.

Biek salatu izanagatik basatikeria, biek jarri izanagatik agerian basatikeria horien egileak, jomugak bereizten dituen kontaketak dira: Altubek hitzaurrean argiro adierazten du helburu didaktikoa duela eta istorioaren kontaketa irakaspenaren menpe jartzen du; Ugaldek, ordea, ez du helburu didaktikorik, gehienez, gertaera batzuen bidegabekeria erakusteari lotzen zaio, hartzailearen esku utziz epaia. Biek jasotzen dute gertaera batzuen akta. Haatik, bata akta jasotzera mugatzen den bitartean, besteak ez du aski horrekin. Zinez, ez dago erabat inozoa den aktarik, idazketaren ekintza ez delako inozoa, baina, bada alderik kontaketa soila aurkeztearen eta kontaketa aurkezteaz gain, kontaketa hori nola jaso behar den ezartzearen artean.

3. Sebastian Salaverria: *Neronek tirako nizkin* (1964)

Gerrateaz diharduen lehen kontaketa 1964an argitaratuko da Hego Euskal Herrian: Sebastian Salaverriak idatzitako autobiografia da. Autobiografia, egilearen haurtzaroko oroitzapenekin hasi eta, gerra-egunetaraino heltzen da, gerrate horretan egindako ibilerak kontatzeko, harik eta zauritua izan eta, zauriotatik osatu ostean, medikuek aurrerantzean ez dela gerrarako gauza izango epaitzen duten arte. Geroztik izan duen bizimoduaren berri laburra emanaz ixten du idazlana.

Beraz, 1964arte ez da plazaratzen Hego Euskal Herrian gerraz ari den kontaketarik. Hegoan argitaratutako lehen kontaketa honek, estreinakoz, altxatuen aldekoen ibilerak kontatzen ditu; izan ere, Sebastian Salaverriari soldadutza egitea suertatu zitzaion egun haietan eta, hortik etorri zitzaion gerrara joan beharra. Ordu arte, berriz, gerrako albisteak jaso zituzten kontaketek, nahiz honek ekarritako ondorioez jardun zutenek, gatazkaren beste aldetik ikusia zuten gaia.

1964ko "Agora"ren "Guipúzcoa" nobela-saria irabazi ondoren argitaratzen da, izenpetu gabe doan hitzaurre batekin. Hitzaurre horretan esaten denez,

> Oso nobela errikoya da, asieratik bukaeraño euskal errikoitasun garbi-ederrenez jantzia, bai sentimentuz eta bai izkeraz ere[9].

Hizkera herrikoiaz baliatuz, bere bizitzako pasadizoak kontatzen ditu. Pasadizo horietan eraikitzen den pertsonaia, barne-barnean berebiziko konformidadea daukana da.

Konformidadea haurtzaroan. Pobreziatik eta ezbeharretik urrutiratzea lortzen ez duen familia batean jaioa, egundoko eroapenarekin, lantu eta kexu handirik gabe, darama bizitzak eskaintzen diona. Eskaintzen diona, bai, ez baitu jarrera errebelderik edo arranguratsurik erakutsiko: gauzak datozen bezala hartzeko konformidade itzela dario. Halaber, hainbat oroitzapenek agertzen dutenez, ezer gutxirekin pozteko eta gozatzeko ahalmena dauka. Oroitzapen horietako bat, ama gogoan, mutil koxkor garaitik berreskuratzen du:

> Etzait aztuko bizi naizen arte, hamaika t'erdiak inguru ortan nola ematen zigun ogi-puska bana eltzean bustita. Ura bai zala gauza gozoa! (19. or.).

Negar egin zuen mutikotan, aita, jarraian osaba eta handik lasterrera ama hil zitzaizkionean: guztiak bi urteren buruan. Heriotza horien ondorioz familia sakabanatu egin zen. Sebastian morroi joango da baldintza eskas samarretan; izan ere, jai eta aste lan egin arren eta, horren truke, soldata agindua izanagatik, ez diote ordaintzen. Behin baino gehiagotan hartuko du baserri batetik besterako bidea, bere egoera hobetu nahian. Bertsozalea da eta, aukera dagoenean, bertsoaz gozatzea gogoko du. Gisa honetako bizimodua darama gazte-denboran.

Horretan gerra iritsi zen. Belar oso motzean hazitako eta hezitako mutil honek antzeko konformidadearekin eramango du gerra ere[10], nahiz eta beldurra ematen diola aitortu:

---

[9] "Itzaurrea", Salaverria, Sebastian (1964): *Neronek tirako nizkin*, Auspoa liburutegia, 38, Donostia, 7. or.

[10] "Zer egingo diagu ba? Aingeru Guardakoak zaitu gaitzala ordu guzietan!" (68. or.).

> Alako batean, bialdu zidaten Donosti-ko Ayuntamentutik soldaduskara joateko papera. (...). Gerrak beti eman izan dit beldurra (63. or.).

Bost egunengatik harrapatu zuen 36ko kintak. Pamplonan egin zuen instrukzioa. Iruñeako soldadu-bizitzaren hainbat pasadizo kontatzen ditu: instrukzioan baldarrak zirenen inguruko pasadizoren bat, irakurtzen ez zekien soldaduaren pasadizoa eta abar.

Martxoaren 4an atera ziren Pamplonatik Vitoriara. Orduan jaso zuen gutun baten arabera, Joxe eta Antonio bere anaiak Frantziara joanak izan behar zuten, beraiek ez zutelako gerrarik behar. Kaximiro, ordea, "kontrarioen" aldean zeukan:

> Bañan, kartan esaten zidatenez, Kaximiro euzkotarrekin Bizkai aldera joana zan.
>
> Arrezkeroztik, beti kezka orrekin ibili nintzan nere gerra-denbora guztian: ia nere anai ori nunbait arkitzen ote nuan ilda, erituta edo prisionero eginda (78. or.).

Beraz, aurretik zituen albistetan aldaketak zeuden:

> Eta andik laister jakin nuan, gure iru anai ere, Kaximiro, Joxe eta Antonio, Bilbao aldera joanak zirala (58. or.).

Demokratikoki hautatutako agintea defendatzen zutenak ziren, posizioak galduz, Bilborantz eginaz zihoazenak. Frentera abiatu aurretxoan jasotzen duen gutunak zera argitzen dio, anaia bakar bat izango duela "kontrarioen" aldean.

Vitoriatik frentera. Zauritu zuten arte frentean egin zituen ibileretan, bi sentimendu gailentzen dira. Batetik, igarotzen zituzten herri eta auzoek erakusten zuten itxurak sorrarazten zion tristura eta, batik bat, "euzkotarrekin" joandako anaiaren oroitzapena: hildakoak lurperatzea agintzen diotenean eta, oro har, hildakoak ikusten dituenean, hilik dagoen horietakoren bat bere anaia ote den begiratzen du. Soldadu-lagunei aitortzen dienez:

> Auxen izango ukek munduan izan leiken gauzik tristeena, sekulan ezer izan ez degun anayak alkarri tiroka batak bestea iltzea! (85. or.).

Bizi izandako anekdota desberdinak pilatuz mamitzen du autobiografia hori: behin gertatu zenari, beste behin gertaturikoa erantsiz. Jokabide berdina jarraituz kontatuko ditu gerrako pasadizoak ere. Gerrako ibileretan bizi izatea suertatu zitzaizkion pasadizo desberdinak metatuz aurreratzen da kontaketa:

> Egun batez zerbait festa bazan, eta Donosti-ko Orfeoya eraman zuten (75. or.).

> Emen gure kaboarena esango det (115. or.).

Pasadizo-bilduma legez antolatu duen kontaketan, behin batean jazotakoari, hurrengoan eta hurrengoan jazotakoa batuz josi duen kontaketan, apenas dago "errepikapenik": kontaketa singulatiboaren eta iteratiboaren gainean eraikitzen da, kontaketa errepetitiboari oso tarte txikia eginaz. Horregatik, hain zuzen ere, "errepikapen" urri horiek oraindik azpimarratuago ageri dira.

Maiztasunen batekin –ohiko bizimodua– eta behin bakarrik gertaturiko jazoerak behin bakarrik kontatuz aurreratzen da istorioa. Gerrak dakarren triskantza, txikizioa eta heriotza nabarmentzen ditu, jakina; izan ere, frentean egindako mugimendu bakoitzak antzeko erretratua eskaintzen dio, paisaia horretan bizi den pertsonaia nagusiari. Dena den, paisaia hori egunero ikusteak ez du eragiten gerrari buruzko galderarik edo gogoetarik pertsonaiarengan. Honen memorian behin eta berriro presente egiten den oroitzapena, Kaximirorena, anaiarena, da:

> Gure Kaximiro ere emen ibiliko dek ba nunbait! Au ere marka izango dek! Beti ain alkar maiteak izan gaituk eta orain emen alkarri okerren bat egin bear ote diogu? (111. or.).

Honetan Yurrera heltzen dira. Yurren zauritu zuten Sebastian Salaverria. Zauritu zutenekoa xehetasun dezenterekin kontatzen du, ordu arteko joera nagusia, ñabardurak alde batera utziz, gertaeren berri ematea izan denean. Pasadizoen

pilaketa, pasadizoak xehe-xehe adierazteari gainezartzen zaion testuinguruan, zauritu zutenekoaren kontaketa xeheagoak kontrastatu egiten du.

Yurreko jazoerak dira ñabardurarik handienarekin kontatzen dituenak. Gertaera hauentzat gordetzen ditu, halaber, gudu-zelaiko irudirik bortitzenak:

> Kontrarioak, ordea, tira zuten kañonazo bat, eta soldadu asko zegoan tokira erori zan granada, eta soldadu asko il zituan, mandoak ere bai. Gizonen puskak arbolen gañetan ikusten ziran, eta beste asko erituta karraxika. Ematen zuan azken juizioko eguna zala. Bazter guztiak erretzen ari ziran eta lurra berriz illez eta erituz estalia.
>
> Gure konpañikoak gutxi izan ziran bizirik geldituak. Geyenak il egin ziran, eta bizirik gelditu giñanak ere erituta. (123-124. or.).

Yurren bada nobedaderik gerrako ibilerei eskainitako kontakizunean, ez bakarrik forma mailan, baita eduki-mailan ere. Seguru aski, forma-mailako aldaketa txiki horien eginkizuna edukiak dakartzan nobedadeak nabarmentzea da. Noiz jantziko gertaerak xehetasun gehiagorekin eta noiz azalduko paisaiarik odoltsuena eta, juxtu, zauritzen dutenean eta frentean dabilenetik galtzen duten lehen batailan, Yurre arteko borroketan "kontrarioak" joan baitira ihesi eta ihesi.

Azken batez, gerrako ibilera hauetan alderdi pertsonalak dira gehien azpimarratzen direnak. Gerrak eragindako hondamendien gainetik. Batetik, zauria eta, bestetik, anaiaren oroitzapena dira Sebastianen memorian behin eta berriz presente egiten direnak. Eta biak uztartzen ditu izenburuak.

Konpainian euskaraz ez zekitenak zeuzkanez, errealitate linguistikoa islatu nahian edo, estilo zuzenaren erabilerara jotzen duenean, maiz gaztelaniaz baliatzen da. Gaztelaniaz testuratutako esaldi horiek ez ditu euskaratzen. Hori da kontaketan barrena eraikitzen doan araua, behin bakarrik hausten duen araua, hain zuzen ere: zauritu osteko une bakar batean heltzen dio gaztelaniaz esandakoa euskaratzeko lantegiari. Bera zauritua dagoelarik, teniente mediku

batek mando batean jaitsi dezatela agintzen duenean, odolustuta hilko dela erantzuten dio gaztelaniaz. Erdarazko esanari, "alegia" erantsiz, itzulpena gaineratzen du. Ez itzulpena soilik, baizik eta erdaraz esandakoari zehaztasunak gehituz, zertan datzan mando batean jaistearen arriskua adierazten du.

Hizkuntza-mailako marka berezi honetaz gain, besterik ere badarama zauriaren gertaerak. Zauriaren ondorioz,

> "Neri oña moztu egin zidatek!", eta negar egiten nuan (129. or.).

Bakarrizketan eta elkarrizketan, estiloak konbinatuz, estilo zuzenaren erabilerari zehar estiloarena gaineratuz, lau aldiz adierazten da orrialde berean zauriak ekarritako galerarik behinena: oina moztea. "Errepikatze" honek kontrastatu egiten du kontaketak erakusten duen joera nagusiarekin: behin gertaturikoa, nahiz maiztasun batekin gertaturikoa, behin bakarrik kontatu.

Izenburuak, berriz, oroitzapenetan gehien nabarmentzen diren bi jazoerak uztartzen ditu. Alegia, zauriak eragindako elbarritasun fisikoa eta "kontrarioen" aldean gerran dabilen anaiaren oroitzapena. Bi gertaera horiek dira kontaketan zehar "errepikatuenak" eta izenburuak lotzen dituenak.

"Euzkotarrekin" gerran ibili den anaia, Kaximiro, Iruñeako ospitalera doakionean Sebastiani bisita egitera, zera jakingo du, seguru aski anaiak botatako tiroak elbarrituko zuela betiko:

> —Nun eritu iñuten?
> Eta nik erantzun nion:
> —Yurre izena duan erri batean.
> —Yurre-n? Zein egunetan?
> —Mayatzaren 24-an eguerdiko ordubata inguruan.
> Eta gizarajoak, negar samiña egiñez, bizkarretik eldu eta erantzun zidan:
> —Orduan ire oiñ oyek jo zituzten balak neronek tiriak izango dituk! (138. or.).

"Neronek tiriak izango dituk", halaber, esan errekurrente bihurtzen da. Baita "denbora-puska" baterako jorragai ere bi anaien arteko solasaldian.

Honela bada, *Neronek tirako nizkin* eleberrian, frentean ibili zen Salaverriaren kezka pertsonalen adierazpena nagusitzen da.

4. Ondorioak

Gerra amaitu eta hurrengo hogei eta bost urteetan euskal narratiban gerrateak sortutako konta-jarioa behatzen bada, honako ondorio hauek atera daitezke:

a. Gerrateak idatziz eragindako konta-jarioa urria izan zen: hiru testu baino ez ziren argitaratu. Urritasun horretan, haatik, alde batean kokatu zirenen, nahiz bestean kokatutakoen lekukotasunak atzeman daitezke.

b. Lekukotasunak, bai. Izan ere, badirudi, gerrateko gertaerez hitz egiteak lekukoren bat eskatzen duela. *Neronek tirako nizkin* eleberrian pertsonaia nagusia bera da kontalari eta, beste oroitzapen batzuen artean, gerratean bizi izatea suertatu zitzaizkion gertaerak biltzen ditu. "Gizerailtza" ipuinari dagokionez, gertaera batzuen lekuko izan den pertsonaia batek ikusitakoaren berri ematen du lehen pertsonan. *Laztantxu eta Betargi* kontalari orojakileak kontatzen duen arren, kontalari orojakile horri kontatzen diren gertaerak ezagutu izanaren edo iturri zeharo fidagarrietatik jaso izanaren ezaugarria egosten zaio. Egileak, Altubek, eleberriari egiten dion hitzaurrean, edizio-prestatzailearen eginkizun soila bereganatzen du: Udalatxeko Ortulauaren paper-zatiak ordenatu izana, hain juxtu. Udalatxeko Ortulau honi berriz, berme osoa ematen dio: "dana dan bezela, zeatz eta garbi kontatzen du".

c. Gerran dabiltzan bi aldeetan kokatzen dira kontaketok. Alde batean lekutu zirenek "gizerailtza" izan zuten gai nagusi. Beste aldea ezagutu zuenak frenteko gorabeheren berri eman zuen. Hala, lehenek, Betargi eta gainerakoen erailtzaz batean, Nemexio eta gainerakoen erailtzaz bestean, dihardute; biga-

rrenak, berriz, frenteko legeaz: norberaren bizitza gordetzearen eskakizunetara makurtzen den legeaz.

d. "Gizerailtza" gune izan zutenek, herri-gizonen erailketa salatu zuten; frentean ibili zena, ordea, bizipen pertsonal batzuen berri ematera mugatu zen.

e. Ugaldek eta Altubek ez zituzten berdin salatu erailketok. Ugalde gertaerok gordintasunez agerian jartzera mugatzen da, hartzailearen esku utziaz epaiketa. Altubek ez zuen nahiko horrekin eta kontaketari eransten doakio bere ikuspegia: gaineratutako iritzi, uste, argumentu eta abarren bidez, hartzailea konbentzitzea bilatzen du egiten duen balorazioaren zuzentasunaz.

f. Batzuk erailketak salatu zituzten. Erailketok agente batzuk dituzte: frankotarrak, faszistak... dira. Nahiz Ugaldek, nahiz Altubek gatazkaren alde berdinean atzeman zituzten arren eraileak, lehenak kontakizuna erailketa gaitzestera bideratzen duen bitartean, bigarrenak, eraileak ere bistaratu nahi ditu, bidegabekeria gatazkaren zein aldetan pilatu zen agerian jartzeko. Frenteko berri eman zuenak ez du salaketarik egiten. Ez du, ezta ere, bere aldekoen defentsa egiten, gutxiago, noski, "kontrarioak" zituztenenak. Gerrako ibileretan ikusitako txikizio, triskantza eta heriotzen lekukotza jasotzen du. Gerrara joatea suertatu egin zitzaion. Gerran igarotako egun horietan kezka pertsonalak ditu nagusi: bizirik irten gatazka hartatik, lehenik eta behin bera, baina baita "kontrarioekin" gerran dabilen Kaximiro anaia ere.

Aipatutako testu narratiboak

ALTUBE, Seber (1979): *Laztantxu eta Betargi*, Editorial Lur, Donostia.

EIZAGIRRE, Joseba (1948): *Ekaitzpean*, Editorial Ekin, Buenos Aires.

ETXAIDE, Jon (1950): *Alos-torrea*, Itxaropena, Zarautz.

ETXAIDE, Jon (1955): *Joanak-joan*, Itxaropena, Zarautz.

IRAZUSTA, Jon Andoni (1946): *Joañixio*, Editorial Ekin, Buenos Aires.

IRAZUSTA, Jon Andoni (1950): *Bizia garratza da*, Editorial Ekin, Buenos Aires.

LOIDI, Jose Antonio (1955): *Amabost egun Urgain'en*, Itxaropena, Zarautz.

MENDI-LAUTA (1937): "Loretxo", *Eguna*, II-14, II-18, II-21, II-27, III-3, III-6, III-7, III-11, III-16, III-20, III-21.

SALAVERRIA, Sebastian (1964): *Neronek tirako nizkin*, Auspoa, 38, Donostia.

TXILLARDEGI (1957): *Leturia-ren egunkari ezkutua*, Euskal idaz-lanak, Bilbao.

UGALDE, Martin (1985): *Hiltzaileak*, Erein, Donostia.

Gerla Zibila: Iparraldeko ikuspegia

HARITSCHELHAR DUHALDE, Jean
Euskaltzain emeritua eta
Literatura Ikerketa batzordeburua
IKER UMR

Sarrera data: 2009-11-26
Onartze data: 2010-07-14

Euskera. 2009, 54, 2-2. zatia, 991-1026. Bilbo
ISSN 0210-1564

Aztertzen da lehenik zein den giro politikoa Iparraldean, nola eskuina den nagusi, orduko eskuineko aitzindaria Ybarnegaray diputatua delarik, eskuin muturreko diputatua.

Sortzen delarik Gerla zibila Espainian, laster Iparraldea agertuko da Franco-ren alde, bai politikarien aldetik eta bai *Eskualduna* astekariaren aldetik, apaiz gehienak doazila Ybarnegaray-en hildotik.

Gure Herria aldizkariaren arduradunak eta Eskualzaleen Biltzarre-ko kideak, aldiz, ez dira aburu berekoak, beti gogoan dauzkatela Hegoaldeko kideak, Iparraldean errefusiatuak direnak.

Euskal anaitasunaren alde agertzen dira zenbait apezpiku ; emeki emeki sortzen ari dira talde batzu eta ez bakarrik Iparraldean, gazte batzu ere, haien artean Iratzeder olerkari gaztea, maiz aipatzen dituela Hegoaldeko hedoi beltzak, gerlak sortzen dituen ikaragarriko desmasiak. Zatitua da, beraz, Iparraldea, Hegoaldea bezala.

Hitz-gakoak: Gerla Zibila, Iparraldea, *Eskualduna*, Ybarnegaray, *Gure Herria*, Eskualzaleen Biltzarra, Iratzeder.

En primer lugar se estudia el ambiente político en el País Vasco Norte, donde la derecha es hegemónica. El máximo exponente de la derecha es el diputado Ybarnegaray, diputado de extrema derecha.

Cuando comienza la Guerra Civil en España, el País Vasco Norte se posiciona a favor de Franco, tanto en el ámbito político, como desde la óptica del semanal *Eskualduna*, consiguiendo el favor de la mayoría del clero.

Los responsables de la revista *Gure Herria* y los miembros de Eskualzaleen Biltzarra no son en cambio de la misma opinión y tienen estrecha relación con los exiliados del sur de Euskal Herria.

Algunos obispos se posicionan a favor de la fraternidad vasca; poco a poco empiezan a surgir algunos grupos y no sólo en Iparralde. Algunos jóvenes, entre ellos el poeta Iratzeder, evoca muchas veces los cielos negros y las barbaridades de la Guerra. Guerra que genera división entre los vascos, también en el Norte.

Palabras clave: Guerra Civil, País Vasco Norte, *Eskualduna*, Ybarnegaray, *Gure Herria*, Eskualzaleen Biltzarra, Iratzeder.

Le paysage politique du Pays Basque Nord montre une orientation à droite dans les années 30, le leader politique étant Jean Ybarnégaray, député affirmant ses idées d'extrême-droite.

Lorsque éclate la guerre civile en Espagne, le Pays Basque Nord se place du côté de Franco, non seulement ses politiciens, mais aussi *Eskualduna*, l'hebdomadaire basque dont les responsables suivent aveuglément Jean Ybarnégaray.

La revue *Gure Herria* ainsi que Eskualzaleen Biltzarra n'adoptent pas cette attitude. Tout au contraire, les responsables de l'un comme de l'autre se préoccupent de leurs membres restés en Pays Basque Sud et des réfugiés qui ont commencé à affluer.

La fraternité basque se manifeste à travers de hauts dignitaires de l'Eglise alors que naissent des associations en faveur des réfugiés. Un certain nombre de jeunes se manifestent aussi parmi lesquels le jeune prêtre Iratzeder dont les poèmes évoquent les cieux chargés d'orage et les terribles conséquences de la guerre pour le Pays Basque. La fracture entre Basques du Sud existe aussi au Nord.

Mots-clés: Guerre Civile, Pays Basque Nord, *Eskualduna*, Ybarnégaray, *Gure Herria*, Eskualzaleen Biltzarra, Iratzeder.

The political landscape of the Northern Basque Country shows an orientation to the right during the 30s; the political leader was Jean Ybarnégaray, Member of Parliament, who asserted his ideas regarding the extreme right.

When the Civil War broke out in Spain, the Northern Basque Country aligned itself on the side of Franco, not only the politicians, but also *Eskualduna*, the Basque weekly newspaper whose leaders blindly followed Jean Ybarnégaray.

The magazine *Gure Herria* as well as Eskualzaleen Biltzarra did not adopt this attitude. Quite the contrary, the persons in charge were concerned about their members remaining in the Southern Basque Country and the refugees who began to arrive.

The Basque fraternity made its presence known through high-ranking dignitaries of the Church during the time that associations in favour of refugees became to come into existence. A number of young persons also made their presence known, and who is also reflected as among them, is the young priest Iratzeder whose poems evoke a tempest of leaden skies and the terrible consequences of the war for the Basque Country. The division between the Basques of the South also exists in the North.

Keywords: Civil War, Northern Basque Country, *Eskualduna*, Ybarnégaray, *Gure Herria*, Eskualzaleen Biltzarra, Iratzeder.

Sarrera

XX. mendearen hasiera berezia da bai Frantzian eta Espainian eta, beraz, Iparraldean eta Hegoaldean. Oroit gaiten JEL/PNV sortu zela XIX. mendearen bukaeran, 1895ean eta emeki emeki handituz zoala, Bizkaian bereziki ; 1917an hain zuzen, bereganatzen du Bizkaiko diputazioa ; orduan sortu ziren Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia. Zazpi urtez Hegoaldeak ezagutuko du Primo de Rivera-ren diktadura ; 1931an sortzen da II. Errepublika eta eztabaida luzeak hautetsien artean Autonomia Estatuari buruz. 1936eko otsailaren 16an Frente popular ezkerreko mugimenduak irabazten ditu hauteskundeak eta bost hilabeteren buruan, uztailaren 18an, hasten da Gerla Zibila.

Iparraldean, aspaldian III. Errepublikak egin ditu bere erroak, denbora berean sortu delarik xuri eta gorrien arteko eztabaida. Azpimarratzekoak dira Dreyfus kapitainaren kondenatzea eta 1905ean Elizen eta Estaduaren arteko lokarrien hausteko legea, gorriek bozkatua, xuriek salatzen dituztela orduan juduen eta hargin beltzen edo framazonen jukutriak, lekuko direla Iparraldeko bertsolarien kantu eta olerkiak, haien artean buru den Adema kalonje senpertarra.

Batasun sakratua sortuko da I. mundu gerlarekin, frantses nazionalismoaren fagoretan mugimendu indartsu batek eremanen dituela gerlari ohi gehienak eskuin aldera, bereziki Iparralde barnekaldean, buru gisa agertzen dela Ybarnegaray diputatua, Baxe Nafarroan eta Ziberoan izendatua. Hau eskuin muturreko gizona da "Croix de feu" delakoetan eta, gero, "Parti social français" alderdikide izanez.

Halere itsas aldeko hiriak "radical socialiste" alderdikideen eskuetan dira, Baionan Garat diputatua dela alkate, Angelun eta Miarritzen halaber, Bokalek alkate komunista duelarik. Iparraldeko mapa politikoa bi kolorez hornitua da, gorri eta arrosa kolore Aturri bi aldeetan B.A.B. eta Bokale barne eta bertzea osoki xuria.

1933ko bukaeran eskandala Baiona hiriko aurrezki kutxan Stavisky, nonbaitik jinikako gizon baten jukutrien gatik eta hiriko aurrezki kutxa izanez, Garat

Baionako diputatu eta alkatea hobendun gisa agertzen da beharko dituelarik kargu guziak utzi, nahiz hiria gelditzen den radikalen eskuetan. Afera horrek bere eragina dauka Frantzia guzian eskuindarrek salatzen dutela ezkertiarren ustelkeria, 1934eko otsailaren 6an kalapitak sortuz Pariseko Lege Biltzarraren jauregiaren aitzinean, polizak bortizki zigortuak. Geroxago 1935eko martxoan, Lissar hazpandar diputatuaren ordez, senadore izendatua baita, hauteskundeetan irabazlea izanen da de Coral, Urruñako auzapeza, Ybarnegaray eskuindar diputatuaren laguntzari esker. Eskuinera badoa Garat-en alkia Lege Biltzarrean.

Garai hartan Hegoaldeko giroak bere eragina ukanen du Iparraldean. Alabainan Iparraldeko jende batzuk segitzen dituzte Hegoaldean P.N.V.-ekoen biltzarrak, bai eta ere 1932 eta 36-en artean apez bat, euskaltzale suharra, Uztaritzeko seminarioan erakasle, orduko ideologia berriei osoki idekia, hala nola Daniel Rops bati eta bereziki Emmanuel Mounier-i jarraikiko zaio "personnalisme" ideologia sortu zuelarik 1932an *Esprit* deritzan aldizkariarekin. Lafitte-k berak aitortzen du ibili zela orduan batzokiz batzoki, izartzen zuela Hegoaldeko gazteriaren su eta garra eta erabaki zuela talde baten biltzea. Talde horretan parte hartzen dute haren ikasle izanak batzu eta dizipulu bertze batzu, hala nola Eugène Goyheneche, Pierre Amoçain, Jean Duboscq, Jean de Jaureguiberry mediku zuberotarra eta Michel Diharce, Aita Iratzeder-en anaia gehiena. 1933ko azaroan agertzen da *Euskal Herriaren alde* deitu liburuxka bat, Aita Lafitte-k osoki idatzia eta P.N.V.-ren ideologiatik aski hurbil.

"Jainkoa lehen" aldarrikatzen zuen *Euskal Herriaren alde*-ko egitarauak eta gero aipatzen zituen eskualdekatzea, hain zentralizatua zen Frantzian, euskararen onartzea eskoletan, administrazioan, berreuskalduntzeari eta euskal kulturari behar diren baliabideen emaitea. Familia eta etxea, euskal etxearen alderako politika galdegiten zuen eta lehengo ohiduren zaintzea. Denbora berean, emaztearen, etxeko anderearen alde mintzo zen, halaber sindikaten alde, askatasuna eta berdintasuna, Frantziak aldarrikatzen dituen baloreen obratzeko.

Urte baten buruan, 1934ean agertu zen *Aintzina*, lehen zenbakia urrian, agertuko direlarik, 33 zenbaki orotara, 1937ko iraila arte. Horrekin ideia berri

bat kaleratzen da Iparraldean, hain zuzen pertsonarena, jarraikiz Emmanuel Mounier-en filosofiari *Esprit* aldizkariak hedatzen zuena. Argi eta garbi errana zen ere *Aintzina* hilabetekarian behar zirela atxiki edo sortu lokarri sendoak Hegoaldekoekin.

Nola onart zezakeen holakorik Ybarnegaray eskuin muturreko diputatuak, Iparraldeko xurien erregetxoak ? Gehienak meneko zituen ; alde batetik *Eskualduna* astekaria, apez gehienak Uztaritzeko seminario ttipian ezagutuak, gerlari ohiak, haien artean egina baitzuen gerla eta geroztik "Tous unis" edo "Denek bat" lemarekin hedatzen zuten frantses nazionalismoa. Nahiz Aita Sainduak eskumikatu zituen "Action française" mugimendua 1926an eta haren kideak 1928an, halere Léon Daudet eta Charles Maurras-en ideiek badute eragin handia, bereziki, adibide baten hartzeko, Baionako apezgaitegi nagusian eta oroit naiz Lafitte apezak berak aitorturik zenbat eta zenbat gudukatu zen bere baitarik ideologia horren baztertzeko.

Ulert daiteke, orduan, Ybarnegaray diputatuaren hasarrea *Aintzina*-ren kontra eta bereziki Lafitte-ren kontra. Alabainan, hartaz trufatzen zen eta zion Lafitte zela "arrain gorria ur bendikatuan". Ybarnegaray-en lana izanen da urte haietan *Aintzina*-ren kontra gudukatzea eta, dudarik gabe, ezkerraren aurka, honek egina baitu batasuna "Front populaire" delakoan.

1936. urtean hauteskundeak badira bai Frantzian eta bai Espainian. Hain zuzen Espainian 1936eko otsailean "Frente popular" delakoa irabazle jalgitzen da. Orduan hasten da garai berezia Franco-ren matxinada arte.

Frantzian, maiatzeko hauteskundeetan "Front populaire" deritzan mugimenduak irabazten du ere, Blum izanen dela lehen ministroa bozkatuz garrantzi handiko legeak, hala nola 40 oreneko astea lanerako eta "Congés payés" edo "opor pagatuak" (15 egun). Alderantziz, Iparraldean hautatzen diren hiru diputatuak eskuindarrak dira. Ybarnegaray da orduan eskuinaren gidaria eta laguntza eskainiko die bere bi adiskideei.

Aise izendatua izanen da bera seigarren aldikotz Baxe Nafarroan eta Zuberoan %80a pasa lortuz. Delzangles abokata eta Milafrangako auzapezari fal-

tatzen zaizkio 53 boz lehen itzulian pasatzeko eta hautatua da bigarren itzulian Simonet Baionako auzapezaren kontra. Itsas aldean, 1935ean bezala, irabazlea izanen da de Coral Urruñako auzapeza. Kanpaina egina dute komunisten eta Front populaire-ren kontra, alde biltzen dituztela Iparraldeko xuri guziak, bai eta ere *Aintzina* mugimendua, hiruen alde galdegiten duela bozkatzea.

Hauxe da Iparraldeko giroa hasiko delarik Gerla Zibila Franco, Queipo de Llano eta, Nafarroan, Mola jeneralarekin.

2. Franco-ren aldekoak – *Eskualduna* astekaria

Domingo Soubelet apeza da *Eskualduna*-ren zuzendaria eta kargua utziko duelarik 1937ko apirilean, Salbat Arotzarena apeza astekariaz arduratuko da. Biak eskuindarrak dira eta beraz xuriak eta, jadanik erran dudan bezala, Ybarnegaray-en adiskideak. Alemanen denboran biak Pétain-en alde agertuko dira, Soubelet-ek idatziz *Pétain marexala* liburua, Arotzarenak segituz *Eskualduna*-rekin, debekatua izanen dela astekaria Frantzia askatua izanen delarik 1944eko abuztuan eta atxilotua orduan.

Ez da, beraz, harritzeko Franco-ren alde agertzen balinbada astekaria. "Odol eta su" deitzen den uztailaren 31ko artikulu nagusian sailkapena berehala egiten da : *« soldadoak buru xurien eskualdea gobernio gorriaren kontra altxatu da »*. Aspaldiko hitzak "xuri" eta "gorri", bainan "soldadoak" alde batetik, "gobernioa" bertzetik. "Auzo erresumetan" deritzan sailean aipatzen da nola bi alderdietan diren euskaldunak eta agertzen da noren alde dagoen idazlea diolarik

> *« Español eskualdunak ere ez dira alderdi berean gure iduriz behar litakeen bezala »*.

Domingo Soubelet-ek hautatu ditu hitz horiek ez nola nahika. Bakoitzak badu bere erran nahi berezia eta karga sinbolikoa. "Gobernioa" da Madrilen bilduak diren Espainiako agintariak, gorriak, ezkertiarrak. Deiturak ez dira agertzen, ez nor den lehen ministro ere. Gauza bera "soldadoak" hitzarekin,

nahiz pluralaz baliatzen den. Plural horren baitan gorderik daude altxatu diren jeneralak, jadanik ezagutuak direnak, hamar dotzena bat egun iraganak direlakotz, baita ere jeneral horien gibeletik joan diren jendeak. *Eskualduna*-ren irakurlearentzat "soldado" hitzak oroitarazten dio I. mundu gerla eta, behar bada ere, bera da "gerlari ohia" daukan ideologiarekin. Soldadoa da egiazko gizona, herriaren alde jalgi dena atakatua izan delarik, bertute guziez hornitua dena : kuraia, ausardia, kemena, gogoz eta bihotzez aberriari emana, zuzentasuna eta justiziaren alde borrokatzen dena etsai madarikatuaren kontra.

Holako hitzak idatziz bazakien Domingo Soubelet-ek zein aldetara joanen zen irakurlea ; gerla beharrezkoa dela erakusten du, gerla "garbia" dela, artikulu berean salatuz gorrien salbaikeriak :

> *« Barcelona hirian eliza guziak erre dituzte salbu eliza nausia. Apez lerro bat garbitu dute, bat bizirik erre, bertze batzueri lepoa moztu ».*

Zenbakiz zenbaki salatuko ditu gorrien izigarrikeriak, haienak bakarrik xehetasun guziekin. Bi alderdietarik heldu dira berriak. Bainan nor sinets ? Nork erraiten du egia ? Nor da gezurtia ? Kasetariarentzat argi dago eta hala aldarrikatzen du : *« gezur erraiten zoin gehiagoka ari direla gobernioa eta soldadoak entzun dugu eta baditake. Bainan lan eder hortan gobernioa nausi »* (1937-8-7).

"Odol eta gezur" deritzan artikulu nagusian Domingo Soubelet-ek biltzen ditu izigarrikeria guziak erakusteko nork ixurtzen duen odola : bortz apezpiku hilak, biga preso, apezak, serorak, fraileak ehunka garbituak, elizak erreak, hilen hezurrak murruari kontra zut emanak eta heien aitzinean jendea daukiza. Irailaren 4ean agertzen da artikulua ; badu, beraz, hilabete bat eta erdi gerla hasia dela eta horiek guziak gorriek eginikakoak.

Ez dituzte bakarrik elizak erretzen, hiri osoak ere, hala nola Irun, muga berean dagoena, Iparraldetik ikusia eta, beraz, egia dena. Kasetariak dio :

> *« anarkistek eta Frente popularrekoek su eman diotela etxe eder guzier faziztenak zirelakoan. Egia ala gezurra ? ».*

Ez da dudarik sinetsi behar dela gorriek direla hobendun.

Konparaketa egitekotan hona nola egiten duen *Eskualduna* astekariak. Badakigu eta errepikatua delarik gorrien portaera, xuriek daukatena, zinez soldado zintzoena da :

> *« Aski da giristino soldado hoieri so egitea, besoan daukate Kristo Erregeren itxura eta abiatu direlarik denek solas bera zuten : Viva el Cristo Rey ! »* (1936-8-14).

Ez da dudarik, hasia da kurutzada, fedearen aldeko guduka. *« Jainkoaren alde edo Jainkoaren kontra »* errepikatzen da bertze artikulu batean eta hola segituko da zenbakiz zenbaki.

Soldadoa soldado, gizon zintzoa, giristino ona irakurri den bezala. Hona noraino doan propaganda :

> *« soldadoen partetik nork aditu du bazela mandileriaz jende hiltzerik. Irunen erran dute bat hil dutela, Jimenez deitua : apeza galdeginik hil da. Etzuena merezitua ? Jakin dute eta aitortu du Irungo herriaren erretzaletarik zela »* (1936-9-25).

Argi dago soldadoak ez direla salbaiak, ez direla mandilak ; justiziari zor zaiona behar da erran, bat bakarrik hiltzen dutelarik da gaixtagina zelakotz eta merezi zuela gertatu zaiona eta, urrikaldurik, kofesatu dela eta bertze mundura igorria apezaren laguntzarekin. Beren eginbidea bete dute soldadoek, eta gehiago dena giristinoki !

Deitoragarriena da batzu bertzeen kontra jokatzen direla euskaldunak. Ez zen holakorik izan behar kasetariaren arabera ; Eskualdunak aipatzen dituelarik Espainiako Euskaldunak dira osoki zatikatuak :

> *« Elgarren kontra direla gerla hortan denek badakite. Nafarra eta Alava parte segurik soldadoen alde. Gipuzkoa eta Bizkaia frente popular-en alde. Bihotzean min egiten daukula anaiak hola ikustea ez dago erraite beharrik. Bainan bertzetan gerla hasiz geroz, bi alderdiak hola emanez geroz gaude nola eskualdun bat, erlisionea lehen duena, nola ager ditakeen gobernioaren alde ? »*

Anaien artean sortu den auzia gerlarekin handitzen da hilabetez hilabete eta gauzatzen osoki urrian sortzen delarik Eusko Jaurlaritza Aguirre jauna dela buru, zin egiten duela Gernikan, arbolaren pean. Bainan *Eskualduna* astekariari aski zaizkio bi lerro euskal gobernuaren sortzearen aipatzeko. Bi lerro bakarrik Eskual Herria "autonome" aipatzearekin, erranez ez arras bere gain dela eta gobernioak (Espainiakoak noski) dohain hori eman diola errexki bere azken hatsetan delakotz » (1936-10-9).

Astekariak ez du batere ulertzen berrikitan sortu den euskal gobernuaren joka moldea. Alabainan, astekariak zabaltzen ditu Toledoko apezpiku den Goma y Tomás kardinalearen hitzak, biltzen dituela ñabardura izpirik gabe :

> *« Espainiako gerla egiazki eta errotik erlisioneko gerla dela, gerla horrek bat bertzearen aintzinean ezartzen dituela bi gogo mota : batek baduela sinestea, bertzeak izpirik ez »* (1936-12-25).

Egiazko kurutzada komunisten kontra, anarkistak ere barne zabaltzen den lemarekin : "por Dios y por la patria". Nolaz giristino batzu joaiten ahal dira eskuz esku horiekin ?

"Eskualdunen xedeak" deritzan artikuluan agertzen dira Aguirre "Euzkadiko gobernio" berriaren buruzagiak igortzen dizkion azken berriak eta ere xedeak, honela bildurik :

> *1.- Jaun Goikoa eta lege zarra, beren sinhestea eta ohidurak nahi dituzte zaindu, soldadoen, karlisten eta phalangisten kontra.*
>
> *2.- Euzkadin bezala nahi lukete errespetatua izan dadien orotan Jinko legea. Gaiztesten dituzte Gipuzkoan soldadoek egin lanak, apez zenbait hil baitute Eskual Herria sobera maite zutelakotz.*
>
> *3.- Galdegiten dute gerla izan dadien eztiago eta bakarrik gerlarien artean, garhaitua dena utz bizirik.* (1937-1-1).

Argi dago "Euzkadiko gobernioak" errepikatzen duela bere lema : Jaun Goikoa eta Lege zarra, salatzen dituela Gipuzkoan Franco-ren tropak egin dituzten tzarkeriak, bereziki apaiz hiltzeak eta, eremu bat hartuz gero, eginikako barrabaskeriak, jendea hilez edo preso emanez.

Argi dago ere astekariaren buruzagiaren erantzuna "Nun da egia" tituluko artikuluarekin :

> *Aithor dugu Euzkadiko gure anaiek badituztela beren arrazoinak ; badakigu Primo de Riveraren denboran zer ikusiak diren, ez dugu erranen haur sortu berria bezain xuri direla Francoren soldadoak oro. Bainan Jaun goikuaren legearen finkatzeko eta begiratzeko boltxeviken esku makilen baitan baino sinheste gehiago ginduke Francoren soldadoetan.*

Hona, beraz, nola jujatuak diren Euzkadiko gobernioaren aitzindariak eta, orobat, Bizkaitarrak, madarikatuak balire bezala "boltxeviken esku makil" hitzak erabiliz, bainan ixilduz apezen hiltzea, erranez bakarrik zeiharkako zenbait hitz

> *haur sortu berri bezain xuri direla Francoren soldadoak oro.*

Zein polliki errana !

Zortzi egunen buruan Domingo Soubelet-ek bururatzen du bere artikulu nagusia hitz horiekin, emanez denbora berean bere iritzi zorrotza euskal gobernuari buruz. Ez da dudarik hau dela egiazko etsaia :

> *Eskual Herrian ere badute beren gobernioa, Aguirre jauna buru, Bilbao hiri nagusi. Beren lurren zaintzeko soldadoen kontra altxatu dira eskualdunak. Soldadoen gogoa ez dute berea. Ez uste soldadoekin ardiesten ahal dituztela hain barnatik atxikitzen eta maite dituzten ohidura bereziak.* (1937-2-8).

Behar da kopeta holakoen idazteko. Ez ote dira "soldadoak" altxatu legezko gobernuaren kontra ? Franco Afrikan, Queipo de Llano Sibilian eta Mola Iruñean ? Nola erran daiteke *« soldadoen kontra altxatu direla eskualdunak »* ? Sartua da astekaria eskuindar ideologian eta itsutuki nahi duena zabaltzen du. Pasarte horretan datza frogarik argiena.

Astero emaiten da "Auzo erresumetan" deitu sailean Espainiako gerlaren berri, bereziki nola jokatzen diren xuriak, Mola jeneralak jakinarazten duela zer egin behar duten euskaldunek nahi ez badute bazter guziak errautsirik izan diten, gaixtakeriari osoki emanak ez direnak jin ditela xurietara, ordu dela oraino, gero berantegi litekela. Mehatxuka ari da Mola, jendeen baitan

beldurra sartzekotan. Aipatzen da nola aitzinatzen diren xuriak eta laster Bilbo ere eroriko dela. Hitzik ez, aldiz Durangoko bonbardaketaz.

Maiatzaren 7ko zenbakian astekariaren irakurleek Gernikako berriak jakinen dituzte : beti bezala "Auzo erresumetan" saileko artikulu labur batean :

> *Eskualdun guziek maite dute Gernika eta Gernikako arbola. Guziek bihotz minekin jakin dute makur gaitzak egin dituela hor gerlak, Molaren soldadoek hartu aitzinean.*
>
> *Bilbaoko berriek zioten Aleman aireplanek izigarriki tirokatu dutela.*
>
> *Xuriek aldiz ezetz, gezurra diotela, hori gorrien beren lana dela, Irunen bezala, Eibarren bezala, orotan bezala.*
>
> *Bainan han ziren jendeek salatzen daukute eta Aguirre Euzkadiko buruzagiak, jakinarazten dauku, hiru orenez iraganik, aleman aireplanek aldizkatuz beren bonbak aurtiki dituztela hiriaren gainerat. Merkatu eguna hain xuxen zenbat jende ez da garbitu hor ?*
>
> *Ni nago Alemanek beti obeditzen dutenez Francoren manueri eta ez dutenez beti bezala uzten tzarkeria nausi.*
>
> *Gernikako arbola ez omen dute haatik hunki. Molaren Eskualdunek zaintzen dute arbola saindua.*
>
> *Geroztik izan diren kaseta egile Frantsesek diote gorriek berek dutela eman sua, Irunen egin zuten bezala.*

Gernika ez da edozein herria euskaldunentzat eta artikulu labur honetan zabaltzen da sendimendu hori laudatua den arbolak duen itzala euskaldunen gogoetan aitortuz. Duda mudak agertzen ditu artikuluaren idazleak, bi alderdien iritziak emanez. Kontutan hartzen du Agirre lehendakariak salatzen duena, Aleman aireplanek eginikako abrekeria, merkatu eguna izanez eta jendea bildua zelarik.

Orduan agertzen du bere frantses nazionalismoa, alemanen kontrako herra adieraziz, beti bezala jukutrietan sartuak direla eta Franco ez dela hortaz hobendun, berek asmatua zuten tzarkeria eginez.

Alegeratzen da, aldiz, ez baita arbola saindua hunkitua izan eta Molaren euskaldunek zaintzen dutela. Halere azken lerroetan erakusten du zer diren frantses kasetarien iritzia, gorriek su eman diotela Gernikari. Ez da dudarik, frantsesak izanez kasetariak, egia derasatela behar dela ulertu, eta beraz ez Franco eta ez Alemanak ez direla hobendun.

Gerlaren ondorioak ere senditzen dira Iparraldean. Alabainan, gerlari ihes eginez etorri dira jendeak Hegoaldetik. Iparraldean aterbetu diren jendeak ez dira beti ongi ikusiak, zer nahi jende mota baita haien artean eta dio kasetariak kasu egin behar dela ez diten sar otsoak arditegian. Hitzño bat halere euskaldunentzat :

> *hekieri tronpaturik eta falta bat eginik ere behar baitzaiote anitz barkatu, ez direlakotz tzarrak, ez lanjerik ere, eta Eskualdun fededun egon direlakotz guzien gatik ere. Heiek eztute makurrik ekartzen Frantziako arditegian ixilik egoiten badira segurik.* (1936-9-18).

Heldu dira metaka 1937an, bereziki Gernikaren ondotik Bilbo eroriko delarik :

> *Emeki emeki heldu da asko jende handik honat. Jende larri eta haur. Doniane Garazirat ekarri dituzte bortz ehun bat haur eta gazte. Denek, bai denek nola nahikoa ukanik ere gogoa, hartze dute guk ontsa errezebitzea.*

Eztixago jokatzen da astekaria haur eta gazteentzat, bainan ez du hitz bat ere nor den horretaz arduratu, non eta nola kokatuak diren Donibane Garazin, nork zaintzen dituen, nork emaiten jatera...

Halere ez da iritzi berdina agertuko 1937ko irailaren 3ko artikulu batean :

> *Espainiatik jin haurrak. Hamarretarik zortzi edo bederatziek ez dakite eskuara hitzik, bainan kasetetan eskualduntzat ezartzen dituzte gerlatik ihesi igorri haurrak. Hola balire, errana dugu ez daukutela hanbat ohore egiten Eskualduner. Diren lekuetan ala Angleterran ala Frantzian, bazterrak asetzen dituzte laster.*

1937ko urtean bukatua da gerla Euskal Herrian nahiz segitzen duen Espainian. Eusko Jaurlaritza ihesi joan da, Eusko gudariak edo preso edo haiek ere atzerrietara joanak. Anitzek bizitzeko toki bat aurkitu dute Iparraldean, Saran Eresoinka abesbatzak eta bereziki Lapurdiko herrietan. Giristinoak izanez joaiten dira mezetara, erakusten dute giristinoki bizi direla, eta berdin erakusten abertzaleak direla. Horretan ikusten du lanjerra Xalbat Arotzarena, *Eskualduna*-ren zuzendariak : abenduaren 31ko zenbakian "Urthe on !" deritzan artikulu nagusian emaiten du bere iritzia.

> *Gutartean ikusi ditugu Espainiatik, gerlari ihes, hunat bilduak ginituen anaiak. Beren giristino urratsetan xuxen eta ederki zabiltzala gogotik aitortuko dugu. Beren erlisione saindua agerian zabilaten herabetasunik gabe. Eta beren urrats ederrez, mendiz hunaindiko Eskualdun zonbait beren ideia makurretarat ari zituzten biltzen emeki emeki, beren asmuak zituzten Eskualdunen bihotzetarat ixurtzen... xorta xorta.*

Hona beraz salatua abertzaleek euskaldun onetan ixurtzen duten pozoina, nola egiten duten beren sator lana eta nola behar den haietaz mesfidatu. Hori da kristautasunez betea den ongi etorria !

Elgarren kontra gudukatu dira anaiak eta, gehiago dena, kristautasuna ez dute ukatzen ez batzuk eta ez bertzeek. Hori da kezkagarriena Xalbat Arotzarenarentzat. Iparraldeko jendea ez dadin enganatua izan, idazten du artikulu nagusi luze bat 1937ko irailaren hiruko zenbakian, erakustera emanez ez direla denak katoliko sendoak, badirela batzu osoki itsutuak direnak, hala nola Hegoaldekoak:

> *Euzkadiko katolikoak eiki beren sinestearen etsai handienarekin ikusi ditugu eskuz esku ! Euzkadiko katolikoak bat kausitu ditugu elizen erratzaile, seroren galtzaile, apezen hiltzaile izan diren gizon barne ilunekoekin ! Eta, gutartean, ez dute ukan erlisioneari beti danik aiher izan diren gizonak baino adixkide minagorik, sustatzaile beroagorik (...).*
>
> *Zerbait itsumendu hor badela gauzen behar den bezala prezatzetik Euzkaditarrak gibelatu dituena ez da dudarik (...). Munduari, mendiz haindiko gure anaia batzuek eman duten eskandalaren erroa hortan da. Hortan da heien itsumenduaren iturria. Bai, dudarik ez da : ka-*

toliko dira eta katoliko suhar. Zorigaitzez baitira katoliko baino eskualdunago ! Orotan lehen behar luke erlisioneak : Euzkaditarrek lehen eman dute beren eskualdungoa (...).

Egina dutena eginez ez dira Euzkaditarrak katoliko on agertu. Beren katolikotasuna dute mendratu eta apaldu. Beren egitatea ezin dezakete beren katolikotasunaren gainean berma, beren katolikotasunaren pean molda, beren katolikotasunaz estal !

Horra egia, orai danik Eskualdun gutiz gehienek ikusten duguna !

Harrigarria ! Egia, egia hutsa, egia osoa bere baitan dauka *Eskualduna* astekariaren zuzendariak. Apez da eta jujatzen ditu bertze jende guziak erranez zein diren katoliko onak eta katoliko tzarrak, Jainkoa balitz bezala. Itsumendua aipatzen duelarik Euzkaditarrak mehatxatuz, katoliko tzarrak direla aldarrikatuz, ez ote daki, nahiz astekarian agertua, aita Sainduak Franco-ri igorri dion mezua azpimarratuz eztiki joka dadin euskaldunekin katolikoak direlakotz ? Beldur naiz bera itsutua dela eta eskuin muturreko ideologia zabaltzen duela. Diolarik *« Euzkaditarrek lehen eman dute beren eskualdungoa »*, berak ere lehen emaiten du eskuin muturreko politika. Asma daiteke zer eragina zaukan irakurleen baitan 40.000 bat Iparraldeko euskaldunek irakurtzen zutela astekaria.

Geroxago "Nork zuen arrazoin" deritzan artikuluan Xalbat Arotzarenak aipatzen du *Osservatore Romano* egunkariaren artikulu baten iritzia bihotzmin handirekin dituztela Erroman *La Croix* bezalako kaseta batean ikusi : *« Devant la tragédie espagnole, les catholiques en tant que tels demeurent libres de manifester leurs préférences et d'accorder leur sympathie à l'un ou à l'autre camp. »* Ez da dudarik Arotzarenak jujatuko dituela solas horiek "pozoindatuak". Nola ez dira pozoindatuak izanen bi joka molde izanki "Xuri" eta "Gorri"-en artean :

... beti liferentzia bat handia ikusiren dugu "Gorri"-ek Espainian egin izan dituzten soraiokerien eta "Xuri"-ek egin izan dituzten itsuskerien artean... ez heiek "Gorri"-ek eginikakoak direlakoan eta hauiek "Xuri"-ek eginak, bainan bai, heiek ainitz hauiek baino handiago direlakoan... bainan bai heietan anitzak odol hotzean egin izan direlakoan, hauk aldiz guduaren suan.

Azken jujamenduan bezala Arotzarenaren aitzinean daude Espainiako gerlako gudariak egin dituzten hilekin. Batzu, gorriak noski, kondenatuak dira "odol hotzean" abrekeriak eginik, bertzeak, aldiz, barkatuak "guduaren suan" eginak dituztelakotz. Holako solasekin neurt daiteke *Eskualduna* astekariaren alderdikeria eta bereziki bere zuzendariaren alderdikortasuna.

Egia erran, haste hastetik, Franco eta bereziki Mola-ren alde —hau hurbilago baitzen Nafarroa altxaraziz— jokatu da astekaria. Franco-ren xedeak aipatzearekin aditzera emaiten du ez dela bakarrik gerlan sartua, bainan geroaz arduratzen dela, gerlaren ondorioez. Bukatzen da artikulua holaxe :

Badu kasko eta bihotz Franco horrek (1936-10-30).

Baliatuko da ere "San Frantses eskualdun sainduaren" bestaz erraiteko karlistek goraki eta handizki ohoratu dutela eta soldado hoberenetarik direla "requetes" famatuak.

Bilbo erortzen delarik agertzen du orduan astekariak jendearen alaitasuna, bizi zen zokoetarik ateratzean eta laster ikusten zirela leiho guzietan Espainiako banderak. Franco aipatuz errepikatzen du :

Nausi da kaskoz, nausi da soldadoz eta tresnaz, bide onean da azken xedetaraino heltzeko ; Espainia guziaz nausitzeko. (1937-6-25).

Zortzi egunen buruan, berriz aipatzen da Bilbo, berriz ere jendeen alegera oihuka ari direla Biba Franco, Biba Espainia. Franco etorri da Bilbora eta hirian sartu orduko izan da Begoñako ama Birjinaren otoizten. Holako ekitaldi bat eginez, ikus daiteke zer den Franco-ren katolikotasuna eta nolakoa izanen den biharamuneko Espainia, nola ere Gipuzkoak eta Bizkaiak galduko dituzten zauzkaten abantailak, Arabak atxikitzen dituelarik xurien alde agertuz.

Hain katoliko izanez nola ez dio Franco-k obedituko Aita Sainduari, honek helarazten diolarik mezu bat :

Pacelli kardinalea Aita Sainduaren izenean izkiriatu du Francori Burgoseko apezpikua ararteko. Zer dio erran Aita Sainduak ? Hau bakarrik : Eskual Herriko eskualde hortan polliki ibil dadin, eztiki ar

dadin, horko jendea eta apezak katolikoak direla.

Aita Saindua denen aita da. Deneri mintzo da beldur izpirik gabe eta denek behar diote obeditu. (1937-7-9).

Bazakien Aita Sainduak nola jokatzen ari zen Franco Gipuzkoan eta Bizkaian. Hortakotz, behar bada, 1937ko azaroaren 26eko lehen orrialdean, agertzen da artikulu nagusiaren pean "Eskualduneri Francoren hitzak" deritzan deia. Franco agertzen zaiku eskuak eta besoak zabalik, ihesi joan diren jendeak berriz hartzeko prest. Bihotz handiko gizona dudarik gabe, jakinaraziz mendekiorik ez dela izanen, barkatzeko gertua : garailea eta denbora berean aihergabea. Zer gizona ! zinez giristinoa !

Errozuete goraki Herritik ihes joanak diren Eskualdunak beren sorlekurat itzul ditazkeela, mendekioen beldurrik gabe, Espainiako eta beste lekuetako gure etsaien solas alderdikari guzien gatik.

1.- Nahi dutenek zerbitzu harturen ahalko gure soldadoen lerroetan.

2.- Gudukatu nahi ez dutenek berdin sartuko dira lantegietan eta han lanean ariko.

3.- Ez gerlan, ez lanean ari nahi ez dutenak "camps de récupération" deitu lekuetarat bilduko ditugu. Bizkitartean hantik atera ahalko dira, heientzat ihardesten duen norbaitek galdaturik edo bermaturik.

Nahi ala ez, besoak zabalik bainan baldintza batzuekin : edo soldado sartu gerlaren egiteko edo lanean arizan xurien alde edo "camps de récupération" delakoetan sartu gogoen behar den bezala garbitzeko, ideia tzarren aldatzeko. Ez dakigu zertako utzi duten frantsesez "camps de récupération" itzulpen horretan. Alta, ideia errexa da : galdua den zerbait edo norbait biltzea, beregana tzea. Holakoak baziren diktadura nagusitua zen herrietan, hola nola Alemanian edo Sovietar Batasunean "goulag" famatuekin. Badakigu geroztik zer ondorio mota ukan duten bi erresuma horietan, dakigularik ere nor arizan den lanean "El valle de los caídos" delakoan.

Argi dago nondik nora joan den *Eskualduna* astekaria. Gorrien kontra, euskal gobernuaren kontra, herbestera joan zirenak mehatxatuz eta aldiz Franco,

Mola eta altxatu ziren jeneralak goraipatuz eta nahi ala ez, alderdikari izanez, ez duela behar den bezala erakutsi zer izan den egiazki gerla hori.

Gerla bukatzera zoalarik 1939ko otsailaren 24eko zenbakian agertu da Ybarnegaray diputatuaren artikulua, frantsesez dudarik gabe. Titulua : "Arriba España". Hain zuzen espainiol hizkuntzan idatziak direnak dira : "Arriba España ! España libre ! España grande !" Solchaga jeneralari eskaintzen dizkio goresmenak, haren baitan ikusten duelarik Nafar jatorra eta bi Nafarroen arteko lokarriak gero eta gehiago bermatuz.

3. *Gure Herria* eta "Eskualtzaleen Biltzarra"-ren joera

Gure Herria aldizkaria I. gerlaren ondotik sortu da 1921ean euskal kulturaren zabaltzeko. Intelektual multzo bat bildu da horretarako. Orduko euskaltzaleek eta ikertzaileek parte hartzen dute hala nola Jean Saint-Pierre apeza gero apezpikutuko dena, Aita Lhande jesuita famatua, "Zerbitzari" (Jean Elissalde) idazlea, "Oxobi" (Jules Moulier) olerkaria, Jean Barbier idazlea, kantu biltzailea Dufau senpertarrarekin, horiek guziak apez jakintsunak. Laikoen artean aurkitzen dira Georges Hérelle, Louis Dassance, Henri Gavel, berrikitan doktore izendatua, Tolosako unibertsitatean irakasle izanen dena, Georges Lacombe hizkuntzalaria, Julien Vinson ikerlari ezagutua jadanik XIX. mendean, Louis Colas harri biribilen biltzailea, *La tombe basque* liburuaren egilea, Albert Léon doktorea, ikerlea, Philippe Veyrin berrikitan Euskal Herritartua, Charles Colin musikagilea, Jean Etchepare idazlea, orotara Iparraldean bizi diren jakintsunak eta Frantziako euskaltzale hoberenak.

Hegoaldearekin ere *Gure Herria*-k sortu ditu lokarri sendoak, alde batetik aldizkariak trukatuz, eta bertzetik jada hasieratik idekiz Hegoaldeko idazleei hala nola Eizagirre jaunari eta bereziki Larreko (Irigarai medikua) nafartar idazleari. Beraz *Gure Herria* sartzen da osoki Euskal Herri guziko kulturan.

1920eko hamarkadaren bukaeran krisian sartzen da *Gure Herria*. Alabainan

papera garestitu da eta zorretan dago aldizkaria. Biltzar nagusi batetara deituak dira 1930eko otsailaren 20an, aldizkarian idazten dutenak erabakitzeko zer izanen den geroa, nola kudeatua izanen den batasuna. Administral kontseilu berri bat izendatua da eta haien artean zuzendaritza :

Buru : Clément Mathieu kalonjea, gero Akizeko apezpiku izanen dena hil artio.

Buru-orde : Souberbielle eta Etchepare medikuak.

Idazkari : Saint-Pierre kalonjea, laster apezpikutuko dena.

Idazkari-orde : Lafitte apeza.

Diruzaina : Louis Dassance, Eskualtzaleen Biltzarreko burua.

Lafitte-k berak aitortzen du bere oroitzapenetan buruak baldintza bat ezarri zuela, Lafitte izan zadien idazkari-orde edo bertzenez ez zuela onartzen buru izaitea. Alabainan, Clément Mathieu, orduan Uztaritzeko seminario ttipiko buru zen eta ezagutzen zuen Pierre Lafitte, 29 urteko erakasle jakintsuna jadanik eta euskaltzale suharra.

Administral kontseilu kideetan izendatuak izan ziren, bertzeak bertze, Jose Eizaguirre eta Ixaka Lopez Mendizabal erakutsiz oso idekia zela *Gure Herria* Hegoaldeari.

Bigarren urrats horren egiteko, buruak eskertzen du Eskualtzaleen Biltzarra 1000 liberako emaitza egitea gatik. Hiru hilabetetarik agertuko da aldizkaria, pentsatuz hilabetekaria izanen dela berriz. *Gure Herria*-n agertzen dira Eskualtzaleen Biltzarreko berriak. Hola badakigu, urtero egiten duelarik bere biltzar nagusia, zer aipatu duten elgarrekin, nola sustengatzen dituen bai lehen mailean, bai bigarrenean eta ere Baionako apezgaitegian egiten diren lanak. Apezgaien txostenak agertzen dira, hain zuzen, *Gure Herria*-n. Orduan ohart daiteke badirela lokarriak Hegoaldearekin eta biltzar nagusi horietan mintzatzen direla Jose Eizagirre Tolosarra eta Aitzol. Biltzen delarik administral kontseilua 1936ko abuztuaren 10ean Donostirin, aho batez erabakitzen dute Hazparnen bildu beharra den urteko biltzar nagusia ez dela bilduko, ikusiz nola odola

ixuria den Hegoaldean, bereziki euskaldunen artean. Beraz datorren urtera igorria da biltzar nagusia (*Gure Herria*, 1936, 375. or.). Zenbaki berean aipatzen da gerla zibila, jakinaraziz nola Iruñeako eta Gasteizko apezpikuek saiatu diren herren baretzen, bainan debaldetan eta ere nola jokatu diren Iparraldeko batzu aldi bat baino gehiagotan etsaien biltzen euskaldunen arteko gerlaren bukatzeko, hor ere alferretan (380. or.). Ez da dudarik Lafitte-k idatzi zuela artikulutxoa, jakinik nola ibili zen bera batetik bertzera gerlaren lehenbiziko hilabeteetan. Urteko azken zenbakian Aitzolen lan bat "elebitasunaz" agertzean, ohar batean *Gure Herria*-ko zuzendaritzak dio Aristimuño jaun apeza, Gipuzkoako apezetan hain estimatua, espainiol militarrek tirokatu dutela Hernanin eta bertze egun batez erakutsiko duela nor izan zen eta zer egin zuen euskaltzale suhar horrek (462. or.).

Urte guziz bezala *Gure Herria*-ren biltzar nagusia Baionan egiten da urtarrilean, Souberbielle medikua, zuzendari-ordea mahaiburu delarik. Bilduak diren jendeen artean dago Ixaka Lopez Mendizabal, jadanik ihes joana. Bere mintzaldian Souberbielle medikuak aipatzen ditu hastetik Hegoaldeko gertakariak deitoratzen duelarik euskaldun anaien arteko odol-ixurtzea. Oroitarazten du ere nola Mathieu apezpikua *Gure Herria*-ren zuzendaria ibilia den Hegoaldean bakea bilatuz. Ez ditu ahanzten administral kontseiluko Hegoaldeko bi kideak : Eizagirre jauna lanjerrean dagoena, denek gogoan daukatena eta Ixaka Lopez Mendizabal biltzarrean dagoena, Iparraldera etorririk bere abertzaletasunaren gatik. Agurtzen du amultsuki. (*Gure Herria*, 1937, 32-33. or.).

Urteko bigarren zenbakian Jaureguiberry jaun medikuak "elkartezin arrazei" buruz titulu pean gogoarazten du gerla zibila, erranez ez dela bakarrik fazismoa eta komunismoaren arteko gerla, batzuk dioten bezala, bainan azterturik zer izan den eta zer den Espainia eta Euskal Herriaren arteko historia, bukatzen du erranez bi sistema politiko direla auzian : bat zentralista, bertzea federalista.

Eskualtzaleen Biltzarrak bere biltzar nagusia Hazparnen du 1937ko irailaren 11n. Lehenik meza, predikari dela Etienne Sallaberry, filosofia er-

akaslea Uztaritzen. "Zer da Eskualdun izatea ?" da hartzen duen gaia. Predikua bururatzean erantzuten du erranez :

> *Eskualdun izatea da, Eskual lur, mintzaire, fedearen bihotz guziz maitatzea. Hortik kanpo ez da eskualdun osorik.*

Segitzen du hauxe aldarrikatuz :

> *Bainan, girixtino maiteak, badakit badela gure baitan halako ezin aitortuzko galde bat...Eskualdun garbiak Nabarroan, eskualdun garbiak Bizkaian ; hala ere batzu bertzeekin oldar izigarrian... eta (zendako gorde ?) orok ala batzuen ala bertzeen alde hautatu dugu jartzea... Bai, arrunt bi alderdi, erditik da Eskual Herria.*
>
> *Hortaz nigar egin ez duenak ez du gizon-bihotzik ; ezen erran baditake :* « Quam bonum et quam jocundum fratres habitare in unum » *(zoin den gozo, airos ere, anaiak anaiekin egoitea !),* erran behar da : *zoin den hits eta lazgarri anaiak anaien kontra bultatuak izaiteaz !*

Argi eta garbi errana da Iparraldea, Hegoaldea bezala zatikatua dela, Eskualtzaleen Biltzarrean ere. Holako zerbait adieraziko du Dassance presidentak bere mintzaldian :

> *Ordu hartan, Espainian guzian bezala mendiz bertzaldeko probintzietan, gudu izigarri eta deitoragarri baten suak bazter gehienak hartuak zerauzkan. Gudu hartaz, egun, eta hemen nehoiz baino gutiago ez dut deus aipatuko, ez eta nehork deus aipatzea nahi. Bakarrik, hala nahi baduzue segurik, Zeruko Jaunari galdeginen diogu zorigaitzezko egun horiek labur ditzan eta berriz ere bakearen dohaina eta gozoa mundu gaixo huntaraino helaraz.*

Badaki Dassance-k halakoa dela giroa Iparraldean eta, Eskualtzaleen Biltzarraren batasuna zaindu nahiz, baztertzen du gaia, nahiz bakearen alde egiten duen otoitza denek onartzen dutela.

Ez da dudarik ezin onetsia dela gerla hori jende hanitzentzat, bereziki urte horretan, Durango eta Gernikako ikaragarrikeriekin eta Hegoaldetik datozen

iheslariekin. Horrat doa Oxobi agertzen duen olerki batean, "Mors et Vita" tituluarekin:

Urte bat erori da, horma bizkarrean,
Urte bat piztu zaiku, elurpe hotzean ;
Gizonek sua dute piztu elurrean,
Gizonak hiltzen dira, herra bihotzean.

Mendea bazoala, bertze bat abian,
Negu gau hotzetako izarren argian ;
Jainkoa sortu zen haur, etxola batean,
Bakearen Egile gizonen artean.

Jesus sortu eta hil ezpalitz bezala,
Gizonek ezbaietan lege dute gerla ;
Ohointza eta herra zuzenak direla ?
Jainkoaren Semea mintzo zen bertzela.

Sendi da Oxobi apezaren bihotz-mina. 1938ko hastapenean Lafitte apezak agertzen du artikulu bat *Gure Herria*-n, "Atxikitzeko orena" tituluarekin. Ikusiz nola dabiltzan Hegoaldean, dei bat egiten du *Gure Herria* aldizkaria izan dadien elgarretaratze tokia ikerle eta idazleentzat :

> *Egungo egunean mendiz bertzaldeko agerkari gehienak suntsituak dira. Gure anaiak elgarretarik urrunduak daude orainokoan. Hemen ez ditugu ez batzu, ez bertzeak nehoiz ere laidostatu. Heien elgarretaratzerat hertsatu gira behin baino gehiagotan. Aldi huntan ere baketzerat eta lanerat deitzen ditugu oro. Ala* Yakintza*-n ari zirenak, ala* R.I.E.V. *delakoan ari zirenak etor ditela gure ganat. Hala hala Euskaltzaindiko edo Akademiako jaunak bil ditela gure aldamenera. Segur gure aterbeak ez du jauregi baten begitarterik ; bainan etxola xumea ere on zaio bidekariari, uri-elementak ari direnean.*
>
> (*Gure Herria*, 1938, 4-5. or.).

Lafitte-k badaki sakabanatuak direla batzu eta bertzeak eta pentsatuz euskal kultura behar dela salbatu, elgarretaratzea da erremediorik hoberena.

Oxobi-k ere ikusten du giroa aldatzen ari dela Iparraldean eta euskararen kontra ari direla batzu "séparatiste" hitza erabiliz ; hori dela, behar bada, Hegoaldetik iheslarien ondorioetarik bat, politika sarraraziz euskal kulturaren kaltetan. Hortakotz idazten du "Eskuararen alde" deitu artikulua. Hona nola hasten den :

> *Eskualtzaleen fama histen ari dea ? Hala diote batzuek ; eskuararen eta eskualdungoaren alde lan egiten dutenak "séparatistes" direa ? Hola dela nahi luketen Eskual Herriko paristar zenbaitek baderasakete.*
>
> *"Séparatiste" hitz hori erdaratik da. Gure arteko eskualdunetan hamarretarik bederatziek "badantzut" eginen dautzute hitz hori entzutearekin. Badantzut ? eta zuk zer hitz eman dezakezu eskuaraz "séparatiste" horren ordain ?*
>
> *Xakurrak hau, gatuak ñaun, astoek astakeria ; eskualtzaleek badakite bide zuzenean dabiltzala eta orai baderamaten sail berean aspaldidanik buruz, bihotzez eta eskuz arizanak direla beren herritarren onetan, antze handieneko gizonak, omen garbieneko apezak.*

Gure Herria-ren biltzar nagusian, urtero bezala, Mathieu apezpikua ezin etorriz, Souberbielle medikua mintzatuko da, aipatuz euskal lurra odolez gorritua, anaiak eroriak beren xede helburuak atxiki nahiz. Gogorazten du ere nola Mathieu apezpikuaren inguruan jokatu diren Hegoaldeko haurren alde, beren sort herritik urrunduak direlarik eta aitamen ganik berezirik. Agurtzen du Ixaka Lopez Mendizabal Hegoaldeko kidea eta haren kemena goraipatzen, beti bere gogoan daukala Jose Eizagirre jauna, haren berririk nehork ez baitu.

Urte hortan "Eskualtzaleen Biltzarra"-k bere biltzar nagusia Domintxinen dauka. Beti bezala Dassance mintzatzen da biltzar nagusian eta urte horretan bazkal ondoko mintzaldia uzten dio Oxobi alegia egileari. "Gureak gure" deritzan mintzaldian, berriz hartuko du jadanik aipatu duen gaia urte hastapenean. Hauxe oihukatzen du garbiki, "Eskualtzaleen Biltzarra" zer den erakutsiz :

> *Eskualtzaleen Biltzarrak ez du "politika" deitzen duten saltsatik jastatu ere nahi.*
>
> *Eskualtzaleen Biltzarrean ez gira buru bero batzu ez eta ere amets gaixto eraile batzu.*
>
> *Ez gira, erdaldun eta, entzuna dutanaz, eskualdun zenbeitek girela derasatena : "Autonomistes-Séparatistes". Hein batean, gure xokoan, bekaizgorik gabe, GUREAK GURE nahi ditugu. Bertzerik ez.*

Ikus daiteke Iparraldean den giro berria eta nola Oxobi-k erantzuten dien eskuin muturreko erdaldun eta euskaldunei, eta, nahiz ez duen sekulan aipatzen, Ybarnegaray haien erregetxoari.

1939ko gerla bukatua da. Espainiatik etorri dira iheslariak. Batzu sartuko dira berriz, bertzeak Frantzian egonen eta haietan badira parte hartuko dutenak Alemanen kontra eta Parise askatzera etorriak zirenetan, bazen burdinkarro bat "Gernika" deitzen zena.

Alabainan, bigarren mundu gerla hasten da irailean. Hegoaldean euskaldun agerkariak ixilduak dira, Iparraldean ere *Gure Herria* halaber.

3. Euskal anaitasuna

Lehenbiziko iheslariek muga iragan dute 1936ko abuztuan eta irailaren hastapenean ; bai Donibane Lohizunen eta bai Angelun sortzen dira haien aldeko batasunak. Denbora berean sortzen da batasun zabalago bat eta horretan parte hartzen dute orduko jende ospetsuek.

Burua : de Coral diputatua. Buru-ordea : Goyheneche medikua, Inchauspé eta Constantin medikua, hiruak kontseilari orokorrak, lehena Uztaritzen, bigarrena Donibane Garazin, hirugarrena Atharratzen. Diruzaina : Dassance Uztaritzeko auzapeza. Eta *Eskualduna*-k dion bezala :

> *gisa hortan Lapurdik, Baxenabarrek eta Ziberoak ukanen dituzte beren gizonak.* (*Eskualduna*, 1936-9-18).

Bainan ikusiko dugun bezala ez dirudi luzaz iraun duela.

novela anterior *Hamaika Pauso*, también en ésta Saizarbitoria vuelve a hacer suyos, en especial, en el plano narrativo que recoge los testimonios de los viejos gudaris de la Guerra Civil, los objetivos que la metaficción historiógrafica lleva consigo: no se trata de realizar un retrato fiel del pasado histórico pues, como se ha reconocido tras los trabajos Hayden Whyte (1973:7), tal objetividad es imposible. Saizarbitoria utiliza a la cuadrilla de jubilados que vivió la Guerra Civil para volver a recordarnos que hay muchas verdades desconocidas, muchas microhistorias en las contiendas bélicas. Son destacables, por su carga simbólica, todas las escenas que en diferentes fechas ocurrieron el día 13: el día 13 de septiembre de 1936 entraron los requetés en San Sebastián; el día 13 de septiembre de 1996 se enfadaron los cónyuges, protagonistas de la obra, y conoció él a su amante Violeta; es del día 13 de febrero de 1936 la fotografía en la que aparecen el padre del protagonista y Mikele de Abando; el día 13 de julio de 1936 asesinaron a Calvo Sotelo... Todas estas referencias cronológicas muestran que bajo la misma fecha hay multitud de historias, de gente anónima o no, y que, en definitiva, visitar el pasado es un acto subjetivo. Al final, las palabras de Samuel resumen a la perfección el mensaje de la novela: "gerra lerdokeria bat da, luzarora irabazleek ere galdu egiten baitute. (...) inork ez daki zergatik doan gerrara" ("la guerra es una idiotez, a la larga, también los vencedores terminan perdiendo (...) nadie sabe por qué se va a la guerra"). Afirmaciones que, por supuesto, son también atribuibles a la otra guerra que narra la novela, la matrimonial.

En el año 2000, Saizarbitoria publicó *Gorde nazazu lurpean* (Guárdame bajo tierra) (Olaziregi 2009). En él, Saizarbitoria nos ofreció la plasmación más acertada de los ejes temáticos que han moldeado su obra reciente: el del sufrimiento que generó la Guerra Civil y el de la incomunicación entre ambos sexos. Saizarbitoria explicaba así el objetivo que persiguió con el libro:

> En las cinco novelas que componen *Gorde nazazu lurpean* es evidente, demasiado quizá, que trato de mostrar el tremendo peso que nos ponen sobre los hombros a los que nacemos en naciones pequeñas, en naciones que no se sabe seguro si existen, cuya existencia se

> discute, que cuentan con unas fronteras y limites confusos y que viven bajo la esquizofrenia lingüística y política. Se supone que todo esto nos hace ser de una manera determinada a quienes hemos nacido en el seno de una familia nacionalista. Es una carga muy pesada. (cf. *El País-Babelia,* op cit. p. 2)

En efecto, dicha carga es patente no sólo en historias como *Rossettiren obsesioa* (*La obsesión de Rossetti*), sino, en especial, en las dos narraciones que abren y cierran el volumen: *Gudari zaharraren gerra galdua* (La guerra perdida del viejo gudari) y *Asaba zaharren baratza* (El huerto de nuestros mayores). El primero de ellos, *Gudari zaharraren gerra galdua*, narra las vicisitudes de un viejo soldado vasco, gudari, que perdió su pierna en la Guerra Civil y acude al notario para solicitar un acta notarial y poder reclamar una pensión. La narración, que viene dedicada a un viejo gudari amigo de Saizarbitoria, relata los hechos acaecidos el 20 de abril de 1937, en el monte Inchorta, cuando el miembro del batallón Martiartu y protagonista de la historia es herido en su pierna y trasladado al hospital de Durango y posteriormente al de Basurto, en Bilbao. Los comentarios metanarrativos incluidos en el texto ("Le ocurría mucho aquello de no saber por dónde empezar a contar algo", p. 38[9]), nos sitúan ante una metaficción historiográfica plagada de referencias a hechos y personas reales, pero que pone de manifiesto que todo intento de recuperar el pasado nos lleva a reinventarlo. En efecto, el detallismo con el que intentan narrar los hechos los dos testigos que el interesado lleva ante notario, así como las constantes interrupciones del notario solicitando que abrevien y se ciñan al relato de los hechos, nos transmiten la idea de que cualquier intento de objetividad es vano. No solo el acta notarial está llena de errores (los nombres de los batallones, por ejemplo, p. 22), sino que los testigos que el interesado aporta no estuvieron realmente en el lugar de los hechos en el momento señalado. Y es que, en realidad, poco importa todo ello para este viejo gudari que no se puede quitar la guerra de la cabeza (p.46), porque, tal y como repite obsesivamente (i.e. "la perdí en la guerra", p. 27), lo que perdió en la con-

[9] De la primera edición en castellano por Alfaguara, en 2001.

tienda, su pierna, es una señal exterior de lo que también perdió en su foro interno, su amada Miren, una pérdida a todas luces irreparable. Es por ello que el reloj del viejo gudari se paró a las 4:30 (p. 23), porque esa fue la hora en la que ocurrieron los hechos, la hora en la que su vida se paró para siempre. Las palabras de Adolfo Suárez que se invocan en el texto: "Hay que restañar las heridas de la guerra" (p. 27), subrayan la imposibilidad de tal intento. Cuando al final de la narración el gudari acude a tratar de recuperar su pierna al monte donde la enterró su amigo, se da cuenta de que tal acto es imposible, y al aceptar la pérdida de su pierna, es decir, la de su amada, muere.

La última narración del libro, *El huerto de nuestros mayores*, habla de la carga ideológica nacionalista que han padecido generaciones de vascos. El narrador y protagonista, Policarpo, es el hijo de un nacionalista vasco que trabajó de chófer durante la contienda y que presenció la exhumación y traslado de los restos del fundador del nacionalismo vasco, Sabino (Policarpo) Arana. Las reliquias de Arana, unos huesecillos que robó durante el traslado (p. 472), pasan a ser la herencia que deja al morir a su hijo, narrador de la historia. El texto nos va revelando el pasado de esta familia, un pasado plagado de momentos de intimidad entre padre e hijo, intimidad que conlleva un dolor físico (p. 436, 437) por la carga que supone física (y simbólica) cada escena de aproximación del padre al hijo para narrar su "legendario" pasado nacionalista. Las diferentes versiones que se dan del traslado de los restos de Arana, revelan claras contradicciones entre la historia que el padre ha contado a su hijo, el acta que en su día escribiera Ceferino Xemein, y la historia "verdadera" del traslado. Al hilo de lo afirmado por investigadores como H. White, lo que Saizarbitoria trata de decirnos es que la Historia es en realidad una Narración, es decir, una construcción escrita desde una posición ideológica interesada. Al final del relato, cuando el protagonista decide desprenderse del legado que le ha dejado su padre y lanzar al mar los huesecillos de Sabino, en realidad, lo que está haciendo es, tal y como dijo la psicoanalista Mariasun Landa Lizarralde (2002), liberarse del legado ideológico que le ha llegado del padre, legado simbolizado por esa reliquia con claro valor fálico, y situarse

en posición de hacer frente al deseo. La frase que dirige a su amada, también víctima del legado nacionalista, "Tú eres mi patria" (p. 490), resume a la perfección el mensaje de esta interesante historia de Saizarbitoria.

Memoria, Nacionalismo, Deseo... un trinomio interesante para una literatura, la vasca, que trata de exorcizar sus demonios más sagrados.

Obras citadas

ALTISENT, M., 2008, A *Companion to the Twentieth-Century Spanish Novel*, Woodbridge: Tamesis.

ANDERSON, B., 1991, *Imagined Communities: Reflections on the Origin and Spread of Nationalism,* London: Verso.

ATXAGA, B., 2003, *Soinujolearen semea*, Iruñea: Pamiela. Traducciön: *El hijo del acordeonista*, Madrid, Alfaguara, 2004. Traducción de Asun Garikano y Bernardo Atxaga.

BERTRAND DE MUÑOZ, M., 1982, *La Guerra Civil española en la novela*, Tomos I y II, Madrid: J. Porrúa Turanzas.

BHABHA, H. K., 1990, "DissemiNation : time, narrative, and the margins of the modern nation." *Nation and narration*. Ed. Homi K. Bhabha, London/New York: Routledge.

COLMEIRO, J., 2005, *Memoria histórica e identidad cultural: de la postguerra a la postmodernindad*, Barcelona: Anthropos.

FABER, S., 2008, "The novel of the Spanish Civil War", in Altisent, M. (Ed.), *A Companion to the Twentieth-Century Spanish Novel*, Woodbridge: Tamesis, pp. 77-90.

FERRÁN, O., 2007, *Working through Memory. Writing and Remembrance in Contemporary Spanish Narrative*, Lewisburg: Bucknell UP.

GINZBURG, C., 1992, "Just One Witness", in Friedlander, S., *Probing the Limits of Representation. Nazism and the 'Final Solution'*, Cambridge: Harvard University Press.

GOULD LEVINE, L. & ENGELSON MARSAN, E. (Ed.), 1997, *Proyecciones sobre la novela*, Hanover, USA: Ediciones del Norte.

HALBWACHS, M., 1992, *On Collective Memory*, Chicago: University of Chicago Press.

HERZBERGER, D.K., 2008, "Post-war Historical Fiction", in Altisent, M. (Ed.), op. Cit., pp. 101-113.

HUTCHEON, L., 1989, *The Politics of Posmodernism*, New York & London: Routledge.

IRUJO, X., 2008, "Euskal erbestea eta erbesteak", *Guregandik* 4, 2008, pp. 66-100.

ITURRALDE, J.M., 2003, *Jon Andoni Irazusta*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. "Bidegileak" Saila.

LANDA, M. A., 2002, "Psicoanálisis bajo tierra", *Qué leer* 68, pág. 16.

LOWENTHAL, D., 1985, *The Past is a Foreign Country*, Cambridge: Cambridge University Press.

LUENGO, A., 2004, *La encrucijada de la memoria. La memoria de la guerra civil española en la novela contemporánea*, Berlin: Ed. Tranvía.

OLAZIREGI, M. J., 2008a, "La Guerra Civil y sus representaciones", en Roig-Rechou, B. (Ed.), *A Guerra Civil española na narrativa infantil e xuvenil*, Santiago de Compostela: Xerais, 2008a, pp. 13-27.

———, 2008b, "Una vaca amiga de los maquis. A propósito de Memorias de una vaca de Bernardo Atxaga", in Roig Rechou, B. (Ed.). op. Cit., pp. 207-216.

———, 2008c, "Basque Fiction", in Altisent, M. (Ed.), op. Cit. 247-258.

———, 2009, "Is there a return of the real in postmodern fiction?", in Rodríguez, M.P. (Ed.), *Cultural and Media Studies. Basque/ European Perspectives,* Reno: Center for Basque Studies-University of Nevada, Reno, pp. 53-80.

———, 2010, "Los lugares de la memoria en la narrativa de Bernardo Atxaga", in Andrés-Suárez, I. (Ed.), *Bernardo Atxaga*, Madrid: Arcolibros (en prensa).

RESINA, J. R. (Ed.), 2000, *Disremembering the Dictatorship. The Politics of Memory in the Spanish Transition to Democracy*, Amsterdam-Atlanta: Rodopi.

RESINA, J. R. y WINTER, U. (eds.), 2005, *Casa encantada: Lugares de memoria en la España constitucional (1978-2004),* Frankfurt/Madrid: Iberoamericana/Vervuert.

Roig Rechou, B.A. et al. (Coord.), 2008, A *guerra civil española na narrativa infantil e xuvenil*, Vigo: Xerais.

SAIZARBITORIA, R., 1996, *Bihotz bi*, Donostia: Erein. Traducción: *Amor y guerra*, Madrid: Espasa-Calpe. Traducido por Bego Montorio.

———, 2000, *Gorde nazazu lurpean*, Donostia: Erein. Traducción: *Guárdame bajo tierra*, Madrid: Alfaguara. Traducido por Fundación Eguia Careaga.

TORREALDAI, J.M, 1998, *Martin Ugalde: Andoaindik Hondarribira Caracasetik barrena*, Donostia: Elkarlanean.

UGALDE, M., 1989, *Itzulera baten istorioa*, Donostia: Elkar. Español: *Historia de un regreso*. Hondarribia: Hiru. Traducción de Koldo Izagirre.

VALIS, N. (Ed.), 2007, *Teaching Representations of the Spanish Civil War*, NY: The Modern Language Association of America.

WHITE, H., 1973, *Metahistory: The Historical Imagination in Nineteenth-Century Europe*, Baltimore: Johns Hopkins University Press.

———, 1978, *Tropics of discourse: Essays in Cultural Criticism,* Baltimore: The Johns Hopkins University Press

Euskal Teatroa Gerra Zibilean (1936-37)

URKIZU SARASUA, Patri
Euskaltzain urgazlea eta Literatura Ikerketa batzorkidea
UNED. Madrid

Sarrera data: 2009-11-26
Onartze data: 2010-07-14

Euskera. 2009, 54, 2-2. zatia, 1049-1078. Bilbo
ISSN 0210-1564

Gerra Zibila eta ondorengo gerraostea suspertzen hasiberritako euskal kultura eta antzertiarentzat kolpe latza izan ziren. "Aitzol" eta "Lauaxeta" mugimendu euskaltzalearen bi pertsonaia funtsezko eta gailenen fusilamendua, eta nazionalista sutsu eta nabarmendu gehienen erbesteratze eta kartzelaratzea, euskara erabiltzeko debekua, ...horrek guztiak haustura larria ekarri zuen. Alabaina, 1937an jaio eta urte berean, Bilbo erortzearekin bat zenduko zen *Eguna* lehen euskal egunkariaren garaiko kronikak jarraituz gero, faxistek okupatu gabeko eremuan hainbat antzezpenen berri topa dezakegu, hala nola Bilbon, otsailaren 11an, *Bilboko Euzko Gastedija* taldeak eskaini zuena. Emanaldi horretan Pearse-ren *Iru Gudari*, gazteleraz eta Soroaren *Ezer ez ta festa* euskaraz jokatu ziren.

Hitzaldi honetan aztertzen dira zein dramaturgiatan kokatzen diren bai aipatu obra hauek, baita batipat Yeats-Sota-Altunaren, *Negarrez igaro zan atsua*; S. Arana /M. Sota-ren *Libe*; eta A. Campión-A. Etxaberen *Pedro Mari.* Hala nola bereziki gerra gaitzat harturik honoko antzergigileok moldatu eta antzeztarazitako lanak: Antonio Ruiz de Azua "Ogoñope", *Euzkadi´ko erri baten* (Ekin, Mexico, 1950); Antonio Labaien, *Lurrikara* (*Euzko Gogoa*, Miarritze, 1955); Jean-Louis Davant, *Agirre presidenta* (Arrokiaga, 1995), eta Carlos Panera, *Lauaxeta, herri antzerkia* (Bilbao, 2005)...

Hitz-gakoak: Euskal teatroa, Gerra Zibila, Eguna, Erbestea, Manu Sota.

La guerra y la inmediata postguerra supusieron un cruel golpe para la incipiente cultura vasca así como en especial para el teatro. "Aitzol" y "Lauaxeta" dos intelectuales fundamentales en el movimiento basquista fueron fusilados, así como otros escritores y nacionalistas que o tuvieron que exiliarse o sufrieron largos años de carcel. Estos hechos así como las prohibiciones del uso del euskara trajeron consigo una grave crisis.Para conocer el movimiento cultural anterior que se dio durante la República y la guerra civil se puede ojear el diario *Eguna* [El día] que se editó en Bilbao desde el 1 de enero hasta la caída de Bilbao. Nos podemos encontrar en sus páginas entre otras las reseñas de la sesión de teatro que el 11 de febrero *Bilboko Euzko Gast*edija [La juventud vasca de Bilbao] ofreció con la representación de la obra de P. Pearse *Tres Gudaris* en castellano y la de M. Soroa *Ezer ez ta festa* [Se hace fiesta por nada].

En esta conferencia, –acompañada de numerosas ilustraciones– se analizan las dramaturgias en las que se hallan inmersas dichas obras, así como las siguientes de W.B. Yeats-M. Sota- J. Altuna (*La anciana que pasó llorando*), S. Arana-M. Sota (*Libe*), A. Campión-A. Etxabe (*Pedro Mari*). Así como aquellas otras que teniendo como *leit-motiv* la guerra civil han sido escritas, dirigidas y representadas por A. Ruiz de Azua "Ogoñope" (*En un pueblo de*

Euzkadi, Ekin, Mexico, 1950), A. Labayen (*Terremoto*, *Euzko Gogoa*, Biarriz, 1955), J.-L. Davant, *Agirre presidenta*, Arrokiaga, 1995), y C. Panera (*Lauaxeta, teatro popular*, Bilbao 2005)...

Palabras clave: Teatro vasco, Guerra Civil, El Día, Exilio, Manu Sota.

La guerre et l'immédiate après-guerre a été un coup terrible porté à la culture basque naissante, et tout particulièrement au théâtre. « Aitzol » et « Lauaxeta », deux intellectuels fondamentaux dans le mouvement basque ont été fusillés, ainsi que d'autres écrivains et nationalistes qui ont dû s'exiler ou ont passé de longues années en prison. Ces faits, ajoutés aux interdictions d'utiliser le basque, ont entraîné une grave crise. Pour connaître le mouvement culturel précédent né durant la République et la guerre civile, on peut lire le quotidien *Eguna* [Le jour] qui a été édité à Bilbao du 1er janvier jusqu'à la chute de Bilbao. Nous pouvons trouver entre autres dans ses pages les comptes rendus de la séance de théâtre que *Bilboko Euzko Gastedija* [La jeunesse basque de Bilbao] a offert le 11 février avec la représentation de l'œuvre de P. Pearse *Tres Gudaris/Trois Gudaris* en espagnol et celle de M. Soroa *Ezer ez ta festa* [On fait la fête pour un rien].

Cette conférence, –accompagnée de nombreuses illustrations– analyse les dramaturgies dans lesquelles ces œuvres sont plongées, ainsi que les suivantes de W.B. Yeats-M. Sota- J. Altuna (*La anciana que pasó llorando*)/(*La vieille dame qui passa en pleurant*), S.Arana-M.Sota (*Libe*), A. Campión-A.Etxabe (*Pedro Mari*). Mais également d'autres qui, ayant pour *leitmotiv* la guerre civile, ont été écrites, dirigées et représentées par A. Ruiz de Azua « Ogoñope » (*Dans un village d'Euskadi)*, Ekin, Mexico, 1950), A. Labayen (*Terremoto/(Tremblement de terre)*, *Euzko Gogoa*, Biarritz, 1955, J.-L. Davant, *Agirre presidenta* (Agirre président), Arrokiaga, 1995), et C. Panera *(Lauaxeta, théâtre populaire)*, Bilbao 2005)...

Mots-clés: Théâtre Basque, Guerre Civile, le jour, exil, Manu Sota.

The war and the immediate post-war period were a cruel blow to the nascent Basque culture especially for the theatre. "Aitzol" and "Lauaxeta" two fundamental intellectuals in the "Pro-Basque" movement were shot, as well as other writers and nationalists who went or were forced into exile, or endured long years in prison. These facts as well as the prohibitions on the use of the Basque language brought with it a serious crisis. To be acquainted with the earlier cultural movement that took place during the Republic and the civil war one can browse the newspaper *Eguna* [The Day] which was published in Bilbao

from 1 January until the fall of the city. We can find in its newspaper sheets among other items, the review of the theatre sessions that on 11 February *Bilboko Euzko Gastedija* ["The Basque Youth of Bilbao"] gave a performance of the play by P. Pearse *Tres Gudaris* ("Three Soldiers") in Spanish and the play of M. Soroa *Ezer ez ta festa* [Se hace fiesta por nada].

In this presentation, – together with several illustrations – discusses the dramatic art that these works are steeped in, as well as in the following W.B. Yeats-M. Sota- J. Altuna (*"The old lady who wept away"*), S.Arana-M.Sota (*Libe*), A. Campión-A.Etxabe (*Pedro Mari*). In the same way those works that have as *leitmotif* the Spanish Civil War have been written, directed and performed by A. Ruiz de Azua "Ogoñope" ("A Town of Euskadi") Ekin, Mexico, 1950), A. Labayen (*Terremoto* ("Earthquake"), *Euzko Gogoa*, Biarriz, 1955), J.-L. Davant, *Agirre presidenta* ("Agirre President"), Arrokiaga, 1995), and C. Panera ("Lauaxeta, popular theatre"), Bilbao 2005)...

Keywords: Basque theatre, Civil War, The Day, Exile, Manu Sota.

Gerra Zibila eta ondorengo gerraostea suspertzen hasiberritako euskal kultura eta antzertiarentzat kolpe latza izan ziren. «Aitzol» eta «Lauaxeta» mugimendu euskaltzalearen bi pertsonaia funtsezko eta gailenen fusilamendua eta nazionalista sutsu eta nabarmendu gehienen erbesteratze eta kartzelaratzeak, euskara erabiltzeko debekuak, horrek guztiak haustura larria ekarri zuen.

Aipatu bi idazle horietaz aparte ezin utzi izendatu gabe beste idazle fusilatu zenbait hala nola Martin Lekuona, bere anaia Manuel Lekuonarekin *Eun dukat* antzerkiaren egilea[1], Jose Mari Azkarraga "Lurgorri", eta Josu Peña "Aitza"[2].

1937an jaio eta urte berean, Bilbo erortzearekin bat, zenduko zen *Eguna* lehenengo euskal egunkariaren Gerra kronikak jarraituz gero, faxistek okupatu gabeko eremuan hainbat antzezpenen berri topa dezakegu, hala nola Bilbon, otsailaren 11an, *Bilboko Euzko Gastedija* taldeak eskaini zuena. Emanaldi horretan *Iru Gudari*, gazteleraz, eta Soroaren *Ezer ez ta festa*, euskaraz jokatu ziren.

Hona teatro ikuskizun emanaldien zerrenda:

TEATRO IKUSKIZUNAK

URTEA	EGILEA-OBRA	ERREPRESENTAZIOAK/TALDEAK
1936	Guillermo de Sota, *Los cuatro caminos...*	Teatro Arriaga, Bilbao IX
	Navarro y Torrado, *Dueña y señora*	Bilbao
	Luis Mujika, Combate, *Romancero Gitano*	Bide Berria. Coliseo Albia, Bilbao
1937	X, *Nekane (Haur T.)*	Ea, 6-I-
	A. Amundarain, *Uste diñat*	Ea, 6-I-
	W. Yeats- M. Sota-J. Altuna, *Negarrez igaro zan atsua*	Sopelana,10-I-
	Pepe Artola, *Xabiroia*	Tiki-taka, Bermeo, 20-I-
	W. Yeats- M. Sota-J. Altuna, *Negarrez igaro zan atsua*	Bermeo, 20-I-
	W. Yeats-M. Sota-J. Altuna, *Negarrez igaro zan atsua*	Bermeo, 4-II-

[1] Lekuona anaiak, *Eun dukat*, Antzerti euskal antzertiaren ilerokoa, 41-42 zb. Tolosa, 1935.

[2] Latxaga, *36´ko gudaldian su-izkillatutako idazle gazteak: Lauaxeta, Lurgorri, Josu Peña (Aitza).* Euskerazaintza, 2002.

	S. Arana / M. Sota, *Libe (gazt.)*	Bilbao, Albia, 4-II-
	M. Soroa /T. Alzaga, *Ezer ez ta festa*	1-II Bilboko Euzko Gaztedija
	P. Pearse-M. Sota-Lauaxeta, *Iru gudari* (gazt.)	11-II-
	J. Coterillo, *Alas rojas*	1-II-. Arriaga Antzokia
	J. Arroita-Jauregi, *Amaya*	Bilbo, 26-27-III-
	W. Yeats- M. Sota-J. Altuna, *Negarrez igaro zan atsua*	Lemoiz, 28-III-
	Elai-Alai	Ea, 28-III-
	A. Campión-A. Etxabe, *Pedro Mari*[3]	Barcelona, Liceu 29-V/ 6-VI-
	Eresoinka	Paris, Pleyel, 18-XII-
1938	E. Urruzola "Uxola"	Larrinagako kartzela (?)
	Elai-Alai	Paris, Wagram aretoa 19-II-
	Elai-Alai	Hazebrouck, Turcoing, Lille
	Eresoinka	Théâtre de Paris, 18-IV-
	Eresoinka	London, Aldwych Th., 18-VI-
	Eresoinka	Bayonne, 13-14-IX-
1939	Eresoinka	Radio Toulouse, 22-I-
	Elai-Alai	Dunquerque

Hona nola kontatu zion garaiko giro hori Jesus Maria Leizaolak Robert Marrast ikerle katalandarrari:

> En aquest país, les activitats del teatre profesional van centrarse principalment en espectacles lirics, óperes i ballets patrocinats pel Consell de Cultura del govern basc (Testimonio de Leizaola, 1963). A Bilbao, el mes de novembre de 1936: funciona el grup teatral de la *Federación Universitaria Escolar de Euzkadi (UFEH) Bide Berria,* sota la direcció de Luís Mújica i Antonio Ramirez. Va donar quatre o cinc representacions a benefici dels combatents i de llurs al Coliseu Albia, i despres al front i als hospitals militars. El programa comprenia muntatges escénics de poemes del *Romancero Gitano* de García Lorca, poemes sobre la

[3] Alfredo Etxabe, *Pedro Mari*. Melodrama en cuatro actos. El tercero dividido en dos cuadros, basado en la leyenda del mismo título de Don Arturo Campión. Estrenado en el Teatro de los Campos Elíseos de Bilbao el 19 de marzo de 1922. Bilbao, 1932.

> defensa de Madrid i congons revolucionáries. A vegades, els actors improvisaven sobre un terma donat, com en el cas de *Combate* de Luis Mújica, destinat a protestar contra els bombardeigs dirigits contra la poblacio civil. El mes de setembre de 1936, una companya patrocinada per la Junta de Espectáculos del Auxilio Social de Vizcaya va presentar al Coliseum Albia de Bilbao una obra de qualitat: *Los cuatro caminos* amb Guillermo Soto; al Teatre Arriaga. La companyia de Diaz Axtigas-Collado va donar una serie de representacions de *Dueña y Señora* de Navarro y Torrado[4].

Gaztelaniazko antzerti mota desberdinak aipatzen ditu Luis Miguel Gómez Díaz-ek duela gutxi plazaratu bere testu eta agirien bilduman[5], bertan agertzen zaigula nola Arriaga antzokian 1937ko otsailaren lehen egunean estrenatu zuten Julio Coterillo Llano-k idatzitako *Alas rojas.*

Baina gu hemen batipat euskal antzertiaz mintzatuko gara.

Esan bezala, teatro zaletasun hori ez zen gerra edo kartzela bezain egoera larrietan iraungi. Izan ere, Estanislao Urruzola «Uxola»k adierazten duen moduan[6], antzertia eta aldizkaritxo klandestino bat batasun eta erresistentziarako baliabide ia bakarrak ziren.

Hona zer zioen, besteak beste, Barkaiztegik Zumaian sinaturiko "Sota jaunaren "Iru Gudari", Zumaya'n" artikuluan herriko semea zen Etxabek gipuzkeraz prestatu obraz eta Iñauteri igandean antzeztuko zenaz, *Sota'tar Imanol'ek sortutako antzerkirik mamintsu, sakon eta aberkoiena euskeraz adelatu bear digute. Antzerti ori, ez dago esan bearrik IRU GUDARI da*[7].

---

[4] MARRAST, Robert: *El teatre durant la guerra civil espanyola. Assaig d´historia i documents*. Barcelona, Institut del Teatre, 1978, 204.

[5] GÓMEZ DÍAZ, Luis Miguel: *Teatro para una guerra [1936-1939]. Textos y Documentos*. Centro de Documentación teatral, Ministerio de Cultura, Madrid, 2006.

[6] URRUZOLA, Estanislao: *Askatasun garratza*. Antzerti 56, Donostia, 1983.

[7] *El Día*, Donostia, 1934-02-07.

Eta *Iru gudari Mutriku'n* izendatu eta Andonik sinaturiko bertsoetako ahapaldi batek honela :

«Iru Gudari» antzerki-izena
Nori etzayo burutzen...?
Abertzalerik bai ote dago
Etzaionik biotz-mintzen...?
Euzko semeak Aberri aldez
Dira mendira irtetzen,
Auetan iru gazte, kementsu
Dituzte arrapau eta iltzen.
Antzezlari trebeak eta
antzezkizun aberkoia,
auxen genuen aspalditikan
gure gogo eta naia[8].

Iru Gudari –z mintzo zaigu ere Nikasio Arizmendi "Atarrene" donostiar antzezle eta gudariak "Gora Euzko-antzerkiak" izeneko bertsoetan[9]: Ala Agustin Anabitarte ote EGUNA-ren faksimileko sarrerak dioenez ? Arizmendi badakigu Euzko Iztundeko antzezle izan zela Shakespeare-ren *Irritza*-n eta Marzelino Soroaren *Ezer ez ta festa*-n ere parte hartu zuena:

GORA EUZKO-ANTZERKIAK

Erdel-antzerki asko dirade
Gau<r> Bilbao'n antzezgarri,
Ontan Euzkadi'n ote geraden
Ezin da jaunak igarri.
Euskara dabil askon artean
Aztuta ain lotsagarri,
Gure aberriak era onetan
Andaluzia dirudi.

[8] *El Día*, Donostia, 1936-05-29.

[9] Nemesio Arizmendi «Atarrene», *Eguna*, 1937, otsailak 10.

Erderaz bein ta erderaz beti,
Urte batian ta beste,
Euzko antzerkiak baztartu eta
Erdera aurrera damate.
Orla baguaz gure bazkunak
Ikusten ez al dezute
Euzkadi'ri on baño lengo
Kalte duela nik uste.

Au ikusita, samindurikan,
Antzezlari gipuzkoarrak
Asmotan gera, Jaunari lagun,
Astindutzeko baztarrak;
Zerbaiterako gera euzkeldun
Odol garbiz euzkotarrak.
Lanera gatoz antzeztutzera
Euzkel-antzerki jatorrak.

Euzko-antzezlari taldetxo bat
Neska-mutilen artean
Bildu ginaden euzkera utsez
Antzeztutzeko asmoan;
Gure asmoak jarri ditugu
Ziur aurrera bidean
Igande ontan antzezturikan
Bilbo'ko antzoki batean.

Igande ontan batzuk erderaz
"Iru gudari" jarririk,
"Ezer ez ta festa" antzezko degu
Euzkeraz zerbait emanik.
Urrengo gure antzoki jaia
Euzkeraz bakar bakarrik;
Antzeztokian ez da entzungo
Euzkera ederra baizik.

Etorri zintzo gure jaitara
Anai maite euzkotarra,
Euzko odolaz, euzko-biotzaz,
Euzkadi'n seme ba zera.
Etzekiela ta ikasi zun
Sabin'ek gure euzkera;
Ikasi ezazu abertzalea
Sabin aundien antzera.

Ikusten dugun bezala bertso hauetan, lehenik Atarrenek kritika gogorra egiten dio Bilbaori, esanez Andaluzia dirudiela eta errepresentatzen diren antzerkiak ia gehienak gaztelaniaz direla. Honen ezagugarri izan daiteke noski Bilboko *Emakume Abertzale Batzak* antzeztu zituenak 1937ko otsailean: Matai San Cristobalen *La virtud del silencio,* zeren komentatzen duen bezala EGUNAko berriemaileak[10], *ixilaren egimena ekandu gustijen itturija da ixan be, onbide gustijen sustraya*, edota Varela-Zumeltzu anaien, *Cuando el amor es puro, Mattetasuna garbi aratza danian...*

Jakina da 1922an sortu zela Emakume Abertzale Batza Ambrose V. Martin O'Daly irlandesak Bilbon apirilean emandako hitzaldiaren ondoren CUMANN NA –BAN elkartearen antzeko zerbait egituratzeko. Baina 1923ko irailean debekatu egin zuen Primo de Rivera jeneralak, eta 1931an berriro piztu zen Bigarren Errepublikarekin. 1932an jada bazituen 116 egoitza Bizkaian, 66 Gipuzkoan , 12 Nafarroan eta 11 Araban. Beren helburuen artean zegoen anderea ongi prestatzea eta janztea bizitza modernorako, takigrafia, mekanografia eta euskara ikasiz, hala nola antzerki ikuskizunak prestatuz eta mendirako irteerak eginez.

Iru Gudari drama historikoa XIX. mendean kokatzen da eta ixtorioa Nafarroako mendietan lekutzen, lehen karlistadaren garaian. Lehen ekitaldian hiru gudari heriotzara zigortuak izango dira, beren buruak soilik euskaldu-

[10] «Antzerki-jaya», EGUNA, 1937, II-28.

nak kontsideratzeagatik, halaxe baitio Ganitzek :...*Ez Españako bakaldunarena, ez Franceko erkalarena: euzkotarrak uts-utsik*[11]. Bigarren ekitaldian fusilatuak izango dira, baina Barkaiztegi jeneralak gudalostea abandonatuko du, bere ahaleginaren frakasoaren aurrean.

Tragediaren bukaeran EMAKUMEA deritzan eta Euskal Herria irudikatzen duen pertsonaiak honako bakarrizketa egiten du:

LENENGO BURUZAGIJA.

Iru zoro erail doguz baña euren zorakerija berpiztu dogu onengan!

EMAKUMIA

(Iru gorpuben ganian zutunduten dala leoi baten legez).

Neure semiak erail dozubez! *(Emakumiaren ingurubak argi dizdizkor batek estalduten dauz zerutiko agerpen bat ixango balitz. Bittartean Euzko-Abendearen Ereserkija entzuten da).* Neure semiak erail dozubez! Mendijak ... eta itxasuak ... lurra ... eta Aberriko ur gustijak zeben aurka jagi biar 1itzakez, gaizkiñok, zoratuta legez matte naben semien gaizkiñok ... Nazana naz eta ixango nazana! Semien odolaz ta samiñakaz azi tta aintziduten nazana naz! Itxartuten diran euzkoen goguetan bixi nazana naz! Euzkotarren mattale bakarra izango nazana naz! Lur zati bat ludijan dan artian eta euzko-bijotz batek dardar dagijan bittartian neure amatasun ezilkor au bixi ixango da! Ixadijaren asikeratik euzkotarren egijazko ama ixan nintzan naz! Il diran euzkoen amea neu ixan naz eta bixiko diranena neu naz. Neure altzuan alkartuta bixiko dira ezilkorra dan Azkatasun donian!...

Antzoyala (33-1-26/33-2-15)[12]

[11] KORTAZAR, Jon (ed.): *Esteban Urkiaga, Lauaxeta. Antzerkia*. Klasikoak 38, Euskal editoreen elkartea. Oiartzun, 1990, 96.

[12] Jon Kortazar, aip lib., 127.

Manu Sotak eta Lauaxetak moldatu zuten antzerki hau eta *Bilboko Euzko Gaztedijak* oholtzaratu gaztelaniaz[13].

Pertsonaia sinboliko honek teatro politiko sinbolikorantz garamatza eta beraz, mintza gaitezen orain, zertxobait euskal teatroak irlandesarengandik jasan izan zuen eraginaz.

Pádraic Pearse (Dublin, 1879-1916) antzerkigile eta idazle irlandarra *An Claidheamh Soluis*, liga gaelikoaren egunkariaren editorea zen, Irlandako Independentzia Komandante gisa sinatu zuten zazpietarik bat. Halaber honen *The Singer* (1915) *Buruzagijak,* Sotak itzuli zuen gaztelaniara lehenik eta Jose Altunak euskaratu zuen gero.

Hona antzerki honen bukaerako agerraldiak zer dioen:

MACDARA

> The fifteen were too many. Old men, you did not do your work well enough. You should have kept all back but one. One man can free a people as one Man redeemed the world. I will take no pike, I will go into the battle with bare hands. I will stand up before the Gall as Christ hung naked before men on the tree.![14]

MANAIM

> *Hogei mutil zoro larregi ziran... Gixon bakar batek azkatu daikez euzkotar gustijok, gixon bakar batez gixadi gustija gaizkatu eban lez. Neu juango naz euron atzetik, izkilu-barik, esku-itsi... eta azpiratzailien aurrian jagiko naz... Josu-Kristo gurutzian lez, gixonen aurrian biloxi. Jarraitu niri gustijok erijotzaren bila... gure ikurriñaren gurutzakatik... jarrattu nagixube erijotzaren bila Euzkadi bixi izan datten...*[15]

[13] *Euzkadi*, 1933-I-27/II-15.

[14] http://www.ucc.ie/celt/published/E950004-001/index.html

[15] SOTA, Manu & ALTUNA, Jose: *Caudillos. Esbozo dramático en un acto. Padraic Pearse-ren The Singer-en egokipena. Buruzagijak,* Bilbao. Verdes, 1935, 25.

Obra politikoa ez ezik profetikoa ere izan zen antzerki hau Pearse fusilatu egin baitzuten 1916an. Eta noski, itzultzailea *ars amplificatoria* legez ezagutzen den antzeaz baliatu zen bere bersorkuntza moldatzerakoan.

Sota eta Lauaxeta izan ziren bereziki saiatu zirenak batez ere teatro irlandesa eredu gisa hartuta (Pearse, Yeats,[16] Maeterlinck,[17]..antzerkigileen egokipenak egiten, kostumbrismotik euskal teatroa ateratzen eta antzerti politiko sinbolista bat lantzen eta irudikatzen.

Yeats, Ezra Pound-en bitartez Japongo Nô teatroaren elementuak bereganatu zituen, eguneroko gertaerak giro poetiko batean txertatuz eta mito bilakatuz. Hala nola *Kathleen...*, zein 1904 abenduaren 27an Dublingo *Ireland's National Theatre* –en estreinaldian eman zen.

Gauza jakina den bezala Maeterlinck-ek oso ospe haundia izan zuen, 1911an Nobel saria jaso eta Federico García Lorca-rengan ere eragina izan zuen. Halaber Yeats-i ere Nobel saria eman zioten 1923an.

Gerra hasi eta gero *Kurtzuluk*, alegia Augustin Zubikaraik[18], Bermeoko gudarostetik "Bermeoko antzerki jai ondoren" izendatutako beste artikulu batean honakoa diosku:

> "Tiki-Taka" taldiak ere "Salbayue" (*Xabiroia*) berrigiliagaz ujuju eta ajajarik neikoa eragin eutson ikusliari. Araso onetako makala dok gure Albitzu «xelebria» [...]»*La vieja que pasó llorando*» Bermeoko *Tiki-Taka* taldiak antzestu eben. Antzeztu be polito. Antzes lan oneri amaya emoteko *Itxas-Alde* gudari saila-

[16] SOTA, Manu & ALTUNA, Jose: *Negarrez igaro zan atsua. Udabarriko aselia W.B. Yeats olerkari erindarraren "Kathleen-Ni-Howlihan" tzaskua, La vieja que pasó llorando.* Bilbao, Verdes, 1933.

[17] Maurice Maeterlinck (1862-1948), poeta, filosofo eta antzerkigile belgiarra. Surrealismo eta Absurdoko teatroaren aitzindari: *Les aveugles* (1890), *Pélléas et Mélisande* (1892), Debussy-k opera bilakatua, *L´oiseau bleu* (1908) Stanislavsky-k Moskun antzeztarazia, ...Lauaxetak *Balbia* itzuli zuen (EUZKADI, 1932-XII-15/23)

[18] URKIZU, Patri: "Augustin Zubikarai (1914-2004) & Euskal Teatroa", *Euskera,* LI, 2006, 871-878.

> ren *Matxitxako* ixendua taldeko gudari trebiek mendigoxalien ingija ikurrin ta gusti bapo egin dabe[19].

Honek garama atzera begirada ematera eta ohiturazko antzerkia edo kostunbrista deritzona aztertzera zertxobait. Emandako zerrendan honakoak ageri dira: ***Ezer ez ta festa; Uste diñat*** eta ***Xabiroia.***

Lehenik Soroak eta geroago Altzagak moldatu jostirudi honetan, *Izarra* antzerki bilduman 15. alea bezala plazaratu zen 1922an, baina Euzko Iztundeko eskuzkribuaren arabera antolapen lana Altzagak 1918rako jada egina zuen[20]. Bertan Soroak hain ongi eta umoretsu aurkeztu zuen donostiar jende apalak ageri dira, hala nola arrantzaleak, arrain-saltzaileak, Batixta eta Xoluerdi zapataginak, zein *Festarik behar bada bedo Donostiya, bai, bai* kantarekin idekitzen den, eta zapia jaisten honako elkarrizketarekin:

> XOLUERDI
>
> *(Batixtari)* Aizak, i : bañan zer gertatu da emen?
>
> *BATIXTA*
>
> Emen? Ezer ez ta festa.

El Madrid de Arniches aipatu izan bada[21] berdin ere mintza gaitezke pixkat beranduago ere *Soroa eta Altzagaren Donostia-* z, eta Atarrenek beste zenbaitekin antzeztu zuenaz.

Nemesio Arizmendi, "Atarrene" Euzko Iztundekoa antzeztaldekoa zen, eta maiz parte hartzen zuen Altzagak prestatu antzerkietan hala nola *Irritza*-n (1925) Dunkan-en rola jokatuz, eta *Ezer ez ta festa*-n Juxtorena.

---

[19] *Eguna*, 1937-I-26.

[20] Koldo Mitxelena Kultur Unea, MS 091 Ant. Doc. 53.

[21] ESPÍN, Pilar: *El teatro por horas en Madrid (1870-1910). (Subgéneros que comprende, autores principales y análisis de algunas obras representativas).* Universidad Complutense, Madrid, 1988.

Antonio Amundarain (Elduain, 1885 - Madrid, 1954) idazleak idatzitako antzerkiak ditugu *Bertan goxo* (1913), *Uste diñat!* (1914), *Zirt edo zart* (1920), *Egin zak on*...(1921), *Lore bat loitan* (1932)...

Uste diñat ikusi dugun bezala Ean antzeztu zen 1937ko Errege egunean, eta gaia ere ohiturakoa da. Atarikoan dioen bezala, Baserritar neskatxak kalian mirabetzan zer irabazten eta zer galtzen duten ikusteko eta ikasteko jolas-gertaketa dugu, atal batekoa, neskek bakarrik egitekoa eta honelako sermoi tradizionalistaz bukatzen dena:

MARKESA

(Barrenetik) He mandado que salgan...

JOXPIÑAXI

Guazen Texantoni, guazen.

TEXANTONI

Itxoin apur bat. (*Aurreratuta gelakoai)*
Bakoitza geren mallan ederkina gaude
Baserrikoa zera? Ez izan asarre.
Langil umilla zera? Ortan ongi zaude.
Ta beñere ez izan pamparroyen zale,
Kaletan asko dira gauz aundien jabe,
Arkitzen diranak maiz bearrena gabe.
Aurrerapen aundiak gaur bai omen daude,
Oraingo berrik baño lengo zarrak obe[22].

Eta bukatzeko kostunbrismoak gurean eragin antzerkitxo hauek, **Pepe Artola**k idatzitako eta gerra garaian Albitzu xelebriak antzeztu *Šabiroya* [23]. Egileak sarrerako azpi ohar batean dioskunez, *Euskera erresha izatiagatik sartzen ditut er-*

[22] AMUNDARAIN, Antonio: *¡Uste diñat!¡Ya lo creo!...* Loyola´tar, Donostia, 1914, 21.

[23] ARTOLA, José: *Šabiroya, jostirudia egintza batian (itz neurtuan eta itz laburrian) Oñatiko Euskal Festetan saritua.* San Sebastián, J. Baroja é hijo. 1903.

derazko itz batzubek. Gertaera Donostian pasatzen da, eta protagonista *Šabiroya*, arrantzalia eta patroya da, zenbait pertsonaia salbatzegatik ministroak ontzi berri bat oparituko diotelarik eta zeinen izena SHABIROYA emango dioten.

Hiru obra hauetan ikusten dugunez, zapataginen, neskameen eta arrantzaleen mundua eta hauen aurrean markesak eta ministroak ageri zaizkigu, baina herriko pertsonaia xumeak diren arren, ez dute galtzen beren nortasuna eta duintasuna, lan egiteko grina, umorea ez eta festarako gogoa.

***

Iparraldean egiten den antzertiak, eta frantsesez *Théâtre de Patronage* deitu izan denak ikusmolde berdina du, hala *Gure Herrian* moldiztegiratzen diren lanak. Adibidez Léon León: *Herriko besta biharamunean* (GH 1937), *Mehetegiko nausia* (GH 1938), eta *Haurrak azken hitza bere* (GH 1939); eta Piarres Larzabalen *Merkatutik* (GH 1938), edota Louis Calvez-Henri Caoussin eta Antonio Labaienek moldatu *Gachucha Bécassine* pertsonaia ezaguna oinarri hartuz.

Ipar Euskal Herriko teatro kronika Bigarren Mundu Gerlan *Eskualduna*-ren orriak aztertuz egina baitut norbaitek zerbait jakin nahiko balu argitaratuta dagoen lan hartara igortzen dut[24].

***

Bestaldetik Bilbon bazen talde bat Donostiako Euzko Iztundearekin konpara daitekeena, OLDARGI izenekoa, Manu de la Sotaren inguruan sortua. Mintza gaitezen bada honetaz.

Esan bezala **LIBE** Sabino Aranak idatzi drama historikoa eta gero Manu de la Sotak bermoldatua 1934ean zenbait aldiz arrakasta handiz jokatu ondoren Coliseo Albian antzeztu zen 1937ko otsailaren 4ean. Hona zer zioen obra honi buruz Alberto Losadak:

[24] URKIZU, Patri: "Euskal Antzertia erbestean (1937-1959)". Iñaki Beti & Mari Karmen Gil (ed.), *Exilio y Artes escénicas. Arte eszenikoak erbestean.* Ed. Saturraran, Donostia 2009, 349-367.

> La comision directiva de "Oldargi" compuesta por Manuel Taramona, Francisco de Garate, Juan Salcedo y Julián Ariño (ya fallecidos) y Lucio Arechabaleta, Alberto Losada, Nicolás Bayo y José Garamendi, se lanza a su máxima empresa en 1934; la presentación de LIBE de Manuel de la Sota sobre un guión de ópera de Arana-Goiri, con fondos musicales de Timoteo Urrengoechea, decorados de Gonzalo Bilbao sobre bocetos de Manuel Losada y Antonio Guezala, figurines de Losada y Nico Bayo realizados por Juli Bilbao, armaduras de Marcelino Ortega, armas de fundiciones Ariño, calzados de Matias Barainka, pelucas de Miguel Orio, todo exprofeso, con un presupuesto que en aquella época solamente D. Enrique Rambal se hubiera atrevido a afrontar.
>
> El mismo montaje se acercaría hoy a los dos millones de pesetas.
>
> Sólo el éxito sostenido a través de buen número de representaciones en Bilbao, San Sebastián, Vitoria y algunos pueblos importantes de Bizkaya,consiguió que los ingresos líquidos llegasen a triplicar el presupuesto[25].

Kritika ezberdinak izan zituen obra honek komentariogile ezberdinen partetik. Hala Aitzolek "Resurgimiento del Teatro Nacional"[26] delako artikuluan goraipatu egiten du, esanez abertzaletasunaren garaipena dela; Lauaxetak[27] bere aldetik aipatzen dizkigu Sabinoren kezkak, eta teatro juduarekin konparatzen ditu, eta azpimarratzen Peretz-en *Una noche en la plaza del viejo mercado* antzerki baliotsua[28] eredugarri gerta daitekeela.

---

[25] LOSADA, Alberto: «Grupo Oldargi de Bilbao», A.M. Labayen, *Teatro euskaro. Entrevistas, reseñas, Crónica. Catálogo de obras dramáticas.* T. II, Auñamendi, Donostia, 1965, 137-140

[26] ARIZTIMUÑO, José "Aitzol": *El Día*, 6 de marzo de 1934.

[27] LAUAXETA: "El próximo estreno de Libe", E*uzkadi*, 1934-II-22.

[28] Isaac Leibusch-Peretz (Melnik, 1880 - Los Ángeles, 1948) ghettoen bizitza miserablea estilo errealistaz aurkezten zuen antzerkigilea. Ospetsu bere garaian, yidish-ez eta hebraieraz idatzi zuen eta Errusian garrantzizkoa izan zen teatro juduaren pizkundean.

Manu Sotak, aldiz, egin zuenean Aranaren antolaketa honakoa zioen:

> Pocas palabras he de decir sobre el cuadro final de *Libe*. El trágico desenlace de este glorioso suceso de la historia vasca se desarrolla en el gran vestíbulo de la Torre de Ugarte. En su desarrollo he creido seguir fielmente el pensamiento de Sabino, hasta en los diversos recitados y escenas que he puesto de mi cosecha. También me he permitido ser generoso con Andima y entregarle el amor de Libe. Y para dar remate a estas líneas, deseo presentar al lector al último de mis hijos espirituales, a *Kuliska*, símbolo inocente de nuestra desgraciada patria[29].

Ezkorrago izango Labaien, zeinek honakoa diosku:

> Neretzako bigarren eta irugarren ekitaldiak dira onenak. Azken ekitaldia ostera guztietan argal eta izunena. Libe'ren bat-bateko maitasun aldatzea ta gudatearen azalpen eta xeetasunak ez daude, ez antzerti arauz ez egiantzez egoki tajutuak. Libe'ren erio-larriak ikusleari izuikara eman bearrean aspertu arazten du. Ain da luze ta itxuragabea. Bestela ere zenbait antzez-lagunak itzaldi geitxo, larregi esaten dituzte[30].

Eta José Luis de la Granja irakasleak Aranaren antzerkiak ikertzean orokorrean beste honakoa dio:

> *Libe* es un fruto tardío de la literatura romántica, que recurre a la historia (al Medievo, en especial) no de forma inocente ni científica, sino idealizada y revestida con el manto de la leyenda o el mito, con el fin de extraer enseñanzas de provecho para el presente[31].

---

[29] SOTA, Manu de la: «*Libe* : unas consideraciones sobre su realización dramática», *Euzkerea,* Bilbao 1934, 39-53.

[30] Matxin-Gorri, "Libe", ANTZERTI, 25. zb., 1934, otsaila.

[31] GRANJA, José Luis de la: "El teatro nacionalista vasco de Sabino ARANA", *Eskual Antzertia, Le théâtre basque*. Bayonne 1987, 19-37.

Sota, ordea, ez zen nornahi. Gizon jantzia, Cambridgen ikasia, eta artezale amorratua. Idatzi zituen zenbait poema euskaraz eta eleberri bat gaztelaniaz, baina batipat teatro gizona izan zen. Jadanik 1925ean gazteago zenean bere "Candilejas (Ensayo de autocrítica) "lanean" antzerkigile ingelesak zituen gogoko:

> Bien está en el púlpito la cordura, pero de las bambalinas del escenario deben de colgar ramos de locura. Por eso yo siempre preferiré seguir a Sir James Barrie y a Bernard Shaw, por ejemplo, que crean teatro, antes que a Benavente y a Linares Rivas, cuyas obras no son más que discos que repiten la vida, no obstante estar maestramente impresionados[32].

James Barrie[33] eta Bernard Shaw[34] bezala bada beste autore bat eta obra berezi bat aipatzen duena, Williams Yeats, *Negarraz igaro zan atsua-* ren sarreran, honelaxe prezizki:

> Gau baten, ames argi ta garbija egin neban, benetako amesik ezirudijana. Basetxe aberats baten barruba ikusi neban: berton, laratza su ederragaz eguan, eta beronen inguruban, laster egingo zan ezkontzatzazko barriketea. Basetxe baketsu atan ikusi neban baltzez jantziriko atso baten irudija agertuten zala. Eireann (Irlanda) berbera zan, abesti asko abestu, edesti ugari esan-erazo ta bere mattetasunarren gixon askok eta askok erijotz-bidera jo egin daben Kathleen-ni-Howlihan berbera.
>
> *Lady Gregory'ri W.B. Yeats'ek*
> *zuzendutako idazkija, bere "Kathleen-ni-Howlihan` etzaz itz-egiñaz..*

[32] Manuel de la Sota, "Candilejas (Ensayo de autocrítica)", *Pedro Ignacio*. Editorial vasca, Bilbao, 1925, 158.

[33] James Barrie (1860-1937). Eleberrigile eta antzerkigile. Ohiturazko antzerkiak eta fantesiazkoak idatzi zituen hala nola: *The Admirable Crichton* (1902), *Peter Pan* (1904), *Dear Brutus* (1817), *Mary Rose* (1920)...

[34] Bernard Shaw (1856-1950). Antzerkigile irlandesa, ingeles teatroan garrantzitsuenetakoa. Ibsenen jarratzaile, gizarte burgesaren salatari, antzerti moralista eta polemikoaren alde. Bere obra anitzen artean hona batzuek: *Major Barbara* (1905), *Androcles and the Lion* (1912), *Pygmalion* (1913), *Saint Joan* (1923). Eragin handia izan du bere jarraitzaileengan.

Jakina den bezala Yeats[35] eta Lady Gregory izan ziren teatro irlandesaren sortzaileak XIX. mende bukaeran, eta ez zuen Yeats-ek dantza obraren parte funtsezko izatera kontsideratu, Nō antzerti japonesa ezagutu arte, zeina Ezra Pound-ek[36] ezagutarazi zion, Coleman's Hatch-en, Suxxex-en[37], elkarrekin bizi ziren garaian.

Japonek ez sortu arren bere sistema filosofiko propioa, aski orijinaltasunik bazuen bere egunorokotasunean txertatzeko konfuzionismotik, taoismotik eta budismotik baliagarritzat jo zezakeena bere izpiritu bilakaerako eta zientziarako. Horrela bada helbururik gabeko mundu zikliko batean, beren patxadak eta errepikak amaiarik gabeko denbora, lehenik eta gerorik gabekoaz mintzo zaigu, Nō antzerti japonesa bezala.

Nō teatroaren estetika eta teoria Zeamik[38] (1363-c.1434) kodifikatu zuen eta berrehun urte geroago Okura Teraakira iruzkingileak dioskunez, Nō antzertia faltsua dena erreal bilakatzen bide du, eta pertsonaia fantasmagorikoak ikusleengan benetazkoak bailiran ageri dira.

Honelakoxea dira EMAKUMEA *Iru gudari* antzekizunean eta ATSUA *Negarrez igaro zan atsua* lanean, beraz, ausartuko ginateke esatera, badela Nō teatro japonesaren zantzurik euskal antzertian Dublindik barrena iragan ondoren.

***

[35] William Butler Yeats (1865-1939). Poeta eta antzerkigile irlandesa. Lady Gregory-rekin Abbey Theatre-en irlandar anzerti mugimendu berria sortu zuen. Bere obrak mito zeltiarretan oinarritu eta erdi aroan kokatu gai mistiko-erlijiosoak aurkeztu zituen: *The countess Cathleen* (1893), *Cathleen ni Hoolihan* (1902), *The Hour Glass* (1903), *The Unicorn from the Stars* (1908), *Plays for Dancers* (1916)... azken hau Nō teatroan oinarritua, non antzezleek maskarak daramatzen eta bionbo baten aurrean antzezten.

[36] Pilar HIDALGO et al., *Historia Crítica delTeatro Inglés*. Ed. Marfil, Alcoy, 1988, 302.

[37] LONGENBACH, James: *Stone Cottage, Pound, Yeats and Modernism*. 1988.

[38] FŪSHIKADEN, Zeami: *Tratado sobre la práctica del teatro Nō y cuatro dramas Nō*. Edición y traducción de Javier Rubiera e Hidehito Higashitani. Trotta, Madrid, 1999.

Bilbo eroritakoan erbesterako bidea hartzen dute askok eta Eusko Jaurlaritza Bartzelonara iragaiten da. Hemen jarraitzen dio euskal folklore eta arte adierazpenak aurkezteari, hala nola *Pedro Mari* (1793ko tragedia bat aipatzen duen drama historikoa) Liceu-n Barcelonan maiatzaren 29tik ekainaren 6ra eman zena *Setmana pro Euzkadi* delakoan, herri gudaloste erregular baten aldeko komiteak bultzatuta.

Obra hau Arturo Campión-en *leyenda* batean oinarritua, Alfredo de Etxabek gaztelaniaz moldatu zuen[39], eta euskarazko bi bertsio izan zituen. Bata Zinkunegik eta bestea Jon Etxaidek[40]. Honek aldaketa dexente egin zizkion itzultzerakoan, baina guk hemen Barcelonan entzunen zuten eran emango dugu bukaera:

PEDRO MARI

(Como transfigurándose por el efecto que en él produce el canto.) ¡Ah, cantos de mi patria! ¡Una de esas canciones libertó mi cuerpo cuando pertenecía al dominio despótico del extraño, y este otro canto..; ¿lo escucháis, Senor? ... viene a acompañar a la liberación de mi alma! (*Con fuerte y enérgica voz.)* ¡Cantad! ...¡Cantad, hermanos!... (*Con un gesto varonil y de gran entereza de ánimo.*) ¡Vamos! (*Sigue al sargento, camina a su lado el marqués, y detrás los dos soldados. Vanse todos por la puerta grande. Llévanle a Pedro Mari al fondo del escenario, donde hay un madero en posición vertical. Resuena el coro interno, sin cesar. Trae el sargento una silla baja, que Pedro Mari la rechaza de un puntapié. Hácenle arrodillarse de espalda y le vendan los ojos. El marqués se separa de Pedro Mari. A una señal del sargento, hacen fuego los soldados del pelotón. Da media vuelta el nabarro y cae mirando al cielo. Instantáneamente de hecha la descarga, deja de sonar el canto y bate el tambor, mientras desfilan los soldados. El marqués, con los brazos cruzados y la ca-*

[39] ETXABE, Alfredo de: *Pedro Mari, melodrama en cuatro actos, el tercero dividido en dos cuadros, basado en la leyenda del mismo título de Don Arturo Campión*. Verdes, Bilbao, c. 1932.

[40] ETXAIDE, Jon: "Pedro Mari", *Egan*, 1982, 1-6, 191-233.

beza baja, viene, mientras tanto, al primer término del escenario. Vese a Anita que corre desolada y se arroja sobre el cuerpo de Pedro Mari).

MARQUÉS

(*Desde el primer término y como con un lamento.*) ¡Oh, cuan roja es la sangre vasca!...

Fusilamenduaren fotografiak Goyaren koadroa dirudi, eta ziurren honen *Los fusilamientos del dos de mayo* koadro ospetsuan inspiratu ziren, eta EGUNAko kronistak dioenez 1937ko ekainaren batean *ospetasun andijaz*.

Hona Jon Etxaideren bertsioaren amaia:

ATIENZA KAPITAINA

¡Soldados! Este es el final que espera a los traidores. Tenedlo siempre presente. ¡Viva el rey! ¡Viva España!

SOLDADU OROK

¡Viva!

AHOTSA *(Ahots ozen bat entzun bedi bastidore artetik)*

Oi, nolako oinazea darion euskal odolaren gorriak!

Ezin dugu utzi aipatu gabe ere **Amaya** opera. Honen libretoa Jose Maria Arroita-Jauregi (Durango 1872-Bilbao 1922) poeta eta antzerkigileak idatzi zuen gaztelaniaz, eta gero Jose Arruek euskaratu. Musika, ezaguna den bezala, Jesus Guridirena da. Drama hiru ekitalditan eta epilogoan banaturik Navarro Villosladak idatzitako *Amaya o los vascos en el siglo VIII* eleberrian oinarritua.

Bilbon 1920an estreinaldiz eman zenez geroztik maiz, Gernika, Madrid, Barcelona, eta Aberri Eguna-n Bilbon, izugarrizko arrakastarekin eta prentsan oihartzun handia izan zuelarik.

Hona nola bukatzen den Arruek paratu euskarazko bertsioan:

AMAYA

Todosi!

TEODOSIO

Zeu, Amaya! Zeu al zara ez ezaun bat lez urtietan neuri jakiyaz erdu ixan zarana? Nire biotz saminduak eztau igarri be, estalduta zetorren maitasun oi! Gaurtik Amayan ordez zara Iraupena.

AMAYA

Ekatxa juan zan egualdi onan euzkiya argi dau. Jauna aintza!

AMAYA ETA OLALLA

Aintza jaunari!

TEODOSIO

Ta aintza Mikel neure goigotzonari[41].

Arte eszenei dagokienez, erbestean, Alellako festibalean euskal talde batek ere parte hartuko du.[42].

EAJ-ren eta Euskal Jaurlaritzaren ahalegina handia izan zen erbesteko lehen urteetan propagandarako hain baliagarri gerta zitezkeen antzerkiak eta arte eszenikoak erabiltzen. Hor daude *Elai-Alai*[43] eta *Eresoinka*[44] taldeen adibide esanguratsuak.

---

[41] Juan Antonio Zubikarai et al., *Opera Amaya*, Eusko Jaurlaritza, dg., 54.

[42] L´OEUVRE, 27-I-1939.

[43] ARANA MARTIJA, Jose Antonio: *Elai-Alai. Euskalherriko lehenengo koreografi taldea. Primer grupo coreográfico del País Vasco.* Gernikako kultur taldea 1977.

[44] ARANA MARTIJA, Jose Antonio: *Eresoinka: Embajada cultural vasca 1937-39.* Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 1986.

Honela Baionako delegazioan zegoen Javier de Gortazar-ek Izagirreren eskaeraz obra zenbait bidaltzen dizkio, *obras teatrales de carácter vasco que hemos preparado para la propaganda en América y en Cataluña*[45].

Obrak honakoxeak dira: Nicolás de Viar (*¿Me caso?, Manu-Soro, Maite, Alma vasca, Tercero sin principal*); Manuel de la Sota (*La vieja que pasó llorando, Libe*); Nicolás Cortés (*Cada oveja con su pareja*); Alfredo de Etxabe (*Pedro Mari*); Policarpo de Larrañaga (*Emakumea).*

Hauek gaztelaniaz ziren gehienak, eta horrela Luis de Arregik 1940ko otsailaren 17an Antonio de Iralari bidali gutunarekin batera euskarazko honakoak igortzen dizkio: *Poxpolin gorria; Txokolo, txerri-tratalari; Andregaia nai ta...; Xanko ta Paxko; Patxiko ta Martintxo, Neskamearen Marmarak; Irri-Itzaldia, Berezi; eta Urteurrena.*

Bederatzi antzerkitxo, hauetarik batzu Antonio Labaienek zuzendu *Antzerti*-n jadanik argitaratuak, eta honela juzkatzen dituenak Arregik:

> Son, como podrás ver, cosas sencillas o infantiles, que las teníamos copiadas por la sección de Euzkeralde. Sigue esta sección leyendo nuevas obras, cuyas copias te iremos mandando a medida que se vayan produciendo, para que desde ahí las envieis a Norte-América[46].

Gerra Zibila Euskal Teatroan

Hitzaldiaren bigarren parte honetan aztertuko dugu gerra *leit-motiv* bezala, alegia, gaitzat hartu izan duten antzerkigile zenbaiten lanak.

---

[45] Javier de Gortazar-en gutuna EBB.ko Presidenteari, Baiona, 31 de diciembre de 1938. Abertzaletasunaren agiritegia. Archivo del Nacionalismo Vasco. Artea, EBB-184-1.

[46] Luis de Arregi a D. Antonio de Irala (Paris), 17 de febrero de 1940. Abertzaletasunaren agiritegia. Archivo del Nacionalismo Vasco. Artea, GE-7-5.

Antonio Ruiz de Azua "Ogoñope" (Elantxobe, 1904-México 1974). *Euzkadi*-n idatzi zuen lehenik "Elantxobetar bat" deituraz eta gero "Ogoñope" ezizenaz *Ekin, Aberri, Eguna*-n. Erbesteraturik Méxicon *Euzko Deyan* ageri zen euskal orriaz arduratzen zen eta 1949ko irailaren 3an ospatu zen Euskeraren egunarako prestatu zuen *Euzkadi'ko erri baten*[47] antzerkitxoa.

Hona gaia: lehen ekitaldian ikusten da herrixka bat, zein guardia zibilek estu zaintzen duten, eta non euskaraz hitzegitea debekatua dagoen "la ley es la ley". Patxi alkate izan arren, bigarren autoritatea da. Alaba hasieran Casimiro kanpotarrarekin maiteminduta izan arren, azkenean betiko senargaiarengana itzuliko da.

Noski, guardia zibilak gaztelaniaz mintzo dira, eta ez diote Martin alguazilari bandorik euskaraz egiten uzten.

Teatrotxo hau Iñaki eta Patxiren kantarekin amaitzen da, hau da Arrese-beitiaren bertso ezagunekin: *Euzkaldun jaio nintzan / euzkalduna azi...*

Ogoñopek euskal nazionalismoaren ildoari jarraitzen dio zuzen-zuzen, eta horrela 60ko hamartean Andima Ibiñagabeitiarekin izan zuen eztabaidarik[48], honek Alderdiari kritikak egin zizkionean.

Antonio Maria Labaien (Tolosa 1898-1994) teatro gizonaz eta obraz mintzatu ohi gara behin baino gehiagotan[49] eta hemen beraz, soilik bere *Lurrikara* (*Euzko Gogoa* 1955) antzerkia aipatuko dut.

Hona bere antzerti teoriaren pundurik nagusienetakoa laburbildurik:

> Gure txikian aiek bezin aundi izan gaitezke ondo ikusten gure inguruko gizadiaren sakona; eta itzez eta egitez neurriz tajutzen badakigu: irria luze, nigarra labur[50].

---

[47] RUIZ DE AZUA, Antonio: *Euzkadi´ko erri baten*. Ekin, México, 1950.

[48] URKIZU, Patri (ed.): *Andima Ibiñagabeitia, erbestetik barne-minez, gutunak 1935-1967*. Susa, Zarautz, 200, 218.

[49] URKIZU, Patri: "Antonio Maria Labaien (1898-1994) eta euskal antzertia". *Euskera*, XLIV, Bilbo, 1999, 37- 49.

[50] LABAIEN, Antonio Maria: "Gure teatroa ta beste", *Egan*, Donostia, 1959, XII, 159-161.

Lurrikara, neurri batean Martin Lekuona apaiza errugabe eta beste hainbat fusilatu zituztenen omenez idatzitakoa dela esango nuke, eta alderdiaren eta herriaren gora-beherak, hala nola errekete eta fazisten arteko harremanak ongi ezagutzen zuenaren begiz ikusita. Hona zer dioen Laugarren ekitaldian Mojen Komentuko Atezaiak:

> Ez det iñoiz onelako illeta itunik ikusi. Iñor ez Elizan, etxekoak ezik. Erru izpirik ez zuten D. Martin eta Gotzon gaizoak erail dituzte, ta elizkizunetarako erriko jendeari etortzen utzi ez! Zer ikustekoak ote gera orindik!

Eta amaian Komentuko Aitzindari Amak:

> LURRIKARAK! Ondoren gelditzen da naasi aldian zutik irauteko indarra gutxik bait dute. (Goruntz begiak jasorik) Illunpean artaldea galdu ta sakabana ez dedin, jaun altsuari eska ezaiogun Artzai onak eman ditzaigula[51].

Luis Haranburu (Alegi 1947) saiolari, nobelista eta antzerkigile dugu. Arlo honetan pertsonai historikoen bizitza zertzeladak eta ildo filosofikoak aurkeztu izan ditu batipat. Tituluak honakoak dira: *Hil* (1972), *Job* (1976), *Gernika* (1977), *Sabino* (1986), *Loiola* (1986), *St Cyran* (1986), *Zumalakarregi* (1986), *Lancre* (1987), eta azkenik *Josafat,* zeinarekin Donostia Hiria Kutxa antzerki saria 2007 irabazi zuen.

Hona Gernika antzerki liburuaren kontraportadan zer dioen:

> 1974ko urtean *TORIBIO ALTZAGA* sariaren irabazle suertatu zen antzerki hau, "legezko" oztopoengatik ez dugu argitaratzerik izan gaurdaino.
>
> Drama eskematiko honetan Euskal Herriaren egoera represiboa tankeratzen da. Hain gertu diren denboretako zoritxarrak nekez gerta daitezke entretenigarria eta teatrogai badira beren trajedi kutsuagatik da.

[51] LABAIEN, Antonio Maria: *Teatro osoa euzkeraz (Obras completas de teatro vasco).*T. I, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1976, 352, 355.

> GERNIKA antzerki hau euskal teatro berriaren kontexto formalean finkatzen da[52].

Teatro politiko-sinbolistari jarraiki koruaren parte hartzea handia da eta JIGANTEaren pertsonaia Francoren eta diktaduraren irudi esperpentikoa. Lukas Dorronsorok zuzentzen duen *Goaz* taldeak aurkeztu zuen Deban 1981ean.

Jean-Louis Davant (Urrustoi, 1935). Poesia eta historia liburuen egilea, hala nola eskola berriko pastoralegilea: *Abadia Urrüstoi*, Maule 1990; *Eüskaldünak Iraultzan*, Gotaine 1993; *Aguirre Presidenta*, Arrokiaga 1995; *Xiberoko Makia*, Sohüta 2001; *Antso Handia*, Maule 2004.

Agirre presidenta pastoralean tradizio ezberdinetako kantore ugari erabiltzen ditu zenbait musikariren laguntzarekin, eta azpimarratu beharko genuke Hélène Etchecoparrekin[53] batera, Onen eta Gaiztoen arteko kontrajartze honetan leku gutxi gelditzen zaiola zehaztasunari, ez dela ageri bertan *ni nuance ni subtilité*, Lehen Peredikia –ko laugarren bertsoak adierazten duen bezala:

> Nafarroako haitetsi
> Madrileko Biltzarretan
> Eüskal Herriaren alde
> Jokatü zen debaldetan.

Carlos Panera (Bilbao 1956) Euskal Herrian dugun teatro zuzendaririk oparitsuen eta arrakastatsuenetarikoa dugu, ondoko antzerki zerrendan ageri zaigun bezala.

1980	*Jimmy Pottolo eta zapataria*	(Bernardo Atxaga)
1981	*Logalea zeukan ekilibristaren kasua*	(Bernardo Atxaga)
1982	*Danbor magikoa*	(G. Rodari)

[52] HARANBURU ALTUNA, Luis: *Gernika (Drama historikoa bi partetan berezia).* Kriselu, Donostia, 1977.

[53] ETCHECOPAR, Hélène: *Théâtre basques. Une histoire du théâtre populaire en marche...* Gatuzain, Baiona, 2001.

1983	*Pistolaren begi zuribeltzak*	(Dario Fo)
1984	*Gabonetako Ikuskizuna*	(Pedro I. Barrutia)
1985	*Ezagutu Bizkaia*	(Maskarada)
	Gastibeltzaren karabinak	(Marc Legasse)
1986	*Harrizko herri hau*	(Gabriel Aresti)
1987	*Gernika 16:30*	(E. Jimenez-Maskarada)
1988	*Kontrabajua*	(Patrick Suskind)
1989	*Akerlarrua*	(Maskarada)
1994	*Monstruo sakratuak*	(Maskarada)
1997	*Nerudaren postaria*	(A. Skarmeta)
1998	*Izarretako bitakora*	(Stanislaw Lem)
1999	*Ikaro*	(Maskarada-J.C.Perez)
2000	*Kaio luma zikina*	
2001	*Kontenedore baten ixtorioak*	
2005	*Lauaxeta, herri antzerkija*	*Mungiatarrek...*
2006	*Picasso 1937*. Premios en Miami	

Lauaxeta, herri antzerkija trilogia baten hasiera da *Picasso 1937*-kin amaituko dena. Mungiako zein inguruko herrietako 150 bat herritar konprometitu ziren pastoral antzeko obra honetan, non musikak benetazko protagonismoa duen Agus Perez-ek seinalatzen duen bezala[54]. Irudien artean Perezek dioenez, bereziki hunkigarriak Bilboko Areatzan hartutakoak jendea korrika babes bila zebilenean, Gernikako bonbardaketarenak eta, nola ez, atzerrira bidalitako umeen aurpegi tristeak eta amen negarrak.

***

[54] Agus Perez, "Lauaxeta, herri antzerkija". *Berriak,* 2005eko ekainaren 28a.

Beste obra gehiago ere gelditzen dira aurkeztu gabe, baina adierazi nahiko genuke laburbilduz euskal teatroak zein garrantzi handia ukan zuen batipat Bigarren Errepublikan eta bai Gerra garaian ere, eta bizirik zirauela egoera hain kontra izanik. Gaur egun modernitatean sendo sustraiturik dago, honek berekin dakartzan tresneria eta baliabide tekniko oro erabiliz, eta honetaz aparte jaidura kostunbristatik politiko-sinbolikora urrats handi bat eman dute arte eszenikoek. Baina ez ditzagun ahantz bide berri hauetan izan genituen aintzindari eta bidegileen ahaleginak.

Bibliografia

ALZAGA (T.), *Ezer ez ta festa. Marzelino Soroa'k idatzitako jostirudiaren antolapen berria*. Antzerki Salla, 15.zb., Donostia, Martín, Mena & Cia., 1922

AMUNDARAIN (A.), *¡Uste diñat! ¡Ya lo creo!*. Donostia, Loyola'tar Eneko Deuna'ren irarkola, 1914.

ARANA (S.), *Libe*. Bilbao, Tipografía Universal, 1903.

ARANA MARTIJA (J.A.), *Elai-Alai. Euskalherriko lehenengo koreografi taldea. Primer grupo coreográfico del País Vasco*. Gernikako kultur taldea 1977.

ARANA MARTIJA (J.A.), *Eresoinka: Embajada cultural vasca 1937-39*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 1986.

ARTOLA (J.), *Šabiroya jostirudia egintza batian*. San Sebastián, J. Baroja é hijo, 1903.

DAVANT (J.L.), *Aguirre presidenta, pastorala*. Arrokiaga, Pyrénées-Affiches 1995.

ETXABE (A.), *Pedro Mari*. Bilbao, E. Verdes, 1932.

GOMEZ DIAZ (L.M.), *Teatro para una guerra (1936-1939). Textos y documentos*. CDT. Madrid 2006.

HARANBURU (L.), *Gernika (Drama historikoa bi partetan berezia)*. Donostia, Kriselu, 1977.

LABAIEN (A.), *Lurrikara*. Miarritze, Euzko Gogoa, 1955.

MARRAST (R.), *El teatre durante la guerra civil española. Assaig d'historia i documents*. Barcelona, Institut del teatre, 1978.

RUIZ DE AZUA (A.), *Euzkadi'ko erri baten*. México, Ekin, 1950.

SOTA (M.), *Negarrez igaro zan atsua*. Joseba Altunaren itzulpena.Bilbao, Verdes, 1932.

SOTA (M.), *Iru gudari*. Esteban Urkiaga "Lauaxetaren itzulpena. Bilbao, Euzkadi, 1933.

URKIZU (P.), *Exiliatuok ez gara inongoak*. Gasteiz, Arabako Foru Aldundia, 1995.

URQUIZU (P.), "La cultura del exilio vasco en eusquera", in ABELLÁN (J.L.) et al., *Memoria del exilio vasco. Cultura, pensamiento y literatura de los escritores transterrados en 1939*. Madrid, Biblioteca Nueva, 2000, 99-145.

URQUIZU (P.), *Teatro vasco. Historia, reseñas y entrevistas, antología bilingüe, catálogo e ilustraciones*. Madrid, UNED, 2009.

Gernikako bonbardaketa euskal literaturan: errepresentazio eta begirada poetikoak[1]

RETOLAZA GUTIERREZ, Iratxe
Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa batzorde-idazkaria
Euskal Herriko Unibertsitatea

Sarrera data: 2009-11-26
Onartze data: 2010-07-14

[1] Lan hau GIC 10/100 eta TIT 495/10 ikerketa taldearen proiektuaren parte da, UPV/EHUk eta Eusko Jarlaritzak diruz lagundua.

Euskera. 2009, 54, 2-2. zatia, 1079-1108. Bilbo
ISSN 0210-1564

Gerla Zibilak Euskal Herrian utzi zuen arrasto sinboliko nagusia, ezbairik gabe, Gernikako bonbardaketa da. 1937ko apirilaren 26an jazo zen gertaera lazgarri hark hainbat adierazpide literario eta artistiko izan ditu. Artikulu honetan adierazpide poetikoak aztertuko dira. Horretarako ibilbidea bost geltokitan banatuko da: irakurketa identitarioa, irakurketa historiko-soziala, irakurketa literarioa edo metaliterarioa, irakurketa antropologikoa eta irakurketa pertsonala.

Hitz-gakoak: Gerla Zibila, *Guernica*, Gernikako bonbardaketa, euskal literatura, olerkigintza.

Sin lugar a dudas, el bombardeo de Gernika fue el legado simbólico más importante que dejó la Guerra Civil en Euskadi. Aquel penoso suceso que tuvo lugar el 26 de abril de 1937 ha sido recogido a posteriori en muchas obras literarias y artísticas. Este artículo se centra en las expresiones poéticas y para ello hará parada en cinco estaciones: lectura identitaria, lectura histórico-social, lectura literaria y metaliteraria, lectura antropológica y lectura en clave personal.

Palabras clave: Guerra Civil, *Guernica*, bonbardeo de Gernika, literatura vasca, poesía.

Le bombardement de Guernica fut sans aucun doute l'héritage symbolique le plus important laissé par la Guerre Civile en Euskadi – Pays Basque. Ce terrible événement qui eut lieu le 26 avril 1937 a alimenté a posteriori de nombreuses œuvres littéraires et artistiques. Cet article porte sur les expressions politiques et, pour cela, il se décomposera en cinq étapes : lecture identitaire, lecture historique et sociale, lecture littéraire et métalittéraire, lecture anthropologique et lecture personnelle.

Mots-clés: Guerre Civile, *Guernica*, bombardement de Gernika, Basque literature, Poésie.

Undoubtedly, the bombing of Guernica was the most important symbolic legacy left by the Spanish Civil War left in the Basque Country. That painful incident, which took place on 26 April, 1937 was retrospectively reflected in many literary and artistic works. This article focuses on the poetic expressions and to that end, will be organised into five sections: self-defining reading, socio-historical reading, literary and metaliterary reading, anthropological reading and personal reading.

Keywords: Civil War, *Guernica*, bombardment of Gernika, Basque litterature, Poetry.

Sarrera

Hitzaldi honetan euskal poesian Gernikako bonbardaketa jorratzerakoan harturiko bide anitzez egin nahi da gogoeta. Izan ere, Gernikako bonbardaketaren errepresentazio literario horietan guztietan ikuspuntu anitz mamitu dira gertaera lazgarri haren inguruko irakurketa edo irudikapena egiteko. Gertaera historiko hori hizkuntza poetikora bihurtzean, besteak beste, honako begirada hauek jorratu dira: begirada antropologikoak, begirada historikoak, begirada identitarioak, begirada sozialak, begirada literario edo poetikoak, begirada pertsonalak, eta abar.

Gainera, Gernikako bonbardaketaren inguruko errepresentazioak euskal arteetan ez ezik kanpoko arteetan ere egin izan dira. Pablo Picassoren *Guernica* margolan ezaguna horren adibide nagusia dugu. Horregatik, euskal poesian zehar eginiko ibilbide tematiko honetan, une oro euskal poesian jorraturiko begirada horiek Euskal Herritik kanpoko arteetan sorturiko eta eraturiko begiradekin duten harremanaren inguruan gogoetabideak zabalduko dira.

Aztergaia

Bi esparruren arteko bidegurutzera garamatza jardunaldiotako mintzagaiak: batetik, testuinguru eta gertakari historiko bat dugu hizketagai: Espainiako Gerla Zibila (1936-1939), 36ko gerla; eta bestetik, esparru kultural bat dugu aztergai, euskaraz sorturiko literatura, hain zuzen ere. Mintzagai zabal honi, dena den, nor bere begiradatik hurbildu zaio, nor bere ikerketa esparrua zehaztuz. Aztergaia hautatzerakoan, bi esparru horiek elkarlotzeko har zitezkeen bide anitzetatik honako hau hartu dut: gertakari historiko baten errepresentazio poetikoetan arakatzea. Zehazki, Gernikako bonbardaketaren errepresentazio eta begirada poetikoak izango dira aztergai. Hartara, gertakari historiko konkretu eta ezagun hura euskal poesian nola irudikatu den aztertzeko lehen urratsak proposatu nahi dira saio honetan. Begirada historikoaren eta begi-

rada literarioaren bidegurutzean kokatzen dira mintzagaia eta aztergaia, baina, jakina, gure lan-eremua eta ikerketa-eremua literatura izanik, geure ekarpenak batik bat begirada literariorantz lerratuko dira, eta testuinguru historikoa, politikoa, soziala eta kulturala aztertuko badira, literatur ekoizpenari eragin dioten neurrian aztertuko dira. Alegia, literatur jardunaren argigarri zaizkigun neurrian.

Aztergaia hautatzeko arrazoiak

• **Gerla zibilaren ikur**: esan bezala, gertakari historiko konkretu batean kokatuko da nire irakurketa: Gernikako bonbardaketa. Hona hemen gertaera historiko haren deskribapena:

> 1937ko apirilaren 26an jazo zen dena. Italiako Aviazione Legionariko armadako hiru hegazkinek hamabi bonba jaurti zituzten Gernikan. Alemaniako hemeretzi bonba hegazkinekin batera eraso zioten Gernikako herriari. 3.000 tona lehergailu erabili zituzten; orotara, 5.000 bonba zartarazi zituzten. Hogei ehiza hegazkinek, gainera, herritarrak eta eraikinak metrailatu zituzten. Condor eta Aviazione Legionariko armadek Gernikako zubia suntsitzeko agindu zehatza zuten. Alabaina, 3.600 metrotik jaurti zituzten bonbak, ezker-eskuin. Eta, horrenbestez, zubia ez ezik, herri osoa txikitu zuten (*Berria* 2009/04/09).

Gertakari historiko hau Gerla zibilaren ondorio lazgarrien **ikur eta irudi** bilakatu da, **metonimia.** Metoninima honek zentzu eta molde ezberdinetan erabili izan da, gainera, testuinguru historikoari lotzen zaizkion irakurketak egin izan dira, baina, baita gerla erasoaren moldeari lotzen zaizkionak ere. Lehenik, Gerla Zibilak edo 36ko gerlak eragindako biolentzien ikurtzat hartu da Gernikako bonbardaketa; bigarrenik, herritar zibilen aurkako eraso hau gerla eraso indiskriminatu guztien ordezkari bihurtu da; eta hirugarrenik, gerlak (edozein gerlak) sorturiko sarraskiez aritzeko Gernikako bonbardaketa

erreferentzia nagusitzat hartu izan da, bai Euskal Herrian bertan, bai Euskal Herritik kanpo.

• **Gernikako bonbardaketa memoria kulturalaren abaroan:** gertakari historiko hau hainbat kultur adierazpideren bitartez errepresentatu eta irudikatu da, eta arteetan motibo errekurrente bilakatu da. Kultur adierazpide hauek guztiek memoria historiko-politikoa memoria kulturala bihurtu dute, eta dimentsio bikoitz horretan jasotzen dugu jada Gernikako bonbardaketa. Dirudienez, Picassok *Guernica* artelana margotu zuenetik dimentsio bikoitz horretara bildu zela gertakari historikoa: dimentsio historiko-politikora, eta dimentsio kulturalera.

Dimentsio bikoitz hori argia da euskal literaturako lan berri batean. Gernikako bonbardaketaren inguruko literatura hizpide izatean, eta euskal literaturaren azken aldiko uztari erreparaturik, Bernardo Atxagaren ekarpena da aipatzekoa: ***Markak. Gernika 1937***. Gainera, Atxagaren saiakera horretan bertan biltzen dira Gernikako bonbardaketaren inguruan euskal poesian egon diren irakurketa edo interpretazio gehienak. Argi geratzen dena Atxagaren irakurketan honako hau da: **Picassoren *Guernica*** margolanak baldintzatu egin duela gertakari historikoaren harrera, interpretazioa. 1937. urtean Pariseko Nazioarteko Erakusketan egon zen erakusgai, eta Europa osora zabaldu zuen Gernikan gertatutakoaren berri. Arte-lan honek izandako arrakastaren ondoren, gertakari historikoak eta memoria historikoari dimentsio kulturala gehitzen zaio. Are gehiago, badirudi Picassoren lanaren arrakasta eta hedapenaren ondorioz, ezinezkoa dela gertaera historiko hori dimentsio kultural horretatik at ulertzea, jasotzea eta geureganatzea.

Hartara, Gernikako bonbardaketaz hitz egiteak bi begirada jasotzea dakar, lekukotza historikoaren begirada, eta begirada artistikoa. *Guernica*-ren zabalkundearen ondorioz Gernikako bonbardaketa kultur adierazpide ere bihurtua zaigu, memoria kulturala osatzen du. Ondorioz, Gernikako bonbardaketa kultur adierazpide askok errepresentatu izan dute, memoria kultural hori garatuz eta osatuz.

• **Begirada globalaren eta lokalaren bidegurutzean:** euskal kulturaren begiradatik eginiko hurbilpenean argi dago Gernikako bonbardaketa irudikatzean edo errepresentatzean begirada lokalaren eta globalaren arteko solasa etengabea dela. Andreas Huyssen-ek Holokaustoaren memoria aztertzean honako hau dio:

> La globalización de la memoria opera también en dos sentidos relacionados entre sí que ilustran lo que quisiera denominar la paradoja de la globalización. Por un lado, el Holocausto se transformó en una cifra del siglo XX y del fracaso del proyecto de la Ilustración; sirve como prueba del fracaso de la civilización occidental para ejercitar la anamnesis, para reflexionar sobre su incapacidad constitutiva de vivir en paz con las diferencias y con los otros, y de extraer las debidas consecuencias de la insidiosa relación entre la modernidad ilustrada, la opresión racial y la violencia organizada. Por otro lado, esta dimensión totalizadora del discurso del Holocausto, tan presente en gran parte del pensamiento posmoderno, es acompañada por otro aspecto que pone acento sobre lo particular y lo local. Es precisamente el surgimiento del Holocausto como un *tropos* universal lo que permite que la memoria del Holocausto se aboque a situaciones específicamente locales, lejanas en términos históricos y diferentes en términos políticos respecto del acontecimiento original. En el movimiento trasnacional de los discursos de la memoria, el Holocausto pierde su calidad de índice de acontecimiento histórico específico y comienza a funcionar como una metáfora de otras historias traumáticas y de su memoria. El Holocausto devenido en *tropos* universal es el requisito previo para descentrarlo y utilizarlo como un poderoso prisma a través del cual podemos percibir otros genocidios. Las dimensiones global y local de la memoria del Holocausto han ingresado en nuevas constelaciones que claman por un análisis pormenorizado, caso por caso. Mientras la comparación con el Holocausto puede activar en términos

> retóricos determinados discursos sobre la memoria traumática, también puede servir como recuerdo encubridor o bien bloquear simplemente la reflexión sobre historias locales específicas. (Huyssen, 2002: 17-18).
>
> – Huyssenen ikuspegi hori geure eginez, badirudi Gernikako bonbardaketa bera begirada globalera bildu dela, tropo unibertsal bihurtu dela, eta horregatik, ikuspuntu lokal batetik gertakari historikoaz hitz egitean ere, kanpoko errepresentazio kulturalei begira jartzen da euskal artista eta literaturagilea. Horregatik, euskal poesiara eginiko hurbilpen honen asmoetariko bat honako hau da: **barne-errepresentazio eta kanpo-errepresentazioaren** arteko harremanez gogoeta egitea.

• Adierazpide poetikoak hautatzea erabaki dut bi arrazoirengatik: batetik, literaturak gertakari historikoa jorratzean, edo begirada historiko hori bereganatu nahi du, testuingurua berreraiki nahi du, edota beste dimentsio eta beste galdera batzuk zabaltzeko aukerari eusten dio. Begirada historiko horri eusteko egokiagoa dirudi narratiba, historia narrazioa den neurrian, hurbilago dauden generoak direlako. Poesiak bestelako adierazpideak erabiltzen ditu, eta hartara, gertakari historikoaren inguruko beste zenbait ertz, ikuspegi, dimentsio eta sentsazio sortzeko aukera eskaintzen du. Azken batean, narrazioak kausa-ondorio kateari lotuago egon daiteke.

Gernikako bonbardaketa, bada, memoria kulturalean kateatu den gertakari historiko-politikoa dugu, kulturaren esparruan errotu eta hedatu dena. Are gehiago, adierazpide kultural batzuekin zeharo uztarturik agertzen den errepresentazioa dugu. Picassoren *Guernica* koadroa, esaterako, abangoardiaren ordezkari ere izan zenez, Gernikako bonbardaketa abangoardiaren motibo bilakatu da, eta Gernikako bonbardaketa irudikatu denean, ukitu abangoardista hautatu izan da gertakaria errepresentatzeko. *Guernica*-ren eragina erabatekoa da hautu horretan ere. Ez dirudi kasualitatea, bada, abangoardietara hurbilduriko artista askok eta askok gaia jorratu izana. Eluard poeta frantsesa dugu adibide garbi. Euskal Herrian ere abangoardiaren eta

Gernikaren bonbardaketaren arteko lotura hori argia da. Hona hemen adibide zenbait:

a) Dantza: Aukeran dantza taldearen *Gernika, mihise gainean dantzan*, edo Tanttaka-Kukai taldeak *1937* ikuskizunean eginiko erreferentziak.

b) Eskultura: Nestor Basterretxea.

d) Musika: Mikel Laboa.

e) Pintura: Zumeta (1967. urtean *Premio de Pintura Vasca* jaso zuen Picassori omenaldia margolanari esker).

Poesia: *Susa* aldizkariak 1987. urteko apirilean Gernikako bonbardaketari eskainitako ale bat kaleratu zuen, eta bertan, kanpoko poeten lanak argitaratzeaz gain (Paul Eluard, Cesar Vallejo...) euskal poeten lanak ere argitaratu zituzten (Edorta Jimenez, J. L. Otamendi...).

Adibide hauei erreparatu besterik ez dago, artista hauek guztiek abangoardiara hurbildu izan direla ohartzeko, oso modu eta neurri ezberdinetan bada ere.

Peter Weiss-en (1916-1982) *Estética de la resistencia* (1975-1981. urteen artean, hiru liburuki) liburua kontuan hartu behar da, Picassoren Guernicaren inguruan eginiko irakurketa interesgarria delako, galderez josia. Ayschmann eta Hodann langile internazionalistak Espainiara joan dira gerla zibilean parte hartzera, eta Valentzian direla, laranjo baten pean eseri, eta *Cahiers d'art* aldizkariaren ale bat begistatzeari ekingo diote, bertan *Guernica*-ko koadroaren sorkuntza-prozesuaren aldiak agertzen dira. Pertsonaiek koadroa ikusi ahala sentiturikoa kontatzen dute, esperientzia horren narrazioa da saiakerako pasarte hau. Are gehiago, gertaera historikora hurbiltzeko bidea izango da margolanaren hautematearen narrazio hau. Honako pasarte hau azpimarratu nahiko nuke:

> "Estos eran a primera vista los rasgos del cuadro, los que se podían reconocer, pero que al mismo tiempo podían ser inter-

> pretados de manera distinta, cada detalle tenía varios significados, como los materiales de construcción de la poesía" (Weiss, 2000: 380).

Hartara, zentzu aniztasun hori da poesiak eskaintzen duena. Gertakari historikoak poesiagai nola bihurtzen diren aztertzeak, ezinbestean, honako galdera hauek sortzen ditu: poeman nola irudikatu da gertakari historikoa? Zein irudi erabili da? Nola adierazi da poemen gertakari historiko horri erreferentzia egiten zaiola? Besteak beste, galdera horiek izango ditugu poemen irakurketaren oinarri.

Irakurketak eta errepresentazioak

Gernikako bonbardaketaren inguruko ibilbide honetan bost geltoki egingo ditugu, poemetan irudikatzen den edo iradokitzen den irakurketaren araberakoak:

- Irakurketa identitarioa
- Irakurketa historiko-soziala
- Irakurketa literarioa edo metaliterarioa
- Irakurketa antropologikoa
- Irakurketa pertsonala

Eskainiko dugun antologia hautatu honetan, gertakari historiko-politiko horri erreferentzia egiteko zein begirada jorratu da aztertuko da. **Begirada identitarioak**, Gernikako bonbardaketari begiratzen dio, euskal identitatearen sinbolotzat den heinean. **Begirada historiko-sozialak**, aldiz, testuinguru historiko eta sozialaren interpretazioan jarri nahi du arreta, erreferentzia historiko eta sozialak daude poemaren abiapuntuan, eta ondorioz, testuinguru historiko eta soziala gogoraraztea eta birsortzea dute helburu. **Begirada literarioak edo metaliterarioak** Gernikako bonbardaketa erabiltzen du hausnarketa literario bat egiteko, edo literatur esparruko interpretazioak proposatzeko. **Begirada antropologikoek** giza espeziearen edo gizatasunaren

irakurketa bat proposatzen dute, testuinguru historiko-sozial eta kulturaletik at. Eta azkenik, **begirada pertsonalak** pertsona konkretu baten memoria dakar gogora, pertsonarengan jarriz fokua.

1.1. **Herri-identitatea**

Picassoren *Guernica* margolana hedatu baino lehen osaturiko poemetan, argia da herri-identitatea aldarrikatzeko dagoen asmoa. Herri-identitate hori jorratzeko bi bide gutxienez garatu dira, biak ere 40eko hamarkadan argitaratuak: lehena, Iratzederrena; bigarrena, Telesforo Monzonena. Alegia, bata Ipar Euskal Herritik egina, eta bestea, erbestetik egina. Hona hemen bi poema horiek:

GERNIKA!

(Iratzeder, *Pindar eta lanho*, 1945).

GERNIKA!
Zure kantu sarkorra
Entzun dut gau huntan:
Aditu izan nuen
Jadanik askotan:
Bozkarioz bihotza
Gainditzen zitzaitan.
Gaur egin dut gogotik
Nigar ilunbetan...
GERNIKA!

GERNIKA!
Ikusten zaitut **hilen herria** iduri;
Etxe aurtikitz baizik
ez zare igeri...
Udaberria irriz
dago munduari:
Harri beltzetan lore
guti zait ageri.
GERNIKA!

GERNIKA!

Orai datza ohiko
Kartago bezala,
Paret beltz handi batzu
baizik ez dauzkala.
Jazko Euskaldun-iri
haren gorputz hila
Nigarrik egin gabe
nola ikus, nola?
GERNIKA!

GERNIKA!

Xoratzen iluntzen daut
hitz horrek bihotza.
Mendek jakinen dute
haren zorigaitza...
Numanze ta Kartagoz
ez gaitezke mintza,
Goraki erran gabe
Euskadin, han, datza:
GERNIKA!

GERNIKA

(Telesforo Monzon, *Gudarien egiñak. Olerkietan*, 1945)

Euskal semeak sumatu al zezaken
zorigaitz aundiago?
Bizkai erdia birrindu izan ondoren
Gernika sutan dago
Gauaz, Bizkai gain, ageri zitzaigun
odoletan ortzia...
Ta arri azpietan, artean, genun
txingarretan erria!

Siñistu ezinik eldua **naiz**
Gernikaraño gauerdi garaiz
Erria su-argietan dago!
Zelai ta bideetan... umeak lo!
Anaia dabil anai billa,
ta aitak arkitu semea illa!
Beiak marruka mendi bidez...
Andrak begietan negarrik ez

Entzun, entzun suaren zarata...
Odol-malkoa iduri txinparta
Baiña arrotzak alperrik dabiltza
Zutik, **besoak zabal, Zugaitza!**
Gernika ba'zan len gurea,
orain Ludiak du berea...!
Askatasun izenarekin
Gernika'rena dala bat egin!

Bi poema hauetan Gernikako bonbardaketa gertaera ezagun moduan aipatzen da, eta ez da haren datu zehatzik ematen. Gernika herriaren aipamen hutsa egiten da izenburuan, eta dirudienez, poetaren ustez nahikoa zaio hartzaileari aipamen huts hori gertaera historikoaz jabetzeko. Alegia, memoria historiko komun baten partetzat dute gertakaria, ez baitute gertakaria aurkezteko beharrik ikusten.

Bestalde, bi poema hauetan Gernikako bonbardaketa espazio lokalarekin harremanetan jartzen da, estu-estuki harremanetan, eta Gernikako herriaren mina da irudikatzen dena, herri espazio horretan kokatzen delarik tragediaren gunea. Hurbiltasun hori irudikatzeko, dena den, poeta bakoitzak bere bidea hartu du: Iratzederren poeman poetak Gernikari hitz egiten dio, zukaz ari zaio, herria bera pertsonifikatu egiten duelarik ("Zure kantu sarkorra/entzun dut gau huntan..."; eta Monzonen poeman, aldiz, poetak aurrez aurre jartzen du Gernika bonbardatua, hantxe kokatzen da, lekukotzaren ikuspegitik hitz egiten du ("Siñistu ezinik eldua naiz/Gernikaraño gauerdi garaiz...").

Azken batean, erasoaren tamaina oihuak irudikatzen du, herriaren oihu dena, herritarren oihu dena. Erasoturiko herriaren eta erasoturiko herritarren oihu dena.

Bada, gainera, bi poema hauetan irudikatzen diren beste bi ideia garrantzitsu.

Batetik, bi poema hauetan Gernika herria euskalduntasunarekin uztartu egiten da, eta euskal identitateari dagokion irakurketa eginez, Gernika herriari eginiko erasoa euskal identitateari eginiko erasoarekin lotzen da (Iratzederren kasuan, "Jazko Euskaldun-iri/haren gorputz hila", eta Monzonen kasuan, "Euskal semeak sumatu al zezaken/zorigaitz aundiago?"). Hala ere, Iratzederren poeman etsipen tonua nabari da, eta Monzonen poeman, aldiz, bada baikortasunerako deirik, esaterako, Gernikako arbola zutik iraun duela dioenean. Batean zein bestean, edonola ere, Gernikaren aurkako erasoa euskalduntasunari eginiko erasotzat hartua da.

Bestetik, bi poema hauetan gertakariak memorian iraungo duela adierazi egin da. Iratzederren esanetan, denbora luzez izango da gogoan eraso krudel hori ("Mendek jakinen dute/haren zorigaitza..."). Monzonen esanetan, Euskal Herritik kanpo ere hedatuko da gertakariaren albistea. Hartara, poeman bertan espresuki adierazi egin da memoria kulturala sortu nahi dela, eta gertakari historikoa errepresentazio poetiko bihurtzeak memoria kulturala sortzeko urratsak aldarrikatu egin dira.

1.2. **Irakurketa historiko-soziala eta literarioa**

Irakurketa historiko-soziala bideratu duten poema gehienetan, bada irakurketa literariorik ere. Azken batean, poema horietan adierazpide poetikoaren eta errealitatearen errepresentazioaren arteko tenka irudikatzen da. Lau poema bildu dira gogoeta hau egiteko: Gabriel Arestiren "Lizardi", Omar Nabarroren "Itsastxorien bindikapena", Koldo Izagirreren "Lauaxetaren betaurrekoak" eta Ignazio Aiestaranen "Auschwitz eta Gernikan".

LIZARDI

(Aresti, Gabriel (1986 [1974]). *Poesia argitaragabea. Azken poesia*, Susa, Donostia.)

Lizardi
sei otso eta lau ardi;
ni zikin eta zu garbi;
zuk lore eta nik harbi.

Eta zuk eskribatzen zenuen denboretan
mutilak ez baitziren hiltzen
kamino bazterretan,
eta orduan Alfonso Sastre
mutil kozkor bat zen,
eta deserrituak
herrian zeuden;
eta orduan gartzelan
ez zegoen gose-grebarik,
eta orduan
apaizak
apaiz
ziren,
eta orduan etzuten oraindik
ez Lauaxeta
ez Bronstein
asesinatu,
eta orduan
Gernikan etzen bonbardatu,
eta orduan...
eta orduan...
eta orduan...

Baina orain hemen bizi gara,
eta Euskadi berdeagoa da
eta nik nola eskribatuko
dut
Bihotz-Begietan bezalakoren bat...

Eta nik eskribatu dut
eta eskribatu dut
Eta eskribatu dut...
eta, eta, eta Va eta VIa.

Lizardi
eguzki bat eta izar bi.

Gabriel Arestiren poema honetan gertaera historiko zenbait korronte poetikoaren hautua azaltzeko aipatzen dira. Horien artean kokatzen da Gernikako bonbardaketa. Lizardiri eskainitako poema honetan, hartara, Lizardiren sinbolismo horretatik urruntzeko zein arrazoi izan dituen agertzen ditu Arestik, eta poesia sozialeranzko bira hori arrazoitu egiten du. Badirudi poesia sozialerantz eginiko bira horretan Gernikako bonbardaketa mugarrietariko bat izan zela, alegia, gertaera historiko hark irudikaturiko testuinguru historiko eta soziala mugarri izan zela korronte poetikoaren hautua egiterakoan. Ondorioz, Gabriel Arestik Gernikako bonbardaketa injustizia eta bortxakeria politiko eta sozialen artean irudikatzen du, gertaera horren testuinguru historiko, politiko eta soziala indartuz, eta hautu poetikoaren eta errealitatearen arteko harreman hertsia gogoraraziz.

ITSASTXORIEN BINDIKAPENA

(Omar Nabarro, *Itsastxorien bindakapena*, Susa, 1985)

Aizu, Pablo,
gorroto dut bakearen usoa
zeure usoa
Lapurtu egin digute
ohostu, ebatsi
nik dakita zein aditz erabili!

Pablo apostoluak
zalditik erori eta
jainkoaren argia ikusi
omen zuen
geu ere lurrean hankaz gora
inongo argirik ikusi ezinik
ez bada
kriseilu umilak opaltzen diguna

Gehiagorik ez da behar
hain gauza sinplea ikusteko
lapurtu egin digute usoa
orain hainbeste gorroto dudan usoa.
«Guernica» ere kaiolatu egin dizute
Madrilen
armaz defendatutako Madril horretan
odolez laztandutako Madril gorrian
izerdiz ezkerrekoa bataiatutako Madril ateoan
Federico, Pablo, Luis, poeten Madril berritsuan
«Noche de guerra en el museo del Prado»
berrantzeztu beharko genuke
ea oraingoan geuk irabazten dugun zure indar guztiak
han barruan izanik

«Noche de guerra en el museo del Prado»
baina inor ez da errepikatzen
historia ez da errepikatzen
«Guernica»n usoak
sobera zeuden
bai horixe
orain bezala

Bestela zeuk esango didazu Pablo
zer egin dezakeen usoak
uniformez jantzita, hanketatik loturik
betaurreko ilundunen morroi beltzen eskutik

Bai, Pablo
orain ordaindu egin behar dugu zure «Guernica» ikusteko
kaiolatua
kristalezko kaiolan (poesigai izan dugun kristala zure magiaren kaiola)

«Guernica» ez dago Gernikan
Gernika gartzelatu batean
ez baita
horrenbeste askatasunik
horrenbeste askatasun minik garrasika
kabitzen
Guernica kaiolatua ez da Gernika kartzelatuan kabitzen
Madril galduan baino.
Ezin zitekeen
beste ezein modutara izan
Esan dizut, Pablo,
gorroto dugu uso prostitutatuori

Orain koadroa amaitzen ari gara
beste Picasso asko
Gernika bat egiten

bakoitza Picasso bat bagina bezala
zuk ez baitzenuen
astirik izan amaitzeko
koadro bat pintatuz ez baita
inoiz
gerlarik amaitu
eta zuk
koadroan
gerla jaso zenuen
notario jaioa zinen horretarako
gerla ez da amaitu
koadroa ere ez
Guernica deskaiolatua, librea
Gernika jareinean
koadroan amai
daitekeen
toki
bakarrean

Bitartean
lapurtu egin dizute usoa
nire begiez ez dut sekula halako itsuskeriarik ikusi
nola erabil litekeen usoa
zapaltzeko
Pablo, beste txori bat behar dugu
libertarioa
sekula kaiolatu gabea
puroa
nahiz eta hondakin odoltsuak jan
hegalari asperrezina
gure askatasun minaren egarriaren irudia
lehenengo askatasuna delako

eta
gero
bakea

Hegazti hori itsasoan da
hara naramate nire oinek
bertara doa nire gogoa ere
kresal bizikorra irenstera
eguzkiaren eta urgaziaren
lurrezko emaitza birjinala
Harea igurikatzen nauzu
eta
bizitza bera den egonezina
Itsastxorien egonezina Pablo

Omar Nabarrok poema honetan Pablo Picassori zuzentzen zaio. Poema honetan kontaturikoa ulertzeko, beharrezkoa da gertakari bat kontuan hartzea: 1981. urtean Picassoren *Guernica* Madrilera ekarri zuten, ordura arte Estatu Batuetan gorderik egon baitzen. Picassok esana zuen, Guernica ez zela Espainiaratuko Errepublika ezarri ezean. Baina, Picassoren esanak ez ziren kontuan hartu.

Bernardo Atxagak *Markak* (2007: 77) saiakeran gogorarazi duen moduan, faxistek ere sortu zituzten *Guernica* margolanaren inguruko irakurketak, jakin baitzekiten margolan horren hedapena geldiaraztea ezinezkoa izango zela, eta hartara, margolanaren interpretazioa baldintzatu nahi izan zuten. Faxistentzat *Guernica* margolanak adiskidetze edo errekontziliazio nazionalaren irudia zen.

Bi gertaera hauen harira sorturiko poema da Omar Nabarrorena, margolanaren balio sinbolikoa gogora ekarri nahi duena, baina, interpretazioak berrasmatu nahi dituena. Batetik, koadroa Madrilera eraman izana salatzen du ("*Guernica* ere kaiolatu egin dizute/ Madrilen"). Bestetik, adiskidetzearen irakurketaren kontra egiten du ("koadro bat pintatuz ez baita/ inoiz/gerrarik amaitu").

Hortaz, Gernikako bonbardaketaren irakurketa historiko-politikoa egiten du, eraso horren ardurak argitu ez direla iradokiz, eta zauria itxi ez dela irudikatuz.

"Lauaxetaren betaurrekoak" ataletik

(Koldo Izagirre, *Balizko erroten erresuma*, Susa, 1989)

Ulertzen dut poeta frantsesaren izua
Frantses guztien izua haren begietan
Picassoren oihalari beha
Betaurrekorik gabe
Poema inperfektu jator bat burutuz
Kafeari azukrea ukatu ondoren
Gernikaren hezurrak
Merkatu eguna
Hiru ordu terdi bonbaketa
Bi mila hildako
Haritz bat-
Baina poeta frantsesak ezin du ulertu
Picassoren oihalari poeta bat falta zaiola
Euskarazko oihu hori duela eskas
Lauaxetaren betaurrekoak
-"Suari zail, hotzari zail, ukoari zail, gauari zail,
Injustiziei zail, kolpeei zail"-
Oro guztiari zaildutako aurpegien betaurrekoak
Oihu errepikatuak mende erdi bat honuntzago
Betaurrekorik gabe hila Eluard
-"Inuzentzia krimenari garaituko zaio"-
Lauaxeta bezala

Koldo Izagirrek ez du Picassoren *Guernica*-rekin solas egiten poema honetan. Paul Eluard poeta frantsesaren "Gernikako garaitza" poema du gogoan, eta poema

hartan errepresentaturiko Gernikako bonbardaketa du hausnarketagai. Poemaren hasieran argi uzten da poeta frantsesak Picassoren *Guernica*-ri esker izan duela Gernikako sarraskiaren berri ("Picassoren oihalari beha"). Izagirrek Eluarden poema inperfektua zela iradokitzen du, Picassoren *Guernica* ezagutu bai, baina, ez zuelako ezagutzen Gernikako bonbardaketak euskal kulturari ekarririko zauriak. Alegia, Paul Eluard-en poemak euskal begirada duela eskas salatzen da poema honetan ("Euskarazko oihu hori duela eskas/Lauaxetaren betaurrekoak"). Azken batean, gertaeraren transmisioaz egiten du gogoeta, eta Picassoren *Guernica*-ren eragin erabatekoaz. Izan ere, Picassoren *Guernica*-ren itzalak sarritan gertaera historikoaren interpretazio lokalak eta interpretazio historiko-politikoak lainotu egin dira, kanpo-errepresentazioek barne-errepresentazioak oztopatu egin dituztelako. Horregatik, Koldo Izagirrek barne-errepresentazio horiek egiteko beharra aldarrikatzen du, eta horien artean, Lauaxetaren hilketa salatzeko beharra. Gernikako bonbardaketaren ondorioen artean, ondorio kultural hori ere aipagarri delako. Gainera, Lauaxetaren hilketa euskaltzaletasunari eginiko erasotzat errepresentatzen da. Jakina, Picassok eta Eluardek aipatu ez zutena.

POESIA AUSCHWITZ ETA GERNIKAN

(Ignazio Aiestaran, *Munstro abertzalea*, Elkar, 2003)

Paul Celan haserretu zen
Theodor W Adornok baieztatu zuenean
Auschwitzen ondoren
ez zegoela lekurik olerkigintzarako.

Alde batetik, Paul Celan juduak egin zuen poesiak
erakutsi zigun
nazionalsozialismoaren ondoren
olerkigintzarako leku handia izateaz gain
poesia ezinbestekoa zela
hizkuntzaren totalitarismoari aurre egiteko.

Beste aldetik, Theodor W Adornok
arrazoia zuen
Auschwitzen ondorioz
kultur haustura sortu zelako.

Garai hartan
gure artean ere
ez zegoen leku handirik olerkigintzarako
Gernikak erakutsi zigun erara.

Poesian
gure kultur haustura
sortu zen,
erreketeek eta nazionalkatolikoek
Lauaxeta atxilotu zutenean,
Gernikako bonbardaketa salatzearren.

Olerkaria fusilatuz
Lauaxetaren poesiaren etorkizuna galdu zen,
herriaren geroa txikitu zen eran
Gernikako bonbardaketan.
Poesiaren zati bat,
hizkuntzaren leku bat,
galdu zen betirako
Auschwitzetik,
Gernikatik.

Ignazio Aiestaranen poema honetan ere Lauaxeta poetaren hilketa salatzen da. Gernikako bonbardaketak poesian izan zuen eraginaz egin nahi da gogoeta, eta horretarako Adornoren aipu ezaguna du abiapuntu. Izagirreren poemaren bidetik euskal ikuspuntua jorratzeko beharra biltzen da poema honetan, Auschwitzen aurretik ere galera eta eraso handi bat egon zela gogoraraziz, eta eraso horretan ere tradizio literario eta poetiko bat hautsi eta geldiarazi zela adieraziz.

1.3. **Irakurketa antropologikoak**

Aipatu den bezala, Bernardo Atxagaren Markak saiakeran bildu egiten dira aurkeztu diren irakurketa eta begirada hauek guztiak. *Guernica* koadroaren sortze-prozesua aipatu ondoren, eta irakurketa historiko-politikoak aurkeztu ondoren, Gernikako bonbardaketaren irakurketa antropologikoa iradokitzen du: "Baina koadroak –marka horrek- gertaera historiko bat, 1937ko apirilaren 26ko bonbardaketa, erreskatatu, eta gizadiaren aurkako krimenaren sinbolo bihurtu zuen" (Atxaga 2007: 74). Modu honetara, saiakeraren azken aldean, Atxagak gertaera historikoaren interpretazio unibertsala eta globala sortzen du. Irakurketa global eta antropologiko hau mendebaldean gehien zabaldu den irakurketarekin bat dator, izan ere, Gernikako bonbardaketa zibilen aurkako erasoen ikur bilakatu baita, edo gerren eta ankerkerien ikur. Zentzu horretan, testuinguru historiko eta sozialaren garrantzia arindu egiten da, eta gizatasunaren inguruko hausnarketak gailendu. Irakurketa antropologiko horren alde egin dute Ixiar Rozasek eta Itxaro Bordak.

Hona hemen Gernikako bonbardaketa aipatzen duten bi poema horiek:

ZUMETAREN GERNIKA

(Ixiar Rozas, *Patio bat bi itsasoen artean*, Arabako Foru Aldundia, 2001)

zerutik zintzilik diraute
mina
heriotza
gorrotoa

nora doaz

odolaren eztandaz zipriztindurik
koloreetan amiltzen dira
heriotz hutsalez nekaturik dagoen
esku ahurrera

nora doaz

deiadar urrunak
oihartzun intziriak
begiratzeko grina duten soak
itsutzen direnak
bihotz zauritu izan nahi dutenak
eta direnak
maitasun eroak
hilezkortasun aukeratua

bizitza bera

nora doa

Ixiar Rozasen poema honetan minaren, heriotzaren eta gorrotoaren zentzuez galde egiten da, kezka existentzialak gailenduz. Izenburuan biltzen da Gernikako bonbardaketari eginiko erreferentzia bakarra, eta kasu honetan ere koadro baten oihartzuna dakar poemara. Zumetak Picassoren omenez eginiko *Gernika* margolana, alegia. Hartara, Picassoren *Guernica* koadroaz egindako euskal irakurketa bat du abiapuntu poemak, baina, hala ere, ez du irakurketa historiko-soziala hanpatzeko asmorik. Azken batean, Gernikako bonbardaketak sorturiko sarraskia bizitzaren eta heriotzaren inguruko galderak sortzeko aitzakia dira, gizatasunaren noraeza irudikatzeko bidea.

LUISA VILLALTA LLORANDO[2]

(Itxaro Borda, *Noiztenka*, Maiatz, 2007)

I.

Ez duzu Madrile ikusi.
Lanerako orduan Hiriaren
Bihotzeko sarraskia, zartagailuek
Zitzikatu gorputz eta altzeiru
Zirtzilkeria.
Ez duzu Madrile ikusi.
Gernika berria.
Leize hegiko arriskuaren menpe,
Zure ele poetikoaren umezurtz
Uzten gaituzu:
Ez duzu Madrile ikusi.
Nunca Mais oihukatuko zenuen.
Hitzak, aditz trinkoak
Eta espazioa zein denbora
Egiaztatzen dizkidaten
Deklinabideak
Ukatzear geratu naiz.
Neure herria eta bere –ismoak oro
Gorrotatu ditut.
Ez duzu Madrile ikusi,
Odolez estali arpegio haien
Izua eta etsia,

[2] Luisa Villalta (1957-2004) poeta galegoa zen. Itxaro Bordak asko estimatzen zuen poeta galego honen lana, eta *Maiatz* aldizkarian hainbatetan euskaratu ditu bere poema zenbait. Luisa Villalta 2004ko martxoaren 7an hil zen, Madrileko martxoaren 11ko atentatu sonatua baino egun batzuk lehenago.

Hilotzak burdinbideetan.
Milaka errugabe sabelak airean,
Lurrean hedailo.

Nunca mais oihukatuko zenuen
Madrile ikusi bazenu
Ostegun beltz hartan terrores
Purtzilikatua.
Goya negarrez zegoen
Eta Atotxan Quichotte auhenka,
Manchako eiherak baino
Zailagoa dela gaurko intolerantzia
Borrokatzen marmara.
Ez duzu madrile ikusi.
Gernika bat gehiago.
Nunca mais oihukatuko zenuen.

Itxaro Bordaren poema honetan Gernikako bonbardaketaren irakurketa antropologikoa proposatzen da, baina, horretarako, gertakari historiko bat du erreferentziatzat, Madrileko martxoaren 11ko atentatua. Poema honetan bi gertakari historikoak batu eta parekatu egiten ditu bi arrazio hauengatik: batetik, biak izan ziren zibilen aurka eginiko gerra-erasoak; eta bestetik, bietan zabaldu zen gertatuaren inguruko bertsio ofizial faltsua. Azken batean, testuinguru politiko eta sozial oso ezberdin bi parekatzen dira, saminaren neurriari eta zauriaren tamainari begiraturik, gizatasunaren urradurari erreparaturik.

1.4. **Gernikako bonbardaketa eta irakurketa pertsonala**

Joseba Sarrionandiak *Ken7* musika taldearentzat idatziriko "Gernikan" kantu/poema dugu irakurketa pertsonal horren adibide nagusi.

GERNIKAN

Javier Gardoqui
Josefina Solozabal
Aurelio Legarreta
Catalina Arrieta
Maria Luz Fierro
Aguirre (12 urte)
Francisco Aralucea
Neskato erre bat,
Gernikan!

Regina Aldama
ume identifika ezina
Aurelia Candes Lopez
Clara Zaldumbide
gorputz zatiak
Germana Basabe Ormaechea
Telesforo Elierobarrutia

Maria Santa
Bilbao Uriona
behi zatia
Candida Amias
agure baten gorputz errea
Catalina Barrena Barrena

Agapita Iturralde Zuloaga eta
Maria Iturralde Zuloaga,
Gernikan!

Asto behi gorputz zati
neskato erre bat
ume identifika ezina
Gernikan!

Daniel Ibarzabal
Catalina Arrien Jaio
asto
gorputz zati
andreenekin nahastuta

Juana Beotegi Bilbao
Jacinta Gandiaga
eta
ehunka ume
identifika ezinak

Kasu honetan, gertakariaren xehetasunik ez da ematen, baina, bonbardaketaren ondorioz hildakoen pertsonak gogora ekartzen dira, pertsona horien izen-abizenak aipatuz. Hildakoen oroimena da poemak berreskuratu nahi duena, ez dago gertakariaren irakurketa sinbolikorik edo historikorik, pertsonei begirakoa baizik, bizitza galdu zuten pertsonei eginiko gorazarrea eta oroimen-kantua. Hori bai, berriro ere, Picassoren *Guernica* margolanaren oihartzuna duen poema osatu da, irudien metaketek sortua, oihuaren itzala duena, eta haustura duena oinarri nagusi.

Ondorioak

Garai ezberdinetako eta joera anitzeko zenbait poema aztertu ondoren, honako ondorio hauetara heldu naiz:

- 80eko hamarkadatik aurrera Picassoren irudiarekin solas egiten dute poemarik gehienek. Badirudi, koadroaren itzulerak eztabaidak sortu zituela, eta nolabait koadroaren inguruko irakurketek ere izan zutela garrantzi sozial eta kulturala. Beraz, gertakari horren ondoren, poetarik gehienek jo dute Picassorekin elkarrizketan eginiko testua osatzera.
- Gainera, Picassoren *Guernica* poema hauetako askoren erreferentzia izan ez ezik, adierazpideak hautatzerakoan ere eragina izan duela nabari da.

Izan ere, poema gehienek bide beretik sortu dute Gernikaren bonbardaketaren inguruko irakurketa: irudien metaketa erabiliz, eta haustura edota fragmentaziora joaz (abangoardia kutsua emanez poemari). Irudi eta haustura horietariko asko, bestalde, *Guernica* margolanean irudikaturikoen antza izan badute.

- Memoria kolektibo baten edo kolektiboren baten urratzea da poema gehienetan irudikatzen dena. Jakina, ez da guztietan kolektibo edo talde hori modu berean ulertzen, baina, guztietan irudikatzen da Gernikaren bonbardaketak kolektibo baten urratzea eta zauria ekarri zuela: Euskal Herritartasuna (identitarioa), europartasuna (antifaxista), jendetasuna edo gizatasuna (antropologikoa).
- Poema hauetan guztietan, eta Gernikako bonbardaketak poesian izan duen errepresentazioa aztertzean memoria kulturalaren garrantzia azpimarratzen da. Ikusi ahal izan dugu gertakari historikoari nola ematen zaion balio sinbolikoa, eta balio sinboliko horrek nola bizirauten duen eta berrasmatzen den poesiaren bidez, egokituz garai berrietara, egokituz jendarte berrira, baina, betiere gertakari historikoen balio sinboliko eta kultural horri eutsiz.

Halaber lan hau GIC 10/100 eta IT 495/10 Ikerketa Taldearen proiektuaren zatia da, UPV/EHU eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundua.

Bibliografia

AIESTARAN, Ignazio (2003). *Monstruo abertzalea*, Elkar, Donostia.

ARESTI, Gabriel (1986 [1974]). *Poesia argitaragabea. Azken poesia*, Susa, Donostia.

ATXAGA, Bernardo (2007). *Markak. Gernika 1937*, Iruñea, Pamiela.

BORDA, Itxaro (2007). *Noiztenka*, Baiona, Maiatz.

HUYSSEN, Andreas (2002). *En busca del futuro perdido. Cultura y memoria en tiempos de globalización*, México, Fondo de Cultura Económica Argentina.

IRATZEDER, Xabier (1945). *Pindar eta lanho,* Ezkila.

IZAGIRRE, Koldo (1989). *Balizko erroten erresuma*, Susa, Iruñea.

ROZAS, Ixiar (2001). *Patio bat bi itsasoen artean*, Arabako Foru Aldundia.

SERRANO, Asier (2007). *Picassoren zaldia*, Donostia-San Sebastián, Elkar.

MONZON, Telesforo (1947). *Gudarien egiñak. Olerkietan*, Graf. Moderne.

NABARRO, Omar (1985). *Itsastxorien bindikapena*, Susa, Iruñea.

WEISS, Peter (1999). *La estética de la resistencia*, Hondarribia, Hiru.

Gerra Zibila Saiazarbitoriaren *Bihotz bi*-n: literaltasuna, alegoria eta beste zenbait hipotesi

APALATEGI IDIRIN, Ur
Euskaltzain urgazlea eta
Literatura Ikerketako batzorkidea
Université de Pau et des Pays de L'Adour

Sarrera data: 2009-11-26
Onartze data: 2010-07-14

Euskera. 2009, 54, 2-2. zatia, 1109-1126. Bilbo
ISSN 0210-1564

Nola darabil Ramon Saizarbitoriak Gerra Zibilaren topos historikoa *Bihotz bi. Gerrako kronikak* eleberrian ? Zein modutan argitzen du erabilpen horrek idazlearen azken aldiko poetika ? Bi galdera hauei erantzuten saiatzen da honako artikulua eta historiak Saizarbitoriaren unibertso literarioan duen zentraltasuna agerian jartzen du ikerketan aurrera joan ahala. Eleberri saizarbitoriarrak historia mintzatzen duen bezainbat mintzatzen du historiak autorea, eta konkretuagoki, euskal historiak. Izan dadin estetika errealista baten berme, autorearen kontzientziaren katarsia egiteko tresna ala egungo euskal literatur eremuko borroken alegoria, funtzio anitzekoa ageri zaigu Gerra zibila obra honetan.

Hitz-gakoak: Ramon Saizarbitoria, errealismoa, historia, Gerra Zibila, esparru literarioa, alegoria.

¿Cómo usa Ramon Saizarbitoria el topos histórico de la Guerra Civil en su novela *Amor y guerra* (*Bihotz bi. Gerrako kornikak*, 1996)? ¿De que modo esta utilización nos informa sobre la poética reciente del autor? El presente artículo intenta responder a estas dos preguntas y, según avanza en su investigación, pone de manifiesto la centralidad de la historia –de la historia vasca, precisamente– en el universo literario de Saizarbitoria. La Guerra civil cumple en esta obra ora la función de soporte de una estética realista, ora de instrumento de la catarsis de la conciencia del autor, o incluso de alegoría de las luchas internas al campo literario vasco.

Palabras clave: Ramon Saizarbitoria, realismo, historia, Guerra Civil, ámbito literario, alegoría.

Comment Ramon Saizarbitoria utilise-t-il le topo historique de la Guerre civile dans son roman Amor y Guerra [Amour et Guerre] (*Bihotz bi. Gerrako kornikak*, 1996) ? De quelle manière cette utilisation nous informe-t-elle sur la poétique récente de l'auteur ? Le présent article tente de répondre à ces deux questions et, à mesure qu'il avance dans sa recherche, il met en relief la centralité de l'histoire –de l'histoire basque en particulier– dans l'univers littéraire de Saizarbitoria. La Guerre Civile remplit dans cet ouvrage tantôt la fonction de support d'une esthétique réaliste, tantôt la fonction d'instrument de la catharsis de la conscience de l'auteur, voire même d'allégorie des luttes internes au champ littéraire basque.

Mots-clés: Ramon Saizarbitoria, réalisme, histoire, Guerre Civile, domaine littéraire, allégorie.

How does Ramon Saizarbitoria use the historical clichés of the Civil War in his novel Amor y guerra (Love and War) (*Bihotz bi. Gerrako kornikak*, 1996)? How does this use tell us about the recent poetry by the author? This article attempts to answer these two questions and, as it proceeds in its investigation, to highlight the centrality of history –precisely that of Basque history– in the literary universe of Saizarbitoria. The Civil War in this work serves as support function to a realist aesthetics, as an instrument of catharsis for the author's conscience, or even as an allegory of the infighting in the Basque literary field.

Keywords: Ramon Saizarbitoria, realism, history, Civil War, literary field, allegory.

Gauza jakina da Ramon Saizarbitoriaren bigarren idazlealdian Gerra zibilaren oroimena behin baino gehiagotan agertzen dela. Ez da baina euskal historiaren aipamen isolatua autorearen obran Gerra zibilarena. Komeni litzateke, lehenik, jakitea aipamen honek berezitasunik ba ote duen, gure iragan kolektiboaren beste agerpenekin alderatuta. Horretarako, Hanbre tabernako zahartxoen eta berauen istorioen azterketa bat burutu beharko dugu. Eta, bigarrenik zehaztu beharko litzateke modazkoa bihurtu den topos historiko honen zer-nolako erabilpena egiten den *Bihotz bi. Gerrako kronikak* (1996) obran. Komentzituak baikaude galdera honi erantzuteak lagunduko digula Saizarbitoriaren xede literarioa hobeto ulertzen, baita bere azken aldiko eleberrigintzaren poetika implizitoa agertuarazten. Ohartuko gara, erabilpen hauek aztertu ahala, interpretazio anitzerako euskarria dela gerra zibila eleberri honetan.

1. Historia, eleberria, errealismoa

Onartzen bada, ezer baino lehen, Ramon Saizarbitoria eleberriegile errealista dela, iruditzen zaigu Historiak bere eleberrigintzan duen presentzia nabarmenaren arrazoi nagusietako bat errealismoa bermatzeko beharra dela. Zehaztu dezagun, halere, lehen bait lehen zer ulertzen dugun Historia hitza darabilgularik. Historia, hitzaldi honetan, historia liburuetan azaltzen diren gertakizunetara mugatuko dugu, hots gertakizun historikoetara. Historiaren presentzia, haatik, era askotakoa izan daiteke eleberri batean. Erabilpen honen bertsio minimala dataren aipamena litzateke. Joyce-en *Ulysses* obran, esaterako, Historia dataren aipamenera mugatzen da gutxi gora behera. Jakina, beste hainbat gertaera historizizagarri aurkitzen da bere mila orrialdeetan. Esaterako, bertan agertzen den teknologiaren aurrerakuntza maila oso zehazki datatua dago, garai historiko jakin bati dagokio. Baina eleberriaren gaia ez da, horratik, gertakizun historiko bat. Aitzitik, pertsonaia arrunt baten egun arrunta kontatzen digu Joyce-k. Beste muturreko adibide bat ematearren, Tolstoi-ren *Gerra eta bakea* obran Historiaren erabilpen maximala egiten da,

alegia gertakizun historiko famatu batzuk hartu eta berauen inguruan harilkatzen du autoreak bere intriga erromaneskoa, berauen arabera. Errusiaren historia Napoleonen garaian kontatu nahi digu idazleak fikzio erromaneskoaren bitartez. Esan dezagun segidan Saizarbitoriaren eleberrietan Historia ez dela, eskuarki, ez modu minimalean ez maximalean erabiltzen. Tarteko zerbait egiten du Saizarbitoriak. Tarteko zer hori Flaubert-ek *Heziketa sentimentalean* egin zuena litzateke, edota Proustek *Denbora galduaren bila* obraren zenbait pasartetan. Eleberri hauetan, izan ere, Historia hor dago, bigarren planoan gehienetan, pertsonaia nagusien istorioarekin nahasi gabe baina baldintzatuz. Eta, tarteka, lehen planora ere jauzi egin lezake Historiak, eta orduan pertsonaiak hurbil-hurbiletik sentituko du bere hatsa. Hori gertatzen zaio Frederic Moreau-ri 1848ko iraultzarekin, edota Prousten pertsonaiei Lehen Guda Mundialarekin. Saizarbitoriak *Hamaika pauso*-n edota *Bihotz bi*-n ere, tarteko bidea darabil. Gertakizun Historikoak oso identifikagarriak dira bietan, Anjel Otaegiren fusilaketa eta Gerra zibila. Bietan, halaber, pertsonaia ez dago gertakizunaren une historikoan, baizik eta urte batzuk edo urte nahiko beranduago. Eta, halere, Historia horrek badu eraginik bere bizitzan, nahiz ez duen inoiz lehen planora jauzi egiterik izango, iraganean kokaturik dagoenez gero.

Ehun metro-ren kasua zertxobait desberdina litzateke. Hemen Historia lehen planoan dago, *Gerra eta Bakea*-n bezala, eta Historia hori gertatzen ikusten dugu, orainaldian. Arazoa da, jakina, bertan agertzen den gertakizuna simili edo sasi historikoa dela. Hots, Historiaren itxura eta zaporea dauzka –errepresentazio txit errealista egiten duelako autoreak– baina ez da Historia bera. *Egunero hasten delako*-n Historia ez da gertakizun historiko jakin bat, baizik eta gizarte okzidentalaren bilakaeraren une jakin bat zeinetan abortoa arazotsua den. Honek, noski, nahiz eta bigarren planoan egon, guztiz baldintzatzen du pertsonaiaren patua. *Ene Jesus* da, apika, autorearen obren artean Historia modu zeharkakoenean errepresentatzen duena. Nahiz eta Euskal Historia politikoa pertsonaia nagusiaren patologia mentalaren oinarrian egon daitekeela susmatu, badirudi, halere, bere problematika gizarteari baino familia barruko arazo oedipiarrei lotua dagoela. Baina, jakina, Saizarbitoriaren eleberrietan

ez da inoiz baztertu behar irakurketa alegorikoa eta irakurketa mota honi jarraituz gero posible litzateke, ausaz, euskal familia horren disekzio psikoanalitikoa euskal gizarteari buruzko zeharkako diskurtso bat izatea, hortaz, ororen buru, diskurtso historikoa.

Hortaz eta laburbiltzeko, alde batetik, Historiaren presentziak, inolako dudarik gabe sakontasuna, eta sendotasuna ematen die eleberriaren estetika eta xede errealistari. Sinesgarriagoa egiten dute kontatzen zaigun istorio fikziozkoa. Pixka bat Hollywood-eko filme zaharretan atzekaldean jarritako paisaien irudiak sinesgarritasuna ematen zioten moduan auto barruan estudiotik atera gabe filmatutako eszenei. Historia irudiaren hondoa da, perspektiba ematen diona. Eta, gauza jakina da perspektibaren asmakuntza izan zela errepresentazio piktoriko errealistaren garapenaren giltzarri nagusietako bat. Bestalde, Historiak lagundu egiten du eleberriegilea bere pertsonaien psikologia motibatzen (justifikatzen), sustantzia ematen die pertsonaien problematika existentzialei, sakontasuna eta, horrez gain, irakurlearen identifikazioa lagundu egiten du, definizioz Historia denok ukitzen gaituen materia bat delako. Adibide single bat ematearren, niri asko lagundu zidan *Gizona bere bakardadean* eleberrian sartzen 1982ko futbol mundialaren aipamen eta erabilpenak, nire oroitzapenak ere txertatu nitzakeelako pertsonaiek bizi zuten munduan. Nolabait esatearren Historiak lagundu egiten dio irakurleari nobela barruan bere etxean balego bezala sentitzen.

Honek guztiak ez du esan nahi, haatik, Historia eta errealismoa beti eskutik helduta doazenik. Esaterako, gertakizun historikoaren erdi-erdian kokatuak egonagatik, hainbat eleberri ez dira errealistatzat jotzen. Horren adibideak genituzke « eleberri historiko » azpi-generoan kokatzen direnak. Historian kokatuta baldin badaude, eta sarritan dokumentazio lana aldarrikatzen badu autoreak, zergatik ez dira orduan errealistatzat jotzen ? Bada, apika errealismoa ez delako errealitatea bera, baizik eta errealitatea begiratzeko modu bat. Modu hori nola zehaztu baina ? Hitz zerrenda bat egin daiteke errealismoaren esentzia laburbiltzen saiatzeko : zehaztasun psikologikoa, Historiaren ikuspegi luzidoa eta deslliluratua (adultua, beraz), eta askotan (baina ez beti) ironia. Kalitate horiek oro Saizarbitoriaren eleberrigintzari aplika dakizkioke, jakina.

2. Gerra zibilaren berezitasuna corpus saizarbitoriarrean?

Esan dugu, Saizarbitoriak ia beti erabili du, modu minimalagoan ala maximalagoan, edo, gehienetan tartekoan, Historia bere estetika errealistaren berme gisa. Iradoki dugu, baita ere, *Bihotz bi. Gerrako* kronikak eleberrian, tarteko bidea darabil autoreak. Historia, kasu honetan, Gerra zibila da baina bere osotasunean. Ez da gertakari konkretu bat aukeratu, *Hamaika pauso*-n egiten zen moduan. Baina Gerra zibilak ba ote du berezitasunik Saizarbitoriak darabiltzan gainerako historiaren aipanekin alderatuz gero ? Ikus dezagun, lehenik, Historiaren zein episodio edo garai erabili dituen idazle donostiarrak bere corpus erromaneskoan. Xehetasunetan sartu gabe, eta ahanzturak ahanztura, honakoak lirateke gertakizun nagusiak, kronologikoki sailkaturik : Sabino Aranaren gorpuaren desehorztea (*Asaba zaharren baratza* izeneko eleberri laburrean), Gerra Zibila bere osotasunean (*Bihotz bi*-n), gerra zibilean kokaturiko Elgetako bataila (*Gudari zaharraren gerra galdua*-n), gerra osteko giro hitsa et fraide eskolak (*Ehun metro*-n), mendebaldeko Europako 60eko hamarkadako giro nahasia abortoaren arazoaren bitartez (*Egunero hasten delako*-n), 70eko hamarkadako euskal borroka armatua eta ondorioak (*Ehun metro* eta *Hamaika pauso*-n), Anjel Otaegiren fusilaketa (*Hamaika pauso*-n), trantsizio garaieko giro intelektual eta politikoa (*Hamaika pauso* eta *Bihotz bi*-n), 80eko hamarkadako kontsumo gizarteranzko aldaketa (*Bihotz bi*-n, Floraren pertsonaiaren bitartez).

Garbi dago, zerrenda bere osotasunean hartzen bada, *Egunero hasten delako*-n agertzen den garaia eta problematika alde batera utzita, Historiaren beste aipamen guztiek puntu amankomun garbia dutela : euskal naziotasunaren arazoa. Alde horretatik, beraz, Gerra Zibilarena ez da topos historiko berezia Saizarbitoriaren eleberrigintzan. Beste zenbait topos historikorekin batera ulertu behar da, guztien arteko lotura tematikoa delarik. Baina komeni da ohartaraztea iraganaren esplorazio honek muga kronologiko zehatzak dituela, ez baita Gerra zibila baino atzerago joaten idazlea. Etor lekigukeen hurrengo galdera honakoa litzateke : zergatik ez doa karlistadetaraino Saizarbitoria –beste hainbat euskal idazlek egin duten moduan (Iri-

goien eta Atxaga, ezagunenak aipatzearren)–, euskal naziotasunaren arazoaren erroetaraino joatea baldin badu helburu ? Zergatik gelditu Gerra zibilaren garaiean (zeren Sabinoren hezurren desehorzketa ere garai horretakoa baita) ? Erantzuna, noski, funtsezkoa da Gerra Zibilaren topos historikoaz autoreak egiten duen erabilpena ulertzeko garaiean.

Niri defendagarriena iruditzen zaidan hipotesia honakoa litzateke : Saizarbitoriaren iragan historikoa Gerra zibilarekin hasten baldin bada euskal sistema literarioaren eraketa modernoa ere garai horretan, edo lehenxeago, hasi zelako da. 1927-1937 hamarkadan kokatzen da euskal literaturaren lehen saiakera sistema gisa antolatzeko. 1927an sortzen da Aitzolek zuzenduko duen Euskaltzaleak elkartea, urte berean argitaratuko du *Euskal Esnalea* aldizkariak lehen euskal literaturaren historia –Orixek idatzia[1]–, urte haietan hasiko dira ematen lehen euskal literatura eskolak, « Olerti eguna » izango da gure lehen sari literario kultoa 1930etik aurrera, eta garai hartan sortuko da, prentsa eta aldizkarietan, euskarazko lehen kritika literarioa[2]. Euskal literatura, gaur ulertzen dugun moduan, alegia literatura moderno eta homologagarri gisa, une historiko hartan hasten da gorpuzten, eta nik uste hori dela Saizarbitoriaren historiaren alpha.

Honek, jakina, eleberri saizarbitoriarraren intepretazio metaliterarioa egitera garamatza, ezinbestean. Eta egiten ahaleginduko gara, posible zaigun neurrian.

3. Gerra zibilaren topos historikoa *Bihotz bi-*n

Eleberriaren izenburu osoan bertan aurkitzen dugu Gerrari egindako erreferentzia. « Gerrako kronikak » dio izenburuak, « Bihotz bi »-ren ondotik. Jakina, zilegi da pentsatzea bikote protagonistaren gerrari egiten zaiola erreferentzia gerra zibilari bezainbat. Baina, halere, Gerra Zibila oso presente dago liburuan

[1] ORIXE: *Euskal literaturaren historia laburra*, Donostia, Utriusque Vasconiae, 2002 (jatorrizko argitarapena : *Euskal Esnalea*, XVIII, 1927).

[2] ARANBARRI, Iñigo eta IZAGIRRE, Koldo: *Gerraurreko literatur kritika*, Bilbo, Labayru ikastegia, 1996.

zehar. Saizarbitoriak ez du Gerra zibilaren gertakizun historiko konkretu bat aukeratzen hemen –gudari zaharraren kontakizunean egingo duen moduan–, baizik eta gerra bere osotasunean. Azaltzen saiatu behar garen lehen gauza, beraz, honakoa da : Gerra zibilaren zein aspektu edo gertakari aukeratu ditu Saizarbitoriak, metonimikoki gerra bere osotasunean sinbolizatzeko ?

Gerraren aztarna nabarmenena, eleberrian, berau bizi izan duten zahartxoena da zeintzuk Hanbre izeneko taberna baztertu samarrean elkartu ohi baitira. Gerrako belaunaldia da beraz, hemen, gerraren lekuko eta metonimia nagusi. Samuel abertzalea, Nikolas UGTko gorria, Ino emazteak utzitako alargun faltsua, Benito eta bere emazte Klaudia, zeina Alzheimerrak elbarrituta baitago, Beltran euskaldun madrildartua. Horra Hanbreko taldea. Eta narratzailea bertara hurbiltzen da, eleberriaren hasieran Flora emaztearekin batera, eta beranduago bakarrik, gerrako historiak ezagutzera. Gerraren aztarnak ez daude jada hirian, Donostian –denborak aspaldi ezabatu baitzituen–, baizik eta bizi izan dutenen oroimen inperfektuan.

Gorago iradoki dugunez, gerraren toposaren erabilpenaren lehen arrazoia, agerikoena, eleberriaren errealismoaren sendotzean datza. Ikuspegi honetatik, gerraren toposaren irakurketa literala egitea zilegi da. Hots, gerra zibila gerra zibila da, ez du beste ezer sinbolizatzen. Gogora bedi Gerra zibilaren gaia ez dagoela oraindik guztiz modan, *Bihotz bi* argitaratzen denean. Guk dakigula, Saizarbitoria aurrenetarikoa da euskal literaturan gaia eleberri batean erabiltzen, halako protagonismoa eskainiz. Are, eleberriaren dinamika erromaneskoaren ardatz bihurtuz gaia. Besterik gabe, horrek interesa piztu zezakeen euskal irakurleen artean, gaiaren berritasunak alegia. Bestalde, kontuan harturik eleberri honetan, bikote baten gora behera sentimental *intranszendenteak* daudela lehen planoan –intranszendenteak diot, inolako balio epaiketarik gabe, eskuarki Saizarbitoriak gai serioagoak landu dituelako (heriotza, patologia mentala, abortoa, borroka armatua, etb.)–, arriskua handia legoke errealismotik kanpo gelditzeko autoreak ez balu kontrapisu historiko hau, Gerra Zibilarena, sartzen. Nobelaren aspektu historikoa ezabatuz gero, *Bihotz bi* vaudeville postmoderno bat litzateke (hirukote edo laukote amorosoaren ingu-

ruko bariazio bat). Hau da, literatura gustagarria, are dibertitua, baina arina. Haatik, *Bihotz bi* ez da horretara mugatzen. Eleberria iruzkindu duten guztiek azpimarratu dute, esaterako, bere dimentsio identitarioa. Gure izaera nazionalaz eginiko gogoeta gisa *ere* hartua izan da *Bihotz bi*, arrazoiz, nire uste apalean. Eta hori aspektu historikoak ematen dio obrari, inolako dudarik gabe. Bestalde, aspektu historiko horrek bortxatu egiten gaitu vaudeville-aren irakurketa literala gainditu eta interpretazio alegoriko eta metaliterario bat egitera, geroago ikusiko dugunez.

4. Historiaren funtzio psikologiko internoa

Lehen esan dugunez, ez du ezerk pentsatzera ematen Gerra zibilarena beste topos historikoen artean berezia denik Saizarbitoriaren obran. Aitzitik, denak elkartzen ditu euskal naziotasunarekiko gogoetak. Bada, topos historiko hauen baliokidetasun edo ordezkagarritasuna bermatze aldera, konpara dezagun nola darabiltzan autoreak itxuraz desberdinak diren bi topos : Daniel Zabalegiren exekuzioa, *Hamaika pauso*-n, eta Gerra zibila *Bihotz bi*-n. Ohartuko gara, desberdintasun itxurazkoak desberdintasun, funtsean funtzio erromanesko berbera dutela bi toposek.

Zertarako balio zuen Daniel Zabalegiren exekuzioaren inguruko xehetasunen azterketa historikoak *Hamaika pauso*-n ? Bada, maila internoan, bederen, hots, Iñaki Abaitua idazlegaiaren ikuspegitik, bere miseria propioa arintzeko. Iñaki Abaituak *Hamaika pauso* izeneko eleberri bat idaztea erabakitzen badu, argi eta garbi bere arazo psikologiko-existentzialak konpontzeko asmoarekin da. Bere burua miserabletzat dauka, koldartzat, eta beharrezkoa zaio bera bezain miserablea den norbait aurkitzea, bere patetikotasuna erlatibizatzeko. Horregatik hasten da Abaitua Daniel Zabalegi ETAkidearen bizitzaren azken uneez azterketak egiten eta eleberri bat idazten. Eta lan horretan, nobelaren narratzaile anonimoak behin baino gehiagotan ohartarazten digunez, Abaituak ez du beti zintzoki jokatuko. Hots, gertakari historikoa –Zabalegiren bi-

zitza eta azken orduak– manipulatu egingo du bere interes propioen arabera. Iñaki Abaituari komeni zaio bere eleberrian Zabalegi galtzaile bihurtzea, bere patuaren jabe ez den gizajo bihurtzea, Historiaren biktima patetiko bihurtzea. Hori frogaturik utziko balu, bide batez frogaturik utziko bailuke heriotzaren aurrean gizaki guztiak direla hein berean miserable eta beraz, bizitzan egin ditzakegun aukerek –oso ausartak edo heroikoak izanagatik– ez dutela ezertxo ere aldatzen. Horrela, bere burua zurituko luke Abaituak Historiaren aurrean. Bere koldarkeria eta Zabalegi martiri abertzalearen heroismoa heriotzak berdindu egingo lituzke.

Eta zer dagi, *Bihotz bi*-ko narratzaile entziklopedia saltzaileak Gerra Zibilarekin ? Bada, gauza berbera. Gerra zibila bezalako une heroiko eta mitifikatua desmitifikatzea du plazerik handiena. Bertan parte hartu zutenen miseriekin gozatzen du. Plazer perbertso samarraz deskribatzen ditu zahartxoen endekatze fisikoaren xehetasunak –Benitok nola ematen dion ardo zopa Klaudia ezinduari, Nikolasi nola darion mukia sudurretik, etb.–, baina batez ere beraien miseria moralaren ikuskizunarekin arintzen du bere sufrimendu psikologikoa. Samuelek bere behialako zintzotasun militantearen absurdutasunaz kontzientzia hartzea laket zaio, gozatzen duen moduan Benito Nazionalekin ibilitakoa dela eta Padilla jeneralaren kadira-komuna eraman behar izan zuela jakitean. Nikolasek abertzaleak beraien ondasunak babesten zituzten burgestzat jotzen dituenean poza sentitzen du. Eta gisa berean pozten da Samuelek gorriei putazale izatea leporatzen dienean. Zenbat eta patetikoago zahartxoen jarduna, orduan eta hobeto aurkitzen da bere buruarekin narratzailea. Eramangaitza baitzaio, bestelakoan, bere aitarengandik jarauntsiz jaso omen duen koldarkeria. Koldarkeria bat ez dena oso agerian geratu, gerrarik ez baitu bizi izan, baina berak ondo ezagutzen duena bere baitan eta emakumeekiko harremanetan ezinbestean azaleratzen zaiona.

Funtzio aringarri eta erlatibizatzaile hori duelako, *Bihotz bi*-n egiten diren Gerra Zibilaren aipamen gehienak tankera horretakoak dira : gertaera irringarri edo patetikoak –erreketeen erridikuloa ate birakor baten aurrean, esaterako.

Eta Historiak eleberrian egiten duen beste azalpen bat –gerra zibilarekin zerikusi zuzenik gabekoa–, antzekoa da. Zumalakarregi jeneral karlistaren estatua eta bere parean dagoen bakearen aldeko alegoria hona nola aurkezten zaizkigun :

Bakearen alegoria uso kakaz zikinduaren eta Zumalakarregi jeneralaren zaldi ez garbiagoaren artean[3].

Historia, hortaz, izan dadin gerra zibila, ala beste edozein gertaera, Saizarbitoriaren pertsonaientzat, desmitifikatu beharreko materia bat da, norberaren ez heroikotasunaren edo miseriaren zama eramangarriago bihurtze aldera.

5. Historiaren zentzu alegorikoa

Bada, halere, *Bihotz bi*-n xehetasun historiko bat beste funtzio bat betetzen duena eleberriaren makinarian. Hau ere Gerra Zibilari lotua dago baina ez du giza miseriarekin harremanik. Hanbre taberna grakatsuko zahartxoek tarteka eskuartean darabilten argazkietako batean, narratzailearen aita ez heroikoa –Juanito « Ikurriña », neskak seduzitzearren ikurriñarik handiena hartuta mitinetan ibiltzen zena– agertzen da beste pertsonaia batzuen ondoan. Beste horietako bat Mikele de Abando lider jeltzaile emakumezko fikziozkoa da, zeinak, Saizarbitoriaren eleberri ia guztietan bezala, superni abertzalearen ahots maternoa daukan, semeen aberriaren aldeko sakrifizoa eskatzen duen ahotsa, alegia. Bigarren pertsonaia, ordea, ez da fikziozkoa, historikoa baizik. Jose de Ariztimuino « Aitzol ». Euskaltzaleak elkartearen buruzagiaren presentzia ez da noski xehetasun ezdeusa. Gorago iradoki moduan, Saizarbitoriaren Historiak Olerkarien belaunaldia loratu zen garai horretan du bere alfa. Euskal sistema literario modernoa eratzen asi zen garaia. Eta honen froga dugu, dudarik gabe, beste ezerk justifikatzen ez duen Aitzolen presentzia *Bihotz bi*-n. Pista metaliterarioan jarri nahi gaitu Saizarbitoriak. *Eleberria ez zaigu bakarrik gizon baten eta bere emazte Floraren arteko bikote bizitzaz

[3] Op.cit., 127.

mintzo, ezta Gerra Zibilak orainean izan dezakeen oihartzun ahuldu eta desitxuratuaz. Eleberri hau, Saizarbitoriaren azken aldiko beste bi obra nagusiak bezalaxe –*Hamaika pauso* eta *Gorde nazazu lurpean*– literaturaz mintzo zaigu nagusiki eta eleberrigintzaz nagusiki, alegoriaren bitartez.

Irakurketa metaliterario honek modu berrian argiztatzen du Hanbreko taberna iluna, baiki. Hanbreko zahartxoak, irakurketa metaliterario honetan, euskal literaturako belaunaldi zaharren (gerraurrekoa, heterodoxoena) ordezkariak lirateke eta narratzailea, berriz, Saizarbitoriaren alter ego-a.

Samuelen pertsonaia da, dudarik gabe, ikuspegi metaliterariotik interesgarriena zahartxoen artean. Izan ere, hainbat zantzu uzten ditu Saizarbitoriak eleberrian zehar barreiaturik pentsatzera uzten dutenak, Txillardegiren ordezko sinboliko bat izan litekeela. Hanbreko zahartxoen artean narratzaileak gehien aintzat hartzen eta errespetatzen duen Samuelen itxura fisiko eta jiteak ezinbestean oroitarazten digute Saizarbitoriaren arbaso literarioetako bat: Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi". Irakur bestela hartaz egiten den deskribapena:

> Samuel gure aita izan zitekeen [...] Azala zaildua zuen, marinelen antzera, ilea ugaria, atzera orraztua, zuri-zuria. Orduan eta orain; izan ere, ezagutzen dudanetik, eta badira hogei urte, ez du itxura aldatu[4].

"Gure aita izan zitekeen" dionean, Saizarbitoria Txillardegik bere belaunaldiko idazle askorekiko irudikatzen zuen aitatasun literarioaz ere mintzatzen egon daiteke. Idazle engaiatuaren ikuspegi itxia defendatzen zuen Txillardegi euskal eleberri modernoaren aitzindaria bezala, Samuel ere abertzale zintzoa da, zintzoegia. Samuel gudari den bezala, Txillardegik beste euskal gudaloste baten sorrera parte hartu zuen (ETA erakundearenean). Azkenik, interesgarria da ohartaraztea Samuelek, Txillardegiren antzera, izan duela militantzia abertzalean sartu aurretik harremanik (behartuta bada ere) espainiar autoritateekin. Esaten zaigunez, Samuelek soldadutza egin behar izan zuen nazionalekin,

[4] Op.cit., 13-14. or.

bi egun besterik izan ez baziren ere (32. or). Eta datu ezaguna da Txillardegik berak, militantzia politikoan sartu aurretik, soldadutza egin zuela espainiar armadan, Ferrolen. 1956-57an izan zen hori, eta hain zuzen euskaraz idazten hasteko baliatu zuen denboraldi hura.

Esan dugu, bada, abertzale zintzoa dela Samuel. Zintzoa dogmatikoa izateraino. Izan ere, kontatzen du, damuturik, nola gerra garaian bere gudari papera perfektu betetzearren, goseak utzi zuen hainbat jende. Bakailoz beteriko ontzi baten zaintzaren ardura emana zioten eta inori ez zion ezer eman, ezta beharrean zegoen arrebari ere. "Harro zegoen aginduak zintzo bete zituelako", baina kontzientzia txarraz bizi da geroztik. Txillardegiren idazletzari buruzko zenbait adierazpen oroitaraz dezake zurruntasun militante honek[5].

Hanbreko bezero zaharrek euskal esparru literarioko belaunaldi zaharrak –eta bereziki gerraondoko heterodoxoena– metaforiza dezakeelako hipotesi interpretatiboa indartze aldera, aipatu beharra da Nikolas, UGTko militantea. Abertzaleekiko kritikoa da, nahiz Errepublikanoen bandoan elkarrekin borrokatzeak adiskidantza sortu duen Samuel jeltzalea eta beraren artean. Postura politiko honek, Gabriel Aresti poeta marxista, euskaltzale, baina ez abertzalearena oroitaraz dezake.

Hanbrek narratzailearentzat betetzen duen funtzioari erreparatu behar zaio, bestalde. Taberna narratzailearentzat istorioak entzuteko aukera eskaintzen dion espazio *mundutik kanpokoa* da, paratopia bat beraz, literatura bera izan daitekeen zentzuan. Eta Flora emazteari ez bezala, narratzaileari berdin zaio gerrako istorio edo gerraren historia berbera behin eta berriro errepikaturik entzutea zeren:

> [...] Ez dakit zergatik, beharbada ez naizelako erabat heldua, kontua da kontakizun baten emanaldi desberdinen arteko xe-

[5] Euskal idazleak, koherentea izan nahi bazuen, euskal ezker abertzalearen alde jokatu behar zuela aldeztu zuen Txillardegik 80eko hamarkadaren erdian famatua egin zen Bernardo Atxagarekiko eztabaida batean.

> hetasun eta ñabardurak atzematea atsegin dudala, askotan; kontaketa, historia bera baino gehiago, esan nahi dut[6].

Egia da, baita ere, ugariak direla Hanbren kokaturiko pasarteetan kontaketari, narrazioaren moldeei egiten zaizkien alusioak, kontaketa baita, oroitzearen prozesu korapilotsu arazotsuarekin batera, Hanbreko kezka nagusia, gerraren beraren gainetik. Adibide bakarra ematearren, bezeroetako baten kontatzeko modua iruzkintzen du narratzaileak pasarte batean, euskal tradizio literarioaren erakusgarri bezala aurkeztuaz inplizitoki estilo narratibo hori. Nikolas izeneko zahartxoak "hura zen tipoa, hura" esanez hasten ditu zenbait pasadizoren kontakizunak, hain zuzen Txomin Agirre lehen euskal eleberriegileak XX. mendearen hasieran egiten zuen modura[7] . Garbi dago, beraz, Hanbre euskal literaturaren iraganaren museoa edo erreserba tematikoa dela Saizarbitoriaren eleberri honen ekonomia sinbolikoan.

Narratzailea, kontatzen digunez, gaztetan, Florarekin ateratzen hasi zenean, askotan joaten zen Hanbrera. Eta egia da, Saizarbitoriak bere hastapenetako eleberrietan (bereziki *Ehun metro*-n) Gerra zibileko belaunaldiari –pertsonaia nagusiaren aitarenari– erreferentzia ugari egiten dizkiola. Beste hitzetan esateko, lehen aldiko Saizarbitoria idazlea Gerra zibilaren oroimen historikoaz elikatu zen, partez, bere obra egiteko. Horren irudi alegorizatua izan liteke hemengo narratzaileak gaztetan Hanbrera joateko duen joera, Florarekin batera. Flora, bestalde, euskal literaturarekiko bere ordu hartako lehen maitemintzearen sinboloa litzateke, sinpleki. Eta egia da, orohar, emakumea Saizarbitoriaren obran literaturarekiko harremanaren sinboloa dela. Esan daiteke, Flora emaztegaiaren pertsonaia Hanbreko giro erdi kostunbrista erdi modernoaz kutsatzen dela, dekoratuarekin bat egiten duela. Eta narratzailea maitemintzen duena Floraren irudi eraiki bat dela, idealizatua, jatorri desberdineko adabaki imaginarioz osatua. Alde batetik, Flora euskalduna, baina euskalduntasunaren ikuspegi artistiko modernista-abertzale batek iragazia, legoke:

---

[6] Op.cit., 23. or.

[7] « Ura zan gizona, ura ! » da Agirreren *Garoa* (1907-1912) nobela ohiturazalearen *incipit* famatua.

> Samuelek esan ohi zuen Artetaren erromerietako neska bat zirudiela, eta ni oso harro jartzen ninduen adierazpen horrek[8].

Eta, bestetik, Flora unibertsalago bat legoke, kultura garaikiderantz (70eko hamarkadakoa, noski) itzulia, bohemioa. Hori da Hanbreko pianoan jarri eta jazz zaharra jotzen duena:

> [...] Flora piano aurrean jartzen zen, zigarroa ezpainetan. Errautsa zintzilik zuela, Errol Garner-en melodia alaiak jotzen zituen, eta malenkoniatsuak ere bai, "Misty" adibidez: "Look at me, I am as helpless as a kittem up a tree"[9] .

Florarekiko maiteminak badu zerikusirik Hanbre tabernarekin, beraz. Samuelen laudorioek narratzailearen amodioa azkartu egiten dute, eta hango piano saioek ere efektu bera dute narratzailearengan. Lotura hori are nabarmenagoa egiten da ohartzen garelarik hain zuzen Florak Hanbrera joateari uzten dionean hasten direla gauzak okertzen senar-emazteen artean. Ematen du Flora Hanbreko dekoratuan baino ezin daitekeela izan narratzailearentzat maiteminaren obejktu. Handik ateratzen den ber arazotsu bihurtzen da bien arteko harremana. Laburbiltzeko, euskal esparru literarioaren egoera jakin bat (Frankismoaren azken urteetakoa) sinbolizatzen duen Hanbren kristalizatu da Saizarbitoriaren euskal literaturarekiko lehen maitemintzea (bere lehen idazlealdikoa), eta kosta egiten zaio marko edo problematika literario horretatik kanpo bere bokazio literarioaren nondik norakoak ulertzea. Eta Hanbretik urruntzearen istorioa da *Bihotz bi* eleberriaren istorioa, hain zuzen, urruntze zail edo ezinezko baten kronika garratza.

Hanbre izenak berak ongi adierazten duenez, euskal literaturan *gosea* nagusi zen garai baten irudia da taberna, azpigarapen estrukturalaren garaiarena, eta gabeziatik erosotasunera igarotzean idazletzaren kontzeptua aldatu egiten da, halabeharrez. Hori da narratzaileari eleberrian zehar gehien kos-

[8] Op.cit., 13. or. Aurelio Arteta (1879-1940) margolariaz ari zaigu Samuel.

[9] Op.cit., 19. or.

tatuko zaiona, aro berrietara egokitzea. Flora Hanbretik atera eta urrundu ahala, aldatu egiten da, *normalizatu* egiten da. Artetaren margo batetik aterea izatetik kontsumo gizarteko emakume modernoa izatera igaroko da. Bitartean, narratzaileak Hanbreri itsatsita jarraituko du, urtetan, Flora ihesi doakiola ohartzeke.

Bikotearen istorio gorabeheratsuan ere aurki dezakegu irakurketa metaliterario aldeko zantzu edo bermerik. Izan ere, zer kontatzen zaigu *Bihotz bi*-n ? Bere emazte Flora narratzailearengandik urrundu egiten da urteak pasa ahala, eta zera leporatzen dio, eleberriko esaldi leitmotiv-etako baten bitartez : « abandonaturik eduki nauzu ». Hainbat urtez, izan ere, narratzailea aldatuz zihoan bere inguruko gizartetik deskonektaturik bezala bizi izan da, Hanbreko zuloan sarturik, zahartxoen istorioei behin eta berriro entzuten. Ez dio Florari haurrik egin. Eta, Florak maitalea hartu duela ohartzen denean, Adolfo delakoa, bat-batean, bere desira berpiztu eta emaztea berkonkistatzeari ekiten dio. Ez al du trama erromanesko honek zerikusirik Saizarbitoriaren ibilbide literarioarekin ? Izan ere, Saizarbitoriaren istorioa, nolabait laburbildu behar bagenu, honelakoa litzateke : lehen maitemintze bat bizi izan zuen euskal literaturarekin, 60eko hamarkada bukaeran, 70eko hamarkadan nolabait lortu egin zuen euskal literaturarekin ezkontzea –nola narratzailea Florarekin–, bere hiru lehen eleberriekin arrakasta lortuz. Gero baina, harremanaren epeltze bat etorri zen ; ez zuen beste eleberririk plazaratu hemeretzi urtean, hots abandonaturik eduki zuen euskal literatura narratzaileak Flora bezalaxe, eta haurrak (edo eleberriak) egiteari utzi zion. Harik eta euskal literaturak maitale berria aurkitu zuen arte, belaunaldi berriagoetako idazleengan, eta bereziki Atxaga izeneko batengan. Euskal literaturako kanonaren erditik periferia historikora bultzaturik aurkitu zen Saizarbitoria, iraganeko gloria zahar bihurturik. Euskal literatur esparruaren eta eleberriaren modernizatze garaieko heroi, baina historia liburuetara mugatua. Narratzailea Hanbren bezala zegoen Saizarbitoria, euskal literaturako zaharkerien museoan zokoraturik. Txomin Agirrerekin batera, Txillardegi eta Arestirekin. Txorizoa eta arrautza frijitua jaten eta bataila zaharrak elkarri kontatzen.

Eta euskal irakurlegoa nahiz esparru literarioa bere orokorrean autore berriez maiteminduta ikustean, bereziki 1989tik aurrera Bernardo Atxagaz maiteminduta, itzuli egiten zaio bere zokotik irten eta berriro idazten hasteko tirria. Orduan idatziko ditu euskal irakurlegoaren maitasuna eta atentzioa berreskuratuarazi dioten *Hamaika pauso*, *Bihotz bi* eta *Gorde nazazu lurpean*.

Hain zuzen, Floraren maitalearen pertsonaia, Adolfo, ez ote den Atxagaren ordezko alegoriko bat miatu beharko litzateke ? Baina hori beste beste mintzaldi baterako utziko dugu. Halere, jakinmina kitzikatzeko edo, galderatxo bat : ba al dakizue zein den, Adolforen lanbidea? Soinujolea da. Eta narratzaileak dionez, Adolfok ile "beltz, oparo eta kirikolatua"[10] dauka.

[10] Op.cit., 12.or.

Gerra Zibila Ramon Saizarbitoriaren narraziogintzan

ALDEKOA BEITIA, Iñaki
Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa batzordekidea
Euskal Herriko Unibertsitatea

Sarrera data: 2009-11-26
Onartze data: 2010-07-14

Euskera. 2009, 54, 2-2. zatia, 1127-1147. Bilbo
ISSN 0210-1564

Aristotelek bere *Poetika*n adierazi zuen moduan, poesia historia baino egiatiagoa eta unibertsalagoa da, poesia "gerta zitekeenaz" mintzo baitzaigu, eta ez, historiak egingo lukeen bezala, "gertatu zenaz" soilik. Alde horretatik, fikzioak "errealitate" deitzen dugun hipotesi sinesgarri horren ikuspegia zabaldu eta aberastu egiten du.

Artikulu honek *Gorde nazazu lurpean* liburuko "Gudari zaharraren gerra galdua" eta "Asaba zaharren baratza" izeneko narrazioak izango ditu hizpide, noraino iristen den dokumentazio historikoa, noraino oroimen historikoa, noraino fikzioa. 36ko Gerrarekin hasi eta ETArekin batera indartu zen borroka armatuaren sasoira etorriko gara egile beraren *Hamaika pauso*rekin batera. Bi belaunaldi eta bi eredu moral eta etiko aurrez aurre: Gerra garaiko EAJ-rena eta 68ko gaztediarengan nagusituko zen ETA-rena.

Hitz-gakoak: Oroimen historikoa, egia historikoa, egia literarioa, nazionalismoa eta giza-balioak.

Como dejó sentado Aristóteles en su *Poética*, la poesía es más verdadera y universal que la historia, toda vez que aquélla nos transporta a lo que pudo haber ocurrido, en tanto que la historia sólo se refiere a lo que aconteció. De ahí que la ficción enriquezca y ensanche nuestra interpretación de esa hipótesis plausible que convenimos en llamar "realidad".

Este artículo analiza la dialéctica memoria histórica/ficción, basándose en dos narraciones que el novelista Ramón Saizarbitoria reúne en *Guárdame bajo tierra* (Alfaguara): "La Guerra perdida del viejo gudari" y "El huerto de nuestros mayores". Sin embargo, nos ha parecido conveniente comparar el mundo de nuestros mayores, es decir, la generación de muchos de aquellos que intervinieron en la Guerra Civil y compartieron valores y una misma visión del mundo, y la generación de sus hijos, que cobra protagonismo a partir de 1968 con la lucha armada de ETA. Esta última encontró en *Los pasos incontables* (Espasa Calpe), del mismo autor, su versión más cumplida.

Palabras clave: Memoria histórica, verdad histórica, verdad literaria, nacionalismo y valores humanos.

Comme l'a affirmé Aristote dans sa *Poétique*, la poésie est plus vraie et universelle que l'histoire, attendu qu'elle nous transporte dans ce qui a pu arriver, alors que l'histoire se rapporte seulement à ce qui est arrivé. D'où que la fiction enrichit et développe notre interprétation de cette hypothèse plausible que nous avons convenu d'appeler « réalité ».

Cet article analyse la dialectique mémoire historique/fiction, en se basant sur deux narrations que le romancier Ramón Saizarbitoria réunit dans *Guárdame bajo tierra* (*Garde-moi sous terre*) (Alfaguara) : "La guerra perdida del viejo gudari" (La Guerre perdue du vieux gudari) et "El huerto de nuestros mayores" (Le potager de nos aïeux). Cependant, nous avons jugé bon de comparer le monde de nos aïeux, c'est-à-dire la génération de bon nombre d'entre ceux qui ont combattu pendant la Guerre Civile, ont partagé des valeurs et une même vision du monde, et la génération de leurs enfants, qui prend une place prépondérante à partir de 1968 avec la lutte armée de l'ETA. Cette dernière a trouvé dans *Los pasos incontables* (*Les pas innombrables*) (Espasa Calpe), du même auteur, sa meilleure version.

Mots-clés: Mémoire historique, vérité historique, vérité littéraire, nationalisme et valeurs humaines.

As Aristotle made clear in his *Poetics*, poetry is truer and more universal than history, since the former takes us to what might have happened, whereas the latter only refers to what happened. Hence, fiction enriches and broadens our understanding of that plausible hypothesis that suits our purpose to call "reality".

This article analyses the dialectics of historical memory/fiction, based on two stories that the novelist Ramón Saizarbitoria brings together in *Guárdame bajo tierra* ("Let me rest underground") (Alfaguara): "La guerra perdida del viejo gudari" ("The lost war of the old soldier") and "El huerto de nuestros mayores" ("The vegetable garden of our elders"). However, its seems appropriate to compare the world of our elders, that is, the generation of many of those persons who were involved in the Civil War and shared values and same vision of the world, and their children's' generation, which gained special prominence from 1968 with the armed struggle of ETA. The latter is found in the *Los pasos incontables* ("Uncounted Footsteps") (Espasa Calpe), by the same author, his most accurate version.

Keywords: Historical memory, historical truth, literary truth, nationalism and human values

Sarrera

Saio honetan Ramon Saizarbitoriaren *Gorde nazazu lurpean* liburuko "Gudari zaharraren gerra galdua" eta "Asaba zaharren baratza" izeneko narrazioak izango ditut hizpide, lehenengoa bigarrena baino gehiago. Hirugarren atalean, egile beraren *Hamaika pauso* behin baino gehiagotan aipatuko da, liburu honetan batetik bestera bitartekari dabilen karga sinboliko handiko elementu baten eskutik: erlojua. Erloju horren bitartez, *Hamaika pauso*k legitimazio transferentzia sinboliko bat irudikatuko du, nazionalismo zaharretik nazionalismo berri batera gertatzen den aldaketa, alegia. Hortxe gertatzen da belaunaldi zahar eta gazteen arteko haustura. Gazteek bizkarra emango diote EAJ-ri eta ETAren esanetara jarriko dira. Zer legitimazio moralez ari gara? Gerra garaiko nazionalismoaren ondareaz egingo da gogoeta.

Alde batetik dago letra larriz idazten den Historia (akademikoa), belaunaldi gazteei eskoletan kontatu eta irakasten zaiena, eta bestetik, historia haietan partaide izan ziren protagonisten lekukotasuna, gutxi-asko, gizartearen oroimen kolektiboaren ondare izatera ere irits daitekeena. Biak dira bata bestearen osagarri. Historialarien errelatoa, lekukoen berotasun eta sustantziarik gabe, hotza eta abstraktua da.

Ramon Saizarbitoriaren nobelagintzak bietatik edango du eta, imajinazioaren eta afektuen bidez (literatura afektuen aldekoa da), biak gainditu eta dimentsio berri batera ekarriko ditu. Aristotelek bere *Poetika*n adierazi zuen moduan, poesia historia baino egiatiagoa eta unibertsalagoa da, poesia "gerta zitekeenaz" mintzo baitzaigu, eta ez, Historiak egingo lukeen bezala, "gertatu zenaz" soilik. Hala uste dut nik ere, eta horixe da Saizarbitoriaren lanak adierazten duena, fikzioa historia baino egiatiagoa dela eta, beste izen hobeago baten faltan, "errealitate" deitzen dugun horren edo munduaren gure ikuspegia zabaldu eta aberastu egiten duela.

1. "Gudari zaharraren gerra galdua" eta "Asaba zaharren baratza"

Funtsean, "Gudari zaharraren gerra galdua" narrazioak gerra barrutik bizi izan duenaren eta kanpotik begiratzen duenaren arteko dialektikaz dihardu, gerrako Elbarri Errepublikarraren Pentsioa lortzeko ahaleginean ari den gudari zaharraren eta pasadizo bera tramite administratibo gisa soilik bizi duen notarioaren arteko dialektikaz. Izan ere, gerraren aurrean, nondik begiratzen den, halakoxea izango da hari buruzko lekukotasuna, gertuagoa edo urrunagoa, intimoagoa edo arrotzagoa, azken batean, egiatiagoa edo gezurtiagoa.

Gerra kanpotik ikusi duen historiagileak irudika lezake gudu-zelaia harrotasun abertzalez sututa borrokatzen diren etsaien arteko borroka gisa. Eta halaxe kontatuko dute Historia historiagile txarrek, baita poeta txarrek ere, gertuago kanpainako buletinen hitzetatik gudari edo soldadu nahigabetuaren sentimenduetatik baino. "Adorea", "ohorea", "espiritu aberkoia" eta antzeko abstrakzioak obszenoak gertatzen dira Lehen Mundu Gerrako lubakietatik sortutako Hemingway-ren *Armei adio,* Robert Graves-en *Agur horri guztiari* edo Gabriel Chevalier-en *Beldurra* bezalako liburuetako superbibienteei. Beste hainbeste zazpi hilabetez Intxortako lubakietan abiazio alemanaren jostailu izandako gudariari.

XX. mendeko arma hilgarrien tamaina ikusirik, eta soldaduek ez zutela fisikoki etsaien esperientziarik apenas, etsaia ikusi ere ez baita egiten, edo bonben burrunba hotsen artean ustekabeko talka lausoak baino gertatzen ez direnean, ez dago epikarik, triskantza hutsa baizik. Oso ondo azaltzen du Robert Graves-ek egoera hori bere liburuan. Lubakietatik salto egin eta erasoan soldadu guztiak lurrari iltzatuta geratzen zaizkionean, ofizialak lurretik altxa eta aurrera korri dezaten "koldar madarikatuak" oihukatzen ari zaielarik, sarjentoak esaten dio: "Ez dago hemen koldarrik, jauna, seko hilda daude guztiak". Ernest Jünger-ek *Altzairuzko ekaitzak* liburu bikainean egin zuen gisa, gehienera gudarien laudorio estetizista bat egin zitekeen, baina urri dira halakoak, Jünger-en aristokrazia prusiarraren ohore legea anakronikoa gertatzen baita jada XX. mendeko mundu gerretarako.

1947an Telesforo Monzonek *Gudarien eginak* poesia liburua argitaratu zuen, Gerra Zibileko gudariei eskainitako omenaldi moduko bat izan nahiko zukeena, seguru asko. Baina ze arrotza eta gezurtia gertatzen den lubakietako egiazko errealitatearekin alderatuta!

ELGETA'N ANAIEN LAZTANA
«Bigarren doñuz»

Kalamua'tik Ubera ingururaño,
ta andik Kanpantzar'era
gure gazteak, mutil eder ta yaio
sakabanatu dira.
Naiz-eta artean aiek ez gudari
bake mutillak baño,
gudan asi orduko arrotzari
bultza mendi beraño.

Zabaldu zan, artean, berri au:

«!Gazteak! Izkilluak dizkiau»
!Gudarien txapelak aidean,
txistu ta ikurriña artuta aurrean!
«!Azkar mutillak Elgeta'ra
Bizkaitarrek gure zai dira,
Naiz izan bi, izkillu batekin,
Bat il ondoren... besteak ekin!»

Erriak.-

Dantza ta Guda mendi goietan...

!Aupa mutillak! !Aurrera!
Bakea baitegu biotzetan,
ez degu iltzeko beldurra!

Euskalerri'ko mutil gazteak,
–Aingeru, naiz ta Gudari–
gorroto gabe yausiak dira
mendigoietan kantari!

Gipuzkoar seme ta Bizkaitar
muga-mugan besarkatuz elkar,
Araba ta Naparra'tik ere
Gazteak igesi geure alde...
Ta Euzkadi'k bizi-zoria
Bizkaia'n zuala ipiñia,
euskaldunak, alkarren anai,
yarri ziran, !sutan!, arrotzen zai.

Erriak.-

Dantza ta Guda mendi goietan...
!Aupa mutillak! !Aurrera!
Bakea baitegu biotzetan,
ez degu iltzeko beldurra!
Euskalerri'ko mutil gazteak,
–Aingeru, naiz ta Gudari–
gorroto gabe yausiak dira
mendigoietan kantari!

Liburu hori hizpide, hauxe idatzi zuen Koldo Mitxelenak:

> Okerrena da ez dudala neure burua ez nire lagunena ikusten erretratu horretan (...) Eta gainera, gramatikarekin, neurriarekin eta gertaerekin halako itxuragabeko lizentziak onartuz gero, guztiok ginateke poetak.

Egia esan "La Bilbaína elkarteko sotoetatik ikusita, frontea lausotu samar geratzen zen, izan ere".

Halakoetan hegoak moztu behar zaizkio poesiari, edo poesia bulkari, gehienetan errealitatea faltsutzen duelako. Eta Saizarbitoria oso kontziente da horretaz. Gertuago daude Intxortako lubakietako gudarien sentimenduetatik beste bertso hauek:

> Gerrako gure ibilerak
> Pepe Bolunburu, 1937
>
> Oraintxe kontatuko dizuet
> gure gerrako istoria,
> egin genduan bizimodu bat
> guztiz ikaragarria:
> denbora dana pasatu degu
> egazkinen iesian,
> purga bearrik ez degu izan
> gerra denbora guztian.
>
> Guregatikan ez dute esango
> balientiak geranik,
> zaratatxo bat entzun orduko
> asitzen ginan iesik.
> Gu geran baino azkarragorik
> oraindik ez da ikusi
> Kiputxaneko Periko berriz
> danon artean nagusi.

Chevalier-ek modu paregabean kontatzen duen bezala, soldaduak egiatan sentitzen duena bere aberkideek entzun nahiko luketen azkena da, beldurra izan duela, beldurtia dela eta beldurra izaten denean ihes egiten dela, eta ahalko balute denek egingo luketela ihes beren lerroak utzita, mundu guztiak ospa egingo lukeela, baina lasaitzeko, gerratik ezin dela ihes egin, bestela fusilatu egingo zintuzketela. Horretaraxe errenditzen da lubakietako soldaduaren abertzaletasun sutsua.

Hau dio "Gudari zaharraren gerra galdua"k:

> Baina bonba leherketaren suak eta hotsak natura bera ere hunkitzen zutenean, ez zen estrategiarik beldur ikaragarritik eta, soinean alkondara izerditua bezala, hotza eta hezetasuna bizkarrezurrean itsatsita sentitzetik libratuko zituenik. (49. or.)

Esan ohi da 14ko gerra hartan (edo 36koan) gazteek pozik hartu zituztela fusilak, baina hori gertatu zen gerraren makinaria hilgarriak aurpegirik ilunena eta lubakietako ikasgai triskantzatsuena erakutsi zuen artean:

> Gudari zaharra..."renean: "Nos vamos a la guerra". Hitz horiekin erantzun zien Zaraguetak, bera bizkarretik helduta porturantz bultzatzen zuela. "Esan amari ez naizela joango bazkaltzera. (18. or.)

Baina gerra ikaragarria da, eta "Gudari zaharraren gerra galdua"n kontatzen den bezala:

> CNTko bi batailoi frontetik erretiratu zirela. Artekari batek ikusi zituen Santa Marina inguruan desertzioan harro, arrazoi ideologikoak baitzituzten erretiratzea justifikatzeko. Inor ez zen ausartu CNTkoei aurre egin eta frontera itzularazten. Geroago jakin zuten Gipuzkoa batailoikoek ere, haien pausoak jarraituz, Elorriora ihes egin zutela bonbardaketapean izuak hartuta. Elizaren inguruan bildu ziren, buruak umil, ahalkea aurpegietan, beren portaera justifikatuko lukeen argudiorik gabe, biluzik ikararen aurrean. Vidal koronelak, pistola eskuan hartuta, itzularazi zituen berriz ere mendira. (48. or.)

2. Ramon Saizarbitoriaren errealismoa

Atal honetan azalduko dugu nola bihurtu den orain arteko material hori guztia literatura. Beti esan ohi da egiantzekotasuna edo sinesgarritasun maila dela errealismoaren markarik behinenetakoa. Eta, egia esan, aztergai ditugun bi na-

rrazio hauetan ez zaio huts egiten ikuspegi horri, garbi baitago batean nahiz bestean erabili den dokumentazio historikoa zehatza izan dela. Pare bat datu hau frogatzeko: "Gudari zaharraren gerra galdua"ko protagonistak 1937ko apirilaren 20an galdu zuen hanka belauneko muinotik behera, justu Bergara eta Arrasateko sektoretik barrena tropa faxistek erasoak suspertu zituzten egun berean. Handik lau egunetara, apirilaren 24an, Molaren tropak Elgetan sartu ziren. Saseta, Martiartu, UHP (soilik narrazioan agertzen direnak aipatzearren) eta beste batailoietako superbibienteek Intxortako lubakietatik erretiratu egin behar izan zuten. Apirilaren 26an Condor legioak Gernika bonbardatu zuen.

Hara zer dioen Mikel Aizpuruk, nazionalismoaren eta EAJren historiaren ikertzaile eta EHUko irakasleak, Sukarrietako gertaerei buruz, hau da, frankistek haren hilobia profanatuko zuten beldurrez, Sabino Aranaren gorpuzkinak hobitik behin eta berriz atera zituztenekoa kontatzen den errelatoaz:[1]

> Hay diferentes versiones, complementarias más que contrapuestas, sobre el modo y las personas que actuaron en la operación y sobre la veracidad del acta redactada por Ceferino Jemein, consecuencia, en buena medida, del secreto de la misma y del hecho que sólo tres personas la conocían en su integridad. Véase, por ejemplo, el artículo de Antonio Gamarra en Euzkadi 102, "Los restos de Sabino". El escritor Ramón Saizarbitoria le dedicó un relato ficticio, pero muy ajustado a los hechos en "Asaba zaharren baratza", incluido en su libro *Gorde nazazu lurpean.* (Erein, 2000, págs. 401-464)

Narrazio honetan bertan gertatzen da ere, "Gudari zaharra..."n gertatu zen bezala, Ceferino Jemeinek atondu zuen dokumentu historikoaren eta Historiara pasatzeko adinako izenik ez eta ekintza horietan partehartze zuzena izan zuen protagonista xumearen arteko dialektika; nola kontatzen den, nola manipulatzen den Historiaren errelatoa eta ze aportazio duen horretan protagonista umilaren partehartzeak.

---

[1] in *El nacionalismo vasco: mitos, conmemoraciones y lugares de la memoria*, Madrid, Editorial Biblioteca Nueva, 2006.

Baina ikusi ahal izan ditugun dokumentazio eta zehaztasun horiek guztiak, ekintza horien gertalekuak pausoz pauso ibiltzea, edo ekintza haietan parte hartu edo moduren batera bizi izan zituzten protagonisten lekukotasuna eskura edukitzea, nahikoa al da hori guztia Saizarbitoriak eleberrigile errealista gisa bere buruari eskatzen diona betetzeko? Inondik ere ez. Berea ez da gertatu diren gauzak kontatzea, ezagutu eta behatu dituen pertsonaien larrutik egingo balu ere. Saizarbitoriarentzat, eleberrigintza moderno guztiaren "aita"tzat har daitekeen Flaubert-entzat[2] bezala, ez da hain garrantzitsua testuak islatzen duen sinesgarritasun maila nola testuari ematen zaion tratamendu formala. Dokumentazio eta informazio biltze lanak bigarren mailako ondare gisa funtzionatuko du haren eleberrigintzan. Handik aurrera, eleberria edo narrazioa bera da helburu, fikzioa, azken batean. Zehatzaren zehatzez aspertzeraino bildutako dokumentazio lan hori, errealitatearen gradu huts hori, tranpolin bat baizik ez da izango testuaren taxutze formalaren ahaleginean, non xehetasun txiki eta ezustekoenari jarriko zaion arreta arduratsuena, Vladimir Nabokov errealista handi hark gomendatzen zuen haritik ("xehetasunak laztandu").

Eta egileak helburu duen errealismo egiati hori ez da iristen "errealitateko" datuekin, haiek tranpolin gisa erabilita baizik, imajinazioari txanda pasatuz, alegia. Izan ere, aurrekoen familia berekoa den Julian Barnes errealista erosezinak esango lukeen eran, egiara iristeko ez da asmatzea baizik geratzen. Errealismoa fikzioak[3] birsortzen duen ilusio bat da, eta, simulazio horretan, irudimenaren zerbitzuko amarru bat da oroimena.

---

[2] Esan dezadan Flaubert-i buruz adierazitakoa ez dela inondik ere gehiegikeria bat. Flaubert-ek Polikarpo Eguna bere lagunekin ospatzen zuen eta egiaz zuen kutuna haren figura, zenbaitetan bere izenez sinatzeraino. Esmirnako gotzain eta martiri izan zen Polikarpo (69-169?) horrena zen adierazpen hau: "Ene Jainkoa! Ze mendetan –edo zein mundutan jaioarazi nauzu!". "Asaba zaharren baratza"ko protagonistaren izena ere Polikarpo da.

[3] Horra zer dioen Saizarbitoriak Hasier Etxeberriaren *Bost idazle* (Alberdania, 2002) liburuan: "Adibide bat jarriko dizut: nire lagun Mario Onaindiaren memoriena (*El precio de la libertad. Memorias 1948-1977*, Espasa, Madrid, 2001). Liburu hori argitaratu ostean, Jon Juaristik kritika egin zion eta honen antzeko zerbait idatzi zuen: "Ha perdido el novelista y ha ganado el ensayista".

Alde horretatik, Txomin Agirreren *Kresala* eleberriko "Arrain saltzailea" kapituluko Truman eta Brix emakumeen arteko elkarrizketa ez litzateke onartua izango hemen planteatzen ari garen errealismoaren kategorian. Hura folklore edo ohiturazko etnografia estanpa bat litzateke gehiago. Gauza bera esan genezake Orixeren *Euskaldunak* gogoetagai, haren errealismo kutsua defenditu nahian Paulo Iztuetak Azurmendiri ematen zion erantzunaz. Hala zioen Iztuetak *Orixe auzitan* (Utriusque Vasconiae, 2002) liburuan:

> "Joxeri (Azurmendiri), Altsasutik, Nafarroarekin mugan bizi izanda, arrotz egiten zaio Orixeren nekazal mundu hori. Nik, berriz, Joxeren adinekoa izaki, ahari-talkak, inauteriak eta gehiago ezagutu nituen Larrun aldetik Nafarroarekin muga egiten duen Berastegin." (110. or.)

Hango ahari-talkak eta inauteriak ezagutu ala ez, axola gutxi dio errealismoari, errealismoa, zerbait izatekotan, egoera mental bat baita. Mundu guztiak onartzen du elkarrizketetarako Hemingway-ren belarria aparta zela, eta hori egia da. Baina eguneroko bizitzan inork ez du hitz egiten Hemingwayren fikzioetako pertsonaiek hitz egiten duten moduan, ez behintzat idazle iparramerikarra irakurri baino lehen.

Beraz, gure errealismoa fikzioaren eta imajinazioaren emaitza da, eta fikzio horretan oroimena ere imajinazioaren zerbitzura dago. Beste egile errealista batek (David Lodge-k) esango lukeen bezala, artean errealtzat duguna eta bizitzan duguna ez da bat eta bera.

Eta nik ere uste dut Mariok kontatu nahi zuena kontatzeko, bere nobelagile luma erabili behar zuela eta ez saiogilearena.

Modu bakarra dago berak kontatu nahi zuena gertatu zenean bezala kontatzeko: fikzioa. Gertaerak historiagilea edo saiogilea balitz bezala kontatzen hasten denean, bere gaurko pentsamoldetik eta gaurko gorputzetik kontatzen ditu, eta, ondorioz, ez du egia esaten.

Nik ez diot sinesten pistola lehenbiziko aldiz eskuetan eduki zuenekoa kontatzen duenean. Kontuz! Ez dut esaten gezurretan ari denik, baina ezi diot sinetsi. Distantzia gehiegi dago, hori gaurko Mario Onaindiak kontatzen baitu, politikoak, saiogileak. Errealitate batera hurbiltzeko modurik bikainena fikzioa da". (256-257. or.)

"Gudari zaharraren gerra galdua" da oroimena eta beronen ordenamendu narratiboa egituratzen duten mekanismoetatik hurbilena: batetik, metrailak airean bota eta hanka galarazi zion arte frontean bizitzea suertatu zitzaion errealitatea marrazteko gudari zaharrak baliatzen dituen xehetasunen aukera itogarri eta arretatsua, eta bestetik, notarioaren logika orekatzaile eta abstraktua, honek Aipamenezko Notario-Agirira mugatzen baitu gertaeraren neurria, eta horretarako alferrik ditu xehetasunak. Horregatik eskatuko dio behin eta berriz protagonistari muga dadila gertatua kontatzera ("harira, harira"). Azken batean, barne esperientziaren "egia" gertaeren "egia" esklerotizatutik bereizten duen desadostasun sakonaren metaforatzat har liteke narrazio hori. Narrazioak protagonistaren errealitate intimo eta antiheroikoaren denbora irudikatzen du denen ustearen aurrean: gudariak ez zuen hanka galdu gerrako ekintza heroiko batean, utzikeria baten ondorioz baizik; kezkatuegi zegoen bere andregai Mireni gertatu ote zitzaionagatik, *Heinkel*ak metrailaz josten ari baitziren hura azken aldiz ikusi zuen lekua. Berriz ere, urrun gaude letra larrizko epikatik, urrun gaude heroikotasunaren estetikatik, nahiz eta gehienetan halakoak interesatu entzule eta irakurle arruntari.

3. Maila sinbolikoa

Bada beste elementu bat narrazio hau Saizarbitoriaren aurreko obrarekin modu berezi batean erlazionatzen duena, karga afektibo izugarria duen objektua eta *Hamaika pauso*ko oroimen narratiboa egituratzean lehen mailako zeregina izan duena. Jakina, protagonistaren erlojuaz ari naiz, orratzak lauak eta erdietan geldituta, kontakizuna zeharkatzen duen erloju zaharraz. Erloju horren ibilera autorearen lehenengo nobeletaraino doa (*Ehun metro* eta *Ene Jesus*), pertsonaia nagusiarekin batera ikusten ari baikara hilzorian dagoen aitaren eskuetatik objektu preziatua jasotzen duen unea. *Hamaika pauso*n beste eskualdatze batean murgilduta gaude, honako hau zorigaiztokoa: Iñaki Abaituak ETAko militante bati ematen dio berak aitarengandik jasotako erlojua. Une hartan "objetu hutsa baino gehiago zen zerbait betiko galtzen zuela iruditu zitzaion", eta aldi berean, "susmoa izan zuen momentu hartan abentura triste baten hasiera bizi zuela".

Izan ere, militanteari erlojua jarriz, protagonistak sinbolikoki ETAri ematen dio aita abertzalearengandik jasotako kapital etiko eta moral guztia, eta, horrez gainera, aita-autoritate berri bat ezartzen du, Ortiz de Zarate ETAko militantearengan gorpuztua betiere (hura da erlojuaren hartzailea). Azkenerako, hark protagonistarengan izango duen eragina zeharo irentsailea izango da: erlojuarekin hasiko da; geroago, Ortiz de Zarate protagonistaren etxera joango da bizitzera; etxe barruan, gelatik egongelara bidaliko du protagonista, eta ume bat bezala tratatuz, umiliatu egingo du; jakina, hark gustuko dituen emakumeak ere bereganatuko ditu. *Hamaika pauso*n erlojuarekin hasi zen abentura triste hark narrazio honetan du amaiera, orratzak lauak eta erdietan geldituta dituen erloju batean gertatzen baita oso-osorik.

3.1. *Nola baloratzen da nazionalismoaren ondarea (gerrakoengandik hona) Saizarbitoriaren narrazio hauetan*

Bai "Gudari zaharraren gerra galdua"n, bai "Asaba zaharren baratza"n, bietan gogoratzen zaigu EAJ hark ondorengoei utzitako kapital moral bikainena egon behar zuten lerroan egon edo defenditu behar zuten kausaren alde egin izana izan zela. Halaxe dio "Asaba zaharren baratza"n:

> Askotan aipatzen zuen gerra duintasunez galdu izateagatiko harrotasuna, eta niri hasieran gustagarri iruditzen zitzaidan, komikietan nahi izaten baitziren irabazten zutenak; baina laster ikasiko nuen bihotza galtzaileen taldera lerratzen. Galtzaile duinen taldera, noski; ez, irabaztea helburu, lortu ezinean galtzen dutenekin, baizik eta galtzaile izatea berez dagokienez, duin izateko galtzea beste erremediorik ez dutenekin. (414)

Baina segituan hartuko du hitza beste ahots zalantzatiago batek, esateko: "Kontua da merezi ote duen gerra galtzeko egitea." (414) Gauza bera "Gudari zaharraren..." narrazioan; galtzaileen arteko solasean ari direnean onartuko dute, bai, nola ez, gerra galdu izana: "...baina duintasuna ez genuen galdu". Eta horren ondoan, gure gudari zaharrari behin eta berriz burura etortzen zaion leloa hauxe da: "Sartu ez bagina, hobe."

Eta, jakina, garai hartako hainbat burukideren jarrera duinaren lekukotasuna aipatuko da behin eta berriz bi narrazioetan:

> Galtzailea ez da nahitaez koldarra; alderantziz, adoretsua izan daiteke oso, eta, berez, askotan hitz egiten zuen kuraia handia erakutsi zuten abertzaleez. Ajuriagerraz batez ere, zeinaren txofer izateko suertea izan zuen Bilbo erortzear zegoela. (414)

1937ko abuztuan Biarritzen italiarrekin adostutako erredentzioaren ondoren, kapitulazioa sinatu eta berehala, Donibane Lohitzunera joan zen Ajuriagerra (orduko BBBko Lehendakaria) Santanderreko ebakuazioa prestatzera. Honela jarraitzen du Mitxelenak:

> Ajuriaguerra, que estaba en San Juan de Luz arreglando el tema de los barcos, tomó un avión y se plantó en Laredo para quedarse. ...Al mismo tiempo, José Rezola, que no era del GBB pero sí Secretario de Defensa, decide por su propia iniciativa quedarse; como tú comprenderás, éstas son cosas que no ocurren con demasiada frecuencia. (Koldo Mitxelena, p. 98)

Zentzu berean mintzatu da duela gutxi José Luis Zubizarreta Jose Antonio Agirre lehendakariari buruz:

> Lideró la guerra con más voluntad que medios, aceptó la derrota con más dignidad que amargura, mantuvo alta la moral de sus compañeros de gobierno en un exilio tan prolongado como incierto, dio a conocer e hizo respetar en el mundo el nombre de los vascos y, quizá sobre todo, dejó, tras su prematura muerte, un recuerdo imborrable de ejemplaridad en lo político y en lo personal. Fue, para los vencidos, un referente de comportamiento democrático y, para todos, un hombre respetable.

Aipatzen ari garen izen horiengandik jasotako kapital morala zera da, gerra apenas zikindu gabe egin zela. Bai gerra garaian eta gerora ere, zenbat aldiz ez ote den aipatu gure gudariak arduratsuago agertzen zirela mojak eta apaizak babesten faxistak hiltzen baino. "Abertzaleek ez zutela hiltzen; alderantziz, bi-

zitza asko salbatutakoak zirela, batez ere gorriak garbitu nahi zituzten apaiz eta erlijiosoenak." (413) Edo "Gudari zaharra..."ren kasuan bezala, CNTkoei pistolaz aurre egiten Eibarko fabrikak erre ez zitzaten, nahiz eta faxisten esku geratu. Gauza bera Bilboko lantegi eta zubiekin. Izan ere, hori egin zutenak bertakoak ziren, eta bazekiten gerra amaitutakoan bertan bizi beharko zutela eta orduan fabrikak eta zubiak beharrezkoak izango zirela.

Alde horretatik, EAJko burukide haien giza balioen artean halako pragmatismo sendo bat zegoen, eta kristau-demokrazia haren baitan ez zen falta izan diziplinarik, ze beldurra hezurretaraino sarturik ere, ez ziren gudariak beste batzuk baino koldarrago ibili frontean, eta nekez gertatuko zen haien artean gorago "Gudari zaharra..."ko CNTko miliziano haien desertzio halakorik. Zeren eta, hau ere esan beharra dago, gerra hartan ez zen dena antolamendu eta diziplina eredugarria izan. [Ikus Inazio Mujikaren *Gerezi denbora* (1999).]

Bi narrazioetan nabarmen agertzen den beste giza balio nagusi bat, oso EAJ/PNV historikoarena izan dena, hauxe da, aberatsago edo pobreago izan, graduazioan gorago edo beherago egon, euskaldun gisa denok garela berdinak:

> Ume nintzenetik entzun izan nion euskaldunok, pobreak nahiz aberatsak, denok berdinak garela, eta uste horretakoa naiz neu ere: denok dugula, euskaldun garen aldetik, duintasun bera izateko kontzientzia, eta horri esker gurean ez direla ohikoak hor zehar klase desberdineko pertsonen artean izan ohi diren aldeak. Horregatik, amorrua eman zidan, eta nazka ere bai, historiaren orrietatik bere izena ezabatu zutela justifikatzeko, gizajoari azken finean bera txoferra baino ez zela aditu beharrak.

Ez dio beste ikuspegi demokratikori erantzuten Intxortako lubakien ardura izan zuen Beldarrain kapitainaren portaerak gudari gaur zahar orduan hemeretzi urteko gazte zauritu berri haren aurpegian ikusi zuen oinazearen aurrean:

> Aginte postura heldu zirenean ez zegoen anbulantziarik, eta lurrean utzi zuten berriro. Beraz, lurretik ikusi zuen Beldarrain, txapel higatua buruan, panazko jaka urdin eta bonbatxo ohikoez jantzita, bere inguruan jendea beste ofizial batzuekin hizketan.

> Haiek osatzen zuten biribiletik atera, eta une labur batez begiratu besterik ez omen zion egin. Oso ondo oroitzen zen horretaz, une hartan, haren begi tristeak begirik sakonarekin topo egin zuenean, hasi zitzaiolako –burdin goriaz errea bezala sentitzen zuen falta zuen berna– benetako oinazea. Beldarrainek aurpegian irakurri bide zion oinaze ikaragarri hura. Deus esan gabe, besoa altxatu UPHkoen lotura auto bat gelditu, bertan zihoan ofiziala jaitsiarazi eta, ondoren, zauritua Bilbora eramateko agindua eman zion txoferrari.

3.2. *Nazionalismo zaharretik ETAren protagonismora*

Intxortako gudari haien arrastoan etorri ziren ondorengoak. Hara nola lotzen dituen bi belaunaldiak J. Sarrionandiak:

> INTXORTAKOAK
>
> GOGORA ditzagun Intxorta aldeko gudariak,
> kainonazo eta fusileriaren artean
> heriotzaren ertzeko trintxerak eusten.
> hiltzen ikus ditzakegu oraindik,
> behelaino eta ke larrien artetik,
> edo harrigarriro gainbizitzen.
> Mendi magalak zaintzea suertatu zitzaien eta
> mendi magaletan geratu ziren,
> atzeruntz egin zuten, eta aurreruntz.
> Eta ez zuten ez atzera ez aurrera egin
> odolik eman gabe, lata herdoildutan,
> ur erioen bazterrean.
> Hildakoan bertan behera ehortzi zituzten
> zeozeren haziak bailiren.
> Erdu hona, laguna, eroritakoen lekura,
> jaso ditzagun haien harmak,
> bete ditzagun eroritakoen hutsuneak,
> defenda dezagun aspaldian galdutakoa.

Antoni Batistak (*Diario privado de la guerra vasca*, Bartzelona, Plaza y Janés, 1999), amaigabeko gerra eta epikaren ildoan kokatuz, hauxe idatzi zuen:

> Txabi Etxebarrieta y su compañero Iñaki Sarasketa reemprendieron la guerra justo donde la había dejado en 1937 el primer propietario de la pistola Astra del 7'65 que aquél llevaba. Mataron al guardia civil José Pardines. (1968ko ekainaren 7an)

Horregatik zioen Monzonek galdu ordez, irabazi egin genuela Gerra, gazteria gurekin zegoelako. Hara nola amaitzen den "Gudari zaharraren gerra galdua":

> Poliziak hala eskatuta, hedabideak Aszension gizon zahar baten gorpuaren aurkikuntza baizik aipatu ez zuten arren, laster zabaldu zen egiten ari zen zulo baten gainean aurkitu zutelako albiste gehigarria, eta, egun hartan bertan, eta hurrengoetan ere, jende asko bildu zen hara, gazteak batez ere, lur beltza zulatzera eta miatzera, zehazki zertarako ez zekiten arren, hark hasitako bilaketari jarraituz.

Baina belaunaldi gaztea ez zegoen zaharragoen esanetara jartzeko, bere aldetik aritzeko baino, 68ko belaunaldia gogoan Pasolini zinemagile eta poeta italiarrak idatzi zuen poema gogoangarri hartan iradoki zuen moduan gertatu ez bazen behintzat: "Belaunaldi dohakabea, desobedituz obeditu zenuen."

Ez du *Hamaika Pauso*ko protagonistak aurrekoen errespeturik sentituko Franco hil eta handik urte batzuetara "Vota, vota peneuve, gana Euskadi, ganas tú" lemapean Beizamako herrian lehen hauteskundeetarako boto bila zebiltzan jelkideentzako:

> Hemen gaude, Beizamako unibertsitatean... horrela dago idatzita Udaletxeko harrian. Universidad de Beizama. Universidad. Betidanik izan dira jakitunak beizamarrak, eta atzo bezala gaur ere, ongi dakite alea eta lastoa bereizten.

Iñaki Abaitua kotxe barrutik hura guztia entzuten ari zela, antolakuntza lanetan zebilen kaikudun bat hurbildu zitzaion "¿Qué andamos?" galdetuz, eta Iñaki Abaituaren erantzuna "Fuck you" izan zen. Eta jarraitzen du:

> Atseginez erantzun zion, erdi barrez, begietara so. Gizona nahasturik geratu zen. "Perdona" murmuriatuz, "pero no hablo euskera". Metalezko ikurriña baten distira zuen paparrean. "Hay que andar con cuidado, ya sabes cómo están las cosas.

Gudari zaharrari Intxortako gainean torniketea eginez bizia salbatu zion batailoiko kamillero eta *Hamaika Pauso*n psikiatra ospetsu izango den J. J. Lasarekin hitz aspertu luzeak izango ditu Iñaki Abaituak, *Hamaika Pauso*ko protagonista malenkoniatsuak, eta luze hitz egingo dute gerrate ondorengo gartzelaldi eta fusilamenduen oroimen tristeekin betiko itsatsita geratu zen Anjel Otaegi (*Hamaika Pauso*ko Daniel Zabalegi) hartaz. "Gudari zaharraren... " narrazioan gogorarazten zaigun bezala, Burgosen, frankismoaren feudorik harroenean fusilatu zuten hartaz ari dira hitz egiten. Haren fusilamendua honako hitz hauekin jasotzen du narratzaileak:

> "Bakarrik hil zen, gizajoa", esan zuen ordea. Eta zergatik ez jakin arren, bazekien "alferrik hil zen" esan nahi zuela.

Artean bizirik jarraitzen baitzuten Gerra Zibilaren garaileen erakustaldiak.

Ordurako, *Hamaika Pauso*ko protagonista galtzaileen lerroan zegoen bera ere, "baboen" artean. Trintxerako soldadu gajoak babo batzuk ziren ofizialentzako ["Gogoan zuen oraindik trintxera gainean, tiroa jaso baino bi minutu lehenago, inongo arretarik gabe Loxetara (Mirenen baserrira) so zegoela, tenienteak egin zion oihua: 'jaits hadi, babo hori'"]; bere ETAko burukideari (Zigorri) metxeroa ahaztu zitzaiola eta, Daniel Zabalegik haren kotxeari atzetik jarraituz Bic laranja kolorekoa eman zioenean ere "babo galanta" esan zuen Ortiz de Zaratek; eta Iñaki Abaituak goizeko ordu txikitan Juliari deitu eta telefonoaren bestaldetik erantzun zion gizonezko ahotsak ere horixe bera zioen: "Hi, babo alaena".

"Pour les blesures d'amour et de guerre" esanez hartuko du Iñaki Abaituak *Hamaika Pauso*ko azken kapituluan autoinmolaziorako bidea.

4. "Asaba zaharren baratza"ren amaiera

Itzul gaitezen berriz *Gorde nazazu lurpean* liburuko bi narrazioetara, bereziki bigarrenera, gure asabengandik datozkigun ahots eta borroketara. Tonu ironiko eta jostaria duen azken kontakizun horrek amaiera ezusteko eta ikaragarri iradokitzailea du: protagonistek atzean uzten dute Sukarrieta eta Barrika pareraino doaz itsasoz, eta han behin betiko utziko dituzte "aita" fundatzailearen hilobitik ateratako azken gorpuzkinak. Berrogeita hamar urtetik gora baziren jaiera handiz gordeak zituztela hezurtxo-erlikia batzuk, eta Sukarrietako uretara betiko bota behar izan zituzten azkenean, izan ere, ez baita kasualitate hutsa hura izatea Aranatar anaiek ikurriña sortzeko inspirazio iturri izan zuten lekua. Han datzate, mende erdiko atzerapenez, historia luze baten azken hondarrek. Nobelako pertsonaientzat, nazionalismo, erlijio eta malenkoniazko ehun urteri agur esatea da hori. Arbasoen ahotsekin izango du hemen Saizarbitoriak bere kontu-garbitze partikularra, Joyce-k bere *Dubliners* hartan bereekin izandakoaren oihartzun gisa ere irakur daitekeena, hori bai, han tragikoa dena hemen ironikoagoa eta jostariagoa da, azken batean, askatzaileagoa. Aurrerantzean, protagonistak bere neskalagun berria izango du aberri bakarra ("zu zara nire aberria"), alegia, ez Sabino Arana eta ez hark ordezkatu zuen guztia, ez aberri galdua eta ez haren mina, "zu" ukigarria eta erreala baizik. Sabino eta Sabine, arima bikiak, Sukarrietako esparru paradisiakotik alde egin eta, Adan eta Evaren imitazioz, han doaz, nostalgiarik gabe eta urrats deliberatuz, biharrerantz. Sinbolikoki, agur luzeak iraganaren oroimenetik arindutako etorkizuna iradokitzen du, modu ikaragarrian markatu baitu hark protagonistaren bizitza. Azken batean, gure arbasoen munduari esaten zaio agur. Bi narrazio horiek egilearen mundu literarioko gai errepikatuenetako batzuk biltzen dituzte, alegia, Gerra Zibila, nazionalismoa eta aitarekiko harremana.

Halaber, lan hau GIC 10/100 eta TIT 495/10 Ikerketa Taldearen proiektuaren zati da, UPV/EHUk eta Eusko Jarlaritzak diruz lagundua.

Bibliografia

AIZPURU, Mikel, "Modelos de movilización y lugares de la memoria en el nacionalismo vasco. Los límites de una cultura política" in *El nacionalismo vasco: mitos, conmemoraciones y lugares de la memoria*, Historia y Política 15, 2006.

BATISTA, A., *Diario privado de la guerra vasca*, Bartzelona, Plaza y Janés, 1999.

IBARZABAL, Eugenio, *Koldo Mitxelena*, Donostia, Erein, 2001.

JUARISTI, Jon, *El bucle melancólico*, Madrid, Espasa, 1997.

JUARISTI, Jon, *Sacra némesis. Nuevas historias de nacionalistas vascos*. Madrid, Espasa, 1999.

MITXELENA, Koldo, "En torno a Monzón", Donostia, *Muga* 2, 1979.

SAIZARBITORIA, Ramon, *Gorde nazazu lurpean*, Donostia, Erein, 2000.

La terminologie au Canada Histoire d'une profession

JEAN DELISLE
Linguatech éditeur inc.
Montréal (Québec)
2008
ISBN: 978-2-920342-56-9
468 or.

URRUTIA BADIOLA, Andres
Notarioa. Euskaltzainburua
Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakaslea

Euskera. 2009, 54, 2-2. zatia, 1149-1161. Bilbo
ISSN 0210-1564

Hizkuntzalaritzaren barruan azken urte hauetan izan diren berrikuntzen artean, beharbada nabarienetarikoa dugu terminologiaren plazaratzea. Izan ere, hizkuntza guztietan, txiki nahiz handi, terminologia, hitza eta esanahia zabal dabiltza. Areago, hizkuntza txikietan, terminologia egitea da euren normalizazio eta normatibizazioaren seinale dudarik gabekoa.

Idatzi ere, franko idatzi da horren gainean, eta, zer esanik ez, terminologiaren inguruko ikergune bereziak ere sortu dira. Zientzia-mota desberdinak, teknikaren agerpenak... oro dira terminologiaren beharrean; guztiek ere haren premia dute.

Terminologia bera ere, neurri batean bederen, aspaldiko lexikografiaren zereginak ere baitaratu ditu, bi-biak nahas-mahasean ez badira ere.

Horrexegatik da egoki, garai honetan, terminologiaren aitzindari diren horien berri izatea, hain zuzen ere, horien artean aritutako terminologo baten eskutik. Herria Kanada da, eta egilea, Jean Delisle, terminologo eta itzultzaile, alegia, lekuko lehenetsia, terminologoaren lanbidea nola sortu zen eta nola garatu den azaltzeko.

Alain Rey sona handiko lexikografoaren atarikoa irakurri ondoren, egileak berak eskaintzen digu lehen-leheneko galderaren erantzuna: zer da terminologia? Haren erantzuna zehatza da:

> *Un terminologue? C'est le langagier que nous rappelle l'importance de bien nommer les choses. Il nous facilite la description et la compréhension du monde. Bien nommer un objet, c'est aussi un peu se l'approprier. Un terminologue, au fond, c'est quelqu'un qui refuse de contribuer au malheur du monde.* (XXXVI. or.)

Sarreratik abiatuta, Kanadako premia linguistikoak eta hango elebitasunak. Egileak horretarako eragile izan diren faktoreak hartzen ditu kontuan:

> *La période qui s'étend de 1902, année de la publication de la première étude terminologique, jusqu'à 1970 est marquée par une intensification des besoins terminologiques en langue spécialisée sous l'effet conjugué de plusieurs facteurs: l'essor de l'industrialisation, l'éveil scien-*

tifique des Canadiens français – l'Association canadienne-française pour l'avancement des sciences (ACFAS) date de 1923 –, les progrès technoscientifiques, la Révolution tranquille des années 1960, les besoins grandissants des traducteurs aux prises avec des textes de plus en plus spécialisés et l'organisation de la traduction en tant que profession. Nombreux sont les lexicographes, journalistes, professeurs, traducteurs et autres langagiers qui, durant ces années de lutte pour la reconnaissance du français, ont constitué des fichiers personnels, parfois considérables.

Le grand réveil terminologique se produit au tournant des années 1970 dans le sillage de l'adoption de lois à caractère linguistique à Ottawa, Fredericton et Québec. Il se caractérise par un bouillonnement d'idées, une grande créativité et des initiatives originales sans précédent. Le paysage langagier canadien se transforme et s'enrichit d'une nouvelle profession: la terminologie. (1.or.)

Peu à peu, la fonction terminologique, assumée jusque-là principalement par les traducteurs, se dissocie de la fonction traduction. Les services linguistiques et terminologiques se multiplient tant dans le secteur privé que dans les administrations publiques. La réflexion sur les principes et la méthode de recherche en terminologie s'intensifie à la faveur des nombreux colloques qui se succèdent à une cadence accélérée. La terminologie se dote d'assises théoriques, définit sa méthodologie et, ce faisant, se hisse au rang de discipline. On assiste au début de l'enseignement universitaire, à la structuration accrue de la profession et aux premiers efforts de reconnaissance professionnelle, à l'apparition des premier manuels, à la création d'organisme de terminologie et à leur réseautage national et international, à l'informatisation des tâches du terminologue, à l'aménagement de son poste de travail, au foisonnement de effort d'uniformisation et de normalisation des terminologies et, plus récemment, à l'élargissement des chantiers terminologiques à des langues autres que le français, l'anglais, dont l'espagnol, le portugais et l'inuktitut. (2. or.)

Egileak, era berean, lanaren mugak ezartzen ditu, Kanadako terminologiari buruz:

> *Nous avons choisi comme dates limites de notre étude 1902 et 2008. L'année 1902 est celle de la publication de la toute première recherche terminologique réalisée au pays, œuvre du juriste et traducteur Joseph-Évariste Prince. Cette étude est parue à Québec dans le* Bulletin du parler français au Canada. *Quant à l'année 2008, elle est particulièrement riche en anniversaires. Les anniversaires nous rappellent l'importance de la durée et l'effet du temps sur nos réalisations. Cette année coïncide, en effet, avec le quarantième anniversaire de la revue* L'Actualité terminologique *(aujourd'hui* L'Actualité langagière*), le trente-cinquième anniversaire de la Banque de terminologie du Québec (aujourd'hui* Le grand dictionnaire terminologique*), le trentième anniversaire de fondation de la Section des terminologues, le trentième anniversaire de la Commission de terminologie de l'Office de la langue française (aujourd'hui le Comité d'officialisation linguistique) et le trentième anniversaire de la publication du* Manuel pratique de terminologie *de Robert Dubuc, premier manuel consacré à l'enseignement de cette matière dans les universités.* (3.or.)

Lehen kapituluan, Delislek luze eta zabal papereratzen du terminologiaren hasiera Kanadan, ekimen desberdinetatik hasita. Hainbatez, ingelesetik frantsesera doan bide horretan, haren hitzak esanguratsu dira oso:

> *Face au déferlement des anglicismes, mots techniques et néologismes d'origine anglaise, les traducteurs-terminologues de la fin du XIX^e^ siècle et de la première moitié du XX^e^ ont formé une phalange d'élite qui a su, par des initiatives personnelles, opposer une résistance systématique aux anglicismes abusifs afin d'éviter que la langue française en soit bariolée et dénaturée. L'activité terminologique, qui prend naissance en même temps que cet effort collectif de refrancisation de la langue écrite et parlée au Canada français, n'est régie par aucune règle et est laissée à l'initiative des traducteurs, enseignants, typographes ou amateurs de bon langage.* (42.or.)

Bigarren kapituluan, aldiz, XX. mendean Quebec-eko hirurogeigarren urteek eragin zuten aldaketa sakona gogoratzen digu. Bide beretik, hizkuntzaren legeria, enpresetan frantsesa sartzea eta arloan-arloan lan egin beharrak ekarri zuen, besteak beste, terminologiaren ezartzea, mundu berri horretan frantsesa garatzeko. Hizperrien munduak eta hiztegi berezien agerpenak ekarri zituzten, besteak beste, terminologia eta normalizazio batzordeak sortzea, eta *Office de la Langue Française* haztea eta haztea.

Gako-hitza *aménagement linguistique* deiturikoa da:

> *Les terminologues, issus pour la plupart du territoire de la traduction, en sont venus eux aussi, à la faveur de l'aménagement linguistique, à se délimiter un champ d'action propre et à se donner un territoire distinct, à consolider leur identité professionnelle. Et ce sont toutes les professions langagières qui en ont profité, car du jeu des complémentarités de compétences (traducteurs, rédacteurs techniques, terminologues, spécialistes) ont résulté des enrichissements réciproques, des maillages féconds, des collaborations fertiles. Les frontières de la terminologie sont toujours restées ouvertes.*
>
> *On ne conçoit pas l'application de la politique linguistique du Québec sans les terminologues.* (91.or.)
>
> *L'Office québécois de la langue française a joué le double rôle de catalyseur et d'animateur auprès des producteurs de terminologie, et a centralisé et diffusé leurs productions. Ses présidents et présidentes, guidés para les politiques linguistiques du gouvernement du Québec, ont su lui donner l'impulsion qu'il fallait au moment opportun, tandis que ses directeurs et directrices du volet linguistique et terminologique ont, pour leur part, traduit ces politiques dans des réalisations concrètes, comme la production de vocabulaires, la conception d'aides à la rédaction ou la mise sur pied d'une banque de terminologie.* (92. or.)

Hirugarren kapituluan, terminologiaren zereginak ikuskatzen dira itzulpenaren begietatik. Itzultze-beharretatik jaso eta elebitasunak ekarri du, Kanada

aldera, lexiko eta hiztegi elebidunetatik harago joatea, nola antolakuntzaren arlotik, hala argitalpen terminologikoen partetik.

Hartara, kapitulu horrek ematen du azalpen xehe-xehea, hizkuntza-legeriatik hasi eta XX. mendeko bigarren erdian eman diren urratsak, hasi 1952. urtean, terminologiaren lehen zerbitzua sortu zenetik, gaurko egoeran bukatu arte.

Tartean, Rondeau irakaslearen txostena (1974) eta *Direction générale de la terminologie et de la documentation* (DGTD) (1976). Antolakuntza berria, estrategia berria. Ideia berriak ere gizarteratzen dira terminologiaren inguruan:

> *La terminologie doit s'affranchir de la traduction.*
>
> *La terminologie doit contribuer plus directement à la promotion de l'usage des langues officielles dans l'Administration fédérale.*
>
> *La terminologie doit s'orienter vers l'avenir en s'intégrant davantage aux autres disciplines liées à la communication surtout dans les domaines scientifique et technique (Saint-Martin, 1987, p. XVII).* (118. or.)

Horra, lehen-lehenik, itzulpenerako laguntzaileak, tresna egokiak (*Juridictionnaire, Dictionnaire des cooccurrences...*); hurrenik, datu-base terminologikoak (*TERMIUM*); eta, azkenik, argitalpen terminologikoak (*L'Actualité terminologique, Language Update*).

Hitz laburretan esateko:

> *Le bilinguisme officiel, c'est la coexistence de deux langues sur un même territoire. Mais avant d'habiter un pays, on habite une langue. Par leur travail quotidien, les terminologues du courant traductionnel apportent une aide précieuse aux traducteurs et aux rédacteurs et, ce faisant, contribuent à garder ouvertes et sûres les voies de la communication interlinguistique.* (150. or.)

Laugarren kapitulura biltzen dira terminologiaren ezaugarriak, lanbideari dagokionez. Lanbide berria; errentagarritasuna, askorentzat, zalantzazkoa:

Du point de vue de l'organisation de la profession, l'évolution de la terminologie au Canada a suivi grosso modo *les étapes suivantes: jusqu'à la fin des années 1960, la recherche terminologique est une activité qui accompagne la* pratique de la traduction. *Puis, on assiste à la reconnaissance de la terminologie en tant qu'*activité autonome *pouvant s'exercer indépendamment de la traduction ou au service de la traduction á partir du début des années 1970, sans pour autant que les traducteurs abandonnent toute recherche terminologique, cela va de soi. Il suffit de penser aux travaux de francisation des terminologues de l'OLF, dont il a été question au chapitre II. Les terminologues étant devenus assez nombreux, on songe tout naturellement à un* regroupement associatif, *ce qui donne lieu, en 1978, à la création de la Section des terminologues au sein de la STQ. L'étape suivante a consisté à faire reconnaître la* profession *de terminologue par le législateur, au même titre que d'autres professions langagières, comme la traduction et l'interprétation de conférence. À la reconnaissance* interne *(les professions langagières) a suivi la reconnaissance* externe *(les autres professions et le public) Cela a été réalisé en Ontario et au Nouveau-Brunswick en 1989, puis au Québec en 1992. Enfin, depuis le début des années 2000, le besoin s'est fait sentir de redynamiser la profession en multipliant les initiatives visant à lui donner plus de* visibilité *et, surtout, à prouver sa* rentabilité, *à la fois dans les secteurs public et privé. Il faut sans cesse faire la preuve que «dans le contexte nord-américain et québécois, la terminologie figure au rang des investissements absolument nécessaires pour accompagner l'innovation technologique» (Fortin, 1998b, p. 27).* (166. eta 167 orr.)

*La problématique de la raison d'être et de la rentabilité de la terminologie se pose donc différemment dans les entreprises privées et les organismes publics. Mais, dans l'un et l'autre de ces secteurs, les cadres seront toujours réticents à consentir des crédits pour la recherche terminologique, car ses effets, bien que réels, ne s font sentir qu'*à long terme *et sont difficiles à* comptabiliser. *Les terminologues devront impérativement tâcher de trouver le moyen de briser cette double entrave qui gêne le développement de leur profession. Sa survie en dépend.* (168. or.)

Bosgarren kapituluan agerikoak zaizkigu terminologiaren teoria, metodoa eta terminologiaren gaiak. Biltzarrak, mintegiak, metodologiak... oro dira, zalantzarik gabe, diziplina jaioberri baten tresnak. Horrexegatik, terminologia bera ere maila nazionaletik nazioarteko mailara joan da, munduan zehar gertatu direnak hurrenez hurren ematen direla.

Terminologiak berak ere bere hiztegia sortu du, dokumentazioarekin batera. Ezin bazterrean utzi, orobat, terminologiaren eta hizkuntzaren industriak, ikerketaren ildo berriak ekarri dituztenak.

Terminologiaren laburpena, Kanadan behintzat, honetara dator:

> *L'intense réflexion sur la terminologie et les nombreux projets réalisés dans ce domaine depuis le début des années 1970 ont permis aux terminologues canadiens de dresser la carte d'un territoire jusqu'alors très peu exploré. Au cours de ces années fébriles, la terminologie a été une terre fertile en innovations de toutes sortes: théoriques, méthodologiques, pédagogiques, documentaires et informatiques. Toutes les formes de recherche ont été pratiquées et de nouveaux courants théoriques, la socioterminologie par exemple, ont vu le jour. Le double courant aménagiste et traductionnel a été à l'origine de travaux inédits et d'innovations telles que le poste de travail du terminologue et de nombreuses aides à la terminologie.*
>
> *Ce qui a été et est encore l'une des caractéristiques les plus marquantes de la terminologie au Canada est l'esprit de collaboration qui unit terminologues, linguistes, traducteurs, chercheurs et gestionnaires, qu'ils travaillent dans des organismes publics, des entreprises privées, des instituts de recherche ou des universités. L'apport de chacun est pris en compte. L'apport de chacun est pris en compte.* (209. or.).
>
> *Les terminographes eux-mêmes ont découvert l'utilité des corpus bilingues, qu'il s'agisse de* bitextes *(textes alignés) ou de* corpus comparables *(textes rédigés dans des langues différents, mais ayant une thématique commune). «L'utilisation des corpus comparables est plus compatible aves les principes méthodologiques de la terminographie, qui tente d'éviter les traductions» (L'Homme, 2002, p. 9).*

> *En somme, ce qui apparaissait, il y une quinzaine d'années, comme un «horizon idyllique» (Auger, 1991, p. 677) est aujourd'hui réalité. Les progrès fulgurants réalisés en informatique ont fait évoluer la terminologie à un rythme accéléré. Sous la poussée de la terminotique, cette profession a connu une mutation profonde en l'espace de quelques décennies. Sans cette avancée, les banques de terminologie, ces fleurons de la recherche appliquée en terminologie, n'existeraient pas. Le chapitre suivant leur est entièrement consacré.* (210. or.)

Azken bi kapituluak dira, zein bere baitan, terminologiaren bankuak eta eskuliburuak biltzen dituztenak.

Bankuei dagokienez, hitzak argigarri dira oso:

> *Les deux grandes banques, qui coexistent en harmonie à cinq cents kilomètres l'une de l'autre, le GDT et TERMIUN, présentent plus d'un point en commun. En y regardant de près, on constate, en effet, que l'une et l'autre renferment une terminologie bilingue (anglais-français), que leur fonds terminologique s'élève à plus de trois millions de termes, qu'elles sont interrogeables à partir de l'anglais ou du français, qu'elles offrent en ligne des lexiques, des vocabulaires, de liens utiles, des chroniques de langue, des répertoires d'appellations officielles et des avis linguistiques et terminologiques. Toutes des deux possèdent un important volet d'aide à la rédaction, un impressionnant inventaire documentaire et accordent une grande place à la néologie, tant en langue générale qu'en langue spécialisée. Elles sont, enfin, l'une et l'autre accessibles dans Internet et tendent petit à petit vers le multilinguisme. On ne saurait donc nier que ces banques sont jumelles, bien qu'elles se soient développées séparément. Pouvait-il en être autrement, puisque, dans les deux cas, ce sont les besoins des usagers qui ont dicté leur création et leur évolution? Ces deux banques ont été soumises aux mêmes facteurs déterminants de la triple conjoncture sociolinguistique, sociopolitique et socioéconomique en contexte canadien.* (266.eta 267. orr.)

Hala ere,

La grande banque «une et universelle» *(Vennat, 1974, p. 38) semble un concept révolu. C'est la conclusion à laquelle était arrivé, il y a plus de vingt ans déjà, André Saint-Martin dans son étude sur l'activité terminologique au gouvernement fédéral: «La banque de terminologie centralisée n'a plus sa raison d'être dans sa forme actuelle, écrivait-il, et il faut davantage songer au développement de minibanques, qui apparaissent d'ailleurs déjà comme la voie de l'avenir» (Saint-Martin, 1987, p 221). L'auteur ne s'est pas trompe. Les minibanques répondent à des besoins très ciblés et elles se sont effectivement multipliées. Faut-il pour autant que les grandes banques se sabordent? Pour éviter la babélisation des terminologies, les gestionnaires des banques publiques ne devront-ils pas plutôt chercher à réunir en réseaux toutes ces minibanques ou tout au moins la partie de leur contenu pouvant être rendue publique? Le monde de la terminologie ne risque-t-il pas, sinon, de revivre l'époque des fichiers personnels jalousement gardés sous clé, avec tous les inconvénients que cette pratique comporte? Le réseautage des organismes et services de terminologie a été orchestré dans les années 1970, celui des minibanques semble bien être le défi des années 2000. Les grandes banques de l'avenir prendront-elles la forme d'une constellation de minibanques intégrées? L'avenir le dira.* (268 eta 269. orr.).

Eskuliburuak, bide beretik:

Du point de vue de la formation, la terminologie a dépassé le stade des rudiments. Il reste, toutefois, à diversifier les formations en fonction des publics. Un programme d'études complet et pluridisciplinaire en terminologie relève-t-il de l'utopie? De toute façon, «quel que soit le diplôme obtenu, c'est la passion du sujet qui fait la différence», comme le pense un des pionniers de la terminologie au Québec, Frédéric Phaneuf (interview). Cette différence est perceptible chez les terminologies d'ici: ils ont la passion de leur métier et de l'enthousiasme à revendre. C'est peut-être parce que des maîtres-professeurs ont su leur inculquer cette passion et cet enthousiasme à l'université. (285. or.)

Arreta berezia merezi du liburuaren VIII. kapituluak, euskara juridikoaren baitan ari garenontzat. Titulua bera dago esanahiz beteta: *Réseaux d'entraide et terminologie juridique.* Arean ere, arlo batzuen terminologia arakatu ostean (hezkuntza, osasuna) beren-beregi sartzen da Delisle terminologia juridikoaren esparruan, Kanadaren historian zehar. Joseph-Évariste Prince (1852-1923) aitzindaria gogora ekarri eta azpimarratu egiten du 1937. urtearen aurrean ez zirela Kanadan hiztegi juridiko elebidunak. Urte horretan, Annie Langstaff emakumeak argitaratu zuen *French-English, English-French Law Dictionary***.**

Kanadaren elebitasun ofizialak, eta *Common Law* eta *Droit Civil* bi sistema juridikoen arteko bizikidetasunak ekarri dituzte halako espezialista berriak; iurilinguistak, terminologi-juristak eta terminologia juridikoa. Bide beretik, terminologia juridikoak, terminologia arruntaren aldamenean, aintzakotzat hartu behar ditu, aldi berean, ikusalde linguistikoa eta juridikoa, termino jakin baten gainean.

Antolakuntzaren aldetik, *Le Centre de traduction et de terminologie juridiques (CTTJ) de la Faculté de droit de l'Université de Moncton* deiturikoak egiten du lan neketsua, *depuis près de trente ans à la francisation de la commom law* (310. or.). Haren lanabes nagusia *Juriterm Plus* deiturikoa da, egun sarearen bidez eskaintzen dena (www.cttj.ca/info_**juriterm**.html).

Delisleren esamoldeak erabiltzeko:

> *L'expertise canadienne en matière de terminologie juridique est reconnue internationalement. Le traducteur Wallace Schwavb, spécialisé en droit et dans les assurances et auteur de plusieurs lexiques bilingues, voit dans la terminologie juridique, en particulier dans le vocabulaire anglais de* Code civil du Québec *et le vocabulaire français de la common law «un trésor national qui place le Canada vingt ans en avance sur l'Union européenne en matière de bijuridisme» (interview).* (316. or.)

Ondorioak ere, ez nolanahikoak, lanbidez zein diziplinaz:

> *Plus qu'un artisanat, plus qu'un métier, plus qu'une technique, plus qu'un art ou une science, la terminologie est d'abord et avant*

> *tout une activité intellectuelle axée sur la communication. Et on peut dire qu'elle a aujourd'hui atteint sa maturité. Elle est assez jeune pour ne pas oublier son âge, assez vieille pour avoir un passé et des souvenirs qu'on évoque avec nostalgie. En tant que profession et discipline, la terminologie n'est pas une spécialité propre au Canada, mais le niveau d'excellence qu'elle y a atteint suscite l'admiration.* (317. or.).

Gizartearen aldetik,

> *Tout comme la langue, la terminologie est au pays un facteur important de cohésion sociale; elle est indispensable à la fois à la réalisation de l'ambitieux programme d'aménagement linguistique du Québec et à l'application des politiques de bilinguisme du gouvernement fédéral.* (317. or.).

> *La terminologie est, en effet, indispensable et présente même un caractère d'urgence, contrairement à la traduction littéraire, par exemple, qui est tout autant indispensable, mais qui n'a pas de caractère d'urgence. Il en est ainsi car une langue minoritaire, comme le français en Amérique du Nord, est toujours en état de siège. Dans la résistance à l'anglicisation, les traducteurs et les terminologues forment une armée de francs-tireurs, un corps d'élite. Le traducteur Wallace Schwab va même jusqu'à affirmer que, d'un point de vue historique, «la terminologie a été la bouée de sauvetage du français au Québec» (interview).* (318. or.).

Elkarrekin lan egitearen ikuspegitik,

> *Ce qui a permis à la terminologie de prendre une véritable place au pays et de se développer rapidement de manière cohérente et «équilibrée», c'est-à-dire en maintenant une juste part entre la réflexion théorique et les applications pratiques, c'est le formidable esprit de collaboration qui a su s'établir entre les représentants des grands organismes publics (OQLF et BT), des entreprises privées, des universités et des associations de traducteurs. Ce sont des hommes et des femmes d'action qui écrivent l'histoire et il en va de même pour les professions, la terminologie ne faisant pas exception à la règle. Cet ouvrage rend*

> *aussi témoignage à tous ceux et celles qui, à dives titres, ont bâti cette profession née des exigences des sociétés modernes québécois et canadienne.* (319. or.).

Delislek, azkenean, halako formulazio sendoak egiten ditu, hizkuntzaren geroa jokoan jartzen dutenak:

> *Nous avons cependant acquis la ferme conviction que, à l'instar des écrivains et des poètes, les terminologues ont le pouvoir d'agir sur la langue, d'y apposer leur marque, de la ciseler et d'y sertir à l'occasion des néologismes de bonne facture. Et ils font preuve de la même discrétion que les poètes.* (321. or.).

Liburua osatzeko, bi eranskin eder: lehena, Kanadako terminologorik irtenenak aurkezten dizkiguna, eta, bigarrena, dataz data, hurrenkera argigarrian, Kanadako terminologiaren data nabarienak biltzen dituena (1902-2008).

Jarraian datorren bibliografia ere ezin alboratuzkoa, honelako gorabeheretan ari direnentzat.

Ikasgai paregabea euskaldunontzat ere, gure terminologiaren aurrerakuntzak eta ajeak, gurean ez ezik, kanpokoekin haztatu eta neurtzen ditugunean.

Kanadan aspaldi ulertu zuten terminologia ezinbestekoa zutela frantses hizkuntzaren garatzea bermatzeko eta elebitasun ofizial tinko baten adierazle izateko.

Horren ondorioz, gurean sarritan bide malkartsua izan denak badu zer ikasi Kanadaren eskarmentutik.

Ideologies across Nations
The Construction of Linguistic Minorities at the United Nations

ALEXANDRE DUCHÊNE
Language, Power and Social Process, 23.
Mouton de Gruyter
Berlin - New York
2008
ISBN: 978-3-11-020583-1 (hb)
ISBN: 978-3-11-020584-8 (pb)
282 or.

URRUTIA BADIOLA, Andres
Notarioa. Euskaltzainburua
Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakaslea

Euskera. 2009, 54, 2-2. zatia, 1163-1167. Bilbo
ISSN 0210-1564

Zer-nolako estatusa dute egun hizkuntza gutxituek? Askoren galdera horri erantzuna emateko, egileak ahalegin biziak egiten ditu sei kapitulutan zehar, Nazio Batuen testuak direla.

Jakina denez, Nazio Batuek badute, nazioarteko erakunde izanik, halako garabidea eta urratsez urratseko historia, kontzeptu hori formulatzeko orduan.

Hartara, proposatzen zaigun eskemaren lehen partea bi ataletan banatzen da, eta bi atal horiek barruan hartzen dituzte, nola nazioarteko erakundeen sorrera (bigarren kapitulua), hala erakunde horiek sortzen dituzten agiriak, hain zuzen ere, erakunde horien diskurtsoa (eta ideologia) mamitzen duten dutenak (hirugarren kapitulua).

Duchêneren hitzetan esateko:

> *The* first section *seeks to understand how the spaces of organizational architecture within the institution are constructed, and how the discourses produced in these spaces are subject to the various kinds of constraints that occur in the reproduction of institutional ideologies. The objective of the first section is threefold* (40. or.).

Bigarren partean, aldiz, egileak aztertzen ditu, xehe-xehe, Nazio Batuen barruan hizkuntza gutxituen babeserako tresnak. Horietan, zer esanik ez, nazioarteko tresnak dira nagusi, lege-testuak, erakundeak berak sortuak.

Hori erakusteko, Duchênek hurrenkera kronologikoan aurkezten dizkigu testu horiek, euren instituzio-, diskurtso- eta ideologia-funtsa erakutsiz. Orobat, kronologiak ahalbidetzen dio, besteak beste, diskurtso horien etenak eta jarraitutasunak azaltzea, eta horren sakoneran dauden interesak ere adieraztea.

Hiru kapitulu ditu bigarren parte horrek. Lehen-lehena, liburuaren laugarrena, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala da. Horretan datza, etzan ere, adierazpen horren balioa, beraren hutsuneak baitira erakuslerik nabarienak, kasurako, jarraikoenak:

> *... both a fear with regard to minorities, and a search for the legiti - mization of existing state practices that, connected with the relations of*

> *the prevailing powers, determine the lack of inclusion of minorities in the context of the Universal Declaration of Human Rights* (42. or.).

Bigarrenak Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna ikertzen du (bosgarren kapitulua). Egileak hala esanda:

> *... I demonstrate how the presence of minorities is made possible by a renunciation of universality in the matter and, because of this, by the possibility for states to recognize the rights of minorities while at the same time diminishing their bearing. I then argue that, while the renunciation of universality, as far as minorities are concerned, is fully set in place through this article and, through the Covenant, particularity opens the way to disengagement or lack of commitment* (42. or.).

Hirugarrenak (seigarren kapitulua) barneratzen du Nazio- nahiz Etnia-, Erlijio- eta Hizkuntza-Gutxiengoetako Pertsonen Eskubideei buruzko Adierazpena, Ondorioak ere bide beretik datoz:

Juan Mateo Zabalak lan hori ezagutu zuen eta ondoren argitaraturiko hiru aldiz gehiago zerrendatu eta deskribatu zituen, guztira 55, izenburu honekin: *Noticia de las Obras Vascongadas que han salido a la luz después de las que cuenta el P. Larramendi*.

Liburuska hau 1856an argitara eman zuen Luis Luciano Bonaparte printzeak, eta horregatik uste nuen Zabala ez zela bigarren bibliografoa, hirugarrena baizik. Kasu horretan bigarrena Jose Francisco Aizkibel zitekeen, 1833koa baita bere eskuizkribua. Jose Antonio Aranaren lanean ikusi dut, ordea, aurrekoa dela Zabalarena: izan ere 1828an bidali zion zerrenda Lecluseri Aita Zabalak. Jose Antonio Aranak Zabalaren eskuizkribua bera aztertu du.

Juan Mateo Zabalaren ondoren Jose Antonio Aranak Anton Abadia, Dionisio Hidalgo, Pierquin de Gembloux, Francisque Michel aipatzen ditu, eta geroagoko Allendesalazar, Vinson, Soraluze, Sorarrain eta beste.

Badira bi autore oraintsu arte bibliografo moduan ezezagunak: Jose Francisco Aizkibel (1798-1864) eta Jose Ignacio Arana (1838-1896), biak azkoitiarrak. Zergatik ezezagunak? Ez zirelako argitaratu, eta bibliografiari buruzko euren eskuizkribuak berandu arte ez zirelako aztertu.

Aizkibelen eskuizkribuaren edukiaren berri Henrike Knörrek eman zuen,[3] nahiz eta Luis Villasantek bazuen honen berri Literaturaren Histo-

---

[1] Zugaza, Leopoldo: «Lehenengo bibliografo euskaldunak: Larramendi eta Zabala», *Gizonak & Lanak. Bibliofiliako Lanen Bilduma*, 20-35.

[2] Arana Martija, Jose Antonio (1991): «Larramendi eta Bonaparteren mendeurrenetan Juan Mateo Zabala gogoangarri», *Bilduma. Errenteriako Udal Artxibategiaren Aldizkaria* 5, 137-147.

[3] Knörr, Henrike (1998): «Aizkibel bibliografiagile», *Euskera* 43/1, 83-87.

ria idatzi zuenean. Aizkibel hau da Euskararen Akademia baten premiaren kontzientzia goiztiarra erakutsi zuena. Aizkibeli liburu biltzaile izateak eman omen zion izena: bere liburutegia 1.459 obraz osatua zen 3.477 liburukitan. Gipuzkoako Diputazioaren liburutegiaren abiapuntuan dago Aizkibelen liburutegia. Bibliografoa ere bazen. Idatzita utzi zuen bostehun bat orrialdeko liburu bat: *De la bibliografía y literatura bascongada y de sus diferentes dialectos*. Sarrera luze bat du, eta bukaeran antologia. Villasantek dio 200 inguru direla, 179 kontatu ditugu guk. Obrak zaharrenetik berrienera sailkatzen ditu, iruzkin, gertakari eta bestelako zertzeladez hornituak.

Bigarren bibliografo azkoitiarra Jose Ignacio Arana da. Honen berri Jose Antonio Aranari zor diogu.[4] Estimu handian du Jose Antonio Aranak bere izenkidearen lana:

> Larramendik bere *Hiztegia*ren hitzaurrean eman zigunetik, Juan Mateo Zabalak gehitua Julien Vinsonek 1891an eman zigun *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* liburura arte hainbat izan ziren euskal bibliografiaz aritu zirenak. Baina ez dut uste inork egin zuenik, garai hartan behintzat, Jose Ignacio Aranak egin zuen hainako lana. Vinsonena aparte utziz, Jon Bilbao eta gure Arana izan dira euskal bibliografo eta bibliozalerik handienak. Kontua da beste guztiek argitara eman zituztela aztertutako bibliografiak eta Jose Ignacio Aranak ez zuela berea argitaratu eta hor geratu zela inork ezagutu gabe, artxiboan ezkutatuta.

«Ensayo de una Bibliografía Bascongada» da eskuizkribu hori, 436 orrialde dituena. 1.363 fitxa bibliografiko ditu, aldian-aldian egindakoa da eta ez Aranak berak bakarrik burutua, ikusten denez. Azken unera arte jarraitu zuen lanean, hil zen urte berekoa baitu azken fitxa, Azkueren *Proyecto de Ortografía* 1896an.

Jose Antonio Aranaren iritzian Jose Ignacio Aranaren urterik aipagarriena 1872 izan zen. Urte horretakoa da azaroan Anton Abadiari idazten dion testu hau:

---

[4] Arana, Jose Antonio (1997): «Jose Ignacio Arana, bibliografoa», 42/1+2, 13-22.

> No es fácil una Bibliografía completa euskara según yo la considero, abrazando no sólo los escritos en bascuence sino todo lo relativo al país euskaro en cualquier lugar. Con todo, mucho servirán al efecto las noticias de las imprentas que ha habido y que hay en el país bascongado (como se ve en la Memoria de 1871 a 1872 con respecto a Bilbao) principalmente en Pamplona, Vitoria, Tolosa, San Sebastián y Bayona, y aun tomando en cuenta las que hubo en Oñate, Azpeitia, Azcoitia, Vergara y otros pueblos; y para eso y más elevados fines sería utilísima una Academia Católico-Euskara que fuera un nuevo baluarte de la Religión verdadera, idioma, fueros y libertades patrias de la más antigua de las razas europeas.

Lehen euskal bibliotekak

Lehen euskal liburutegiak pribatuak dira. Euskal gaiekin osaturiko lehen bildumak bibliofiloen etxeetan aurkitzen ditugu. Berauei zor diegu, gainera, ondare bibliografikoa gorde izana.

Aspaldikoena agian Aizkibelena da. Jose Artetxek 1959an dioskunez, Juan Jose Munita Gipuzkoako Diputazioaren artxibozainak honela katalogatu zuen Aizkibelen liburutegia:

> ... consta de 1.459 obras en 3.477 volúmenes que se dividen en 23 secciones diferentes que abarcan desde la Agricultura a la Lingüística, pasando por la Literatura, la Botánica, la Historia y la Geografía, las Ciencias Físicas y Exactas, la Medicina, las Bellas Artes, Educación, Derecho, Industria y Comercio, Artes y Oficios.

Honen garaikide dugu Jean-Henri Burgaud des Marets (1806-1873), filologo frantziarra. Euskararen eraginez hurbildu zen euskal kulturara eta bere heriotzan egin zen bibliotekako katalogoan[5] hizkuntzaka banatutako 10 sailetan 2.275 liburutik, 293 «Langue basque» arloari dagozkie. Horietariko gehienak Londresko British Library-n gordetzen dira egun.[6]

---

[5] *Bibliotheque patois de M. Burgaud des Marets: livres rares et précieux la plupart avec reliure de Capé et de Trautz-Bauzonnet...*, Paris, Maisonneuve et Cie., 1873.

[6] Ikus baita: West, Geoffrey (2001): «Los fondos vascos de la British Library: los libros que fueron de Henry Burgaud des Marets», *Sancho el Sabio. Revista de cultura e investigación vasca* 14, 229-236.

Giro erromantikoari esker, euskarak erakutsi duen tiradizoagatik, bibliofiloek liburutegitxoak egitera behartuta ikusi zuten bere burua lanerako. Horrela: Bonaparte printzea, W.J. van Eys, E.S. Dodgson, edo Vinson. Lacombek ere aberastu zuen berea, agian Euskaltzaindiarentzako bilduz Azkueren gomendioz. Julio Urkixo da beste bat. Honek 1917an aitortzen dio Odon Apraizi berak dauzkan 10.000 liburuetatik 4.000 bat euskal bibliografian sartzekoak liratekeela.

Labur: bi arrazoi tarteko osatu zituzten euren liburutegiak: bibliofilo zirelako, eta biblioteka publikorik ez egotean lanerako behar zituzten materialak erosi beste erremediorik ez zutelako.

Lehen liburutegi instituzionalak, erakunde publiko zein pribatuetakoak, denetarikoak ziren gaien aldetik, ez bereziki euskaldunak. Are gehiago: euskal tematikak ez zuen bere txokorik ere. Liburutegi berezituak XIX. mendearen bukaera aldera eskatzen dira. Eta geroago bakarrik, euskal biblioteka publikoa. Oker ez banago, XX. mendearen bigarren hamarkadan agertzen da proposamen hau lehen aldiz.

Liburutegi instituzionalek liburuak jaso desamortizazio ondoren jaso dituzte, erakunde erlijiosoetakoak aurrena eta gero bilduma partikularrenak: Sagarminaga Bizkaiko Aldundiaren bibliotekan, Mandasko Dukea Donostiako munizipalean, Aizkibel Gipuzkoako Aldundikoan, esaterako.

Laburbilduz, euskal gaiaren eboluzio lerroa liburutegietan honela ageri zaigu: 1) aurrena sakabanatua dago, 2) gero txoko batean, eta 3) loraldian eskatzen dena da euskal gaiarekin liburutegi publikoa egitea, hau da, euskal biblioteka, biblioteka nazionala, edo Tomas Etxebarriak zioen liburutegi etnikoa.

2.2. **Eusko Pizkundea 1: XIX. mendea**

Luze xamarra da, baina oso gustukoa izan dut aspalditxo honetan Eusko Pizkundearen lehen aldiaz Guadalupe Rubio Urkiak egiten duen azal-

pena.[7] Euskal ondare bibliografikoaz hitzaldi mamitsua eman zuen 2003an:

> La supresión de los Fueros en 1876 cae cual «rayo de piedra sobre la torre» custodia del pueblo vasco hendiendo en dos su alma, como la muerte de Milia de Lastur, y provocando en el seno de la sociedad vasca una conmoción que la firma remedada del Concierto Económico en 1878 no consigue calmar. El mismo año de 1876, el Señorío de Bizkaia aprueba en Junta General el establecimiento de una cátedra de lengua vasca y la constitución de una comisión bibliográfica vascongada, cuyo objeto y misión sea inquirir, recoger, ordenar y clasificar libros, códices y papeles útiles o convenientes para el esclarecimiento de nuestra historia y orígenes y fundamento de nuestro derecho, acudiendo hasta donde sea dable y utilizando, en la medida de lo posible y de los recursos que se asignen a esta obra meritoria, los tesoros que puedan existir en las Bibliotecas y Archivos nacionales y extranjeros.
>
> La pérdida de la inocencia histórica agudiza, pues, más aun la conciencia identitaria del pueblo vasco, que rompe su largo silencio para afirmar a lo Alonso Quijano «yo sé quién soy» en las publicaciones periódicas con colaboraciones relacionadas con la legislación, la lengua, las costumbres, y la historia del país que sustentan en esa década de 1870-1880 el llamado «Renacimiento cultural vasco», destacando de entre ellas *Euskal-Erria*, fundada en 1880 por José Manterola, cuya biblioteca completa habría de adquirir para la suya Julio de Urquijo, y en cierto sentido precursora de la *Revista Internacional de Estudios Vascos*. Paralelamente se ha incrementado la producción de obra científica y literaria relativa a dichos temas así como las publicaciones en vascuence, que con el interés creciente en los estudios vascos, las reediciones y reimpresiones de obra antigua y el aumento de los fondos en las bibliotecas, reclaman cierta ordenación bibliográfica especializada.

---

[7] Rubio Urkia, Guadalupe (2005): «El Patrimonio Bibliográfico Vasco», in: *I Seminario sobre Patrimonio Bibliográfico Vasco*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Sancho el Sabio Fundazioa, 11-107.



XIX. mendearen azken laurdenean hiru bibliografo aipatzen dira beti: Angel Allendesalazar, Julien Vinson eta Genaro Sorarrain. Sorarrainen lana ez da horrenbeste famatzen, baina beste biena bai. Allendesalazar generalista da, Vinsonena linguistikoa.

Angel Allendesalazarren *Biblioteca del bascófilo*[8] da Jose Antonio Aranaren iritzian «lehen euskal bibliografia sistematikoa». Rubio Urkiak dio: «con la publicación de la *Biblioteca del bascófilo* en 1887 se sientan las bases de los estudios bibliográficos vascos, propiamente dichos». Hauxe da liburu honen balio erantsia.

Genaro Sorarrainen *Catálogo general cronológico de obras euskaras*, 1891koa, hasieran bere erabilera pribaturako aurkibidea zen, liburutegian zituen obren aurkibidea. Allendesalazar eta Vinsonen lanak erantsi zituen gero. Eta horrela hartu zuen katalogo itxura eta argitara ematera ausartu zen. Inprimatuak bakarrik aintzat hartuz, eskuizkribuak ez ditu jasotzen.

---

[8] Arana Martija, Jose Antonio (1987): «Angel Allendesalazar-en 'Biblioteca del Bascófilo' katalogoaren mendeurrena», *Euskera* 32/2, 399-406.

Julien Vinsonen *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, bere osagarri eta eranskinekin 1891 eta 1898 artean argitara emana, izenburuak dioen bezala euskarazko obren bibliografia da. Ez nolanahikoa; egia esan, Rubio Urkiaren ustetan, «representa el impulso definitivo a los estudios bibliográficos de la lengua vasca, y a la difusión de la creación literaria en vascuence».

Angel Allendesalazar (1854-1885)

Pertsonaia bitxia da Angel Allendesalazar lumotarra. 1854an Lumoko lurraldean jaio zen, Alegria jauregian. Ez zuen amore eman Lumo Gernikarekin bateratu arte 1882an, elizatea uriarekin.

Gazterik joan zen Madrila, Zuzenbide karrera egitera. Hogei urterekin amaitu zuen, eta Filosofia eta Letrak egiten ari zen bitartean hasi zen euskal bibliografiaren fitxak osatzen. *Biblioteca del bascófilo* 21 urterekin burutua zuen. Oso gazterik hil zen, 30 urterekin. Espainiako Diputatuen Kongresuan idazkari izan zen eta Madrileko Unibertsitatean Geografia eta Historia saileko katedraduna. Politikan ere jardun zuen.

1876an Espainiako Biblioteka Nazionaleko lehiaketa bibliografikora aurkeztu zituen bi obra: *Escritores bascongados (Ensayo de una recopilación de datos biográficos y bibliográficos referentes a los escritores de las Provincias de Vizcaya, Guipúzcoa y Alava)* eta *Biblioteca del bascófilo (Ensayo de un catálogo general, sistemático y crítico de las obras impresas y manuscritas referentes al país y al pueblo bascongado)*. Ez zuen saririk lortu.

Hurrengo urtean, 1877, Laurac bat bezala aurkeztu zuen bigarrena, *Biblioteca del bascófilo*, hobetua, eta oraingoan bai, orain irabazi egin zuen, «repertorio sumamente útil» bezala baloratu zutelarik.

Lanaren argitalpenarekin ez zuen zorterik izan. Ez bakarrik bizi zen artean ezin izan zuelako editatu. Baizik eta, batez ere, berak landua zuen bezala ez zelako atera. Izan ere, saria jaso ondoren ere, informazioa biltzen eta lantzen segitu zuen Angelek, baina argitaratzeko orduan bere anaia Manuelek ez zituen sartu azken ordukoak. Atera zenak 2.207 fitxa ditu, 488 orrial-

de. Angelen semea zen Juanek zioenez, 200dik gora fitxa gehiago bazituen 1877tik 1885era bildutakoak.

65 orriko sarrera luzea idatzi zuen autoreak. Ideia hauek azpimarratuko nituzke:

- Euskal Bibliotekaren eratzea proposatzen du.
- Lau katalogo nagusitan banatuko litzateke Biblioteka: 1) euskal gaiak; 2) euskal autoreak; 3) euskarazko lanak; 4) euskal probintzietan inprimatuak.

Lauretatik zein da bere ustetan sail garrantzitsuena?

Euskal gaia lantzen duen sailak luke lehentasuna. Zergatik? Euskal Herriak bere burua ezagutzera eman behar duelako. Honela dio hitzez hitz:

> lo que más necesita el país euskaro es que se le conozca [...], y decimos que las Provincias Bascongadas necesitan ser conocidas, porque, en verdad, parece imposible que en el resto de España haya una ignorancia tan crasa, tan absoluta de su historia, de su lengua, de su legislación y hasta de su situación geográfica. ¿Para qué hemos de amontonar aquí citas de los dislates estampados últimamente en las publicaciones periódicas y cuyo número es superior a toda exageración?

Bidenabar esan Rubio Urkiak ahoan bilorik gabe baieztatzen duela gaur egungo egoera ez dela oso desberdina, Espainiak euskal kulturaz duen ezjakinkeriari buruz.

Nola lortu Bibliotekaren helburua?

Orain arte deus gutxi egin dutela erakundeek esan ondoren, desio hau azaltzen du:

> [que] las Diputaciones de las cuatro Provincias, poniéndose de acuerdo, formaran una Biblioteca en que se reunieran todas las obras bascongadas por su asunto, por su autor, por su lengua o por el lugar en que fueron impresas.

Egia ala gezurra, hor nonbait irakurri dut diputazioen arteko elkarlana honela planteatzea berria dela, nobedosoa. Allendesalazar al da lehena? Li-

burutegiaz esango nuke baietz, euskal liburuen edizioak eskatuz Ramon Ortiz de Zarate (1817-1883) izan zen lau diputazioen elkarlaneko eskariaren aintzindari, gainera, urrunago joan zen Ipar Euskal Herriaren aipua eginez:

> ... proyecto de formar una sola asociación para la publicación de libros vascongados [...] haciéndola extensiva á las cuatro ramas de la familia euskara española, aún cuando tampoco nos pesara que comprendiera tambien la quinta rama vasco-francesa que habita la otra falda de los Pirineos.[9]

Jose Antonio Aranak Allendesalazar, Angel, aztertzen duelarik, aipatzen du Gernikan bibliografoen kontzentrazioa, pilaketa edo dena delako bat badagoela egon: Angel Allendesalazar hau, bere semea Juan (1882-1938), Juan Ruiz Larrinaga frantziskotarra (1876-1954), hirurak Gernikan jaioak; ondoren Karmelo Etxegarai azpeitiarra (1865-1925) eta Florencio Amador Carrandi gasteiztarra (1888-1963) aipatzen ditu, Gernikan bizi izan zirenez. Jose Antonio Arana bera aipatuko nuke nik, Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekako buru urtetan izateaz gainera hainbat lan egin duena bibliografian eta bibliografoez. Eta gustatuko litzaidake, ama gernikarra duen/zuen forutarra izanik, neu ere taldera sartzea. Pentsatu beharko dugu Triñeko San Gregorioren bedeinkazioren bat duela ingurune honek, Azkueren eta Jon Bilbaoren amak ere mundakarrak izan zirenez. San Gregorio hau lau aita santurekin izan zen Vatikanoko bibliotekari. Triñe Gaitoka auzoko ermita dugu, eta paraje zoragarria, Urdaibai osoa azpian hartzen duen talaia.

Julien Vinson (1843-1926)

Julien Vinson baso zaindari edo inspektore gisa etorri zen Baionara 1866an. Bi urte geroago hasia zen euskarari buruz idazten Frantziako aldizkarietan, informazio bibliografikoak ere emanez. Euskal Herriaz erruz idatzi zuen, historiaz, folkloreaz, hizkuntzaz, baina gehien bibliografia interesatu zitzaion. 1891n Parisen argitaratu zuen *Essai d'une bibliographie de la langue*

[9] Ikus: Ortiz de Zarate, Ramon (1870): «Biblioteca vasco-navarra», *Semanario Católico Vasco Navarro*, 1870-02-18.

basque, eta 1898an osagarriak eta eranskinak atereaz aberastu zuen euskal bibliografia.

Kontu jakina da hil zenean informazio gehiago utzi zuela bilduta baina publikatu gabe. Julio Urkixok kontatzen du asko lagundu ziola berak, fitxak bidali eta bidali. Urkixok Odon Apraizi aitortzen dio tentatuta egon zela euskal bibliografiari ekiteko, baina bertan behera utzi zuela Vinsoni eman ziolako informazioa (1917-02-08):

> En su tiempo proyecté publicar una bibliografía Vasca, pero hoy desisto de realizar mis propósitos por tener empezados otros trabajos. He comunicado muchos datos a M. Vinson, quien debía incluirlos en su nuevo suplemento. ¿Llegará a ver la luz pública? Lo dudo, pues visité al Bibliógrafo francés en París, hace 20 días, y está casi ciego!

Euskararen bibliografiaz arduratu zen Julien Vinson ia 60 urtez. Honen ekarpena biziki estimu handitan dute bai Julio Urkixok eta bai Georges Lacombek:

> En resumen,y no obstante algunas de sus opiniones que no compartimos, hay que reconocer que el sabio francés fue uno de los autores que más contribuyeron al progreso de nuestros estudios, a los que dedicó durante cerca de 60 años, con paciencia de benedictino.[10]

Georges Lacombe jaunak: «Personne n'a rendu autant de services que Julien Vinson à la bibliographie de la langue basque».[11]

Genaro Sorarrain (1828-1898)

Genaro Sorarrainek *Catálogo de obras euskaras* liburua Bartzelonan argitaratu zuen; 1891ko data agertzen da azalean, baina, Jose Antonio Aranak dioenez, 1898 arte ez zen kaleratu. Denak ez badira liburu gehienak jada Allendesalazarrek eta Vinsonek zerrendatuak dira.

---

[10] Urkixo, Julio (1927): «Julien Vinson (1843-1926)», *RIEV*, 1927, 217-224.

[11] Lacombe, Georges (1936): «Les travaux bibliographiques basques de Julien Vinson depuis 1898», *RIEV*, 1936, 73-76.

Liburuaren sarreran Sorarrainek berak aitortzen duenez, anbizio gutxiko liburua da jatorrian. Beretzako egindako aurkibidea, besterik gabe. Katalogoak bere biblioteka partikularra du oinarrian. Liburutegian euskaraz argitara emandako guztia biltzea amestu zuen. Goiz konturatu zen ezina zela lan bibliografikoak falta zirelako. Horrela jo zuen bibliografia osatzera. Horrela, bada, katalogoan sartu zituen, bai bere liburutegiko liburuen fitxak eta baita ere berak berariaz han eta hemen bildu zituenak, aitortzen duenez, bereziki Allendesalazar eta Vinsonen lanez baliatuz. Liburu inprimatuak bakarrik biltzen ditu, ez eskuizkribuak, eta osoki eta ia osoki euskal gaiaz edo euskaraz ari direnak.

3. **Eusko pizkundea 2: XX. mendea**

3.1. **Bibliografiaren egunsentia**

Halaxe ulertzen dute garai honetako zenbait protagonistek beren egitekoa, gauaren ondoko egunsentia, ilunetik argira doan unea. Tomas Etxebarriaren ikuspegia da hau: «halagador período de aurora».

Beste batzuentzat lehendik hona dagoen aldaketa errotikoagoa da, jauzi kualitatiboa batzuentzat, haustura besteentzat. Hori da garaiko espiritua. Orain egin nahi dena beste tamaina batekoa da, berria eta diferentea. Hain zuzen ere horixe da Pizkundea, Errenazimendua.

Aurreko aldia baloratzeko orduan, berriz diogu, alde handia dago batetik bestera. Segun eta autorea.

Sotak adierazten duenez, exajeratuta, ia zakarrontzira botatzekoa da aurreko guztia. Tomas Etxebarriak, aldiz, ordukoak eta oraingoak arnasaldi berean aipatzen ditu, denak bateratsu, hausturarik gabe: batetik, Allendesalazar, Sorarrain, Vinson; eta bestetik, Juan Allendesalazar, Dario Areitio, Fernando Quadra Salcedo, Federico Gredilla, Jose Zalba, Karmelo Etxegarai.

Pizkundea, jakina da, ez da liburuen mundura mugatzen, ezta gutxiago ere. Aldi berean Euskal Unibertsitatea eskatzen eta lantzen da, Euskal Biblioteka, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Museo Arkeologikoa eta Pinturakoa...

Hona haustura edo gainditze hori, egitasmo bibliografikoei dagokienez, oraingo protagonisten esalditan nola adierazten den:

- Quadra Salcedok Odon Apraizi (1915-12-02):

> Sobre ello [Euskal Bibliografia] no hay nada hecho porque lo de Allendesalazar y lo de Vinson es fragmentario y de un criterio pobre.

- Ramon Sota eta Egileorren mozioa (1917-09-04):

> [Bibliografian] hasta ahora lo que se ha hecho es casi nada y para la nueva labor es necesario comenzar con planes y orientaciones modernas.
>
> Las pequeñas Bibliografías de Allendesalazar, Vinson y Sorarrain nada resuelven, pudiendo tan solo considerarse como ensayos y balbucientes palabras de una obra magna que está por realizarse.
>
> Las dos mil obras de Allendesalazar, otras tantas numeradas por Sorarrain y un millar catalogado por Vinson, no resuelven los problemas suscitados justamente en torno de la lengua, la raza y las instituciones, cada vez más interesantes de los vascos.
>
> Aunque tales ensayos tengan juicios críticos estimables sobre todo el de Vinson, no podemos sino confesar que son de segunda y aún de tercera mano las noticias que se nos dan de los libros catalogados, originándose con esto la falta de exactitud y la vacilación de afirmaciones y por consiguiente la falta de valoración crítica en los volúmenes que al lector se le van presentando.

- Odon Apraizek (*Ateneo*, 1916) honela baloratzen du:

> ¿Pero es que nada se ha hecho en este campo? Se ha hecho algo, bastante. Pero he aquí que lo que con un poco más de esfuerzo sería admirable, resulta actualmente perfectamente inadecuado y casi inútil. [...]
>
> [*Biblioteca del bascófilo*] representa un laudable esfuerzo, a pesar de sus considerables deficiencias, de las que no podemos ocuparnos detalladamente sin injusticia [...]. Prescindiendo de omisiones de detalle advertiremos que en general, no se ocupa de lo referente al país vasco ultrapirenáico, que por tantos conceptos se ofrece al erudito formando un todo inseparable con el «Laurac Bat»; que el as-

pecto filológico está muy pobremente representado, vacío que se propuso llenar Mr. Vinson; y recordaremos también que de los tres objetos que él mismo señala a la Bibliografía Vasca (obras de asunto vasco, de autor vasco y de imprenta vasca) sólo se propuso en su «Biblioteca» atender al primero, que es, por ahora, el que más nos interesa también a nosotros. [...]

Por último, el Sr. Allendesalazar no estudia, sino muy someramente, una forma de publicación que adquiere cada día más importancia, equiparándose con la del libro: la revista. [...]

Y el estado del problema no ha variado en general desde la publicación de la «Biblioteca del Bascófilo». En 1891 se publicó otra obra cuyo autor se limita principalmente a aprovechar lo más saliente de la de Allendesalazar y parte de la de Vinson [...]. La obra de Sorarrain no tiende a ser completa, pues a pesar de abarcar mayor número de años y de aspectos contiene 513 notas bibliográficas menos que la de Allendesalar. Prescinde también de los trabajos insertos en revistas y de toda clasificación por materias, por lo cual necesitaría una reforma aunque fuese completa en los demás aspectos. Ya hemos dicho que no pretende serlo; es una bibliografía de *amateur* según su mismo autor declara en las palabras de la portada que hemos copiado. [...]

Vinson:

En el aspecto lingüístico la bibliografía vasca presenta un grado de mayor avance que en los demás. Por eso tratamos de él distinta y especialmente. Con la publicación de Mr. Vinson y los trabajos bibliográficos del mismo autor, queda recogida una cantidad bastante completa de datos referentes a la lengua vasca. Pero la multiplicidad de trabajos fragmentarios, que mutuamente se completan, pero que no forman un todo orgánico, hace que la obra de Vinson sea prácticamente punto menos que inconsultable.

- Tomas Etxebarriaren ikuspegia (1919) desberdina da, positiboagoa; poetikoagoa behintzat:

¿Cómo nos hallamos a la hora presente en el país vasco, con respecto a la bibliografía, en orden al inventario de nuestra riqueza li-

> braria, relativamente al debe y haber de nuestro balance cultural o sabio? Yo diría que en halagador período de aurora que promete hermoso y no lejano sol de envidiables realidades.

3.2. **Herri baten bibliografia egiten**

Eragile kulturalak

Eragileen artean denetarik badago ere, bibliofiloak ere bai, badute ezaugarri bat elkarrekin: herri edo kultura baten alde ari dira, kontzienteki. Bibliografiaren bidez herri baten memoria berreskuratu nahi dute; Euskal Herriaren ondarea jagon nahi dute. Hori bai, baina xedeak ez dira hor agortzen, gero ikusiko dugunez: bibliografia beharrezkotzat dute errebindikatzen duten unibertsitaterako, zientziarako; kanpokoei euskal kultura «erakusteko» nahi dute; maiseatzaileei «euskal egia» argitzeko ere bai. Dimentsio kulturala du bibliografiagintzak. Kulturala, eta politikoa.

Esan liteke beti halatsu izan dela. Muratoriren obretan bertan sumatzen da hori –bera da bibliografia modernoaren aitagoia–, horren kontzientzia italianista nazionala nabaria baita, Ilustrazioan jada. Motibazioaren eta helburuen zabaltasun kultural-politiko abertzalea are nabariagoa da Alemaniako Eskola Historikoan (Niebuhr, Grimm anaiak, Savigny, Ranke, Droysen, etab.), horrek ezarri baititu zientzia eta metodologia historiko modernoaren oinarriak, gero Europa osoan onartu izan direnak. Zorroztasunezko ikerketa historiko objektiboa bilatzen da, historia erromantiko edo narratiboaren aurka, eta hori ezin da dokumentuetan baino oinarritu. Zientziaren eta objektibotasunaren aurrebaldintza, hortaz, materialaren bilketa bibliografikoa eta horren haztapen kritikoa da. Albora utzita orain historiagintzaren teoriko eta maisu aleman handiak, gogora dezagun nola XIX. mendean «Monumenta Germaniae Historica» bilduma erraldoia sortu den (Vom Stein Baroiak bultzaturik hain zuzen!), beste historia nazionalentzat eredu izan dena. Eta gogora dezagun bilduma horretako liburu bakoitzak goiburu hau daramala: «Sanctus amor patriae dat animum».

Berriz diogu: zerikusi gutxi dute Errenazimendu edo Pizkundeko eragile hauek erromantizismo garaian euskal mundura hurbildu ziren kanpotarrekin. Egoki azaltzen du belaunaldi honen ezaugarria Jurgi Kintanak, beste alor batean bada ere: eraginkortasuna bilatzen dute, gauzak egitea, proiektuak mamitzea. Esan daiteke, erromantikoak «afektiboak» zirela eta hauek «efektiboak», positibistak.

Tartean ez dira faltako liburuzale huts edo bibliofilo soilak, bai, baina gehiago dira bestelako profilak: irakasle, kultura zale, euskaltzale, eragile, boluntario, eta... politikariak.

Bai Quadrak eta bai Apraizek landa lana planteatzen dutenean, hau da, informazioa jasotzea, ez dute soilki profesionalen edo erudituen lan bezala planteatzen. Boluntarioena da, mundu osoari ematen zaio aukera parte har dezan; are gehiago: parte hartzeko eskatu egiten da publikoki.

Urte hauetan Bizkaiko Diputazioak izan duen jokamoldea guztien gainetik nabarmentzekoa da. Berari zor zaio neurri batean, ez berari bakarrik bistan da, Euskaltzaindiaren sorrera, esate baterako. Asmatu zuen gizarteko gurariak eta asmoak, landuak edo erdi landuak, lagundu eta bultzatzen. Ez ahaztu Euskaltzaindiak esker onez bileratokitzat Bilbo aukeratu zuela. Esker ona zergatik? Akademiaren sorrera gauzatzeko erabaki irmoak hartu zituelako; eta, horrela, *Euskera* aldizkariko kronikagileak zioen bezala, partikularren eskuetan mehe eta argala zen proiektua indartsu bihurtu zen erakundearen jarrera positiboari esker. Bibliotekaren kasuan ere jarrera aktiboa du Diputazioak, baina proiektuak ez zuen aurrera egin ahal izan Oñatin.

Bide batez esan, bibliografia lanetan zebiltzan bi, bi behintzat, euskaltzain izango zirela, lehen orduko euskaltzain urgazle: Odon Apraiz eta Luis Gonzalez Etxabarri, 1919an hautatuak biak. Odon Apraizek, gainera, Euskaltzaindiak bekak emanda Linguistika ikasten jardun zuen Parisen eta Zurichen. 1968an euskaltzain ohorezko izendatu zuen Euskaltzaindiak. Gonzalez Etxabarrik, EGIkoa bera, oso gazterik ihes egin beharra izan zuen, Primo de Riveraren diktadurapean, bi liburu euskaraz idatzita. Argentinan bizi izan da, *La Nación*-eko kazetari ogibidez. Euskal lanetan Aizkibel'dar Bingen sinatzen zuen.

Ondare bibliografikoa biltzeaz harago

Bibliografia edo biblioteka nazional guztien lehen xedea ondarea biltzea eta belaunaldi berrietara helaraztea da, memoria historikoa bermatze aldera.

Pizkundean ere hala da hori. Baina bestelako helbururik ere badute Pizkundeko bibliografoek. Euskal nortasuna babesteko eta garatzeko lanabes egokiak dira dokumentuak, ikusten denez. 1876an foruak galduta, alderdi kulturaletan oinarritzea bilatzen da, historian, folklorean, hizkuntzan, gizarte ereduan. Alderdi horien azterketak indar nabarmena hartzen du. Euskal nortasunaren ezaugarri propioak markatzen dira alde guztietatik. Joera hori indartu besterik ez du egingo abertzaletasunak.

Bibliografoek aurrez aurre ikusten dutena isiltasun dokumentala da, eta hori ez denean ezjakinkeria, manipulazioa, gezurra. Euskal Herri diferentziatu izatea dago jokoan, berezitasun kulturalaren legitimitatea. Fronteko ukoari erantzun nahi diote. Azken batean konfrontazio politikoa da nagusi urte horietan. Baina bibliografoek politikoki barik kulturalki erantzun nahi diote ukoari. Atentzioa ematen du zenbateko fedea duten dokumentuan, liburuan, kulturan. Ematen du dokumentuak argitzen duen egia besterik gabe zabalduko dela: «bonum difusivum sui», bestelako bultzadarik gabe, propaganda gabe, euskal nortasunaren aldeko argudioek bere bidea egingo luketela, arerioa konbentzitzeraino. Egunak ez du bada gaua argitzen?

Bibliografia lanetan murgildu diren guztiengan aurkitzen dira hala-moduzko ideiak. Bat edo beste aipatuko dut.

Angel Allendesalazar euskal gaiekiko Espainiako ezjakinkeria orokorraz kexatzen da. Guadalupe Rubio Urkiak, Allendesalazar aipatzean, nabarmentzen du gaur ez dela desberdin:

> Desafortunadamente, se mantiene incólume el panorama que inspiró entonces al primero [Allendesalazar] su reflexión sobre lo que se conoce el País Vasco, y que puede suscribirse hoy de la cruz a la firma: «En verdad, parece imposible que en el resto de España haya una ignorancia tan crasa, tan absoluta de su historia, de su lengua, de su legislación». De su cultura, en una palabra.

Angel Allendesalazarren Juan semeak dio bibliografiarekin helburu bikoitza zuela aitak: euskal kultura defenditzeko herritarrei arma eskaintzea eta aldi berean kultura berrindartzea: «una guía de los escritos que habían de servirles para la defensa y restauración de la tierra vasca, [...] a la restauración espiritual de nuestro pueblo había de servirles de cimiento».

Ramon Sotak Simancasko artxibategiko burua salatzen du dokumentuak faltsutzeagatik, hain zuzen ere Euskal Herriaren independentziaren aldeko argudioak ahultzeko, dio hitzez hitz. Horra berriz ere dokumentuaren indarra.

Pizkundeko bibliografoa sinetsita dago dokumentuak, liburuak, kulturak, baretasuna, zentzua, bakea dakarrela garaiko gizarte tenkatuan. Dokumentuak egia dio, eta egiak bere bidea egingo du. Dokumentua da Salomon berria, biblioteka, egiazko eta gezurrezko jarrerak banatzen dituen epaile zuzena. Harrigarria gertatzen da gaur Tomas Etxebarria batek dokumentuan duen fedea. Honela dio Oñatin irakurri zuen txostenean:

> Someter nuestras contiendas y diferencias al tribunal inapelable de un Salomon que decida sobre la partición o la entrega total de la criatura. Ahora bien; ese rey sabio que, difunto y todo, puede todavía dirimir nuestros pleitos, es la Biblioteca Vasca, con sus textos de lengua, sus pruebas de historia, sus aforismos de derecho, sus ejecutorias de heráldica, sus leyes de contratación, sus tratamientos de hidalguía; en una palabra, con el documento integral y vivo de nuestra existencia toda.

Bistan da Pizkundeko bibliografoak ez direla bibliofilo soil, eta bai bere herriaren garapen kulturalean diharduten eragileak.

3.3. **Asmoak eta egitasmoak**

Gutunetan barrena

Daukagun lehen berria Fernando Quadrak Salcedok 1915eko abenduaren 2an Odon Apraizi zuzendutako gutunekoa da. Quadrak urte horretan *Los Vascos del Renacimiento. Trátase de lo que hicieron en el Sacrosanto y ecuménico*

Concilio Tridentino (1915) lana argitaratua zuen; Apraiz, anaia Angelen bidez, berarekin harremanetan jartzen da paleografia ikasketetarako behar zituen euskal orientalista baten idazketa cuneiformearen argibideak eskatuz.

Apraiz orduan Madrilen zegoen, unibertsitatean. Odonek 20 urte zituen eta Quadrak 26. Zein baino zein gazteago. Quadrak Zuzenbide karrerako lizentzia bukatua zuen eta hurrengo urtean aterako zuen doktoretza eta Ateneoko *Idearium* aldizkaria sortuko.

Erantzunean, Quadrak, eskatutako informazioaren gain, jakinik euskal ikasketetan zebilela Odon ere, proiektu batez hitz egiten dio: «La Bibliografía Vasca, pasando á otra cosa, es punto de mayor interés si cabe. El Ateneo de Bilbao de que soy socio tiene entre sus planes el de la formación de la Bibliografía Vasca». Eta bere ikuspegia ematen dio bilketaz:

> Sobre ello no hay nada hecho porque lo de Allendesalazar y lo de Vinson es fragmentario y de un criterio pobre. Es cosa que hay que hacer pronto y *bien. La base de esta bibliografía será el concurso de todos los vascos que tengan noticia de las obras escritas por vascos y obras que hablen de lo vasco.*

Geuk azpimarratu dugu azken esaldia, hor baitago egitasmo honen muina.

Alde batetik, elkarlanean burutu behar den egitasmoa planteatzen du, esku hartu nahi duten guztien artean. Ez da, hortaz, arestian aipatu bezala, aditu edo eruditu zenbaiten arteko lana soilki edo esklusiboki. Modu adierazgarrian bukatzen du gutuna, bibliografiatik harago joanez: «Unámonos todos los vascos en el renacimiento del país».

Beste aldetik, jaso behar diren obrak ez dira euskaraz idatzitakoak soilki edo bereziki, baizik eta euskaldunek edo euskal herritarrek idatzi dituztenak, eta hauekin batera biltzekoa da euskaldunei buruz idatzi den guztia ere.

Hurrengo bi urteetan gaiaren inguruan gurutzatzen dituzten gutunetan argi ikusten da zein den Quadraren ikuspegia euskal bibliografiaz; Gaskueri kritika eginez 1915eko abenduan bertan esaten dio Apraizi: «le guía [Gaskueri] un error capital, un silogismo destructor. 'El pueblo vasco debía haber sido así, no ha sido así, luego no ha existido'. Esto refiriéndose a las bellas artes. En la premisa hacen entrar en que el pueblo vasco debiera haberse

manifestado solo en vascuence...». «Es premisa arbitraria», dio segidan eta honela osatzen du: «El núcleo de este pueblo habla vasco, su enorme importancia diplomática le hace usar lenguas romances». Enkarterrietako semea izanik, euskalduntasunaren esparrua euskaratik at zabaltzen zuen.

Odon Apraizek interes handia agertzen du proiektuan: «para el proyecto de Bibliografía Vasca, mi mayor interés», esaten dio. Baina jakinean da beste erakunde batek ere antzeko asmoetan diharduela, nahiz eta informazio zehatzik izan ez. Gutun bat jaso zutela gaiari lotua, baina ez dela ziur zeinena, «Estudios Vascos»-ena izan ote zitekeen. Quadrak ere jakin badaki Ateneoan 1914an aurkeztutako euskal bibliografiako proiektuaren berri zabaldu dela Bilbo aldean, eta, Jabier Gortazar Euzko Gaztediko sortzailea zenaren kontra agertuz, esaten dio: «Gortazar es posible intente algo; pero es que algunos señores lo desfloran todo sin hacer un solo ramo de flores. Le niego a Gortazar como a todo el partido nacionalista competencia para esta empresa bibliográfica. No basta ser hombres de buena voluntad». Ateneoaren beraren proiektua dela-eta, urtebete pasa martxan jarria zela gogoratzen dio. Ateneoko proiektuan Segundo Ispizua, Luis Zulueta eta beste historiagile ezagunak dagoeneko lanean daude.

Quadraren gutun hau, 1915eko abenduaren 25ekoa, Apraizi zuzendua da, baina ez Odoni, Angel anaiari baizik. Zergatik? Odon abertzalea zela bazekielako akaso?

Ez da erraz jakiten Quadra zerk haserretu zuen gehiago: 1) alderdi politiko baten esku sartzeak; 2) gaitasun gutxikoak izateak; 3) protagonismoa kentzearen arriskuak edo beldurrak.

Egia da, egia denez, Quadra ez dela abertzalea, ezta hurrik eman ere. Baina bai euskal herritar sutsua.

Egia da, baita ere, Ateneoa jada 1914tik ari dela lanean. Ez dakit lehenago hasita ala ez, baina Apraiz ere horretan ari da Madrileko Euzko-Etxean.

Eta egia da, azkenik, gidaritzaren gaia soluzionatu gabe zegoela.

Odon Apraizek ere kezka moduan bizi du gidaritzaren arazo hori, bati eta besteari aipatzen baitio batzorde gidari bat antolatu behar dela, sakabanake-

ta ekiditeko. 1917ko otsailean Julio Urkixori zuzenduta dio arazoa ez dela gidaritza zeinena den, baizik eta batzorde gidariaren kualifikazioa, eta horretan nahi du Urkixoren laguntza:

> De quien quiera que sea la iniciativa lo necesario es que la comisión se integre por pros. elem.s [sic.: personas, elementos interpreta daiteke] de valía reconocida, que resuelvan en definitiva esta cuestión en la cual espero que a pesar de sus otras ocupaciones no nos negará usted su indispensable concurso, por lo menos en la orientación general y en la resolución en último término de las dudas que pudieran surgir.

Esan dugu Quadra ez zela abertzale euskalduna baina bai euskal herritar sutsua. Adierazgarria da nola erreakzionatzen duen 1931n «minoría vasconavarra»-ren defentsan, herrikide bai baina gogaide ez izanik ere. Liburu bat idazten du izenburu honekin: *¡Cavernícolas, cavernícolas! Defensa de la obra de los vascos*.[12] Kobazulotarrak ez dira euskaldunak, behingoz, espainiarrak baizik! Xavier de Azcoitia gisa sinatu zuen. Hona pasarte esanguratsu bat; honela hasten da:

> Con notoria injusticia se ha llamado a los vascos en el seno de las Cortes Constituyentes, peyorativamente, cavernícolas. Principalmente iban dirigidos estos ataques [...] a la minorías agraria y vasconavarra. Los componentes de éstas, rechazaron indignados tales desacompasados gritos y [...] no dejaron de contestar, siquiera fuera pasajeramente, en sucesivos discursos a la imputación que suponía apellidar gente de las cavernas a aquellos precisamente que salieron de ellas antes que nadie, para quitar en esta tierra ibérica, y aun en todo Europa y América, los anillos nasales a pueblos oprimidos en su ignorancia o en su esclavitud.

Eta honela bukatzen du:

> Sois cavernícolas, pero podéis aún redimiros; que el anillo se traslade de la ternilla al meñique os desea Xavier de Azcoitia.

Abertzale espainiar batek esateko ez dago gaizki!

---

[12] Azcoitia, Xavier de (1931): *¡Cavernícolas, cavernícolas! Defensa de la obra de los vascos*, Bilbo, Imprenta Mayli.

Odon Apraiz: «La Bibliografía Vasca, una labor necesaria»[13]

1916ko abenduan Odon Apraizek artikulu bat argitaratzen du *Ateneo*-n, Gasteizko Erret Ateneoaren agerkari ofizialean.

Julio Urkixok idazlana eskuratzeko idazten dionean, Apraiz gazteak, 20 urte, esplikatu egiten dio nola sortu zen lana eta zertarako argitaratu zuen. Salamancan Bibliografia azterketarako aurkeztu zuen lana da. Lanari erantsi zizkion 497 liburu fitxa, Allendesalazar, Sorarrain edo Vinsonen agertzen ez direnak.

Artikuluak helburu guztiz praktikoa duela ere esaten dio, nola antolatu bilketa. Hasieran gogoeta orokor gutxi batzuk daude, lan bibliografikoa errebindikatuz Errenazimendu garaian, irakaskuntzari begira, datorkeen unibertsitateari begira. Ondorengo guztia, praktikoa da.

Labur-labur:

- Antolaketaren ateburuan hiru hitz agertzen dira: batasuna, elkarlana, lan banaketa; adituen elkarlana eskatzen du.
- Orain arte egin denaren hutsune nabarmenena aldizkariak ez aintzat hartu izana da. Aldizkarien garrantzia azpimarratu egiten du: «Quizás en revistas está publicado lo más interesante que se ha escrito acerca de nuestro país en los últimos cincuenta años».
- Aldizkarietan bi informazio mota bildu behar da: Euskal Herriko hizkuntzari buruzkoa, edo historiari, legeei, arteari, eta abarri buruzkoa. Eta bestea: aldizkarietan argitaratu ohi diren ohar bibliografikoak jaso.
- Lan egituraketa bi multzotan eratzen da: batzorde zuzendaria, adituez osatua, eta hauen azpian sei-zazpi taldetxo, hiruzpalau lagunez osatuak. Batzorde zuzendariak hiru egiteko ditu: gidatu, lankideen lana osatu eta zuzendu, eta lankidetza bilatu.
- Allendesalazarren *Biblioteca del bascófilo*-ren aurretik argitaratu ziren liburuak fitxatzea adituen kontua litzateke.

[13] Apraiz, Odon (1916): «La Bibliografía Vasca. Una labor necesaria», *Ateneo* 36, 3-7.

- Iparraldeko bibliografia lantzeko pertsona bat behar da bilatu.
- Martxan dauden bi proiekturen berri ematen du: Ateneokoa (Quadra tartean), euskal autoreak lantzen diharduena; eta Madrileko Euzko-Etxekoa (bera tartean). Bigarren honek badu berezitasun bat, liburuaren metadatuak jaso ohi dituzte, hala nola, prezioa, Bibliografiatik Bibliotekara igarobidea egiteko.

Langloisen esaldia erabiliz bere pentsaera azaltzen du, azkenik, Apraizek: Bibliografia Biblioteka idealaren errepertorioa baizik ez dela, alegia.

Estudios Vascos

Proposamenak arrakasta du eta 1917ko urtarrilean Eduardo Urrutiaren gutuna jasotzen du Odon Apraizek, artikuluagatik zorionak emanez. Eta laguntza eskatuz: zehazki, fitxa eredua bidaltzeko eta nola bete. Euzko Gaztediren proiektuaren berri ere ematen dio: «El pasado año y en sus primeros meses empezamos este trabajo de recolección en Juventud Vasca, trabajo que tenemos algo adelantado y lo tenemos parado con motivo del fichero organizador». Hurrengo hilabetean zehatzago adierazten dio zertan dabiltzan:

> Primeramente pensamos hacer una copia de los libros que contienen Allende, Sorarrain y Vinson, una vez hecho este trabajo haremos una revisión seria de las revistas y periódicos de nuestra patria, aparte de la inspección de archivos, etc. Una vez hecho este trabajo y cuando la obra esté terminada pondremos el lugar en que se encuentren los libros a fin de facilitar trabajo a todos aquellos que quieran estudiar nuestro País. [...]

Erantzunean, Odonek elkarlana proposatzen dio aldizkarien hustuketa lanetan:

> Una vez que tengamos esto podremos repartir entre varios el trabajo de examinar en las revistas sus secciones bibliográficas; luego se enviaban estas notas a la comisión central que se encargaba de completarlas, corregirlas, eliminar las repetidas, ordenarlas y disponerlas

> para la impresión. Creo que este es el medio más metódico y ordenado de recoger la producción intelectual posterior a 1878 que es la fecha en que está detenida la bibliografía vasca en la obra de Allendesalazar impresa en 1887 (pues la de Sorarrain es muy mediana y la de Vinson solo se ocupa del aspecto lingüístico).

Jarraian azaltzen dio berak *Ateneo* aldizkarian azaldu zuena EGIn egiten ari direnaren osagarria dela, aldizkarien hustuketa alegia. Ez ditu animatzen egin asmo duten bidetik joaten, hau da, liburuen fitxa bibliografikoak:

> Para esto sí que necesitan un fichero y una ordenación sistemática rigurosa. Si quieren proseguir esta labor (que es útil, pero tan árida que nos parecía propia para ser encargada a personas subvencionadas, con arreglo a un plan de ampliación de «Estudios Vascos» del que hemos hablado J. de Gortazar, L. de Eleizalde y otros) pueden Vds. atenerse a las «Instrucciones» muy detalladas y casuísticas publicadas.

Ongi ulertzen badut, Apraizek Urrutiari esan nahi dio ez daudela aski jantzita liburuen fitxaketari heltzeko eta gai hori «nagusiekin» mintzatua duela. Luis Eleizalde Estudios Vascos elkartearen sortzaileetarikoa da.

Estudios Vascos 1915eko apirilaren 26an sortu zuten Arturo Campion, Federiko Baraibar, Eduardo Velasco, Manuel Arriandiaga eta Luis Eleizalde jaunek. Eta 1919ko otsailean itxi egin zuten, jada Oñatin Eusko Ikaskuntza edo «Sociedad de Estudios Vascos» sortua zelako. Sortzaileen gogo zaharra berrian txertatu zen, ondasun eta guzti.

Estudios Vascos, sortzaileen asmoetan, patronimia eta toponimia aztertzeko sortu bazuten ere, bere azterketa-eremua zabalduz joan zen. Likidatu zutenean hau zen egoera: Hego Euskal Herriko patronimiaren katalogazioa osorik egina, toponimiaz milaka txartel bilduta, euskal bibliografiako hiru mila fitxa eta bi musika jaialdi Bilbon antolatuak. Dokumentazioa Eusko Ikaskuntzak jaso zuen.[14]

---

[14] Muxika, Gregorio (Biona, G.): «Patronimia y toponimia vasca. Disolución de Estudios Vascos de Bilbao», *Euskalerriaren Alde*, 1919, IX.

Fernando Quadra Salcedo: Monumenta Bibliographica Vasca

Quadrak bere aldetik jarraitzen du lanean, eta, Apraizi idazten dionean (1917-01-04), proiektuak badu izena: «Estamos organizando en el Ateneo el *Monumenta Bibliographica Vasca.* Se ha nombrado una comisión en la cual te incluyo a tí y a Angel. Dime si aceptas». Eta *Idearium* aldizkarian ematen du proiektuaren berri zehatza. *Idearium* berak sortu zuen, bibliografia bultzatzeko. Batzordea kultura munduko pertsona esanguratsuekin osatu da: Francisco Uhagón (Marqués de Laurencin), Julio Urkixo, Ignacio Kareaga, Luis Gonzalez Etxabarri, Pedro Aguado, Juan Larrea, Dario Areitio, Ramon Olaskoaga, Segundo Ispizua, Tomas Etxebarria, Luis Lezama-Legizamon eta Karmelo Etxegarai. Beraz, proiektu bien bultzatzaileak daude batzordean. Hamabi guztira eta Apraiz anaiekin hamalau. Ez edozein, gainera.

Quadrak *Idearium* aldizkarian idazten duen lanak «Una obra urgente en la cultura del país»[15] du izena, eta Odonek Gasteizko *Ateneo*-n idatzitakoari, batzordearen izenean berak ematen dion erantzuna da. Nola dagoen antolatua Euskal Bibliografiako batzordea eta metodologikoki nola lan egiten duen, azaldu nahi dio.

Gaizki pentsatzea izango da, baina lerro artean irakurrita ematen du paumak lumajea harro zabaltzen duen bezala Quadrak erakusten diola Apraizi beraiek zertan diren. Exhibizionismotik baduela zerbait artikuluak, alegia. Baina guri balio digu, enteratu egiten baikara horrela.

Proiektuari jarri dioten izena Monumenta Bibliographica Vasca da. Bertan bildu nahi da, euskaraz idatzitakoaz gainera, euskal autoreek idatzia, Euskal Herriko inprimategietan argitara emana.

Sei taldetan antolatuta lan egiten dute:

1. *A taldeak* Allendesalazar, Sorarrain eta Vinsonen bibliografiak zuzendu eta osatu egin ditu.

[15] Quadra Salcedo, Fernando (1917): «Una obra urgente en la cultura del país», *Idearium*, 1917.

2. *B taldeak* lau alor desberdin lantzen ditu: Bizkaiko kronikak, Oñatiko Unibertsitatean irakasle eta ikasleek idatzitakoak, euskal herritarrek XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan filosofian eta teologian idatzi dutena (5.000 obra zerrendatu zituzten, ordura arte sailkatu gabeak). Eta baita ere XIX. eta XX. mendeetan euskaldunek inprimatutakoak.

3. *C taldeak* 5 azpiatal ditu: Euskal Herri eta Errioxan inprimaturiko lanak, Ameriketan euskaldunek inprimatutakoak, Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País-ko obrak, Batzar Nagusietako aginduen laburpenak, izengabeak eta ezizenekoak.

4. *D taldeak* lau azpiatal ditu lan bereziagoak katalogatzeko: San Inaziorenak edo berari buruzkoak, Nafarroako Erregeei dagozkienak, Carranzarenak eta honi buruzkoak, eta azkenik bilduma orokorrak, aldizkariak, buletinak.

5. *E taldeak* euskarazko lanak bildu nahi ditu. Julio Urkixo eta Luis Gonzalez Etxabarrik lautan sailkatu dute atala: euskal klasikoak, Axularren edizioak, Leizarraga, Oihenart, etab.; XVIII. mendeko ekoizpena; XIX. mendeko Pizkundea; eta egungo obrak. Bosgarren atal bat sortu du batzordeak herri literatura biltzeko XIV. mendetik gaurko bertsolariak arte.

6. *F taldeak* lan bitxia du: Monumenta Bibliographica Vasca-n biltzen diren lanetan agertzen diren izenak oro bildu nahi ditu, hala nola, autoreak, inprimatzaileak, ordaintzaileak, zeini eskaintzen zaion liburua, koadernatzaileak, ilustratzaileak, etab.

Hau guztia batzordeak egin behar duen lana da itxuraz, baina proiektu irekia da: Euskal Herri osora fitxatzeko arauak zehaztuz buletin bat zabaltzeko asmoa dute, nahi duenak parte har dezan.

Oker ez banago, Quadrak Apraizi, lagun moduan hori bai, aditzera ematen diona da beraiek oso aurreratua daukatela lana eta badakiela gidaritza non dagoen. Lau hilabete beranduago Odonek aitortzen dio Urkixori, literalki: «Lo que en él se propone es, desde luego, mucho más amplio de lo que yo inicié en Ateneo». Baina ez du berea baztertzen, ez

uzten. Elkar osagarriak direla idazten du. Bat egitea baino nahiago du elkarlana, antza.

Asmo gehiago

Beste euskaltzale batzuk ere interesatzen dira gaiaz eta Ixaka Lopez Mendizabalek ere idazten dio Apraizi (1917-02-24) gogoratuz Iruñeko txantrearra zen Mariano Arigitak (1865-1916) ere milaka fitxa bibliografiko bilduak zituela eta euskal bibliografian kontuan izan beharko zirela. *Euskalerriaren Alde* aldizkarian Pio Garmendia Agirretxe inprimatzailearen gutun ireki bat argitaratzen da, besteak beste R.M. Azkue eta K. Etxegarairi zuzendua, non euskal ondare bibliografikoaren museo baten proposamena egiten duen. Etxegaraik erantzuten dio, ondo ikusia izango dela esanez, baina beste aurrerapausorik egin gabe.

3.4. **Bibliografiatik Bibliotekara**

1917ko maiatzean abertzaleek hauteskundeak irabazten dituzte Bizkaiko Aldundian eta hemendik aurrera Estudios Vascos agertzen zaigu proiektuaren bultzatzaile, bibliografia eta biblioteka batera planteatuz. Bibliografia lantzeko talde bat eratu dute, eta bertan dira, Eduardo Urrutiarekin batera, Luis Gonzalez Etxabarri, Jose M. Azkarraga, Ramon Elgezabal eta Pedro Elgoibar, proiektuaz arduratuko direnak. Odon Apraiz bera ere taldekidetzat hartzen du espresuki 1917ko maiatzaren 22an Gonzalez Etxabarrik Apraizi idazten dion gutunean, eta laguntza eskatzen dio:

> ... para ir completando nuestra labor, desearíamos que Vd. nos enviase catálogos de librerías de segunda mano que contengan obras vascas y si le es posible, alguno de la Biblioteca Nacional.

Felix Landaburu da Apraizen hurrengo korrespontsala. Badirudi hauteskundeak irabazi eta eutsi zion lehenengoetariko proiektua hau izan zela, eta 1917ko uztailaren 31ko datako proiektua eta Bizkaiko Diputazioaren hurrengo batzarrean aurkezteko asmoa duen mozioaren kopia bidaltzen dio iritzia eskatuz, «como docto en la materia». Are gehiago: haziak lur har dezan lankidetza eskatzen dio.

Felix Landabururen proposamena[16]

Bizkaiko Artxiboan gordetzen den dosierreko atarian ikus dezakegu: «Objeto: Don Félix de Landáburu. Propone la creación de una biblioteca vasca». Dosier bereko aurkibidean ikus dezakegu urte bereko abuztuaren 30ean Ramon Sota eta Manuel Egileorrek beste proposamen bat aurkeztu zutela Bizkaiko Artxibo Orokorraren antolakuntzarako.

1917ko San Inazio eguneko data daraman mozioaren aurkezpenean, Felix Landaburuk biblioteka baten beharrizanaz eta lehenengo pauso moduan euskal bibliografiaren bilketaz dihardu: «... la Excma. Diputación de Bizkaya debe asumir un papel primordial en la labor y ha de poner su más ferviente celo en la formación de la gran biblioteca vasca».

Bi egitekotan lagundu behar du Diputazioak Landabururen iritzian: Euskal Herriaz idatzi den guztia biltzen, eta, bigarrena, Pizkundeari dagozkion argitalpenak sustatzen. Mozioan espresuki lehenengoari heltzen zaio. Hona bere hitzetan:

> [Euskal Biblioteka] ha de ser considerada bajo dos aspectos.
>
> Primero: Recopilación de cuanto háyase escrito tocante al País Vasco en cualquier derivación o modalidad.
>
> Segundo: Ayuda decidida y pródiga a nuevas publicaciones que tengan conexión con el renacimiento vasco.
>
> El fin que se persigue en la presente Moción es el de dar cima al primero de dichos aspectos, como base y asiento de la gran biblioteca vasca y a tal efecto propongo que, como primer paso, se haga *una recopilación bibliográfica vasca*.

Teknikoki nola abiatu beharko lukeen azaltzen luzatzen da: fitxategi sintetiko bat egin behar lukeela Allendesalazar, Sorarrain eta Vinsonen obrak jasoz, eta hor erantsi jaso gabe utzi dituztenak edo geroztik argitara emanak. Fitxa ereduak jaso beharko lukeen informazioa ere ematen da. Liburuen

[16] Landaburu, Felix (1917): «Moción proponiendo la creación de una Biblioteca vasca y acuerdo de la Diputación tomando en consideración y pase a informe de la Comisión de Fomento», 1917-07-31.

ondoren aldizkarietan idatzitakoa bildu behar da. Eta hirugarren lekuan paper-sortei heldu behar zaie, ordenatu eta klasifikatzeko.

Hiru eskari egiten ditu segidan:

- Sortu berria den Kultura Batzordeak eskuetan har dezala.
- Gainerako diputazioei ere lankidetza proposatu.
- Bizkaiko Diputazioak har ditzala kostuak bere gain.

Mozioak arrakasta du eskari guztiak onartzen baitzaizkio.

Zer bilakatu den ez dakigu. Gainditua gelditu dela pentsa genezake hilabete beranduago aurkezten baitute bere mozioa Korporazioko buru zen Ramon Sotak eta Manuel Egileor diputatuak. Bigarren proposamen hau osoagoa eta landuagoa da.

Ematen du Estudios Vascos-ekoek lehenbailehen sartu nahi dutela gaia Diputazioan Landabururen eskutik. Ez du mami handirik, eskari nagusiaz gainera. Presaren kontu hori Gonzalez Etxabarrik Odoni aipatzen dio irailean ere: «En cuanto a la Bibliografía, supongo te habrás enterado de la moción o mociones presentadas en esta Diputación de Bizkaya. Queremos que cuando la Comisión de Cultura comience a funcionar Estudios Vascos presente a la Diputación esta labor de Bibliografía lo más adelantada que sea posible».

Ramon Sota eta Manuel Egileorren proposamena[17]

Sota eta Egileorren proposamena askoz landuagoa eta potenteagoa da. Zabalagoa ere bai. Bibliotekak, bibliografia eta artxiboak lantzen ditu.

Hiru alorretan egoera eskasa bainoago tamalgarria da, mozioaren arabera.

---

[17] Sota, Ramon eta Egileor, Manuel (1917): «Moción de los señores Sota y Eguileor, proponiendo el proyecto de organización del Archivo General del Señorío y acuerdo de la Excma. Diputación tomando en consideración y decreto de que pase aquélla a Informe de la Comisión de Fomento», 1917-09-04.

Artxiboak

Artxiboen kasuan, lapurreta, sakabanaketa, utzikeria, horra diagnosia. Salaketa zehatza ere bada Simancasko artxibozain nagusiaren aurka, izen eta guzti: Tomás Gonzálezi salatzen zaio dokumentuak faltsutu izana Euskal Herriaren independentziaren aldeko argudioak ahultzeko asmoz. Hitzez hitz:

> Han sido falsificados importantes documentos referentes a Bizkaya que obraban en el Archivo de Valladolid y en el de Simancas y no por un extraño sino por el Archivero mayor Tomás González y tales documentos así mutilados han sido publicados con el fin de mellar los argumentos sostenedores de la independencia del País Vasco.

Hartu beharreko neurrien artean bi dira nagusi: berrantolaketa edo bateratzea, noski, eta Valladolideko Real Chancillería-n dagoen eta Bizkaiari dagokion Artxiboa Bizkaira ekarraraztea.

Biblioteka

Bigarren puntua Bibliotekari edo bibliotekei buruzkoa da. Bi liburutegi mota bereizten ditu mozioak: bat orokorra, eta herri mailakoa bestea. Orokorraz bakarrik arituko gara hemen.

Egoera kaxkarra omen da, artxiboena baino ere penagarriagoa:

> Si el estado de los Archivos de Bizkaya es deplorable por la cantidad de preciosos documentos perdidos, el estado de las Bibliotecas es mucho más de lamentar.

Frogak?

- «En cuanto a las obras esencialmente euskéricas, no existe una sola Biblioteca completa al alcance del público».
- «Tampoco existe un centro en que puedan consultarse las obras escritas sobre el país vasco por lo menos sin que se noten faltas imperdonables».
- «Las obras escritas por vascos no han merecido que sepamos, la atención de ningún sabio del país, que haya tenido el pensamiento de recogerlas para formar con ellas, si no una biblioteca por lo menos una Bibliografía especial».

Zein da proposamena?

Euskal Herriko (eta bereziki Bizkaiko) Biblioteka Nagusia eratzea.

Nola egin?

- Hasteko, bi liburutegi bateratu beharko lirateke, Sagarminaga Biblioteka eta Villabasorena, Diputaziokoa eta Bilboko Udalarena, hurrenez hurren.
- Eta gero dirua eskuzabal eman: «la formación de una gran Biblioteca es empresa muy costosa y de larga duración y a ella habría de aplicarse en los presupuestos de la Corporación de Bizkaya cuantiosas sumas». Diru horiek liburu zahar eta bitxiak erosten gastatuko lirateke, gerraren koiuntura baliatuz merke baitzeuden. Hori batetik. Baina bestetik eta batez ere, liburutegiak erosten. Balioko liburutegi gisa hurrengo lerroetan aipatzen ditu: Aiala Kantzilerra, Lope Salazar, Vianako Printzea, Oñatiko Unibertsitatekoa, Muxika bilbotarrarena, Peñaflorida eta Mugartiena, Bergarako Biblioteka, Sagarminaga, Leizaga, Zabalbururenak:

> Si todas nuestras Bibliotecas y otras muchas pudieran adquirirse, se habría dado un paso gigantesco en la reconstitución de nuestra personalidad. Porque, es de advertir que cada Biblioteca de las citadas guarda ejemplares únicos de obras referentes al país y sin cuyo conocimiento no existen elementos necesarios de juicio para exponer la historia vasca.

Bibliografia

Bibliografia hertsiki lotua dago bibliotekari, aurretik edo atzetik, prestatzeko izan daiteke edo ondorio.

Hori ere egin gabe dago:

> Está sin hacerse en el País Vasco la Bibliografía vasca, que en nuestro caso, podría ser un razonado catálogo de las obras reunidas en la Biblioteca que se pretende formar o un catálogo anterior a la misma biblioteca, para que sobre él se pudiesen hacer búsquedas y adquisiciones de libros.

> No miramos nosotros pues la labor Bibliográfica por sí sola, estimando tal ciencia por sí; mas deseamos que la Bibliografía vasca, sea un medio, para llegar pronto a la formación de una gran biblioteca.

Bibliografia lanetan ia hutsetik hasi beharra legoke, arestian aipatu dugun moduan, Allendesalazar, Sorarrain eta Vinson bibliografoen lanak nahiko ezdeusak baitira moziogileen iritzian. Euskal Herrian inprimatu diren obren bibliografia ere erantsi beharra legoke, gainera.

Lan bibliografikoa Diputazioko Kultura Batzordeari utzi beharko litzaioke.

Hitzetatik ekintzetara

Mozio honek zerbait originala badu, hauxe da: proiektuak mamitzeko borondatea, hitzetatik ekintzetara igarotzekoa, gauzak egitekoa. Gerorako utzi gabe, gainera.

Gure gaiari zuzen-zuzen dagokionez, akordiorako proposamen hauek azpimarratuko nituzke:

> 4. Que se designe asimismo lugar para dar principio a la Biblioteca del País Vasco y que de no hallarse, se estudie la manera de levantar un nuevo edificio que cumpla con los fines que pretende la Moción.
>
> 5. Que se gestione la reunión de las Bibliotecas mencionadas en el curso del escrito y que se proceda a su urgente traslado.
>
> [...]
>
> 7. Que se designe lugar adecuado para que reunida la Junta de Cultura pueda dar principio a la organización de la Bibliografía Vasca, procurando que sea adjunto a una Biblioteca para facilitar de este modo la mejor marcha de labor tan importante.
>
> [...]
>
> 10. Que se encomiende a la Junta de Cultura la redacción de los Reglamentos pertinentes al desarrollo de las entidades y Centros que

> se mencionan y que son [...] «Reglamento de la Biblioteca del País Vasco» [...] «Reglamento de la Bibliografía vasca» [...]
>
> [...]
>
> 12. Que se nombre un Bibliotecario de la Sección Vasca que [...] ha de dedicarse exclusivamente a la catalogación de documentos existentes en los Archivos de Bilbao, así como también a cualquier otra labor en colecciones de documentos que la Diputación estime de interés para el Señorío.

Ez dugu ikertu eta hurrengo baterako gelditzen da Diputazioan aurkeztutako proiektu biak Comisión de Fomento-n izan zuten harrera, aurrekontuak, etab.

Eta ondoren zer?

1917ko abuztutik abendura bitartean Odon Apraizek Luis Gonzalez Etxabarri eta Julio Urkixorekin dituen gutun harremanen bidez ikusten dugu bibliografia lanak sendo jarraitzen duela, baina 1918ko urtarriletik aurrera ez du beste inorekin proiektuari buruz hitz egiten. Eta Fernando Quadra Salcedok proposamenak zabalduz jarraitzen du. 1918ko *Idearium*-en artikulu bat egiten du euskal historiako hainbat lan berrargitaratzeko premia agertuz. «Plan de una biblioteca vasca» du izena. Sei sailetan banatzen du balizko biblioteka: literatura, zientzia, historia, arte ederrak, euskara (euskal literatura), zuzenbidea. Sail bakoitzean hamabina liburu argitaratzea proposatzen du berak, izen eta guzti. Filologia aparte utzi du oraingoz. Euskal Herriko filosofoen lanak berrinprimatzea ere komeniko litzatekeela bai, baina astiroago pentsatzekoa dela, dio, 60 bat liburu izango bailirateke.

Oñatira begira

Eusko Ikaskuntzako Lehen Biltzarra Oñatin eratzeko lanetan, Bizkaiko Kultura Batzordean bi dimisio gertatu ziren. 1918ko ekainaren 2an Julio Urkixok dimisioa aurkeztu zuen Kultura Batzordeko eta Artxibo eta Biblio-

teka saileko kide moduan. Azken arrazoia bere hitzetan zera da: «... el desencanto sufrido al darme cuenta de que en el congreso de Oñate se iba a organizar la sección vasca relativa a la lengua con mucha menor amplitud que la que hubiera sido posible, dado el estado actual de los estudios euskeralógicos».

Egun bat lehenago Batzordeari berari esandako gauza bertsua idatzi zion Javier Gortazarri: «he lamentado que no se haya dado a la sección relativa a la lengua vasca orientación que, a mi juicio, hubiera contribuido en mayor grado al progreso de los estudios vascos».

Gortazarrek adierazi zionez, baina, erabaki horiek hartu Oñatiko Biltzarrerako batzorde antolatzaileak hartu zituen. Hori jakinda ere Urkixok ez zuen atzera egin.

Dimisio horren atzean egon al zitekeen besterik?

Argi ez badago ere izan daiteke bere iduriz Euskaltzaindiaren sorkuntzako proiektua garrantzitsuagoa zela bibliotekarena baino, eta beharbada bibliotekaren proiektua euskal akademiaren barnean ikusten zuela. Ez dugu aipu edo dokumenturik non Julio Urkixo agertzen den Biblioteka Nagusiaren aldeko, eta Sota eta Egileorrek aurkeztutako mozioan hainbat biblioteka publiko eta pribatu agertzen dira aipatuak, ez ordea Urkixorena. Gero ere, bere heriotzean, bere biblioteka ederra ez zen Bizkaian gelditu. Isiltasun hori ez al da susmagarria?

Bizkaiko Aldundiko Artxibo eta Biblioteka sailean min handia egin zuen Urkixoren dimisioak: «... impresión muy dolorosa [...] ¿no sería absurdo el funcionamiento de una de Archivos y Bibliotecas en Vizcaya, en la que no figurara el nombre de Dn. Julio de Urquijo? El País entero pudiera pedirnos explicaciones a tan evidente anomalía».

Eta zergatik izan ote zitekeen bere buruari galdezka hasten da Sautu, Batzorde osoaren izenean gutunaren egilea, agian Urkixok erantzun dezan: «¿Que en las gestiones de esta Comisión ha visto Vd. torpezas, yerros, orientaciones más o menos *desorientadas*, puntos de vista que, tal vez se apartaban no poco de los suyos, etc. etc.». Horra susmoak. Ez dakigu besterik.

Eta Oñatiko Biltzarra hurbiltzen zegoela beste desadostasun bat ere agertzen zaigu, Fernando Quadrak *El Pueblo Vasco*-ra zuzendutako gutun irekian haserre azaltzen du Bizkaiko Diputazioaren Kultura Batzordea ez delako kontsultatua izan eta Biltzarraren egitaraua prentsaren bidez ezagutu dutelako, eta kontraproposamena egiten du. Adierazgarria izan daiteke esaten duena:

> En el proyecto dado a conocer por la Comisión Ejecutiva se da á nuestro entender muy poca importancia á lo que forma el conjunto de los problemas fundamentales, como son la raza, lengua y literatura, derecho, instituciones políticas, filosofía, historia y se consagran abundantes temas a materias comerciales y sociales de orden demasiado práctico é impropias de un primer congreso de carácter general...

Beraz, euskal kulturako arazoen analisia eskatzen du ezer baino lehenago, eta dimititzen du.

Kultura Batzordea biltzen da ekainean Urkixoren dimisioaren ondoren, eta Eduardo Landetaren zuzendaritzapean, honela osatuta ikusten dugu: Alvaro Gortazar, Jose J. Sautu, Fernando Quadra Salcedo, Karmelo Etxegarai, Pedro Aguado, Jose Maria Arroitajauregi, Tomas Etxebarria eta Jose Urizar.

Baina ez ditugu aurkitu Quadra Salcedoren dimisioaren ondorengo agiriak 1919ko urtarrilaren 29ra arte, hots, Oñatiko Biltzarra bukatu eta lau hilabetera. Zelan erabaki zen Biltzarrean ponentzia bat aurkeztea Biblioteka Nagusia proposatuz? Zer gertatu zen bitartean? Ez dago jakiterik, baina Batzordearen kideengan arreta jartzen badugu eta suposatuz Karmelo Etxegaraik gehiago konpartitzen zuela Urkixoren iritzia besteena baino, argi dago proposamena EAJrena zela. Landaburu sasoi horretan gaixo dago, abuztuaren hasieran hil zen, beraz Sota buru politikoa izango zen eta Eduardo Landeta batzordeburu; beraien erabakia izan zela ondoriozta dezakegu. Tomas Etxebarria izango zen Oñatiko Biltzarrean «Proyecto de creación de una biblioteca exclusivamente vasca»[18] ponentzia aurkeztuko zuena.

---

[18] Etxebarria, Tomas (1919-1920): «Proyecto de creación de una biblioteca exclusivamente vasca», in: *Primer Congreso de Estudios Vascos*, Bilbao, Bilbaína de Artes Gráficas, 672-688.

Tomas Etxebarriaren txostena

Tomas Etxebarriak Oñatiko Biltzarrean aurkeztutako hitzaldian, literatura eta historia erreferentzia ugarirekin Euskal Bibliotekaren beharrizanaz hitz egiten du, eta ematen du Bizkaiko Diputazioaren izenean hitz egiten duela. Eusko Ikaskuntzak ponentzia argitara eman zuenean Etxebarriaren hiru tituluetatik bi Bizkaiko Diputaziokoak ziren, Kultura Batzordekide eta Artxibo eta Biblioteka saileko kide.

Zer proposatzen zuen txostenak?

Euskal Biblioteka bat sortzea, biblioteka etnikoa, berak dioenez, hots, liburutegi nazionala: «Proyecto de creación de una biblioteca exclusivamente vasca». Baina ez inolaz ere «eskailerapeko liburutegia», dio berak: «librería de escalera abajo».

Hiru helburu nagusi aitortzen dizkio Bibliotekari:

1. Geroko gure nortasunaren azterketa historikoetarako abiapuntu izatea.
2. Historia dokumentala, objektiboa, zientifikoa eskura edukitzea.
3. Euskal arazoen inguruan zabaltzen diren hainbeste istilu politiko, gezur, aurreiritzi edo manipulazioen argibidea eskaintzea.

Etxebarriaren proposamenean, euskal bibliografiak, eta hortaz bibliotekak, sei sail izango ditu, ez bat gehiago, ez bat gutxiago:

1. Autore ez euskaldunek gure herri, pertsona, kontu edo erakundeei buruz idatzitako edozein gai.
2. Autore euskaldunek idatzia edozein hizkuntza edo gai erabilita ere.
3. Euskaraz idatzitakoa.
4. Euskal Herriko artxibategietako dokumentuak.
5. Euskal hemerografia.
6. Euskal Herriko inprimategietan argitara emandakoa.

Oñatiraino Euskaltzaindiak eraman zuen bide bertsua zeraman Bibliotekak, gizartean landua, Diputazio(ar)en babesa; baina kontua da Biltzarrean proposamenak ez zuela arrakastarik izan eta Oñatiko Biltzarraren ondorioetan ez dagoela proiektuari buruzko aipurik, 15 ondorioetatik bat bakarra ere ez.

Hamar bat urte lehenago Katalunian zer gertatu zen begiratuta ere harrigarri gertatzen da: hango Institut d'Estudis Catalans da hemengo Eusko Ikaskuntza, hango Secció Filològica da hemengo Euskaltzaindia, eta hango Biblioteca de Catalunyak, ordea, ez du hemen parekorik. Aukera galdutzat ez ote da hartu behar? Testuinguru aproposa zitekeen Oñatiko hura, bai.

Ez du ematen, hortaz, Bibliotekaren ikuspegi nazionalak jarraipenik izan duenik, ez Bizkaian ez inon. Nahiz eta kontrakoa iradokitzen duten bai Idoia Estornes Lasak eta Grupo de Biblioteca Vasca delakoak. Idoia Estornesek dio Eusko Ikaskuntzako liburutegiak Kataluniakoa lukeela eredu. Eta Eusko Ikaskuntzako liburutegia iruditzen zaio aipatu taldeari euskal ikasketen eredu historikorik argiena.

Hurbilagotik ikusita, ordea, 1926 arte behintzat, ez du ematen Tomas Etxebarriak egin zuen proposamenaren arabera diseinatu zenik. Gehiago doake Karmelo Etxegarairen proposamenaren ildotik.

1923ko otsailaren 12an, hau da, Bizkaikoak huts egin eta gero, Angel Apraizek mozio bat aurkezten du Eusko Ikaskuntzan: «Biblioteca Vasca. Moción para adquisición, depósito y circulación de libros». Batzorde iraunkorrak onartu egiten du eta bazkideei eskatzen zaie erabilera. Hurrengo hiru urteetan berri laburren bidez jakin daiteke osatzen ari dela liburutegia, eta 1924an aipatzen da «aldizkarietan berezituriko biblioteka». Denbora horretan guztian ez da diru askorik inbertitzen bibliotekarako eta, aldiz, liburuak doan eskaintzeko eskatzen da. 1925ean, hori bai, Gipuzkoako Diputazioak deposituan uzten dio Eusko Ikaskuntzari Aizkibelen liburutegia bere 3.500 libururekin.

Eta nor zen Tomas Etxebarria?

Tomas Etxebarria Maurolagoitia Meñakan jaio zen 1878an eta Castro Urdialesen hil 1950ean. Klaretarra zen: 12 urterekin joan zen Balmasedako

seminariora, ondoren Cervera eta Santo Domingo de la Calzadara. 1907an Bilbon aurkitzen dugu, 1922an Balmasedan, gero Getxon (Algorta auzunea). Eta gerra zibiletik aurrera Euskal Herritik kanpo bizi izan da: 1937an Zamoran dago, gero Ferrolen, Salamancan eta Castro Urdialesen azkenean.

Zazpi-zortzi urtez, 1918tik 1925era, Bizkaiko Diputazioko Kultura Batzordeko Artxibo eta Biblioteka saileko kide izan da.

Ez du ematen euskaltzale sutsu-sutsua zenik, euskara beharbada galdu egin zuen, landu ez behinik behin. Bera ere Enkarterrietan bizi izana, sutsuki defenditzen du enkarterriarra zen Antonio Truebaren abertzaletasun «enkarterriarra», nolabait esan. Trueba, bere esanetan, «euskal esentzien jabea» zen eta euskal izate horren «ereile probidentziala». Nola idatzi behar zuen, hortaz, erdaraz ez bada?: «Y, ¿en qué idioma pensáis que debía –debía– vaciar para eso sus exquisitos pensares y sentires? ¿En el nuestro, que escasamente lo conocen medio millón de hombres, o en el oficial de España, que era común a sesenta millones de inteligencias?». Artikuluaren izenburua ere adierazgarria da oso: «Patriotismo de alta ley».[19] Enkarterrietako Antonio Truebaren patriotismoa, noski. Bi euskaldun mota bereizten ditu Etxebarriak: «vasco euskeldun» eta «vasco encartado», euskaraduna bata eta bestea ez.

Historiaren Akademia vs Euskararen Akademia?

«Nuestras Academias» izenburuarekin *Hermes* aldizkarian 1919an argitara eman zuen idazlana[20] alde askotatik da adierazgarria, lehentasunak non dauzkan eta liburutegia non kokatzen duen argitzen baitigu. Euskaltzaindiaren sorrerak ekarri zuen euforia lekuz kanpokoa iruditzen zaio, eta egitasmoa bera ere ez guztiz eraginkorra, antza denez. Ohartzekoa da darabilen hizkera: «regocijo infantil», «ideita»... Hori bateko. Eta besteko, Euskararen Akademia baino garrantzitsuagoa da harentzat Historiaren Akademia. Iritzi edo sentsibilitate honetan bat etor zitezkeen beste asko, hain

[19] Etxebarria, Tomas (1920): «Patriotismo de alta ley», *Hermes*, 1920 (IV), 115-119.

[20] Etxebarria, Tomas (1919): «Nuestras Academias», *Hermes*, 1919 (III), 471-472.

zuzen ere bibliografia eta biblioteka proiektuetan zebiltzanak. Hala dio Etxebarriak berak, euskal ikasketetan zebiltzan asko bat letozkeela ikuspuntu horretan.

Etxebarriak bibliografia edo biblioteka aldarrikatzen duenean historiaren baitan egiten du, ez euskalgintzaren esparruan. Bibliografiak edo bibliotekak azken batean biltzen duena historia da.

Artikulu osoa da adierazgarria, baina gure gaiari dagozkion zatirik mamitsuenak bakarrik bilduko ditugu:

> Meses atrás comunicaba la prensa vasca, henchida de regocijo infantil, que *al fin*, había podido crearse en nuestro país –de cultura más orgánica que funcional, por lo visto– la tan suspirada Academia del idioma euzkaro.
>
> No sin razón hemos subrayado la frase «al fin», porque no es nada, efectivamente, lo que en estos últimos años se venía trabajando para sacar a flote y hacer que prosperase la tal ideita.
>
> Concretándonos, por ahora, a lo que se adujo a favor y en contra de la recién nacida corporación en el ya famoso Congreso de Oñate, no podrá olvidar el lector (si a él asistió en calidad de curioso) la cantidad de pólvora que allí se gastó de una y otra parte, no sin que hubiera momentos en la desaforada contienda adonde los profanos no acertábamos a ver con diafanidad el que todas aquellas batallas se dieran precisamente en nombre de la difusión y mejoramiento de nuestra milenaria lengua.
>
> Una sola cosa pudimos sacar en limpio de tan potente y copiosa argumentación: la conveniencia y aun necesidad de la mentada Academia al objeto de unificar el euzkera literario, y eso en la creencia de que seguiríase a la aparición de dicha junta de inmortales una crecida pléyade de escritores vascos capaces de dar esplendor y popularidad a su magnífico idioma. [...]
>
> Empero no todo (ni siquiera lo principal acaso) está hecho y logrado entre nosotros con que tengamos ya una institución flamante, oficialmente encargada de meter en cauce desbordamientos idiomáticos que no parecen de ningún lado por ahora. [...]

> Para nosotros –y en esta palabra va comprendida una legión de estudiosos vascos– tanta o mayor falta aún que la Academia de la Lengua Vasca, hacía la de una Academia de la Historia Vasca, cuyo instituto fuera investigar, ordenar, aprovechar, popularizar [...] los instrumentos diversos de nuestro pasado gloriosísimo, y así documentalmente recogido todo ello, legarlo a la curiosidad de las generaciones venideras para que servirles pueda tan preciada herencia de orgullo legítimo, al par que de ejemplaridad generosa. [...]
>
> Termino. Poseemos un pasado gloriosísimo. No podemos «continuar» esa historia sin primero conocerla. Si queremos hacerla llegar a la conciencia de nuestro pueblo y que otra vez se incorpore al torrente circulatorio de su sangre, preciso es redimirla del polvo de los archivos carcomidos en que desaparece. En suma: para hacer de ella una cosa orgánica, animada, turgente, no hay más remedio que ponerla al amparo feliz, bajo el cultivo cariñoso de una institución *ad hoc*, de una Academia de la Historia.

Bistan da Tomas Etxebarriarentzat non kokatzen diren bibliografia eta biblioteka: historiografian, ez euskalgintzan.

Juan Allendesalazar

Angel Allendesalazarren semeak, Juanek, nolabait aitaren segida hartuz lantzen ari den lan baten primizia eskaintzen du Oñatiko Biltzarrean: «Notas para la historia de la imprenta en el País Vasco Navarro». Dioenez, ordura arteko informazio kopurua erruz gainditu du dagoeneko lurraldez lurralde egin duen ikerketan. Informazio gehiena Nafarroakoa du, inprimategiaren historiaren lekuko: 1.700 fitxa; Bilbo dator gero 1.400 fitxarekin. Gipuzkoan 1.000 fitxa bildu ditu eta Gasteizen 600. Ia bost mila fitxa guztira, baina bere asmoa harago doa: data horretan jada bilduta dauzka 9.942 liburu eta autore, eta horien biobibliografia idazteko asmoa agertzen du, baina zoritxarrez bukatu gabe utzi omen zuen egitasmoa.

Juan Allendesalazarren lanari zegozkiokeen ondorioak ere ez dira jasotzen Biltzarrean.

Karmelo Etxegarairen txostena[21]

Biltzarra ospatzen denerako Felix Landaburu proiektuaren bultzatzaile nagusia hilda zegoen eta Ramon Sota da Kultura Batzordeko Artxibo eta Biblioteka sailaren buru. 1919ko urtarrilaren 19ko bileran erabakitzen dute bokalek euskaldunak izan beharko dutela, jarraitzen dute liburuak erosten, Martin Azpilikuetaren *Enchiridion*, 12 inkunable..., eta abenduan eraikuntza berri bat egiteko proposamena onartzen dute: «Vista la moción del Sr. diputado D. Jesús Rodríguez Villachica relativa a la reorganización de la Biblioteca de la Corporación, informar a ésta que antes de acometer la reglamentación de dicho Servicio es preciso destinarle un local más adecuado fuera del Palacio de la Excma. Diputación». Juan Gallano eta Crescencio Gardezabal (Gorte frankistetako idazkari izan zena) agertzen dira agiriaren sinatzaile.

1919ko maiatzean Ramon Sotak diputazioburu kargua utzi egiten du.

1920tik aurrera ez da berriz «Biblioteca Vasca» terminoa agertzen, eta badirudi proiektua itzalduz doala. Quadra Salcedo, bokala zena, apirilean kargua uztera behartzen dute Filosofia eta Letretako lizentzia ez zuela-eta (nahiz eta Zuzenbidean doktore izan eta liburuaren munduan aditua), eta haren ordez Guiard, Areitio, Etxegarai eta Irigoien izendatzen dira; eta uztailaren 9ko agirian hau irakur dezakegu:

> ... Comisión designada para la reorganización del archivo y biblioteca [...]. Queda enterada de las contestaciones recibidas del Sr. Director de la Biblioteca Nacional, y de los señores Cónsules de los Estados Unidos, Francia, Suecia, y Alemania [...] sobre la organización de bibliotecas y archivos en sus respectivos países. Quedó determinado que lo que se pretende constituir es un Museo biblioteca, descompuesto en una Sección Popular, otra exclusivamente vascongada y otra de carácter general. Se encomendó a D. Carmelo Echegaray el encargo de redactar un proyecto de reorganización del archivo y biblioteca...

[21] Etxegarai, Karmelo (1920): «[Informe de Dn. Carmelo de Echegaray acerca de la reorganización de Archivos y Bibliotecas]», 1920-08-31.

Ikusten dugu munduko hainbat herritako ordezkariek iritzia ematen dutela Biblioteka Nagusia sortzeari buruz, eta suposatu behar dugu aldeko agertuko zirela. Baina Karmelo Etxegarairi eskatzen zaio iritzia, eta Oñatiko Biltzarrean ez bazuen pausorik eman Biblioteka eta Bibliografia bultzatzeko, espero izatekoa zen ez zuela alde egingo.

1920ko abuztuaren 31ko batzarrean aurkezten du Etxegaraik bere iritzia. Landaburu, Sota eta Egileorren proiektuak ez dira kontuan hartu, aipatu ere ez dira egiten. Hau da laburbilduz bere proposamena:

> El informe de D. Carmelo Echegaray acerca de la reorganización de Archivos y Bibliotecas comprende las siguientes conclusiones. La biblioteca se dividirá en dos grandes secciones, instaladas en locales separados: una de ellas de vulgarización y de recreo, que formará la Biblioteca popular y servirá para toda clase de lectores, y otra, que pudiera denominarse museo bibliográfico, en que se custodiarán las obras que hayan de servir a investigadores y especialistas. [...] la dirección de la Biblioteca será única [...] único será también el Archivo...

Txostenean esaten du bizkaitarren zerbitzura egon behar duela liburutegiak. Tomas Etxebarriak jarraitzen du Batzordeko partaide izaten, baina ez dirudi aurretiaz berak aurkeztutako iritzia kontuan izan dutenik.

Hurrengo urteetako aldaketa politikoek ez zuten lagundu gaia bideratzen, eta 1925eko azaroaren 4ko agirian «Biblioteca provincial»-aren antolakuntzaz hitz egiten dute:

> III. Se procederá también a la reorganización de la biblioteca entendiéndose en ella con preferencia a las obras referentes a la Provincia o publicadas en todas las épocas por sus hijos.

Ibilian-ibilian, agintea galdu eta ez luzarora, Euskal Herrikoa izatetik Bizkaikoa izatera lerratzen da Biblioteka, zoritxarrez. Karmelo Etxegarairen eskutik?

4. **Frankismoan eta autonomi garaian**

4.1. **Bibliografiak**

Hiru bibliografo bakarrik azalduko ditut espresuki, eta horietako bat neure burua (barka!). Baina badira gehiago. Iparraldean aipatzekoak dira Du-

ceré eta Desgraves, batez ere hau. Duceré Baionako gaiekin ibili zen gehienbat historia aldetik.

Desgraves, Bordeleko bibliotekaria, bibliografian eta liburuaren gaian zen aditua. Bordele eta Akitaniako gaiak aztertu ohi zituen sarri, inprimatze eta edizio zentroak, adibidez.

Hegoaldean Bitaño eta Juan San Martin aipatu behar. Bitañok 50eko erditik aurreragoko liburu ekoizpenaren berri eman zuen urte batzuetan, fitxaz fitxa. Juan San Martinek, honek ere hutsunea nolabait bete nahian, Gipuzkoako *Hoja del Lunes*-en argitaratzen zituen urteko liburuen erreferentziak 70eko hamarkadaren hasieran.

Juan San Martin aipatu beharrekoagoa da beste lan bategatik: 1968an argitara eman zuen euskal idazleen liburu biobibliografiko bat: *Escritores euskéricos (catálogo bio-bibliográfico de escritores contemporáneos en vascuence)*.

Azkenik, esan behar da bibliografia kontutan unibertsitatean atalkako bibliografia mamitsuak daudela, esaterako, historian eta geografian.

Jon Bilbao (1914-1994)

• Jon Bilbao ez zen bibliografo jaio. Bilakatu egin zen lanaren poderioz.

Ikasketetako premiei erantzunez hasi zen lanbidean. Gero gerokoak:

> Pero yo, en aquel entonces no pretendía ser bibliógrafo. Solamente quería hacer un listado que sirviera de algo a los estudiosos en materias vascas. [...] Pero mi labor bibliográfica se ceñía a mis aficiones personales: Historia, Etnografía y Lingüística.
>
> [...]
>
> Comencé este trabajo como base necesaria a mi disertación doctoral en la Universidad de Columbia en Nueva York. Creí en un principio que no resultaría muy dificultoso el ampliar a una bibliografía general vasca el material que había recogido en las disciplinas que me interesaban: historia, arqueología, lingüística y antropología especialmente. Por ello, una vez terminados mis estudios de doctorado, decidí dedicar los tres o cuatro años siguientes a la recogida

> sistemática de citas bibliográficas relacionadas con temas vascos. Me incitaba a ello el deseo de liberar al estudiante de esa primera investigación bibliográfica necesaria a todo trabajo serio. Pero no calculé bien el tiempo y los años resultaron quinquenios.[22]

- Jon Bilbaok ez du bibliografia nazionala egin nahi, euskal ikasketen bibliografia baizik:

> He insistido mucho en que mi bibliografía es una bibliografía de estudios vascos. No es una Bibliografía Nacional Vasca. Una Bibliografía Nacional Vasca recogería todo lo publicado en el País Vasco, o mejor dicho, todo lo impreso en el País Vasco aunque fuera una enciclopedia china en inglés.

Jon Bilbaok batasun berean sartzen ditu liburuak eta aldizkariak:

> Desde el primer momento era claro para mí que no se podía hacer distinción bibliográfica entre libros y artículos. Era necesario hacer un solo corpus de referencias si lo que se pretendía era dar información sobre temas vascos.

Jon Bilbaok sistematikoki bildu duena euskal gaia da, Euskal Herriari edo herri honetako edozein ikuspegiri buruz idatzitakoa. Ez, ordea, euskal autoreek bestelako gaiez idatzi dutena, ez eta Euskal Herrian inprimatu dena:

> En los primeros volúmenes de Eusko Bibliographia publicadas anteriormente, no siempre se recogieron obras de autores vascos que se refieran a temas no vascos. En el suplemento 1976-1980 (y en el de 1981-1985) he intentado corregir este error de apreciación, aunque me temo que no siempre con éxito.

- Zenbat aipu liburuenak eta zenbat bestelakoak?

1989an honela zioen berak:

> ... en Eusko Bibliographia los libros no llegan al diez por ciento de las referencias bibliográficas que aparecen en los trece volúmenes

[22] Moreno, Luis (1996): «Jon Bilbaoren Eusko Bibliographia. Herriarenganako bizi konpromezua», in Jon Bilbao: *Eusko Bibliographia 1981-1985. I. bol. A-B*, Luis Moreno eta Julia Suárez (zuz.), Bilbo, EHUko Argitalpen Zerbitzua, IL-LXXV.

> publicados hasta ahora. El resto son artículos de revistas. Yo no he contado el total de las referencias que doy, pero es posible que no ande lejos del medio millón el conjunto de revistas procesadas.

Eta guztira, Luis Morenori sinestekotan, beste hainbeste: «horra 1986-1994ko epeari buruz bildutako informazioa: *Eusko Bibliographia*ren lehenbiziko hamairu liburukietan argitaratutakoa adinakoa da informazioa hori».[23] Hortaz, guztira milioi bat erreferentzia izango lituzke Jon Bilbaoren obrak.

Elias Amezaga (1921-2008)

- Bibliografia lanarekin hasi eta handik 25 urtera honela gogoratzen ditu egun haiek Elias Amezagak:

> Venía observando de tiempo atrás que existían colecciones de autores aragoneses o catalanes o madrileños. ¿Es que los vascos no escribían? ¿Habría que darle la razón a Tirso de Molina de que fueran cortos en palabras, pero en obras largos? [...]
>
> No soy bibliógrafo de profesión. Pero me propongo a mi manera y con mi propia dinámica llenar tal laguna hasta donde me sea humanamente posible. En efecto, en los años setenta se cuenta con menos y peor instrumental para obtener resultados rápidos y maquinalmente sujetos a mínimos errores.[24]

Bi helburu erdiesteko abiatu omen zuen lana: bere herria ezagutzera emateko; eta bi, ekintza abertzale gisa («acción patriótica») bere hoberena herrikideei eskaintzearren.

Amezagak, helburu klasikoaz gainera, apologetiko-dialektikoa ere badu: Tirso de Molinaren aurka ari da:

> Han escrito mucho y de las más variadas disciplinas. No fueron los bárbaros que se nos decía. Ni los mudos que nos vió Tirso de Molina con muy buena voluntad. Oteiza indignado, con esas sus dos

---

[23] Moreno, Luis: *op. cit.*

[24] Amezaga, Elias (1987): «Epílogo», in *Autores vascos X*, Getxo (Algorta auzunea), Hilargi.

> o tres voces, los mil ecos que le rebotan dentro, da cuenta de que se le engaña para manejarle. «Eres corto en palabras (no estudies) puedes estar orgulloso (yo me aprovecho) de lo que trabajas (como un burro, para mí). Cuando un pueblo acepta complacido y repite esta definición miserable, es porque ya no tiene poetas que le descubran el valor de las palabras».
>
> Me sumo a su opinión. Que se cense a otros pequeños pueblos del área, de Holanda o Bélgica, por ejemplo, libres e independientes, y a ver si han escrito más que nosotros. Lo dudo.[25]

- Amezaga Madrilen hasi zen informazio bila: San Lorenzo del Escorialen, Biblioteka Nazionalean, bertako hemerotekan, liburutegi munizipalean, akademietan; gero Euskal Herriko liburutegi eta hemeroteketan jarraitu zuen; Parisera igo zen.

Amezagak euskal autoreen obrak bildu nahi zituen, edozein zelarik gaia. Autoreen euskalduntasuna ere oso zentzu zabalean hartuta, hemen jaioak eta bertora etorriak. Jon Bilbaoren bibliografiarekin alderatuta honela dio:

> ... su monumental *Eusko Bibliographia* [...] da cuenta de todo aquello que se ha escrito sobre el País, a diferencia de mi obra que era la nómina de los escritores vascos con su biografía y bibliografía, escribieran sobre el tema que se les ocurriera, de suerte que el término autores abarcara mucho más que la literatura, es decir, la cultura en general. [...] ampliar el concepto a los que sin haber nacido entre nosotros trabajaron y crearon aquí.[26]

Aukera mugatzaile handiak dauzka Amezagaren obra honek: euskal literaturako autoreak ez dira agertzen gehienetan, erdaraz lanik ez badute. Iparraldeko autore euskaldunek idatzi dutenik ez da azaltzen. Modu bitxi batean azaltzen du berak, Jon Bilbaoren obran hizkuntza guztiak agertzen direla esatean: «aquí de momento en español, después vendrán si Dios me da fuerzas el euskera y francés, tarea ésta última más liviana pero que hay que llegar hasta ahí». Hortaz, lan honen titulua hobeki zitekeen aurreko lanei eman zienaren antzekoa: Autores vascos que escribieron en castellano.

---

[25] Amezaga, Elias (1984): «Para tí», in *Autores vascos I*, Bilbo, Gorka.

[26] Amezaga, Elias (1987): «Epílogo», in *Autores vascos* X, Getxo (Algorta auzunea), Hilargi.

Bildu duena ez da liburua soilki, ez da egunkarietako artikulua bakarrik, baizik eta baita ere hainbat antzerki eskuizkribu, tesi eta tesina ugari eta eskuizkribuzko dokumentuak ere.

Jon Bilbaok *Autores vascos* bildumaren lehen liburuari egin zion sarreran, agian honi egin zion erreferentzia anabasa aipatuz:

> El resultado de todo ello es la enorme acumulación de datos bibliográficos que nos regala ahora Amézaga, quizá no siempre presentados con el detalle y la sistematización que algunos desearían, pero esto es cuestión de opinión.

- Eliasen lan bibliografiko nagusia *Autores vascos*-en bildutakoa da. Hamar liburu publikatu zituen 1984tik 1987ra.

12.350 sarrera edo autore agertzen dira obran bertan, eta bukaerako aurkibidean 100 gutxiago. Uste izatekoa da 12.250 autoretako hau dela zerrenda definitiboa, berak dioenez hainbat egile errepikaturik agertzen baita lanean. Lanean zehar aipatzen diren liburu eta artikuluak 250.000 bat omen dira.

Joan Mari Torrealdai

- Mila aldiz azaldu dut nola hasi nintzen bibliografia lanetan. Ez bibliografo moduan, baizik eta soziologia lana osatzeko material bila. Gero *Euskal idazleak, gaur* bihurtuko zen liburuaren aurreko lanean du jatorria historiak. Parisen soziologia karrera amaitzean tesina egin beharra nuen, eta 1936 ondoko euskal idazleen produkzioa aztertzea aukeratu nuen. Alderdi kuantitatibo eta kualitatibotan, hau da, zenbat eman zuten argitara eta zer. Gaien azterketak tentatzen edo erakartzen ninduen batez ere. Ez nuen informaziorik ordea, ez zegoen informaziorik, Bitañok eta Juan San Martinek egindako zerrenda gutxi batzuez landa. Bibliotekak eta aldizkariak arakatuz neu hasi nintzen zerrendak osatzen, oinarrizko fitxa bibliografikoa osatuz, ISBNk antolatzen duen arabera.

Azterketa argitaratzean (*Euskal idazleak, gaur*) liburu zerrenda ere argitara eman nuen, liburuaren azken aldean. Geroztik ibaian gora eta behera

osatuz joan naiz. Urteroko ekoizpen bibliografikoa bilduz joan naiz. Eta Gipuzkoako Aldundiak aukera emanda, XX. mende osoa biltzeko saioa egin nuen *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa* argitaratuz. Presakako lana izaki, akatsak ez dira falta bertan, nahiz eta gerora ohar bidez liburuxka osagarrietan zuzenduz joan naizen.

Gaur ere, jada 33 urte, langintza berean jarraitzen dut, Biblioteka Nazionala etorri arte, agian. Gaur ez bada bihar, agindu nuena betetze aldera, Liburuaren Behatokia antolatu nahi nuke, liburuaren ekoizpenari, bizitza sozialari eta etorkizunari begira sortzen diren gaiei buruz sakontzeko, eta liburuaren gaia sozializatzeko, animatzeko. Behatoki hau ere Biblioteka Nazionalaren egitekoa litzateke.

- Informazioa bildu eta jorratzeko sistema urteotan berbera izan bada ere, hobetuz edo finduz joan gara. Honela nioen 2007an:

> Informazioa lortzeko, bide desberdinez baliatu ohi naiz. Oinarrizko informazio-iturria argitaratzaileek berek ematen didatena da: batzuek liburuak materialki bulegoan gure esku uzten dituzte, eta besteek fitxa bibliografikoak osatzen dizkigute. Horrela eskuratzen dugu informazio gehiena, eta informazio hori argitu/garbitu/kontrastatu/osatu egin behar da gero, eta kontraste horretarako daude hainbat liburutegi lagun, liburu-zerbitzuak eta ISBN agentziako fitxategiak.[27]

- Datu basean dago informazio hau, 45.786 fitxa bibliografiko (lehen argitalpenak, 30.482 titulu), 2007. urtea barne, eta Jakinen webgunean eskuragarri (www.jakingunea.com). Liburuak eta liburuskak dira bildurikoak, euskarazkoak eta elebidunak, 1972tik hona ISBNdunak gehien-gehienak baina bestelako batzuk ere bai.

4.2. **Biblioteka Nazionalaren bide luzea**

Biblioteka nagusi horri Nazionala deitu? Hala izendatuko nuke nire ikuspuntutik, baina hori traba balitz berdin litzaidake Nagusia deituta, edota

[27] Torrealdai, Joan Mari (2007): «Euskal liburugintza 2005», *Jakin* 158, 11-50.

duela 90 urteko modu berean EUSKAL BIBLIOTEKA izendatuta. Nominalismotan denbora galdu gabe. Ingelesek «British Library» eta alemanek «Deutsche Bibliothek» deitzen diete berenei. Guk «Euskal Biblioteka» zergatik ez? Izana bermatuz gero...

Eraikin fisikoa bai ala ez, horra beste eztabaidagaia. Guggenheim moduko biblioteka-eraikuntza baten aldekoa izan daiteke bat, Ramon Sotak 1917an planteatu zuen bezala. Koldo Mitxelena Kulturunea ez dakit egokia den, nahikoa den. Baina bada. Kultura batek behar du alderdi materiala, nortasunaren sinboloa. Izateaz gainera adierazi ere egin behar da. Iraganekoa dela esanez eraikinari uko egiten diotenek gogoratu beharko lukete 1994an Mitterrandek «Bibliothèque Nationale de France» Tolbiac-en eraiki zuela, sekulako eraikina. Hamarkada berean kokatu zela British Library Saint Pancras-en. Hamarkada berean sortu zirela Aljeriako Biblioteka Nazionala edo Estoniakoa.

Quebec kultur eredutzat maiz hartu izan da gure artean. Herri honek 1967an sortua du Biblioteka, eta 1997an eraikin berria egin zioten. Are gehiago: «La Grande Bibliothèque du Québec» zena 2001ez geroztik «Bibliothèque Nationale du Québec» da. Berriz ere eredu.

Bestalde, herri baten nortasunaren sinboloa liburutegia baden edo ez galdetu Bagdaden edo Sarajevon espresuki bonbardatu zutenei. Sarajevon bi milioi liburu erre ziren 1992an, bai, baina ikur bat txikitu ere bai. 2003ko apirilaren 14an Bagdadeko Biblioteka sutan jarri eta arpilatu zutenean, milioi bat liburu, dokumentu eta bestelako milaka altxor galdu omen ziren betiko, bai, baina horrezaz gainera irakiarren harrotasun sinboloa, Biblioteka.

Gernikako arbola gure askatasunen ikur baldin bada, Euskal Biblioteka izan daiteke gure kulturarena (ez etnikoarena bakarrik, gainera).

2008ko apirilean jakin genuen Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegian kokatzen zela Euskadiko Biblioteka. Hiriburu bereko Tabakaleran kokatzekoa zen, 5.000 metro gorderik omen zeuden horretarako, orain Koldo Mitxelena Kulturunera dator ustekabean. Izen berria: Koldo Mitxelena Euskadiko Liburutegia.

Eusko Jaurlaritzaren atzerapena

Atzerapena ulertzeko arrazoi bat baino gehiago eman izan da.

Bat, Eusko Jaurlaritzak hasiera hartan ez zuela Biblioteka lehenetsi. Lehentasunetan sartu ziren EITB eta Euskadiko Orkestra, baina Biblioteka ez.

Eta gero, barne zatiketa administratiboa. Zatiketa administratiboaz hitz egitean maiz edo beti, ezina adierazteko, EAE, Nafarroa eta Iparraldeko administrazioen zatiketa aipatu ohi da. Eta gutxiagotan barnekoa, lurralde historikoena. Biblioteken antolaketan eragin handia izan du. 1982an Eusko Jaurlaritzak OBE (Organización Bibliotecaria de Euskadi) legea onartu bazuen ere, hurrengo urtean Lurralde Historikoen Legeak eskumenak aldundien esku utzi zituen. Urte asko geroago berreskuratu ditu eskumenak Eusko Jaurlaritzak. 1990 urtera arte ez da onartzen Euskal Kultur Ondarearen legea.

Baina 2007ko legeak (11/2007), Kulturaren Euskal Planaren baitan landuak, jauzi kualitatiboa dakar, nola mamituko den ez badakigu ere. Hona Euskadiko Liburutegiaren egitekoak:

1. Euskadiko Liburutegiak eginkizun hauek izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan:

   a) Euskadin eta euskararen hizkuntza-esparruan argitaratu edo ekoitzitako lan guztiak eta euskararekin edo euskal kulturarekin erlazionatutakoak bildu, kontserbatu eta zabaltzea.– Helburu hori lortzeko, Euskadiko bibliografia-gordailuaren jasotzaile izango da, eta bide horretatik heltzen ez zaizkion bibliografia-lanak, berriz, berak eskuratuko ditu.

   b) Euskal bibliografia-ondarea eskuratu, kontserbatu eta zabaltzeko, erakundeen arteko koordinazioa sustatzea.

   c) Euskal ondare digitala sortu, babestu eta zabaltzeko eta ondare horretarako irispidea bermatzeko mekanismo egokiak jartzea.

   d) Ondare digitalaren alorrean lankidetza-programak sustatzea.

   e) Euskal bibliografia egin, kudeatu eta zabaltzea, beste erakunde batzuekin batera.

f) Beste erakunde batzuekin batera, ahaleginak egitea euskal bibliografia-ondarea kontserba dadin, ondare horren euskarria dena dela.

g) Bibliografia-ondarearen katalogo kolektiboa egitea, Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen sailarekin batera.

h) Euskadiko bibliografia-ondarea babesteko laguntza-zerbitzuak ematea, bereziki zaharberritzeko, erreproduzitzeko eta bikoiztuta dauden edo sobera diren lanak kudeatzeko zerbitzuak.

i) Beste euskal liburutegietatik datozen funtsen gordetzaile izatea.

j) Beste dokumentu-sistema batzuekin lankidetzan arituz, liburutegi- eta dokumentu-teknikei buruzko ikerketen aitzindari izatea.

k) Euskal bibliografia-ondarea sustatzea, beraren bibliografia- eta dokumentu-funtsa osatzen duten materialen ikerketa, kontsulta, azterketa eta erreprodukzioaren bidez.

2. Euskadiko Liburutegiak nazioarteko bibliografia-arauak edota informazioa kudeatzeko bestelako estandarrak egokituko ditu, eta, hala badagokio, Euskadiko Liburutegi Sistema osorako katalogazio-arauak egingo ditu. Era berean, autoritateen katalogoa ikuskatu, baliozkotu eta zerrenda bakarrean bateratuko du.

3. Euskadiko Liburutegiak katalogoetan, argitalpenetan eta beraren jardueren zabalkundean elebitasuna kontuan har dadin bermatuko du.[28]

Ez da zalantzarik: legeak Euskadiko Bibliotekari egozten dizkion funtzio guztiok tertzioz betez gero, sekulako aurrerapausoa lekarkioke bibliografiari eta euskal bibliotekari. Urte batzuk lehenago Pruden Gartziak biblioteka nazionalaz argitaratu zuen artikulu batean zioenez, hemen ere «borondatea da gakoa».

---

[28] 11/2007 Legea, urriaren 26koa, Euskadiko Liburutegiei buruzkoa, 29. artikulua (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2007-11-19).

Literatura gutxitxo sortu du lege honetatik eratorri den Euskadiko Bibliotekak. Ez dakigu zergatik. Izenagatik akaso? Biblioteka «nazional» gisa lantzen da egitasmoa Kulturaren Euskal Planean, eta Legebiltzarreko areto nagusira ere horrela sartu zen, izendapen horrekintxe, baina handik «soildua» atera zen: Euskadiko Biblioteka. Kokaguneagatik? Hasiera batean Donostiako Tabakaleran behar zuen kokatu; baina gero, ustekabean, Koldo Mitxelena hobetsi zen. Orain Koldo Mitxelena Euskadiko Liburutegia du izen ofiziala. Bietan espazio urriegia kritikatu dute batzuek. Berandu etorri delako? Espainiako Estatuko erkidegoekin alderatuta oso berantiarra da EAEkoa, eta gainera hirukoaren gobernualdiaren azken aldian erabakia.

Honegatik edo hargatik, nabarmen agertzen da erabakiak zein txalo eta ilusio gutxi sortu zuen inguruan. Ez dakit egitasmoak, gauzatu den bezala, sinesgarritasunik ez duelako ala ilusionatzeko gaitasunaren giharra guztiz ahuldua daukagulako.

Eusko Legebiltzarraren kezkatik[29]

Atzerapena dela eta, plangintzarik eza eta koordinaziorik eza salatzen da sarri.

Egoeraren aurrean kezkatuta, Eusko Legebiltzarrak 1989an dei bat egiten die hainbat liburutegiri. Horrela eratzen da «Grupo de Biblioteca Vasca» deritzana. Bertan daude: Parlamentuko Bibliotekarekin batera Deustuko Unibertsitatekoa, Lazkaoko Beneditarrena, Gasteizko Sancho el Sabio Fundazioa. Eta erretiratu zen arte, Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka. Talde honek Euskal Biblioteka egin behar dela esanez amaitzen du: «Es hora de llevar definitivamente a la práctica esta idea de Biblioteca Vasca que hemos querido definir aquí».

Taldearen txostena Sancho el Sabio Fundazioaren aldizkarian eman zen argitara 1992an. Gogoeta historikoak hartzen du txostenaren zati nagusia.

---

[29] Grupo de Biblioteca Vasca (1992): «La Biblioteca Vasca», *Sancho el Sabio. Revista de cultura e investigación científica* 2, 333-343.

Ondoren dator Bibliotekaren definizioa, hobe esan, denominazioa, eta amaitze aldera, liburutegiaren esparruak nolakoa beharko lukeen, adibide eta guzti, bai geografikoak eta bai tematikoak.

Esparru geografikoa Garonatik Ebrora zabaltzen da.

Biltzekoak diren materialetan hamaika mota hauek bereizten dituzte:

1. Marco físico, es decir, suelo, paisaje, donde ha vivido el hombre vasco.
2. El hombre vasco (en cuanto pueblo), desde el punto de vista físico, espiritual o psicológico.
3. Todas las manifestaciones de la cultura vasca (literatura, artes plásticas, artes aplicadas, música, danza, religión, política, lengua, economía, sociología, leyes, instituciones...) tanto en Euskal Herria como fuera de ella.
4. Historia del pueblo vasco, así como la participación de éste individual o colectivamente en la historia de otros pueblos.
5. El hombre vasco (en cuanto a individuo): biografías, correspondencia, diarios, obras y comentarios de las mismas del hombre vasco o de agrupaciones de hombres vascos.
6. Biografías, correspondencia, diarios de personas, que aunque no son vascos por su origen, su actividad y sus acciones, han tenido incidencia en el devenir de Euskal Herria o sirven para conocer algún aspecto de la historia, cultura... del pueblo vasco.
7. Toda publicación o documento de organizaciones políticas, sociales, culturales, etc. de Euskal Herria, y los documentos que sirvan para el estudio de dichas organizaciones o de aquéllas que no siéndolo realicen actividades que repercuten en el País.
8. Toda obra o escrito realizada por autor vasco en euskera o en otra lengua, así como sus traducciones.
9. Toda obra o escrito de autor no vasco traducida al euskera.
10. Obras de creación de autor no vasco ambientadas en Euskal Herria.

> 11. Obras impresas en Euskal Herria que no tengan nada que ver con los apartados anteriores [XX. mendera arte].

Euskal Herriko Bibliotekari ez omen dagokio «nazional» hitza erabiltzea, bakarrik EAEkoari. Hau erabaki zuen taldeak azkenean:

> Por lo tanto se llegó al acuerdo de hablar de Biblioteca Vasca, eludiendo problemas administrativos que no tienen por qué influir en la concepción del tema por el grupo de trabajo, que engloba todo el ámbito geográfico-histórico de la colectividad vasca.

Joana Albret Mintegiaren aldarrikapenak

Ahoan bilorik gabe mintzatuz, Biblioteka Nazionalaren planteamenduan aitzindari izan da Joana Albret Bibliotekonomia Mintegia.

Euskal Herri osoko bibliotekari eta dokumentalista andana batek sortu zuen mintegia 1997an, bai biblioteketan eta bai dokumentazio guneetan euskararen erabileraren normalizazioaren egoera tamalgarria konpondu nahian.

Hainbat lan eta proposamen egin izan diete erakundeei, arrakasta handirik gabe, antza denez. Kanpotik begiratuta ezagunenak Biblioteka Nazionalari buruzkoak dira. Behin eta berriz atera dute gaia plaza publikora, bai partaideek indibidualki eta bai kolektiboki. 1998ko bi agiritan ongi islatzen da mintegiaren jarrera.

Lehena adierazpen bat da, 1998ko ekainekoa, Uztaritzen ezagutzera emana:

> Joana Albret Bibliotekonomia Mintegiko partaideok, urtealdi honen amaieran, honako hau adierazten dugu:
>
> [...]
>
> c) Euskal Biblioteka Nazionala eskatzen dugu, alegia, Euskal Herri osoko biblioteken arteko lotura eta koordinazioa bideratuko lukeen biblioteka.
>
> d) Bereziki, euskarak pairatzen duen bazterkeriari konponbidea emateak lehentasun osoa behar luke izan. Euskal Agentzia Katalografiko bat eskatzen dugu alor honetako arazoak bideratzeko.

Eta urtea amaitzear, abenduan, hamaika sinaduraz manifestu bat kaleratzen dute egoera kaotikoa salatuz eta ondorio negatiboak azpimarratuz. Horren jarraian dator euren proposamen nagusia:

> Por ello proponemos la creación de un organismo autónomo para todo el país: la Biblioteca Nacional Vasca, la Biblioteca de Euskal Herria. La ubicación de su sede no debe ser un problema insoluble, sobre todo cuando ni siquiera existe el proyecto, pero pensamos que un buen lugar sería Iruñea. Por supuesto, se trataría de una biblioteca nueva, distinta de las existentes hasta el momento. Su creación, gestión y financiación correría a cargo de un órgano común de cooperación entre las tres comunidades políticas vascas actualmente existentes (Comunidad Autónoma Vasca, Comunidad Foral Navarra, Departamento de los Pirineos Atlánticos en tanto que no se constituya un Departamento del País Vasco en el Estado Francés).[30]

Eite honetako biblioteka baten garrantzia hil ala bizikoa da Pruden Gartzia Azkue Bibliotekako zuzendariarentzat. Hona bere hitzak:

> Euskal kulturaren ikuspuntutik, biblioteka nazional bat hil ala biziko arazoa dela esango nuke. Ez naiz hasiko arrazoi zehatzak aletzen, nahikoa baita galdera honela planteatzea: mundu osoan biblioteka sistema guztien buruan biblioteka nagusi bat jartzen bada, areago, Espainiako erresumako erkidego autonomo guztietan sistemaren burua izateko biblioteka bereziak sortzen badira, ez ote da izango ezinbestekoa delako?[31]

Biblioteka Nazionalaren gaia sakon eta askotan aiputan hartu dute Mintegiko beste kide batzuek ere, Gerardo Luzuriaga batek, Agurtzane Juanenak.

Joana Albret Mintegiko partaide den Agurtzane Juanenak behin eta berriz azpimarratu du eraikinaren beraren ikur balioa; Juan José Fuentesen zenbait aipu esanguratsu bildu zituen:

> Pero en los países desarrollados esta función de identidad, de representación cultural, se produce no sólo desde los materiales alma-

---

[30] «Por la Biblioteca Nacional de Euskal Herria», *Euskadi Información*, 1998-12-12.

[31] Gartzia, Pruden (2000): «Borondatea da gakoa», *Argia* 1.752, 2000-03-05.

> cenados, desde unas colecciones de obras muchas veces únicas, que son, sin duda, las mejores del país. A esto lo podríamos llamar «señas de identidad a través de los contenidos»; la cuestión va más allá, va a las «señas de identidad a través del contendedor».
>
> Es decir, los documentos son importantes, pero no lo es menos el edificio, que así pasa a ser nuevo y otro «documento»; paralelo al valor de las colecciones es el valor del edificio que las contiene, que pasa a ser así, a su vez, otra muestra de la identidad cultural de la nación. [...]
>
> Tan cierto es que la biblioteca nacional, y sus instalaciones, representan unas señas de identidad cultural como que, sensu contrario, cuando se quiere destruir la cultura de un país y sus símbolos más representativos, la biblioteca nacional es uno de los primeros objetivos de dicha destrucción.[32]

Ideia hauei, gai hauei, bibliotekarena, bibliografiarena, leku edo aterpea eman die *Jakin*-ek.

5. **Mendeurrenaren karietara**

Euskal Bibliografia eta Euskal Bibliotekaren lehen ahalegin eraginkorren mendeurrenaren atarian gaude.

Urte gutxi batzuk barru izango dira ehun urte, Quadra Salcedo edo Odon Apraiz bibliografia lanetan hasi zirenetik: 1914-1915.

1917-1918 urteetan egin ziren, seguruenik, gai hauen inguruan planteamendurik helduenak. Gogoratu Landaburuk egina, Sota eta Egileorrek egina, edo Tomas Etxebarriak Oñatiko Biltzarrean.

1917 urtea har daiteke mugarritzat, jauzi kualitatiboa urte horretantxe egiten delako, iniziatiba pribatuak erakundeen eskuetara heltzen direnean. Jauzi kualitatiboarena egoki azaltzen du Euskaltzaindiko lehen kronikariak, Euskaltzaindiari buruz ari delarik: indar partikularrak argal eta mehe dira; indarra eta indartzea erakundeen esku dago.

---

[32] Fuentes, Juan José (2003): *Las bibliotecas nacionales: un estado de la cuestión*, Gijón, Trea, 2003, 230.

Testuingurua gogoan hartzea komeni da eta Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiaren sorrerarekin lotzea: urte berak dira, eragile politikoak ere ia berberak, eraman zen bidea ere bera zen, metodologia ere bertsua... baina haien haziak lur hartu zuen, eta honenak ez. Eta ihartu egin zen proiektua.

Data edozein delarik ere, 1917 edo besteren bat, aukera polita dugu gaiari heltzeko. Urteurren ponpoxoak horretarako dira, edo beharko lukete izan: iraganari begira jarri eta hasiera haiek nolakoak izan ziren aztertzeko, zer ikasiko ere.

Urteurrenek beste aukerarik ere eskaintzen dute: etorkizunari begira amets egiten jarraitzekoa.

5.1. **Mendeurrenaren talaiatik hasierara begira jarrita**

Mendeurren batek atzera begira jartzen gaitu beti, egin den bideari, eta batez ere hasierari begira. Zertarako? Utopiak, ametsak, saioak eta ahaleginak zein ziren ikusteko, ikasteko.

Puntuz puntu seinalatuko ditut hastapeneko «sorrera markak» edo ezaugarriak:

- *Ametsaren edo anbizioaren handia*: bibliografia bere eremu guztietan landu nahi izan zuten: euskarazko liburua, euskal lurretan jalgia, euskaldunei buruzkoa, euskaldunek idatzia. Ezein ikuspegiri uko egin gabe.
- *Elkarlanean* ikusten ditugu Quadra Salcedo eta Odon Apraiz, bi sentsibilitate politiko, zatiketen eta alderdikerien gainetik. Sortu ziren saioak elkar ukatzaile barik elkar osatzaile izan zitezen ahalegin betean ikusten dugu Odon Apraiz.
- *Iniziatiba pribatuaren* eremuan hasi eta hazi dira bibliografia proiektuak, nahiz eta beraien ustetan zerbitzu publikoaren ikuspegia izan. Gero ere, gerra ostean, horrelaxe sortu eta indartuko dira Jon Bilbao eta besteen egitasmoak. Gizabanakoak izan dira aitzindari, ez erakundeak, ezta ere elkarteak.
- *Komunitate linguistiko-kulturalaren mugak* onartzen dira. Iruac-Bat zaleak onartzen zuen Nafarroa; Laurac-Bat zaleak onartzen du Iparraldea

tartean sartzea. Eta beste batzuek, zertan esanik ez, modu natural eta unitarioan hartzen dute Zazpiak-Bat.

- Landaburu eta Sota politikarien *erabakimena*: eraginkor izateko borondatez egiten dituzte mozioak.
- Markoa gainditzeko *erakundeen ausardia*: liburutegiaren kasuan ez da gauzatzen, baina bai Euskaltzaindiaren sorreran edo Eusko Ikaskuntzarenean. Erakundeek elkar hartuta sortzen dituzte lanerako elkarteak.
- *Kulturan duten fedea*. Eragile guztien marka da liburuari, kulturari, dokumentuari sekulako eraginkortasuna egozten diotela. Politikaren gainetik jartzen bide dute kultura. Uste dute, uste dutenez, dokumentuaren «egiak» oker dagoenaren ikuspegia aldaraziko duela, nahiz eta borondate txarrekoa izan. Liburutegia Salomon berri bat da.

5.2. **Etorkizunera begira amets egiten jarraitzeko, proiektuak pentsatzeko**

Zertan esanik ez da ez gaudela 1917an, ez gaudela «zero puntuan». Bibliografiak bezala Bibliotekak asko aurreratu du, zorionez.

Baina utzidazue errealitatearen gainetik amets egiten. Errealitate hori osatzeko, hobetzeko edo indartzeko balioko balu ametsak, ni pozik. Errealitatea aldatzeko balioko duen? Ez dut uste, ameskeria litzateke hori, ezta?

Aurretiaz esan nahi dut hitzak bere materialtasunean eta formulazioan ez hartzeko. Behatzari begiratu partez jarri begia behatzak seinalatzen duen zeruertzean.

Orain arte bezala bi zatitan banatuko dut ametsetako proiektua: bibliografia eta biblioteka, txanpon beraren bi aurpegiak bailiran.

Bibliografia

- *Bibliografiagune bat eta bakarra*. Euskal Herri osoko informazioa jasoko eta bideratuko lukeen gunea litzateke. Pizkundekoek nahi zuten beza-

la, gurekin edo gure herriarekin loturiko arlo guzti-guztiak bilduko lituzke bibliografiagune honek.

Mila arrazoigatik izan daiteke garrantzitsua gune orohartzaile bat izatea. Barrura begira zein kanpora begira. Barrua antolatzeko eta kanporako leiho edo atari.

Egungo gizartearen ezaugarriak kontuan hartuta, puntu bat seinalatu nahiko nuke. Mundu globalizatuan gaude, Interneten aroan gaude. Itsasoarekin konpara daiteke Internet. Edo oihanarekin. Nor gara gu hor? Txikiak, ezdeusak, ezta? Baina bagara, eta izaten jarraitu nahi dugu. Eta ikus gaitzaten nahi dugu.

Gure kulturaren berri izatea nahi badugu, *conditio sine qua non* da gune bat izatea erreferentzia gisa, identifikatzeko tresna. Ez da agian baldintza nahikoa, baina bai ezinbestekoa. Adituei dagokie nola diseinatu, barrura eta kanpora begira, bi isurietan, tresna eraginkor izan dadin.

Gune edo atari hori litzateke gure bisibilitaterako lanabesa. Frantsesak kezkatuta daude euren kultura «ez delako ikusten». Kezka hori ez dut nabaritzen hemen. Agian amore emanda gaudelako. Egin dezagun amets!

Mendeurrenaren abaguneaz baliatuz bi amets badira errealitate bihurtzeko modukoak.

- *Euskararen bibliografia*. Ehun urte beteko direnerako bideratzen hasita ikusten dut nire ametsetan euskararen bibliografia. Mendeurrena ospatzeko a zer oparia! Zer bildu? Euskarazko ekoizpena noski, baina baita ere euskarari buruz mundu zabalean argitara eman den guztia, Jon Bilbaok utzi zuen puntutik aurrera. Euskaltzaindiaren ikergune berri bat izan daiteke, ahala eta nahia uztartuz gero.

- *Euskal intelligentsiaren inbentarioa*. 1917an dio Quadra Salcedok euskal autoreen 5.000 fitxa bilduta dauzkatela. Jon Bilbaoren Eusko Bibliographiak azken ordura arte kanpo utzi zuen alorra bada ere, alorka edo lurraldeka landu den bidea izan da. Gaztelaniazko autoreengana mugatuz bada ere, milaka fitxa asko bildu ditu Elias Amezaga batek. Haratago joan daitekeela iruditzen zait, hala ere.

Gai honi heldu diotenean autoreek erakutsi nahi dute euskaldunek pentsatu ere egiten dutela, ideiak ere landu dituztela eta ez burdina bakarrik. Denek ukatu nahi dute topiko ezaguna: euskalduna egintzetan luze, hitzetan labur.

Topikoa onartutzat ematen da eta suposatu egiten da euskaldunak ez duela idatzi, edo gutxi idatzi duela. Zergatik suposatzen da hori? Idatzi dutena ez delako ezagutzen. Eta zergatik ez da ezagutzen? Inoiz ez delako sistematikoki arakatu.

Amets hori egia bihurtzen jada hasiak gara Jakinen Joxe Azurmendirekin, eta ametsa baino ere errealitate emankorragoa aurkitu dugu. Ikusi dugu Aro Moderno guztian, zientzien edozein alorretan, Europan nahiz Hego Amerikan, liburuak publikatu dituzten euskal herritarrak asko direla. Baina euskaldun horiek historia politikoa eta erlijiosoa kanpoko erakundeei (errege, diozesi, ordena erlijiosoei) lotuta egin duten bezala, historia intelektuala ere kanpoarekin erlazioan egin dute. Horrela euren obra sakabanatuta gelditu da, Euskal Herriarekiko erreferentzia komunik gabe.

Biblioteka

Pizkunde garaian diseinatu zen liburutegiak ezaugarri jakinak ditu: xede nagusia euskal jendeari dagokion guztia biltzea da. Eta hori mundu osoaren aurrean jartzea, bibliografiaren bidez aurrena eta gero bibliotekan. Gaur ere baliagarri zaigun ikuspegia iruditzen zait, eta osoki erdietsi gabea.

Euskal Herri osoko Biblioteka bat ametsa ala ameskeria al da? Amets bezala ikusten dut nik gaur, baina bihar egingarria, zergatik ez?

Beranduegi ez bada, 1918ko eredua ez da txarrena: erakundeen artean organismo autonomoak sortu (Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza) Euskal Herri osoa bere baitan hartzen dutenak, alegia. Abantaila bat bederen baluke: liburutegia unean uneko liskar politikoen eremutik aterako luke.

Biblioteka modernoa hibridoa ikusten dut nire ametsean. Edukietan hirukoitza: analogikoa, digitala, birtuala, hots, liburua euskarri guztietan

hartuko duena. Eta izaeran, fisikoa eta hormarik gabea aldi berean. Bertatik bertara zerbitzua emango duena eta urrutikoei ere bai.

Pizkundeko gogoari teknologia txertaturik sor daiteke Euskal Gutenberg egitasmoa.

Zer litzatekeen Euskal Gutenberg? Labur-labur esanda, Michael Hart-en Project Gutenberg delakoaren euskal bertsio egokitua. Hark egin asmo zuena eta gauzatzen ari dena zera da, munduko ondare bibliografikoa osoki digitalizatu, domeinu publikoko liburuetatik hasita. Anbizio gehiegia eta errealismo gutxiegia salatu zioten 1971n hasi zenean, baina jada 20.000 titulutik gora digitalizatu ditu eta 2015erako aurreikusi du milioi bat izan ditzakeela digitalizatuta.

Euskal Gutenberg egitasmoak euskarazko liburu historikoak digitaliza ditzake hasieran. Eta gero besteak. Zenbat izango dira, bada? Ez dakit, baina asko ez. Nire datu basean 50.000 mila fitxa ditut, euskarazkoak. Horietako banaka batzuk jada digitalizatuak daude, Euskal Herriko liburutegi digitaletan.

Hatsaldi berean digitaliza daitezke euskal intelligentsiaren emaitza biltzeko inbentarioak zerrendatuko lituzketen obrak.

Michael Harten egitasmoan inspiratuta edo oinarrituta, beste kultura batzuek ere ari dira euren liburutegi propioak egiten. Hala nola, eskandinaviarrek literatura eskandinaviarra digitalizatzeko «Projekt Runeberg» daukate, 200 titulurekin. Eta alemanek «Projekt Gutenberg-DE», literatura alemaneko beste 200 titulutakoa.

Eta guk zergatik ez?

Amaitzera noa.

Amets nostalgiko batekin bukatzen utzidazue:

Zein egoeratan ote legoke gaur euskal kultura, baldin eta 1919an Euskaltzaindia sortu zen bide beretik Euskal Bibliografia eta Euskal Biblioteka sortu izan balira?

Aukera hura galduta ere, non ote geundekeen gaur, baldin eta 1982an Euskadiko Orkestra sortu zen bide beretik Euskal Bibliografia eta Euskal Biblioteka sortu izan balira?

Dena den, sekula ez omen denez beranduegi, ospatzeko modurik izan dezagula Pizkundeko saioen ehungarren urtean.

Esan dut.

Alexandriatik digitalizaziora
Joan Mari Torrealdai Nabea Euskaltzaindian sartzeko hitzaldiari erantzuna

ARANA MARTIXA, Jose Antonio
Euskaltzain osoa eta Euskaltzaindiko Azkue Biblioteka batzordeburua

Joan Mari Torrealdai Nabea euskaltzain berriaren *Sarrera Hitzaldiaren* laburpena entzun dugu eta laster argitaratuta ere ikusiko dugu. Gai interesgarria aukeratu du hizlariak euskararen historiari lotuta **Bibliografiatik Bibliotekara. Esperantzari leihoa** izenburupean. Lehen bibliografia eta biblioteketatik gure egunetara jakitun askok jarraitu duten bideak, beraien lanetatik ematen digute bide zabala lehendabizi lerrotutako liburuetatik nola heldu garen oraingo biblioteketara, edo hobe esateko behar dugun Euskal Bibliotekara. Zerbait falta dela hemen argi dago, baina Torrealdaik berak egingo du ibilbide hori. Ondare bibliografikoa biltzeaz harago, Memoria historikoa bermatzea eta Euskal Herria diferentziatu izatea daude jokoan. Beraz, Bibliografia eta Bibliotekak ez dira gauza fisiko edo materialak soilik, gure izaeraren oinarria eta adierazpena ere bai. Sakontzeko gaiak direla uste dut eta ez amaigabeko eztabaidetan ibiltzeko eremua.

Joan Mari Torrealdai Nabea hemen, Foruan, Urberuaga auzoko *Mosone* baserrian jaio zen 1942ko azaroaren 24an, *Atxeta* kobazulo aurrean, non Jose Migel Barandiaranekin egin nituen nik indusketa lanak, Joan Mari gazte zelarik. Historiaurreko eta erromatarren garaiko aztarna asko dituen herria da Foru. Azken urteotan agertutakoak gehien bat. Beraz, milaka urteko historia daukana da Torrealdairen jaioterria, eta dudarik gabe, milaka urteetan euskara erabili duen herria eta orain ere bizi-bizirik darabilena. Orain udaletxea den eraikinean zegoen eskola eta han egin zituen Joan Marik lehen ikasketak. Filosofia eta Teologia ikasketak egin ondoren, Zarauzko Eskola Profesionalean irakasle izan zen urte batez, eta 1968-1969 bi

Euskera. 2009, 54, 3. 1271-1278. Bilbo
ISSN 0210-1564

urteetan *Jakin* aldizkariaren zuzendaria izan zen, galarazia izan arte. Aldizkari honi buruz zeresan badaukat, baina gerorako utziko dut.

Okzitaniako Tolosara jo zuen gero goi-ikasketak egitera, Teologiako Lizentziatura lortu zuelarik 1972an, eta urte berean Pariseko «Alliance Française» delakoan hizkuntza frantseseko Diplomatura lortu zuen, eta bertako «Institute d'Etudes Sociales»en Gizarte Zientzietako Lizentziatura (1975). Orduan izan zen euskaltzain **urgazle** izendatua.

Goi-ikasketak egin bitartean, eta gero, ingelesa ikasi zuen Ingalaterran, Canterburyn (1973) eta Londresen (1974-1976) Danlingua akademian. Parisetik itzulita, *Anaitasuna* hamabostaldiaren zuzendari izan zen, eta denbora berean (1976-1977) eta (1977-1978) ikastaroetan eta gero 1991-1993koetan Soziologia irakaslea izan zen Deustuko Unibertsitatean. Doktoregoko ikastaroak eman ditu Euskal Herriko Unibertsitatean eta Deustukoan 1978an, eta Mondragon Unibertsitatean irakaslea izan da 1998-1999 ikastaroan. Irakasle jardunak ez zion oztoporik jarri soziologiaren ikuspuntutik aztertuta liburu eder eta baliotsua kaleratzeko, hots, *Euskal idazleak gaur* (1977), antologia ilustratua une hartako euskal idazleen berri adierazteko, **Euskal idazleen Elkarteko** (EIE) idazkaria izan zelako orduan. Durangon egin zuen Elkarteak batzar nagusi bat (1979) eta Xabier Gereño eta biok bildutakoen erabakia eta agindua hartu genuen Elkartearen Araudi ofiziala prestatzeko. Lan hori burutu genuenean, Jose Mari Velez de Mendizabali eraman nion Arrasatera Elkartearen artxiboa.

Atsedenik hartzen ez duen gizon honek, liburugintzan eman ditu orduak eta egunak. Frantziatik zebilela *Iraultzaz* liburua argitaratu zuen (1973), eta Euskal Herrira itzulita, 1984an Informazio Zientzien Lizentziatura burutu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean , eta ikasketen ondorio gisa, *Euskara eta Euskal Telebista* liburua kaleratu zuen tituluarekin batera. Deustuko Unibertsitatean lortu zuen gero, 1991n, Zientzia Politikoan eta Soziologian **Doktoregoa.** Ikerketa asko egin ondoren eman zigun *Euskal Kultura Gaur. Liburuaren Mundua* (1997), *El libro negro del euskera* (1998) eta urte berean *La censura de Franco y los escritores vascos del 98.* Eta beste izenburuko liburu batzuk laburpen honetan lerrotu ezin ditudanak. Baina adieraztekoa da bes-

te zientzietako mundu baten ere sartu zela gure Joan Mari, hots, **Bibliografian.** Azken hogeitabost urtetan, atsedenaldirik izan gabe, 25.000 fitxa bete eta taxutu zituen, eta 1993-2001 bitartean eman zigun bildutako ondorioa bost liburukitan izenburu honekin: *XX. Mendeko euskal liburuen Katalogoa,* 2000 orrialde betetzen dituena. Hemen ere soziologia hartu du Torrealdaik abiapuntutzat, eta berak dioenez, bilketa egikeran ez zen zenbatekoa garrantzitsuena, zertaz ari ziren liburuak baizik.

Bibliografia da Joan Mari Torrealdaik aukeratu duen gaia sarrera hitzaldi honetarako. Eta egia esan, ikusi dugu nola sartu den mundu honetan XX. mendeko bibliografia bilduz. Ezin dugu ahaztu orain arte eusko bibliografiaz egin den lanik garrantzitsuena Jon Bilbao Azkarreta gure maisuaren *Eusko Bibliographia,* hamairu liburukitan Auñamendik argitaratua dela. Gogora dezagun hemen lehen bibliografia Manuel Larramendik eman zigula 1745ean *Diccionario Trilingüe* delako hitzaurrean eta gero ikerle asko izan direla gai honetaz arduratu direnak. Baina liburuak soilik izan ziren zerrendetan agertzen zirenak eta bibliografia zabaltzen joan zen, aldizkariak eta artikuluak ere kontuan hartzen hasi zirelarik.

Jon Bilbao Puerto Ricon jaio zen (1914) eta munduan zehar bibliografia lanetan, gehien bat ibili arren, politikan ere parte hartu zuen, *Euskera* Agerkarian argitaratu nuen *Nekrologian* ikus daitekeenez. Bibliotekari lana baino askoz garrantzitsuagoa zela bibliografia esaten zidan eta asmo biok batera erabili ditut urteetan. Liburuak bai, baina aldizkariak eta artikuluak ere katalogatu behar zirela esaten zidan, Odon Apraizek esaten zuen bezala, aldizkarietako artikuluetan, sarri, liburuetan baino gauza interesgarriagoak agertzen baitira. Esana egin nuen, eta gure euskaltzain berria ere ekintza horretan bidelagun izan dut. Kazetaritza hutsak baino ikerketa gehiago eta sakonagoak ematen dizkigute aldizkariek. Torrealdaik aipatzen digu Quadra Salcedoren ametsa *Idearium* aldizkaria sortukeran, bibliografia bultzatzeko gogoetan: «Una obra urgente en la cultura del país».

Alexandriako Bibliotekan bazeuden katalogoak, taula grabatuak, eta abar. Baina Bibliografiari buruz ezagutzen dugun lehen liburua Ricardo de Bury-rena da: *Philobiblion,* aspaldi idatzia (1287) baina ezezaguna izan ge-

nuena Kolonian 1473an argitaratua izan zen arte. Gero, inprimatzaile sonatuenak, beraiek argitaratutako liburuak ezagutarazteko, ateratzen zituzten katalogoak. Bi aipatuko ditut, inprimatzaile handiak izan zirelako: Aldo Manuciok, 1498an Venezian atera zuena (inkunablea, noski) eta Cristophoro Plantinok 1566an Anversen/Anberesen kaleratu zuen *Index librorum.* Aipatu beharrekoa da Nicolas Antoniok Sevillan inprimatu zituen *Bibliotheca vetus* eta *Bibliotheca nova,* Augustotik hasita XVII. menderarte ezagutzen ziren liburuen bibliografia. Aipagarria da 1885ean Bostonen (EEBB) Melvil Dewey bibliografoak asmatu zuen *Sistema dezimala,* liburuak gaia kontuan izanik hamar multzotan ordenatu zituena.

Katalogoetatik aparte, badaude Bibliotekonomian aztertu eta ikertu behar diren beste gai interesgarriak: bibliografia bera, bibliomania, liburuak jakina, letra tipoak, zentsurak, inprimategiak, ilustrazioak, eta azken baten bibliotekak. Eta une honetan, denen gainetik eta denak ezabatzeko gogoz informatikako «autopista» nondik dabiltzan azkar eta liskarzale hainbat programa. Alexandria Bibliotekatik, Gutenbergen ganetik, digitalizazio mundura heldu gara. Eta badirudi orain arte egindako guztiak ez duela ezertarako balio. Baina liburuen eta argitalpenen munduan bizi garenok ez gaude mundu berri horren beldurrez kikildurik. Aurrerapen guztiak onartu behar dira eta pozik onartu ere. Baina jada mundu zaharreko diren liburuak, paperezkoak esan nahi dut, badituzte beraien bertuteak, eta ez dira berehala desagertuko, etsaia liluragarria izan arren. Ez dut zalantzarik sortu nahi hemen.

Kulturaren adierazpenean eta historian, orain arteko medioetan, bi multzo bereiztea oso garrantzitsua da, gizateriak ezagutu dituen bi asmakizun handiren ondorioak baitira: idazkera eta inprimaketa. Argi dago bion bidez azaldu dezakela gizonek eta emakumeek, inteligentzia daukatenetik, bi beharrizenei erantzun: gauzak gogoratzea eta ideiak besteei helaraztea. Ahozko tradizioa, zoritxarrez, sarri desitxuratu egiten da, galdu ere osoan ez bada, aldika. Horregatik beharrezkoa dugu ideiak eta tradizioak euskarri ezabagaitzetan finkatzea, materia desberdinetako tauletatik hasi, Egipton erabilitako papiroz jarraitu, edo Pergamon, 159. urte K.a.tik erabiltzen hasitako pergaminoetan, paperean gero eta azkenean eta orain, informatikak ematen dizkigun euskarri desberdin guztietan.

Liluragarria da benetan idazkeraren historia. Piktografikoa edo ideografikoa da hasiera baten irudi ulergarrien bidez edozein hizkuntzari atxikitzeko modukoa. Idazkera fonetikoa datorkigu gero, hizkuntza desberdinetan soinuak isladatzen dituena, batzuetan silabikoa izan daitekeena (Txina, Japonia), edo alfabetikoa, gure mendebaldeko zibilizazioan hizkuntzek darabiltena. Dirudienez, idazkeraren bilakaera honek Sumerian dauka sortzea 3.500. urte K.a. Eta alfabetoa fenizioek asmatu zutela dirudi 2000 urte K.a. Kultura desberdinek aukeratu zuten zegokien alfabetoa: asianikoa, etruskoa, latinoa (munduan inportanteena eta gehien erabilia), grekoa, zirilikoa, e.a. Menderik mende antzarren buztan edo hegoetako lumak erabili ziren, XVIII. gizaldiaren azkenean altzairuzko luma agertu zen arte, Pragako Luis Senefelderrek patentatua. Luma estilografikoa Ingalaterran agertzen da lehendabizi (Schaefer, Parker, Waterman, e.a.). Bolaluma (edo boligrafoa) XX. mendekoa da , Marcel Bich-ek 1953an asmatua, *bik* izenarekin milioika saldu eta erabilia zena eta dena.

Baina eskuizkribuak, nahiz eta koadernatuta kodexetan liburuaren antzera azaldu, dokumentu bakar bat baino ez ziguten ematen. Eta idatzitakoa gozatzeko, eta bide horretatik ikerketa edo estudioak mundura heltzeko, aleak ugaldu behar ziren teorikoki *ad infinitum* eta praktikan merkatuaren eta erabileraren arabera. Labur esanda, inprimatu beharra zegoen. Inprimaketaren teknika txinoek ezagutzen zutela diote, 594. urte K.a., hain zuzen xilografia asmatu zenetik, hots, inprimatzeko zurezko plantxak asmatu zirenetik. Baina gaur ezagutzen dugun inprenta 1450. urtearen inguruan sortzen da, Johann Gensfleisch Gutenbergek (Maguncia, 1397-1468) moldezko letra mugikorrak erabiliz *Meza* liburu berezi bat inprimatu zuenetik. Baina Gutenbergi benetako ospea eman zion inprimaketa izan zen 1455. urtean *Biblia* inprimatu zuenak, eta 1462.ean 48 lerroduna. Honek eman zion hasiera **inkunableen** aroari.

Gutenbergen asmakizuna berehala hasi zen Europan zehar hedatzen, eta 1500. arte letra gotikoarekin inprimatutako liburuak agertzen hasi ziren, lehena 1465.ean, Erromatik hurbil dagoen Subiaco herriaren monasterioan, non letra erromanoaz inprimatzen hasi ziren, letra gotikoa baztertuz. Veneziako Aldo Manuzio inprimatzailea ere orduan hasi zen letra mota berri hau erabiltzen. Izatez, inkunableak eta gerokoak ere erabili zuten gotikoa

Ufilas fraideak (Kapadozia, 311-383) asmatu zuena, baina Aldo Manuziok liburu batzuetan letra erromanoa erabili eta gero, *italika* (kurtsiba, etzana, bastardila) erabiltzen hasi zen. Ehun urte geroago, 1548.an, euskaldun kaligrafo batek, Joanes Itziar durangarrak eman zigun letra moten aukera *Arte subtilissima* liburuan.

Moldiztegiak hasi ziren agertzen Europan XV. mendearen erdirantz: Krakobia (1466), Basilea (1468), Paris (1470), Viena (1470), Buda (1471), Alost (1472). Baina Euskal Herrian ere laster agertu zen moldiztegia, Biarnotik etorritako Arnald Guillen de Brocar-en eskutik. Done Jakueren bidetik sartu zen Euskal Herrian kultura europearra, gurea aberatsa zen unean, neurri baten behintzat, hargin eta nolabaiteko arkitektoak, elizetako organugileak, edozein motako artisauak, eta nola ez inprimatzaileak, Brocar ez baitzen izan etorritako bakarra. Baina bai Euskal Herrian lehen liburua inprimatu zuena, hots, *Manuale secundum consuetudinem Ecclesiae Pampilonensis* (1494). Beste 23 inkunable argitaratu zituen Brocarrek Iruñean, tartean 1496.an, *Misale mixtum pampilonense,* zeinetan agertzen den lehendabizi musika inprimatua gure Herrian. Alcala de Henaresera joan zen hemendik Brocar eta han inprimatu zuen *Biblia Poliglota Complutensis* (1514-1517). Beste Bibliak inprimatu ziren Europan, tartean Plantinok Anversen/Anberesen argitara eman zuena (1569-1572).

Jakina eta ohiko denez, Gutenbergen asmakizuna bilakatzen joan zen hurrengo urteetan eta aurrerapenak izan zituen. *Fotograbatua* izan zen hauetariko bat (1851), *Linotipia* (1884), eta *offset* (1904). Zibernetikaren bidez etorri zaigu iraultza XX. mendean. Baina laburtasunaren mesedeetan ezin naiz xehetasunetan sartu. Dena den, Azkue Bibliotekako liburuzain izan naizen aldetik, Joan Mari Torrealdaik ukitu duen gai bati iruzkinen bat egin behar diot liburuen katalogazioa den aldetik: Euskaltzindiko Azkue Bibliotekan izan gara euskarazko katalogazioaren aintzindari MARC formatu informatikoa darabilen programa standar bat erabiliz, 75.000 dokumentu jadanik katalogatu ditugula. Digitalizazioaren bide berrian sartuak gara, *innobazioan* hain zuzen, gaurko teknologiari lotuta gure erakundea bizi dadin. Beraz, hirugarren mugarrira heldu gara: Alexandriako Bibliotekatik, Gutenbergen asmakizunera eta orain **aro digitalera.**

Jakin aldizkaria aipatua izan da behin baino gehiago hasierako lerroetan, eta merezi du errepikapena Joan Mari Torrealdairi buruzko azken lerro hauetan. Arantzazun sortu zen gazte talde bat 1956an, euskal kultura berpizteko asmoz, euskararen normalizazioa eta bizitza, eta ekanduen bilakaera bultzatzea helburutzat zeukana. Barnerako aldizkari xumea multikopiaz ateratzen zuten; baina 1964.an desagertu zen. Eduki eta formatu berriarekin argitaratzeko, eta erabiliko ziren gaiak hedatzeko, barne kutsua kenduta, kide anitzeko zuzendaritza eman zitzaion. Oñatiko Bidaurreta komentuan (ezkutuko bilerak egin behar ziren orduan), Carlos Santamariak 1967.an zuzendutako bilera baten asmatu genuen kultura hedatzeko bide berria. Han ginen Rikardo Arregi, Andoni Lekuona, Xabier Kintana, Ibon Sarasola eta ni neu. Joan Mari Torrealdai izendatua izan zen zuzendari 1968.an, baina epe laburrerako, urte berean debekatua izan zen eta. Aldizkari galeraziaren ordez liburuak argitaratzeko *Jakin Sorta* deitutako taldeak 10 liburu kaleratu zituen. 1977.an berriz kaleratzen da *Jakin* aldizkaria, oraindik bizirik jarraitzen duena, Torrealdairen zuzendaritzapean. Patxi Sarriegiren esanetan «hausnarketarako bideak zabaltzen darrai *Jakin* kultur aldizkariak, euskal mundua zabaltzen». Eta nik zor diodana da 2007.ko 161. zenbakian, *Historia bizia* sailean, 60 orrialdeko nire biografia, gehien bat anekdotikoa, eskaini zidala.

Euskararen alde Joan Marik egin duen lana amaiera ezinezkoa da, baina berri goibel eta negargarriarekin aipamena amaitu beharra da, egin eta esandako guztiei ohorezko agurra eman beharra. Bete-betean datorkigu hona ere Carlos Santamariaren izena eta euskararen hedatzeari eman zion bultzada. Eta berarekin uztartuta Martin Ugalde. Bikote honen indar intelektualarekin lortu zuen Joan Mari Torrealdaik **Euskaldunon Egunkaria** kaleratzea. Espainiako Konstituzioa askatasunaren eskubideak defendatzen hasi omen zen egunean, hots, 1990.eko abenduaren 6an, euskaldunon pozarekin kaleratu zen lehen zenbakia. Joan Mari izan zen Administrazio Kontseiluaren Buru, 2003.eko otsailaren 20an egunkaria bahitua izan zen arte, pertsonen kontrako ondorio mingarriekin. Euskal kulturaren eta euskararen alde ateratzen zela egunkari hau ez dugu dudarik, eta hala aldarrikatu dute Torrealdai eta kideek epaileen aurrean. Baina badaude politikaren mamua ere ikusten dutenak eta Espainiako epaitegira eramango dituzte

gure kulturaren, izaeraren eta nazioaren aurka ditugun arerioek. Gure gaurko jaia iluntzen du epaiketa azaroaren 9an Madrilen izango dela jakiteak. Baina gu harro gaude gure euskaltzain berriarekin, eta ziur gaude han eta hemen besarkatuko dugula. Euskaltzaindiak Hernanin (2003) *Egunkariaren* eta Torrealdairen alde egin eta argitaratu zuen adierazpena. Gauza bera aitortuz, gure artean nahi eta behar zaitugu Joan Mari!.

Euskaltzaindiaren 90.urteurrena: Bizkaia
Espainiako Hizkuntza Akademien bilkura

90 Aniversario de Euskaltzaindia/R.A.L.V/A.L.B.
Jornada de las Academias de las lenguas de España

Bilbo, egoitza, 2009-VII-17
Bilbao, sede de Euskaltzaindia, 17-VII-2009

Euskera. 2009, 54, 3. Bilbo
ISSN 0210-1564

Ikerketa buruen aurkezpen-txostenak

Ponencias de los titulares de la Sección de Investigación de las Academias de las lenguas de España

Euskera. 2009, 54, 3. Bilbo
ISSN 0210-1564

Ongietorria

URRUTIA BADIOLA, Andres
Euskaltzainburua/Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia

Egun on
Buenos días
Bos dias
Bon dia.

Representantes de la Real Academia Española,
representantes de la Real Academia Galega,
representantes de la Secció Filològica del Institut d'Estudis Catalans,
akademien ordezkariak,
euskaltzain oso, urgazle eta ohorezkoak,
Euskaltzaindiaren batzordekideak,
queridos Víctor, José Antonio, Xose Ramon, Manolo, Joan e Isidor.

Gaurko ekitaldiarekin ohitura zaharrari eusten diogu Euskaltzaindian. Izan ere, mila bederatziehun eta hirurogeita zortzigarren urtean bildu ziren lehendabizikoz gure akademiak; gerogarrenean, mila bederatziehun eta laurogeita hamalaugarren urtean; eta, orain, bi mila eta bederatzigarren urtean, beste behin ere biltzen gara.

Gaur, ordea, harago joan nahi dugu; beste pauso bat eman eta lana elkarrekin egin nahi dugu, guri dagozkigun arloetan, dela hizkuntzen gaineko ikerketan, dela hizkuntzen jagote-kontuetan.

Eskerrak bereziki, Euskaltzaindiaren langileei, taiuz erantzun diotelako gaurko ekitaldia antolatzeari. Beraiek gabe ezin, bistan da, halakorik egin.

Euskera. 2009, 54, 3. 1283-1290. Bilbo
ISSN 0210-1564

Eskerrak orobat hona hurreratu zareten guztioi, batez ere Euskaltzaindiaren lan batzordeetan kide direnei, batzorde horietan mamitzen baita, zuen ekarpenen bidez, gure erakundearen bizimodua, zati esanguratsu batean, behinik behin.

Lana dugu aurrean. Erraza ez da izango. Gogoa badugu. Goazen aitzina!

* * *

La verdad es que hoy, en este acto que celebramos en la sede de Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca, no puedo ocultar mi satisfacción por varios motivos.

El primero es por el hecho de que estéis entre nosotros, acompañándonos en este año dos mil nueve, en el que conmemoramos nuestro noventa aniversario.

Y, además, que estéis, no sólo acompañándonos en un acto académico, sino que mostremos entre todos nuestra vocación de que este acto tenga una continuidad a través de un trabajo conjunto que entiendo es de gran importancia en el marco del estado español.

No es baladí, en efecto, que se reúnan en Bilbao los representantes de las cuatro academias de las lenguas hoy oficiales en España. Y no lo es, porque creo que nos proporciona una primera aproximación a lo que todos compartimos y a lo que todos anhelamos, que no es otra cosa que un nivel óptimo de convivencia y un conocimiento mutuo entre nuestras lenguas y culturas, que nos enriquece como personas y como sociedad.

Pero este mutuo conocimiento y relación nos impone a todos la exigencia de un trabajo conjunto, de la búsqueda de espacios donde nuestras lenguas, que conviven desde hace muchos siglos en esta sociedad, den un paso más y, a través de sus Academias, nos permitan, hoy que la moderna tecnología nos lo facilita, desarrollar programas conjuntos en las materias que nos son propias.

Una primera propuesta de encuentro será formulada hoy mismo. Una profundización en nuestras relaciones exige, por nuestra parte, un convencimiento de que las Academias son hoy unas instituciones que, lejos de estar periclitadas en el tiempo, tienen una vitalidad y una potencialidad sensacionales si, en definitiva, sabemos aprovechar y optimizar nuestros recursos humanos y materiales.



Confieso que en este campo tengo una sana envidia de muchas de las iniciativas que vosotros lleváis a cabo, y, desde luego, un deseo inmenso de aprender de vuestras experiencias y compartir con vosotros las nuestras.

Lenguas y Academias van de la mano, y estas últimas tienen que saber estar atentas a lo que la sociedad les dice y les exige día a día, a la hora de utilizar esas herramientas precisas y preciosas que son todos y cada uno de nuestros idiomas.

En mi opinión, esa sociedad exige de nosotros colaboración mutua, pero también impulsos serios hacia el multilingüismo y la convivencia cultural.

Ese multilingüismo y esa convivencia cultural nos piden también que sepamos que ello no implica renuncia alguna a la riqueza literaria, cultural y expresiva que nuestras lenguas conllevan. Hoy, las traducciones y la interrelación cultural es tal que ya no resulta novedad el que una misma obra literaria aparezca simultáneamente en nuestras cuatro lenguas. El ejemplo del último libro de nuestro académico de número, Bernardo Atxaga, es muy significativo.

Permitidme ahora que, como resumen de esta primera reflexión, constate nuestra vocación de colaboración y trabajo conjunto en proyectos concretos.

Y permitidme también unas palabras en relación a Euskaltzaindia, la más «joven» de las Academias que hoy están aquí. Nuestro fundador, Don Resurrección María de Azkue, lekeitiarra, tuvo el acierto de plasmar en una institución los anhelos del mundo del euskera, entonces articulado en el Congreso de Estudios Vascos, del que surgió Eusko Ikaskuntza y, posteriormente, a través suyo, Euskaltzaindia.

La creación de nuestra Academia fue fruto de un trabajo de consenso e impulso de las cuatro diputaciones de Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Nafarroa. De todo ello resultó un grupo promotor de académicos (Azkue, Urkijo, Campión, Eleizalde) al que posteriormente se unió, ahora hace 90 años, y por elección, tras consultar con los medios de comunicación y diversos agentes culturales que entonces se movían en el ámbito del euskera, otro grupo compuesto por los restantes ocho académicos de número, además de los correspondientes..

El resultado de aquella iniciativa fue una academia que pronto alcanzó eco y reconocimiento, coordinando a los euskaltzales de uno y otro lado de la frontera.

Tras la guerra, la labor no fue fácil, pero Euskaltzaindia mantuvo encendida la llama del euskera y la impulsó, adaptándose a las circunstancias de cada momento histórico.

Quiero recordar expresamente uno de esos momentos, el de hace quince años, cuando la representación de la Real Academia Española, la Real Academia Galega y la Secció Filològica del Institut d'Estudis Catalans, junto con Euskaltzaindia, celebraron en esta sede de Bilbao, los setenta y cinco años de esta institución.

Jean Haritschelhar, mi antecesor en el cargo, citaba entonces la primera reunión entre nuestras academias y otras entidades culturales, que había tenido lugar en Iruñea-Pamplona, el año mil novecientos sesenta y ocho, un cuatro de diciembre.

Euskaltzaindia os recibe de nuevo hoy, quince años después, inmersa en una tarea de renovación de sus estructuras y funcionamiento, en una tarea de búsqueda de un mejor servicio a la sociedad y de una convivencia de lenguas dentro de los territorios de lengua vasca, labor en la que quiere participar de forma significativa.

En esta línea de trabajo, voy a enumerar someramente algunos puntos centrales de nuestra labor:

a) El primero es la entrada de nuevos miembros en la Academia, proceso que hemos culminado estos cuatro últimos años y que nos ha permitido que nuevas generaciones de académicos tomen parte en Euskaltzaindia, al lado de quienes durante años han llevado el timón de nuestra institución.

b) El segundo consiste en potenciar la investigación de aquello que a la Academia le resulta propio: la lexicografía, la gramática, la toponimia y la onomástica, la literatura y la dialectología, y mas recientemente, la historia social de la lengua y hacerlo, además, con el apoyo de nuevas tecnologías y abiertos a conciliar la rigurosidad del proceso con la colaboración con las universidades, centros de investigación, industrias de la lengua y agentes culturales vascos.

c) El tercero es el de agilizar, por medio de convenios ad hoc, una red social y cultural que permita a la Academia conocer el eco social de sus propuestas lingüísticas y tener una comunicación eficaz con quienes son sus destinatarios, a la hora de conseguir la mayor interacción posible entre la Academia y éstos.

d) El cuarto pasa por una adecuada gestión interna, una financiación suficiente y una comunicación al exterior que permita dar a conocer nuestra Institución a través de sus obras y realizaciones.

No voy a negaros que muchas de éstas son preocupaciones comunes que cada una de nuestras academias tiene, y que todos compartimos, en mayor o menor grado.

Tampoco os voy a ocultar que vuestra ayuda nos resulta impagable a la hora de desarrollar muchas propuestas de la Junta de Gobierno de esta

institución que recogen vuestras experiencias. Ni qué decir tiene que con vuestro permiso y nuestro agradecimiento, seguiremos tocando vuestras puertas, que esperamos tener abiertas, como tenéis la nuestra, a vuestra completa disposición.

Creo que es un factor positivo el hecho de que, como ya he dicho al comienzo, seamos capaces de articular un espacio común de trabajo en torno a los temas que nos son propios, espacio que juzgo de gran interés para todos nosotros.

No puedo terminar sin referirme a un quinto punto que es quizás el más específico de Euskaltzaindia. Me refiero a esa dualidad, entre la *Sección de Investigación* y la *Sección de Fomento*, que se da, desde su fundación, en nuestra academia, y que, en lo relativo a la *Sección de Fomento*, hace que Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca sea impulsora del euskera en todos los territorios en que la lengua vasca es utilizada, bien en España (Comunidad Autónoma Vasca y Comunidad Foral de Navarra), bien en Francia (Lapurdi, Baja Navarra y Zuberoa).

Esa labor de impulso, como sabéis, ha sido siempre una de nuestras constantes. Una labor de impulso en cuyo diagnóstico coincido con quien fue presidente de la Real Academia Española, Don Fernando Lázaro Carreter, quien, con razón, decía en Bilbao, el año mil novecientos noventa y cuatro que:

> No querría acabar sin aprovechar la presente oportunidad en que coincidimos representantes cualificados de las cuatro principales lenguas españolas, sin invitar a las Academias en cuyo nombre asistimos a la feliz conmemoración de la vasca, a que pongamos todo el peso de nuestras instituciones y los institutos científicos, todo su prestigio, todo su significado moral, al servicio de un ideal de pacificación de la áspera convivencia que hoy mantienen los idiomas nuestros en algunos lugares. Estoy persuadido de que si en los asuntos de política idiomática, las Academias tuvieran opinión y hasta decisión reconocida por quienes ostentan el poder, los problemas perderían sus aristas más hirientes, porque sabrían acercarlos a un solución de convivencia. Hagamos cuanto esté en nuestras manos para que ésta sea posible.

Esta visión es la que comparte Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca que tiene, a través de su Junta de Gobierno, un rumbo claro en este tema, rumbo que pasa por la leal colaboración institucional con las autoridades públicas, por el apoyo a los agentes culturales de cada uno de los territorios de la lengua vasca, por la ausencia de adscripciones a cualquier ideología política, por la búsqueda de la convivencia lingüística y de la paz social, y por el respeto a los valores de la democracia y los derechos humanos.

El representante del Institut d'Estudis Catalans en el acto del año mil novecientos noventa y cuatro, Don Joaquim Rafel, entonces secretario general del Institut d'Estudis Catalans, hablaba del catalán y del vasco en estos términos:

> Este acceso súbito a unos espacios o a unos sectores sociales, los del uso público, que les habían sido negados durante largos años, da lugar, en las lenguas afectadas, a una serie de problemas que requieren soluciones a la vez rápidas y adecuadas; creo sinceramente que en la solución de estos problemas el papel de las Academias, entendido desde una mentalidad digamos moderna, no es nada despreciable, sino que, al contrario, es imprescindible, lo cual no quiere decir que sea exclusivo, ni mucho menos.

En un proceso ininterrumpido, la lengua vasca ha penetrado en esos espacios y sectores sociales, y, a medida en que lo hace, las exigencias para Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca son cada vez mayores en la formulación de una lengua apta para expresar las diversas necesidades de la vida social.

Hoy más que nunca es, como decía antes, deseable el plurilingüismo de la sociedad, y hoy más que nunca, es precisamente la labor de codificación de las Academias de la lengua la que posibilita, a través de unos principios básicos, que nuestras lenguas sean instrumentos de comunicación y conocimiento, y no trazos fragmentados sin cohesión ni virtualidad alguna para la vida moderna.

A esas exigencias quiere responder nuestra academia, ligando las manifestaciones lingüísticas territoriales del euskera con la imprescindible lengua

unificada, y proyectando la labor de la Academia en el conjunto de la sociedad.

Por eso mismo agradece Euskaltzaindia vuestra presencia aquí, en este acto académico, porque sabe que supone un aliento para continuar caminando juntos en la vida de nuestras lenguas, de nuestras culturas, que conviven desde hace siglos y que buscan un futuro todavía mejor.

Antes de terminar, un recuerdo para alguien que ya no está entre nosotros y a quien todos conocisteis. Me refiero a Henrike Knörr, nuestro académico de número y «embajador» de Euskaltzaindia en muchas ocasiones en que las academias hemos concurrido a diferentes actos. Estoy seguro de que hoy es un día también gozoso para él, al vernos reunidos en torno a nuestras lenguas y academias.

Creo firmemente que con las consideraciones anteriores lograremos algo que el narrador de la última novela de Bernardo Atxaga predica de uno de sus protagonistas, Richardson, cuando dice aquello de:

> Bihotzak arrazoi eman zion
> El corazón le dio la razón
> O corazon deulle a razón
> El cor li va donar la raó.

He utilizado hasta la saciedad la palabra trabajo en mi intervención. Es hora también de hablar de sentimiento porque yo también deseo , al igual que el personaje de Atxaga, que nuestras lenguas, las lenguas que llevamos en nuestro corazón, sean las que nos den la razón de nuestra reflexión, de nuestro quehacer, para lograr entre todos nosotros un entendimiento cada vez más fructífero y enriquecedor.

Mila esker
Muchas gracias
Moitas gracias
Moltes gracies.

90 Aniversario de Euskaltzaindia

PASCUAL RODRÍGUEZ, José Antonio
Académico de número de la Real Academia Española

Nació la Real Academia Española con el objetivo de proporcionar seguridad lingüística a los hispanohablantes, a través de obras como el diccionario académico (el *Diccionario de Autoridades*), la Ortografía y la Gramática.

Con el paso del tiempo, se ha ido adaptando la Academia a una serie de cambios, originados por la posibilidad que existe en la actualidad de aplicar a su trabajo los conocimientos procedentes de la Lingüística, de la Filología y de la Informática. Por otro lado, ha organizado nuestra corporación sus tareas en un marco panhispánico. Se pretende, así, servir no sólo a la seguridad lingüística de todos los hispanohablantes, sino funcionar también –como ocurre con las otras Academias– como un «Centro de recursos» para los filólogos.

No voy a entrar en la preparación de la nueva edición, la 23, de nuestro Diccionario, que se está revisando de una manera que no diferirá mucho de la que se aplica en los diccionarios correspondientes de la Academia Galega, del Institut d'Estudis Catalans o de Euskaltzaindia, pues quiero referirme en este corto espacio de tiempo –por más que tenga que ser muy de pasada– solo a algunas acciones novedosas.

1. Empezaré por lo ya terminado, situación en que se encuentra el *Diccionario Panhispánico de Dudas,* que sirve de orientación normativa a los hispanohablantes, sea cual sea el lugar en que viven. Esta obra se va rehaciendo, día a día, afrontando los nuevos problemas que se presentan en el caso de los neologismos, etc. Se ha adaptado nuestro diccionario usual a las

Euskera. 2009, 54, 3. 1291-1293. Bilbo
ISSN 0210-1564

necesidades de distintos grupos sociales, a través del *Diccionario del Estudiante* o del *Diccionario Esencial de la Lengua Española*.

2. Entre los proyectos en curso, vamos a contar antes de un año con una Gramática de la Lengua Española, que sustituirá a la de 1931 y que será, a mi juicio, el referente gramatical del español. La descripción de nuestra lengua que se proporciona en esta obra es, como no podía ser menos, rigurosamente panhispánica, ceñida a la realidad de los datos de uso en el amplio espacio en que se habla español. Esta Gramática permitirá partir de una descripción muy precisa de los hechos, que nos llevará a caminar con holgura por el terreno de la norma. Después de 8 años duros de trabajo, y con el enorme esfuerzo de dirección y coordinación que ha supuesto, dispondremos en breve de una obra de referencia de más de 4000 páginas, que se reducirá en forma de compendio (unas 800 páginas) y de epítome (unas 200) para hacerla accesible a todos los públicos.

Euskaltzainburu jauna
Nafarroako presidente jauna
Bizkaiko eta Gipuzkoako Ahaldun Nagusiak
Donostiako alkate jauna
Agintariok
Euskaltzainok

Lagunok.

EGUN ON!

Gaur eta hemen, egun handia ospatzen dugu jaun-andreok.

Euskal Herrian jaio eta bizirik den erakunde historiko honek laurogeita hamar urte bete ditu.

– Zorionak, bada, euskaltzainburu jauna!

– Zorionak, euskaltzain zareten jaun-andreok!

– Zorionak eta nire eskerrik beroena zuei, euskararen alde egindako lanagatik.

Gaur, duela LAUROGEITA HAMAR (90) urte bezalaxe, Araba zuekin dago.

Euskera. 2009, 54, 3. 1391-1392. Bilbo
ISSN 0210-1564

Aurrerantzean ere, Arabak bat egingo du gainontzeko euskal lurraldeekin eta, orain arte bezala, gogotsu helduko die bere eginbeharrei Euskaltzaindiari dagokionez.

Gaur eta hemen, Euskaltzaindiaren sorleku den honetan, gogora ekarri nahi ditut orain baino lehen euskarari eta Euskaltzaindiari beren onena eman dieten hainbat arabar.

Gogoan dut, lehenik eta behin, Juan Pérez de Lazarraga zalduna.

Gogoan dut Euskaltzaindia sortu aurretik Akademia baten beharra aldarrikatu zuen Jose Paulo Ulibarri Galindez jauna.

Gogoan ditut, halaber, Eusko Ikaskuntzak mila bederatzirehun eta hemezortzian (1918) Oñatin egindako biltzarrean izandako arabarrak. Besteak beste, Luis Eleizalde, Enrique Eguren eta Angel eta Odon Apraiz.

Gogoan dut Raimundo Olabide euskaltzaina.

Gogoan dut Andoni Urrestarazu «Umandi» euskaltzale fin bezain oparoa.

Gogoan dut Izaskun Arrue andereñoa.

Gogoan dut Henrike Knörr saiatua bezain nekaezina.

Aintza eta ohore guztiei!

Besterik gabe.

EKIN eta JARRAI ZUEN EGITEKOAN.

Mila esker.

90. urteurrenean

BILBAO EGUREN, Jose Luis
Bizkaiko Ahaldun Nagusia
Diputado General de Bizkaia

Gipuzkoako Ahaldun Nagusia,
Euskaltzainburua eta
euskaltzainok,
agintariok,
jaun-andreok,
egun on.

Ni oso laburra izango naz. Nire aititak eta amamak euskaldunak ziren, nire gurasoek, gerra pasata gero, diktadurapean, Bilbon, euskera galdu eben; ni erdelduna jaio nintzen, eta aspalditik euskalduna naz, eta nire hiru semeak euskaldunak dira, EGAdunak gainera. Hauxe da nire bizitzaren zati berezi bat. Nik uste dot bide horretatik etorriko jakula gure hizkuntzaren etorkizuna. Horrexegatik gaur euskeraren herrian, euskaldunen herrian, Euskal Herrian, bizkaitarren izenean, zorionak Euskaltzaindiari. Zorionak zuen urtebetetzean eta eskerrik asko zuek egin dozuen eta egingo dozuen lanagatik gure hizkuntzaren alde. Zorionak eta urte askotarako. Eskerrik asko.

Euskera. 2009, 54, 3. 1393. Bilbo
ISSN 0210-1564

90. urteurrenaren amaiera

URRUTIA BADIOLA, Andres
Euskaltzainburua
Presidente de Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca/Académie de la langue basque

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako agintariak,
Ahaldun Nagusiak,
Kultura Ahaldunak,
Arabako Batzar Nagusietako Burua,
Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburua eta sailburuordea,
Espainiako Gobernuaren Hezkuntza Ministerioaren ordezkaria,
Madrileko Gobernuaren ordezkariak,
Office Publique de la Langue Basque izenekoaren ordezkariak,
Donostiako Udalaren ordezkaria,
euskaltzainkideak,
gainerako akademien ordezkariak,
Euskaltzaindiaren langileak,
bestelako erakunde eta elkarteen ordezkariak, alderdi politiko, elkarte, kutxa, komunikabide eta bestelako entitate kulturalen ordezkariak,
jaun-andreak,
egun on.

Iritsi da garaia, Euskaltzaindiaren laurogeita hamargarren urteurreneko ospakizunei bukaera emateko. Garaia, da, orobat, zuei guztioi eskerrak emateko, gaur eta hemen, gure artean zaudetelako.

Gaurko ekitaldiaren aurretik ere, bestelakoak izan ditugu, eta zuetatik asko horien lekuko izan zarete.

Euskera. 2009, 54, 3. 1395-1401. Bilbo
ISSN 0210-1564

Iruñean, iaz, XVI. Biltzarra egin genuen urrian, eta horrekin hasiera eman genien laurogeita hamargarren urteurreneko ospakizunei. Gero etorri ziren, etorri ere, Gasteizkoa, aurten, apirilean, Hazparnekoa, ekainean, eta Bilbokoa, uztailean. Horiekin guztiekin Euskaltzaindiak begi-bistan jarri nahi izan du eskakizun akademikoa bateratu behar dela herrialde euskaldunetan eta horien gizarteetan izan beharreko presentziarekin.

Esan bezala, Iruñean egin genuen XVI. Biltzarra; horretan, Pirinioetako hizkuntzak izan ziren aztergai. Gasteizen, berriz, bertako toponimiari buruzko egitasmoaren lehen bi liburukiak aurkeztu genituen. Hazparnen, euskarak Iparraldean bizi duen errealitateari buruz jardun zuen akademiak.

Amaitzeko, uztailean, Euskaltzaindiak Bilbon duen egoitza nagusian, batu egin ginen Real Academia Española, Real Academia Galega eta Secció Filològica del Institut d'Estudis Catalans izeneko erakundeen goi ordezkariak, eta atsegin handiz gogoratzen dudan ekitaldi akademikoa egin genuen orduan. Bilera hartan, erakundeen arteko lankidetzarako oinarriak finkatu genituen; guztion asmoa da lankidetza horren fruituak oparoak izatea, eta horretara bideratuko ditugu gure ahaleginak. Horren aurretik ere, martxoan, Urkiolan, XVI. Barne Jardunaldiak egin genituen. Horien ondorioz, gure Barne Erregelak eraldatu ditugu modu esanguratsuan; horrekin batera ere, gure lan lexikografikoa nabariro sustatu dugu eta euskarazko corpus linguistikoak sortzeari bultzada eman diogu; eta, halaber, webguneko edukiak baliatuta, ahaleginak egin ditugu akademiak gizartearekin duen komunikazioa hobetzeko.

Zergatik gaur, hemen, Donostian? Bada, hementxe bertan, jauregi honetan, egin zuelako Euskaltzaindiak bere lehen lan-bilera, gure artean irudi ahantzezin hori dagoela. Bilera horretan ordezkatuta egon ziren herrialde euskaldun guztietako eta euskalki guztietako ordezkariak. Gipuzkoako Aldundiak egin zion harrera, beraz, Euskaltzaindiaren lehenengo biltzar horri, eta Aldundi horrek eragin zuen, Araba, Bizkaia, eta Nafarroako aldundiekin batera, Euskaltzaindiaren sorrera. Hona hemen, beraz, lau aldundi horientzako aitortza, gogo onez egiten duguna.

* * *



Por eso están aquí hoy los representantes institucionales de todos los territorios de lengua vasca, con un protagonismo histórico equivalente e idéntico al que tuvieron en 1918-1919, cuando impulsaron la creación de Euskaltzaindia y por eso este reconocimiento que, en primer lugar, se dirige a ellos.

Hoy les acompañan en la mesa, afortunadamente, los representantes del Gobierno Vasco, del Gobierno español y del *Office Public de la Langue Basque,* simbolizando así el reconocimiento de los poderes públicos de los territorios de la lengua vasca a la labor de Euskaltzaindia.

Su presencia enaltece y subraya nuestra labor, pero no puede ser, en ningún caso, un factor de autocomplacencia y de autosatisfacción que pueda enervar nuestras iniciativas de futuro.

A esta mesa y a todos los presentes me dirijo hoy para recordarles, desde Euskaltzaindia y sus noventa años de experiencia, que la lengua vasca necesita de todos nuestros esfuerzos para continuar siendo un elemento significativo de nuestra personalidad.

Horretarako, esan gabe doa, guk guztiok konpromisoa hartu behar dugu gure gain: Euskaltzaindiak gizartearenganako konpromisoa bereganatu be-

har du; eta, herri-aginteek eta gizarteak berak, euskararenganako konpromisoa hartu behar dute euren gain, horren zerbitzupean baitihardu Euskaltzaindiak.

Neuri dagokit gaur hemen Euskaltzaindiak gizartearenganako duen konpromisoaz hitz egitea. Konpromiso horren ardatz nagusiak, izatez, hurrengoak dira:

a) Lehenengo eta behin, kudeaketaren inguruko konpromisoa. Horrek bere barruan hartzen ditu:

a.1. Euskaltzaindiaren giza baliabideak eta baliabide materialak egoki antolatzea, lan-sistemak kontuan har dezan Euskaltzaindiaren sorkuntza- eta ekoizpen-prozesu guztia, bai linguistikoa, bai akademikoa, horretarako jardule guztiak elkarrekin harremanetan jarri behar direla.

a.2. Diziplina desberdinetako euskaltzainak euren artean lankidetzan aritzea.

a.3. Aurrekontuetan eta finantzetan, egonkortasuna bilatzea, batez ere, krisi ekonomikoa bizi dugun aldi honetan, guztiok jakin behar baitugu zein diren akademiaren lehentasun estrategikoak.

a.4. Euskara gizartean nabarmentzeko apustu egitea, euskararen alde lan egiten dutenei euren lana aitortuz.

b) Bigarrenik, ikerketaren inguruko konpromisoa. Horrek bere barruan hartzen ditu:

b.1. Teknologia berriak nabariro garatzea, neurri handiko corpus linguistikoen bitartez, euskarak modernizazioaren ibilbidea gal ez dezan. Euskaltzaindiak zeregin horren oinarriak ezarri ditu aurton, martxoan, barne jardunaldiak egin dituenean. Horrela, aurrera egin ahal izango da hainbat corpusetan, hala nola, corpus onomastikoan, lexikografikoan, herri literaturaren corpusean, hiztegi etimologikoan eta euskararen gizarte-historian ere bai.

b.2. Euskaltzaindiak gizartean erantzukizun handiagoa bereganatzea, euskararen arau linguistikoak emateko orduan. Zeregin hori burutzean, Euskaltzaindiak aintzakotzat hartu behar ditu gizarte-eragileen beharriza-

nak, eta, gainera, arau horiek ahalbidetu behar dute euskara hizkuntza malgu izatea, egungo bizimodu modernoaren eskakizunak gauzatzeko.

b.3. Euskaltzaindiaren arau linguistikoak bereziki, eta kultura-ekoizpena oro har, egoki helaraztea gizarte-eragileei, bai eta kultura-, hezkuntza- eta lanbide-jarduleei ere. Horretarako, Euskaltzaindiaren arau- eta kultura-ekoizpena artez atondu eta horren gaineko jarraipen estua egin behar da, horrek gizartean duen eragina behar bezala aurreikusita eta neurtuta.

Ekitaldi honetan aukera ezin hobea dut zuei Euskaltzaindiaren webgunean denon esku jarri dugun lan historiko eta garrantzitsua aurkezteko, hain justu ere, Koldo Mitxelena zenaren *Orotariko Euskal Hiztegia*. Gaur bertan, errealitate bihurtu da egitasmo hori, eta horretan partaide izan direnak aipatu nahiko nituzke, alegia, Mitxelenaren senitartekoak, hiztegia lantzen aritu den taldea, eta, berebat, Euskaltzaindiaren zuzendaritza. Guztiei esker, egia bilakatu da Euskaltzaindiak 2005. urtean iragarri zuena, *Orotariko Euskal Hiztegia* izenekoaren liburukiak paperean argitaratzeari bukaera eman zitzaionean. Zer esanik ez, Euskaltzaindiak egun ere lanean dihardu, lan oparo hori gaurkotzeko ahaleginetan.

Ez da batere erraza arau linguistikoak gizarteratzea, ezta hurrik eman ere; denbora eta neke handia behar da horretarako. Nolanahi den ere, Euskaltzaindia eta gure gizartea aspalditik ari dira zeregin horretan, eta zilegi bekit esatea, desadostasun guztien gainetik, arrakastatsua izan dela gaur arte ibilitako bidea.

c) Eta, hirugarrenik, harremanetarako konpromisoa:

c.1. Erakunde jakin batzuek herrialde euskaldunak gobernatzeko ardura dutenez gero, eta, gobernu-eginkizun horretan, euskararen inguruko politika ezartzen dutenez gero, erakunde horiekin harreman bateratuak izan nahi ditugu. Harremanon uztarria elkarrenganako errespetua izan behar da, guztiok baitakigu euskara gizartearen nortasun eta bakerako osagaietatik bat dela; ez, ordea, eztabaidarako eta gatazkak eragiteko erreminta. Euskaltzaindiak betidanik lan egin du, lanean dihardu eta lan egingo du, Euskal Herrian diren pentsaera desberdinekin batera, erakunde guztiekin lankidetza leialean arituz.

c.2. Bestalde, harreman sakon eta estuak izan nahi ditugu kulturaren Euskal Herri honetan euskaraz eta euskararen alde lan egiten dutenekin. Horiek guztiek jakin behar dute Euskaltzaindia eurekin izango dela, laguntza emanez eta haien lana balioetsiz.

c.3. Adiskideen arteko harremanak izan nahi ditugu, halaber, Espainiako hizkuntzen akademiekin eta horietako ordezkariekin. Gaur gure artean daude eta hori biziki eskertu nahi diegu. Hitz handien gainetik, lan isilean arituko gara, guztiok batera egitasmo zehatzak burutu arte.

c.4. Munduari begira eta, zehatzago, Europari begira, harremanetan jarriko gara, bestelako hizkuntza gutxituenganako ardura dutenekin, haiek ere erantzukizun akademikoa baitute euren hizkuntzak aurrera ateratzeko, Euskaltzaindiak euskararekin duen bezala. Horretarako, nahitaezkoa da ingelesa eta frantsesa sustatzea, Euskaltzaindiaren kultura-ekoizpena zabaltzeko lanabes gisa. Horixe egin behar da, bereziki, frantsesaren kasuan, hori gure akademiaren hizkuntzetatik bat delako, eta Euskaltzaindiak harreman sendoak dituelako *Office Public de la Langue Basque* deiturikoarekin.

Hoy renovamos ese compromiso, reafirmado en las jornadas de reflexión interna de Euskaltzaindia de marzo de este año: un compromiso de mejora en la gestión de los recursos humanos y materiales, especialmente en un momento de crisis económica como éste; un compromiso de investigación orientado a las materias que le son propias, junto con una socialización adecuada de la norma lingüística y, en general, del euskera y la cultura vasca; y, por último, un compromiso de relación con las demás academias en particular, y con los operadores lingüísticos y culturales del euskera en general.

Laurogeita hamar urte geroago, gure konpromisoak iraganari so egiten dio, eta, aldi berean, etorkizunari begira jartzen da. Hori egitean, nahitaezko gertatzen da guztiei urte honetako ospakizunak zirela eta, Ana Toledo euskaltzainak proposatutako mezu hau helaraztea: ESKERRIK ASKO, MILA ESKER, ESKER ANITZ.

Eskerrik asko, mila esker, esker anitz guztioi, eskerrik asko gizarteari eta euskararen munduari, zer dela eta Euskaltzaindiari begirunea eta aitortza

emateagatik, haren arauak eta gomendioak betetzeagatik, eta, azken finean, euskarak gaurkotasunaren eta kulturaren eramaile izateko behar duen araubide hori egoki onartzearren.

Eskerrik asko, mila esker, esker anitz Euskaltzaindian ari zareten guztioi. Eskerrik asko euskaltzain izan zirenei –ezin ahaztu hemen Henrike Knörr Zuzendaritzakidea– eta egun direnei, oso, ohorezko nahiz urgazle, batzordekideei eta egitasmoetako teknikari nahiz langileei.

Eskerrik asko, mila esker, esker anitz Euskaltzaindiaren langileei, guztioi ere berebiziko ahaleginak eskatu izan baitizkizuet azken egunotan, gaurkoa garaiz eta behar den moduan egin ahal izateko.

Eskerrik asko, mila esker, esker anitz zuei, ekitaldi honetan eta, oro har, Euskaltzaindiak laurogeita hamargarren urteurrenean egin dituen guztietan laguntza paregabea eman duzuelako.

Es el momento de que Euskaltzaindia dé las gracias a esta sociedad: gracias por vuestra acogida, por vuestro respeto, por vuestra crítica y por vuestra participación. Ellas son la mejor garantía de que el noventa aniversario de Euskaltzaindia es, en definitiva, un aniversario de futuro para el euskera y la cultura en lengua vasca.

Bukatu behar dut. Eta, bukatzeko, Joshua Fishman soziolinguistaren hitzak ekarri nahi ditut hona, berba horiek laburbiltzen baitute gaur dudan sentimendua, eta, berebat, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak bere egin nahi duen zeregina: *Do not leave your language alone! Ez utz zure hizkuntza bakarrik, bakardadean. No dejes tu lengua sola, indefensa, abandonada. N'oubliez pas votre langue*. Euskaltzaindiak ez du halakorik egingo. Orain laurogeita hamar urte agindua hartu zuen aldundietatik, eta gaur aldundietako ordezkari nagusiek eta gainerako agintariek agindu hori berretsi dute, hemen gure artean ditugula. Hala ulertzen du Euskaltzaindiak zuen gaurko parte-hartzea. Euskararen mesederako eta euskarazko agindua da zuena eta gizartearena ere; guretzako agindua, gurekin batera egitekoa; azken buruan, agindu horrek berarekin dakar konpromisoa, euskara hizkuntza bizia izan dadin eta guztiok hark gizartean duen balioa aitor dezagun.

Esan dut.

Mila esker.

Nafarroa Oinez 2009 eta Euskaltzaindia

Etxarri Aranatz, 2009-IX-25

Euskera. 2009, 54, 3. Bilbo
ISSN 0210-1564

Agurra

MARIÑELARENA, Muxi
Andra Mari Ikastolako zuzendaria

Ageriko ekitaldia

Arratsalde on guztioi.

Ongi etorriak *Nafarroa Oinez 09* eta Euskaltzaindiak elkarlanean antolatutako ekitaldi honetara.

Dakizuenez, hiru dira aurtengo *Nafarroa Oinez*-en helburuak. Batetik, ikastetxe berria eraiki ahal izateko finantzaketa bide izatea, bestetik euskara, gure hizkuntza sustatzea eta azkenik, hizkuntza gutxitu eta gutxiagotuen aldeko aldarrikapen gunea izatea.

Azken bi hauetan, hau da, mintzairarekin lotuak daudenak, Euskaltzaindiak zeresan handia du, bera baita gure hizkuntzaz arduratzen den Euskal Herriko erakunde gorena, gure hizkuntzaren enbor zaharrari bizi berria emateko, bere garapena zaintzeko eta zuzentzeko sortua; hizkuntzaren beraren ikerketaren bidean sor daitezkeen arazoei adorez eta maitasunez ekiteko.

Ohore bat izan da guretzat gaur Euskaltzaindiaren *Euskararen Historia Soziala* proiektuaren *Jarraipen* batzordea, *Sustapen* batzordea eta Zuzendaritza gure artean izatea. Eskerrik beroenak eta Zorionak 90 urte hauetan egindako lanarengatik.

Euskera. 2009, 54, 3. 1405. Bilbo
ISSN 0210-1564

Aurkezpena

URZELAI, Pello
Andra Mari Ikastolako lehendakariordea

Ekitaldi honi euskaltzain urgazlea den Jose Luis Erdozia etxarriarrak emango dio hasiera, Sakanako betiko hitzak erabiltzeko gomendioak eta argibideak emanez.

Jarraian Pello Urzelai, Andra Mari ikastolako lehendakariordeak, Jose Mari Satrustegi euskaltzain zenaren omenez bi hitz egingo ditu.

Tarte honetan musikak izango du bere lekua, gure ikasle ohien parte hartzearekin.

Ondoren, aurten zendu den Santiago Ezkerra Beltza «*Lizarrusti*» euskaltzain urgazlearen bizitza eta lanak jasotzen dituen liburua aurkeztuko du Andres Iñigok bere prestatzaileak.

Bukatzeko, Andres Urrutia euskaltzainburuak Euskaltzaindia eta Nafarroa gaiaz hitz egingo digu.

Eta bukatzeko, ekitaldia musikaz lagunduta amaituko dugu.

Eskerrik asko

Euskera. 2009, 54, 3. 1407-1409. Bilbo
ISSN 0210-1564



Euskera. 2009, 54, 3. 1407-1409. Bilbo
ISSN 0210-1564


EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE
Ikastolen Elkartea
nafarroa
EGITARAUA
10:30
Euskaltzaindiaren Euskararen Historia Soziala proiektuaren jarraipen batzordearen bilera
Udaletxean
12:000
Euskaltzainen bisita Andra Mari Ikastolara
12:30
Euskaltzaindiaren Sustapen batzordearen bilera
Udaletxean
16:00
Euskaltzaindiaren Zuzendaritza bilera
Ikastolan
18:00
AGERIKO EKITALDIA
Etxarriko Kultura Etxean
■ Agurra:
MUXI MARIÑELARENA, Andra Mari Ikastolako zuzendaria.
■ Aurkezpena:
PELLO URZELAI, Andra Mari Ikastolako lehendakariordea.
■ Sakanako hitzekin jolasean.
Hizlaria: JOSE LUIS ERDOZIA, euskaltzain urgazlea.
■ Jose Mari Satrustegi gogoan.
Hizlaria: PELLO URZELAI, Andra Mari Ikastolako lehendakariordea.
■ Kanta.
LUR ETA AMETS LARRAZA, Andra Mari Ikastolako ikasle ohiak.
■ Santiago Ezkerra "Lizarrusti". Bizitza eta lanak liburua.
Aurkezlea: ANDRÉS IÑIGO Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria eta liburuaren egilea.
■ Euskaltzaindia eta Nafarroa.
Aurkezlea: ANDRES URRUTIA, euskaltzainburua.
■ Kanta.
LUR ETA AMETS LARRAZA, Andra Mari Ikastolako ikasle ohiak.

Sakanako hitzekin jolasean

ERDOZIA MAULEON, Jose Luis
Euskaltzain urgazlea eta irakaslea,
Sakanako euskalkietan aditua

Nafarroa Oinez eta Euskaltzaindia, Ikastolen Elkartea eta Euskaltzaindia gaur hemen, Etxarri Aranatzen, elkarrekin daudela baliatuta, eta atrebentzia handia ez bada, ikastolei (*Andra Mari* ikastolari bereziki gaurkoan) hizkuntzaren inguruko zenbait burutazio eta gomendio helarazi nahi dizkiet pulpitu honetatik.

Sakanan gure aurrekoek erabili dituzten hitzak, esamoldeak eta egiturak baliatzen baditugu, euskara batua bera sendotzeaz gain, gertuagokoa ere nabarituko dugu hain beharrezkoa dugun gure hizkuntza estandarra. Helburu horiek lortzekotan, oso egokia izan daiteke batuaren eskutik ikasi ditugun hitz, esamolde eta egiturekin batera, tokian tokiko burutzapenak ere ezagutzera ematea. Eta horretara, hain zuzen, heldu da gaurko saio labur hau, hitz, esamolde zein egitura horietako zenbait, zuen aurrean aurkeztera:

Maileguak

Ohikoak dira mundu zabalean hizkuntzen arteko maileguak. Euskarak ere inguruko hizkuntzetako hitz batzuk hartu eta bereak egin ditu, gehienetan zenbait aldaketa fonetiko medio. Horietakoak ditugu, besteak beste, ***gorputz*** (corpus), ***txitxirio*** (cicero), ***auskalo*** (a buscarlo), ***mandatu*** (mandato), ***merezi*** (merescere), ***mesede*** (merced)…

Horiek guztiak euskal lexikokoak dira eta horiekin batera Sakanan ugari dira erabiltzen diren maileguak, eta batzuk, gainera, HBn jasoak daude da-

Euskera. 2009, 54, 3. 1411-1417. Bilbo
ISSN 0210-1564

goeneko. Beste batzuk, zalantzarik ez izan, beranduago edo goizago, toki berean eginen dute lekua:

eskartzela («scarsella» italieratik, «bolsa de peregrino o de mendigo», gaztelaniaz «escarcela») Bizkarretik zintzilik eramateko poltsa. Egun HBn jasoa dagoen *bizkar(-)zorro* bezain egokia.

Txerriyek basuen uraitzen giñuzkiyenien, eskartxera artabikorres beteik yamaten giñuben.
(Txerriak basoan edukitzen genituenean, eskartzela arto-bikorrez beterik eramaten genuen!)

lijito («licitum» latinetik) Zuzenbidearen araberakoa, benetakoa.

Bazan garaye! Azkenien meiku lijitue bieldu dugubie!
(Bazen garaia! Azkenean mediku lijitoa bidali digute!)

martingala («martigale» frantsesetik, «martingala» gaztelaniaz) Amarrua, maltzurkeria, azpijokoa.

Ez ttuzu guaño orren martingalak ezautzen!
(Ez dituzu oraino horren martingalak ezagutzen!)

materia HBn ere bai. Zornea. Zauria gaiztotu eta bertan sortzen den gai horiska.

Ebaye erabat geiztotuik zikonet, mateye dayola!
(Ebakia erabat gaiztoturik zaukanat, materia dariola!)

maratila («tarabilla») HBn ere bai. Ateak ixteko ziri edo kisketa. Metatesia eta b/m kontsonante txandaketa jasan ditu. Dardarkari samurraren galera ere bai Sakanan.

Eyeiz be gelan sartuko biak ez badau nei, matille zikok ta!
(Ez haiz bere gelan sartuko berak ez badu nahi, maratila zaukak eta!)

patrifilio («patri + filio» latinetik) Azken hitzak, amaiera, heriotza.

Ola segitzen badek, laster aittuko ttuk patrifiliyuek!
(Horrela segitzen baduk, laster adituko dituk patrifilioak!)

perlesia («paralisis») HBn ere bai. Elbarria. Hitz sinkopatua da, hitz barruko kontsonanteen arteko bokala galdu du.

Perlesiyek jota ziok, gerritti bia ezin muittus!
(Perlesiak jota zagok, gerritik behera ezin mugituz!)

taranta («attarantare» italieratik) Ulertzeko zaila den jarrera, erokeria. Corominasek (2000) hala dio <tarántula> sarreran: «Morder (la tarántula) causando trastornos nerviosos».

Oik die, oik, tarantak dazkazunak!
(Horiek dira, horiek, tarantak dauzkazunak!)

Berrezarpen lexikala

Euskara, hizkuntza zaharra izanik eta euskaldunon eginbeharrak mendeetan zehar aldatuz joan direnez, hainbat hitzen jatorrizko esanahia egokitzen joan da zeregin berrietara. Horien artean, ezagunak ditugu ***ardatz, hausnartu*** eta ***jorratu*** bezalakoak. Horrela, esate baterako, jatorriz «abere belarjaleen ekintza» baino adierazten ez zuenak, «gogoeta egin» edo «ongi pentsatu eta aztertu» ere adierazten du aspaldian. Bide beretik, soroko eremura mugatzen zena, «edozein gai landu» adierazteko ere erabiltzen da eta, horrexegatik, beste hainbeste hitz balia daitezke egungo kontzeptu berriak azaltzeko:

iragotu (*irautu,* Isidora Iza Huizi etxarriarrari hartua). Kale gorrian, eguraldiaren mendean, denbora asko eman ondoren, egurra erabat belzturik, sutarako ere balio ez duela, gelditu. Juan San Martin zenak (Zuazo, 2005, 214), Eibarren burdin langintzari loturik, *iraotu* <revenir> jaso zuen. OEHk bestalde, *iragotu* sarrera dakar, horrela azaldurik: «<Revenir el acero después del temple, hasta irisarlo>… Etxba *Eib*».

Gaur egun, Eibarren eta Etxarri Aranatzen adierazitako kontzeptua azaltzeko *zaharkitu* erabiltzen da, baina ez du nire ustean zehatz-mehatz kontzeptu hori bera ordezkatzen eta hemen aipatutakoa, *iragotu*, egokiagoa izan daiteke «egungo beharretarako ezegoki», hots, «obsoleto» kontzeptua, adierazteko.

Iguel dek egurroi ezpadook subai botatzen, irautuik ziok ta!
Iguel dek ordenadorioi arriken botatzen badek, irautuik ziok ta!
(Igual duk egur hori ez badiok suari botatzen, iragoturik zagok eta!)
(Igual duk ordenadore hori harrika botatzen baduk, iragoturik zagok eta!)

pertzeko Pertzean prestaturiko janaria animaliendako, inolako ongailurik gabea, beheko suko laratzetik zintzilik egosita baino ez. Gizakiondako ezegoki suertatzen denari ere horrela esaten zaio. Beraz «zabor janaria» delakoa adierazteko balia dezakegu.

Aunbeste paatu ta pertzekue besteik ez ziegubiek eman ostatubortan!
Ala ziek Ameiketan okelak ezin jasos, pertzekue besteik eye jaten da!
(Hainbeste pagatu eta pertzekoa besterik ez zigutek eman ostatu horretan!)
(Hala zaudek Ameriketan okelak ezin jasoz, pertzekoa besterik ez ditek jaten eta!)

porka Gai baten multzoa adierazten du. Gaztelaniako «horca», «sarta», «ristra» eta «racimo» hitzak ordezkatzen ditu: *artaporka, matsporka* (baita *matspo(r)killo* ere), *batxuiporka, izporka* (izen eta izenondo). OEHn modu ezberdinetan dago jasoa, baina esanahi berarekin: *morka, borka* (AN-ulz, Sal, R), *porka* (G-nav, AN, B). Hitz hau egokia izan daiteke jatorri bereko gai multzoak adierazteko, hala nola, *izar-porka* (konstelazio, izar-multzo HBn) edo *argi-porka* (lanpara HBn, berezi gabe bonbilla bakarrekoa edo gehiagokoa den ala ez).

Amiñan etxia faten beiz, an ikusko ttun artaporkak txintxiliken!
Amiñan etxia faten beiz,an ikusko den izugarrisko argiporka txintxiliken!
(Amiñaren etxera joaten bahaiz, han ikusiko ditun arto-porkak zintzilik!)
(Amiñaren etxera joaten bahaiz, han ikusiko dun izugarrizko argiporka zintzilik!)

potokeria Litxarreria. Jatorria potoan saltzen ziren elikagaietan dauka. XX. mendeko bigarren erdiaren hasieran, eguneroko jakiak ez zirenak adierazteko erabiltzen zen. Gaur egun, litxarreria edo haurren artean horren zabaldua den «txutxe» hitza ordezka dezake.

Gu aurrek iyendetan potokeyeki engeñetzen dau tripe!
(Gure haurrak igandeetan potokeriekin engainatzen du tripa!)

lepagaineko, lepatxikiko Lepo atzealdean emandako kolpe txikia. Gazteek maiz erabiltzen duten «colleja» hitzaren ordez erabili beharko litzateke.

Ezpeiz belexe ixiltzen, lepageñekuat emanen dubet!
(Ez bahaiz berehalaxe isiltzen, lepagaineko bat emanen diat!)

Esamolde, lokuzio eta perifrasiak

Asko eta asko dira Sakanan erabili izan diren esamolde eta aditz-lokuzio zein perifrasiak, baina ahaztuak ditugu horietako gehienak dagoeneko. Hemen, gaurkoan, batzuk baino ez ditut azalduko, denboraren muga dela eta:

ametsetako odolkia (idolo, gogoko pertsona)

joare hotsak aditu («oir campanas»)

aho zulora begira egon (adurra dariola norbaiti begira)

ahotik hortzera (bat-batean, pentsatu gabe)

Ai hau pena nik! (Ai ene!)

ez ahuntzetarako, ez arditarako (ez baterako, ez besterako; noraezean)

atzeneko aztalkak egin («estirar la pata»)

gezurra zutik bota (inolako lotsarik gabe, begi bistako gezurra esan)

gezurra egiaren kolorean esan (egia benetakoa balitz bezala)

gingirrinetan jarri/egon (suak harturik jarri/egon)

irrikatzen egon (gogo biziz egon)

Inon direnak! (Ez da posible!)

Izorra hadi eta hago! (*Izorrai!)*
leher egiten egon (zerbaiten edo norbaiten zain, oso urduri egon)
lehertuko bada ere (edozein modutara ere, nolanahi ere)
lihoak adina hartu/eman (jipoi handia hartu/eman)
urdindu arte eman (jipoi handia)
luzegarriak eman (luzamenduetan ibili)
Hobe duk hutsa! (abisua edo mehatxua, «¡Más te vale!»)
orpo-orpoetan eduki (ia gainean eduki)
hotzak/goseak garbitzen egon (hotz/gose handia izan)
Zakurraren ipurdira! (popatik hartzera)
zartana baino eroago/harroago (oso ero/harro)
Auzomotojorik! (gogoko gertaera baten zain, erabat harroturik)
zotzera bota (zozketatu, Leon Kastillo bota)

Sakanako zenbait hitzen erabilera hobeste aldera

Lexikoarekin ere, esamoldeei buruz nioena errepika daiteke eta, hementxe, lagin bat baino ez dut aurkezten, hizki beltz eta estañes Sakanako bertakoa azpaimarratuz eta hizki arruntean gehien erabiltzen dena testu liburuetan eta «batuan» ari garela erakutsi nahi dugunean:

ilaje* = *kalpar («greña»)
***katamar(ru)ka* =** herrestan
***katagorri* =** urtxintxa
***katalingorri* =** marigorringo
***kardamotz* =** eguzkilore, ekilore
***amiña* =** amona
***apez* =** apaiz
***ale bat ere ez, alerik ere ez* =** inor ere ez
***txirrinta, onguramin* =** gurari, nahiera

maindire = izara
barne = barru
biboro (***bibiro*** HBn) = biki
esnatu = itzarri
esnagailu = iratzargailu
ezkontza = eztei
besape = galtzarbe
iraztor = iratze = ira = garo
izeba = izeko
ostots = trumoi
oinaztura = tximista
lasterka = korrika
ohatze = ohe
baratxuri = berakatz
txindila = dilista
txitxirio = garbantzu
neskato = neskatxa
jolastu = olgatu
apar = bits
aratxe = txahal
pixa = txiza
txindurri = inurri
ikurka-makurka = sigi-saga
galtzin = kare
gisu = igeltsu
gisugile = igeltsero

Jose Mari Satrustegiren Omenez

URZELAI, Pello
Andra Mari Ikastolako lehendakariordea

Arratsaldeon guztioi

Lehendabizi, zorionak.

Zorionak Euskaltzaindiko kide guztiei, iraganekoei eta oraingoei. Zorionak eta esker ona, batez ere 90 urte hauetan guztietan, egoera zail eta gogorretan ere, egindako lanagatik.

Zorionak jaso beharko lituzkeen artean, gaur bereziki omendu nahi dugun euskaltzain bat dago, Jose Mari Satrustegi arruazuarra.

Bi hitz baino ez, Jose Mari Satrustegi gogoratzeko aipamen labur honetan. Bi hitz gure seme-alaben hezkuntzaz arduratzen garenon ikuspegitik.

Bi hitz: altxorra eta jakintza.

Ezkutuan gordeta zegoen altxorra aurkitzen eta ezagutzen lagundu zuen Jose Mari Satrustegik, euskal testu zaharren bildumari esker. Horien artean, adibide gisa, testu bat ekarriko dut gogora ezagutzaren ardatz den jakinminaren bidea erakusten duelakoan.

Iruñeko Sinodoak *Breviarium* bat argitaratu zuen 1501ean. «Erdi aldera, 175. orrian festaburu eta astegunen egutegia dakar. Latinez ezarritako hilen izenak euskarara itzuli zituen eskuz norbaitek». Orain arte ezagutzen den hilen zerrendarik zaharrena da. Aurkikuntza eder hau Satrustegirena da.

Baina Jose Mari Satrustegik ez digu bakarrik hizkuntzaren altxorraren bidea erakutsi. Baita euskara hitz egiten duen jendearena ere, hau da, herri

Euskera. 2009, 54, 3. 1419-1420. Bilbo
ISSN 0210-1564

jakintza. Hizkuntza pertsonen sentimendu, ikuskera, sinesmen eta esperientziei lotuta.

Satrustegiren *Ekaitza* nobela da horren adibide argia. Bertatik esaldi labur bat: «Udazkena berez ederra da; neguaren bildurra du txarrena». Esaldi ederra eta egiazkoa, baina aitortu behar dut abagune honetan guk ez diogula beldurrik neguari, baizik eta urriaren 18an eguraldi txarra egiteari. Espero dezagun ederra izatea, udazkena ederra baita.

Mila esker Jose Mari Satrustegiri euskararen alde egindako lan guztiagatik, mila esker hizkuntza eta jakintza uztartzeagatik. Mila esker euskaltzain guztiei. *Ekin eta jarrai*.

Euskaltzaindia eta Nafarroa

URRUTIA BADIOLA, Andres
Euskaltzainburua

Arratsalde on guztioi:

Lehenbizi, zuentzat agurra. Hasteko, Andra Mari ikastolako agintariei, irakasleei, langileei, gurasoei, eta haurrei, ederki kantatu digutelako *Nafarroa Oinez*en kanta. Orobat, Udalari eta herritar guztiei, harrera ezin hobea egin digutelako, duela hamar urte egin ziguten moduan.

Agur-hitzak egin behar ditut eta atsegin osoz egiten ditut. Agur-hitzok, horiek merezi dituzuelako, gogo handiz egiten duzuen lan ederragatik.

Eskerrak ere gaur eman diren hitzaldiengatik eta liburuengatik. Zin-zinez Nafarroa eta euskararen alde ahalegin interesgarria egin duzue hizlariok eta egileok.

Natorren, alabaina, punturta, eta esan dezadan gaur aurkezten dugun eskuko orria *Nafarroa eta Euskaltzaindia*, zabalkunderako tresna dela, euskara eta euskal kultura zabaltzeko lanabesa. Har ezazue, beraz, orain, ekitaldi honen irteeran eta barreiatu eta zabal ezazue nonahi eta noranahi.

Hor duzue euskaraz zein gaztelaniaz Euskaltzaindiaren lanak, biltzarrak, bilerak eta ekitaldiak, kideak eta argitalpenak, Nafarroako lurraldean eginak.

Hor ere gure itxaropena, modu onuragarri eta erraz batez euskara eta Euskaltzaindiaren egitekoak nafar guztiei helarazteko.

Eguerdian, Andra Mari ikastolaren eraikinean, haurrak, txintxo-txintxo gure zain zeudela, ohartu naiz aurtengo *Nafarroa Oinez* honetarako aukera-

Euskera. 2009, 54, 3. 1421-1422. Bilbo
ISSN 0210-1564

tu duzuen panpinaz. Argiñe jarri omen diozue izena. Ziur nago hura dela, bere ibilera eta hitz ezin euskaldunagoen bidez, euskararen mezua zabaltzeko modurik aproposena.

Hala izan dadila eta holakoa izan dezagun bera, guztion gozamenerako.

Mila esker zuei gaur gurekin egotearren. Mila esker eta gogo biziz euskara eta euskararen aldeko ahaleginetan elkarrekin jarraitu dezagun.

Txikiak handi jarri duzue goiburua. Alabaina, gu ez gara txikiak, handiak baino, handiak ditugulako asmoak eta ekintzak. Izan ere, euskararen esparruan 90 urte bete ditu Euskaltzaindiak eta aldi luze honetan gure argi-ilun eta on-gaitz tarteko, oro har, euskarari zerbait ekarri diogulako, gure hizkuntzak aurrera egin dezan gizarte honetan.

Jardunaldiak

Euskera. 2009, 54, 3. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskaltzaindiaren XIV. Jagon Jardunaldiak:
Etorkinak eta euskara

Bilbo, egoitza, 2009-XI-20

Euskera. 2009, 54, 3. Bilbo
ISSN 0210-1564

Aurkezpena

ALEMAN ASTIZ, Sagrario
Euskaltzain osoa eta Sustapen batzordeko burua

Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeak «etorkinak eta euskara» gaia landu nahi du XIV. Jagon Jardunaldian.

Euskaltzaindia, besteak beste, euskararen babes eta sustatze lanetan aritzen da, horiek baitira Jagon Sailaren Sustapen batzordearen egitekoak. Erne egoten da, bada, gizartean hizkuntza normalizazio bidean ematen diren urratsei eta aldaketei eta hauen inguruan, urtero, gogoeta egiten du Jagon Jardunaldietan.


Horrela, iazko Jardunaldietan kontsumoaren arloan euskararen egoera eta bilakaera aztertu genuen eta aurten, berriz, pilpilean dagoen immigrazioaren gaiari heldu diogu.

Azken urteotan Euskal Herrira iristen ari diren etorkinen kopuruak gora egin du nabarmenki, 60ko hamarkadaz geroztiko igoerarik handiena izan da. Honek kezka sortu du hainbat arlotan, eta nola ez, baita euskalgintzan ere. Euskararen normalizazioan handik eta hemendik etorritako jendeak nolako eragina izanen du? Euskara hizkuntza gutxitua izanik, eta Euskal Herriko gizartean integratzeko beharrezkoa ez bada, zer jarrera hartuko du jende horrek euskararekiko?

Immigrazioaren fenomenoa ezagutzeko, honen inguruan hausnartzeko, gogoeta egiteko, zenbait herritako esperientziak biltzeko eta baloratzeko garaia dugula iritzi diogu Euskaltzaindian. Gaur, hemen, saiatuko gara etorkinak ezagutzen eta hauen integrazioa errazteko bidea irudikatzen.

Euskera. 2009, 54, 3. 1427-1432. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskaltzaindiak, Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutua eta Unesco Etxearekin batean antolatu duen Jardunaldi honetara etorkinekin lanean ari diren edota honetan adituak diren pertsonak ekarri ditu. Horrela, pertsona hauengandik ezagutuko dugu Euskal Herrian gizartea nola aldatu den, eta orain bizi dugun eleaniztasunak nola eragin dezakeen hizkuntza nagusiaren eta gutxituaren arteko harreman gatazkatsu horretan. Etorkinak Ipar Euskal Herrian helduen euskalduntzean duen indarra azalduko digute; etorkinen eskubideak errespetatzeko hartu beharreko neurriak zein diren hausnartuko dugu; Sakanako, Markinako eta eskolako esperientzien berri izanen dugu; eta hezkuntzako sistema eleaniztuna ezagutzeko ere aukera bikaina emanen digu Jardunaldi honek.



Euskera. 2009, 54, 3. 1427-1432. Bilbo
ISSN 0210-1564

EGITARAUA

GOIZEKO SAIOA:

10:00-10:15
Lan-jarduna eta mintegian esku hartuko dutenen aurkezpena
Sagrario Alemanek Jagon Jardunaldien aurkezpena egingo du.

10:15-10:45
Inmigrazio berria, hizkuntza arazo berririk?
Moderatzailea: Manu Ruiz Urrestarazu
Hizlariak: Xabier Aierdi eta Erramun Osa

10:45-11:00
Elkarrizketa eta galderetarako tartea


11:00-11:40
Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian
Moderatzailea: Andres Iñigo
Hizlariak: Erramun Baxok eta Jean-Baptiste Coyos

11:40-12:00
Kaferako tartea

12:00-12:30
Hedabideen aurrean agerraldia
Euskera: XIII. Jagon Jardunaldietako hitzaldiak. Aurkezpena

12:30-13:00
Etorkinak, euskara eta hizkuntz aniztasun berria. Giza eskubideetatik sortutako zenbait hausnarketa
Moderatzailea: Santiago Larrazabal
Hizlaria: Eduardo Javier Ruiz Vieytez

13:00-13:15
Elkarrizketa eta galderetarako tartea



EGITARAUA

ARRATSALDEKO SAIOA:

16:00-17:30
Esperientzien aurkezpena
Moderatzailea: Andres Urrutia

16:00-16:25
Haur etorkinen euskara: eskolaren eta inguru euskaldunaren eragina
Hizlariak: Ibon Manterola eta Eider Lardizabal

16:25-16:50
Etorri berriak nola hurbildu: Markina-Xemeingo esperientzia
Hizlaria: Iratxe Lasa

16:50-17:15
Sakanako esperientzia
Hizlaria: Begoña Zestau Baraibar


17:15-17:30
Elkarrizketa eta galderetarako tartea

17:30-18:15
Los programas de educación multilingüe: nuevo reto para la didáctica de las lenguas
Moderatzailea: Itziar Idiazabal
Hizlaria: Joaquim Dolz

18:15-18:30
Elkarrizketa eta galderetarako tartea

18:30-18:40
Ondorioak eta saioaren bukaera
Andres Urrutia, Sagrario Aleman eta Erramun Osa

Hitzaldi guztiak iragarri diren hizkuntzan izango dira.
Las conferencias serán en el idioma en que se anuncian.



Aurtengo jardunaldien gaia etorkinak eta euskara dugu. Orain gutxi arte arlo horretan kezkarik ez izan arren, azken urteotan Euskal Herrira iristen ari diren etorkinen kopurua gero eta handiagoa izanik, orain, beharrezkoa dugu fenomeno honetaz aritzea. Horretara dator bada, jardunaldia, ditugun datu eta esperientzien inguruan hausnartzea eta iradokizunak egitea. Azken batean, etorkinak ezagutzeko eta hauen integrazioa errazteko urrats egokiak ematen ote ditugun aztertzea, immigraziorekin etorri zaigun eleaniztasuna euskararen normalizazioan aberasgarri izan dadin, eta ez oztopo.

Lekua

Euskaltzaindiaren egoitza
Plaza Barria, 15
48005 BILBAO
Tel: +34 944158155
Fax: +34 944158144
www.euskaltzaindia.net

Datak

2009ko azaroaren 20a, ostirala.
Goizez eta arratsaldez.

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Laguntzaileak:

Deusto
Instituto de Estudios Vascos
Euskal Gaien Institutua

unesco etxea
centro unesco euskal herria
centre unesco pays basque

Immigrazio berria[1], hizkuntza arazo berririk?

OSA, Erramun
EHIko Hizkuntz Arduraduna eta Euskaltzaindiko Sustapen batzordeko idazkaria

AIERDI, Xabier
IKUSPEGIko zuzendaria eta EHUko irakaslea

Jasotze data: 2010-07-14
Onatze data: 2010-07-14

Garai batean Espainiatik etorri zen bezala, oraingo honetan, Espainiatik kanpo –nagusiki– immigrazio-fluxu berria etorri da azken urteetan Euskal Herri penintsularrera. Oraindik gutxi dira, besteak beste, beste Erkidego batzuekin edota Espainian dagoen batez bestekoarekin alderatzen baldin badugu behintzat.

Horiek horrela, pertsonen etorrera berri hori, euskara are egoera ahulagoan utziko duen zalantza areagotzen ari da. Alabaina, euskaraz jarduten duen hizkuntza-erkidegoaren arazoak, pertsona hauen etorrerarekin areagotu egin badaitezke ere, ez dira sortu berriak, Euskal Herriko gizarteak eusten baitie arazo horiei bere horretan kasik

Hitz-gakoak: immigrazioa, etorkina, euskara, hizkuntza politika, euskal hiztuna.

Así como en su día llegaron de España, recientemente, un nuevo flujo de inmigrantes ha llegado a la Euskal Herria peninsular, esta vez de fuera de España. Es

[1] Datuak-eta aurkezterakoan zein azken urteotako bilakaera aztertzerakoan Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako datuak baliatu dira. Izan ere, Iparraldeko daturik ez dago, ez baitira jasotzen. Nolanahi ere, Iparraldearen barnealdea biztanlez hustutzen jarraitzen du (egitura ekonomikoa oso ahula du), eta biztanleriaren gehiengoa, Baiona-Angelu-Miarritze –BAM– eta Lapurdi barnealdean pilatzen da. Azken honi dagokionez, Lapurdi barnealdeko biztanleriak azken urteotan garapen bizkorra izan duela aipatzea komeni da, BAM inguruneak pilatzen duen kopuruetara dezente hurreratuz, BAM inguruneko biztanleriaren hazkundea oso apala izan baita. Halaber, Gipuzkoatik Lapurdi barnealdera –nagusiki– migrazio-mugimenduak gertatu dira, euskal hiztunen kopurua zertxobait emendatuz (*IV. Inkesta Soziolinguistikoa* (2006). Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz).

todavía un porcentaje mínimo si lo comparamos con otras Comunidades Autónomas o con la media española.

La llegada de este nuevo tipo de inmigración, genera dudas en cuanto a cómo va a afectar a la por sí débil situación del euskera. Si es verdad que la llegada de este nuevo flujo puede debilitar aún más al euskera, no es una situación nueva, la sociedad vasca viene trabajando en este contexto desde hace tiempo.

Palabras clave: inmigración, inmigrante, euskera, política lingüística, vascoparlante.

Tout comme cela fut le cas depuis l'Espagne par le passé, de nos jours un nouveau flux migratoire, majoritairement non originaire d'Espagne, est arrivé ces dernières années au Pays Basque péninsulaire. Ces immigrants sont encore peu nombreux mais on peut néanmoins les rapprocher de ceux que l'on trouve dans d'autres Communautés et même en Espagne.

Avec cette nouvelle immigration, la situation de la langue basque empire. Cependant, si le problème de communauté linguistique empire avec l'arrivée de ces personnes, il n'est pas nouveau, la société du Pays Basque doit s'atteler à ce problème.

Mots-clés : immigration, immigrant, langue basque, politique linguistique, bascophone.

Just as a wave of immigration arrived from Spain at one time, this time a different one, mainly from beyond Spain's borders, has been arriving in the peninsular Basque Country in recent years. There are not many immigrants as yet, at least if we compare the numbers with those of other Autonomous Communities (regions) or with the average for Spain.

That being the case, there is a growing doubt that this fresh entry of people will render Basque even weaker. But even if the problems of the speech community that operates in Basque could be further exacerbated by the entry of these people, no fresh problems have arisen, because they remain virtually the same as before with respect to the Basque Country's society.

Key Words: immigration, immigrant, Basque, language policy, Basque speaker.

Garai bateko euskal herritar gehienen bizitzaren aldi eta alderdi desberdinak gune geografiko mugatu batean garatzen ziren. Denborarekin, ostera, muga horiek lausotuz eta gaindituz joan dira, horrenbeste non baserria/auzoa/herria ez ezik eskualdea zein herrialdea bera ere txiki geratu zaizkigun.


Industrializazio-garaiak XIX. eta XX. mendeetan zehar nekazaritza inguruneak hustu eta pertsonak, ohikotasunez, naturaltasunez eta nagusitasunez gaztelaniaz jarduten zuten herri eta hirietara ekarri zituen, euskaraz jarduten duen hiztun-elkartea are gehiago ahulduz eta estatuko gainerako erkidegoetatik gaztelania ez besterik zekiten pertsona are gehiago gure kale bazterretara erakarriz. Alabaina, batzuek uste dutenaren kontra, gertaera soziodemografiko hori ez da euskararen gainbeheraren abiapuntua, ez eta arrazoi nagusia ere, euskaraz jarduten duen hiztun-elkartearen makaldi funtzionala, geografikoa eta demografikoa, askotariko arrazoiak tarteko, lehenagotik baitzetorren.

Joan den mendeko laurogeiko hamarkadan, ostera, berreskuratu berri ziren autogobernu erakundeek, euskal gizartearen gehiengo zabal baten eskariari erantzunez, haren sostenguarekin zein laguntzarekin, euskara indarberritzearen aldeko jardun indartsua jarri zuten abian. Horrek, besteak beste, euskararen hedapen funtzionala eta geografikoa ekarri ditu, euskaraz jarduten duen hiztun-erkidegoa bera ere haziz eta gaztetuz. Herri-erakundeen eta gizartearen bultzadak galbidean zetorren hizkuntzari, beraz, haize berria eman dio, XXI. mendean zehar euskarak iraun ahal izateko ez ezik indarberritzen jarraitzeko ere arazo zein erronka berriak planteatuz.

Aldi berean, zoru zabala zuen populazioaren adin-piramidea izatetik zoru mehar eta gerri-ondo lodia duen gizartea izatera iritsi da geurea, jaiotze-tasa urrikoa; geroz eta zaharragoa, erretiroa hartzen duten hainbat langile ordezteko geroz eta zailtasun handiagoak dituena; lan-ordain murritzekoak diren lan-eremu batzuk gutxietsi (nekazaritza, eraikuntza, ostalaritza[2], eta abar) eta gizarteak berak eskatzen dituen eta, oro har, kualifikazio eskasekoak

[2] Beste batzuen artean, gai hau ere izan genuen gogoeta-gai 2008ko XIII. Jagon Jardunaldietan EAEko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen 123/2008 Dekretua aztertzerakoan (*XIII. Jagon Jardunaldiak: euskara kontsumoa eta hizkuntza eskubideak*. Euskaltzaindia. 2008)

diren gizarte-zerbitzu[3] azaleratu berriei (adinekoen zaintza, eta abar) eusteko pertsonak behar dituena. Hitz batean, industrializazio-garai ondoko eta zerbitzuei geroz eta emanago dagoen gizarte «moderno» baten ezaugarriak barnebiltzen dituen gizartea ere bada geurea, bere ongizateari eusteko zein areagotzeko eskulanaren eskean dagoena.



Iturria: Eustat.

Horiek horrela, estatuko gainerako erkidegoetatik (Gaztelatik, Galiziatik, Extremaduratik eta Andaluziatik, batez ere) etorritako jende-oldeari Europako bestelako herrialdeetatik, Afrikatik, Asiatik eta Latinoamerikatik etorritako jende-emariak gehitu zaizkio azken denboretan, Espainiako beste erkidegoetan (Valentzia, Katalunia, Madril, batez ere) lehenago eta indartsuago gertatutako fenomenoa gurera ere iritsiz, maila apalagoan bada ere. Gertaera honek, hala ere, euskararen indarberritze ahaleginean izan dezakeen eraginagatik kezka piztu du hainbatengan. Alabaina, immigrazio berriak hizkuntza arazo berririk ote dakar gure artera? Ala lehendik datorrena are ageriago utzi du?

[3] 2008ko ekainean Zorroagan burutu ziren jardunaldietan, besteak beste, gai hau jorratu zen (E. Osa (2008) «Gizarte-zerbitzuetan euskararen erabileraz»).

Gaude kezka horien atzealdean batzuek desiratzen/bilatzen duten baina existitzen ez den errealitatearen irudikapena dagoela, hain zuzen, euskaraz ohikotasunez, nagusitasunez eta normaltasunez bizi den alegiazko hiztunherriarena. Alabaina, gure errealitate soziolinguistikoa gogoan, gunerik euskaldunenak ez dira etorri berriak gehien pilatzen dituzten guneak. Alta, hiriak eta, urte-sasoiaren arabera, eskulan ugariren beharrean dauden nekazari-eremuak dira etorkinak gehien pilatzen dituztenak, eta gune horietan, euskararen ezagutza urria da, eta haren erabilera zein gizartean duen agerpena are eskasagoa da.


Ingurune soziopolitiko batzuetatik eraikitako diskurtsoa gogoan, maiz eskatzen zaie etorkinei bertakoek, ingurune soziopolitiko horretakoak barne direla, bete beharrik ez dituzten hainbat kultur- edo gizarte-arau bete ditzaten, horien artean euskara ezagutzearena. Baina… hemen sozialki normala izateko, integratzeko, euskara jakin behar ote da? Edo bestela esanda, euskaraz ez dakiena integratu gabe ote dago? Ingurura begiratuz, hala ote dira kontuak justu-justu?

Etorri berriak: urte gutxian jende-emari indartsua

1998-2008 aldian, hots, hamar urtean, Espainiatik kanpo 200.000[4] etorkin etorri dira Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa herrialdeetara. Nolanahi ere, hauen banaketa eta dentsitatea ez da homogeneoa, ez herrialdeen artean, ez eta herrialde bakoitzean eskualde batetik bestera ere; izan ere, errealitate horren atzealdean, herrialde eta eskualde bakoitzaren egitura ekonomikoa dago.

[4] IKUSPEGI, Espainiako INE erakundearen datuetan oinarrituta.

Hegoaldeko eta lurraldekako immigrazio portzentaiaren bilakaera



Iturria: IKUSPEGI, Espainiako INEren datuetan oinarrituta.

Horiek horrela, denbora labur batean etorkinen kopuruak hamar aldiz egin du gora. Alabaina, lurralde batzuetan izandako hazkundea are handiagoa da, nekazaritzak daukan pisuagatik, batez ere. Hazkunde honek, jaiotze-tasaren gainbeheragatik biztanleria galtzeko zorian zeuden herrialdeetan hazkunde txiki bat ekarri du[5]. Era berean, etorkizunerako egin daitezkeen aurreikuspenei buruz, berriz, etorkinen kopuruak gora[6] egiten jarraituko duela aurreikusi liteke. Hala eta guztiz ere, azken aldian, atzerritik zuzenean etorri ordez, atzerritik Espainiako beste erkidegoetara hurreratutakoak ari dira EAE eta Nafarroara migratzen.

---


[5] 1998-2009 aldian, EAEko biztanleria murriztu egin da; 44.376 herritar gutxiago baitaude. Denbora-tarte berean, baina, EAEko biztanleria-kopuruak gora egin du; 72.615 lagun gehiago baitago. Beraz, bertako biztanleriaren galera orekatu du biztanle atzerritarren emaitza positiboak. Dena den, nabarmentzekoa da, hamar urtetan lehen aldiz, 2008an, ez duela behera egin bertako biztanleria-kopuruak; hain zuzen, 158 lagun gehiago izan baita (IKUSPEGI. 2009).

[6] Esate baterako, EAEn 2008-2009 aldian, hots, urte bakar batean, immigrarien kopuruan %12 egin du gora (IKUSPEGI. 2009).

Etorri berrien jatorria

1998. urtean Euskal Herri penintsularrean zeuden etorri berrien[7] ia erdia Europar jatorrikoa zen; heren bat Latinoamerikatik etorritakoak ziren; beste % 13 eta %6, aldiz, Magreb eta Azpisahara eskualdeetatik etorritakoak ziren, hurrenez hurren. Iparramerika, Txina edo bestelako herrialdeak jatorritzat zituzten bestelako herritarrak %10 besterik ez ziren. Hamar urte beranduago, ostera, Europar jatorrikoak dezente murriztu eta Latinoamerikar[8] jatorriko etorkinen pisua modu esanguratsuan hazi da, 90.000 gaztelania-hiztun gehiago erakarriz.

Hegoaldeko immigrazioaren jatorriaren bilakaera: 1998 eta 2008



Iturria: IKUSPEGI, Espainiako INEren datuetan oinarrituta.


---

[7] IKUSPEGI, Espainiako INE erakundearen datuetan oinarrituta.

[8] Honek erdal elebakarren pisua areagotu duenez, aldi horretan gertatutako euskararen indarberritzea aurreko aldiekiko moteldu den itxura barreiatuko du (ikus. EUSKO JAURLARITZA, 2009, *IV. Mapa Soziolinguistikoa,* Vitoria/Gasteiz: EUSKO JAURLARITZA).

Herrialde bakoitzari erreparatuta, etorri berri diren pertsona hauen dentsitatea, aldiz, ez da homogeneoa. Izan ere, Latinoamerikarrak nagusi dira Bizkaian, pisu esanguratsua dute Nafarroan eta Gipuzkoan eta intentsitatea galtzen dute Araban. Azken lurralde horri dagokionez, Afrikatik datorren populazioak –Magrebekoa, batez ere– pisu esanguratsua du, nekazaritza-sektoreak daukan garrantziagatik seguruenik.

Hegoaldeko eta lurraldeetako immigrazioaren jatorria kontinenteka 2009



Iturria: IKUSPEGI, Espainiako INEren datuetan oinarrituta.


Etorri berrien batez besteko adina

Adinari erreparatuta, oso desberdinak dira Euskal Herri peninsularraren biztanleria osoaren eta etorkinen adin-egiturak[9]. Izan ere,

[9] Biztanleria osoaren adin-egituraren barruan etorkinak ere sartuta daudela kontuan hartzen badugu gazteen kopurua urriagoa eta adin batetik gorakoak are gehiago direla hartu beharko genuke kontuan.

etorkinen hiru laurdena[10] 0-44 adin-tartean kokatzen da, gehienak (bi heren) 20-44 urte-tartean egonik. Horiek horrela, hain gazte izateak zenbait ondorio dakartza euskararen eraberritzearen ikuspegitik; batetik, lan proiektu batekin datoz eta oso gutxi dira eskolara hurbiltzeko adinean daudenak; bestetik, gune euskaldunetan bizi ezean, euskararekiko ukipen txikia eta euskarara hurreratzeko zailtasun objektiboak dituzte; azkenik, etorri berrien ugalkortasun-tasa hemengoena baino handiagoa da, beraz, familia-giroan euskarari sarbidea eman ahal izateko familiak bertakotzea eta denbora beharko dira.

Hegoaldeko immigrazioaren eta biztanleria osoaren adin egitura, 2009



Iturria: IKUSPEGI, Espainiako INEren datuetan oinarrituta.

Derrigorrezko eskolaldian dauden etorri berriak[11]

Eskola izan da, helduen euskalduntzearekin batera, euskararen ezagutza hedatzearen motor erabakigarriena. Horiek horrela, 1980an lehenagotik

[10] IKUSPEGI, Espainiako INE erakundearen datuetan oinarrituta.


[11] Irizpide komunen arabera Nafarroako datuak biltzeko modurik ez dugu izan, horregatik, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako datuak jaso dira hemen.

zetorren murgiltze-ereduari A, B eta D ereduak gehitu eta euskarazko irakaskuntza eskola-sare guztietara zabaltzeko urratsak egin zirelarik, etengabea izan da euskarazko irakaskuntzak izan duen hazkundea.

Garai batean, D eredua ikasleen gutxiengo bat biltzetik, oso denbora laburrean, ikasle gehien biltzera igaro da. Alabaina, etorri berriez jardutean ez da argazki[12] bera antzematen. Izan ere, desberdintasunak daude Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeen artean.

Eskola-sasoian dagoen haur zein gazte etorri berrien gehiengo zabala A ereduan ikasten ari da Araban; esanguratsua da, bestalde, A ereduak Bizkaian duen pisua; Gipuzkoaren kasuan, aldiz, gutxiengoa da A ereduan ikasten dabilena, eta gehiengoa, eredurik euskaldunenean, D ereduan, ikasten ari da.

EAE-ko ikasleria ez-unibertsitaria lurraldeka eta hizkuntz-ereduka, 2008-09




Iturria: IKUSPEGI, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren datuetan oinarrituta.

Nolanahi ere, EAEn ereduek duten pisua eta etorri berriek egiten duten aukeraketaren artean alde nabarmena dago. Izan ere, derrigorrezko eskolaldian A

[12] EUSKO JAURLARITZA, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila.

ereduak 2009-10[13] ikasturtean izan duen pisua %10 baino txikiagoa da (Haur Hezkuntzan % 5 baino txikiagoa). Alta, etorri berrien % 40a A eredura hurreratzen da. D ereduari erreparatzen badiogu, aldiz, EAEko batez bestekoa % 60tik gorakoa denean, etorri berrien batez bestekoa %31 izatera –ez besterik– iristen da.

EAE-ko ikasleria ez-unibertsitariaren matrikulazio bilakaera ereduka, 2009-10 ikasturtea, behin-behineko datuak



Iturria: IKUSPEGI, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren datuetan oinarrituta.

Hainbat arrazoi dago errealitate horren atzealdean; euskararen errealitate soziolinguistiko anitza, mugak bere baitan dituena; etorri berriek euskararekiko izan dezaketen hurbilpen/ukipen-maila zein gure errealitatearekiko ezagutza; lurralde bakoitzean eredu bakoitzak duen ezarpen-maila eta pisua[14]; etorkinen kokapena eta dentsitate geografikoa, dagoen eskaintzara

[13] EUSKO JAURLARITZA, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila. 2009-10 ikasturteko behin-behineko datuak.

[14] A eredua gainbehera etorri da Gipuzkoan, maila apalagoan Bizkaian eta, gainbehera etorri arren, indartsu segitzen du oraindik Araban (EUSKO JAURLARITZA, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila).

egokitzera behartzen dituena; familiek duten lan-egitasmoa, bertan bizitokia egonkortzera edo aldatzera eramango dituena, eta horren arabera, euskara/gaztelania hizkuntzei ematen dieten balio funtzionala; etorkinen eskolatze-adina, jatorrizko herrialdeetan hainbat eskolatuta egon baitira, beraz, hezkuntza sistema berri batera egokitu beharrari beste zailtasun bat ez diote erantsi nahi; eta abar.

Etorri berriak eta euskal hiztunen dentsitatea, bi errealitate desberdin

Azken hamarkadetan gertatu den elebitasunaren hazkundea fenomeno urbanoa da, batez ere. Izan ere, garai bateko elebidunak herri txikietan bizi ziren, eta gehienek adin-talde guztietan euskara zuten lehen hizkuntza. Egungo elebidunak, aldiz, hirigune handietan (10.000 biztanletik gorako udalerrietan) eta hiriburuetan bizi dira, eta adin-talde gazteenetan[15] (35 urtez azpikoetan) gaztelania dute gehienek lehen hizkuntza[16]. Alabaina, jaiotze-tasaren jaitsieraren ondorioz belaunaldi hauen pisu demografikoa urria da. Aldi berean, gune urbanoetan dago euskara egoerarik zailenean, haren presentzia oso urria izanik.

Horiek horrela, etorkinek bizitza sozialeko egitura arruntetan euskararekin topo egiteko zailtasun objektiboak dituzte. Etorri berrien kopuru handia dagoen tokietan euskararen dentsitate urria da, erdal itsaso zabalean ia desagertuta baitago. Alta, euskal hiztun dentsitate handiko guneetan etorri berrien kopurua eskasa da[17].

---


[15] 15 urtetik beherako herritarrei erreparatzen badiegu, hazkundea ikaragarria da: gaur egun % 75ek badaki ongi euskaraz, eta duela 25 urte % 20k bakarrik. Duela 25 urte % 60k ez zekien tutik ere euskaraz, baina gaur egun ez dira %10era iristen elebidun ez direnak (EUSKO JAURLARITZA, 2009, *IV. Mapa Soziolinguistikoa,* Vitoria/Gasteiz: EUSKO JAURLARITZA).

[16] Gertaera honek euskararen erabilera eragiten du. Izan ere, belaunaldi hauen hizkuntza-gaitasun erlatiboak, dituzten harreman-sareak, euskara baliatzeko dituzten egiazko aukerak, eta abar, gazte belaunaldien euskararekiko atxikimenduan, eta euskararen erabileran eragiten dute.

[17] Besteak beste, gune euskaldunenetako egitura ekonomikoak esplikatzen du erakarmen-indar eskas hau.

Beraz, etorkinen eta euskaldunen arteko gurutzaketa[18] egiten badugu, ohartuko gara ratiorik handienak Gipuzkoako eskualde batzuetan gertatzen direla, baina neurri batean euskaldun asko dagoelako eta etorkin kopurua, aldiz, txikia delako (esaterako, Tolosaldea, Deba Goiena eta Urola Kostan). Kasu bitxi bat Bizkaiko Lea-Artibai (Ondarroa eta Markina izanik udalerri garrantzitsuenak) eskualdea da, non euskaldun portzentajerik handienak etorkinen kopuru esanguratsu batekin topo egiten duen. Nafarroako eskualdeak, berriz, beste muturrean daude. Egoera kezkagarria erakusten baitute, ez etorkinak euskarara hurbiltzerik izango ez dutelako, baizik eta euskara bera arrisku larrian dagoelako.

Hegoaldeko euskaldun eta immigrarien banaketaren ratioa eskualdeka




Iturria: IKUSPEGI, Espainiako INE eta IV. Inkesta Soziolinguistikoaren datuetan oinarritua.

[18] IKUSPEGI, Espainiako INE erakundearen datuetan oinarrituta.

Euskaldun bakoitzeko zenbat etorri berri dagoen aztertu ordez, biztanleria osoarekiko euskaldunen ehunekoa eta etorri berriena alderatzen baditugu, ehunekoak oso bestelakoak[19] direla ohartuko gara. Beraz, etorri berri ugari dagoen eskualdeetan euskaldun gutxi dago eta alderantziz. Beraz, etorri berriek euskararekiko izan dezaketen ukipen-maila urria da oso.

Hegoaldeko euskaldun eta immigrarien banaketa eskualdeka




Iturria: IKUSPEGI, Espainiako INE eta IV. Inkesta Soziolinguistikoaren datuetan oinarritua.

Beste horrenbeste esan liteke euskararen eta etorri berrien kokapen geografikoak alderatzen baditugu:


[19] IKUSPEGI, Espainiako INE erakundearen datuetan oinarrituta.

Euskararen geografia eskualdeka, 2006



Iturria: IKUSPEGI, IV. Inkesta Soziolinguistikoaren datuetan oinarritua.

Immigrarien geografia eskualdeka, 2009



Iturria: IKUSPEGI, Espainiako INEren datuetan oinarritua.

Zenbait ondorio

1) Euskara egitura ahuletan garatu da historikoki eta badirudi denbora luze batean halaxe izaten jarraituko duela. Inguruabar horretan, hainbat jendek pentsa dezake, akaso, etorkinen etorrerak euskararen egoera gehiago okertzen duela, baina seguruenik intentsitate eta kopuru kontua baino ez da.

2) Egoera demokratiko batek, bere nahi diren eskasi guztiak aintzat hartuta ere, errutinizatu egiten ditu konpromisoak[20]. Horiek horrela, azken hamarkadetako ibilbidea begiratuz, eskuartean dauzkagun zailtasun objektiboak aztertuz, euskararen garatze bideak berrausnartu behar ditugu.

3) Horrela, etorkinen etorrerak azaleratu baino ez du egiten aspalditik beharrezko ikusten den hausnarketa beharra. Etorri berriek ispilu bat ipintzen digute, geure erronken kontzientzia hartzeko baliatu dezakeguna. Izan ere, euskarak etorkinekin arazo bat badauka, batez ere, eta gauza guztien gainetik, bere gizarte propioarekin du erronka, eta izatekotan, arazoa.

4) Aurrekoaren haritik, berriro bi faktore gogoratzea ezinbestekoa da; batetik, etorri berri diren gehienak, lehen fasean behintzat, ez direla eskolaratuko; beraz, bide formaletik ez dira euskarara hurbilduko. Bide informaletatik, berriz, kokatzen diren gune linguistikoen arabera ukipen handiagoa edo txikiagoa izango dute; bestetik, oso giro euskaldunetan kokatu direnak gutxi dira, eta hiriburuetan euskaldunen presentziarik handienarekin ere, fragmentazioak ez du laguntzen ez etorkinen erakarpenerako ezta euskaldunen gune propioak trinkotzeko ere.

---

[20] Sasoi batean identitate zeinu bati eusteko ez ezik diktaduraren kontrako borroka-bidetzat har zitekeen euskararen aldeko langintza. Denborarekin, ostera, kontuak normaldu ahala gure partaidetza zuzenarekin edo, pertsona askok egin ohi duen moduan, lagun hurkoaren bizkar berreuskalduntzearen zama utzita euskararekikoak beteta ditugula onartu ohi da, modu inplizituan edo esplizituan. Adin talderik zaharrenek gazte belaunaldien bizkar utzi dute, hein handi batean, berreuskalduntzearen zama. Orain, erdal elebakarra den gizartearen gehiengoak ez biezaie ezarri etorri berriei haiek betetzeko prest ez dauden gizarte-konbentzioak.

5) Gainera, etorri diren erdiek ez dute kode linguistikoz zertan aldatu eta gainontzeko ugari -esaterako, afrikarrak, asiarrak eta hainbat europar- oso urrun daude euskaratik. Horiek horrela: batetik, soziolinguistika berritu batek berriro berrikusi behar du faktore anbiental hau edo kolektibitate hauen banaketa espaziala; bestetik, faktore ekologiko hauei muga sozialak gainezarri behar zaizkie, ondorioz, parametro berrietatik aurre eginez erronka berri hauei.

Azken gogoetak

Mitxelenak[21] aspaldi idatzi zuen: «Ezin fida daiteke -zenbaitek, areago erosokeriaz beste ezertaz baino, egiten duen bezala- dekretuaren ondorio miresgarrietan, ezta ofizialkidetasun nahiz ofizialtasunezko aitorpenetan ere. Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia. Beste nonbait esan eta idatzi dudan bezala, diglosiaren purgatorioetatik ihesi goazela, ez gaitezela ghettoaren infernuan eror. Hizkuntza integrazioa beste zein bezain beharrezkoa dugu». Beraz:

1) Zein da gaur egungo errealitatean eta etorkizunari begiratuta euskararen iraupena eta hazkuntza segurtatzeko euskararen behar adinako tokia? Hori da, ikuspuntu berritu batetik, eta ahalik bizkorren, abordatu beharko genukeen gizarte-eztabaida[22], gure ustez. Horiek horrela, euskararen inguruan diharduten sektoreei euren oinarri teorikoak berrikusteko eskatu behar zaie baina, era berean, euskaratik oso urrun sentitu eta sentitzen diren sektoreei ere errespetu intelektuala eta jarrera displizentea abandonatu beharra eskatu behar zaie.

---

[21] Mitxelena, K., 2001, «Euskararen bide luzeak bezain malkarrak» *Koldo Mitxelena gure artean*. Donostia: Alberdania eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

[22] Berritzeko gogo horrek bultzatu zuen aurreko legealdian EUSKO JAURLARITZAKO Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza **Euskara-21** izeneko gizarte-eztabaida prozesua aurrera eramatera.

2) Testuinguru horretan, euskarak eta euskararen munduak liluratu/seduzitu/ase/erakarri egin behar dute euskara gure eguneroko bizitzan modu naturalean errotuko bada, inork, etxe barrukoak nola baita etorri berriak izanagatik ere, ezeri uko egin beharrik gabe eta gogoko ez duen ezer irentsi beharrik gabe hurbilduz euskarara.

3) Hari berari tiraka, etorkizun hurbilean elebidunen kopuruak gorantz egiten jarraituko duela aurreikusi daiteke (dela eskolaren dela euskaltegien ekarriari esker), baina elebidun horiek ez dira, gaitasunei dagokienez, maila berean elebidun izango ez eta toki guztietan era homogeneoan banatuta egongo. Horiek horrela, batetik, euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko asmoz, euskara eta gaztelaniaren edota euskara eta erdaren arteko konpartimentazio linguistikoa[23] eraikitzea ez ezik, euskarazko arnasguneei ere lehentasuna ematea eta arnasgune berriak eraikitzen saiatzea hil ala bizikoa suertatuko da; bestetik, euskararen erabilerari bultzada erabakigarria eman ahal izateko elebitasun pasiboa helduen artean, tartean etorri berrien artean, orokortzeko eta prestigiatzeko ahalegina egin beharko da.

4) Euskara modu eraginkorrean erakutsiko duten eredu pedagogikoak eta hezkuntza sistema berri baten diseinua ezinbestekoak ditugu. Helburu horrek zeharo gainditzen du etorri berriei erantzun egokia ematearen erronka, baina errealitate honek azkartu egin behar du prozesu hau, non eta kultura beti politikaren mende jartzen den gizarte batean, eta ustez konponbide politikoak berez eta trabarik gabe erronka kulturalaren oztopoak eta muga sozialak ezabatuko dituela uste den gizarte batean. Politika-zentrismoa alboratuz, berandu izan baino lehen, kultura eta batez ere euskara lehen planoan jartzeko garaia heldu da.

5) Horretarako, ezinbestekotzat jotzen da gurea bezalako errealitate nazional batean, immigrazio eta integrazio politika propioak garatzeko

---

[23] Ekarpen interesgarriak egin izan ditu Mikel Zalbidek gai honi buruz, besteak beste, **Euskara-21** prozesuan. Ikus. *XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak. Batzorde-atal bereziko kideen EKARPENAK*. Vitoria/Gasteiz: EUSKO JAURLARITZA (2008).

eskuduntza; bestela oso erraza baita joko estatala. Behin eta berriz gogoratu behar da, hala ekonomian nola kultural, liberalismoa garaileen gramatika dela.

6) Aurrekoez gain, euskara nonahi baliatzeko dauden erabilera-aukerak indartu eta berriak sortu behar ditugu. Horrela, lehentasun osoa beharko lukeen zerbait ahalbidetuko baitugu: euskal hiztun direnek hizkuntza-erkidegoa trinkotzea eta sendotzea. Horrela, euskaraz dakitenek duten hizkuntza-gaitasuna areagotu eta euskal hiztun izatera iritsi daitezen lagunduko diegu.

7) Era berean, euskararen erabilera sendotzea eta areagotzea dugu erronka nagusia, batez ere esparru ez-formaletako erabilera, etxeko eta harreman pertsonaletako erabilera. Hori ezin da arautu, are gutxiago inposatu, baina bai elikatu eta sustatu. Euskara modu naturalean errotuko da, errotzen baldin bada behinik behin. Horretarako, arauak eta planak beharko ditugu, baina batez ere norbanakoaren euskararekiko atxikimendua eta borondatea elikatu beharko ditugu. Era berean, horretarako, mota ugaritako motibazioak sustraitu beharko dira gizartean. Motibazio politikoa ere beharko da, baina, integratzailea den neurrian balioko du horrek, eta ziur aski, hori baino askoz gehiago motibazio kulturalak eta sozialak, hizkuntzaren erakargarritasunari lotuak, eta hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntza-bizikidetza indartu eta zabaltzearen aldeko motibazioak beharko ditugu.

8) Gaur egungo testuingurua eta etorkin hurbilekoa eleaniztasunaren testuingurua da. Hor aurkitu behar du bere tokia euskarak ere. Inguruabar horretan, hizkuntza aukera-berdintasunaren eta hizkuntzen bizikidetzaren aldeko hizkuntza politika behar da, beste hizkuntzarik ukatuko ez duen eta guztiak errespetatuko (tartean etorri berriena) dituen hizkuntza politika, ahulenaren alde –euskararen alde– zentzuz eta zuhurtasunez, baina beldurrik eta konplexurik gabe egingo duen hizkuntza politika, hori baita hizkuntza dibertsitatearen alde jarduteko modu bakarra. Alabaina, mugak eta aukerak biak daude aldi berean gizartean, ez dezagun hori inolaz ere ahaztu. Aukerak daude, gizarte elebidunerako bidean eginkizun dagoena oraindik handia de-

lako. Eta mugak ere badaude, bidea egiteko abiada ezin baitaiteke gizartearen nahi eta ahalmenek uzten dutena baino bizkorragoa izan.

9) Laburbilduz, nolabait, konfiantza giroa sortu behar da, helburuak birdefinitu behar dira, lortuko ez den estatu logika unibertsalizantea mugatu eta bide berriak asmatu behar dira. Hori da erronka nagusia, gure ustez. Hor sartuko dira etorri berriak, eta baita gure gizarteko sektore zabalak ere. Zeregin kolektibo honetan denok dugu, inolako salbuespenik gabe, zeregina.

Hala izan bedi!

Bibliografia

AIERDI, X., 2006, «Inmigración extranjera», *in Euskal AEko Txosten Sozioekonomikoa 2006.* Vitoria/Gasteiz: Eustat, 39-92.

ANAUT, D., 2006, *Txokotik Zabalera*. Donostia: Alberdania.

BARQUÍN, A., «Euskara eta etorkinen hizkuntza integrazioa», bertsio elektronikoa.

CALSAMIGLIA, A., 2000, *Cuestiones de lealtad. Límites del liberalismo: corrupción, nacionalismo y multiculturalismo*. Barcelona: Paidós.

Eusko Jaurlaritza, 2006, *IV. Inkesta soziolinguistikoa*. Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

GARZÓN VALDÉS, E., 1997, «Cinco confusiones acerca de la relevancia moral de la diversidad cultural», *Claves de razón práctica*, 74 (1997) 10-23.

IKUSPEGI, 2009, «Biztanleria atzerritara EAEn. 2009», *Immigrazioari begirada*, 29 (2009).

KYMLICKA, W., 2006, *Fronteras territoriales*. Madrid: Trotta.

———, 2003, *La política vernácula. Nacionalismo, culturalismo y ciudadanía*. Barcelona: Paidós.

RUIZ VIEYTEZ, E., 2006, «Políticas de inmigración y diversidad lingüística», *in Diversidad migratoria. Distintos protagonistas, diferentes contextos*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian AEK-ko ikaslegoaren azterketa

BAXOK, Erramun
Ohorezko euskaltzaina eta Sustapen batzordekidea

COYOS, Jean-Baptiste
Euskaltzain Urgazlea eta sustapen batzordekidea

Jasotze data: 2010-07-14
Onartze data: 2010-07-14

Ikerketa honek euskara ikasten duten Ipar Euskal Herriko helduen ezaugarriak aztertzen ditu, herrikoenak (Euskal Herrian sortu direnak) eta etorkinenak bereiziz. Emaitzak AEK-ko ikasleen 1995-1996, 2002-2003 eta 2008-2009 ikasturteetako matrikulazio-fitxetan oinarritzen dira.

Etorkin horiei buruzko datu soziolinguistikoak azaltzen dira eta herrikoenei konparatzen. Gainera zortzi motibapen aukerak eta hamar irakaskuntzaren helburu aukerak aztertzen dira.

Oro har iduri luke etorkinek oinarrizko komunikazioa lortu nahiko luketela, herrikoek aldiz komunikazio-gaitasun handiagoa. Era orokorrean, AEKko ikasle helduak Ipar Euskal Herriko biztanleriaren maraila dira gutxi gorabehera, nola ezaugarri soziolinguistikoetan, hala euskarari buruzko motibazioetan.

Hitz-gakoak: helduen euskalduntzea, Ipar Euskal Herria, etorkinak, ezaugarri soziolinguistikoak, motibazioak.

Esta investigación estudia las características de la población adulta que estudia el euskera en Iparralde, diferenciando los nacidos en Euskal Herria de los inmigrantes. Los resultados tienen su base en las fichas de matriculación de los alumnos correspondientes a los cursos 1995-1996, 2002-2003 y 2008-2009.

Se ofrecen datos sociolingüísticos de los inmmigrantes y se comparan con los de los nativos. Se estudian 8 diferentes tipos de motivación junto con 10 objetivos pedagógicos.

Euskera. 2009, 54, 3. 1453-1475. Bilbo
ISSN 0210-1564

Uno de las conclusiones de este estudio destaca que los inmigrantes deseán conseguir una comunicación básica mientras que los nativos desearían adquirir una comunicación más profunda. Se pude afirmar que el alumnado adulto de AEK es reflejo de las características generales de la población de Iparralde, tanto en lo que respecta a las características lingüísticas como motivaciones para el aprendizaje del euskera.

Palabras clave: euskaldunización de adultos, País Vasco Norte, inmigrantes, características sociolingüísticas, motivaciones.

Cette étude examine les caractéristiques des adultes qui apprennent la langue basque en Pays Basque Nord, en distinguant les natifs et les non-natifs. Les résultats s'appuient sur les fiches d'inscription remplies par les élèves d'AEK en 1995-1996, 2002-2003 eta 2008-2009.

Les données sociolinguistiques des non-natifs sont mises à jour et comparées à celles des natifs. De plus huit choix de motivations et dix objectifs d'apprentissage sont étudiés.

Il apparaît que les non-natifs recherchent plutôt une compétence linguistique de base; pour les natifs c'est une compétence linguistique plus grande. D'une façon générale, les élèves adultes d'AEK sont plus ou moins le reflet de la population du Pays Basque Nord, que ce soit au plan des caractéristiques sociolinguistiques, qu'en ce qui concerne les motivations pour la langue basque.

Mots-clés: apprentissage du basque par les adultes, Pays Basque Nord, non-natifs, caractéristiques sociolinguistiques, motivations.

This piece of research studies the characteristics of adults in the Northern [French-administered] Basque Country who are learning Basque, by distinguishing between the local population (people born in the Basque Country) and the immigrants. The results are based on the enrolment cards of AEK students [AEK=organisation that runs Basque courses for adults] during the 1995-1996, 2002-2003 and 2008-2009 academic years.

Sociolinguistic information on these immigrants is provided and then compared with that of the local population. Furthermore, eight motivation options and ten teaching objective options are examined.

On the whole, the immigrants would appear to want to achieve basic communication, while the local inhabitants are after greater communicative competence. Generally, adult AEK students are more or less a reflection of the inhabitants of the Northern Basque Country, both in sociolinguistic characteristics and in their motivations with respect to Basque.

Key Words: Basquisation of adults, Northern Basque Country, immigrants, sociolinguistic features, motivations.



1. Sarrera

Ikerketa honek euskara ikasten duten Ipar Euskal Herriko helduen ezaugarriak aztertzen ditu, herrikoenak (Euskal Herrian sortu direnak) eta etorkinenak bereiziz.

Emaitzak AEK-ko ikasleen matrikulazio-fitxetan oinarritzen dira. Hiru ikasturte kontuan hartuak dira: 1995-1996, 2002-2003 eta 2008-2009.

Etorkin horiei buruzko datu soziodemografikoak eta demolinguistikoak azaltzen dira eta herrikoenei konparatzen, ondoko aldagaien arabera: sexua, adina, sorterria, lan-egoera, lanbidea, ikasketa maila, atzerriko hizkuntza ezagutza, Euskal Herrian egonaldiko luzera, familiaren euskararen ezagutza, etab.

Gainera zortzi motibapen aukerak eta hamar irakaskuntzaren helburu aukerak aztertzen dira.

Ikasle-fitxa aldatu da pixka bat urteen zehar. Oraikoan 16 galdera badira, datu pertsonalak kontuan ez hartuz (izena, deitura, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia). Galdera horien artean bost aukera itxiko galdera, bi aukera anitzeko galdera eta galdera ideki bat daude.

2. **Ikerketaren helburuak**

Fitxetako erantzunetan oinarritua, ikerketa hau kuantitatiboa da bereziki.

– Helburu orokorra Ipar Euskal Herrian euskara ikasten duten helduen ezaugarrien biltzea da eta ondotik, sistematikoki, etorkin helduen kopurua herrikoen kopuruari konparatzea ezaugarri horien arabera.

– Helburu berezia etorkin helduen ezaugarrien aztertzea da aipatu ditugun aldagaien arabera. Beren motibapenak eta helburuak kontuan hartuz, AEKan euskara ikasten duten etorkinen profila agertarazi nahi dugu.

– Ikuspegi diakronikoa dugu ere, hiru ikasturte desberdin horiek aztertzen baititugu. Hamahiru urte buruko bilakaera agertzen zaigu.

– Ahal den neurrian euskara ikasten duten etorkin helduen multzoa Ipar Euskal Herriko etorkin helduen multzo osoari parekatuko dugu, gauza bera herrikoekin.

– Ikerketak euskarari interesatzen zaion pertsona arruntaz gain aginteak nahi lituzke argitu, era batez, euskararen aldeko hizkuntza-politika erabakitzen dutenak bereziki.

3. Corpusa eta metodologia

Fitxa kopurua

Orotara, hiru urte horietan bete izan diren 2837 fitxetarik **2607 ikasle-fitxa** baliatzeko gai izan gara: 1995eko 835 fitxa, 2002ko 893 fitxa eta 2008ko 879 fitxa. Beste fitxek lerro hutsa bazuten datu-basean.

2008-2009 ikasturtean adibidez, 955 ikasle baziren AEKko gau eskoletan baina 893 fitxa bakarrik sartuak ziren datu-basean, erran nahi baita 76 fitxa faltatzen zaizkigula.

Halere, erran dezakegu corpus zabal, baliagarri eta adiezgarria daukagula gure ikerketarako.

Datu enpirikoak, aitortuak – Erantzun batzuen subjektibotasuna

Ikerketa soziolinguistiko baten emaitzen balioa neurtzeko, oinarri diren datuen balioa neurtu behar da, haien fidagarritasuna, haien koherentzia.

Zein erantzunez mesfidatu behar dugu, besteez baino gehiago? Zein datumota fidagarria izan ez daiteke? Pentsa dezakegu erantzun soziodemografikoak, hala nola sexua, adina, sorlekua, lanbidea, lantokia fidagarriak daitezkeela.

«Zure familian nork daki (zekien) euskara?» galderari erantzunak, aldiz, aski dudazkoak izan daitezke, gurasoen eta are gehiago aitona-amonen euskararen ezagutza maila neurtzearengatik. Badakigu ere guraso batzuek haur denboran euskara ikasi zutela haurrei gordetzen zietela.

Halere, erantzuleen hizkuntza menperatzeari buruzkoak dira behar bada dudazkoenak. Galdera hau da: «Beste hizkuntzarik menperatzen duzu? Zeintzu/*Quelle(s) autre(s) langue(s) parlez-vous?*», euskaraz «Beste zein hizkuntza(k) mintzatzen d(it)uzu?» beraz. Hizkuntza bat mintzatzea zer den erratea zehazki ez da erraza. Ondorioz, bigarren hezkuntzan ingelesa eta gaztelania ikasgaiak izan dituztenek bi hizkuntza horiek mintzatzen dituzte-

la erantzun dezakete, eguneroko egoera arruntetan mintzatzeko gai izan gabe adibidez.

Hots, autoebaluazioak gainestimaziora eraman dezake, adibide bakanago batzuetan azpiestimaziora.

Hutsuneak eta errore motak

Baliatzen dugun datu-base horren balioa neurtzeko, erantzun batzuen subjektibotasunaz gain, haren hutsuneak eta balizko erroreak kontuan hartu behar ditugu.

Fitxetako erantzunak datu-basean kopiatzea errore-iturri izan daiteke.

Datu-basean hutsuneak badira: Ikasleak fitxa bete ez duelako edo fitxako erantzunak datu-basean kopiatu izan ez direlako.

Beste hutsune mota sortzen da fitxa osoki bete ez delako, ikasleak erantzun batzuk eman ez dituelako.

Metodologia

Datuetan sartu baino lehen, bi hitz metodologiaz.

AEKko datu-baseko datuak tratamenduko programa baten bidez bilduak izan dira, gurutzagarriak izan daitezen, datu pertsonaletatik kanpo, fitxa bakoitzari zenbaki bat emanez.

Erabili dugun metodologia sinple da. Hiru urteetako ikasleen erantzunak sartu izan dira taula bakar batean, urte eta gau eskolaka. Datuak numerizatuak izan dira, erantzun mota edo aldagai bakoitzari zenbaki bat emanez. Softweraren bidez nahi genituen gurutzaketak egin ditugu, etorkinak eta/edo bertakoak ordenatuan ala abzisan emanez.

Tratamenduak ikasturte bakoitzarentzat eginez, aldagaiak iragaz zaitezkeen, bata edo bestea atxiki nahiaren arabera, bata edo bestea isolatu nahi genuenean.

4. Ezaugarri soziodemografikoak

AEKko ikaskuntza mailak


AEKko euskararen ikaskuntzaren ibilbidean zortzi urrats badira. Europako Erreferentzia Markoan sartzen dira.

Lehen bi urratsetan diren ikasleek multzo handiena osatzen dute, nahiz herrikoetan (%52), nahiz etorkinetan (%67).

Lehen urteetan ikaskuntzaren uztea gora da.

Goiko urratsetan herrikoak etorkinak baino gehiago dira.

Ikasleen jatorria




Herrikoak etorkinak baino gehiago dira AEKan, baina diferentzia tipitzen da. 2008-2009an 100 ikasleetan 52 herrikoak dira eta 48 kanpokoak, 1995-1996an herrikoak 65 ziren eta kanpokoak 35.

Sorlekuaren arabera sailkatuz, Ipar Euskal Herrikoan sortu direnek talde handiena osatzen dute (%47), Hego Euskal Herrikoek talde tipiena (%3). Akitanian sortu direnak %14 dira, Akitaniatik kanpoko Frantzian %30 eta etorkin atzerritarrak %6.

Era batez AEKko ikasleen jatorria Ipar Euskal Herriko gizartearen antzeko dela erran daiteke.

Ikasleen generoa



AEKn, euskara ikasten duten emazteak gizonak baino gehiago dira: 100 ikasletan 53 emazte eta 47 gizon dira.


Ezberdintasun hori herrikoetan handitzen da. 2008-2009an, 100 herriko ikasletan 56 emazte eta 44 gizon dira.

Ikasleen adina

Ikasleak gero eta zaharragoak dira, batez-besteko adina 1995ean 35 urtekoa zen, 2002an 39 urtekoa eta 2008an 42 urtekoa.

Herrikoak etorkinak baino gazteagoak dira urte oroz. 16-24 urteko multzoan gehiago dira bereziki. Etorkinak, aldiz, herrikoak baino gehiago dira 50 urte eta gehiagoko multzoan.

Ikasleen lan-egoera



AEKko ikasleak lanean dira gehienik (%67) eta urte oroz langile gehiago bada herriko ikasleetan ezinez eta etorkinetan. Baina enplegu-tasa apaltzen da urte batetik bestera, nahiz herrikoentzat, nahiz etorkinentzat.

Erretretan direnak gero eta gehiago dira: herrikoen %16 alde batetik eta etorkinen %21 bestetik 2008an.

Langabezia aldiz apaltzen da. 2008an herrikoen %15 langabezian dira eta etorkinen %20.

Ikasleen lanbideak

1. sektorean AEKko ikasleen %3 dira (laborantza). 2. sektoreko ikasleak %25en inguruan kokatzen dira (industria). 3. sektoreak enpleguen %70ren haina gainditzen du (zerbitzuak).

Ohargarri da nola AEKren estatistika INSEE erakundeak ematen duen Ipar Euskal Herrikoaren miraila den gutxi gorabehera.

Ikasle etorkin baino herritar gehiago bada bulegoetan eta salerospenetan, aldiz ikasle etorkin gehiago hezkuntzan. Beste lan eremuetan ezberdintasunak ttipiak dira.

Ikasleen ikasketa-mailak

AEKko ikasleen ikasketa-maila orokorra aski gora da. Unibertsitateko ikasketak egin dituztenak %46 dira aztertu diren bi urteetan (2002-2003 eta 2008-2009).

Deus ez dutenak, gehi lehen mailara, gehi BEPC mailara heldu direnak %6 dira bakarrik.

Etorkinen ikasketa-maila herrikoena baino gorago da. Unibertsitateko ikasketak egin dituztenak %52 dira, herrikoak %40.

Zenbat urte Euskal Herrian?

AEKn euskara ikasten duten herrikoen egonkortasun geografikoa handia da.

Betidanik Euskal Herrian egon direnak %90 dira eta 10 urte baino gehiago iragan dituztenak %5.

Etorkinetan, multzo handiena da 10 urte baino gehiago iragan dituztenena (%33).

Euskara ikasleen familietan hiru ikasturteetan

Familiak	Herrikoak	Etorkinak	Orotara
Familia euskaldunak	%47	%13	%33
Familia mistoak	%36	%29	%33
Familia erdaldunak	%17	%58	%34
Familiak oro	1.437	1.005	2.242

AEKko ikasleen familietako hizkuntza giroa euskaldunago da Euskal herrian sortu direnetan eta erdaldunago ikasle etorkinetan: hori ustekabea ez da.

Ikasturte batetik bestera herriko ikasleen familiak gero eta linguistikoki mistoagoak dira, eta ikasle etorkinenak gero eta euskaldunagoak dira.

Hiru ikasturteetako ikasle guztiak kontuan hartuz, familia euskaldunak, familia erdaldunak eta familia elebidunak hein berean daude, herenaren heinean.

Euskara eta ikasleen haurrak

Ikasleetan etorkinak herrikoak baino gehiago dira haurrak dituztenak: etorkinen %56 guraso dira, herrikoen %40. Joera hau Ipar Euskal Herriko demografiari konparagarria da.

Ikasleen haurrek euskara ikas dezaten ez da gehiengoaren erabakia, ikasleen %44ena baizik. Aukera hau handiago da herriko ikasleeetan (%52) etorkinetan baino (%38).

2002-2003ko ikasturtetik 2008-2009kora euskarazko hezkuntza emendatu dela agertzen da, nahiz herrikoen haurrekin, nahiz etorkinen haurrekin. Bilakaera hau iraunkorra balitz, euskararen garapena segurtatua litzateke.

Euskara ikasleen inguruan: euskara lagunartean

Euskara ikasten dutenek mintzakide euskaldunak behar dituzte euskaraz mintzatzeko.

AEKko ikasleen hizkuntza-ingurunea aztertu nahiz, hiru ikerketa egin ditugu: zenbat lagun euskaldun dituzten, zenbat lankide euskaldun eta familian zenbat euskaldun. Hiru inguruneetako egituren arteko konparaketa egin dugu.

Lagunartearen kasuan, ikusten dugu ikasle etorkin gehiago dabiltzala lagunarte osoki erdaldunetan, herritarrei konparatuz. Baina, oro har, herrikoen hizkuntza-ingurunea eta etorkinena antzekoak dira.

Euskara ikasleen inguruan: lankide euskaldunak

Ikasle langile gehienek, nola herritarrek, hala etorkinek, diote lankide euskaldun batzuk dauzkatela. Halere 2008ko ikasleen lankidegoak 2002koak baino euskaldunagoak dira, baina laurdenaren heina gainditu gabe.

Bukatzeko, **ikasleen ingurunetako hiru egiturak** konpara ditzagun.

Familiak dira euskaldunenak herriko ikasleentzat. Ikasleen lagunarteak familiak baino erdaldunagoak dira, baina langilegoak baino euskaldunagoak. 2008an ikasleen lagunarteak eta lankidegoak 2002an baino euskaldunagoak dira.

Iparraldean euskalduntasuna ahuldu delarik, ikasle helduen lagunetan %35 euskaldunak dira, beren adineko herritarrak baino %10 gehiago, AEK erakundearen dinamika baikorraren seinalea. Datu horren azalpena ikasleek beren ingurune euskaldunarengatik euskara ikasten has dezatela izan daiteke.

5. AEK-ko ikasleen eleaniztasuna

Galdera hau zen: «Beste hizkuntzarik menperatzen duzu?».

Ipar Euskal Herrian denek frantsesa badakite eta AEKn euskara ikasten dute. Beste hizkuntzak dira hemen aipatzen: gaztelania, ingelesa, alemana, italiera, okzitaniera, errusiera, portugesa, arabiera edo beste.

Txosten osoan, emaitzak bi zerrenda luzetan emanak dira: hizkuntza bakoitzak zenbat hiztun eta hiztun bakoitzak zenbat hizkuntza. Adibide batzuk ikus ditzagun.

Hiru ikasturteak	Herrikoak	Etorkinak	Ikasle oro
Frantsesa elebakarra	%39	%29	%35
Frantsesa + hizkuntza 1	%32	%31	%31
Frantsesa + 2 hizkuntza	%27	%29	%28,5
Frantsesa + 3 hizkuntza	%1,6	%8	%4
Frantsesa + 4 hizkuntza	%0,4	%2	%1
Frantsesa + 5 hizkuntza	%0	%1	%0,5
Orotara	1.514	1.093	2.607

Ikasleen kopurua 2.607koa da, 1.514 bertakoak eta 1.093 etorkinak. Emaitzak laburbilduz: frantsesdun elebakarrak %35, elebidunak %31, hiru eledunak %29 eta eleanitzak %5.

Lehen garrantzizko oharra da, AEKko ikaslegoan, frantsesdun elebarrak guttiengoan direla, herena baino gehixeago (%35). Orain arte erran dugu euskaldun guztiak elebidunak zirela, denek frantsesa baitakite. AEKko ikasleen kopurua, Ipar Euskal Herritarren lagin fidagarria balin bada (askotan frogatu dugun bezala), erran dezakegu, Iparraldean erdaldunen gehiengo handia ere elebiduna dela, %65 hain zuzen.

Bigarren ohar harrigarria hau da, elebakar ez direnetan, kasik ikasle bieledun bezainbat hirueledun badela: %31 eta %29 hurrenez hurren, ez bakarrik etorkinetan bai eta ere herritarretan. Zergatik? Hain segur denek ingelesa ikasi baitute kolegioetan eta lizeoetan eta askok gaztelania. Baina eleanitzak, laueledunak edo gehiago gutti dira: bertakoetan %2, etorkinetan %11, orotara %6.

Ezberdintasun nabariak badira herriko eta kanpoko ikasleen artean. Etorkinetan herritarretan baino askoz elebakar gutiago da, zenbaki gordinetan ala ehunekotan (% 29 eta % 39 hurrenez hurren). Gainera bostetan eleanizdun gehiago bada etorkinetan (%11 versus %2). Berdintasun bat halere, bieledunen eta hirueledunen proportzioa berdintsua da bi multzoetan.

Hizkuntzen arrakasta

Hona hizkuntza bakoitzari dagokion hiztunen kopurua, 3 ikasturteetako 2.754 ikasleen artean.

1. Gaztelaniaz: 1.285 hiztun. 2. Ingelesez: 1.133 hiztun. 3. Alemaneraz: 151 hiztun.

4. Italieraz: 50 hiztun. 5. Portugesez: 37 hiztun. 6. Okzitanieraz: 20 hiztun.

7. Errusieraz: 13 hiztun. 8. Arabieraz: 11 hiztun. 9. Besterik: 54 hiztun.

Hizkuntzak	Herrikoak	Etorkinak	Ikasle oro
Gaztelania	792	493	1.285
Ingelesa	547	586	1.133
Alemana	27	124	151
Italiera	14	36	50
Okzitaniera	4	16	20
Errusiera	5	8	13
Portugesa	7	30	37
Arabiera	1	10	11
Besterik	8	46	54
Hiztunak	1.405	1.349	2.754

Frantsesa eta euskara kontuan hartu gabe, gaztelania eta ingelesa dira beste hizkuntza mintzatuenak bai herritarretan bai eta ere etorkinetan: ikasle guztiak hartuz hizkuntza bakoitzean 1.000 hiztun baino gehiago dira. Esplikazioa da gaztelania auzoko estatuaren hizkuntza ofiziala dela eta mugaz gaineko harremanak ugari direla. Aldiz ingelesa mundualizazioaren hizkuntza. Bi hizkuntzak ikaskuntzaren bigarren mailan ikasten dira eta orain jadanik lehen mailan.

Horiek hola beste hizkuntzak ez dira biziki ezagunak, etorkinen jatorrizko hizkuntzak izanikan ere: alemanez 151 hiztun, italieraz 50, portugesez 37, okzitanieraz 20. Ohargarri da ok hizkuntza (gaskoina edo biarnesa) seigarren mailan dela. Auzo hizkuntza da baina ez da biziki ezaguna.

Ikasle herritarrak eta etorkinak konparatzen baditugu, gaztelaniadun gehiago bada herritarretan eta ingelesdun gehiago etorkinetan. Lau hiztun multzo horiek dira jendetsuenak, 500 hiztun baino gehiagorekin. Bosgarren hiztun multzoa da etorkin alemandunena 124 hiztunekin. Beste hiztun multzoak arrunt ttipiak dira. Adibidez ikasle etorkin portugesdunak 30 dira, dakigularik Iparraldeko gizartean etorkin portugesen multzoa dela jendetsuena.

Konklusioa

Eleaniztasunaren fenomeno hau, gero eta indartsuago izanen dela pentsa dezakegu, ez bakarrik imigrazioaren eraginez. Herritarretan ere elebakarrak

guttiago dira. Mundializazioak eleaniztasunera behartzen gaitu, Internet, nazioarteko instituzio, lan eskaintza eta kontsumoaren bideetarik. Dena dela elebakarra nolazbait gaur eguneko analfabetoa da.

6. **Euskara ikasteko motibazioak**

Motibazioei buruzko galderak egin ziren 2002an eta 2008an. Bi urteetako erantzunak azter ditzazkegu. 2002-2003 ikasturtean 893 erantzun bildu ziren: 513 herriko ikasle eta 380 etorkin. 2008-2009an 879 erantzun: 455 herriko ikasle eta 424 etorkin. Orotara 1.772 erantzun: 968 herriko ikasle eta 804 etorkin.

Ikasle bakoitzaren erantzunak anitzak izan daitezke. Kontuan hartu behar da ikasle batek motibazioetan hautaketa bat baino gehiago egin zezakeela. Eta hau da maizenik gertatu zena. Hona motibazioari buruzko inkesta, ikasleen fitxan agertzen den bezala.

Galdera da: «Zerk motibatzen zaitu euskara ikastera?»

Zortzi erantzun proposatuak ziren eta azterketarako sailkatu ditugu emaitza orokorren arabera, lehenik motibazio aipatuena. Ohargarri da motibazioen ordena berdina dela 2002an eta 2008an. Lerroalde honetan 2008-2009ko zehaztasunak agertzen ditugu.

1. «Euskaldunekin komunikatzeko»: 2002an %47, 2008an %77. Motibazio hau handiena da, herrikoentzat eta etorkinentzat. 2002tik 2008ra 32%ren handitzeak, kasik bikoiztuz, erakusten du motibazio horrek AEKko ikasleentzat duen garrantzia.
2. «Euskal kultura nereganatzeko»: 2002an %37, 2008an %51. Motibazio hau orotara bigarrena izanik ere, hirugarrena da herrikoentzat. Etorkinek hautatu dute bigarren motibazioa gisa, aldiz herrikoek hirugarren mailan ezarri dute. Aurreikus daitekeen bezala, herrikoek etorkinek baino gehiago euskal kultura ezagutzen dute. Ondorioz bereganatzearen beharra guttiago sentitzen dute.
3. «Nere sustraiak, nortasuna atxemaiteko»: 2002an %27, 2008an %41. Motibazio honekin alderantzia da. Aurten herrikoak dira be-

reziki hautatu dutenak, %58k, etorkinen (%24) doblea dira. Emaitza hau ere normaltzat har dezakegu: herriko ikasleek euskal nortasunaren beharra daukate, beren euskal sustraiak berriz aurkitu nahi dituzte

4. «Hizkuntzak maite ditudalako»: 2002an %25, 2008an %36. Hizkuntzentzat motibazioa handiagoa da etorkinetan (%44), hirugarrena izanez, nortasunarentzat baino handiago. Herrikoen %28k hautatu dute; guttiago dira beraz. Asmatzekoa da motibazio honek hizkuntzei buruzko interes intelektuala adierazten duela.

5. «Euskal Herrian integratzeko»: 2002an %23, 2008an %32. Aurten ere batez besteko ehunekoek herrikoen eta etorkinen arteko desberdintasun handia erakusten dute. Integratzeko motibazioa etorkinen %53k agertzen dute, aldiz herrikoen %13. Azken hauentzat seigarren motibazioa da, aldiz etorkinentzat hirugarrena da. Integratzeko nahia handia da etorkinetan. Pentsa daitekeen bezala herrikoek beren burua integratutzat hartzen dute.

6. «Nere haurrak euskara ikasten ari direlako»: 2002an %14, 2008an %20. Komunikatzeko motibazioarekin bezala, motibazio hau orekatua da: aurten herrikoen %20ek eta etorkinen %21ek hautatu dute. Kontuan har haurrak dituzten ikasleak %48 zirela. Dena dela, ikasle hauek euskara ikasten dute eta beren haurrek ere bai. Euskararen jarraipena segurtatua izan daiteke holako familietan.

7. «Lana atxemaiteko edo aldatzeko»: 2002an %11, 2008an %11. Aurten herrikoen eta etorkinen arteko banaketa orekatua da (%11). Motibazio honen sailkapen apala harrigarritzat har daiteke. Halere ulergarria da jakinez Ipar Euskal Herrian lanpostu guttik euskara behartzen dutela. Iduri luke gau eskoletako ikasleek Ipar Euskal Herriko lan-mundua ezagutzen dutela.

8. «Besterik zein?»: 2002an %4, 2008an %6. Ikasleek zortzigarren aukera bat bazuten, beste motibazio baten zehaztea nahi baldin bazuten. Erantzun gutti izan dira. Ehuneko hau ttipiena da herriko ikasleentzat, bai eta ere ikasle etorkinentzat.

Ikusmolde orokorra

Orain bi ikasturteetako emaitzak bilduko ditugu, motibazio bakoitzaren indar erlatiboa neurtzeko. Lehenik kondatu ditugu zenbat aldiz ikasleek aukeratu duten motibazio bakoitza, herriko ikasleek, etorkinek eta orotara. Banan-banako analisian motibazio bakoitzaren arrakasta neurtu dugu ikasleen kopuruari begira. Lerroalde honetan bi ikasturteetako emaitzak metatuz aztertuko ditugu, herriko ikasleak eta etorkinak konparatu. Adibidezko emaitza batzuk aipa ditzagun.

Ikasle guztientzat, bertako ala etorkin, komunikazioa da motibazio nagusia eta laneko erabilera motibazio ahulena. Proposatu zerrendaz kanpo, beste motibazio gutti aukeratu dute.

Sailkapenean herriko ikasleen eta ikasle etorkinen artean desberdintasun batzuk badira:

1. Zein dira ikasle herritarren motibazioak?

   – Motibazio nagusiak dira euskaldunen arteko komunikazioa (%60) eta nortasunaren adierazpena (%46).

   – Erdi-guneko motibazioak dira euskal kultura (%33), interes linguistikoa (%24) eta haurren hizkuntza (%16) kontuan hartuz haurrak dituzten ikasleak %40 direla.

   – Motibazio ahulena da euskara lanerako (%5).

2. Zein dira ikasle etorkinen motibazioak?

   – Motibazio nagusiak dira euskaldunekin komunikatzea (%65), euskal kulturaren jabekuntza (%57) eta integrazioa (%46).

   – Erdi-guneko motibazioak dira interes linguistikoa (%37) eta haurren hizkuntza (%18) kontuan hartuz haurrak dituzten ikasle etorkinak %56 direla.

   – Motibazio ahulenak dira nortasunaren adierazpena (%8) eta euskara lanean (%4).

Sailkapen sintetikoa

Motibazioak hiru multzotan bil daitezke erranahi nagusiaren arabera:

– Nortasunaren eremuko motibazioak, kultura (2), integrazioa (5) eta sustraiak (3).

– Motibazio praktikoak, komunikazioa (1), haurren euskalduntzea (6), lanerako (7).

– Motibazio linguistikoak, hizkuntzak maite (4) eta beste (8).

Jatorriaren arabera, ikasleen motibazioak euskara ikasteko 2002an eta 2008an (zenbaki, %)

Motibaziok	**Herrikoak** (968)	**Etorkinak** (804)	**Ikasle oro** (1772)
Nortasun motibazioak (2, 5, 3)	887 = %44	983 = %51	1.870 = %47
Motibazio praktikoak (1, 6, 7)	851 = %42	619 = %32	1.470 = %37
Interes linguistikoa eta beste (4,8)	282 = %14	340 = %17	622 = %16
Motibazioen kopurua	2.020 = %100	1.942 = %100	3.962 = %100

AEKko ikasleen lehen motibazio andana euskaltasunari buruzkoa da. Hizkuntzaren bidez herriko ikasleek beren erroak aurkitu nahi dituzte, eta kultura sakondu, nor diren ulertzeko (%44). Aldiz ikasle etorkinek Euskal Herrian integratzea bilatzen dute, hizkuntzaren bidez eta neurri ahulagoan euskal kultura landuz (%51). Harrigarri da nortasunari buruzko motibazioak indartsuagoak direla etorkinetan ezinez-eta herriko ikasleetan.

Motibazio praktikoak euskararen erabilerara norabidetuak dira: euskaldunekin komunikatzeko, euskara haurrei transmititzeko, euskararen bidez lan bat edo lan hobea aurkitzeko. Motibazio andana hau bigarren mailan da bai herriko ikasleetan (%42), bai eta ere etorkinetan (%32). Ikusi dugu komunikazioa dela motibazio nagusia ororentzat, aldiz orok ikusten dute euskarazko lanbideak xuhur direla Ipar Euskal Herrian. Orokorki, euskara ikasterakoan, herriko ikasleen nahikundea praktikoagoa da etorkinena baino. Hauen kezka nagusia da beren tokia atzematea euskaldunen artean.

Motibazio linguistikoak, hizkuntzei buruzko interesa, ahulena da bi multzoetan, ikasle etorkinetan (%17) eta herriko ikasleetan (%14). Motibazio hau interes intelektual bat da eta, hain segur, euskararen ikasteko zailtasunak ezkutatzen die euskararen edertasuna.

7. **AEK-ko ikasleen helburuak**

2008-2009 ikasturtean ikasleen helburuei buruzko 10 proposamen gehitu dira ikasle-fitxan. Frantsesez bakarrik idatziak dira. Beraz urte bakar bateko erantzunak aztertzen ditugu:

Ikasle-fitxako atal horren izenburua zen: «Nahi dituzu zure helburuak zehaztu?»

Hona hemen 10 erantzunak bakoitza bere arrakasta orokorraren arabera sailkaturik:

1. Adiskideekin mintzatu nahi dut sinpleki.
2. Irratia, telebista ulertzeko gai izan nahi dut.
3. Euskaraz frantsesez bezain ongi mintzatu nahi dut.
4. Nire harremanetan, nire lanean euskaraz ahal bezain usu mintzatu nahi dut.
5. Nire lanbide jarduera euskaraz ere egin nahi dut.
6. Eskolan euskara ikasten duten nire haurrak lagundu nahi ditut.
7. Lehen hizkuntza gisa euskara nire haurrei transmititu nahi diet.
8. Esaldi sinple batzuk ulertu nahi ditut.
9. Nozio batzuk ikasi nahi ditut.
10. Lanpostu bat euskararen bidez eskuratu nahi dut.

Proposatu diren hamar helburuetan «adiskidekin mintzatu nahi dut sinpleki» da hautatuena, hala herrikoentzat (%54) nola etorkinentzat (%61). Bigarrena «euskaraz frantsesez bezain ontsa mintzatu nahi dut» da herrikoentzat (%45); hirugarrena da etorkinentzat (%35). Hirugarren helburua «irratia, telebista ulertzeko gai izan nahi dut» da herrikoentzat (%39). Helburu hau bigarrena da etorkinentzat (%43).

Sailkapenean, «lanbide bat euskararen bidez eskuratu nahi dut» azken helburua da herrikoentzat (%4) eta bai ere etorkinentzat (%5).

Oro har iduri luke etorkinek oinarrizko komunikazioa lortu nahiko luketela, herrikoek aldiz komunikazio-gaitasun handiagoa bilatuko lukete.

8. **Baionaldeko gurasoen irizia euskararen irakaskuntzaz**

2001ean, Hezkuntza ministeritzaren adostasunarekin, Baiona-Angelu-Biarritz (BAB) hiri elkargoak ikerketa bat eskatu zion CSA iritzi-zundaketa erakundeari, euskararen irakaskuntzari buruz. Galdezkatuak ziren 3 urtez petikako haurrak zituzten gurasoak, orotara 501 pertsona.

Laginaren egitura BABko jendetzaren itxurakoa da.

– Bizitza lekua: Baionan 220 (%44), Biarritzen 121 (%24) Angelun 159 (%32).
– Hizkuntza gaitasunaren arabera: euskaldunak 46 (%9), erdi-euskaldunak 128 (%26), erdaldunak 327 (%65).
– Jatorriaren aldetik: Euskal Herrian sortuak 220 (%44), etorkinak 281 (%56).

Euskararen irakaskuntza

Galdera: «Urte bat edo biren buruan, zure haurrak eskola hasiko du. Nahi zenuke zure haurrak euskara ikas dezan eskolan?»

Guraso gazteen gehienek (282 pertsonak) nahi dute beren haurrak euskara ikas dezan eskolara joanen delarik: % 56 dira, % 19 osoki ados, %37 nahiko ados.

– Guraso gazteagoetan da xede kartsuena: 30 urte baino guttiagokoetan %64, 30-34 urtekoetan %57 eta 40ez goragokoetan %54.
– Hizkuntza gaitasunaren arabera, euskara ongi dakitenak ados dira %85, euskara doi bat dakinak %60 eta erdaldunak %51.
– Jatorriaren arabera bertako gurasoetan euskararen irakaskuntza nahi dute %58k eta kanpokoetan %54k.

Euskararen irakaskuntzarik nahi ez duten gurasoak 209 dira, % 42 (%23 osoki kontra, %19k nahiago ezetz). Kontrako horietan herrian sortuak %40 dira, kanpokoak %43.

Emaitza hauk harrigarriak dira. Hirigune erdalduna da eta etorkinek gehiengo estatistikoa daukate. Frantziako legerian, ikastetxeek herri hizkuntzen irakaskuntza eskain dezakete, gurasoen eskaera frogatua balin bada (*«une demande avérée»*). Aginterien asmoa ziteken Baionaldean gurasoen eskaera ahula aurkitzea. Orain badakigu euskararen aldeko atxikimendua nahiko handia dela etorkinen eta erdaldunen aldetik. Aspaldidanik 3 ikastola baziren BAB hiri elkargoan. Geroztik, Euskararen Erakunde Publikoaren eraginez 11 sail elebidun ireki dira hirigune honetako eskoletan. Hastapenaren hastapena.

Euskal irakaskuntzari buruzko motibazio baikorrak

Galdera irekia: «Zergatik nahi duzu zure haurrak euskara ikas dezan?».

Ez zen erantzun proposaturik. Hona erantzun aipatuenak, bataz besteko maiztasunaren arabera sailkaturik.

Baietzaren motibazioak	Herrikoak 129 guraso	Etorkinak 153 guraso	Orotara 282 guraso
Euskal Herrian bizi gara	%37	%37	%37
Kutura aberatsa, izpiritu irekidura	%23	%27	%24
Ondareari, jatorriari atxikiak	%20	%15	%17
Familia eta gizarte komunikaziorako	%16	%11	%13
Haurra Euskal Herrian sortua delako	%9	%12	%11
Euskara Herrian integratzeko	%6	%13	%10
Euskara ez dadin gal	%15	%6	%10
Baliagarri lanbidearentzat, lanerako	%9	%4	%6

CSAren komentarioa: «Haurrei euskara irakasteko motibazioak kulturalak dira eta praktikoak baina ez dira profesionalak, ez eta ere politikoak». Gurasoen herena baino gehiagok (%37) nahi dute haurrek euskara ikas

dezaten Euskal Herrian bizi direlako, eta neurri berean herrian sortuak direnetan eta etorkinetan. Bataz beste gurasoen laurdenak aipatzen dituzte motibazio kulturalak: euskararen ezagutzak dakarren izpirituaren irekidura edo aberastasun kulturala. Askoz gehiago guraso etorkinetan (%27) bertakoei konparatuz (%23). Aldiz bertakoek askoz gehiago aipatzen dute ondareari, jatorriari buruzko atxikimendua (%20, etorkinek %15), bai eta ere euskararen biziraupena (%15, etorkinek %6).

Motibazio praktikoetan familiako eta gizarteko komunikazioa da nagusi: bertakoen %16 eta etorkinen %11rentzat. Kanpotik etorri diren gurasoentzat euskara baliagarri da haurren integrazioarako (% 13, bertakoek %6). Bainan oso guttik garrantzia ematen diote euskarari lan egiteko, lanbide bat segurtatzeko: bertakoen %9k, etorkinen %2.

Hizkuntzei buruzko pedagogiari begira, ama-eskolako irakaskuntza goiztiarraren alde dira bertako gurasoen %79 eta etorkinen %73. Askoz gehiago dira ikaskuntza elebidunaren alde direnak denbora berdinarekin bi hizkuntzentzat (%84), euskararen aldeko murgilbideari konparatuz (%13). Euskara frantsesa bezain ongi menperatzearen alde dira (herriko gurasoen %30, etorkinan %19), frantsesari ematen diote lehentasuna (guraso etorkinen %24k, herrikoen %11).

Euskal irakaskuntzari buruzko motibazio ezkorrak

Galdera irekia: «Zergatik ez duzu nahi zure haurrak euskara ikas dezan?»

Ezetzaren motibazioak	Herrikoak 88 guraso	Etorkinak 121 guraso	Orotara 209 guraso
Ez gara hemengoak	%9	%38	%26
Euskara ez da baliagarria	%27	%24	%25
Etxean nehork ez daki euskara	%29	%21	%24
Hobe ingelesa ikas dezan	%29	%20	%24

Atzerritasuna da guraso etorkinek maizenik eman duten arrazoia euskara ez irakasteko: «Ez gara hemengoak, euskara ez da gure kultura» (%38).

Bigarren lerroan dagoen arrazoia da baliagarritasun eskasa orokorki (bertakoen %27, etorkinen %24). Euskararen beharrik ez da familia erdaldunetan (bertakoen %29, etorkinen %21).

Baliagarritasunaren izenean guraso anitzek nahiago dute haurrak ikas dezan ingelesa edo gaztelania edo beste nazioarteko hizkuntza bat (bertakoen %29, etorkinen %20). Ohiko motibazio ezkorrak ez dira maiz agertu, ez euskararen zailtasuna (%2) ez eta ere irakaskuntzaren politizazioa (%4).

9. **Bururatzeko**

Konparaketa bat egin genezake Baionaldeko guraso gazteen eta AEKko ikasleen artean. Euskararen irakaskuntzari buruz kartsutasun berdintsua ikusten da herriko gurasoetan eta kanpokoetan. Baina ez arrazoi berdinengatik. Herrikoen motibazioa da ondarea, familia eta euskarari buruzko atxikimendua. Etorkinen helburua da integrazioa, izpiritu irekidura, frantsesaren ezagutzari kalterik egin gabe.

Ikasle helduetan, herri komunikazioaz gain, nortasunari buruzko motibazioak dira nagusi. Nehork ez du ikusten euskara baliagarri denik lanbidearentzat, baina gehienek euskara nahi dute berentzat eta haurrentzat Euskal Herrian ongi bizitzeko.

Ikerketa osoa, 2010ean argiteratu da *Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian – L'enseingnement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord*, Jagon 9, Bilbo, Euskaltzaindia.

Etorkinak, euskara eta hizkuntz aniztasun berria.
Giza eskubideetatik sortutako zenbait hausnarketa

RUIZ VIEYTEZ, Eduardo Javier
Deustuko Unibertsitateko irakaslea

Jasotze data: 2010-07-14
Onartze data: 2010-07-14

Euskal gizartean azken urteetan gertatu diren immigrazio-mugimenduek aurretik zegoen «hizkuntz paisaia» modu nabarmenean aldatu dute. Horren ondorioz, euskara normalizatzeko politikek testuinguru ezberdin bati aurre egin behar diote. Orain arte, etorkinen hizkuntz aniztasunaren eta gizarteratzearen arteko lotura ez da ondo aztertu. Herritartasunaren kontzeptu barne-hartzailea oinarri hartuta, beharrezkoa da hizkuntz identitate berriek gure eskema politikoetan duten eginkizunari buruzko galdera egitea. Bestaldetik, behar beharrezkoa da gizartean dagoen hizkuntz aniztasuna kudeaketa demokratikoa arautzea, parte-hertzeko aukerak handituz eta identitate ezberdinen presentzia egokia ziurtatuz.

Hitz-gakoak: Hizkuntza aniztasuna, immigrazioa, herritartasuna, giza eskubideak, eremu urriko hizkuntzak.

La mayor presencia de personas con orígenes diversos ha aumentado la diversidad lingüística (y cultural) de la sociedad vasca. Las políticas de normalización del euskera se enfrentan así a un contexto diferente de aquél para el que inicialmente fueron pensadas. Por otro lado, la conexión de diversidad lingüística e integración social de las personas inmigrantes no ha sido profundamente estudiada. Sin embargo, es obligado preguntarse sobre el papel que pueden ocupar las nuevas identidades lingüísticas en nuestro contexto político. La cuestión es reflexionar sobre qué tipo de intervenciones jurídicas deben establecerse en la relación entre las lenguas inmigradas y el euskera. En este sentido, es necesario asumir una gestión más abierta e integradora de la diversidad lingüística, pudiendo utilizarse como parámetro para ello la normativa europea vigente en materia de lenguas minoritarias.

Palabras clave: diversidad linguistica, inmigración, ciudadanía, derechos humanos, lenguas minoritarias.

Les mouvements d'immigration de ces dernières années dans la société basque ont modifié de façon très importante le «paysage linguistique» existant. C'est pourquoi les politiques de normalisation de la langue basque doivent s'adapter à des contextes différents. Jusqu'à présent on n'a pas bien étudié le lien qui existe entre la pluralité linguistique des immigrants et leur intégration dans la société. En se basant sur le concept de citoyenneté, il faut que les nouvelles identités linguistiques s'interrogent sur leurs devoirs à l'intérieur de nos schémas politiques. D'autre part, il est indispensable de réglementer la gestion démocratique de la pluralité linguistique de notre société, en élargissant les choix participatifs et en assurant une présence correcte des différentes identités.

Mots-clés: pluralité linguistique, immigration, nationalité, droits de l'homme, langues moins répandues.

The immigration movements that have taken place in recent years in Basque society have significantly altered the previously existing «language landscape». As a result, the policies for normalising Basque have to deal with a different context. Until now the link between the language diversity of the immigrants and their integration into society has not been properly studied. Taking the inclusive concept of citizenship as the basis, it is necessary to ask what the task of the new language identities is in our political frameworks. On the other hand, it is essential to regulate the democratic management of language diversity existing in society by increasing the opportunities for participation and by ensuring a suitable presence of the different identities.

Key Words: language diversity, immigration, citizenship, human rights, little-used languages.

Sarrera

Azken urteetan gure inguruan bizi izandako immigrazio-mugimenduek, ikuspuntu askotatik, gizarte-testuinguru berria sortzen dute, eta horrek erantzun juridiko eta politiko batzuk ere baldintzatu behar ditu. Zehatz esanda, immigrazioaren eraginez, gure gizartearen aniztasunak gora egiten du, gizartearen, kulturaren, erlijioaren eta hizkuntzaren ikuspuntutik. Errealitate berri horrek ondorio garrantzitsuak ditu. Erantzun politiko klasikoak gizarte-errealitate berrietara gero eta txarrago egokitzen dira. Beraz, gizarte-integraziorako eta egitura politikoak legitimatzeko parametro berriak eraikitzeko ahaleginak egin behar dira. Hizkuntz politiken esparru zehatzean, aniztasun gero eta handiagoaren eraginez, tradizioz bereganatutako ideiak berriz hausnartu behar dira, kontzeptuei zein estrategiei dagokienez.

Lan honetan, irakurleari aniztasunaren (hizkuntz aniztasuna) kudeaketa demokratikoari buruz gogoeta egiteko espazio bat eskaintzen ahaleginduko naiz, bi premisa oinarri hartuta. Batetik, immigranteek edo etorkinek harrera-gizartea berdintasun-egoeran osatzeko eskubidea dutela hartuko dut abiapuntu, herritartasun-kontzeptu barne-hartzailearen bidez. Aldi berean, jakitun naiz ariketa hori elebitasunaren kultura behar den moduan barneratu ez duen gizartean egiten dela. Egia esan, eremu urriko hizkuntza autoktonoa normalizatzeko prozesua eta hizkuntza immigratu berriak espazio publikoan sartzeko prozesua ezin dira bide guztiz bereizietatik garatu.

1. Gutxiengo nazionalen testuinguru berezia

Immigrazioaren fenomenoa zabal aztertu da, ikuspegi askotatik. Hala ere, hizkuntz alderdiak alde batera utzi izan dira, gizarte-integrazioan itxuraz premiazkoagoak diren beste beharrizan batzuek lehentasun handiagoa dutela pentsatzen da eta. Gutxiengo nazionalen edo estaturik gabeko nazioetan immigrazio-prozesuek gai eta interes bereziak sortzen dituzte. Inguru horietan, bi proiektu politikoak edo nazionalak daude esparru berberean, eta gainera, askotan, kontrajarriak izaten dira. Gure inguruko kasurik dei-

garrienak Katalunia, Eskozia, Gales, Hego Tirol, Aosta harana, Aaland uharteak eta Quebec dira, besteak beste. Leku horietan, migrazio-fenomenoen inplikazioak bikoitzak dira gutxienez. Batetik, estatuko hizkuntza ofizialaren eta berezko hizkuntzaren (eremu urrikoa izan daiteke edo ez) arteko lotura-prozesuak ukitzen dituzte. Bestetik, migrazioek ondorio politikoak dituzte, herritar berriak, zuzenean edo zeharka, liskarrean dauden proiektu nazionalen baten alde jartzen baitira, eta proiektu horien etorkizuneko bilakaera modu garrantzitsuan baldintzatu baitezakete.

Immigrazioaren eta gatazka nazional edo linguistikoen arteko loturaren ikuspegia orain arte ez da behar den beste aztertu, ez politikaren ikuspuntutik ez ikuspuntu akademikotik. Zalantzarik gabe, esparru horretan gogoeta gehien egin duena Quebec da, bertan probintzia-agintariek hizkuntz prozesua leheneratu baitute. Ikuspegi politikotik, aldiz, herritar berrien botoa erabakigarria izan zen 1995ean egindako azken erreferendumean. Europako gutxiengo nazionalen kasuan, gaia ez da zorrotz aztertu. Proiektu edo saiakera batzuk egiten ari dira, besteak beste, Belgikan eta Bruselaren periferian, Katalunian, Tirolen eta Aalanden, baina oraindik autore gutxi arduratzen dira gai horretaz[1].

---

[1] Adibidez, kasu horiek eta beste batzuk oraintsu landu dira Amsterdameko Unibertsitateak Castelldefelsen (Bartzelona) antolatutako *When multiculturality meets ethnoregionalism: the integration of immigrants amidst ethno-linguistic conflict* nazioarteko topaketan, 2009ko urtarrilaren 22an eta 23an. Eusko Jaurlaritzak 2008ko ekainaren 10etik 14ra Bilbon «Aniztasun kulturalaren eta nazionalaren kudeaketa demokratikoa» lemapean antolatutako Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko III. Biltzarrean ere azaleratu ziren nola edo hala. Gaiaren aldeko interesa duten autore aipagarrien artean, nazioartean Will KYMLICKA eta Espainian Ricard ZAPATA-BARRERO aipa daitezke. Ikusi, era berean, BANTING, Keith eta SOOKA, Stuart, «Federalism, Dualism and Immigrant Integration in Canada», Queen's University-ko (Kanada) Institute of Intergovernmental Relations zentroak 2007ko urrian antolatutako «The Federal Idea» biltzarrean aurkeztutako hitzaldia; RUIZ VIEYTEZ; Eduardo, «Immigrant integration policies in Spain: none, one or several models?», 5th Annual Conference of the IMISCOE Network of Excellence izenekoan emandako hitzaldia, Bilbon, 2008ko irailaren 10ean eta 11n; RUIZ VIEYTEZ, Eduardo (2008), «New minorities and linguistic diversity. Some reflections from the Spanish and Basque perspectives», *Journal on Ethnopolitics and Minority Issues in Europe (JEMIE)*, 7. lib., issue 2; eta MEDDA-WINDISCHER, Roberta (2009), *Old and New Minorities: Reconciling Diversity and Cohesion a Human Rights Model for Minority Integration*, Nomos-Eurac research.

Gure kasuan, gai horren aldeko interes handia dago, pertsonen mugimendu-fenomenoak aurrerantzean ere gertatuko direlako, indar handiagoarekin edo txikiagoarekin, eta euskararen bilakaera-dinamiketan eragina dutelako[2]. Horrenbestez, gure herrialdean hizkuntz politikak diseinatzerakoan kontuan hartu behar dira. Batetik, immigrazioak (bereziki immigrazio mota batek) mehatxu berriak eragiten ditu euskararen gizarte-lanketako hizkuntz espazioetan. Bestetik, herritar berrien eta euskararen arteko lotura jorratu behar da, baita erakundeetatik ere. Azken hori, nola edo hala, euskal gizarteak bizi dituen identitateen edo proiektu nazionalen gatazkaren aurrean herritar guztiek duten kokapen politikoari lotuta dago nola edo hala, baina gai hori saiakera honen interesetik kanpo geratzen da. Edonola ere, euskal gizartean gai horiek lantzea oso garrantzitsua dela zalantzarik gabe onartu beharko litzateke. Modu berean, immigrazio-politika eta aniztasun-politikak berezi behar dira. Azken horien hartzaileak herritar guztiak dira. Hemen bigarren esparruan egongo ginateke, eta horretan, hizkuntzen tratamendua, immigratuak izan zein ez, funtsezko faktorea da.

2. **Hizkuntzak, giza eskubideak eta immigrazioa**

Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, Europar Batasunak hizkuntz aniztasuna errespetatzen du. Modu berean, Europar Batasunaren lema ofizialak («batasuna aniztasunean») aniztasunaren balio positiboa aldarrikatzen du. Hala ere, hizkuntzei dagokienez, Europar Batasunean aniztasuna aitortzerakoan hierarkia dagoela esan daiteke. Izatez, irizpide oso desberdinei erantzuten dieten zenbait kategoria ezarri dira. Maila goreneko aitorpena duen lekuan ingelesa kokatuko genuke, nazioarteko hizkuntza eta lanerako hizkuntza baita erakunde gehienetan. Europako erakundeen egoitzak inguru frankofonoan kokatuta egon arren, frantsesak lehentasunezko kokapena galdu du

[2] AIERDI, Xabier, «Larritasun egoeretara hurbiltzea: Hizkuntza aniztasun berriaren eragina hizkuntza gutxituen normalizazio prozesuan», RUIZ VIEYTEZ, Eduardo (zuz.) (2008), *Giza eskubideak eta aniztasuna. Erronka berriak askotariko gizarteentzat*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 127-154 orr.

Europar Batasuna ekialderantz hedatu eta gero. Gaur egun, Europako programa askotan, hizkuntzen aldetik teorikoki berdinzaleak izan arren, ingelesari mesede egiten zaio argi eta garbi Europako hizkuntza erkide moduan, halakorik aldarrikatu gabe. Gogoan izan, adibidez, Europa osoko unibertsitateetan azterketak edo proiektuak egitera bideratutako laguntza ekonomiko handiak.

Bigarren mailan Europar Batasuneko laneko hizkuntzak edo itunen hizkuntzak daude, estatu kideren bateko lurralde osoaren hizkuntza ofizialekin bat datozenak. Aniztasun hori Europar Batasunak legez aitortzen du, baina berezko estatua duten hizkuntzetara mugatzen da. Aitorpenari dagokionez, beheragoko mailetan daude berezko estaturik ez duten eremu urriko hizkuntzak, eta aurrekoek baino hiztun gehiago izan ditzaketen arren, ez dute babes bera. Beraz, aniztasun hori ez da aurrekoa beste aitortzen, hori ere Europakoa izan arren berdin-berdin. Hala ere, egoerarik makurrena estatuek berezkotzat edo tradiziozkotzat hartzen ez dituzten hizkuntzek dute, hau da, europar hizkuntzatzat hartzen ez ditugunek, Europar Batasunean kontuan hartzeko moduko hiztunen kopurua edo nolabaiteko erro historikoa izan arren. Modu horretan, besteak beste turkierak, arabierak, txinerak eta urduak ez dute aitorpen ofizialik, Europako herritar gero eta gehiagok ama hizkuntza moduan dituzten arren. Egoera are kaskarragoa dute hizkuntza immigratuek, munduko herrialde batean ere ofizialak ez direnek, hala nola berbererak eta kurduerak. Europako herritarrek aipatutako hizkuntzetako edozein berezko moduan izan dezaketen arren, aitorpen eta babes maila oso desberdina da batetik bestera.

Argi dago oinarrizko identitate-osagaiak, hala nola erlijioa, hizkuntza, etnia- edo kultura-talde bateko kide izatea, oinarrizko faktoreak direla nortasun indibidualak eta kolektiboak eraikitzeko. Emigratzen duen pertsonaren kasuan ere, identitate-erreferentziak osagai garrantzitsuak dira, eta harrera-gizartean apurka-apurka gizarteratzea ireki edo ixten duen giltza. Edozein kasutan, norberaren eta taldeko balioen unibertsoa osatzen duten elementuak dira. Askotan, oinarrizko eskubideez gozatzean eragina dute eta, aldi berean, garrantzi handiko erreferente sinbolikoak dira. Elementu horiek espazio publikoan agertzean, horiek elkarbanatzen dituen gizabanakoak balioa handitzen du bere zein besteen ikuspegitik. Beraz,

kultura-parametroek garrantzi handia dute giza eskubideen diseinuan. Kultura-aniztasunari buruzko UNESCOren aldarrikapen unibertsalaren[3] 4. artikuluan hurrengoa ezarri da:

> *«Kultura-aniztasuna defendatzea betebehar etikoa da, gizakien duintasunarem errespetutik banaezina. Kultura-aniztasunak giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak errespetatzeko konpromisoa dakar berarekin, bereziki gutxiengoetako kideenak eta herri autoktonoenak. Ez da zilegi inork kultura-aniztasunaren izena erabiltzea nazioarteko zuzenbideak bermatzen dituen giza eskubideak urratzeko, ezta haien garrantziaren murrizteko ere.»*

Hala ere, Europako erkidego politikoak eraikitzean, kultura- eta identitate-uniformetasuna desiragarria dela onartu da, modu esplizituan zein ez. Kontinenteko mapa estatu subiranoen arabera zatitu ondoren, arrazionalismoak erakutsi du espazio itxi horien kultura- eta identitate-uniformetasuna desiragarria eta, neurri handi batean, naturala dela. Horren arabera, Estatuak bere homogeneotasuna bilatu behar du, gizarte-kohesioaren aitzakiapean. Nola ez, beste entitate politiko batzuek, hala nola autonomia-erkidegoek, eskema teoriko bera erabiltzeko nahia izan dezakete. Modu horretan, herritar arruntarentzat homogeneizatze-ereduek lehentasuna izaten jarraitzen dute. Oinarri hori izanda, erkidegora iritsi berriek integrazio-iragazkia gainditu beharko dute kultura- eta identitate-osagai erkideetan parte hartuz. Hizkuntzaren kasuan, funtsean hizkuntz asimilazioa defendatzen da.

Modu horretan, estatu modernoetan gutxiengo tradizionalek izan duten xurgatze-prozesu bera immigranteen taldeekin errepikatzen da orain, horren inguruan gogoeta handirik egin gabe. Hala ere, integrazioa immigrazio-politiken kudeaketan kontzeptu giltzarria bada, fenomenoak berak dakarren errealitate kulturaniztun berriarekin bateragarria izan behar da. Immigrazioa behar den moduan bereganatzeko, epe luzera herritar berrien kultura- eta identitate-ekarpena fenomeno iragankor moduan baino behin betiko fenomeno moduan ulertu behar da[4].

---

[3] Biltzar Nagusiak onetsia, 2001eko azaroaren 3an.

[4] Ikusi *Immigrazioari buruzko Euskal Plana 2003-2005*, Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz, 2004, 63. or. eta h.

Ikuspuntu juridiko-politikotik, herritartasun-kontzeptu barne-hartzailea modu publikoan bereganatzea beharrezko betekizuna da immigrazio-prozesuan kultura-politika aberasgarri eta bidezkoak gehitzeko. Herritartasun osoak eskubideen titulartasuna eta immigranteak erkidego politiko hartzailean barneratzea dakar. Integrazioa modu esklusiboan ez da eratortzen lan-merkatuan sartzetik eta egoitza-baimena edukitzetik, erkidego politikora bertako agente aktibo moduan benetan eta modu eraginkorrean sartzetik baino. Eta horrek politika publikoen bidez bideratu nahi diren hizkuntz dinamiketan ere ondorioak izan behar ditu.

Gizarte garaikidean, oro har, erlijioa esparru partikularrera murriztu daiteke, neurri handian, modu horretan erlijio-identitateek espazio publikoan izan ditzaketen ondorioak gutxituz. Hala ere, erkidego politikoak ezin du bere definizio linguistikoa saihestu, hizkuntza beharrezko osagaia baita estatu guztien berezko eginkizun asko egikaritzean (Rubio-Marín: 55, Patten: 296). Baina, gaur egun, planetan 200 estatu subirano inguru daude, eta hizkuntza biziak 6000 inguru direla kalkulatzen da. Zifra baten eta bestearen artean dagoen aldea ikusita, hizkuntzen erabileraren antolaketa publikoa egitea oso zaila dela ondorioztatu dezakegu. Estatu garaikideak sendotzearekin batera hedatu den uniformetze-prozesuaren eraginez, gaur egun, munduko hizkuntzen %4k baino gutxiagok nolabaiteko estatutu ofiziala dute (Romaine: 1). Horren ondorioz, fenomenora egindako hurbilketa, batez ere uniformetasun-irizpideak oinarri hartuta, ez da erraz bat etorriko pertsona askoren kultura-identitateekin edo gizadiaren hizkuntz ondarea gordetzearekin. Horregatik, nazio-estatu elebakarren ideia mehatxua da gure planetan dagoen hizkuntz aniztasunaren aurrean (Kymlicka eta Patten: 10; Kontra: 284).

Hizkuntz gaiek gure gizarteetan duten garrantzia ez da ondorioztatzen erkidego politikoen antolaketan duten eginkizun sinboliko eta instrumental hutsetik. Pertsona eta gizakien talde gehienentzat, hizkuntza norbere identitatearen funtsezko osagaia da (Patten: 313, Hogan-Brun eta Wolff: 3, O'Reilly). Osagai hori galdu, atrofiatu, bereizi edo atzeratzea trauma pertsonal eta kolektiboen eragilea da, baita gizarte-gatazken eragilea ere, zuzenean edo zeharka (Kontra: 281). Horrez gain, identitateari eta garapen pertsonalari hain estu lotuta dagoen osagaiaren tratamendua pertsonen

duintasunarekin zuzenean lotuta dago eta, horren ondorioz, baita giza eskubideen errespetuarekin ere. Hala ere, gure gizarteetan uste sendoa dago espazio politiko bera osatzen dutenek kultura eta hizkuntza ere elkarbanatu nahi dituztela. Oinarrian dagoen ustea da kultura-homogeneotasunik gabe ez dagoela erkidego politikorik. Hori dela eta, kultura-homogeneotasuna sortzea edo mantentzea erkidego politikoaren helburu bat bihurtzen da.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da zuzenbidea tresna nahiko mugatua dela hizkuntz prozesuak baldintzatzeko. Prozesu horiek, gehienbat, gizarte- eta ekonomia-kausalitateen emaitza izaten dira, eta horiei, askotan, ezin zaie bide juridikotik aurre egin (Hogan-Brun eta Wolff: 5). Bestalde, egia da antolamendu juridikoak balio sinbolikoa ere baduela eta gizarte-balioetan benetan eragiten duela, bereziki erkidegoak hizkuntza jakin bati dion begiruneari dagokionez. Modu berean, hizkuntz errealitateak, horien identitate-ondorioak, sinbolikoak edo praktikoak, oro har ez dira modu objektiboan ikusten. Dena den, Europako herrialde gehienetan hizkuntz gertakariaren inguruko arauen kopuruak (eta arau horien lerrunak) gora egin du, baita hizkuntza politiketara bideratutako bitarteko publikoen kopuruak ere. Hala ere, ardura handiago horretan joera kontraesankorrek bat egiten dute. Batetik, hizkuntz aniztasuna berez balioa dela eta eutsi egin behar zaiola uste dutenak daude. Aniztasuna, batzuetan oztopo moduan ulertuta, gaur egungo diskurtso politikoan balio positiboa da. Horrela gertatzen da nazioarteko esparruan ere, hainbat tresna garatu baitira, hala nola Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna (aurreantzean EEUHEG), Gutxiengo Nazionalak Babesteko Esparru Hitzarmena (ingeleseko FCNM akronimoaren bidez ezagutzen dena) edo ESLAren esparruan adostutako zenbait dokumentu.

Hala ere, babes honetarako motibazioak oso desberdinak dira, eta badirudi funtsezko hiru ildo nabaritzen direla. Batzuetan, dokumentu horiek erakusten dute hizkuntz edo kultur aniztasuna babestu beharreko ondare historikoa dela, eta arte- edo natura-ondare moduan har dezakegula. Beste batzuetan, azalpen politikoek azpimarratzen dute aniztasunaren babesa eta sustapena zuzenean ondorioztatzen dela gutxiengoetakoak diren pertsonen duintasuna eta, beraz, haien giza eskubideak errespetatu beharretik. Hirugarren, badirudi aniztasun maila jakin bat babestea eta aitortzea egonkortasun estrategiko edo politiko hutsa lortzera bideratutako tresna dela.

Bestalde, eta itxuraz aurrekoaren aurrez aurre, hizkuntz gertakariaren kudeaketan eta arauketan beste joera bat antzeman daiteke, hau da, estatu jakin bateko hizkuntza nagusiaren aldeko neurriak indartzea. Azken hamarkadetan, Europako herrialde gero eta gehiagok legeriak egin dituzte hizkuntza nagusiak barruan eta kanpoan duen pisua babestu edo bermatzeko. Dinamika hori gure artean maila autonomikoan errepikatu edo mimetizatzen da (kasurako, Kataluniako Estatutu berria). Baina desberdintasuna da, batzuetan, modu horretan kasuan kasuko estatuan gehiengoenak eta nagusiak diren hizkuntzak bultzatzen direla (Frantzia, Tirol), eta beste batzuetan modu objektiboan egoera ahulean dagoen hizkuntzaren babesprozesua (Eskozia) edo normalizazio-prozesua (Euskadi) bultzatu nahi dela. Eta joera ezberdin hauen aurrean biztanleria-mugimenduak oso nabarmenak dira, intentsitateari eta eraginei dagokienez.

Azken finean, migrazio-fenomenoaren ikuspegi bidezko eta eraginkorretik planteatu daitezkeen aukera ideologikoek itxuraz kontraesan batzuk ere badituzte. Badirudi gizarteratze maila egokia immigranteek harrera-gizarteko hizkuntzaren oinarrizko ezagutzak eskuratzea dela. Gizarte horretan zenbait hizkuntzek bat egiten dutenean, oro har, gizarteratzea, lehenengo fasean behintzat, hizkuntza nagusia behar den beste menperatzea dela jotzen da, eta horrek kontraesanak planteatu ditzake eremu urriko hizkuntzen arloko jarrera aurrerakoiekin. Aldi berean, migrazio-prozesuak harrera-gizarteko hizkuntz dinamika tradizionaletan eragina du, zalantzarik gabe. Migrazioak etnien arteko komunikaziorako espazioak ireki eta komunikazio-lotura berriak sortzen ditu. Espazio berri horietan, hizkuntza jakin batek arrakasta izango du. Gure gizartean dagoen diglosiaren eraginez, espazio horietan, estatuko hizkuntza da nagusi, eta are gehiago, kultura-integrazioa menperatze horrekin identifikatu ohi da. Normalean immigranteek inportatzen duten hizkuntza ez da izaten behar den besteko indartsua espazio berri horietan estatuko hizkuntza ofizialaren aurrean arrakasta izateko, baina aldi berean hizkuntza immigratuen artean liskar partzialak gerta daitezke, eta horiek sorlekuko herrialdeetan gertatu ez ziren edo leku horietan hasi ziren akulturazio-prozesuak indartzen lagundu dezakete. Batzuetan, migrazio-prozesuak ere erkidego desberdinen artean edo erkidego nagusiarekin harremanak izateko komunikazio-hizkuntza izatearen beharra sortzen du. Komunikazio-hizkuntza horrek, im-

migratutako erkidegoen artean, ez du nahitaez estatuko hizkuntza izan behar, baina gure artean argi eta garbi horrela gertatzen da. Horren guztiaren ondorioz, dinamika orokor moduan, immigranteen kolektiboek gizarteratzen diren inguruan nagusi den hizkuntza berenganatu ohi dute, hau da, gure kasuan, estatuko hizkuntza. Bi hizkuntza ofizial dituzten lurraldeetan, bata edo bestea lehenengo eskuratzea horiek benetan hizkuntza errealitatearen araberakoa eta ekonomia eta lan esparruan duten indarraren araberakoa izango da.

Bestalde, gizarte batean hizkuntza-erkidego berriak egotea gutxiengo tradizionalen aldetik bi modutara bizi daiteke: lortu nahi duten espezialitatearen edo legitimitatearen aurreko mehatxu moduan; edo estatuaren barruko esparruan eztabaida planteatzeko babesak lortzeko aukera moduan. Azken hori hizkuntz erkidego ahulenen kasuan errazago gerta daiteke. Edonola ere, etorkinen hizkuntzak hizkuntza historikoekin bat egitea ez da esparru pribatuan soilik gertatzen, eta integrazio-prozesua ere ez da eskola-esparruan soilik gertatu behar. Aitzitik, hizkuntzaren arloan, espazio publiko berria diseinatu behar da, gizarte postmodernoen hizkuntz aniztasun gero eta handiagoari aurre egiteko formula ofizial berriak barruan hartuta.

Hizkuntzak arautzea eta hizkuntza-politikak diseinatzea erronka konplexua da. Konplexua da, batzuetan, hartutako politikek ez dituztelako itxarondako emaitzak sortzen. Eta, baita ere, giza eskubideen eta gizarte demokratikoetako oinarrizko printzipioen errespetuaren esparruan gauzatu behar direlako. Horren ondorioz, zer lotura ezar daitezke herritar zahar eta berrien artean eta hizkuntza immigratuen eta eremu urriko hizkuntza autoktonoaren artean? Gaia bi ikuspuntutatik planteatu dezakegu. Lehenengoa, jatorrizko hizkuntzaren, kasu honetan euskararen, ikuspuntutik, eta etorkinek hizkuntz errealitate horren inguruan duten «integrazioaren» ikuspuntutik. Bigarrena, etorkinek gure gizartera gehitzen dituzten hizkuntzen ikuspuntutik. Jarraian, bi ikuspegi horiek jorratuko ditut, bata bestearen atzetik.

3. **Jatorrizko hizkuntzaren ikuspuntutik**

Indarreko Nazioarteko Zuzenbidearen analisi oso orokorrean, estatuak haien lurraldean modu ofizialean erabiliko den edo diren hizkuntza edo

hizkuntzak zehazteko erabat subiranoak direla ondorioztatu dezakegu. Egia da estatu bakoitzaren itxurazko askatasun hori ez dela absolutua, giza eskubideen ikuspegitik egindako analisian zenbait muga aitortu beharko lirateke eta[5]. Hala ere, oinarriko onarpen moduan, sistemak premisa horren arabera funtzionatzen du. Alabaina, autonomia-erkidegoen moduko entitateek ez dute subiranotasunik eta, beraz, ez dira askeak hizkuntza ofizialak hautatzeko. Are gehiago, Espainiaren kasuan, Konstituzioak «Espainiako gainerako hizkuntzak» ofizialtzat aitortzeko betebeharra ezarri du, nahiz eta manu hori beti ez bete (hala nola Asturiasen, Leónen, Aragoin, Murtzian eta Extremaduran). EAEri dagokionez, dakigunez, gaztelaniak eta euskarak ofizialtasun-estatutua dute, teorikoki, baldintza berberetan.

Euskadiko immigrazioari dagokionez, lehenengo kontua da zehaztea ea estatuak nola edo hala ezar dezakeen estatuaren lurraldean bizi diren atzerritarrek hizkuntza ofiziala ezagutu behar dutela. Erantzuna ezezkoa izan behar da nahitaez. Beste kontu bat da ea hizkuntza ofiziala ezagutzea ezar daitekeen atzerriko pertsona batek Espainiako naziotasun juridikoa lortu nahi duenean. Puntu horretan ez dago arauketa zehatzik, izan ere, naziotasuna lortzeko, interesdunak «Espainiako gizartean behar beste integratuta dagoela» soilik frogatu behar du[6]. Zernahi gisaz, manu horren inguruan egiten ari diren aplikazioan, gaztelania ezagutzea bertakotzea lortzeko ezinbesteko betekizuna da. Hala ondorioztatzen da baita ere arlo horretako jurisprudentziatik.

Baina kasuan kasuko hizkuntza koofizialari dagokionez, printzipioz ezin da ezer egin nolabaiteko ezagutza eskatzeko atzerritarren zein bertakotuen kasuan. Ildo horretatik, batetik, Konstituzioan espainiar guztiek gaztelania ezagutzeko eginbeharra dutela ezarri da. Hori manu ezohikoa da Europako Konstituzio Zuzenbide konparatuan. Eginbehar hori ez da hizkuntza koofizialen inguruan aldarrikatzen (Kataluniako Estatutuan 2006an

---

[5] Ikusi Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordea: Diergaardt versus Namibia kasua (760/1997 zk.ko komunikazioa), 2000ko irailaren 6ko erabakia. Giza Eskubideen Europako Auzitegia, Zipre versus Turkia kasua, 2001eko maiatzaren 10eko epaia.

[6] Kode Zibilaren 22.4 artikulua.

egin zen aldaketan izan ezik). Bestetik, bertakotzeko hizkuntza jakin bat ezagutzea eskatuko balitz, gaztelania ezagutzeko eginbeharra dagoenez, inori ezin zaio bertakotzea ukatu hizkuntza autonomiko koofiziala ezagutzen ez duelako.

Modu horretan, autonomia-erkidego elebidunek berezko hizkuntzaren ikaskuntza hezkuntza-sistemaren bidez bakarrik egin dezakete (horren bidez nolabaiteko ezagutza maila ezar dezakete), eta beste arlo batzuetan ikaskuntza sustatzearen bidez, baina ezin dute hizkuntza horren ezagutza eskatu, lanpostu jakin batzuetarako izan ezik, betiere, lanpostu horietan lan egiteko kasuan kasuko hizkuntza jakitea ezinbestekoa bada.

Horrenbestez, batetik, ez dago oinarri juridikorik etorkinekin hizkuntz asimilazio politika gauzatu ahal izateko. Bestetik, EAEren kasuan eta antzekoetan, estrategia hori ez litzateke oso eraginkorra izango. Egia da estaturik gabeko beste nazio batzuetan, hala nola Quebecen eta Katalunian, berezko hizkuntzarekiko asimilazioa agintarien helburua dela argi eta garbi eta, batez ere lehenengo kasuan, agintariek arrakasta handiak lortu dituztela horren inguruan. Baina Quebeceko eta Euskadiko egoera juridikoa ez da bera, eta Kataluniako eta Euskadiko egoera soziolinguistikoek ere ez dute antz handirik. Berezko hizkuntzaren gizarte-indarra bermatu ezin bada, oraintsuko immigrazio-prozesuan hizkuntz asimilazioko politika indartsuak erabateko bazterketa eragin dezake etorkinen aldetik eta bertako atal handi baten aldetik. Hizkuntza ahularen testuinguruan, gizarte-ospea beti ez da handia izaten eta gizarte-sektore berrietara garatzeko aukerak urriak izaten dira, eta beraz, estrategia hori kalterako izan daiteke. Benetan lortu ahal diren emaitza positiboak urriak izango lirateke, eta balizko gizarte- eta politika-kontraindikazioak sakonegiak eta iraunkorrak. Ildo horretatik, bidegabea da estatuko eskemak edo aipatutako erkidegoen eskemen antzekoak kopiatzea. Han funtzionatzen duenak gure kasuan ez du nahitaez funtzionatuko, eta beraz, ez da etorkizuneko estrategia ona berezko hizkuntzaren gizarte-osasunerako.

Egia esan, estrategia alternatiboa ere ez da erraza. Kulturalizazio-tresna handia, zalantzarik gabe, hezkuntza-sistema da, baina horrek muga argiak ditu gure artean. Batetik, immigranteek euskarazko hezkuntza-ereduetara

eraman beharko lituzkete euren seme-alabak. Bestetik, immigrantearekin komunikatzeko hizkuntza gaztelania ez denean, euskaran murgiltzea askoz zailagoa da (Barquin eta Ruiz-Bikandi, 2008), eta euskal eskola ez dago horretarako egoerarik onenean, gehienbat gaztelaniazko gizarte-inguruan kokatzen baita.

Etorkinen artean euskara hedatzeko aukerak oinarri izan behar duen bigarren ardatz estrategikoa gizarte-onura da. Hala ere, euskarak gizarte-aitorpen handiagoa eta gora egiteko aukera gehiago eman ditzakeela dioen usteak itxaron egin beharko du. Immigrazioaren lehen belaunaldian ez da errotuko, ezta immigrazioa lurralde ez-euskaldunean ezartzen denean ere (Aierdi, 139). Aitzitik, aurrera egin ahal izango du pertsona euskaldunekin zuzeneko lotura afektibo eta pertsonalak oinarri dituenean, eta bigarren belaunaldietatik aurrera. Ondore horretarako, abantailarik handiena da bertako biztanleek eta etorkinek ere uste dutela emigratzen duenak jomugako hizkuntza ikasi behar duela. Hala ere, gure gizartean eta antzekoetan, arriskua da jomugako hizkuntza gaztelaniarekin soilik identifikatzea, eta etorkinen artean euskarak duen hedapena benetan urria izatea, betiere, erakundeek eta gizarte osoak hizkuntza erakargarri bihurtzen ez badute irauteko asmoarekin datozen herritar berrientzat. Edozelan ere, gai horren inguruan optimista izatea ez da erraza, betiere, espazio geografiko jakin batzuk ia-ia erabat euskaldun moduan mantentzen ez badira, kasu horretan, gizarteratzeko bertako hizkuntza ikasi beharko litzateke eta. Bestela, gutxieneko «hizkuntz ekosistema» hori higatzen bada, etorkinek eremu urriko hizkuntza ikastea oso zaila izango da, aurkako ondorioa lor dezaketen bitarteko juridikorik ez badago.

Edonola ere, etorkinek euskararekiko duten hurbilketa euskal gizarteak eta erakundeek bertako hizkuntzen eta kulturen aurrean duten harmenaren paraleloa eta elkarrekikoa izango da. Ildo horretatik, espazioak hizkuntza immigratuetara irekitzea ez da justiziarekin eta giza eskubideak errespetatzearekin lotutako kontua bakarrik, kontu estrategikoa ere bada. Eremu urriko hizkuntzaren kasuan, estrategia juridiko hutsek eta ezarpen-estrategiek ziurrenik porrot egingo dute. Nahitaez ulertarazi behar da erkidego politiko berezi honetako kidea izatea etorkinentzat errentagarria dela, baita kulturaren esparruan ere.

4. **Etorkinen hizkuntzen ikuspuntutik**

Etorkinen hizkuntzen ikuspuntutik, lehenengo eta behin, kontuan hartu behar da hizkuntza horien egoera guztiz desberdina izan daitekeela. Batzuk estatuko edo nazioarteko hizkuntza indartsuak izan daitezke, hiztunen kopuru handiarekin (arabiera, txinera, errumaniera…), eta beste batzuk eremu urriko hizkuntzak, ofizialtasun-estatuturik gabe edo garatzeko zailtasunekin, baita sorterrian ere (kurduera, berberera, kitxua, aimara…). Baina, edozein kasutan, beharrezkoa da horiek guztiak ere, nolabait, euskal gizarteko hizkuntzak direla onartzea eta premisa hori abiapuntu hartuta lan egitea (Uranga, Aierdi et al.).

Puntu honetan bi eztabaida desberdin planteatzen zaizkigu. Lehenengo eta behin, ea gure artean bizi diren etorkinek, bertakotuek zein ez, berezko hizkuntza-eskubiderik duten. Bigarren, nola kudeatu modurik egokienean euskal gizartean gero eta handiagoa den hizkuntza-aniztasun.

4.1. **Etorkinak eta hizkuntz eskubideak**

Lehenengo gaiari dagokionez, nire premisa da ezin dela giza eskubideen benetako esparrua eraiki pertsonen hizkuntz identitatea gehitu gabe. Hemen giza eskubide linguistiko izenekoak jokoan sartzen dira, baina kategoria bera zalantzan jarri daiteke eta horren inguruan zenbait gogoeta teoriko egin daitezke. Batez ere, hizkuntz eskubideei buruz hitz egiterakoan giza eskubideen bloke bereizi moduan har ditzakegun planteatzen dugu. Hizkuntz eskubide deitzen ditugunak, egiatan, eskubide zibilen oinarrizko edukiaren hizkuntz adierazpenak dira. Hala gertatzen da, adibidez, adierazpen-askatasunarekin, adierazitako edukia barnean hartzeaz gain, eduki hori adierazteko erabilitako hizkuntza ere barnean hartzen baita, hizkuntza hori edozein izanda ere[7]. Hizkuntz edukia aurki dezakegu baita ere hurrengo hauen kasuan: norberaren izena izateko eskubidea, bizitza pribaturako eta

[7] Ikusi Ballantyne, Davidson and McIntyre vs. Kanada kasua, 359/1989 eta 385/1989 zk.ko komunikazioak. Nazio Batuen CCPR/C/47/D/385/1989 agiria, 1993ko maiatzaren 5ekoa.

familia-bizitzarako eskubidea, komunikazio-askatasuna, elkartzeko askatasuna, irakaskuntza-askatasuna edo prozesuko gutxieneko bermeak. Kasu horietan guztietan ez da bidezkoa hizkuntz eskubide substantiboei buruz hitz egitea, eskubide zibilen hizkuntz edukiei buruz baino. Egia esan, horiez gozatzeko ez da eremu urriko hizkuntza baten hiztuna izan behar, eta atzerritartasun-izaerak ez du pisu handirik izan behar, eskubide unibertsalak dira eta.

Zernahi gisaz, arlo pribatutik publikora igarotzen garenean eta aginte publikoei hizkuntza jakin batekin jarrera aktiboa izatea eskatzen diegunean, argumentazioa are konplexuagoa da. Hemen bi bide daude oinarrian. Edo inplikazio publikoa zuzenbideak nola edo hala aitortutako (hizkuntza ofizial edo babestu moduan) zenbait hizkuntzari dagokionez soilik gerta daitekeela ulertzea; edo inplikazio publikoa gizarte eta une bakoitzeko gizarte eta hizkuntz inguruabarren araberakoa dela ulertzea. Kasu horretan, agintari publikoek hizkuntzaren ondoriozko bereizkeriarik eza ekintza positiboetan ere aplikatu beharko lukete, proportzionaltasun-printzipioak eta justifikazio-printzipio objektibo eta arrazoizkoak errespetatuz. Bigarren aukera hori gizarte jakin batean dauden hizkuntza guztietara irekita egongo litzateke, eta ez litzateke egongo gehiengoaren erabaki arbitrarioen menpe. «Arrazoizko erosotasunaren» ideia (Kanadan «Reasonable Accomodation» izeneko kontzeptua askotan erabiltzen da aniztasunaren kudeaketan) hizkuntz esparruan aplikatzea izango litzateke. Ideia horren bidez, bereizkeriak saihestu nahi dira hizkuntz taldeen artean, une bakoitzean aginte publikoentzat arrazoizkoa izan daitekeen horren arabera. Argi dago gaur egun lehenengo aukeratik bigarrenetik baino askoz hurbilago gaudela.

Nazioartean etorkinen hizkuntz eskubideei buruz hitz egiten duten dokumentuak urriak dira. Europan, hizkuntz gaien inguruko ardura duen tresna juridiko nagusia EEUHEG da. Testuaren lehenengo artikuluan «etorkinen hizkuntzak» aplikazio-esparrutik kanpo uzten dira. Bestalde, FCNMk ez du bereizketarik ezarri atzerritarrei dagokienez, baina estatuen praktikatik eta horietako batzuen adierazpenetatik ondorioztatu daiteke etorkinek osatutako erkidegoetan arau hori ez dutela aplikatzeko modukotzat jotzen. Ildo beretik, Europako Kontseiluko Parlamentu Biltzarraren 1201. Gomendio-

an[8] kasuan kasuko estatuko herritartasuna eskatzen da gutxiengo bat naziokotzat hartu ahal izateko. Baina EEUHEGren zein FCNMren interpretazioa eztabaidatu daitezke, eta izatez, Esparru Hitzarmenaren Aholku Batzordeak horren inguruko zenbait artikulu aplikatzen dizkie izaera erregularreko etorkinei. Europako Kontseiluaren esparruan jarraituz, Langile Migratzaileen Legezko Estatutuari buruzko Hitzarmenean[9] hizkuntz gaiak 14. eta 15. artikuluetan soilik aipatzen dira. Ildo horretatik, esanguratsua da ama-hizkuntzaren irakaskuntza jatorrizko herrialdera itzultzera bideratuta egotea[10]. Hitzarmen berean etorkinei harrera-gizarteko hizkuntzaren ikaskuntza errazteko betebeharra jaso da.

Nazio Batuen esparruari dagokionez, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak ez du hizkuntzaren gaia gehitu, bereizkeria eragozten duen faktore moduan ez bada. Hala ere, bizi diren herrialdeko naziokoak ez diren gizabanakoen eskubideei buruzko adierazpenaren[11] 5. artikuluan jaso da «haien hizkuntza, kultura eta tradizioak gordetzeko» eskubidea dutela. Era berean, Langile Migratzaile guztien eta horien familiakoen eskubideak babesteari buruzko Hitzarmenean[12] ia-ia ez da hizkuntza- edo kultura-erreferentziarik gehitu. Hezkuntza-eskubideaz gain, 31. artikuluan estatuek langile migratzaileen eta horien familiakoen kultur identitatea errespetatzen dela zaintzeko betebeharra dutela ezarri da. Bestalde, hitzarmen hori Europa mendebaldeko estatuek ez dute berretsi. Era berean, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 27. artikuluan ezarri da eremu urriko hizkuntzen hiztunek haien hizkuntza erabiltzeko eskubidea dutela. Artikuluan eremu urriko hizkuntzen hiztunak aipatzen diren arren, Giza Eskubideen Batzordeak ezarri du atzerritarrek artikulu honetan ezarritako eskubi-

---

[8] Parlamentu Biltzarraren 1201. Gomendioa (1993) Giza Eskubideei buruzko Europako Hitzarmenari, gutxiengoen eskubideei buruz egindako protokolo gehigarri baten inguruan.

[9] Europako Kontseiluaren 93. zk.ko Hitzarmena, 1977ko azaroaren 24koa.

[10] *The Contracting Parties concerned shall take actions by common accord to arrange, so far as practicable, for the migrant worker's children, special courses for the teaching of the migrant worker's mother tongue, to facilitate, inter alia, their return to their State of origin* (Hitzarmenaren 15. artikulua).

[11] Batzar Nagusiak hartua 1985eko abenduaren 13ko 40/144 ebazpenean.

[12] Batzar Nagusiak hartua 1990eko abenduaren 18ko 45/158 ebazpenean.

deetatik onurak lor ditzaketela[13]. Modu berean, Haurraren eskubideei buruzko Konbentzioaren 30. artikuluak[14] aurreko testuaren antzekoa du.

Azken finean, ondorio moduan esan dezakegu zenbait hizkuntza-ahalmen daudela eta atzerritarrek horietaz goza dezaketela oinarrizko giza eskubideen atala direlako eta Konstituziora edo nazioarteko itunetara bilduta daudelako. Bigarren, badirudi hizkuntz babesaren esparru desberdina dagoela eremu urriko hizkuntza bateko hiztuna izatetik eratorritako eskubideak kontuan hartzen ditugunean. Giza Eskubideen Batzordeak adierazi du norbere hizkuntza erabiltzeko eskubidea aitortuta ohiko eskubide zibiletara bildutako edukiaz bestelakoa adierazten dela. Horrez gain, eduki hori dela bide, estatuak neurri positiboak hartzen ditu hizkuntza horietako hiztunen eskubideak babesteko. Hortik aurrera egin beharreko lan teorikoak bi dira. Lehenengoa atzerritarrek gutxiengo linguistikoei dagozkien eskubideez gozatzeko legitimaziorik duten arakatzea da. Bigarrena gutxiengoen eskubide horietara bildutako babes-esparrua zein den identifikatzea da, estatuak horri erantzuna eman beharko baitio nazioarteko legeria betez.

Nazioarteko arauetan hizkuntza-gutxiengoaren definizio juridikorik ez dagoenez, praktikan edozein talde linguistikok estatu jakin batean gutxiengoaren izaera duela eta bere hizkuntza erabiltzeko eskubidea duela alegatu dezake. Ildo horretatik, Europako Kontseiluko Parlamentu Biltzarraren 1492 Gomendioak (2001), Gutxiengo Nazionalen Eskubideei buruzkoak, hurrengoa ezarri du 11. paragrafoan:

> *«The Assembly recognises that immigrant populations whose members are citizens of the state in which they reside constitute special categories of minorities, and recommends that a specific Council of Europe instrument should be applied to them»*

Baina hizkuntz gutxiengoei mesede egiten dieten eskubideak herrialde batean hitz egiten den edozein hizkuntzari aplikatu ahal bazaizkio, desa-

---

[13] Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordea, 23. zenbakiko Iruzkin Orokorra (50), Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 27. artikuluari buruz, 1994ko apirilaren 6an (CCPR/C/21/Rev. 1/Add. 5 dok.), 5.2 eta 5.3 paragrafoak.

[14] Batzar Nagusiak hartua 44/25 Ebazpenean, 1989ko azaroaren 20an.

gertu egingo litzateke eskubide zibiletatik eratorritako oinarrizko estatutuaren eta erkidego minoritario bateko kide izatetik sortutakoaren arteko bereizketa.

Ikuspuntu juridikotik, gaia oso zaila da, eta politikoki oso delikatua. A priori, badirudi jendeak oro har uste duela herrialde batean tradizioz hitz egiten diren hizkuntzek babes-estatutua merezi dutela, eta estatutu hori ez dela oraintsuko migrazio-prozesuen ondorioz hitz egiten diren hizkuntzena. Hala ere, zuzenbidearen arloan batzuen eta besteen arteko bereizketa egitea istilutsua dela. Gutxiengoak definitzerakoan, ondore horretarako tradizioz bi irizpide erabili izan dira. Lehenengoaren arabera, gutxiengoko kideei naziokoen izaera eskatzen zaie eta, beraz, atzerritarrak, batez ere etorkinak, kategoria horretatik kanpo geratuko lirateke. Nolanahi den ere, konponbide hori partziala eta ezegonkorra da, gero eta etorkizun gehiagok lor dezaketelako Europako estatuetako naziotasun juridikoa hizkuntz identitatea galdu gabe. Naziotasun juridikoaren irizpidea etorkizunean ez da baliagarria hizkuntz gutxiengo «tradizionalak» eta oraintsu ezarritakoak bereizteko.

Bestalde, gutxiengo tradizionala eta horrelakoa ez den bat bereizteko denborazkotasunaren irizpidea erabiltzea ere ez da guztiz baliozkoa epe luzera. Hizkuntza batek noiz uzten dio immigratu izateari? Edo, zein da hizkuntz gutxiengo jakin baten bizi-luzetasuna zenbatzen hasteko abiapuntua? Esan dudanez, EEUHEGren lehenengo artikuluan etorkinen hizkuntzak alde batera uzten dira, baina hizkuntza horiek ez dira Gutunean esanbidez zehaztu. Bestalde, hori gorabehera, etorkinen talde batzuek EEUHEGren babesetik onurak lortzen dituzte haiek hitz egiten duten hizkuntza herrialdean aurretik ere bazegoen[15], eta hori, adibidez, arabiarraren edo portugesaren kasuan aplikatu daiteke Espainian. Hori hizkuntza-erkidego berrien artean bereizkeria moduan uler daiteke. Amaitzeko, Gutunaren filosofia emandako ondarea zaintzearen aldekoa da eta kanpoan uzteak esparru horretan esangura izan dezake, baina FCNM giza eskubideetan gehiago justifikatzen da eta, beraz, logikoa da herritar berriengana hedatzea.

---

[15] Horren adibiderik argiena errusiera da Finlandian, hiztunen kopuruak gora egin baitu nabarmen azken urteetan: European Charter for Regional or Minority Languages's Committee of Experts, *Application of the Chater in Finland*, EEUHEG (2001)3 dok., 2001eko irailaren 20a, 14. or.

Zailtasun horren aurrean, nire ustez, hizkuntz gutxiengoa edo gutxiengo nazionala zer den zehaztasun juridikoarekin definitzen da, edo kontzeptu hori estatu jakin baten barruan kopuruei dagokienez hizkuntza gutxiengo egoeran duen erkidego guztietara hedatzen da. Pragmatismoaren arabera, bigarren aukeraren alde egin behar da lehenbailehen. Horrekin batera, nire ustez, gaur egungo interpretazioan ofizialtasun kontzeptua berriz orientatu behar da, edo bertan behera utzi, gure inguruan nagusi den gizartearen eredu eleaniztunerako zurrunegia baita.

Horrenbestez, hizkuntz gutxiengoaren edo eremu urriko hizkuntzaren kontzeptu objektiboa defendatu behar da. Hizkuntza hori egotea egitezko gai moduan hartu behar da, eta kasuan kasuko estatuaren aitorpenak ez du baldintzatzen[16]. Izatez, printzipio hori du oinarri EEUHEGk ere, horren 7. artikulua estatu kide batean hitz egiten diren hizkuntza guztietan aplikatu daiteke-eta, estatuak aitortuta baditu zein ez. Eremu urriko hizkuntzen barruan, berezko hizkuntz gutxiengoak eta tradizioz estatuko edo Europako hizkuntz ondarekoak ez direnak bereiziko genituzke. Baina, era berean, gure ustez eskema hori legitimoa da Europako hizkuntz ondarearen kontzeptua modu dinamiko eta aurrerakorrean ulertzen den neurrian (May 2003: 149). Europako gizarte eleaniztunetara gehitzen diren hizkuntzek, albait arinen, estatuko edo Europako esparru erkidean sartzeko aukera izan behar dute (Grin 2003: 185). Horrek ez luke ekarri beharko kontinenteko hizkuntza tradizionalak ahultzea, baina era berean, badirudi ez dela legitimoa hainbat herrialdetan arlo juridikoan ere apurka-apurka ezartzen ari diren hizkuntza-erkidegoei eskubide gehiago ukatzea. Behin hori gertatuta, adibidez, ez da posible izango FCNMren 10., 11. eta 14. artikuluetan ezarritako gutxiengo horien hizkuntz eskubideak ukatzea hiztunen kopuru esanguratsua dagoenean. Hori aitortzen hasi da FCNMren Aholku Batzordea ere zenbait kasutan. Edonola ere, berdintasun-printzipioaren arabera, hiztunen eskubideak asetzeko eremu urriko hizkuntzen mesedetan aplikatuko litzatekeen estatutu hori dela bide, estatuak neurri positiboak hartu behar ditu, eta hori ez da betetzen erakunde publikoen abstentzio hutsarekin (May 2003: 225; Henrard 2000: 47)[17].

---

[16] Giza Eskubideen Batzordea... *aip.*, 5.2 paragrafoa.

[17] *Ibid.*, 6.1, 6.2 eta 9. paragrafoak.

Azken finean, posiblea edo legitimoa da Europan tradizioz hitz egiten diren hizkuntzei zor zaien babesaren eta ondoz ondoko migrazio-mugimenduetan inportatu direnen artean muga ezartzea? Aukera bat eremu urriko hizkuntza tradizionalak ofizializatzea da, nazioko hizkuntzekin parekatze juridiko osoa izan dezaten, baina normalean, estatuetako hizkuntz gehiengoak jarrera hori baztertu egiten du, eta Europar Batasuneko hizkuntz politika instituzionala horren adibide ona da. Beste aukera bat da hizkuntza eta erlijioa apurka-apurka parekatzea espazio publikoan duten agerpenari aurre egiteko moduari dagokionez. Hau da, erkidego politiko jakin batek modu ireki eta demokratikoan kudeatuko luke bere barruko hizkuntz aniztasuna, alboratu ezin den errealitate faktiko moduan bereganatuta. Errealitate horretan faktore askok bat egiten dute, hala nola hizkuntza bakoitzeko hiztun kopuruak eta horien pilaketa geografikoaren mailak, baina baita hizkuntzak izaera historikoa duen edo ez eta eremu urriko hizkuntza den edo ez. Aginte publikoek faktore horiek guztiak kontuan hartu beharko lituzkete horien hizkuntz gaurkotzea diseinatzerakoan.

Nire ustez, pertsona guztiek, haien naziotasuna gorabehera, giza eskubideak haien hizkuntzan egikaritzeko aukera izan behar dute, eta horretarako, estatuek arrazoizko neurriak hartu behar dituzte, egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta eta tradizioz edo oraintsu ahuldutako erkidegoen mesedetan beti. Adibidez, Gutxiengo Nazionalen Hizkuntza Eskubideei buruzko Osloko Gomendioetan[18] ezarritako hizkuntz eskubideak estatu bateko hizkuntz talde guztietara hedatu daitezke, lurraldeari edo zenbatekoei lotutako baldintzek horretarako aukera ematen badute. Horrez gain, modulazioari lotutako baldintza horiek Europako hizkuntza tradizionaletan ere aplikatu daitezke, eta horren erakusgarri ona EEUHEG da.

Gorago adierazi dugunez, hizkuntz dinamikak berriz bideratzeko tresna giltzarria hezkuntza-sistema da, eta hala ere, horri ezin diogu egotzi prozesu horietan eragina izateko erantzukizun osoa. Horren abantaila bat da hezkuntza-eskubidea titulartasun unibertsaleko eskubide moduan aitortuta dagoela, eta horregatik, etorkin gazteek hezkuntzarako sarbidea ez dute murriztuta izaten normalean. Baina indarreko tresna juridikoek ez dute berma-

[18] 1998an hartu zituen Oslon bildutako adituen talde batek, ESLAko Gutxiengo Nazionaletarako goi-komisarioaren babesean.

tzen oinarrizko hezkuntzaren atal bat ama-hizkuntzan edo norbere hizkuntzan jasotzeko eskubidea. Aukera horrek osasuntsua dirudi prestakuntza-garapen egokirako eta talde bakoitzaren hizkuntz ondarea errespetatzeko. Askotan, hezkuntza-eskubidearen hizkuntza-proiekzio hori, ikasle horien integrazio-argudioak eta etorkizuneko aukerak sustatzea oinarri hartuta ukatu izan da. Baina, oro har, emaitzak eskola-porrot handiagoa edo erabat edo modu partzialean bereganatzea izan dira. Hori saihesteko eta integrazio-arrakasta handiagoa bermatzeko, estatua arrazoizko eta behar den besteko bitartekoak ematen ahalegindu behar da gutxieneko neurria eta pilaketak lortzen dituzten hizkuntz erkidegoek oinarrizko heziketaren atal bat ama-hizkuntzan (hizkuntza ofizialaz gain) jaso ahal izateko, filosofia batukorra erabiliz eta ez kentzailea (Skutnabb-Kangas: 6).

Hezkuntzaren arloan bereizkeriak egitearen aurkako borrokari buruzko Konbentzioaren[19] 2. artikuluan esanbidez ezarri da erlijio edo hizkuntz arrazoien ondorioz hezkuntza-sistema bereiziak sortu edo ezartzea ez dela bereizkeriazkoa, legezko gurasoen edo tutoreen nahien araberako hezkuntza ematen badute, betiere, sistema horietan parte hartzea aukerakoa bada. Horren ondorioz, hezkuntza-sistemak haurren heziketa-hizkuntzaren arabera osorik edo modu partzialean banatzea, horien hezkuntza-garapena, autoestimua eta gaitasunak errazteko, ez da bereizkeria-tresna, ezta integrazioaren aurkakoa ere, guztiz kontrakoa baino.

Euskal hezkuntza-sistemaren kasuan, proposamena ez litzateke erabateko bereizketa izango, bereizketa partziala baino, eta horrek ikuspegi batukorra ahalbidetu beharko luke (Siguán: 119). Baldintza idealetan, hizkuntz talde alogenoetako ikasleek, naziotasuna gorabehera, erraztasun publikoak izan beharko lituzkete oinarrizko hezkuntza lehen hizkuntzan jasotzeko, hizkuntza ofizialen inguruko eta hizkuntza ofizialetan egindako ikaskuntza egokiarekin konbinatuta hezitzaile elebidunen bidez. Adingabeak zenbait adinetan eta egoeratan ukitzen dituen immigrazio-fenomenotik eratorritako arazo praktikoak nabarmenak dira, baina hemen, garrrantzitsuena epe luzera arrazoizkoa eta arrakastatsua den sistema diseinatzeko erabiltzen den filosofia da. Horrek, zalantzarik gabe, eratzen diren hizkuntza-gutxiengoetako

[19] UNESCOren Konferentzia Orokorrak hartua 1960ko abenduaren 14an.

trebatzaileak prestatzea, atzerriko titulazioak azkar homologatzea, beste herrialde batzuekin edo kultur entitateekin material egokiak egiteko akordioak ezartzea, etab. eskatzen du. Hori guztia konplexua izateak ez du esan nahi guztiz baztertu behar denik asimilazio hutseko politikaren mesedetan. Ikastetxean hizkuntza-aukerak zabaltzeak izan dezakeen kostua inbertsioa da etorkizuneko beste kostu batzuei, gizartearen potentzialtasun handiagoari eta gizarteratze irmoagoari begira.

Logikoa den moduan, diseinu horrek aukera, arrazoizkotasun eta proportzionaltasun irizpideak bete behar ditu, baina edonola ere, oso esanguratsua da horren inguruko filosofia publikoa aniztasunaren kudeaketa izatea, gizarteratzeko osagai positibo moduan. Hezkuntzaren esparruan, adibidez, gutxiengo guztientzat, gutxiengo nazionalen hezkuntza-eskubideei buruzko Hagako Gomendioen edukia praktikan ipintzen ahalegintzen dira[20]. Ikuspegi horren oinarrian bereizkeriarik ez egiteko ideia dago, eta ez talde immigranteei eskubide zehatzak aitortzea. Modu horretan, hezkuntzaren arloan, hezkuntzaren esparruan bereizkeriarik ez egiteko UNESCOren hitzarmenaren 3. artikuluaren arabera, estatuek «haien lurraldean bizi diren atzerritarrei hezkuntzarako sarbidea eman behar diete naziokoen *baldintza berberetan*» (etzana gurea da). Gure ustez, baldintza horiek eskubidearen funtsezko edukiari buruzkoak izan behar dira, eta horrek, zalantzarik gabe, hizkuntzan eta ikasleen hizkuntz gaitasunean du eragina[21].

Filosofia kulturanizkun hori espazio publiko osora hedatu behar da, baina horrek ez du esan nahi berezko hizkuntz normalizazioko prozesua gelditu edo murriztu behar denik. Aitzitik, hemen proposatzen den filosofia batukorra prozesu globalaren atala da, eta gizarte-kohesio handiagoa bilatzen du. Horretarako, hiritar berriek ikusi behar dute aniztasunaren errespetoa eta euren kultura eta hizkuntzen sustapena gizarte honetan inguruko bete ba-

---

[20] Hagan bildutako adituen talde batek 1996ko urrian hartu zituen, ESLAko Gutxiengo Nazionalen goi-komisarioaren babespean.

[21] Hizkuntzak hezkuntza-eskubidearen funtsezko edukian duen garrantziaren ingurukoa da baita ere Konstituzio Auzitegiak Kataluniako Hizkuntza Normalizazioaren Legeari buruz abenduaren 23an emandako 337/1994 Epaia, 11. oinarri juridikoa. Ikusi, era berean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epaia, Zipre versus Turkia kasua, 2001eko maiatzaren 10ekoa, 275-280. paragrafoak.

tzuetan baino aitorpen handiagoa duela. Hori dela eta, proposatzen den eskemak gaur egun dagoen logika instituzionala apurtzen du. Logika honetan, batetik, immigranteentzat giza eskubideen oinarrizko kultura-alderdiak ukatzen dira. Bestetik, espazio publikoa arautzerakoan ez zaie herritar berrien izaera aitortzen. Gure kasu berezian, immigranteen taldeak eraginkortasun handiagoarekin integratu nahi dira, hain zuzen ere, aniztasunera gehiago irekita. Ikuspegi ireki horretatik etorkinen kultura-taldeak euskal kultura-munduan integratzea bultzatu daiteke.

Azken finean, ezin da ahaztu asimilazioarekin ez dagoela integrazio efektiborik; aitzitik, gizarte-parametro berriak eraikitzen dira. Erkidego politikoekin zuzenean lotutako identitateak egotea gero eta arraroagoa da, azken horiek bilakatu egiten direlako eta erkidego politikoek haien arteko loturak abiadura handian ezartzen dituztelako, elkarren aurka ez dauden identitate konplexu asko sortuz. Estatu guztiek (eta autonomia-erkidego guztiek) erronka horri erantzuteko betebeharra dute, hizkuntza guztien bidezkotasun teorikoa eta balioa berdinak direla ulertuta.

4.2. **Hizkuntz aniztasunaren kudeaketa**

Ideia horiek guztiek planteatutako bigarren eztabaidara garamatzate, gure artean hizkuntz erkidego berriak sendotzean. Aurkeztu ditugun ideiak oinarri hartuta, hizkuntz aniztasunaren kudeaketa irekiagoa eta integratzaileagoa egiteko ideiak planteatu behar dira. Puntu honetan, oinarriko ideia da hizkuntzek ez dutela estatuaren menpe edo zerbitzura egon behar; tresna publikoak hizkuntzen zerbitzura egon behar du, edo hobeto esanda, hizkuntz erkidegoen zerbitzura (Junyent: 237).

Azpimarratzekoa da gure gizarteko hizkuntz aniztasun gero eta handiagoa modu demokratikoan kudeatzeko eraz ari garela, aniztasun hori eragin duen fenomenoa gorabehera. Hori dela bide, gai hau immigrazio-politiketatik bereizi behar da, eta beste hizkuntza batzuetako hiztunak herritar berri moduan hartu behar dira. Azken horretara behartzen du Immigrazioari buruzko Euskal Planak ere. Horrenbestez, funtsezkoa da aniztasuna kudeatzeko politika zehatza diseinatzea, kasu honetan hizkuntzaren esparruan.

Ildo beretik, komeni da gehiengoaren gizarte-hautematetik ezabatzea gizarte-kohesioa identitate-osagai erkide batzuen araberakoa dela dioen ideia. Gizarte-harmonia ez da biztanleen kultura-uniformetasunaren araberakoa, biztanleen elkarrekiko aitorpenaren eta errespetuaren araberakoa baino, hau da, esparru zabalean elkarbanatzen diren balioak ezartzearen araberakoa. Aitzitik, kulturaren eta hizkuntzaren aldetik uniformeak diren eta gizarte-kohesioko arazo larriak dituzten gizarte asko daude. Gizarte demokratiko aurreratuentzat, pertsona guztiek haien identitatearen bidez, eta ez identitatea gorabehera, giza eskubideez segurtasunez gozatzea egonkortasun eta legitimitate faktorea da. Ildo horretatik, euskararen kokapen instituzional pribilegiatua errazago legitimatu daiteke gizartean dauden gainerako hizkuntzek adierazpenerako eta aitorpen publikorako bide egokiak aurkitzen dituztenean. Nazio estatuen eskema klasikoak errepikatzea eta hizkuntza-ikuspegi publikoa bi hizkuntza ofizial egoteari ixtea aukera politiko okerra da, ikuspegi demokratikotik zein estrategikotik, egoerarik makurrenean dagoen hizkuntza ofizialaren etorkizunari aurre egiteko.

Esparru hori zehatzago azaltzeko, bere garaian formulatu genuen hizkuntza-irekitzerako proposamenera joko dugu (Ruiz Vieytez, 2008a). Apurka-apurka har daitezkeen neurriak aurkeztuko ditugu jarraian. Behin eta berriro esan dugun moduan, garrantzitsuena ez da zer neurri har daitekeen, horiek gidatzen dituen ideia politikoa baino. Ildo horretatik, EAEk politika kulturaniztuna (edo kultura artekoa, horrela formulatzea nahiago bada) hartzearen aldeko apustua egingo genuke, immigrazioaren eta etorkinen erkidegoekin elkarrekiko egokitzapena egitearen aldekoa. Jarrera formal hau Immigrazioari buruzko Euskal Planek ezarritakoarekin koherentea eta aniztasuna kudeatzeko euskal politika aurreratuaren oinarria izango litzateke.

Jarraian adieraziko ditugun proposamenak Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunean ezarritako jarraibideak erabiltzen ditu, III. Atalera bildutako jarduera-sektoreei dagokienez. Dokumentu juridiko hori aplikatzeko zaila den arren, guk dugun xederako, sektoreen araberako balizko neurrien egitura oso erabilgarria izan daiteke guretzat. Modu horretan, lehenengo eta behin, «zeharkako jarduerak» ezarri dira, hots, jarduera instrumentalak, eta jarraian itun horretako 8-14. artikuluetan ezarritako ordena berreskuratzen da.

1. **Zeharkako jarduerak**

1. Erkidegoan hitz egiten diren hizkuntza guztiei prestigioa emateko ahalegina egitea, batez ere gutxien hedatuta daudenei, hala nola euskarari eta etorkinen sorterriko hizkuntza ez-ofizialei, komunikabideetan kontzientziazio-kanpainak eginda eta hezkuntza-curriculumaren bidez.

2. Euskadin hitz egin eta hiztunen behar den besteko kopurua duten hizkuntza guztiei Europako Kontseiluak arlo horretan dituen bi tresnetatik ahal diren neurri guztiak aplikatzea: Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna eta Gutxiengo Nazionalak Babesteko Esparru Hitzarmena.

3. Euskadin bizi diren herritarren hizkuntz erroldak etengabe egitea, horien bidez hizkuntza bakoitzak gure gizartean duen zenbakizko pisua eta horien bilakaera nolabaiteko segidarekin zehaztu ahal izateko.

4. Herritar guztien hizkuntz dinamikei buruzko azterketak eta analisiak egitea hizkuntza ofizialen ikaskuntzari eta hizkuntza ez-ofizialen garapenari eta galerari dagokienez. Batez ere etorkinen eta horien ondorengoen hizkuntz egokitzapena eta mugikortasuna aztertzea, baita hizkuntza jakin batzuetan haien eta gainerako herritarren artean elkar ulertzeko aukerak ere.

2. **Hezkuntza**

5. Ikasle ez-euskaldunak euskara apurka-apurka ikastea errazten duten hizkuntza-ereduetan sartzea sustatzea, murgiltze osoa egin gabe.

6. Hezkuntza-curriculumean irakaskuntza-hizkuntza aldatzeko aukera ematen duten espazioak gehitzea, egon dagoen eskaeraren eta baliabide eskuragarrien arabera. Espazio horietan hizkuntza ez-ofizialak apurka-apurka gehitzeko lan egitea, hizkuntz erkidegoetako pertsonak inplikatuz. Espazio horietan, familian beste hizkuntza ez-ofizial batzuk ezagutu edo jasotzen dituzten ikasleei hizkuntza horien oinarrizko gramatika- eta ortografia-alderdiak indartzea.

7. Hurbiltasun geografikoa oinarri hartuta eta egon dagoen eskaeraren arabera, beste hizkuntz erkidego batzuetako ikasleak taldekatzea, hizkuntza horietan hezkuntza-espazioak errazteko. Hori adin edo maila desberdinetako ikasleak edo talde desberdinetakoak taldekatuz ere egin daiteke. Kontua ez

da talde edo gela zehatzak sortzea hizkuntzaren arabera, horiek ezarritako espazio eta ordutegietan eta horretarako erreserbatutako arloetan egituratzea baino, gainerako ikasleek beste hezkuntza-osagarri batzuk egiten dituzten bitartean.

8. Erkidego alogenoetako kideak pedagogikoki trebatzera bideratutako politika diseinatu eta ezartzea, apurka-apurka hezkuntza-arloan sartu daitezen beste hizkuntza batzuetako hezkuntza-espazioen irakasle edo dinamizatzaile moduan.

9. Gurasoei edo tutoreei seme-alabak kasuan kasuko hizkuntza-taldeetara askatasunez esleitzeko aukera ematea, nahi ez diren asimilazioak saihesteko eta hizkuntz asimilaziorako aukera ez behartzeko. Agintari publikoek, hizkuntz aniztasunari prestigioa emateko politikaren barruan, euskararen agerpen handia duten hezkuntza-ereduetan zein kasuan kasuko hizkuntzaren zerbitzura sortutako hizkuntz espazioetan sartzea gomendatuko dute.

10. Hezkuntza-curriculumean munduko hizkuntz aniztasunari, hizkuntz familien eta hizkuntzen arteko desberdintasunei, kultur kodeei eta euskal gizartean gehien agertzen diren hizkuntzen lexikoko oinarrizko osagaiei buruzko adigaiak gehitzea. Era berean, hurbileko alfabeto praktikoak erabiltzen irakastea, batez ere zirilikoa, grekoa eta, ahal den neurrian, baita arabiera ere, ikasleek alfabeto horiekin idatzitako testuak irakurtzen ikasi ahal izateko.

11. Gizartean hitz egiten diren hizkuntzetan material didaktikoak egitea (itzultzea) bultzatzea, bai zuzenean, bai egon dauden argitaletxeen edo eleaniztasun-politikaren babesean sortutako argitaletxe berrien aldetik material horiek egitea sustatuz eta diruz lagunduz.

12. Hizkuntza ofizialaz bestelakoetan egindako eskolaz kanpoko jarduera osagarriak garatu eta erraztea, zentroetan duten agerpenaren arabera, baita zenbait zentrotako ikasleak taldekatuz ere. Hizkuntza horiek urteroko izaera duten jarduera puntualetan gutxienez agerpena izatea bermatzea lurralde historiko guztietan.

13. Hizkuntz gutxiengoekin hezkuntza-lana diruz bultzatzea, soldata-osagarri baten bidez.

14. HHEetan apurka-apurka helduei euskararen eta behar den besteko eskaera duten beste hizkuntza batzuen irakaskuntza gehitzea.

15. Irakasle Eskoletan lanpostuak edo ikasketa-bekak erreserbatzea, amahizkuntza, familia-hizkuntza edo ohiko hizkuntza moduan Europar Batasunean 2004an ofizialak ziren hizkuntzez bestelakoa dutela egiaztatzen dutenentzat.

3. **Justizia**

16. Behar den besteko interpreteak daudela bermatzea hala eskatzen duten prozedura guztietan.

17. Gehien hedatutako hizkuntza ez-ofizialetan lege-testu nagusiak itzuli eta argitaratzea.

18. Ohiko prozedura eta izapide judizialei buruzko informazio-foiletoak argitaratzea, eta informazio hori justizia-administrazioaren web orrian jartzea gehien hedatutako hizkuntza ez-ofizialetan.

19. Jendea gehien hedatutako hizkuntza ez-ofizialetan artatzen dela bermatzea erregistro zibilen eta oinarrizko informazioaren esparruetan, behintzat lurralde historikoen hiriburuetan.

20. Hizkuntza ez-ofizialetan idatzita egoteagatik dokumentuak edo idatziak onartzeari uko ez egitea. Horien itzulpena erraztea.

4. **Administrazio publikoa**

21. Hizkuntza albait gehienetan interpretazio-telefonoak prestatzea presazko edo ohiko administrazio-izapideetarako.

22. Administrazioari eta horren izapideei buruzko foiletoak eta informazio-kartelak gehien hedatutako hizkuntza ez-ofizialetara itzultzea.

23. Beste hizkuntza batzuetako izen bereziak eta horien grafiak ahal den neurrian errespetatzea, hala denean, latindar grafia alboan jarrita.

24. Gure erkidegoan une bakoitzean gehien hedatutako hizkuntza ez-ofizialen ezagutza baloratzea, lanpostu publikoetan sartzerakoan puntuatzeko moduko meritu moduan.

25. Jendearen aurreko administrazio-lanpostuak langile elebidunekin betetzea.

26. Hizkuntza-erkidego jakin bateko kide asko dituzten udalerrietan, hizkuntza horretan zerbitzuen kopuru albait handiena jartzea, hala denean, itzulpen zerbitzuen bidez.

27. Eremu urriko hizkuntza-erkidegoetako pertsonak herri-administrazioetan apurka-apurka sartzera bideratutako politika diseinatu eta ezartzea.

28. Hizkuntza ez-ofizialetan idatzita egoteagatik dokumentuak edo idatziak onartzeari uko ez egitea. Horien itzulpena erraztea.

29. Hizkuntza (kultura) aniztasunaren kudeaketa demokratikoa gobernu maila desberdinetan (autonomikoa eta forala) sustatu eta planifikatzeko administrazio-unitatea (zuzendaritza) sortzea.

5. **Mass media**

30. Sustapen-jardueraren bidez, programazioaren zati bat erkidegoan hiztunen gutxieneko kopurua duten hizkuntza ez-ofizialetan ematen duten komunikabideak sortu, mantendu eta hedatzeari mesede egitea.

31. Titulartasun publikoa duten komunikabideetan hizkuntza ez-ofizialetan egindako programazioa handitzea, emanaldi-kanalak gehituz, telebista digitala erabiliz, aldi bereko bikoizketa-sistemak erabiliz, etab.

32. Eremu urriko hizkuntza-erkidegoei euskal gizartean gehien hedatutako hizkuntza ez-ofizialetan aritzen diren atzerriko komunikabideen harrera erraztea.

33. Eremu urriko hizkuntza-erkidegoetako pertsonei titulartasun publikoa duten komunikabideetako kontrol-organoetan egoteko aukera ematea.

6. **Kultura jarduerak**

34. Gehien hedatutako hizkuntza ez-ofizialetan literatura-, arte- eta edizioekoizpena erraztu eta sustatzea.

35. Euskal literatura-lanen eta gehien hedatutako hizkuntza ez-ofizialetara itzuli daitezkeen gainerako lanen itzulpena erraztu eta sustatzea.

7. **Ekonomia eta gizarte bizitza**

36. Enpresen eta gizarte-erakundeen aldetik eleaniaztasuna garatzeko planen diseinua eta betearazpena sustatzea, zehatz esanda, zerbitzuak beste hizkuntza batzuetan eskaintzea.

37. Administrazio-emakidak erabakitzean edo lizentziak ematean, zerbitzuak hizkuntza askotan ematen diren baloratzea.

38. Eremu urriko hizkuntz erkidegoetako pertsonei ildo ekonomiko, sozial edo kulturaleko aholku-organoetan egoteko aukera ematea.

39. Enpresek kontsumitzaileei informazioa ematen dietela bermatzea, batez ere, segurtasunari buruzko arauen ingurukoa, erkidegoan hitz egiten diren hizkuntzen kopuru albait handienean.

8. **Mugaz gaindiko harremanak**

40. Hizkuntza ez-ofizialetako hiztunen interesak ordezkatu edo defendatzen dituzten taldeen, elkarteen, fundazioen edo irabazteko asmorik ez duten bestelako entitateen eta hizkuntza bera duten herrialdeetako antzeko erakundeen edo herrialde horietako agintari publikoen artean kulturaizaerako harremanak mantendu eta sendotzeari erraztasunak ematea eta harremanok sustatzea.

5. Bibliografia

AGIRREAZKUENAGA, I. (2003), *Diversidad y convivencia lingüística*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia-San Sebastián.

AIERDI, X. (2008), «Larritasun egoeretara hurbiltzea: Hizkuntza aniztasun berriaren eragina hizkuntza gutxituen normalizazio prozesuan», RUIZ VIEYTEZ, E. (zuz.), *Giza eskubideak eta aniztasuna. Erronka berriak askotariko gizarteentzat*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 127-154 orr.

BARQUIN, A. eta RUIZ-BIKANDI, U. (2008), «Hizkuntzen kudeaketa eskolan», in AIERDI, X. eta URANGA, B., *Euskara, inmigrazioa eta hizkuntza eskubideak,* Ikuspegi-Unesco Etxea, Bilbo, 43-48 orr.

BASABE, N, ZLOBINA, A. eta PAEZ, D. (2004), *Integración socio-cultural y adaptación psicológica de los inmigrantes extranjeros en el País Vasco*, Soziologiazko Euskal Koadernoak, 15. zk., Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz.

CARABAÑA, J. (2006), «Los alumnos inmigrantes en la escuela española», AJA, E. eta ARANGO, J. (ed.), *Veinte años de inmigración en España*, CIDOB, Bartzelona, 275-299 orr.

CASTIGLIONE, D. eta LONGMAN, C. (ed.) (2007), *The Language Question in Europe and Diverse Societies. Political, Legald and Social Perspectives*, Hart Publishing, Oxford-Portland.

CEAR-Euskadi (2007), *Estudio sobre el interés y uso del Euskera por parte de la población inmigrante y refugiada*, Cear-Euskadi, Bilbo.

DE VARENNES, F. (2001), «Language Rights as an Integral Part of Human Rights», *Unesco Most journal on Multicultural Societies: Lesser Used Languages and the Law in Europe*, 3. lib., 1. zk.

DUNBAR, R. (2007), «European Traditional Linguistic Diversity and Human Rights: A Critical Assessment of International Instruments», RUIZ VIEYTEZ, E. eta DUNBAR, R. (ed.), *Human Rights and Diversity: New Challenges for Plural Societies*, Humanitarian Net, Bilbo, 85-110 orr.

DUNBAR, R. eta HENRARD, K. (ed.) (2008), *Synergies in Minority protection. European and International Law Perspectives*, Cambridge university press, Cambridge.

EXTRA, G. eta YAGMUR, K. (ed.) (2004), *Urban Multilingualism in Europe. Immigrant Minority Languages at Home and School*, Multilingual Matters, Ltd, Clevedon.

FERNÁNDEZ LIESA, C.R. (1999), *Derechos lingüísticos y Derecho internacional*, Dykinson, Madril.

GRIN, F. (2003), «Diversity as Paradigm, Analytical Device, and Policiy Goal», KYMLICKA, W. eta PATTEN, A., (ed.): *Language Rights and Political Theory*, Oxford University Press, Oxford.

HENRARD, K. (2000), *Devising an Adequate System of Minority Protection*, Martinus Nijhoff Publishers, Haga.

HOGAN-BRUN, G. eta WOLFF, S. (2003), «Minority Languages in Europe: An introduction to the Current Debate», HOGAN-BRUN, G. eta WOLFF, S. (ed.), *Minority Languages in Europe. Frameworks, Status, Prospects*, Palgrave Macmillan, New York.

JUNYENT, C. (1998), «Aplicaciones de la Declaración universal de Derechos Lingüísticos. Aspectos estatales y regionales: medio, contactos y dinámica sociolingüística», *Las políticas lingüísticas a partir de la Declaración Universal de Derechos Lingüísticos*, Mediterrània, Bartzelona.

KASARES, P. (2004), *Hizkuntz eskubideak Euskal Herrian. Zer eskubidez ari garen eta zertan diren*, Cuadernos de Derechos Humanos, 31. zk., Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

KONTRA, M. (1999), «Some Reflections on the Nature of Language and its Regulation», PACKER, J. (ed.): *Special Issue on the Linguistic Rights of National Minorities, International Journal on Minority and Group Rights*, 6. lib., 3. zk., 281-288 orr.

KYMLICKA, W. eta PATTEN, A. (2003), «Language Rights and Political Theory: Context, Issues, and Approaches», KYMLICKA, W. eta PATTEN, A., (ed), *Language Rights and Political Theory*, Oxford University Press, Oxford.

LARIOS PATERNA, M.J. (2006), «El derecho a la educación de los inmigrantes», AJA, E. eta ARANGO, J. (ed.), *Veinte años de inmigración en España*, CIDOB, Bartzelona, 247-273 orr.

MAY, S. (2003), «Language, Nationalism and Democracy in Europe», HOGAN-BRUN, G. eta Wolff, S. (ed.), *Minority Languages in Europe. Frameworks, Status, Prospects*, Palgrave Macmillan, New York.

O'REILLY, C. (2003), «When a Language is Just Symbolic: Reconsidering the Significance of Language to the Politics of Identity», HOGAN-BRUN, G. eta WOLFF, S. (ed.), *Minority Languages in Europe. Frameworks, Status, Prospects*, Palgrave Macmillan, New York.

PATTEN, A. (2003), «What Kind of Bilingualism?», KYMLICKA, W. eta PATTEN, A., (ed.), *Language Rights and Political Theory*, Oxford University Press, Oxford.

PEREZ FERNANDEZ, J.M. (koord.) (2006), *Estudios sobre el estatuto jurídico de las lenguas de España*, Atelier, Bartzelona.

ROMAINE, S. (2002), «The Impact of Language Policy on Endagered Languages», *Unesco Most Journal on Multicultural Societies: Protecting Endagered Minority Languages: Sociolinguistic Perspectives*, 4. lib., 2. zk.

RUBIO-MARIN, R. (2003), «Language Rights: Exploring the Competing Rationales», KYMLICKA, W. eta PATTEN, A., (ed.), *Language Rights and Political Theory*, Oxford University Press, Oxford.

RUIZ VIEYTEZ, E. (2003), «La Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias, ¿un instrumento más para la protección de las minorías lingüísticas?: contenido, límites y oportunidades», *Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias, Una perspectiva sobre su aplicación*, EKE Foundation, Iruñea, 19-67 orr.

——— (2006), *Minorías, inmigración y democracia en Europa. Una lectura multicultural de los derechos humanos*, Tirant lo blanch-Universidad de Valencia, Valentzia.

——— (2008a), «Ideas para gestionar la diversidad lingüística», AIERDI, X. eta URANGA, B., *Euskara, inmigrazioa eta hizkuntza eskubideak,* Ikuspegi-Unesco Etxea, Bilbo, 31-35 orr.

——— (2008b), «New minorities and linguistic diversity. Some reflections from the Spanish and Basque perspectives», *Journal on Ethnopolitics and Minority Issues in Europe (JEMIE)*, 6. lib., 2. zk.

——— (2009), «Constitutions, Languages, Definitions and the European Charter for Regional or Minority Languages, *Llengua i Dret*, 51. zk., 227-253 orr.

SIGUAN, M. (2001), *Bilingüismo y lenguas en contacto*, Alianza editorial, Madril.

SKUTNABB-KANGAS, T. (2004), «The right to mother tongue medium education: the hot potato in human rights instruments», II Simposio Internacional Mercator *Europa 2004: ¿Un nuevo marco para todas las lenguas?,* Tarragona, 2004ko otsaila.

SKUTNABB-KANGAS, T. eta PHILIPSON, R. (ed.) (1995), *Linguistic Human Rights. Overcoming Linguistic Discrimination,* Mouton de Gruyter, Berlin/New York.

URANGA, B., AIERDI, X. et al. (2008), *Hizkuntzak eta inmigrazioa*, Ikuspegi-Unesco etxea, Bilbo.

UNZURRUNZAGA, A. (2007), «Derechos lingüísticos de la población inmigrante», *Mugak*, http://www.mugak.eu/busqueda/search?q=documentos

——— (2008), «¿Qué hacemos con la pluralidad lingüística realmente existente?», AIERDI, X. eta URANGA, B., *Euskara, inmigrazioa eta hizkuntza eskubideak,* Ikuspegi-Unesco Etxea, Bilbo, 36-39 orr.

——— (2008), «Aniztasun berrien harira. Zenbait erizpide inmigrazioaren kudeaketarako», *Cuaderno de trabajo,* 41. zbk., Gipuzkoako SOS Arrazakeria, 2008ko azaroa.

URRUTIA LIBARONA, I. (2006), *Derechos lingüísticos y euskera en el sistema educativo*, Pamiela, Iruñea.

WELLER, M. (ed.) (2005), *The Rights of Minorities: A Commentary on the European Framework Convention for the Protection of National Minorities*, Oxford University Press, Oxford.

WOEHRLING, J.M. (2005), *The European Charter for Regional or Minority Languages*, Council of Europe, Estrasburgo.

ZAPATA, M. (2008), «Euskara, inmigrazioa eta hizkuntza-eskubideak», AIERDI, X. eta URANGA, B., *Euskara, inmigrazioa eta hizkuntza eskubideak,* Ikuspegi-Unesco Etxea, Bilbo, 49-54 orr.

ZAPATA SOLANO, M. (2006), *Etorkinak eta hizkuntza-ereduak*, Soziologiazko Euskal Koadernoak, 20. zk., Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz.

Haur etorkinen euskara: eskolaren eta inguru euskaldunaren eragina

MANTEROLA, Ibon eta LARDIZABAL, Eider
Euskal Herriko Unibertsitatea[1]

Jasotze data: 2010-07-14
Onartze date: 2010-07-14

Lan honetan euskal eskolaren egungo erronka handienetakoa den ikasle etorkinen euskalduntzea aztertzen da. Zehazki, adin ezberdineko sei ikasle etorkinen euskararen ikaskuntza aztertzea da helburua, horretarako, ikasleek testu-genero batean (ipuin-kontaketan) dituzten trebetasunak eta zailtasunak aztertuz. Hizkuntzaren alderdi testual-diskurtsiboak eta gramatikalak dira aztergai. Emaitzek erakusten dute ikasleek, oro har, ipuin-kontaketarako hainbat trebetasun testual-diskurtsibo (kontaketarako autonomia, planifikazioa) bereganatu dituztela eta baita euskal gramatikaren ezaugarri bat ere (ergatiboa). Baina ikasleen artean dauden aldeak ere nabarmentzen dira. Ondorioztatzen da ikasle etorkinen euskarazko trebetasunen atzean D ereduko eskolatzea dagoela, baina baita eskolaz kanpoko inguru euskaldunaren eragina ere.

Hitz-gakoak: ikasle etorkina, euskararen ikaskuntza, murgilketa, ipuin-kontaketa.

Este artículo aborda uno de los retos actuales de la escuela vasca: el aprendizaje del euskera por alumnos inmigrantes. Se trata de analizar el aprendizaje del euskera en seis alumnos inmigrantes de diferentes edades, partiendo de las capacidades y dificultades que muestran estos alumnos en la producción de un género textual preciso: la narración oral de cuentos. Se estudian elementos discursivo-textuales y gramaticales. Los resultados reflejan que, en general, los alumnos se han apropiado

[1] Ikerketa hau EHUren ikasleentzako lankidetza-beka bati esker eta honako ikerketa-proiektuen laguntzarekin egin da: UPV/EHUko (9/UPV 00033.130-13614/2001), Eusko Jaurlaritzako (IT-262-07), eta MEC/MICINN eko (BFF2003-05196; HUM2006 - 11862 ; FFI 2009 – 13956).

de capacidades textuales-discursivas de la narración oral como la autonomía narrativa y la planificación, y también de propiedades gramaticales del euskera como la marcación del caso ergativo. Sin embargo, también se resaltan las diferencias entre los alumnos. Las conclusiones apuntan a la escolarización en euskera (en inmersión) y también al entorno social euskera-parlante entre los factores clave para el aprendizaje del euskera por alumnos inmigrantes.

Palabras clave: alumnos inmigrantes, aprendizaje del euskera, inmersión, narración de cuentos.

Ce travail étudie le plus grand défi de l'école basque qu'est l'apprentissage du basque des élèves immigrants. Plus précisément, il s'agit d'étudier l'apprentissage du basque chez six élèves immigrants d'âges différents, en étudiant pour cela les capacités et les difficultés que ces élèves rencontrent dans un genre de texte précis (le conte). Sont étudiés les aspects discursifs et grammaticaux de la langue. Les résultats nous montrent que les élèves ont en général assimilé une certaine capacité discursive pour le conte (autonomie dans le récit, planification), ainsi qu'une marque grammaticale (l'ergatif). Apparaissent également d'autres différences entre les élèves. On en conclut que tant l'enseignement du basque par immersion que le contexte sociolinguistique basque parlant favorisent le dévelopment du basque chez ces élèves immigrants.

Mots-clés : élève immigrant, apprentissage du basque, immersion, conte.

This paper examines the learning of Basque in immigrant students, which is one of the biggest challenges that has to be addressed by the Basque school today. Specifically, the aim is to analyse the learning of Basque of six immigrant students of different ages, and to do so by analysing the students' competence and difficulties in one text type (storytelling). The textual-discursive and grammatical aspects of the language were then examined. The results show that the students have largely acquired certain textual-discursive skills for storytelling (autonomy in the telling, planning), as well as one of the features of Basque grammar (ergative). But the differences between the students are also clear. The conclusion reached is that crucial roles in immigrant students' Basque competence are played by being schooled in the D [Basque-medium] education model and by the influence of the Basque speaking environment outside school.

Key Words: immigrant student, learning of Basque, immersion, story telling.

1. Sarrera

Lan honen helburua murgilketa bidez eskolatutako eta herri euskaldun batean bizi diren ikasle etorkinen euskararen ikaskuntza aztertzea da. Testuinguru eta baldintza oso jakin batean euskalduntzen ari diren ikasleez jardungo dugu, beraz. Inguru euskaldunean bertakotuz eta eskolan ere dena euskaraz eginez ikasle etorkinek euskaraz lortutako trebetasunak ikertu nahi ditugu. Horretarako, ikasleek ahoz ekoiztutako ipuinak izango dira aztergaiak.

Etorkinen etorrerak eskolaren eremuan orain arte ezezagunak edo landugabeak ziren hainbat auzi sortu du. Esate baterako, hor dago eskola-kulturaren auzia. Jatorrizko lurraldean hemen bezalako eskolatzearen kulturarik ez duten ikasleak bertako eskola-kulturara ohitzea ez da lan samurra. Ikasle iritsi berriak eskolak gure gizarteetan daukan paperaz jabetzea beti ez da dirudien bezain begien bistakoa, edo iritsi berria «ikasle bihurtzea» bera ere askotan zaila gerta daitekeen prozesua da. Beste auzi nagusi bat, eta artikulu honi oso lotua dagoena, hizkuntzena da. Europako Parlamentuak nabarmentzen du etorkinak integratuko badira, funtsezkoa dela harrera hizkuntzak ikastea (1998, Etxeberria eta Elosegiren lanetik (2009) hartua). Etorkinak hartzen dituen gizarteko hizkuntza edo hizkuntzak ikasi gabe, nekez bertakotuko da kanpotik datorrena.

Hari honi tiraka, eskolako hizkuntzaren garrantzia ere nabarmentzen da. Eskolan erabiltzen den hizkuntza menderatzea oso baldintza garrantzizkoa da eskolan emaitza onak lortzeko. Hatsarre honek edozein ikaslerentzat balio du, noski, baina garrantzia berezia hartzen du etorkinen kasuan, sarritan, eskolara txikitan ez baina beranduxeago iristen baitira. Ondorioz, iritsi berritan menderatzen ez duten hizkuntza batean euren adinerako beharrezkoak diren eskola-edukiak barneratzea ez da batere lan samurra.

Hatsarre hauek euskal eskolaren testuingurura dakartzate Etxeberria eta Elosegik (ibid.), euskal eskolak ikasle etorkinekin dituen erronkak honela laburtuz: batetik, ikasle etorkinek euskara ikastea; bestetik, jatorrizko hizkuntzak mantentzea; eta noski, eskolan arrakasta lortzea, honek bermatzen baititu gizarte eta lan integrazioa.

Ikasle etorkinen eskolatzean kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da ikasle etorkina ikasle-mota berria dela hizkuntzei dagokienean, edo behintzat, orain arte oso hedatua ez zegoen ikasle-mota dela: etxetik ez euskaldun eta (kasu askotan) ezta gaztelaniadun ere ez diren ikasleak dira, eta gainera, euskararen (eta askotan, gaztelaniaren) ikaskuntza lehen haurtzaroan ez baizik eta (kasu askotan) lehen hezkuntzan edo beranduago hasten dute.

Dudarik gabe, ikasle etorri berri hauek euskaraz zer nolako maila lortzen duten jakitea funtsezkoa da ikasle hauei behar bezalako irakaskuntza eskaintzeko. Eremu honetan kokatzen da gure lantxo hau. Etxeberria eta Elosegiren (ibid.) lana ere beste ekarpen bat da zentzu honetan. Lehen hezkuntzan eskolatzen hasitakoek ez bezala, txikitatik eskolatutako haur etorkinek bertako ikasleen pareko emaitzak lortzen dituzte ahozko zein idatzizko ulermen eta adierazpen frogetan.

Gure ikerketan parte hartu duten ikasleak murgilketa bidez eta oso testuinguru euskaldunean bertakotzen ari dira. Interesgarria gerta liteke jakitea halako baldintzetan gureratutako ikasleek euskaraz nola egiten duten ikertzea. Gainera, abian ditugun beste lan batzuekin batera (Beloki et al., 2005; Almgren et al., 2008; prentsan; Idiazabal & Manterola, prentsan), murgilketa bidezko euskararen ikaskuntzaren ikerketan sakontzeko aukera emango digu.

Sarrera honen ondotik, etorkinen eskolatzeaz hainbat datu emango dugu, gure ikerketa immigrazioaren fenomeno berri honetan kokatze aldera. Hirugarren atalean zehar gure datu-bilketa aurkeztuko ditugu: besteak beste, datuak non bilduak izan diren, ikasleen ezaugarriak zein diren eta ikasleen ekoizpenak biltzeko zein bitarteko erabili dugun. Laugarren atala ikasleen ekoizpenak aztertzeko izango da. Eta bosgarren puntuan ikasleen azterketetatik ateratako emaitzak eztabaidatuko ditugu. Aurrera begirako hausnarketatxo batekin itxiko dugu lan hau.

2. **Immigrazioa eta eskolatzea**

Azken urte hauetan batez ere, Hego Euskal Herriko etorkinen kopuruak gora egin du nabarmen. Zehazki, 1998 eta 2008 artean, 200.000 etorkin

iritsi dira lau herrialdeetara, biztanleen %1 baino gutxiago izatetik ia %5,6 izatera pasatuz (Aierdi, 2008).

Osa eta Aierdi berak liburu honetan bertan idatzitako orrialdeetan azaltzen da gertakari honek euskararen egoerari zenbateraino eta nola eragiten dion. Nabarmen liteke, esaterako, etorkinak euskarak indar gutxi duen guneetara etorri direla batez ere. Ondorioz, gehienek euskararekin duten kontaktua urria da, batere izatekotan.

Eskolatzea dela eta, lehendabizi azpimarratu behar dena da etorkinen gutxiengoa doala eskolara (zehatzago esanda, derrigorrezko eskolaldira), etorkinen bi herenek 20 eta 44 urte arteko adina baitute. Eskolara doazenen artean, Euskal Autonomia Erkidegoan A eredua da gehien aukeratzen dena (%41). B ereduan etorkinen %29 dago eta D ereduan, berriz, %30. Datu hauek, ordea, asko aldatzen dira herrialdearen arabera, ereduen aukeraketan eragina daukalako herrialde bakoitzeko eredu-egiturak. Adibidez, Gipuzkoan D ereduan dago etorkinen %51, baina kontuan hartu beharra dago Gipuzkoan A eredua ez dagoela batere hedatua eta ondorioz, ikasle etorkinak B eta D ereduetara bideratzen direla. Aldiz, Bizkaian baina batik bat Araban, askoz ere gehiago dira A ereduan ikasten duten haur etorkinak.

Immigrazioak Hego Euskal Herrian daukan banaketa eta presentzia ikusita, ondoriozta genezake gure ikerketa honetan aztertzen dugun populazioa joera nagusitik kanpo dagoela: euskara oso presente dagoen herri batean bizi dira eta eskolatze-eredua D dute. Beraz, gogoan izan behar da jarraian aurkeztera goazenak ez duela inondik inora ere Euskal Herriko ikasle etorkinen gehiengoaren kasua azaltzen. Dena dela ere, baldintza jakin eta zehatz batzuetan euskalduntzen ari den ikasle-talde batek zer-nolako euskara trebetasunak lortzen dituen erakuts dezake. Baldintza zehatz horiek zein diren hurrengo atalean azalduko dugu.

3. **Ikasle etorkinen euskara aztergai**


Lau azpiataletan banatu dugu ikerketaren aurkezpena. Lehendabizi ikasleak bizi diren testuinguru soziolinguistikoa zehaztuko dugu. Ondoren, 3.2. atalean, ikasle etorkinen eskolatzea azalduko dugu. Ikasle bakoitzaren datu

zehatzak 3.3. atalean eman ondoren, ikasleen ekoizpenak biltzeko dispositiboa aurkeztuko dugu.

3.1. **Testuinguru soziolinguistikoa**

Aztergai ditugun ikasleak Seguran bizi dira. 1.300 biztanle inguru dituen herri oso euskalduna da Segura.

1. grafikoa. Euskara gaitasuna, 2001




Iturria: Euskararen Datu Basea (www.soziolinguistika.org/edb/). Egileek egokitua.

Goiko grafikoan ikus daitekeenez, euskararen ezagutza portzentajea oso handia da Seguran. Euskal Herriko herririk euskaldunenetakoa da Segura. Izan ere, Euskal Herrian euskaldunen portzentajea %30era iristen ez den bitartean, Seguran ia %90ekoa da. Segura Goierri eskualdean dago, eta Goierrin ere asko dira euskara dakitenak. Ez Seguran bezainbeste, baina Euskal Herriko eskualderik euskaldunenetakoa bada. Izan ere, Zegama, Zerain, Idiazabal, Mutiloa edo Ormaiztegi herri oso euskaldunak dira. Aldiz, Beasain eta Ordizia, Goierriko herririk hazienak, erdaldunagoak dira.

Gure ikerlan honetan haurrak ditugunez aztergai, interesgarria izan daiteke Seguran haurren hizkuntza gaitasuna zertan den jakitea. Jarraiko grafikoak erakusten duen moduan, Segurako haur gehien gehienek (ia %90ak)

dakite euskara; euskaldunak eta ia euskaldunak batera hartuta, ia %100era iristen da portzentajea.

2. grafikoa. Euskara gaitasuna Segurako haurrengan (2 - 14 urte), 2001



Iturria: Euskararen Datu Basea (www.soziolinguistika.org/edb/)

Euskararen erabileraren datu zehatzik ez badakigu ere, pentsa liteke apur bat baxuagoa dela. Gainera, azkenaldian Segurara inguruko herri erdaldunagoetako jendea etorri da eta litekeena da horrek apur bat jaitsi izana euskararen erabilera. Hala ere, euskaren erabilera handia da Seguran.

Euskara da kaleko hizkuntza nagusia. Umeen artean, gazteen artean, helduen artean, eta belaunaldien artean ere euskara da hizkuntza nagusia. Etxe gehienetan euskaraz egiten da. Aisialdia ere euskaraz da Seguran: eskolaz kanpoko jarduerak, eskola-kirola, esaterako, euskaraz egiten da. Kirol elkarteetan ere, oro har, euskaraz egiten da eta udako udaleku irekiak ere euskara huts-hutsean izaten dira.

Ziurrenik, euskararen erabilera handi honi esker dago bizi-bizirik Segurako euskara ere. Belaunaldien arteko transmisioak tinko dirau, eta hau adierazle baliagarria izan liteke euskarak Seguran duen bizi-indarra neurtzeko.

Aisialdia, lagunartea edo etxea bezalako ahozko esparru informaletan ez ezik, esparru formaletan ere euskara asko erabiltzen da. Esaterako, bada

Seguran irrati bat, Segura Irratia, eta honek ere ia dena euskaraz ekoizten du. Ikus-entzunezkoetan, Euskal Telebistako lehen kateaz gain, eskualdeko telebista kate bat ere bada, Goierri Telebista. Hemen ere den-dena euskaraz ekoizten da, ia salbuespenik gabe.

Idatzizko hizkuntzari dagokionez ere euskararen erabilera nabarmena da Seguran, bai esparru informalean, baita formalean ere. Hedabideei dagokienez, prentsa idatzia euskaraz badago, gaztelaniazkoarekin batera. Baditugu tokiko idatzizko hedabideak ere, *Goierriko Hitza* eta *Goierritarra*, besteak beste. Hauek ere euskara hutsean dira. Horrez gain, hizkuntza paisaia ere (seinaleak, komertzioetako errotuluak, publizitatea…), batez ere euskaraz da. Udaletxeko oharrak elebidunak dira baina gaztelania hutsez ez dago ezer.

Euskararekiko jarreraren datu zehatzik ez badugu ere, pentsa liteke euskararen aldeko jarrera oso garbia dagoela Seguran. Horrez gain, esan behar da, eskolatzea ere, noski, euskaraz egiten dela Seguran. Jarraian datu zehatzagoak.

3.2. **Eskolatzearen ezaugarriak**

Seguran ikastetxe bakarra dago, sare publikokoa. Bertan Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasketak egin daitezke. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiteko, ordea, bertan ez dago aukerarik eta kanpora irten beharra dago, Beasainera normalean (gutxi batzuk Lazkaora edo Ordiziara).

Segurako eskolan D eredua bakarrik dago. Datu zehatzik ez badugu eman ere, Segurako euskararen ezagutza datuak ikusita (3. eta 4. grafikoak), pentsa liteke ikasle gehienentzat etxeko hizkuntzan izaten dela eskolatzea. Ez da hau, ordea, aztergai ditugun ikasle etorkinen kasua. Hauek ere D ereduan eskolatzen dira, baina D eredua murgilketa-eredua da hauentzat, hau da, etxekoa ez den beste hizkuntza batean eskolatzen dira.

Ikasle etorkinak, gainera, lehen aldiz euskararekin kontaktuan eskolan jartzen dira. Segurako eskolan bada harrera-gela bat, euskararekiko lehen kontaktu hori laguntzeko pentsatua, eta behin lehen kontaktua egin ondo-

ren ere, beharra duten ikasleei euskara-errefortzuak eskaintzen zaizkie. Dena dela, ikasle bakoitzaren kasua ezberdina izanik, laguntza-gela honek beharren arabera funtzionatzen du. Ikergai ditugun ikasleak horren lekuko.

3.3. **Ikasle etorkinen datuak**

Adin ezberdineko sei ikaslek hartu dute parte gure ikerketan. 1. taulak adierazten duen moduan, euskararekiko kontaktua ere adin ezberdinetan egin dute.

1. taula. Etxeko hizkuntza, adina eta euskararekin kontaktuan daramaten denbora

	K[2]	H	R	Z	A	S
Adina	5;10[3]	7;04	7;06	8;02	9;09	11;10
Euskararekiko kontaktua	3;08	2;04	1;07	3;08	3;08	2;04
Lehen hizkuntza	Arabiera[4]	Portugesa	Portugesa	Bulgariera	Arabiera	Portugesa

Adinez gazteena denak hiru urte eta erdi pasatxo darama euskara ikasten. Ikasle honen kasua etxetik gaztelaniadun izanik eskolan txikitatik euskara ikasten hasten diren bertako ikasleen antzeko kasua da. Diferentzia etxeko lehen hizkuntzan dago, noski. Eta honen ondorioa, gainontzeko bost ikasleen kasuan bezala, ez da nolanahikoa: irakasleek ez dute ikasleon lehen hizkuntza ezagutzen. Ziurrenik, ikasle etorkinen murgilketa bidezko

[2] Ikasleen izenen lehen hizkiarekin izendatuko ditugu ikasleak.

[3] Lehen zenbakiak urtea adierazten du. Puntu eta koma ondoren datorrenak, hilabetea. 5;10 = bost urte eta hamar hilabete.

[4] Arazo batzuk direla medio, ezin izan dugu jakin zein den K-ren eta A-ren etxeko lehen hizkuntza, baina arabiera izan daitekeelakoan gaude. Honez gain, bi ikasle hauek Segurara iritsi aurretik Zaldibian bizi izan ziren, baina eskolara apenas joan gabe.

ikaskuntza-irakaskuntzak duen berezitasun bat da hau. Izan ere, murgilketa «estandarraren» ezaugarrietako bat da irakasleak ikaslearen etxeko hizkuntza ezagutzea (Idiazabal, 2003). Eta hau ez da beti betetzen ikasle etorkinekin. Aztergai ditugun ikasleak horren lekuko.

K ez beste ikasle guztiak adinez nagusiago hasi ziren euskara ikasten. Eta denek ez daramate denbora berbera euskararekiko kontaktuan: H ikasleak bi urte eta erdi pasa, R ez da bi urtera iristen, Z-k eta A-k hiru urte eta erdi pasatxo, eta azkenik, ikasle helduenak, ia bi urte eta erdi.

Euskara ikasteko laguntza bereziak direla eta, denetarik dago aztergai ditugun ikasleetan. Ikasle helduenak gelatik kanpoko laguntza pixka bat behar izan zuen iritsi eta lehenengo bost hilabeteetan. Z-k ere hilabete batzuetan gelaz kanpoko errefortzua jaso zuen, H-k bezala (azken hau, ordea, ikerketan parte hartzeko garaian oraindik ere laguntza jasotzen ari zen). Gainontzeko hirurek, ordea, ez dute inolako laguntza berezirik behar izan hizkuntza dela eta. Beraien irakasleen arabera, haur hauek ez zuten material berezirik erabili eta ez zitzaien aparteko lanik eman hizkuntza lantzeko asmoarekin. Lehenengo egunetik beraien ikaskideekin batera egon ziren gelan, inolako jarduera bereziren beharrik gabe.

Hurrengo atalean ikasleen euskara ekoizpenak biltzeko erabilitako dispositiboa aurkeztuko dugu.

3.4. **Ekoizpenak biltzeko dispositiboa**

Ikasleei aurrez entzundako ipuin bat kontatzeko eskatzen zaie. Aurrena heldu batek (ikertzaileak) Mattin Zaku ipuina kontatzen die ikasleei[5]. Hamabi marrazkiz osatutako liburuaren laguntzaz kontatzen die ipuina helduak, eta marrazki hauek ekintza zein egoera nagusien adierazle dira. Sei ikasleek batera entzuten dute helduaren kontaketa.

Mattin Zaku ipuina horrela labur liteke: Mattin Zaku bere amarekin bizi da, eta oso behartsuak dira. Aldaketa bat gertatzen da, ordea, Mattin

[5] Mattin Zaku Arratibel eta Zubizarretaren (2001) *Txomin Ipurdi* ipuinaren bertsio egokitu bat da.

Zakuk erregearen gaztelura joatea pentsatzen baitu, dirua eskatzera, eta hala, bidean barrena abiatzen da zaku eta guzti. Mattin Zakuk bidean hiru pertsonaia «magiko» aurkitzen ditu (azeria, otsoa eta ibaia) eta hirurak zakuan sartzen ditu. Gaztelura iristean, dirua eskatzen dio erregeari, baina erregeak, dirurik eman nahi ez, eta aurrena oilo erraldoietara, gero zaldi basatien artera eta azken-azkenik herriko plazara, sutara, bidaltzen du. Egoera latz hauetako bakoitzean hiru pertsonaia magikoek laguntzen diote Mattin Zakuri. Azeriak oilo erraldoiak akabatzen ditu, otsoak zaldiak, eta ibaiak, berriz, sua itzaltzen du. Erregeak, azkenean, Mattin Zakuri dirua ematen dio. Etxera bueltatu, eta Mattin Zaku bere amarekin aberastuta bizitzen da…

Helduak marrazkiak baliatuz egin duen kontaketa entzun ondoren, ikasleen artetik bi hartu, eta batek besteari kontatzen dio ipuina. Ipuina entzun duten gainerako haurrak beste gela batera eramaten dira. Haur kontalariak marrazkiak ditu lagungarri, baina ez dizkio haur entzuleari erakusten; honen bidez saihestu nahi dena da bi haurrak marrazkiei begira deskribaketa hutsa egiten jardutea.

Ondoren, ipuina entzun duen haurrak hirugarren lagunari kontatuko dio, sei ikasleek gauza bera egin arteko katea osatuz. Ondorengo hau da ikasleei ipuina kontatzen hasi aurretik emandako kontsigna: «ondo-ondo kontatu behar diozu ipuina zure lagunari, grabatu egingo dugulako, eta gero haur txikiagoek entzungo dutelako. Gainera, zure lagunak beste bati kontatu beharko dio gero».

Ikasleek ipuinak ekoitz ditzaten prestatutako komunikazio egoera honek baditu beste hainbat ezaugarri: kontsignaren bidez hasiera batean ipuin-kontalariari ematen bazaio ere hitza, litekeena da haurrak laguntza behar izatea kontaketako momenturen batean, adibidez, hitz jakinen bat falta zaiolako edo ekintzaren bat ahaztu zaiolako. Halakoetan, helduak edo ipuina entzuten ari den beste haurrak parte har dezake kontaketan. Baina bestela, printzipioz, kontalariari dagokio ipuin-kontaketa aurrera eramatea.

Sei ikasleen ipuin-kontaketak bideoz grabatu eta transkribatu egin dira, Hizkuntzaren Jabekuntza eta Erabilera ikertaldean horrelako corpusak transkribatzeko erabili ohi diren irizpideekin.

4. **Ikasleen ipuinen azterketa**

Ikasleek ekoiztutako ipuinak aztertzeko orduan hiru alderdiri begiratu diegu, hizkuntzaren bi maila ezberdinetan kokatzen diren hiru alderdiri: testuaren/diskurtsoaren mailan kokatzen dira kontaketarako autonomia (4.2.) eta egitura narratiboa (4.3.). Eta perpausaren gramatikaren esparrukoa da ergatibo kasuaren ekoizpena (4.4.). Lehen aztergaia, 4.1. atalekoa, ipuinen luzerari dagokiona da. Kontaketarako autonomia eta egitura narratiboaren azterketari esker, ikasleek dituzten hainbat trebetasun diskurtsibo aztertuko ditugu. Eta ergatiboaren ekoizpena behatuz, gramatika-mailako alderdi bati behatuko diogu.

Testu/diskurtso mailako alderdien azterketa Bronckartek (1996/2004) Interakzionismo Sozio-diskurtsiboa (ISD) deitzen den markoan eraikitako testu-arkitekturaren proposamenean oinarritzen da[6]. Bronckarten arabera, diskurtsoa hizkuntzaren erabilera edo hizkuntza-jarduera da, eta testuan gauzatzen da. Hortaz, diskurtsoaren edo hizkuntzaren erabilera aztertzeko, testura jo behar da.

Testuaren azterketari hainbat ikuspegitatik hel dakioke. Bronckartek hiru maila edo dimentsio nagusi bereizten ditu: testuaren azpiegitura orokorra, testuratze mekanismoak eta ardura enuntziatiboa. Testuaren azpiegitura orokorra testuaren planifikazioari dagokio. Testuratze mekanismoen mailan, berriz, konexio, izen kohesio eta aditz kohesio mekanismoak sartzen dira. Testuaren progresio tematikoa edo eduki tematikoaren kateatzea aztertzen da testuratze mekanismoak behatuz. Bestela esanda, testuaren koherentzia tematikoari dagozkio testuratze mekanismoak. Ardura enuntziatiboa da testu-arkitekturako hirugarren maila. Ardura enuntziatiboa testuaren koherentzia pragmatikoari dagokion aztergaia da. Hain zuzen ere, testuan agertzen diren ahots enuntziatiboen eta modalizazioen kudeaketa da testuaren maila honetan kokatzen dena.

---

[6] Ahozko testu-generoen irakaskuntzaz Dolz eta Schneuwlyk (1998) idatzitako liburu ezagunean ere proposamen berbera da oinarria. Larringanek (prentsan) egiten duen ISDren aurkezpena ere gomendagarria da. Halaxe dira, baita ere, Idiazabal eta Larringanen (1998), Idiazabal eta Garcia Azkoagaren (2005) eta Plazaola eta Alonsoren (2007) euskarazko lanen bildumak, ISDren baitakoak.

Ikasleen ipuinetan aztertuko ditugun bi alderdiak testuaren azpiegitura orokorrean koka litezke. Kontaketarako autonomia aztertzeak erakutsiko digu ikasleak zenbateraino diren gai ipuin-kontaketa bere gain hartzeko. Ipuinaren ekoizpena euren kabuz egiteko daukaten maila erakutsiko digu honek. Egitura narratiboaren bidez, berriz, ikasleek ipuinak planifikatzeko daukaten abileziari begiratuko diogu, hau da, ipuineko eduki tematikoa antolatzeko trebetasunak behatu ahal izango ditugu.

Ergatiboaren ekoizpena dela eta, albo batera utziko dugu aditzeko ergatibo komunztadura-marken azterketa. Soilik aditzaren argumentuetan ergatiboa behar bezala erabiltzen den behatuko dugu.

4.1. **Ipuinen luzera**

Ikasleek ekoiztutako testuen nolabaiteko tamaina neurtze aldera, lehenik eta behin ipuin-kontaketaren luzerak aztertu dira. Hitz kopuruetatik hasita, ikasleen artean denetarik ikusten da. K ikaslea da ipuinik laburrena ekoizten duena, 205 hitzekoa eta Z, aldiz, luzeena, 359 hitzekoa.

2. taula. Ipuinen luzera eta kontaketaren iraupena

	K	H	R	Z	A	S	Heldua
Hitz-kopurua eta kontaketaren iraupena	205 hitz 3' 43"	322 hitz 5' 22"	225 hitz 3' 46"	314 hitz 5' 00"	359 hitz 4' 43"	300 hitz 3' 09"	737 hitz 5'40"

Ipuin-kontaketaren iraupena dela eta, S ikasleak hiru minutu pasatxoan kontatzen du ipuina. Pixka bat gehixeago irauten dute K eta R-ren ekoizpenek, eta hortik gora, A, Z eta batez ere H-ren ekoizpenak. Aipa liteke, dena dela, hitz-kopuruak eta iraupenak ez datozela guztiz bat. Adibidez, K ikasleak S-k baino denbora gehiago egiten du ipuina kontatzen, horregatik ez du, ordea, ipuin luzeagoa kontatzen.

Helduak ikasleei kontatutako ipuina askoz ere luzeagoa da, ikasleen artean ipuinik luzeena dena baino bi aldiz luzeagoa baita (359 hitz A-k, 737 helduak).

4.2. **Kontaketarako autonomia**

Kontaketarako autonomia aztergai interesgarria da ikusteko ea ikasleek zenbateraino lortzen duten ipuin-kontaketaren jarduera euren kabuz egitea. Ipuin-kontaketa testu-genero monologala da, edo behintzat, ipuin-kontaketaren kudeaketa kontalariari dagokio. Kontaketen luzeretara berriro joz, adibidez, A-ren kasuan, kontaketarako autonomia-mailak erakutsiko du ea zenbateraino ekoiztu duen hitz-kopuru hori bere kabuz bakarrik. Edo denborari begiratuta, azter liteke ia bost minutu ipuina kontatzen jarduterakoan zenbaterainoko laguntza behar izan duen.

Ikasleen artean hiru maila bereiz litezke kontaketarako autonomiari dagokionez. 3.taulak erakusten duen bezala, R, Z eta S ikasleek erabateko autonomia daukate ipuina kontatzerakoan. Hau da, helduak kontsignarekin hitza eman ondoren («*hasi ipuina kontatzen*»), ikasleak bere gain hartzen du testuaren ekoizpena eta bukaerara arte bere kabuz moldatzen da, helduaren inolako esku hartzerik behar izan gabe.

3. taula. Kontaketarako autonomia

	K	**H**	**R**	**Z**	**A**	**S**
Autonomia-maila	txikia	handia	erabatekoa	erabatekoa	handia	erabatekoa

H eta A ikasleek, berriz, helduaren laguntza pixka bat behar dute ipuina kontatzeko. Oro har begiratuta, autonomia handia daukate, baina momentu zehatzen batean edo bestean, ipuin-kontaketan kateatuta geratu eta helduaren esku hartzea behar izan dute aurrera egiteko. Hona hemen adibide bat:

(1)

1. H: Matin Zaku[7] // bazen behin e Matin eta / Matin Zaku eta bere ama pobre bizi zienen eta / bere ama esan zion be- Matin Zakui / Matin Zaku / ezteu- eztaukagu dirurik! / e / jun erregeren gaztelua! / bale! / eta gero jun zan basotik eta ikusi zon / hau zer zan? (*helduari galdezka*) /
2. Heldua: azeria /
3. H: ta gero aurkitu zon azeria eta esan zon / nahi al duzu nirekin etorri? /

Adibide honetan ikusten da nola behin ipuin kontaketari hasiera emanda, momentu zehatz batean ikasleak helduaren laguntza behar duen ipuineko elementuren batekin. Kasu honetan, H ikasleak ez du asmatzen «azeria» nola esaten den. Behin helduak konponbidea emanda, ikasleak aurrera egiten du, helduak emandako soluzioa («azeria») bere ekoizpenean txertatuz, gainera.

Adinez txikienak den ikasleak arazo gehiago dauzka ipuina kontatzeko orduan. Autonomia-mailarik baxuena daukan ikaslea da, zentzu honetan. Hona hemen ikasle honen kontaketatik pasarte pare bat:

(2)

1. Heldua: oso ondo / (3") hasi kontatzen ipuie oain /
2. K: nola zan hau? *(isilka helduari galdetu, marrazkian Mattin Zaku seinalatuz)* /
3. Heldua: Mattin Zaku /
4. K: Mattin Zaku / eta bere ama // egun batean / e esan zion bere amatxok / jun naz- / e / jun e- / *(begiradarekin helduari laguntza eske)*
5. Heldua: nora? / gaztelura? /
6. K: gaztelura eta ekarri dilue (=dirue) // ta gero esan zion /ta gero eukitu zun otsoa /

Helduak hitza eman bezain laister («hasi kontatzen ipuie oain»), ikasleak lehen zailtasunarekin egiten du topo eta protagonistaren izenarekin ezin asmatua adierazten du keinuka (marrazkia seinalatuz). Helduaren laguntzarekin (hirugarren hitz hartzean) aurrera egiten du, baina berehala berri-

[7] Transkribaketetan «/» bidez isiluneak adierazten dira. Bi marrek («//») marra bakarrak («/») baino isilune luzeagoa adierazten dute.

ro ere helduarengana jotzen du laguntza eske. Aipa liteke laguntza-beharra adierazi dueneko bi kasuetan, helduak emandako konponbideak («Mattin Zaku» eta «gaztelura») bere ekoizpenetan txertatzen dituela, 4. eta 6. hitz hartzeetan.

(3)

1. K: sakun sartu // ta gero / e e e / eraman dute / eraman dute (*marrazkian erregea seinalatuz, helduari laguntza eske*)
2. Heldua: erregearengana /
3. K: erregea-ren-gana ta esan zuten / esan zun e / oi / esan zon // e- erraman (=eraman) (*begiradarekin helduari laguntza eske*)
4. Heldua: oilategira!
5. K: oila-tegira! eta ez! / eta utzi hor! / bale? / ta gero // ta gero / e e zaldi / e / oilar- / oilarrak guztik e akabatu egin dute // eta gero esan zuten / e- erraman / e (*begiradarekin laguntza eske helduari*)

Adibide hau K ikaslearen ipuinean aurrerago dagoen pasarte bati dagokio. Bertan ikusten da ipuin hasierako joera berbera daukala ikasleak, helduari laguntza sarri eskatzen baitio. Hitz zehatz batzuek sortzen diote aurrera egin ezina K ikasleari: «erregearengana», «oilategira». Baina behin helduak konponbidea emanda, ipuineko ekintzak kontatzen jarraitzen du.

Kontaketarako autonomiaren azterketak erakusten du ikasle ia denek lortzen dutela ipuinak euren kabuz kontatzea. A eta H-k behar izandako laguntzatxoak eta batez ere K ikaslearen etengabeko laguntza-beharra lirateke salbuespenak. Euskaraz autonomia-maila hau lortu izana azpimarragarria da, hizkuntza ekoizpenaren kontrola adierazten baitu ipuin-kontaketa bezalako testu-genero monologal bat modu horretan euren kabuz egiteak.

K ikasleari dagokionez, erakutsi dugu gainontzekoen aldean helduaren laguntza sarriago behar duela. Baina ikusi dugu, baita ere, helduaren laguntza jaso ostean bere kabuz aurrera egiteko trebetasuna ere badaukala. Eta hau aipagarria da, izan ere, lehen hizkuntzaren jabekuntzan bost urte ingurekin hasten baitira haurrak hizkuntza ekoizpenean helduaren laguntzatik askatzen (Serra et al., 2000). K-ren kasuan, gainera, ez gara lehen hizkuntzaz ari, baizik eta bigarrenaz.

4.3. **Egitura narratiboa**

Laugarren atalaren sarreran aurreratu bezala, ipuinetako egitura narratiboa aztertuz ikasleek ipuinak planifikatzeko duten trebetasuna aztertuko dugu. Nahikoa ezaguna da ipuinetako edukiak hasiera, korapiloa eta bukaeraren arabera antolatzen direla. Badira, ordea, edukien planifikazio hori baino eredu apur bat landuagoak edo konplexuagoak. Adamek (1992) bost atal nagusi bereizten ditu kontaketetan eta proposamen horixe baliatuko dugu lan honetan. Hauek dira atal edo fase horiek: hasierako egoera, desorekaldia, ekintzen garapena, orekaldia eta amaierako egoera. Hasierako egoera ipuinaren hasierari dagokio. Desorekaldia deitzen den atalean Mattin Zakuk diru bila etxetik alde egitea sartzen da. Ekintzen garapena ipuineko ekintza gehienak biltzen dituen atala da (laguntzaile magikoak aurkitzea, gaztelura iritsi eta erregeak jarritako frogak laguntzaileei esker pasatzea…), noski, ipuineko atalik luzeena. Orekaldian Mattin Zakuk dirua lortzen du erregearen eskutik, eta bukaerako egoeran, Mattin Zakuren etxeratzea eta aberastasun-egoera agertzen dira.

Ikasleen ekoizpenetan begiratu duguna da ea fase edo atal horiek agertzen diren. Baina ez dugu aztertu atal bakoitzeko ekintza eta egoera guztiak agertzen diren, baizik eta ipuineko atalak agertu agertzen diren ikusi dugu, izan zehaztasun txikiarekin edo zehaztasun handiarekin.

4. taula. Egitura narratiboa

	Hasierako egoera	**Desordekaldia**	**Ekintzen garapena**	**Orekaldia**	**Bukaerako egoera**
K	ez	bai	bai	bai	bai
H	bai	bai	bai	bai	bai
R	bai	bai	bai	bai	bai
Z	bai	bai	bai	bai	bai
A	bai	bai	bai	bai	bai
S	bai	bai	bai	bai	bai

4. taulak adierazten duen moduan, K-5;10 ikaslearen ipuinean izan ezik, gainontzeko guztietan atal guztiak ageri dira. K-5;10 ikasleak hasierako egoerarik gabeko ipuina kontatzen du. Honelaxe hasten du ipuina:

(4)

K: egun batean / e esan zion bere amatxok / jun naz- / e / jun e- / (…) gaztelura eta ekarri dilue (=dirue)

Ikusten denez, K ikaslea zuzen-zuzenean desorekaldiko gertaerak kontatzen hasten da. Hori bai, aipa liteke ipuinaren iraganeko denbora-aingu-raketa markatu egiten duela «behin batean» testu-antolatzailearen bidez.

Beste ikasle guztien ipuinetan bost atalak ageri dira. Baina azpimarratu behar dugu atal horiek ez direla ipuin guztietan modu berean agertzen. Batzuetan eduki tematiko gehiago agertzen da, besteetan, gutxiago. Konparatu, esaterako, hasierako egoera bi ipuin hauetan:

(5)

Z: Mattin Zaku / bizi zien Mattin Zaku eta bere ama etxe batean /

(6)

A: Mattin Zaku // Ma- Mattin Zaku eta bere ama / oso pobreak ziren eta ez zeukan batere diruak eta herri horretan bizi zirenak oso aberatsak zi- / oso / e: / (…) pobreak ziren /

Bosgarren adibidean pertsonaien aipamena eta lekuaren zehaztapena egiten dira. Seigarrenean, berriz, pobretasun egoeraren tratamendu landuagoa ikusten da, ez bakarrik pertsonaiei pobretasuna egotziz («oso pobreak ziren»), baita hori beste hitz batzuekin adieraziz ere («eta ez zeukan batere diruak»). Gainera, pobretasun egoera hori pertsonaietatik atera eta orokortu egiten da, beste subjektu berri bat sortuz («herri horretan bizi zirenak») eta horri ere pobretasuna egotziz («herri horretan bizi zirenak… pobreak ziren»). Ezin aipatu gabe laga, noski, bigarren adibidean topatzen diren beste hainbat fenomeno, hauek ere interesgarriak, nahiz eta egitura narratiboarekin ez izan hainbesteko loturarik: pertsona / numero komunztadura-akatsak («oso pobreak ziren eta ez zeukan batere diruak), edo ahozkotasunak

bereak duen errorearen tratamendua («oso aberatsak zi- / oso / e: (…) pobreak ziren»).

Egitura narratibora bueltatuz, beraz, ondoriozta liteke ikasleen testuek ipuin itxura izan badutela eduki tematikoaren aldetik, hau da, oinarri-oinarrizko planifikazio-trebetasunak ageri dira ikasleengan. Gehiago ala gutxiago, denek kontatzen dituzte Mattin Zaku ipuineko atal guztiak. K ikaslearen hasierako egoerarik gabeko testua litzateke salbuespen bakarra. Baina kontaketarako autonomiaren kasuan esan bezala, bospasei urteko haurren ipuinetan oso ohikoa da eduki tematikoaren antolaketan hutsuneak egotea (Berman & Slobin, 1994).

4.4. **Ergatibo kasuaren ekoizpena**

Diskurtso/testuaren eremutik perpausaren gramatikako esparrura egingo dugu ergatibo kasuaren ekoizpena aztertzeko. Aditzaren argumentuetara mugatuko dugu ergatiboaren ekoizpena, hau da, lan honetan ez dugu aditzeko ergatibo markaren ekoizpena aztertuko, eta beraz, alde batera utziko dugu argumentuaren eta aditzaren arteko komunztaduraren azterketa[8].

Ikasleen ergatiboaren ekoizpena behatzeko hiru aukera ezberdin bereizi ditugu: ergatiboaren ekoizpen zuzena ((7) eta (8)), ergatiboaren ekoizpen okerra, edo beharrik gabe ergatiboa ekoiztea (9), eta azkenik, ergatiboaren ekoizpen falta, hau da, behar denean ergatiboa ez ekoiztea ((10) eta (11)):

Ergatiboa zuzen

(7)

K: **erregeak** esan zon / ze nahi dezu?

(8)

Z: **Mattin Zakuk** / jarraittu egin zuen bidea / eta / otsoarekin topatu zen eta galdetu zion **otsoak** /

[8] Barreña eta Almgrenek (2009), ergatiboaz gain, absolutibo, partitiboa eta datiboaren ekoizpena ere aztertzen dute corpus berean.

Ergatiboa oker

(9)

H: eta / gero **oilok erraldoiek***? esaten e / ai zien Matin Zaku dana /

Ergatiboa falta

(10)


H: esan zon ***Matin Zaku** / dirua nahi dut! / eta sartu zan gaztelua eta esan zon // dirua nahi dut! / ta ***erregea** esan zon / ez / hemen alferrarentzat ez dago dirurik

(11)

S: da esan zion ***Mattin Saltu** dirua nahi zola da kiston diru pilloa eman zioten

3. grafikoan biltzen dira ikasleen emaitzak eta nahikoa argi ikusten da ikasleen artean antzekotasunak eta aldeak, bietatik daudela. K ikasleak, esaterako, ergatiboa ekoizten duen bost aldietan zuzen egiten du. Z ikasleak ekoizpen zuzenen portzentajea % 90etik gorakoa du, eta hori K ikasleak baino hiru aldiz adibide gehiago ekoiztuta. A eta S ikasleek antzera jokatzen dute: ergatiboa zuzen darabilte % 70etik gora.

3. grafikoa. Ergatibo kasuaren ekoizpena



Bestelako emaitzak dauzkate H eta R ikasleek. Hri dagokionez, ergatiboa beharrik izan gabe ekoizten du kasu batean. Dena dela, (9)-ko adibidea da, eta bertan adierazi dugun bezala, adibidea ez da oso garbia. Hren gainontzeko adibide guztietan ergatiboa falta da ((10) edo (11) bezalakoak). Absolutibo kasuaz baliatzen da, ergatiboa behar zuenean. Azkenik, R ikaslea dela eta, ez du Hk bezain sistematikoki jokatzen ergatiborik ez ekoizterakoan, baina gehiagotan egiten du horrela, eta adibideen % 30ean bakarrik ekoizten du ergatiboa.

Esan liteke, beraz, aditzaren argumentuetan ergatibo kasua ekoizteko orduan hiru multzotan banatzen direla ikasleak. K eta Z ikasleek beti edo ia beti zuzen eta behar denean bakarrik ekoizten dute ergatibo kasua. A eta S ikasleek, aldiz, ergatiboa behar den zenbait kasuetan ez dute ekoizten. Eta azkenik, R eta batez ere H ikasleak ergatiboa behar denean ez ekoizteko joera daukate.

5. **Emaitzen eztabaida**

Eskualde euskaldunean bizi eta euskaraz eskolatutako ikasle etorkinak euskaraz nola moldatzen diren ikusteko helburuarekin abiatu gara lan honetan. Horretarako, ikasleek ipuinak ekoizteko dispositibo bat erabili da, eta ikusi dugun moduan, ikasleen euskararen datu oso interesgarriak jakiteko aukera ematen du.

Aurrez heldu baten ahotik entzundako ipuina euskaraz kontatzeko nahikoa autonomia badute ikasle etorkin ia denek. Hau garrantzitsua da, ipuin-kontaketak hizkuntzaren erabilerarekiko kontrola eskatzen baitu. Lagunarteko solasean hitzaren kudeaketa eta kontrola unean-unean eta mintzakideen artean kudeatzen den bezala, ikasleei eskarazi zaien testugeneroak hizketaren monologizazioa (De Weck, 1994) eskatzen du, hau da, kontalariak bere kabuz hizketa kontrolatzea edo kontalariak bere jarduna kudeatzea. Ezaugarri hau berea dute ahozko erabilera formalek edo publikoek (Schneuwly, 2003/2005). Kontuan izanik autonomia-maila handia edo erabatekoa duten ikasleak euskara ikasten txikitan ez baizik eta lauzpabost, sei edo bederatzi urterekin hasi zirela, azpimarratzeko

emaitza da hau, dudarik gabe. Hizkuntzaren erabilera landuen ezaugarrietako bat bereganatua dutela dirudi, eta hori, euskara txikitatik ikasten hasi gabe.

Bost urte dituen ikasleak autonomia-maila txikiagoa erakutsi du. Ipuinkontaketan zehar sarri helduarengana jo behar izan du ipuina ekoiztearen hizkuntza jarduera bukaeraraino eramateko. Baina autonomia-falta ohikoa da bospasei urteko haurrengan (Bamberg, 1987; Berman and Slobin, 1994). Guk geuk ere Mattin Zaku ipuin bera egoera komunikatibo berean ekoiztu duten bospasei urteko beste hainbat ikaslerengan ere autonomia-falta bera ikusi dugu. Ikasleotako batzuek euskara etxeko hizkuntza dute, eta beste batzuk, berriz, eskolan bizpahiru urtetatik ikasten ari dira (Almgren et al., 2008; Almgren et al., prentsan). Zentzu honetan, K ikaslearen jokabidea ez da batere arraroa.

Ipuinetako egitura narratiboari dagokionez, ipuinetako atal guztiak ageri dira ia ikasle denen ekoizpenetan. Ipuinak planifikatzeko oinarrizko trebetasunaz jabetu direla esan liteke. Hemen ere salbuespena K ikaslea izan da baina berriro azpimarratu behar da etxetik euskaldun zein eskolan txikitatik euskaldundu diren ikasleengan ere topatu ditugula egitura narratibo osatugabea duten ekoizpenak. Dena dela, gainontzeko ikasleen ipuinak ere ez dira berdinak egitura narratiboari dagokionez. Izan ere, ipuinaren atal nagusiak ekoizteak ez du esan nahi denek ere konplexutasun berberarekin «betetzen» dituztenik atal horiek (gogoratu (5) eta (6) adibideen arteko aldea).

Ergatibo kasua dela eta, aldeak agertu dira ikasleen artean. Biren ekoizpenak beti edo ia beti zuzenak izan dira. Hauen aldean, beste bi ikaslek ergatiboa sarriago utzi dute ekoiztu gabe. Eta azkenik, beste bik ergatiboa ez ekoizteko joera erakutsi dute. Ezeizabarrena et al. (prentsan) lanean ikusi dugu etxetik euskaldun (euskara H1) zein eskolan euskaldundutako (euskara H2) bi haur taldek bost eta zortzi urterekin ergatiboaren ekoizpenean ez dutela berdin-berdin jokatzen. Euskara lehen hizkuntza dutenek bost urterako ergatiboa behar bezala ekoizten dute (behar denean erabiliz). Aldiz, etxetik erdaldun izanik euskara eskolan txikitatik ikasitakoek akats gehiago egiten dute. Ergatiboa ekoiztu gabe uzten dute sarri-sarri. Bai bost

urterekin, eta berdin zortzirekin ere. 12 haurrek osatutako taldeen emaitza orokorrak dira hauek, talde joerak, nolabait esateko. Talde barruan litekeena da haur batzuek beste batzuek baino hobekiago moldatzea. Horregatik, agian urrutiegi joatea litzateke adieraztea gure ikerketako ikasle etorkin batzuen (K, A, Z eta S-ren) emaitzak H2 taldekoenak baino hobeak direla ergatiboaren ekoizpenean. Datuak sakonago begiratu beharko dira. Dena dela, ezaugarri bat partekatzen dute etxetik euskaldunek, txikitatik euskaldundutakoek eta ikasle etorkinek: behar ez denean ez dute ergatiboa ekoizten (gogoratu (9) adibidea).

Oro har, beraz, esan liteke aztergai ditugun ikasle etorkinek euskaraz hainbat trebetasun lortu dutela. Zalantza askorik gabe baiezta liteke ikasleok euskararen ikaskuntzan erakutsitako emaitza on hauek ikasleak bizi diren testuinguru euskaldunean kokatu behar direla. Eskolaren eraginak nabarmena dirudi hor. Murgilketa bidezko irakaskuntzak emaitza onak eman ditzakeela berriro baieztatzen da. Eskolaz kanpoko euskararen erabilera hedatuak ere badu zerikusirik, noski. Ikasle hauek etxetik kanpo euskarazko testuinguruan murgilduak daude eta baldintza horietan euskara ikastea posible da. Ipuin-kontaketetan aztertutako alderdiek behintzat hori erakusten dute.

6. **Azkena**

Sarreran adierazi bezala, ikasle etorkinen etorrerak erronka berri ugari ekarri dio eskolari. Ikerketaren beharra nabarmena da. Artikulu honetan, ikasleak euskaraz nola moldatzen diren aztertzeko lehen saiotxo bat egin da. Ikasleen artean dauden diferentzietan ere ez gara apenas sartu. Ipuinak sakonago aztertu beharko dira, ikusteko, adibidez, ea adinaren arabera aldeak dauden, edo ea euskara adin ezberdinetan ikasten hasi izanak eraginik baduen. Halaber, ikasle bakoitzak euskararekiko lehen kontaktutik ipuinaren grabaketa egin arteraino egindako euskararekiko ibilbidea sakonago aztertu behar litzateke. Nola ez, ikasle hauek ikasgelan egiten dutena aztertzeak ere pista ugari emango liguke euskaraz lortutako maila azaltzeko orduan.

Inondik ere bazterrean utzi behar ez litzatekeen beste ikergai bat ikasle hauen etxeko hizkuntzen garapena da. Harrera-hizkuntzak ikastearekin batera jatorrizko hizkuntzak galtzea munduan hedatuegi dagoen fenomenoa da, zoritxarrez. Dudarik gabe, hemen ere erronka handia dauka eskolak. Zenbat eta ikerketa gehiago egin esparru hauetan guztietan, orduan eta tresna zehatzagoak garatu ahal izango dira erronka berriei behar bezala erantzuteko.

Bibliografia

ADAM, J.M., 1992, *Les textes: types et prototypes*. Paris : Nathan.

AIERDI, X., 2008, « Hego Euskal Herriko atzerri immigrazioa », *Jakin*, 165 (2008), 11-30.

ALMGREN, M., BELOKI, L., IDIAZABAL, I. & MANTEROLA, I., 2008, « Acquisition of Basque in successive bilingualism: data from oral storytelling », in P. SIEMUND, & N. KINTANA (ed.), *Language Contact and Contact Languages*. Amsterdam : John Benjamins, 239-259.

ALMGREN, M., IDIAZABAL, I. & MANTEROLA, I., « Euskararen ikaskuntza H1 eta H2 gisa 5 eta 8 urte bitartean », *Euskera*, 1-2 (2009) 683-721.

ARRATIBEL, J. & ZUBIZARRETA X., 2001, *Txomin Ipurdi*. Donostia : Erein.

BAMBERG, M.G., 1987, *The Acquisition of Narratives*. Berlin : Mouton de Gruyter.

BARREÑA, A. & ALMGREN, M., 2009, « Similarities and differences observed in case marking in the acquisition of Basque as L1, 2L1 or child L2 », *Ergativity 2009* kongresuan aurkeztutako komunikazioa. Bilbon, 2009ko azaroaren 5ean.

BELOKI, L., IDIAZABAL, I. & MANTEROLA, I., 2005, « Bost urteko haur elebidunen euskerazko ipuin-kontaketak ». *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 56 (2005) 79-96.

BERMAN, R. & SLOBIN, D., 1994, *Relating events in narrative : a crosslinguistic developmental study*. Hillsdale, New Jersey : Lawrence Erlbaum.

BRONCKART, J.-P., 1996, *Activité langagière, textes et discours. Pour un interactionnisme socio discursif*. Paris: Delachaux et Niestlé. Gaztelaniazko itzulpena: 2004, *Actividad verbal, textos y discursos. Por un interaccionismo socio-discursivo*. Madrid : Infancia y Aprendizaje.

DE WECK, G., 1994, « Las dificultades de lenguaje al comienzo de la escolaridad», *Infancia y Aprendizaje*, 23 (1994) 55-68.

DOLZ, J. & SCHNEUWLY, B., 1998, *Pour un enseignement de l'oral. Initiation aux genres formels à l'école*. Issi-les-Moulineaux : ESF.

ETXEBERRIA, F. & ELOSEGI, C., 2009, « Basque, Spanish and Immigrant Minority Languages in Basque Schools », in J. CENOZ (ed.), *Teaching through Basque. Achievements and Challenges.* Clevedon : Multilingual Matters.

Europako Parlamentua, 1998, *Étude sur l'éducation: l'Enseignement des immigrés dans l'Union Européene.* Luxenburgo.

Euskararen Datu Basea. www.soziolinguistika.org/edb/

IDIAZABAL I., 2003, « Euskal Irakasteredu elebidunak etorkizunari begira », in M. ATXAGA (ed.), *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena. Sabino Arana Elkargoaren Jardunaldiak 2001*. Bilbao : Fundación Sabino Arana Elkargoa, 341-353.

IDIAZABAL, I. & LARRINGAN, L.M. (ed.), 1998, *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratze baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*. Gasteiz : EHU eta Arabako Foru Aldundia.

IDIAZABAL, I. & GARCIA, I. (ed.), 2005, *Euskal testuen azterketa eta euskararen irakaskuntza. Ikerketak eta gogoetak*. Ikastaria, 15.

IDIAZABAL, I. & MANTEROLA, I., « Euskal eredu elebidunak, murgilketa eta hizkuntzen irakaskuntza bateratua: kontzeptuen berrikusketa », *Euskera*, 54 (2009) 2-1. zatia, 463-504.

LARRINGAN, L.M., « Testua, testu-generoa eta hizkuntza ikas/irakaskuntza », Euskera 54 (2009) 2-1 zatia, 505-539.

PLAZAOLA, I., ALONSO, M.P. (ed.) 2007, *Testuak, diskurtsoak eta generoak. Euskal testuen azterketa korrontea*. Donostia : Erein.

SCHNEUWLY, B., 2003, « Enseigner la paroble publique : une approche socio-historique », in Programme national de pilotage, *Didactiques de l'oral*. Caen : CRDP de Basse Normandie, 58-67. Euskarazko itzulpena : « Jendaurreko hizketaren irakaskuntza: hurbiltze sozio-historikoa », in IDIAZABAL, I. & GARCIA AZKOAGA, I. (ed.), 2007, *Ahozko hizkuntza: euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan*. EHUko ikasmaterialen sare argitalpenak. http://testubiltegia.ehu.es/

SERRA, M., SERRAT, E., SOLÉ, R., BEL, A. & APARICI, M., 2000, *La adquisición del lenguaje*. Barcelona : Ariel.

Etorkinak eta euskara. Sakanako esperientzia

ZESTAU BARAIBAR, Begoña
Sakanako Mankomunitatearen Immigrazio Zerbitzuko Teknikaria

Jasotze data: 2010-07-14
Onatze data: 2010-07-14

20.000 biztanle inguru ditu Sakanak (Nafarroa). Horietatik, %7,8 etorkina. Euskararekin batera gaztelania, arabiera, errumaniera, bulgariarra, wolof, amazigh… entzun daiteke bertako kaleetan.

Etorkinak eta euskara binomioan tinko aritzen da Sakanako Mankomunitatea lanean: euskararen berri zabaltzen; hizkuntza minorizatua dutenekin identifikazioa, lotura afektiboak sortzen; ama hizkuntzaren garrantzia lantzen; euskararekiko emozio zein jarrera baikorrak sustatzeko jarduerak antolatzen… Nola hori dena? Koherentziaz jokatuz, beraienarekiko benetako interesa adieraziz, enpatiaz, zinezko hurbiltasunez, elkarlana bultzatuz, lehenengo harrera pausoak sakandarrok emanez, baikortasunez, kulturartekotasunaren bidetik pauso txikiak emanez… Baditugu hori dena posible egiten duten eredu batzuk.

Hitz gakoak: Sakana, etorkina, hizkuntza minorizatua, elkarlana, kulturartekotasuna.

La comarca de Sakana (Navarra) tiene en torno a un 7,8% de población inmigrada. El castellano, rumano, búlgaro, árabe, wolof, amazigh… son junto con el euskera algunos de los muchos idiomas que se escuchan en sus calles y pueblos.

Desde la Mancomunidad de Sakana se viene trabajando en el binomio inmigración y euskara: favoreciendo la identificación y afecto con quienes hablan una lengua minorizada; informando de la existencia del euskera; promoviendo actitudes y sentimientos positivos hacia nuestro idioma… Todo ello actuando coordinadamente, con coherencia y empatía; mostrando un interés real hacia lo que es suyo;

con actitud positiva; y caminando por el sendero de la interculturalidad. Algunas experiencias nos dicen que es posible conseguirlo.

Palabras clave: Sakana, persona inmigrada, lengua minorizada, trabajo en común, interculturalidad.

Sakana (Navarre) compte environ 20.000 habitants. 7,8% d'entre eux sont des immigrants. A côté du basque, on peut entendre dans les rues de cette commune de l'espagnol, de l'arabe, du roumain, du bulgare, du wolof, de l'amazigh,...

Les immigrants et la langue basque ont une relation très étroite et travaillent en binome dans la communauté de communes de Sakana : diffusion de l'information sur la langue basque, identification avec les autres langues minorisées, naissance de liens affectifs ; travail sur l'importance de la langue maternelle ; organisation de rencontres en vue de favoriser des émotions et des comportements positifs vis-à-vis de la langue basque... Comment cela est-il possible ? En jouant sur la cohérence, en manifestant un véritable intérêt envers eux, en favorisant un travail de collaboration empreint d'empathie et de proximité, les habitants de Sakana se montrant accueillants, positifs, en faisant des petis pas vers l'interculturalité…

Mots-clés : Sakana, immigrant, langue minorisée, collaboration, interculturalité.

The Sakana area (Navarre) has about 20,000 inhabitants. 7.8% of them are immigrants. Spanish, Arabic, Romanian, Bulgarian, Wolof, Amazigh, etc. can be heard alongside Basque in the streets there.

The Association of Town Councils in Sakana has been working hard on the immigrant-Basque binomial: by spreading information about Basque, by identifying with those who have a minority language, by creating affective bonds, by working on the importance of developing the mother tongue, by organising activities to foster positive emotions and attitudes with respect to Basque, etc. How is all this done? By acting consistently, by expressing a real interest in the immigrants' languages through empathy and sincere proximity, and by promoting co-operation, while the inhabitants of Sakana take the initiative when receiving the newcomers, and to all this is added a dose of optimism while small steps are taken along the road of interculturality, etc. We have some models that make all this possible.

Key Words: Sakana, immigrant, minority language, co-operation, interculturality.

1. Sarrera

Sakanako eskualdea Euskal Herriaren erdigunean kokatua dagoen harana da. Nafarroako ipar-mendebaldeko eskualdea da, 15 udalez osatua. Hiru azpi-eskualdetan banatu daitezke Sakanako udalak: Arakil (Irurtzun, Arakil, Irañeta, Uharte Arakil, Lakuntza, Arruazu) Aranatz (Ergoiena, Arbizu, Etxarri Aranatz) eta Burunda (Bakaiku, Iturmendi, Urdiain, Altsasu, Olazti eta Ziordia). Eta azpi-eskualde bakoitzean zerbitzu gehienak (osazun zentroak, gizarte zerbitzuak, euskara zerbitzuak…) biltzen dituen gune bat dago: Altsasu (Burundan), Etxarri Aranatz (Aranatzen) eta Irurtzun (Arakilen).

Sakanako udalerriak zenbait zerbitzu eskaintzeko Mankomunitatean bildu dira: ur hornidura, zaborren bilketa, euskararen sustapena, etxeak zaharberritzeko bulegoa, kirol zerbitzua, eta duela oso gutxi immigrazio zerbitzua, etorkinei harrera egokia emanez, Sakanan gizartera daitezen.

20.000 biztanletik gora ditu Sakanak. Horietatik, %7,8 etorkina da.Talderik esanguratsuenak Marruekos eta Ekuador aldetik etorritakoenak dira, Errumania eta Bulgariarren taldeak atzetik dituztelarik.

Immigrazioaren fenomenoa nahiko berria da Sakanan, baina egia da erabateko gorakada egin duen fenomenoa dela. Hala, 1998.urtean etorkinen portzentaia, %0,73koa zen, 2000.urtean %1,69koa eta gaur egun %7,8koa, datu ofizialen arabera.

Hala eta guztiz, hazkunde hori Nafarroa mailan baino mantsoagoa izan da. 2000.urtean Nafarroak %1,73ko etorkin portzentaia zeukan, eta Sakanak %1,69koa. 2008an aldiz Nafarroak %10,4ko etorkin kopurua zeukan, Sakanaren %7,8aren aurrean.

Sakanako herri ezberdinetan zehar, etorkin kopuruaren banaketa erabat ezberdina da. Egia da portzentai kopururik altuena, biztanle kopuru altuena duten herrietan kokatzen dela (Altsasun %7,9; Irurtzunen %15,4… adibidez), eta estrategikoki Iruñea nola Gasteizerako sarbidean kokatuak dauden herrietan batzen dela etorkinen kopuru handiena (aipaturiko bi herriak adibide berriro).

Euskara da gaztelaniarekin batera Sakanako hizkuntza. Euskarazko bi komunikabide daude Sakanan: *Guaixe* Astekaria, etxeetan banatzen dena, eta Beleixe Irratia, Sakana eta inguruko eskualdeei buruzko informazioa egunero ematen duena. Azken urte hauetan, immigrazioa dela eta, bi hizkuntza hauetaz gain, beste hizkuntza batzuk entzun daitezke Sakanako herrietan zehar: arabiera, errumaniera, bulgariarra, wolof, amazigh… Horien artean arabiera, errumaniera eta bulgariarra ere ikus/irakur daitezke kale, taberna, ikastetxe, gizarte zerbitzu, udal, pareta… eta gune publiko anitzetan.

Zonalde industriala da Sakana: metalgintza eta eraikuntzan batipat. Etorkinak lanbide horietan aritzen badira ere nagusiki, azken boladan zerbitzuen arloan jarduteak gora egin du (ostalaritza, eta pertsona heldu zein neska-mutilen zaintza batik bat).

Sakanako Mankomunitateak beti erakutsi du sentiberatasun berezia Sakanan bizi diren etorkinak bertan integratzeari dagokionez. Hala, asko izan dira bertako euskara zerbitzutik hasiera batean eta gaur egun immigrazio zerbitzutik ildo ere horretan gauzatu diren egitasmoak.

2005.urtean etorkinek Sakanan bizi zuten egoeraren inguruko inkesta bat burutu zen. *Ongi etorri Sakanara* gida, eta hezkuntza gida batzuk argitaratu ziren ondorengo urteetan hizkuntza ezberdinetan (euskara, gaztelera, ingelesa, frantsesa, arabiera, errumaniera, eta bulgariera).

Euskal hizkuntza eta kulturara hurbiltzeko ikastaroak, D ereduaren aldeko matrikulazio kanpainak, etorkinentzako harrera planak, etorki(zu)nak, jardunaldiak eta saria… eta abar luze bat garatu da etorkinen integraziorako bideak/ateak ireki/erraztea helburu.

Etorkinak eta euskara binomioan tinko aritzen da Sakanako Mankomunitatea lanean, ezinbestekoa baita ildo horretan aritzea eta are gehiago etorkinen integrazioaz ari bagara.

Hala, asko dira irekitako lan bideak:

– euskararen berri ematea zenbait etorkinei (askok behin hemen daudela ikasten baitute euskara hizkuntza bat dela);

– hizkuntza minorizatua duten etorkinekin identifikazioa, berdintzen gaituenarekiko lotura afektiboak sortzea;

– ama hizkuntzaren garrantzia lantzea (beraiena den hizkuntzari ez uztea, eta seme-alabei erakutsi ahal izateko bideak irekitzea, erraztea); euskararekiko emozio baikorrak sentituaz berarekiko jarrera baikorrak sustatzeko jarduera ezberdinak antolatzea (euskarara hurbiltzeko ikastaroak helduentzat, aisiari begira euskarazko jarduerak txikienentzat…);

– argitaratzen den dena hizkuntza ezberdinetan kaleratzea, euskara oinarrizko hizkuntzatzat hartuz, baina beraiena den ama hizkuntzarekiko errespetua eta jakinmina adieraziz;

– kezkatzen dituzten gaien inguruko informazio zehatza eta zuzena helaraztea (seme-alaben matrikulazioari begira egindako kanpainak, gaztelera ikasiko ez duten beldurraren inguruan informazio zuzena zabalduz…)

– aberasgarri ditugun ezberdintasunen gainetik, berdintzen gaituzten ikur kulturaletan (hizkuntza beste askoren artean) indarra jartzea , horrela kulturartekotasuna landuz, hau da, kultura ezberdinetako pertsonen arteko hartu-emana.

Ez da lan erraza, ezta egun batetik bestera lortuko dena. Gauza asko baitira kontuan hartu beharrekoak: kanpotik, munduko leku ezberdinetatik Sakanara bizitzera etorri diren auzokide berrien premiak eta beharrak; euskararekiko ezagutza edo ezagutza eza, eta berarekiko interesa; gaur egungo krisi ingurunea; lana egiteko aukerak edo aukera ezak; haranaren zabalera fisikoa; hemendik-hara mugitzeko aukerak edo zailtasunak; bizipen afektiboak; han utzitako mundu eta bizimoduaren bete ezina (familia, elikadura, klima, hizkuntza, ohiturak, bizia ulertzeko era, harremanen egituraketa, gizon-emakumeen arteko rolak, erlijioa, hizkuntza, hizkera, lurra bera…)

Baina koherentziaz jokatuz, beraiena denarekiko benetazko interesa adieraziz, enpatia landuz, zinezkoa den hurbiltasuna eskainiz, profesionalen arteko elkarlana landuz, eta beraienganako lehen pausoak sakandarrok emanez, pixkanaka-pixkanaka lortuko dugu –baikortasuna bihotzetan– Sakanara bizitzera etorri diren etorkinen integrazioari bideak erraztea, ateak irekitzea, etorkinak eta euskara binomia eskutik hartuta kulturartekotasunaren bidetik pauso txikiak ematen ikustea. Lortuko dugulakoan gaude.

2. Historia pixka bat. Sakanako mankomunitatearen immigrazio zerbitzua sortu zenekoa

Sakanako Mankomunitateak beti erakutsi du sentiberatasun berezia immigrazioari dagokionez, eta Sakanan bizi diren etorkinak bertan integratzearen inguruan.

Hala, Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuaren ekimenez, etorkinei zuzendutako euskara ikastaroak, hizkuntza anitzetan (euskara, gaztelera, ingelesa, frantsesa, arabiera, errumaniera, eta errusiera) kaleratutako hezkuntza eta baliabide gidak, etorki(zu)nak jardunaldiak zein sariak, eta gisako ekimenak garatu izan ditu 2005. urtetik hasita.

Urte horretan bertan inkesta bat egin zen, Sakanan bizi ziren etorkinen egoera zein zen ezagutzeko asmoz.

Beste ondorio askoren artean, etorkinei zuzenduriko immigrazio zerbitzu baten premia agerian geratu zen inkesta horren bidez. Bere egunerokoan aurki zitzaketen egoera/zailtasun/premiei erantzuna edo irtenbidea emango zien zerbitzu bat.

Hortaz, Immigrazio Zerbitzua sortu bitartean, eta Nafarroako Gobernutik jasotako dirulaguntza baten bidez, Etorkinentzako Harrera Plan (EHP) bat garatu zen Sakanako Mankomunitatean (gizarte zerbitzuetako beste mankomunitateekin batera) 2006 eta 2007. urteetan zehar euskara zerbitzuarekin koordinazio estuan, besteak beste.

Hasiera horietan EHP horrek, urtean lau hilabeteetako iraupena soilik izan zuen, hau da, behin eta Nafar Gobernutik diru-laguntza jaso eta gero gauzatzen zen plana, irailetik abendura bitartean hain zuzen, bai 2006an nola 2007an.

Esperientzia laburrak baina emankorrak izan ziren biak. Gogobetetze maila altuak sortu zituen, bai sakandar berrietan nola bertako biztanlerian. Parte hartze maila altua izan zen bi urteetan, eta zerbitzura egindako eskaera kopuruak nabarmen egin zuen gora 2007.urtean. Gisa guztietako eskaerak: lana bilatzekoak, gaztelera zein euskara ikastekoak, gizartean parte hartzeko bideak eta moduak, jarduera ezberdinak antolatzekoak, ghettoen

sorrera ekiditzeko eskaerak… bai etorkinek nola sakandarrek zein bertako gizarte eragileek egindako eskaerak izan ziren denak.

Gauzak hala, Sakanako Mankomunitateak etorkinen integraziora begira apustu itzela egin zuen, eta 2008.urtean Immigrazio Zerbitzua sortu zuen. Horrek aurrerapausu ikaragarria suposatu zuen, EHP gehiago ez etetea ekarri baitzuen batetik, eta ordutik gaur arte Harrera Plan horretan garatzen diren jardueren gehiengoa sakandar ororen (sakandar berriak barne alegia) proposamenetatik abiatzea bestetik.

Hala, Immigrazio Zerbitzuak, sakandarren zerbitzua izateko bidean pauso txikia baina esanguratsua eman zuen.

Ordutik etengabe ari da lanean Immigrazio Zerbitzua, etorkinentzako harrera plana garatzen; immigrazio fenomenoaren aurrean Sakanako biztanlegoa sentsibilizatzeko jarduerak garatzen; kultura ezberdinetako pertsonen artean hurbiltasuna eta amankomuneko ikurrak bilatzen; elkarren arteko topaketak proposatzen eta bideratzen; berdintasunean oinarritutako hartu-emana lantzen; egitazko berdintasunerako bidea jorratzen…

3. **Etorkinekin zertan? kontzeptuak argitzen…**

Kultura ezberdinak elkarren ondoan dauden ingurune batean, ugariak dira hori dela eta eraiki daitezkeen eskenatokiak. Sakanak egin du bere aukera, baina hori baino lehen argi ditzagun oso laburki bada ere immigrazioaren inguruko hainbat kontzeptu.

Asimilazioa

Akulturazioa ere deitzen zaio. Egoera honetan, auzo berriek (etorkinek) ikaragarrizko esfortzua egiten dute iritsi diren gizarte berrian integratzeko: harrera gizartearen kultura ikurrak barneratzea hain zuzen, hau da, ikur horiek asimilatzea, bereak diren kultura ikurrak galtzera iristerarino, kasu askotan.

Oso egoera erraza da harrera gizartearentzat, baina kostu handikoa etorkinentzat, beraien izatearen galera suposa baitakieke (akulturazioa).

Baina egoera hau oso urrun dago benetako integraziotik.

Kulturaniztasuna

Kulturaniztasuna bi kultura ezberdin edo gehiago elkarren ondoan egote soilarekin ematen den egoera da, hau da, kultura bat baino gehiago bizi diren guneetan ematen dena.

Elkarbizitza horren nolakotasunean dago gakoa ordea.

Eman liteke egoera bat non ezberdinak diren kulturak elkarren ondoan bizi diren, elkarrekiko errespetua adieraziz, baina horretan soilik geratuz. Hori ere benetako integraziotik urrun geratzen den egoera litzateke.

Zentzu horretan, kulturaniztasunak badu beste kulturekiko errespetua oinarritzat, baina horretan geratzen da, harago joan gabe, gehixeago sakondu gabe.

Kultura artekotasuna

Egoera honetan, kultura ezberdinetako pertsonek, errespetua adierazten dute besteekiko eta elkarren artean. Ezberdina denarekiko. Baina ezberdintasun horri balio baikorra ematen diote, aberastasun iturritzat hartzen dute. Hala ere, eta horren gainetik, amankomuneko ikurrei ematen diote balio nagusiena, ezberdintasunetatik abiatuz, amankomuneko guneak bilatzeari, hurbiltze puntuei.

Hau da, ezberdina denari balio baikorra ematen diote, aberastasun iturri bezala ikusten dute, baina horren gainetik, «ezberdinak» diren pertsonek dituzten amankomuneko ikurrak, berdintzen dituzten arloak bilatzen ditu, eta horiei ematen die indarra eta balioa.

Zentzu horretan, ezinbestekoa bihurtzen da kultura ezberdinetako pertsonen arteko hartu-emana, harremanetan sakontzea.

Integrazioa

Prozesu graduala da, zeinetan harrera gizartera etorritako auzokide berriek partehartze aktibo eta osoa duten maila guztietan (politikoa, soziala, kulturala, ekonomikoa…).

Bere indarra bizirik dagoen harremanean dago, kulturalki ezberdinak diren pertsonen arteko harremanean, horrek ezberdinak egiten dituzten ikur kulturalak galtzera eramango ez dituelarik.

Ez da puntu fijoa, mugiezina. Oso alderantziz, prozesu aldakorra da, bizia, erabatean berdefinitzen ari dena. Bere erantzunkizuna publikoa da, gizarte osoaren esku dago (gobernu, izate anitzeko erakunde eta entitateak, banakoak…), eta pertsonaren garapenean maila guztietan eragiten duen prozesua da: maila juridikoan, politikoan, kulturan, hezkuntzan, osasun arloan, lan munduan, harremanak izateko garaian…

Estereotipoak

Pertsona edo talde baten inguruan dauden sinismenak dira: «ijitoak lapurrak dira»; «hegoamerikarrak alferrak», «euskaldunak terroristak»…

Orokortasunetara garamatzate estereotipoek, eta horrek gehienetan akatsetara.

Bai zentzu baikorrean nola ezkorrean ematen dira «beltzek ikaragarrizko erritmoa dute» izan liteke estereotipo baikor baten adibidea.

Komunikabideetan entzundakoan dute oinarria, eta gure barruan sortzen dira aurreritziak justifikapen bezala.

Oso mingarriak izaten dira orokorrean pairatzen dituen pertsonarentzat, talde ikurrak pertsonari gehitzen baitzaizkio, bere banakotasuna ukatuz nolabait.

Talde ezberdinen inguruan daukagun informazio zabala sailkatzeko baliagarri suerta daitezke, baina hala ere, informazio hori nahiko azalekoa izaten da orokorrean. Horregatik tentu handiz ibili beharreko kontua da estereotipoena.

Aurreiritziak

Jarrera da.

Hitzak berak dioen bezala, iritzi bat egitean datza, baina aldez aurretik iritzi bat egitea.

Orokorrean okerreko jarrera da, hau da, parean/aurrean/ondoan daukagun pertsona/taldearen inguruan daukagun irudi okerra zuzena ez dena.

Jarrera ikasia da, sentimentu bat sortzen diguna; sentimendu honek jokabide bat hartzera garamatza, horien artean bazterkeria.

Adibidea: ijitoak lapurrak direlako sinismenetik abiatzen bagara, estereotipo ezkor honek beldurra sentitzera eraman gaitzake; eta sentimendu honek iheserako jarrera hartzera, edota talde honekiko bazterkeria jarrera hartzera.

Migrazioa

Migrazioa ematen da pertsona edo talde bat bere jatorri gunetik beste batera desplazatzen denean.

Desplazamendu horrek ordea, ezaugarri batzuk bete behar ditu migrazio izan dadin:

– ingurune fisikoa: geografikoki bereiztuta dauden bi zonaldeen arteko desplazamendua behar du izan.

– denbora: denboran iraunkorra behar du izan, esanguratsua edota betirako ematen dena.

– arlo soziala: aldaketa esanguratsua suposatzen du ingurune bai fisikoan nola sozialean.

Asko dira migratzeko arrazoiak (ekonomikoak, politikoak, kulturalak…) baina migratzearen azken helburua egoera hauek hobetzea da, bizi baldintzak hobetzea, azken finean.

Etorkina

Migrazio prozesu bat hasi ondoren harrera gizartera iritsi den pertsona da. Aldi berean, bere lurraldean migratzaile bihurtzen da, bere jatorria utzi duen unetik.

Sakanako Mankomunitatearen Immigrazio Zerbitzutik, sakandar berriez, edota auzokide berriez hitz egitea egokiago deritzogu. Etorkin hitzak berak bukatzen ez den prozesu baten ikutua baitu, etorkin izateari inoiz utziko ez baliote bezala.

Modu berean, Immigrazio Zerbitzutik, eta orain arteko ibilbidea motza izan dela kontutan hartuz, emandako pausuak txikiak izan badira ere, kultura artekotasunetik ibiltzeari egokiago dela deritzogu.

Hori da Sakanako Mankomunitatearen Immigrazio Zerbitzuaren apostua, sakandar berriekin kulturartekotasunaren bidean pausoak ematen jarraitzea elkarbizitza baikor eta osasuntsu baten bila, zeinetarako, eta sakandar berrien integraziorako ezinbestekoa dugun beraien partehartze aktibo eta benetakoa maila guztietan.

Orain artean izandako esperientzia labur bezain emankorretan oinarritzen gara, zeinaren bidez, ohartu garen gehiago direla berdintzen gaituzten ikurrak, ezberdintzen gaituztenak baino.

Izan ere Sakanan badugu lelo bat: desberdinak gara **Sakanan**, hau da, Sakanan bizi garen auzokideok desberdinak bagara ere, (bakoitza bere sinismen, ohitura, erlijio, hizkuntza, festa zein ospakizunekin, balio, harremanetarako egituraketa modu propioekin, bizi filosofia batekin, sukaldatzeko era bereziekin…, Sakanan denak berdinak gara, eskubide zein betebehar berdinak dituzten bizikideak.

Bakarrak egiten gaituzten ezberdintasun horiek aberastasun iturritzat hartzen ditugu Immigrazio Zerbitzutik.

Jarrera honek arrazoi ezberdinengatik izan edo ditugun estereotipoak hausten hastera garamatza, eta hainbat pertsonekiko izan ditzazkegun aurreiritzien jabe egitera, eta horiek eraldatzeko esfortzu edo eginahal txikiak ematera, gizarte kohesioa lortzearren, alegia.

Erabatean aldatzen ari den Sakanan gaude, kulturalki ezberdinak diren adierazpenak gero eta nabarmenagoak eta ugariagoak diren Sakanan.

Gustatu ala ez, badirudi hori dela etorkizuna.

Badirudi immigrazioaren fenomenoak gero eta gehiagora jarraitzeko joera izanen duela datozen urteetan, arrazoi anitzengatik, eta modu ezberdinetan; baina geldiezineko fenomenoa izanen dela esan liteke.

Hortaz, eta kulturalki anitza den Sakana denon artean osatuko dugunez, goazen ba ezberdintasunetatik abiatuz, baikortasunez beteriko elkarbizitzarantz, norberaren identitatea eta kultura ikurrak galtzeko beldurrik gabe, batak ez baitu derrigor bestea zertan ekarri behar.

Zentzu horretan, Sakanako Mankomunitatearen Immigrazio Zerbitzuak ateak irekiak ditu immigrazioaren inguruan edozein gauza antolatu, jakin, proposatu… nahi duen edonori, bai sakandar nola sakandar berriei.

Bidea ez da xamurra, ezta erraza ere izango ziurrenik. Eta emaitzak ere ez ditugu egun batetik bestera ikusiko. Baina aldeko aldagai asko ditugu: kulturartekotasunaren bidetik abiatzeko hartutako erabakiak emandako emaitza baikorrak, eta bide horretatik sakontzen jarraitzeko arrazoi asko ematen dizkigunak; Sakanako bizilagunaren jarrera baikorra sakandar berrien integrazioari begira, eta sakanako gizartean partehartzera gonbidatzeko prestutasuna eta nahia; ezberdintasunetatik ikasteko gogoa, amankomuneko ikurretan indarra jarriaz… Immigrazio Zerbitzura luzaturiko proposamenen gorakada nabarmena…

4. **Immigrazio zerbitzua**

Argitu beharra dago, Immigrazio Zerbitzutik garatzen den Etorkinentzako Harrera Plana (EHP), Sakanako Mankomunitatetik abiatzen dela baina bertan dauden oinarrizko gizarte zerbitzuetako hiru mankomunitateekin batera (Irurtzungoa, Etxarri Aranazkoa eta Altsasukoa). Hau da, egitasmo hori lau mankomunitateek elkarrekin gauzatzen dute 2006. urteaz geroztik.

Argitu beharra dago ere, naiz eta Etorkinentzat Harrera Plana izan, plan hori ez zaie sakandar berriei soilik eskaintzen; orduan baztertu/bereizi eginen baikenituzke, eta ez integraziorako bideak ireki edota erraztu. Hortaz, gure helburuen aurka joko genuke.

Plana aurrera eraman ahal izateko Nafarroako Gobernutik jasotzen den diru-laguntza eskuratu ahal izateko baldintzari erantzuten dio izenak.

Baina harrera plan hori sakandar guztiei zuzenduta dago: adin, jatorri, genero… guztietako sakandarrak, etorri berriak eta hala ez direnak; etorri berrien artean beraien egoera juridiko-administratiboa edozein delarik.

Hau da, Sakanan bizi den orori, biztanle guztiei zuzendutako plana da.

Alde bakarra, plan horretatik bideratzen diren jarduera ezberdinen helburuetan dago.

Hortaz, EHP hortatik garatzen diren jarduera guztiak, sakandar berriak eta sakandarrak elkartzen ditu, hori baita gure ustean, kulturartekotasuna lantzeko bidea, eta integraziorako bideak errazteko modu egokietako bat: kultura ezberdinetako pertsonak elkarren artean hartu-emana suposatuko duen harremanean jartzea.

Harrera Plan horretan, pertsonaren garapenean eragiten duten arlo ezberdinetara bideratutako jarduerak jorratzen dira: lana, hezkuntza, osasuna, emakumea, formakuntza, haur eta gazteria, partehartzea, gizarte zerbitzuak, tratu berdintasuna, harrera… jatorri ezberdinetako pertsonen integrazioaz ari baikara, hortaz, ezinbestekoa bihurtzen da pertsonaren garapenera begirako arlo denak jorratzea.

Jakin badakigu elkarbizitza ez dela erraza, horregatik, Immigrazio Zerbitzuak bere egitekoez gain formakuntza ikastaro ezberdinak antolatu: osasun arlokoak, lana bilatzekoak, gaztelera ikastaroak, arabiera ikasteko ikastaroak, sukaldaritza, …; kulturen arteko topaketak antolatu: mus-40 karta joko topaketak, munduko arrozak, munduko pintxoak…) … zubi lana egiten du sakandar eta sakandar berrien artean. Elkar ezagutza erraztuko dituen guneak bideratuz, Sakanako judeari osoari parte hartzeko ateak zabalduz, etorkizuneko Sakana kulturanitzari kulturartekotzunera abiatzeko bideak/zubiak zabaltzen ditu.

Plana horretatik abiatzen diren jarduerak horretarako baliogarri suertatzen dira. Gehienetan zubi lan hori egiteko tresneria bihurtzen direlarik.

Hala, arlo ezberdinei eragiten dieten jarduerak antolatuz eta garatuz, jatorri kultural ezberdinetako pertsonen arteko elkar ezagutza lehendabizi eta hartu-emana gero landuz gabiltza Immigrazio Zerbitzua dela medio kulturartekotasunaren bidetik.

Hasiera batean, errazago suerta daitezkeen jarduerak landuz (sukaldaritza, jolasak…), ondoren, zailago edo kontuzkogoak diren jardueretarako bideak/tarteak irekiaz: hizkuntza anitzen ezagutza suposatzen duten topaketak adibidez.

Zentzu honetan Sakanako gizarteak badu gaia hori lantzeko aukera itzela, jatorri ezberdinetako pertsona/talde askori beraien ama hizkuntzaren egoerarekin identifikazioa eta ulermena eskaini baitakieke. Eta identifikazioa, ama hizkuntzarekiko afektibitate/ulermen/baikortasun/onarpen hori, kulturalki ezberdina denarekin harremanetan hasteko oso bide interesgarri eta aproposa bihurtzen da, kontu handiz jorratu beharrekoa bada ere askotan.

Bada sakandar berrien aldetik Sakanako gizartean partehartzeko gogoa eta nahia, orokorrean integratzeko benetako nahia ere; baina aldi berean badago ere nondik hasi ez jakite bat, nora jo ez jakitea.

Ez da denbora gehiegi Sakanan immigrazioaz modu jarraian eta zehatzean lanean/hizketan/sentsibilizazio lanetan ari garela, baina errealitatera hurbiltzen ari garen heinean, ikusi dugu hurbilpen pausoa esanguratsua eman dezakegula, eta ematen ari garela.

Horregatik, auzokide berrien presentzia eskatzeko joera hartu dugu, eta aurrera eraman nahi dugun harrera plan horren bidez garatuko ditugun sakandar ororen proposamen eta ekimenak aurrera eramateko sakandar berrien parte hartze aktiboa baldintza bihurtu dugu. Bestela ezinezkoa baita plana aurrera eramateaz gain, benetako integrazioaz hitz egitea.

Bermatu behar dugu sakandar berrien benetako partehartzea gizartean, maila guztietan, horren lorpena graduala izanen bada ere.

Ez dugu bapatean, egun batetik bestera lortuko, baina EHP horretarako aukera egoki suertatzen ari zaigu. Hasteko modu aproposa.

4.1. **Immigrazio zerbitzuaren egitura eta funtzionamendua**

Lau ardatz nagusitan banatzen da Immigrazio Zerbitzuaren egitekoa.

4.1.1. *Arreta zuzena*

Immigrazioarekin zerikustekoa duen edozein gauzarekin datozen pertsona, talde, elkarte, erakunde, entitateri … jarreta zuzena eskaintzea da, hau da, jasotako eskaera, zalantza, proposamen, ideei irtenbidea/erantzuna ematea.

Hori erraztearren, egiteko hori betetzearren, Sakanan garraio publikoaren ugaritasun eza dela eta, eta bailararen zabalera kontuan izanda, immigrazio teknikaria mugitu egiten da astean hiru egunez modu honetan:

– Astelehenetan Etxarri Aranazko Gizarte Zerbitzura

– Astearteetan Irurtzungo Gizarte Zerbitzura

– Ostegunetan Altsasuko Gizarte Zerbitzura

– Asteazken eta ostiraletan Mankomunitatearen egoitzan izaten da, eta bestela zerbitzuak behar duen edonon.

Jendaurrerako ordutegia 7:45tik 15:00etara izaten da printzipioz, baina ordutegia malgua da, premien araberakoa.

Hala, erraza da makina bat jarduera arratsaldez edota asteburu garaian egitea, alegia, behin eta beraien antolakuntza eta garapen prozesuan parte hartu behar dutenek horretarako nahikoa denbora dutenean (bai sakandar berriak nola ez direnak).

4.1.2. *Programaturiko jarduerak*

Aldez aurretik definituak dauden ekimenak dira. Nafarroako Gobernuak diruz lagunduak gehienak, urteroko deialdian zehazki hala eskatu eta gero. Hala ere, aipatu behar da hemen, gizarte eragile anitzekin (osasun arlokoak,

hezkuntza mundukoak, astialdikoak, sindikatu zein lan mundukoak, gizarte zerbitzuetakoak, udal langileak, udaltzainak, elkarte gastronomiko-kulturalak, kirol zein kultura teknikariak, etorkinen elkarte anitzak…) zerbitzutik daramatzagun elkarlanari esker, gero eta gehiago direla garatzen diren jarduerak eta horretarako diru-laguntzarik jaso ez ditugunak.

Esan nahi genuke honekin, nahiz eta diru-laguntzak neurri handi batean mugatu zerbitzuaren urteko programaketa, egunerokoaren ondorioz, premien arabera antolatzen diren jarduerak ere gero eta gehiago direla.

Adibide gisa:

– Formakuntza ikastaroak Gizarte Zerbitzuetako profesionalei zuzenduak: etorkinekin zuzenean lanean ari diren profesionalak immigrazio kontuetan janztea da helburua. Urtero errepikatzen da, beraz, formakuntza jarraia da. Gero eta gehiago dira jarduera honetan parte hartzen duten profesionalak, eta horren premia adierazten dutenak.

– Generoa eta Immigrazioan formakuntza ikastaroa Altsasuko udal langileei zuzendua. Aurten berrikuntza suposatzen du, orain artean ez baitzen halako egitasmorik diruz lagundu.

– Sakandar berriei zuzenduriko formakuntza ikastaroak: osasuna, lana, euskara eta euskal kulturara hurbiltzeko ikestaroak, gaztelera eta arabiera beraien ama hizkuntza gal ez dezaten.

– Sakana sentsibilizatzera bideratutako jarduerak: Immigrazio Zerbitzuari logoa jartzeko lehiaketa; immigrazioaren inguruko materiala erostea eta banatzea Sakanako liburutegi ezberdinetan.

– Hilero kolaborazioak zonaldeko bi euskal komunikabideetan immigrazioaren inguruko gaiak jorratuz (hiyab edo zapiaren inguruan; immigrazioaren eragin eta ondorioak jatorrian nola harrera gizartean; familia egituraketak kultura ezberdinetan… besteak beste).

– Haur eta Gazteriaren partehartzea ekarriko duten jarduerak: argazki lehiaketa, munduko jolasak eta ipuinak, ludoteka ezberdinetan lan saioak, nazioarteko futbol txapelketa, gazteen arteko topaketa gastronomikoa,…

– Kulturen arteko topaketa egiten duten jarduerak: Olentzero festa, kulturen arteko aste gastronomikoa, mus-40 karta joko topaketa…

4.1.3. *Ekimenei laguntza*

Kultura ezberdinetako pertsonen arteko topaketa lantzen duten ekimenei laguntza ematean datza. Hala aurten egin direnak:

– munduko arrozak
– munduko pintxoak
– gastronomia topaketa
– arabiar klaseak haurrentzat zonaldeko hainbat herritan
– bigarren eskuko azoketen parte hartzeko aukera.

4.1.4. *Denetarik pixka bat*

Sakanako gizarte eragile guztiekin izandako elkarlanetik abiatuta sortzen diren ekimen, lantxo, jarduerak aurrera eramatean datza: *Guaixe* eta *Beleixen* kolaborazioak; Bilbon jardunaldietan parte hartzea; ikerketetan ere Madrilen…

Mankomunitatean kalitateko Q zigilua lortzeko lana.

EHP prestatu, garatu eta bere ebaluaketa.

Laguntza pertsonalak sakandar berriei, hala behar den kasuetan arrazoi ezberdinak direla eta.

Izate pertsonalagoa eta hortaz konfidentziala duten egoerei erantzutea bazterkeria egoerak saihestearren, integrazioa erraztearren… Laguntza eta jarraipen banakakoa eta pertsonala hala behar duten pertsonei gizarte berrian integra daitezen…

Bitartekaritza linguistikoaren kudeaketa horretarako premia dagoen egoeretan.

Eta zerbitzuarekin zerikusia duen edozein gauza, inon idatzita ez egonagatik egunerokoak aurrean jartzen dizkigunak eta erantzun beharrekoak.

Lau urte dira jada EHP garatzen hasi ginela. Immigrazio zerbitzua oso zerbitzu berria da. Lan asko dago egiteko, baina hala ere uste dugu kulturartekotasunaren bidetik eman ditugun pausuak, txikiak izanagatik, ongi emanak daudela, egoki hasi dugula bidea.

Horren adierazle, hasi zenetik gero eta gehiagora doazen eskaerak immigrazio zerbitzura; handitzen ari den jarduera eta parte hartzaile kopurua (1.000 pertsonetik gora azken bi urteetan urte bakoitzean).

Immigrazioaren inguruan lan egiteko proposamenak gero eta gehiagora ari dira; gero eta gehiago dira gai honen inguruan eta etorkizunari begira elkarbizitza baikorraren alde azaltzen diren sakandarrak eta sakandar berriak.

Emaitzak ez ditugu gaur jasoko, ez eta bihar ere, baina emandako pausuen baikortasunak etorkizun armonikorako oinarriak jartzen ditu.

Antolatutako jarduera ezberdinetan izandako jendearen jarrera, erantzun baikorra, eta zerbitzuarekiko zorionak (hainbat erakunde ofizialen eskutik jasotakoak barne), adierazten digute Sakanan badagoela gaia hauekiko sentiberatasun berezia.

Horrek etorkizuna baikorrago jartzen du, baikortasun hori lortzea denon esku dagoela ahaztu gabe, Sakanako Mankomunitatearen Immigrazio Zerbitzuak, bere ateak irekitzen ditu parte hartzera, iradokizunak, zein kexak… jartzera, ideiak konpartitzera, proposamenak gauzatzera… izan ere immigrazio zerbitzuak bizirik dagoen zerbitzua izan nahi baitu; sakandar eta sakandar berri guztiena izatea.

5. **Etorkinak eta euskara**

Eta honetan guztian non dago euskara? Zein leku dauka euskarak sakandar berrien integrazioaz, gizarteratzeaz ari bagara? Galdetuko dio batek baino gehiagok bere buruari agian.

Hala da bai, sakandar berrien integraziora begira ezinbesteko binomioa da etorkinak eta euskara.

Euskara presente dago gure egunerokoan, egitekoan, jarduera orotan eta bakoitzean, aho-bihotzetan, eskuorrietan, agur bakoitzean… bazter guztietan.

Sakandar berriak euskalduntzea helburu, hasiera batean ardatz zehatz bat gehiago bezala jorratzen genuen etorkinak eta euskara binomioa, eta helburu horren lorpenera bideratu ziren hainbat eta hainbat ekimen.

Helburu zabala, orokorra zen eta da, baina egunerokoak erakutsi digu helburu zabal hori lortzeko badaudela lehenago jorratu beharreko beste hainbat helburu.

Hala, eta zeharkako modu batez euskara sakandar berrien bizi-bihotzetara hurbiltzeko asmoz, xume bezain garrantzitsuak diren ondorengo helburu zehatzak finkatu eta lortzeko bidean gabiltza lanean Sakanako Mankomunitatearen Immigrazio Zerbitzutik eta Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean besteak beste. Hauek dira gaur egun etorkinak eta euskara binomioan ditugun helburu zehatzak:

– euskararen inguruko informazioa helaraztea modu zuzen eta hurbilean (aurrez-aurrekoan) Sakanara iritsi berriei (asko eta asko baitira euskara hizkuntza bat dela ez dakiten sakandar berriak; behin bertara iritsi eta ondoren jakin/ikasi/entzun dutenak euskara hizkuntza bat dela; Sakanako hizkuntza ofiziala dela gaztelaniarekin batera).

– euskara hutsean seme-alabak matrikulatzearen inguruko okerreko informazio/usteak zuzentzea, informazio zuzena helaraztea, alegia, D ereduan seme-alabak matrikulatzeak dakartzan onurak eta aukerak Sakanan integratzeari begira eskaintzen dituen aukerak…)

– haurrak D ereduan matrikulatuz gero gaztelera ikasiko ez dutenaren mitoarekin haustea, eta horren inguruko informazio egokia zabaltzea.

– lan munduari begira, eta helduen gizarteratzeari begira euskara ikasteak dituen onuren berri ematea.

– euskararekiko jakinmina piztea eta sentipen/bizipen baikorra sustatzea.

Eta hori nola gauzatu?

Jarrera kontua da neurri handi batean. Konstantzia eta denbora lagun; ilusioa, enpatia, baikortasuna eta irrifarra profesionaltasunarekin batera; eta

oztopo ugariak (krisi egoera, ikastaroen premia, diru-laguntzen murrizketa, aurkitzen ari garen analfabetismo maila altua, garraio publikoaren eskasia, egoera pertsonalak, erreferente bihurtu diren hainbat gizarte eragilek euskara ez jakitea…) kontuan edukitzea ezinbesteko tresneria dira gure helburuak lortzeko bidean.

Ezer baino lehen, sakandar berrien ama hizkuntzarekiko interesa, jakinmina, ezaugarriak ezagutu eta ikasteko jarrera adieraztea eta beraien hizkuntzan agurrak edota esaldi txiki zein errazak ahal den guztietan erabiltzea, esatea, estrategia baliogarria da.

Haiek gurean integra daitezen nahi badugu, gureaz jabetzea, gurea den euskara ikastea nahi badugu, lehenik eta behin, Sakanako harrera gizarteak izan beharko du horretarako ateak irekitzen dituenak,etorri berriekiko hurbilpen pausoa ematen duena, beraiengana abegikorki hurbilduko zaiena. Gurera etor daitezen itxoin gabe, hurbil gaitezen gu beraien guneetara, elkarteetara, biltzen diren plaza/gune publikoetara, lokutorioetara… Harrera gizarteak onartzen dituela, ezagutu nahi dituela senti dezaten. Hurbilpen hori nabari dezaten. Iritsi diren harrera gizarte den Sakana goxo zein gozo senti dezaten, beraiekiko jakinmina suma dezaten: haien bizimodu, ohitura, festa, ospakizun, harreman, hizkuntza… jakinmina eta benetako interesa.

Immigrazio Zerbitzutik ateratzen diren esku-orri guztiak 5 hizkuntzaten kaleratzen dira: bertan ofizialak diren euskara eta gaztelera, eta horiekin batera, arabiera, errumaniera eta bulgariera.

«Keinu» honekin mezu anitza bidali nahi zaie sakandar berriei: beraien ama hizkuntza ezagutu nahi dugula, beraienarekiko interesa, kontuan hartzen ditugula norberarenberaien premiak (norberaren hizkuntzan komunikatzeko premia), beraien hizkuntza ikustarazi egin nahi dugula –bide batez beraiek izatea ere harrera gizartean ikustarazten dugularik– eta beraienarekin batera ere gure ama hizkuntza hor doakiela, eskaini nahi diegula euskararen ezagutza, hurbilpena, euskararen gozotasuna eta xamurtasuna.

Bide horretatik, hizkuntzarekiko afektibitatea igortzen da, guk geure hizkuntzari, eta baita beraiek beraien ama hizkuntzari ere. Horrek hizkuntza

ezberdinetako pertsonen arteko afektibitate-konplizitatea dakar, ondorioz bizitzaren beste guneetara zabal daitekeena.

Beraien hizkuntzan agurtzeak ikaragarrizko hurbilpena sortzen du, eta harrera gizartean partehartzeko bidea ikaragarri leuntzen.

Ezinezkoa da sakandar berri ororekin harreman zuzenean aritzea (biderik eraginkorrena izango bada ere), baina oso posible dena da beraien komunitatean erreferente diren pertsonetara heltzea. Horrek gero «domino» efektua ekarriko baitu ziurrenik beraien artean, eta hortaz, bidali nahi dugun mezua iristea, zabaltzea, bermatuko du.

Parte hartzen duten ekimen orotan, agurra lehenik eta behin euskaraz egin eta ondoren beraien ama hizkuntzan; banatzen diren sarietan esaldi oroigarria euskara hutsean agertzea; umorea, gozamenerako tarteak euskararekin lotzea, harremanatzea… dira oso baliogarri ditugun beste estrategia batzuk.

Euskara ikasteko ikastaroetarako diru-laguntzak erraztea da beste bide bat.

Guk/zuk-zuek binomioan jardutea erabatean amankomuneko kontuak gauzak bilatuz: guk aita esaten dugu, zuk/zuek nola esaten duzu/zue arabieraz? eta errumanieraz? eta bulgarieraz? woloferaz?…

Beraien presentzia ikustarazi euskal komunikabideetan, elkarrizketak eginez, bai ahozkoak nola idatzizkoak. Ahozkoetan beraien hizkuntzan hitzegiteko tartea utziz, gero euskarara pasatzeko (bai itzulpenez edo dagokion moduan egoera/kasuaren arabera…). Gurean mintzatzea nahi badugu, utz diezaiegun lehenengo beraienean mintza daitezen, hala gainera, sentsibilizazio lan bat egiten da harrera gizartearekin: Sakanan gaur egun elkarren ondoan dauden hainbat hizkuntza ezberdinen egoera, ikurrak, presentzia eta izatearen inguruko sentsibilizazioa.

Euskararen izatea ezagutu ondoren, bereganako hurbilpen txiki baina gozagarria izan ondoren, berarekiko nolabaiteko afektibitatea piztu ondoren, norberaren ama-hizkuntzaren egoerarekin identifikazioa bilatu bada… hori lortu bada, askoz ere errazagoa izanen da Sakanara bizitzera etorri diren sakandar berrien euskalduntze prozesua hastea, eta ondorioz, helburu orokor horri ekitea.

Hala eta guztiz ere, ezin ahatz dezakegu, askotan beraiei eskatzen diegu-na ez dugula guk, harrera gizartean bizi garenok askotan betetzen. Hau da, askotan helburu bezala daukagu Sakanara iritsi berriak euskararekiko jarrera baikorra, errespetuzkoa, eta epe laburrean euskara ikasteko pausuak ematen hastea. Eta aldi berean, beraiekin harreman zuzenean dabiltzan profesional askok ez dute jarrera hori ere izaten, ezta euskaraz hitzik ere egiten…

Horregatik da hain garrantzitsua zonaldeko gizarte eragile guztiekin elkarlanean aritzea, esfortzuak bateratzeko, giza baliabideak probexteko, mezu bateratua bidaltzeko, eta egitekoa benetan eraginkorra izateko.

Hau da, koherentziaz jokatzea, azken finean. Predika dezagun ereduarekin.

Beraz, gurean ditugun akatsak edota koherentzia falta zuzentzeko ariketan jardutea ere oso gomendagarria eta eraginkorra suertatzen da, kanpotik etorritakoei ezer eskatu aurretik.

Honek guztiak alegia denbora eskatzen du. Denbora, koherentzia, konstantzia, egiten ari den lanaren baliogarritasunaren sinismena, eta aurrean daukagun pertsona/taldearen gaitasunen aldeko jarrera.

Sakandar berriekin harreman zuzenean ari den edozein diziplinetako profesionalak bai euskararekiko nola beraiekin izandako lehenedabiziko harremanetik oroitzapen, sentsazio, bizipen ona, baikorra uztean dago gakoa.

Bidegurutze batean gaude. Geziek norabide bat baino gehiago adierazten digute: «asimilaziorantz», «kulturaniztasunerantz», «kulturartekotasunerantz»… Asimilazioa alde batera utziaz, jo dezagun kulturaniztasunean murgilduta gauden sakandar oro (betikoak eta iritsi berriak) etorkizuneko Sakana kulturanitza kohesio sozialera eta elkarbizitza baikor eta osasuntsu batera eramanen gaituen helmugara.

Baikortasunez, bestearekiko errespetuz, jakinminez, euskara aho-bihotzean, beste hizkuntzak ere, ezberdintasunetatik ikasteko gogoz, ilusioz, umorea… bidelagun, jarrai diezaiogun «kulturartekotasunerantz» adierazten duen geziari.

Harri koxkorrez, oztopoz beteriko bidea izanen da ziur aski, baina baikortasunez, abegikortasunez eta profesionaltasunez, oztopo horiek neurri handi batean baikorki gainditzeko egoeran gaude.

Hasi berri dugun bide horretan zehar ibili nahi duen edonork orain eta beti izango du Sakanan horretarako aukera.

Gurera gehitzen den sakandar oro (iritsi berriak barne alegia) beti ongi etorria izanen baita.

Abegikortasunez bada, nahi duzuen arte.

Etorkinak eta euskara.
XIV. Jagon Jardunaldiak: *Ondorioak*

OSA, Erramun
EHIko Hizkuntz Ardunduna eta Euskaltzaindiko Sustapen Batzordeko idazkaria

Hizkuntzaren erabileran eragina duten gizartearen alde guztiak, bai eta hiztunek bizi dituzten kultura-arauak, itxaropenak eta testuingurua ere biltzeko zein haietan eragiteko eratu zuen Euskaltzaindiak JAGON Saila. Sailaren barruan dagoen Sustapen Batzordeak, azken urteotan, euskal gizartean puri-purian dauden gaiak aztertu eta aztergai izan dituen gaiei buruzko iradokizunak egin ohi ditu ia urtero, *Jagon* Jardunaldien bidez.

Horiek horrela, aurtengo XIV. Jagon Jardunaldietan, Euskal Herrian azken urteotan indartu den fenomeno bat jorratu da beren-beregi: etorkinen gaia euskararen perspektibatik, hain zuzen. Gaia zenbait ikuspegitatik garatu da, besteak beste, ikuspegi soziodemografikotik, soziolinguistikotik, juridikotik, hezkuntza alderditik, etab.

Ondorioak laburbiltzerakoan:

1. Xabier Aierdi eta Erramun Osaren esanetan, etorkinak, normalean, atzerritarrak izan zein ez izan, hartzen dituen gizartearen ezaugarriak islatzen dituen ispilu handi bat izan ohi dira. Ezaugarri horien isla oharkabean igarotzen da bertako biztanleentzat, naturaltasun osoz bizi baitituzte, balizko kontraesanez jabetu gabe. Gauzak horrela, nahikoa maiz eskatzen zaie etorkinei bertakoek bete beharrik ez duten zenbait kultura- edo gizarte-arau betetzeko, horien artean hizkuntza ezagutzearena. Euskarak dituen arazoak, pertsona hauen etorrerarekin areagotu egin badaitezke ere, ez dira sortu berriak, bertako gizarteak eusten baitie arazo horiei bere horretan kasik.

Euskera. 2009, 54, 3. 1561-1564. Bilbo
ISSN 0210-1564

2. Erramun Baxok eta Jean-Baptiste Coyosek Euskal Herri kontinentalean helduaroan euskara ikasten ari diren motibazioak-eta aztertu dituzte. Ikerketaren arabera, azterketan esku hartu duten herritarrentzat motibazio nagusiak dira euskaldunen arteko komunikazioa (%29), nortasunaren adierazpena (%22) eta euskal kultura bereganatzea (%16). Etorkinen motibazio nagusiak dira euskaldunekin komunikatzea ere bai (%25), ondotik euskal kulturaren jabekuntza (%22) eta integrazioa (%18). Bi jatorri multzoentzat motibazio ahulena euskara lanerako da (%5 eta %4). Orokorki, euskara ikasterakoan, herriko ikasleen nahikundea praktikoagoa da etorkinena baino. Azken hauen kezka nagusia da beren tokia atzematea euskaldunen artean.

3. Eduardo Javier Ruiz Vieytezen arabera, etorkinen hizkuntz aniztasunaren eta gizarteratzearen arteko lotura ez da ondo aztertu. Hala ere, garrantzi handiko osagaia da, batez ere gizarte konplexu eta askotarikoen kasuan, hala nola euskal gizartean. Horren eraginez, tradiziozko zenbait ideia eta onarpen berriz hausnartu behar dira. Hizkuntzak pertsonen identitatearen funtsezko osagaiak dira, eta horren ondorioz, pertsona horiei dagozkien eskubideekin lotuta daude. Giza eskubide batzuek titularraren eta testuinguruaren arabera aztertu behar diren edukiak edo hizkuntz osagaiak dituzte. Herritartasunaren kontzeptu barne-hartzailea oinarri hartuta, beharrezkoa da hizkuntz identitate berriek gure eskema politiko-demokratikoetan duten eginkizunari buruzko galdera egitea. Bestaldetik, behar-beharrezkoa da gizartean dagoen hizkuntz aniztasuna kudeaketa demokratikoa arautzea, parte-hartzeko aukerak handituz eta identitate ezberdinen presentzia egokia ziurtatuz.

4. Euskarari dagokionez, edozelan ere, eta immigrazioaren kudeaketa helburutzat hartuta, oso garrantzitsuak lirateke:

   A. Hainbatek nabarmendu dutenez, euskara modu eraginkorrean erakutsiko duten eredu pedagogikoak eta hezkuntza sistema berri baten diseinua burutzea. Inguruabar horretan, Joaquim Dolzen hitzaldiaren ondorio nagusienak zera diosku: irakaskuntza eleaniz-

tuna, posiblea izateaz gain, onuragarria da norbanakoaren garapen kognitiboari eta hizkuntza gutxituen iraupenari begira. Alabaina, eginkizun hori bideratzeko, Hizkuntzen Didaktikak eskaintzen dituen aukerak ondo pentsatuak, ganoraz ikertu eta etengabe ebaluatuak izan behar dute. Horiek horrela, Ibon Manterolak eta Eider Lardizabalek erakutsi digute haur etorkinek euskara ondo ikasten dutela zenbait baldintza betetzen direnean. Alegia, eskolan arreta egokia eta eginkizun esanguratsuak euskaraz egitea eta testuinguru euskaldunean bizitzea ahalbidetzen denean. Bestalde, aurkeztu dituzten emaitzen arabera, estatistikoki esanguratsuak ez izan arren, haurrek bigarren edo beste hizkuntzen ikasteko gaitasuna 4/5urte baino askoz beranduago arte mantentzen dute. Ikerketa honetan, 11 urtekoek 5ekoak baina hobeto ikasi baitute euskara.

B. Aierdik eta Osak azpimarratu dutenez, ezinbestekotzat jotzen da gurea bezalako errealitate nazional batean, immigrazio eta integrazio politika propioak garatzeko eskuduntza. Bestalde, barrura begira, euskararen inguruan diharduten sektoreei ere euren oinarri teorikoak berrikusteko eskatu behar zaie eta, era berean, euskaratik oso urrun sentitu eta sentitzen diren sektoreei errespetu intelektuala eta jarrera dizplizentea abandonatu beharra ere eskatu behar zaie.

5. Udal edo eskualde jakinetan immigranteen integrazioa (ez asimilazioa) ahalbidetzeko egindako ahaleginak aurkeztu direnean, Begoña Zestau Baraibarrek azpimarratu du, besteak beste, etorkinak etxekotu eta integratu nahian, Sakanan immigrazio zerbitzua nola sortu zuten, etorkinak euskarara hurbiltzeak daukan garrantzia eta, hartarako, elkartzen gaituzten ikurretatik abiatu eta beraien kultura eta hizkuntzak aintzat hartu beharra; Iratxe Lasak, aldiz, gune oso euskaldun batean, Markina-Xemeinen, non immigranteen kopurua biztanleria osoaren %13 den, Euskara Zerbitzuak ikusi duena azpimarratu du. Horren arabera, ezin ditugu etorkinekin bertako erdaldun elebakarren artean euskara sustatzeko erabiltzen ditugun irizpide eta mezu berberak erabili; ezin dugu, bertako herritar erdaldun askorekin lortu ez

duguna, eurentzako nahitaezko bihurtu. Lehendabiziko helburua euskararekiko jarrera ona izatea izan behar du. Heldu berriak dira, eta ez dute euskararekiko inolako jarrerarik, beraz ezin dugu euren artean jarrera txarrak zabaldu daitezen utzi. Eta, jakina, ekidin behar dugun lehendabiziko arazoa aurreiritziak dira. Izan ere, bada etorkinen etorrera hizkuntza normalizazioaren prozesuan eragozpena edo atzera pausua dela pentsatzen duenik ere.

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, 2009ko azaroaren 20an

Agiriak

Euskera. 2009, 54, 3. Bilbo
ISSN 0210-1564

Batzar Agiriak

Euskera. 2009, 54, 3. Bilbo
ISSN 0210-1564

Bilbon, 2009ko uztailaren 16an

Andres Urrutia, euskaltzainburua
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea
Xabier Kintana, idazkaria
Jose Luis Lizundia, diruzaina
Andoni Sagarna, Iker sailburua
Andres Iñigo, Jagon sailburua
Sagrario Aleman
Jose Antonio Arana Martija
Adolfo Arejita
Aurelia Arkotxa
Patxi Goenaga
Jean Haritschelhar
Joseba Lakarra
Emile Larre
Txomin Peillen
Sarasola, Ibon
Salaberri, Patxi
Ana Toledo
Joan Mari Torrealdai
Videgain Xarles
Xarritton, Piarres
Zabaleta, Patxi eta
Mikel Zalbide euskaltzainak.

Pello Telleria idazkariordea eta Alfontso Mujika Exonomastikako idazkaria, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari; Jean-Louis Davantek, ahala Tx. Peilleni: Miren Lourdes. Oñederrak, ahala A. Arkotxari; Pello Salaburuk, ahala J. Haritschelharri; Patxi Uribarrenek, ahala A. Urrutiari.

Batzarra arratsaldeko 17:00etan hasi da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Hasi aurrekoak

Batzarrerako jaso diren ahalak irakurri ditu idazkariak. Biharko ekitaldia dela eta, Euskaltzainburuak beste Akademietatik nortzuk etortzeko diren esan du, horien biografiak banatuko direla adieraziz. Bihar goizean, beste Akademietako buruek beren azken urteotako ibilerak azalduko dituzte. Gero adierazpen instituzionala egingo da guztien artean.

2. Aktari oharrak. J. L. Lizundiak zenbait ohar txiki egin ditu ekainaren

Euskera. 2009, 54, 3. 1569-1597. Bilbo
ISSN 0210-1564

26ko batzarraz. Horiek kontuan hartuko dira. Besterik gabe, aktak onartu egin dira.

3. Osoko Batzarretarako lan-prozedura berriaren proposamena. Osoko Batzarrak azkartu eta berorietatik ahalik eta etekin handiena ateratzeko asmoz, Euskaltzainburuak berorietan lan egiteko prozedura-proposamena egin du, partaidetasun-modua eta mintzatzeko denbora zehaztuz.

I. Sarasolak, hitza eskaturik, ondokoa galdetu du: zer egin, berehala erabaki beharreko hitzen eta sintaxi okerreko esaldien kasuan, komunikabideetan hedatu baino lehen?

Euskaltzainburuak ontzat eman du presazko arazo horien kasuan prozedura azkartzea, baina, beti ere, txostenaz eta informazioaz ongi hornitu beharrekoak direla gaineratu du. P. Goenagak, bide berean, ea txosten partikularrak ere (proiektuak, ikerketak...) batzarretara aurkez daitezkeen jakin nahi du. Batzarrak erabaki duenez, osoko bilkuretan euskaltzainek, bertoko eta kanpoko ikerlarien partaidetasunez, horiek ere aurkez ditzakete aldizka, aurretiaz abisatuz. Bestalde, bilkurak Bilbon edo Donostian egiten direnean kanpokoen partaidetza hori posible ikusi da, beste tokietan zaila litzatekeen arren.

J. L. Lizundiak esan du I. Sarasolaren proposamenak lekua izan beharko lukeela, ohitura eta hizkuntzaren erabilera txarrak garaiz baztertzeko.

Andoni Sagarnak ere ederki deritzo I. Sarasolaren proposamenari, gaizki zabalduriko proposamen batzuei kritika egin eta, berandu baino lehen gauzak onbideratzeko. I. Sarasolak berretsi du Sagarnak esandakoa.

Lan-prozedura berriaren txostenari oharrak egiteko epea irailaren 21ean amaituko da.

4. Exonomastika. «Kanpoko leku-izenak euskaraz ahoskatzeko irizpideak. Euskaltzaindiaren gomendioa». Aurreko batzarrean zehazteke gelditu zirenak argitzeko, J. L. Lizundiak eta A. Mujikak argitasunak aurkeztu dituzte. P. Goenaga akort gelditu da, baina jende arruntarentzat gomendioa, formaz, ez ote den zaila izango pentsatzen du. Horretaz iritzi batzuk agertu dira, eta guztiak bat etorri dira: gaitz izanen da arau bakar eta egokia ematea, baina gomendioa, edonola ere, hurbiltze bat da, lagungarri.

5. Hiztegi Batu Oinarriduna

A. Sagarnak aurkeztu du gaia, mahai gaineko pantailaren bidez. Horren helburua Hiztegi Batuko formei buruzko informazio gehiago eskaintzea da, euskara

batuko formak nola eta zergatik aukeratu diren eta pausoen historia jakiteko, ondoko belaunaldien jakingarri.

Xarles Videgainek galdetu du, informazio hori jasotzeko orduan, ea iturri bakoitzari berdin eta zehaztasun berberaz begiratzen zaion. Ezetz erantzun dio A. Sagarnak, hitzaren historia, erabilera etengabea ala puntuala izan den, eta maiztasuna ere kontuan izan dira eta.

6. Esku artekoak

6.1. EiTBren Administrazio Kontseilurako ordezkaria. Aurreko legealdian bezala, Eusko Legebiltzarrak Euskaltzaindiari EiTBren Administrazio Kontseilurako bere ordezkaria aurkeztea eskatu dio. Ordezkari hori Jose Luis Lizundia izatea proposatzea erabaki zuen Zuzendaritzak uztailaren 10eko bileran, eta berretsi egin da gaurko batzarrean.

6.2. Akademiaren historia Internet-en. Euskaltzaindiaren historia Internet-en jarri da, Euskaltzaindiaren webgunean. Horrela, hemendik aurrera, gure Akademiaren historia Euskaltzaindiaren webgunean 7 minutuko bideo batean ikusi ahalko da.

6.3. Robert Lafont-en alargunaren erantzuna. Fausta Garavini andreak, R. Lafont-en alargunak, Euskaltzaindiak bidaliriko dolumin-idazkia eskertzeko, gutuna igorri du, J. Haritschelharren eskuz ekarria.

6.4. Hurrengo batzarrak. Irailean ez da Euskaltzaindia bere osoan bilduko. Iraileko osoko batzarra urriaren 8an izango da Donostian. Biharamunean, 9an, 90. urteurreneko ospakizuna eginen da (agintariak, beste akademien buruak, ordezkariak, etab.). Urriko ohiko bilkura, aldiz, urriaren 30ean egingo da egoitzan, eta 31an, Foruan, J. Mari Torrealdairen sarrera-hitzaldia izango da.

7. Liburu-banaketa. Euskaltzainen artean ondoko liburuetatik ale bana banatu da:

– *Aspaldiko Maigret* (Georges Simenon-ena). Itzulpena Eusebio Erkiagak eta sarrera eta edizioa Andres Urrutiak eginak. LABAYRUk argitaratua.

– *Legeen Tratatua* (Jean Domat-ena). Sarrera etya itrzulpena Andres Urrutiarenak. «JAKIN irakurgaiak» atalean argitaratua.

– *De iure belli ac pacis. Gerra eta bakearen zuzenbidea. Testuak.* (Hugo Grotius-ek egina). Sarrera eta itzulpena Andres Urrutiarenak. «JAKIN irakurgaiak» atalean argitaratua.

– *Frantziako Kode Zibilaren lehen proiektua*: *Atariko hitzaldia* (Jean Etienne Marie Portalis-ek egina). Sarrera eta itzulpena Andres Urrutiarenak. «JAKIN irakurgaiak» atalean argitaratua.

– *Maitasunez... Amodiozko Gutunak* (Bergarako Jardun Kultur Elkartea eta Irigoien Fundazioak argitaratua).

Beste Akademien ordezkarien biografia laburra ere banatu da.

Batzarra arratsaldeko 7:15etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Ageriko bilkura

Bilbon, 2009ko uztailaren 17an

Gaur, uztailak 17, egin da 90. urteurreneko ospakizuna Bilbon, egoitzan, goizeko 10:30etan hasita.

Bildu direnak:

– Euskaltzain osoak: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andoni Sagarna, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Aurelia Arkotxa, Patxi Goenaga, Jose Irazu «Bernardo Atxaga», Joseba Andoni Lakarra, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren, Xarles Videgain, Piarres Xarritton, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide. Ezin etorria adierazi dutenak: Miren Azkarate, Jean-Louis Davant, Pello Salaburu, Patxi Salaberri eta Ibon Sarasola.

– Ohorezko euskaltzainak: Koldo Artola, Karmele Rotaetxe eta Xabier Gereño.

– Euskaltzain urgazleak: Joseba Agirreazkuenaga, Dorleta Alberdi, Luis Alberto Aranberri «Amatiño», Kepa Altonaga, Pakita Arregi, Xabier Artola, Gorka Aulestia, Ricardo Badiola, Joseba Butron, Jose Luis Erdozia, Jose Ramon Etxebarria, Patxi Galé, Pruden Gartzia, Juan Luis Goikoetxea, Mikel Gorrotxategi, Itziar Idiazabal, Jose Mari Iriondo, Jazinto Iturbe, Jon Kortazar, Jesus Mari Makatzaga, Abel Muniategi, Elixabete Perez Gaztelu, Paskual Rekalde, Manu Ruiz Urrestarazu, Pello Telleria, Miriam Urkia eta Juan Jose Zearreta. Ezin etorria adierazi dutenak: Joan-Baptiste-Coyos, Jose Maria Etxebarria eta Ricardo Gómez.

– Batzordekideak: Gerardo Luzuriaga eta Erramun Osa. Ezin etorria adierazi dutenak: Henri Duhau.

Euskera. 2009, 54, 3. 1569-1597. Bilbo
ISSN 0210-1564

– Egitasmoetako teknikariak: Gorka Intxaurbe, Amaia Jauregizar.

– Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi, Nerea Altuna, Kristina Arana, Jon Artza, Olatz Etxeberria, Iñaki Kareaga, Alazne Lopez de Aretxaga, Amaia Okariz, Josune Olabarria, Emilio Porras, Erlantz Aristegi.

Euskaltzainburuak zabaldu du ekitaldia, bertaratu diren guztiei ongi etorria emanez, bereziki beste hiru Hizkuntza Akademien ordezkariei: Real Academia Española, Real Academia Galega eta Institut d'Estudis Catalans.

Akademien egitasmoen azalpena

Batzarraren lehen partean, esku artean dituzten egitasmoen berri eman dute gaur bildu diren Akademien ordezkariek.

Real Academia Española-ko zuzendariordea den Jose Antonio Pascual jaunak eman dio hasiera, gonbitatzeagatik Euskaltzaindiari eskerrak emanez. Burutua duten *Diccionario Panhispánico de Dudas* izeneko hiztegia izan da abiapuntua. Urtebete barru *Gramática de la Lengua Española* burutua izatea espero dute, 1931koa ordezkatuz. Oraindik luze joko duen egitasmo honen berri ere eman du: *Nuevo Diccionario Histórico de la Lengua Española*. Lexikografia eta gramatika lanen oinarria izan da, ordea, CORDE egitasmoa, 300 miloi hitz dituen corpus historikoa eta, CREA (gaur eguneko gaztelaniaren corpusa); baina CORPES egitasmoari ere ekin diote, hau da, XXI. mendeko materialak jasoko dituen corpusari.

Real Academia Galegaren izenean, Akademiaren azalpen orokorra egin du Manuel González idazkariak. Lau sail ditu Akademiak: onomastika, soziolinguistika, gramatika eta lexikografia. Onomastikan hiru arlo hauek aipatu ditu: *Toponimia de Galicia* izeneko egitasmoa, toponimo eta mikrotoponimo guztien bilketa sistematikoa egiten duena; Galiziako pertsonen izenak eta deiturak biltzen dituen datutegia; Galiziako toponimoez jasotzen diren irizpen-eskaerei ere erantzuten zaie. Soziolinguistikaren arloan, *Mapa sociolingüístico galego* delako egitasmoan biltzen dira urte ezberdinetan egin diren inkesten erantzunak; horren osagarri, *O galego segundo a mocidade* izeneko egitasmoak, hizkuntzen erabilerak baldintzatzen dituzten ezkutuko jarrerak aztertzen ditu. Gramatikaren arloan, *Seminario de Gramática* izeneko taldea ari da galizieraren gramatika prestatzen. Lexicografía arloan, hiztegi hauek lantzen ari dira: *Diccionario da pronuncia* eta *Diccionario da Real Academia Galega*. Euskaltzaindiari 90. urteurrenean zorionak emanez amaitu du hitzaldia Manuel González jaunak

Institut d'Estudis Catalans-eko buruordea den Isidor Marí jaunak eman du Erakunde horren berri. Lehenik, zuzenean araugintzarekin zer ikusia duten egitasmoak azaldu ditu: *Gramática de la llengua catalana*; *Diccionari de la llengua catalana*ren bigarren argitaraldia; *Nomenclàtor oficial de toponímia major de Catalunya,* ofizialduriko 54.000 toponimo biltzen dituena; *Propuesta de estándard oral*, fonetika eta morfologia biltzen duena, baina ondoren, aztertzen ari diren sintaxiaz eta lexikoz hornituko da; *La normalització terminològica en català: criteris i termes 1986-2004,* 6.000 neologismotik gora biltzen dituena. Ondoren, beste ikerketa-egitasmo batzuk azaldu ditu hizkuntzalaritza, filologia eta literatura arloetakoak: gaur egungo katalana biltzen duen hiztegia, neologiaren behatokia, Pompeu Fabraren idazlan guztiak eta katalanaren atlasa, besteak beste.

Euskaltzaindiaren Iker Sailburua den Andoni Sagarnak Akademiaren arlo eta lan nagusiak azaldu ditu, labur-labur. Iker Saileko batzordeek urtetan zehar egiten ari diren lana azpimarratu du, hor egin den lanak ahalbidetu baitu Euskaltzaindiak kasuan kasuko arloko arauak ematea (Hiztegigintza, Gramatika, Onomastika, Exonomastika, Fonologia). Bestelako ikerketa-lanetan ari diren batzordeak ere aipatu ditu: Atlasa eta Literatura. Ondoren, Jagon Saileko batzordeen lanaren berri eman du, Euskararen Historia Soziala egitasmo berriaren berezitasunak azpimarratuz. Bukatzeko, azpiegiturazko batzorde eta zerbitzuen lanaren berri eman du.

Akademiaburuen hitzak

Bigarren partean, aldiz, Akademietako buruak mintzatu dira, hots, Víctor García de la Concha, Xosé Ramón Barreiro, Joan Martí eta Andres Urrutia euskaltzainburua.

Víctor García de la Concha, Euskaltzaindiak eta Real Academia Española-k aspalditik izan dituzten harremanak aipatuz hasi da. Ondoren, Espainian dauden hizkuntzek bata bestearen artean izan duten eragina gogorarazi du eta hizkuntza guztiei zor zaien begirunea. 90. urteurrenean Euskaltzaindiari zorionak emanez amaitu du hitzaldia.

Xosé Ramón Barreiro Real Academia Galegako burua, Euskaltzaindiak hiru Akademiei egin dien harrera atsegina eskertuz hasi da. Ondoren Real Academia Galegaren hasierako gorabeherak aipatu ditu. Bereziki, lehen presidentearen –Manuel Martínez Murguíaren– goraipamena egin du, hura euskalduna zela gogoraraziz.

Institut d'Estudis Catalans-en Secció Filologica-ko burua den Joan Martí-k Euskaltzaindia zoriondu du 90. urteurrenagatik eta eskerrak eman dizkio lau Akademiak biltzeagatik. Ondoren, Institut d'Estudis Catalans-en historiaren eta jardun-esparruaren azalpen oparoa eman du. Hizkuntzaren araugintzaz gain oso garrantzi handikoa da hizkuntzaren alde egiten den ahalegina gizarteratzea, horretarako gaur eguneko teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideak erabiliz. Globalizazioaren eraginez gero eta gehiago dira kanpotik datozen beste hizkuntzetako pertsonak, eta horiei zor zaien begiruneaz batera, bertako hizkuntza erabiltzen dutenen errealitatea ere defendatu behar da. Beste hizkuntzen Akademiekin lanean aritzeko borondatea azalduz amaitu du hitzaldia.

Andres Urrutia euskaltzainburuak eskerrak eman dizkie beste hiru Akademien ordezkariei, Euskaltzaindiaren gonbitari baiezko erantzuna emateagatik. Lau Akademiak 1994an, gaur bezala, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan bildu zirela gogoratu du, Fernando Lázaro Carreter Real Academia Españolako buruak esandako hitzak aipatuz, eta baita Joaquim Rafel Institut d'Estudis Catalans-eko buruarenak ere. Euskaltzaindian azken urteotan sartu diren euskaltzain oso berriena sartzea aipatu du. Euskaltzaindiak, barneko lanei ekiteaz gain, beste erakundeekin lankidetzan aritzeko duen borondatea azpimarratu du, eta bereziki gaur bildu diren Akademiekin.

Adierazpena

Akademiaburuen hitzen ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak, gaur goizean Akademien ordezkariek adostu duten adierazpena irakurri du, lau Akademien izenean. Akademien jardun-esparrua hizkuntzalaritzakoa eta zientifikoa dela esaten hasten da adierazpena eta hizkuntzekiko begirunea aitortzen. Lau Akademien arteko harremana sendotzeko asmoa aldarrikatu da, hori hitzarmen batean gauzatzeko asmoarekin batera. Lehen urratsa hiztegi elebidunak egitea izan daiteke, hizkuntzen arteko zubi zuzenak egiteko.

Oroigarriak ematea

Ekitaldiaren amaieran, Euskaltzaindiaren 90. urteurreneko oroigarria eman die Euskaltzainburuak beste hiru Ademietako buruei (Euskaltzaindiaren logoari buruzko erresinazko eskultura, David Abajo jaunak egina).

Ondoren, bertaratu diren euskaltzain oso, emeritu, ohorezko eta urgazleek, aldiz, Euskaltzaindiaren ikurra jaso dute Zuzendaritzako kideen eskutik.

Ekitaldia eguerdiko 13:45ean bukatu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Euskera. 2009, 54, 3. 1569-1597. Bilbo
ISSN 0210-1564

Donostian, 2009ko urriaren 8an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andoni Sagarna, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Adolfo Arejita,
Miren Azkarate,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Joseba Lakarra,
Miren Lourdes Oñederra,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Ibon Sarasola,
Ana Toledo,
Joan Mari Torrealdai,
Patxi Uribarren,
Xarles Videgain,
Piarres Xarriton eta
Mikel Zalbide euskaltzainak**.**

Pello Telleria idazkariordea, zegozkion gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak, ahala Miren Lourdes Oñederrari; Patxi Salaberrik, ahala A. Iñigori; Bernardo Atxagak, ahala Andres Urrutiari; Jean-Louis Davantek, ahala Txomin Peilleni; Sagrario Alemanek, ahala Andres Iñigori; Patxi Zabaletak, ahala Andres Iñigori.

Batzarra arratsaldeko 16:10ean hasi da Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregiko Batzar-aretoan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea. Ez da oharrik jaso eta, beraz, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

2. Hasi aurrekoak. Euskaltzainburuak, gaurko eta biharko ekitaldietarako oharrak egin ditu, ordutegia, aritzeko modua eta antzeko xehetasunak azalduz.

Era berean, J. M. Torrealdairen sarrera sarrera-hitzaldia Foruan urriaren azken larunbatean izanen dela gogoratu du.

Euskera. 2009, 54, 3. 1569-1597. Bilbo
ISSN 0210-1564

3. Osoko batzarraren lan-prozedura berria. Oharrik ez da jaso eta, beraz, aurreko batzarrean Osoko batzarretan lan egiteko Zuzendaritzak aurkeztu zuen proposamena ontzat eman da.

4. Batzorde ahaldunduen informazioa ematea.

4.1. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Andoni Sagarnak, pantaila informatikoaz baliatuz, batzordearen osaera gogorarazi du. Burua A. Sagarna; idazkaria X. Kintana; Egitasmoaren zuzendaria (I. Sarasola); hiru euskaltzain oso: A. Arejita, B. Oihartzabal eta P. Salaberri; Hiztegi Batuko lantaldearen idazkaria (J. A. Aduriz). Horiez gainera, *Hitzerean*-en partaide bat ere bileretara joaten da.

Elkarrekin lan egiteko eta joan-etorriak ekiditeko, bideo-hitzaldiez baliatzea erabaki zen, biltokiak Bilboko egoitza, eta Donostia eta Iruñeko ordezkaritzak izanik. Bilerak hilean bi aldiz egitea erabaki zen, hilaren lehen astelehenean eta 15etik aurrerako lehen astelehenean, goizeko 10etatik eguerdiko 14etara arteko ordutegiaz.

Lehenbiziko bilera ekainaren 23an izan zen, eta ordutik aurrera, abuztuko oporren salbuespenaz, aurretik pentsatu bezala egin dira. Bileren martxa, ibilian jartzeko ohitura hartu arte, hasieran uste baino astiroago bazihoan ere, une honetan gero eta azkarragoa doala esan daiteke.

4.2. Hiztegi Batua. Bigarren itzulia

Era berean, Hiztegi Batuaren 2. itzulia burutzeko eratu den batzorde ahaldunduaren osaera, lan egiteko aurretik pentsaturiko kronograma eta orain arteko bileren berri eman du A. Sagarna batzordeburuak. Osakideak honako hauek dira: Burua A. Sagarna; Idazkaria X. Kintana; Euskaltzain osoak: M. Azkarate, P. Salaburu, P.Uribarren; Hiztegi Batuko lantaldearen idazkaria (J. A. Aduriz).

Lehenbiziko bilera uztailaren 8an izan zen. Honetan ere, hasierako ibilera nahi baino motelagoa arren, denbora aurrera joan ahala, aurreikusiriko erritmora hurbiltzen ari da.

5. Frisieraren Akademiako ordezkarien agurra. *Fryske Akademy* deritzon Frisieraren Akademiaren Burua den Renier Salverda jauna eta erakunde bereko zuzendarietako bat, Cor van der Meer jauna, etorri dira batzarrera, Euskaltzaindiak gonbidaturik. Reinier Salverda 20 minutuz mintzatu da frantsesez frisieraren egoera eta horren Akademiaren ezaugarri eta zeregin nagusiak azaltzeko. Ondoren, euskaltzainek egindako galderei erantzun die.

6. Esku artekoak

6.1. Beñat Oihartzabalen eskutitza. Euskaltzainburuak, B. Oihartzabalek bidali dion eskutitza irakurri du. Horretan, osasun arazoak direla eta, medikuaren aholkuz, Euskaltzaindian dauzkan karguak (euskaltzainburuordetza eta Iparraldeko ordezkaritzaren ardura) uztea erabaki duela jakinarazten du Euskaltzainburuordeak. A. Urrutia bereziki Iparraldeko euskaltzainei mintzatu zaie, bertako euskaltzain gazteenek haren karguak nork eta nola jaso pentsa dezaten. Beraz, Barne Erregelek diotena betez, hurrengo osoko batzarrean hautatuko da buruorde berria.

6.2. Hilberri-txostenak. Oraintsu zendu diren euskaltzain urgazle biren hilberri-txostenak egiteko, Zuzendaritzak honako pertsona hauek proposatu ditu: Roger Idiart-ena Jean-Louis Davantek egitea. Mikel Atxagarena, aldiz, Mari Karmen Garmendiak. Ontzat eman da proposamena.

6.3. Literatura-sariak. Aspaldiko urteotan sariketek izandako bilakaera ikusita, Bilbao Bizkaia Kutxak pertsona nagusientzako orain arte babesten zituen sariak (Txomin Agirre eleberria, Toribio Altzaga teatroa, Felipe Arrese Beitia poesia eta Mikel Zarate saiakera) Kutxa horrek aurten ez ematea erabaki duela jakinarazi du Euskaltzainburuak.

6.4. Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko 2009ko hitzarmena. A. Urrutiak bilduei adierazi dienez, aurtengo irailaren 22an Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak elkarren arteko hitzarmen berria sinatu dute. A. Iñigok, gainera, aurtengoan diru-laguntza 235.000 eurotaraino igo dutela jakinarazi du, lehenagoko 160.000 euroen ordez.

6.5. Banatzeko liburuak. Ohi bezala, Euskaltzaindiak bere argitalpenetatik euskaltzainen artean banandu ohi dituen liburuak, baina gaurko batzarrean ez dira banatuko, urrian 30ean baizik.

Batzarra arratsaldeko 18,15etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Ageriko bilkura

Donostian, 2009ko urriaren 9an

Gaur, urriak 9, egin da 90. urteurrenaren amaierako ekitaldi instituzionala, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiko *Jurgi* aretoan, goizeko 11:00etatik eguerdiko 13:15era.

Bildu direnak:

– Euskaltzain osoak: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andoni Sagarna, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Jose Antonio Arana Martija, Adolfo Arejita, Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Jean Louis Davant, Patxi Goenaga, Joseba Andoni Lakarra, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Pello Salaburu, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren, Xarles Videgain, Piarres Xarritton, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide. Ezin etorria adierazi dutenak: Sagrario Aleman, Beñat Oihartzabal, Patxi Salaberri eta Ibon Sarasola.

– Ohorezko euskaltzainak: Pello Apezetxea, Koldo Artola, Juan Garmendia, Joseba Intxausti, Patxi Oroz, Karmele Rotaetxe. Ezin etorria adierazi dutenak: Xabier Gereño eta Jose Antonio Retolaza.

– Euskaltzain urgazleak: Jose Antonio Aduriz, Dorleta Alberdi, Antton Aranburu, Xipri Arbelbide, Gorka Aulestia, Ricardo Badiola, Agnes Dufau, Jose Maria Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Pruden Gartzia, Juan Luis Goikoetxea, Mikel Gorrotxategi, Iñaki Irazabalbeitia, Jose Angel Irigarai, Jose Mari Iriondo, Xabier Mendiguren, Jose Antonio Mujika, Luis Mari Mujika, Karlos Otegi, Elixabete Perez Gaztelu, Koro Segurola, Manu Ruiz Urrestarazu, Pello Telleria, Miriam Urkia, Juan Jose Zearreta eta Joxe Ramnon Zubimendi. Ezin etorria adierazi dutenak: Xabier Erdozia, Ricardo Gómez, Jose Ramon Etxebarria, Paskual Rekalde eta Jose Mari Velez de Mendizabal.

Euskera. 2009, 54, 3. 1569-1597. Bilbo
ISSN 0210-1564

– Batzordekideak: Erramun Osa.

– Egitasmoetako teknikariak: Gabriel Fraile, Iratxe Gaztañaga, Alazne Gorrotxategi, Gorka Intxaurbe, Amaia Jauregizar, Elizabet Kruzeta, Lionel Joly, Ane Loidi, Julen Manterola, Ainhoa Otamendi eta Antton Ugarte.

– Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi, Begoña Amundarain, Kristina Arana, Jon Artza, Pili Artza, Olatz Etxeberria, Annie Etxeberri, Maixa Goikoetxea, Gema Insausti, Iñaki Kareaga, Alazne Lopez de Aretxaga, Amaia Okariz, Josune Olabarria, Resu Orbe, Emilio Porras, Itziar Rekalde.

Hauek izan dira mahaian:

– Markel Olano, Gipuzkoako ahaldun nagusia
– Xabier Agirre, Arabako ahaldun nagusia
– Jose Luis Bilbao, Bizkaiko ahaldun nagusia
– Juan Ramon Corpas, Nafarroako Kultura sailburua
– Mercedes Chacón, Espainiako Hezkuntza Ministerioko zuzendari orokorra
– Blanca Urgell, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua
– Max Brisson, Euskararen Erakunde Publikoaren burua
– Andres Urrutia, euskaltzainburua
– Xabier Kintana, Euskaltzaindiko idazkaria.

Markel Olanok ongietorria eman die bertaratu diren guztiei eta Euskaltzaindiaren historiaren laburpena egin du, Euskaltzaindiari zorionak emanez, haren 90. urteurrenean. Hitz egin duten guztiek izan dituzte Euskaltzaindiarekiko laudoriozko hitzak eta elkar-lanerako gonbita egin diote. Mahaian izan direnez gain Ainhoa Beola Donostiako Udaleko Euskara zinegotziak ere hitz egin du.

Joan Mari Torrealdaik *Euskaltzaindia: ekin eta jarrai* izeneko liburua aurkeztu du, Euskaltzaindiaren enkarguz Imanol Muruarekin batera egin duena.

Andres Urrutiak itxi du ekitaldia, Euskaltzaindiari lagundu dioten herri aginteei eta euskalgintzakoei eskerrak emanez. Hitzaldian zehar *Orotariko Euskal Hiztegia* gaur sarean jarri dela adierazi du, edozein hiritarren kontsultagai.

Ekitaldiaren amaieran Euskaltzainburuak oroigarri bana eman die mahaian izan diren pertsonei, Euskaltzaindiaren logoari buruzko erresinazko eskultura, David Abajok egina.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Bilbon, 2009ko urriaren 30ean

Andres Urrutia euskaltzainburua,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Adolfo Arejita,
Miren Azkarate,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Joseba Lakarra,
Miren Lourdes Oñederra,
Txomin Peillen,
Andoni Sagarna,
Patxi Salaberri,
Ibon Sarasola,
Ana Toledo,
Patxi Uribarren,
Xarles Videgain, eta
Mikel Zalbide euskaltzainak

Pello Telleria idazkariordea, zegozkion gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak, ahala Miren Lourdes Oñederrari; Beñat Oihartzabalek, ahala Xarles Videgaini; Bernardo Atxagak, ahala Andres. Urrutiari; Jean-Louis Davantek, ahala Tx. Peilleni; Pello Salaburuk, ahala Miren Azkarateri; eta Patxi Zabaletak, ahala Andres Iñigori.

Batzarra arratsaldeko 16:10ean hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea. Ez da oharrik jaso eta, beraz, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

2. Hiztegi Batuko H-Z arteko zerrendak banatzea. A. Sagarnak azaldu du gaia. Karpetako 2. zenbakiko testua aurrean dela, arteko kronograma eta prozedurari jarraikiz, H-tik M-rainoko hitzak, biak barne, agertzen dira, lehen aldi honetan, oharrak azaroaren 30era arte egiteko. N-tik Z-rainokoak, aldiz, abenduaren azkenerako egin beharko dira.

Euskera. 2009, 54, 3. 1569-1597. Bilbo
ISSN 0210-1564

Oharrak nola egin ere azaldu du, fitxa bat eredutzat jarrita. Zerrenda horiek euskaltzainei eman zaizkie, paperean edo CD batean.

3. Exonomastika. «Europako ibaiak» araugaia aurkeztea.

Alfonso Mujikaren absentziaz, J. L. Lizundiak aurkeztu du araugaiaren lehen atala. Ibai horien artean, aurretik eskualdetzat jada onarturiko batzuen izenak azaltzen dira, bai eta ibai mugakideenak, azken mendean izena aldatuak eta garrantzi historiko-politiko berezia izan dutenak ere, besteak beste. Oharrak azaroaren 20rako bidali behar dira.

4. *Orotariko Euskal Hiztegia* sarean

A. Sagarnak aurkeztu du eta, jada, sarean dagoen Orotariko Euskal Hiztegiaren erabilera posibleak (erdaratik abiatuz) erakutsi ditu. M. Azkarateren galderari erantzunez, A. Sagarnak hortik informazioa nola deskarga daitekeen azaldu du. J. L. Lizundiak ere galde egin du zerbitzu hau erabilgarria dela jendeari ea nola jakinaraziko zaion. Beroni ere argitasunak eman dizkio A. Sagarnak.

5. Buruorde berriaren hautaketa

Aurreko batzarrean B. Oihartzabalen dimisioa aurkeztu eta onartu zen. Hilabeteko epea pasatu eta hautagaiak aurkezteko epea gaur amaitu da. Euskaltzainburuak, Iparraldekoekin mintzatu ondoren eta X. Videgainen ezintasuna eta sarrera-hitzaldirik eza ikusita, Aurelia Arkotxaren kandidatura aurkeztu du. Bototara joanda, honako emaitzak izan dira. Guztira: 28 boto eman dira. Kandidatuaren alde: 18 boto. Boto zuriak: 8. Beraz, A. Arkotxa hautatu da.

6. Esku artekoak

6.1. *Euskaltzaindiaren 2008ko oroitidazkia*

Euskaltzainen artean joan den urteko Oroitidazkia banatu da.

6.2. Dieten ordainketa

J. L. Lizundiak azaldu duenez, egun gutxi barru dieta guztiak ordainduko dira. Batzuen atzerapena zenbait batzorderen emaitza-txostenen atzerapenagatik gertatu dela argitu du. Egoera ekonomikoa aski larria dela jakinarazi du, ekonomi krisiagatik eta erakunde ordaintzaile batzuen atzerapenagatik. Halere, arduradunekin mintzatzen eta haiekin elkartzen saiatzen da Euskaltzaindia problema hori ahalik eta lasterren konpontzeko asmoz. Dena den, jasoriko informazioen arabera, datorren urteari begira, murrizpen nabarmenak izango direla uste du diruzainak. Datorren urtean, gainera, beste hitzarmen bat sinatu beharko dela gogorarazi du.

6.3. Ikurrak banatzea

Andres Urrutiak Euskaltzaindiaren papar-ikurrak banatu ditu aurreko bileran jaso ez zituzten artean.

6.4. Etorkinen hizkuntza egoera

Andres Iñigok informatu duenez, Euskaltzaindiak, Sustapen Batzordearen eskutik, azaroaren 20an, goizean eta arratsaldean, Euskaltzaindiaren egoitzan, bere 14. Jardunaldiak antolatuko ditu, *Etorkinak eta euskara* gaiaren inguruan.

6.5. Hurrengo bilera

Donostian izanen da azaroaren 27an, Gipuzkoako Foru Diputazioan.

7. Azken ordukoak

Batzarraren amaieran honako liburu hauek banatu dira euskaltzainen artean:

– *Euskera* 2008, 2.
– *Euskaltzaindia eta Nafarroa* liburuxka.
– *Santiago Ezkerra Beltza: bizitza eta lanak* (Euskaltzainak, 11)
– 2008ko Txomin Agirre Saria: *Ekilibristaren polka*
– 2008ko Felipe Arrese Beitia Saria: *Azazkalak jaten.*

Batzarra arratsaldeko 17:30ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Ageriko bilkura

Foruan, 2009ko urriaren 31n

Gaur, urriak 31, egin da Joan Mari Torrealdai Nabea euskaltzainaren sarrera-hitzaldia Foruan, Frantziskotarren elizan, goizeko 11:00etan hasita.

Bildu direnak:

– Euskaltzain osoak: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andoni Sagarna, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Sagrario Aleman, Jose Antonio Arana Martija, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Joseba Andoni Lakarra, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren, Xarles Videgain, Piarres Xarritton eta Mikel Zalbide. Ezin etorria adierazi dute Aurelia Arkotxa, Jose Irazu «Bernardo Atxaga», Emile Larre, Beñat Oihartzabal, Pello Salaburu, Patxi Salaberri, Ibon Sarasola eta Patxi Zabaletak.

– Ohorezko euskaltzainak: Joseba Intxausti, Jose Antonio Retolaza eta Karmele Rotaetxe. Ezin etorria adierazi du Xabier Gereñok.

– Euskaltzain urgazleak: Jose Antonio Aduriz, Joseba Agirreazkuenaga, Dorleta Alberdi, Xabier Artola, Jon Aurre, Gotzon Aurrekoetxea, Ricardo Badiola, Gidor Bilbao, Andoni Egaña, Xabier Erdozia, Patxi Galé, Pruden Gartzia, Sebastian Gartzia Trujillo, Juan Luis Goikoetxea, Jazinto Iturbe, Jon Kortazar, Manu Ruiz Urrestarazu, Pello Telleria, Miriam Urkia eta Juan Jose Zearreta. Ezin etorria adierazi dute: Kepa Altonaga, Joxe Azurmendi, Juan Manuel Etxebarria, Jesus Mari Makatzaga, Xabier Mendiguren, Pello Esnal, Iñaki Irazabalbeitia eta Paskual Rekaldek.

Euskera. 2009, 54, 3. 1569-1597. Bilbo
ISSN 0210-1564

– Batzordekideak: Erramun Osa.

– Egitasmoetako teknikariak: Gorka Intxaurbe eta Amaia Jauregizar.

– Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi, Amaia Okariz, Josune Olabarria eta Resu Orbe.

Juan Jose Zearreta kudeatzaileak ekitaldiaren aurkezpen orokorra egin du. Ondoren, Xabier Kintana idazkariak, Barne Erregeletako 64.8 eta 64.9 ataletan esaten dena betez, ekitaldi akademikoaren nondik-norakoa azaldu du.

Igor Duñabeitia Alakano Foruko alkatearen ongi etorriak eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren agurrak hasiera eman diote gaurko ekitaldiari.

Ondoren, Miren Azkarate eta Joseba Lakarra euskaltzainek lagunduta, batzar tokira sartu da Joan Mari Torrealdai «Bibliografiatik bibliotekara. Esperantzari leihoa» izenburuko sarrera-hitzaldia irakurtzera.

Joan Mari Torrealdai: «Bibliografiatik bibliotekara. Esperantzari leihoa»

Euskal historiografian gutxi ikertu den ekintza garrantzitsua aztertu du Torrealdaik: euskal bibliografia eta biblioteka sortzeko izan diren asmo eta saioak. Aro hauetan banatu du gaiaren historia: XIX. mendea, XX. mendearen hasierako Eusko Pizkundea, frankismoa eta Autonomia garaia. Itxaropentsu agertu da hizlaria: Euskal Bibliografia eta Euskal Bibliotekaren lehen ahalegin eraginkorren mendeurrenaren atarian gaudela dio, Quadra Salcedo edo Odon Apraiz bibliografia lanetan hasi zireneko mendeurrena, 1914-15ean hasi zen eta. Mendeurrenaren abaguneaz baliatuz, bi amets hauek kaleratu ditu Torrealdaik: *Euskararen bibliografia* biltzea eta *Euskal intelligentsia*-ren inbentarioa egitea.

Jose Antonio Arana Martija: «*Alexandriatik digitalizaziora*»

Joan Mari Torrealdairen biografia eginez hasi da Arana Martija euskaltzaina. Argitaratu dituen liburuen zerrenda egin ondoren *XX. Mendeko euskal liburuen Katalogoa* azpimarratu du, Torrealdaik bibliografian egin duen lan bikaina. Ondoren, historian zehar idazkerak eta inprimaketak izan dituzten adierazpide eta modu ezberdinen berri eman du: Sumerian sortu zen zibilizazioa, Txina eta Japoniako

idazkerak, Alexandriako Biblioteka, Fenizioek asmatu zuten alfabetoa, Gutenbergen inprimatze-sistema, idazteko erabili diren luma eta bolaluma edo boligrafoa, gaur eguneko digitalizaziora iritsiz. Joan Mari Torrealdaik euskararen alde egin duen lan oparoa azaldu ondoren, amaitzerakoan, *Egunkaria*-ren itsieraren ondorengo epaiketak sortu duen samina deitoratu du Jose Antonio Arana Martijak.

Ondoren, Joan Mari Torrealdaik, Barne Erregelen 64.8. atalean esaten dena betez, «Euskaltzaindiaren xede eta helburuei, eta euskaltzain oso izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela» agindu du. Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoa dela adierazten duten diploma eta domina eman dizkio Joan Mari Torrealdairi.

Ekitaldi akademikoa bukatzean opariak eman dizkiote Joan Mari Torrealdairi Igor Duñabeitia alkateak, *Urdaibai* Dantza Taldeak, Usurbilko lagunek eta Torrealdai-Nabea familiak.

Ekitaldia eguerdiko 13:00etan bukatu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Donostian, 2009ko azaroaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario,
Arejita, Adolfo,
Azkarate, Miren,
Charriton, Pierre,
Davant, Jean-Louis,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Lakarra, Joseba,
Larre, Emile,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Salaberri, Patxi,
Salaburu, Pello,
Sarasola, Ibon,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles eta
Zabaleta, Patxi euskaltzainak
Telleria, Pello, idazkariordea.

Ezin etorriak eta ahalak: Beñat Oihartzabalek, ahala Xarles Videgaini**;** Joan Mari Torrealdaik, ahala Andoni Sagarnari; Aurelia Arkotxak, ahala Jean Haritschelharri; Bernardo Atxagak, ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek, ahala Andres Urrutiari.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregiko Batzar-aretoan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea. Ez da oharrik jaso eta, beraz, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

2. Hilberriak.

2.1. Juan Jose Zearretaren heriotza. Juan Jose Zearreta Urigoitialdekozea euskaltzain urgazle eta Euskaltzaindiaren kudeatzailea, azaroaren 7an automobil-istripuz hil zela eta, aktan Euskaltzaindiaren dolumina konstaraztea erabaki da, bai eta, haren

Euskera. 2009, 54, 3. 1569-1597. Bilbo
ISSN 0210-1564

heriotza dela eta, familiari domuninak helaraztea, eta jasoriko atsekabe-adierazpen guztiengatik eskerrak ematea.

2.2. J. M. Makatzagaren emaztea hil da. Jesus Mari Makatzaga euskaltzain urgazle eta Gramatika batzordearen idazkariaren emaztea, Ascensión Nuñez andrea, azaroaren 11n hil zen. Euskaltzaindiak bere doluminak bidali dizkio, bai eta Jesus Mari Makatzagaren eskerrak jaso ere.

3. Sariak

3.1. J. L. Davant eta J.M. Torrealdai sarituak. Euskaltzaindiak, halaber, jaso berri dituzten sariengatik, bere zorionak eman dizkie, alde batetik J.L. Davanti (*Nabarralde* saria) eta, bestetik, J. M. Torrealdairi (*Dabilen Elea* saria, Euskal Liburugintzaren arloko lau elkartek emana).

3.2. Jose Maria Muñoa Ganuza jaunaren omenaldia. Era berean, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian, eguerdiko 12etan, Jose Maria Muñoa jaunari Europako Parlamentuaren *Civi Europaeo Praemium*, hots, Europako Hiritarraren saria eman zaio. Euskaltzaindiaren batzarraren atseden-etenaldian, euskaltzainek bera agurtu eta zorionak ematera joateko aukera izan dute.

4. Exonomastika

4.1. Europako ibaiak

Aurreko batzarrean «Europako toponimia. Europako ibaiak» zerrenda aurkeztu zen. Horri J. Haritschelharrek ohar bat egin dio, *Jenisei* ibaiaren ortografia (hasierako *J-*) hegoaldeko euskaldunei nahasgarria gerta dakiekeelakoan, eta *Ienisei* idaztea hobe litzatekeela. J.L. Lizundiak eta X. Kintanak erantzun diote, eta, bere kezka ulertuz, ondokoa gogoratu diote: errusiar alfabetoko letra batzuk euskarara aldatzean *j* grafemari Euskaltzaindiak eman dion balio hobetsia Bizkaiaren mendebaldeko, Nafarroako eta Iparraldeko euskalkiena dela, hots, espainiera edo frantsesaren *y* (*yate, yogur, yatagán*..) eta ez espainerazko *j*-rena (*jabón, José, Jerez*).

Batzordeak, bestalde, autozuzenketa eginez, erdarazko *gave* hitzerako (*Gave d'Oloron, Gave de Pau*), Zuberoako *uhaitza* erabiltzea erabaki du, hots, Pirinioetatik heltzen diren ur korronteak, maiz elur urtzearen edo euriteen ondorio izaten direnak aipatzeko. Ontzat eman da kasu horretan *uhaitz* hitza erabiltzea.

4.2. Europako aintzirak

Ondoren, Europako ibaien zerrenda aurkeztu da. Oharrak egiteko euskaltzainek abenduaren 11ra arteko epea izango dute. P. Goenagak jakin nahi luke ea zergatik

kasu batzuetan izen propioaren ondoan *aintzira* jartzen den eta beste batzuetan ez. J.L. Lizundiak azaldu dio, eta *aintzira* batzuen aldameneko hiriaren erreferentziaren garrantzia azpimarratu du. Bestalde, A. Sagarnak, kasu askotan zentzu komunaz baliatu beharra dagoela azpimarratu du, nongo aintzira den azaltzen duen *-ko/-go* kasu atzizki hori kendu edota ipintzeko.

5. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Proposamenak aurkeztea. Euskaltzaindiaren Hiztegiko Batzorde Ahaldunduan lantzen diren gaietan Andoni Sagarna Iker Sailburuak, Euskaltzaindiaren Hiztegian hartu diren zenbait erabakiren berri eman du, lana errazteko asmoz. Alde batetik, «Sin.» guztiak «Ik.» bihurtu dira. Bestetik, Jakite arloko marka batzuk aldatu dira: Geom > Mat.; Gram. eta Fon. > Hizkl.; Finantz. > Ekon. Ontzat eman da.

Gainera, *taxonak* jartzeko orduan, sinonimo guztietan izen hori ez errepikatzeko, berori sarrera nagusian besterik ez da ezarriko, hots, definizioa daraman hitzean.

Osoko Bilkurari baimena eskatu zaio lehen itzuliko hitzen definizioetan beharrezkoak diren hitzei sarrera emateko, beroriek bigarren itzulian Osoko Bilkurak onartutakoak baldin badira. Onartua izan da era horretako hitzak modu progresiboan erabiltzea.

6. Hiztegi Batua. Zalantzazko hitzak. Ondoren, Iker Sailburuak berak Hiztegi Batuko zalantzazko hitz batzuk aurkeztu ditu, finkatzeko: *pastikatu*, *ferafutro, flan, budin frantses(-)belar* utzi dira, kasu batzuetan dagozkion esangura zehatzez osatzeko.

7. Iparraldeko ordezkaria

B. Oihartzabalen gaixotasun-ezintasunagatik sorturiko hutsunea betetzeko, Zuzendaritzak, interesatuekin mintzatu ondoren, Aurelia Arkotxa andrea onartu du euskaltzainburuorde, eta Xarles Videgain jauna, aldiz, Baionako bulegoaren arduradun. Horretara proposatu zaie osoko bilkuran euskaltzain guztiei eta holaxe berrestea erabaki da.

8. Esku artekoak

8.1. Euskaltzaindiaren 2010ko batzar-egutegia

Datorren urteko lehen zazpi hilabeteetako batzarren egutegi proposamena aurkeztu eta, eztabaidatu ondoren, honela onartu da:

Urtarrilak 29: Donostian. Hileko batzar arrunta eta hilberri-txostenak.

Otsailak 26: Bilbon. Hileko batzar arrunta.

Martxoak 26: – Donostian. Hileko batzar arrunta.
– Donostian. Miren Lourdes Oñederraren sarrera-hitzaldia.

Apirilak 30: Bilbon. Hileko batzar arrunta.

Maiatzak 28 Aramaion. Hileko batzar arrunta.
Maiatzak 29 Aramaion. Patxi Uribarrenen sarrera-hitzaldia.

Ekainak 25: Bilbon. Hileko batzar arrunta.

Uztailak 23: Donostian. Hileko batzar arrunta.

Datozen hilabeteetan zehar, Zuzendaritzaren asmoa da, jada ibilian diren egitasmoen arduradunekin mintzatu ondoren, horiek euskaltzainen aurrean banan-banan azaldu eta informazioa ematea, guztiok lanen berri izateko.

8.2. J. J. Zearretaren eta Euskaltzaindiko beste kide batzuen hilberri-txostenak.

Oraintsu zendu den Juan Jose Zearretaren hilberri-txostena egiteko, zuzendaritzak Jose Luis Lizundia proposatu du. Proposamena ontzat eman da.

Era berean, Euskaltzaindiko azken hildakoenak ondokoek egingo dituzte:

Antonio Zavalarena, Jose Mari Iriondok.
Santiago Ezkerrarena, Andres Iñigok.
Roger Idiart-ena, Jean-Louis Davantek.
Mikel Atxagarena, Mari Karmen Garmendiak.
Yuri Zytsar-ena, Xabier Kintanak.

8.3. Kudeatzaile berria. Oraintsu arte kudeatzaile izan den Juan Jose Zearretaren lekua betetzeko, horren ordezkoa hautatzeko prozedura eta baldintzak, Zuzendaritzak landu eta aurkeztuko dituela esan du Euskaltzainburuak, ondoren osoko bilkurak onar ditzan.

Era berean, A. Urrutiak adierazi duenez, hutsune larria gertatu arren, eguneroko lanari aurre egin behar zaio, eta horretarako, kudeatzaile berria hautatu arte, Euskaltzainburua hitzarmen, lege-kontu eta bestelako harremanez, argitalpenez, etab. arduratuko da; J.L. Lizundiak, aldiz, arazo ekonomikoen ardura eramanen du; X. Kintanak eta Pello Telleriak administrazio eta bulegoen kontrola hartuko dute, eta A. Sagarna, A. Iñigo eta Aurelia Arkotxa bakoitza bere Ordezkaritzako lanaz arduratuko dira.

J.L. Lizundiak azaldu du zer nolako aurreikuspenak zerabiltzan gogoan J.J. Zearretak, etapa berri bati hasiera emateko. Gertaerak egoera txarrean hartu gaituela eta ikaratzekoa ez den arren, arduratzekoa bederen badela. Krisi ekonomikoak eta egoera politikoak ere beren eragina izan dute. Edonola ere, orain arteko egoera ekonomikoa konpontzen eta kitatzen saiatzen ari da, eta, horretarako, batzar dietak, txostenak etab. ordaintzen dihardu.

Euskaltzainburuak, berriz, hemendik aurrera eman beharreko pausoak zeintzuk izan daitezkeen azaldu du, eta bestelako hitzarmenak beharko direla, proposamen berriekin. Era berean, informazioa eman du Eusko Jaurlaritzarekin eta Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako diputazioekin eta Madrileko Gobernu Zentralarekin eginiko gestioez.

J. L. Lizundiak hitzarmen egokiagoa lortu behar dela esan du. Pello Salabururen galderari erantzunez, A. Iñigok argitu du, Nafarroako Parlamentuak euskararako hamar mila euro proposatu zituela, baina geroago 149.000raino igo dituela Nafarroako Gobernuak.

9. Azken ordukoak

Banaturiko liburuak:

– *Erronkari eta Ansoko toponimiaz* (Mendaur – V). Juan Karlos Lopez-Mugartza.

– *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa* (Mendaur – VII). Edu Zelaieta Anta.

– *Euskera,* 2008, 3

Batzarra arratsaldeko 13,15ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Bilbon, 2009ko abenduaren 18an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Arkotxa, Aurelia, euskaltzainburuordea
Kintana, Xabier, idazkaria
Lizundia, Jose Luis, diruzaina
Sagarna, Andoni, Iker sailburua
Iñigo, Andres, Jagon sailburua
Arejita, Adolfo
Haritschelhar, Jean
Lakarra, Joseba
Larre, Emile
Oñederra, Miren Lourdes
Peillen, Txomin
Salaburu, Pello
Sarasola, Ibon
Toledo, Ana eta
Uribarren, Patxi euskaltzainak.

Pello Telleria idazkariordea eta Jose Alfontso Mujika, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Sagrario Alemanek, ahala Andres Iñigori; Bernardo Atxagak, ahala Andres Urrutiari; Miren Azkaratek, ahala Pello Salabururi; Jean-Louis Davantek, ahala Tx. Peilleni; Patxi Goenagak, ahala Miren Azkarateri; Beñat Oihartzabalek, ahala Aurelia Arkotxari; Patxi Salaberrik, ahala Andres Iñigori; Joan Mari Torrealdaik, ahala Andoni Sagarnari; Mikel Zalbidek, ahala Andres Urrutiari; Patxi Zabaletak, ahala Andres Iñigori.

Batzarra goizeko 10,00etan hasi da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak bilduak agurtu ondoren, eguneko aztergaiek izango duten ordena zehaztu du.

1. Azaroko akta onartzea. Aurreko batzarraren aktari dagokionez, J. L. Lizundiak zenbait ohar eta xehetasun egin ditu azaroaren 27ko batzarraren aktaz. Horiek aintzat hartuta, akta ontzat eman da.

2. Kudeatzaile berria aukeratzeko urratsak. Euskaltzainburua eta diruzaina diren aldetik, Andres Urrutiak eta Jose Luis Lizundiak, zuzendari-

tzaren izenean, Juan Jose Zearreta kudeatzaile zenduaren lekua betetzeko egindako gestioen berri eman dute. Horretarako, arlo horretan berezituriko enpresa batekin, Campo & Otxandiano deritzonarekin, lehen harremanak izango dituzte, kargu horretarako kandidatuek eduki beharko lituzketen profil kultural, tekniko eta gainerakoak zehazteko. Datorren bilkuran horren berri zehatzagoa emango du Zuzendaritzak.

3. Exonomastika

3.1. Europako toponima. Aintzirak. Aurreko hilean banaturiko exonomastika zerrendari, hots, Europako aintzirenari, Patxi Zabaleta euskaltzainak ohar batzuk egin dizkio. Batean *Lau Kantonamenduen aintzira* barik, *Lau Kantonamenduetako aintzira* jartzea proposatu du. Batzordeak proposamena holaxe onartu du.

Horri buruz, Pello Salaburuk eskatu du lexiko berezituan eginiko aldaketek oinarrizko lexikoari ukitzen baldin badiote, hori bereziki jakinarazi behar zaiola dagokion batzordeari**.**

Lehenagoko erabakien gaineko ukitu eta zuzenketak direla eta, I. Sarasolak ohartarazi du jendeari irakatsi behar zaiola aldaketetako kulturan bizi beharra dugula, eta gizarte, politika eta zientzien mailan gertatzen diren aldaketen ondorioz batzuetan erabakiak ere egokitu beharra izaten dela.

Lago Maggiore izenaren *gg* >, sinpletzea, ordea, ez da onartu, hori italierazko, hots, normalizaturiko hizkuntza horren ohiko grafia aldatzea litzatekeelako.

Bestetik, izen geografiko batzuen aposizioa dela eta, Patxi Zabaletak eskatzen duena beti egin daitekeela pentsatzen dute, baina ez dela beharrezkoa. Azkenik, *Mar Menor* toponimoa ere horrelaxe uztea erabaki da

3.2. Europako toponimia. Itsasoak eta itsasarteak

Exonomastika Batzordeak, halaber, «Europako itsasoak eta itsasarteak» izeneko zerrenda aurkeztu du, euskaltzainek ikertu eta, hala beharko balitz, oharrak egiteko. Horiek bidaltzeko epea urtarrilaren 22an amaituko da.

4. Euskaltzaindiaren hiztegia. Adierak eta adibideak egitasmoa

I. Sarasola euskaltzainak eman du berorren berri. Hitzen azalpena euskaraz eskaintzen dituen hiztegi hau moldatzeko irizpideak eta modua azaldu du. Horretarako, koherentziagatik, hitzen esangura emateko definizioetan 1. itzuliko hitzak erabiltzea proposatzen du I. Sarasolak, Elhuyar-en eta Lur-en definizioak kontuan izanda. Hiztegi guztiek, oinarriz, kontserbadore izan behar dutela gogo-

ratu du, eta etsenplu batzuk jarri ditu, gerta daitezkeen anbiguotasunak salatzeko. Ondoren, egiterakoan gerta daitezkeen arazo nabarmenenak azaldu ditu (letren izenak, izenondoak definitzeko zailtasunak eta adibidedun eta adibide gabeko hitzak).

5. ***El euskera en la Comunidad Autónoma Vasca (2009). Una aportación a la diversidad lingüística,*** Euskaltzaindiaren Jagon Saileko 8. liburuaren aurkezpena.

Obraren egileak berak, hots, Miquel Gros i Llados jaunak aurkeztu du. Hasieran, soziolinguistikan erabiliriko hitz batzuk azaldu eta zenbaitzuek horiez egiten duten erabilera okerra kritikatu du, hala nola *elebitasuna*, *minorizatu*, *hizkuntza minorizatuak*, *jatorrizko hizkuntzak,* etab. Ondoren, botere publikoek mintzairak bultzatu edo zapaltzeko izaten duten zeregina azpimarratu du. Era berean giza taldeen bizitzan hizkuntzek duten interesa eta garrantzia nabarmendu ditu.

6. Esku artekoak

6.1. 2010eko batzar egutegi eguneratua

Karpetan 2009ko azaroaren 27ko Osoko Batzarrean onarturiko Batzar egutegia banatu da, urtarriletik uztailera artekoa. Hor ageri denez, urtarrilaren 29an, arratsaldean, Antonio Zavala (J.M. Iriondok), Santiago Ezkerra (A. Iñigok), Juri Zytsar (X. Kintanak), Roger Idiart (J.-L. Davantek), Mikel Atxaga (M.K. Garmendiak) eta Juan Jose Zearreta (J.L. Lizundiak) euskaltzainkideen hilberri-txostenak irakurriko dira. Era berean, martxoaren 26an, arratsaldez, M. L. Oñederraren sarrera-hitzaldia Donostian izanen da.

6.2. Ohorezko euskaltzainak aurkezteko epea

Euskaltzainburuak, halaber, ohorezko euskaltzaingaiak aurkezteko epea, Arautegiaren eta Barne Erregelen arabera, abenduko data honetatik urtarrilaren 22ra arte izanen dela aldarrikatu du.

6.3. 2009ko Azkue Sariak

Atzo, abenduaren 17an Literatura Ikerketa Batzordeak proposaturik, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak 2009ko Azkue Sariaren epaimahaiaren osaera onartu zuen, izen hauekin, eta osoko batzarrak berretsi egin du:

A mailan: Yolanda Arrieta, Igone Etxebarria, Antton Irusta Zamalloa

B mailan: Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta, Ibon Egaña.

7. Azken ordukoak

7.1. Liburu eta argitalpenok banatu dira euskaltzainen artean:

– *Narrazioak eta olerkiak 2008.* Haur eta gazteentzako R.M. Azkue literatur sariak.
– *Institut d'Estudis Catalans – Euskaltzaindia* erakundeen zabalkunde-liburuxka.
– *Plazaberri – 2* berri-papera
– *2009ko Gabon-txartelak*

7.2. Juanjo Zearretaren familiari harrera egin eta irudi-ematea.

Juan Jose Zearreta gure Akademiaren kudeatzaile zendu berriaren alargunari, Eufemia Urrutiari, eta beraren seme biei, Txaber eta Ekaitzi, harrera egin die Euskaltzaindiak, batzar areto nagusian. Bertan, doluminak berrestuz, haren omenez, Ikeder enpresak egindako marrazki bat eskaini die familiakoei Andres Urrutia euskaltzainburuak, familiak eskertua.

Batzarra 13:35ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Euskaltzaindiaren Arauak

Euskera. 2009, 54, 3. Bilbo
ISSN 0210-1564

158

Kanpoko leku-izenak euskaraz ahoskatzeko irizpideak

Euskaltzaindiaren gomendioa

Atarikoa

Duela 11 urte eman zuen Euskaltzaindiak *Euskara batuaren ahoskera zaindua* (hemendik aurrera, EBAZ) izeneko araua (87. araua, Euskaltzaindiak 1998ko ekainaren 26an onartua). Arau horren atarikoan, aipatzen da ahoskeran ere batasunerako irizpideak emateko eskaera jaso zuela Euskaltzaindiak eta horregatik erabaki zuela araua ematea, beti ere gogoan izanik hizkera zaindua, maila jasokoa, erabili behar denerako dela araua, hau da, irrati-telebistetako berri-emanaldietarako, jendaurreko hitzaldietarako, eskolako azalpenetarako eta haien antzeko egoeretarako.

Euskaraz ari garela, eta gaia zein den, Euskal Herrikoak ez diren leku-izenak —Euskal Herrikoak ez direnak— erabiltzen ditugu sarritan. Kanpoko edo erdal izen horiek, batzuetan, euskaraz jatorrizkoan ez bezala idazten ditugu (*Andaluzia, Auvernia, Bavaria, Baxkiria, Flandria, Suedia*...). Gehienetan, baina, jatorrizko grafia ez dugu aldatzen (*Los Angeles, Washington, Beaujolais, Jaén, Hérault, Perugia, Zürich*...).

Kanpoko leku horiek guztiak euskaraz nola ahoskatu behar diren zehaztea lantegi gaitza da, baina komeni da aholku eta irizpide orokor batzuk zehaztea, batez ere gehien erabiltzen diren kanpoko izenak eta iragankorrak ez direnak (leku-izen nagusiak, adibidez) euskara batuko ahoskera zainduan nola esan behar liratekeen zehazteko.

Helburua ez da inbentario zabal bat egitea, oinarri nagusi batzuk ezartzea baizik, eta, batez ere, ohartaraztea ondoan ditugun erdara nagusietako hiztunek (eta euskaldunok ere bai, erdara horietan hitz egiten dugunean erdal hiztun baikara) kanpoko izen horiek esatean erabiltzen duten/dugun ahoskerak (gaztelaniarena Hego Euskal Herrian, eta frantsesarena Ipar Euskal Herrian) eta euskaraz aritzean erabiltzen dugunak ez dutela zertan beti berdinak izan.

Hau da, beraz, gomendio honen helburua: irrati-telebistetako berri-emanaldietan, jendaurreko hitzaldietan, eskolako azalpenetan eta haien antzeko egoera formaletan euskara batuan aritzean, kanpoko leku-izenak ahoskatzeko erabili beharreko irizpide orokor nagusiak zehaztea.

Euskera. 2009, 54, 3. 1601-1611. Bilbo
ISSN 0210-1564

Irizpideak

Kanpoko leku-izenen artean, ahoskerari dagokionez, bereizketa bat egin behar da, lehenlehenik:

Batetik, jatorrizkoan ez bezala idazten direnak, hau da, euskaraz berezko grafia arautua dutenak. Bestetik, jatorrizkoan bezala idazten direnak, hau da, euskal grafiara moldatu ez direnak.

1. Euskaraz berezko grafia dutenak

Euskaraz jatorrizkoan ez bezala idazten diren leku-izenak, hau da, euskal ortografiara egokituta idazten direnak (euskal exonimoak). Leku-izen horien berariazko euskal grafia arauetan agertzen da. Adibidez: *Andaluzia, Auvernia, Bavaria, Flandria, Florentzia, Saxonia, Valentzia, Zipre...*

Horrelakoak euskal izenak bezalakoak dira, eta EBAZaren arau eta gomendioen arabera ahoskatu behar dira. Guztiarekin ere, baldin eta hiztunak ez badaki zein den ebakera zuzena, EBAZaren arabera ahoska ditzala. Hau da, ez dira, besterik gabe, gaztelaniaren edo frantsesaren ahoskeraren arabera ahoskatu behar (gaztelaniaren edo frantsesaren lurraldekoak ez badira, jakina). Adibidez:

Lieja, Jena, Genoa

Beste alfabeto batzuetatik euskarara transkribatuta ematen diren leku-izenak ere, ahoskerari dagokionez, euskal exonimotzat hartzekoak dira. Hau da, EBAZerako arau eta gomendioen arabera ahoskatu beharrekoak dira. Adibidez, Ukrainako *Jalta* leku-izen ospetsua EBAZaren arabera ahoskatu behar da, hau da, gaztelaniaz *Yalta* ahoskatzen den bezala, **j** letraren ahoskera oinarrizkoa <y> baita (beste hainbeste esan behar da *Sarajevo* leku-izen ospetsuari buruz ere — kasu honetan transkribatutako izena ez bada ere, bosnieraz ere berdin idazten baita—: EBAZaren arabera ***je****lostu* ahoskatu behar den bezala ahoskatzekoa da *Sara****je****vo* leku-izenaren *-**je**-* silaba, eta ez Espainiako espainieran ahoskatzen den bezala —hau da, *tra****je*** hitzeko *-**je**-* silaba bezala ahoskatuta—).

Alfabeto zirilikotik transkribatutakoetan, jakin beharrekoa da **kh** digrafoaren ahoskera [x] belarraz ahoskatzekoa dela, hau da, gipuzkeraz *joan*, *jaun* edo *josi* hitzetako **j** letra ahoskatzen den bezala (gaztelaniaz *jamón* hitzeko **j** ahoskatzen den bezala), eta **zh** digrafoaren ahoskera [ʒ] sabaiaurrekoa dela, hau da, Lekeition, Otxandion edo Legution <*mendij**a***> ebakitzen den bezala (edo frantsesez *allia**g**e* ahoskatzen den moduan, edo Argentinako espainieran ***y****o* ahoskatzen den moduan. Halako hotsik ez duten euskaldunentzat , [ʃ]; alegia, ***X****abier* hitzeko <x> edo ***j****adanik* hitzeko <j>.

Astrakhan → astra[x]an

Birobizhan → birobi[ʒ]an

Grozny → grozni

Txernobyl → txernobil

Vladivostok → bladibostok

2. Euskaraz ere jatorrizkoan bezala idazten direnak

Horrelakoak dira leku-izen gehienak, hau da, jatorrizkoan bezala idazten dira, eta euskaraz ez dute berezko izanik. Ez dira euskal exonimoak. Haien artean, bi sail bereizi behar dira:

2.1. Euskara batuan ohiko euskal hitzetan erabiltzen ez diren letrak edo letra-konbinazioak dituztenak (*Avignon, Abu Dhabi, Abruzzo, Aachen, Chambery, Ceuta, Corrèze, Cayenne,Yangzi, Botswana, Guadalquivir, Muqdisho, Schwyz...*) edo,

2.2. euskara batuan erabiltzen diren ohiko letrez osatuta egon arren bestelako ahoskera behar luketenak (*Addis Abeba, Alentejo, Appenzell Auserrhoden, Perugia*, *Algeciras*, *Elx*).

Hala, esan liteke **euskaraz ere jatorrizkoan bezala idazten diren leku-izenak jatorrizkoan bezala** (ahalik eta gertuen) **ahoskatzekoak direla**[1]. Hala ere, ezinezkoa da erdara guzti-guztietako ahoskerak ezagutzea, baina komeni da saiatzea. Horregatik, hizkuntza nagusietako, eta gugandik gertuen dauden hizkuntzetako, letra-hotsen ordain orokorrak aintzat harturik, euskal ahoskerazko parekoa edo gertuenekoa adieraztea da gomendio honen helburua. Amaierako tauletan ematen dira gomendioak hizkuntzaz hizkuntza.

3. Deklinabidea eta ahoskera

Kanpoko leku-izen baten idazkera eta ahoskera bat ez datozenean eta izena deklinatu behar denean, honela joka daiteke deklinabide-atzizkia eransteko orduan:

[1] Badira, nolanahi ere, euskarazko ahoskeraren arabera ahoskatzen diren edo ahoska daitezkeen izen batzuk. Batetik, —kasurik nabarmenena da— *Paris* hiri-izena; euskaraz frantsesez bezala idazten bada ere, ez da frantsesez bezala ahoskatzekoa ([pa'ʀi]), euskal ahoskeraz baizik ([paris]). Bestetik, nolabaiteko tradizioa dutela eta, EBAZaren arabera ere ahoska daitezke beste hiru leku-izen hauek: *Zaragoza*, *Zamora* eta *Ceuta* (EBAZaren arabera ahoskatuta: <zaragoza>, <zamora>, <zeuta>). Azkenik, *Argentina* leku-izena aipatu behar da; haren ohiko ahoskera gaztelaniazkoa bezalakoa da —[x] belarraz—, baina euskara batuaren ahoskera zainduan **g** letrari dagokion moduan ere —[g] herskari belar ahostunaz (*gerezi* hitzeko **g** letra ahoskatzen den bezala)— ahoska daiteke.

A) Idatzizkoan, idatzizkoari erreparatuta ezarriz deklinabide-atzizkia, hau da, azken letra kontsonantea bada, kontsonantez amaitutako hitzak bezala deklinatuz; azken letra bokala bada, bokalez amaitutako hitzak bezala deklinatuz. Adibidez:

*Yorkshire: Yorkshire**ren**, Yorkshire**n**, Yorkshire**ko**...*
Creuse: *Creuse**ko***, *Creuse**n**...*
*Calais: Calais**en**, Calais(**e**)**ko**, Calais**i**...*
*Nîmes : Nîmes(**e**)**ko***, *Nîmes**en***, *Nîmes**i**...*
*Versailles: Versailles(**e**)**ko***, *Versailles**en**...*
Limoges: *Limoges(**e**) ko*, *Limoges**en**...*

B) Ahoskatzekoan, ahoskerari erreparatuta ezarri behar da deklinabide-atzizkia. Adibidez:
Yorkshire <jorksair>:
*Yorkshire**ren*** <jorksair**ren**>, *Yorkshire**n*** <jorksair**ren**>, *Yorkshire**ko*** <jorksair**reko**>...
Creuse <kreus>:
*Creuse**ko*** <kreus(**e**)**ko**>[2], *Creuse**n*** <kreus**en**>...
Calais <kale>:
*Calais**en*** <kale**n**>, *Calais(**e**)**ko*** <kale**ko**>, *Calais**i*** <kale**ri**>...
Nîmes <nim>:
*Nîmes(**e**)**ko*** <nim**eko**>, *Nîmes**en*** <nimen>, *Nîmes**i*** <nim**i**>
Versailles <versail>:
*Versailles(**e**)**ko*** <versail**eko**>, *Versailles**en*** <versail**en**>...
Limoges <limoʒ>:

*Limoges(**e**) ko* <limoʒ(**e**)**ko**>:, *Limoges**en*** <limoʒ**en**>...

[2] Ipar Euskal Herriko euskaldunek, frantses leku-izenak ahoskatzean, gaur egun sistematikoki ezarri ohi dute aukerako **e** epentetikoa. Adibidez, <kreuseko> egin ohi dute, eta ez <kreusko>.

KANPOKO LEKU-IZENEN AHOSKERA ZAINDURAKO GOMENDIO NAGUSIAK

Alemana	Adibideak	Euskararako gomendioa	Bestelako aukerak[3]	
			Heg.	Ipar.
ch[4]	*Aa**ch**en* *Züri**ch***	<j> (gaztelaniazko *jamón* hitzeko lehen hotsa bezalakoa)		<h>, <g>
ei	*Br**ei**sgau* *Holst**ei**n* *Zw**ei**brücken*	<ai>		
h	***H**amburg* ***H**essen* ***H**olstein* ***H**annover* *An**h**alt*	Ahoskatzen saiatu, bokal artekoa denean izan ezik (bokal artekoa denean, ez da ahoskatzekoa; *Karlsru**h**e*: <karlsrue>)	<j> (gaztelaniazko *jamón* bezala)	
j	***J**ena*	Euskarazko *jadanik* edo ingelesezko *yes* hitzeko lehen hotsa bezalakoa		
ö	*G**ö**ttingen* *K**ö**nigsberg*	Frantsesezko <eu> bezala; <o> eta <e> arteko zerbait		
sch	***Sch**malkalden* ***Sch**leswig*	<x> (*horixe, pixka, xagua*)		
ü	*T**ü**bingen* *L**ü**neburg* *Saarbr**ü**cken* *W**ü**rzburg* *Zweibr**ü**cken* *W**ü**rttemberg*	zubererazko <ü> eta frantsesezko *tu, vu* hitzetako bokala bezalakoa	<u> edo <i>	
v	***V**orarlberg*	<f> (*falta, fede*)		
w	*Bruns**w**ick* *Lud**w**igsburg* ***W**estfalia* ***W**ürzburg* *Z**w**eibrücken* ***W**ürttemberg*	<v> (frantsesezko *vache* edo *violon* hitzetako lehen hotsa bezalakoa)	<b>	

[3] Hots hori ez duten Hegoaldeko edo Iparraldeko euskaldunentzat lagungarritzat eskaintzen den ordezko aukera.

[4] Baita nederlanderaz ere. Adibidez: *Maastri**cht*: maastri[x]t. Bestalde, *Muni**ch*** leku-izena aipatu behar da, jatorrizko izena ez bada ere (jatorrizkoa *München* da). Amaierako <ch> hori <k> ahoskatzekoa da: [munik]

Alemana	Adibideak	Euskararako gomendioa	Bestelako aukerak[3]	
			Heg.	Ipar.
z	*Main**z*** *Sal**z**burg* ***Z**ürich* *Wür**z**burg* ***Z**weibrücken*	<tz> (*atzo, etzi, hitz)*		

Ingelesa[5]	Adibideak	Euskararako gomendioa	Bestelako aukerak[3]	
			Heg	Ipar
dg	*Cambrid**g**e*	Otxandion edo Legution *jat* ahoskatzen den bezala (*esan jat* ahoskatzean, adibidez)	<tx>	
sh	*York**sh**ire*[6]	<x> (*horixe, pixka, xagua*)		
th	*Nor**th**umbria*	Gaztelaniaz *Zaragoza* leku-izeneko zeta letra ahoskatzen den bezala		<z>
w	***W**ashington* ***W**essex*	<u> (diptongoa eginez)		

Frantsesa[7]	Adibideak	Euskararako gomendioa	Bestelako aukerak[3]	
			Heg.	Ipar.
ai[8]	*Cal**ai**s* *Val**ai**s* ***Ai**sne*	<e>		

[5] Bokalak ez dira sartu, kasuistika konplexua delako.

[6] EBAZaren arabera <jorkxair> ahoskatuko litzatekeen moduan.

[7] Kasu nagusiak baino ez dira agertzen, kasuistika aski konplexua baita. Aipatu beharrekoa da, dena den, hitz-amaierako kontsonanteen kasua. Oro har, hitzen amaierako **p**, **d**, **t**, **s** eta **z** kontsonanteak ez dira ahoskatzen (*Foix*, [fwa]; *Poitou-Charentes*, [pwaˌtuʃaˈʁɑ̃ːt]). Hitzen amaierako **l**, **f**, **c**, **r** eta **n** kontsonanteak bai (Ipar Euskal Herriko ahostun batzuek, nolanahi ere, deklinatu gabeko formetan ez dute amaierako **n** letra ahoskatzen, aurreko bokala sudurkari egiten baitute). Alabaina, **-ier** amaierako hitzetan (baldin eta silaba bat baino gehiagoko hitzak badira), amaierako **r** letra ez da ahoskatzen (*Montpellier*, [mɔ̃pəˈlje]); horiek deklinatzean, ez dirudi ahoskera-batasunik dagoenik gaur egun euskaldun frantsesdunen artean. Oro har, *Montpellier* kasuan **r** hori ahoskatu ohi da (*Montpellierreko* [mɔ̃pəˈljeʁko]), baina hortik ez dago ondorio orokorrik ateratzerik, kontua hobeki aztertua izan arte bederen.

[8] Kontuz, dena den, *Versailles* bezalakoekin: <ai> bokal-bikotearen ondoren <ll> dagoenean, ez da <e> ahoskatu behar, <ai> baizik.

Frantsesa[7]	Adibideak	Euskararako gomendioa	Bestelako aukerak[3]	
			Heg.	Ipar.
	*Ille-et-Vil**ai**ne*			
au	*H**au**te-Loire* ***Au**be*	<o>		
ce, ci, ç	***Ce**ntre* *Valen**ce*** *Pré**ci**lhon* ***Ci**ry-Salsogne* *Alen**ç**on* *Besan**ç**on*	<ze>, <zi>, <z>		
ch	***Ch**ambéry* *Fran**ch**e-Comté* *Poitou-**Ch**arentes*	<x> (*horixe, pixka, xagua*)		
e	*Franch**e**-Comt**é*** *Lucarr**é*** *Saint-Germain-d**es**-Pr**é**s* *Pays de la Loir**e*** *Creus**e*** *Limog**es*** *Mézièr**es*** *Poitou-Charent**es*** *Bourg**es*** *Chartr**es*** *Nîm**es***	amaierako <e> letra edo <es> amaiera ez da ahoskatzen azentu-markarik (tiletik) ez badu, baina azentu-marka badu, bai		
eau	*Chât**eau**roux* *B**eau**vais*	<o>		
en (kontsonante aurrean edo hitz-amaieran)	*C**en**tre* *V**en**dée* *Char**en**te*	[ã]	<an>	
eu	*D**eu**x-Sèvres* *Saint-Bri**eu**c* *Cr**eu**se* *Périgu**eu**x*	[ø] (<e> eta <o> arteko zerbait)	ezpainak <o> bokala esateko jarri, baina <e> bokala esan	
ge, **g**i	*Ariég**e*** ***G**ers* *Limo**g**es* ***G**ivardon*	[ʒ] Lekeition, Otxandion edo Legution *mendij**a*** ebakitzen den bezala (edo Argentinako espainieran ***y**o* ahoskatzen den moduan)	<x>	
gn	*Champa**gn**e-Ardenne* *Di**gn**e-les-Bains*	<ñ> (*ñabar, andereño*)		

Frantsesa[7]	Adibideak	Euskararako gomendioa	Bestelako aukerak[3]	
			Heg.	Ipar.
	*Bobi**gn**y* *Avi**gn**on*			
in (kontsonante aurrean edo hitz-amaieran)	***In**dre* *Limous**in***	[ẽ]	<en>	
j	*An**j**ou* ***J**uraçon* *Monré**j**eau*	[ʒ] Lekeition, Otxandion edo Legution <*mendi**j**a*> ebakitzen den bezala	Argentinako espainieran ***y**o* ahoskatzen den moduan	frantsesez *allia**g**e* ahoskatzen den moduan
oi	*Art**oi**s* *Pays de la L**oi**re* *P**oi**tou-Charentes* *F**oi**x* *Eure-et-L**oi**r*	<ua>, silaba bakarrean esanda (gaztelaniaz *guapo* esaten den moduan)		
ou	*Poit**ou*** *D**ou**bs* *Lim**ou**sin*	<u> (*ura, buru*)		
u	*Nam**u**r* *Côte-d'Az**u**r*	zubererazko <ü>	<u> (edo <i>)	
v	***V**alais* ***V**annes* ***V**ersailles*	<v> (fran. *vache* edo *violon* hitzetako lehen hotsa bezalakoa)	<b>[4]	

Italiera	Adibideak	Euskararako gomendioa	Bestelako aukerak[3]	
			Heg	Ipar
ca, **c**o, **c**u	*An**c**ona* ***C**apua* ***C**arrara* *Basili**c**ata* ***C**uneo*	<k>		
ce, **c**i	*Pia**c**enza* *Vi**c**enza* *Fiumi**c**ino*	<tx>		
che, **ch**i	***Ch**ieti* *Centra**ch**e* ***Ch**ianche* *Olivetta San Mi**ch**ele*	<k>		
ge, **g**i, **j**	*Agri**g**ento* *Adi**g**e Garaia* *Peru**g**ia*	Otxandion edo Legution *jat* ahoskatzen den bezala (*esan jat*	<j> (*Jon*)	<j>

	*Regg**i**o di Calabria* *Friuli-Venezia-**J**ulia*	ahoskatzean, adibidez)		
gli + bokala	*Ventimi**gli**a* *Ca**gli**ari*	<ll> (*llabur*)		
gn + bokala	*Emilia-Roma**gn**a* *Bolo**gn**ano* *Cu**gn**oli*	<ñ> (*ñabar, andereño*)		
qu	*L'A**qu**ila*	<ku>		
z	*Piacen**z**a* *Vicen**z**a* *Abruz**z**o* *La**z**io*	<tz>		

Gaztelania	Adibideak	Euskararako gomendioa	Bestelako aukerak[3]	
			Heg	Ipar
ca, **c**o, **c**u	***C**ádiz* ***C**ompostela* ***C**uenca*	<k>		
ce, **c**i	*Cá**c**eres* ***C**iudad Real* *Asun**c**ión*	[θ]; gaztelaniaz ***Z**aragoza* leku-izeneko zeta letra ahoskatzen den bezala		z
ch	***Ch**in**ch**illa* *los Pedro**ch**es*	<tx>		
ge, **g**i, **j**	*Al**g**eciras* *Ar**g**entina* ***G**ibraltar* ***J**aén* *Bada**j**oz* ***J**erez*	[x], gipuzkeraz *joan*, *jaun* edo *josi* hitzetako **j** letra ahoskatzen den bezala		<h>, <g>
z	*Bier**z**o* *Badajo**z***	[θ]		<z>

Katalana	Adibideak	Euskararako gomendioa	Bestelako aukerak[3]	
			Heg.	Ipar.
ce, **c**i	***Ce**rdanya* *Co**ce**ntaina* ***Ce**rvera* ***Ci**utadella* *Arbú**ci**es*	<s>		
ç	*Lli**ç**à d'Amunt* *L'Arbo**ç*** *Castellter**ç**ol*	<s>		

Katalana	Adibideak	Euskararako gomendioa	Bestelako aukerak[3]	
			Heg.	Ipar.
	*Pollen**ç**a*			
ge, **g**i, **j**	***G**irona* *Alg**e**mesí* *Vilanova i la **G**eltrú* *La Seu d'Urg**e**ll* ***G**inestar* *La Vila **J**oiosa* *La **J**onquera* *Catarro**j**a* *Llucma**j**or*	[ʒ] Lekeition, Otxandion edo Legution <*mendi**j**a*> ebakitzen den bezala	Argentinako espainieran ***y**o* ahoskatzen den moduan	frantsesez *allia**g**e* ahoskatzen den moduan
ig	*Pu**ig**dàlber* *Massalcore**ig***	<tx>		
silaba-amaierako **ll**	*Castel**ll**terçol* *Martore**ll*** *Sabade**ll*** *La Seu d'Urge**ll***	<ll> (ez da <l> hutsa)		
ny	*Are**ny**s de Mar* *Ba**ny**oles* *Montse**ny*** *Onti**ny**ent*	<ñ>		
x	***X**ix**x**ona* *Sant Feliu de Guí**x**ols* *Foi**x**à* *Prei**x**ana*	<x>		
x (kontsonante ondoren)[9]	*El**x*** *L'Or**x**a* *Bar**x**eta* *Bar**x*** *Vilamar**x**ant*	<tx>		

Portugesa	Adibideak	Euskararako gomendioa	Bestelako aukerak[3]	
			Heg.	Ipar.
ç	*Olivenç**a*** *Melgaç**o*** *Valenç**a do Minho*** *Bragançа*	<z>		
ge, **g**i, **j**	*Be**j**a* *Ribate**j**o* *Al**j**ezur*	[ʒ] Lekeition, Otxandion edo Legution	Argentinako espainieran ***y**o* ahoskatzen	frantsesez *allia**g**e* ahoskatzen den

[9] Valentziako Erkidegoko leku-izenetan agertu ohi da.

	*Minas **G**erais*	<*mendij**a***> ebakitzen den bezala	den moduan	moduan
lh	*Vila Ve**lh**a de Ródão* *Mea**lh**ada* *Sernance**lh**e* *Covi**lh**ã*	<ll>		
nh	*Valença do Mi**nh**o* *Cami**nh**a* *Vi**nh**ais* *Espi**nh**o* *Pi**nh**el*	<ñ>		

Euskaltzaindiak 2009ko ekainaren 26an, Hazparnen, eta uztailaren 17an, Bilbon, onartua.

159

EUROPAKO TOPONIMIA FISIKOA

Europako geografia politikoaren leku-izen nagusiak zenbait arautan eman ondoren, Europako geografia fisikoari heldu dio Euskaltzaindiak, eta arau hau da emaitza. Hala, Europako geografia maila xehe samarrean arautu ondoren, Europako leku-izen nagusiak (fisikoak eta politikoak) euskaraz nola izendatu eta idatzi behar diren aski zehazturik geldituko da. Handik eta hemendik, hainbat esparrutatik (hezkuntzaren mundutik, komunikabideetatik, itzulpengintzatik, argitaletxeetatik —entziklopediagintza barne—) iritsia zen eskaera betetzera dator, beraz, arau hau.

Ez da hutsetik abiatutako lana. Europako geografia fisikoan zenbait leku-izen nagusiren grafia dagoeneko arautua du Euskaltzaindiak. Hala, 36. arauan (*Frantziako errepublikako eskualde-, departamendu- eta hiriburu-izenak*), 52. arauan (*Munduko geografiako zenbait izen [mendiak, ibaiak, itsasoak]*), 59. arauan (*Ibaiak*), 60. arauan (*Aintzirak*) eta 70. arauan (*Mundu zabaleko uharte nagusiak*), Europako hainbat leku-izen agertzen dira. Hala ere, garrantzi geografikoa, historikoa edo geopolitikoa duten leku-izen ugari falta ziren. Horregatik, Europako geografia fisikoa sistematikoki arakatu, eta leku-izen garrantzitsuenak bildu dira. Errusia estatu handiari dagokionez, haren parte bat Europan dago eta gainerakoa Asian. Arau honetan, dena den, Errusia osoko leku-izenak ageri dira, kontuan hartu gabe Europakoak ala Asiakoak diren. Guztira, 450 leku-izenetik gora ageri dira arauan: lehendik araututa eta zenbait arautan sakabanatuta zeuden guztiak eta orain arte arautu gabeko beste asko.

Bilketa-lan sistematikoa egin da. Zazpi atal nagusitan sailkatu dira leku-izenak lantzeko eta aztertzeko:

1- Ibaiak
2- Aintzirak eta urtegiak
3- Itsasoak, golkoak eta itsasarteak
4- Lurmuturrak eta penintsulak
5- Mendikateak
6- Mendiak
7- Uharteak

Lehenik, milaka leku-izen bildu dira. Garrantziaren bahetik pasarazi ondoren, bahetzea gainditu duen leku-izen bakoitzaren informazio xehea biltzea izan da hurrengo lana:

- Lehenik, informazio geografikoa: zer toponimo-mota den, zer estatu eta eskualdetakoa den, zergatik jotzen den garrantzitsutzat —tamaina (luzera, altuera, azalera), hurbiltasun geografikoa, historia, turismoa...—.

- Bigarrenik, erdal hizkuntzetako informazioa: leku-izena ingelesez, gaztelaniaz, frantsesez eta lekuaren bertako hizkuntz(et)an; baita beste hizkuntzetako formak ere, baldin eta lekuak hizkuntza askotan exonimoa badu: katalana, alemana, italiera, latina, grekoa...

- Hirugarrenik, euskarazko erabilerari buruzko informazioa: tradizioa —Orotariko Euskal Hiztegiaren corpusean, Klasikoen gordailuan— eta egungo erabilera —XX. mendeko euskararen corpus estatistikoan, Ereduzko Prosa corpusean, euskal entziklopedietan, *Berria*n...—.

Informazio hori aztertuta proposatu da lehenengo, eta arautu da gero, leku-izen bakoitzaren grafia. Kasu askotan, euskarazko grafia eta jatorrizko grafia bat datoz. Hala gertatzen da leku-izenak euskaraz tradiziorik ez duenean eta inguruko hizkuntza nagusi gehienetan leku-izenaren grafia aldatzen ez denean. Adibidez, Txekiako **Morava** ibaia, Norvegiako **Barents** itsasoa edo Danimarka eta Suedia arteko **Skagerrak** itsasartea. Egoera horretan daude leku-izen gehienak, hau da, kontuan izan behar da leku-izen baten grafia aldatzea salbuespena dela, berez tokian tokiko grafia erabiltzea baita egoera normala. Grafia-aldaketa ez izan arren, arauan bildu dira horrelako leku-izenak, baldin eta garrantzia badute (tamainagatik, historiagatik edo ezaugarri bereziren bat izateagatik).

Beste batzuetan, euskarazko grafia eta jatorrizko grafia bat datoz, baina gaztelaniaz edo frantsesez, berriz, ez. Hala gertatzen da leku-izenak euskaraz tradiziorik ez duenean eta inguruko hizkuntza gehienetan leku-izenaren grafia ez aldatu arren gaztelaniaz edo frantsesez grafia-aldaketa duenean. Horrelako leku-izenak ere arauan bildu dira, erabiltzaile euskaldunak zalantza egin dezakeelako horrelakoetan. Adibidez, **Kattegat** itsasartea berdin idazten da danieraz, norvegieraz, ingelesez, gaztelaniaz edo alemanez, baina **Cattégat** idazten da frantsesez. Alemaniako **Main** ibaia berdin idazten da alemanez, ingelesez eta frantsesez, baina **Meno** idazten da gaztelaniaz. Italiako **Vesubio** sumendia berdin idazten da italieraz, ingelesez eta gaztelaniaz, baina **Vésuve** idazten da frantsesez.

Beste askotan, euskarazko grafia eta jatorrizko grafia ez datoz bat, ezta gaztelaniazkoa eta frantsesezkoa ere. Hala gertatzen da, nahiz eta leku-izenak euskaraz tradizio handirik ez izan, leku-izenaren grafia hizkuntza bakoitzak (edo hizkuntza nagusi gehienek) egokitzen dutenean. Horrelakoetan, euskaraz ere grafia egokitzea izan da irizpide nagusia. Adibidez, **Mare Tirreno** da italieraz, **Tyrrhenian Sea** ingelesez, **mar Tirreno** gaztelaniaz eta **mer Tyrrhénienne** frantsesez. Edo **Fyn** da danieraz, **Funen** ingelesez, **Fionie** frantsesez eta **Fionia** gaztelaniaz. Euskaraz, **Tirreniar itsasoa** eta **Fionia**, hurrenez hurren. Leku-izenen grafia-egokitzapena egiteko irizpideak, oro har, maileguzko hitz berriak egokitzeko erabiltzen diren berak dira[1].

Hizkuntzaz hizkuntzako izen-aldaketa gertatzen da, halaber, izen deskribatzaile askorekin, hizkuntza bakoitzera itzuli egiten baita (osorik edo partez), maiz, jatorrizko leku-izenaren esanahia. Holakoetan, euskaraz ere itzuli egin ohi dira. Adibidez, **Schwarzwald** alemanez, **Black Forest** ingelesez, **Forêt-Noire** frantsesez edo **Selva Negra** gaztelaniaz. **Storebælt** danieraz, **Great Belt** ingelesez, **Grand Belt** frantsesez eta **Gran Belt** gaztelaniaz. **Porțile de Fier** errumanieraz, **Iron Gate** ingelesez, **Portes de Fer** frantsesez eta **Puertas de Hierro** gaztelaniaz. **Vierwaldstättersee** alemanez, **Lago dei Quattro Cantoni** italieraz, **lac des**

[1] Ez dago ortografia-sistema berariazko bat kanpoko leku-izenen grafia ebazteko, hau da, kanpoko hitz arruntak euskaraz emateko erabiltzen diren irizpideek balio dute kanpoko leku-izenetarako ere, oro har. Aipatu beharrekoa da, hala ere, **v** letraren salbuespena. Izan ere, lexiko arrunteko mailegu irentsietan erdal **v** letra **b** letraz ordeztu ohi da (**b**okati**b**o, **b**ul**b**a, **b**entrikulu, **b**ibrazio...), baina kanpoko leku-izen (eta pertsona-izen) tradiziorik gabekoetan sistematikoki ez da gauzatzen ordezte hori, hala gure alfabetoa duten hizkuntzetatik egokitutako leku- eta pertsona-izenetan (Eskandina**v**ia, Eslo**v**akia, Gene**v**a, Nor**v**egia, **V**atikanoa, Hel**v**ezia...; Okta**v**io, **V**ulkano, **V**ertzingetorix...), nola alfabeto zirilikotik transkribatutakoetan (No**v**osibirsk, Plo**v**di**v**, Txu**v**axia...; Txekho**v**, Txaiko**v**ski...).

Quatre Cantons frantsesez, **lago de los Cuatro Cantones** gaztelaniaz. Euskaraz ere itzuli egiten dira: **Oihan Beltza, Belt Handia, Burdinazko Ateak, Lau Kantonamenduetako aintzira**.

Azkenik, gure alfabetoa erabiltzen ez den lurraldeetako lekuak izendatzeko, jatorrizko izenak latindar alfabetora aldatu behar dira, transkribatu egin behar dira.

Alfabeto grekoaren kasuan, leku-izenak historikoak dira, eta latina bitarteko dela pasatu dira gero gure inguruko hizkuntzetara. Kasu horretan, antzinateko leku-izenak euskaraz emateko irizpideak erabili dira (76. arauan ageri dira), antzinateko eskualdeen eta hirien arauetan egin zen bezala. Adibidez, **Όλυμπος** grekoz, **Olympus** ingelesez, **Olympe** frantsesez, **Olimpo** gaztelaniaz eta **Olinpo** euskaraz. **Σποράδες** grekoz, **Sporades** ingelesez eta frantsesez, **Espóradas** gaztelaniaz eta **Esporadak** euskaraz. **Ιθάκη** grekoz, **Ithaca/Ithaka** ingelesez, **Ithaque** frantsesez, **Ítaca** gaztelaniaz eta **Itaka** euskaraz.

Alfabeto zirilikoaren kasuan, 156. araua (*Alfabeto zirilikoz idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema*) erabiliz lortzen dira euskarazko ordainak. Adibidez, Errusiako **Иртыш** ibaia **Irtysh** da ingelesez eta gaztelaniaz, **Irtych** frantsesez eta **Irtyx** euskaraz. **Челюскин** lurmuturra **Chelyuskin** da ingelesez, **Tcheliouskine** frantsesez, **Cheliuskin** gaztelaniaz eta **Txeliuskin** euskaraz. Eta **Верхоянский** mendikatea **Verkhoyansk** da ingelesez, **Verkhoïansk** frantsesez, **Verjoyansk** gaztelaniaz eta **Verkhoiansk** euskaraz.

Argibide-oharrak

1- Izendapen bikoitzak

Batzuetan, lekuaren bi izendapen ageri dira. Bi izendapenak barra etzan batez bereizita daudenean, **<A / B>**, adierazi nahi da biak maila berean onartzen direla. Adibidez:

Alpe Peninoak / Valaisko Alpeak

Angara / Tunguska Garaia

Calaisko itsasartea / Doverko itsasartea

Cervino / Matterhorn

Beste batzuetan, hala ere, barra etzan batez bereizita ageri diren leku-izenak ez dira bi izendapen guztiz desberdin, izendapen beraren bi aldaera baizik. Adibidez:

Adriatikoa / Itsaso Adriatikoa

Dardaneloak / Dardaneloen itsasartea

Dolomitak / Dolomita Alpeak

Eskandinaviar penintsula / Eskandinaviako penintsula

Izendapen nagusi(ar)en ondoren, batzuetan beste izendapen bat erantsi da antzinako izendapena eransteko edo bigarren mailako izendapena emateko. Adibidez:

Dardaneloak / Dardaneloen itsasartea / (antzinako izena) **Helesponto**

Dellen aintzirak (Ipar Dellen eta **Hego Dellen)**

Itsaso Beltza / (antzinako izena) **Ponto Euxino**

Kaukaso (Kaukaso Handia eta **Kaukaso Txikia)**

irudikortu, irudikor/irudikortu, irudikortzen. *da*/*du* ad.
irudimen
irudimentsu
irudipen
irudipenezko izlag. 'irudizkoa': *benetako jazoerak eta gezurrezkoak edo irudipenezkoak*.
iruditegi
iruditeria
iruditu 1, irudi/iruditu, iruditzen. *zaio* ad.
iruditu 2 iz. 'irudipena'
iruditze
irudiztatu, irudizta, irudiztatzen. *du* ad. 'irudiz hornitu'
irudiztatze
irule
irun, irun, iruten. *du* ad.
irunaldi
irundegi
iruntz iz. *Bizk.* h. **ihintz**
iruntzi iz. *Sin.* **ifrentzu**
iruntzitara adlag.: *iruntzitara jantzia duzu elastikoa*. *Sin.* **ifrentzuz**
irus izond. *Zub.* 'urosa'
irute
iruzkin
iruzkina egin: *testu horri iruzkina egin diot*.
iruzkindu, iruzkin/iruzkindu, iruzkintzen. *du* ad.
iruzkingile iz. 'testu-iruzkinak egiten dituena'
iruzur
iruzur egin
iruzurgile
iruzurkeria
iruzurti
iruzurtu, iruzur/iruzurtu, iruzurtzen. *du* ad. 'iruzur egin'
isastu, isats/isastu, isasten. *du* ad. *g.er.* 'erraztatu, eskobatu'
isats 1 iz. *Cytisus scoparius*
isats arantzadun *Calicotome spinosa*
isats 2 iz. 'erratza'
isats 3 iz. 'buztana'
isatsdun
isatsgabe izond.
iseiatu, iseia, iseiatzen. *da*/*du* ad. *Zub.* 'entseatu'
iseka
iseka egin
isekaz
isekari
isekatu, iseka/isekatu, isekatzen. *du* ad.
isil
isil-gorde
isil-gordeka
isil-hizketa
isil-isila *Ipar.*
isil-isilik
isil-mandatari
isil-mandatu
isil-misil
isil-misilean
isil-misilka
isil-ostuka adlag. *Bizk.* 'isil-gordeka'
isil-poltsa
isilaldi
isilarazi, isilaraz, isilarazten. *du* ad.
isildu, isil/isildu, isiltzen. *da*/*du* ad.
isilean
isileko
isilik

isilka
isilkako
isilka-misilka
isilki 1 adlag. 'isilean' 2 adlag. 'isilik'
isilkor izond. 'isilik egoteko joera duena'
isilpe
isilpean
isilpeko izlag. eta iz.
isiltasun
isiltze
isilune
isiotu, isio, isiotzen. *du* ad. *Batez ere Bizk.* '(argia, sua) piztu'
isipu
isipu-belar edo **isipu belar** *Hyssopus officinalis*
isipula iz. *Herr.*
iskanbila
iskanbilatsu
iskemia iz. *Med.*
iski izond. *Bizk.* 'txikia, arina, apurra'
iskilinba
iskilu
iskiludun
iskilugile iz. *g.er.* 'armagina'
iskilutu, iskilu/iskilutu, iskilutzen. *da*/*du* ad. *g.er.* 'armatu'
isla 1 iz. h. **uharte**
isla 2 iz.: *mendien isla uretan*.
islara adlag.: *Jainkoaren edertasuna islara ikusten dugu*.
islada* e. **isla 2**
isladatu* e. **islatu**
islam
islamabadar (herritarra)
islamiar: *Irango Errepublika Islamiarra*. (herritarra)
islamiko
islamismo
islamista
islandiar (herritarra)
islandiera (hizkuntza)
islapen
islatu, isla/islatu, islatzen. *da*/*du* ad.
islatze
iso interj. (agindu-hitza)
isobara
isoglosa
isokoro izond. *Fis.*
isolagailu iz. *Fis.*
isolagarri izond. *Fis.*
isolamendu iz. *Fis.*
isolatu, isola, isolatzen. *du* ad. *Fis.* (beste arloetan hobestekoak dira `bakartu`, `bakandu`)
isolatzaile izond. *Fis.*
isomeria iz. *Kim.*
isomero izond. *Kim.*
isometria
isometriko izond. *Mat.*
isomorfismo
isomorfo
isostatiko izond. *Geol.*
isoszele
isotoniko izond. *Kim.*
isotopo iz. *Kim.*
isotropo izond. *Fis.*
ispilatu, ispila, ispilatzen. *da*/*du* ad. *g.er.* 'islatu'
ispilu
israeldar (herritarra)
istant
istant batean
istantean
istape iz.
istapeka adlag. 'zangalatrau'
istibor* e. **istribor**
istikatu, istika, istikatzen. *du* ad. *g.er.* 'oinkatu'
istil
istildu, istil/istildu, istiltzen. *da*/*du* ad. *Ipar. g.er.* 'lohitu'
istiltsu
istilu
istilutsu izond.
istinga
istingadi
istingor iz. *Gallinago gallinago*
istmo
istorio
istorio-misterio
istribor
istripu
isun

isuna ezarri
isuraldatu, isuralda, isuraldatzen. *du* ad.: *odol kutsatua isuraldatu diote*.
isuraldatze
isurarazi, isuraraz, isurarazten. *du* ad.
isurbera
isurbide
isuri 1, isur, isurtzen. *da*/*du* ad.
isuri 2 iz.
isurialde
isurkari izond. eta iz. *Sin.* **likido**
isurketa
isurki iz.
isurkor
isurle iz.: *gizon gaizto odol-isurlea*.
isurpen
isurtze
isuski iz. *Bizk.* 'erratza'
itaizur* e. **itaxur**; **itogin**
italiar (herritarra)
italiera (hizkuntza)
italiko 2 izond. '(letra) etzana'
itatxur* e. **itaxur**; **itogin**
itaun
itaundu, itaun/itaundu, itauntzen. *du* ad.
itaunka
itaunketa
itaurlari iz. *Bizk.* 'itaurrekoa'
itaurrean adlag.
itaurreko iz.
itaxur iz. *Sin.* **itogin**
itegi iz. 'ukuilua, korta'
item
iteuli iz. *Tabanus bovinus*
ito, ito, itotzen. *da*/*du* ad.: *ito beharrean*; *baserritar bi etorri zaizkit arnaska erdi itoan*; *ia itoan zebilen gizon bat salbatu nuen*; *besoak altxatuz oihu egiten zigun ito-itoan*.
itoaldi
itoarazi, itoaraz, itoarazten. *du* ad.
itobehar iz.
itogarri
itogin iz. *Sin.* **itaxur**
itoi iz. 'ukuilua'
itoiti* e. **itaxur**; **itogin**
itoka adlag.
ito-itoka
itokarrean adlag.
itolarri iz.
itomen
itopuntu iz. *Mekan.*
itote* e. **itaxur**; **itogin**
itotze
itsas aingira iz. *Conger conger*
itsas arrain
itsas arrano iz. *Haliaeetus albicilla*
itsas arrantza
itsas barakuilu
itsas belar
itsas dortoka iz. *Fam. Cheloniidae* eta *Fam. Dermochelydae.*
itsas erdi iz. 'itsas handia, itsas zabala'
itsas fauna
itsas gain
itsas gaztaina iz. *Aesculus hippocastanum Sin.* **Indi gaztaina**
itsas handi
itsas hegazti
itsas hegi
itsas hondar 1 iz. 'itsasoko hondarra' 2 iz. 'itsasoaren hondoa'
itsas hondo
itsas izar iz. *Asteroidea*
itsas kabra iz. *Scorpaena scrofa*
itsas korronte* e. **itsaslaster**
itsas lakatz iz. 'itsas trikua'
itsas lehoi iz. *Otaria sp.* eta *Zalophus sp.*
itsas lore iz. *Coelenterata*
itsas maila
itsas oilar iz. *Lepidorhombus sp.*
itsas otso iz. *Phoca vitulina*
itsas pinu iz. *Pinus pinaster.*
itsas portu
itsas suge iz. *Muraena helena.*
itsas triku iz. *Echinoidea*
itsas txakur iz. *Fam. Phocidae Sin.* **foka**
itsas uhin
itsas ur iz. 'itsasoko ura'
itsas zabal iz.: *itsas zabaleko arrantza*.
itsas zaldi iz. *Hippocampus sp.*
itsas zapo iz. *Lophius sp.*
itsas-zain* e. **itsasozain**
itsasadar

itsasalde
itsasaldi
itsasandi* e. **itsas handi**
itsasargi
itsasarte
itsasbazter iz.: *itsasbazterreko arrantza*.
itsasbehera
itsasbide
itsasegi* e. **itsas hegi**
itsasertz iz.: *itsasertzeko arrantza*.
itsasgarri iz. eta izond.
itsasgizon
itsasgora
itsasikara
itsasketa iz.: *itsasketan ohituak diren gizonak*. *Sin.* **nabigazio**
itsaski 1 iz. 'sagailoa, itsaso nahasia'
itsaski 2 iz. (jatekoa)
itsaskirri
itsaskor
itsaslabar
itsaslamina
itsaslapur
itsaslapurreta
itsaslaster
itsasmutil
itsaso iz.: *Galileako Itsasoa edo Kinneret aintzira*.
itsasontzi
itsasontzigintza iz. 'ontzigintza'
itsasontziratu, itsasontzira, itsasontziratzen. *da*/*du* ad.
itsasoratu, itsasora/itsasoratu, itsasoratzen. *da*/*du* ad.
itsasoratze
itsasorratz
itsasozain
itsaspe
itsaspekari
itsaspeko
itsaspen
itsasperatu, itsaspera/itsasperatu, itsasperatzen. *da*/*du* ad.
itsastar
itsastatu, itsasta, itsastatzen. *du* ad. [*nor* kasurik gabea] *g.er.* 'itsasoz ibili'
itsasturi iz. *Ipar.* 'marinela'
itsasuntzi* e. **itsasontzi**
itsatsarazi, itsatsaraz, itsatsarazten. *dio* ad.
itsatsi, itsats, itsasten. Batez ere *zaio* ad.
itsu
itsuan adlag. 'itsu-itsuan'
itsu-gidari *Ipar.* 'itsuaurrekoa'
itsu-itsu adlag. 'itsu-itsuan'
itsu-itsuan
itsu-itsuka adlag. (jolas baten izena)
itsura adlag.: *itsura jarraiki zitzaion jakin gabe nora*.
itsu-txakur
itsuaurreko iz.
itsugarri izond.
itsuka
itsukeria
itsuki adlag.
itsulapiko iz. *Sin.* **eltzeitsu**
itsumandoka
itsumen
itsumendi iz. *Bizk. g.g.er.* 'itsumena'
itsumendu iz. *Ipar.* 'itsumena, itsutasuna'
itsumustu iz. 'ustekabea'
itsumustuan
itsumustuko izlag.: *itsumustuko ateraldia*.
itsumustuka
itsumutil
itsurik
itsusarazi, itsusaraz, itsusarazten. *du* ad.
itsusgarri izond.
itsusi
itsusi izan. 1 *da* ad.: *itsusi da neuk esatea*. 2 *zaio* ad.: *gezurra guztiei itsusi zaie*.
itsuskeria
itsuski adlag.
itsustasun
itsustu, itsus, itsusten. *da*/*du* ad.
itsutasun
itsutu, itsu/itsutu, itsutzen. *da*/*du* ad.
itsutuki
itsutze
itula iz.
itulan adlag. 'itaurrean': *itulan ganaduen aurrean ibiltzen ginenean*.
itulari iz. 'itaurrekoa'

itun 1 iz.
itun 2 izond. *Jas.* 'tristea, goibela'
itunaldi iz. *Jas. g.er.* 'goibelaldia'
itunben iz. *g.g.er.* 'ituna'
itundu 1, itun/itundu, ituntzen. *da*/*du* ad. 'ituna egin, hitzartu'
itundu 2, itun/itundu, ituntzen. *da*/*du* ad. 'tristatu, goibeldu'
itunkide
itunpen iz. 'ituna, hitzarmena'
ituntasun
ituntze
iturbegi
iturburu
iturgin
iturgintza
iturri
iturri-belar edo **iturri belar** *Nasturtium officinale*
iturri-txori edo **iturri txori** iz. 'buztanikara'
itxaro izan. 1 *du* ad.: *oneratuko dela itxaro dut*. 2 *du* ad.: *itxaro zuten Jesu Kristoren etorrera*.
itxarobide
itxarokizun iz. *g.er.* 'itxaropena'
itxaron. 1 *dio* ad. [objektu biziduna denean]: *Mireni itxaron diogu luzaz*. 2 *du* ad.: *itxaroten dut hilen piztuera*.
itxaronaldi
itxaronarazi, itxaronaraz, itxaronarazten. *dio* ad.
itxarongela
itxaropen
itxaropentsu
itxarote
itxi 1, itxi, ixten. *da*/*du* ad.
itxi 2 iz. *g.er.* 'leku itxia'; 'espetxea'
itxian adlag.: *itxian sartu* ('espetxean sartu'); *itxian hazi*.
itxialdi
itxiarazi, itxiaraz, itxiarazten. *du* ad.
itxiera
itxigailu
itxikeria
itxindi iz. *Ipar.* 'ilintia'
itxitasun iz.
itxitegi iz. 'toki itxia'
itxitura iz. 'eremu itxia'; 'eremua ixten duen hesia'
itxoin, itxoin, itxoiten. *dio* ad. h. **itxaron**
itxoroski iz. 'matazura'
itxulastu, itxulas, itxulasten. *du* ad. 'irabiatu, nahasi'
itxura iz.: *itxura gaiztokoa*.
itxura denez
itxura egin edo **itxurak egin**
itxura eman 1 'antzeman': *laster itxura eman nion damutua zegoela*. 2 'itxuratu': *ez du guztiz ondo atera, baina itxura eman dio*.
itxurapean adlag.: *bazebilen gauza biziren bat, hilaren itxurapean*.
itxuragabe
itxuragabeko
itxuragabekeria
itxuragabeki adlag.
itxuragabetu, itxuragabe/itxuragabetu, itxuragabetzen. *du* ad.
itxuragaitz izond. *g.er.* 'itxura gaiztokoa, itxura txarrekoa'
itxuragaiztu, itxuragaitz/itxuragaiztu, itxuragaizten. *da*/*du* ad. *g.er.* 'itxuratxartu'
itxuragile izond. 'itxurak egiten dituena'
itxurakeria
itxurako: *arrautza-itxurako perretxikoa*; *tonto-itxurako pertsona*.
itxuraldaketa
itxuraldatu, itxuralda, itxuraldatzen. *da*/*du* ad.
itxuraldatze
itxuran adlag.: *jaitsi zen zerutik uso baten itxuran*; *itxuran bizi da*.
itxurapen
itxurati
itxuratu, itxura/itxuratu, itxuratzen. *da*/*du* ad.
itxuratxarki
itxuratxartu, itxuratxar/itxuratxartu, itxuratxartzen. *da*/*du* ad.
itxuratze
itxuraz adlag.: *gauzak itxuraz egin*; *itxuraz, oso pozik daude*.
itxurazale
itxurazalekeria

itxurazko 1 izlag. 'egiazkoa ez dena': *itxurazko damua*. 2 izond. 'itxura onekoa': *emakume itxurazko eta maitagarria*.
itxuroso izond. *Herr.* 'itxura onekoa'; 'behar den bezalakoa'
itzain
itzaingo iz. *Ipar.*
itzaintza
itzal 1 iz.
itzal egin
itzal 2 izond. 'itzaltsua, iluna': *bakardaderik itzalena*.
itzalaldi
itzalarazi, itzalaraz, itzalarazten. *du* ad.
itzalezin
itzaleztatu, itzalezta, itzaleztatzen. *du* ad.
itzalgailu
itzalgaitz
itzalgaizka adlag. *Jas.*
itzalgarri izond.
itzalgune
itzali, itzal/itzali, itzaltzen. *da*/*du* ad.
itzalkin iz.: *itzalkin zabal batez eguzkitik gerizatzen ziren*.
itzalkor
itzalpe
itzalpetu, itzalpe/itzalpetu, itzalpetzen. *du* ad.
itzaltasun
itzaltsu
itzaltze
itzarri 1, itzar, itzartzen. *da* ad.
itzarri 2 izond.
itzarrik adlag. *Bizk.*
itzartu, itzar, itzartzen. *da* ad.
itzatu* e. **iltzatu**
itze iz. *Ipar.* eta *Naf.* h. **iltze**
itzel izond. 'ikaragarria, oso handia'
itzelezko
itzul-amilka
itzul-lan
itzulaldi
itzularazi, itzularaz, itzularazten. *du* ad.: *etxera itzularazi du*; *testua frantsesera itzularazi digute*.
itzularazle iz. *g.er.*
itzulbide
itzulbira
itzulera
itzulerraz
itzulezin
itzulgai
itzulgarri
itzuli 1, itzul, itzultzen. 1 *da* ad. 2 *du* ad.
itzuli 2 iz.
itzulian adlag.
itzulietara adlag.: *jaka itzulietara jantzita*.
itzuli-mitzuli
itzulika
itzulikarazi, itzulikaraz, itzulikarazten. *du* ad.
itzulikatu, itzulika/itzulikatu, itzulikatzen. *da*/*du* ad. 'irauli, biratu'
itzulikatze
itzulinguru
itzulinguruka adlag.
itzulipurdi
itzulipurdika
itzulipurdikari iz. 'itzulipurdiak egiten dituena'
itzulipurdikatu, itzulipurdika/itzulipurdikatu, itzulipurdikatzen. 1 *da* ad. 'itzulipurdiak egin' 2 *du* ad. 'azpikoz gora jarri, gainazpikatu'
itzulketa
itzulkizun iz. *g.er.* 'itzulpena'
itzulkor
itzulkortasun
itzulpen
itzulpengintza
itzultzaile
itzultze
itzurarazi, itzuraraz, itzurarazten. *du* ad.
itzurbide
itzuri, itzur, itzurtzen. *da*/*zaio* ad.
itzuri ibili
itzuri joan
itzuri egin: *borrokari itzuri egin nahirik*.
itzurkor
itzurtze
iusnaturalismo

ixa iz. '"x" letraren izena'
ixi interj. *Bizk.* 'ixo'
ixo 1 interj
ixtante* e. **istant**
ixte
ixtegi iz. *g.er.* 'ukuilua'
ixtil* e. **istil**
izadi
izaera
izai iz. h. **izei**
izain iz. *Hirudo medicinalis*
izakera* e. **izaera**
izaki 1 iz.
izaki 2 'izanik'; 'd(ir)elako'
izan 1, izan, izaten. *da*/*du* ad.
izan ere lok.
izan ezik 'salbu': *denak joan ziren, ama izan ezik*.
izatekoa izan: *hi haiz izatekoa, hi!*
izatekotan edo **izatekotan ere**
izan 2 iz.: *izena eta izana*.
izanarazi, izanaraz, izanarazten. *du* ad.
izandun izond. 'aberatsa'
izangai
izankizun
izapide
izar
izar-belar edo **izar belar** *Stellaria holostea*
izar egon: *zerua izar dago*.
izar-ihintz *Ipar.* 'ihintza'
izar-laino edo **izar laino** *Sin.* **nebulosa**
izar-multzo edo **izar multzo** *Sin.* **konstelazio**
izara iz. *Sin.* **maindire**; **mihise**
izari iz. 'neurria, tamaina'
izarigabe izond.
izarigabeko izlag.
izarniarazi, izarniaraz, izarniarazten. *du* ad. *Ipar.* 'distirarazi'
izarniatu, izarnia, izarniatzen. *du* ad. *Ipar.* 'distiratu'
izarño
izarrarte iz. *g.er.* 'izartegia, ortzia'
izarratu, izarra, izarratzen. *da* ad.: *zeru izarratua*.
izartegi
izartsu
izartu 1, izar/izartu, izartzen. *du* ad. 'neurtu'
izartu 2, izar/izartu, izartzen. *da* ad. 'izarrez bete'
izartxo
izatasun
izate
izatedun
izatekide
izatekidetasun iz. *g.er.*
izatez
izatezko izlag. 'berezkoa'
izeba
izei iz. *Abies sp.* eta *Pseudotsuga sp.* eta *Picea sp.*
konkolor izei *Abies concolor*
izeidi iz. 'izei-basoa'
izeki, izeki, izekitzen. *da*/*du* ad. 'su hartu, sua piztu'
izeko iz. *Batez ere Bizk.* 'izeba'
izen iz.
izena eman
izena izan: *nola du haur honek izena? Xabier du izena*
izen arrunt
izen berezi
izeneko
izen-emate
izenez
izen handiko: *izen handiko sendagilea*.
izen on: *haren izen ona zikindu*.
izen propio
izen txar
-ren izenean
izenburu
izendapen
izendatu, izenda, izendatzen. *du* ad.: *Euskaltzaindiak horretarako izendatu nauelako*; *ez dugu izendatuko nor den*; *euskaldunok "euli" izendatzen dugun intsektua*; *langileen soldataren neurria izendatzeko*; *egun izendatua*.
izendatuki adlag.
izendatzaile
izendatze

izendegi
izendun
izengabe izond.
izengabeko
izengoiti
izenki iz.
izenkide
izenkidetasun
izenlagun iz. *Gram.*
izenondo iz. *Gram.*
izenordain iz. *Gram.*: *pertsona izenordainak*.
izenorde 1 iz. 'ezizena' 2* iz. e.
izenordain
izenpe
izenpearazi, izenpearaz, izenpearazten. *dio* ad.
izenpetu, izenpe/izenpetu, izenpetzen. *du* ad.
izenpetzaile
izenpetze
izerbera
izerdi
izerdi-bitsetan edo **izerdi bitsetan** *Bizk.*
izerdi-guruin edo **izerdi guruin**
izerdi hotz: *odolezko izerdi hotza*.
izerdi-lapetan edo **izerdi lapetan** *Ipar.* eta *Naf.*
izerdi-lika: *izerdi-likak eta odola darizkio*.
izerdi-patsetan edo **izerdi patsetan**
izerditan
izerdi-uharretan edo **izerdi uharretan** *Ipar.*
izerdiz: *nekez eta izerdiz bakarrik hurbil gakizkiokeen eredua*.
izerdi-zapi edo **izerdi zapi**: *aurpegia izerdi-zapi batekin estali zioten hilotzari*.
izerdialdi
izerdiarazi, izerdiaraz, izerdiarazten. *du* ad.
izerdikor
izerditsu
izerditu, izerdi/izerditu, izerditzen. *da* ad.
izerkari iz.: *aurpegia izerkari batez estalita ehortzi zuten*.
izi iz. *Ipar.* eta *Naf.* h. **izu**
izialdura iz. *Ipar.* 'izua'
izigarriko izlag. *Ipar.* 'izugarrizkoa'
izipera izond. *Ipar.* 'izutia'
izkilu* e. **iskilu**
izkina
izkira iz. *Subord. Natantia*
izkiriatu, izkiria, izkiriatzen. *du* ad. *Ipar.* 'idatzi'
izkiriatzaile iz. *Ipar.*
izkirimiri
izkribu
izkribuz
izkribuzko
izkutu* e. **ezkutu**
izokin iz. *Salmo sp.*
izorra izond. *Zah.* 'haurduna'
izorra egon *Zah.* 'haurdun izan'
izorra izan *Zah.* 'haurdun izan'
izorratu, izorra, izorratzen. 1 *da* ad. *Zah.* 'haurdun gertatu' 2 *da*/*du* ad. *Arrunk.* 'kalte egin, hondatu'
izorratzaile iz. *Arrunk.*
izotz iz.: *izotz gaineko irristaketa*. *Sin.*
horma; **lei**
izotza egin
izotz-aro
izotz-hockey
izotz-kontrako iz.
izotzaldi
izotzil iz. *Naf.* h. **urtarril**
izozkailu
izozki
izozki-denda edo **izozki denda**
izozkigile
izozkitegi
izozmendi iz.: *izozmendi batek hondoratu zuen Titanic itsasontzia*.
izozte
izoztegi
izoztu, izotz/izoztu, izozten. *da*/*du* ad. *Sin.* **hormatu**; **leitu**
izpar iz. *g.er.* h. **albiste**; **berri**
izparringi iz. *g.er.* h. **egunkari**
izpi
izpirik
izpika 1 adlag. 'zatika'

izpika 2 iz. 'izpi txikia'
izpil
izpildun
izpiliku iz. *Lavandula officinalis*
izpiliku fin *Lavandula angustifolia*
izpiltsu
izpiño
izpiritu 1 iz. *Ipar. Jas.* (Iparraldekoa edo jasoa da baina ez biak batera) h. **espiritu**
izpiritu 2 iz. 'alkohola'
izpitsu
izpitxo
iztai iz. 'izterra eta sabela elkartzen diren (sakon)gunea'
iztarte iz. 'hankartea'
izter
izter-lehengusu
izterbegi iz. *Batez ere Zub.* 'etsai pertsonala'
izterrezur
iztuku
iztupa
izu iz. eta izond.
izu-ikara: *guztiak izu-ikara handiak hartu zituen*.
izu-laborri
izualdi
izuarazi, izuaraz, izuarazten. *du* ad.
izugarri izond. eta iz.
izugarrizko
izugarrikeria
izugarritasun
izukaitz
izukari
izukor
izur iz.
izurde iz. *Delphinus delphis*
izurdura
izurri
izurrite
izurritsu
izurritu, izurri/izurritu, izurritzen. *da*/*du* ad.
izurtsu izond. *Sin.* **zimurtsu**
izurtu, izur/izurtu, izurtzen. *du* ad.
izurtze
izutasun
izuti
izutu, izu/izutu, izutzen. *da*/*du* ad.
izutzaile

Euskaltzaindiak 2009ko abenduaren 31ean onartua

Euskera. 2009, 54, 3. 1733-1760. Bilbo
ISSN 0210-1564

Beste agiri batzuk

Euskera. 2009, 54, 3. Bilbo
ISSN 0210-1564

Senatu hitzari buruzko irizpena

KINTANA URTIAGA, Xabier
Secretario de Euskaltzaindia, la Real Academia de la Lengua Vasca

Ilmo. Sr. Fernando Santaolalla López
Director de Estudios del Senado
Madrid

Bilbao, a 20 de octubre de 2009.

Estimado Sr.

Es para mi un placer poder atender su atenta carta del 14 de octubre del presente año, en la que solicita de nuestra institución la traducción en lengua vasca de la palabra castellana «Senado».

La forma vasca de dicho término, que también en euskara es un cultismo latino, no es otra que Senatua. Esta es, por tanto, la forma que deberán utilizar si deciden traducir al vasco dicho concepto.

Abundando en el tema, debo decirle que la palabra senatua se documenta en vasco por primera vez en la obra de Joanes Leizarraga *ABC edo Christinoen instructionea othoitz eguiteco formarequin*, publicado en La Rochelle, en 1571 tal como se puede comprobar en la copia (que se incluye) de la página 672 del tomo XIV del *Diccionario General Vasco / Orotariko Euskal hiztegia* de Luis Michelena, patrocinado y publicado por la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, siendo empleada, igualmente, en diversas obras de autores de los cuatro últimos siglos, figurando de este modo en el diccionario normativo de nuestra institución.

Euskera. 2009, 54, 3. 1763-1764. Bilbo
ISSN 0210-1564

Por otra parte, en la versión vasca de la actual Constitución española, facilitada por esta Real Academia y publicada por la Secretaría General del Senado, Madrid, 2004, pág. 71-130, se puede comprobar fácilmente que la forma empleada es igualmente senatua (art. 66 y ss.).

Esperando haber podido ayudarles en su propósito, le saluda cordialmente

Xabier Kintana Urtiaga
Secretario de Euskaltzaindia,
la Real Academia de la Lengua Vasca

Erripagaña toponimoaz

IÑIGO ARIZTEGI, Andres
Onomastika batzordeburua eta Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria

Nafarroako Gobernuak, Euskarabidea erakunde autonomoaren Euskararen gaineko Aholkularitza eta Prestakuntzarako Zerbitzuaren bidez, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeari txostena eskatu dio. Eskarian galdegiten du egun Burlata udalerriko toponimo ofiziala den *Erripagaña*, euskaraz egoki den *Ripagaña* formaz ordezkatzea.

Ripa latinetik jasotako mailegua da. Gaztelaniak *ripa* eta *riba* formak hartu zituen eta euskarak *erripa*, hots, maileguetan *r-* dardarkari anizkunaren aitzinean hain arrunta den *e-* protetikoa daramala, hala nola, ponte izenetan: *Erramun* (Ramón), *Errolan* (Roldán)..., izen arruntetan: *errege* (rey), *erreka* (regata)..., eta toponimoetan: *Erroma* (Roma), *Errusia* (Rusia)...

Ripa, riba eta *erripa* hitzen lekukotasunak ugariak dira Nafarroako toponimian, bai nagusian, bai txikian:

– Toponimia nagusian aipatzekoak dira Odieta ibarreko *Erripa*[1] herria, gaztelaniaz *Ripa* deitua, bai eta Zaraitzun kokatzen den *Erripalda*[2], antzinako hiribildua eta gaur egungo baserria, gaztelaniaz *Ripalda.* Halaber, euskaraz ordain ezagunik ez duen *Ribaforada* udalerria.

– Toponimia txikian anitzez ugariagoak dira lekukotasunak eta hiru modu hauetan ageri dira:

---

[1] 1350 urterako ageri dena. Ikus Juan Carrasco, *La población de Navarra en el siglo XIV*, 397. or.

[2] Julio Altadill historialariak hala jasoa. Ikus «Los despoblados de Navarra», *Boletín de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra*, 1917-1923.

Euskera. 2009, 54, 3. 1765-1767. Bilbo
ISSN 0210-1564

1. Gaztelaniazko *ripa* formarekin. Batzuetan soilik, besteetan osatua, artikulu singularrarekin, *la ripa* nahiz pluralarekin, *las ripas*, edota gaztelaniazko atzizkiren batekin, *el ripazo*. Ematen duenez, horiek euskaraz erabili ez diren formak dira. Multzo horretakoak lirateke, erraterako, *Debajo de la Ripa* (Lizoain), *Encima de la Ripa* (Iharnotz), *Las Ripas* (Artieda, Burlata), *Camino de las Ripas* (Galipentzu), *Viña de la Ripa* (Ezporogi), *Fuente de las Ripas* (Galipentzu), *El Ripazo* (Elo), *Paco de los Ripazos* (Galipentzu)...

   Euskaltzaindiaren toponimoak arautzeko irizpideen arabera, horrelako toponimoak erabili izan diren hizkuntzan ematen dira; beraz, *Debajo de la Ripa*, *Encima de la Ripa* etab.

2. *Erripa* formarekin. Batzuetan soilik, Urraulgoitin dagoen Adoaingo *Erripa*[3] erraterako, baina gehienetan beste izen edo postposizio batez osatua. Era honetakoak, zalantzarik gabe, euskaraz sortu eta erabili diren toponimoak dira. Halakoen artean aipa genitzake *Erripaburu*[4] Zabaldikan (Esteribar), *Erripagaña*[5] Akerretan (Esteribar), *Erripegaña* eta *Erripapea*[6] Ilarratzen (Esteribar), *Erripasaesa*[7] Santsoainen (Leotz), *Erripacarreta*[8] Uxuen etab.

   Euskaltzaindiak ezarritako irizpideak aplikatuz, horrelako toponimo hauek sortu eta erabiltzen diren hizkuntzaren grafia zuzenean arautzen dira; hortaz, *Erripaburu*, *Erripagaña*, *Erripapea*, *Erripasaetsa* eta *Erripazarreta* hurrenez hurren.

3. Badira, azkenik, zenbait toponimo euskaraz sortutakoak izan arren, *e-* protetikorik gabe ageri direnak, administrazioaren usadioan hala jaso eta erabiltzeko joera izan delako. Praktika horren lekuko dira

---

[3] 1694 urterako ageri dena. Ikus Nafarroako Gobernuaren *Toponimia* y *Cartografía de Navarra* / *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* bilduman, XXXI liburukia, 65. or.

[4] 1790 urterako ageri dena. Ikus op. cit., XXXVI liburukia, 193. or.

[5] 1892 urterako ageri dena. Ikus op. cit., XXXVI liburukia, 43. or.

[6] 1892 urterako ageri dena. Ikus op. cit., XXXVI liburukia, 95. or.

[7] 1684 urterako ageri dena. Ikus op. cit., XXXIX liburukia, 126. or.

[8] 1601 urterako ageri dena. Ikus op. cit., LIV liburukia, 234. or.

Nafarroan deitura bilakatu diren hainbat toponimo, hala nola, *Razkin* (Errazkin), *Rekondo* (Errekondo), *Rekalde* (Errekalde), *Retegi* (Erretegi), *Rota* (Errota) etab.

Erripa izenarekin ere hori bera gertatu da. Zenbait toponimotan ikusten ahal da hasierako *e-* hori galdu eta lehen *erripa* zena *ripa* bilakatu dela; baina, aldi berean, toponimo horiek beraiek euskarazko postposizioak mantendu dituzte, erraterako *-buru*, *-be* o *-pe*, *-bide*, *-gain* o *-gaña*, etab. Multzo honetakoak dira, besteak beste, *Ripave*[9] eta *Ripaburua*[10] Iruñean, *Ripagain*[11] Uharten, *Ripabide*[12] Taxoaren eta *Ripagaña*[13] Burlatan.

Gorago aipatutakoaren ildotik, halakoetan, Euskaltzaindiak ezarritako arautze irizpidea izen horiek osorik eta dagokion hizkuntzan ematea da eta irizpide hori bera aplikatu zuen Nafarroako Gobernuak *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* lanean, eta, hortaz, aitzineko toponimoen forma hauek: *Erripabe*, *Erripaburua*, *Erripagain*, *Erripabide* eta *Erripagaña* hurrenez hurren.

Azaldutako guztiagatik eta Nafarroako Gobernuko Euskarabidea erakunde autonomoaren Euskararen gaineko Aholkularitza eta Prestakuntzarako Zerbitzuak egindako eskariari erantzunez, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak, Nafarroako Gobernuak 212/1992, ekainaren 8ko Foru Dekreturen bidez ofizial onartutako Burlatako ***Erripagaña*** toponimoa zuzena eta euskaraz egoki jasoa dela onetsi du, eta, hortaz, *Ripagaña* izenarekin ordeztea desegokia litzatekeela.

(Andres Iñigok prestatutako txostena eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak 2009ko urriaren 14an Donostian egindako bileran onartua).

---

[9] 1304 urterako ageri dena. Ikus op. cit., I liburukia, 37. or.

[10] 1305 urterako ageri dena. Ikus op. cit., I liburukia, 37. or.

[11] 1828 urterako ageri dena. Ikus op. cit., I liburukia, 72. or.

[12] 1892 urterako ageri dena. Ikus op. cit., XXXVII liburukia, 66. or.

[13] 1712 urterako ageri dena. Ikus op. cit., I liburukia, 62. or.

Acerca del topónimo *Erripagaña*

IÑIGO ARIZTEGI, Andres
Presidente de la Comisión de Onomástica
y Delegado de la R.A.L.V./Euskaltzaindia en Navarra

El Servicio de Asesoramiento y Formación del Vascuence de Euskarabidea del Gobierno de Navarra ha solicitado a la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, un informe acerca de la idoneidad de la forma *Ripagaña* para sustituir a la actualmente oficial *Erripagaña*, topónimo correspondiente al municipio de Burlada.

Ripa es un préstamo latino que pasó al castellano como *ripa* o *riba*, y al euskera bajo la forma *erripa*, es decir, con *e-* protética, tan habitual en préstamos pronunciados con *r-* vibrante inicial múltiple. Este hecho es patente tanto en nombres propios: *Erramun* (Ramón), *Errolan* (Roldán)..., como en nombres comunes: *errege* (rey), *erreka* (regata)..., o en topónimos: *Erroma* (Roma), *Errusia* (Rusia)...

Los vocablos *ripa, riba* y *erripa* tienen una abundante presencia en la toponimia tanto mayor como menor de Navarra:

– En la toponimia mayor cabe señalar la conocida localidad del Valle de Odieta llamada *Ripa* en castellano y *Erripa*[1] en euskera, así como la antigua villa, hoy caserío del Valle de Salazar, llamada *Ripalda* en castellano y *Erripalda*[2] en euskera. Cabe citar, así mismo, la localidad de *Ribaforada*, que no tiene forma conocida en euskera.

---

[1] Documentado para el año 1350. Ver en Juan Carrasco, *La población de Navarra en el siglo XIV*, pág. 397.

[2] Testimoniado por Julio Altadill en «Los despoblados de Navarra», *Boletín de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra*, 1917-1923.

Euskera. 2009, 54, 3. 1768-1770. Bilbo
ISSN 0210-1564

– En la toponimia menor los testimonios son mucho más abundantes y aparecen bajo tres modalidades:

1. Bajo la forma castellana *ripa*, a veces sola, otras veces acompañada de artículo singular o plural, *la ripa, las ripas*, incluso compuesta con un sufijo castellano, *el ripazo*. Se trata, al parecer, de formas que no han sido utilizadas en lengua vasca. Tal sería el caso de topónimos como *Debajo de la Ripa* (Lizoain), *Encima de la Ripa* (Yárnoz), *Las Ripas* (Artieda, Burlada), *Camino de las Ripas* (Gallipienzo), *Viña de la Ripa* (Ezprogui), *Fuente de las Ripas* (Gallipienzo), *El Ripazo* (Monreal), *Paco de los Ripazos* (Gallipienzo)...

   Según los criterios de normativización de la Academia, tales topónimos se transcriben en la lengua en que han sido utilizados, es decir, *Debajo de la Ripa*, *Encima de la Ripa*, etc.

2. Bajo la forma *erripa*, a veces sola, como *Erripa*[3] en Adoain (Valle de Urraul Alto), pero más habitualmente compuesta de otro nombre o de una posposición. Se trata, lógicamente, de topónimos creados y utilizados en lengua vasca. Tales serían, entre otros, los casos de *Erripaburu*[4] en Zabaldika (Valle de Esteribar), *Erripagaña*[5] en Akerreta (Esteribar), *Erripegaña* y *Erripapea*[6] en Ilarratz (Esteribar), *Erripasaesa*[7] en Sansoain (Leoz), *Erripacarreta*[8] en Ujué, etc.

   En conformidad con los criterios de normativización de la Academia, tales topónimos se transcriben en la grafía correcta de la lengua en que han sido creados y utilizados. Por tanto: *Erripaburu*, *Erripagaña*, *Erripapea*, *Erripasaetsa* y *Erripazarreta* respectivamente.

---

[3] Datado para el año 1694. Ver colección del Gobierno de Navarra, *Toponimia y Cartografía de Navarra /Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*, tomo XXXI, pág. 65.

[4] Datado para el año 1790. Ver op. cit., tomo XXXVI, pág. 193.

[5] Datado para el año 1892. Ver op. cit., tomo XXXVI, pág. 43.

[6] Datado para el año 1892. Ver op. cit., tomo XXXVI, pág. 95.

[7] Datado para el año 1684. Ver op. cit., tomo XXXIX, pág. 126.

[8] Datado para el año 1601. Ver op. cit., tomo LIV, pág. 234.

3. Hay, finalmente, topónimos que habiendo sido creados en lengua vasca, se documentan sin la *e-* protética, dado que su supresión ha sido habitual en el uso administrativo, tal como lo testimonian los abundantes ejemplos en Navarra de topónimos que han derivado en apellidos, como *Razkin* (Errazkin), *Rekondo* (Errekondo), *Rekalde* (Errekalde), *Retegi* (Erretegi), *Rota* (Errota), etc.

   En lo referente a *erripa*, también se documenta el mismo fenómeno. En algunos topónimos, por aféresis o pérdida de la *e-*, su parte inicial ha quedado reducida de *erripa* a *ripa*, pero han mantenido las posposiciones habituales, tales como *-buru*, *-be* o *-pe*, *-bide*, *-gain* o *-gaña*, etc. A este grupo pertenecen, entre otros, topónimos como *Ripave*[9] y *Ripaburua*[10] en Pamplona, *Ripagain*[11] en Huarte, *Ripabide*[12] en Tajonar y *Ripagaña*[13] en Burlada.

   En tales casos, por las razones ya expuestas, el criterio de normativización establecido por la Academia, y aplicado también por el Gobierno de Navarra en la obra *Toponimia y Cartografía de Navarra*, es el de transcribirlos completos y en la grafía correcta de la lengua originaria, esto es: *Erripabe*, *Erripaburua*, *Erripagain*, *Erripabide* y *Erripagaña* respectivamente.

Por todo lo expuesto, y en respuesta a la solicitud realizada por el Servicio de Asesoramiento y Formación del Vascuence de Euskarabidea del Gobierno de Navarra, la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia ha acordado que el topónimo ***Erripagaña*** de Burlada, declarado como oficial por el Gobierno de Navarra, mediante Decreto Foral 212/1992, de 8 de junio, está correctamente transcrito, y que, por ello, lo incorrecto sería sustituirlo por la forma *Ripagaña*.

(Informe elaborado por Andres Iñigo y aprobado por la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia, en reunión celebrada en Donostia / San Sebastián el día 14 de octubre de 2009).

---

[9] Datado para el año 1304. Ver op. cit., tomo I, pág. 37.

[10] Datado para el año 1305. Ver op. cit., tomo I, pág. 37.

[11] Datado para el año 1828. Ver op. cit., tomo I, pág. 72.

[12] Datado para el año 1892. Ver op. cit., tomo XXXVII, pág. 66.

[13] Datado para el año 1712. Ver op. cit., tomo I, pág. 62.

2009ko urte guztiko errendapena

ZUBIMENDI, Joxe Ramon
JAGONETen arduraduna

Hona, labur-labur, JAGONETeko 2009ko datuak, urte guztikoak:

1. Galdelekuan jasotako galderak: 978 (iaz baino % 2 gehiago)*
2. Banan-banan emandako erantzunak: 968 (iaz baino % 2 gehiago)*
3. Datu-basea osatzen duten galde-erantzunak: 542
4. JAGONETen bistaratutako web-orriak: 167.480 (iaz baino % 12 gehiago)

*** Oharra:** 2008az geroztik, EUSKALTELek bere aldetik ezarritako SPAM postaren aurkako iragazki automatikoak zaborretara bota ditu galdera asko [Gertakaria: 4106]. Horren ondorioz, esate baterako, 2009ko ekainean, gure informatikariak Word dokumentu batean (439 orrialde beteko dokumentua) bidali zizkidan 2009ko apirilean eta maiatzean JAGONET galdelekura bidean «galdutako» galderak eta mezuak. Dokumentu horretatik ezabatu nituen SPAM mezuak (zaborra) eta, banan-banan zehazki aztertu ondoren, honako hauek ere ezabatu nituen: batetik, errepikatutako galderak; bestetik, lehendik erantzundako galderak (dirudienez, erantzunik ez zutela jasotzen ikusirik, zenbait bezerok behin baino gehiagotan bidali zidaten galdera bera, eta halakoren batzuk bai iritsi, eta nik erantzun). Azkenean, 58 galdera atera ziren garbian, eta banaka-banaka erantzun nituen. Baita horien ondoren etorri zirenak ere. Geroztik, ordea, badirudi arazoa konpondu dela, zorionez, 2009ko urte bukaera aldera.

Euskera. 2009, 54, 3. 1771-1772. Bilbo
ISSN 0210-1564

JAGONET: datu-baseko 2009ko datuak, hilez hil

JAGONETen	urt.	ots.	mar.	api.	mai.	eka.
Bistaratutako	13.585	14.895	14.244	10.706	14.202	10.511

	uzt.	abu.	ira.	urr.	aza.	abe.
web-orriak	6.622	4.178	11.456	31.256	24.426	11.483

Literatura Ikerketa batzordea

Zornotza, Larrea auzunea, karmeldarren komentua,
2009-XII-11

Euskera. 2009, 54, 3. Bilbo
ISSN 0210-1564

Santi Onaindia jaio zeneko mendeurrena

URKIZA, Julen
Karmel aldizkariaren zuzendaria

Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkien bibliografía eta *Milla euskal-olerki eder*

A. Santi Onaindiaren jaiotzaren mendeurrena (1909-2009) dela eta, Gorka Aulestiak *Milla Euskal-olerki eder* liburuari buruz, eta nire *Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkien bibliografía* liburuari buruz Larrean batuko ziren Euskaltzaindiko Literaturako batzordean azalpen labur bat emateko eskatu zidan. Benetan Euskal literaturarako oinarrizko lanak dira biak, eta biak Larrean sortutakoak.

I

Julen URKIZA, *Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkien bibliografia*. Markina-Xemein, 1999,1735 or. (Karmel Sorta, 11)

Edukia eta estatistika

Liburu honi buruz Gorka Aulestiak berak idatzi zuen *Sancho el Sabio* aldizkarian, lan honen garrantzia eta baliagarritasuna azalduz.

Askotan galdetu didate zer dela eta egin nuen liburu hau. Idazle batzuen lanei buruz egindako hainbat ikerketatan, behin eta berriro ari izan naiz hainbeste liburutegi eta aldizkari aztertzen... (Santi Onaindiaren Olerkien argitalpena, Santiren lanen *bibliografia*, Sabin Muniategiren olerkien argi-

Euskera. 2009, 54, 3. 1775-1782. Bilbo
ISSN 0210-1564

talpena, etab. egin nituenean). Horrela, material bibliografikoak bilduko lituzkeen oinarrizko lan zehatz eta zabal baten premia ikusi nuen, tresna hori ehunka ikerlari eta aztertzailerentzat oso baliagarri izango zelakoan, askoren denbora, izerdi eta diru asko aurreztuz.

Eta euskal literaturako lan batzuk egiteko asmotan ari nintzela, bereziki olerkarien lan batzuk aztertzeko asmotan, oinarrizko lan hori egitea erabaki nuen.

Halaxe batu nituen XIX. eta XX. mendeetako aldizkari eta egunkarietan dauden euskarazko bertso eta olerkiei buruzko datu bibliografikoak, 1990era artekoak, hau ere barru dela. Lana nahiko osoa eta zehatza da.

Batutako materiala euskarazko, gaztelaniazko eta frantsesezko 450 aldizkaritan datorrena da, gutxi gorabehera... Askoz gehiago ere aztertu nituen, baina gainerakoetan ez nuen euskarazko bertsorik ez olerkirik aurkitu.

46.000 izenburu inguru batu dira. Bai idazleak eta bai aldizkariak, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Iparraldeko hiru herrialdetakoak eta beste herrialde eta nazio batzuetakoak dira.

Material hau batzeko beharrezkoa zen liburutegi nagusiak aztertzea. Lehenengo karmeldarren komentuetakoak aztertu nituen; ondoren, zehatz-mehatz eta goitik behera arakatu nituen Labayru Biblioteka (Derio), Gipuzkoako Aldundikoa (gaur «Koldo Mitxelena» dena), Lazkaoko Beneditarrena, Bizkaiko Aldundikoa, Azkue Biblioteka (Euskaltzaindikoa), Baionako Udal Biblioteka, Baionako Mussée Basque-koa (hau amaitu gabe utzi nuen, biblioteka lekuz aldatzen hasi zirelako), etab.

Gero, liburutegi bakoitzean aldizkariak sistematikoki ikusten nituen, A-tik hasi eta Z-n amaiturik. Liburutegi batean falta zena besteetan aurkitutakoarekin osatzen nuen. Dena dela, ahalegin handi hori gorabehera, aldizkari batzuk osatu gabe gelditzen dira; Euskal Herriko liburutegi guztietako aldizkariak bat eginda ere, aldizkari batzuk beti geldituko lirateke osatu gabe. Honekin argi ikusten da zein zaila den aldizkari bakoitzeko material bibliografiko oso-osoa ematea.

Material bibliografikoa bi zatitan sailkatu da:

a) *Idazlez idale* sailkatzen da alfabetoaren arabera; egile bakoitzaren bertso eta olerki-lana ere alfabetoaren arabera azaltzen da, lan bakoitza errazago aurkitu ahal izateko.

b) Bigarren zatian (*Aldizkariz aldizkari*), aldizkari bakoitzaren produkzioa dator, aldizkariak alfabetoaren arabera agerturik; eta aldizkari bakoitzean, egileak eta euren lanak kronologiaren arabera aurkezten dira.

Liburu honen bi atalak elkarren osagarri direla izan behar da gogoan: *Aldizkariz aldizkari* egindako transkripzio bibliografiko zehatza alde batetik, eta *Idazlez idale* egindako interpretaziozko eta praktikazko lana bestetik. *Idazlez idazle* deritzon sailean, sarritan, gauzak argi daudenean batez ere, ez dugu olerki edo bertsoaren izenburua errepikatzen, izenburuaren ondoan olerkia edo bertsoa non dagoen adierazi baizik; horrela erraz ikus genezake zein olerkari edo zein olerki izan diren argitaratuenak aldizkarietan, historian zehar; honela, esaterako, Z. Andonegi hartzen badugu, (*Aitorren izkuntz zarra*, 16 bider argitaratua da), S. Arana-Gori (*Eusko-Abendaren Ereserkia*, 25 bider inguru), G. Aresti (*Nire aitaren etxea*, 19 bider gutxi gorabehera), F. Arrese Beitia (*Arbola bat*, 11 bider; *Ama euskeriari*, 20 bider inguru; *Aritzari*, 17 bider inguru), J.-B. Elizanburu (*Nere etchea* eta *Ikusten duzu goizean*, 48 bider gutxi gorabehera), J.M. Iparragirre (*Gernikako arbola*, 45 bider gutxi gorabehera), Txirrita (*Milla zortzireun irurogeita*, 10 bider), E. Urkiaga «Lauaxeta» (*Amayur gaztelu baltza*, 10 bider baino gehiagotan), etab., edota egile ezagunik gabeak, esaterako, «*Ator mutil etxera*» (40 bider gutxi gorabehera)... Ageri denez, batzuetan sentimendu sozio-politikoak, beste batzuetan sentimendu herritarrak urteko garai batzuei loturik, egiten du olerki batzuk beste batzuk baino sarriago argitaratu izatea...

Estatistikak argitasun batzuk eskaintzen dizkigu, adibidez, aldizkari bakoitzak zenbat olerki eta bertso argitaratu dituen historian zehar. Eta esan genezake *Karmel* aldizkaria dela, eta beronen osagarri *Olerti* batera hartuta, olerkirik gehien argitaratu dituena, 3.000 inguru; hau da, Aita Santiren eraginez gehienak (eta gaur arte 3.800 inguru). Eta egunkarien artean *Euzkadi* izan da olerki eta bertso lehen argitaratu dituena, 3.300 inguru. *Karmel* eta *Olerti* aldizkariak ere kontuan hartuta, esan genezake Larrea literaturaren zentroa izan dela: *Milla euskal-olerki eder* Santik hemen, Larrean, egin eban eta neure *bibliografia*ko liburua ere hemen hasi nuen.

Egileak identifikatzeko zailtasunak

Liburuaren lehen zatia, *Idazlez idazle*, nahiko korapilatsua gertatu da, eta urrats garrantzitsuak eman arren, arazo guztiak ez dira argitu, batez ere pertsona eta bertso edo olerkiak zein norena den erabakitzeko orduan, bertso edo olerki asko egilearen izenik gabe, izenordez, edo izenaren hasierako letra hutsez aipatuak direlako, etab.

Batzuetan gaitz izaten da egilea identifikatzea. Olerki bat deituraz edo abizenaz sinaturik datorrenean, egilea benetan nor den jakitea erraza izan behar lukeela dirudi, baina hala ere deitura bereko idazleak izan ohi dira eta, batzuetan, garai berekoak; orduan, izenik ez badator edo argi ez badator, zail izaten da egilea identifikatzea; esaterako, horixe gerta daiteke ondorengo deitura hauek agertzen direnean: Artola, Enbeita, Etxeita, Etxeberri (Etcheberri, Etcheberry, etab.), Etxeberria, Etxegarai (Etchegarai, Etchegaray, etab.), Iriarte, Mitxelena, Zabaleta, etab.

Beste batzuetan, lanak izen hutsez sinaturik datoz, esaterako, Manex (Manech), Mikel, Pello, Piarres, etab., eta horrek, zenbaitetan, zailtasunak dakartza identifikatzeko. Hala ere, olerki bakoitzaren azterketa sakona eginez gero (ez da hau gure egitekoa) ziur samar jakin daiteke nor den egilea...

Baina identifikatzean arazorik handiena ekarri diguna izenordeena izan da. Eta bakoitza zein autoreri dagokion argitzeko ahaleginak egin arren, asko dago oraindik argitzeko, bereziki autore hain ezagunak ez direnean... Berez ere izenorde asko identifikatzea zail bada, oraindik zailago bihurtzen da izenorde bera batek baino gehiagok darabiltenean; horixe gerta daiteke, esaterako, izenorde hauek datozenean: *Uxola, Zaldubi (Zalduby), Donosti, Lexo, Xalbador* (I, II), etab.

Argitaraturik daude identifikatutako izenordeen zerrenda batzuk (ikus J. SAN MARTIN, *Euskal idazleen izenordeak, escritores euskéricos katalogoaren arabera*, Egan, 1989, 45-57; J. URKIZA, *Euskal idazleen izenordeak*, Karmel 1992-1, 27-41), eta liburu honetan euskal idazleen izenordeen zerrenda osoagoa eskaintzen dugu.

Liburuaren baliagarritasuna

Lehen aldiz egiten da datuen bilketa edo batze hain zabala liburu batean; batzuetan eskuragaitz diren aldizkarietatik egindako bertso eta olerkien bilketa.

Euskal literaturan lan egiten duten, eta batez ere autore zehatz batzuei buruzko literatur lanean ari diren ikertzaile eta historialarientzat laguntza interesgarria da. Liburu honekin, han eta hemen sakabanaturik dagoen idatzizko eta ahozko literatur materiala eskuratzeko bidea zabaltzen eta errazten zaie. Bertsolari eta olerkarien lan osoak prestatu eta argitaratzea ikaragarri errazten da.

Beraz, herrialde bakoitzeko eta Euskal Herri osoko olerki-lan literarioa eta bertsolariena ezagutzera emateko laguntza bikaina eskaintzen du obra honek.

II

Aita ONAINDIA, Karmeldarra, *Milla euskal-olerki eder. Aldiz-urren aukeratuta*. Larrea-Amorebieta, 1954, 1199 or.

Zuek ondo ezagutzen duzue A. Santiren nortasun literarioa eta batez ere bilduma liburu hau. Orain gogora ekarriko ditugu gauza batzuk haren omenez. Minutu gutxitan gain-gainetik bada ere ikus ditzagun liburuaren alderdi batzuk.

Liburu honen historia ezagutzeko iturriak hauek dira: 1) Bilduma liburua bera (*MILLA EUSKAL-OLERKI EDER)*. 2) Liburu honen eskuizkribuak, edo inprimategira bidalitako orriak, bertan agertzen diren aldaketekin; Larrean daude eskuizkribu hauek). 3. Aita Santiren beraren *Oroi-txinpartak* liburua. Eta *Eskutitzak* liburuan ere hainbat jakingarri aurkitzen dira.

Milla euskal-olerki eder liburuaren sarreran edo atarian bi (edo hiru) puntu nagusi azaltzen ditu Aita Santik: 1. *Euskal-olertia zer dan*. 2. *Euskal-olerkiaren edesti apur bat*. (eta amaieran agertzen du nondik nora ibili zen, oler-

ki-mordoska hau batzeko... nongoak diren idazleak: Iparraldekoak, Nafarroakoak, Gipuzkoarrak, Bizkaikoak, Arabarrak, Amerikakoak).

Hitzaurre horri buruz Jokin Zaitegik, Guatemalatik, idatzi zion 1954ko maiatzaren 8an: «ezarri diozun itzaurrekoa, erabat bikain eta eder idatzi duzu, noski». Baina Aita Santik liburuari Orixeren «Itz bi» orri birekin eman zion hasiera, nahiz eta Orixek 54-I-26an hau esan: «Aski du itzaurrea».

Izenburuari dagokionez (*Milla euskal-olerki eder)* sarreran aitortzen du Aita Santik, ez direla mila euskal olerki onenak, ederrak baizik.

Oroi-txinpartak liburuan Aita Santik *Milla euskal-olerki eder* liburuaren sorrera eta historia egiten du. Eta atzera begira dio nola gaztetan sortu zitzaion gogoa; berak dioenez, «poesi-garrak joa nenbillen». Eta gerra ostean espetxeak eta «atzerriratzeak» sufritu ondoren, 1951n sartu zen Euskal Herrian, Larrean bere egoitza zuela. Eta hemen, hiru urtean, 1951-1954, ahalegin handiz jardun zuen euskal olerki bilduma egiten.

Batze-lana eta laguntzaileak

Aita Santik berak azpimarratzen du, batze lana berak, berak bakarrik, egin zuela. Eta esaten du nondik nora ebili zen ere lan hori burutzeko.

Gure komentuetako liburutegiak arakatu zituen (Begoña, Larrea, Markina). Baina batez ere Donostiara jo zuen, Aldundiko artxibora, eta Fausto Arozenak eta Jose Artetxek besoak zabalik hartu zuten. Liburu asko ikusi zituen, eta batez ere *Euskal Erria* aldizkaria. Berak zerrenda luzeak egin zituen, eta gero Ageda Ormaetxea andereñoa, Durangarra bera, ahalegindu zen zerrenda horren arabera olerkiak kopiatzen (lan handia!). Gero *Príncipe de Viana*-n eta Nafarroako Aldundian batu zituen beste olerki asko; baita Bizkaiko Aldundian ere.

Eta Iparraldean laguntzaile oso ona izan zuen Lafitte jauna; honek material ugari eskuratu zizkion, batez ere Iparraldeko olerkarienak... Eta askotan olerkiak aukeratzen ere lagundu zion. Aita Santi Beloketik ere pasatu zen (han zegoen *Iratzeder* adiskidea).

Beste laguntzaile on bat Larreako komentuan bertan izan zuen: Aita Lon Arteaga, bai olerkiak kopiatzen eta bai inprentako azken probak zuzentzen, eta ustez zerbait gehiago ere bai, Aita Santiri, berari, idatzi zion eskutitzean agertzen denez: «Ire (ta zegaitik ez *gure*?) olerki mordoxkaren barri zerbait baño geiago itz egin genduan»... (1954-VI-6); Aita Lon ez zen izan kopiatzaile arrunt bat, hori baino gehiago baizik.

Argitalpenaren arazoak Francoren poliziarekin

Liburua irteteko zela, Karmeldarren batzar nagusia zela eta, Aita Santi Eibarrera bidali zuten (1954ko udaberrian).

Orduan Zarauztik dei pozgarria heldu zitzaion: *Itxaropena* inprentan liburua eginda zegoen. Baina kontuz ibiltzeko esaten zion Patxi Untzurruzagak, polizia inprimategian liburuari buruz galdezka aritu zela eta. Orduan Santik agindu zion Patxiri: «Egin, mesedez, onela liburuaren banaketa: batzuk Bilbo-ra, beste batzuk Donosti'ra, ona eta Markiña'ra besteak». (Erdiak ale bakarrean eta besteak bitan atera zituen, erdiak azal gogor dotorez eta beste erdiak azal bigunez).

Liburu honen historian gauza kuriosoak aurkitzen ditugu, eta Aita Santi nolakoa zen agertzen da, irribarrez eta ironiaz, hitz goxoz aurrera egiten zuena... batez ere poliziarekin.

Eguerdi aurretxoan etorri zitzaizkion bi polizia, «txispa ta guzti» dio berak, argitaratu berri ziren liburuak kuartelera eramateko... Aita Santik pilo bat zeukan, gehienak ale bikoak. Baina bazkaltzeko ordua zela eta, berak ezin ziela lagundu liburuak eramaten, baina lauretan bai. Eta lauretan han agertu ziren bi poliziak. Santik ordurako prest zituen 86 liburu; bi poliziak liburuak hartuta, «pozik joan ziran egindako uzta bikaiña zala-ta». Baina A. Santik horietatik asko berreskuratu ahal izan zituen; 26, dio berak. Nola? Polizien etxeko bazterrak garbitzen zituen emakume bat ezagutzen zuen A. Santik, eta emakume horrek esan zion bere liburuak han zeudela. Eta emakume horrek egunero liburu bat edo bi eramaten zizkion A. Santiri bere «ixil-zakutuan».

Baina hilabete geroago Donostiatik dei berezi bat izan zuen. «Información y Turismo»ko ordezkariaren, Ugalde jaunaren, deia izan zen. Joan zen Aita Santi, eta harrera ona egin zion. Berak gogoratzen digu bien arteko elkarrizketa *Oroi-txinpartak* liburuan (342. orrialdean):

> «Etzaitut deitu liburua atera dezulako, baimen gabe salgei jarri duzulako baizik». Egi ote? «Zenbat ale atera dituzu». Nik erantzun «Berreun, euskal liburua oso gutxi saltzen baita». Egia ete? «Eta nun dituzu berreun oiek». Nik ari: «Salgei ipini nitun liburutegietan». Ak niri: «Nun, mesedez». Nik ordezkariari: «Esango dizut, banaka batzuk Bizkaiko liburu-dendetan, beste batzuk Gipuzkoetakoetan». Ak azkenez: «Bilduko zenituzte, mesedez?» Nik seriotasun gurenez. «Bai, jauna, eskuratuko ditut». Eskuak estutuz bukatu gendun alkar-izketa. Ak ba-ekian ni guzurretan nenbillela, eta nik be bai a guzur-ontzi zana. Or amaitu zan liburuaren auzia.

Eta azkenez, gehiago ere badio Aita Santik bere liburuaren historia kuriosoaz ari dela, Gobernuaren jokaera faltsua azpimarratuz (*Oroi-txinpartak*, 342. or.):

> «Nire liburua, barru ta kanpo, baliotsua zan itxura zanez. Niri geroztik kasurik egin ez eusten arren, Espaiña'ko gobernuak berak, ederra zalako, jakiña, munduko liburu erakusketa berezietara bialdu eban nire au be, Tokio'ra, Londres'era eta gaiñerakoetara. Ni auzitan sartu nairik ibilli ziranak, ba mesede baño ez eusten egin».

Baina, nire ustez, Gobernuak *Milla euskal-olerki eder* liburua agerian jartzen zuen munduari erakusteko Espainian liburuak argitaratzeko askatasuna zegoela, euskararentzat askatasuna zegoela.

Aita Santik berak adierazten digu *Oroi-txinpartak* autobiografian (345-350. or.) *Milla euskal-olerki eder* liburuaren arrakasta: agertu ziren iritziak, guztiz aldekoak gehienak... Orixe, A. M. Labaien, Joakin Zaitegi, P. Lafitte, Andima Ibiñagabeitia, Luis Mitxelena, eta abarrenak.

Egia esan, aitortu beharra dago, liburu honen eragina handia izan zela euskal idazle, ikasle eta irakasleen artean.

Hitzarmenak

Euskera. 2009, 54, 3. Bilbo
ISSN 0210-1564

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DEL GOBIERNO DE NAVARRA Y LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA-EUSKALTZAINDIA

A) XEDEA:

Hitzarmen honen xedea da Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren oinarri orokorrak ezartzea eta sinatzaileek ontzat jotzen dituzten konpromisoen esparrua arautzea, Euskaltzaindiak Nafarroako Foru Komunitatean duen jarduna eta Euskaltzaindiaren funtzionamendu onerako baliagarriak diren jarduera orokorrak gauzatze aldera.

B) ZIOEN AZALPENA:

Erakunde biek azaltzen dute:

1. Nafarroako Foru Diputazioa izan zela 1918an Euskaltzaindia sortu zuten erakundeetako bat. Euskaltzaindia euskara garatzeko sortu zen.

2. Alde biek, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak eta Euskaltzaindiak ezagutzen eta onesten dutela Nafarroako Foru Komunitatean indarra duten lege esparrua, gaitasuna ematen diena bi aldeei hitzarmen hau sinatzeko eta hitzarmenaren zeinahi ekimen osagarri garatzeko.

A) OBJETO:

El presente Convenio tiene por objeto establecer las bases generales de colaboración entre el Departamento de Educación del Gobierno de Navarra y la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia y regular el marco de compromisos que los firmantes asumen para posibilitar la actividad de la Institución en lo que a la Comunidad Foral de Navarra concierne, así como las de carácter general que sirvan para el buen funcionamiento de la Institución.

B) EXPOSICIÓN DE MOTIVOS:

Ambas instituciones exponen:

1. Que la Diputación Foral de Navarra, fue en 1918 una de las instituciones fundadoras de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, que se creó para el desarrollo del euskera.

2. Que ambas partes, el Departamento de Educación del Gobierno de Navarra y la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, reconocen y aceptan el marco legal vigente en la Comunidad Foral de Navarra, que sustenta y posibilita la capacidad de las partes para la firma de este Convenio, y para el desarrollo de cuantas iniciativas lo complementen.

Euskera. 2009, 54, 3. 1785-1792. Bilbo
ISSN 0210-1564

C) INDARREKO ARAUDIA

Hitzarmen hau ondokoan ezarritakoaren arabera arautuko da:

1. 573/1976 Dekretua, otsailaren 26koa. Dekretu horren bidez ezagutzen zaio Euskaltzaindiari Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia izendapena. 272/2000 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa. Dekretu horren bidez aldatzen dira Euskaltzaindiaren estatutuak.

2. 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa. Foru lege horren 1. artikuluko 2. idatz-zatian ezartzen da zeintzuk diren foru legearen helburu nagusiak, euskararen ezagutzari, erabilerari, berreskurapenari, garapenari, sustapenari, eta erabilerari eta irakaskuntzari dagokionez, borondatezkotasun, gradualtasun eta errespetu irizpideen arabera; Nafarroan euskarak duen errealitate soziolinguistikoarekin bat.

3. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 foru lege berean, Euskaltzaindiari dagokionez, 3. artikuluko 3. idatz-zatian esaten da erakunde aholku-emaile ofiziala izanen dela, Nafarroan euskararen hizkuntza arauak ezartze aldera. 8. artikuluko 2. idatz-zatian arautzen da Euskaltzaindiak toponimia gaietan izan behar duen jarduera, toponimia gaien gaineko txostenak emateko erakunde den aldetik.

C) NORMATIVA APLICABLE

El presente Convenio se regirá por todo lo establecido en:

1. El Decreto 573/1976, de 26 de febrero, por el que se reconoce a la Academia de la Lengua Vasca su denominación de Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, así como en el Real Decreto 272/2000, de 25 de febrero, por el que se modifican los estatutos de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.

2. La Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vascuence, que establece en su artículo 1º 2 los objetivos esenciales de la misma relativos al conocimiento, uso, recuperación, desarrollo, fomento, uso y enseñanza, con arreglo a los principios de voluntariedad, gradualidad y respeto; y de acuerdo a la realidad sociolingüística del euskera en Navarra.

3. La propia Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vascuence, y en lo que se refiere a la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, en su artículo 3º 3, que señala el carácter de Institución consultiva oficial a efectos de establecimiento de normas lingüísticas del vascuence en Navarra. Y lo que dice en el artículo 8º 2, que regula la actuación de la Real Academia de la Lengua Vasca en materia de toponimia como Institución emisora de informes relativos a aquella.

D) LANKIDETZA HITZARMENAREN IRAUPENA.

Hitzarmen hau urte baterako izanen da eta luzatzen ahalko da.

Ondorengo luzapenak zehazki urte baterako eginen dira.

Hitzarmen honen kontra egiten ahalko du aldeetako edozeinek, hitzarmenaren epemuga baino hiru hilabete lehenago.

D) PLAZO DE DURACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN.

La vigencia del presente Convenio tendrá una duración de un año, prorrogable.

Las sucesivas prórrogas se realizarán expresamente por el periodo de un año.

El presente Convenio podrá ser denunciado por cualquiera de las partes tres meses antes de la fecha de su vencimiento.

E) AURREKONTUA

2009rako aurrekontua 235.000,00 eurokoa izanen da, Nafarroako Gobernuaren 2009ko Aurrekontu Orokorren "Euskaltzaindiarekiko hitzarmena" izeneko 440002-44200-4816-334100 kontu-sailaren kargura.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Aurrekontu Orokorretan zehaztuko du laguntza hauetarako urtero zenbat diru ezarriko den.

E) PRESUPUESTO

El presupuesto para el año 2009 será de 235.000,00 euros, con cargo a la partida 440002-44200-4816-334100, denominada "Acuerdo con Euskaltzaindia" de los Presupuestos Generales del Gobierno de Navarra de 2009.

El Gobierno de Navarra determinará en los Presupuestos Generales de Navarra para cada año la cantidad destinada para estas ayudas.

F) DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK

Nafarroan, euskarari dagokionez, Euskaltzaindiak batzorde akademikoen eta egiturazkoen bidez eginen ditu bere lanak, hain zuzen ere. Lan horien artean daude urteko lan programan aurkeztu dituen jarduera berariazkoak eta izaera orokorrekoak, erakundearen funtzionamendu egokia ahalbidetzen dutenak.

F) ACTIVIDADES A SUBVENCIONAR

La Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia desarrollará su labor a través de las distintas Comisiones (Académicas y Estructurales) en todo lo referido al euskera en Navarra, comprendiendo las actividades específicas presentadas en el Programa Anual de Trabajo, así como las de carácter general que sirvan para el buen funcionamiento de la Institución.

G) KOORDINAZIO ETA KUDEAKETA ORGANOAK

Jarraipen batzordea:
Hitzarmen hau sinatzen den unean Jarraipen batzorde bat eratuko da. Batzorde horretako kide izanen dira Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Euskarabidea erakunde autonomoaren

G) ÓRGANOS DE COORDINACIÓN Y GESTIÓN

Comisión de Seguimiento:
En el momento de la firma de este Convenio se formará una Comisión de Seguimiento que estará formada por representantes del organismo autónomo Euskarabidea del Departamento de

ordezkariak eta Euskaltzaindiaren ordezkariak.

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Euskarabidea erakunde autonomoaren izenean:
- Euskarabideko zuzendari kudeatzailea edo ordezko izateko berak izendatzen duena. Batzordeburua izanen da.
- Euskararen Garapenerako Zerbitzuko zuzendaria, edo ordezko izateko berak izendatzen duena. Batzordekidea izanen da.
- Euskararen gaineko Aholkularitza eta Prestakuntzarako Zerbitzuko zuzendaria, edo ordezko izateko berak izendatzen duena. Batzordeko idazkaria izanen da.

Euskaltzaindiaren izenean:
- Euskaltzainburua, edo berak izendaturiko ordezkaria. Batzordekidea izanen da.
- Euskaltzaindiaren idazkaria, edo berak izendaturiko ordezkaria. Batzordekidea izanen da.
- Euskaltzaindiaren diruzaina, edo berak izendaturiko ordezkaria. Batzordekidea izanen da.

Gisa berean, deituko da, eta bilkuretan parte hartzen ahalko du Euskaltzaindiak Nafarroan duen ordezkariak, hitzarekin baina botorik gabe.

Jarraipen batzordea gutxienez urtean bitan bilduko da, lehenbizikoa, lankidetza hitzarmen hau sinatzen denean; bertan, Euskaltzaindiak urteko lan programa aurkeztuko du. Hitzarmen honen F idatz-zatian zehazturikoaren arabera. Bigarren bilkura urte bukaeran eginen da, eta bertan Urteko memoria aurkeztuko du Euskaltzaindiak,

Educación del Gobierno de Navarra y representantes de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.

Por parte del organismo autónomo Euskarabidea del Departamento de Educación del Gobierno de Navarra:
- El Director Gerente de Euskarabidea, o persona en quien delegue, que actuará como Presidente..
- El Director del Servicio de Desarrollo del Vascuence o persona en quien delegue, que actuará como Vocal.
- El Director del Servicio de Asesoramiento y Formación del Vascuence, o persona en quien delegue, quien actuará como Secretario de la Comisión.

Por parte de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia:
- El Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, o un representante designado por el mismo, que actuará como Vocal
- El Secretario de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, o un representante designado por el mismo, que actuará como Vocal.
- El Tesorero de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, o un representante designado por el mismo, que actuará como Vocal.

Asimismo, deberá ser convocado y podrá asistir a las sesiones, con voz pero sin voto, el Delegado en Navarra de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.

La Comisión de Seguimiento se reunirá al menos dos veces al año, una primera, a la firma del presente Convenio de Colaboración, donde la Academia presentará su Programa Anual de Trabajo a realizar, según lo que se especifica en el apartado F de este Convenio, y una segunda reunión que se celebrará al final de año, donde se

onetsia izan dadin.

Laneko batzorde teknikoa:
Hitzarmen hau sinatu eta 15 eguneko epean Laneko batzorde teknikoa osatuko da. Gutxienez hiru hilean behin bilduko da, behar diren lanak egiteko. Lan horiek Jarraipen batzordeak onetsi beharko ditu beti.

Honako hauek osatuko dute:
Euskarabidearen hiru ordezkari, Euskarabideko zuzendari kudeatzaileak izendatuak ondokoen artean:
- Euskararen Sustapenerako atalburua.
- Euskararen gaineko Ikerketa eta Itzulpenerako atalburua.
- Euskararen gaineko Aholkularitza eta Prestakuntzarako Zerbitzuko teknikari bat, idazkari arituko dena.

Euskaltzaindiaren bi ordezkari, euskaltzainburuak izendatuak, honako hauek izan daitezkeenak:
- Euskaltzaindiaren kudeatzailea.
- Euskaltzaindiaren idazkariordea.

Laneko batzorde teknikoan hitzarmena sinatzen duten erakunde bietako beste kide batzuen laguntza eskatzen ahalko da, eta baita ahokulari teknikoena ere, aurrez ikusi diren helburuak erdiesteko.

Laneko batzorde teknikoak Euskaltzaindiaren batzordeen lanaren jarraipena eginen du, Nafarroan euskarari dagokion orotan. Urteko lan programetan islatuko da eginkizun hori.

presentará la Memoria Anual para su aprobación.

Comisión Técnica de Trabajo:
En el plazo de 15 días a partir de la firma del presente Convenio se formará una Comisión Técnica de Trabajo que se reunirá, al menos, una vez al trimestre, para la realización de las tareas oportunas, que deberá siempre aprobar la citada Comisión de Seguimiento.

Y estará formada:
Por tres representantes de Euskarabidea /Instituto Navarro del Vascuence, nombrados por el Director Gerente de Euskarabidea/Instituto Navarro del Vascuence entre:
- El Jefe de Sección de Fomento del Vascuence.
- El Jefe de Sección de Investigación y Traducción del Vascuence.
- Un Técnico del Servicio de Asesoramiento y Formación del Vascuence, que actuará como Secretario.

Por dos representantes de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia nombrados por su Presidente, que podrán ser:
- El Gerente de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.
- El Vicesecretario de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.

En la Comisión Técnica de Trabajo se podrá recabar la colaboración de otros miembros de ambas Instituciones firmantes del Convenio así como de asesores técnicos para la consecución de los objetivos previstos.

La función de esta Comisión Técnica de Trabajo será la del seguimiento de la labor de las Comisiones de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, en todo lo referido al euskera en Navarra y se plasmará en los diferentes Programas Anuales de Trabajo.

Urtea bukatu baino lehenago, Laneko batzorde teknikoak ordura arte egindako lanen memoria eginen du. Memoria hori Jarraipen batzordeak onetsi beharko du.

Jarraipen batzordearen zein Laneko batzorde teknikoaren bilkurak hitzarmena sinatu duten erakundeen zeinahi egoitzatan egiten ahalko dira.

Euskaltzaindiak hitzematen du lankidetza hitzarmen berri hau sinatu aurretik izan duen jarduera maila bera mantendu eta segituko duela.

Euskaltzaindiak hala eskatuta, Nafarroako Gobernuak hitzematen du bere mendeko funtzionarioak Euskaltzaindiari esleitzeko aukera aztertuko duela, Nafarroan euskararen gainean erakunde biek zehazturiko lanak egiteko.

Antes del final de año, esta Comisión Técnica de Trabajo elaborará una Memoria de lo realizado, que será sometida a la aprobación de la Comisión de Seguimiento.

Las reuniones, tanto de la Comisión de Seguimiento como de la Técnica de Trabajo podrán celebrarse en cualquiera de las sedes de los organismos firmantes del Convenio.

La Real Academia de la Lengua Vasca–Euskaltzaindia se compromete a realizar y mantener el mismo nivel de actividades que ha venido realizando hasta la firma de este nuevo Convenio de Colaboración.

El Gobierno de Navarra se compromete a estudiar, a petición de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, la asignación a esta Institución de funcionarios de su plantilla, a fin de realizar los trabajos que ambas instituciones determinen, relativos al euskera en Navarra.

H) DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Diru-laguntza bi epetan ordainduko da. Lehenbizikoa, aurrerakin gisa, hitzarmen hau onesten duen Ebazpena sinatzen denean. Diru-laguntza osoaren 60.000,00 eurokoa izanen da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 33. artikuluak ezartzen duen moduan. Bigarren ordainketa urte bukaeran eginen da, behin Urteko memoria aurkeztu eta onetsi ondotik. Aurrez ikusitako gainerako diru-laguntza ordainduko da, diruz lagunduko diren gastuak justifikatu ondotik. Diru-laguntza hori hitzarmen honek indarra duen urte bakoitzerako Nafarroako aurrekontu orokorretan "Euskaltzaindiarekiko hitzarmena" izeneko 440002-44200-4816-334100 kontu-sailetik aterako da.

H) ABONO DE LA SUBVENCIÓN

El abono de la subvención se realizará en dos plazos. El primero, en concepto de anticipo, una vez se firme la Resolución por la que se aprueba el Convenio, y alcanzará los 60.000,00 euros de la subvención total, tal y como se establece en el artículo 33 de la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de subvenciones. Y el segundo, al finalizar el año, tras ser presentada y aprobada la Memoria Anual, por el que se abonará el resto de la subvención prevista en la partida correspondiente 440002-44200-4816-334100, denominada "Acuerdo con Euskaltzaindia", de los Presupuestos Generales del Gobierno de Navarra para cada año de vigencia del presente convenio, previa justificación de los gastos que son objeto de subvención.

I) DIRU-LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

Emanen den diru-laguntza justifikatuko da Diru-laguntzen gaineko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen arabera. Zehazkiago, foru lege horrek ondoko artikuluetan esaten duenaren arabera:

- I. titulua, II. kapitulua, diru-laguntza publikoei buruzko xedapen orokorren gainean, 5., 6., 7., 8., 9., eta 11. artikuluak.
- IV. kapitulua, diru-laguntzen kudeaketaren eta justifikazioaren gainekoa, 27., 28. eta 29. artikuluak.
- V. kapitulua, diru-laguntzen kudeaketa ekonomikoaren eta aurrekontu kudeaketaren gainekoa, 31., 32., 33., artikuluak.

Emandako diru-laguntza justifikatzeko dokumentazioa Euskarabidean aurkeztuko da azaroaren azken egun baliodunеko 14:00ak baino lehenago, behar diren bide administratiboak erabiliz.

Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 9. artikuluko g) idatz-zatian ezarritakoarekin bat, diruz lagundutako gastuak justifikatzeko dokumentazioan aurkez daiteke gastuen zerrenda bat, eta bertan, faktura zenbakia, kontzeptua eta zenbatekoa. Zerrenda hori Euskaltzaindiaren kudeatzaileak sinatuko du.

Emandako diru-laguntza justifikatzeko dokumentazio guztia, aurreko paragrafoan aipatutakoa, Euskaltzaindiak gordeko du eta Euskarabidearen eskura utziko du, eskuhartu edo ikuskatu ahal izateko, aipaturiko araudian ezartzen duenarekin bat.

I) JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

La justificación de la subvención concedida estará supeditada a lo establecido en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones y más concretamente lo dispuesto:

- En el Título I, Capítulo II, Disposiciones comunes a las subvenciones públicas en los artículos: 5, 6, 7, 8, 9 y 11.
- En el Capítulo IV, Gestión y justificación de las subvenciones lo dispuesto en los artículos 27, 28, 29.
- En el Capítulo V, de la gestión económica y presupuestaria de las subvenciones en los artículos 31, 32, 33.

La documentación justificativa de la subvención concedida será presentada en Euskarabidea antes de las 14 horas del último día hábil del mes de noviembre por las oportunas vías administrativas.

De conformidad con lo establecido en el artículo 9, g) de la Ley Foral 11/2005, de subvenciones, para la documentación justificativa de los gastos subvencionados puede constar de una relación de los gastos en los que aparezca el número de factura, el concepto y el importe de la misma. Dicha relación estará firmada por el Gerente de la Real Academia de la Lengua Vasca–Euskaltzaindia.

Toda la documentación justificativa de la subvención concedida, a la que se refiere el párrafo anterior, quedará en depósito en la Institución y a disposición de Euskarabidea para su posible intervención o inspección, según lo dispuesto en la normativa referida.

J) DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA ETA ZEHAPEN PROZEDURA

Jarraipenari, itzulketari eta zehapen prozedurari dagokionez, Diru-laguntzen gaineko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritakoaren arabera jokatuko da, eta zehazki ondokoan ezarritakoaren arabera:

- II. titulua, diru-laguntzak itzultzea, I. kapitulua, itzulketaren gainean, 34., 35., 36. eta 37. artikuluak.
- III. titulua, diru-laguntzen jarraipena, I. kapitulua, organo kudeatzaileek egin beharreko jarraipenaren gainean, 38. eta 39. artikuluak. II. kapitulua, finantza-kontrolaren gainean, 40. eta 41. artikuluak.
- IV. titulua, arau-hausteak eta zehapenak, I. kapitulua, arau-hausteen gainean, 42. artikulua. II. kapitulua, zehapen araubidearen gainean, 43., 44., 45., eta 46. artikuluak .

J) REINTEGRO DE LAS SUBVENCIONES Y PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

En cuanto al seguimiento, reintegro y procedimiento sancionador se estará a lo dispuesto en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones y más concretamente lo dicho:

- En su Título II, Reintegro de las subvenciones, el Capítulo I, del reintegro en los artículos 34, 35, 36 y 37.
- En el Título III, Seguimiento y control de las subvenciones, el Capítulo I, seguimiento por parte de los órganos gestores en los artículos 38 y 39. Capítulo II, Control financiero en los artículos 40 y 41.
- En el Título IV, Infracciones y sanciones, el Capítulo I, Infracciones en el artículo 42. Capítulo II, Régimen sancionador los artículos 43, 44, 45 y 46.

Iruñean, 2009ko irailaren 22an
En Pamplona, a 22 de septiembre de 2009

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZAKO KONTSEILARIA / EL CONSEJERO DE EDUCACIÓN DEL GOBIERNO DE NAVARRA

Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

EUSKALTZAINBURUA / EL PRESIDENTE DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA-EUSKALTZAINDIA

Andrés Urrutia Badiola

Euskera. 2009, 54, 3. 1785-1792. Bilbo
ISSN 0210-1564

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

argia

"ARGIA"REN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

Donostian, 2009ko uztailaren 21ean.

BILDURIK

Alde batetik, Berdaitz Goia Ardanuy jauna, "KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L."en ordezkaria, IFK –A-20644928.

Bestetik, Andres Urrutia Badiola jauna, EUSKALTZAINDIAren ordezkaria, IFK – G-48091961.

Sinatzaileek elkarri aitortzen diote eskumen juridiko nahikoa agiri hau izenpetzeko, eta bakoitza bere erakundearen ordezkari izanik, horren arabera jardunik eta elkarren adostasunez,

AZALTZEN DUTE

Euskaltzaindia 1918. urtean sortu zen, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Aldundien ekimenez. Erakunde horren helburu nagusia da, hain zuzen ere, euskararekin zerikusia duten arazo guztiak zientziaren ikusmiratik lantzea.

Euskera. 2009, 54, 3. 1793-1798. Bilbo
ISSN 0210-1564

Otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretuak aitorpen ofiziala egin zion erakunde horri, Euskararen Errege Akademia gisa, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaia probintzien eremurako; harrezkero, Euskaltzaindia da euskararen arloko erakunde eskuduna, hizkuntza bera ikertu eta babesteko. Geroago, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak eta Nafarroako Foru Erkidegoaren Euskara Legeak beren-beregi aitortu dute, Erkidego biotan, Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofiziala dela, euskarari dagokionez.

KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. 1998. urtean sortu zen, ekimen pribatuz. Bere helburuen artean euskarazko komunikabideak garatzea dago eta horren barruan ARGIA astekaria argitaratzen du.

Gaur egun, Euskaltzaindiak eta "KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L."ek hainbat jarduera burutzen dituzte, eta jarduerok interesgarri oso gerta daitezke hitzarmen honen ondorioetarako.

HITZARTZEN DUTE

Bi erakunde horiek euron helburuak bete ditzaten, eta euskara eta euskal kultura zabaltzeko ekimenak errentagarri eta egoki izan daitezen, bi erakundeok, bataren eta bestearen prozedura-arauak onartuz, honako hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, hurrengo baldintzokin:

1. "KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L."ek aitortu egiten du, euskaraz denaz bezainbatean, Euskaltzaindia dela erakunde aholku-emaile ofiziala eta euskararekiko arauemailea.

2. Euskaltzaindiak aitortu egiten du "KOMUNKAZIO BIZIAGOA S.A.L."ek euskarazko komunikabideetan duen zeregina, eta ARGIA bezalako hedabideen bitartez euskararen normalizazioan eta euskara batuaren hedapenean egiten duen ekarpena.

Horregatik, bi erakundeok lankidetza-proiektu zehatzak bideratu eta garatuko dituzte, euskararen eta euskal kulturaren inguruko komunikabideen eremuan; bi-bioi dagozkien lerro bereziak sustatuko dituzte, eta elkarri informazioa emango diote euren programazioetan zehaztutako lehentasunei buruz.

3. "KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L."ek eta Euskaltzaindiak elkarri euren hizkuntza-ondareak erabiltzeko aukera emango diote, eta, bereziki, euren artxibategi eta bibliotekak erabiltzeko aukera. Gainera, gero aipatuko den Jarraipen Batzordearen bidez, mekanismo egokiak finkatuko dira, bi sinatzaileek euren artean argitalpenak truka ditzaten.

4. Bi erakunde horiek elkarlanean arituko dira, bereziki euskararen normalizazioari buruzko proiektuak gauzatzeko, Euskaltzaindiak euskararen arloan ezarritako arauak euren barnean zabaltzeko eta komunikabideen bidez egoki plazaratzeko. Era berean, "KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L."ek jendaurrean zabalduko ditu, bereak dituen komunikabideen bidez, eta bi sinatzaileok jarritako baldintzetan, arau horien punturik nabarmenenak, eta, aldian-aldian ere, Euskaltzaindiak hala eskatuta, bidaliko dizkio Euskaltzaindiari arau eta gomendioen gaineko txostenak, gero ezarriko den Jarraipen Batzordeak adosturiko moduan eta baldintzetan.

Bereziki, Euskaltzaindiak erantzuna emango die "KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L."ek egindako kontsultei, kontsultok euskal lexikoari, gramatikari, onomastikari -batez ere toponimia alorrean-, ortografiari eta, oro har, euskararen araugintzaren bestelako gaiei buruzkoak direnean. Horretarako, gero aipatuko den Jarraipen Batzordearen bidez, mekanismo egokiak finkatuko dira.

Edozein kasutan ere, kontsulta horiek bideratzeko orduan, bi erakundeek Euskaltzaindiaren zerbitzuak –Biblioteka, Jagonet, Onomastika- erabiltzea sustatuko dute, Jarraipen Batzordeak zehaztutako prozeduraren arabera.

5. Argitalpenen arloan, elkarlana bultzatuko da, eta baterako argitalpenak sustatuko dira, euskararen normalizazioaren eremuan, euskarazko testuak edo zabalkunde-lanak batera kaleratzeko, eta, horrela, bi erakundeok euskararen inguruan sortutako testugintza hedatzeko.

6. Bi erakunde horiek elkarlanean arituko dira, euren biblioteketako euskal funtsak sendotzeko; horretarako, euron argitalpen funtsetatik, zenbait lan ekarriko dituzte.

7. Bi erakunde horiek lankidetzako politika bultzatuko dute ikastaroak eta programak sortu eta egin daitezen, euskarari eta euskal kulturari dagozkien eremuetan.

8. Aipatutako helburuok betetzeko, "KOMUNIKAZIO BIZIAGIOA S.A.L."ek eta Euskaltzaindiak Jarraipen Batzordea sortuko dute; batzorde horrek lau kide izango ditu, eta Hitzarmen hau sinatzen duen erakunde bakoitzak horietatik bi hautatuko ditu. Hautatutako kideen artean, "KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L."en ordezkariak eta Euskaltzainburuak arduradun bana izendatuko dute, arduradunok koordinazio-harremanen gaineko erantzukizuna izan dezaten. Jarraipen Batzordea urtean behin bilduko da gutxienez.

Jarraipen Batzordeak urtero-urtero eranskin egokia idatziko du, eta bertan zehaztuko du bi erakunde horientzat zeintzuk izan daitezkeen ikerketa-proiektu, baterako argitalpen edo bestelako lan interesgarriak, zein izango den aurrekontu-zuzkidura, bai eta proiektu horien gainerako inguruabarrak ere.

9. Hitzarmen honek urte bateko iraupena izango du; baina iraupen bereko eta ondoz ondoko epealdietan luza daiteke, baldin eta erakunde sinatzaileetatik batek ere ez badu berau salatzen, indarreko hitzarmena bukatu baino hiru hilabete lehenago.

Nolanahi ere, hitzarmen honen bidezko informazio, material eta gainerakoen trukaketa egingo da, beti jabetza intelektualaren baldintzak gordez eta merkataritza-ustiaketarik gabe, elkarri trukatutakoa hirugarren bati emateko bi sinatzaileon baimena beharrezkoa delarik.

Bi erakunde horietako idazkari nagusiek onespen-aktak luzatuko dituzte, eta akta horiek hitzarmen honen testuari erantsiko zaizkio.

10. 2009. urte honetan, hitzarmen honen bidez "KOMUNKAZIO BIZIAGOA S.A.L."ek eta Euskaltzaindiak honako hauek burutuko dituzte:

A) LEXIKOAREN BEHATOKIA

Euskaltzaindiak aitortu duenez, UZEI, Elhuyar eta Ixa taldearekin batera LEXIKO BEHATOKIA garatu nahi du. LEXIKO BEHATOKIAn, ARGIA astekariaren testu-masa erabiltzeko aukera izan dezaten, honako kontratua sinatzea erabaki dute bi aldeek, hurrengo baldintzokin:

A.1. "KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L."ek ARGIA astekariaren 2000. urtetik honako testu-masa osoa Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko du, baita kontratu honek indarrean dirauen bitartean sortuko dena ere.

A.2. ARGIAren testu-masa LEXIKO BEHATOKIAn egin behar diren azterlanak egiteko erabiliko du Euskaltzaindiak, ez beste ezertarako.

A.3. Euskaltzaindiak aurreko puntuan aipatutakoaz gaineko erabilerarik egin nahiko balu ARGIAren testu-masarekin, "KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L."en baimena eta onespen idatzia beharko ditu nahitaez.

A.4. "KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L."ek ez dio dirurik kobratuko Euskaltzaindiari ARGIAren testu-masa erabiltzeagatik, kontratu honetan zehazten den erabilerarako den neurrian.

A.5.- ARGIAren testu-masatik abiatuz nolabaiteko ustiapen ekonomikoa egitekotan (izan argitalpen, zerbitzu emate edo bestelako edozein eratako diru-sarrerak sor ditzakeen ekimena), "KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L"en baimena ezinbestekoa izango da. Era berean, "KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L."ek

ustiapen horretan parte hartuko du (bere bidez edo bera ordezkatuko duen beste enpresa edo erakunde baten bidez), non eta ez dion uko egiten aukera horri.

A.6. LEXIKO BEHATOKIA proiektutik erator daitekeen edozein eratako lanak "KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L."en eskura jartzeko konpromisoa hartuko du Euskaltzaindiak, horregatik ARGIAk ordaindu beharrik izan gabe.

A.7. "KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L."ek ere proiektuko partaide izateko aukera izango du, bere momentuan hala erabakiko balu.

A.8. ARGIAk testu-masa Euskaltzaindiaren esku utziko du eta honek ezingo du beste hirugarren baten eskuetan utzi. Euskaltzaindia izango da erantzule testu-masa hirugarren batek erabiliko balu, horretarako "KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L."en baimen zehatza izan gabe.

A.9. "KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L."ek ahal dela HTML formatuan eta bestela bi alderdietako teknikariek adosten duten formatu batean"emango dio ARGIAren testu-masa Euskaltzaindiari. Kontratua sinatu bitartekoa, hau sinatu eta hilabeteko epean, eta hortik aurrerakoa aldeek erabaki ahala.

A.10. Kontratu honek urte bateko iraupena izango du; baina iraupen bereko eta ondoz ondoko epealdietan luza daiteke, baldin eta erakunde sinatzaileetatik batek ere ez badu berau salatzen, indarreko kontratua bukatu baino hiru hilabete lehenago.

A.11. Aldeetako batek kontratua beteko ez balu, beste aldeak kontratua bertan behera uzteko eskubidea izango du. Kasu honetan, eta Euskaltzaindia bada kontratua eteten duena, testu-masa erabiltzeko baimena bertan behera geratuko litzateke eta "KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L."en esku utzi beharko luke ordura arte jasotako testu-masa. Aldiz, kontratua betetzen ez duena "KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L." bada, Euskaltzaindiak eskubidea izango luke beste 5 urtez ordura arte eskuratutako testu-masa erabiltzeko, beti ere kontratu honek zehazten dituen egiteetarako bakarrik.

B) ARGIAren babesletza

Euskaltzaindiak ARGIAko Euskara Sailaren babesletza beteko du 2009. urteko urriaren 4ko, 11ko, 18ko eta 25eko zenbakietan. Babesletza iragarkia (170 x 30 mm-koa) TERMOMETROAn agertuko da. Horren prezioa 745 euro izango da, balio erantsiaren gaineko zerga aparte. Diru hori ordainduko da azken iragarkia argitaratu eta berehala, faktura baten bidez.

C) Euskaltzaindiaren 90. urteurrena

ARGIAk beren-beregi emango du Euskaltzaindiaren 90. urteurrenari buruzko informazioa, batez ere urrian, hil horretan egingo baita Donostian Akademiaren sorrera-ekitaldiaren 90 urte ospatzeko ekitaldia. Modu berezian eta ARGIAren urriaren 4ko zenbakiarekin batera banatuko da, Euskaltzaindiaren kontura direla horien gastuak, Euskaltzaindiaren PLAZABERRI aldizkaritxoaren paperezko lehen zenbakia.

Hitzarmen honen testua irakurri ondoren, eta behean sinatzen dutenak horrekin ados daudenez gero, goian aipatutako toki eta egunean sinatu egiten dute, bikoiztuta, eurek ordezkatzen dituzten erakundeen izenean.

Andres Urrutia Badiola
Euskaltzainburua

Berdaitz Goia Ardanuy jaun
ARGIA

Hil berriak

Euskera. 2009, 54, 3. Bilbo
ISSN 0210-1564

Antonio Zavala Echeverria
Tolosa, 1928-01-23 – Xabier, 2009-01-03

IRIONDO UNANUE, Joxemari

Donostian, 2010eko urtarrilaren 29an

Arratsaldeon.

Nahi nuen, ba, baina urruti samar nago lerro hauek zuen aurrean irakurtzeko. Badakit denbora mugatua daukadala, eta beti luzatzen naizela, batez ere Antonio Zavalaz hitz egitean. Baina laburtzen ahaleginduko naiz, hemen esan ezin dudana gero *EUSKERA*n argitara emango dela pentsatuz.

* * *

Antonio Zavala Echeverria –berari gustatzen zitzaion bezala idatzi nahi izan dut, gurasoengandik horrela ikasi omen zuelako– Tolosan jaio zen, 1928ko urtarrilaren 23an; eta Urteberri arratsean ondoezik sentitu eta berak hain maite zuen Xabierko gazteluan hil zen, 2009ko urtarrilaren 2an.

Hiru egun lehenago, Urtezahar bezperan hitz egin nuen berarekin azkenengoz, eta hiru bider hitz egin ere. Besteak beste, 2009rako eskuartean zituen/genituen amets eta proiektu berriez hitz egin genuen.

Nahiz eta «Ez ba nabil ondo» sarritan esaten zigun, Zavalak eskuak bete lan eta amets edukitzen zuen beti. Gauez lorik egin ezin eta telebisioa ikusi edo, gehienetan, ordenadorea piztu eta lanean hasi ohi zen, ordutegi biologikoa erabat aldatuta baitzeukan. Azkenengo urteetan, gainera, presa handia zeukan bere gauzak argitara emateko, eta oporrik ere ez zuen hartu nahi izan hiru-lau urtean, nahiz eta leher eginda zebilen, nekatuta.

Euskera. 2009, 54, 3. 1801-1840. Bilbo
ISSN 0210-1564

«Lagun zahar asko joan zaigu gure artetik aspaldi honetan: Joxemari Aranalde, Joan Mari Lekuona, Joan San Martin, Alfonso Irigoien…», eta horrela hasten zen askotan, kezkatsu. Eta guk bere sinismena, Aitaren etxea eta holakoak txantxetan aipatu orduko, «Ez, ez daukat presarik oraindik Aitaren etxera joateko!» mozten gintuen, haserre. Medikutan ibili zen askotan, eta *apnea* handia zuela, *cansancio acumulado* zeukala eta hor erabili zuten atzera eta aurrera, baina apenas inoiz asmatu zuten zer zuen. «Urteak, Joxemari, urteak» esaten zigun, eta hortan gelditzen zen, askotan aitzakia hutsa besterik ez zela pentsatzen bagenuen ere.

Egunero hitz egiten genuen telefonoz; eta aldian behin Xabierra joaten gintzaizkion, bisitatu eta elkarrekin egunpasa egitera. Halabeharrez, 2008ko abenduaren 16an bisitatu genuen azkenengo aldiz, Koldo Mitxelenako zuzendari Lopez Landatxe jaunak eta biok, Eguberri jaiak baino lehen berarekin hitz-aspertu bat egin nahita. Sekula baino osasuntsuago eta itxura hobean ikusi genuen, eta halaxe esan genion berari. Baina, «Zer moduz zaude, Antonio?» galdetu orduko, «Badakizu, ba, hortxe, *en la primera linea*…» erantzuten zuen, etsita baina etsi ezinda.

Urtezahar bezperan, Urtezahar eta Urteberri on opatzeko hots egin zidan. Harri eta zur utzi ninduen, ez baitzuen ohiturarik hortarako. Eta hurrengo urterako (2009rako, alegia) lan asko geneukala esanez agurtu genuen elkar: Manuel Olaizola Uztapideren jaiotzeko mendeurrena 2009an, Pedro Mª Otañoren heriotzeko mendeurrena 2010ean, eta abar. Itxaropena argitaletxetik Koldo Mitxelenara laster heltzekotan zegoen Joxe Manuel Arriola *Mondragoiko kalezainaren* liburuaz, eta Euskaltzaindiak eskuartean zerabilen Antonio Arrueren liburua zertan zen ere galdetu zidan. Beti lanerako baitzegoen hura, beti lehiati eta ameslari.

Gure nahiak eta usteak denak ustel gertatu ziren, ordea. Urtarrilaren bigarren goizean bere koinata Izaskunek dei egin zidan, izututa, Antonio Iruñeko San Migel gaixoetxera oso gaizki eraman zutela esanez. «Klinikoki hilda dagoela esan digu medikuak», esan zidan zotin batean. Eguerdian eta arratsaldean dozena erdi bat aldiz hitz egin genuen gero; eta azkenik, arratseko zortzi t'erdiak pasatxo zirela hots egin eta «Antonio hil da!», esan zidan.



Badakigu holakoak berez etortzen direla, horrelaxe dela bizidunon legea, baina lur jota utzi ninduen, hutsunerik ilunenean murgilduta. Zerbait egin nahi eta bere lagunik minenei deika hasi nintzen berehala. Andres Urrutia euskaltzainburu jaunari hots egin nion lehenengo, gero KM-ko Lopez Landatxe jaunari (erdi gaixo harrapatu nuen), Joakin Berasategiri, Pello Esnali (ez nuen etxean harrapatu), Felix Marañari eta Antonioren beste lagun min askori, samin hura norbaitekin erdibanatu beharrez.

Xabierko jesuiten buru den aita Jose Luis Zinkunegirekin ere hitz egin nuen bizpahiru aldiz, hileta noiz eta nola egiteko asmoa zuten jakin nahirik. Eta gure laguntasuna gustura onartuko zukeela esan zidan, hiletak antolatzeko. Eta halaxe, Antoniok maite-maitea zuen Xabierren antolatu zen dena.

Urtarrilaren lau goizean hamar t'erdietarako han ginen Antonioren lagun batzuek; Euskaltzainburua eta euskaltzain batzuk eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak arratsaldez sasoiz heldu ziren. Eta hileta-elizkizuna arrats-aldeko 16:30etan egin zen.

1954ko Erregeen bigarren edo hirugarren egunean Xabierren hasi zuen Auspoa proiektu handiak lehenengo bihotzondokoa hartu zuen 2009ko urtearen hasieran. Eta hantxe, Xabierreko hilerri ospel eta bakarti hartan, Izaskungo Andre Mariaren himnoa kantatuz agurtu genuen, goietako paradisuan betiko argia eta zoriona izan dezan eskatuz, berak horrela sinesten zuen-eta.

Hala ere esan behar dugu Antoniok Xabierren hasi zuen proiektua ez dela bertan behera itota gelditukо, Auspoaren jarraitzaile taldea onartua baitzuen, Gipuzkoako Aldundiaren (KMK) babesean. Manuel Olaizola Uztapideren mendeurrena ere handikiro ospatu genuen Euskaltzaindiak, Gipuzkoako Foru Diputazioak eta Zestoako Udalak elkar hartuta, Endoiakoaren *Leengo egunak gogoan* berrargitaratu (Auspoa 314) eta *Uztapide bat-batean* (Auspoa 313) bertso-antologia liburua+CDª argitara emanez, Antonio Zavalaren gogoari erantzunez, hark utzi zuen hutsunea osabetetzea zaila dela ahazteke. Geroztik, Antzuolako Gurutz Azkarateren *Gerokoak*

jakin dezaten (Auspoa 315), Patxi Iraolaren *Naizen apurra* (Auspoa 316), eta Txomin Garmendiaren *2008ko nere egunkaria* (Auspoa 317) argitara eman dira Auspoan.

A. **Zavalaren bertsozaletasuna**

Askotan esan eta idatzita dago lehen ere, baina berriro gogoratu beharko genukeela uste dugu, gaur bere hil berria ematean.

Tolosa eta Adunaren artean ernamindu zen Antonio Zavalaren bertsozaletasuna. Batez ere, Adunatik zetorkion bat-bateko bertsoen zaletasuna. Tolosan jaio eta hazi bazen ere, gurasoek Adunan zuten Zabale-txiki etxeari (Antoniok berak elkarrizketa batean esan zidanez «Txanpon-etxea» deitzen omen zioten adunarrek etxe horri, zerga batzuk han biltzen zirelako) oso lotuta pasatu zuen haurtzaroa eta gaztaroa, harik eta 1945eko irailean Jesusen Lagundian sartu zen arte. Gero ere, jesuitetan estudiante zela, familiak Adunan pasatzen zuen udako oporraldia gehienetan, eta Antoniok ere bai. Bereziki maitea zuen eta haraxe joaten zen.

Bertso idatzi edo bertsopaperen xarma eta lilura, bertsopaperak biltzeko afizioa eta arreta, Tolosatik zetorkion, elkarrizketa eta idatzietan askotan esan zigunez:

> «Adunan, abuztuko Amabirjiña festetan entzun nituen nik leenengo aldiz bertsolariak bat-batean, erriko zaindari-jaiak orduan egiten ziran-da. Bertsolari aietako bat Asteasuko Bautista Ondartza zala uste det, Pello Errota aundiaren illoba. Eta ondo gogoan daukat ni bertsolariei adi-adi nengoela ikusita, parre egin zuela gure izeba batek, eta «Zer egitek dek or?» esan zidala. Baiña nik han jarraitu nuen bertsoak entzuten.
>
> Andik urte batzuetara amazazpi urteko amezketar gazte bat eraman zuten erriko jaietan, eta poz-pozik entzun nituen gazte aretxen ateraldiak ere. Eta bertso osoa ez baina oraindik ere gogoan daukat bertsoetako bat nola amaitu zuen:
>
> Ni bezelako bertsolaririk
> ez da oraindik azaldu.

> Amezketako gazte ura gero Ameriketara joan omen zala entzun izan nuen, baiña ez nuen izan aren berririk geiago» (elkarrizketa, Donostian).

Auskalo nor eta nolako bertsolaria izango zen gazte hura. Zavalaren Auspoa sailerako moduko bertsoak ere egingo zituen, agian, baina behin betiko galdu zuen haren arrastoa.

Bertsopaperak biltzen hasteko afizioa, berriz, Tolosan. Berea da honako hau ere:

> «Tolosa izan ez balitz, ni ez nintzan bertsoak biltzen asiko. Txikitandik ikusten bainituen nik Tolosan bertso-paper saltzaileak. Eskolapiotatik etxera bazkaltzera nindoala-ta, bat edo beste an izaten zan kantari; baita larunbatetan ere, merkatu-eguna egun orretan izaten zan-da. Bertso-saltzaile auek dira umetatik ikusi eta urteen buruan neri bidea erakutsi zidatenak…».

Orain ez da bertsopaperik saltzen azoketan eta meza ostean. Arrakasta eta harrera oso ona izaten zuten, ordea, orduko pertsopaper-saltzaileek.

Hala ere, han entzun ohi zituen bertso-doinu eta bertsoak baino zerbait gehiago ere bazegoela han pentsatu zuen hamazazpi urteko mutiko hark; eta bere lanari eskuak eransteko gogoa eta adorea handixe sortu hari. Jesuita sartu ondoren, udako oporretan Tolosara joan eta han ikusi zuen bertsopaper-saltzaile bati papera erosi omen zion behin, baina papera galdu omen egin zuen. Ondo gogoan hartu zuen ordea saltzailearen izena: Pello Saikola bertsolaria, hain zuzen; eta haren bertsoekin liburu bat osatu zuten handik urte batzuetara: *Zubeltzu eta Saikola bertsolariak* (Auspoa 93 - 1970).

Lehenengo kartaz hasi omen zen bilketan, ezagun batzuei etxean zeuzkaten bertsopaperak eskatuz. Eta batek baino gehiagok lagundu zion, Antoniok askotan aitortu zuenez. Balendin Enbeitak, adibidez, sorta ederra bidali omen zion bere gutunari erantzunez.

Loiolako urte ederrak

Hamazazpi urte zituela Loiolara joan zen jesuitetan nobiziadoa egitera, beste bi anairen bideari jarraituz. Eta ez zeukan hutsean saltzeko han pasa-

tu zuen denbora. Loiolan pasatu zituen urteak sentimentu berezi batekin goratzen zituen. Izan ere, Urola aldeko auzoetako eskoletara bidaltzen zuten estudiante jendea ostegun arratsaldetan haurrei dotriña erakustera eta hola. Eta Antoniori Urrestillako eskola egokitu zitzaion hain zuzen –gure jaiotetxetik hurbil oso dagoen Garaiko basoko iturri eder hartan ur fresko ederra edan omen zuen hamaika aldiz–. Benetan gustura joaten zela esan ohi zuen, hango neska-mutilek euskaraz ederki egiten zutela ohartuta. Oñatz eta inguruko beste mendi-auzoetara ere sarri joaten ziren, Eta gazteleraz tutik ez zekien baserritar jendearekin asko hitz egiten zuen.

Giro hori ezezaguna izaki tolosar batentzat, gozatu egiten omen zuen:

> «Euskal giro ori arnastu egiten zenuan jendearekin itz egitean –zioen–. Eta artarako sentsibilidadea izan ezkero, zure barrenean bere kutsua uzten zizun orrek. Neri beintzat orixe gertatu zitzaidan Loiolan pasa nituen urteetan… Urduñan (1946-1950) ere berdin gertatu zitzaidan. Opor-egunetan mendira joaten giñan komentua eta kale zuloa utzita, eta topo egiten genuen jendearekin asko itz egiten nuen. An iru probintzitan ibiltzen giñan gaiñera: Bizkaian, Araban eta Burgos aldean... Beno, egia esan, lurralde guzietan aurkitu det nik jende ona eta asko erakusten dizuna Oso experientzia ederrak izan ziran gaztedenborako oiek denak neretzat…» (Elkarrizketa Donostian, 1998an).

Xabierren irakasle/*Maestrillo*

Arestian ere esan dugunez, 1945eko irailaren 14an Jesuitetan sartu, eta Loiolan eta Urduñan egin zituen lehenengo ikasketak.

Handik bost urtera, 1950ean, Burgosko iparraldeko Oñara joan zen filosofia ikasketak egitera. Eta «Nere txolarteetan historia pixkat ikasten asi nintzan, eta ia-ia bide ortan sartu nintzan gaiñera. Ori egin izan banu, bertso zaarrak biltzea beste batentzat geldituko zan, eta orrelaxe obe, bearbada», esan zidan[1]. Ez zegoen batere gustura bere lanak izan duen harreraz, besterik errepikatzen bagenion ere mila bider.

[1] Elkarrizketa Donostian.

Alabaina, historia kontuak utzi eta berean jarraitzea erabaki zuen. Oñan filosofia ikasketak egiten ari zela, Iruñan argitara emandako Pedro Migel Urruzunoren ipuin liburu bat irakurtzeko aukera izan zuen, ikastetxeko liburutegian aurkituta. Ikaragarri gustatu bide zitzaion Elgoibarko apaizaren euskara eta gauzak esateko modua. Garai hartako puritanismoak ez zuen asetzen Antonio, eta Urruzunok euskara herrikoia eta iturri onekoa ematen zuela ohartu zen, garaiko modak kutsatu gabeko euskara. Haren ipuin eta bertsoak, berezko iturritik zetozela iruditu zitzaion.

Garai hartan Pedro Mari Otañoren *Alkar* izeneko liburua aurkitu zuen liburutegian; eta ahoa bete hortz utzi omen zuen hark. Itxura denez, ikaragarri gustatu zizurkildarraren euskara eta kontakera-kantua. Berak hain maitea zuen Adunatik hurbil zegoen Zizurkilgo semea zela jakiteak ere bihotza ukituko zion, agian –Gizon hotza zela usteko du edonork, baina maitasun-sentimentuak ez zituen beti itotzen Antoniok–.

Filosofia ikasketak burutu eta teologia ikasketak hasi artekoan, Xabierra joan zen (1953-1956), jesuitetan ohikoa zen majisteritza *maestrillo* garaia betetzera. Han ere bere harrobia lantzen jarraitu zuen atsedenik gabe. Besteak beste, merkatuan edo eliza-atarian salgai ikusten zituzten pertsopaper denak erosi eta bidaltzeko eskatu zien gurasoei. Baita bidali ere haiek.

Bertsopaper horietako bat, biziki maite zuena. Luis Rezola Arana *Tximela* herritarrak egindakoa zen, Tolosako zaindari Izaskungo Amabirjiña koroatu zutenean.

«Ekarri'ttut, ekarri'ttut!»

Ba omen zen Xabierren ikasten ari ziren mutikoen artean bat beti bertsopaperak edo kanta-papelak gora eta behera aritzen zen hamabi-hamahiru urteko mutiko azkoitiar bat. Eta pittin bat zirikatuz edo, hurrengo oporraldian etxera joaten zenean, kanta-paperak ekartzeko eskatu zion:

> «Ea bueltakoan etxeko kanta-papelak ekarriko zizkidan eskatu nion, begiratu bat emateko. Eta oporrak bukatu ziranean, illundu ta gero, gu antxe geunden zai autobusak noiz etorriko mutiko-karrio.

> Iritsi ziran, eta alako batean, emandako enkarguaz aaztuta nengoen ni baiña «Ekarri'ttut, ekarri'ttut» oiu egin zidan Azkoitiko mutiko orrek autobuseko leiotik…
>
> Orduan ez nintzan konturatu, baiña 1954ko Errege bigarren edo irugarren illuntzean Xabierko gazteluaren oiñetan entzun zan oiu orrek eman zion asiera nere bertso zaar biltzeari benetan» (Elkarrizketa, 1998, Deustu, 1999.11.17).

Azkoitiko mutiko hori, Kukuerriko Larrume Handi baserriko Alejandro Larrañaga zen/da. Berarekin hitz egin nuen lehengo udan, bere kontakizun zuzena eta argitasunak jakin nahita. Besteak beste, hauxe esan zidan:

> Gabonetako oporren ondoren Xabierra joan nitzenean eraman nizkion nik Antoniok esaten zuen kanta-papel hoiek. Baina, bertsopaper-kontu horrekin batera bada hor sekula inork esan ez degun beste histori bat ere. Liburu baten historia, alegia. Antonio Zavalak berak ere ez zuen inoiz aitatzen liburu horren konturik, sufritu egiten zuen-da. Harrapatu egin zioten nonbait, eta negar egiten ere ikusi nuen hori zala-ta…
>
> Liburu horrek historia handia zuen gurean. Gure ama zanak esan ohi zuen, Larrume Handi baserria erre egin zala nik sei hilabete nituela, Santa Ageda bezpera batean. Eta etxeak su hartu zuenean, ni lotan nengon sehaska, liburu hori eta beste bertsopaper guztiak hartu eta lehiotik atarira bota omen gintuztela, erre ez gintezen, jakina.
>
> Ni mutikoa nintzan eta ez nintzan asko konturatzen, baina badakit Cánovas de Castilloren kontuak eta hola aipatzen zituela liburu horrek. Bertso batean esaten zuen «Angelillok eman zion merezi zuena». Ba, histori hori eta Kubako gerraren historiak eta hola kontatzen zituen liburuak. Baina baita beste gauza asko ere. Liburu harekin batera, gure osaba Martin zanak bilduta hemengo gerrari buruz norbaitzuek jarritako beste dozena bat edo dozena ta erdi bertsopaper ere baziran han, Francoren kontra handiak esanez. Zepaik, Loidisaletxek eta hoiek jarritako bertsoak izango ziran.» (Elbarrizketa Azkoitian, 2009.06.04).

Azkoitiko mutiko hark bertsopaper pila eraman ziola, eta «*regla de tres* xinple bat egin nuela esaten zuen Antoniok: Urolaldeko baserri bakar ba-

tean horrelako bertsopaper pila badago, zenbat ote dago Euskal Herri osoan?».

Eta honela osatzen du handik aurrerako bere proiektuaren historia, Zavalak berak esaten zuenez: «Andik denbora asko baiño leen, udako oporraldietan Azpeitiko Loiolatik leenengo eta Donostitik urrena, eta bai eskutitzen bitartez ere, bati eta besteari nere asmoen berri emanez ekin nion bertso zaar biltzeari, gazte izateak duen berotasunarekin» (Txirrita, Auspoa sail urdina, 1992, hitzaurrea).

Gaztetasunak berez duen ausardiaz eta adorez hasi zen jesuita gaztea, jaiegun eta oporretan lan extrak eginez, Euskal Herriko auzo eta baserrietara hurbilduz, astirik zuenero, bati hau galdetu eta besteari hura eskatuz, ordu arte beste inork aintzat hartu ez zituen bertsopaper eta kontakizunak bildu eta jasoz. Baina,

«Garai artan bertsopaper edo «bartolokeri» oiek biltzea parregarria zan askoren iritziz, utsaren urrengoa. Ori zertarako?, esango zizuten. Egia esan, lantegi ontara erdaldunak geiago animatu ninduten euskaldunak baiño. Izan ere, garbizalekeria indarrean zegoen artean, eta bertsopaperetako euskera mordoilloa ez zuten begi onez ikusten askok. Alakoiei erantzuna ematen saiatu nintzan 1956an Arantzazun eman nuen nere leenengo itzaldi artan. Erdaldunak, berriz, aurre-iritzi oker ori ez baitzuten, onelatsu esaten zidaten: «Egin ezazu lan ori, orrek gero ta geiago balioko du-ta».

1956: Arantzazuko hitzaldia

Bakarrik, kritika artean baina etsi gabe ari zen Antonio, oporretan Loiolara edo Donostiara etortzen zenean. Eta haren lanaren oihartzuna zabaltzen hasi zen. Eta hara non eskatzen dion Euskaltzaindiak hitzaldi bat emateko Arantzazun, 1956ko irailaren 15ean. Euskaltzaindiak gerra ostean egin zuen lehenengo batzar irekia zen. Eta bai hitz egin ere gogotik tolosarrak egiten ari zen bidea aztertuz. «Hace ya dos años que no hago sino leer y copiar *bertso berriyas*», esan zuen ((Euskera, 1956). Ordurako bai omen zituen berrogeita hamar mila bertso inguru han-hemen bilduta. Baina lanean

jarraitu zuen buru-bihotz gehiago biltzen. Hitzaldiaren izena, *En busca de la poesia popular a través del Pais Vasco – Bertso berrien billa Euskalerrian zear* (Auspoaren auspoa I: Auspoa, 238). Bere egitasmo eta helburuaren deklarazio zehatz eta argia izan zen lehenengo hitzaldi hura; eta helburu hari jarraitu zion gero urte askoan. Ez zioten aldez aurretik eskatu nonbait hitzaldia euskaraz emateko, eta erdaraz hitz egin zuen –Norbaitek gogor protestatu zuen erdara entzuteko Bilbon gelditzea nahikoa zuela esanez–. Hala ere, esan zuen pentsamendu batek kontsolatzen zuela: «Beti izaten da euskara erdararen menpeko, baina nere bilketa onetan erdara izango da euskararen morroi».

1957ko abenduan eman zuen bigarren hitzaldia, Donostian. Gaia: *Gure erriaren fedea, bertsotan ageri denez. Religio-bertsoak.* Hitzaldi kaskarra prestatu eta lotsa ikaragarria eraman omen zuen Gipuzkoako hiriburuan eman behar zuen –Beno, beti zen lotsati amorratua Antonio Zavala jendearen aurrean. Horrexegatik, «Ni ez naiz plaza-gizona» errepikatzen zuen sarri.

Hirugarren hitzaldia Bilbon eman zuen, 1958ko abenduaren 14an. Gaia: *Bertsolariak eta Europako lenengo gerratea (1914-1918)*. Beraz, hiru hitzaldi, eta proiektu handi eta ireki baten proposamena, gero bere *Auspoa* bilduman erakutsi zuen bezala.

Auspoa bilduma hasi baino lehen beste liburu argitara eman zuen: *Bertsolarien Txapelketa* (Itxaropena, Zarautz, 1961). Euskaltzaindiak antolatu zuen, Donostiako Centro de Atracción y Turismoren laguntasunez, eta Victoria Eugenia antzokian egin zen, 1960ko abenduaren 18an. Txapelketa hartako bertso denak jasota egin zen liburua. Antonio Zavalak idatzi zuen hitzaurrea eta liburuaren aurkezpena, ilusioz beteta, garai berria zetorrelako:

> Orain arteko bertsolarien saioak, zenbat eta ederragoak izan, ainbat eta gauza tristeago bat zekarten beren ondoren: ainbeste bertso eder beti-betiko galdu izana. Bat edo beste erriak buruz artzen zuan; gaiñerakoak momentu bateko loreak izan bear.
>
> Republika denboran, Euskalerri guziko bertsolarien bi txapelketa egin ziran. Aietako batean, gazte mordoxka bat aurretik prestatu zan bertsoak paperera idazteko. Bertsolariak kantatu eta kopiatzailleak lapitza dantzatu... Gaur, berriz, beste konturik dago. Azken txapelke-

ta ontan bost bat magnetofon bazeuden agertokiaren saietsean. Eta saio guzian bertsolariak kantu-lanean eta tresna berri oien aria jira eta bira. Ari orrek eman du liburu au osatzeko bidea; baiña, oraingoan, letra bakar bat ere galdu gabe.

A. **Zavala bertsolaritzan**

Bazuen Antoniok bertsolaritzaren sail horretan nor izateko hainbat meritu eta prestakuntza, asko ikusi, asko ikasi eta aztertzeko aukera izan baitzuen. Garai hartako bertso-jaialdi askotan ikusi genuen Antonio bertsozaleen artean *Auspoa* liburuak saldu –baina bertsolariek baino bertsozaleek gehiago erosten omen zuten– eta bertso-jaialdiak jasotzen magnetofonoz.

60ko hamarraldian Euskaltzaindiak antolatu ohi zituen Bertsolari Txapelketeta guztietan epaimahaiko izan zen, Antonio Arruerekin, Koldo Mitxelenarekin, Joan Mari Lekuonarekin, Emile Larrerekin, Fernando Artola «Bordari» eta abarrekin, Alfontso Irigoien aurkezle eta gai-emaile zela.

Ez zen, ordea, eroso sentitu inoiz epailearen zeregin horretan. Nahiago zuen hark entzule soil izan, edota Auspoa liburu saltzaile eta jaialdi grabatzaile izan, bere artxiboa gizentzeko bertsopaperez eta bertsoz. Bere lagun min Bordarik behin esan omen ziona askotan errepikatu ohi zuen epaimahaiaz hitz egitean:

> **Ark esan zidan bein bertsoa ez zala neurtzen pixura, metroz edo erlojua eskuan artuta. Neurtzekotan ere, beste era batera neurtu bear zala bertsoa; eta neurtzeko zailtasuna ortik zetorkiola. Arrazoi aundia zuela pentsatu izan det beti.**

Zavala Euskaltzain

Bertso-jaialdietan bere magnetofoia jira eta bira jarriz, baserrietara joanez –ikaragarri ibiltari bizkorra eta nekaezina zen–, edozein bide-ertzetan eserita denborapasa aurkitu zuen hainbat aitona-amonari entzunez, zenbat bitxi

eder bildu zuen ordea! Eta «Holako jendeak erakutsi dit neri iñungo liburutan ikasi ez dedana», aitortzen zuen ahoa betean.

Hola zebilela, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen Antonio Zavala, 1961ean; eta handik hiru urtera, 1964ko abenduaren 18an, euskaltzain oso. Horrela eskertu nahi izan zion Akademiak euskararen eta herri literaturaren alde egiten ari zen lan bikaina.

Ez dut ustea, ordea, bilera askotara joango zenik, bere lanetan aspergabea eta bakartia baitzen, eta ez zuen betetzen inongo taldetako diziplinak, bileretan denbora gehiegi galtzen dela uste eta esaten baitzuen.

Euskara batuaren arauen kontuan, berriz, bere ama zenak esaten ziona zeukan gogoan beti: «Bai, bai; zuek nahi dezuten bezelako euskera eskribituko dezute, baiña irakurleak erabakiko du onartu ala bazterrera bota. Alperrik zabiltzate».

1961: Auspoa sailaren hasiera

Urte honetan hasi zen hezurmamitzen Antonio Zavalaren proiektua. 1959ko abuztuaren 11n eman zuen meza berria Tolosan, eta Zavala familiaren etxea Santa Maria parrokiaren ondoan izaki, bertso zahar kantariak entzun omen zituen gauez:

> Gaueko amabiak edo ola ziran –esan zuen–. Nekatuta nengoen, eta etxeko miradoretik kanpora begira jarri nintzan. Eta orduan, alboan dagoen *Zeru Txiki* tabernatik gau-pasazale batzuk kantuan ari zirala ikusi nuen. Zer kantatuko eta Ramon Artola tolosar bertso-jartzaille oparoaren bertso batzuk: *Bedeinkatua izan dedilla/ sagardoaren graziya…* Andik bi urtera R. Artolaren bertso-sail orrekin eman nion asiera Auspoa sailari, leenengo liburu orri *Sagardoaren graziya* izenburua jarrita (Auspoa 1, 1961).

1960ko urte inguruan ezagutu zuen Igeldoko Balentin Zamora apaiza; eta bertsoren batzuk ere eman omen zizkion, baina, batez ere, bildumari izena jarri eta lanari aurrera eragiten lagundu zion. «Batez ere, Euskal-Erria euskera errezean idatzitako liburuen premian zala oartu giñan», esaten du garai

hura gogoratzean. Eta bere sailarentzat harpidedunak egitera abiatu zen buruz-bihotz, atez ate.

Honek zer esan nahi duen? Ba, Lan guztia berak egin behar izan zuela: bertsoak edo kontakizunak bildu, ahal zuen moduan txukundu, makinaz idatzi –bere ordenadorea eskuratu zuen arte makinaz, jakina; eta horretan goiztiarra izan zen Zavala–, liburuari forma eman eta gero harpidedunei bidali, aldi batean paketeak egin eta banaketan lagundu bazion ere bere arreba Arantzak. (1-194, bere kasa osatu zituen; 195–206, Zavala-Etor; 207-283, Zavala-Sendoa; 294–317, Zavala-Gipuzkoako Diputazioaren artean).

Handik aurrera, inork nekez pentsa zezakeen meta ederra osatu zuen bere sailean. Dagoenekoz, 317 liburuk osatzen dute *Auspoa txikia* saila (1961-2010); 6 liburuk, *Auspoa berdea* saila (1974-1976); 12 liburu handik, *Auspoa sail nagusia* saila (1993-2002). Eta horiez gainera, Lazkao Txikiren *Irriz eta Malkoz I* eta *Irriz eta Malkoz II*; *Karlisten Bigarren gerrateko bertsoak;* eta *Euskal Erromantzeak – Romancero Vasco* liburu mardulak nola ahaztu?

Laguntzaile onak

Xabierren maestrillo izan zen garaian, Loiolan eta Donostian pasatzen zituen Eguberri jaiak eta udako oporraldiak, lehenago esan bezala. Eta bertsopaper eta paper zahar asko bildu zuen garai hartan.

Baina, batez ere, argi eta garbi ikusi zuen material asko zegoela Euskal Herriko baserri eta kaletxeetan, gerra etorri zenean jendeak paper asko erre bazuen ere beldurrez.

Behin Joxe Artetxe azpeitiarrarekin hitz egin omen zuen, halabeharrez; eta hark egunkarian argitara emandako idazlan bati esker, pilaka etorri zitzaizkion bertsopaperak. Gregorio de Mujika zenaren alargunak bidalitako sortaz gainera, Donostian, Errenterian, Azkoitian, Oiartzunen, Orion eta abar, asko bildu zuen. Tolosako Manuel Urreta zenak emandako sorta ez zeukan ahazteko Antoniok. Karlista handia eta euskaltzale handiagoa izaki, bertsopaper zaharrak ondo gordeta zeuzkan hark nonbait, eta bere herritar

gazteari eman zizkion, lanean nola ari zen ikusita. Don Manuel Lekuonaren laguntasuna eta animoak, edota Manterola eta beste askoren laguntza ere izan zuen esperantzaz beteta hasi zuen lantegian. Berak uste baino ere gordailu hobea aurkitu zuela esan ohi zuen lehenengo urte haietan.

Ez zuen beti suerte ona izan, ordea. Bertso bila joan, atea jo eta, «Ai, etxez aldatu ginen eta paper zaharrak erre egin genituen, ba» –esan zioten. Hain maitea zuen Pedro Migel Urruzunorekin holako zerbait gertatu omen zitzaion, Mendaroko Agustinetara joan eta zera erantzun baitzioten mojek: «Mire usted lo que pasó, padre. Que nada más morir don Pedro Miguel, enfermó de pecho una Hermana y, como comentaron que se trataba de tuberculosis y se le tenía tanto miedo por el contagio, le sacamos de la comunidad y la metimos en el cuarto que había sido del capellán. Y después que murió ésta, quemamos todo lo que había en el cuarto.

Hala ere, beste bertsopaper-iturri asko izango dela begiratzeke pentsatzen zuen; eta zerbaitegatik esango zuela pentsatu izan dugu, intuizio eta sen ikaragarrikoa baitzen. Baina nork begiratu eta aztertuko du baso ezezagun hori orain? «Gero izango dira dirua eta laguntasunak olako lanak egiteko», esaten zuen. Hola balitz ere gaitzerdi.

… eta kontrarioak

Normala ere bada gure Euskal Herri bedeinkatu honetan aldekoak eta kontrakoak izan zituen –bestela ez ginake gu izango–. Ez zen, noski, denek estimatzen zuten lanbidean ibili. Askotan aitortu zigunez, jende askoren iritziz, pellokeria hutsak ziren holakoak, barregarrikeriak. Ez zuten ikasien «mailarik» ematen. Gainera, bertsopaperetako euskarak ez zuen balio handirik, euskara mordoiloa baitzen. Komentuan bertatik hasita kritika gogorrak egin zizkioten.

Lehen ere inoiz aipatu ditugun bitxienak bakarrik aipatzeko, bere konpainiako aita Aranzadik, adibidez, zera esan omen zion lehenengo Auspoa eskuartean ikusi zuenean: «Urtetan or jardun gera kurpitotik gogor eskusoiñuari *inpernuko auspoa* esanez, eta zuk orain liburu-sorta bati *Auspoa* izena jarri?

Beste apaiz ezagun batek, berriz, honela idatzi omen zion liburua jaso zuenean: «Nola-alako liburu oiek etorkizunik ez dute. Auspoa ilda jaio da».

Lasarteko baserritar batek, Sasuetako Mikel Zuaznabar zenak, zera idatzi zion: «Zure liburuarekin batera txakurkume bat ekarri genuen gurean. Ala, *Auspoa* jarri genion berari ere izena. Baiña, zer da-ta, andik egun gutxira ilda aurkitu genuen. Beraz, zure liburu-sorta orrek ere denbora gutxian iraungo du». Baina haren iritzia ez zan egizkoa izan, eta Auspoaren harpidedun izan zen hil arte, Antoniok Deustuko hitzaldi hartan esan zuenez.

Bere lagundiko aita Juan Goikoetxeak, Goikoetxea txikiak, «Segi bide orretan gogotik Antonio, eta egin ezazu lan ori, bestela inork ez du egingota. Gainera, biltzen dezun material orrek gero eta geiago balioko du», esan omen zion.

«Euskaldunak eta bertsozaleak baiño geiago animatu ninduten erdaldunak» esan ohi zuen Antoniok, penatxo zuela. Azkenengo urteetan bazituen, gainera, bere duda-muda eta penatxoak, bere Auspoa sailean egindako lanak izan duen arrakasta urria dela irudituta. Uste dugu bazuela horretarako hainbat arrazoi. Auspoak ez baitu izan Euskal Herriko erakunde eta komunikabideetan zantzu handirik; eta *euskal idazleen* izendegi santua bere ondaretzat duen jaun ahaltsu askok ez dio «idazle» izenik ere opa nahi izan Antoniori.

Idazle eta askoz gehiago ere bazelako izango al da… Bakarrik ibili zen, eta «Obe bakarrik ibili naizen, bestela ez nuen askatasunik izango-ta lanerako» eransten zuen, diximulatu ezineko minez.

Auspoa eta prosa

Auspoa argitaratzen hasi zen garaian, prosak baino harrera hobea zuten bertsoek eta bertsopaperek. Ez zituen, ordea, bertsopaperak edo bertsoak bakarrik jaso eta argitara eman. Prosan egindako paperak eta lanak ere bildu zituen Auspoarako. Eta maisu zorrotza eta zuzena izaki, metodo ezberdinak erabili zituen jendea lanean jartzeko. Batez ere, pazientzia ikaragarria erabili zuen lanerako beti, kasu bakoitzean behar zen denbora guztia hartuta.

Prosan egindako lehenengo liburuetako bat Txirritaren lehenengoa izango zen, Txirrita handiaren ilobak kontatu eta Antoniok berak idatzia. Gero, nola idatzi behar zen ikasi zuenean Erauskinek, beste liburu bat egin zezala eskatu zion, garai bateko baserriko ohiturak eta kontu zaharrak kontatuz. Halaxe egin zuen *Aien garaia* (Joxe R. Erauskin. Auspoa berdea).

Sebastian Salaberriaren *Neronek tirako nizkin* (Auspoa 38) ere kuttuna zuen, eta saritua gainera. *Pello Errotaren bizitza* (Auspoa, 32) Asteasuko bertsolari zenaren alaba Mikaela Elizegik eta Zavalak elkarlanean egin zuten, batek kontatu eta besteak idatzi. Gero, berriz, hitz lauzko bide horri bultzada handia emango zion Uztapideren *Lengo egunak gogoan* (2009ko maiatzean berrargitaratua, Auspoa 314, lehen esan bezala). Eta inoiz letra bat idatzi ez zuen jende asko animatu omen zuen Uztapideren liburu bikoitz horrek, eta Antonio Zavala pozik.

Uztapiderenak egiten ari zen garaian, bazituen beste proiektuak ere. Esate baterako, Iñaki Alkainek berak idatzi zituen gauza batzuk, eta besteak, hark esan eta Antoniok makinaz idatziz, edo, hark patxadaz kontatu eta Zavalak megnetofoiz hartu eta gero transkribatuz egin zituzten.

Juan Joxe Irazustaren *Nork bere bidea* (Auspoa 143, 144 eta 145, 1980an argitara eman eta *Premio de la Crítica* merezi izan zuena) etorri ziren. Patagoniako lurraldeetan kokatutako eleberria da. Liburuotan ere eskuhartze handia izan zuen Antoniok, pertsonaiak nola banatu eta tratatu erakutsiz Irazustari, hark ez zuen-eta horretan esperientziarik.

Atañorekin izan zuen esperientzia oso bitxia izan zen. Askotan kontatu zuenez, ez omen zuen haren berririk, baina bere aita eta osaba Joxe eta Juan Kruz Zapirain bertsolari edo bertso-jartzaile ezagunak ziren; eta bien bertsoak publikatu nahirik zebilen Antonio, hasieran biografia txiki bat idatzita. Halaxe, Errenteriako Bordaxar baserrira joan omen zen behin baten, eta berak nahi zuen adinaxe argitasun eman zioten han. «Gure aita zenaren bizitzaz idatzi nahi badezu, gure anaia fraileak eskribituta dauka», esan zioten.

Amutera (Hondarribia) joan eta galdezka hasi, eta fraile txiki bat aurkitu omen zuen kaputxinoetan. Hark, ordea, aita Damaso Inzarengana bidali zuen Iruñara, Han eskatu eta berehala ekarri omen zioten Salbador Zapirainen esku-izkribua.

Hartan ere etsi ezin, ba, eta Ataño bisitatzera joan zen berriro Amutera; eta ikaragarri lan polita zela eta eskribitzen jarraitzeko eskatu zion.

Handik aurrera, hamazazpi Auspoa liburu osatu zituen Atañorekin: *Txantxagorri kantaria* (Auspoa 137-138), *Txori* (Auspoa 147), *Espetxeko negarra* (Auspoa 179), *Zigorpean* (Auspoa 181), *Eltzaorra* (Auspoa 189), *Odolkutsua* (Auspoa 192), *Maitasun-lanak* (Auspoa 193), *Etorkizuna* (Auspoa 196), *Maite itzazute etsaiak* (Auspoa 201), *Aztia usnari* (Auspoa 207), *Azkeneko saskigilea* (Auspoa 215), *Nora goaz?* (Auspoa 219), *Lotsaren iges* (Auspoa 224), *Askatasun billa* (Auspoa 234), *Ondaretzat gorrotoa* (Auspoa 267), *Markesgaiak. Dirua jainko* (Auspoa 280), eta *Berezko iltzailea. Ovni* (Auspoa 304). Eta oraindik ere agortzeke dago Ataño zenaren harrobi osoa.

Horrela jokatzen zuen Zavalak jendea animatuz, Joxe Azpiroz, Txomin Garmendia, Joxe Mari Lertxundi, Bixente Barandiaran, Jesus Lete *Ibai-ertz* eta beste askorekin egin zuen bezala. Animatu ez ezik nola idatzi behar zuten erakusten zien, gainera.

Indiara misiolari joatekotan ibili omen zela esan ohi zuen, baina hemengo «indioen» artean misio-lan ederra egin zuela esango nuke, sekula letra bat idatzi ez zuen jendea idazle eginez. Ez zaio inoiz eskertu Antoniori urteetan egin zuen lan pedagogiko harrigarri hori. Pentsa dezagun, ordea, inoiz ez dela berandu, nahi denean behintzat.

Oiñez eta jakin-miñez

Bere alderdi txarra ere bazuen guzti horrek, lehenaz gainera lana erruz ugaltzen baitzion Antoniori hola saiatzeak. Jendearekin hitz egin, gaiak zehaztu, haria nondik nora eraman erakutsi, nola idatzi eta banatu esan idazle berriari… Eta gero, idazlanak jasotzean, orduak eta orduak egin behar izaten zituen eskuidatzi horiek denak zuzendu, ordenagailuz idatzi eta sailkatzen, nola-halako letrak zuzen irakurriz. Puntuazioa, kapitulazioa… berak egiten zituen denak, gehienetan. «Nik debaldeko sekretariotza eskeintzen diet idazleei. Ala ere, bada ori dana naikoa ez dala irizten dionik», esaten zuen.

Azkenengo urteetako liburuetan prosaren prosaz urritzen ari zen bertso-liburuen sailari bultzada bat eman nahi izan zion, prosa-liburuen martxa pittin bat mantxotuz, bere artxiboan jaso eta sailkatuta zeukan material asko argitara emateko.

Kontuak gainazaletik aterata, garbi ikus daiteke Auspoa saileko hirurehun eta gehiago liburutan izan zuela bere aitatasun zuzena Antoniok. Areago, Auspoak argitara eman dituen liburuetatik, ehun edo gehiago liburuaren egile zuzena izan ez ezik gainerako guztien biltzaile, eragile, kopiatzaile eta editore izan zela.

Bosquejo de la historia del bertsolarismo (Auñamendi, 1964) argitaratu zuenetik, ehunka artikulu, hitzaurre eta komentario idatzi zuen. Berak zuzenean bildu, idatzi eta egunkarietan (*El Diario Vasco* egunkarian gehienik) argitara emandako *Oiñez eta jakin-miñez* sailean atera zituenak. Auspoa 249, 1997; Auspoa 263, 1999; eta Auspoa 299, 2006 liburuetan jasota daude asko. Beste azterketa, hitzaldi, hitzaurre eta artikuluak, berriz, *Auspoaren auspoa* sailean argitara eman zituen, eta hortxe aurkituko ditu nahi duen irakurleak (Auspoa 239, 1996; Auspoa 239, 1996; Auspoa 262, 1999; eta Auspoa 300, 2006 –liburuetan).

Lan bikaina

Liburu hauek argitaratu zirenean idatzitako aipamen batzuk gogoratu nahi nituzke, laburki.

> «Jakiteko irrikaz eta apal. Maitasun-begiz eta oso eskuzabal, gertaera eta gizon-emakumeengana xeratsu hurbilduz, gertaera bakoitza egoki irakurriz: historia, historia bezala; eta kondaira, kondaira bezala, baina azalean geratu gabe… (Pello Esnal)».

Oiñez eta jakin-miñez liburu horiei buruzko beste bi aipamen gogoratu nahiko nituzke. Lehenengoaren hitz-aurrean, honela irakur daiteke:

> «Zenbat millaka orrialde makinaz edo ordenadorez para dituan iñork jakin gabe! Zenbat ordu, zenbat gau eta egun orretan emanak! Orrelako sekretario eta langille merkerik ez da izan Euskalerrian oraindaiño (Joakin Berasategi. Sendoakoa eta Zavalaren lagun mina)».

Bigarrenaren atarian:

> «Kostako da aurkitzen Zavalaren hau baino liburu informatzaile hoberik. Lehen esan dizut dozenaka liburu erosten dituzula gure tolosarraren *Oiñez eta jakin-miñez* hau erostean. Ez da gehiegikeria bat esatea. Jakintsu baten urteetako ibilien eta azterketen fruitua duzu eskuetan duzun liburua, neke askoren fruitua, eta zuk eroso asko balia dezazukeena. Ez daukagu guk suerte makala Antonio Zavala bezalako gizonekin. Ez dakit noiz eskertuko dugun gizona (Joxe Mari Aranalde)».

Antoniori ez zitzaizkion gustatzen honelako aipamenik, baina nori berea. Horiek ez dira, gainera, losintxa merkeak, baizik haren lana pittin bat ezagutzen zutenen aitorpenak.

Biblioteca de Narrativa Popular

Ibiltari nekaezina eta mendizale porrokatua zela Antonio esan dugu arestian. Baina ondo hezia zen, bidez bide zebilenean belarria erne eta begiak argi erabiltzen zituena. Galdetzaile zuzena, gainera, erantzun bat eman ziezaiokeen norbait aurrean harrapatzen zuenean. Artzain edo baserriko jendearekin hitz-aspertu ederrak egiten ahalegintzen zen, jende horrek zer esan asko izan eta asko erakusten duelako, bere iritziz.

Garai batean baztertuta-edo utzi zituen beste bilketak egiten saiatu zen gero ere. Aspaldi egindako elkarrizketa batean luze eta zabal kontatu zigunez, etxetik irten eta mendi buelta bat egitea erabaki omen zuen behin, bere liburuen zuzenketak egiten ari zenean askotan egiten zuen bezala. Eta kasualidade ikaragarria gertatu zitzaion. Bilintxen liburuaren probak (Auspoaren Sail nagusia 9, 1984) zuzentzen ari zen, neka-neka eginda egon nonbait, eta han Caseda aldera abiatu zen, arratsaldepasa, Bardeetako bidean dagoen San Zoiloren ermita gotiko dotorea ikusi, argazki batzuk egin eta idazlan bat prestatzeko asmoz, bere *Oñez eta jakin-miñez* sailerako, jakina –Ermita hortantxe pasatzen omen zuten gaua Erronkariko mendietatik Aragoiko erriberetara artaldearekin zihoazten artzainek–. Eta, ustekabean, tapa!, bide-ertzean aitona bat ikusi omen zuen enbor zahar baten gainean eserita. Eta, beti bezala, galdezka hasi zitzaion. Eta:

«¡Oh, San Zoilo! Allá íbamos nosotros cuando éramos jovenes...» –eta kontu-kontari hasi omen zitzaion aitona hori. Antoniok zer egingo, eta «Honekin zerbait egin beharko nuke ba!» bere buruari.

Handixe sortu ziren gero *Las tardes de la Bardena* hiru liburu bikain (Humbelino Ayape-Antonio Zavala).

Sail honetan *La última trova* liburua atera zuen lehenengo, *Biblioteca de Narrativa Popular* sail berria irekiz. Comillasen zegoela, an inguruko herri batera joan omen zen goiz batez, eta monumentu txiki bat aurkitu bidean, «A Indalecio Zaballa *Masio*, trovador mayor de Cantabria» zioena. Harrigarria benetan: Zaballa abizena eta bertso-jartzailea, «trovador mayor». Bera, berriz, Zavala eta bertso biltzailea.

Bistan da, beti gauza bera zuela hark buruan: Ahozkotasuna.

Haiek kontatu eta Antoniok grabatu edo idatzi, horrelaxe osatu zituen *Biblioteca de Narrativa Popular* sailean argitara emanda dauden hogeita bederatzi liburu, zein baino zein ederrago. Humbelino Ayape, Indalecio Zaballa *Masio,* Hilario Jarne, Justo Peña, Juan Rugarcia, Juan Balbin, Daniel Cuesta, Felix Lumbreras, Alfredo Caldevilla, Bonifacio Garcia, Francisco Argandoña, Antonio Rodriguez, Casquero anaiak, Encarnación Molina, Juan Pablo Jimenez eta Modesto Celadaren kontakizunak bildu zituen. Hobeki esateko, kontalari bakoitzarekin, Antoniok elkarlanean egindako liburuak dira horiek denak, bestela inoiz argitaratuko ez ziren lekukotasun eta istorio ederrak. Hortxe daude orain edonoren eskura, ehunka ordutako lanaren emaitza.

Hala ere, zalantza eta kezka handiak izan zituen gaztelerazko sail horri eskuak eransteko garaian. Beldurra edo lotsa ematen zion nonbait euskara ez zen beste hizkuntza batean liburuak egiten hasteak.

Aurrera egin zuen, ordea, izan ere, «Batek, kontakizun oietako batzuk kontatzean, onela esan zidan: «Liburu eder bat egiteko badezu or gaia» (Uztapidek esan zion hori). Eta beste batek, Aragoi aldeko kontakizunak nere ahotik entzutean: «Jendeak nai duena esan dezala. Ori leengo lan bera da, bi izkuntzatan egiña izatea (Berrondo apaizak)» (Elkarrizketa 1997).

Goraipamen eta sariak

Antonio Zavala bakartia eta izua zela esan dugu. Baina aspergabea zen, lehiatia, amestia. Hura pittin bat ezagutu zuen edonork badakienez, berriz, ez zen sari eta omenaldien zalea. «Oso gaizki pasatzen det nik olakoetan», esan ohi zuen.

Hala ere, onartu zituen inoiz holako goraipen eta sariak. Liburuen sailean, besteak beste, honakuok saritu zizkioten, oker ez banago: *Neronek tirako nizkin* (Auspoa 38, 1964) Sebastian Salaberriak eta Antoniok elkarlanean idatzia.

Biblioteca de Narrativa Popular sailean, berriz, *En la ribera de Cares* (BNP 11, Juan Rugarcia-Antonio Zavala) liburuari «Premio Asturias 1996» eman zioten; eta *En la montaña de León* liburuari (Daniel Cuesta–A.Zavala) «Premio al mejor libro Leonés de 1996», Leongo Diputazioak)».

Horiez gainera, Durangoko Gerediaga elkarteak urteoroz antolatzen duen Euskal Liburu eta Disko Azokan *Argizaiola* eman zioten, 1996ko abenduan. 1999an, berriz, erakusketa bibliografikoa antolatu zuten azokan horretan, bere omenez. Antoniok asko estimatzen zuen Derioko Labayru ikastegiak, berriz, *Gatzontzia* saria eman zion, 1997ko uztailaren 11n.

Honoris Causa doktore

Deustuko Unibertsitateak Honoris Causa doktore izendatu zuen, 1999ko azaroaren 17an, Gotzon Garate jesuita eta Filosofia eta Letretako Fakultateko Euskal Filologiako lagun batzuen eskariz. Herri-literaturari buruzko jardunaldiak eta urte askoan Auspoa saileko liburuak argitara eman zituen Sendoa argitaletxeko bere lagunek «Zavalari eta Auspoari» buruzko erakusketa antolatu zuten.

Izendapen egun hartako goralpen-hitzaldia edo Laudatioa entzutean, Antoniok berak hitz egin zuen, urduri baino urduriago, urte askoan egindako bere lanaren aitorpena onartu zuela esanez: «Biltzaile izan naiz, eta billatzaile, bereziki… Aldi ontan, nereari ez ezik beste askoren buruari

ere eransten diozute txapela gaur» aitortu zuen, sari hura bere lanean lagundu zioten guztiei ematen ziotela esanez, beretzat gehiegi balitz bezala. Beretzat ez baina herriarentzat gauza handia egin zutela aitortu zien ohore hori egin ziotenei: «Baña neretzat bakarrik ez da. Gure erriarentzat gauza aundia dala derizkiot. Gure erriaren izkerak eta literaturak oso gutxitan artu dute gaurkoa aiñako goralpenik eta onespenik. Egia esan, iñoiz eman zaien oorerik aundiena une onetan eskeintzen zaie», aitortu zuen.

Herriko seme kuttun

Bere jaioterriak, berriz, *Herriko seme kuttun* izendatu zuen, 2000ko urrian.

Herriaren omenaldi hura zela-ta ekintza bereziak antolatu zituzten Tolosan. Besteak beste, «Auspoaren Auspoa» erakusketa egin zen Antonio Maria Labaien kulturetxean, urriaren 3tik 15era. Eta *Herriko seme kuttun* izendatzea herriko etxeko areto nagusian egin zen, urriaren zazpi eguerdian. Izendapen aurreko egunetan –eta egunean bertan ere– beti gauza bera errepikatzen zuen: «Ia leenbaitleen pasatzen dan au ere. Gaiñera, Tolosan badago nik baiño merezimentu geiago duen jendea».

Urriaren 7an bertsolari-jaialdia izan zen Leidor Zineman, Laskorain Kulturalak antolatuta, bertsolariek eta bertsozaleek beti zor izango dioten esker onaren lekuko –Ez dakit hori nahikoa den–.

Lan estimagarria bezain estimagaitza egin zuen Antoniok bertsopaper eta ahozkotasunaren alde. Eta lan hori honela laburbildu zuen Joan Mari Lekuona zenak izendapena egin zutenean:

> Aspaldi igarri zuten Antonio Zavalaren obraren gailurra bertsolaritzaren corpusari forma ematea zela. Baina, nire ustez, bertsolaritzak ez du Zavalaren lanaren esparrua agortzen, eta corpusa ez da egin digun aportaziorik handiena. Utzi digun bertsolaritza-bilduma ikaragarria den arren, eta hau beste ezeren aurretik aitortu behar diogu, ez dugu ahaztu erromantzeen bilduma eta oraindik orain argitaratu gabe zeuden esaerekin atera duena. Eta ez dute gutxiago merezi bere zuzendaritzapean sortu eta garatu diren prosa-

liburuak, gure artean beste inon ez herri literaturaren modalitate berri dutenak.

Aita Zavala ikertzailea eta aldi berean gure herri-literaturaren argitaratzaile eta maisua izan da. Herri-literatura berriro eraiki du, ahozkotik datorren memoriaz baliatuz, gu bizi ahal izateko moduko tradizioaren etxetik datorrenaz.

Artxiboa Gipuzkoako Foru Aldundira

Aspalditxo hasi zituzten harreman eta elkarrizketak Gipuzkoako Foru Diputazioak eta Antonio Zavalak; baina beti gerokotan uzten zen erabaki zehatza hartzea. Alabaina, 2005eko otsailaren 2an, Pello Esnalek eta biok (Joxemari Iriondok) garrantzia handiko bilera egin zuten/genuen Antonio-rekin, Xabierren. Eta hantxe hitzeman zuen bere artxiboa Gipuzkoako Foru Aldundiari utziko ziola, bildumaren ehundik larogei (%80) Gipuzkoan jaso zuela-ta, gutxienez.

Halaxe, urteetan bildu zuen bertsopaper, eskuizkribu, liburu bitxi, grabazio, argazki eta negatibo, dena Gipuzkoarako utzi zuen, Euskal Herri osoaren eskura jar dezaten lehenbailehen. Garai hartan Gipuzkoako Ahaldun Nagusi zen Jose Juan Gonzalez de Txabarri jaunak, Jesuiten Lagundian Loiolako buru zen Joan Migel Arregik eta Antonio Zavalak berak sinatu zuten protokoloa, 2005eko azaroaren 11n, Diputazioko Tronu Aretoan.

Bestalde, han bildu ziren beren bertsoak eta prosa-lanak Auspoa sailean argitara eman dituzten Manuel Lasarte, Joxemari Lertxundi, Nikolas Zendoia, Jon Azpillaga eta abar; baita Imanol Lazkano bertsolari eta bertsozale elkarteko presidente ohia ere. Halaber, hantxe ziren Andres Urrutia Euskaltzainburu jauna, Euskaltzaindiko idazkari Xabier Kintana jauna, Jose Luis Lizundia, eta Antonio Zavalaren lagun eta laguntzaile Pello Esnal, Joakin Berasategi, Joxemari Iriondo eta abar ere.

Eta eskuartean zituen bitxirik ederrenak erakutsi nahita, Uztapide, Xalbador, eta Atañoren zenbait eskuizkribu erakutsi zion jendeari bilera hartan. Baina bere sententzia zorrotza erantsita, ordea: «Nik berdin-berdin jarraituko det lanean berriz ere».

Auspoaren jarraipena

Ez zuen askotan aipatuko, baina urteetan aurrera eta bere Auspoa sailaren geroak kezkatzen zuen Antonio, bai. Nonbaiten irakurri izan dugu «bere artxiboaren geroaz ez zuela hitz egin nahi». Hori ez da egia. Bere artxiboaren geroak kezkatzen zuen. Horrek baino gehiago Auspoak eta ahozkotasunaren jarraipenak/etorkizunak kezkatzen zuen; baina baita Auspoa sailak eta bere artxiboak ere. Haatik, 2007ko martxoaren 5ean Koldo Mitxelena Kulturunean egindako bilera batean, Auspoa proiektuari jarraipena emateko laguntzaileen izenak onartu zituen[2].

Ordura arte bere bakartasunean egosten zuen heltze handia bere lagunekin konpartitu nahi izan zuen, bere buruari lasaitu ederra emanez, seguruenik. Ez zitzaion mikroa aurrean jarri eta bat-batean elkarrizketan hastea gustatzen, baina bilera haren ostean, grabazio luzea egin genuen, hantxe bertan. Bere familiaz, eskolan eta umetan Adunan igarotako oporraldiez, jesuita joatea erabaki zuenekoaz, 1954ko Erregeen bigarren edo hirugarrengoz Azkoitiko Kukuerriko mutiko hark –Alejandro Larrañagak– eraman zizkion bertsopaperez, Auspoa bilduma nola hasi zuen eta etorkizuna nola ikusten zuen… Hamaika kontu esan zigun, behin eta berriz errepikatuz hizketarako ez zela egokia bera, eta idaztea nahiago izaten zuela aitortuz.

Sufrimentuak berebaitan ehio eta itotzeko ohitura handia zuen. Izan ere, «Ixilik egoten denak behin, eta berritsuak bi aldiz erratzen du» uste zuen. Hori zen bere izateko modua eta estiloa, eta hortik nekez aterako zenuen.

Antonioren paperak Donostiara

2008ko urriaren 30ean, Xalbador, Uztapide, Ataño, Txomin Garmendia eta beste zenbaiten eskuizkribuak bidali zituen Koldo Mitxelenara, lehenen-

---

[2] Auspoa taldearen eraketa 2007ko martxoaren 5eko bileran egin zen. Antonio Zavalarekin, Pello Esnal, zu zeu eta neu egon ginen. Bilera hartan 2007ko Auspoaren libururen zerrenda onartu zen eta Antoniok, Auspoaren lan taldeko partaideen aipamen zehatza egin zuen: Joxemari Iriondo, Pello Esnal eta Jabier Kaltzakorta aipatu zituen, Auspoaren «izpiritua» eta lanen arduradun. (F.Lopez Landatxek 2009ko urriaren 7an bidalitako e-maila).

go. Eta gero, azaroaren 10ean eta 11n, dozena pare bat kaxa bete genituen berak aukeratu eta emandako paperez eta liburuz. Eta azkenik, 2009ko urtarrilaren 13an eta 14an, Antonio Zavala hil eta laster ekarri zen Xabierren zegoen material guztia Donostiara, Antonio Zavalarekin egindako tratuaren arabera egungo baliabide teknikoetara dena egokitu –sailkatu, digitalizatu eta ordenatu, alegia– eta nahi dutenen eskura material guzti hori jarri ahal izateko. Erabilera zuzen eta jatorra egiteko izan dadila, jatorriak/iturriak eta behar diren beste aipamenak zintzo eginez, orain arte bestela jokatu izan badu ere askok. Nori berea, hori da gizalegea.

Heriotza mingarria

Lehenago esan bezala, Urtezahar bezperan hitz egin genuen azkenengoz elkarrekin, aurreko sei-zazpi urtean egunero egin genuen bezalaxe. Hiru bider hitz egin ere. Lehenengoan, Urtezahar eta Urteberri on opatzeko hots egin zidan. Bigarrenean, bere telefono zelularra konpondu ziotela esateko; eta hirugarrenean neuk hots egin nion, telefonoa ondo konpondu ote zioten jakin nahita.

Gero, 2009 honetarako genituen lanez hitz egin genuen: Itxaropena argitaletxetik laster irten behar zuen Joxe Manuel Arriola *Mondragoiko kalezainaren* liburua (Auspoa 312) zertan zen, Euskaltzaindiak berehala ateratzekotan zuen Antonio Arrueren liburuaren berririk bai al nuen eta abar galdetu zidan… Uztapideren mendeurrena ere bazetorrela eta *Lengo egunak gogoan* zergatik ez genuen berrargitaratzen, gehiena pikatuta zeukala-ta, esan zidan, nahiz eta garaiz adierazi nion eskaneatu eta OCR-atuta zegoela, eta ez hartzeko beste lanik. Izatekotan ere hitzaurrea presta zezala edizio berriarentzat, eta Zestoarako hitzaldi bat prestatu nahi bazuen, harik eta hobe. 2010ean Pedro Mª Otañoren heriotzeko mendeurrena zetorrela, eta serio hitz egin behar genuela hortaz, Urnietako Albizu anaien (jaiotzez garindarrak) liburua erdi prestatuta zeukala, Txomin Garmendiaren **Egunkariaz** arduratzeko, eta hola aritu ginen.

Amets eta amets, inoiz ez zen atertzen hura. Xabierreko ostatuko familiarekin argazkiak egin genituen, eta egunen batean inguruko *Jotak* bildu beharko zituzkeela eskatu zion hango nagusiari, grabagailua utziko ziola-ta.

Zenbat amets, zenbat ilusio! Baina gure asmoak eta ametsak denak hankaz gora joan ziren urtarrilaren bigarrengo goiz hartan. Badakigu holakoak berez etortzen direla bizitza honetan; baina lur jota utzi ninduen albisteak, hutsune ikaragarri batean amilduta. Eta estuasun hartan Antonioren eta gure lagunik minenei deika hasi nintzen. Izan ere, zer besterik egin nezakeen?

Baina poz bat gelditu zitzaigun bihotzaren barrenean: Pittinka-pittinka bere lanak bideratuta joan zela gure maisu handia, nahiz eta 1954ko Erregeen bigarren edo hirugarren egun hartan hasi zuen Auspoak 2009ko urtarrilaren 4an Xabierreko hilerrian putz egin zion azkenengo aldiz haren argiprintzari, goietako paradisuan betiko argia eta zoriona izan dezan. Ez dakit nork, baina Izaskungo Andre Mariaren himnoa intonatu zuen norbaitek haren ohorez eta maitasunez, eta ahaide eta lagunen malko artean kantuz agurtu genuen Antonio Zavala. Nekez ahaztuko dugu momentu hura!

Auspoa bilduma gogoratuz, azkenik, 1963an, Basarrik *Arantzazu* aldizkarian argitara eman zituen bertso hauek datozkigu gogora Zavalaren ohoretan:

Artzagun euskerari lagundu asmoa.
Ortarako au degu bide legezkoa.
Gure sua ez dago ain indarrezkoa;
argatik bear degu eskutan *Auspoa.*

Auspoa astintzeko oraintxe da ordu,
bestela gure suak itzali bear du.
Geienok badezute orrenbeste modu.
Guk erosi ezean nork erosiko du?

Liburuxka oietan dago Euskalerri:
Zenbat gertakari ta bertso zoragarri!
Ikasi nai badezu milla gauzen berri,
artzazu *Auspoa* ta ondo irakurri!

Erriaren anima agertu bear zan…
Ori pentsatu zuten norbaitzuk Tolosan.
Auspoa astintzaille nai ez badezu izan,
euskalzale zeranik ez iñori esan.

Basarri
Arantzazu, 1963(23)

Edo:

> Arritzen gaitu Aita Zabalak eginda uzten dun lanak:
> galtzear zeuden ainbeste bertso txukun jaso ditu danak,
> paperetik bilduak eta lagun artean emanak,
> gure izkuntza bizi dan arte irakurriko diranak.
>
> Joxe Migel Iztueta «Lazkao Txiki

Antonio Zavala Echeverria – Kronologia

1928.01.23: Tolosan jaio zen.

1945.09.14: Jesusen Lagundian sartu eta Noviziado, Loiolan.

1945 - 1946: Urduñan, ikasten.

1950 – 1953: Oñan, Filosofia-ikasketak egiten.

1953 – 1956: Magisteritza Xabierren, *maestrillo* garaia betetzen.

1956.09.15: Lehenengo hitzaldia, Arantzazun. Gaia: *En busca de la poesia popular a través del Pais Vasco – Bertso berrien billa Euskalerrian zear*.

1956 – 1960: Oñan, Teologia ikasten.

1957.12: Bigarren hitzaldia, Donostian. Gaia: *Gure erriaren fedea, bertsotan ageri denez. Religio-bertsoak.*

1958.12.14: Hirugarren hitzaldia, Bilbon. Gaia: *Bertsolariak eta Europako lenengo gerratea (1914-1918).*

1959.07.30: Apaiz egitea.

1959.07.31: Meza berria, Loiolan.

1959.08.11: Meza berria, Tolosan.

1960.09 – 1961.07: Gandian, ikastaroa bat.

1961 – 1976: Donostian, irakasle.

1961: *Auspoa* bildumaren lehenengo alea argitara eman zuen: *Sagardoaren graziya eta beste berso asko* (Ramon Artola Larrañaga). Eta euskaltzain urgazle izendatzea

1964: Euskaltzain oso izendatzea.

1974: Auspoa berdea saila sortu zuen.

1976.12.31 – 1991.08: Xabierren lanean.

1991.11 – 1999.08: Donostiako Jesuiten ikastetxean, irakasle.

1993: Auspoa urdina saila sortu zuen.

1993: *Biblioteca de Narrativa Popular* gaztelerako saila sortu zuen.

1996.12: Durangoko Euskal Liburu eta Disko azokan *Argizaiola* ematea.

1997.07.11: Labayru Ikastegiaren *Gatzontzia* saria jasotzea, herri-literaturaren alde egiten diharduen lanagatik.

1999.08: Berriro Xabierrera.

1999.11.17: *Honoris Causa* Doktore izendatzea, Deustuko Unibertsitatean.

2002.10.06: *Herriko seme kuttun* izendatzea, bere jaioterri Tolosan.

2005.11.11: Bere artxiboa Gipuzkoako Foru Aldundiari emateko sinadura, Donostian Diputazio jauregian.

2009.01.02: Xabierren hil zen.

A) **Zavala bakarka**

1. ARTOLA, Ramon: *Sagardoaren graziya*, 1961.
2. SOROA, Marcelino: *Gabon, Au ostatuba!, Anton Kaiku*, 1961.
3. APALATEGUI, Franzisko: *Euskal mutillak armetan (I),* 1961.
4. ARTOLA, Pepe*: Ustez laguna detan*, 1961.
5. URRUZUNO, Pedro Miguel: *Euskalerritik zerura*, 1961.
6. ALZAGA, Toribio: *Ramuntxo*, 1961.
7. AZKARATE, Ramos*: Galtzaundi*, 1962.
8. APAOLAZA, Antero: *Patxiko Txerren,* 1962.
9. IRAOLA, Bitoriano: *Oroitzak*, 1962.
10. ZAVALA, Antonio (biltzaile): *Errege eguneko bertso sayoa (1962)*, 1962.
11. LARZABAL, Piarres: *Bordaxuri*, 1962.
12. BIILINTX, Indalecio Bizcarrondo: *Bertso ta lan guziak*, 1962.
13. IZETA, Mariano: *Dirua galgarri*, 1962.
14. LARZABAL, Piarres: *Iru ziren*, 1962.

15. ZAVALA, Antonio (biltzaile): *Ezkontza galdutako bertsoak, I*, 1962.
16. ZABALA, Alfonso Mª: *Gabon gau bat*, 1962.
17. LABAYEN, Antonio Mª: *Malentxo alargun!*, 1962.
18-19. ZAVALA, Antonio: *Txirrita*, 1962.
20. GOÑI, Franzisko: *Lurdes-ko gertaerak*, 1962.
21. LARZABAL, Piarres: *Erriko bozak edo nor alkate*, 1962.
22. ZAVALA, Antonio (biltzaile): *Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962)*, 1963.
23. ZAVALA, Antonio: *Aizkolariak ta beste ipui asko*, 1963.
24. ZAVALA, Antonio: *Fermin Imaz. Bertso guziak*, 1963.
25. ITURRIAGA, Agustin Paskual: *Jolasak*, 1963.
26. ZABALA, Alfonso Mª; LARRAITZ MIR, Juan: *Periyaren zalapartak*, 1963.
27. ZAVALA, Antonio: *Azpeitiko Premioaren bertsoak*, 1963.
28. MOGEL, Bizenta Antonia: *Ipui onak*, 1963.
29. ALZAGA, Toribio: *Burruntziya*, 1963.
30. ANDUAGA, Graziano: *Egusentiko txoria*, 1963.
31. SOROA, Marzelino: *Baratzan*, 1963.
32. ELICEGUI, Mikela; ZAVALA, Antonio: *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua*, 1963.
33. ELICEGUI, Mikela; ZAVALA, Antonio: *Pello Errotak jarritako bertsoak*, 1963.
34. LARZABAL, Piarres: *Senpere-n gertatua*, 1964.
35-36. ECHAGARAY, Jose Vicente de: *Festara*, 1964.
37. CARDABERAZ, Agustin: *Euskeraren berri onak*, 1964.
38. SALAVERRIA, Sebastian: *Neronek tirako nizkin*, 1964.
39. ZAVALA, Antonio (biltzaile): *Amar urteko bertso-paperak (1954-1963)*, 1964.
40-41. ZUBILLAGA, Jose Ramon: *Lardasketa*, 1964.
42. UZTAPIDE, Manuel Olaizola: *Noizbait*, 1964.
43. ZAVALA, Antonio (biltzaile): *Bertsolari-txapelketa (I-I-1965)*, 1965.
44. LARZABAL, Piarres: *Hilla esposatu*, 1965.
45-46. SATRUSTEGUI, Jose Maria: *Bordel bertsularia*, 1965.

47. URRUZUNO, Pedro Migel: *Iru ziri*, 1965.
48. BARRUTIA, Pedro; SOR LUISA, MUNIBE, Xabier: *Teatro zaarra*, 1965.
49-50. ZAVALA, Antonio: *Pello Errotaren itzala*, 1965.
51. URRUZUNO, Pedro Migel: *Ur-zale baten ipuiak*, 1965.
52-53. ANDUAGA, Graziano: *Bertso-bilduma*, 1965.
54. ZAVALA, Antonio: *Pernando Amezketarra bertsolaria*, 1966.
55. BASARRI, Iñaki Eizmendi: *Laugarren txinparta*, 1966.
56. ZAVALA, Antonio: *Udarregi bertsolaria*, 1966.
57-58. BEOBIDE, Crispin: *Asis'ko Lorea*, 1966.
59. ZAVALA, Antonio: *Axentzio Txanka bertsolaria*, 1966.
60. ZAVALA, Antonio: *Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari*, 1966.
61. ZAVALA, Antonio: *Gaztelu bertsolaria*, 1966.
62. ZAVALA, Antonio: *Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria*, 1967
63-64. ZAVALA, Antonio: *Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak*, 1967.
65. SATRUSTEGUI, Jose Maria: *Luzaide'ko kantiak*, 1967.
66. ZAVALA, Antonio: *Iru bertsolari*, 1967.
67. ZAVALA, Antonio (biltzaile): *Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967)*, 1967.
68-69-70. ZAVALA, Antonio: *Alzo'ko Imaz bertsolaria*, 1967.
71-72. ITURRIAGA, Agustin Paskual: *Ipuiak*, 1967.
73. ZAVALA, Antonio: *Iru anai bertsolari*, 1968.
74-75. ZAVALA, Antonio: *Errenteria'ko bertsolari zaarrak*, 1968.
76. ZAVALA, Antonio: *Alza'ko bertsolari zaarrak*, 1968.
77-78. ZAVALA, Antonio: *Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak*, 1968.
79-80-81. ZAVALA, Antonio: *Lexo bertsolaria*, 1968.
82. ZAVALA, Antonio: *Juan Maria Zubizarreta bertsolaria*, 1969.
83. ZAVALA, Antonio: *Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak*, 1969.
84. MATXAIN, Manuel: *Uste gabean*, 1969.
85. XALBADOR, Fernando Aire: *Ezin bertzean*, 1969.
86-87. ZAVALA, Antonio: *F. Iturzaeta bertsolaria*, 1969.
88-89-90. ZAVALA, Antonio: *Xenpelar bertsolaria*, 1969.

91. ZAVALA, Antonio: *Txapel bertsolaria*, 1969.
92. ALKAIN, Iñaki; ZAVALA, Antonio: *Alkain aita-semeak*, 1970.
93. ZAVALA, Antonio: *Zubeltzu ta Saikola bertsolariak*, 1970.
94. ZAVALA, Antonio: *Atano ta Estrada bertsolariak*, 1970.
95-96. ZAVALA, Antonio: *Azkoitia'ko zenbait bertsolari*, 1970.
97. ZAVALA, Antonio: *Bidasoa aldeko bost bertsolari*, 1970.
98-99. OLEA, Inozentzio: *Goierriko lorak*, 1970.
100. LASARTE, Manuel: *Bertso-xorta*, 1970.
101-102. ZAVALA, Antonio: *Txirritaren bertsoak I*, 1971.
103-104. ZAVALA, Antonio: *Txirritaren bertsoak II*, 1971.
105. ETXEBERRIA, Jose Inazio: *Mendi gañetik*, 1971.
106. ZAVALA, Antonio: *Pastor Izuela. Ezkioko ta Segurako itxuak*, 1971.
107. ZAVALA, Antonio: *Zepai bertsolaria*, 1971.
108. MATTIN, Mattin Treku: *Ahal dena*, 1971.
109-110. LAFFITTE, Piarres: *Mañex Etchamendy bertsularia*, 1972.
111. ZAVALA, Antonio (biltzaile): *Xenpelar saria, 1972*, 1972.
112. BASARRI, Iñaki Eizmendi: *Sortu zaizkidanak*, 1973.
113. URRUZUNO, Pedro Migel: *Sasiletrau baten ziria*, 1973
114. ZAVALA, Antonio: *Kaskazuri bertsolaria*, 1973.
115. ZAVALA, Antonio: *Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak*, 1973.
116. ZAVALA, Antonio: *Oiartzungo bost bertsolari*, 1973.
117-118. ENBEITA, Balendin: *Nere apurra*, 1974.
119. ZAVALA, Antonio: *Oiartzungo beste lau bertsolari*, 1974.
120-121-122. ZAVALA, Antonio: *Mendaro Txirristaka*, 1974.
123-124-125. ZAVALA, Antonio: *Zapirain anaiak*, 1975.
126. ZAVALA, Antonio: *Ustu ezin zan ganbara*, 1976.
127. AROZAMENA, Mikel: *Nere aldia*, 1976.
128. ZAVALA, Antonio: *Amodiozko penak bertso berrietan*, 1976.
129. ZAVALA, Antonio: *Afrika'ko gerra (1859-1860)*, 1977.
130. ZAVALA, Antonio: *Patxi Erauskin bertsolaria (I)*, 1978.

131. ZAVALA, Antonio: *Patxi Erauskin bertsolaria (II)*, 1978.
132. ZAVALA, Antonio: *Patxi Erauskin bertsolaria (III)*, 1978.
133. ZAVALA, Antonio: *Arrantzaleen bizitza*, 1978.
134. ARRIZABALO, Jose Manuel; ZAVALA, Antonio: *Baso-mutillak*, 1979.
135. ZAVALA, Antonio: *Jaioak bizi nai*, 1979.
136. ZAVALA, Antonio: *Noe'ren ontzia*, 1979.
137-138. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Txantxangorri kantaria*, 1980.
139. ZAVALA, Antonio: *Soldaduzkako bertsoak*, 1979.
140. ZAVALA, Antonio: *Nekazariak bai miseriak*, 1979.
141. ZAVALA, Antonio (biltzaile): *Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6)*, 1980.
142. ZAVALA, Antonio: *Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak*, 1980.
143. IRAZUSTA, Juan Jose: *Nork bere bidea (I)*, 1980.
144. IRAZUSTA, Juan Jose: *Nork bere bidea (II)*, 1980.
145. IRAZUSTA, Juan Jose: *Nork bere bidea (III)*, 1980.
146. ZAVALA, Antonio: *Berridi eta Kuxkullu bertsolariak*, 1980.
147. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Txori*, 1981.
148. ALKAIN, Iñaki; ZAVALA, Antonio: *Gerrateko ibilerak (I)*, 1981.
149. ALKAIN, Iñaki; ZAVALA, Antonio: *Gerrateko ibilerak (II)*, 1981.
150. ALKAIN, Iñaki; ZAVALA, Antonio: *Gerrateko ibilerak (III)*, 1981.
151. MATTIN, Mattin Treku: *Etxe xokotik kantari*, 1981.
152. XALBADOR, Fernando Aire: *Herria gogoan*, 1981.
153. ZAPIRAIN, Juan Krutz; ATAÑO, Salbador Zapirain: *Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza*, 1981.
154. ZAVALA, Antonio: *Jan-edanaren bertsoak (I)*, 1982.
155. ZAVALA, Antonio: *Jan-edanaren bertsoak (II)*, 1982.
156. ARTOLA, Fernando «Bordari»; ARTOLA, Rafael: *Aritz beraren adarrak*, 1982.
157. ELKAR LANEAN: *Lexoti bertsolaria*, 1982.
158. TREKU, Mari: *Mattin, nere gizona*, 1982.
159. GARMENDIA, Txomin: *Denbora pasa*, 1982.

160. GARMENDIA, Txomin: *Bizitzaren arian*, 1982.
161. ZAVALA, Antonio: *Kuba'ko gerra*, 1983.
162. ARRIETA, Joxe Mari: *Nere ondar alea*, 1983.
163. ARROSAGARAY, Juan Cruz: *California-tik kantuz*, 1983.
164. ZAVALA, Antonio: *Mixioetako bertsoak (I)*, 1983.
165. ZAVALA, Antonio: *Mixioetako bertsoak (II)*, 1983.
166. MANTEROLA, Marzelino: *Lore apal bat*, 1983.
167. LERTXUNDI, Joxe Mari: *Baso tarteko oiua*, 1983.
168. LAZKANO, Patxi; ZAVALA, Antonio: *Tiro tartean bertsotan*, 1983.
169. BASARRI, Iñaki Eizmendi: *Kezka-giroan*, 1983.
170. GARMENDIA, Txomin: *Bordaberri'ko gozo-mikatsak*, 1983.
171. GARMENDIA, Txomin: *Bertsolari kurpilla*, 1984.
172. SALABERRIA, Sebastian: *Nere soroko emaitzak*, 1984.
173. OLEA, Inozentzio: *Otemotxeko arnasa*, 1984.
174. ZAVALA, Antonio: *Kristaubidea bertsotan (I)*, 1984.
175. ZAVALA, Antonio: *Kristaubidea bertsotan (II)*, 1984.
176. ZAVALA, Antonio: *Ameriketako bertsoak*, 1984.
177. GARMENDIA, Txomin: *Erririk-erri*, 1984.
178. BASARRI, Iñaki Eizmendi: *Bertsolaritzari buruz*, 1984.
179. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Espetxeko negarrak*, 1984.
180. ZAVALA, Antonio: *Euskal jokoak bertsotan (I)*, 1984.
181. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Zigorpean*, 1985.
182. OSTOLAIZ, Mariano: *Oroipen-kutxa*, 1985.
183. ZAVALA, Antonio: *Euskal jokoak bertsotan (II)*, 1985.
184. ZAVALA, Antonio: *Esaera zaarren bilduma berria (I)*, 1985.
185. ZAVALA, Antonio: *Esaera zaarren bilduma berria (II)*, 1985.
186. ZAVALA, Antonio: *Neska-mutillen arteko bertsoak.*
187. ZAVALA, Antonio: *Ezkondu bearreko bertsoak*, 1985.
188. GARMENDIA, Txomin: *Beltzak eta zuriak mendian ardiak*, 1985.
189. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Eltzaorra*, 1985.

190. ZUBIARRAIN, Paulo «Ernani Txikia»: *Ia kantatuz bezela*, 1985.
191. PUJANA, Basilio: *Egi batzuek aixetaratzen*, 1986.
192. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Odol-kutsua*, 1986.
193. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Maitasunaren lanak*, 1988.
194. ZUBIARRAIN, Paulo *Ernani Txikia*: *Gaziak eta gozoak*, 1988.

A. Zavala - Etor

195. AYERBE, Bartolo: *Nere mundualdia*, 1988.
196. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Etorkizuna*, 1988.
197. AZARATE, Ramos: *Ijitoen kontraatuba eta abar*, 1988.
198. ETCHEBARNE, Erramun: *Erramun harginaren oroitzapenak*, 1989.
199. ETXABURU, Jose Maria: *Neure lau urteko ibillerak*, 1989.
200. AZPIROZ, Jose: *Arbol zarraren kimuak*, 1989.
201. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Maite itzazute etsaiak*, 1989.
202. ZAVALA, Antonio: *Frantziako iraultza eta Konbentzioko gerra bertsotan*, 1989.
203. AZPIROZ, Jose: *Gogoz kontrako pausoak*, 1989.
204. REZOLA, *Luis Tximela*: *Bakardadeko ametsak (I)*, 1989.
205. REZOLA, *Luis Tximela*: *Bakardadeko ametsak (II)*, 1989.
206. LETE, Jesus *Ibai-Ertz: Orrela ziran gauzak*, 1990.

A. Zavala - Sendoa

207. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Aztia usnari*, 1990.
208. ETXEBARRIA, Faustino: *Nor garan azaldu*, 1990.
209. BARANDIARAN, Bizente: *Zartu gabe ezin bizi*, 1990.
210. KARRIKA, Beñat: *Armendaritza haur begiez*, 1990.
211. PUJANA, Basilio: *Deabruak ostutako urteak*, 1991.
212. ZAVALA, Antonio: *Frantzesteko bertsoak (I)*, 1991.

213. ZAVALA, Antonio: *Frantzesteko bertsoak (II)*, 1991.
214. LERTXUNDI, Joxe Mari: *Igaroari begira*, 1991.
215. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Azkeneko saskigillea*, 1991.
216. ETXEZARRETA, Jesus Maria *Izazpi*: *Hasperen ttanta bihoztiak*, 1992.
217. AYESTA, Lino: *Gure izkuntzaren mugatik*, 1992.
218. OTAÑO, Pedro Maria: *Bertso guziak*, 1994.
219. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Nora goaz*, 1994.
220. LERTXUNDI, Joxe Mari: *Sorlekuaren kezka*, 1994.
221. LASARTE, Manuel: *Lazkao-Txiki gogoan*, 1994.
222. LAZKAO TXIKI, Jose Migel Iztueta: *Gertaerak eta txisteak*, 1994.
223. ALZAGA, Toribio: *Neskazar, Amantxi, Aterako gera, Biozberak*, 1994.
224. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Lotsaren iges*, 1995.
225. LASARTE, Manuel: *Enbor zarraren ezpalak*, 1995.
226. ETXABURU, Jose Maria: *Ondarroa'ko kontuak*, 1995.
227. ARTOLA, Ramon: *Ipuin edo kontutxoak (I)*, 1995.
228. ARTOLA, Ramon: *Ipuin edo kontutxoak (II)*, 1995.
229. ESNAL, Pello: *Itzuliko naiz*, 1995.
230. KAZABON, Antton: *Koskotenekoak*, 1995.
231. BARANDIARAN, Bizente: *Lanik gabe ezin bizi*, 1995.
232. ZINKUNEGI, Agustin: *Bizi naiak lege zorrotzak*, 1995.
233. ARZAK, Antonio: *Idazlan-sorta*, 1995.
234. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Askatasun bila*, 1996.
235. MUJIKA, Teodoro: *Errekaldeko intxaurraren itzala*, 1996.
236. LERTXUNDI, Joxe Mari: *Beti festara begiak*, 1996.
237. ETXEBARRIA, Faustino: *Nire gazte denpora*, 1996.
238. ZAVALA, Antonio: *Auspoaren auspoa (I)*, 1996.
239. ZAVALA, Antonio: *Auspoaren auspoa (II)*, 1996.
240. ARANALDE, Joxe Mari: *Xalbador pertsularia*, 1996.
241. AYERBE, Bartolo: *Zaarrak berrituz*, 1996.
242. KAZABON, Antton: *Jose Joakin Mitxelena bertsolaria*, 1996.

243. IRAOLA, Biktoriano: *Au poza senti det eta beste bertso asko*, 1996.
244. OLEA, Inozentzio: *Bizitza izbide*, 1997.
245. AYESTA, Lino: *Ikusiak eta entzunak*, 1997.
246. ZUBIMENDI, Joxe Ramon: *Bidezkoak*, 1997.
247. SALABERRIA, Sebastian: *Sagardotegiak*, 1997.
248. LASARTE, Manuel: *Kantuaren ordaiñez*, 1997.
249. ZAVALA, Antonio: *Oiñez eta jakin miñez*, 1997.
250. AZPIROZ, Jose: *Alkarrentzat jaioak*, 1997.
251. PUJANA, Basilio: *Oiuak*, 1997.
252. IBARGUREN, Kasiano: *Kantari bizi naiz*, 1997.
253. AYERBE, Joxe: *Alako batean*, 1998.
254. ZENDOIA, Nikolas: *Beranduko birigarroa*, 1998.
255. KALONJE, Segundo: *Loreak udan intza bezela*, 1998.
256. LIZASO, Koxme: *Jose Joakin Mitxelena gogoan*, 1998.
257. ZAVALA, Antonio: *Ezkontza galdutako bertsoak II*, 1998.
258. ARANALDE, Joxe Mari: *Bihotzak dion hura*, 1998.
259. ETXABARRIA, Juan Manuel: *Zeberioko kantak*, 1998.
260. LATXAGA, Jose Maria San Sebastian: *Euskal sena*, 1999.
261. LASARTE, Manuel: *Uztapide gogoan*, 1999.
262. ZAVALA, Antonio: *Auspoaren auspoa* III, 1999.
263. ZAVALA, Antonio: *Oiñez eta jakin miñez II*, 1999.
264. ARANALDE, Joxe Mari: *Bertso-kontuak*, 1999.
265. BARANDIARAN, Bizente: *Tratabideak*, 1999.
266. ALDALUR, Justina: *Ama Birjiñaren bizitza*, 1999.
267. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Ondaretzat gorrotoa*, 2000.
268. OSTOLAIZ, Mariano: *Senda-belarrak*, 2000.
269. GERRIKAGOITIA, Tomas: *Arantza eta larrosa*, 2000.
270. BASTERRETXEA, Andoni: *Ene Ondarru*, 2000.
271. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Jesusen bizitza*, 2001.
272. AIZPURUA, Mikel: *Hasi, Azpillaga*, 2001.

273. LARRE, Emile: *Ene artzain-etxolak*, 2001.
274. ARANALDE, Joxe Mari: *Xalbadorren barrua*, 2001.
275. IRIONDO, Joxe Mari: Joxe Lizaso. *Nere aldiko kronika*, 2001.
276. INSAUSTI, Jose: *Beti bertsoa buruan*, 2001.
277. MATXAIN, Manuel: *Uste gabean*, 2002.
278. OLEA, Inozentzio: *Ostiraleko kronika Segura Irratian (1986-1992) I*, 2002.
279. OLEA, Inozentzio: *Ostiraleko kronika Segura Irratian (1993-1997) II*, 2002.
280. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Markesgaiak. Dirua jainko*, 2002.
281. ZAVALA, Antonio: *Estropadak bertsotan*, 2003.
282. IRIONDO, Joxemari: *Segi, Mugartegi*, 2003.
283. IRAOLA, Rufino: *Nañarriri begira*, 2003.

A. Zavala – Foru Aldundia (KM)

284. ARTOLA, Ramon: *Sagardoaren graziya II*, 2003.
285. IRUNTXIBERRI, Leon Albeniz: *Nere berriketa eta aitortza*, 2003.
286. AZKARATE, Ramos: *Galtzaundi berriz ere I*, 2004.
287. AZKARATE, Ramos: *Galtzaundi berriz ere II,* 2004.
288. ETXAMENDI, Pedro Juan: *California'ko bertsolari eta musikari*, 2004.
289. GARZIANDIA, Jose Agustin: *Garai bateko Unanuko oiturak eta olgak*, 2004.
290. XALBADOR, Fernando Aire: *Odolaren mintzoa*, 2004.
291. URRUZUNO, Pedro Migel: *Koroi eder bat*, 2005.
292. APALATEGUI, Francisco: *Karlisten eta liberalen gerra-kontaerak (I)*, 2005.
293. APALATEGUI, Francisco: *Karlsiten eta liberalen gerra-kontaerak (II)*, 2005.
294. LASARTE, Manuel: *Plaza-gizonak*, 2005.
295. ZENDOIA, Nikolas: *Egan dijoa*, 2005.
296. IRIONDO, Joxemari: *Basarri I: bat-batean*, 2006.
297. ARTOLA, Pepe: *Ustez laguna detan*, 2006.
298. TREKU, Mattin; TREKU, Mayi: *Mattin bertsularia*, 2006.
299. ZAVALA, Antonio: *Oiñez eta jakin miñez III*, 2006.

300. ZAVALA, Antonio: *Auspoaren auspoa IV*, 2006.
301. ZAVALA, Antonio; IRIONDO, Joxemari: *Mattin eta Xalbador*, 2006.
302. IRIONDO, Joxemari: *Xanpun bertsularia*, 2006.
303. ARROSSAGARAY, Joanes: *Bihotz barneko solasak*, 2007.
304. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Berezko iltzaillea*. Ovni, 2007.
305. Artetxe, Pello Urdaneta: *Nere bizitzaren gurdia.* 2008
306. Jean Pierre Mendiburu: *Ene bertsuen feiria*, 2008
307. Ernest Alkat: *Ene ezkilaren danga.* 2008
308. Nikolas Zendoia: *Sasi guztien gaiñetik.* 2008
309. Joxe Aierbe: *Agindua zor.* 2008
310. Antonio Zavala: *Gabon eskeko bertsoak (1814-2000)*. 2008
311. M. Lasarte-Iñaki Zubizarreta: *Iturria ondare.* 2008
312. Joxe Manuel Arriola: *Mondragoiko kalezaiñaren bertsoak*. 2009

A. Zavala hil ondoren

313. Nikolas Aldai-Pello Esnal: *Uztapide bat-batean. Antologia,* 2009
314. Uztapide-A. Zavala: *Lengo egunak gogoan* (4. aldiz)
315. Kruz Azkarate: *Ondorengoak jakin dezaten*, 2009
316. Patxi Iraola: *Naizen apurra,* 2009
317. Txomin Garmendia: *2008ko nere egunkaria*, 2010

Auspoa berdea sailla: A. Zavala - Sendoa

UZTAPIDE, Manuel Olaizola: *Lengo egunak gogoan (I)*, 1974.
UZTAPIDE, Manuel Olaizola: *Lengo egunak gogoan (II)*, 1974.
LASARTE, Manuel: *Gordean neuzkanak*, 1975.
ERAUSKIN, Jose Ramon: *Aien garaia*, 1975.
UZTAPIDE, Manuel Olaizola: *Sasoia joan da gero*, 1976.
XALBADOR, Fernando Aire: *Odolaren mintzoa*, 1976.

Auspoaren sail nagusia: A. Zavala - Sendoa

1. ZAVALA, Antonio: *Txirrita: Jose Manuel Lujanbio Retegi*, 1992.
2. BASARRI, Iñaki Eizmendi: *Nere bordatxotik*, 1992.
3. LASARTE, Manuel: *Beranduko lanak*, 1992.
4. ZAVALA, Antonio: *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak*, 1992.
5. ZAVALA, Antonio: *Pello Errota: Pedro Elizegi Maiz*, 1992.
6. ZAVALA, Antonio: *Pedro M. Otaño eta bere ingurua (I)*, 1993.
7. ZAVALA, Antonio: *Pedro M. Otaño eta bere ingurua (II)*, 1993.
8. ZAVALA, Antonio: *Xenpelar eta bere ingurua*, 1993.
9. ZAVALA, Antonio: *Bilintx: bertsoak eta bizitza*, 1993.
10. ETXEZARRETA, Jesus M.: *Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak*, 1993.
11. UZTAPIDE, Manuel Olaizola: *Berriz plazara (I)*, 2001.
12. UZTAPIDE, Manuel Olaizola: *Berriz plazara (II)*, 2001.

LAZKAO TXIKI, Jose Migel Iztueta: *Irriz eta malkoz (I)*, Oiartzun, Sendoa, 1994.

LAZKAO TXIKI, Jose Migel Iztueta: *Irriz eta malkoz (II)*, Oiartzun, Sendoa, 1994.

ZAVALA, Antonio: *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak*. Oiartzun, Sendoa, 1997.

ZAVALA, Antonio: *Euskal erromantzeak. Romancero vasco*. Oiartzun, Sendoa, 1998.

Biblioteca de Narrativa Popular – A. Zavala - Sendoa

01. Indalecio Zaballa «Masio»-Antonio Zavala: *La ultima trova*
02. Humbelino Ayape-Antonio Zavala: *Las tardes de la Bardena* (I)
03. Humbelino Ayape-Antonio Zavala: *Las tardes de la Bardena* (II)
04. Humbelino Ayape-Antonio Zavala: *Las tardes de la Bardena* (III)
05. Humbelino Ayape-Antonio Zavala: *Las tardes de la Bardena* (IV)

06. Hilario Jarne-Antonio Zavala: *Junto al fogaril de Atarés* (I)
07. Hilario Jarne-Antonio Zavala: *Junto al fogaril de Atarés* (II)
08. Hilario Jarne-Antonio Zavala: *Junto al fogaril de Atarés* (III)
09. Justo Peña-Antonio Zavala: *El pastor de Páramo* (I)
10. Justo Peña-Antonio Zavala: *El pastor de Páramo* (II)
11. Juan Rugarcia-Antonio Zavala: *En la ribera de Cares*
12. Juan Balbin-Antonio Zavala: *Entre los olivos de Jaen*
13. Daniel Cuesta-Antonio Zavala: *En la montaña de León*
14. Félix Lumbreras-Antonio Zavala: *Cuando los ciegos guían*
15. Alfredo Caldevilla-Antonio Zavala: *Una vida en los Picos de Europa*
16. Bonifacio Garcia-Antonio Zavala: *Los Merineros*
17. Diego Rodriguez-Antonio Zavala: *Aprendiz de gañán*
18. Eloy Tejada-Antonio Zavala: *Castejón y en Ferrocarril*
19. Francisco Argandoña-Antonio Zavala: *Lezaun pie de Sierrandia* (I)
20. Francisco Argandoña-Antonio Zavala: *Lezaun pie de Sierrandia* (II)
21. Antonio Rodriguez-Antonio Zavala: *En la reserva de Saja*
22. Hnos Casquero-Antonio Zavala: *Prioro, cuna de la transhumancia*
23. Diego Rodriguez-Antonio Zavala: *Andanzas de un quinto del 42*
24. Diego Rodriguez-Antonio Zavala: *Del fusil al arado*
25. Encarnación Molina-Antonio Zavala: *Cana, la hija de la maestra*
26. Eloy Tejada Herrero–Antonio Zavala: *Más historias…*
27. Juan Pablo Jimenez-Antonio Zavala: *En las dehesas extremeñas*
28. Modesto Celada-Antonio Zavala: *En la tierra de Campos*

Aurelio Etxarri Aranazkoa (Santiago Ezkerra Beltza *Lizarrusti*) euskaltzain urgazlea (1925-2009)

IÑIGO ARIZTEGI, Andres

Donostian, 2010eko urtarrilaren 29an



Gogoan daukat, orain dela hamarren bat urte, Euskaltzaindiaren Iruñeko ordezkaritzako zenbait datu osatu nahian, Nafarroako euskaltzain batzuei buruzko informazioa Bilboko egoitzara eskatu nuenean, igorri zidaten erantzunarekin batera honelatsuko iruzkina egin zidala Jose Luis Lizundia orduko kudeatzaile-idazkariordeak: «Nafarroako euskaltzain urgazle bat "galdu zaigu", ezertxo ere ez baitakigu Aita Aurelio Etxarri Aranazkoa izenarekin 1957an izendatua izan zenaz. Ea zerbait lortzerik baduzun».

Halabeharrak eraman ninduen Aita Aurelio hura Santiago Ezkerra Beltza zela jakitera. Halabeharrak diot, nire semeak ikastola garaitik duen lagun handienetako baten ama, Koro Lopez de Sabando Ezkerra, Santiagoren iloba zela jakin bainuen. Orduan Euskaltzaindiko fitxa moldatzeko aukera izan genuen eta orduz geroztik Kororengandik jasotako informazioak bidea eman dit *Euskaltzainak* bildumaren 11. liburukia prestatzeko eta azalduko dudan hilberri txosten hau osatzeko. Hortaz, aitzina segitu baino lehen, nire

[1] *Lizarrusti*ren biziaren eta lanaren azalpen zabalagorako, ikus *Santiago Ezkerra Beltza* ***Lizarrusti****. Bizitza eta lanak*, Euskaltzainak bilduma 11, Euskaltzaindia 2009. Paratzailea: Andres Iñigo.

Euskera. 2009, 54, 3. 1841-1853. Bilbo
ISSN 0210-1564

eskerrik beroenak Korori eta ekitaldi honetara etorri zareten Santiago Ezkerraren arrebei eta ilobei.

I. Bizi ibilbidea

Haurtzaroa Etxarri Aranatzen (1925-1938)

Santiago Ezkerra Beltza 1925eko maiatzaren 6an jaio zen Etxarri Aranatzen. Silberio Ezkerra eta Leontzia Beltza ziren gurasoak eta sei seme-alaba izan zituzten: Joxe, Maritxu, Juli, Anjelita, Santiago eta Dorita. Hauetaz gain, umezurtz gelditu ziren bertze bi lehengusu ere, Zefe eta Domingo Gartziandia bere etxean bizi ziren. Baina Ezkerra Beltza anai-arrebak ere haurtzaroan umezurtz gelditu ziren. Santiagok urte bat bertzerik ez zuenean ama hil zitzaion, hain zuzen ere, Dorita alaba gazteena erditze ondoriozko infekzioagatik. Handik hiru bat urtera, aita ere galdu zuen zorigaiztoko istripu batean. Izan ere, egun batean, Iruñetik herrira itzultzean, trena Etxarriko geltokian gelditu gabe aitzina zihoala konturatu zenean, salto egin, trenbideko orratza buruarekin jo eta larri-larri Iruñeko ospitalera zeramatenean bidean hil zen. Harrezkeroztik, sei seme-alabak eta bi lehengusuak bertze lehengusu batzuen etxeetan banatu zituzten. Santiago Maria bere izebarenera eraman zuten. Etxe honetan hazi eta bizi izan zen hamahiru urte arte.

Haurtzaroko oroitzapen gazi-gozoak gogoan izan zituen bere bizitza osoan, hala nola, familiako gorabeherak, garai hartako bizimodu eta lanak, herriko ohitura eta giroa, gerra garaiko oroimen gogorrak etab.

Kaputxinoetan ikasle (1938-1950) eta fraide –Aita Aurelio Etxarri Aranazkoa– (1950-1961)

Hamahiru urte zituelarik, 1938an, Altsasuko kaputxinoen ikastetxera fraide ikasketak egitera joan zen. Hango komentuan egin zituen bost lehenbiziko urteak. Humanitate ikasketa haiek amaituta, 1943an Hondarribiko komentura joan zen Filosofiako bi lehenbiziko ikasturteak egitera. Ondoren, Zangozan izan zen nobizio urtea egiten. Handik Lizarrara joan zen Fi-

losofia amaitzeko falta zitzaion hirugarren ikasturtea eta Teologiako bi lehenbizikoak ikastera. Teologiako hurrengo biak Iruñean burutu zituen. Azkenik, 1950eko abenduaren 17an apeztu zen aita Aurelio Etxarri Aranazkoa izenarekin eta Eguberri egunean eman zuen Meza Berria.

Apeztu ondotik, lehenbiziko ikasturtean Lizarran egon zen, kaputxinoek ohi zuten bezala, pastoralerako eta predikuetarako prestaketa berezia egiten. Hasieratik argi agertu zion Probintzialari sermoiak euskaraz egiteko lortu nahi zuen prestakuntza[2]. Hain zuzen ere, zeregin hauetan aritu zen bereziki kaputxino gisa egin zuen ibilbidean. 1951 eta 1954 bitartean, Zangozan, Iruñean eta Altsasun. 1954tik 1957ra Iruñean. Hemen, aipatutako lan horiez gain, buru-belarri ikusten dugu *Zeruko Argia* aldizkariaren antolaketa lanetan eta garai honetakoak dira ezagutzen ditugun bere lehenbiziko idatziak. Hurrengo hiru urteak, 1957-1960, Lekarozen egin zituen eta, azkenik, 1960an Zangozara igorri zuten eta han zegoela, 1961eko ekainaren 13an kaputxinoen ordenatik atera zen[3].

Erran bezala, Iruñean egon zenean parte-hartze zuzena izan zuen kaputxinoek 1954an berrabiarazi eta kaleratu zuten *Zeruko Argia* aldizkarian eta artikulu franko idazteaz gain, antolaketa lanetan aritu zen 1957ko uztaila arte. Zenbait zenbakitan, aldizkariaren beraren iragarki orrian hau irakurtzen ahal da: Director redactor: P. Bonifacio de Beizama; Director artístico: P. Aurelio de Echarri-Aranaz.

Kaputxinoen Aldizkari Ofizialaren 1955eko zenbakiaren 8. orrian ere aipamen hau dator:

> «La ardua tarea de dirección y administración ha corrido a cargo de Victor de Urbiola y Aurelio de Echarri Aranaz».

---

[2] Horrela zioen 1951-06-26an Probintzialari idatzi zion gutun batean: «Le expongo un deseo mío cuya utilidad más o menos práctica la apreciará su Reverencia. Desearía arreglarme la voz con el P. Francisco de Lazcano, al mismo tiempo que me perfeccionaba en el vascuence».

[3] Beraz, fraide izan zen urteetan egin zuen ibilbidea ez dator bat Joxemiel Bidadorrek dioen honekin: «Tras ordenarse en 1950 residió en el convento de Lekaroz hasta 1961, fecha en la que abandonó la orden». (J. Bidador, *Materiales para una Historia de la Literatura Vasca en Navarra*, 2004, 285 or.).

Eta 1957ko abuztu-iraileko 42. zenbakidun *Zeruko Argia*n hau ageri da:

> «Orain arte, emen Zeruko Argian zintzo, zintzo, beti lan da lan ari izan dan Etxarri-Aranazko Aurelio Aba Lekarozko konbenturako autatua izan da ta ara joana da».

Jakina den bezala, *Zeruko Argia* Aita Kaputxinoek 1919ko urtarrilean sortutako aldizkaria zen eta fraide hauek Iruñean zuten inprimategian egiten zen, hots, Iruñean Kaputxinoek zeukaten «Neketako Ama-Birjiñaren Irakorlan». Espainiako gerra zibila iristearekin batera argitalpena geldiarazi zuten. Hortaz, hemezortzi urtez argitara eman ondotik bertze hemezortzi urte pasatu ziren, 1954. urtean berriz kaleratu zuten arte.

Epe berri honen lehenbiziko zenbakitik hasita, aldizkariaren «Kristau-ikasbidea» atala Santiago Ezkerraren ardurapekoa izan zen. Sail horretako artikuluak dira, gure ustez, euskaraz idatzi zituen lehenbiziko lanak, bere idazkietan gehien erabili zuen «Lizarrusti» izengoitiarekin sinatuak. Aldizkari bereko bertze atal batzuetan ere idazten zuen, ipuinen atalean batik bat, «Aitona» izengoitia erabiliz. Ageria da umeak euskaraz irakurtzera motibatzeko izan zuen interesa. Horren lekuko dira Norbert Tauer jaunari Pragara idazten zizkion gutunetan bai *Zeruko Argia*n bai *Umeen-Deya*n, *Xabiertxo* eta *Junipero* TBOetan argitaratzeko behin eta berriz eskatzen zizkion ipuinak.

*Zeruko Argia*n urte hauetan egin zuen lanak eta -aurrerago aipatuko dugun- 1956an argitara eman zuen *Migel Goiaingeruari bedratzi-urrena* liburuxkak izan zuten nonbait bere oiartzuna eta errekonozimendua euskararen munduan. Izan ere, 1957ko uztailaren 26an euskaltzain urgazle izendatu zuten eta urte horretako irailaren 26ko datarekin Akademiaren izenean Ignazio Maria Etxaide euskaltzainburuak eta Nazario Oleaga zadorlariak (idazkariak) sinatutako urgazle diplomak horrela dio: «Euskaltzaindiak aita Aurelio Etxarri Aranaz-koa euskararen alde orain arte egin dituen lanen esker-erakutsiz eta gerokoen bizgarri, euskaltzain urgazle izendatu du».

Lekarozera ez zuten irakasle izateko igorri, ikastetxeko antolaketa lanez arduratzeko baizik; eta, aldi berean, inguru hartako parrokietan pastoral lanetan laguntza emateko. Hala ere, ikastetxe hartan eskola ordutik kanpo euskara ematen aritu zen:

> «Nik ikastetxe ontako batzuei euskerazko ikaskaiak ematen dizkiet. Badira ere euskeraz ikasi nai duten asko, baina nik bakarrik ezin guztientzat. Nik uste badatorrela guretzat argia. Euskera piztu eta bizkortuko da»[4].

Lekarozen egon zen hiru urteetan izandako adiskideen artean Elizondoko Mariano Izeta erlojugile eta euskaltzalea aipatzen du.

1960an Zangozara igorri zuten eta urte bat geroago, 1961ean, kaputxino izateari uko egin eta ekainaren 13an ordenatik atera zen. Pentsatzekoa da erabaki hori ez zela bat-batekoa izan, eta sekularizazioa Lekarozen zegoela eskatu izanen zuelako igorri zutela Zangozara, komentu hartan apez lanarekin zerikusirik ez zuen ardura eman baitzioten —bertan zituzten 200 bat untxiren zaintze lana, hain zuzen ere—, Erromatik baimena iritsi zen arte. Urte batez itxaroten egon ondotik iritsi zitzaion baimena ere ez zen suziriak botatzeko modukoa izan[5].

Ordena uztera zerk bulkatu zuen ez badakigu ere, urte batzuk geroago *Príncipe de Viana* aldizkarian idatzi zuen «Apaizgaiak» artikuluan argi adierazi zuen bere desadostasuna mutikotan apezgaitegian sartu eta ohikoa zen apez egiteko prozesuarekin, sistema horren aldaketaren beharraz mintzo baita.

Madrilen (1961-2009)

Komentutik aterata, hasiera batean Bilbon egon zen hilabeteren bat edo, baina berehala Madrileko bidea hartu zuen. Berak ongi gogoratzen zuen bezala, hiri honetara uztailaren 25ean –Santiago egunean, hain zuzen– iritsi

---

[4] N. Tauer-i, 1957-12-20ko gutunean.

[5] Kaputxinoen Aldizkari Ofizialeko («Boletín Oficial de los PP. Capuchinos») 1961. urteko 147. orrialdean horrela dator: «Baja en el personal. Canonicis monitionibus sine emendatione peractis, superiores provinciales coacti sunt dimissionem ab ordine petere R. P. Aurelii Ab Echarri-Aranaz, qui, decreto Sanctae Sedis diei 7 Junii anni 1961 (Prot. N. 58/55), ad statum laicalem reductus est, sublatis omnibus oneribus ex professione religiosa et ex sacris ordinibus exortis, exceptu coelibatu». Aldizkariaren aurkibidean modu gogorrean adierazten da sekularizazioaren baimena, honela hain zuzen: «Aurelio de Echarri-Aranaz, degradación, p. 147». Mingarria benetan!

eta, bere santuaren eguna ospatzeko egin zuen bazkaria, Cibeles plazako ostatu batean juxtu-juxtu erosi ahal izan zuen txistor otarteko bat. Hasiera hartan, zail egin zitzaion lan finko bat aurkitzea, baina nahiko laster lortu zuen inprimategiko proba-zuzentzaile lanetan aritzea eta hori izan zen bere lanbidea jubilatu zen arte.

Erran bezala, Madrilera 1961ean joan zen. Pentsatzekoa da ondoko urteetan Erromako baimenaren «exceptu coelibatu» baldintza hartatik libratzea lortu izanen zuela, Madrilen ezagutu zuen Almadén (Ciudad Real) hiriko Txaro Fernández andrearekin ezkondu baitzen eta lau seme-alaba izan zituen: Begoña, Santiago, Ana Mari eta Arantza.

Lanbidea, etxea eta hazitako familia Madrilen zituenez gero, hiri honetan bizi izan zen 2009ko martxoaren 22an zendu zen arte. Hala ere, oroitzapenez eta sentimenduz ez zen inoiz Euskal Herritik eta Etxarri bere sorterritik aldendu izengoititzat *Lizarrusti* hartu zuen Santiago Ezkerra idazlea. Inguru hori eta Aralar eta Beriain mendilerroa, batik bat, izan zituen beti begi aurrean eta bihotzean bere biziaren azkenera arte. Sentimendu hori behin eta berriz ageri da bere idazkietan eta horren seinale ezin argiagoa da bere familiari emandako agindua: hiltzen naizenean Etxarriko hilerrian hilobira nazazue.

II. *Lizarrusti* euskaltzalea eta idazlea

Euskaltzalea

Uste dut, inolako hutsik egiteko beldurrik gabe erraten ahal dela Santiago Ezkerra euskaltzale porrokatua zela.

Hala erakutsi zuen apeztu eta berehala Probintzialari idatzitako gutun hartan euskaraz trebatu nahi zuela adierazi zionean eta hala egiaztatzen du *Zeruko Argia* aldizkarian izan zuen ardura sutsuak. Eta ezin argiago adierazten du aldizkari horretan berean, jadanik Lekarozera joana zenean, *Lazkoz* izenordearekin (eta ez ohi zuen *Lizarrusti*-rekin) idatzi zituen «Euskararen alde» izenburuko bi artikuluetan. Honela dio:

> «Jaungoikoa animetan sartzeko bidea izkuntza da. Jaungoikoak bakoitzari bere izkuntzan itz egin nai dio, esan nai diona obeki ulertu dezan (...) Zer ulertu dezakete berena ez dan izkeran?»[6] Elizkizunetan apeza jatorrizko izkera erabiltzera bearturik dago. Bakoitzari bere izkuntzan itz egin bear zaio eta euskaldunei euskeraz (...) Bere kristauei erderazko izkuntzan itz egin eta erakusten dien apezak ez dira bizi beren kristauentzako (...) Au egiten ez duen apeza alperrik dago dagon errian»[7].

Bere jarrera eta konpromiso pertsonal horren lekuko dira Lekarozko ikastetxean egon zen garaian ezagutu zuten ikasle euskaldunak, horien artean Baztango Aniz herriko Jose Joakin Azkarate –Jose Azkarate Etxandi euskaltzain urgazle izan zenaren sortetxeko biloba, hain zuzen–. Jose Joakin Lekarozen aritu zen Batxilergoa ikasten 1956-1961 bitartean, eta Aita Aurelio ezagutu zuen galdetu nionean, honela erantzun zidan: Aita Aureliok, bertze fraide euskaldun batzuk ez bezala, euskara genekien ikasleei, aitzinean nor zegoen batere inporta gabe, beti euskaraz hitz egiten zigun.

Ordena utzi ondoren argiago eta sutsuago mintzo da gai honetaz utzi dizkigun idazki ugaritan. Hona hemen zenbait pasarte:

> «Abertzalea naiz, eta nere bizitzan, nere egintzetan, orrela agertzen naiz. Euskaldun jaio nintzan, euskalduntzat bizi naiz eta euskaldun iltzeko asmoa dut (...) Naiz Euskalerritik urrun bizi, biotzarekin Euskalerrian bizi naiz; nere umiekin euskeraz bakarrik mintzatzen naiz; nere etxean euskal usaia usaitzen da (ikurriñ, edergaillu, eta abar)»[8].

> «Ni lotsatu egingo nintzake, esango banu, euskalduna naizela, euskera jakin gabe. Zer? Euskalerrian jaioa naizelakoz? Euskal abizenak dauzkadalakoz? Euskal abizenak izan dezazket, euskal odola ere izan dezaket nere gorputz-zañetan; bañan euskeraz ez badakit, nere ustez beintzat, ez nintzake euskal osoa izango, euskal sustrai bearrenezko bat falta zaidalakoz»[9].

---

[6] *Zeruko Argia*, «Euskararen alde I» (1958).

[7] *Zeruko Argia*, «Euskararen alde II» (1958).

[8] *Goiz Argi*, «Abertzale naiz» (1980).

[9] *Goiz Argi*, «Egiazko euskalduna» (1986).

Idazlea

Abertzaletasunak euskaraz idaztera bulkatu zuen eta bere buruarekin hartutako konpromiso hau, berak aitortzen duen bezala, azken muturreraino eraman zuen. Izan ere, beti euskaraz idazteaz gain, idazteak bizia ematen diola baitio. Hona zer dioen:

> «Oso atsegiña zait idaztea. Gogamen geldi eziña naiz. Sakelan beti idazkia eta papera (ingia) daramazkit, karriketan, nere eguneroko ibilladietan, oatzean nagonean, eta nun-nai, gogamen bat edo ikusten edo entzuten duten zerbait, ez aztutzeko, paperan jartzen det. Urrutikuskiñan edo egunkarietan jakingarrien bat irakurtzen badet, gertu dauzkat idazkia eta papera berria artzeko. Idazteak bizkortzen nau, bizitza ematen dit. Erraza da idaztea. Gogaltzen dana idatzi bear da. Gero, zerbait urratu eta zuzendu bear bada, bada denbora zuzentzeko. Nik beti euskeraz gogamentzen det. Gu ez gera «esponja» bezela izan bear. «Esponjak», biltzen duen guzia beretako bakarrik gordetzen du. Berekoia da. Guk ez giñake gerekoiak izan bear. Dakiguna besteendako izan bear litzake. Guk, gure aurrenekoei eskerrak, dakigu dakiguna. Aiengandik izan ez balitz, gu ere ezjakiñak izango giñake. Ez gera gerekoiak izan bear. Edozein leku eta ordu egokiak dira idazteko»[10].

Artikulu bilduman ere ugari dira idaztearen aldeko pasarteak. Hona, adibide gisa, horietako pare bat:

> «Eta abertzalea naizelakoz alegintzen naiz, al dan eran, idazkiaren bitartez, euskera eta euskal gaiak gorde, sendotu eta zabaltzen... Badakit ez naizala idazlari iaioa, badirala ni baño obeki euskeraz itz egin eta idatzi dezaketenak, bañan bakoitzak al dezakena egin ezgeroz, bere gogo ona agertu ezgeroz, uts guztiak barkatzen zaizkio. Eta guzti au gutxi dalako ustean, geiago egin nai nuke, al izan ezgeroz»[11].

---

[10] «Nere bizitza» eskuizkribuak.

[11] *Goiz Argi*, «Abertzale naiz» (1980).

Idazlanak

Bi epe bereiz daitezke Santiago Ezkerrak idatzitako lanetan. Lehenbizikoa, fraide izan zenekoa. Bigarrena, ordenatik atera ondotik egindakoa.

Lehenbiziko garaikoak dira idatzi zituen hiru liburuxka eta *Zeruko Argia*n kaleratu zituen artikuluak. Horiekin batera, argitaratu ez ziren bertze material batzuk. Ikus ditzagun banan-banan:

Liburuxkak

1. *Migel Goiaingeruari bedratzi-urrena*. Aita Kaputxinoen inprimategia, Iruñea 1956, 20 orrialde. Aralarko Done Mikelen aldeko debozioa areagotzeko egina. Bederatziurrenen egitura du: otoitzak, eskaerak eta egun bakoitzeko gogoetarako esaldi bat. *Zeruko Argia* aldizkarian ardura izan zuen garaian, liburuxka honen propaganda sartu zuen egileak behin baino gehiagotan.

2. *Meza saindua*. Aranburu inprimategia, Iruñea 1958, 32 orrialde. Meza entzuteko lagungarria. Baztango euskararen ezaugarriak kontuan hartuz idatzitako testua gehi sei kantu.

3. *Bederatzi-urren beharrezkoenak eta eliz otoitz batzuk*. Itxaropena argitaletxea, Zarautz 1958, 122 orrialde. Euskarazko bederatziurrenak zekartzan libururik inon aurkitzen ez zenez gero, argitalpen honen xedea hutsune hori betetzea izan zen. Egileak sarreran dioenez, Jaungoikoaren nahia bakoitzari bere hizkeran hitz egitea da, eta, hortaz, negargarria zen euskarazko libururik ez izateagatik, zenbait apez bederatziurrenak gaztelaniaz egitera beharturik egotea.

Norbert Tauer-i idatzitako gutunetan ikusten ahal den bezala, behin baino gehiagotan eman zion argitalpen honen berri, bai eta liburu honek jaso zituen iruzkin txalogarriak, betzeak bertze, Basarrirena *La Voz de España* egunkariko «Atalaya montañera»n, Miguel Angel Astizena *La Gaceta* egunkarian eta Joxe Artetxerena *La hoja del lunes* astekarian.

Hiru liburu horietaz gain, *Urte guziko homiliak* izeneko bilduma ere prestatu zuen, liburu batean argitaratzeko asmoz. Oraindik gordeta dago Kaputxinoen Iruñeko artxiboan Lizarrustik prestatutako bilduma oso hori. Denera, makinaz idatzitako 415 orrialde dira; honela banatuak:

– Sarrera G. I. Larrañagak, Pingliang-eko gotzainak egin eta sinatua, Hondarribian 1959ko abuztuaren 24an. Larrañagak dio oso baliagarri eta interesgarriak direla material horiek predikuak euskaraz egin nahi dituzten apez gazteentzat, euskal mintzaira kamustua duten apezentzat eta apostolutza lanak euskaraz egin behar dituztenentzat. Eta amaieran honela dio:

> «Jaungoikoak beza bedeinka Lizarrustiren lan hau euskeraren eta euskaldunen kristautasunaren eta fedearen eusle eta sendogarri izan dedin».

– Ondotik 339. orrialde arte Lizarrustik prestatutako homiliak dira.

– 339-394 orrialdeetan Iraizozko Polikarpok egindako 16 hitzaldi berezi tartekatu zituen.

– 395-415 orrialdeetan, aurkibide zehatza dator.

Nihil obstat Fr. Felipe de Fuenterrabia «censor de la Orden» eta Fr. Florencio de Artabia «ministro provincial» kargudunek 1960ko martxoaren 15ean sinatu zuten. *Imprimatur*, berriz, Juan Ollo Iruñeko elizbarrutiko Bikario Nagusiak urte bereko martxoaren 16an.

Lizarrustik bere sarreran argitzen du erabili zituen Ebanjelioko euskarazko testuak Polikarpo Aita kaputxinoak euskaratuak zirela. Liburuaren eskaintza ere idatzia dago. Honela dio:

> «Nils M. Holmer eta Vania Abrahamson Sueziako euskal berri eta euskalzale jator eta guztiz ospetsuei, biotz biotzez adiskidetasun agiritzat eskeintzen diet».

N. Tauer-i idatzi zizkion zenbait gutunetan ikusten da Lizarrusti ilusioz beterik zegoela liburu honen argitalpenarekin. Honela dio horietako batean:

> «Bada urte t'erdi liburua prest daukatela (...) bañan zensurako gora-berak dirala, diru kontua dala... atzeratu zait (...) Eztakit illabete onetan edo otsaillan argitaratuko ote didaten»[12].

Arrazoi hauek edo bertze batzuk zirela medio, kontua da Lizarrustik ez zuela argitalpen hori ikusterik izan. Oraindik gehiago, 1961eko ekainaren 30ean –Lizarrusti ordenatik atera eta 17 egun geroago– iritsi zen komentura Iruñeko Gomez argitaletxeko nagusia zen Felipe Gómez Alonso jaunaren gutuna. Bertan dio ezinezkoa ikusten duela liburu hori argitaratzea. Bi arrazoi nagusi ematen dizkio, bata, edizioaren kostua altua izanen zela eta salmenta, berriz, murritza; bertzea, liburuaren edukiarekiko zalantza[13].

Artikuluak

Gorago aipatu dugun bezala, *Zeruko Argia* aldizkari berrituan bere arduarapekoa izan zen «Kristau-ikasbidea» atala. 1954ko urtarrilean 1. zenbakitik hasi eta 1956ko apirilean atera zen 27. zenbakira arte 24 artikulu idatzi zituen «Lizarrusti» izengoitiarekin sinatuak. Bistakoa denez, Jesukristoren biziarekin eta kristautasunarekin zerikusi duten gaiak azaltzen ditu.

Atal horretaz aparte, bertze zenbait artikulu ere idatzi zituen. «Umeen txokoa» atalean «Aitona» ezizena erabiliz 14 ipuin argitaratu zituen, 1954ko irailaren eta 1957ko azaroaren bitartean[14]. Bertze batzuk ere idatzi zituen, horietako lau euskararen balorazio eta aldarrikapenaren alde eta, batik bat, Elizak euskaldunei euskaraz egiteko beharra azpimarratuz, bi «Lazkoz», bere hirugarren deiturarekin izenpetuak, bat «Lizarrusti» izenarekin eta bertze bat «Baita Inglaterran ere» izenburukoa sinatu gabe, baina N. Tauer-i berea

---

[12] 1961eko gutuna.

[13] Honela dio gaztelaniazko testuak: «Según información que me han dado (ez du esaten nork eman dion) no parece que el libro corresponda a la corriente, en contenido y desarrollo, a la técnica dominante en obras de esta naturaleza, en las que más que la forma expositiva se busca abundancia de ideas y esquemas en las que pueda escogerse para luego acomodarlas y desarrollarlas libremente».

[14] Ikusten denez, interes handia zuen ipuinekin. Norbert Tauer-i idatzi zizkion gutun frankotan behin eta berriz eskatu zizkion hango ipuinak *Zeruko Argia*n argitaratu ahal izateko.

dela aitortzen diona. Azkenik, Joxe Azkarate euskaltzale aniztarraren goratzarrekoa «Idoya» izengoitiarekin sinatua.

Bigarren epekoak dira, hots, kaputxinoen ordenatik atera ondokoak, hiru aldizkari hauetan idatzi zituen artikuluak: *Príncipe de Vianan* 26 artikulu 1974 eta 1981 bitartean, *Goiz Argi*n 80 artikulu 1976 eta 1986 bitartean, eta Sakanako *Guaixe*n sail ederra 2001etik zendu zen arte. Ia beti «Lizarrusti» izenpetuak eta noizbehinka «Santiago Ezkerra». Gai asko ukitu zituen artikulu horietan, bertzeak bertze, kultura, gizartea, giza-balioak, ohiturak, heziketa, euskara, euskaldunen izaera, Euskal Herria, Nafarroaren euskal izaera, demokrazia, giza-eskubideak, elkartasuna, justizia, askatasuna, indarkeria, ustelkeria, natura, osasuna, elikadura, gosea, etorkinak... Horietako gehienen inguruan bere kezka bizia azaltzen du, bai eta pentsaera eta ideologia pertsonala ere.

Bigarren epe honetan «Erdara-euskara hiztegia» prestatu[15] eta argitaratu nahian ibili zen, baina lehenago «Urte guziko homiliak» izeneko bildumarekin gertatu zitzaion bezala, asmotan gelditu zen. Ikusten denez, saiatu zen argitaratzeko ahaleginetan, baina, ematen duenez, ez zioten aukerarik eskaini. Hala diotso Jose Mari Satrustegiri:

> «Antolatuta daukat Erdal-Euskal Iztegi bat. Gutxi gora-bera, seireunen bat orrialde aundi izango ditu. Berreun ta ogei ta amabost orrialde garbian jarrita dauzkat. Lantegian, tarteka-tarteka egiña det. Saiatu naiz gaur erabiltzen diran erdal itzak ere jartzen, euskera gaurkotzen. Argitaratu nai nuke; ori da nere asmoa. Bañan ez dakit zer irarkoletara jo eta nola argitaratu ere. Nik ez daukat dirurik argitaratzeko. Etxe auek begiratu ditut, bañan iñun ere baietzik ez: Auñamendi, Itxaropena, Ediciones Guipuzcoanas, Leopoldo Zugaza (Durango), Cinsa. Zuk mesede au egin dezakezu, begiratuz argitaratu lezaken etxeen bat? Ala baldin bada, esaidazu»[16].

Horietaz gain, Norbert Tauer eta Nils Holmer jaunekin postazko harremanak izan zituen. Lehenbizikoari idatzitako 24 gutun Euskaltzaindiaren

---

[15] Hiztegi horren berri ematen du *Goiz Argi*n argitaratutako «Batasunean indarra» (1976) eta «Abertzalea naiz» (1980) artikuluetan, bai eta 1977an N. Tauer-i idatzitako gutunean.

[16] 1978ko gutuna.

Azkue liburutegian aurkitzen dira, Holmerri idatzitakoak, berriz, ematen duenez, ez dira inon gorde.

Erran bezala, Santiago Ezkerra 1957an euskaltzain urgazle izendatu zuten, baina aipatzekoa da Euskaltzaindiarekin ez zuela harreman nabaririk izan. Gainera, Akademiari dagokion hizkuntza gidaritza aitortzen bazion ere, ez zuen bat egin Euskaltzaindiak 60ko hamarkadaz geroztik hartutako erabaki garrantzitsuenekin, grafia kontuetan batik bat. Hona zer zioen Euskara Batuaz idatzitako artikulu batean:

> «Ona emen Euskaltzaindiaren lana: Euskaltzaindia izkera garbitu, zuzendu, erraztu, orraztu, indartu, edertu eta gordetzeko antolatua da, eta ez zikindu, zaildu, nastu eta ondatzeko. Euskera batua, bai; bañan nolako batasuna? Zer neurri eta bide artu bear dira batasun ori lortzeko? Nork eman bear ditu neurri oiek? Euskaltzaindian arkitzen diran izkeran oituenak edo. Oiengan izan bear da euskerarenganako ardura».
>
> Baina aitzinago dio:
>
> «Zenbait aldizkari irakurri ditut euskeraz, eta aspergarri izan zaizkit idazkerarengatik. Eta baztar batean gorde ditut geiago irakurri gabe. Ez naute siñestarazten aietan idatzita agertzen diran ainbeste **h** eta **a**-ek. Idazkera oiek euskera ikasi nai dutenei erraztasunak emateko garaietan... Euskerak badu naiko zailtasun guk geiago zailtzeko»[17].

Hortaz, eta nolabait laburbiltzeko, erran dezakegu 60ko hamarkadan aingurak bota eta gehiago altxatu gabe, behin betiko garai hartan gelditu zen idazle oparoa dugula *Lizarrusti*; euskaltzale fina, euskararekin konprometitua eta konpromiso hori, zailtasunak zailtasun, bere biziaren amaiera arte etengabe betetzen saiatu zena.

---

[17] *Goiz Argi*, «Euskera batua» (1979).

Roger Idiart
(1931-2009)

DAVANT IRATZABAL, Jean-Louis

Donostian, 2010eko urtarrilaren 29an



Roger Idiart Azkainen sortu zen 1931ko urtarrilaren 15ean eta Kanbon zendu 2009ko abuztuaren 27an, 79. Urtean. Azkaingo laborari / nekazari familia bateko seme zen, bortz haurretarik laugarrena. Hona bortzen izenak : Mixel (apeza hau ere), Jean, Helene arreba (zendua), Roger, Pepe.

Pepe sortzean, ama hil egin zitzaien. Rogerek urtebete baizik ez zuen. Aitak bortz haurrak eraiki zituen, ama zenaren Mimiague ahizpen laguntzari esker.

Rogerek lehen mailako ikasketak egin zituen Azkaingo eskola publikoan, bigarren mailakoak lehenik Hazparneko Saint Joseph kolegio katolikoan, eta gero Uztaritzeko Saint François Xavier ikasketxe katolikoan. Apezgai ikasketak Baionako Seminario handian egin zituen eta Soldadu Zerbitzua bete zuen Parisen.

Apez ordena hartu zuen 1955eko ekainaren 29an Baionako katedralean.

Letretako lizentzia Frantziako Tolosan prestatu zuen 1955eko udatik.

Frantsesezko irakasle sartu zen 1959ko udatik Oloroeko Saint Joseph ikastetxe katolikoan ; gero Hazparneko Laborantza Eskolan jardun zuen 1962tik 1965era ; azkenik Uztaritzeko Saint François Xavier delakoan 1965etik 1968ra.

Euskera. 2009, 54, 3. 1855-1860. Bilbo
ISSN 0210-1564

1968ko maiatz famatu hartan ez zelakoan geldirik egon, ondoko urrian Zuberoara desterratu zuten (Xiberoa baxenabartar eta lapurtar apezen Siberia ei baitzen). Hor egon zen 23 urtez, 1968tik 1991ra, baina « gulag » horretan hastetik laketu.

1991eko udan Ainhoako erretor izendatu zuen Pierre Moleres apezpikuak ; 1995eko maiatzean Zuraideko erretor ; 1998ko maiatzean Kanboko apez laguntzaile, eta 2006ko uztailan hor erdi erretiroan, 75 urteak ongi beterik : gurekin erkatuz, erran nezake emeritu gradora iganik…

Kanbon zendu da 2009ko abuztuaren 27an, paralesia luze baten ondotik, hau odol zain bateko ebakuntzari zor ziola: 78 urteak aitzineko urtarrilaren 15ean bete zituen.

Roger Idiarten euskal lanak

Iparraldeko euskal irratien aitzindarietarik izan zen hirurogeiko hamarkadan, Maite Barnetxe zenaren inguruan, lapurtar adiskide batzuekin, Jean Garreto paristar kazetalariaren ardurapean, Biarritzeko Casino delakoan.

Teatroko taula zuzendari lanetan jardun zuen Piarres Larzabalen bi antzerkitan : bata Orreaga « pastorala gisako ikusgarria », 1964an antzeztua Azkainen eta gero Donibane Lohizuneko «Théâtre de la nature » delakoan ; bertzea Matalaz, Baionako antzokian emana 1967an.

Bitartean 1966an, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatua zuen.

1968tik siberiar desterruan, Zuberoako eliza txiki eta baseliza multzo bat birrantolatu zuen gazte batzuen laguntzarekin, haietan bereziki flandriar ikasleak opor denboretan.

Urte askoz Enbata astekarian parte hartu du, sinatu gabeko editorialak euskaraz eta zirto umoretsuak frantsesez idatziz, azken hauek lagun batzuekin, « Tartaro » sinadura kolektiboarekin. Enbata kazetan gisa batez Piarres Larzabal herritar handiaren segida hartu zuen : Larzabal apez euskaltzaina, sortzez azkaindarra, Enbata aldizkariaren zazpi sortzaileetarik bat izana baitzen.

Iparraldeko apez abertzaleen taldean ere parte hartzen zuen : ardura biltzen ziren, gertakizunen arau Euskal Herriko egoeraz eta euskaldunen eskubideez oharrak agiri eta kazetetako artikulu batzuen bidez hedatuz.

Beraz Roger Idiart idazlearen aipatzen hasia naiz dagoeneko, eta hemen Euskatzaindiko bilkura batean gaudenez, hori bera dut egoki eta zuzen den bezala gaurko ardura eta aipagai nagusia.

Haren gaztaroan, eta gero laster nirean, ikasketa klasikoak ziren oraino bikainenak : ez zen moda berria, ez eta txarra. Beraz gure Roger kultura humanista orokorrez ongi hornitua zegoen, greko, latin eta frantses literaturen bitartez, azken honetan lizentziaduna etta bederatzi urtez bigarren mailako irakasle izana berriki aipatu ditudan hiru lizeo-instituto katolikotan (1959-1968). Begi ona zuen, espiritu erne, zalu eta xorrotxa, umoretsua ber denboran, eta luma elea bezain trebea. Dohain eta karta horiek guziak edukiz, ezin zen idazle txarra izan, eta bere idazlan joriez ederki erakutsi du.

Euskara eder eta gozoa zuen, bai lapurteraz, bai zubereraz. Azkaingo lapurtera, etxean eta herrian edoskia, parrokiako elizan plomatua, literaturako etsenplu bikainez aberastu zuen, bereziki Axularren liburutik, eta Piarres Larzabal herritar adiskidearen antzerkitik.

Zubereraz gero « hanitx ontsa » ikasi zuen, Arbailan eta Basabürüan jendeekin mintzatuz,

Bereziki Etxahunekoekin : aho-mihizkoan prefosta, baina zinez kalitate onekoan. Zuberoako

Literatura idatzia haatik, ez dut uste hainbat zuenik, zuberotarrek ere ez dutelarik dastatzen, ez baitute euskaraz irakurtzen, salbu pastoraletan eta kantu profano ala eliztarretan. Eta hain zuzen, bi genero literario horietan da gehienik agertu Roger Idiarten eskua.

Kantuan aski ekoitzi du, musika barne, bai elizakoan, bai kanpokoan. Azken honetan zaigu ezagunenik, belaunaldi berriak ez baitira hainbat elizan ibiltzen, salbu lagunen eztei eta ehorzketetan. Nork ez ditu gogoan bereziki « Baionako suprefeta », « Basabürüan Montori » eta « Ez gal gure odol beroa, Bizi dadin gure Xiberoa » ?

Elizakoan, zenbat kantika berri, bere euskalki batean ala bertzean ! Gainera Ebanjelioa kopla eta bertsotan laburbildu digu lapurteraz « Berri ona kantuz » liburuxkan.

Bertzalde, edozein gertakariren kariara, holako edo halako pertsonaren ohoretan, bertso polit batzuen idaztea maite zuen. Kantu eta bertsogintzako ekoizpen horrek guziak, osoan biltzea merezi luke nire ustez, altxor baliosa bailitzateke euskaldun eta euskaltzale guzientzat.

Haatik ez zen obra laburretara mugatu gure azkaindar apez ausarta, zuberotar berria. Zuberoako santutegi gorenera igotzeko atrebentzia eduki zuen, maratoizale, trajeriako sugarra eskuan, bi pastoral idatziz : bata « Xalbador », bertzea « Etxahun-Iruri ». Lehena 1991an larraintarrek antzeztu zioten, arras ederki. Izigarriko jendetza bildu zuen Euskal Herri guzitik, bereziki bistan dena Zuberoa eta Nafarroa Beheretik, Urepeleko artzain bertsolari hunkigarriaren omen eta oroimenez.

Bigarrena 2001ean, Irurin jokatu zioten Iruri eta Zalgize-Doneztebeko herritarrek. Lehena baino sotilagoa izan zen, bizi-bizia, polita. Damurik, bertze pastoral bat ere agertu zen uda horretan, « Xiberoko makia », nik idatzia, sohütarrek emana. Halere bakoitzak, bere bi emanaldietan, sei mila entzun-ikusliarrez goiti bildu zuen, asko baita. Urteko bakarra izanez, batak ala bertzeak Larraineko marka berdindu zezakeen, gaiak halakoak baitziren, zinez herrikoak eta erakargarriak. Geroztik holako lehiak baztertu ditugu, arrisku gehiegi ekartzen dutelako gisa guzietara.

Egiari zor diot aitormen hau ere : Roger pastoral idazleari buruz, kritika sakonik korritu zen erdi ahapetik ondoko denboretan, bai ezin aipaturiko bi olerkarien nortasuna ez zuela zen bezala plazaratu. Xalbador gehiegi politizatu omen zuen idazleak, bere ikuspegi eta xede abertzaleak haren bitartez aldarrikatuz. Etxahun aldiz, beti alegera erakutsi zuen, ekibegiko gizona, poetaren eskualde sakona, bihozmina eta itzal-herria izkutuan utziz, ezabatua bezala.

Haatik egia da ere oso neke dela hil berri den heroi baten aipatzea teatroan, haren lekukoak han beitaude begia zorrotzik, epaile bilakatzeko gai, pertsonaia horrez eta garaiko gertakizunez beren ikuspegi berezia gogoan

ongi finkatua, ezin hunkitua. Zailtasun hori bera ongi frogatua dut nihaurek gai modernoa duten nire antzerkietan, bereziki « Xiberoko makia » piezarekin. Beraz Idiarten ausartzia prezatzen dut, eta idazlearen askatasuna babesten.

Bertzalde Roger berenaz umoretsu porrokatua zen eta zinez arazoen irriaz artatzera ekarria, erromatar zaharren ildotik : « castigare ridendo mores ». Orokorkiago, hori da baxenabartar eta lapurtar askoren joera naturala, edo kulturala : nigar egiteko tirria ere maiz arraileriaz estaltzen dute. Joera hori nabaria da bereziki Nafarroa Behereko antzerki zahar ala berrian. Zuberotarrak minberago gara, eta ez idurian ilunago : gure historia bortizkeriaz aberatsa ikusten dut, adibidez Bereterretxe, Oier III, Matalaz, Etxahun Barkoxe, Jon Mirande, Xiberoko bi makiekin. Saminak bere partea badu pastoralean, zerbaitengatik « trajeria » deitzen da, tragedia puntu batekin, zirrara pizle. Beharbada beltz edo gorri horretarik poxi bat eskas zuten Idiarten bi antzerkiek, bereziki bigarrenak ? Dena dela, estetikaz eta espiritu xorrotxez aberatsak ziren, eta pastoral on batean beharrezkoa den euskara ederrean oinarrituak.

Kezka bat halere : Roger Idiart euskaltzain urgazleak Euskaltzaindiarekin zer harreman ukan zuen ? Gure Akademiari estimu handia ziola badakit, baina honen arauez berri guti hartzen zuen antza denez, iparraldeko euskaltzale askok bezala. Grafia zaharretik guti urrundu zen zubereraz, eta horrek ez nau harritzen, grafia batua gure ahoskeratik hein bat aldentzen delako. Deitoragarriago zait lapurteraz berdintsu egitea, belaunaldi horretan ohi den bezala, bereziki nazioarteko hitzen eta formen idazkeran, adibidez *izma* idatziz *ismo* bukaeraren ordez. Iparraldean joera bat badago hitz eta forma horien frantses ahoskeratik hartzekoa, izkiriotik hartu beharrean : horrela S letraren ordez usu Z sartzen zaigu euskaran, liturgiako testuetarik ikus dezakegunez : eukariztia, Izai, Izrael… eukaristia, Isai(as), Israel idatzi behar litzatekeelarik. Horretan bide zuzena erakusten digute Junes Casenavek eta Marcel Etxehandik Testamentu Berriko itzulpenetan. Arazo hori orokorra dugu Iparraldean, eta bertze honekin dabila : Euskaltzaindiaren aholku eta erabakiak nola ezagutaraz iparraldeko basamortuan, eta bereziki Xiberoko Siberian ? Dena dela, hutsune horrek ez dio ezer kentzen gure gaurko «süjetaren » merituari.

Zuberoan eta Lapurdin indartsu daude Roger Idiart idazlearen fama eta oroitzapena. Azkaingo herriak ere toki onean dauka bere haur ezagunen artean, Elizalde / Zerbitzari eta Piarres Larzabalen konpainian, bere hirugarren apez idazle dotorea. Goian bego. Berriz arte laguna, betiereko bortuan, Orhin eta Larrunen.

Mikel Atxagari eskainitako hilberri-txostena (1932-2009)

GARMENDIA LASA, M. Karmen

Donostian, 2010eko urtarrilak 29



Euskaltzainburua, euskaltzainok, gaur gogora ekarri ditugun jaunen familiartekoak, lagunok:

Mikel Atxaga Fernandez, lagun maitea, urnietarra jaiotzaz, 2009ko irailaren 10ean hil zitzaigun Donostian. Juxtu urtebete lehenago, 2008ko irailaren 9an, Arantzazuko Ama Birjinaren egunez, aste batzuk lehenago antzeman zioten minbizi aztarnen frogak hartuta joan zen Donostia Ospitaleko Onkologia Zerbitzuan guztiz maitekiro eta arretatsu zaindu duen Josep Piera medikuarengana, une oro bere ondoan izan duen Maria Angeles emazteak lagunduta. Urtebete hori ez da urte samurra izan. Egin ahala guztiak egin arren, gaitz erasotzaileari Mikel-ek ezin izan dio borroka irabazi. Baina Mikel Atxagak, bizitzan guk uste baino sarriagotan gertatu zitzaizkion sufrimendu egoera latzetan bezalaxe, oraingoan ere duintasuna, jendetasuna eta, zinez azpimarratu nahi dudan koherentzia, bere bizitza osoko oinarrizko printzipio eta sineste sendoekiko erakutsi dizkigu.

Mikel-ek, buruz beti bezain argi, baina osasunez oso makaltzen hasita zegoen garaian, ihazko «Argia saria» jaso zuen bihar urtebete. Apirilaren 1ean berriz Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak «bidegile partikularrari» es-

Euskera. 2009, 54, 3. 1861-1863. Bilbo
ISSN 0210-1564

kaini zion omenaldia. Bai batean eta bai bestean, apur bat lotsaturik, bihotza esker onez gainezka idatzi zituen hitzak gertuko adiskide bidez helarazi zituen: Elixabete Garmendia eta Xabier Euzkitze. Zorionez, bai sariak eta baita omenaldiak ere, aukera aparta eman digute Mikel Atxagaren bizitza osoko berri hobeto ezagutzeko eta baita euskal kazetaritza modernoari egindako ekarpen mardul, aintzindari eta aberatsa aitortzeko ere. Kultura sailak, omenaldirako paratu zuen **Mikel Atxaga, bidegilea** liburuaz gain, laister, Elixabete Garmendiak prestatu duen **Mikel Atxaga** biografia emango du argitara «Bidegileak» bilduman. Nire iritzi apalean, bi argitalpen horietan, eta heriotza garaian kaleratutako artikulu eta berrietan ederki jaso dezakegu euskaltzain urgazle honen berri.

Nik, ordea, badut Euskaltzaindiaren bilkura honetan Mikel Atxagari eta Joxe Mari Aranalde bere lagun minari pertsonalki bihotzez eskertu nien laguntzaren arrazoi emateko. 1985eko abuztua Donostian. Hilabete eskas besterik ez Ardanza lehendakariak Hizkuntza Politikarako eta Aholku Batzordearen idazkari nagusi izendatu ninduela. Ez zen hura garai erraza zuetako askok ondotxo dakizuen bezala. Nire aurrenengo erabakietako bat Koldo Mitxelenarekin hitzegitea izan zen eta Mikel Atxagari eta Joxe Mari Aranalderi lagun egiteko eskatu nien. Laurok otordua egin genuen, sekula ahaztuko ez zaidana, ez jakiengatik, bai ordea otordu ondoren iluntza arteko solasean aritu ginelako. Hizketagai: *Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia, Uzei, euskararen modernizazioa, Euskararen Aholku Batzordea...Eta nola ez, gori-gorian zegoen egoera politikoa, indarkeria, eta baita fedea ere, erlijioa, bekatua, bizitza eta heriotza... Mitxelenak bere baitan zituen kezkak, saminak, baita haserrea ere, ez zituen batere izkutatu. Ez zen hura otordu samurra gertatu zenbait unetan, baina zinez esan dezaket ez zela inoren kaltetan izan, mesedetan baizik. Hirurak eskertu nahi ditut gaur zuen aurrean.

Mikal Atxagak oso argi izan du beti erakundeen egitekoa eta lekua gizartean, eta zenbat lan, elemena lan isil, ez ote duen egin erakundetze horren alde, euskararen alorrean era berezian. Nik neuk, eta lankide izan nituenak HPINan, EABan eta Kultura sailen geroxeago, zeinen lagun argia, adeitsua eta esku zabala izan genuen Mikel. Badakit, gerora ere, bere jarrera horrek berdin jarraitu duela. «Bidegileak» bilduma asmatu eta abian jartzeko erabakia hartu nuenean hantxe izan genituen Mikelen aholku eta iritziak. Joseba

Intxaustik bildumaren zuzendaritza utzi zuenean Mikel Atxagari eskaini genion ardura eta 1996tik heriotza arte erabateko maisutasunez zuzendu du. Maria Angeles Lizarralde emazteak bildu berri ditu Mikelek hil aurretxoan prestatuta utzi zituen ohar eta hurrengo argitalpenetarako proposamenak.

Bada, Mikelen adore, eskuzabaltasunari eta siniste sendoei zor diegun zerbait, gaitzak mendean hartu aurretik burutua: José Antonio Pagolak idatzitako **Jesús, aproximación histórica** liburuaren itzulpena, **Jesus, hurbilketa historikoa** deituraz argitara emana. Maria Angeles emazteak daki ondoen zenbat orduz, nolako arretaz, zeinen maitekiro jardun den Mikel lan hori, bikaina benetan, burutu arte. Barruan arantza bat zuela joan zitzaigun, ordea, Mikel: euskarazko edizioa argitaratzeko atzerapen luzeak nahigabe handia sortu zion, baita haserre punttu bat ere esango nuke. Azkenean bera hil eta aste gutxitara eman zen argitara, irailaren 29an, J.M. Uriarte gotzainaren eta J. A. Pagola egilearen ezpairik gabeko esker onarekin. Pagolak hitzaurrean hauxe dio: *«Mikel, lagun maite eta ahaztezin hori, ez dakit nola adierazi zuri dizudan esker ona. Liburu hau euskaldunen eskuetan ikusteko irrikaz eman duzu azken arnasa (...) Badakit nola gozatu duzun Jesusi buruz idazten eta badakit dohain egin nahi izan duzula, zure herriarentzat opari emana. Bizitza osoan bihotz-barrenean izan dituzu Nazareteko Jesus, euskara eta gure herria, zure biziaren pizgarri»*.


Heriotzako atarira beregan beti sumatu genituen jendetasun eta argitasunarekin iritsi zen, nahiz gaitzak gogor erasotu. Ondo dakite hori familiakoek, era berezian Maria Angeles emazteak, Garazi eta Naroa alabek, Jon suhinak, lagunek, zaindu zuten medikuek. Xabier Euzkitzek Urnietako parrokian, hileta-elizkizuna amaitzean, Mikel-en gorpuaren aurrean kantatu zion hartatik hauxe ekarri nahi izan dut:

«Ez zaitugu ahaztuko,
Atxaga kuttuna,
baina hau hutsunea
utzi diguzuna...
Adio, lankidea!
Adio, laguna!
Eramazu zurekin
denon maitasuna.»

Juri Vladimirovitx Zytsar-i, in memoriam (1928-2009)

KINTANA URTIAGA, Xabier

Donostian, 2010eko urtarrilaren 29an



Euskaltzainok, agintariok, jaun-andreok, agur guztioi.

Euskararen ezaugarriak aski bitxi eta harrigarriak badira ere[1], gauza jakina da gure hizkuntzak hedadura txikia eta hiztun kopuru urria daukala. Egoera hori kontuan harturik, ez dira asko izan, zoritxarrez, gure mintzairaz arduratu diren ikertzaile arrotzak. Alde batetik, hori espero izatekoa zen, hurbiltasun eta urruntasun geografikoak bere eragina izaten duelako. Gogoan izan, adibidez, XIX. mendearen hasieratik batik bat,

[1] Europako kokagune honetan behintzat. Izan ere, beharbada euskararen berezitasuna handitzearren, kontu hau aipatzea eskuarki ahanzten da, baina gogoratu beharko genuke munduko hizkuntza gehienak eranskariak direla, hots, euskararen tipologia berekoak. Batzuek, gainera, hiztun ugari dituzte (japonierak eta turkierak, adibidez) eta tipo berekoak dira Amerikako indiarren hizkuntza gehienak (kitxua, nawatl, maia, guarani...) eta Afrikako eta Asiako ez gutxi ere. Kontua da, baina, historian zehar, beren jatorrizko eremutik kanpoan, politika, konkista eta merkataritza arrazoiengatik,mundutik gehien hedatu direnak bestelako tipologietakoak ditugula, kopuruz gutxi izan arren. Alde batetik hizkuntza flexiboak, hots, indoeuroparrak (hindiera, mintzaira latindarrak, germaniar eta eslaviar hizkuntzak), eta semitarrak (arabiera, hebreera) eta, bestetik monosilabikoak (txinera, adibidez).

Euskera. 2009, 54, 3. 1865-1877. Bilbo
ISSN 0210-1564

ezagunak izan ditugula frantses, espainol, aleman, nederlandar, ingeles eta italiar ikertzaileen izenak, eta lehenago ere beste zenbaitzuk interesatu izan direla gutaz. Halere, urriagoak gertatu dira ekialdeko herrietako euskalariak, segur asko distantziagatik eta, oraintsu arte, elkarrekiko harremanak izateko zailtasunagatik. Horrexegatik, besterik ez balitz ere, berezikiago eskertu beharko genieke atzerritar ikertzaile horiei erakutsi diguten abegi ona eta gure alde egindako lana. Are gehiago, gainera, bertoko seme-alaba izateaz ahoz eta aldizka harrotzen diren batzuek egunero beren eginekin gure herriari egiten dioten gutxiespen eta mesprezio iraingarria betaurrean izanda. Beraz, eskerbidean abiatuta, gaurko ekitaldi honek aspaldiko zorra aitortu eta nolabait kitatzeko aukera emanen dit.

Juri Vl. Zytsar errusiar euskalaria 1928. urtean jaio zen Siberian, Volga ibaiaren ondoan, Kuibyxev zeritzon hirian, antzinako -eta berriz ere oraingo- Samara-n[2]. Lehen ikasketak bere auzo-eskolan egin zituen. Umea zenean, auzokide batzuek hala eskaturik, bere herriko taberna batean prentsako berriak irakurtzen zizkien. Orduan errusiar asko irrikan egoten ziren Espainiako gerra zibilaren nondik norakoak jakiteko, sobietar gobernuak Espainiar Errepublikako *«Frente Popular»*-ari eskaintzen zion laguntzagatik. Izan ere, ordura arte Sobietena zen munduko estatu sozialista bakarra, eta esperantza handiarekin begiratzen zioten Espainiari, hura laster bigarren estatu sozialista bilakatuko zelakoan.

---

[2] Erdi Aroan Samara deitzen zen hiriari 1935-1990 bitartean *Kuibyxev (КУЙБЫШЕВ)* izena jarri zioten, deitura bereko iraultzaile komunistaren omenez (Valerian Vladimirovitx Kuibyxev, 1888-1935). Politika-gorabeheren eraginez tokiei izena aldatzeko ohitura hori oso hedaturik dago oraindik ere Errusian. Hortxe ditugu, adibidez, 1703ko maiatzaren 27an Petri I.a Handia tsarrak fundaturiko *Sankt Peterburg* ezaguna, 1914-tik 1924ra artean, *Petrograd* izenaz eslaviartua, geroago, 1924an, sobietar iraultzaren aitaren omenez, *Leningrad* birbataiatua eta, 1991tik aurrera, ostera ere, sortu zen garaiko izen jatorraz gelditua, hots: *Sankt Peterburg*: Gauza bera esan daiteke 1589tik 1925era bitartean *Tsaritsyn* deituriko hiriaz ere, harrezkero eta 1961ra arte *Stalingrad* deitua, eta ordutik gaur arte, *Volgograd*. Beraz, *nihil novum sub sole*. Gurean, halaber, Espainiako gerra zibilaz gero, horixe bera gertatu da hiri eta herri askoren euskal izenekin *(Guernica/Gernika, Rentería/Errenteria, Fuenterrabia/Hondarribia, Iruñea/Pamplona...)*, eta, nola ez, kaleen izenekin ere bai; horretara, 1936z gero faxistek izendaturiko *Calle del Generalísimo Franco, José Antonio Primo de Rivera, Avenida del Ejército, 18 de Julio* haiek gaur, berriro, *Sabino Arana, Jose Antonio Agirre, Autonomia, Askatasuna...* birbilakatu dira.

Errusiako langile haiek Juri txikiari, prentsaren esanak irakurtzeko ez eze, interpretatzeko ere eskatzen zioten, eta, bere urte gutxietako jakiteurriagatik, besterik ezin erantzun zienean, haiek haurrari besoetatik heldu eta urduritasun-haserrez astintzen omen zuten gaixoa. Maiz, tabernako zurezko mahai ilunen gainean vodka tantak isuri eta hatz bustiekin lerroak marrazten aritzen ziren. Horrela, herriko jende xehe haiek, goi mailako estrategak balira bezala, nolabaiteko mapak zirriborratzen zituzten, gainean errepublikarren eta faxisten tropa-lerroen irudimenezko kokaguneak ezartzeko. Gizon haiek gerraren bilakabide eta ustezko amaieraz zerabiltzaten eztabaida sutsuen lekuko hurbil eta isila izaten zen Zytsar gaztetxoa, eta giro horretan entzun omen zuen lehen aldiz euskaldunen izena, borrokaideen artean.

Gerrako kontuoz gainera, beste behin ere izan zuen Zytsar umeak Iberiar Penintsulako gauzen berri. Dirudienez, goiz batean, jendea etxetik irtetean hiri osoan halako lurrin atsegin eta berezia usnatzen hasi zen, Jurik bederen orduraino inoiz sentitu gabea. Haur guztiak, instintuz, usain haren iturriaren bila abiatu ziren lasterka, ongi baitzekiten gauza berri eta on gehienak bezala, horrek ere trenbidetik heldu beharko zuela. Bai eta bete-betean igarri ere: hantxe ari ziren langileak bagoietatik kutxa batzuk deskargatzen, laranjaz beteak. Siberiako eskualde eta garai hartan behintzat, zitrikoak oso bakanak izaten ziren oraindik, eta askorentzat zeharo ezezagunak ere bai. Eta, halere hantxe ziren, beren fruta-usain gozoaz Kuibyxev osoa blaitzen, seguraski paradisua izan zitekeen nonbaitetik iritsiak. «Orduantxe ikusi nituen, lehen aldiz, latin-alfabetoaz idatziriko hitz batzuk, kaxen etiketetan jarriak» aitortu zidan Jurik behin, Georgiako hiriburuan, Tbilisin, elkarrekin paseatzen genbiltzanean.

Juri Zytsarrek gaztetandik erakutsi zuen hizkuntzak ikasi eta ikertzeko zaletasuna, eta, bere jatorrizko mintzairaz gainera, frantsesa, alemana, espainiera eta ingelesa bereganatu zituen aski laster. Geroago, hizkuntza klasikoak ere bai: latina eta greziera alegia. Bere irakasleen artean, Vladimir Fiodorovitx Xixmariov akademikoa eta Georgii Vladimirovitx Stepanov irakasle hispanista euskaltzaleak izan zituen. Horien gomendioari jarraituz, euskaraz ere interesatu zen eta gure hizkuntzari buruz idatzi zuen, hain zuzen, bere tesia, 1955ean Leningraden aurkeztu zuena. Geroago Nina

Alexandrovna andrearekin ezkondu eta bere jaioterriko institutu bateko zuzendaria izan zen zenbait urtetan.

Euskaldunekiko harremanak lantzeko aukera Moskun ukan zuen Zytsarrek, bertan bizi zen eibartar bati esker, hura, Espainiako gerra zibila amaitzean, Euskal Herriko beste komunista batzuk bezala, Sobietar Batasunera babes bila joana zen eta. Horrexekin izan zituen euskara biziarekiko lehenengo harremanak Juri gureak. Horrelako komunista atzerriratu horien arteko giroan ibili eta hantxe ezagutu zuen Dolores Ibarruri, «Pasionaria», eta berorrek ez zion inoiz ezkutatu sentitzen zuen euskaltzaletasun beroa[3]. Zytsarrek ere beti erakusten zizkidan andre horrengana zeuzkan estimu eta mirespen zintzoak.

Juri Zytsar, bere ohiko irakasle-lanaz gainera, Errusiako gobernuak eskaturiko zeregin berezietan ere ibili zen, itzultzaile moduan, adibidez. Behin Nazio Batuen bilera batean jardun beharra izan zuen. Antza denez, tentsio handiko arazoa eztabaidatzen zen han, eta berari zegokion ingeles-errusiera arteko interprete-lana egitea. Lan horretan luzaro ibili eta gero, itzultzaile-kabinatik irten ondoren, berarekin hara joandako lagunek ea gaia eta eztabaidak zeri buruz izanak ziren galdetu omen zioten. Jurik honela ihardetsi omen zien: «Zer dakit nik ba! Nola nahi duzue, besteek diotena entzuten eta itzultzen nabilela, batera, nik esaten dudanaz ere konturatzea? Itzultzea bera ere asko eta sobera izan dut!». Une horietan, antza, automata hutsa bilakatzen zen, zioena ere ulertu gabe.

---

[3] Kontu hau gutxitan aipatu den arren, ondo dakit Dolores jendeak uste baino euskaltzaleagoa izan zela, bai Juri Zytsarrek hola esan zidalako, eta bai Amayaren, Pasionariaren alabaren lekukotasunari esker ere. Andre hau beraren amari Bilbon eskaini zitzaion omenaldi batean ezagutzeko aukera izan nuen. Behin, Amayari, Bizkaiko leku ikusgarrienetako batzuk erakusteko asmoz, turismo-ostera bat egitea proposatu nion. Izan ere, ia bizitza osoa atzerrian emana zuen, eta horregatik gogo handia zuen bere amaren jaioterria ezagutzeko. Ibilaldi horretan amaren anekdota ugari kontatu zizkidan; batzuk euskarari buruzkoak. Etxean, esaterako, euskal kantak sarritan kantatzen zituen Doloresek, eta, behin, Moskun antolatu zen Emakumeen nazioarteko Kongresu batean, Pasionariak teatro hartako eszenario gainera igo eta bertan bilduei bere sorterriko aire bat kantatzeko baimena eskatu zien. Holaxe entzun ahal izan zituzten hara mundu guztitik helduriko emakume haiek, Doloresen ahotik, «Gernikako arbola»ren doinua eta euskal hitzak, herriminez eta emozioz beteak.

Misio sakonagoa baina, Asian bete behar izan zuen. Gauza jakina da Estatu Batuek Viet Namen aurka egindako eraso-gerran, Sobietar Batasunak hango gobernu sozialistari laguntza ugaria bidaltzen ziola, industria- eta nekazaritzarako makineria, tresna eta ekipoetan batez ere. Dena den, material horiek muntatu eta erabiltzeko azalpen gehienak errusiera hutsean zeuden, eta horrek eragozpen ez gutxi sorrarazten zizkien vietnamdarrei. Hori dela eta, makinen atalen funtzioa oker ulertu eta piezak elkarrekin gaizki lotzen zituztelako, Jurik kontatzen zidanez, egunero matxura ugari gertatzen omen ziren, eta kasu batzuetan bidaliriko tresnen ehuneko laurogeiak alferrik hondatzen zitzaizkien. Hori konpontzeko, sobietar gobernuak Viet Namera errusiar irakasle batzuk igortzea erabaki zuen, bertakoei errusiera behar den bezala irakats ziezaieten.

Agintariek Juri Zytsar hautatu zuten lan horretarako, eta urte batzuk eman zituen han, errusiera-irakasle. Viet Namerainoko bidaia trenez egin zuen. Lehenik Siberia zeharkatu zuten mendebaldetik ekialdera, eta, geroago, Txina ere bai, iparretik hegoraino. Juriren hitzetan: «Gure trena Txinan sartu zenean ordura arte errusierazko irratiekin genuen kontaktua galdu eta txinerazko programak eta musika besterik ez genuen jasotzen. Oso aspergarria zen hura. Lehen inpresioan katu miaolariak entzuten ari ginela pentsatzen genuen, eta horrela, deus ulertu ezinik, egun batzuk pasatu ziren, zelai monotonoetan zehar. Goiz batean baina, eguzkia irten eta leihotik begiratzean, bat-batean dena aldatu zen, eta gure begien aurrean mendi makur eta paisaia harrigarriak ikusten hasi ginen, txinatar pinturetan ageri ohi direnak bezalakoak. Orduan, Txinako musika, ordura arte zentzugabeko miaokaden irudikoa, supituki konprenitu nuen, paisaia bera harekin kidetasun osoan zegoelako. Inpresio zirarragarria izan zen; ulertzeko, benetan bizi beharrekoa».

Helburura ailegatzean, bertako gobernuak eskaini zizkieten etxeetan egokitu eta berehala hasi ziren maisu-lanean. Hasieran ez zitzaien Juriri eta haren emazteari erraza gertatu Viet Nameko ohitura eta bizimodura moldatzea. Batez ere harategietan pitoiak eta antzeko sugetzarrak, jateko, nola larrutzen zituzten ikusi ondoren, bizirik oraino. Bestetik, harrera aski hotza egiten omen zieten vietnamdarrek sobietarrei. Geroago baina, elkar ezagutu eta bertako hizkuntza ikasi ahala, adiskide minak bilakatuz joan ziren.

Anekdota moduan, behin merkatuan fruitu handi eta urtsu bat erosi zuen Zytsarrek, eskolan jateko. Erdia jan eta beste erdia biharamunean amaitzeko asmoz utzi omen zuen. Hurrengo egunean baina, horren bila joan zenean, fruituaren arrastorik ez. Behin eta berriro gauza bera gertatu zitzaion, baina ezin zuten asmatu lapurra nor zen. Azkenean misterioa argitu zen. Eskola garbitzen zuen andreari galdetzean, baietz, bera izan zela aitortu zion kortesia handiz. Dirudienez, fruitu hura, behin ireki eta hasiz gero, berehala jan ezean, egun batetik bestera toxiko bihurtzen zen, eta Juriri ezer gertatu baino lehen, andre hark fruitua bildu eta zaramara jaurtitzen zuen. Noski, interesatuari, bere ezjakintasunagatik lotsa ez zedin, deus esan gabe.

Inoiz Hego Viet Nameko soldadu boluntarioak kalean gelditu eta berekin hizketan hasten ziren, beren emazte, seme-alaba eta senideen argazkiak erakutsi eta haiekin egon gabe zenbat denbora zeramaten kontatzeko. Maiz Ho Chi Minh-en hitzaldiak entzutera ere joaten zen. Jurik bere harridura adierazten zidan buruzagi txiki baina egoskor hark zeukan pazientzia amaigabeagatik, ongi baino hobeki baitzekien entzuleen galderak, argitasun-eskeak eta kritikak eroapenez jaso eta guztiei banan-banan erantzuten. «Sarritan ordu asko ematen zituen Ho Chi Minh-ek bere argudioak eta arrazoiak azaltzen, entzule zituen boluntarioak konbentzitu arte, baina behin hori lortu ondoren, soldadu haiek geldiezineko borroka-makina bilakatzen ziren. Horrela irabazi zuten gerra vietnamdarrek, amerikarren nagusitasun teknikо eta militarra gorabehera» ziostan Zytsarrek mirespenez.

Juri Zytsarren Viet Namgo ikasleek talde berezi-berezia osatzen omen zuten. Alde batetik, errusiera nahikoa zekitenak zeuden, eta horiek ikasgelako idazmahaien lehen lerroan esertzen ziren. Horien atzean errusiera gutxiago zekitenak. Errusierarik ezertxo ez zekitenak zetozen hurrengo. Hor, ohiko vietnamdarrez gainera, ikasle batzuk Frantzian legionario ibiliriko europarrak ziren. Horiek Viet Namgo askatasunerako gerran, 1954ko martxoaren 7an, Nguyen Giap generalak Dien Bien Fu-ko borrokaldian atxilotuak ziren, gehienak frantses, aleman eta italiarrak.

«Asiarren pentsaera oso berezia da –esaten zidan Jurik harriduraz–. Beren herria inbaditu zieten mertzenario eraile haiek preso hartu eta berehala fusilatu beharrean, –zalantza eta gupidarik gabe errusiarrok egingo genukee-

nez– vietnamdarrek oso bestela jokatzen zuten». Gerra zela eta, garai hartan Viet Namen soldadu asko hil eta andre alargun ugari zegoen. Legionario preso haiek, oro har, gizon gazte eta sendoak ziren. Hortaz, vietnamdar gobernuak aukera ematen zien: berehala fusilatzea ala emakume alargun haiekin ezkontzea. Batek ere ez omen zuen pelotoiaren aurrean pausatzea aukeratu. Edonola ere, ikasle aski basatiak ziren legionarioak, eta Zytsar irakasleak, gizon garai eta sendoa bera, haien arteko borrokak maiz baketu behar izaten zituen... ukabilka!.

Azkenik, ikasgelaren atzerengo aldean, Viet Nameko leku urrun eta menditsuetako etnietako kideak kokatzen ziren, ez errusiera ez eta vietnamiera askorik ere zekitenak. Eta, irakasteko, maisuak honela jokatzen zuen: Juri Zytsarrek lehen ilarakoei eguneko gaia errusieraz, frantsesez eta alemanez azaltzen zien. Horiek, irakasleak esandakoa atzeko lerrokoei vietnameraz itzultzen zieten. Beroriek, atzeragokoei bertako beste hizkuntza batez, eta horrela segi, irakaspena azkenenganaino heldu arte. Juri gizaixoak aitortu zidan, behin eta berriro egin behar izaten zituela kontrolak, lehen lerrokoek entzundakoa azkenengana benetan nola heltzen zen jakiteko. Horregatik, noski, maiz beharrezkoa izaten zen gaizki ulertuak zuzendu eta dena behetik gora berriro hastea.

Vietnamgo egotaldian, Zytsar pozik gelditu zen lorturiko ondorioekin, ikasleek errusiera maila aski ona lortu zuten eta. Berak ere ez zuen aukera hura galdu vietnamera neurri bateraino ikasteko, eta horrek ondo lagundu zion hizkuntza tipo ezberdinez zeukan esperientzia handitzera. Geroago, bertan egindako lan bikainaren esker onez, Vietnamgo Zientzien Akademiak ohorezko kide izendatu zuen Juri Zytsar.

Euskaraz sakontzeko gogoak Koldo Mitxelenarekin postaz harremanak izatera bultzatu zuen, eta beren artean luzaroko gutuneria trukatu eta tratu emankorrak izan zituzten, batez ere 1968tik aurrera. Gauza jakina denez, garai hartan Mitxelenak errusiera ikasten ziharduen eta Jurik, errenteriarrak inoiz bere lanetan zeharka aitortzen zuenez, zalantzak argitzen omen zizkion. Harreman horien ondorio dira, bestalde, Juri Zytsarrek *Fontes Linguae Vasconum*-en eta *Euskera*-n argitaratu zituen artikulu batzuk, euskararen eta kaukasiar hizkuntza batzuen ustezko kidetasunez.

Euskararengana zeukan interesa ikusita, Arnold Txikobavak, georgiar akademiko eta hizkuntzalari ospetsuak, Tbilisiko Unibertsitatera joatea proposatu zion. Jurik eskaintza horri ongi iritzi zion eta, bere emazte Nina eta beren bi semeekin, Vladimir eta Alexei-rekin, Georgiara joan eta bertan jardun zuen ia hogei urtez linguistika eta euskara irakasten, euskal ikasketak sendotuz. Garai hartan Georgiako Sobietar Errepublikako Hizkuntza Akademiak bazeukan euskara ikertzen hasteko asmoa, eta, helburu horrekin, J. Zytsar Errusiatik Georgiara irakasle eramateaz gainera, Euskal Herriko beste norbait ere haraxe gonbidatzeko gogoa zegoen.

Hori dela eta, 1977. urtean, uztailaren 11-12an Georgiatik ordezkaritza bat bidali zuten Euskal Herrira, Xota Dzidziguri akademikoak eta Ilia Tabagua historialariak osatua, gobernu zentralaren gainbegiratzaile batekin batera[4]. Bilbora heldu eta, Luis Villasante euskaltzainburua ikusteko, Jose Antonio Arana Martija euskaltzaina eta biok Arantzazura joan ginen sovietarrekin. Han batera bazkaldu eta luzaro elkarrizketan izan ginen, geure artean aita Lasa frantziskotarra genuela. Arantzazuk harriturik utzi zituen bisitari sobietarrak, paisaiaren edertasunaz gainera eliz arkitekturaz zituzten ideia tradizional guztiak hausten zizkielako.

Hurrengo urteko maiatzean Tbilisira neu joan nintzen, Georgiako Zientzien Akademiak gonbidaturik, georgiera ikastera. Hantxe ezagutu nuen Juri Zytsar irakaslea. Gogoan dut, Greta Txantladze andre euskaltzaleak aurkeztu zidala bera. Jurik Tbilisiko Unibertsitatean, Filologia Fakultatean irakasten zuen. Kartveliar Filologiako georgiar eta abkhaziar ikasle asko zituen eta euskara ikasteko gogo handia zeukaten, gure hizkuntzak tipologian georgierarekin daukan antz nabariagatik. Juri irakasle ona zen, ikasleei beti aurrera segitzeko eta azterbide berriak irakasteko gertu.

Gorpuzkeraz gizon luze eta handia zen Juri, begi urdin argikoa, eta itxuraz behintzat, isil eta serioa. Georgiar ikasle batzuen ustez, izaera «errusiarregia»

---

[4] Gainbegiratzaile hori, edo zehatzago nahiago bada, komisario politikoa, ukrainar jatorriko gizona zen, eta Viktor Bondarenko zeritzon. Ilia Tabaguak azaldu zidanez, Bondarenko, Atzerritar Arazoetarako Sailekoa, pertsona atsegina eta bide-lagun ona gertatu zen, eta espainiera-errusiera itzultzaile trebea izateaz aparte, ez zien inolako oztoporik jarri bidaia osoan. Geroago jakin nuenez, Tabagua bera ere poliziakidea zen, baina beti ere tratu egokia erakutsi zidan, edozertan laguntzeko prest.

zeukan, kartveliarren nortasun hegoaldetar eta kanporakoiagoarekiko kontrastean. Gainera, haren deitura Errusian ez zela ohikoa ikusita, zenbaitzuek jatorriz judua izan zitekeela susmatzen zuten[5]. Gretaren etxean eta Unibertsitateaz gainera, berarekin elkarrizketa eta ibilaldi ez gutxi egin nuen. Inoiz «Tbilisiko itsasora» ere, hots, Georgiako hiriburuaren ondoko aintzira handira[6], joan ginen elkarrekin igeri egitera, udako beroan. Aukera onak elkar ezagutu eta kontu-kontari jarduteko. Bere jaiolekuagatik eta munduan zehar eginiko ibilaldiei esker hizkuntza gutxi ezagun eta oso interesgarriak ikasteko era izan zuen. Hori dela eta, mintzaira enetzat erabat bitxi batzuen ezaugarrien berri ematen zidan.

Konparaketa mailan, aipatzen zizkidan hizkuntzen urruntasunagatik, Euskal Herritik orduan nekez egin zitezkeen konparazioak azaltzen zituen inoiz, eta etorki genealogiko bera izan ez arren, antzeko tipologiako mintzairak zirelako, etimologia batzuen jatorria argitzeko datu lagungarriak ematen zizkidan. Mesopotamiako hizkuntza batzuk ere ongi aztertuak zituen, sumeriera, adibidez, berorren tipologia eranskari eta ergatibodunak georgiera eta euskararekin izan zitzakeen loturagatik. Arlo batzuetan espezialista oso ona zen Zytsar, hizkuntzen zenbatzeko sisteme-

---

[5] Haren jaioterrian, Kuibyxev-Samaran, Juri jaio zenean 7.000 judu inguru (orduko populazioaren % 4 inguru) bizi izan arren, eta bertako sinagoga zoragarria gora behera, nik dakidala behintzat Juri ez zen judu familiakoa. Berak behin kontatu zidanez, bere ustez *Zytsar* deitura alemanezko *Ritter*-etik etor zitekeen, hemen hitz gutxitan azaltzeko hain erraza ez den eboluzio baten bitartez. Errusian, pertsonaren izenaren ondoan eta familiaren egiazko deitura baino lehen, aitaren izenetik eratorriko «sasideitura» jartzen da, nolabait gure «Jaun» edo erdal «Don»-en baliokidea. Gogoan izan, gainera, errusieraz «deitura» kontzeptua *familiya* (фамилия) hitzaz adierazten dela. Izan ere, errusieraz «jauna» hitzak (господин gaspadín), nobleziaren behialako maila adierazten zuen, eta gaur behintzat aski irrigarria gertatzen da gizaki bati aplikatzean. Hori dela eta, pertsona bati errespetua adierazteko, ohikoena izen propioaren ondoan aitaren izena aipatzea izaten da, *-ovitx* «semea» bukaerarekin, horrekin interesatuaren etxekoak ere ezagutzen eta kontuan hartzen direla adierazteko. Errusiar ohitura horregatik, guretzat harrigarria bada ere, Ivan deritzon aita batek Kiril izeneko bere semeari hitz egitean normala izaten da honela mintzatzea: Kiril Ivanovitx, ongi entzun esango dizudana..., hots, «Kiril, Ivanen semea, ...». Bestalde, juduen artean Testamentu Zaharreko izenak ipintzeko ohitura oso errotua egon da, eta ez da oso sinesgarri judu-familiako batek *Vladimir* «Munduaren edo Bakearen jabea» bezalako izen eslaviar peto-petoa eramatea, Juriren aitak zeukan bezalakoa.

[6] Georgieraz *tbilisis zyva* deitua.

tan adibidez. Era berean, euskarari buruz anitz galdera egiten zizkidan, bere dudak argitzeko.

Begien bistan zegoen sistema komunistak azken hamarkadetan jarririko horma kultural eta politikoengatik, zientziari zegokionean ere, A. Txikobavaren salaketa eta ahaleginak gora behera, eremu batzuetan hango hizkuntzalaritzak oraindik Niko Marr-en estadialismo famatuaren eraginpean zirauela[7], eta oinarrizko ikuspegi batzuetan ezin gintezkeela bat etorri. Orduan tubalismo usaineko hipotesi batzuek bizirik zeuden oraino (hizkuntza jafetikoak, nostratikoak etab.), mendebaldean inork ere serioski kontuan hartzen ez zituenak.

Edonola ere, kasu batzuetako zalantzak eta eskeptikotasuna gorabehera, solaskide aditu eta atsegina zen Juri, eta, bat ez gentozenean ere, ez zen erraza harekin haserretzea. Itxurazko errusiar hartz malenkoniatsuaren larruaren azpitik arima handiko eta umore oneko pertsona zuhurra azaleratzen zen, inguruko lagunak ulertu eta laguntzeko prest. Esango nuke bera ezagutu eta tratatu dugun guztiok horretan bat etor gintezkeela.

Tbilisiko Unibertsitatean euskarazko eskola batzuk ematera gonbidatu nindutenean Juri bera ere bere ikasleekin etortzen zen, eta galde, ohar eta zehaztasun interesgarriak egiten zituen, egoki bezain sakonak.

Hizkuntzalaritzaz ez eze, literaturaz ere kezkaturik zebilen J. Zytsar, batzuetan kezkatuegi, eta sentiberatasun berezia zeukan poesiarako. Hori dela

---

[7] Niko Marr georgiar hizkuntzalariak (1864-1934), marxismoa, politikan ez eze, zientzia formaletan ere aplikatzeko ahaleginak egin zituen, matematika, fisika edo hizkuntzalaritza, adibidez, klase-borrokaren ikuspegitik garatzeko modurik balego bezala. Garapen-maila kultural bereko gizarte guztietan izaten diren tresneria-kidetasunaz landa ere, hizkuntza gizarte-harremanen peko produktua delakoan, Marr-en ustez, Sobietar iraultzaz gero, Frantziako proletarien frantses hizkuntza hurbilago zegoen errusieratik Frantziako kapitalisten frantsesetik baino. Niko Marr linguistaren eta Trofim Denisovitx Lysenko (1898-1976) biologo ukrainarraren mitxurinismo eta postulatu azientifikoen eraginpean sobietar zientziek desbideratze larria pairatu zuten, harik eta Arnold Txikobavak joera kaltegarri hori Stalinen aurrean salatu eta estadialismoa ofizialki gaitzetsi arte (1950). Halere, bere azken urteetan, Arn. Txikovabarekin izandako elkarrizketa batean, georgiar akademikoak, nolabait, bere kritika gogorraren ondorioz Marr-ek Kaukasoko hizkuntzez izandako zenbait ideia on baztertu eta emaitza interesgarri batzuk erabat zokoratuak izatea deitoratzen zuen.

eta, Gabriel Arestiren «Nire aitaren etxea» irakurtzean hunkiturik geratu zen. Ordu asko eman zituen poema hori errusierara itzultzen eta bere erara «birsortzen». Haren kezka, gainera, bere ikasleengan txertatzen jakin zuen, eta haiek poema bera Kaukasoko beste hizkuntza batzuetara itzuli zuten. Tamara Makharoblidzek, Salome Gabuniak eta Natela Sturuak, adibidez, georgieraz eman zuten. Itzulpen horietako batzuk Javier Oroz Arizkuren nafar irakasleak eginiko antologian argitaratu ziren[8].

1980an Euskaltzaindiak Euskalarien Biltzarrera antolatu eta Juri Zytsar gonbidatu zuen Sobietar Batasunaren ordezkari gisa. Berarekin batera, Xota Dzidziguri, Georgiako Zientzien Akademiako kidea, Salome Gabunia etnografoa eta Natela Sturua Hizkuntzalaria etorri ziren.

Hura izan zen Errusiako irakaslea Euskal Herrian izan zen aldi bakarra. Poz handia izan zuen Euskaltzaindiak inbitatuentzat antolatu zuen ibilaldietan gure Herriko eskualdeak bere begiekin ikustean. Gure gastronomia ere asko gustatu zitzaion. Getarian izandako bazkarian, sardinak oliotan dastatzean, honela esan zidan: «Gatzetan, errusiar gustura prestaturik daude: bikainak benetan», eta bertako txakolina ere, ordura arte izenez besterik ezagutzen ez zuena, biziki goraipatu zuen.

Joan den mendearen azken hamarkadan Georgian gerra zibila piztu eta bertako eskualde autonomoetan (Abkhazian eta Osetian) Errusiako gobernuak eskusartze militar nabarmenak izan zituen, georgiar agintearen aurka, aldi berean toki horien kontrola eskuratu eta bertako separatismoa bultzatzeko. Ondorioz, Georgian bizi ziren errusiarrei ingurugiroa laztu zitzaien, eta horietako ez gutxik herri hartatik alde egitea erabaki zuten. Testuinguru nahasi horretan 1990ean, estremista batzuek etxea erre zioten eta bera bere familiarekin Leningradera bizitzera joatea erabaki zuen, hots, hurrengo urtean Sankt Peterburg izena berreskuratuko zuenera. Urte berean, 1991an, berak hainbeste maitaturiko Georgiak independentzia aldarrikatzen zuen.

Behin Sankt Peterburgera helduta, bertako Unibertsitate Teknikoan irakasle aritu zen. Han, besteak beste, euskara irakatsi eta ikasleak euska-

[8] Ikus J. Oroz Arizkuren-en *Nire aitaren etxea bostehun baino gehiago hizkuntzatan.,* Tübingen-go Unibertsitatea, 1982.

raren arlora bideratzen zituen, doktorego tesia alor honetan egin zezaten. Lanpostu horretan 1995ean jubilatu arte jardun zuen.

Baltikoko hiri eder horretan Roberto Serrano euskaldun irakaslea ezagutu zuen, gaur geure artean duguna, eta elkarrekin harreman luze eta sakonak izan zituzten. Berorri zor dizkiot, hain zuzen, Juriren bizitzaren azken aldiko datu gehienak, hemendik benetan eskertzen dizkiodanak.

Errusiako eta Georgiako zientzi aldizkariez gainera, *Fontes Linguae Vasconum* eta Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarietan ere artikulu mordoa idatzi zituen. Alde horretatik, behialako sobietar eremuan euskarologia landu, haizatu eta bultzatzeko meritu ukaezina eduki du.

Euskaltzaindiaren agerkari ofizialean, hots, *Euskera*-n Zytsarren honako artikuluak irakur daitezke, beste aldizkari batzuetan idatzi zituen ugariez gainera:

– *Euskal deklinabidea*

– *Escalera de compuestos de tipo mujer-criatura en el vasco*

– *Quelques comparaisons kharthvélo-basques du domaine du lexique de l'élevage*

– *Reconstrucciones en el dominio del culto a la luna y a las animas (para la etimología del vasco «argizagi»)*

– *Sobre el pasivo vasco*

– *Sobre el rema del vasco*

– *Sobre los geminados semánticos de A. Tovar.*

Euskarari eskainitako interes eta arreta nabarmenengatik, gure Akademiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen 1992ko otsailaren 1ean. Era berean, Ukrainako Akademiak ohorezko kide izendatu zuen.

Gogoan gai asko omen zeuzkan aztertu eta idazteko, baina azken urteetan pairatu zuen gaixotasun luze eta mingarriak ez zion utzi horiek bukatzen eta proiektu ez gutxi gelditu zitzaizkion amaitu gabe.

Horrela, 2009ko ekainaren 23an hil zen, 82 urte zituela. Bi egun geroago bere jaioterrian, Samaran, ehortzi zuten, hots, jaio zeneko Kuibyxev-en. Haren bizitzaren eta heriotzaren berri ongi sentitua Roberto Serrano euskal irakasle eta kartvelologoak eman zuen GERNIKA-герника aldizkari informatikoren 6. zenbakian.

Товарищ юри: слава вам!
Juri adiskidea: Ohorea zuri!

Juanjo Zearreta Euskaltzaindian eta euskalgintzan (1947-2009)

LIZUNDIA ASKONDO, Jose Luis

Durangotik Donostiara, 2010eko urtarrila



Omenezko hilberri txosten hau, beste bosten artean, luzea ezin duenez izan, gaurkoz, dozenaerdi flashetan labur bildu beharra dut. Ez ditut errepikatuko, bestalde, zenbait komunikabidetan argitaraturiko *ZEARRETA ESKUINEKO ESKUARI OHORE* artikuluko zenbait ideia.

1. **flasha Haurtzaroa**

Juan Jose Zearreta Urgoitialdekozea 1947.eko ekainaren 10ean jaio zen Zornotzako Jauregitarren txaletean, aita, Bizente, handiki horien lorezaina baitzen eta, ama, Irene, Ereñoko alaba. Biok hiru seme-alaba izan zituzten: Asun, arreba, bi urte zaharragoa eta, Jorge, anaia, hamar urte gazteagoa. Arrebak diostanez Juanjo mutiko bizkorra zen, izaera bigunekoa eta sentimentala. Larrabideko herriko eskoletara joaten zen eta nota onak ateratzen omen zituen. Eskola lagun ugari, bi aipatuko nituzke Alberto Gurtubai: Zornotzako alkate ohia eta Juanjo Ziarrusta, duela urte bete zendu arte, Durangoko alkate izan dena.

Geroago, Jauregirenetik Kaiganeta (Kaittana) Etxanoko eskola-etxera joango ziren bizitzera aita udal alondegiko langilea zelako. Juanjo oso Larra zalea zen, hots, Karmengo santutegi zalea zen eta hango katekesiara joaten zen, eta ez Andre Maria parrokiarakoa. Horregatik, besteak beste, bere hi-

Euskera. 2009, 54, 3. 1879-1887. Bilbo
ISSN 0210-1564

leta elizkizunak ere han egin ziren. Gainera aititaren Ategorri baserri etxera, Larratik hurbil, askotan joaten zen. Hala ere, Aita Martzel Andrinua pasiotarra eskolarik eskola ibiltzen zen mutiko bila eta hamaika urte zituela Gabiriako komentura eraman zuen, han Juanjoren Ereñoko lehengusu bi zeuden aitzakiaz. Bestela, normalagoa izango zen karmeldar sartzea.

2. **Seminarista**

Esan bezala, Goierriko Gabiriako pasiotarren etxean, bainu etxe famatua izandakoa aurretiaz, sartu zen Juanjo fraidetzarako bidean, hamaika urte zituela. 1959-60an hasi omen zen batxilergoaren «preparatorio» ikasturtean. Gaztelaniaz soilik eta euskaldunez aparte gaztelau eta galiziarrak ere ikaskide. Diziplina gogorra, munduko errealitatetik kanpo, baina, hala ere, jolas ugari, bere kide batek diostanez.

Zornotzako Euban batxilergoko sei urteetan diziplina berdinarekin, ikasi asko, baita kirola ere. Juanjo futbolari bikaina omen, defentsan. Euskarazko klaseak ere hartzen zituzten eta irakasle eta ikasleen artean *BIDEZ* aldizkaria argitaratzen zuten. Handik, Araba Hego-mendebaldeko Gaubea haranean dagoen Angostoko santutegira, zeinetan nobiziatu urtea egin zuen *«ikasi gutxi, baina espiritualitatea eta diziplina topera»* idatzi didatenez. Ondoren, Tafallan urte bete eta beste bat Urretxuko komentuan filosofia ikasten, bertatik, Urola barna, Loiolara ere joaten ziren, hemen pasiotarrak eta jesuitak elkarrekin, latinez eta gaztelaniaz gehienbat, euskaraz klaseren bat edo beste. Urretxun *Laiaketan* aldizkaria euskara hutsean, irakasle eta ikasleen artean: poesia, bertsoak, idazlanak, teologia, baserri kontuak... Aldizkari hau oso interesgarria iruditzen zitzaidan, garai hartako euskararen basamortuan. Juanjok esanda dakit nola entzule gisa joan ziren, Euskaltzaindiak, Larramendiren mendeurrenkari, 1966an, Loiolan antolatu zuen Biltzarrera eta, nola, Jose Maria Lojendiok euskaltzainburu bezala amaiera eman zion biltzar akademikoari.

Fraidetzako azken urteak Deustuko San Felizisimo komentuan egin zituen, baina teologia ikasketak Artxandako jesuiten ikastetxean. Bertan ordena askotakoak zeuden, Juanjo bezala, pasiotarrak tartean. Aipatzekoa

da 1968/69 ikasturtean sortzen direla, eskatuta eta kostata, Deustuko San Felizisimo eta San Pedro parrokietan euskarazko eskolak irakasle talde baten ardurapean, oker ez banago Xabier Mendiguren, Jose Ramon Tapia eta Juanjo Zearreta ziren taldekide. Horren berri zehatzago eman dezakeenik bada gure artean, Mendiguren Bereziartu eta Rikardo Badiola, adibidez. Handik laster, ordenatu baino lehen talde handi batek utzi zuen fraidetza, tartean, Juanjok.

3. **Ekonomia eragilea**

Euskaltzaindiaren Erribera kaleko egoitza zaharrean idazkari bakar batekin ez nintzen denera iristen eta, horregatik, Juanjo Zearretarengana jo nuen eta bi lanetarako hartu. Bata, kontularitzarako eta, bestea, alfabetatze-euskalduntze lanak koordinatzeko. Bigarrengo hau, hurrengo flashean zehaztuko dut.

Erakundearen diruzain Eusebio Erkiaga 1967tik 1982ra bitartean izan zen, oso zehatza, bankuko langile on bezala, eta, lanean hasi bezain pronto Juanjo berarekin harremanetan jarri nuen. Kontuak eramatea ez zen zaila, bai ordea, dirua bilatzea eta, horretan benetan betetzen zuela bere eginkizuna, «ekonomia eragilea», alegia. Erakundeetatik ia dirurik ez, salbu Bizkaiko Diputaziotik. Horregatik pentsatu genuen «Bai Euskarari» kanpaina famatua eratzea, Akademiarentzako dirua biltzeko. Bilboko Aurman publizitate etxearen partaidetzaz euskal herrialde guztietan antolatu genuen kanpaina, hiriburu bakoitzean dohaineko laguntzaileak aurkituz. Azkenik, San Mames futbol zelaian gerra osteko euskal selekzioaren lehen partidua jokatu zelarik, Euskadi-Irlanda, hain zuzen erakundearen onurarako. «Bai Euskarari» kanpaina ezin izango zen aurrera eraman hainbeste euskaltzaleren lankidetasuna izan ez bagenu, baina, etxe barruan ere, ezinezkoa gertatuko zitzaigun Juanjoren partaidetza oparorik gabe.

1983ko hasieran Henrike Knörr sartu zen Zuzendaritzan diruzain karguarekin. Jabeturik berau ez zela ekonomia gaietan aditua Ekonomia Batzorde Aholkularia osatu zuen, zeinetan bera buru zelarik zuzendaritzakide bezala, talde bat osatu zuen: Xabier Gereño - jadanik ihardun erdiz, Euskal-

tzaindiaren kontalaria - Alberto Garate, geroago Eusko Ikaskuntzako diruzaina eta oraintsu zendu berria; Miguel Angel Redondo, Federico Gonzalez legelaria, ni neu eta, idazkari legez, Juanjo Zearreta. Zenbat bilera erakundearen diru iturriak bilatzeko: Herri Aginte berriengandik, *Orotariko Euskal Hiztegia*rekiko babes hitzarmeneko Jarraipen Batzordearen idazkari bezala; id. Euskaltzaindiaren bigarren egitasmo nagusiaren, hots, Euskal Herriko Hizkuntza Atlasarekiko; erakundeko langileen maila homologatzeko eta abar. Henrikeren diruzaintzako lau urteok oso esanguratsuak izan ziren, eta batzorde idazkariaren lana nabarmenduko nuke.

Juan San Martin 1987-88 urtebikoan izan zen diruzain. Aurreko urteetako ibilbidea jarraitzeko konfidantza osoa eman zigun eibartar euskaltzainak, batez ere Juanjori, Gereñori eta niri. 1980. hamarkadan ekonomia arloan egindako lanak, bereziki ekonomia eragilearenak mereziko luke ikerketa eta garapen propio bat.

1989an Jean Haritschelhar sartu zen euskaltzainburu eta Jose Antonio Arana Martija diruzain. Zuzendaritzaren agindupean, beti ere, baina diru kontuetan diruzainarenean, ekonomia eragileak, Juanjok alegia, eraman zuen diru gestioen zama. Astero hirurok biltzen baginen ere, nire lana, idazkariorde gisa, gehiago zegoen erakunde kudeaketa eta antolakizun orokorrera murgildua.

4. **Alfabetatze & Euskalduntze Koordinakundea (A.E.K.)**

Arestian esan bezala, Zearreta Euskaltzaindian lanean hartu nuen bigarren zeregina, noski, Luis Villasante euskaltzainburuaren eta Juan San Martin idazkariaren onarpenarekin, alfabetatze kanpainen eta hasi berri ziren euskalduntze ikastaroen ardura hartzeko izan zen.

Aurrerago, Bilbon eta inguruan zenbait alfabetatze eta euskalduntze klase eratuz gain, 1970.eko udan Irakasle Talde Batek, zeinetan zegoen Juanjo Zearreta, hiru barnetegi antolatzen ditu**:** Markinan, Oñatin eta Baztango Lamiarrietan. Lehen bietakoaz ondo gogoratzen naiz, tramitazioak egin behar izan nituelako bai eta hitzaldi bana eman ere. Irakasleen artean Juanjo

Zearreta agertzen da, eta beti oroitzen zen nola neuk esan nien Markinan egun horretan hautatu zela euskaltzainburu berria, A. Luis Villasante.

1971 urtean ere barnetegi gisa bi ikastaroen irakasle eta antolatzaile gisa agertzen da Juanjo Zearreta, uztailean, Zizur Txikian eta, abuztuan, Leitzan. 1972 urtean ere Zizur Txikian hasi zuten lehen ikastaroa, baina, bigarrena eten egin zuen poliziak, Nafarroako Gobernu Zibilean egin genuen eskariari honelako ukatze xelebreaz erantzun baitzuen agintariak: *»dicho inmueble* (Colegio del Verbo Divino, alegia) *no está autorizado para el ejercicio de la industria de hospedaje* (barnetegi gisa omen), *por cuyo motivo no me es posible acceder a lo solicitado.»* Bilboko lasalletarren Santiago Apostolen jarraitu zuen ikastaroak. Hemen ere, irakasle eta antolatzaile, Zearreta.

Bizkaiko alfabetatze kanpainei dagozkienez legezko tramitazioak eta hitzaldi solteak salbu, Juanjoren eskuetan lagata nuen koordinazio eta antolaketa ardura. Gauza bera euskara irakasteko ikastaroena «euskalduntze mugimendua» deitzen hasi berria. 1970-71 ikasturtean izan zela uste dut; uste, zeren eta, Juanjok behin baino gehiagotan deitoratzen zuen legez, Deustuan Euskadiko Kutxak lagatako egoitza erabili zuten azkenengoek, seguru asko, nonbaitera eraman eta gorde baitzuten AEKren artxiboa. Horregatik onartezina deritzot bera hil eta aste betera prentsan agertutako elkarrizketari, zeinetan, elkarrizketatuak AEKren buruzagitza bereganatzen zuen, mugimendu horrek «testamentu berria» bakarrik izan balu bezala. Jakin ezazue, Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundearen agerraldi publikoa ez zela 80 hamarkadakoa, aurrekoa baizik eta, oker ez banago, 1975 urtean eta, konkretuki - ongi gogoratzen dut, Euskaltzaindiaren izenean tramitazioa egin nuelako - «Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro»/Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoaren egoitza nagusian, hain zuzen, Bilboko Mazarredo zumardian. Nor zen bada koordinakunde taldearen arduradun, irakaslez gainera? Juanjo Zearreta.

Testugintzan talde bateko egileetariko bat izan zen, baina eragile lehena izan zela baieztatuko nuke. Liburuki baten edo denetan taldekide izandakoen izenak hauek dira: Jon Aurre, Ricardo Badiola, Sabin Egileor, Jose Ramon Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Juan Ignacio Intxaurraga, Jon Juaristi, Xabier Kintana, Juan Legarreta, Jose Antonio Munduate, Joseba

Tobar, Juan Jose Zearreta eta Koldo Zuazo. Talde honen emaitzak hauek izan ziren: *Euskalduntzen – 1* (1972), *Euskalduntzen – 2* (1973), *Euskalduntzen – 3* (1973), *Alfabetatzen – 1* (1975), *Euskara: Hizkuntza Ariketak* (1976), *Euskal Hiztegi Modernoa* (1977), *Sortzen- 1* (1978).

5. *Jagon* Saileko zereginetan

Erakunde honen Jagon Sailak askok uste duten baino historia oparoagoa du, hasi 1919an Campion eta Broussainengandik eta gaur arte. 1980. hamarkadara mugatuko naiz, zeinetan Juan San Martin Jagon sailburuaren urteetan Juanjo Zearretak eman baitzituen bere emaitzak euskalgintzaren mesedetan.

Alde batera utzirik alfabetatze-euskalduntze arloa, hau ere Jagon sailekoa baita eta deskribatutakoa, beste hiru eginkizun azalduko ditut: 1. Euskaltzaindiaren irakasle A, B, D, tituluak eta, gero, EGA bihurtuko zena, Irakaslego batzordean kokatua, geroago, Azterketena deitua; Bertsolaritza batzordea eta Oinarrizko Euskara batzordea. Hiruotan lan egin zuen Juanjok.

